


Inozentzio Olea
I

Ostiraleko kronika

Segura Irratian
(1988-1992)





Inozentzio Olea Gipuzkoako Goierrin jaio zen, Zeraingo Mendarte baserrian, 1921eko abenduaren 28an. Soldaduzka egin eta Legazpiko Patrizio Etxeberrian hasi zan lanean, 1945ean.

1950eko ekainaren 10ean ezkondu, eta Legazpin jarri bizitzen. Semea eta alaba izan zituzten. Herri honetan gustora bizi bada ere, ez dauzka saltzeko bere jaioterria eta Aizkorrieko herriak. Erraz eta sarri aipatzen ditu Zerain, amaztearen jaioterri den Zegama, Segura, Azitiria, Idiazabal, eta abar.

Zeruko Argia eta *Goiz-Argi* astekarietan, eta Donostiako *La Voz de España* eta *Diario Vasco* egunkarietan idatzi du, inoiz bertsotan inoiz hitz lauan. Eta horiez gainera, *Goierriko lorak* (Auspoa 98-99 - 1970), eta *Otemotxeko arnasa* (Auspoa 173 - 1984) bertso liburuak argitara eman ditu. Hitz lauan egindako artikulua asko han eta hemen sakabanaturik dago. Bildu eta argitara emango al dira noizbait.


Inozentzio Olea

I

Ostiraleko kronika

Segura irratian

(1988 - 1992)



AUSPOA



SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Inozentzio Olea

I

Ostiraleko kronika
Segura irratian
(1988 - 1992)

Hitzaurrea, begiraketa eta bateratzea

JOXEMARI IRIONDO

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-59-0

Legezko gordailua: S.S.-1298/02

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz (Gipuzkoa)

Irakurleari:

*Entzuna irakurri
zale bazerate,
aukerik ederrena
etorri zaizute.
Auspoa liburuak
eskeintzen dizute.
Ni ere serbitzeko
emen naukazute.
Gusto badezute
artu ezazute,
eta ase arte
saiatu zaitezte.
Euskerarentzat ez da
izango kalte.*

Hitzaurrea

Inozentzio Oleak Segurako irratian ostiral eguerdiko ordubata Inguruan ematen dituen kronikak, karpeta batean bilduta eman zizkidan Joakin Berasategik aurtengo udaberrian, tarterik nuenean urtez eta egunez ordenatu eta Auspoan argitaratzeko prestatzen. Baietz esan nion, itsu-itsuan. Izan ere, horretarako arrazoiak banituen. Aspaldiko ezaguna eta lagun zaharra da Olea neretzat. Oraintxe berrogei bat urte ezagutu nuen. Eta geroztik hamaika aldiz bildu eta elkarrekin kontu kontari egon gera, edonongo jaialdi edo ospakizunetan. Baita irratian nahiz Legazpiko Ilintxa elkartean Inozentzio eta bere lagunarte-eskolako bertsolari –Bittor Agirre, Iñaki Azaola, Alberro etab.– legazpiarren saioak zintan jasotzen ere, gero irratic emateko. 1962an hasita Loiolan egin ohi genuen Bertsolari gazteen sariketan ere ez zuen hutsik egiten, igande eguerdiko irratsaioa arretaz entzun ondoren bertso bat edo bitan astero-astero botoa emanez. Azkenengo jaialdi egunean, Txapel, Ibai-ertz, Juan Goikoetxea eta Patxi Larrañaga zenarekin batera epai-mahaiko lanak egiten zituen Azpeitiko Zelaitxo eta Azkoitiko Baztartxon. Kontuak hortik atera, bada.

Zeruko Argia eta Goiz-Argi astekarietan, eta Donostiako La Voz de España eta Diario Vascon argitara emandako bertsopaper eta kronikak ere beti irakurri izan nituen gogo onez. Idazle atsegina da, izan ere. Alabaina, ez nuen ezagutzen irratiko kronikalari lanetan, orain arte behintzat. Orain bai, orain ezagutu dut. Baina ez nau batere harritu. Ostiralero irratic egiten zuen/duen

bere saio bakoitza tekleatu, eta behin eta berriz gainbegiratzean, ez dut Inozentzioren alderdi ezezagunik aurkitu. Lehendik eza-gutzen nuen Olea hitz-jario ederreko eta begi zorrotza, entzulea-ren bihotza samurki ikuitzen dakien kontulari egoki eta ironiaz betea, han eta hemen irakurri edo entzundako gai bitxienak hartu eta ondo sortatzen dakienarekin topo egin dut, berriz ere. Bertso-saio baterako gaiak prestatzekoan bezelaxe, entzuleari irrifarre gozoa egenerazteko, edota zer pentsatua emango dioten gaiak aukeratzen ditu bere irratsaierako. Ez, noski, irratiko albistegi edo egunkarietako informazio orrialde nagusietan aipatu ohi diran berebiziko albisteak. Bai ordea kontakizun mamidunak, bitxiak, hurbilak, gazi-gozoak, bereziak.

Horiez gainera, bere jaioterri Zeraingo plazako arte haundi ikusgarri ura, haurtzaroan jaiotetxeko sukaldeko leihotik aurrez-aurre ikusten zuen Segurako erria eta madura bikaina sarritan aipatzen ditu. Edota garaian garaiko herrietako zaindari jaiak gogoan, Zerain, Segura, Zegama, Idiazabal, Aztiria, Legazpi, Brinkola, Telleriarte, Zumarraga eta Urretxu, Oñati eta inguru-marikoak urtero gogoratzen bere kronikan. Baita Santa Barbara baselizako hazi eta abereen bedeinkazio-elizkizunak, *maiatzeko loreak* izeneko elizkizunetik etxerakoan neska-mutillen arteko solasaldi gozoak, gaztetako neska-laguntze eta atariko intxaurpean illargiaren argitan neskarekin egindako hitz-aspertu ederrak ere. Eta gaur eguneko gaupasak kritikatu dituzte, abuztuko opor-rrak eta Gipuzkoako Ama zaindariaren bederatziruena eginez Arantzazura oporretara joaten diran aitona-amonak aipatzen, zuzen asko. Baiña batez ere, bere zaletasun haundienetako bat nabari zaio urriko hegohaizeak jotzen duenean, bistan danek. Izan ere, aztoratu eta egunsentia baino lehen mendirako irrikatzen dagoen ehiztaria da kronikalari bera ere, eta erdihasarre etxean geldituko dan emazteari erruki pittin bat eskatzen dio, eskuzabala izatea ederra dala gogoratuz, gero usotarako garaia

pasatzen danean etxeko lanetan laguntzeko prest egongo dela aginduz.

Baina bere irratsaioan beti sukaldeko lanetan buru-bihotz lanean eta irratia entzuten imajinatzen duen etxekoandreak ari zaio, umore puntu bat eskainiz.

Garaian garaiko gaiari bete-betean datorkion hamaika esatera zahar ere gogorazten digu Inozentziok ostiraleko kronika hauetan, eguneko saioari eta jardunari lotzeko ondo datorkiola-eta. Eta iru-lau minutuko berriketaldian eguneko gaiaren aipamena egin ondoren, bizpahiru bertsotan bere moraleja eransten dio saioari, garai batean Basarri bertsolariak egin ohi zuen bezalaxe. Izan ere, badaki horrela emandako mezua entzuleak oso pozik jasoko duela.

Auspoako irakurleak badaki hemen berriro errepikatu beharrik gabe ere Inozentzio Olea bertsojartzaile fina eta egokia dala. Bat-bateko bertsotan oso ondo moldatzen da, batez ere lagunartean. Zirikatzaile zorrotza izaki, ingurukoari ezten ederrik botako dio. Halare, idazten hasten denean, maisua da. Etorri eta iturri onekoa, oparoa, erreza, argia. Bertsoa berez datorkio, batere behartu gabe. Euskera ona du, bere kasa ikasi eta landua. Ez dago astekari eta egunkarietan argitara eman dituen idatziak, edo bere *Goierriko lorak* (Auspoa 98-99 - 1970) eta *Otemotxeko arnasa* (Auspoa 173 - 1984) irakurri besterik. Iñaki Eizmendi *Basarrik* Olearen lehenengo liburuaren aurkezpenean idatzi zuena datorkit gogora: “ Bertso txukun eta fiñak dira bereak, baiña erri kutsurik galtzen ez tutenak. Edozein bertsozaleren eskutan jarri ditezkeenak. Apaiz edo sendagilleak bezin errez miliskatuko dituzte artzaiak, eta osoro ulertu eta duten zumu guttia aterako. Emen dago, nere uste apalean, bertsolariaren meriturik aundiena...”.

Nekez asper naiteke gaur hemen astirik izan dudanero nere ordenadorearen aurrean jarri eta behin eta berriz, esaldiz esaldi

irakurri eta berridatzi dudan kronika-sorta honi buruz hitz egi-
ten, nere bihotz eta miresmenaren zati haundia eskaini diot-eta.
Alabaina, lehen entzule eta orain irakurle zindezkeen horrek, hobe-
ko duzu Olearen kronika-bilduma eskuetan hartu eta egunean egu-
nekoa irakurri patxaran, aztertu eta gozatuz, hemen atarian nerekin
berriketan aspertu baino. Hamar urteko gorabeherak astez aste ira-
kurtzen hasten zeranean, honezkero ahaztu duzun hainbat pasadizo
gogoratuko duzu, seguruenik. Kronika batzuk besteak baino gehia-
go gustatuko zaizkizu, agian. Bai, ba. Sagarrik onenak ere ez bai-
tira denak gozotasun berdinekoak izaten.

Inozentziok bere eskeintean dioen bezala, “Gusto badezute,
artu ezazute, eta ase arte saiatu zaitezte...”.

Joxemari Iriondo
2002ko urria

1988

**bein bai, baiña berriz ez
Ardo onak urik ez**

1988ko urtarrilak 1

Egun on, eta urteberri on.

Zer moduz joan da, ba, San Silbestre eguna? Joan dan urteko gorabeerak aztertu al dira edo, zertan gera urtea bukatu ondoren? Beti, eta besteri entzunda, ez dirudi urteari ain gaizki agur egin zaionik, gaur motel antzean baldin bagaude ere. Urteberri eta orrelako egunak, botikarioentzat onak izaten dira. Aurreko egunetan, eta batez ere gauetan, zelebren samar ibiltzen omen gera nunbait eta, ondoren, aspirina eta antzeakoak egundoko salmenta izaten omen dute.

Gizon bat ezagutu nuen oso argia. Alai eta iztuna zan benetan. Ez zan ain gaizki bizi baiña, zorioneko ezkondu bearra eta, ala, ezkondu zan. Gaua goxo-goxo pasatuta, goizean jeikitzean, ala esan omen zion emazteari:

– Ta, orain prakak zeñek jantzi bear ditu, ba?

– Ara beste itxularrosa, berriz? –esan omen zion emazteak–. Prakak zuk jantzi bearako dituzu beintzat.

– Jantziko ditut, bai; baiña beti nik janztekotan, e?

Ezkonberri aiek alaxe artu zituzten bere asmoak, bizimodu berriari ekin ziotenean. Luzaro baiño leñ, galtzak berak jantzen bazituen ere, etxean etzuen gizonak agintzen. Emaztea ain aldrebesa ez baiña, beste askoren moduan, matxarda samarra izan, eta azkenengo itza berak esaten zuen geienetan. Gure artean ere bat baiño geiago izango dira edo izango gera urte berrirako asmoak artuta. Gaur beintzat, bai. Batek gaitz egiten digula eta besteak ez digula on egiten, beti onela ezin ditekela eta abar, beste bide bate-

tik abiatu bear degula esango degu batek baiño geiagok. Badaukagu zer egiña eta zer zuzendua. Beti ez degu asmatuko baiña, batzutan aspirina eta beste patzutan pazientzia artuz, ea urte berri onetan guretzat eta ingurukoentzat bizimodua apur bat leuntzen saiatzen geran. Gure asmoetan erorialdiak izango ditugu, ori bai. Eta etorri zaigun urte au, ea joan dana bezain ona edo obea izaten dan. Geu onak baldin bagera, urtea ez da txarra izango.

Urte bikain bat izan dezagun
artu erabaki onak.

Une alaiak izango ditu
barrutik lasai dagonak.
Ez dezaigula etseiarazi
iñoiz kezkatu egonak,
ori onela izan ezean
ez baigiñake gizonak.

Ondo jakiñik zabarkeritik
nolako gaitzak datozen,
saiatu gure ingurukoak
gurekin poztu ditezten.
Mundu onetan al dareraiño
itxuraz bizi gaitezen,
beti aldrebes ibilli gabe
eldu urteari zuzen.

1988ko urtarrillak 8

Aurtengo Gabon jaiak eta jai ondorenak joan zaizkigu. Egun on, alai eta pozgarriak izaten dirala eta orrelakoak esaten ditugu. Guretzat bai, jan eta lo besterik ez degu egiten esate baterako-eta. Baiña etxekoandreraren bat edo beste egongo zan, bearbada, joanda baleude naian. Pixka bat atsedentzeko gogoarekin beintzat, bai. Orrenbeste jai bata bestearen ondoren izateak, lan asko sortzen du, batez ere amarentzat. Seme-alabak sasoi ederra bai lagun egiteko, baiña onelako egunetan oso nekatuta egoten dira, eta zeñiek oetik atera? Aitak berriz, etxeko lanetarako tajurik ez du izaten, eta sukaldean pakea ematea obe. Artara ez du aitzakirik izango.

Erregeak ere izango ziran, ba? Zer moduz portatu dira aurtengo onetan? Aurak medikuak ekartzen zituenean, berebiziko

ilusioarekin egoten ziran Erregeen zai. Orain emen jaiotzen dira ordea, eta begiak zabalik dituztela, gaiñera. Badakite errege aita eta ama dirala, eta leen baiño ilusio bat gutxiago. Eskatu bear dutenean ez dira orregatik atzera gelditzen!

Datorren igandean *Astotxo Festa* ospatuko dute Lazkaon. Irureun eta ogeita amasei urte omen dira leenbiziko aldiz ospatu zutela. Ez da moda berriko festa, ondo gordetzea merezi duena baizik. “Ama eta aurra artu itzazu, eta zoaz Egiptora!”, esan zion aingeruak San Joseri. Herodes bildur, nunbait, Jesusek erregetza kenduko ote zion, eta Belen eta inguruko aurrak iltzeko agindua eman zuen. Makiñatxo bat amak sufrutuko zuen, alako errege kairuaren mende! Erregea zala eta dana libre zuela usteko zuen, baiña ura ez ote zan terrorismoa? Ikusten danez, arrokeria, agindu naia eta beste guztiak zapaldu bearra ez ditu gizonak atzo goizeko akatsak. Berea egitearren iñori kalte egiteko kezkarik ez, eta edozin iltzeko prest.

Bi milla urte joan dira ori gertatu zanetik, baiña gizonok leenean jarraitzen degu oraindik. Mundu zabaletik etortzen diran berriak ala diote beintzat; eta, emen eta an, nunani ere naiko lan.

Lazkaoko *Astotxo Festak*, batek bestea izutu gabe pakean bizitzen erakutsi bear liguke. Kaltetarako bestetarako ez diran ikamikak utzita, mundu oni alaitasunaren aldetik eltzen ikasi bear genduke, leengo bertsolariak bezela. Txirrita zan ortan mutilla.

Berak alaxe naita bizia
eman zigun Jaungoikoak.
Bai beste doai batzuek ere
guk zaindu bearrekoak.
Baiña danak ez errespetatzen
gizon arteko jokoak,
mundu onetan asko bai gera
Herodesen antzekoak.

Gizona gizonarentzat otso
zala asmatu zuanak,
ondo begien aurrean zeuzkan
gizonaren griña danak.
Gorroto eta ase eziñak
ematen dizkigu lanak,
eta askotan nozitu bear
errurikan ez duanak.

Urruti samarreko kontuekin nator gaur. Esaten diranak egiak baldin badira, gizasemeok geureak ikusteko gaude. Istillu gorriak ikusteko gaude. Aurrerapenak eta aldaketak beste toki batzuetan sortu oi dira, baiña iristen dira onuntza ere. Nazio aundietatik datozen berriak diotenez, emakumezkoak gorakada gogorra ari dira egiten eta, jakiña, aiek zenbat eta gorago igo, gizonak orduan eta beerago geldituko gera. Zapaldu egin bear gaituzte. Ez al du onek bildurrik ematen? Neri bai beintzat.

Ipar Amerikan, gizonezkoak baiño amar milloi emakumezko geiago izango dira aurtan. Bateren batek esan du onezkero: a ze nolako aukera ango gizonezkoentzat! Zaude ortan. Botoa eman bear dan orduan, bakoitzak bere aldera emango du. Gizonen asmoak nun geldituko diran ez dago esan bearrik, eta legeak zeiniek egiten dituen, emendik aurrera ikusiko da ederki.

Ipar Amerikan saltzen diran kotxeen erdiak, emakumezkoak erosten dituzte. Unibertsidadeetan karrerak ikasten ari diranen ia erdia, emakumezkoak dira. Gauzak onela dijoaztela, denbora gutxi barru ango sendagille, abogadu, epaille, ministro eta nik ez dakit zer, geienak emakumezkoak izango dira. Gure asko-usteak toki ederrean gelditu bear dute oraindik, argi ibiltzen ez bagera. Gizonezkoak aurki gera gure eskubideen alde manifestazio edo diralakoak egin bearrean.

Ikasten eta lanean oso trebeak izanik, emakumezkoak gizonak aiña diru irabaztera iritsi dira, gaiñera. Onekin ez naiz asko arritzen. Lana eman bear duenak, oraingo ille luze bizartsuei baiño gogo obearekin emango dio ederki orraztuta, apurtxo bat pintatuta lan eske dijoan neska gazte irripartsu politari.

Dirua irabazte orrekin berriz, emakumea bere buruaren jabe izatera iritsi da, eta ez du inguruan gizon bearrik. Frantzian, lau milloi emakume bizi omen dira gizonik gabe, bakarrik edo katu

bat laguntzat dutela. Ezta egongo aietara aukera egitera joan besterik! Baiña au okerragoa da oraindik: Gizonezko batek ezbearez sudurra galtzen baldin badu, aseguroak 49.000 pezeta ordaintzen omen ditu. Baiña sudurra galdu duena emakumezkoa baldin bada, 112.000 pezeta. Emakumeen sudurrak gureak baiña politagoak dirala badakigu, baiña prezioan orrenbesteraiaño alderik bear ote zuen?

Ia gureak egin du,
badegu zeiniek agindu.
Emakumeak gora
ta gizonak zokora.
Irriparra ezpaiñean,
laister ditugu gaiñean.

Ia gureak egin du,
badegu zeiniek agindu.
Gizonok ia gaude
emakumeen mende,
asiak baztarreratzen
ta ez gera konturatzen.

Ia gureak egin du,
badegu zeiniek agindu.
Len gu giñan nagusi,
baiña makilla autsi.
Orain dira komeriak:
joan dira arrokeriak.

1988ko urtarrilak 22

Gure on bearrez eten gabe saiatzen danik iñor baldin bada, sendagilleak dirala esango nuke. Ikerketa lanetan edo inbestigazioan jarduten diran sendagilleak, batez ere. Karrera bukatu arren, gauza geiago eta berriak nundik jakingo saiatzen diran medikuak, alegia. Oieri esker, leenago erremediorik etzuen gaitz asko, gaur ez ditugu aintzakotzat ere artzen.

Badira gure artetik oso ezkutatu diran gaitzak ere. Etzuten batere paltarik egiten, eta joan ditezela ondo. Gure ondorengoak, guk pasatutako zenbait gaitzen aztarnarik ere ez daukate, eta ala obe. Gure aldean ate zabaletik sartu ziran mundu onetara gure seme-alabak.

Esan bezela, sendagille saiatuak badira. Eta saiatzen danak beti egiten du zerbait. Mediku jaun oien azkenaldiko lanak erakusten dutenez, osasunerako udan lana egitea ohea da neguan egitea baiño. Udan lana egin eta neguan atsedean egingo bagendu, osasun ohea izango gendukeela, alegia.

Sendagilleen esanetara jartzea ez da ordea beti ain lan erreza izaten. Zuztarrak ondo egindako milla oitura dauzkagu, eta oiek danak nola aldatu? Uztapide zanak esan oi zuenez, gorputzak komeni etzaizkion gauzak eskatzen dizkigu beti. Beraz, geure buruari gogor egin bear, eta ori latza da. Sendagilleak esaten digutena egingo bagendu obe genduke, noski. Baiña zeiniek menderatzen du gure gorputz koskor au? Pantasi pixka bat ere izaten degu-eta, onek ere ematen dizkigu bere lanak. Or, esate baterako, udan oporrak artzeko oitura. Udan lana egin eta ez dago or zear joanda eguzki-kolorea artzerik. Auzoko eta lagunei nola adierazi gu ere oporraldi bapo batzuk igarotzeko lain bagerala?

Oporrak neguan artzea gorputzarentzat ona izan diteke, geiago atsedengo bai genduke, baiña medikuak esaten duten ori egitea zail samarra ikusten det. Mundua azpikoz gora jartzea izango litzake. Kanpoko berri zerbait jakin nai izatea ere bidezkoa da, eta negua ez da garai aproposa ortarako. Diru-irabazte edo interes askoren ardatza da, gaiñera, uda.

Neguan elurrez estalitako mendiak politak izango dira. Udan ondartzak ez al dira politak?

Neguan nola oporrak artu
udararen zai dagonak?
Lan utsetikan ez dauka ondo
bizitzerikan gizonak.
Zer balio du zerbaitegatik
beti sufritzen egonak?
Eun urte txarrak baiño obe da
larogei ta amar onak.

Udaran lana egin obe da,
ala esaten digute.
Baiña orrela egun ederrak
galdu ditezke, nik uste.
Neguan artu oporrak eta
zertarako bizi triste?
Ondartzetako edertasunak
kalte egiten al dute?

1988ko urtarrilak 29

Erosotasun edo komodidadea maite izaten du gure gorputzak, baiña zaildu gabe ezer gutxi lortzen da bizitzako edozein arlotan. Eta kirol edo deportean gutxigo.

Udak bere egun beroetan lasaitasunera bultzatzen digu, baiña badira neguari etekin ederra ateratzen dioten gazteak. Kirolerako zaletasun aundia dago gaur gure gazteen artean, zorionez. Noiznai ikusten dira, eguna eskolan igaro ondoren, kiroldegietan ordu batzuk sartzen dituzten gazteak.

Garai batean, pelotalekuan tokia edo txanda arrapatu zai egoten giñan. Gaur ez dago orrelakorik. Euskalerriko erakundeak, Foru Aldundiak aurretik dirala, erririk txikienetan ere pelotalekuak egiten saiatu dira, baiña beste kirol batzuek daude modan, futbola batez ere.

Garaiak agintzen duen bezela bizi bear da, eta ez dago zer esanik. Baiña leengo guztia baztertu ez dezagun pelotalekuak eraiki dituztenak, gure esker ona merezi dute, gutxienez. Neguko egun otz eta euritsuetan gazteak futbol-zelaiari jardunaldi edo entrenamentuak egiten ikusteak, otzikara ere ematen du. Bai inbiri ederra ere! Obe genduke oien sasoiari bagendu. Guk ere izan genduela eta orrelako batzuk esaten ditugu, baiña orrekin ez dago ezer. Zer egingo degu, ba?

Gazte oiek ez ditu otzak eta bustiak bildurtzen. Lokatzak ez du oientzat eragozpenik, eta egiten dituzten saioak, gorputza ezitzeko eta bere buruari neurriak artzeko etzaizkie gaizki etorriko. Oien txandalak amak garbitu bearke ditu, baiña amak ere naiagoko du futboleak zikindutako erropak garbitu ardo mantxaz zikindutako eta zigarroarekin erretako galtzak eta alkandorak konpondu baiño.

Lokatzaz eta izardiz zikindu eta bustita datorren seme edo alabaren lanak egingo ditu amak. Drogatuta datorrenak ematen duen naigabe samiña ez da askoz ohea izango, Jainkoaren ize-nean. Kirol zaletasuna ez dago gazteetan bakarrik. Gazte oiek trebatzen eta entrenatzen saiatzen diran pertsona elduak ere badi-tuzte merituak.

Eguraldi on eta txar, diru saririk gabe or saiatzen dira fin asko. Zenbat mesede egiten ote du oien lanak gazteen artean? Oiek bai merezi dutela on egiñaren saria!

Guretzat beintzat neguak badu
naiko busti eta otza;
eta orrekin gutxi bagendu,
elurra eta izotza.
Onenak eman ditugunontzat
ez da ekaitzaldi motza.
Aldagoi eta bisutsarekin
nola alaitu biotza?

Beti badago zerbaiten arra,
bustiegi edo legor.
Eta negua portatzen zaigu
zital eta egosgogor.
Baiña alperrik emango digu
guri orrenbeste zigor.
Etzaio bear obeditu ta
egin dezaio gun gogor.

1988ko otsaillak 5

Orra Santa Ageda eguna iritsi. Ez geunden oso aztuta, baiña atzo illunabarrean ederki gogoratuerazi ziguten. Ikastoletan-eta dabiltzan neska-mutillak, urtero bezela ibilliak dira Santageda eske-an. Bazan kantua, soiñu otsa eta alaitasuna! Poz ematen zuen.

Oitura au naiko auldua ikusi genduen. Azkenaldi onetan berpiztualdia du ordea. Eta geroz eta indartsuago dagola dirudi. Ala obe. Kanpoko aizeetara ere pixka bat jarri bearra dago, bestela atzean geldituko giñake-eta, baiña oitura zarrak arnas-berritzea komeni zaigu. Euskerari eusteko ere bide ona da au, eta gure nortasunari bizirik eutsi nai baldin badiogu, danaren bearra izango degu. Onekin ez diogu gaiñera iñori kalterik egiten. Euskaldun ez diranak bizitzeko eskubidea baldin badaukate, guk ere badaukagu. Geranak izanez jarraitzea, gazteen esku dago, batez ere. Nik ez diet esango oraingo bizikerari muzin egiteko. Gure gazteak ere mundua dijoan bezela aurreratzen joan bear dute. Zein geran ez dezatela aztu ordea, eta Santageda eskea eta orrelako usadioak ez ditzatela baztertu.

Oitura oiei eusteko ere leengo aldean erreztasun aundiak daude orain. Koplak kantatzeko bertsolari bat lagun artuta, baserri-baserri ibiltzen ziran leengo mutil gazteak. Orretarako estrata zaar aietan makiña bat lokatza bilduko zuten. Baita nekatu ederrak artu ere. Suerte pixka batekin, lukainka mutur bat edo beste eta arraultz batzuk, eta diru apur bat ere bilduko zuten Santa Ageda bezperan. Baita bildutakoari zumu ederra atera ere urren-go egunean. Baiña bai aurretik penatu ederrak ere. Santageda eskean sarritan ibillitako bertsolariak esanda dakit lan nekosoia izaten zala ura.

Oraingo gazteak eskolatik asita daukate laguntasuna Santa Ageda ospatzeko. Kantak eskolan ikasten dituzte, eta maixuak eta andereñoak lagun dituztela ibiltzen dira, kaleak betean, alai asko. Leengo bide zaar aien tokian pista bikaiñak daude gaur baserrietara. Au ere aurrerapena da, eta oitura zaarrari eusteko ondo datorrena.

Eldu, mutillak, erreztasun oni. Baserrietako neska gazte argiak koplatan zer entzungo zai egoten dira, eta baita etxeoandreak ere. Eta zergatik ez? Itz politak danoi gustatzen zaizkigu emen.

Dama gazteak egon oi dira
bezperako gauaren zai.
Mutil gazteak kantatutako
kopla politikak entzun nai.

Gazte maiteok, oitura on au
arretaz gorde zazute.
Euskalerriko baserri zaarrak
estimatuko dizute.

Etxekoandreak berdin
arpegi alaiarekin,
koplak entzuten pozez beterik
eskuan limosnarekin.

Zuek eskean jarraitu,
mendiak kantuz alaitu.
Santa Agedak gero zerura
danok eramango gaitu.

1988ko otsaillak 1

Gaurko mundu xeblebre ontan gauzai antzematen ez da oso erreza. Gauza askoren berri jakiten degu, ori bai. Orretarako badaude erreztasunak. Munduaren bazterrean edozer gauza gertatzen dala ere, berealaxe jakiten da. Eta ainbeste berri entzuten dira, eta ain sarri, batek bestea berealaxe aztuerazten du.

Batzuek alaiak, besteak tristeak, garrantzirik geiena zein berrik duen jakiteak baditu bere lanak. Ala ere, berri batzuk izaten dira naiko barrura sartzen zaizkigunak eta bereala azten ez diranak. Denbora pixka bat pasata ere ez dute garrantzirik galtzen, eta urruti samarretik begiratuta obeto ikusten dirala uste det, gaiñera.

Or dauzkagu, esate baterako, Cicciolina eta Sabrinaren kontuak. Bati axeri larruarekin egindako bufanda erregalatu bear zio-tela, eta bestea urte zaar gauean telebisioan ikusiko genduela... Eman zuten zer esanik asko.

Sabrinaren berri eskalaumeak ere bazekiten azkenik. Baiña egun aiek pasatu ziran eta, kitto! Ia ez da italaiana oien berririk.

Bada, ordea, beste berri bat oiekin konparatu ezin litekeena: terrorismoaren aurka itun edo paktoa zala, eta Euskadiko iru Gotzaiak, gure Gotzaiak, Pastoral deitzen zaion idazki bat argi-

taratu zuten. Asmo onarekin irakurri ezker, arrazoi guztiz betetako erakutsiak besterik etzuten eman, baiña a zer nolako autsak arrotu zituzten! Agintean dauden alderdikoak, sozialistak alegia, etziran gozoak. Gure Gotzaiak eurenak eta bi entzun edo irakurri bear izan zituzten.

Agintzen duenak ez duela erregutzen, dio esaera zaarrak. Agintzen ere jakin egin bear da ordea. Pakea bear degula? Bai, noski... Baiña arrokeriarekin eta iraiñarekin ez da pakea erosten.

Geiago ere izan dira Gotzaien iritzi eta erakutsiak ondo artu ez dituztenak, eta katolikoak zirala uste genduenak, gaiñera.

Kontu zaarrakin nabillela? Ez dakit, ba, berri onek gaurkotasunik galdu duen. Bateko demokrazia eta besteko ez dakit zer, planta ugari egin bai, baiña alkar errespetatzen ez dakigu oraindik. Fariseo ugari dago emen!

Aginpideak sortu izan du
makiña bat gizon txuri,
eta oraintxe ere badago
amaika pakeurruti.
Setakeriaz zergatik jarri
urduri eta kezkatu?
Naiz ta jauntxoak aitortu nai ez
egia egi da beti.

Gurekin ez da giro izaten
arrotutzen geranean.
Zeiñek sinistu erazi guri
Jainkoaren esanean?
Baiña federik ezin eduki
gizon batzuen lanean,
nola pakerik ez dan izaten
oker jokutzen danean.

1988ko otsaillak 19

Urte-sasoi onetan otz egiten duen tokietako irudi asko ikusten degu. Garai onetako deporte edo kirol eta bestelako ospakizunak otzarekin bat eginda daudela dirudi. Irudiekin batera toki otz oietako berriak ere sarritan entzuten ditugu. Eta berri oiek ere ez dute bero usai aundirik izaten.

Alkarren arrimoan goxo-goxo bizitzeko, maitasuna ondo etorriko dala esan diteke. Baiña toki otzetan ori ere otza izaten da, nunbait. Rusiatik datozen berriak ala esaten dute beintzat. An egiten diran eun ezkontzatatik berrogei, iru urte baiño leen austen omen dira. Ezkondu eta iru urte baiño leen dibortziazten dirala, alegia. Errusitarren maitemiña edo amodioa zenbateraiñokoa dan, ori dago esaten.

Teknika kontuan gure aldean aurreratuak daude errusiarrak, baiña oraindik ez dute ikasi maitasunaren berotasuna estimatzen. Guk baiño leenago ikasi eta, dagoeneko aspertuta egotea ere baditeke berriz-eta. Ez dakit, ba, zer esan.

Gu ez gera bereala illargira joango. Iñoiz orretara iristen bagera ere, aiek ordurako inguru aietan ibiltzen aspertuta egongo dira, seguru asko.

Ezkontza auste oietako asko, alkohola dala medio gertatzen dira. Alkoholak egiten dituen kalteen berri jakingo dute, ba, onez-kero, an ere mediku famatuak badaude-eta. Baiña zama ori bizkarretik kentzen ez dute asmatu oraindik. Teknikak ez ditu arazo guztiak konpontzen. Errusiako emakumeai ere ardo usaia botatzen duen senarrik ondoan gustatzen ez, ba. Eta ala ere ezin eskarmentatu. Buru gogor samarrak izango dira.

Gaiñera, erruso oiek ez omen dute etxean kolpe santurik egiten. Emen sikira, senarrak kalean ume zai ibiltzea modan jartzten ari da. Eta patatak zuritu eta oin-oial edo alfonbrak astindu eta orrelako lanak egitea ere bai. Eta orri eskerrak. Bestela, laister giñake bakoitza bere aldetik. Ango emakumeak txuriak izango dira, baiña emengoak ez dira txaldanak.

Errusian senar-emazteak fabrikatan lana egiten dute, eta geienetan oporrak toki banatan igarotzen omen dituzte, lantegietan eskeiñitako lekuetan. Orrek, senar-emazteen arteko arremanak eten egiten ditu. Eta adiskide berriak egitera bultzatu ere bai. Orra tentazioa alde guztietatik! Dibortziazteko ez dute beti aitz-

ki aundirik beariko. Emakumeak gizonezkoen bizimoduari eder iritzi omen diote, berriz, eta zeñiek eutsi orain?

Rusian ere ezkontzen dira
neguan otzak astean,
baiña bakoitza bere aldera
gero ezkontza austean.
Zorion asko ez da izango
gauzak orrela nastean.
Andre billa ez joan aruntza
ankak berotu ustean.

Rusialdean pikardirako
dago txit jende abilla:
oporretara joan ta beste
lagun berri baten billa.
Eta senarra ez baldin bada
langillea ta umilla,
andreak anka egingo dio
eta or konpon dedilla.

1988ko otsaillak 26

Jendearen esanari bildur aundia zitzaion garai batean, batez ere erri txikietan. Neska-mutillak berandu samar etxeratzea edo alkarrekin ibiltzea, izpidea jartzea izaten zan. Eta naizta zuzen ibilli, asko ziran kezka orrek lotzen zituenak. Gaur egun ez dago orrelakorik, zerbaiten premia ere bazegoen baiña.

Jendeak zer esango ori platerara ateratzen dan tokiak badaude oraindik ere mundu zabalean. Italiako erri txiki batean 90 urteko gizona eta 77 urteko emakume batek bere etxeetatik iges egin eta astebete kanpoan pasatu dute. Zergatik iges egin zuten? Seme-alabak ezkontzen utzi nai etzietelako, jendeak parra egingo zuela-eta. Aiton-amon aukerak alargunak dira. Ikusten danez, gizona oraindik lakari bat gari jasotzeko lain bada, eta emakumea ere bizkor-bizkorra.

Alkar maitatzeko garai pasaturik ez omen da, eta familikoen txorakeriei jaramonik egin gabe ezkondu eta, kitto! Ederki egingo dute, gaiñera.

Emakume orri, 18 urte zituela, gurasoak aukeratu omen zioten senarra. Orain berak aukeratu du, eta ez omen dauka beti besteren esana zertan egiñik. Gizonak dionez, berriz, seme-alaba eta illoba ugari omen dauka, baiña bakoitzak bere aldera tira egiten dute. Emakume ori oso maite du, eta ezkondu egingo da. Jendeak esan dezala nai duena, eta konforme ez dana joan dedilla oilloak perratzera. Ori da gizona izatea. Xaarra baiña zimela!

Leengo batean gizon bat Ordizian izana da. Merkealdiak zeudela eta pixka bat txukunduko ote zuen edo, joan egin bear zutela agindu nunbait emazteak. Etzeukan gogo aundirik baiña artu emaztea kotxean eta ala joan ziran. Beste erropa batzuez gaiñera elastiko edo jertse edo oietako baten premia bazeukala eta aukeratu dio emazteak. Saltzailleak ere uraxe zala arentzako modukoa, eta ondo zeukan ikusteko jantzi egin bearko zuela agindu zion. Ala, jantzi du jertse ori gure gizonak, baiña leengoaren gaiñean.

– Baiña, au aldrebesa berriz! –dio emazteak–. Nola ikusiko dizugu, ba, orrela?

– Nola ikusiko dezuten? Bista askoan dago, ba. Bestearen azpitik jantzi izan banu, etzenduten askoz obeto ikusiko.

Baiña etzan libratu. Bi jertseak erantzi, bat jantzi eta emendik tira eta an igurtzi, txoriak ontza bezela erabilli zuten gizarajoa! Jertse berria kendu eta leengo zaarra jantzierazi nai zioten, gaiñera.

– Ez, ez –esan zion sailtzailleari–. Ordaindu ezkerro berdin samar izango da, eta jantzita eramango det.

– Zaude pixka bat, gizona, etiketa kendu bear diot – eta...

Orri eskerrak. Bestela etortzen da bere jertse berritik etiketa zintzilik zuela.

Italiako aguretxo orri ez al dio emazte berriak orrelakorik egingo, daukan edadearekin...

Uste det lotan gaudela,
mozolotuta bestela.
Itali ortan bai aiton-amon
argiak daudela...
Adierazi dutela
oiek ongi dakitela,
zartuta ere zorioneko
izan ditekela.

Seme ta alabak azi
eta ustez ondo ezi,
gurasoentzat beti umeak
baitira lenbizi.
Pakea dute kutizi,
eta zergatik ez utzi
azken urtetan alkar goxatuz
nai badute bizi?

1988ko martxoak 4

Gaur, martxoak 4, San Kasimiro eguna degu. Orain urte batzuk Kasimiro eta Kasimira izena zutenak ezagutzen genituen. Baiña izen ori ere ia ezkutatu da, beste asko bezelaxe. Oraingo bataio liburuetan ez da Kasimiro izenik azalduko.

Leenago bataiatzen zanari santuren baten izena ipiñi bear izaten zitzaion. Artara, zeruan laguntzaille bat izango zuela beintzat, eta ejenplo ona norengandik artua ere bai. Baiña orain ez dago orrelakoen bearrik.

Gaurko gazteak orregatik ote dira ain saltakorrak? Batzuen itz egiteko erak ez du poz aundirik ematen beintzat. Gizalege edo edukazioaren arrastorik ez dagoela dirudi.

Badaude, ordea, jokaera au ontzat ematen ez duten gazteak. Konturatu dira au ez dala arlotekeria eta ezjakintasuna besterik. Zerbait izatera iritsi diran gizonak, txukun itz egiten dutela. Ezjakiñak beti besteren mende bizi bearko duela ere badakite, eta onek itxaropen pixka bat ematen du.

Garai batean etxean eta eskolan erakusten zitzaigun errespeto ura galdu degu. Bolara ontan onetik txarrera aldatuta gabiltza, baiña onek ere izango du bere bukaera. Otsailetik martxora aldatu geran bezela aldatuko gera negutik udaberrira. Baita txarretik onera ere.

Ezkor edo pesimistak basoa erdi utsik ikusten omen du. Eta baikor edo optimistak, erdi beteta. Guk ere basoa erdiraiño beintzat beteta dagoela pentsatu bear degu beti, bestela ez gera illunpetik eta tristurarik irtengo-eta. Leengo zaarrak onetan eman ziguten zer ikasia pranko. Gauzak zetozen bezela artzen Txirrita bertsolariak zekien ederki. Parranda puska bat egiñarren, urrengo egunean alai egoten zan ura. Orretarako oztoporik izan etzezan, zer egin aurretik asmatu zuen: mutilzaar gelditu

Gau batean, berandu zala ta serenoak sagardotegitik atera egin omen zuen. Txirritak etxera joateko gogorik ez eta txakur txiki bat bazuela berekin eta ura gabe etzala etxera joango esan omen zion serenoari. Txakurra billatzeko ari. Txakur ori nolakoa zan, ba, galdetu zion serenoak, eta azaltzen zanean abisatuko ziola. Joateko andik etxera. Serenoa erdi asarretu omen zan, baiña Txirrita lasai. Txakurra noloakoa zan onela esan omen zion:

Kolore gorrixka du,
ankapunta beltzak.
Buztana luzea ta
belarriak motzak.

Agiñak fuerteak,
betagin zorrotzak.
Narruzko trajea ta
ezurrezko ortzak...

Beste batean, gau guztia parrandan pasata etxera iritsi zane-rako eguna zabaldua omen zegoen. Ura ez estutu, ala ere. Eta onela kantatu zuen

Goizaldean etxera,
zakurra zaunkaka;
baratzako pikuan
ontza ujuka.
Sukalde bazterrean
amona eztulka,
ari lagundurikan

katua maiauka.
Akerra merruka,
idia marruka...
Oiek biak joka,
astoa ostikoka;
oillarra esnatuta
kukurrukuka.

Etxekoandrea gustora bizi dan familian zorionaren euneko larogei ta amabost eskuan daukatela esango nuke. Senarra ondo bizitzeak ere balio du, baiña gizonezkoak zakar samarrak edo bas-toagoak izaten gera, eta gurekikoa errez egiten da. Etxean denbora gutxian egoten gera, gaiñera. Basoerdi batzuk artzeko lain, edo alkarte edo soziedadera joateko izan ezkeru, asko geiagoren bearrik ez degu izaten. Etxekoandrea beste kontu bat da. Batzutan asko bear ere ez, eta etxeko lanak egin bearrak eta gure zabarkeriak bere-ala endredatzen digu. Ustez zintzo portatzen bagera ere, noiznai ikusten dira kopetillun eta ezpaiñak zimurtuta. Gu ere ez gera aingeruak nunbait eta nai ez degula utsegiten, askotan.

Au komeria berriz! Etxekoandrea pozik edukitze ori guk egin bearreko lana da. Beti ez da erreza izaten, baiña alegiña saiatu bear degu beintzat, etxekoandrearen ezpaiñetan irripartxo batek zenbat balio duen iñork ez daki oraindik-eta.

Danena ez, noski, baiña emakume ezkondu batzuen kezka alargun gelditzea da. Senarrak, bere traketsean, diru apur bat inguratu egiten du etxera. Iltzen danean, berriz, jana dagoen tokiko edo, esan oi dan bezela, despentsako giltza berekin eramaten omen du. Au ere ez da ona izango, baiña gaitz oni erremedioa billatu omen diote. Emakumeak suertea orain ere.

Jakintsu batek dioenez, bere emaztearekin menteminduta edo enamorata dagoen gizonak, bost urte geiagoko bizia omen du. Esan zaidazute ez dala erremedio erreza! Senarrak pozak airean bizitzeko oso gutxi bear du. Noizean bein musutxo bat eman eta pixka bat laztandu ezkeru, orra dana egiña. Gizon gizarajoari bizia apur bat luzatzeak ez al du balio?

Senarrak traba geiegi egin ez dezan beste erremedio bat ere asmatu da, gaiñera. Yugoslaviako sendagille batek, lo gaudenean zurrunkadarik egin ez dezagun botika bat aurkitu du. Irurogeita amar

aldiz edo artu bear da botika ori, baiña gauean zaratarik ez ateratzea ez da txarra izango. Ala ere kejatu egingo dira gure etxeoandreak...

Maitasunak bai egin duela
makiñatxo bat mirari!
Azkenik ori ondo etortzen
triste dagon gizonari.
Etxekoandreok, bizia nola
ez luzatu senarrari,
laztan bat edo beste eman ez
ain maite zaituztenari?

Andre maiteok, zuen senarra
egonagatik zartuta,
ez bazterra bota nolana
oraindik balio du-ta.
Pixka bat zaintzen bagaituzute
goxo antzean artuta,
orren damurik ez da izango
eskertzen badakigu-ta

1988ko martxoak 18

Au mundua ari zaiguna jartzen! Garai batean babarrun gorria urdai zati batekin eta taloa eta esne puska bat jan ezker, or ibiltzen giñan. Basarri-lanetan ere etzan aldakuntzarik izaten. Leenago alaxe egiten zala eta segi aurrera.

Batetik, orain bezela bizi zitekeen jakin ez eta, bestetik, bizimodua aldatzen asteko bildurra ere bai. Alper samarrak izan arren, poliki moldatzen ziranak baziran. Oraindik ere ez da jenero ori oso ezkutatu, baiña ez dakit alperrentzat denbora luzeko paotxa ote dagoen.

Leenago, alperkeria edo nagikeria edo dalako ori pekatu izaten zan. Zazpi pekatu nagusietako bat, ain zuzen. Pekatuari baiño lanari bildur geiago diote ordea alperrak; eta etzioten dotriñari jaramon aundirik egiten. Bizkarrari eragin, eta nai zuenak egin zezala lana.

Baiña gauzak ainbesteraño ari dira aldatzen... Emendik aurrera alperra izatea debekatuta egongo omen da. Badu onek bere itxura. Biarko gizonak geroz eta geiago jakin beariko du. Gizartea beti zerbait berriaren eske dago. Eta eskatzen duen ura

azkar bear du, gaiñera. Jateko edo edateko, garbitzeko, batetik bestera ibiltzeko, oporraldi egoki batzuk igarotzeko eta abar. Saltzeko moduko gauzak egiten asmatzen duena, aterako da. Ori egiten ez duenak izango du galtzak bete lan.

Baiña ortarako prestatu egin bear. Preparatu egin bear. Ikasketak egin bear leenbizi; eta gero, txoriburukeriei utzita, burua nekatu bear. Saiatu egin bear. Lana egin bear, itz batean esateko. Alperrentzat egun txarrak datozela esango nuke.

Ez dira bere buruaren etsaiak izaten, baiña edozer lan egin bear dala ere, alperra lagun txarra da. Lantoki eta gaiñontzekotan lasterka bizitzen asi dan mundu onek laister botako ditu alperrak bazterrera. Noiznai da ortarako garaia. Gauzak ez dira gauetik goizera aldatuko baiña.

Txirrita bertsolariak alper fama aundia zuen. Bein batean, beste lagun bat eta biak zein alper aundiagoa izan apostu egin zuten. Lagun ori, alper itxura egitearren, lurrean etzan omen zan luze-luze. Txirrita, ezta mugitu ere.

– Irabazi diat –esan zion lagunak–. Ni etzanda nagok. I baiño alper aundiagoa nauk.

– Ago isillik! –erantzun zion Txirritak–. Etzateko alperrez zutik gelditu nauk-eta. Ni nauk emen alperrik aundiena.

Ark irabazi zuen apostua. Burua nekatzen zekian alperra izan zan ura...

Zerbait biltzeko aldi erreza
izaten dan bakoitzean,
pobreak gaizki ibilli bear
alperrak gaiña artzean.
Neurtzerik ere ez dagon poz bat
daukat nere biotzean.
Ai, zer nolako bizimodua
alperrak ezkutatzean!

Alperrengandik etorkizunik
gizarterako ez dago.
Eta ni beintzat jendail orrekin
ondo asperturik nago.
Langilledia erlauntz batekin
konparatzerik badago
erlemendoak akabatzean
guretzat ezti geiago.

Gaur Andre Mari martxoko degu. Garai batean jai izaten omen zan. Orain ez. Orra zer ekarri degun gure lana egin bearra- rekin: jai bat gutxiago.

Esaera zaarrak dioenez, gaurko egunez pasatzen da kukua Erromako zubiaren azpitik, Euskalerrira etortzeko; eta irugarren egunean kantatzen omen du. Kukuaren etorrerak danok alaitu izan gaitu. Oraindik otzak egingo ditu, seguru asko. Baiña kukua- ren otsak epela berekin ekartzen du. Ea, ba, emendik aurrera eguzki epeletan goxatu batzuk artzen ditugun.

Aur bat besterik ez duten senar-emazteei “kukuarena egin dezute!”, esan oi zaie, baiña ez da orrela. Kukuak ez du umerik ateratzen. Beste txoriren baten kabian jartzen du arraultza, umea atera eta azi dezaioten. Kabi bat baiño geiagotan jartzen ditu ordea arraultzak, naizta bakoitzean bat ipiñi. Egi-egia ez dan esa- era zaar asko ez da, baiña kukuarena egite ori izango da bat.

Kukua entzutean patrikaran dirua daukanari urte artan ez omen zaio dirurik faltako. Au ere ez da oso kontu segurua izango. Diru faltarik ez izateko, kukua kantari ari danean ez ezik isillik dagonean ere karteran berde mordoska bat eduki- tzea izango da onena. Dana dala, etorri dedilla gure kuku ori, zorionean. Bere kantua entzuten degun artean or nunbait ibilli- ko gera.

Kukuak xomorro kaltegarri asko jaten du. Piñuen arrak ere bai, azkenik. Ori ala baldin bada, badauka oraintxe nun manten- dua. Ar ori piñudietan pikardi aundiak egiten ari da oraiñaldian, zoritxarrez. Pagoa eta aritza bezin polita ez da baiña bere itsusi guztian makiña bat baserritar estuasunetik atera du piñuak.

Ainbeste piñu dago, eta ez duela balioko eta orrelako txora- keriak ere entzuten dira. Ala ere, piñuak edukitzea obe izango da ez edukitzea baiño. Ez edukitzeak ez du balio izaten.

Baserritar batek mendia piñu sartu nai omen zuen. Etekin edo probetxu ona emango zion piñu moeta aldatu nai, baiña ez omen zuen gai ontan entenditzen. Lagun bat bazeukan piñu-kontuan tekniko samarra eta galdetu dio berari:

– Aizu, an goiko mendi artan piñua aldatu nai nuke, baiña ze piñu klase da onena?

– Piñu klaserik onena? Aitona zanak aldatutakoa...

Aitonak utzi baldin bazizkan
piñuz jantzita mendiak,
illobarentzat or daude orain
piñu luze ta lodiak.
Beti juxtuan bizitzekotan
zertarako piñudiak?
Gazte sasoiko dagon artean
obe da saldu erdiak.

Naiz piñu oiei azitzen utzi
ez dute joko zerua.
Gero geiago irabaztea
ez da oso segurua.
Biar damurik izan ez dedin
orain nekatu burua,
kukuak baiño seguruago
emango dute dirua.

1988ko apirillak 1

Urtearen illik alaienetakoa izango degu apirilla.. Eta aurten, urteak duen egunik tristeenarekin asten zaigu: Ostiral Santu egunarekin, Jesukristo il zuten eguna baita. Onera eman ezkeru beintzat, eta eguraldiak batere laguntzen duela, il ederra da apirilla. Lore ugari ikusi oi degu inguruan. Ostiral Santu eguna berriz, Garizumaren bukaera, eta penitentzi kontuak azteko eguna dala esan diteke. Eta esan bearrik ez, makiñatxo bat izango dirala bijiliak eta barauak alde batera utzita, nun edo an aste ederra botako dutenak. Beti lanean jardun gabe, atsedeen pixka bat bear dala, eta segi. Eliz-funtzio eta orrelakoak zaarren kontu gelditu dira.

Ala ta guztiz ere, Gipuzkoan badira bi erri oitura zaarrari ondo eusten diotenak: Ondarribi eta Segura. Nik esan gabe ere

segurarrak jakingo dute egiten dituzten ospakizunen berri, baiña baditeke beste entzule batzuek zerbait jakin nai izatea.

Ostiral Santu arratsaldeko prozesioan berreun eta larogei ta amabost pertsonak artzen dute parte: nazarenoak, penitenteak, santu eramailleak eta abar, soldadu erromarrak eta San Migel aingerua tartean dirala. Eta danak segurarrak izaten dira.

Aurten ere illabete bat aurretik asiko ziran saioak egiten, eta prozesiokoan nola txistua ala kornetak jotzen ondo ikasiak egongo dira. Santuen anda, erropa eta gaiñontzekoak ere berrituta dauzkate. Eta ez dute nolanaiko prozesioa moldatuko. Oraindik ikusi ez dutenai, gaur arratsaldean Segurara etortzeko esango nieke. Etzaizute damutuko. Segurar bat baiño geiago izango dira kanpoan bizi izan arren gaur santuak erabiltzera etorriko diranak. Ori da bere erria benetan maite izatea. Oitura onak orrela gordetzeak ez du meritu txikia. Beste batzuk berriz, leen esan degun bezela, kanpora joango dira. Norberak ikusi bear du geiena zer komeni zaion, eta ez gaitezzen asi besteren etxean agintzen. Obra onak ez dira elizan bakarrik egiten, eta zerbait ona egin nai duenak nunai izango du aukera. Gogo txarrez eta marmarrean prozesioan ibiltzea baiño aitagure bat ondo erreztatzeak geiago balio duela esan zidan bein apaiz jaun batek. Etzitzaion arrazoirik falta.

Gurutzean il zan Aren aurrerako azaleko itxurak baiño geiagoko balioko du barruko borondate onak.

Jesus, mundura etorri ziñan
gizona berrerostera.

Guri agindu berri bat alkar
maitatzeko ematera.

Ori egiñik Aitarengana
joan ziñan Zu ostera,
agindu ura betetzen guri
andik lagun egitera.

Baiña begira nola geran gu,
Jesus, zugandik aldendu;
nola gabiltzan pentsatze utsak
naiko pena ematen du.
Jainkorik gabe nai genduen guk
mundu maltzur au zuzendu;
ez zuk diguzun aiña maitasun
guk zuretzako bagendu.

Batzutan ez degu etxeko berri ondo jakiten. Sagarrak makiña bat urte izango ditu Euskalerrian, baiña ez det uste bere berri ondo dakigunik. Janari bezela serbitzua pranko egin digu sagarrak. Gosea iltzeko etzitzaigun gaizki etortzen garai batean. Zenbat tripazorri il ote du? Igali edo fruta asko jaten dan denboran bizi gera. Eta janari moeta oni garrantzi aundia ematen zaio gaur, eta nai aiña aukera daukagu ortik.

Beste era bateko denborak ezagutuak gera. Bai ganbarako sagar pillari makiña bat bisita egindakoak ere. Ortzak garbitzeko ona da sagarra. Baserrietako ume koskorrak ortzak sarri garbitzen zituzten udazken aldean, ganbaran sagarrak irauten zuen bitartean. Aizeak lurrera botatako aleak ere izaten zuten zeñek bildua. Zozoak saiatzen ziran, baiña baita neska-mutikoak ere eskolatik etxerakoan. Orduko sagarrak etzuten izaten oraingoak bezela zuritu bearrik. Azal eta guzti janda ere etzuten gaitzik egiten. Janari sana izan, nunbait.

Sagarrari buruz egindako ikasketak diotenez, beste janaririk gabe denboraldi batean gizonari bizirik eutsi dezaioken igali bakarra, sagarra da. Bizirik eutsi bakarrik ez, nekerik izan ezean, gizendu ere bai. Bitaminak botikatik ekartzen ibiltzen gera askotan. Sagarrak sei bitamina klase eta eztakit zenbat mineral badauzkan berekin. Janondo ona izaten edo dijestioa egiten laguntzeko ona da, eta esteetako kutsadura edo infekzioa kentzeko ere bai. Beerakoa sendatzeko bezin ondo etortzen da barrulegortasun edo enpatxua sendatzeko ere. Gibelari bere eginkizuna betetzen laguntzeko oso ona izan bear du. Baita azido uriko eta kolesterolari neurrian eusteko ere. Denbora gutxian esaterik ez dagoen aiña birtute ditu sagarrak.

Oiek orrela izanik, gure sagasti zaartuak ikusteak pena ematen du. Badakit baserritarrak bestela daukala lanik asko. Baiña

ainbeste jende dagoela lanik gabe, eta Diputazioaren laguntzaz edo, ez ote legoke gure sagasti zaarrak pixka bat txukuntzerik? Etxean artu ditekeela, sagarra erosi eta kanpotik ekartzen ari gera. Au ez al da atzerapena? Au ez al da atrasoa, esan oi degun bezela?

Zenbat mesede egin ote du Euskalerrian sagarrak? Amaika bider estali ditu gure zerbait jan bearrak. Gaztain erreak ederki busti izan zituen pittarrak. Baiña ondatu zaizkigu ia emengo sagasti zarrak. Ez dakit nola eta zergatik geran gu orren zabarrak.

Sagarra janez izan gindezke osasun onaren jabe. Sagardoak zein ez du jarri oi bertsoetarako trebe? Gure denboran kendu dizkigu zenbat gose ta naigabe... Bitaminarik bear badegu zer sagarra baiña obe? Or sagarrean danak etxean kanpora billa joan gabe.

1988ko apirillak 15

Ez gera konformatu errezak. Bat dala edo bestea dala, beti arkitzen ditugu akatsak nun edo an. Baiña ez nuke esango au ona ez danik. Edozer gauzarekin osatuko bagiña, beti mailla batean egongo giñake. Ondo bizi dana, ondo; eta gaizki bizi dana, gaizki. Beti orrelaxe bizi bearco genduke, eta ori tristea da. Orregatik, konformatzen zailla izate ori bearrezkotzat jo diteke, bere neurri batean. Ontan ere ez da komeni arrastotik irtetzea. Premiak ez dira sekula bukatzen, eta ez dira bukatuko ere.

Orri eskerrak, bestela lanik ez litzake izango. Txarra dala-ta gizatxartu egiten gaituela-ta orrelako aitzakiak ematen dizkiogu lanari, baiña lana egiteko suertea daukatenak ez dira ain gaizki bizi. Ez det uste au esatean gezur aundia esaten dedanik.

Estatutoaren eta Kontzieto Ekonomikoaren egarri giñan garai batean. Gure eskubideak agintzen duten bezain osoak ez,

baiña zerbait lortu genduen beintzat. Baiña batzuek diotenez, batere ez omen dute balio. Iritzi au ere errespetatu bearra dago, beste danak bezelaxe.

Ala ta guztiz ere, jarri gaitezen Gipuzkoaren alderdi bati bakarririk begira. Oraiñaldiak eskatzen duen bezela bizi nai duen probintzi edo erri txiki batek ibilbide onak nai ta nai ez bear ditu. Ia basarri guztietara bideak egin dira, eta ez ain txarrak. Kamiñoak zuzentzen eta zabaltzen ari gera. Ez nai bezin azkar, baiña ari gera beintzat. Begiratu dezaiozun Irundik Madriderako kamiñoari. Badago oraindik lana, baiña Legorretaraiñokoa egin da, eta Gipuzkoako parteari dagokionez, andik aurrerakoa egiteko ez daude itxura txarrak. Euskaldunak gaiztoak giñala esaten zuten aiek or eduki gintuzten bazterrera botata. Kontzietoa eskuratu genduen eta nagusi on aiek berrogei urtean egin etzutena, guk dozenerdi bat urtean egin degu. Eta ori beti sokatira batean ari galararik.

Alkarrengana bilduta, danok batera sokari punta batetik tira egingo bagenio, zer ez ote genduke egingo? Gure Euskalerra zaar onek berritu ederra artuko luke. Suizan bizi dirala ondo baiña emen ere bapo moldatuko giñake.

Leengo agintariak, zerbait egin bear zanean leenengo arria ipintzera etortzen ziran. Guk, obrak bukatuta azkenengo arria ipintzera sarri etortzen diran agintariak bear ditugu. Trapaleak obrak bukatzean egin bear dira, eta ez gauzak atzekoz aurrera.

Alkar artzeko abildaderik
ez degu izan sekula.
Orregatikan etsaiak sarri
egiten digute burla.
Ala ta guztiz obra bikaiñak
bai egiten ditugula!
Ez beintzat esan ezertarako
talenturik ez degula.

Dударик gabe gu euskaldunok
biurri samarrak gera,
asarretuta or goaz noiznai
bakoitza bere aldera.
Baiña oraindik joan bear degu
erritar danok batera,
alkarri eldu eskutik eta
trapaleak egitera.

Ipar Amerikatik etortzen diran zenbait berri atsegingarri izaten zaizkit benetan. Amerikar oiek ain bereziak, edo ain espezialak dira! Asmatzen ez duten xelebrequeririk ez dakit izango dan.

Presidente berria aukeratzeko auteskundeak dituzte aurten, azaro aldera edo orrela, oso oker ez banago. Estadu Batuak ere esaten diogun nazio aundi ori berrogeita amar estaduk osatzen dute, eta estadu oietako bitan ikusten omen da gutxi gora-bera, edo antzematen zaio, Ipar Ameriketako presidente izateko itxuririk geiena zeiñek duen.

Au ez litzake ain arrigarria, alde batera. Baiña bi estadu oiek izan biztanlerik gutxientsuena dutenak eta orrenbesterañoko indarra ala ere! Presidente izan nai duenak biztanle banaka oiei losintxa egin bear derrigor. Ortarako iñun diranak egiten dituzte presidentegaiak. Edozein hotel koskorretan jan eta lo egiñez, eta furgoneta arloteren batean ibiltzen omen dira batetik bestera, propaganda egiñez. Merkeago irtetzeagatik ibilli ere, naizta kotxe bikaiñak ugari dauden tokian bizi.

Esandako bi estadu koskor oietan amalau milloi zerri omen daude, eta, gezurra badirudi ere, zerri oiek nazio guztian dauden berreun eta ogei milloi biztanlek baiño zer ikusi geiago daukate presidentea aukeratzeko. Au ez al da xelebrequeria?

Aurten ere presidentegai guztiak granja batetik bestera ibilliak dira zerri oiek ikusten, aiekin batera argazkiak ateraz. Zerri-usaiak ez die atzera eragiten nunbait. Presidente aukeratua izatea da kontua. Usai gozoagoak izango dituzte orduan.

Bi estadu txiki oietako jendeak nekazariak eta abere-azitzailleak dira geien bat. Uri aundietako arazoak baiño geiago kezkatzen ditu pentsuak balio duenak eta arraultza eta zekorren salneurriak. Orregatik, aien botoak bildu nai dituenak, zerrite-

giak garbitu, beiak jeitsi, traktorearekin simaurra zabaldu eta orrelakoak egin bearra dauka presidente izatera iristeko.

Presidentegai oiek ez dira asto-motxailleak izango, Ipar Amerika nazio aberatsa da-eta; baiña begira nolakoak egiten dituzten aginpidea lortzeko. Aginte ori gauza gozoa izan, nunbait.

Amerikano oien burua
egon arren arindua,
oien jokerak beti izan du
munduan nork berdindua.
Baldin onuntza etortzen bada
moda orren agindua,
aurrerantzean izango degu
txerriak zeifiek zaindua.

Ez izan orren esperantzarik
biarko edo etziko.
Andaluziko señoitorik
ez da ortara jarriko.
Ain dotoreak izanik oiek
ziur nago nereko,
emen ez dala presidenterik
beiak jeizten ikusiko.

1988ko apirillak 29

Gizarteko goraberak nola dabilzan aztertzeko zeletasun aundia dago orain. Zaletasuna eta bearra ere bai. Bestela ez lego-ke sortzen diran arazoei irtenbideak billatzerik.

Azterketa oietako batzuk diotenez, ezeren aitzakirik ez duen gutxi dago gure artean. Eunetik 73'k badaukagu zerbait: buruko miña edo iztarrean erreuma. Etzaigu kottarik falta. Euneko amai-kak, alkohol geiegi edaten omen du. Aiek ere izango dute gibe-ko miña edo zerbaiten ajea. Eta etxean okasiorik jartzen ezpadute, gaitzerdi.

Amaika urtetik amairura bitarteko eskolaume geienak moz-kortu omen dira bein edo bestetan. Gutako eunetik ogeita bostek baiño geiagok zigarroa erretzen degu; eta neska-mutiko asko da bein amabost bat urte ezkerro egunero zigarroa erretzen duena. Au dek etorkizuna! Berriz ere izango da emen minbizia eta infar-

toa edo dalako ori! Ez daukagu piñudian bezela bakantze edo entresakak egin bearrik. Oiek dira naikoa beste mundurako bezeroak biltzeko. Alkoholak eta tabakoak nolako kalteak egiten dituzten entzuten degu amaika aldiz, baiña alperrik. Temosoak gera benetan.

Infartoaren kontrako erremedioak ere ematen zaizkigu, zer janari komeni zaigun eta zer ez; geure burua estutzeko, lanak eztuela kalterik egiten eta abar. Alkohola eta tabakoa biotzarentzat txarrak dirala iñork esan gabe dakigu. Baiña sendagilleak saiaten dira gogoraerazten.

Leen aitatu ditugun azterketa oiek diotenez, beste gaitz bat ere badaukagu Euskalerrian: bakantzen ari omen gera. Orain urte pare bat jakin zanez, aurreko bost urtetan 5.700 biztanle gutxitu ziran Euskalerrian. Gutxitze onen berri sarritan ematen zaigu, baiña orren kontrako erremediorik ez. Leenago pekatu zan bezela, lanerako gazterik ez dala izango, zaar-sariak jeitsi egin beariko dirala eta orrelakoak esaten ari dira orain. Baiña orrek ez du balio. Lepotik eldu eta estututa ere ez dute zaarrak zumurik emango.

Biztanle geiago bear bada, gazteetara jo beariko da, baiña ordaiñetan zerbait emanez. Zertan ari dan ez dakienik ez dago gaur. Baiña gu ezin asiko gera mundua konpontzen. Agintari eta zuzendari ta gaiñontzekoak egin beariko dute zerbait, ortarako daude-eta.

Ikasketak egiten
dabiltz gau ta egun.
Esaten digute zer
arazo dauzkagun.
Oien berri len ere
nola genekigun,
erremedio onak:
orra zer nai degun.

Familia iñola
ezin mantendurik,
estu bizi danari
ez esan konturik.
Naizta bakandu diruz
ezin osaturik,
lanik ezean berriz
ez dago dirurik.

Lgazpiko festak ere larri dira, ba, oraintxe. Datorren astelen goizaldera arte zarata pixka bat izango da, baiña joan dirala kontu egin, eta datorren urtera arte. Ezin esango degu festa txarrak izan ditugunik. Bazan eta bada oraindik nun jolas egin eta zer ikusia. Legazpiko Udala eta festa-batzordea portatu dira, danon gustorik etzuten egingo baiña. Badira bapo egurastutakoak. Festak ortarako izaten dira, eta on dagiela.

Munduari ez diogu beti zearka begiratu bear. Une onak ere eskeintzen dizkigu, eta aieri eltzen saiatu bear degu. Al genduena egin ezaren damurik ez dezagula izan. Festetan alegiñak egin dituztenak, sekulako ondoen egin dute. Segi orrelaxe.

Egun auetan, eta geroxeago ere bai, biaramon ederrak izango dira baztarretan. Zurrut pixka bat ere egingo zan, eta orain eutsi egin bear. Berriketarako gogo aundirik gabe egongo dira bat baiño geiago. Zurrutak utzitako ajeak kendu nai izatea ez da arritzekoa. Baiña askotan okerreko erremedioak erabiltzen ditugu. Oietako bat alkohol asko samar edan ondoren esnea artzea da. Esnea artuta gibelari laguntzen diogula uste, baiña oso beste aldera omen da. Esneak koipea dauka, eta koipe asko ez da ona gibelarentzat. Orregatik alkoholaren ondoren esnea edan ezkeru bear baiño lan geiago egiñerazten zaio gibelari. Pittin bat ikututa goizaldean etxera gatozenez, ez degu, ba, frigorifikotik artuta esne trago bat egin bear. Orrelakoetan ura edan bear da. Izardituerazteko eta filtroak garbitzeko ez dago ura bezelakorik-eta. Aurreko eguneko zurrutaren erresekoa kentzeko amarretakoa egitean ardoa edatea ona dala ere esan izan da. Eta auxe da egin bear ez gendukeen beste gauza bat. Baliteke onela erresekoa kendu degula iruditzea, baiña ez sendatu geralako, leenaz gaiñera beste pittin bat mozkortu geralako baizik.

Erresekoarentzat ere leengo erremedio berdiña artu bear da: ura edan lasai. Urak lagunduko digu barruan dauzkagun alkohol ondarrak ateratzen. Otzari gogor egiteko alkoholdun edariak onak dirala uste baldin badegu, oker gabilta. Edandako momentuan ez bada ere, andik bereala geiago ozten da bat.

Ikusi nola engaiñatzen gaituen alkoholak. Kattuerdikoan gaudenean bai uste zerbait gerala, baiña urrengo egunean ajea eta kaskarreko miña, eta ura edan bear sendatuko bagera. Orregatik esango da festak aurrea ohea duala atzea baiño.

Iñoiz burutik arintzen gera
festak iritsitakoan,
baita pasatu ere mutturra
zerbait berotutakoan.
Eta etorri baldin bagiñan
atzo kattuerdikoan,
biaramona ura edanda
joaten da orrelakoan.

Egunen batez jolas egiten
badegu alkolarekin,
buruko miña nola kentzen dan
bear degu ondo jakin.
Atzo edanak naikoa dira,
berriz edaten ez ekin.
Esne preskorik ez artu beintzat
gibela galdu ez dedin.

1988ko maiatzak 13

Maiatzaren erdi ingurura iritsi gera eta oraintxe gaude nola jokatu erabaki bearrean. Maiatzaren erdia joan zaigula esanez, edo oraindik maiatzaren erdia gure esku daukagula pentsatuz. Bigarrena obe izango degula uste det nik. Joan dala, eta ez dala berriz etorriko eta orrelako oiek ez dute batere balio. Erremediorik ez duten gauzatan pentsatzea denbora alperrik galtzea da. Nundinaitik jotzen degula ere, garai ederra da maiatza, eta al degun zumurik geiena atera bear diogu.

Aurten San Isidro etzaigu batere ondo portatu. Basarritarrak egun bat eduki eurentzat eta bera igandean tokatu da. Igandean

bestela ere jai egingo zan, eta orrelako egun bat ospatu gabe uztea biziari egun bat kentzea da. Besteak beste, nik aurten ere base-rietako etxeoandreak ikusten ditut kastigatuta. San Isidro ori astegunez etorri izan balitz, egun bat polita bazeukaten, edo egun ta erdi ere bai, seguru asko. Aurreko egunean pelukerira joan bearko zuten beintzat, eta arratsaldea an pasatuko zuten kontu-kontari, ederki asko.

Emazteak ere bear du bere lagunartea, eta pixka bat apainduta, senarra berari begira jartzeko modua egiten badu, oraindik-eta obe. Berandu samar etxeratu arren, pelukerian ederki orraztuta datorren emazte pinpoxari ez dago iñola ere arrera txarra egiterik.

Baiña San Isidro igandean dala eta penaz egoteak ez du balio, orrek erremedioa badu-ta. Astegun batera aldatu, eta senarra lagun artuta bazkaritxo eder bat egin or nunbait, eta bapo! Urtearen azkenean ez litzaioke antzemango. Emazteak ori egitearen aldeko irtetzen badira, ez det uste senarrak kontra egingo dienik.

Onek ere badu ordea alako kezka edo zerbait. Ondo jan eta lan gutxik gizentzeko arriskua berekin du. Alemanian emakume bat nai baiño geiago gizentzen ari omen zan. Flakatzeko gosea pasatzea bezelakorik ez dagoela eta kartzelara joatea pentsatu zuen. Zer egingo ortarako, eta kotxe bati radioa ostu. Lapurretan arrapatu zuten, eta jakiña, epaillearengana, juezarrengana eraman. Bestela ezin zala flakatu, eta denboraldi baterako kartzelara bialtzeko eskatu zion juezari. Baiña epailleak nai ez, berriz. Eta multa botako ziola. Bestea emakumea izan ordea, eta berearekin irten nai. Ez zuela multa ordainduko, eta kartzelara joango zala. Orra nolakoak egiten diran, gizenduta edertasuna ez galtzeagatik. Ori baiño San Isidro egun on bat obe izango da, orratio!

Alemanian aztoratuta
dabiltz zenbait andereiño,
mitxelin batzuk dauzkatela ta
erabat petraltzeraiño.
Ez dago barau egin bearrik
burua arintzeraiño.
Lodi samarra egon obe da
kartzelan flakatu baiño.

Jakiñagatik gorputz liraiñak
gustatu oi zaizkigula,
nork esango du gizenak beti
ain gaizki ematen dula?
Naiz eta gerriz sendoa izan
edo ipurdiz mardula,
nik dakidanez kartzelan ez da
iñor edertu sekula.

1988ko maiatzak 20

Urte-sasoi onetan eguzkiak indar pixka bat izaten du, eta ille zaarrak botata jartzen geranean, gure gorputzak ere badaki esnatzen. Ori dala-ta, osasunari komeni etzaizkion gauzak egiten ditugu, batzutan.

Gorputza zaintzeko erakutsiak nunaitik jasotzen dira orain, eta noizean bein aztertutxo bat ematea ona izaten da. Osasun-maixuak esaten dutenez, lana mesedegarri zaigu, baiña bere neurrian. Lanak ez gaitu itsutu bear. Badira onen berri ondo dakitenak, eta erremedio au ondo neurtuta artzen dutenak. Langilleak lantegian ezagutzen dira ondoena, eta moeta guztietakoak ikusten dira: langille onak, erdipurdikoak, nagiak, alpe-rrak... Danetatik. Badira langille zintzoak, baiña baita goizean jeikitzean al duten lanik gutxiena egiteko asmo sendoa artzen dutenak ere. Oiek izaten dira ortik onerakoak!

Jubilatzeko bildur diranak ere izaten dira, berriz. Lanik egin gabe ez dutela etsiko ta bere burua ezin errenditu izaten dute. Lasai bizitzeko modua etortzen zaienean ipurterretu, alajaiña! Gaitza da ori ere. Osasun-maixuen iritiz, oiek dira lanari neurria artu bear diotenak. Baratzan dala edo beste zerbaitetan dala, zertan edo artan saiatzea ona da, baiña nekatu gabe. Nekeak giza-

txartzera eta orrek osasuna galtzera ekartzen du gizona. Orrelako ipurtestu bat naikoa izaten da famili guztia naasteko. Bein edade bat ezkerro gutxi jan bear da gaiñera, eta asko ibilli. Zertarako nekatu? Guk ez degu mundua aurrean artuta eramango.

Txirritak bakallao-jana omen zeukan sagardotegian, igande arratsalde batean. Dirurik ez ordea, eta amari bi pezeta eskatu zizkion. Alako alper bati emateko dirurik etzeukala eta siestara joan zan ama. Txirrita joan da ukuillura, jaregin dio zezenari, eta etzan da oearen gaiñean. Laister omen zan zezena bei danak airean zituela. Ango txikizioa! Ama konturatu da, eta:

– Baiña, Joxe Manuel; jeiki adi, gizarajo ori, zezenak bei guztiak akabatu bear dizkik-eta.

– Eman, ba, bi pezeta –Txirritak.

– Zezena lotu zak azkar, alproja aundi orrek, emango dizkiat-eta.

– Ez bi pezeta eman arte –berriz ere Txirritak.

Eta bearko eman, ama gajoak.

Utsarengatik ernegatuta
sekula ez asi teman.

Gizonak ez du ibilli bear
aurrak bezela trekelan.

Ez beintzat dana benetan artu
ta pake santua eman.

Lasai samarra izanda ere
badago galtzak bete lan.

Zer irabazi dezake batek
iñori lata emanik?

Ez uste izan beste guztiak
gure morroiak diranik.

Pazientzitik irtetzekotan
obe da ez egin lanik,

askoz obeto bizitzen baita
umoretsua izanik.

1988ko maiatzak 27

Zenbat aldiz entzun ote degu mundu onetan ez dagoela zoriontsu izaterik? Onuntza etorri ezkerro sufritzeko etsita egon

bear dala. Ala esaten zaigu beintzat. Emengo bizitza laburra dala eta mundurako egiñak ez gerala ere bai. Emengo sufrikizunak pazientzian eraman ezkerro, sekula bukatzen ez dan zoriona izango degula beste munduan.

Oiek guztiak ala izango dira, baiña iñork ez du joan nai izaten emendik. Onelako edo alako tokitan aitona edo amona batek eun urte bete dituela entzutean, danok aren inbiritan egoten gera. Ez dakit, ba, nik orretarako motiborik dagoen. Bein urte oietara ezkerro, pertsona onenak emanda egoten da, eta ez dakit zenbat gozatu dezaken. Urte oiek arrapatzeko, kutizi askori utzi bearra dago, gaiñera. Onelakoak esan bai, baiña sinistu gabe esaten ditugu.

Ainbeste denboran bizitzeko zer egin bear dan galdetu ezkerro, danak ao batez bezela erantzungo dizute: goizean goiz jeiki, eta gauean garaiz oeratu. Tabakorik ez, ta pattarrik ere ez. Ardoa ere, ez edatea obe. Aragia ere ez da ona, eta saieskiarekin egositako babarrunak ere ez. Baratzako txuletak bakarrik jan. Batzuk esan oi duten bezela, ildakoa bezela bizitzea da ori. Bizi ez. Iraun bakarrik. Eun urtean bizitzea edo irautea ona izango da, baiña bai goizean oe epeleko goxoa ere. Eta illunabarrean lagunartean musaldi bat edo beste, kafetxo bat artuz? Puruak eta kopak neurrian erabilli bear...

Danok ez gera berdiñak, eta badira beste alderakoak ere. Costa Rica esaten zaion Ertamerikako nazio batean, 139 urteko gizon bat bizi omen da, baiña ez aragi erre apur bat edo olio gabeko babarrunak eta azelgak janda. Apenas dan iturriko uraren zale oietakoa. Baiña Eskoziako Whiskyari ez omen dio muziñik egiten. Bere denboran arrapatu dituen langosta, ganba, langostino, ostra eta orrelakoetatik naikoa egin izanak eutsi omen dio orrenbeste urtean. Ala esaten zidan batek: “Zerbaitegatik bizitzen dituk aberatsak pobreak baiño geiago. Urtean bein izoztutako langostino bat edo beste bakarrik janda ez ituzke ainbeste denboran eta ain ondo biziko. Etzegok emen aberatsa izatea bezelakorik”.

Emen guztiok nai deguna da
ondo bizi izatea,
larri antzean ibilli arren
bizitza oni eustea.
Naiz eta bere azkena izan
zorianaren atea.
Penagarria litzake oni
nolanai joaten uztea,
batere eske ibilli gabe
etortzen baita bestea.

Gure gorputzak zenbait oitura
ditu beretzat kaltean.
Jakintsu danak ala diote
kontsejuak ematean.
Penitentziak berriz alperrik
beste batzuen ustean.
Pekaturikan ez da egingo
ondo jan ta edatean,
langosta janez bizi ezkeru
eunda berrogei urtean...

1988ko ekaiñak 3

Ainbesterañoko aurrerapenak ari dira azaltzen mundu one-
tan! Alakoren batean zer egin asmatu ezinda gelditu bear degu.
Leenbizi, janariak poteetan sartzen asi ziran, alperrik galdu etzi-
tezen. Gero, tomateak eta piparrak bakarrik ez, iñun diran baraz-
ki eta berdurak, guriñak, mantekillak, oillaskoa, aragia, arraiak
eta nik ez dakit zer. Ugari daudenean izoztu eta or egoten dira
nai danerako.

Arrautzarekin gertatzen da berriz zelebakeria!
Frigorifikoan gorde egiten dira, baiña ez dute presko irauten.
Oilloak egin berriak eta artean epelak dauden arrautzak izaten
dira preskoenak. Berriketari ari naizela dirudi baiña baditu onek
bere gorabeerak.

Eskolaumeak berealaxe dira oporretan. Ama aurki asiko da
esaten umeak itsasertzera edo norabait eraman beariko dirala den-
bora puska baterako, neguan katarrorik izan ez dezaten zerbait
egin beariko dala ta ez daukala gogo aundirik etxea bakarrik utzi-
ta iñora joateko, baiña etzaiola beste erremediorik gelditzen, eta
orrela. Aitak ere illabete bat bakarrik pasatu beariko duela aurki.

Amak frigorifikoa ondo beteta utziko diola, eta konponduko dala...

Gizonak etxeko lanetarako ez degu abildade aundirik izaten, eta jateko zerbait bear degunean, zartagia eta arrautzak astintzen ditugu azkar. Preskoak jan nai baditugu, dendatik ekarri bear ordea, eta aldapa gora egiten zaigu orixe. Gero, bateko gorrin-goa lertu zaiola, besteko gatza botatzea aztu zaigula, ez degu pulamentuzko otordurik egiten.

Baiña oni ere buelta aurkitu diote. Alemania'ko albaiteko batek, gatza eman bearrik ez duten arrautzak egiten erakutsi die oilloei. Australia'n berriz, koiperik ez duten txekorrak azten asmatu dute. Beraz, udan bakarrik gelditzen dan gizonak arrautzak eta aragiarekin otordua errez gertatu eziñik ez du izango emendik aurrera. Orra etxekoandreentzat uda lasai pasatzeko modua. Senarrak bere burua gobernatzeko ez duen bildurrik ez dute izango beintzat, eta aragi koipetsua janda geiegi gizenduko danik ere ez.

Baiña ibilli ditezke argi. Bakero galtza estuak iztarretan eta pantorrillatan *celulitis* sortzen omen dute askotan. Ea bere galtza estuak jantzi bear orrekin iñork begiratzeko moduan ez dala itsusituta gelditzen diran!

Mundu onetan bada oraintxe erreztasuna ugari.

Azkenik gatza eman bearrik ez dago orain janari.

Baiña ez eman aginpiderik sukaldean senarrari, ez dezaiola eder iritzi bakarrik bizitzeari.

Guztiok gera bearrekoak bakoitza bere lekuan.

Eta ez gera ondo konpontzen orrekin aztutakoan.

Naiz ta zapuztu gu alkarrekin zerbait aspertutakoan, pena guztiak azten zaizkigu berriz alkartutakoan.

Emakume on askoak ematen ditu mundu onek. Bere denbora guztia lanpean igaro, bizitzako urterik onenak senarra maitatzen urtu, eta ala ere ez dute naikoa izaten. Bizitza guztian eman duten maitasuna baiño zerbait geiago eskeiñi nai izaten dute aien biotz mardulak. Bakarrik uzten badute, badakite senarra ardi galduaren moduan gertatuko dala eta emakume aukeratuak lotuta, eta ondo lotuta, utzi nai izaten dute mundu ontatik joan bearra datorkienean. Ori da senarraren ardura izatea!

Inglaterran il berri dan emakume on batek erakutsi du au ondo. Sendatzerik etzuekala gaizkitu zan. Eta etzeukan emendik aldegin beste erremediorik. Bazekien bere illetak asko samar kostako zirala, eta bere senar kuttuna diru gabe eta bizi ezinda gelditzerik etzuen nai iñolako moduz. Neurriren bat artu egin bear, ba, eta arentzat zerraldoa egiteko agindu zion senarrari. Arotza nola zan, ori egin eziñik etzeukala eta merkeago aterako zitzaiola. Baita senarrak emaztearen esana zintzo bete ere. Zer ote da obeditzen oituta egotea! Ala, etxeko sala tailler biurtu eta bertan egin zuen emaztearentzat zerraldo ori. Baita orain 34 urte egindako kotxe zaar bat moldatu ere zerraldoa dotore asko eramateko, bere trapu beltz eta guzti. Emaztearen aginduz, zerraldo eta gurdi, dana gertu zeukan bere etxekoandrea beste mundura lasai joan zedin. Ori da esana egiñeko gizona izatea!

Dana dala, emaztearen agindua zintzo bete zuelako 104.000 pezeta aurreratu zituen gizonak. Txangoaldi bat edo beste pasatzeko ondo gelditu zala dirudi; baiña ez, ba. Bera iltzen danerako beste orrenbeste egin bear omen du orain. Beste 104.000 pezeta aurreratzeko asmoa du, gizarajoak. Baiña, zertarako ordea? Zer egin bear du diruarekin, ilda gero?

Orra zintzoa izateak nolako ondorenak ekarri dezazken. Emazteari naigaberik ez ematearren aren esanak isil-isillik egin, eta berekasa ezer egiteko ez dala gelditu. Onegia izateak ere ez du asko balio mundu onetan. Beti geroko esperantzan, beti gero ondo izango dalakoan joaten da gu bezelako askoren mundualdia. Orregatik, noizean bein lanari salto egitea izango da onena.

Maistra argiak izaten dira
zenbait gizonezkorentzat.
Dirua nola gorde bear dan
erakusten dute beintzat.
Neurri juxtua izaten dute
askotan senarrarentzat.
Pazientzia beste saririk
ez da onegiarentzat.

Pake santuan bizi gaitezen
danok alkarren onduan,
mixeririkan pasa gabe ta
tokatzen zaigun moduan.
Aurreratzen ez asi emendik
abiatzeko orduan.
Mundu ontako diruak ez du
balio beste munduan.

1988ko ekaiñak 17

Otzik ez du egiten, eta bero aundirik ere ez. Eguna berriz, nai aiña luze. Oraintxe gaude urte-sasoirik ederrenean. Onela bizi geranean erlojuak ez luke aurrera egin bear, baiña denborak ez du barkatzen. Emendik lau egunera, udan gera. Perretxikuzaleak pozik daude, eta urtea ona izaten baldin bada, badauzkate gozatu ederrak. Alaxe izango al da, gaiñera. Ugari danean, gutxi edo asko, denontzat izaten da-eta.

Kontsejatzailleak ari zaizkigu perretxikuen arriskuak gogorazten. Urtero egiten dutela pikardiren bat, eta kontuz ibiltzeko, alegia. Alkarte edo soziedadeetan, eta etxe askotan ere bai, maixu on asko dago eta arreta pixka bat naikoa da arrisku orri alde egi-

teko. Jateko irrikatzen, baiña billatzeko balio ez degulako ezin jana izatea ez al da okerrago izango?

Perretxikuak baiña billatzaille geiago ez dakit ez ote dagoen, gaiñera. Emendik aurrera zelai bazterrak eta dauden pagadi apurak izango dute zeñek miatua. Erronka batzuk entzutea ere ez da arritzekoa izango.

Ondartzara joanda edo beste nunbait eguzkia artzeko garaia ere emen degu. Ortarako zaletasun aundia dago gaur egun, baiña au ere kontuz egin bearrekoa da, esaten digutenez. Eguzki geiegi artzeak minbizia sortzeko arriskua omen du. Leen polit askoak diranak, geiago edertzeagatik edo, nunai ikusten dira eguzkitan geldi-geldi daudela. Ori ez egitekorik ez du iñork esaten, baiña orri ere neurria artu bear zaiola, bai.

Orain urte batzuk dirala, garai onetan eguzkia artzeko aukerarik asko izaten genduen, naizta asko animatu ez. Igande arratsaldeetan-eta kalera joan nai, baiña belarrak zelaian baldin bazeuden, aiek igartu eta sartu arte etzan baimenik izaten. San Juan egunean ere festa bai, baiña belarrak leenagokoak izaten ziran. San Pedro etorri zai egoten giñan, etzegoela lanik egiterik eta libratuko ote giñan. Baiña orduan ere, apaizari baimena eskatu eta belar igartzera, eguzkitan kaskartu arte. Orduko eguzkiak etzuen nunbait minbizirik sortzen, eta ari eskerrak.

Eibarko baserritar batek, bere semeak ofizio on bat ikasi zezan nai omen zuen. Ala, seme ori artu eta erakutsi dizkio Eibarko tailler guztiak, gustoko ofizio bat aukeratu zezan. Eguerdian bazkaldu omen zuten jatetxe batean, postrean *arrozkonletxe* eta guzti, eta semeak zer ofizio aukeratu zuen jakin nai aitak, eta galdetu zion:

- Ta, zer gustatu zaik, ba, geiena?
- Neri arrozkonletxe –semeak bereala.

Garai bateko jai aundi asko
utzi ditugu atzean.
Bat bildurtzen da San Pedrorekin
egiña gogoratzean.
Ea oraindik ikusten geran
txit estuasun latzean,
zeruan sartu nai degula ta
giltzak ari eskatzean...

Gazteak nola zarrak tratatzen
len bezela ez dakiten,
gaur aiton-amon askok dauzkate
odol danak irakiten.
Alde batera au zergatik dan
ez da ain zailla jakiten,
San Predrori're ez baitio gaur
iñork kasorik egiten.

1988ko uztaillak 1

Aurtengo onetan Madrid aldetik jiratxo bat egiñak gera. Emen ere badaude toki onak, baiña joan egin bear zala eta ala joan giñan, Espaiñi alde artara. Bazterrak ikustea oso modan jarrita dago oraintxe. Orain bezelako aukerarik etzan sekula izango, gaiñera. Gu bezelakoak ere zerbait bear, ba. Or zear joanda batean eta bestean izan ez danari, atzeratua edo atrasatua edo orrela esaten diote orain. Ikusita zerbait ikasi ere egiten da, berriz. Eta ez da dan-dana gezurra izango. Al dan guztia ikasita ere badago oraintxe lanik asko. Ikasteko garai pasaturik ere ez da, eta orrelakoak pentsatuta besteak egiten dutena egitea izango da onena: ibilli.

Ni orain urrena izan nintzanetik asko azi da Madrid. Eta ez Madrid bakarrik, baita bere inguruak ere. Gertuan dauzkan Somosierra eta Guadarrama mendi izugarri aiek, txaletez beteta agiri dira. Espaiñiko aginte guztia Madrident dagoela kontu izan. Aginpidea dutenak jende asko bear izaten dute inguruan, eta an ere orixe gertatzen da. Ministerio eta gaiñontzeko erakundeetan lan egiten duten asko eta asko bizi dira an. Artaraiñoko kaleak eta alakoxe etxe pillak dauden tokia bizileku itoa izaten da ordea, eta orregatik dauzkate mendian txaletak: larunbat eta igandetan arnasa pixka bat artzeko, ain zuzen.

Etxe bat Madriden eta beste bat mendian edukitzeko etorri oneko iturria bearco da, baiña an badaude orrelakoak, ikusten danez. Kamiño bikaiñak ere badauzkate, eta Valle de los Caidos eta oietan ere ez dituzte egin berriketako obrak. Artarako eman bear izan degun diruaren parte batekin emen ere zerbait egin zitekeen, baiña gu ere bagera geran bezelakoak. Gu mokoka gabiltzan bitartean orra an nolako lanak egin diran.

Baiña an ere ez daude gusto guztiak. Beste gauza asko aitatu gabe, kaleetan ibiltzeko ere ez dago gusto aundirik. Madriden sartu orduko esan zigutena izan zan karterak ondo zaintzeko beintzat, lapur asko dagoela-eta. Denda bikaiñak eta zer ikusia pranko bai, baiña beti kezkatan ibilli bear. Egunez ere bai. Eta gauez zer esanik ez. Hotelean ere leenbiziko oarra, lapurrekin kontu izateko esan ziguten.

Dana dala, guri bildur ederra sartuarazi ziguten beintzat. Etorrita gero ere emen gabiltza danok eskuak poltsikoan sartuta, dauzkagun txanpon apurrei kaso egin eziñik.

Baztarra pranko ikusi eta
jan eta edan ederki,
autobusean joan ta Madriden
ez giñan ibilli gaizki.
Emen ainbeste txekor aragi
ez da izaten an, noski;
eta argatik jango genduen
jan degun aiña txerriki.

Gipuzkoatik joan giñanak
ez giñak jale urriak.
Eta antzeko geiago ere
baditu Euskalerrriak.
Abildadeak erakutsita
nola geran etorriak,
zer lasaitua artuko zuten
Madrid aldeko txerriak.

1988ko uztaillak 8

Euskalerritik irtetzen geranean, emen estimazio aundirik ez duten janariak ere jan bear izaten ditugu, askotan beintzat. Janari auetako bat, zerrikia dala esango nuke. Koipe geiegi duela-eta,

odolak zikintzen dituela eta abar, zerri aragia jateak bildurtu egiten gaitu.

Jate-kontu onetan aspaldian asko findu gera euskaldunok. Babarrunetan egositako urdai zati aiek pozik jaten genituen garaiak joan ziran, ala ere kottarik asko kontatzen degu baiña. Aragietan kalterik gutxiena egiten duena bei-aragia dala eta orrelakoak entzun arren, zekorraren aragi xamurra naiago degu, eta esneko zekorrarena baldin bada, oraindik-eta obe. Oillaskoa ere ona omen da, baiña baserrian azitakoa naiago degu granjakoa baiño. Orra baserriari estimazioa etorri, gauza batzuetarako.

Jatetxeetan ainbeste zerriki ematen baldin badute, merkeagoa dalako izango da. Onetan ez dago zalantzarik. Baiña oni ere buelta billatu diotela uste det. Alemanian sojarekin esnea egiten asi dira, edo egiten ari dira, obeto esateko. Sojak, olioia egiteko bakarrik balio zuela uste nuen nik. Soja moeta edo klase asko omen daude ordea, eta esnea egiteko ere ona da. Esnea egiteko, eta esne asko egiteko, gaiñera.

Alemanian esnea egiteko moldatu duten fabrika batek orduan milla ta bosteun litro egiten ditu, eta pertsona batek bakarrik erabiltzen du edo manejatzen du fabrika artako tresneri guztia. Fabrika ori iru milla bazkidek osatzen duten kooperatiba batena da, eta kooperatiba orrek eun langille dauzka. Langille oiek sojaren lanak egiteko izango dira. Esnari dagozkion lan guztiak, soja-azia xeetzetik asi eta eta esnea zorroetan sartzeraiñoakoak, pertsona bakarrak zaintzen duen makinak egiten dituetan. Ikusten nago oraindik baserritarrak danoi parra egin bear digutela. Guri sojarekin egindako esnea emango digute, eta beiesnea zekorrarentzat izango da. Artara, beiak jeizten lanik ez dute izango, eta zekorrari jaten ematen ere ez. Naiko esnea edango dute, eta txalak bere kasa aziko dira, guri askoak.

Ea, ba, noiz ikusten zaituztegun baserritarrak, alkar artu eta Alemanian bezela esne fabrika bat edo beste moldatzen.

Edozeiñek pipa joko dizue orduan. Baiña kaletarren erruki pittin bat izan ezazute beintzat, guk ere bizi bear degu-eta.

Baserritarra izan ez dedin
beti lanaren mirabe,
piñua baiño soja aldatu
ez al da izango obe?
Esnea egin sojarekin ta
bizi xuabe-xuabe,
nekerik gabe egingo dira
naiko diruaren jabe.
Zekor bikaiñak azi ere bai
kolpe santurik jo gabe
kolpe santurik jo gabe.

Naikoa esne izaten bada
ta aragia ere bai,
baserritarrak erregalatu
egingo digute noiznai.
Alemaniko inbentu orri
eltzeko orain da garai.
Beiak dituen esne guztiak
eman zekorrari lasai.
Emen gaude gu naiko txuleta
merke noiz jango degun zai
merke noiz jango degun zai.

1988ko uztaillak 15

Batzuk esan izan dute suerte onak berez etorri bear duela. Eta beste batzuk berriz, suerte ona izango bada, billatu egin bear dala. Nik uste det, gutxi edo geiago, ontan danak edukiko dutela zerbaiten arrazoia. Asko saiatu ez arren suerte ona izan dutenak eta bapo bizi diranak ikusten dira. Eta bere denbora guztia arras-taka pasatu eta ezer gutxi lortu dutenak ere bai, bat baiño geiago. Nekearen poderioz zoritxarretik ia-ia irtenean zeuden orduan berriz putzura eroriak ere izaten dira, berriz. Eta orrelaxe da mundu koxkor au.

Garai batean esan oi zigutenez, mundu au erbeste bat da, eta beste bizitza obe bat irabaztera etorri giñan onera. Gure emengo elburua santu izatera iristea zan, eta sufrikizun guztiak pazientzian eraman bear ziran. Santuen bizitzak irakurri besterik etzegoen ori ala zala ikusteko. Mundu onetan iñun ziranak sufri-

tu eta betikotasun guztirako zoriontasuna iristen zuten. Ura zan suertea! Zerura joan eta andik urteetara ere aien bizitza izaten da guretzat eredu edo ejenploa, eta santuen erroa edo beste edozer gauza, eta gorputzaren zatiak zer esanik ez, agurgarriak izaten ziran. Erlikiak esaten zitzaaien, eta erliki oiei mun emateko oitura zan eta dago oraindik ere.

Orain ez diogu ezeri pakean uzten. Eta ontan ere aldaketak dira azkenik. Mick Jagger izeneko kantari edo *cantante* oietako bat bada Ipar Amerikan, ala ez dakit nun, egia esateko. Orain indarrean dagoen rock kantatzen oso abilla izan bear du. Au gure gazteak jakingo dute. Dana dala, orra zer aukera ipiñi dioten: iltzen danean bere gorputza emateagatik lau milla milloi pezeta emango dizkiotela oraintxe bertan. Beraz, diruak eman dezakeen zoriona iristeko beintzat ez dauka il bearrik. Orain aberastu, nai bezela bizi, eta ordua datorkionean beste mundura joan, batere presarik gabe, eta bapo! Dirua artu, al duen arte guztian bere gorputzari zumu ederra atera, ta il eta ezertarako balio ez duenean, erre dezatela nai badute. Suertea ori da. Sal-erosle edo komertzianta batek nai omen du gorputz ori, iltzen danean erre eta autsak erlikitzat erabiltzeko. Diru asko irabazteko itxaropena du, gaiñera.

Orrelaxe da mundu au: batzuk asto beltzarenak ikusi eta il bear, zoriontsu izateko. Beste batzuk berriz, emen izaten dira zoriontsu, itxuraz beintzat.

Zoriontsu zeruan
izaten gerala...
Nork ez daki au sarri
esan izan dala?
Baiña ikasi degu
nola edo ala:
jaten duten santuak
ere badirala.

Batzuek mundu ontan
dabiltz ain kontetu.
Emengo zorionak
ez ditu aspertu.
Badute nork serbitu
eta nork agurtu...
Diruak makiña bat
egin ditu santu.

Kontu zelebrea pranko entzuten da oraintxe. Danok daki-gun bezela, Cataluñako auteskundeak edo botazioak izan berriak dira. Izan berriak, edo oraindik ez da beintzat denbora asko izan zirala. Eta bein egin ezkerero, aien kontuak bereala aaztu bear lira-keela esan diteke, baiña ez. Cataluñako auteskunde oiek ere buz-tan luzea dute, beste auteskunde askok bezela. Oraingo onetan, eunetatik berrogei eta geiago izan omen dira bizkarrari eragin eta botorik eman ez dutenak. Politikoak oso kezkatuta daude one-kin. Botazioko egunean oso eguraldi ederra egin zuen eta, batzuen iritziz, orregatik etzan joan jendea botoa ematera. Ondartzara edo mendira joan naiago izan zuten.

Baiña arrazoi onek ez ditu danak betetzen. Beste zerbaite-gatik izango omen da, eta ainbeste jendek botoa emateari uztetik kalte aundiak etorri omen ditezke. Politikoak errukia ere ematen dute, daukaten ezin egona ikusita. Ez da gutxiagotarako. Oiek estuasunak pasatzen ari dirana! Ainbeste urtean demokraziaren zai egon eta, etorri danean, aspertu egin gerala dirudi.

Demokrazia ona izango da, baiña bere frutuak emango badi-tu, bear bezela erabilli bear, ordea. Zenbaitentzat, demokrazia eurak nai dutena egitea da eta, jakiña, gaiñontzekoak aspertu edo zerbait egin bear. Gauza onarekin nekez aspertzen da iñor. Orregatik, aspertu ez, baizik eta jendeari begiak zabaldu zaizkio-la dirudi. Aukeratu arte zuzendari guztiak izaten dira onak. Baiña bat esan eta bestea egiten asten badira, boto emailleak ere ez dira lotan egoten eta, or konpon!, esaten dute. Ez da arritzekoa ere.

Cataluñako kontu auek entzunda, urrengo egunean Lege Biltzarrarean billera bat ikusi nuen, telebistan. Parlamentari bat bere itzaldia egiten ari zan bitartean, beste bat egunkaria irakur-tzen - edo periodikoa leitzen, nai dezuten bezela esango degu - ari zan. Eta beste bat, eskuetan zeukan aldizkari edo errebista bati

begiratu bat ematen. Urrengo egunean, irratia entzuten nengoen, eta telefonoz irratira deitu zuen batek zionez, gaueko amabietan Malagako kaleetan nunai ikusten omen ziran zaarrak, gazteak eta umeak kartoiak eta paper zaarrak biltzen. “Bearko, –esaten zuen– biar ogi koskor bat jateko lain izango badute”.

Ajolagabe izate orrek
emanagatik lan txarrak,
danak ez ditu kezkatzen emen
botoa eman bearrak.
Politikari danak ez dira
izango, noski, zabarrak.
Baiña ez gaitu estutu bear
miñik gabeko negarrak.

Gure moduko jendearentzat
bada kontseju ederrik.
Baiña gaur ez du iñork ematen
pausu bat ere alperrik.
Orregatikan ez digu lorik
galerazten zenbait berrik.
Bakoitzak bere lanak eginda
ezta izango okerrik.

1988ko uztaillak 29

Aize-orratzak bagiña bezela, edo aizeak beleta erabiltzen duen bezela erabiltzen gaituzte askotan. Gaur gauza bat esaten digute eta biar beste bat. Goian daudenak zer nai duten, poliki-poliki gu danok artaraxe jartzen saiatzen dira. Guztion onerako izaten omen da ori, eta ezin estutuko gera.

Urte batzuk dirala olio-aranarekin egindako olioia –erderaz *aceite de oliva* esaten deguna– osasunerako etzala guk uste bezain ona eta orrelakoak esaten zizkiguten. Olio orrek kolesterola zeukala eta girasolarekin egindakoa ohea zala. Telebisioa saiatzen zan, beintzat, guri orrelako erakutsiak ematen.

Garai artan olioarentzat eskabide aundia egon, eta kanpoko nazioak erosten zuten. Esportatu egiten zutela, alegia. Eta emengo ekonomiari jira ematea komeni berriz, kanpoko dirua bear baitzan. Eta olio ark kanpoko naziotan etzuen kolesterolik sor-

tzen nunbait. Eta orra danak ondo. Bildur pixka bat ere sartu ziguten, eta ala asi giñan girasol, soja eta orrelakoekin egindako olio erabiltzen, olibari utzita.

Orain aizea beste aldetik jotzen asi da, berriz. Sekulako abonajeak dira azeituna-olioarentzat. Minbizirik sortzen ez duen koipe bakarra *aceite de oliva* omen da. Beste guztiak, eta batez ere abereen koipeak bai omen dute denborarekin minbizia sortzeko arrisku apurtxo bat. Dana dala, berez ona dalako edo geiago saltzea komeni dalako, bentaja pranko sortu zaizkio gure azeituna-olio famatu orri. Eta ederki toriatzen bagaituzte ere, ez det uste oraingoan gure kalterako izango danik. Olibarena beste oliorik ezagutzen etzan garai artan minbiziak etzuen orain aiña jende garbitzen. Orduan etzan jendea orain ainbeste urtean bizitzen, ori ere orrela da, baiña olio gutxi erabiltzen zalako izango zan seguru asko. *Andre Madalen* kantak zioen bezela, aldiko laurden erdi bat olio baiño geixego erosteko modua izan balitz, etzan ainbeste jende ilko ain gazterik.

Itzai bat ia azkenetan omen zegoen. Azken igurtzi edo estremaunzioa eman omen zion apaizak, eta galdetu:

– Zer moduz, Praixku? Zer diozu, ba, orain?

– Umm! Gurdi ardatzari koipea ematen diotenean joan egin bear dan seiñalatea izaten da –erantzun omen zion.

Zerbait gizentzen bagera ere ez egin orri kasorik.

Koiperik ez dan sukaldeetan izaten al da gustorik?

Petralkeria sarritan baiña itz bat ere ez gozorik.

Azak olio gaberik janda ez da kantatzen bertsorik.

Umore ona ez egon arren batzutan gure eskuan, lore ederrak bildu oi dira sabela betetakuan.

Iru-lau baba legor besterik ez badago lapikuan begi tristeak ikusten dira koiperik ez dan lekuan.

Il oni batzuek abuztua esaten diote, eta beste batzuek dagonilla ere bai. Nik bataiatu bear banu *opor-illa* deituko nioke. Izan ere, mundu guztia oporretan dago oraintxe.

Aientzat ez dala oporrik izaten esango dute baserritarrak, baiña dan-dana ez da egia izango. Bere oportxoak ederki pasatzen dituzten baserritarrak badira, eta oso ondo egiten dute gaiñera.

Festa-illa ere bada il au. Zenbat erri ote dira il onetan festak ospatzen dituztenak? Besteak beste, gaur dira 462 urte Elkano ospetsua il zala. Urte betetze ori atzo zala esaten dutenak ere badira, baiña egun bat gorabeera ez du garrantzi aundirik izango.

Elkano getarriarra izan zan leendabiziko aldiz munduari buelta eman ziona. Iru urte oso-osoak bear izan zituen orretarako. Gaur zenbat aldiz buelta emango ote litzaioke munduari iru urtean? 265 gizon irten ziran jira ura egitera, eta 18 bakarrik etorri ziran atzera. 247 gizarajok bizia galdu zuten, beraz. Irten zuten bost barkuetatik bat bakarrik etorri zan, beste laurak itsasoan ondatu ziran-eta. Munduari leendabiziko aldiz buelta ematea etzan merke irten, bada.

Gizon aundia pranko eman du gure Gipuzkoa koskor onek. Or dago San Inazio ere. Santu guztiak izaten omen dute bere bederatzurrera, eta ezin geldituko gera gure zaindari aundia aita-tu gabe. Ura ere etzan beti errez-errez bizi izan. Agintzea gustatzen zaitzaion pixka bat eta orrek ere baditu bere lanak, gu bezelako oker samarrak zuzendu nai diranean. Berak eta bere lagundikoak errespeto ederra sartzen zuten garai batean, eta estu samar artzen gintuzten gaiñera. Beti irrist egin eta pekatuan noiz eroriko ibilli bear.

Dana dala, leengo gizon aundi aien egunak ospatuz eta abar, egun ederrak pasatzen ditugu orain. San Inaziori eskerrak, Azpeitian festa ondarretan egongo dira oraindik. Gaupasa eta

beste, leenago baiño lasaiago egingo dute. Eta baita Getarira joan eta erropa geiegi gabe eguzkia artu ere. Bat eta beste esango degu, baiña Elkanok aiña aize, gose-egarri, gaitz eta mixeri ikusi gabe bizi gera. Getariko ondartza ederretan preskatu bat artuaz, une atsegiñak igarotakoak izango dira.

San Inaziok makiña bat penitentzi egingo zuen, baiña orain ez dauka jarraitzaille asko. Dana ez da pekatu izango, eta iñori kalterik egin gabe opor patxaratsu batzuk pasatzea izango da onena. Zerbaiten premia ere badago, eta ea pixka bat soseatzen geran.

Aurten ere iritsi
gera abuztura,
betiko modura.

Ta oporrak artzeko
daukagu oitura.
Sufritzeko ez giñan
etorri mundura.
Eguzki beroa ta
itsasoko ura
artzera joango gera
nai degun lekura.

Ez gera izan bear
sekula lotsati,
ain gutxi bildurti.
Zorrak zor, ez estutu,
ez izan negarti.
Beste iñor bai al da
gu bezin kezkatu?
Poltsa zimurtu arren
ez begirik busti.
Urtea bukatzean
San Silbestre beti.

1988ko abuztuak 12

Bateko oporrak eta besteko ibillaldi edo eskursioak, karramarrarik asko izaten da familietan urte-sasoi onetan. Zaarrak eta gazteak iritzi ezberdiñekoak izaten dira. Eta ez dute mundua berdin ikusten. Familiaren ardura zaarrak izaten dute berriz, eta, egiñari eutsi nai diotelako, edo biarkoari ere begiratu bearra dagoelako, eutsi samarrak edo zur samarrak izaten dira askotan.

Naiz ta urte asko ez izan bizkarrean, gurasoak beti zaarrak izaten dira seme-alabentzat. Oraingo umeak begiak zabalik dituztela jaiotzen omen dira eta lanik asko ematen diete gurasoei. –Onelako edo alako badijoaz eta nik ere joan egin bear det–. Ezeren arriskurik ez dute ikusten. Gurasoak berriz bai, eta alde onetatik ere sortzen dira tira-birak. Umeen okerrak gurasoak zuzendu bear izaten baidituzte. Zeiñek ote dauka arrazoia? Danak pixka bat. Gurasoak ezeren neurririk artuko ez balute, seme-alabak ez lirake ondo ibilliko. Jan eta jantzi, ikasteko gastuak ordaindu eta abar, dirua parra-parra bear da eskuartean. Gazteak ez dira onekin konturatzen bear bezela. Aiek ere badutela bizitzeko eskubidea, eta ipurdia altxatu eta or dijoaz al duten guttian. Gurasoak ardura edo maitasuna dala diotena, umeentzat mendetasuna izaten da. Gurasoen esana egin baiño naiago dute bere kasa bizi, udara beroan galtza estuakin eta negu gorrian gona motxakin ibilliko badira ere.

Gurasoak ez dute umea geiegi lotu bear. Ez al dakite gazteak zirala nolako oztopoak aurkitzen zituzten? Ez al dakite gurasoen agindu bear ura gaiñetik kendu eziñik nola ibiltzen ziran? Baiña seme-alabak ere pixka bat pentsatu bear lukete. Gurasoak toki askotara begiratu bear izaten dute, eta ez dute beti umeei nai aiña diru ematerik izaten. Gauean etxetik falta dan semeak edo alabak gurasoen biotzean zenbat kezka eta bildur sortzen duen ez dakite umeak oraindik. Ez dituzte gurasoak geiegi estutu bear. Oporrak dirala, edo festak dirala, ibilli zaitezte txukun. Eta zerbait bear dezutenean, eskatu zaiozute amari. Amak aita engaiñatuko du eta, dana ez bada ere, geiena beintzat iritsiko dezute.

Andre Mari eguna gaiñean degu. Nere erriko festak. Zeraindarrak ez dira aaztuta egongo. Eskerrak leenago santu asko izaten zan! Bestela ez genduen orain ainbeste jai egingo. Baiña jaiak ere bi arpegi dituzte. Kontuz!

Oitura zarrak dirala eta
arin egiten degu itz.
Erljio ta eliz kontuak
ondo ankapean dabiltz.
Nere ustean bide ortatik
geuretzat kaltean gabiltz.
Orain festarik etzan lenago
santurik izan ez balitz.

Lengo gauz oiei utzi pakean
ta bizi gaitezen lasai.
Guztiok gera bearrekoak
eta santuak ere bai.
Noizean beinka santu berriak
azaltzea nork ez du nai?
Aitzaki ortan sarriagotan
egingo degu danok jai

1988ko abuztuak 19

Nik opor-illa deituko nioken abuztuaren erdia joan zaigu.
Oraindik zumu pixka bat atera genezaioke, ala ere.

Oporrak pasatzera kanpora joan ziranak etortzeko zenbat
egun falta diran kontatzen asita egongo dira. Etorri eta lanean asi
bearrak ez ditu danak poztuko. Beste batzuk berriz joateko zeu-
katen irrika ura bete eta etxean baleude naian, edo etxera etor-
tzeko penarik gabe egongo dira. Geienak beltz-beltz eginda
etorriko dira, eta izango dute zer kontatu.

Bertan egon geranontzat ere abuztua ez da ain garai txarra.
Etxe inguruan pake ederra sumatzen da beintzat, eta orrek ez du
gutxi balio. Erri guztiko nagusi geu gerala esan diteke. Itsas-
ertzeko errietan ez da giro izaten. Emendik urbil, Aizkorriko
paraje auetan pake ohea daukagu. Erdi usturik dauden errietan
eta zenbait jatetxetan gozatu bat edo beste artzeko aukera ederrak
izaten dira il onetan.

Festak ere ez dira bukatu berriz. San Bartolome eguna gai-
ñean degu. Amezketarrek ez dira aaztuta egongo, eta Pernando-
ren errian izango da alaiatasun ederrik. Baita zer ikusia ere. Festa
eta beste zerbait ikusi nai duena, joan dedilla Amezketako Eliza
nagusia ikustera. Etzaio damutuko. Eliza onen sarrerako atea ez

da nolanaikoa. Garai batean egurrean lana egiten nolako artistak ziran ate orrek erakusten du. Gipuzkoa guztian ez omen dago beste ate bat orrelakorik. Eliza egiteko obrak orain lareun bat urte edo asi eta berreun urte luze iraun zuten. Bada zerbait. Baiña etzuten lan itsusia egin, alajaiña!

Nere lagun zaar zegamarrak ere Arbeleko jaun San Bartolome aundiari begira egongo dira onuzkero. Erri alaia eta festazalea da Zegama, bat baldin bada. Baiña bai errespeto aundikoa ere. Españako erregeak Sandrateiko kuebatik pasatzean, Zegamaren aurrean burua makurtu bear izaten zuten. Orduan eta geroago ere, Zegamako erriak bazuen bere nortasuna. Zenbat urte ote dira musika banda sortu zutela? Garai aietan etzan edozein erritan musikarekin baltseoan egiten. Zegaman beti izan da jende jatorra, eta ez dek uste orrekin pekaturik egingo zutenik. Ori baiño pekatu aundiagoarik ez balitz ez giñake gaizki. Dantzarako zaletasuna izango zan Zegaman, baiña baita Aizkorriko gurutzearentzat debozioa ere. Oraindik ere jarraitzen du. Eta ea, ba, oitura zaarrak gordeaz eta oraingo moda berrian dantzan egiñez San Bartolome polamentuzko batzuk pasatzen dituzuten.

Erri askotan egoten dira
festetan San Bartolomez.
Guztiak maite izanagatik
izendatzen ez da errez.
Aurrez gertatu bear zerate
guztiok umore onez,
alkartasunik falta ez dedin,
gizatasunik ere ez...
Festak orrela pasako dira
pakean ta osasunez.

Guk nai baiño len abuztuaren
erdian pasatu gera,
eta ontara ezkerro laister
goaz bere azkenera.
Baiña oraindik zerbait denbora
badago alde batera;
eta aurtengo festa bolada
asi baiño len gainbera,
gerorako ez ezer utzita
zumua ondo atera.

Oraindik urte asko ez dala, baserrietako semeak eta alabak ez zuten izaten zeñekin ezkondu erabakitzeke aukerarik. Ni gogoratzen naiz beintzat nola esaten zan, neska-mutillak alkarrekin iñolako arremarik izan gabe eta askotan alkar ezagutzen etzutela, gurasoak nola erabakitzen zuten nor norekin ezkondu. Oraindik dexente falta zaigu, baiña apur bat zibilizatu gera, orratik. Ainsterañoko bildurra eta errespetoa zitzaie gurasoei! Eta azkenean, aiek esaten zutena egin bear.

Bi baserrietako jaunak tratua egiten bazuten, seme eta alabak etzeukaten gurasoak esandakoarekin ezkondu besterik. Andregaiak aukeratu bear zuenak begi ona edukiko al zuen, bestela zenbait itsusi-ipurdirekin ezkontzeak etzion semeari grazi aundirik egingo. Eta alabak zer esango ote zuen senargaia leenbiziko aldiz ikusten zue-nean? Mutil itxurazko samarra baldin bazan, gaitzerdi. Baiña zenbait mutil zozoren ondora joan bearrak etzion poz aundirik emango neskari. Ajatutako txapel zaarra buruan eta zortzi eguneko bizarrarekin zenbait mutil narratsek emezortzi urteko neska pinpoxaren ondoan etzuen ederki emango. Iztarrak airean dituztela, zigarroa erreaz dabilzan oraingo mari- mutillei esan bear!

Orduan ere izaten ziran aitaren eta amaren baimenari begira egon gabe ezkontzeko itza alkarri emanak. Orduko gurasoak gogorak ziran ordea, eta baimen ori zala eta etzala, zenbat atsekabe izaten ote zuten gazte askok!? *Markesaren alabaren* bertsoak esaten dute ori ederki.

Garai bateko aundizkiak geienean gerran ibiltzen ziran. Norbaitekin sesioen bat izaten zuten beti. Eta etxe-nagusiak sarritan izaten zuten familitik aldendu bearra. Aiek ere alabak izaten zituzten ordea. Maitasunak ez du garai jakiñik izaten berriz, eta aita gerrara joan zai egoten ziran zeñekin ezkontzeko asmoa zuten amari esateko. Aita etxeratzean izaten omen ziran kontuak!

Baiña amak, losintxa pixka bat gorabeera, aitarekikoak errez egingo zituen. Ama-alabak ondo etorri oi dira alkarrekin, eta aita gizarajoa asko konturatu gabe egiten dute pastela. Batzutan aita konturatzen da orrekin, baiña umore txarrean dagoen etxekoandrearengandik ezer gutxi espero diteke, eta paso eman bear.

Egia eta gezurra nola eman zizkiguten nasi, len lorategi ziran sendiak orra biurturik sasi. Seme-alabak zutik jarrita gaiñera oillartzen asi, ondorengoak ondo ezitzen ez degulako ikasi.

Ez det esan nai gure gazteak arrazoirik ez dutela, ondo baidakit sarri egia ezkutatu zaietela. Baiña pentsatu lenago gauzak oso loturik zeudela, eta umeak nork azi aske guk nai genduan bezela?

1988ko irailak 2

Zer moduz joan dira, ba, aurtengo txangoak? Batere egurastu al zerate? Dagoen tokira joan eta naiko eguzkia artu baldin bada, eta bazterrak ikusiz batetik bestera naiko ibillia egin baldin bada, pozten naiz. Benetan.

Oporren elburuetako batzuk oiexek dira. Oporrak atsedeteko dirala ere esaten da, baiña ori beste kontu bat da. Nekatualdi bat edo beste artzeko ere ez dira txarrak. Betiko bizimodu berdiñarekin aspertu ez gaitezen, aldaketa puska bat ondo etortzen da. Etxeari gusto artzeko kanpoan egonaldi bat bezelakorik ez dago. Poltsa ere nolabait arindu bear izaten da, berriz. Eta beste urte bateko lanari gogoz eltzeko eta abar, oporraldirik ez dedilla falta. Denboraldi bat or zear joan eta pasa dutenak ekarri dute zer kontatu. Au ere estimatzekoa da, pasatutako unerik onenak gogoratuz

ere bizi egiten baita. Kanpoko berri jakitea ere komeni zaigu.

Esne sailtzaille, ogi saltzaille, dendari eta orrelakoak ere opor ondorenean ez dute zer esanaren faltarik izaten. Aiek ere bizi bear dute eta arnasa artzen utzi egin bear, ba. Esanda ere atsedean egiten omen da batzutan. Baiña orregatik ez da iñor gal-tzen. Aurten egindako zuloak datorren urtean obeto beteko dira, eta segi aurrera. Atzera begira egonda ez dago emen ezer.

Garai batean oporraldiaren azken aldera trenean zetorren jendeari begira egoten giñan. Urtero berritzen zan ikuskizuna izaten zan. Kanpotik etorri eta emen bizi ziranak oporren zai egoten ziran –arritzekoa ez da-eta– bere errietara joan eta familikoen eta lagunaren artean egun batzuk igarotzeko. Urte aiek gose-urteak ere baziran, eta etziran utsik etortzen. Maletaz kargatuta, eta eskue-tan lukainka sortak zituztela, konejuren bat edo beste zintzilik ere bai. Egundak batzuetarako jakia inguratzen zuten. Eta etziran asarre etortzen. Nun izan ziran ezagun izaten zuten, noski.

Orain ez dago orrelakorik. Oporretan izan diranak, beste seiñale batzuk ekartzen dituzte: eztago zankoetara edo papar aldera begiratu besterik. Lukainkak eta konejuak onak izango dira, baiña eguzkitan beltz-beltz egindako pantorrillak eta beso-ak baiña gauza itsusiagoak ere izango dira. Orrelakoak dauzka-tenak ere badakite ori, eta zeñek erakutsia ez da falta izaten. Zeñek begiraturik ere ez, eta orra danak pozik.

Len geltokira joaten giñan
zine batera bezela,
oporretatik atzerritarrak
jakiñik bazetozela.
Gaur ikusirik koneju eta
maletarik ez dutela,
esango nuke extremeñoak
euskaldundurik daudela.

Guk kanpotarrak artzen ditugu
ain jator eta egoki.
Gure lur ontan sustraitzen dira
danak poliki-poliki.
Anka-besoak beltz-beltz eginda
luzitzen dute ederki...
Guztiok bizi bear degu ta
orren penik ez eduki.

Agorraren bederatzigarren egunera iritsi gera, eta badirudi uda azkenengo ostikoak ematen ari dala. Bateko oporrak eta besteko errietako festak, ain urte-sasoi atsegiña izaten da uda, badirudi bera bukatzean mira irizten diogula. Gure esku balego, uda luzatu egingo gendukeela uste det. Udari joaten utzi nai ez ori naiko nabarmen ikusten da orain. Donostiko estropadak or daude, esate baterako, udaren luzagarri bezela. Zer esana pranko sortzen dute, eta jendea pranko mugiarazi ere bai, batez ere itsasertzeko errietan.

Il onek erromes asko biltzen duen tokia Ernio mendia degu, bestalde. Il onetako igandeetan Erniora joateko oitura aspalditik datorrena da. Orain kejatu egiten bagera ere, garai batean sendakuntza oraingo aldean atzeratua zegoen. Gaitzak eta miñak sendatzeko beste eldulekurik ez eta errezora, santuetara, siniskerietara eta orrela jotzen zuen jendeak. Min duenak, ai! esaten du, eta zerbaiten laguntasuna nai, ba. Ernio mendian badago gurutze bat burnizko uztaiak berekin dituena. Uztai aien barrutik gorputza pasatu ezkerro, erreuma eta orrelakoak sendatu egiten zirala uste izaten zan. Mendira bidean zinta batzuk ere saltzen dira, eta aiek gerrian lotuta gerriko miñak ere sendatzen omen dirala esaten dute.

Zinta oiek kolore askotakoak izaten dira. Eta orain urte batzuk txapel okerrak menditik beera zetorren jendearen zai egoten ziran. Eta zinta zuri-gorri-berdeak zekarzkitenak denuntzia seguru izaten zuten. Bai bizkarrekoak ere. Epeldu ederrak artutakoak izaten ziran. Eta alako botikarekin gerriko miña kendu bear, nai bazan eta ez bazan! Denbora aiek ere baziran, ba, nolabaitekoak Euskalerrarentzat!

Egun auetan beste zaletasun edo debozio bat ere nabarmen-tzen da Gipuzkoan, beste leku askotan bezelaxe: Ama Birjiñari zaiona, alegia. Ama Birjiña ori bat izango da, baiña izen asko ipiñi dizkiogu. Auetako bat Arantzazuko Ama Birjiña. Ama oni

genion maitasuna asko oztu da aspaldi onetan. Pena ere ematen du. Arantzazuko frailleak ere asko arrituko dira, seguruenik.

Fraile auetako batek, eskean zebillela, mutil koskor bat ikusi omen zuen beiak zaintzen, eta

– Zer? Beieri janerazten?

– Ez, ba. Iñork janerazi gabe ere ederki jaten dute auek, –mutikoak

– Aizak, baserri auetan mutiko deabrua pranko egongo dek, orratio?!

– Ez, ba. Leenago bai omen ziran, baiña danak fraille joan omen ziran.

Eta aoa bete ortz utzi zuen frailea.

Badirudi gaur errezoekin
iñor ez dala fiatzen,
naiz Erniora bisita egin
erreumarik ez sendatzen.
Berdura janez ez baldin bada
okela bazterrerenatzen,
zail izango da gerriko miña
gorputzetik ateratzen

Erreumarentzat ardoa eta
pattarra txarrak dirala,
sinistu gero zekian batek
aspaldi esan zuala.
Eta otoitza bera bakarrik
naiko botika ez dala,
penitentzirik egin ezean
indar txikia duala.

1988ko irailak 16

Eguna joan eta eguna etorri, udazken ingurura goaz. Edo, udazkena emen degu, obeto esanda. Gu beti udan egongo giñake, baiña uda joan egiten zaigu, eta datorrenari eldu bear. Eta datorren orrekin konformatzen bagera, obe gaiñera. Bestela ez gera sekula ondo biziko-ta.

Jakintsuak diotenez, eguzkia oso ona omen da osasunerako. Aurtengo indarrik aundienak joan izango zaizkio, baiña eguz-

kiak badaki udazkenean ere ondo portatzen, eta azaltzen zaigun egunetan epeldu bat edo beste artzea izango degu onena. Inglaterrako sendagille batek esan duenez, soñean erroparik gabe eguzkia artzeak bizia luzatu egiten omen du. Auxe izango da botika merkea denbora askoan bizitzeko. Erropatan ere dirua kastatu bearrik ez, alajaiña! Eguzkiak zenbat eta gorputzaren sail geiago arrapatu orduan eta mesede geiago egiten omen du; eta orduan eta geiago irauten dute mesede oiek. Orratx gazteentzat bere edertasunak erakusteko aitzaki polita! Urtetan aurrera goazenak ere eguzkia ona izango degu, baiña zeñek erakutsi nai ditu bere zimurrak?

Eguzkia artzea biotzarentzat ere ona omen da, arnasa artzen laguntzeko. Eta gizenegi daudentzat ere bai. Lanak arrapatu eziñak ematen duen estuasuna baretzeko ere oso ona izan bear du. Auxe, batez ere, etxeakoandrentzat ona izango dala iruditzen zait. Senarra baldar samarra dalako edo etxea nai bezin txukun eduki ezin duenean, ez dauka zertan bere onetik irtenik. Senarra narrats samarra baldin badauka ere ez dauka batere morroxkararik egin bearrik. Lasai-lasai eguzkitan egonalditxo bat egin eta ikusiko du nolako patxaraz artuko dituen gauzak. Makaldurik edo aulduta gaudenean ere eguzkia artzeak mesede egiten omen du, eta zaartuta txakaltzen asten geranean ere bai.

Kalkuladora edo kontuak ateratzeko tresnak badaude orain eguzkitan kargatzen diranak. Eta gure gorputz-azala ere pila edo orrelakoen antzekoa izango da nunbait. Orregatik, eguzkia artu bear degu, baiña neurrian. Pilak gaiñezka jarri gabe, alegia.

Dana dala, errietaldi bat baiño astean eguzkitan lasai-lasai egonalditxo bat egitea obe dala esango nuke. Senarrari errespeto pixka bat jartzea ona izango da, baiña umore onean eta goxogoxo bizitzeak ez al du balio?

Miñak petraltzen baldin bagaitu
eta lan askok ere bai,
kulpa guk degu eta erritan
ez asi beintzat nolana.
Ez degu egon bear gaitz danak
noiz aldegingo duten zai;
bota atxurra bazterrera ta
eguzkia artu lasai.

Ondoezaren illunpetatik
irtetzeko argitara,
pazientzia galdu baiño len
jo edozein tokitara.
Iñor badator gizatxartuta
zuregana erritara.
esan oilloak perratzeko ta
zu joan eguzkitara.

1988ko irailak 23

Gure Jaungoikoak leenengo gizona egin zuenean, berari begira jarri omen zan, eta nolako izaki bikaiña egin zuen ikus-tean, ala esan omen zuen: “gizona bakarrik egotea ez dago ondo”. Eta ala, emakume bat berri-berria egin eta laguntzat eman omen zion.

Leenengo gizona artean gaiztotu gabe egongo zan, seguru asko. Eta pozik artuko zuen emakumea bere ondoan. Gero, ugaritzen zijoazen bezela, nola gizonak ala emakumeak, era guztietakoak izango ziran: batzuk, jatorrak; beste batzuk, biurriak, ajolagabeak, kaikuak eta orrela. Emakumezkoak ere etziran danak maitatiak, goxoak, leunak eta isillik egoten diran oietakoak izango. Baiña gizona gorputzez indartsuagoa izan, eta bere lagun emakumearekin gaizki portatzen asi zan. Batekin bakarrik ere etzan konformatu, gaiñera. Eta zerizkion aiña emakume bere mende artzen asi zan, artarako komeni zitzaizkion legeak egiñez eta abar.

Gerrak zirala medio, gizakume asko il zan. Moroak-eta orregatik izaten omen dituzte andre bat baiño geiago. Emakumea indarrez gutxiago da, baiña baditu bere abildadeak gizona menderatzeko. Gizon bakoitzak andre bat baiño geiago izatea debe-

katzeko modua egin zuen beintzat. Andre bat bakarrik, eta bizitza guztirako gaiñera! Bein ezkondu ezkeru, egon zedilla zintzo emaztearen ondoan, edo etzedilla ezkondu. Emakumeak jakin gizona zer zan, eta orra nola egin zuen kate motzean lotzeko modua. Matxarda samarra izan, orratio!

Arrazoirik etzitzaion falta, alde batera. Gizona bakarrik egotea ez da ona izango. Baiña beti gizonak nai duena egitea ere ez. Eta bereala asi zan au ere bere abildadeak erakusten. Gizonari bere nagusitasuna ukatu gabe, bera asi zan poliki-poliki agintzen, leenbizi etxean, eta gero kanpoan. Ez dago begiratu besterik: or daude ez dakit zenbat erregiña, Inglaterrako Thatcher, Españian bi ministrari eta abar eta abar... Gureak egin duela!

Ezkontzak lokarri estuak dituelako edo, bikoteak ezkondu gabe alkartzearen edo arrimatzen ere asi ziran. Baiña ez omen du orrek ondorio onik eman. Ezkonduak baiño arrimatuak askoz ere okerrago etortzen omen dira alkarrekin. Berebiziko karramarrak eta ezin konponduak izaten omen dituzte.

Beraz, bere itxura batean bizi nai duen gizonak arrimatuta ez dauka konturik. Ezkontzea obe du. Emaztearen esanak egiñez askoz ere obeto biziko da. Emakumeak bai asmatu!

Zeruko Jaunak ikusirikan
gizonaren egoera,
emakumea bialdu zion
laguntzat aldamenara.
Guk uste degun bezin bizkorrak
ez gera alde batera,
andreak ermo lotu ezean
okertu egiten gera.

Senarrok galdu egiten degu
uztarria astinduta,
obeto gaude bein betirako
emazteari lotuta.
Ala nai badu utzi agintzen
pazientzia artuta.
Orretarako gure aldean
talentu aparta du-ta.

Agorra ere badijoakigu, poliki-poliki. Atzo San Migel eguna genduen, eta udazkena emen dala esan nai du orrek. Ostoa erortzen ikusteko gertatzen asi egin bearko degu. Garai batean San Migeli debozio eta jaiera aundia zitzaion Euskalerrian. Gaur Aralarko San Migel ikustera joatea ez da ezer. Leenago etzan orrelako erreztasunik, baiña ala ere etzuen gure Goi-Aingeruak bisitari faltarik izaten. Naparroako Uarte Arakilla autobusean edo nola edo ala joan, eta andik Aralarra igo egin bear da. Gure aurreko kristauen fedearentzat etzan ordea aldaparik.

Aralarko eransuge Luzifer deabrua eta oiek danak San Migelek burukatu omen zituen, eta ainbeste euskaldun laguntza eske joango zitzaizkion. Orain ez da eransugearen konturik entzuten. Baiña aren antzekoak badaudela dirudi. Bateko droga dala, edo besteko kamiñoetako istripuak dirala, sasoi ederreko gizon eta emakume pranko ezkututzen da mundu ontatik, eransugeak irentsi balitu bezela. Luzifer deabruak ere ez dakit sekula baiño pikardi geiago ez ote duen egiten. Telebisioan, eta udan itsasertzean eta ikusten diranei utzi dezaiegun alde batera. Orrelakoak bereala aazten dira, baiña gure gaizki itz egin bearra eta alkartasunik eza ez dira txantxetakoak. Guk ez degu ezer egingo. Zer egin bear litzakeen esateko ere ez degu talenturik edukiko, baiña besteak egiten dutena gaizki dagoela esateko bai. Alkar artuta familiak, auzoak eta erriak ermotu bearrean, nundik dana banatuko. Au ez ote da gero Luzifer deabruaren lana?

Dana dala, eransugeari eta Luzifer deabruari jaramonik egin gabe, San Migel Angeruari esker, egun ederrak pasatzen dituzten erriak badira. Oñati, auetako bat. San Migel urrengo larunbatean sekulako erakusketa edo esposizioa moldatzen dute. Egun orri,

erri-eguna esaten diote. Eta biar izango da. Bei eta txal, barazki eta igali, izango da zer ikusia. Arantzazuko frailleak baratzan lanik egiten duten ala ez an ikusiko da ederki. Baserriko ogia eta lukainka jan nai duenak izango du aukera. Eta baita Astigarragako, Usurbilgo eta ez dakit nungo sagardo ederra edateko ere. Ain jende jatorra da an, eta ain erri alaia da Oñati! Biar bisitatxo bat egin nai nioke, iñola al badet. Eta Luzifer deabruak egin dezala nai duena.

Euskalerrian nola ez dagon
lenago zan aiña fede,
erori gera munduan diran
biurrikerien mende.
Obe genduke fede artatik
apurtxo bat beintzat gorde.
Eraunsugerik ez dago baiña
etsai zar danak or daude.

Luzifer zarrak erre nai gaitu
inpernuko sugarretan,
eta Satanas ere or dabil
saltsa jartzen bazterretan.
Baiña guk nola sinisten degun
San Migelen indarretan,
ez gaituzte gu errez artuko
etsai oiek adarretan.

1988ko urriak 7

Urriaren zazpigarren eguna degu gaur, Ama Birjiña Errosariokoaren eguna. Noiznai ere bai, baiña batez ere urrian errosarioa errezatzeko oiturak indar aundia zuen garai batean. Irratiari esker, bereziki, oraindik ere irauten du oitura onek, baiña ez illunabarrean famili guztia sukaldean bilduta errezatzen zan orduko osasunarekin. Orain presaka bizi gera, eta gure bizimodu ipurtestu onetan ez dago errezo luzeentzat tokirik.

Errezoari buruz era askotako iritziak entzuten dira, berriz. Leengo amonatxoak bazkalaurretik eta apalaurretik esanerazten zizkiguten bukaera gabeko aitagure, agurmari eta salbe aiek zei-

ñek sartu oraingo bizarluze eta gonamotxei? Eztaukate aurrera-goko lanik! Izan ere, platerkada bat babarrun edo porrusalda eta gaztaiña batzuk jateko ainbesterañoko errezoak egin bearrak bazituen bereak, pentsatzen jarri ezkerro. Debozioa baiño gose geiago eta ala ere jaten baiño errezatzen ia denbora geiago pasatu bear. Errezoa noiz bukatuko, ogi koskorrari ozka egiteko, errezatu gabe jatea pekatu zan-eta.

Bein batean eztaibazkari batean fraille baten ondoan geratu nintzan. Errezatu ere egin bearko zala, ba, esan zioten. Etzuen ezetzik esan, baiña ez maia bedeinkatzeko denbora asko pasatu ere.

– Laster egin ditu berorrek patripilioak! –esan nion.

– Bai. Orazio motza eta kolazio luzea bear degu emen –, erantzun zidan.

Ark bazekien gauza bakoitza bere neurrian bear dala.

Leen esan dedan bezela, azkar eta presaka bizi gera. Naiz eta oraindik sinismen pixka bat eduki, gaurko jendea zeñiek soseatu errosarioa errezatu arte. Gazteak diotenez, ez omen dago gauza bat ainbeste aldiz esan bearririk. Ama Birjiñak bai omen daki gure berri, orrenbeste denboran itz berdiñak esaten jardun gabe. Eta, zer esango diezu? Baditeke arrazoï pixka bat edukitzea. Pentsatzen jarri ezkerro, oraingo kantu berri edo moderno oiek ere ez dira gauzak bein esanda soseatzen. Gauza berari makiña bat buelta ematen diote, baiña oiekin dantzan egiten errezago izan nunbait errosarioarekin baiño. Dana dala, errezo kontu ori bakoitzaren iritzira edo bakoitzaren kontzientziaren gain uztea izango degu onena. Errezatzeari utzi ziolako aberastutakorik ez da ikusten, eta errosarioa errezatzeak iñori kalte egin dionik ere ez da entzuten beintzat. Eta nor berak pentsatu bearko du zer komeni zaion.

Beti berekin ditu
sabeleko otzak;
lepazain meak eta
luzeak okotzak.
Eta errezo luze
ta otordu motzak.
Sudur igarrak eta
begiak zorrotzak.

Baiña ez gera bizi
ogi utsarekin,
ta errezatzen ere
bear degu jakin.
Aitagure batzuek
sinismenarekin,
familian goserik
ikusituz ez dedin.

1988ko urriak 14

Urriaren amalaugarren eguna gaur, San Kalixto eguna. Leengo esaera batek dioenez, pagousoak ikusi oi dira gaurko egunez. Eize-garai bete-betean gaudela esan bear.

Leenbiziko gizonak mundu onetan sortu ziranean eizetik bizitzen ziran. Lurra maneatzan ikasi baiña leen, eta artzantzan asi aurretik, nunbaitetik jan bear-eta, bear zuten janaria eizean egiñez inguratzen zuten. Orduan ere emakumeak izaten zuten suertea. Mendi-zulo edo kuebatan-eta orrela bizitzen ziran. Eta etxea apaindu bearrik ere ez, eta gizonak ekarritako eizea prantatuz sutondoan goxatu ederrak artuko zituzten. Kee puska bat ere artu beariko zuten, baiña aldian bein aize pixka bat artzera irtenez, poliki moldatzen ziran. Senarrak berriz, nai eta nai ez, eizean egin bear; eta etzuen sutondoan denbora askoan egoterik izango. Egaztirik edo lau ankako abererik arrapatuko bazan, makiña bat ozpero, euri zaparrada eta elur-eraso artu beariko zituen bizkarrean, arzuloan zeuzkan aurrak eta emazteak mantenduko bazituen. Gauetz arrapatu bearreko pistiak ere izango ziran, eta aurtxoekin eta emaztearen ondoan goxatu aundirik artu gabeko gauak pasatu beariko zituzten, gizarajoak. Bestela ez zituen beti aurpegi alaiak ikusiko. Morroxkararen bat bai, seguru asko.

Millaka urte joan dira ondoren. Eta eizea jolas biurtu zan, eta orrelaxe da orain ere. Gizonak eizerako griña ezurretaraño sartuta zeukan ordea, eta askok ezin dute etsi oraindik ere eizera joan gabe. Onekin izaten dira komeriak. Emazteak ez baidute senarra eizera joate ori begi onez ikusten. Aiek etxeko lanak egin eziñik eta senarra lagunekin eizera? Orixo ondo iguin izaten dute. Gaiñera, zertara joan eizera, utsa ekartzen dute-eta? Eizea oso zailla jarri da, eta ez dakit emakumeak ez ote duten arrazoi azkenean. Baiña eiztariak modu askotakoak izaten dira. Ez dute danak denbora alperrik galtzen. Badira eguna eizeari begira pasatzen dutenak, baiña baita sagastiak eta gaztaiñadiak miatzen dituztenak ere. Bestek botatako usoak jasotzen dakitenak ere izaten dira, eta erositako eizearekin luzitzen dutenak ere bai. Eta orrelaxe joaten da eiztarien udazkena.

Eizerako oitura baiño griña txarragoak badira, eta ezin diteke geiegi estutu. Amabost eguneko gorabeera izango da guztia. Etxekoandreak pazientzi pixka bat artzen badute, orra dana egiña.

Berriketaldi ontan
 esan ditudanak,
 egi utsak danak.
 Askok erakusten du
 eiztari izanak.
 Gogoan dauzkat lagun
 zar baten esanak;
 kontseju eder asko
 zituan emanak.
 Auetxek dira neri
 esan dizkidanak.

Artu ditut amaika
 aldagoi ta bisuts,
 dana egin tximuts.
 Baiña griña txar onek
 berriz putzura bultz.
 Tiroa pranko tira,
 geientsuenak uts!
 Andrea sermoilari,
 ez gaiñera amuts.
 Eskupeta xar ori
 egin bear det auts.

Dana dakigula uste degun garai auetan santuen esanak eta orrelakoak ez ditugu aintzakotzat artzen. Pixka bat ausnartzeko gogoartuko bagendu, ez genduke ain arin itz egingo. Bereala konturatuko giñake egi galantak esaten zituztela. Santa Teresak bazituen alako esan batzuk. Auetako batek ala zioen: “sufritu nai badezu, gozatu ezazu. Eta gozatu nai badezu, sufritu ezazu”. Kutizi danak betetzen baldin baditugu, sufrikizunak etorriko zaizkigula, alegia. Leengo esaerak izango dira, baiña ez det uste indarrrik galdu dutenik.

Santuak naiko ez dirala, sendagilleak ere alakoxe aolku edo kontsejuak ematen dizkigute. Laister gera neguan. Badakite neguan gorputzaren indarrak auldu egiten dirala, eta neguan ondo bizi gaitetzen, udazkenean ezi nai gaituzte, nunbait. Kontseju danak ez dira gure gustokoak izango, baiña obe izango degu esaten digutena egitea, bestela izango degu lanturik asko-eta. Iñun diran katarro, eztul, gripe, tentsio eta gaiñontzekoak emen izango dira, deskuidatzen bagera..

Sesiña pixka bat eta mondeju bat edo beste jateko ez da garai txarra oraintxe. Udazkena garai ederra, mardula eta oparoa izan oi da Euskalerrian. Baiña negu ona izatea nai badegu, eskeintzen dizkigun atsegin guztiak ezin artu. Neguan gozatzea nai badegu, udazkenean sufritu egin bear. Au da, beste itz batzutan, sendagille jaunak esaten dutena. Alare, bai baiño ez sarriagotan esaten digute. Santuak ere orixe ber-bera egiten zuten askotan, eta bere buruari gauza asko ukatzen zizkiotelako zerura joan ziran. Guk ere orain kutizi bat edo beste bete gabe uzten badegu, neguan obeto izango gera, seguru asko.

Abereen koiperik ez omen zaigu komeni. Beraz, odolki, mondeju, manteka eta orrelakoekin poliki ibilli, geitxo gizenduko gera bestela-eta. Gatza ere, gutxi. Olioia eta margarina naiko koipe omen dira. Kroketak eta saltsa-gauzak ere neurrian. Ogia

saltsatan bustita gustatzen bazaigu, neurria artu beintzat. Ardoa eta pattarra, gutxi ez, oso gutxi. Ura berriz, egunean litro bat edo litro t'erdi. Arraia pixka bat geixeago jan bear omen genduke. Baiña agindu ori merkatzen danean bete bearko degu. Barazki edo berdura, fruta eta oietatik naikoa jan dezakegu.

Azak eta porruak jan eta ura bakarrik edanda, ez ote gera zearo tristetuko?

Gorputzarentzat txarrak dirala ardoa eta patarra...

Alde batera kontseju ori ez da izango ain txarra.

Baiña berdura ez ote degu janari triste samarra?

Ta urak berriz esan izan da errekan dula indarra...

Sufritu egin bear da gero ondo bizi nai danean.

Sententzi ori eman ziguten munduratu giñanean...

Sasoi genduan artean merke saiatu arren lanean,

gatzik gabeko porru-patatak orain zartu geranean.

1988ko urriak 28

Garai batean urriaren azkenalde onetarako baserrietako ganbarak al zaneraiño beteta egon oi ziran. Artoak eta babarrunak bilduta, intxaurrak eta gaztaiñak ere bai, seguru asko. Eta garo lanik audienak menderatuta. Sagar pillaren bat egongo zan ganbaran. Arraskan sesiña ere bai, eta zerriari zenbat denborako bizia gelditzen zitzaion kontuak aterata edukiko zuen amak. Ganbara eta sapaia ondo samar bete ezkeru neguari bildur aundirik gabe aurpegi ematen zitzaion. Baiña dirua ere bear izaten zan, eta ganbarara jaso bearrean, etxean biltzen ziran gauzarik onenak perira eraman bearra ere gertatzen zan.

Orain ez da orrenbesterañio. Leenago bear-bearreko jakiak ziran intxaur, gaztaiña, errezil-sagar eta orrelakoak, orain postre

biurtu dira. Bazan garaia! Baserriari begira ezerk pozik ematen badit orretzek ematen dit. Ondo janez bere itxura batean bizitzeko eskubiderik iñork badu, baserritarrak du, noski.

Ez da gaurko kontua, baiña garrantzi aundiko beste aldaketa bat ere izan da baserrietan: ia ganbarak aiñako garrantzia izozkailu edo konjeladoreak daukala esango nuke. Garai batean zekorrak, konejurik gurienak eta oillaskorik gizenenak saltzeko izaten ziran. Aragia bear zanean, kaletik ekarri bear, eta ez saldutako prezioan, noski. Barazkiekin ere berdintsu gertatzen zan. Orain berriz, txekorrik gurienari larrua kendu, konejueri ere bai, oillo zaar bat edo beste eta oillasko ankaluze oietako batzuk lumatu eta izozkailura, konjeladorera. Onenak etxerako gorde beintzat, eta perira eramateko besteak naikoa dira. Bababerri eta illar berriak ere ondo gordetzen dira kutxa oietan. Siloak belarrez eta konjeladoreak okelaz ondo bete ezkeru, baserrian ez da ain negu txar-txarra ere izango.

Bixiguak ere gabonetan baiño merkeago egoten dan bolara izaten du. Baserrietako etxekoandreak orren berri badakitela uste det. Bateren batek esan du onuzkeru, baserrietan ez dala nik uste bezela gauza gaiñezka izaten. Nun izaten da gaiñezka? Ez baserrietan eta ez beste iñun. Baiña negar geiegi ez degu egin bear.

Konjeladoretik aterata txuletak prantatzen asteen, etxekoandrerren batek esango du: “zenbait kaletarrek arrapatuko balu!”.

Zer galdurikan ez daukazute
gauz onak aukeratuta,
baserritarrak ondo jateko
eskubidea badu-ta.
Al dan ondoen bizi zaitezte
sobra dagona salduta.
Eta okela onena gorde
izotzontzian sartuta.

Baserritarra naiz bizi izan
beti lanari emanik,
gauzik onenak iñorentzako
berak egiñak izanik.
Baiña ez uste begiak ondo
zabaldtu ez dituanik.
Orain ez dago baserritarra
izorratuko duanik.

Santu guztien egunarekin asi eta San Andresenarekin amaitzen dan illabete bedeinkatua deitzen diote batzuk azaroari. Baditeke orrelako zerbait izatea. Zeiñi laguntza eskatua ez da gauza txarra. Mundu koskor ontan gabiltzan artean zerbaiten premia beti izaten da, eta orregatik jarriko zuten Santu guztien eguna. Animaren eguna ere orain izaten da. Egutegietan eta liburuetan azaltzen diran baiño askoz ere santu geiago omen dira. Animaren bat edo beste gure otoitzen premian egotea ere baditeke. Eta Santu guztiak ondartzeko eta anima guztiei laguntzeko omen dira azaroaren leenbiziko egun auk.

Egutegi edo kalendarioan esaten diguten baiño santu geiago dirala, egia dala esango nuke. Oraindik urte asko ez tala, gaur aiña gaxozai edo enfermera eta orrelakorik etzan. Iñun ziran klinika, hospital eta gaiñontzekotan gaixo zeudenak edo zaarrak biltzen ziran errukietxe guztietan monjak lana egiten zuten. Karidadeko monjak zirala edo beste monjaren batzuk zirala, izaten zan aien bearra. Sinismena eta itxaropena zeukatelako, zeru esperantza beste saririk gabe makiña bat karidade egindako monjak badira. Aspaldi ontan asko urritu dira orrelakoak, eta ez det uste batere irabazian irten geranik. Danak ez omen ziran umore onekoak izaten. Matxarda samarrak eta sorgin antzekoak ere izaten omen ziran tartean. Baiña nun ez da izaten orrelakorik? Aien lanak egin bear bagenitu, gu ere ez giñake beti txori alaiak izango.

Nere berriketak entzutean nundik nora ote nabillen galdetuko dezute bear bada. Oraintsu jakin dedanez, Palma de Mallorcan gertatu omen da esatera nijoana: toki polita izan arren, Palman ere laguntza premia duten zaarrak badaude. Zaar oien egoitzan gauzez lan egiten duten gaixozai edo enfermera eta enfermeroak zer egingo, eta oeburuetan dauden tinbreak jotzen ez dutela utzi omen zituzten. Gaixo zegoenen batek larrialdiren bat izanda ere

tinbrerik jo ezin, eta enfermerak lo, lasai asko. Ori ere egin egin bear! Aitonatxo bat estuasunak emanda oetik eroritzeraño larritu omen zan, azkenik. Monjak aitzaki asko izango zituzten, baiña ez det uste orrelakorik egingo zutenik. Morrokkada bat edo beste egitea da bat, eta gaixo dauden aitona-amonak gau luzean laguntasunik gabe uztea beste bat. Monjak urritzearekin ez ote gera galeran irtengo?

Zenbait fraille ta monja lenago
saiatzen ziran gaxo zai.

Emen bizitza ortan emanda
zerua irabazi nai.

Orain fedea galdu degu ta
kontzientzia ere bai.

Gaixoak gaeuz sufritzen eta
gaixozai danak lo, lasai...

Fedegabeak euren ustean
dira jakintsu prestuak.

Eta Jainkoa maite dutenak
arlotte atzeratuak...

Baiña etsaiak ez ote dauzka
atzaparretan artuak?

Alaxe uste badute ere
ez dira danak santuak.

1988ko azaroak 11

San Martin eguna iritsi zaigu aurten ere. Ez dira danak aaztuta egongo. Ataunen eta Zegaman ez det uste egunez ikusitakoa gaeuz eramaten jardungo diranik. Izango dute gaur aurreko lanik. Egunez lana egingo badute ere illunabar aldera lagunarte atsegin bat igarotzeko zerbaiten aitzakia ona izaten da.

Nola Ataunen ala Zegaman, erriko festa nagusiak pasatu baziran ere, San Martin ondratu beariko dute, eta etzaie gaurko eguna gaizki etorriko. Mondejuak jateko egun apraposa ere bada gaur, eta orren itzalean festa ere komeni izaten da, beti lanean jardun gabe. Etxean egon bearra berez etorriko da. Urretxun ere egun berezia izaten dute gaurkoa. Buzkantza jateko eguna. Burua leengo lepotik baldin badaukate beintzat,

urretxuarrak jator pasatuko dute San Martin eguna. Ango alkarte, jatetxe eta gaiñontzekotan izango da lagunarte jatorrik. Alkarrengana bilduta gaitzik gabeko umore ederrean San Martin eguna ospatzen mutillak dira. Biar larunbata da, gaiñerra. Eta lanera joan bearrik ez dute izango. Gaur arrastotik pixka bat irtetzeko kezkarik gabe illunabarra nai aiña luzatzeko aukera ederra. Euskal usaizko nortasun berezia guztiz aspaldikoa dute urretxuarrak. Edozein festa edo feriegun dala, oso nabarmen ikusten da ori Urretxun. Euskalerrria maitatzen erakutsizuan maixua erri ortakoa zala ere ez degu aaztu bear. Iparragirrek ereindako azia indartsu azi zala esango nuke, eta oraindik ere frutuak ematen dituela. Garai bateko egun illun eta urte zail aietan ere nabaritzen zan Iparragirreraren arnasa Urretxun. Francoren denboran ere zutik jarrita kantatzen zan Urretxun *Gernikako arbola*. Kondairak dionez, Iparragirre mutil koskorra zala Zeraingo eskolan ibilli zan, eta ezin esango degu ezer ikasi etzuenik. Zeraingo plazako arte aundiaren azpia bururatu ote zitzaion Gernikako arbolari alako kantu ederra egitean? Zerainek ere parte pixka bat edukiko du Gernikako arbolarekin.

Dana dala, euskal oitura jatorrari eutsiz San Martin egun on bat izan dezagula danok.

San Martiñek gaur egun eder bat
 ipintzen digu aukeran,
 lagunartean edo etxean
 bakoitzak nai duen eran.
 Indar berriak komeni dira
 neguaren etorreran...
 Ea mondeju batzuek janez
 indarrean jartzen geran.

Al dan artean oitura onak
 ez ditugu bear galdu.
 Alkartasuna baiño oberik
 erriak ezer bai al du?
 Txorakeriak kendu burutik
 eta biotzak zabaldu.
 San Martiñek nai duen bezela
 guztiok ondo apaldu.

Etzetik irtetzen geran bakoitzean, gure ingurura begiratu eta beste danak gu baiño obeto bizi dirala iruditzen zaigu. Danak ondo jantzita, aurpegi alaiarekin eta edozertarako prest, eta kupira gabe. Gu ez beste danak aberatsak dirala esan diteke. Nai duten guztia daukatela eta danetik osatuta daudela. Gu gera munduko ondarrak. Guk badegu beti zerbaiten kakoa. Beti badegu guk arazo edo problemaren bat. Gure burua larrak elduta bezela ikusten degu, eta beste guztiak libre, ezeren oztoporik ez balute bezela. Baiña ez da ori orrela. Mundu onetan ez dago arazo gabeko inor. Goiko eta beeko, aberats eta pobre, gazte eta zaar, danak dauzkate bere lanak. Batzuek arazoari aurpegia emateko adorea izaten dute. Arazoen aurrean azi eta zaildu egiten dira. Arazoak gainditzeko, bizitzako eginbear bat besterik ez da aientzat, eta eginbear ori gogo onez eta arretaz betetzen dute, bizitzaren beste edozein zati balitz bezela. Beste batzuek, aldiz, bere bizitzaren zailtasuna besterik ez dute ikusten. Uste gabe edo ezbearrik txikiak kukiltzen ditu, eta arazoak eurak bakarrik dauzkatelakoan, beti gauza bat buruan dutela, bekokia jasotzeko kemenik gabe, buru makur eta aurpegi illunarekin ikusten dira. Kukuak beti oker jotzen du orrelakoentzat.

Baiña leen esan bezela, danok dauzkagu zailtasunak. Guk bezelaxe beste edozeinek. Ez det esan nai onekin besteak estu ikustean, guk poztu egin bear degunik. Ez genduke ezer aurreratuko onekin. Egin bear deguna da ondo bizi dirala uste degun oiei begiratu eta aietatik ikasi. Aiek saiatzen diran bezela saiatu gu ere oztopoak gainditzen. Bizi bear au neke utsa danik ez pentsatu, alderdi on asko ditu-eta. Besteek egiten dutena egiteko lain bagerala gu ere, eta segi aurrera. Besteak ondo bizi diralako ez gaitzela goibeldu beintzat, bestela laister gera inbiriaren mende-eta. Eta orduan bai giñakeela errukarri! Inbiriz bizi dana sekula

ez da ondo biziko. Beti zerbait faltako zaio ari. Orra sekula kentzen ez dan egarria eta munduan inpernua. Inbiriak anima erre egiten duela esan izan da, eta gorputzarentzat ere txarra dala.

Batzuek au edo besteak ura, patxaran bizitzen jakin bear da emen. Arnasa artzen jakin. Saiatu gaitezen biotz zabaleko eta argiak izaten, eta ez erreminduak eta ximurrak, askoz obeto biziko gera-eta

Besteren onak eman
izan digun miña,
eta lagun urkorik
ikusi eziña.
Badegu orrelako
makiña bat griña.
Ez inbiriosoak
izan ez bagiña.

Bat bizi baldin bada
inbiriz ta triste,
aren biotza ezin
ezerekin bete.
Bizitza ederra da,
eta izan maite.
Ipurterrea danak
beretzako kalte.

1988ko azaroak 25

Jaiotzen danak bizi nai izaten du. Ala dio esaerak. Baiña bizi bakarrik ez, ondo bizi gaiñera. Iñork ez du izaten sufritzeko gogorik. Mundu onetan ez dagoela zorion osorik, baiña danok orren billa ibiltzen gera. Ainbeste aldiz aipatzen dan zorion ori, nai gendukeen uraxe egitea omen da, baiña ez det uste dana orretan bukatzen danik. Askotan, nai deguna egin eta ala ere ez gera asetzen. Geiagoren egarri izaten gera, eta beti zerbait falta zaiona ez da sekula zoriontsu izango. Orrezaz gaiñera, pentsatzen degun ura bereala egin nai izaten degu. Eta ezin badegu, laister petratzen gera. Griña au txikitatik ekartzen degu. Kutiziren bat bete nai duen aurra, negarrez asi eta berea egin arte ez da isiltzen. Gurasoen alegiñak ere alperrik izaten dira askotan. Berak ezin

eta bestek eman arteko betarik artu nai ez, arentzat ez dago zorionik. Guri ere gertatzen zaigu orrelako zerbait. Nai gendukeena egitera iristeko zenbateraiñoko gaitasun edo talentua daukagun pentsatu bear genduke pixka bat, eta gure almenak urriak baldin badira, zertarako erretxindu? Zergatik bizi beti gauza bera buruan degula? Mundu au nolakoa dan ere kontuan eduki bear genduke.

Gure bizitzako egun guztiak ez dira txarrak izaten. Izaten dira une onak ere, eta une oiei bear bezelako zumua eta etekiña ateratzean dago zorionaren misterio guztia. Eta ori egiten geuk ikasi bear degu besteren laguntzari begira egon gabe. Zerbait gaizki irtetzen zaigun bakoitzean gizatxartzen bagera, gu erruki. Ez gera sekula gustora biziko, eta ez degu inguruan lagun asko izango. Orrelakorik pentsatu gabe bizi gerala dirudi, eta mundu koskor onetan bada oraintxe ere lanik asko.

Bateko eta besteko berriak diotenez, joan zan ikastaro edo kurtsua bukatu zanetik oraiñarte gaztetxo askok bere burua il dute. Ikastea zail egiten zaiela edo nai bezin azkar ezin dutela karrera bukatu, eta bere burua urkatu. Zerbait izatera iritsi nai, baiña nekearen aurrean bildurtu, edo ondo bizitzeko urteak datozkienean lan pixka bat egin baiño beste mundura joan naiago. Ez dakit gure ondo bizi bear onekin ez ote degun bizimodua geitxo estutu.

Danok bizi gindezke
mundu ontan ongi,
zorionak egingo
baliguke argi.
Nai badegu bizitza
pasa errezegi,
etzaigu ametsikan
biurtuko egi.
Ez degu izan bear
egarri geiegi.

Bizitza ez da beti
izaten jolasa.
Bada emen eguzki
aiña euri jasa.
Onaldi gutxi dator
onuntz bere kasa.
Artu pazientzia,
ta artu arnasa,
zorionak ez dezan
egin txandapasa.

1988ko abenduak 2

Isilduerazko bezela itz egiñerazteko balio duen tresnarik baldin bada, telebisioa dala esango nuke. Arratsaldera ezker, eta illunabarrean zer esanik ez, bera izaten da etxean nagusi. Badira goizetik asita berari begira jartzen diranak. Baita ostiral eta larunbat gauetan telebisioa dala-ta logurerik izaten ez dutenak ere. Etxeko guztiak bilduta egon arren jatorduko denboran ere ez da itz egiterik izaten, trepeta ori piztuta baldin badago. Eta guztien gogoko saioen bat izan ezker, or nunbait. Baiña batzuek bat eta besteak bestea ikusi nai badute, orduantxe komeriak. Gazteentzat, zaarrak atzeratuak izango dira; eta zaarrentzat, gazteak txoriburu utsak. Eta eztabaida sortzeko ez da beste ezeren bearrik izaten. Orra isillarazteko bezela itz egiñerazteko bidea, telebisioari esker.

Igande eguerdian ere izan oi dira gorabeerak. Sabrinaren bolada pasatu zan, baiña oraindik badaude Marta Sánchez eta orrelako adrezuak. Mota guztietako kantariak ere bai. Geienak ingelesez eta orrela kantatzen dute; eta, naizta tutik ulertu ez, gazteeri oietxek gustatzen, berriz. (Karraisi egiten dute, eta imintzioak ere bai). Zaarrak zaar dira beti, eta gazteak gazte. Eta Telebisioak ere ezin epairik eman. Baiña ezin esango degu Telebisioak alderdi onik ez duenik. Berari esker mundu onetako makiña bat bazter ikusten degu eta makiña bat berri jakin ere bai. Televisioko zuzendariak nolako saltsa jarri zuen ere jakin genduen oraindik denbora asko ez dala. Emakumea izan ura, eta bere burua dotore samar azaldu nai, ba, eta orretarako bear zituen soñeko, belarritako eta ez dakit zenbat apainduri Telebisioaren diruarekin erosten omen zituen. Ez dakit bere burua edertzea lortuko zuen, batzutan orretarako egiten diran lan guztiak alperrik izaten dira-ta. Baiña zer esana pranko jarri zuen, gajoak. Dana dala, gugatik nai dutena egingo dute, eta or konpon!

Ala ere, Telebisioa ez da eztula bezela zenbat eta geiago eduki eta kalte geiago egiten duen oietakoa. Tresna bat naikoa ez bada, ipiñi bi: bat sukaldean eta bestea beste gelaren batean. Artara, nai duenak futbola ikusiko du, eta nai duenak pelikula. Telebisioa nai duenak telebisioa, eta Telebista nai duenak telebista. Gazteak ikusi ditzatela beintzat bere gustoko saioak eta eman dezatela pake santua, orrek ere balio du-eta.

Telebisio ori degula
danon entretenigarri.

Ori komeni zaiotenak bai
orri ederki igarri.

Zerbait estali nai dutenean
asmatzen dute zer jarri.

Oiek parrez ta gu berriz itzik
egin nai ezta alkarri.

Alaiak ziran famili asko
daude orain isilduta,
guraso eta seme-alabak
ia zein diran aztuta.

Danak famili batean bizi
eta sakabanatuta.

Telebisio deabru orrek
engaiñatutzen gaitu-ta.

1988ko abenduak 9

Urteetan aurrera samar dijoazenen batzuk ezkontzen diranean “elizak artuko zituen onuzkero”, esan oi da. Beste esaera bat ere bada, polit askoa: “ezkondu arte, mutilzaarra; eta ezkondata gero, gizon gaztea”. Edota, “leen neskazaarra eta orain andre gaztea”. Onelakoxe mirariak egiten ditu ezkontzeak. Badirudi ezkondata gaztetu egiten dala. Ezkondata txukundu bat artzen dala. Ez nuke ezetzik esango, batez ere mutilzaarrak. Baiña gaztetze ori zail samarra ikusten det. Andre gazte biurtzen diranak egiten dituzte alegiñak, bai, gazte itxuran azaltzeko. Baiña urteak an egoten dira. Senarra ere nola edo ala pixka bat engaiñatu bearke dute, eta baditeke apurtxo bat preskatzea edo gaztetasuna zerbait luzatzea. Emakumeak polita izate ori berea du, eta

edertasuna gordetzen saiatzea oso ondo egiten du. Guk ere inguruan lagun polita eta txukuna naiago izaten degu, bere buruaz arduratzen ez dan itsusia eta zatarra baiño. Geure zakarrean, gizonok ere ederzaleak baigera.

Inglaterrako bikote batek, ezkontuta gaztetuko zirala edo orrelako zerbait pentsatu zuen. Eunda bat urteko agure bat larogei ta bat urteko amona xaarrarekin ezkondu omen da, alajaiña! Emakume onek leenbiziko aldiz galdetu zionean, ezezkoa eman zion, orain senarra duenari. Emakumea izan, orratio ura. Eta ezin, ba, leenengoan baietz esan. Bestela etzan emakumea izango. Baiña bigarren aldiz eskatu zionean, laister eman zion baiezkoa. Ezkontzeko irrikatzen egongo zan, seguru asko; eta alare diximulatu egin bear, ba. Dana dala, ezkondu dira beintzat, eta suerte on bat izan dezatela. Elizatik irtetzean aiei arroza botatzea alperrik izango zan. Ain edadetuak ziran, gizarajoak! Gurpildun silla banatan joan omen ziran ezkontzera, eta naranja-zumua edanez ospatu zuten gertakizuna. Zer egingo zuten, ba, txanpaiña edateko etziran gauzako-eta?! Baiña ez da ori okerrena. Alkarri musutxo bana eman nai izanda ere, nola moldatuko ote dira? Ez al dira beintzat sillaren gurpillak katiatuta, ez atzera eta ez aurrera geldituko. Erorita kolpe txarren bat artzeko ere... Jolasean ez al dira asiko, daukaten edadearekin.

Xelebrea da aitona eta
amonatxo baten jira:
eunda bat eta larogeita lau
urtekin ezkondu dira.
Ez ote dira berandu samar
jarri alkarri begira?
Utsa litzake alkarri salda
berotzeko lain balira.

Ezkondu gabe ezin etsiak
ematen du naiko lana.
Gauza goxoa izaten nunbait
maiteño baten laztana...
Al dan azkarren bete bear da
maitasunaren esana,
eta eun urte bete baiño len
egin egin bear dana.

Gaur ez daukat kontu berririk esateko. Baiña bada bat, ez dakit kontu berdiña ala kanta berdiña nola esan, noizean bein aitutzen dana eta urtero-urtero astindu bat ematen zaiona: Aur gutxi jaiotzen dala. Arazo au Europako nazio guztiak omen daukate. Eta beste iñun baiño ere larriagoa, Euskadin. Orain amabi urte, 41.000 aur jaio ziran emen; eta aurten, emeretzi millara iritsi eziñik gabiltz. Denbora berean, amasei milla ezkontzatatik bederatzi milla eta zerbait geiagotara jeitsi gera. Nola politikoak ala gizarteko arazoak aztertzen dituztenak, oso kezkatu daude gertatzen danarekin. Orain arte arazo onen larritasuna emendik 25 urtera edo orrela nabarmenduko zala esaten zan, baiña beste amabost urterako naiko estu izango dira gauzak.

Zaar eta gaiñontzeko, lanik egiten ez dutenak ugaltzen ari dira, eta zeñek lana egiña geroz eta gutxiago dago. Arazo, larritasun eta buruausteen berri eman digute, baiña betiko kanta: oiek konpontzeko erabakirik ez da agiri. Beti illunpean jarraitzen degu. Aurak jaiotzeak legez ezkontzearen ondorioa bear du izan, edo ala dirudi beintzat. Ezkontzak gutxitzen dijoaz ordea, eta zer egiten da ori gertatu ez dedin? Ezer gutxi, eta ezer ez esanda ere, ez det uste pekatu aundirik egingo dedanik. Ezkondu ezker, etxebizitza bat nai litzake beintzat. Ezkonberriak ezin joango dira ijitoak bezela zubipera. Baiña zeñek erosi dezake gaur etxebizitza bat zorretan leporaiño sartu gabe? Langille baten irabaziekin ez dago miraririk egiterik.

Ala ere, ez dago au Solchaga jaunari esan besterik! Lantsari edo jornalak jasotzeak salneurrien putzea edo inflazioa ekartzen omen du. Eta langilleak obe omen dute poliki ibilli dirua eskatzean. Gaur gaurkoz, ezkontzen diran langilleak, senarra eta emaztea biak, lana egin beste erremediorik ez daukate tajuz antzean bizi nai badute. Ala ere izango dute lanik asko zorpetik irtetzen. Etxetik kanpo

lana egiteaz gaiñera umeak azi bearrak ere izango ditu bereak. Eta jaiotzen diran guztientzat lana izango dan segurantzirik bai al dago gaiñera? Ea eurentzat, zaarrentzat eta lanik ez dutenentzat egin bearrean gertatzen geran... Ez nuke ezetzik esango, eta gaitz ori ez dago zenbait ministroren botikarekin sendatzerik.

Len galtzarpean ogi batekin
etortzen zirala aurrak,
au jendeari buruan sartzen
ez daude gaur lan samurrak.
Ez ote dira gero itz auek
erdi uts edo gezurrak?
Oraiñaldian beintzat oiñutsik
dabiltza emen zakurrak.

Urritzen ari gerala eta
orra jakintsuak larri.
Era ontako kontuak ia
entzun dira naiko sarri.
Aitzakirik ez eman iñori
eta lagundu alkarri.
Lantuak utzi eta gaitzari
erremedioa jarri.

1988ko abenduak 23

Biar, Gabon. Egun alai eta pozgarririk baldin bada Gabon eguna da bat, osasuna eta lana dauzkanarentzat beintzat. Egun alaiak bezperak ere alaxe izaten dituzte. Eta Gabon aurreko egunarekin orixe gertatzen da. Biar zer datorkigun badakigu. Aspalditxoan etxean afaldu ez duen semea edo alaba gurekin izango da. Illobatxoren bat edo beste ere bai, bearbada. Eta biar-ko une gozoezin pentsatuta, gaurtik pozten asita gaude. Biar etxean ezer falta ez dedin, dagonerako kontuak ateratzen asita egongo da ama. Besteak beste dirala, ama beti ama izaten da, eta poltsari besteetan aiña begiratu gabe egingo ditu gaur erosketak. Biar Gabon da, eta familia guztia bilduta gozatu bat artu bear degu, txanpon batzuk gorabeera. Amak jakiten du etzekoen berri ondoena. Ezagutzen ditu bakoitzaren kutiziak; eta asmatuko du danak bere ondora nola ekarri. Ortarako artzen dituen lanak ez

dute ama nekatzen. Noiznai ere zorurik gabeko osiña da amaren biotza, eta Gabonetan, bi aldiz.

Aintza Jaungoikoari eta pakea lurrean gizonari!, esaten du gabon kantak. Itz gutxitan gauza asko esaten da or. Beste askoren artean, bakoitzari berea eman bear zaiola ere sartuta dagola esango nuke. Jaungoikoa goiko jauna baldin bada, Berari aintza ematea bidezkoa izango da. Mundu onetan ere zerbait aundia egin dutelako nabarmentzen diran gizonak, omenduak izaten dira. Jaungoikoari aintza emateak ez die askori ezer esaten, baiña ez det uste ori egitetik kalterik etorri ditekreenik.

Eta pakea nola ekarri gure artera? Izate ezkerore, bakoitzari berea emanda, eta ez beste iñola. Familietan ere alaxe egiten dira pakeak. Pakeak zoriona berekin du, berriz. Eta Gabonetan beintzat zorion orretatik zatitxo bat bederik geureganatzeko alegiñak egin bear ko ditugu. Amak ez digu ezer eskatuko. Berea, ematea da. Eta maitasuna emango digu erruz. Inguratu gaitezen biar danok amaren ondora, iñola al badegu. Aita ere ez da asarretuko orrekin. Amak aiña musu ez digu emango, bearbada. Baiña aitak ere badu biotza, eta askotan iñork uste baiño samurragoa, gaiñera.

Ea, ba, biar etxeko danok alkartzeko modua egiten degun. Ala ikusiko ditugu “aita parrez, eta amaren poza eta atsegiña”.

Zeruetatik datozkigunak
ain dira eskeintz sakonak,
zalantzik gabe zorion dana
oietan dauka gizonak.
Entzun apalki aingerueri
pake egarriz dagonak.
Ori eskatzen dio Jaunari
aintza ematen dionak,
mundu au zero biurtu dezan
gure borondate onak.

Aintza merezi duenik bada
ura da guztion Jauna,
zoriontsuak izan gaitezen
argi egin nai diguna.
Bidea galdu nai ez badegu
prezizko degun laguna.
Eta pakea baldin bada guk
eskuratu nai deguna,
borondate on pixka bat baizik
ez da eskatzen zaiguna.

Aldiz naikoa kezkatzen gera
Euskalerrira begira,
baretasunik ez dulako nai
etorri gure errira.
Gabonetan itz eder askoak
urtero entzuten dira,
baiña joango ote giñake
ain errez gogorkerira
pake-gorantzan esaten diran
danak egiak balira?

1988ko abenduak 28.

Kaixo entzuleok. Badakit gaur asteazkena dala, baiña gutxitan entzuten diran bezelako berriak dauzkat zuei emateko. Eta orregatik nago emen ostirala ez izan arren.

Arkonada eta Biurrun zeintzuk diran danok jakingo dezute, noski. Arkonada Realaren atezai edo porteroa da; eta Biurrun, Bilboko Athletic-ena. Eta albistea auxe da: Arkonadak eta Biurrunek milloi bat pezeta apustu egin dute, Seguratik Zeraiñera bizikletan zein leenago jua. Gaur eguerdiko ordubatean aterako dira Segurako plazatik. Eta Zeraingo plazara leenbizi iristen danak milloi bat pezeta irabaziko dio besteari. Karrera bukatzen dutenean, Zeraingo plazan dagoen jendearen artean bizikletak errifatu egingo dituzte, gaiñera.

Autografoak firmatzea nai dutenak, dijoaztela ordubata laurden gutxirako Segurako plazara. Karrera bukatzean nekatuta egongo dira, eta orregatik izango da autografoak aurrez firmatze ori.

Arkonada eta Biurrun futbolista onak dirala badakigu, baiña nolako karreristak diran jakin nai badegu, gaur izango degu aukera ederra.

Karreraren asten diranean kamiñora iñor sartu ez dedin zaindu eta orrelako lanak Ertzaintzak egin izan ditu, baiña gaur Realeko txuri-urdiñak eta Athletic-eko txurigorriak egingo dituzte, ertzaiñaren ordeez. An egongo dira danak Seguratik Zeraiña bitarteko kamiñoan. Eta aien esanak zintzo bete bearko ditugu, ezeren okerrik izan ez dedin. Badakizute gero futbolistak ostikalariak izaten dirala. Epaille edo juezak ere karrera guztietan izaten dira. Gaur *Jurado de ruta* edo esaten zaion orretan Zamora eta Larrañaga izango dira. Bibotedunak dira biak. Eta orregatik jarriko zituzten, seguru asko, errespeto geiago sartu dezaten.

Karrera polita izango da. Ikusi bear degu gure Arkonada ori nolako karrerista dan. Biurrun oso ona omen da, baiña ez dakit Arkonadak ez ote dion irabaziko. Ni bere alde nago. Laster jakin-go degu. Gero arte.

1988ko abenduak 30

Aurtengo urte onek ere ia-ia eman ditu bereak. Biar urtezaar. “Urte zaar mikirri, eroak ere igarri”, esango degu biar. Baiña eroak ez diranak ere antzemango diote biarko egunari. Eta zer esanik ez gauari. Azkenetan dagoela, baiña falta zaion pixka ori ez dakit urte guztiko onena ez ote dan izango. Batzuentzat bai, beintzat. Izango da baztarretan zaratarik asko. Izango da afaria, txanpaina, kantua eta dantza. Eta orrela obe, gaiñera. Burrugarik ez dedilla izan, eta gaiñontzekoak pasatuko dira. Gabonetan-eta sobratutako txanpain ondarrak istillu gorri daukate biar. Makiña bat poltsari zorua ikusiko zaio. Dirua kastatzeko omen da. Al duenak al duena egitea ere bidezkoa da, berriz. Eta ea pena guztiak aazteko moduko urte bukaera izaten dan.

Gazte denbora bakarra izaten da gero, eta ari zumua atera bear zaio. Urtezaar alai bat pasa ezazutela, gazteok. Zeuen

buruak ondatzeko modurik ez ezazute egin beintzat; eta naiz ta gauean berandu edo goizean goiz etxeratu, bear dan bezela baldin bazatozte, zuen gurasoak ere pozik izango dira. Eta ez dute esango gau txarra pasatu dutenik. Gero, urteberri egunean, ez da aurpegi txarrik ikusiko etxean. Ez dakizute orrek zenbat balio duen. Gazteak gauean neurritz jolastuta eta gurasoak kezkarik gabe dau-den familian, urteberri eguneko bazkaria ez da nolanaikoa izan-go. Alkarrenganako konfiantza osoa dagon familian mundu onetan iritsi liteken zoriona iritsia dagoela esango nuke. Danen gustoa egiten zail izaten da, eta joan dan urte onetan izango ziran gorabeerak. Datorren urtean ere izango dira, baiña nola zaarrak ala gazteak, batek bestea mindu gabe bizitzeko alegiñak egiten baditugu, or nunbait moldatuko gera.

Une on eta alaiak azkar pasatzen dirala? Bai, noski. Baiña eun urte irauten duen une on eta txarrik ez da izaten. Eta txaar-aldiak ere izaten dute bukaera. Lagun batek ala zion besteari:

– Emengoxe negua ez da beintzat motza izaten. Abendua joan zaigu, baiña ilbeltza eta otsailla ez dauzkagu pasaturik.

– Zer? Negua luzea izaten dala? –esan zion besteak–. Kaja Ahorrosa joan eta milloi bat eskatu ezazu udaberrian ordaintze-kotan. Ikusiko dezu negua zein azkar joaten zaizun.

Orra, dijoan urtezar onek
eman bere etekiña.
Noizbait bukatu bear zuela
zan oso gauza jakiña.
Orain beste bat dator,
portatu bedi jator,
ta izan dedilla piña.
Lagundu asmoz baldin badator
izango da zer egiña.

Alai ospatu dezagun danok
urtearen bukaera.
Ortan saiatu nai ez badegu
geuretzako da galera.
Utzi bizitz zarrari
elduaz berriari,
ez beintzat egin atzera.
Alkarri ondo lagundu eta
ederki biziko gera.

Alaxe izan dedilla. Urte zaarra ondo amaitu, eta berriari asiera on bat eman danok. Ea guztiontzat urte oparoa izaten dan.

Agur

1989

**Belearen arrautzak
usakemerik ez**

1989ko urtarrillak 6

Erregeen eguna iritsi zaigu. Bat baiño geiago egongo ziran egun onen zai, eta iritsi da au ere, urtero bezelaxe. Umeak eta ume ez diran askok, denak izaten dute gaur zerbaiten itxaropena. Leenago, goiz aldera etortzen ziran Erregeak. Orain presaka bizi gera ordea eta ez degu goizean esnatu arte itxoiteko astirik izaten. Erregeak ere oraingo munduaren erara jarrita daude. Umetxoenganako maitasun berezia nola duten, bezperatik etortzen dira, toki askotara beintzat. Oraingo aurrak Erregeak zer ekarriko duten aurrez jakiten dute, gaiñera. Ala ere makiñatxo batek poz ederra artuko zuen, begiak zabalzabal eginda, alako jostailuak ekarri dizkiotela ikustean. Zenbat ote dira jostailu ta guzti oera joan diranak? Zenbat jostailuak aldemenean dituztela begietatik irriparrea ezkutatu gabe lo artu dutenak?

Umetxoen zoriona ikusita, pozaren pozez begietatik malkoak irtendako gurasoak ere ez dira gutxi izango. Izan ere, aurtxoan irriparreak sortzen duen poza baiño oberik ez da ezer famili baterako. Aurrak jostailuak lagun dituztela lotara joan nai dutenean, ez zaie galerazi bear, orrekin artzen duten naigabea kaltegarri da-ta. Orra, ba, aurrei pozik bizitzen laguntzeko era errez askoa. Ala nai badute, joan ditezela oera jostailu eta guzti. Orretara aurrak negar gutxiago egingo dute, eta etxean alaitasun geiago izango da..

Gaurkoarekin akabo aurtengo Gabon jaiak. Bateko Gabon eta besteko Urtezaar, ez genbiltzan, ba, ain gaizki. Baiña gure

ezpain-igurtziak joan dira puska baterako. Emendik aurrera izango degu naiko porrupatata, borraja eta orrelako, azelga batzuk tartean dirala. Etxekoandreren batek esan du onuzkero: “zuek ondo zenbiltzaten, eta gu? Gizonezkoak bai, patxaran jan eta edan egiñez bapo, baiña emakumeok lana egin bear. Guretzat ez da jairik izaten...”.

Ez dakit au ere dan-dana egia ote dan. Emazteak lan asko daukanean saiutzen gera gu ere laguntzen, baiña beti ez da erreza izaten asmatzen. Aldiko lan geiegi agintzen digute, eta orrekin endreatzen gaituzte. “Au ebaki ezazu, gaiñezka egin ez dezan sutan dagoen esnea zaindu ezazu, patata bat edo beste zuritu bearco dezu, tomate pote bat ekarri zaidazu...”, eta nik ez dakit zer. Askotan tomatea eraman bearrean pipar potea igual eramaten diogu, eta kitto orduantxe! Gure losintxak ez dute asko balio izaten. Zer egingo degu, ba? Senarrak aldrebes samarrak izaten gera, eta esaten digutena isil-isilik entzun, eta pazientzian artu bear danak.

Bart arratsean ez nengoen ni
orain nagon bezin triste,
Erregeak au egiterikan
ez bai nuen asko uste.
Zapatak garbi-garbi egiten
pasa nuen ordu bete...
Ni ez naiz gaizki portatu baiña
ikatza jarri didate.

Gorbetaren bat edo beste len
ipiñi izan zidaten.
Meltxor, Kaxpar ta Baltasar oso
xurrak izan dira aurtan.
Eman didaten atsekabea
ez da erreza esaten.
Eta saiatu bearrean naiz
txintxoagoa izaten.

1989ko urtarrillak 13

Ilbeltzaren erdi ingurura iritsi gera beintzat, eta asi gera poliki-poliki neguari aurrera bultza egiten. Oraindik lanik asko emango digu. Baiña etzaigu dana falta. Eskiatzeko eta elurretan

jolasteko zaletasuna dutenak oraintxe egongo dira pozik. Orrelakoak ez ditu otzak ikaritzen eta ez daukate suerte txarra.

Nik uste det negua geienontzat iguingarri izaten dala. Baserrietan lan bat baiño geiago utzi izan da neguan egingo dirala esanda. Eta negua iristen da, baiña ala ere atzera utzitako lanak arrapatzeko asti geiegi ez da izaten baserrian. Ukuilluan dauden abereak ez diote eguraldiari begirutzen, eta girorik txarrena baldin badago ere, aien lanak eta geiago ere egin egin bear. Aragia eta esnea garesti daudela baiña baserritarren dirua ez da bidean billatutakoa izaten.

Artzaiak ere esango dute zerbait. Ostiko bat emanda bialtzeko abildadea baleukate, neguak ez luke denbora luzeko bizia izango. Negurik onena danean ere udako kontuak aaztuta bizitzen dira artzaiak. Arkumeak salduta artzen duten diruari eskuetan eusten izaten dute naiko lana. Kosta aldera artaldearekin joateko-ta leenago baiño erreztasun geiago daukate orain. Pentsuarekin aukera ohea ere bai, baiña erreztasun guztiak dirua eskatzen dute, eta orrek ematen ditu buruausteak. Kontua da, aragia eta esnea garesti, arkumea eta gazta ere bai, edo merke ez beintzat, eta neguaren petralkeririk geienak kaletarrrak ordaindu bear izaten ditugula. Gu beti baserritarren eta artzaien errukiz bizi gera, eta gure errukirik ez dakit iñork izaten ote duen. Santa Luzitan Zumarragan bezela beste erri askotan ere izaten dira gazta erakusketak. Proatu aitzakian edo, inbiria emateko lain ematen digute, eta arekin konformatu bear. Taloarekin eta baserriko lukainkarekin berdintsu gertatzen zaigu. Naiago nuke erakusketa edo esposizio oiek geiago ugalduko balira. Batean proatu eta bestean beste mokokada bat, poliki moldatuko giñake artara.

Lanera joan bear, ba. Eta asteleen goizean jeikita badator neska gazte bat sukaldera, begiak zabaldu eziñik. Eta aitak:

– Altxa burua, neska, astea bazijoanda!

Artean asteleena izan, eta astea bazijoala... Nolako begiratu egin ote zion alabak aitari?

Ilbelta gogor egiten zaigu
neguaren eragiñez,
irristaka or ibiltzen gera
aldapa igo eziñez.
Ez gaitzela sekula jarri
kezkatan buruko miñez.
Aldaparikan ez da berdintzen
kaskarrari atz egiñez.

Ilbeltz erdia joan da eta
laister da bere azkena.
Auxe da orain eman ditek
berririk pozgarriena.
Erditik moztu degula kontu
urteko illik luzena.
Joan dedilla zorionean,
jaso dezagun kintzena.

1989ko urtarrillak 20

Ilbeltzeko aldapa igotzen ari gera, orratik. Ia etzaigu asko falta gaillurra arrapatzeko. Aurre gozoak atze mikatza izaten duela esan oi da. Urte bat alai antzean bukatu zalako, beste urtearen asierak estua izan bear al du nai ta ez? Baditeke poltsak pixka bat zimurtuta egotea, baiña ez dirudi jendea eziñean dabillenik. Orrelaxe obe, gaiñera. Osasun ona eta lana izan ditezela, eta laister dira aldapa kontuak aaztuta. Bart arratsean etziran donostiarrak aldapa igo eziñik ibilliko, San Sebastian bezpera baitzan. Ilbelta izan arren, Donostiako jatetxeak izango zuten istimazioa. Eta alkarte edo soziedadeetan arma-tzen dituzte berriz ortik onerako saltsak! Angulak garesti dau-dela baiña, prezioak prezio, ezpaiñak ondo gozatuak izango dira Donosti aldean. Krisia dagoela, baiña etzitzaion an asko antzemango.

Orain urte batzuk, San Sebastian bezperako afarietan etzan arkumerik falta izaten eta, jakiña, gizonaekoak bakarrik eta ezeren loturarik gabe, zeñek errenditu? Emakumeak ere

gu aiña bai omen dira ordea, eta afari oietan bere sudur politik sartzeko modua egin zuten. Errespeto pixkaren bat jarri ere bai, eta San Sebastian bezperako afariak giroz zerbait moteldu egin zirala esaten zuten donostiarrak. Gauza onak danoi gustatzen zaizkigu, eta etxeoandreak ere ikasi omen dute gizonezkoak bezela parranda egiten. Ala bear danean zurrut pittin bat egiten ere bai, eta ez det uste afaltzerakoan umore faltarik izaten danik. Umore on orrek urrengo egunean ere irauten baldin badu, or nunbait. Baiña ez det orren berririk. Biaramonean aurpegi zimur samarrak ikusten ez badira... Dana dala, bart arratsean egurastu bat artutako etxeoandreak izango dira, eta ez du gutxi balio orrek.

Leenbiziko aldiz Donostian izandako baserritar bati zer moduz ibilli zan galdetu omen zioten, eta ark:

– An ez dik iñork lanik egiten. An egunero jai izaten dek. Jendea kaleak betean ibiltzen dek beti, eta jai izan bear, nai eta naiz ez –erantzun omen zuen.

Ameriketara joan eta naiko dirua egin zuen bertsolariak ere “a zer bizimodua, au Donostian balitz!”, kantatu zuen. Donostiarrei *kaskariñak* esaten diete, baiña an ere lanetik bizi diranak geiago dira lanik egiten ez dutenak baiño. Donostia toki polita da, baiña an ere ondo bizitzeko poltsaondo ona bear...

Donostiarren edertasunak
asko maite dituztenak,
badira emen danak zeruan
daudela uste dutenak.
Naiz ta ibilli egun auetan
arrastotikan irtenak,
ez dira beti ondo biziko
dirurik ez daukatenak...

Neguan baiño udaran obe
degu joan Donostira,
eta pasatu une batzuek
Kontxa aldera begira.
Ordaindu gabe noiznai ez da bat
sartzen alako tokira.
Berebiziko monumentuak
merke an ikusten dira.

Gure Foru Aldundiak aurtengo onetan baserritarrei laguntza bereziak eskeintzeko asmoak ditu. Askotan astindu dan gaia da au. Joan daneko ez dakit zenbat urte auetan amaika bider entzun degu orrelako zerbait. Gipuzkoan nekazaritza ugaltu eta indartuko baldin bada, gauza asko samar egin bearra dagoela dirudi. Auetako bat, baserritarrak orain bizi diran baiño obeto bizitzera iristea dala uste nik. Eta orretarako, bere lanari etekin ona ateratzeko modua bear dute baserritarrak, diru gutxiren truke lan asko eginda ez baitago konturik. Baserrian sortzen diran esne, aragi eta gaiñontzeko janari edo jeneroak salduko diran moduko prezioetan atera bearra dago, eta orretarako ez dago baserrian makinak sartu beste erremediorik. Besoak bakarrik motz gelditzen dira gaur lanerako. Orain arte ala izan gerala eta orrelako arrazoiak ez dute ezertarako balio.

Aldaketak egingo badira, eta baserrietan lana egiteko era berriak sartu nai badira, bearrezko dan tresneri edo makinaria inguratzeko dirua bear da. Eta au esatean ez da gauza berririk esaten. Baiña badirudi Gipuzkoako Foru Aldundiak, Diputazioak, diru mordoska polita daukala orretarako izendatuta: bi milla lareun eta larogeita sei milloi ta erdi pezeta banatuko ditu. Igaz baiño geiago aurtan. Urtean baiño urtean geiago ematen badu, baditeke zerbait egitera iristea, eta baserritarrentzat laguntza-itza utsean ez gelditzea. Mesede ederra luke Gipuzkoak; eta zer esanik ez Euskalerra guztiak ere. Etxean telefonoa jarri nai dutenak, siloak egin nai dituztenak, baserria zuritu nai dutenak, edo etxean argindarra sartu nai dutenak izango dituzte laguntasunak. Euskera ikasi nai dutelako-edo uda baserrian igarotzeko oitura artu dutenak ere badira orain. Eta orrelakoentzat etxean tokia prestatu nai dutenentzat ere dirua izango da.

Oiek guztiak orrela izanik, berrogeita amabost urtetik gorako baserritarrak bere baserria saldu edo errentan eman nai izan ezkerok, jubilatzeok aukera izango ote duten ere esaten asi dira. Au asmo bat besterik ez da oraindik. Eztago ezer erabakita, baiña 55 urterekin jubilatuta, kaixo mutil!, zenbait baserritarrentzat ez litzake gaizki etorriko. Naiago nuke amets au egi biurtuko balitz. Ez al da eldu baiño leen lurrera eroriko dan sagarra izango auxe!

Baserritarrak zaildu bearra
nola duen gaztetandik,
laguntza pozik artu izan du
baldin badator iñundik.
Eta iristen baldin bazaio
ori nundik edo andik,
gazte-gazterik jubilatuta
ikusten nago oraindik.

Merezi du ta berea dana
eman baserritarrari,
bizitzeko lain ukatu gabe
ainbat egin duenari.
Lagundu garaiz agur egiten
bizimodu astunari,
zartzarorako kezkarik gabe
utzi dezaion lanari.

1989ko otsailak 3

San Blas eguna ere etorri zaigu, eta ezin aaztuta utzi. Bestela, idiazabaldarrak esango dute ea ez al duten aintzakotzat artzerik merezi. Ori eta geiago ere merezi dute, noski, eta ezin egingo degu orrelakorik.

Festak ondo pasatzen badakite Idiazabalen. Leenago baze-kiten beintzat, eta ez det uste ortan atzera egingo zutenik. Ez beste ezertan ere. Idiazabaldarrak ez baitira atzera egiten duten oietakoak. Erri polita da. Eta nola errian bertan ala erri inguruan ere ikusten da etxe bikaiña pranko. Etziran nolanaiko jauregiak izango garai batean orain baserri zabalak diranak. Aietan bizi ziran familiak ere ez edozein. Eliza bera ere ikusteko modukoa

da. Orain zortzireun urte-edo egindakoa omen da, eta batez ere sarrerako arri labratuak izugarrizko meritua daukate..

Idiazabalgo gaztak, berriz, badakigu nolako fama daukan. Fama bakarrik ez, izatez ere alakoxea da. Egun auetan axeriak buztanak arro samar edukitzea ez da arritzekoa. Arrazoi pixka bat ere badaukate-ta. Oiek guztiak orrela izanik, jatorrak eta alaiak ere badira idiazabaldarrak. Zepai saria zala edo beste bertso-saioren bat zala, egun ederra pranko igaroak gera an. Oso lagunartekoak dira, eta pozik joaten giñan dei egiten zigitenean. Ursuaran ere ez da, ba, mondejuak jateko toki txarra. Alderdi ortan badakite bai gauza onak egiten. Eta badira beste batzuk ere gaur gogoan dauzkadanak: Idiazabalgo etxeoandreak. Ez dakit aientzat zer moduzko festak izango diran. Lana egin bearko dute beintzat. Onuzkero an ariko dira bazkaria prestatzen, fin asko. Berriketarako gogo aundirik ez dute edukiko bear bada, baiña etxeoandre oieri ere zertxobait esan bearko diegu.

Bein batean jarri dira iru emakume alkarrekin izketan. Batek ala omen zion:

– Etzegon senarra igeltseroa edukitzea bezelakorik. Esanaren poderioz bederik, noizean bein etxeari berritu bat ematen zion, eta tira.

– Ago isillik, neska –zion besteak–. Senar arotza ohea den. Ark, sikira, sua pizteko txirbillak egingo dizkin, baiña igeltseroak bazter guztiak lardaskatzea besterik ez tin egiten.

Irugarrenak, zaar samarra izan-eta, onela zion:

– Senarra antikuariaoa, edo leenagoko antigualeko gauza oien zalea den onena. Andrea ere zenbat eta zaarrago eta orduan eta geiago maitatzen din ark”.

Nik berriz beste aldera pentsatzen nuen: ardoa zaarra eta andrea gaztea.

Idiazabal ez da bildurtzen
neguko egun otzetan.
Axeri oiek gogorrek eta
bizkorrek dira benetan.
Festak ospatzen asi oi dira
otsaillan, San Blasetan;
udara lasai pasatu eta
bukatu San Migeletan.

Oillotegiko estuasunak
axerientzat jolasak.
Oientzat festa alaiak dira
oilloen azken arnasak.
Oillaskoentzat izaganatik
bildurgarri ta eskasak,
axerientzat egun ederrak
izaten dira Sanblasak.

1989ko otsaillak 10

Otsail txikiak bere leenengo amar egunak emango ditu gaurkoarekin, eta negua badijoa. Ezta ezer, ala ere. Éguna ere pixka bat luzatzen ari da-ta. Ea, ba, poliki-poliki illunpetatik irtetzen geran. Amaika aldiz pentsatu izan det satorraren bizimodua ez dala oso alai izango. Aiek lurpean bizitzeko egiñak izango dira, baiña eguzkiaren argia eta epela obeak dira guretzat.

Aurtengo onetan neguak izugarrizko pikardiak egin dituela uste det. Joan dan illeko izotz aiekin Naparroako Erriberan-eta jipoi ederra artu izango dute. Ango koliflora, kardu, alkatxofa eta gaiñontzekoak alperrik galtzarekin ez det poz aundirik artu. Au leen ere esan izan det, baiña ainbeste kalte egiten duen kolesterola sendatzeko oso onak omen dira alkatxofak. Negualde ontan, bateko jaiak dirala eta besteko otzari eutsi bear zaiola, koipe gauza eta gozoki asko samar erabiltzen degu jatorduetan. Zurruta ere apurtxo bat bai, berriz, kafetxo bat edo beste lagun duela. Eta udaberrian Errioxa edo Naparroa aldera jiratxo bat edo beste egi-tea ondo etortzen da, alkatxofa eta orrelako barazkiak an ipintzen dituztelako ondo. Eta odolak pixka bat garbitu aitzakian, beti leku batean egon gabe, ibilli beintzat. Ori belarra jatea beze-

la dala esaten dute batzuk. Beste batzuk berriz, orrelako gauzak emen ere jan ditezkel. Baiña oitura onak ez dira nolana galdu bear. Kontuak kontu, gozatu bat artzeko aitzaki txarra ez da, baiña aurten ez dakit nola ibilliko geran. Oso berri onak ez dira andik datozenak. Nolanai ere, nekazariak kottak kontatzen asten diranean dan baiño geiago esan izan dute, eta izotzak etzituen landare danak ondatuko.

Aurten gripe bildur aundia zan. Oso gripe txarra zettorrela eta estutu giñan, baiña ez omen da orrenbesteraño. Marañoñ sendagille ospetsuak esan zuenez, egunean sei naranja jaten dituenak gripearri parre egin dezaioke. Jan, ba, naranjak lasai, bitamina asko daukate-ta. Erremedio zaila ez da, eta ea udaberri aldera pixka bat suspertzen asten geran.

Neguan ez da asko luzitzen
gozotasunaren billa.

Negua baita berotu gabe
zigortzen gaitun makilla.

Baiña oraintxe iritsi zaio
bere azkeneko illa;

ez du faltarik egiten eta
lenbailen joan dedilla

lenbailen joan dedilla.

Otzak naikoa jipoitzen gaitu

neguan gau eta egun,

ez degu begi onez ikusten

nola komeni etzaigun.

Udaberria badator eta

ark egingo digu lagun,

kukua kantuz asten danean

ajeak bota ditzagun

ajeak bota ditzagun.

1989ko otsaillak 17

Badago bazterretan gu baiño abillagorik. Oraintxe ere errusoak egundoko lezioak ematen ari zaizkigu. Ebaketa edo operazio baten bidez gure muiñak berritzerik balego, gizakiok irureun bat urtean biziko omen giñake. Errusian egin diran ikerketa edo esperimentu batzuk ikusita ala dirudi. Muiñetako operazio ori egiten jakin bear ordea, esango du norbaitek.

Ez det, ba, uste orretarako dana falta danik. Ikerketa oiek arratoiekin egin dituzte, eta zerbaiten arrastoa artu izango dute, ikusten danez. Arratoi oiek, urte pare batean edo orrela bizitzen dira, bizitza laburrekoak alegia Baiña muiñetan pusketa txiki berezi batzuk txertatu ezkerro, denbora geiagoan bizitzen dira. Txertatu gabeak baiño gaitz gutxiago arrapatzen dute. Muiñak pixka bat konpondu ezkerro, orra denbora luzeagoan eta gutxiago sufrituta bizitzeko modua. Ez litzake suerte txarra.

Berri onek poza ematen du, alde batera. Baiña bildurra ere ematen duela esango nuke. Irureun urtean bizitzeko moduko gizon-emakumeak egiten badituzte, eta gaixotu ere egiten ez diran indartsuak, erruso oiekin ez da giro izango. Aspaldiko urteetan nundik munduko nagusi egingo dabilta, eta ea estu samar artzen gaituzten. Beste mundura joatean guk utzitako zirriztuak betetzeko lain izango dira oiek.

Aurrerapen aundiak daude orain, baiña gizonaren bizia irureun urtetaraiño luzatzea zail samarra izango da. Komeniko ote litzake, gaiñera? Animak ere gorputzaren laguntasuna bear du bere almenak erakutsiko baditu, eta orrenbesterañño zaartutako gorputzarekin gauza onik egingo al luke? Burua galdu eta txorakeria pranko bai, seguru asko. Gauza zaarrak estimazio gutxi izaten du. Ainbeste urtean bizitze ori urruti egongo da oraindik, eta ez dakit ez ote dan obe izango.

Dana dala, gure muiñak pixka bat konpontzea ez litzake, bearbada, ain gaizki etorriko. Naizta irureun urtean bizi ez, arabaki bat edo beste emanda gaixotzen ez gerala eta lanerako indarrean iraungo bagendu, ez giñake ainbeste gizatxartuko. Gazteeri ez genieke ainbeste traba egingo. Eta guk egiten degun artean ez lirake lanean geiegi urratuko, eta alkarrekin obeto konponduko giñake, seguru asko. Ea, ba, erru-siar oiek mundua pixka bat zuzentzen diguten, premi ederra badauka-eta.

Katarro eta gripetik aurten
osatu gera, nik uste.

Baiña badatoz egun obeak,
rusoak ala diote.

Txertaketaren bidez gaitz danak
sendatzen badizkigute,
iñor ez gera mundutik joango
bazterrak aspertu arte.

Zartu ta txartu egiten dala
aspaldiko esaera;

gezur aundia danik ez nuke
esango alde batera.

Muiñak pixka bat konpondu eta
gaztetzen baldin bagera,
andik aurrera munduan danok
katonatuko al gera?

1989ko otsaillak 24

Mundu onetara etortzean ez gera danak berdiñak izaten. Animaz eta Jainkoaren aurrerako danok berdiñak omen gera, baiña gorputzez eta munduaren aurrerako alde ederra egoten da batzuetatik besteetara. Aur batzuk osasuntsuak eta ederrak izaten dira. Beste batzuk, aldiz, gaixoberak edo ain osoak ez. Gurasoentzat aur guztiak maitagarriak izaten, eta akatsik txikiena ikusten badiete ere, aita eta ama samintzeko naikoa izaten da. Akatsak diruditenak beste gauza batzuetarako osagarriak izatea ere gertatzen da, eta guzti-guztia guk nai bezela irten ez baldin bada, ez degu geiegi estutu bear. Denborarekin gauza asko osatu oi da, eta denborari leku ematen ere jakin bear degu. Ez det esan nai ajolakabeak izan bear degunik. Eta ain gutxiago aurren alde alegin guztiak egin bear ez ditugunik. Sendagilleak or daude, erremedio asko ere bai. Eta duaden laguntza guztiei eldu bear diegu. Ortantxe ez degu nagiak izan bear.

Ume bakoitzak bere berezitasunak izaten ditu. Esate baterako, batzuk eskubiko eskuarekin baliatzen dira ondoena. Beste batzuk ezkertiak izaten dira, berriz. Batzuk ikusmen edo bista ederrarekin etortzen dira mundura. Beste batzuk bista motzekoak edo miopeak izaten dira. Ba, Ipar Amerikako zenbait sendagillek esan duenez, ezkertiak eta bista motzekoak diran aurrak mate-

matikak ikasteko besteak baiño argiagoak eta azkarragoak izaten dira. Bista motza duen aurrari betaurrekoak jarri bearrak pena ematen dio gurasoari. Eskolara joateko garaia etortzen da, eta beste ume guztiak ezeren akatsik gabe eta osasuntsuak ikusi, eta gurea betaurreko edo “gafa” oiekin, jolas egiteko ere bildurrez, noiz erori eta puskatuko. Pena artzekoa da, baiña mundua ez da or bukatzen. Besteri burla egiten dakitenak, askotan ez dute matematikak ikasteko talentu aundirik izaten. Noizean bein “gafotas” entzun bearra ez da ona izango, baiña urte batean “kate” eta bestean ere bai, ezta askoz ohea.

Ipar Amerikan ez det uste ezkertia izateari emen aiña garrantzi ematen zaionik. Jaten, idazten, tenisean jokutzen, eta boxeoan zer esanik ez, ezkertiak dira asko. Japondar guztiak badiruri, berriz, betaurreko eta guzti jaiotzen dirala. Eta, pentsatu: Ipar Amerika eta Japon dira munduko nazio aurreratuenak.

Engaiñaturik egon gera gu
burua arintzeraiño,
ezkertiak okerrak dirala
pentsatu izateraiño.
Amerikarrak ez dira bizi
bizi geran bezin ñaiño.
Aiek ezkerrez geiago dira
gu bi eskurekin baiño.

Japonen danak saiatzen dira
gizon azkarrak bezela.
Ezin ukatu lan asko eta
ondo egiten dutela.
Naiz bear izan betaurrekoak
jakintsu askok bezela,
esango nuke gure aldean
asko ikusten dutela.

1989ko martxoak 3

Eranegun etxekoandre batekin topo egin nuen, eta egundoko ongietorri alaia egin zidan. Noiznai ere ez da emakume aldrebesa, baiña ez dakit sekula baiño politagoa ez ote zegoen. Ain argi egoteko zer zuen-edo, nik ere zerbait jakin nai, ba, eta:

– Bai –esan zidan–. Otsaila joan da eta gustora nago. Otsailak 28 egun izaten ditu, eta nere senarrak ogeita amaikako illean bezelako soldata ekarri dit. Besteetan aiña diru, eta gasta-tzeko iru egun gutxigo. Zer derizkiotzu? Emakumeentzat otsaila ez da illabete ona izaten, gaiñera. Egun gutxi ditu eta itz egiteko ere besteetan baiño denbora gutxiago gelditzen zaigu. Joan da, bai. Eta eman dezala pakea. Ez al da poz artzekoa?”

Ura beintzat pozik zegoen eta neroni ere alakoxe argitua eman zidan, zenbaiten alaitasuna itsaskorra izaten baita. Etxekoandre are-kin izketan ari nintzala etorri zitzaidan gogora orain berreun milla urte ta geiago dirala, mundu onetan leenbiziko aldiz entzun zan itza Afrikako emakume batek esan omen zuela.

Banengoen, ba, ni. Azkenengo itza emakumeek esaten dutela beti, baiña leenbizikoa ere auek esan zuten, ikusten danez. Emakumeeri aitzaki asko ematen diegu, baiña eskerrak eman bear genizkieke. Edo isillik egon. Iñork erakutsi ez baligu, gizonok itz egiten ere ez genduen asmatuko, seguru asko. Gure azkarrean purrustadaren bat edo beste egingo genduen, baiña ortik aurrera ezer askorik ez. Begietako argia pizten duten oietako itz eder asko etzan irtengo gure ezpaiñetatik.

– Zergatik esaten da *amaren izkuntza* eta ez *aitaren izkuntza*? –galdetu omen zion maixuak mutiko bati.

– Ba, amak aitak baiño askoz geiago itz egiten duelako –erantzun zion.

Dana dala, martxoan sartu gera beintzat eta segi aurrera. Il onen ogeita batean asiko da udaberria, egutegian beintzat. Bateko San Jose-loreak eta besteko garizuma-aizea, baditeke martxoak propiñaren bat edo beste gordeta edukitzea guretzat. Baiña eguna luzatzen ari da, eguzkia apurtxo bat indartzen ere bai, eta bizitarako izango al gera. Kukua ere laister degu emen. Oraindik egun batzuk falta dira, baiña joango dira auek ere. Igaz ala zion lagun batek besteari:

– Gaur entzun det kukua leenbiziko aldiz aurten. Eta patrikaran dirurik gabe arrapatu nau. Ez daukat urtea pasaturik...

– Ez, e? Nola edukiko dezu, ba, zuk patrikaran dirua, eskutan ikusi orduko bankura eramaten dezu-ta?

Itz egiteko almena eman
arren Jaunak gizonari,
nola mintzatu erakustea
bearrezko zan berari.
Eskerrak eman bear dizkagu
ori egin zuanari,
al dezakegun maitasun dana
emanaz gure amari.

Naiko sarritan aitatu arren
emakumeen akatsak,
pentsatu bear degu guk ere
jartzen ditugula saltsak.
Zakarkeria ugari eta
noiznai izketa lardatsak.
Obe genduke gure mingaiñak
ez balira ain narratsak.

1989ko martxoak 10

Sarritan entzun oi genduen esaera zaar bat: esan dezaiodan, esan dezaidan.

Euskaldun zaarrok ez omen dakigu ezer, baiña oraingo berriak ez dute orrelako esaerarik erabiltzen. Geiago dakitelako ote? Bai? Dana dala, ekin dezaiogun geureari.

Oraindik urte asko ez dala, ezkondu gabe gelditzen ziran emakumeak etziran oso ondo ikusiak izaten, edo ez dakit zer esan. Aien kontura parre egin nai izaten zuten azkar usteko tontoak baziran, beintzat. Orain ez det uste orrela gertatzen danik, eta tira. Baiña ez uste zirikada eta eztenkadak neskazarrentzat bakarrik izaten ziranik. Mutilzaarrak ere etzuten estimazio aundirik izaten. Makiña bat ezagutuak gera baserrietan morroi, igandez mozkortuta eta astegunez zarpajario, batek nai ez eta besteak bear ez, al zuten moduan bizi ziranak. “Mutilzaarraren pobreza: iñork ikusi nai eza”, esan zuen

Xenpelarrek bertsoan, egoki asko. Gero kantatuko ditugu batzuk. Aspaldikoak dira, baiña bai bertso politikak. Baiña beste zerbait da gaur esan nai dedana. Nere lagun zaar Basarriri irakurri diodanez, garai batean, Donostian beintzat, mutilzaarrak etzeukaten beste gizakiak aiña eskubide. Au sinisten ere zail egiten zaigu gaur. Mutilzaar bat ezin al diteke izan ezkondu bat aiña gizon? Bai, noski. Baiña eskubideak ez dira nunbait gauetik goizera eskuratzen. Basarrik dioenez, orain bosteun bat urte Donostiako mutilzaarrak etzeukaten erriko-etxean kontzejal izaterik. Agintari izango zanak ezkondua bear zuen izan, nai ta nai ez. Ortik pentsatu mutilzaarrak zenbateraiñoko estimazioa zeukaten Donostian. Orrekin konformatzen ez ordea, eta mutilzaarrak artzarenak egin omen zituzten ezkonduen eskubide berdiñak izateko. Eta kontzejal izateko baime-na iritsi zuten nunbait, baiña alkate izateko ez. Eta berriz ere burruka egin bear. Alako batean, orain eun eta berrogeita lau urte, Madridetik etorri zan lege batek egin zituen berdintasunak. Eta mutilzaarrak etziran asarre izango. Orduko euskaldunak ere alkarrekin konpondu ezin, eta Madridek agindu bear. Ez al da mixeria gurekin gertatzen dana?

Anaiak nauka mendean,
koiñatak aldamenean.
Gazte denboraz
akordatzen naiz
sasoia joanean.
Ez det gularik janean,
gau eta egun lanean...
Ondo egin da
esker gaiztoa
gero azkenean.

Mutilla bere zarrian,
neskatxak ere indarrian
Egun guztian aien pardelak
nere bizkarrian.
Gero illunabarrian
estimazio txarrian.
Ibiltzen naute
soiñeko galtzak
kendu bearrian.

Engaiñatu naiz ederki,
merezi baiño obeki.
Neskatxak ere ez didate nai
aterik ideki.
Badute milla aitzaki
gaztiaguak izaki...
Estimazio txarra nola dan
mutilzarrak daki.

1989ko martxoak 17

Ondo bizi izateko, etsipena bear da. Eraman ona. Konformidadea.

Alaxe izango da, baiña gutxi dira diranarekin eta dutenarekin etsian bizi diranak, eta bizitza ezeren aitzakirik gabe daramatenak. Geroz eta obeto bizi nai izaten degu, eta beti badegu zerbaiten egarria. Ez, ba, aspaldian aurrera egin ez degulako eta aurrerapenik eskuratu ez degulako. Baiña ainbeste aurrerapen ari gera ezagutzen, dana nai eta dana batera eskuratu ezin. Orrekin dauzkagu kome-riak. Aurrerapen batzuk ainbeste engaiñatu gaituzte, eta askotan bear baiño ere geiago erabiltzen ditugu. Eta gero, ezin neurrik artu, eta mesede aiña kalte egiten digute, iñoiz.

Aurrerapena danik ere etzaigu iruditzen, baiña auetako bat telebista izango da, zalantzarik gabe. Telebista ikusten geroz eta ordu geiago pasatzen du jendeak. Batez ere pertsona edadetuak eta eskolan dabilzan gazteak, arratsaldeko zortzirak aldera ezker, tresna ori izaten dute nagusi, estadistikak diotenez. Telebista ikus-teko ainbesteraiño zaletasuna degulako familia geroz eta isillago gelditzen ari da. Famili asko mututu egin omen dira. Izango dira besterakoak ere. Batek bat ikusi nai eta besteak bestea, izango dira alkarri lore ederrak botatako egunak. Lore mikatzak izango dira

askotan, eta orixe txarra. Telebistak era askotako ikuskizunak eskeintzen ditu, eta orrek sortzen du alkarri mokoka egiteko gaia. Errusi aldeko nazio geienetan kate bakarra daukate. Eta aietan ez da emen aiña arazo izaten. An senar-emazteak emen baiño pake obean bizi dira, au ere ikusita gero esateko ohea izango da baiña. Futbola dala edo pelota partidua dala, ango etxeoandreak ez dituzte emen-goak bezela ezpaiñak zimurtuko. Ango gizonak daukate suertea!

Ala ere oraiñarte esandakoak dira gutxiena. Inglaterrako senar-emazteen artean, oera joatean telebista pizteko oitura sartu omen da. Beste edozein griña txar edo biziok aiña indar artu du oitura orrek. Ainbesterañoko indarra artu ere, oean sartuta isil-isi-lilik telebistari begira jarri eta, kitto. Ez diote alkarri jaramonik egiten. Pakea ona izango da, baiña Inglaterran geroz eta aur gutxiago jaiotzen ordea. Orra nolako pikardiak egin dezazken telebistak.

Ikusten danez gaur telebistak eztauka indar makala.

Esan diteke orrek ainbeste agintzen dunik ez dala, noiz lo egin ta noiz beste zerbait berak esaten duala.

Ortik pentsatu orrek noraiño botatzen duen itzala.

Telebisio ori bear da artu entretenigarri.

Baiña uste det mututu ere egiten gaitula sarri.

Ez gaitzela itsu-itsuan bere agindura jarri.

Familiaren gozotasuna ukatu gabe alkarri.

1989ko martxoak 24

Gaur Ostiral Santu da, eta serio samar itz egin bearko degu. Aste Santuak bazuen itzala garai batean, orain asko ezagun ez bada ere. Ostegun Santu eguneko elizkizun aiek arratsaldeko sermoiarekin bakarrik ere errespeto aundia sartzan ziguten. Segurako prozesioan bein baiño geiagotan ibilli giñan, amari

eskutik elduta, Ama Doloretakoaren atzetik errosarioa errezatuz, zintzo asko. Ez dakit orain aurrak onelako lanik izaten duten.

Gazteentzat ere bere ikuitua izaten zuen Aste Santuak. Erropa berriak estraiñatzeko egun aproposak izaten ziran. Eta Garizuma ere orduan bukatzen zan, eta andik aurrerako igande alaiagoen itxaropenak ematen zuen bere poza. Garizuman etzan jotzen soiñurik, dantzan egitea ere debekatuta, eta kalbarioak egi-tearekin bakarrik ezin, ba, gazteak soseatu. Pazkoazkoa egin bear-rak ematen zituen berriz ortik onerako lanak! Askok, astoa makillarena bezela jarrita egoten giñan eta an nunbait, baiña izaten ziran beste alderakoak ere. Asteazken Santu illunabarrean lotsa eta bildurra botatzeko tabernan basoerdi batzuk edan eta konfesatzera joaten ziran aiek pasatuko zituzten estuasun ederrak. Urteko zekorria saldu zutela-ta, aien poza izaten zan ona elizatik irtetzean.

Gu berriz aiei begira, geu santuak bagiña bezela. Orain ez dago alako kezka eta joan-etorririk. Aste Santua opor-aste biurtu degu, eta jo batera eta jo bestera, or gabiltz, zeñiek zer esango duenari begiratu gabe. Nor bere buruaren jabe izatea ondo dago. Aaztu bear ez diran gauzak badira ordea, eta auetako bat Jesukristok alkar maitatzeko eman zigun agindua. Orretarako ez dago alkarri musuka ibilli bearrik, baiña Ostegun Santuz esan ziguna egingo bagendu obe gendukeela uste det. Mundu onetan dagoen aiña arrokeri, inbiri eta ezberdintasun ez litzake izango, seguru asko.

Leen esan dedan bezela, pazkoazkoa egin bearra gauza serioa zan. Ijitoak ere larritu egiten ziran azkenik-eta. Bein batean ijito bat joan da konfesatzera. Bildurrez airean omen zegoen, eta apaiza asi zitzaion zer ateraraziko:

- Ezer arrapatu al dezu?
- Bai, jauna.
- Zer arrapatu dezu, ba?

– Soka bat.

– Beno, ez da orrenbesteraíño, gizona. Baiña soka bakarrik arrapatu al zenduen?

– Ba, sokari tira eta tira asi, eta sokari erantsita zegoen astoa... Nola asiko nintzan, ba, orduan soka askatzen?

Jesus, gure otoitzak
aditu itzatzu.

Zureak gera eta
babestu gaitzatzu.

Gurutz ortan gugatik
bazaude ere zu,
gure damutasuna
kontuan ar zazu.
Argalak gera eta
barkatu zaiguzu.

Agindu bat bada zuk
eman ziguzuna:

alkar maitatzeko
eskatzen diguna.

Au izanik munduko
zoriontasuna.

Zure laguntza da guk
premizko deguna,
zuzentasunak sortu
dezan maitasuna.

Jesus, zuri jarraitzen
ain gera nagiak.

Lotu gaitu bizitza
erosoegiak.

Indartu gaitzan danok
zerutar ogiak.

Salbatu bear gaitun
ezkero egiak,

zabaldu zaizkigutzu
sinismen-begiak.

Amarren bat egun badira udaberrian sartu giñala. Azkenaldiko urte auetan ez du udaberri pulamentuzkorik egiten. Aurten asi besterik ez du egin oraindik eta ezin esan nolakoa egingo duen. Ez esatea obe, gaiñera, bat edo beste esaten jardun arren etorkizunaren berri dakienik ez baitago emen. Orretarako lain jakinduri ez daukagu oraindik, eta naizta aurrerapen asko izan, aizeak eta eguraldiak gugatik nai dutena egiten dute.

Ala ta guztiz ere, busti edo legor, otz naiz epel, udaberriak badu berekin alako poz berezi bat. Berriro bizitzen asiko bagiña bezela edo, alakoxe bizi nai argi bat nabaitzen degu udaberrian. Gaiñera, beti iristen zaigu nunbait edo norbait ez dakit zenbat urtean bizi izan dan albisteren bat ere. Denbora luzean bizi naia danok degu, berriz. Eta ainbeste urte arrapatu dituzteneri zeiniek zer galdetua izaten da. Orrenbeste urtetan bizitzera iritsi diran gizon-ema-kumeak zergatik izan dan esan oi dute. Bakoitzak bere errezeta izaten du orretarako. Gizaki guztiok ezberdiñak nola geran, ez dakit batzuek egiten dutena besteentzat ona izango dan. Ala ere, zaarrak eta aien esanak aintzakotzat artu bear dira. Eta baliteke diotena entzutea ona izatea. Leenbizi, bizitzeko gogo aundia eduki bear da. Gogoia eta ilusioa ere bai. Bizitza onek egun onak badituela pentsatu, eta aiei eltzeko zai egon beti. Etsi ez beintzat, iñola moduz.

Iran alde ortan ez dituzte, ba, urte ederrak izan. Ia orain arte bazan an gerra, alkar il bearra eta desgrazia. Ala ere, iraniar batek 135 urte bete omen ditu. Eta urte oiek arrapatzen fedeak, janari eta aize garbiak, eta nekazaritzan lan egiteak lagundu omen diote. Galizian bizi dan emakume batek 102 urte dauzka bizkarrean. Egunean bi kopa pattar edatea beste erremediorik ez omen du egin. Leengo zaarrak esaten zuten bezela *agoardienteak* ez dio ari kalte aundirik egin. Danok ez gera berdiñak, eta arek suertea izan du. Ala ere, pattarra edateko ez nuke nik esango, bestela

izango da gibelegoa edo beste zerbaiten ajea. Sendagileak esaten dutenez, osasun ona edukitzeko eta luzaro bizitzeko, bazkalondoan lokuluxka bat egitea oso ona omen da. Neronek ere pattarra edatea baiño ohea izango dala esango nuke.

Nik ez nekien oraindik baiña
ikasi det liburutik,
penatu gabe ez datorrela
osasun onik zerutik.
Lana fin egin, gutxi jan eta
ez egiteko txurritik,
ez badegu nai garaia baiño
lenago joan mundutik.

Bizitzea bai ederra dala
udaberriko bezperan,
itxaropenez jantzi ezkerro
txori kantarien eran.
Egun argiak eta epelak
badatozkigu aukeran.
Ea, ba, kotta danak botata
apur bat prexkatzen geran.

1989ko apirillak 7

Nafarroako esaera zaar batek dioenez, apiril on bat ikusi nai duenak eun urtean bizi bearko du. Orain illabete bat Gorbeako artzai famatuak esan zuenez, maiatzaren amaseira arte ez du aurtent eguraldi onik egingo. Ikusten danez, apirillak ez dauka oso fama ederra. Oraindik asieran degu eta eztaikit aurtengo onek zer egingo digun. Edozertara jotzen duela ere udaberriari gaude bai eta ez diogu muzin egingo. Bere akats eta guzti, ez da emen udaberria bezelako negurik. Txoriak ere udaberriaren zai egoten dira ezkontzeko, eta baita txoriak ez diranak ere. Ezkontze orrek gauza onen bat izan bear du gaiñera. Begiratu bestela artista eta aberats jende orri. Bi edo iru aldiz eta geiagotan ezkonduak asko izaten dira oien artean. Eta askotan, ezkontze ori txarra izan balitz, pobreentzat izango zan, seguru asko. Baiña beste aldera gertatzen da. Aberatsak badauzkate orretarako aukerak, baiña pobreentzat debekatuak daudela kontu.

Onek ere badauzka ordea bere alderdi onak. Pobreak zillarrezko eta urrezko eztaiak noiznai ospatzen dituzte. Aberatsak ezin ordea, ezkontzak egin ala puskatzen dituzte-ta. Italiako senar-emazte batzuk urrezko eztaiak ospatzeko asmoa artu zuten oraindik denbora gutxi dala. Gauzak ondo egin nai eta joan dira udaletxera, ezkondu ziraneko agiria billa. Baiña udaletxean etzegen ordea ezeren agiririk. Elizakoa eta eliza aurrean ateratarako argazkia ere eraman zituzten. Baiña aiek ere etzutela balio. Izan ere, aitonak 86 urte dauzka, eta amonak 87. Ezin, ba, egon orain 50 urte zeuden bezelakoak. Ainbeste zimurtuta gero zeñiek ezagutzea nai dute, bada? Kontua da, berriz ezkondu bear izan zutela. Joan ziran udaletxera eta bai azkar patripilioak egin ere. Gizonari alboan zeukan emakume ura emaztetzat artu nai al zuen galdetu ziotenean, arnasa artzeko astirik ere ez omen zion eman amonaxoak. Gizona izketan asi baiño leen erantzun zuen:

– Bai, nai nau emaztetzat artu, badakit ziur, bestela etzidan ainbeste losintxa egingo. Nik ere bera asko maite det berriz, eta senartzat artu nai det, berriro. Eta ezkondu gaitzazue leenbaitleen berriketak utzita.

Oraingo senarrak eta emazteak bereala aspertzen dira alkarrekin. Bereala asten dira bakoitza bere aldetik. Italiako amonaxoa bezela, leengo emazteak oraingoak baiño fiñagoak ote ziran, ba?

Asko zabartu badira ere
ezkontza autsitzeraiño,
batzuek alkar maitatzen dute
bi aldiz ezkontzeraiño.
Ikusten danez amodioa
gorde dute oraindaiño...
Bi aldiz lotu naiago dute
bein sakabanatu baiño.

Oraiñaldian ezkondu asko
ikusten dira nolabait,
alkar maitatzen ez dakite ta
beti badaukate zerbait.
Antziñakoak beste bat ziran,
ala iruditutzen zait.
Gaurko aldean maitasun ona
saltzen zan lenago nunbait.

Apirillak amalau. Gaur da Errepublikaren etorrerako urteurrena. Etziran orduantxe erlijiosoentzat garai onak. Baiña gaur ere berriketan asten geranean edozer gauza esaten degu askotan. Gaitzez ez degu esango, baiña esan beintzat. Zenbait kaskajok dionez, monjak errezatu aitzakian bapo bizi omen dira. Ez derizkiot auxe egia danik. Monjak ez dute errezatu bakarrik egiten. Bai lana ere. Segurako ospitaleko eskola txikian Sor Filomena ezagutu nuela badira urte batzuk. Arrezkero monja asko ezagutu ditut, eta badakit ez dirala lanik egin gabe bizi. Umetxoei eta neska gaztetxoei zeiniek erakutsirik etzanean, monjak betetzen zuten utsune ori eta egoki asko bete ere. Zenbat neskatxa ote dira, nola kalean ala baserrietan, monjai eskerrak josten eta bordatzen ikasiak? Zenbat ote dira monjarik izan ez balitz solfeorik eta pianorik ikasiko etzutenak? Zenbat neskatxa ote dira monjatan batxillerra eta beste era askotako ikasketak egiñak? Monja-maixtra batzuen zorrotasuna naiko nabarmena zan, baiña ezin esango degu eskolarik etzutela erakusten. Umezurtzak zaintzeko ere egokitasun aundia dute. Mutikoak bere semeak balituzte bezela maitatzen zituzten monjak ezagutua naiz. Txikiak ziran artean zaindu eta ondo zetorkien ofizio bat erakutsi eta gero lana billatzeko zenbait guraso baiño abillagoak izaten ziran, eskatzen ere jakin egin bear baita.

Itxian edo klausurako komentuetan dauden monjak ezertarako ez dirala ere entzun izan det iñoiz. Ni ez nago ortan. Errezatu egingo dute, baiña baita lana ere. Badakit ziur lanetik bizi dirala, eta ez daukat esateko bildurrik. Monja auek aurpegi estalita azaltzen zitzaizkigun leenago. Alako txorakeririk ez egiteko esandakoan lasai algara egiten zuten. Trapu beltz aiek kendu zituzten ordea, orduan konturatu nintzan estalki aiek nolako aurpegi eder eta preskoak izkutatzen zituzten.

Etzeukaten aiek nobiorik izan etzutelako ernegatuta bizi ziran itxurarik.

Auxe da beste xelebrequeri bat: monjak asko penatu gabe bizi omen dira, eta ala ere ugaltu bearrean urritzen ari dirala. Senarrari sufritu bearrik ez, umeai ipurdia garbitu bearrik ere ez, lapikoa beti beteta, eta ala ere neskatxak monja joan nai ez. Eta zer esango degu Karidadeko monjak deitzen zaien oietaz? Zenbat lan egin ote dute eta egiten ari ote dira gaixoetxeetan, klinikatan, ospitaletan, zaartuta ezertarako ez dirala gelditutako pertsona elbarriak zaintzen, sendagillerik ez dagoen mixio lurretan eta abar eta abar? Zenbat pazientzi artu bear izaten ote dute, eta askotan esker txarraren truke? Monja matxarda samarrak eta sorgin antzekoak ere izaten dirala? Eta, gu santuak al gera? Oraingo monjak gaurko munduan bizitzen badakite eta on asko egin dezakete gizartean. Orregatik, egiten duten on ori gure ongina eta esker onarekin ordaindu bear diegu. Gai ontan makiña bat gauza esan liteke. Bukaerarik gabeko errosarioa litzake ordea eta moztu egin bear.

Segurako San Juan egoitzean ere badaude monja zintzo askoak. Berriketaldi aukerentzuten omen dituzte, eta gaur Segurako irrati onen bidez istori au eskeiñi nai nieke: Monja gazte bat, nobiziadoa egiten ari omen zan ospital batean. Gaixoak garbitu eta orrelako lanak aldapa gora egiten omen zitzaizkion. Egun batean an ari zan beste aldera begiratuz eta al zuen moduan lan oiek egiten. Ikusten du nobiziaduko maistrak, eta ala esan omen zion:

– San Bizente Paulek beste pulamentu batekin egingo zukeen lan ori!

Eta bai nobizioak parrez-parrez ederki erantzun ere:

– Baiña nola nai dezu, ba, usakumeak usoak bezela egan egitea?

Nik uste nuen gona motx, minifalda edo dalako oien bolada aspaldi pasatu zala, baiña bai zera! Berriz ere oso modan daudela entzun det. Neskaxa asko galtzakin eta beste asko berriz, leengo amonak bezela, gona beltz luze oietakoekin ikusten nituen nik. Bestelakorik zegoenik ere ez nuen uste. Eta minifaldak daudela modan, alajaiña! Izan ere, oraingo neskatxak zer ez dute egiten guk antzematerako? Kontua da, gona motxak egundoko piztualdia dutela eta sekulakoak egiten ari dirala. Jantzera oridala eta ez dala, bada oraintxe bazterretan zer esana. Girona-ko futbol zelaian edari saltzen eta gozoki saltzen eta orrela lana egiten duten neskatxei gonaz jantzita joaten diran egun bakoitzeko bosteun pezeta geiago eskeiñi omen diete. Baiña ez det uste gona luzeekin joateagatik izango danik.

Moda onen zipriztiñak epaitegi edo juzgaduetara ere iritsi dira, azkenik. Leridan, nagusi batek bere ofizinan lana egiten zuen neska bati ez omen zion pake santurik ematen. Ikusi utsarekin soseatu ezin eta igurtziren bat edo beste ere eman izan bear zion. Baiña neskatxa orrek nagusia saladu egin du azkenean, ez baitzion bizitzen uzten. Epaitegira joan eta nagusiak epailleari esan zion neskatxak zeuzkala erru guztiak. Gona motx-motxak jantzita joaten zala ofizinara, eta ark endreatu zuela. Berrogei milla pezeta edo orrelako uskeriren bat ordainduta libratu da nagusi ori. Epailleak esan zuenez, neskatxak lizunkerira bultza egin ziolako erori zala nagusia, eta beste zigorrik gabe auzia bertan bera utzi, eta kitto!

Ez dakit, ba, nik epai ori oso zuzena izan dan. Neska bati atzaparrak eranstea ez da gero etxekoneko sagastitik sagar musugorri bat artzea bezela. Gona motxez jantzita dabiltzanak pertsonak dira. Eta pertsonak errespetatu bearra dago. Zenbait neskatxa tentagarri jartzen dirala? Ez det ezetzik esango. Gizon-eizean

dabiltzanak ere izango dira, baiña nai duten bezela janzteko esku-bidea dute, eta ez dago gustatzen zaigun guztiari eskuak gaiñean jartzeko askatasunik, berriz. Dana dala, batzuk zirikatzaileak diralako eta besteak zirikatu bear aundirik ez dutelako, mundu onetan badago buruariña pranko. Leridako epaillea ere ez da izango neska motzen bat minifaldarekin ikustean beste aldera begiratzen duen oietakoa, seguru asko.

Esan diteke gizasemeak
zoraturikan gaudela.
Gizalege ta errespetorik
ez daukagula bestela.
Emakumeak jantzi ditezke
gogoia duten bezela,
eta ez egin ametsik ere
danak guretzat daudela.

Neska gazteak gona motxekin
politik egonagatik,
nai degun danok ez degu, noski,
edaterik ur ortatik.
Gure berdiñak nola diran guk
ez uste izanagatik.
Lotsik badegu beintzat, pakean
utzi, Jaungoikoagatik.

1989ko apirillak 28

San Prudentzio eguna degu gaur. Arabako zaindaria, ain zuzen. Gasteiz aldean izango da festarik eta ospakizunik asko. Baiña festa egiteko ez daukagu Arabara joan bearrik. Lazkao-tarrak ere San Prudentzio dute bere santu artua, eta Lazkaoraiño joatea naikoa degu. Orra, jo batera eta jo bestera gau ta gauerdi ibilli gabe gertuan festa egiteko modua. Gazteren batzuk gaur zer santu-egun dan konturatu gabe egongo dirala bear bada, eta bada ez bada ere gogoratu eraztea pentsatu det. San Prudentzioren ondran eta alabantzan festa egiteko aukerarik ez dezatela galdu beintzat. Festak dirala eta ez dirala, bat eta beste esaten da. Baiña bear bearrezkoak dirala uste det. Ez gazteentzat bakarrik, baita ezkonduentzat ere.

Familiko gurasoak badaukate gaur eskuak bete lan, eta bere buruak geiegi estutuko ez badituzte, badaukate jai, festa edo zerbaiten bearra arnasa pixka bat artzeko. Oraingo presaka bizi bear au ez da ona, batez ere etxeoandreentzat. Askok, senarrak bezelaxe, kanpoan lana egiten dute. Eta dirua irabaziko dute, baiña etxeo burubidea egiteko astirik gabe bizi dira. Etxeari txukundu bat emateko larunbata edo igandea etorri zai egoten dira. Kanpoan lana egiterik ez daukatenak irabazirik ere ez daukate. Eta gaur asko bear, berriz. Etxea txukun edukitzea gauza ederra da, baiña onek ez du dirurik ematen. Kontua da, bat dala edo beste dala, emakumeak gizonak baiño geiago kastigatuta bizi dirala. Beti lanean, eta beti lanak egin gabe. Eta lanak egiteko astia daukatenak beti zerbait pentsatzen. Orainaldiko danera iritsi ezin au, etxeoandreen artean pikardi asko egiten ari da. Lanak arrapatu eziñik edo diruz iritsi eziñik, bere buruak estutu, erabat etsi, eta edanari emanak iñork uste duen baiño geiago omen dira. Etxeko bakardadean, aldiko pixka bat edaten asten omen dira, eta edariaren atzaparretan erori, azkenean. Gizonen errua izango da au, orratik!

Emazteak ere izaten dituzte bere kutizi edo kapritxoak. Moda berriko soiñekoa jantzita, senarra besotik dutela paseatzea gustatu oi zaie. Orrelakoetan lagundu egin bear diegu, ez da neke aundia-eta. Maite antzean artu eta etxe-zulotik atera sarri-sarri, lagunen aurrean dotore-dotore azaldu ditezen. Etxeko lanak egiten laguntzea ere ez da pekatu. Gusto guztiak egiten ez da errez izango, baiña ez beintzat bakarrik utzi. Emaztea pozik edukitzeak asko balio du gero!

Aurra zaintzen ta ontzi garbitzen
 ondo ikasi dezagun.
 Emazteari bere lanetan
 lagun egin dezaigun.

Alkarganako maitetasuna
 azaldu gau eta egun...
 Bizitz guztian izan gaitezen
 bata bestearen lagun.

Ettxekoandreak dotore samar
azaldu nai dutenean,
senarra pozik artu oi dute
eurekin aldamenean.

Ez ditzagula tentatu beintzat
nekatu daudenean.
Eta festara joaten lagundu
agintzen digutenean.

1989ko maiatzak 5

Maiatz ederra etorri zaigu. Eta egin dezaiozun merezi duen ongietorria. Loreak, txoriak, ostu berriak, zelaiak, soroak, mendiak, danak esnatzen dira il onetan, eta gu ezin geldituko gera atzean. Urte-saso ederrean gauden ezkerro, geu eta ingurukoak alaituz itxura antzean bizitzen saiatu gaitezten.

Legazpiko festa ere badijoazkigu. Festa luze samarrak egokitu zaizkigu aurten, danak ez dute ori esango baiña. Joan dan larunbatetik asi eta datorren iganderarte, bederatzi eguneko festa, alajaiña. Garai batean esan balitz Legazpiko lantegiak orrenbeste egunean geldi egon bear zutela, pekatu ere izango zan. Bateko krisisa eta besteko lan eskasia, burumakur samar ibilliak gera, baiña badirudi gauzak konpontzen ari dirala, eta onek poz ematen du. Lana izaten bada Legazpik burua altxatuko du berriz ere. Kanpotar asko dago errian. Orrenbeste eguneko jaiak izanik, geientsuenak bere errietara joanak dira, familikoeri bisitatxo bat egitera. Orain ez da egurrezko edo kartoizko maletak eskutan dituela inor ikusten. Maleta aiek sutara edo zabor tokira bota eta kotxe biurtu dira. Or ikusten da Legazpira etorri ziranak etzerala toki txarrera etorri. Batek baiño geiagok aitortu ere egiten dute, eta bizi ditezela danak ondo ementxe, ea danon artean gure Euskalerra au gora jasotzen degun.

Ez dakit nik gazteak festaz aspertuko ziran, baiña jaialdia badijoa beintzat. Festa aurrea ohea izaten omen dute atzea baiño. Esaerak ala dio. Baiña ez dakit, ba, egia ote dan. Festa

aurretik etxea pixka bat txukundu edo dotoretu nai izaten da, eta onekin izaten dira komeriak. Bateko pintore eta besteko igeltsero, etxe guztia ipurdiz gora jartzen dute, eta ez pentsatu giro izaten danik. Emakumeak asarretzen dira, eta gizon gizarajoak nozitu bear izaten degu. Zerua pazientziarekin irabazten omen da, eta gizonentzat izaten da zerua irabazteko ainbat aukera. Etxean traba besterik ez degu egiten eta kanpora joaten bagera, asarretu. Nola asmatu? Ala ere, asarre itxurak eta egiten dituzte baiña nik uste det etxea pintatzen eta paper berriak jartzen-eta ari diranean gozatzen dutela emakumeak geiena. Leenaz gaiñera, etxeko nagusi izaten baitira orduan. Baiña festa aurretik astindu bat edo beste artu arren ez du estutu bear gizonak, pazientzi pixka batekin dana eginda gago-eta.

Egun auetan badago emen
jolasa ta kalejira.
Obe genduke festak urtean
iru-lau aldiz balira.
Etxean traban baldin bazaude
inguratu Legazpira,
festa aurreko oker guztiak
emen zuzenduko dira.

Legazpik zeru antza artu du
sarri entzuten dedanez.
Ainbat aingeru gona moxdunak
emen ikusten diranez.
Ankaz baldarra egon naiz eta
dantzarako lain izan ez.
Festa politikak pasa litezke
begiei gusto emanez.

1989ko maiatzak 12

Erabakiren bat artu bearrean gertatzen geranean bildur edo kezka izatea ez da arritzekoa, egitera goazenak zer ondorio izango duen ez baita beti jakiten. Orren erremedioa, iru zaarri kontsejua eskatzea omen da. Ala ez da utsegiten. Erremedio zaila ez da, alde batera. Baiña ez dakit gazteak aintzakotzat artuko duten. Batzutan arrazoi pixka bat ere badutela esango nuke.

Txoriburukeri bat edo beste egingo dute, baiña gaztearoak berea du ori eta barkatu egin bear.

Ona emen leengo jakintsu zaarrak dantzan egiteari buruz zer esaten zuten: “dantza, zentzu edo juizioan baiño ankatan konfiantza geiago duten gazte ariñen ofizioa da. Dantza, lotsa galtzea da, ezaupideak egiten dira, itz egiten da, konfiantza artzen da, eskuz ikutu ere bai, zer egin nai dan esan, eta azke-nean, bear ez dana gertatzen da”. Dantza egitea pekaturako bidea zala esan naiko zuten leengo zaar aiek. Or ezagun da aiek ere dantzan egiten zutela, bestela etzuten dantzaren berri jakingo.

Entzun dezagun orain San Agustiñek zer esaten zuen: “Obe da eta pekatu gutxiago da jaiegunetan goldan eta lurmaneatzen lana egitea dantzan egitea baiño”. Jai egunetan dantzan egin edo lurmaneatzen jardun, alde ederra dago, orratik! Pekatu egin gabe dantzan egiten erakustea ez al zan obe izango? Leengo zaarrak geiago ere esaten zuten. *Agua kolonia* eta perfume edo orrelakoekin usaituta ibiltzea ez dala ona. Usai gozo oiek aragikerira bultza egiten omen dute-eta. Gure gazte denboran koloniatan gastatzeko diru asko etzan izaten, baiña dantzan egiten bagenduen malizi aundirik gabe egiten genduen, eta ez genduen artaraiñoeko pekaturik egingo. Ez dakit zorioneko seigarren mandamentuak beste mandamentu batzuk ez ote zituen estaltzen.

Dana dala, datorren astelenean San Isidro eguna izango da, eta baserritarrok emazteekin joan eta bazkari on bat egitea ona dezute. Aukerarik izaten bada, bazkalondoan dantzaldi bat egin, eta gero gerokoak. Eta emazteak usai gozoa baldin badauka, oraindik eta obe. Onuzkero pekatu bildurrak joanda egongo zerate, eta egun on bat pasatzen badezute, ura geiago. Ezin jardungo zerate beti lurmaneatzen eta ukuilluko lanak egiten.

Agindu danak gorde,
ez izan zabarra.

Naizta seigarrenari
eman guk indarra,
bat esan ta besteak
isildu da txarra.

Amar agindu dago
kunplitu bearra,
lege onek ez baitu
agindu bakarra.

Jokatu beti zuzen
eta bizi alai.

Jainkoak tristurarik
guretzat ez du nai.
Ez egin jaramonik
txorakeri danai.

Kontzientziak dion
aldera jo lasai.
Lana egin bear da
ta dantzan ere bai.

1989ko maiatzak 19

Zerbait aaztu nai ez danean aurrez gogoratzea izaten da onena. Datorren ostegunean Korputz eguna da, Oñatin *santu bixak* ikusteko eguna. Eta oñatiarrak dirala-ta zerbait esatea pentsatu det gaur, merezi ere badute-eta.

Erriari eta erri inguruari ondo begiratu ezkerro, erritarrak nolakoak diran antz ematen omen zaio, gutxi gorabera. Eta begiratzea merezi duen erri oietakoa degu Oñati. Inguru atsegiñak ditu. An ikusten diran baserrietxeak ez dira nolanaikoak. Inguruko zelaiak bezelaxe, aundiak eta zabalak dira geienak. Berrituak, zainduak eta txukunak. Aietan bizi diran oñatiarrak aurrerakoiak eta bizitzen dakitenak izan bear nai eta nai ez. Baserria ain egoki bizitoki biurtzeko eta zaintzeko diru asko bear da gaur, eta dirua bakarrik ez. Baita lanerako gogoia eta bizitzeko gustoa ere. Oñatiarrak danetik daukate, ikusten danez. Begiratu bestela Araotzen zer egin duten.

Araotz Oñatiko baillada bat degu. Irurogeita amar baserri daude bertan. Eta aste bukaeratan ez dala, larogeita zazpi lagun besterik ez da bizi, baiña ez dute baserriei erortzen uzteko

asmorik. Leen esan dedan bezela, oñatiarrak bizitzeko gustoa eduki, eta etxe guztietan ura jartzeko modua egin dute araozta-
rrak. Orretarako obrak 40.000.000 pezeta kostako zaizkie, baiña larunbatetan egun osoz eta igandeetan egun erdian auzo-
lanean lana egin eta Udaletxeak beste 10.000.000 pezeta ipiñi-
ta libratu dira. Kanpoan bizi diralako edo lanik egin nai ez
dutenak, 150.000 pezeta ordaindu bearra izango dute, gutxi
gorabera. Etxeak su artuta ere, sua itzaltzeko ura nundik artua
ere etxe guztietan jarri dute, azkenik. Etxe-errearen eskean
ibiltzea baiño obe da ori. Il onen seian ziran obra oien txapalea
egitekoak, arkume-jan on batekin. Gauzak egiteko duten pula-
mentua ikusita, ez det uste obrak ekarri berria duten urarekin
bustiko zituztenik.

Oñati leku mardula degu
aspalditik dakigunez.
Or bezain ondo bizi liteke
baiño obeto iñun ez.
Gaiñera nola ez duten artzen
iñork kopeta illunez,
bisitatxo bat egingo diot
santu bizixen egunez.

Oñatin errez aurkitu oi da
nork luzatua eskua.
Ta Araotzen pakea eta
aize sanoa naikua
Bidean jan nai duenarentzat
antxe dago Txopekua.
Txantxikuarrak zoragarria
daukate bizilekua.

1989ko maiatzak 26

Gaurko mundua eta mundukoak naiko egoskortzen ari
ote geran pentsatzen egoten naiz askotan. Batetik bestera ibil-
tzeko bezela etxean egoteko dauden erreztasunakin, bakarrik
naikoa gerala uste degu. Ia ez dagola auzokoen eta gaiñon-
tzekoen bearrik. Bein kuerda eman eta denboraldi luze batean
besterik gabe ibiltzen diran erloju oiek bezela geralaokan

egoten gera. Baiña erlojurik onenak ere izaten dituzte geldialdiak eta konpondu bearrak. Guri ere gertatzen zaigu orrelako zerbait. Usterik gutxiena degunean, makalaldiren batek arrapatzen gaitu eta laguntza bearrean gertatzen gera. Orduan konturatzen gera zer dan alkartasuna eta zer izango litzakeen maitasuna.

Lagun urkoa geure burua bezela maitatzea gizakiari asko samar eskatzea izango dala pentsatzen det, baiña alkartasunari ere naiko bizkar emanda bizi gera. Auzokoekin arreman asko ez degularik, familian bear gendukeen maitasun eta konfiantza ere galtzen ari gera. Bazkaltzera etortzen gera, eta eguerdiarte guttian etxeko lanak egiten jardun dan emazteari ezer askorik esan gabe egunkaria zabaldu eta irakurtzen asten gera, etxean gu beste iñor ez balego bezela. Bada ez bada ere, ez apurtxo bat laztandu eta poz pixka bat eman. Isabel Preyslerrek irugarren gizonarekin bosgarren aurra nola izan duen eta orrelako batzuk esan, sikira. Baiña, bai zera. Realari sartu zizkioten golak (berak eztu sartzen-eta), Retegik zeinēn kontra jokatu bear duen eta orrelakoak baka-rrik dira guretzat interesgarri. Emazterik ez bagendu bezela portatzen gera askotan. Gripe txarren bat arrapatzen badegu, orduan kontuak!

Emaztearekin eta beste lagunen batzuekin jatetxe batean bazkaldu nuen leengo batean. Aldameneko mai luze batean emakume talde bat umore ederrean bazkaltzen ari zan. Begiratzeko modukoak ere bazeuden, baiña ez dakit zenbat ziran. Amar edo amabosten bat bai. Nere lagunak zerbait esan, eta aietako batek ala erantzun zion:

– Gizonarekin nazka-nazka eginda gaude-eta.

Ortik aurrerakorik ez nion entzun, baiña naikoa dala uste det. Illea pinta-pinta eginda, bera ere etzan igesi dijoanari begira gelditzeko modukoa, baiña orra!

Uste degunez izaten gera
emen danok on apartak.
Ez konturatzen nola guztiok
ditugun akats galantak.
Alkarri ezer barkatu nai ez
ta sortzen diran txinpartak!
Ez ote gera berdin samarrak
emengo santu eta santak?

Eguneroko asmo onikan
artzen ez bada goizean,
alaitasunak ez du iraungo
oso denbora luzean.
Danok nai degu etxean bizi
pakeak duen pozean.
Baiña pakerik ezin gozatu
barkatzen jakin ezean.

1989ko ekaiñak 2

Berri alai gutxi entzuten dan garaian bizi bearra gertatu zaigu. Leengo kontuak alde batera utzita, oraingo gertakizunei begira jartzen bagera ere, poz aundia emateko moduko ezer gutxi entzuten degu. Gaur entzuten diranak entzunda, eta gertatzen diranak ikusita, inguruko guztiak nola zapaldu beste pentsamenturik ez daukagula dirudi. Besteak baiño gorago egon nai degu, baiña ez geure merituz gora igota, besteak beerratuta baizik. Ala eta guttiz ere, mundua txar utsa danik ezin esango degu. Baditu bere illunaldiak, eta izango ditu gaiñera. Mundukoak geran bezelakoak geran arte, mundu onetan ez da premirik faltako. Gure Euskalerrri onetan ere badago zer konpondua, geuregandik asita. Baiña badirudi argi izpiren bat edo beste ikusten dala. Lantegi edo enpresa pranko bada ipurdiz gora joanda, baiña zutik gelditu diranak ari dira dirua irabazten. Eta orrek zerbaiten itxaropena ematen du. Langabezia edo paroa izurri ori gutxitzen asi omen da. Pittinka, baiña gutxitzen beintzat. 170.000 gizon-emakume daude Euskadin lanik gabe. Errez esaten da. Oien artean zenbat ezin bizi eta tristura dagoen pentsatu utsak bildurra ematen du. Baiña dana beltza ezin izan ordea, eta Eusko Jaurlaritza, Diputazioa eta beste

zenbait erakunde milloika pezeta banatzen ari dira industriak berritu, obra berriak egin eta orrelako lanetarako.

Betor dirua zorionean, eta izan dedilla lana. Pekatari bat zeruan sartzen danean izugarrizko poza artzen omen dute an dau-denak. Lanik gabe eta etsita dagoen mutil edo neska gazte bati lanera deitzen diotenean, etxe artan artuko dan poza ere ez da makala izango. Danok nai genduke zerura joan, baiña munduan gauden arte ere zerbait bear, ba. Urte batzuk bearako dira oraindik, baiña ea noizbait alkarri mokoka egiteari utzi eta gizonak bezela bizitzera iristen geran.

Pazkoazkoa egiteko garaia aurrera zijoan, eta konfesonario inguruan egundoko jende pillá zai. Joan da gizona konfesatzera, eta apaizak:

– Zuk zertan lana egiten dezu?

– Ni komeriantea naiz.

– Komeriantea?

– Bai.

– Eta nola egiten dira, ba, komeri oiek?

– Ara! –erantzun zion gizonak, eta bi eskuen gainean buruz beera eta ankaz gora jarri omen zan. Ori ikustean or dijoaz emakume guztiak igesi.

– Baiña nora zoazte? –apaizak.

– Zuk ematen dezun penitentzia kunplitzeko prakak janztera.

Ikusten danez agintariak zuzen jokatu nai dute. Lanaren bidez diru pixka bat eman nai omen digute. Au entzutean guztiok poztu bear genduke, nik uste, geuri kendua izanagatik zerbait ematen badute.

Mundua ezin konpondu, noski, ori eta orrenbestez, emen guztiok nola ez gauden ondo osatuak suertez. Baiña bizitza zerbait erreztu diteke, bai, nere ustez, naiko dirua eman ezkeró lana emanaren partez.

Uda etortzearekin batean badirudi neguan egin gabe utzita-ko gauza asko egiteko gogoia etortzen zaigula. Negurik onenak ere naiko kukilduta uzten gaitu. Eta udaberrian esnatuko ote geran, baiña udaberri gordin samarra izan dala edo ez dakit zer, udari itxoin bear. Udan eguzkiak indar aundia izaten du, eta badi-rudi gu ere indarrean jartzen gerala. Orregatik jarriko gera men-dira begira. Orregatik piztuko da gure mendizaletasuna, eta orregatik jarriko gera mendira joango giñakenean, al baldin bade-gu beintzat.

Bada urtero-urtero uda etorri baiño leenxeago astindu bat ematen zaion kontu bat: Urbiako mendi-bide edo pista. Ematen du zer esanik asko. Zenbait mendizale eta ekologistak dioenez, Urbiara bidea egitea ez da komeni. Jende asko joango omen litzake eta zelai eder ura zikintzea, lardaskatzea eta ondatzea besterik ez litzake egingo. Alde batera, egia da, eta ez det esan-go arrazoirik ez dutenik. Baiña ekologista jende orrek mendi guztiak eurenak dirala uste du ordea, eta ez daukate gaiñera iñoren errukirik. Nolako zabarrak eta utziak geran badakigu, eta mendietan zer gertatzen dan ere bai, baiña bide on bat egin nai ez izatea ez al da leengo apaiz zaar aien antzeko jokaera?: “Au ez egin, ori ere ez, eta beste ura ere ez, pekatu da-ta!”. Orrezaz gaiñera, bidea egitea galeraztea meritu gutxiko lana dala esango nuke. Ori baiño obe litzake jendea ezitzea edo edu-katzea. Mendian nola portatu bear dan erakustea, alegia. Badakit lan zailla dala, baiña meritua orrek izango luke. Ekologistak bizi bear dute, baiña Urbiako artzaiak ere bai. Mendian urruti eta bakardadean bizitzea ez da gero kalean ujuka ibiltzea! Gaixo bat edo ezbear bat izanda ere, bide egoki bat ez litzake laguntza txarra. Mendiak guztionak dira, eta ez aldapak igotzeko sasoi ona daukatenenak bakarrik. Baita gora-

koan auspoa berotzen zaienena eta beerakoan belauñ katilluak minberatzen zaizkienena ere. Biderik nai ez duten oiek mendia zikintzen dutenei ortzak erakusten balekitez, beste zakur batek zaunka egingo liguke.

Pistak dirala ta ez dirala
badabil naiko komeri,
erreztasunik eman nai ezta
iruditzen zait au neri.
Baiña au ere esan bearko
ekologista oieri:
protesta zorrotz egin mendiak
zikintzen dituzteneri.

Jaunak, oraintxe estuak dira
ekologisten ordenak!
Mendira errez iñor joaterik
ezin eraman geienak.
Emen geiago ere badira
mendian parte dutenak.
Uste badute ere ez dira
mendi guztiak aienak.

1989ko ekaiñak 16

Euskaldunak gerala buru gogorak baiña beste leku batzuetan ere badira berearekin irtetzea gustatzen zaienak. Errioxa aldetik datozen berriak diotenez, oraindik denbora asko ez dala, 64 urteko agure batek milloi bat pezeta eta geiago sutara bota eta erre omen du. Bere emazteak zeuzkan diruak erdibana egitea nai ez iñundik ere! Senarra baiña amar urte zaarrago da amona ori. Eta bera beste mundura joandakoan senarrak pikardiren batzuk egingo dituen bildurra edukiko zuen. Oso zurra izan nunbait, eta sorgiña gaiñera. Emakume ori ez omen zan isiltzen, eta egun batean aurrezki kutxara eraman eta libreta berri bat atera, eta 600.000 pezeta jarriko zizkiola, ba, bere izenean esan zion senarrak. Baiña ez zuen nai ori ere. Diruak atera, etxera eraman eta ez ditu, ba, danak sutara bota eta erre senarrak?! Ori egiterako gizon gizarajoari zenbat lata eman ote zion egoten naiz pentsatzen.

Dana dala, bat sorgiña dalako eta bestea burugorra dalako, orra zer porrujorrek atera dituzten. Bere denbora guztian astoak bezela lana eginda aurreratutako diruak izango zituzten, seguru asko. Eta orra atso-agureen atarramentua. Zaartzera petraldu egiten generala, baiña au dexentea izango da, orratik. Iru-lau egun pasatu bear mundu onetan, eta alkarri ori baiño geiago opa izateko lain etziran, sikira?! Diruak ez duela balio eta orrelakoak entzuten dira, baiña bein irurogeita amar urte ingurura iritsi ezkeru milloi bati ori baiño zumu ohea atera lezaiokela esango nuke. Aurrezki kutxako libretarekin ere piatzen ez dan atso sorgiñak ez dauka senarrarentzat borondate aundirik, baiña diruak sutara bota zituen agureak ere ez. Bere zorioneko diruak emanda emaztea isilduerazi eta gainontzeko-arekin al zueneraiño gozatu izan balu obe zuen. Jenio txarrari eusten ez dakigulako bizitza zenbat mikazten degun ez degu asko pentsatzen. Atso erretxin ark ere senarra bere onetik ateratzea baiño obe zuen milloi ta geiagoren interesakin mokadu goxo batzuk gertatu izan balizkio. Emaztearen errieta guztiak baiño zartagiak sutan ateratzen duen xar-xarra geiago omen da senarrak etxetik ez alde egiteko.

Agure batek bere atsoak
guztia galerazirik,
disparateak egin lezazke
ez badauka malizirik.
Kontu izan dezagun,
ea ikasten degun
gertatua ikusirik,
petralkeritik sekula ere
ez dala irabazirik.

Kontseju onak emanagatik
atsoak ez nai aditu.
Beti berea egin bearrak
lan txarrak ematen ditu.
Atsoarentzat aiña
milloi bat bazan baiña,
danak sutan erre ditu.
Aitonak askoz ohea zuen
juergan kastatu balitu.

Gaur San Juan bezpera, eta biar San Juan eguna. Festa usai izugarria banatzen du onek. Amaika aldiz etortzeko pozak egoten giñan festa aiek izango dira Seguran. Telleriarten ere ez dira aaztuta egongo. Leku alaia eta euskal usai aundikoa degu Legazpiko auzo au. Ango etxekoandreak ondo prestatuta egongo dira. Ez dituzte sukaldeak utsik edukiko. Beste erri askotan ere festak izango dira. Eta gozatu batzuk artu ditzatela danak, oraintxe da garaia-eta. Aspaldi onetan berebiziko indarra artu dute errietako festak. Gaztediak ere leenago baiño geiago eskatzen du, eta eman ere alaxe egiten zaiola uste det. Udalak ere festaegunetarako orain ainbeste diru etzuten sekula emango. Ala ere, gazteei nai duten aiña emate orrekin beste zerbait estaltzen ote dan egoten naiz pentsatzen. Oiu batzuk gorabeera, festetan dabiltzan artean gazteak beste zenbait arazorekin ez ote diran gogoratzen iruditzen zait. Gazteak askatasuna nai izaten du, eta askatasunik asko ematen zaio, ba, oraintxe. Kaleetan edozer gauza botatzea, bazterrak zikintzea eta orrelakoak debekatuta egoten ziran leenago. Gaur dana libre da berriz, eta gaupasaren ondoren gure errietako kaleetara irten baiño etxean egon obe izaten da askotan. Leenago barbaroak esaten zitzairen aiek pasatu dirala esan ditekete. Festaegunetan zurrut geiegi egiten da, nunbait. Eta edaten dana atera ere egin bear izaten da berriz. Egin bearrekoak nunai egiteko eragozpenik ez, lotsa eta gizatasuna bear luketen lekuan alkohola, eta goizean pelota lekuak eta kaleak garbitzen izaten da lana. Askatasuna bearrekoa da, eta protesta egitea ere bai, batzutan. Baiña au al da Euskadi jasotzeko modua? Leenago ere baziran gazteak. Gu ere ez gera kaskalkeri bat edo beste egin gabeak. Baiña gaupasa bat egiten genduenean ez det uste erri guztian mandoa botatzeko moduko usairik uzten gen-

duenik. Arrapatzen genduen askatasun apurrari orixe baiño zumu ohea ateratzen genion. Gazteak pikaro samarra izan bear du, baiña pasatu gabe.

Dana dala, festak festa egiteko dira eta segi, aspertu arte. Ondo ibilli danok. Zaarrak zerbait badakite, eta aien esanak ere entzun. Esiari salto egiteak ondoren txarrak ere ekarri izan ditu gero!

Orra iritsi San Juan jaiak
ospatutzeko denbora.
Egun auetan beti Segura
etorri oi zait gogora.
Bazter politen zale bazera
ez begiratu kanpora,
garaia pasa eta damutu
nai ez badezu gerora.
Etorri zaitetz Segura aldera,
ez joan beste iñora.

Leku eder ta pakeosoak
gure lur ontan badira.
Iñor zalantzan baldin balego
etorri Euskalerrira.
Udaberrian edo udaran
inguratu Goierrira,
biotz-aginduz joaten dana
maitatzen duen tokira.
Ni bezelaxe txoratuko da
Segura aldera begira.

Bertso, pelota, euskal dantza ta
oitura zaar maitaleak,
inguru zoragarriak eta
ikusgarriak kaleak.
Esaera da, seguratarrak
dirala zopajaleak.
Or ikusten da nola guztiak
diran gauza on zaleak.
Emen ez dira malizirikan
ez duten arrantzaleak.

San Juan sua piztuko da gaur
mendi tontor geienetan.
eta arbola lagun duela
erriko plaza danetan.
Poza ematen duen oitura
nola degun au benetan,
nik Seguratik opa dizuet
festa bezpera onetan
egun alaiak igarotzea
guztiok Sanjuanetan.

Serbitzari leialak builla aundirik atera gabe egin oi ditu bere lanak. Alakoak ez du izaten nundik nora dabillen zaindu bearrik. Iñor begira ez egon arren ere zintzo betetzen ditu bere eginbearrak. Serbitzari leial auetako bat esnea dala esango nuke. Esate baterako, ardoak laister adieraziko du nundik nora dabillen, pixka bat deskuidatu ezkerro beintzat. Esnea askoz apalagoa da. Jaio orduko asten gera mutturra luzatuta amaren bularraren billa eta ez musu emateko, ainbeste maite degun esnea edateko baizik. Eta jale mixkiñak ziran aurrak bizirik atera ditu esneak. Taloa eta esnea izan ez balitz, ez dakit neroni ere gaur emendik berriketan ariko nintzan. Esneak urte askotan bete ditu bere eginkizunak, isil-isillik.

Esnea udan edaten da geiena, eta ganaduzaleak diru apur bat irabazi bear dutenean merkatu egiten da, alajaiña. Ori dala-ta, zarata batzuk ateratzen ditu azken urte auetan, askotan pobrearen arrazoiari gertatzen zaiona gertatzen bazaio ere. Au naiko ez dala, esnari gazura edo gazurarekin egindako zerbait naastu dioten esne fabrikak izan dira, diru geiago irabaztearren. Naastu dioten eraskin edo geiagarri orrek ez omen du osasunarentzat kalterik. Eta gaitzerdi. Orixe izango zan bestela esnari fama txarra emateko eta zearka baserritarrei kalte egiteko modua. Esne saltzaileak ere ez dakit nola ibilliko ziran. Euria egiten duen egunetan bezin ondo ez, seguru asko. Baiña nagoen isillik, esne saltzaille jatorrak ere badira-ta. Orrelako naasketak fabrikatan egiten dirala esan det, eta esnea fabrikatan egiten dala uste al dedan galdetuko du norbaitek, bear bada. Ez, noski. Aste eta jai, beiak gobernatzen saiatuta eta zenbat ordutan lana egiten dan kontuak atera gabe lana beltz eginda ateratzen da esnea. Aldagoiak eta bisutsak belarri eskiñak garbitzen dituzten bitartean, kazkabarra bizkarrean artuz ardiak zainduta ere bai. Artzaiak eta baserrita-

rrak kotta asko samar kontatzen dutela ere esaten da, eta min daukaten baiño negar geixego egiten ote duten ere bai. Baiña oientzat itz eder asko eta laguntza gutxi izaten dala esan bear ko degu, ez da gezurra-eta.

Bein batean fraille bat maletaz karga-karga eginda jeitsi omen zan trenetik. Maleteroak artu eta eraman omen zizkion danak, eta komentura iritsi ziranean, frailleak:

- Esker milla –esan omen zion.
- Uumm... erdia dirutan izan balitz ere.

Esnea ona izanagatik
ez degu artzen len aiña.
Dirudienez au izango da
jaki berrien ordaiña.
Galderatxo bat egin bear det
ez nuen egin nai baiña:
orain esneak zergatik ez du
len izaten zuen gaiña?

Artaraiñoko aldakuntzarik
ez izan arren beiekin,
beste aldera ez ote zaigu
gertatzen esnearekin?
Orregatikan esan bear det
guztiak dezaten jakin:
egostekoan ez dula bear
urak bezela irakin.

1989ko uztaillak 7

Igazko San Fermiñak pasatu ziranean makiña batek pentsatuko zuen etzeudela berriz etorririk. Baiña iritsi dira aurten ere, poliki-poliki. Zerbaiten zai gaudenean luze egiten bada ere, denbora laister joaten da, batzutan.

Onelako pentsamenturik gabe ibilliko dira gaur Iruña aldean. Ala obe, gaiñera. Kontu danak ateratzen asi ezker ez dago festa egiterik. Noizean bein arrastotik irten ezean bizitza motela edo triste samarra izaten da, gaiñera. Beti burumakur egotea baiño obe da bai zezenaren aurrean korrika egiteko adorea edukitzea, eta naparrak eta Naparrora joan diranak artu dezatela

gozatu on bat. Eta nappar guztien patroï dan San Fermiñek zaindu ditzala danak, okerrik izan ez dezaten. Enzierroan zezen adar zorrotz aien aurrean korrika dijoazenak izango dute zerbaiten bearra. Gauean arrapatutako amorraiarekin edo erdi lotan daudenak esnatuko dira bestela. Iruñako festa famatu oietara ez dira nai duten guztiak joango. Juizioan sartzeko urteetan aurrera joatea bezelakorik ez dago, eta umorea joan zaielako edo bereak emanda kemenik gabe daudelako etxean geldituak ere izango dira, noski. Orrelakoak leengo kontuak aaztuta komeni zaiena egitea dute onena, bestela aienak egin du-eta.

Leengo batean jubilatutako berria dan gizon batekin egon nintzan. Lanean jarraitu balu oraindik ere diru pixka bat aurreratuko omen zuen eta jubilatutako egin omen dute, alajaiña! Bizitzeko lain ematen diote, baiña leen aiña ez, eta ia negar egiñean zegoen gure gizona. Utsa familiko gurasoa izan balitz! Kastillatik onuntz etorri arte ez omen zuen dirurik ikusi. Ezkontzen baldin bazan aren txanponak deabruak eramango zituela eta ez zan ezkondu. Ura ez du zezenak bereala arrapatuko. Ez zezenak eta ez beiak. Danak adardunak dira arentzat. Jaungoikoak ortzik ez duenari ematen omen dio txuleta. Zenbaiten bizimodua ikusita ezin liteke esan gezurra danik. Nik ez det esaten ezkondu balitz morrokkadaren bat edo beste entzungo etzuenik, baiña emazteari orrenbesteraïñoko bildurra edukitzea ere ez dakit, ba, oso ona ote dan.

Zurak bizkarra ematen dio
amaika egun ederri,
iltzean diru danak uzteko
zenbait alproja alperri.
Danak or dauzka noiz ilko dan zai
eta ark ezin igerri.
Diruzaleak ez du ikasten
sekula munduko berri.

Premirikan ez eta dirua
orren maite izatea,
esango nuke orixe dala
bizitzen ez jakitea.
Paseatzea baiño naiago
badu lana egitea,
arek merezi luke zezenak
astindu bat ematea.

Alemanian bizi diranetatik ia erdiak astean beste edozein egunetan baiño geiago aspertzen omen dirala igandetan esaten dute. Geiago aburritzen dirala, alegia. Famili barruan ere igandeetan asarre geiago eta konpondu ezin geiago sortzen omen da astegunetan baiño.

A zer nolako poza eduki liteken Alemanian jaieguna etortzeko! Aste guztia lanean pasatu eta igandean izango bakoitzak derizkiona egiteko aukera, eta orduan etxean alkarri mokoka, alajaiña! Alemaniar oiek ere zelebrea dira orratik! An ere ez dauzkate aurre-rapen guztiak, igandeetan jenio txarrari eusten ez badakite. Baiña pertsonaren akatsak eta alkar eraman eziña igandetan onela nabarmentzea gauza arrigarria da. Au ez da, orratik, igandearen errua izango. Geu petraltzen eta gizatxartzen ari geralako izango da, seguru asko. Izan ere, lanik ez egitea da bat eta jai egitea bestea. Igande eta jaiegunetan lanik egiten ez dan onetan, beste ezeren bearkizunik ez badegu, aspertzeko lain denbora gelditzen zaigu. Denbora ori zerbait egiñez betetzen ez badegu, ortik etorriko dira gure ernegatualdiak eta soseatu eziñak. Geldi dagoena etsaiak tentatzen duela esaten ziguten leenago, eta ez da gezur aundia izango. Jaiegunak pozez igarotzen dan festaegun izan bear luke. Baiña festa norbere barruan bear da ordea leenbizi, eta oraingo gaupasa eta orrelakoak pozik ez dute sortzen, ikusten danez. Gauean parranda egin ezkerro, egunezko loak ez du gorputza bear bezela gozaten nunbait; ta loerreak petralkeria berekin izaten du.

Garai batean jaietan etzan aspertzeko denborarik izaten. Goizean mezetara joan bearra izaten genduen, eta gauean goiz erretiratu. Jesus eta amen!, joaten ziran gure jaiegunak. Bezperatatik irten eta illuntzera artekoa etzan luzea izaten. Batzutan pixka bat luzatzen genduen bai, baiña tira. Orain ez dago alako konturik. Neska laguntzera ere joaten ote da iñor? Joaten badira ere, kotxean joango dira, eta utsa. Ori ez da etxe-

ondoko intxaurpean illargitan kontu potxoloak esatea! Urrengo igandera arteko ilusioa ematen zuen ark, sikira. Mezetara joan ezkerro esku emanez alkarri pakea opatzen diogu, baiña nola iñor ez dan joaten, etxean egoteko denbora geiegi, eta alkarri mokoka. Orixe da, ba, egunik onenak alperrik galtzeko modua...

Ia nai degun dana daukagu
eta ez degu naikoa.
Gure bizitzan zeukan lekutik
kendu baitegu Jainkoa.
Baiña ez gera geuk uste aiña
eta or dago kakoa...
Bizi besterik ez ta aspertu,
ez al da azkenekoa?

Askatasunak ere askotan
ez digu egiten grazi.
Zoriona nun egon liteken
ikusten ez gera asi.
Kutiziek in burrukan beti
eta ez in irabazi.
Jaiegunetan nola jai egin
ez in baitegu ikasi.

1989ko uztaillak 21

Noiznai ere itxura onean azaldu nai izaten degu, baiña ondo agertu nai edo presumitu nai orrek udan zirikatzen gaitula geiena uste det. Udan jantzi ere arin samar egin bear izaten da, eta gorputzaren akatsak orduantxe nabarmentzen dira geiena. Gizonezkoak ez gaitu orrek ainbeste kezkatzen. Baldar samarrak gera, eta sabela ondo bete ezkerro, ortik aurrerakoak ez digute buruko min aundirik ematen. Emakume batzuk senarra itsusi samarra izatea obe dala esaten dute, gaiñera. Bere edertasuna obeto ikusteagatik ala guk estimazio gutxiago izateagatik dan, orixe ez dakit.

Gure aldean dotoreak dira emakumeak. Eguzkitan beztea ere gustatzen zaie, naiz eta orretarako urri samar jantzi bear izan. Lotsatu plantak-eta egiten dituzte, baiña orrek ere ez die kezkarik ematen, nolata mitxeliñen batzuk ez dauzkaten beintzat. Uda garai onetan flakatzeko alegiñak egin gabeko asko ez da izango. Lagunen

bat pixka bat meetu dala ikusten badute, laister galdetuko diote flakatzeko zer egin duen. Baita kopiatzeko errezeta eskatu ere.

Paperetako erremedio oiek ez dakit, ba, birtute aundirik izaten duten. Flakatzeko ez dago penitentzia egin besterik. Penitentzi ori gutxi jatea izaten da, berriz. Eta goseak berekin duen sufrimentua, iztar lodi samarrak edo mitxelin bat edo bestek eman dezaketen iguia baiño erreagoa izaten da. Etxeko emakumeak erdi goseak mutturra ximurtuta eta jenio txartuta jartzen badira, edozein joaten da aien ingurura! Zorioneko dotoretu naia. Gorputza zaintzea eta lirain gordetzea ondo dago, baiña ez dago emen danok zineko artistak bezelakoak izaterik. Gorputz luzea eta mea polita izango da, baiña ori ezin degulako ezin etxeko guztiak airean erabilliko ditugu. Lodi antzekoak eta sendo samarrak ere izaten dira polit askoak. Ez dakit gaiñera beste igar oiek baiño argiagoak eta atsegiñagoak ez ote diran izaten. Rejimena egin bearra berez etorriko da. Osasun ona daukagun artean penitentzi geiegi ez egitea ez al degu obeko? Leengo batean emakume batek ala esan zidan:

– Alaba zearo asarretu zait. Lanean dabillan onetan eguzkia artzeko astirik ez omen dauka. Zangoak ere zuri-zuriak, eta aiekin ondo datorkion erroparik ez omen dauka, berriz. Aurki oporrrak, eta ea zer egin bear duen ark. Au ez omen da atarramentua!

Au ere entzun egin bear genduen. Alabak anka zuriak dauz-kala eta amarekin asarratu. Bejondaiola!!!

Itsusi samar izaten dala
gorputz txiki ta gizena...
Ori da ondo bizi diranak
edukitzen duten pena.
Flakatu eta lirain jartzea
bada oiek nai dutena,
gutxi jan eta lan asko egin:
errezetarik onena.

Koiperik gabe berdura janda
sarritan joan mendira...
Ea, ba, gerri inguru oiek
liraintzen diran, sikira.
Baiña ez galdu pazientzirik
ispilluari begira,
iru edo lau mitxelin baiño
gaitz txarragoak badira.

Orain dala urte mordoska bat izan balitz, laister San Inazio dala pentsatuz egongo giñan egun auetan. Orain beste alde bate-tik jotzen du ordea aizeak. Makiña bat egongo dira gaur illuna-barra noiz iritsiko, oporrak artu eta or zear joateko, San Inaziorekin asko gogoratu gabe. Garai bateko sermoilariak bizi izan balira, gure eleizatako pulpitoak istillu gorri zeukaten! Astindu ederrak artu bear zituzten. Ala ere, emendik errezatu edo Andaluziatik errezatu, San Inaziok berdin entzungo du, eta aren laguntza nai dutenak badakite zer egin.

Etxe askotan egongo dira gaur pozik. Aurak galdera pranko egingo diote amari, eraman bearreko erropak eta gaiñontzekoak gertatzen estu eta presa ari dan arte. Aitak bein baiño geiagotan begiratuko dio erlojuari. Ordua jotzen duenean lantegiari utzi eta laguneri agur esan, eta etxera azkar. Bat baiño geiago izango dira gaur gaua bidean pasatuko dutenak. Oporretara nora joan, senar-emazteak alkarren artean erabaki bearreko gauza dala esango nuke. Beti bezela arrazoirik geientsuena, edo dana, emazteari emanaz, ori bai. Guri ez digu ajola aundirik izaten, baiña emazteak pixka bat beztuta etorri nai izaten du oporretatik, eta itsas-ertzera edo eguzkia artzeko moduko lekura joan nai badu, ez dago ezetzik esaterik. Alaba ere bere alde izango du, eta bien kontra ez asi, badaezpada ere. Oporrak ez dira, gaiñera, aita-semeentzat bakarrik. Pixka bat presumitzeko moduan jartzen ari dala-eta emaztea gustora badabil, senarrak ere ez ditu opor txar-rak pasatuko. Ama umore onean dagoenean, familia zero bat izaten da. Orregatik, etxeko danok amaren esanak zintzo egin bear ditugu. Baiña aitak esandako ordurako irtetzeko prest egon danok. Kotxean sartu eta zai egon bearrak bere onetik ateratzen du gizona, eta ori oso kontuan eduki bear da. Andrearekin asarretuta kotxean abiatzen diran gizonak istripu asko izaten omen

dute. Oporretara abiatzean ez, ba, errietarik egin senarrari, Jaungoikoaren izenean! Ori baiño obe da losintxa pixka bat egiñez bere onera ekartzea, goxo antzean itz egiñez berealaxe bare-tuko da-eta.

Zurruta da beste gauza bat oso kontuan eduki bearrekoa. Senarrari etzaio zurrut egiten utzi bear. Or azaldu bear du emazteak senarra engaiñatzeko duen abildadea. Kopa bat baiño emaztearen bi muxu obe dira kotxea zuzen eramateko.

Atsedeteko aukera on bat eskuan dezute aurki.

Lana eginda irabazia, merezi zenduten, noski.

Eguzkia zai daukazute ta joan poliki-poliki, eta urteko txangoaldia igaro danok egoki.

Gaur bideetan ikusten dira ainbeste istillu gorri...

Ez da txantxetan ibiltzekoa, eta kontu izan orri.

Auxe eskatu nai diet orain ainbat famili jatorri: joan da ondo ibilli, baiña danok osorik etorri.

1989ko abuztuak 4

Badago gu baiño abillagorik bazterretan. Jaietan lana egite-tik justu-justu libratu giñan gu. Igande eta jaiegunetan lana egitea pekatu izaten zan, eta ari eskerrak. Bestela zumuak ondo aterako zizkiguten. Inpernuari bildurrik izan ezpalitzaio beste mundura joaterako inpernuaren berri ondo ikasita egongo giñan. Leenago inpernuak ematen zuen aiñako bildurra ez dakit orain lanak ez ote duen ematen. Leenbizi, eta ondo kostata, larunbat arratsalde-ak jai egiten asi giñan. Gero, larunbatetan lanik ez egiten. Orain lantegi askotan ostiral arratsaldez ere jai egiten dute. Orrela jende

geiagorentzat izango omen da lana, eta ez dago zer esanik. Danok bizi bear degu emen.

Orrezaz gaiñera, nik ez dakit zenbat festaegun, zubi edo puente eta abar dagoen orain. Baiña danak naiko ez dirala, joan dan urtean zenbat huelga izan dan Jaungoikoak jakingo du. Emen ez ainbeste, baiña lanordu pilla galantak galdutako tokiak badira, emendik urruti gabe. Eta ala ere, ez da jendea oporretara joan gabe geldituko, eta gaitzerdi.

Kaleetan ez da oraintxe traba aundirik ikusten. Batzuk itsasertzera eta besteak ez dakit nora, atzerrietara ere ez gutxi, or dabilta danak jo eta ke. Eta ori ez da dirurik gabe egiten. Zenbat eta lan gutxiago egiten dan, orduan eta diru geiago dagoela dirudi. Langilleak ondo bizi dirala esan nai du onek, eta neroni beintzat poza ematen dit, egia esan. Guk ez genduen orrelako paotxik arrapatu. Gu giñan oso tontoak edo... oraingoak dira oso bizkorak. Guk egindako lanari zumua ateratzen ari ote diran ere pentsatu izan det askotan. Eta mundu biurri onetan ori gertatzearekin ez nintzake asko arrituko. Agintzen zigutena isil-isillik egin, ematen zigutena artu, eta segi aurrera. Guretzat etzan izan besterik. Orain ez da ain errez etsitzen. Teman jarrita lanorduak uzteko ezer gutxi bear du oraingo langilleak, baiña leengoen aldean ondo bizi da. Guk bezela burua makurtu eta protestarik egingo ez balute, bizi diran bezela biziko ote lirake? Onek ere ematen du zer pentsatua.

Etxekoandre batek ala zion besteari:

– Nere alaba sorta ori betaurrekoak jartzera eramán bearrean daukat. Ezkonduta beajera joan zan, eta ez da, ba, gizonik gabe etorri?

– Nola gero? Neronek ikusi nituen kotxetik jeisten, eta ez duela gizona ekarri?

– Bai, gizona ekarri du, baiña ez eramán zuena...

Len esaten zan lana eginda
mundua konpontzen zala,
eta denborak erakutsi du
ez dala egi makala.
Naiz ta gu erdi-galduan irten
saia arren egiñala,
ezin ukatu batzuentzat au
ederki etorri dala.

Garai batean bizitzen zala
naiko larri eta estu...
Urte batzuek joan dira baiña
oraindik etzaigu aztu.
Errespetoan azi giñan da
beti lanerako prestu,
txintxo askoak izanak gera
baiña ez gera aberastu.

1989ko abuztuak 11

Opor illean murgildu gera, ba, oraintxe. Atsedean artzeko il egokia da abuztua. Baita atsedean artuko dala ustean iñoiz baiño geiago nekatzeko ere. Beti leku batean egoteko ez gera onak, eta onek endreatzen gaitu askotan. Besteak egiten dutena egin nai izaten degu; eta zerbait geixego ere bai, bearbada. Eta orrekin ibiltzen gera gaizki. Baiña danak ez dabiltz or aurrera joanda aberats itxurak egiten. Patxaran bizitzen dakitenak badaude oraindik, eta Goierrri aldeko errietan ez gutxi. Zerain, Gabiri eta orrelako tokiak emen daudela ez dago lasaitasun billa urrutira joan bearrik. Eta zenbat erri onelaxe? Danak ez daukat aitatzerik, eta barkatu.

Zeraiñek artu du berritu ederra. Orixe da erri polita gelditu dana! Oraintxe bai ez daukala iñoren lotsarik. Leenaz gaiñera poz ematen dit zeraindarra naizela esateak. Andramaritan bisitaririk asko izango da, eta festa onak pasa ditzatela danak, erriko eta kanpoko. Gabiri ere ez da nolanaiko tokia. Eguraldiak batere laguntzen badu, San Roke txiki egunean ez da Gabiriko plazan giro txarra izango. Mediterraneo eskiñan eguzkitan kiskaltzen dabiltzanak aiñean moldatutako dira aritz aundi aien azpian afaltzen dutenak. Festaegunetan baserrietako etxeakoandreak etortzen

zaizkit gogora. Onegia izateak ez du balio mundu onetan, eta nere kontsejuak bear balira, auxe esango nieke: Andramaritarako azi dituzten oillasko ankaluzeak senarrak eta biok jateko. Seme-alabak ere bai, nai badute. Baiña kalera joateko aitzaki billa baldin bada-biltz, ez ibilli erreguka. Joan ditezela. Etorriko dira aspertzen diranean. Festa egunetan etxeoai eta kanpokoai sabela bete bear ura joan samartu zan, etxeoandreen onerako. Baiña beste gaitz bat indartu zaigu: gaur edan egiten da asko, zoritxarrez. Bein amairu urte ezkeru, alkohola edaten asten omen dira mutil koskorrak. Neska koskorrak ere ez dira urruti ibilliko, eta alako ondorenak etortzen dira gero. Orra dirua ugaltzeak nolako kalteak ekarri lezazken.

Brasillen 84 urteko agure aberats bat 70 urteko emakume batekin ezkondata omen dago. Frantziako emakumerik ederrena izana, miss France izana. Eta aberatsa, gaiñera. 20 milla milloiren jabe omen da. Ez da nolanaiko emaztea daukalako, baiña agure deabrua pikaro samarra izan, eta andreak auzitara eramán du. 120.000 milloi bai omen dauzka eta erdiak kendu nai dizkio aitona orri. Orra zenbait aberatsen bizimodua. Frantziako emakumerik ederrena berekin, baiña diru asko eduki ordea. 84 urte, eta ala ere ezin sosegatu. Emaztea pixka bat ximurtuta egotea baliteke, baiña juizioan noiz sartu bear ote du agure orrek?

Guk uste bezin ondo ez dabiltz
asko oporraldietan:
aurpegietan neke itxura
eta loa begietan.
Zorion billa aspertzen dira
sari erri aundietan;
ta bitartean lasaitasuna
gure erri txikietan.

Zeraiñen nola ez dan izaten
zine eta teatrarik,
zaratak ez du galduerazten
atsedenik edo lorik.
Auxe bai erri pakeosoa,
ez du juerga gogorik...
Eguzkiaren azpian ez da
beste bat orrelakorik.

Zerain, ain zaude erri polita,
garbia eta txukuna.
Au berritua artu dezuna,
ori da zurtasuna!
Ama Birjiñak zainduko zaitu,
baizera bere kuttuna...
Aita San Rokek gorde dezaizun
luzaroan osasuna.

1989ko abuztuak 18

Ebak paradisuan sagarra jan zuenean Adan engaiñatuko zuela usteko zuen, baiña bere burua engaiñatu zuen beintzat ederki. Etzuen txarra egin, gajoak. Beretzat eta ondorengoentzat jarri zuen bizitzen lan ederra. Gizona baiño gorputz indar gutxiagokoa da, eta gogor egin bear danean emakumea galtzen irtetzen da. Jaungoikoak gizona bere antzekoa egin zuela entzun izan degu. Tajuzkoa danean baliteke ala izatea, baiña gizon kaiku eta aldrebesa pranko bada mundu onetan. Jaungoikoa gure antzekoa ez baiña gu baiño ohea izango al da, bestela ez daukagu zerua arrapaturik.

Chilen 23 urteko gizakume bat eun urteko emakumeeri ipurditik ozka egin dielako kartzelan sartu dute. Esan zaidazute neri gizon edo mutil edo dalako ori kaikua eta aldrebesa ez dala. Ark arrapatzen zituen emakume gaixoak pasatuko zituzten estuasunak! Baiña gaizki dabillenak gaizki bukatzen ordea, eta noizbait ere arrapatu dute, eta an egongo da orain itzalean, an egoteko ohea izango da-eta. Alare, orrelakoak laister ateratzen dituzte, eta baditeke ura ere denbora asko baiño len kartzelatik irtetzea. Itzalean aspertu dalako ez al da eguzkia artzera onuntz etorriko. Emengo ondartzatan ikusten dan aiña okela ikusita alako ozkalari batekin ez litzake giro izango. Ezjakin arlote batek edo erdi

ero batek orrelakoak egitea ez da arritzeko. Barkatzekoa dala ere esango nuke.

Asko ikasitako gizon jakintsuak ere sakatzen dituzte ederrak batzutan. Ez det esango iñori ozka egiten diotenik, baiña batzutan isillik egongo balira obe luketela bai. Bolara onetan badago izurri edo peste bat bezela zabaldua dagoen gaiztakeri bat: emakumeak bortxatzea edo biolatzea. Ia ez da besterik entzuten. Ori egin ziotelako epaitegian berri eman zuen neska gazte bati - juzgaduan parte eman zuen bati, alegia - ori egin ziotenean barruko praka motzak jantzita al zeuzkan galdetu dio epailleak. Ori al da, ordea, emakume bati egiteko galdera? Epailleak esan bear al dute emakumeak nola jantzi? Legeak ez al du esaten danok berdiñak gerala? Ori al da emakumea nola errespetatu bear dan ejemploa ematea? Txotxolokeri oiek esatea baiño obe luteke epailleak justizia zorrotz egitea. Zearo aldrebestu gera ordea, eta ia ez dio iñori ezergatik ajolarik.

Ez nuen uste gizona zanik
ain ozkalari aparta.
Zibilizatu zala esan bai
baiña gezurra galanta!
Basapiztien oitura zakar
danak berekin dauzka-ta.
Zakurren gisan zaunkaz astea
besterik etzaio falta.

Oraiñaldian izurri txar bat
indartu zaigu gogotik:
gizon itxura duten zakurrak
igestu dute basotik.
Emakumeak ezin badira
pasatu oien ondotik,
muturreko bat jarri bearko
eta kate bat leptotik.

1989ko abuztuak 25

Uda badijoakigu aurrera. Denborak ez du beñiere atzera egiten. Gu ondo gabiltzanean geldituko balitz ere zerbait litzake, baiña ezta orixe ere. Ez da, ba, auxe garai txarra iñungo miñik eta ezeren kezkarik eduki ezean ondo bizitzeko, baiña ametsak ez

dute balio. Denbora joan egiten da, eta kitto! Geldituko balitz ere ez dakit danon gustorik egingo ote luken. Gaur San Bartolome biaramona da, eta bart gaupasa egindakoren batzuk ez dute bearbada gorputzaldi ederra edukiko. A ze nolako arria aientzat, denbora geldituko balitz! Urteetan eta urteetan aogozo zakarrarekin eta begiak zabaldu ezinda bizi bearra tristea izango litzake. Festarik onenak falta dirala oraindik, eta egun bat edo beste joanda baleude naian dauden zegamarrak izango dira. Festa ditxosozko oiek pasatzen diranean pake ederra emango dutela diotenak ere bai, eta zeïnek asmatu gurekin?

San Agustin eguna emen degu amilka. Zenbait brinkolarentzat ez da nai baiño leenago etorriko, zai dagoenarentzat denbora luze egiten baita. Oporretan dabilzan guztiak ere ez dira iritzi berdiñekoak izango. Batzuk etxera etortzeko irrikatzen egongo dira, ta beste batzuk oporrak azkenengo ostikadak ematen ari diralako, penaz. Zeïnek egin danekikoa? Dana dala, denborarekin batera uda badijoa, oporrak ere bai, urteko festarik geienak ere joan dira, eta berealaxe gera berriz ere aldapan gora. Bateko aurrak eskolara, liburuak erosi bearra, udazken eta negurako erropak eta abar eta abar. Gabonetako oporralditxoa iritsi arte izango da burua zertan nekatua. Baiña guk aldapa guztiak igotzen ditugu, eta ez degu geiegi estutu bear. Oporrak berebiziko indarberritua ematen dute berrito lanari pulamentuz eltzeko, eta segi aurrera bildurrik gabe. Japonen ere konturatu dira oporrak onak dirala. Leen astebetekoak artzen zituzten, baiña asi dira iru-lau bat astekoak artzen. Baiña alperkeria griña txar guztien iturri izan, eta ango jauntxo jendeak lizunkeriarri eman omen dio. Ministro bat beste baten emaztearekin lardaskerian zebilelako kargutik bota dute. Beste jauntxo bat, berriz, mozkorren bat arrapatuta polizi emakumezko bati ikutu ziola, edo ez dakit zer, kartzelan sartu dute. Zenbaiti ez dago oporrik ematerik, pekatuta joaten dira-eta zuzenean. Orrelakoei lana ematea ez al da obe?

Naiz uste izan japonese oiek
zintzoak zirala oso,
alperten asi omen dira ta
ez beintzat geiegi jaso.
Ikusten danez aurrerantzean
bizi nai dute eroso,
pikardiren bat egin ere bai
noizean bein kurioso.

Japon aldean izanagatik
makiñatxo bat gizon fin,
pekaturako zirikaldaia
beti iges egin ezin.
Mola moxorro samarrak diran
diximuluan nai egin.
Ezin liteke asko piatu
jaten dun santuarekin.

1989ko iraillak 1

Oporrak bukatu dirala eta tristetuta ikusten ditut asko, orrekin zerbait konponduko balitz bezela. Lantuan emandako denbora alperrik galdutako denbora omen da. Orregatik ez dakit orretaraiñoko naigabea nola eduki litekeen. Oporrak berriz ere etorriko dira. Amaika illabete besterik ez da falta. Lana egin bear bada, egin. Eta ondo pasatutako egunak gogoratuz berriz ere alakoan billa bertatik astea izango da onena. Agorri onek ematen du bai bere ikutua. Oporretan egindako zuloak bete bear izaten dira, eta orrek ematen ditu lanak. Aurak eskolara asteko garaia ere oraintxe izaten da berriz. Au ere zuloak egiteko ohea izaten da betetzeko baiño. Eta aurpegi eman bear, gutxi edo geiago. Gurasoak buruausterik askorekin, eta seme-alabak ere lasai ez. Bata besteari leku ematen ikasteko ez datoz egun txarrak. Pazientzia artzen duenak asmatuko du.

Gurasoak, iñola al bada beintzat, umeak ikasketa on batzuk egitea nai izaten dute. Seme-alabak batzutan erantzuten dute, baiña danak ez dira izaten karrera ikasteko gai, eta aukera egiten utzi bearra dago. Karrerak eta beste langintza edo ofizio asko daude bizimodua ateratzeko modukoak. Eziketa-maixuak diote-

nez gaur bear-bearrezkoa da oiñarrizko ikasketa onak egitea, gero gazte bakoitzak nai duen bideari eldu al izateko. Onek esan nai du ikasketa edo estudioetan seme-alabak ez dutela guk nai degun bidetik joan bear, berak aukeratzen dutenetik baizik. Eta askatasuna eman bearra dagoela.

Ikasketa kontua da bat, baiña eziketa edo edukazioa ere or dago, eta ez arazo makala. Emen bai ez dagoela beti nai dutena egiten uzterik. Uste badute ere gazteak ez dute dana jakiten, eta askatasuna iñori kalte egin gabe erabiltzen erakutsi bearco zaie beintzat, gutxienez. Bestela laister joango dira okerrera, esiari salto egindako akerraren moduan. Batzuetan nai dutena egiten utzi bearco zaie, eta beste batzuetan debekatu egin bear. Batzuetan aske utzi, eta beste batzuetan, lotu. Baiña ezetz esan baiño leen bi aldiz pentsatu bearra dago oraingo umeekin. Gazteentzat ikasketa zailak daudela, baiña gurasoentzat ere ez dakit oso errezak dauden. Baiña ez geiegi estutu, oporrak biden dira-eta. Amaika illabete bakarrik falta dira.

Iges egin digute
aurtengo oporrak,
ain ziran bizkorrak.
Ondoren datozkigu
txit egun gogorrak.
Illabetez ez gaitu
penatu legorrak.
Orain ordaindu bear
egindako zorrak.
Oiturak aldatuko
ditu derrigorrak.

Gure txangoaldia
zan labor samarra,
baiña ez ain txarra.
Nola genduen zerbait
atseden bearra.
Lanerako arturik
berriro indarra.
Dirua irabazten
bada barra-barra,
datorren urtean nork
jo guri adarra?

Orain illabete eta erdi edo orrela bete ziran ogei urte gizona leenbiziko aldiz illargira joan zala. Eta arritzeko ere ez danez, Amerikan pozik ospatu dute gertakari ori, eta oraingo presidente berriak esan duenez, ez daude ortan gelditzeko asmoan. Goialde orretan tresnaren batzuk jarri bear omen dituzte geroz eta gorako joan al izateko. Gizon oietxek ez dira buruz makiak. Ezta bildurdiak ere. Goi oietan sortu litezkeen arazoei aurpegi emateko buru argia bear da. Illargira eta gorago joateko trepetxuak egiteko orrelako talentua daukate, baiña mundua pixka bat zuzentzeko abildaderik ez dute erakusten. Ez dakit zenbat aldiz entzungo genduen nazio aurreratuetan zaar asko eta aur gutxi dagoela. Onek kalte aundiak ekarri dezazke, baiña arazoa konpontzeko ez da ezer egiten.

Alemaniak 61 milloi biztanle dauzka, eta emendik 40 urtera, 45 milloi besterik ez omen dira izango. Inglaterran ez dago emen bezela nai ta nai ez soldadu joan bearrik, baiña aurki bear aiña soldadu ez da izango, eta ango mutillak derrigor soldaduzka egin bearean gertatuko dira. Beste nazio batzutan, jateko zaar asko eta lanerako gazte gutxi izango dan bildur dira. Ez dakit goiko jende ori bear aiña soldadu eta nai aiña langille ez izateak ez ote duen bildurtzen. Aur gutxi jaiotzen dala. Beti ori ateratzen dute platerara. Baiña ezkontzeko erreztasun gutxi dagoela, eta etxebizitzak merke egingo dituztenik ez dute esaten, badaezpada ere. Diru geiegi kasatzen omen degula eta gerrikoa estutu bearko degula, bai. Mundura etortzen diran guztientzat lana izango danik ez degu entzuten. Ez da, ba, danak dirurik gabe daudelako. Baiña zorioneko diru ori asko dagoen tokitik gutxi edo batere ez dagoen tokira eramatea illargira joatea baiño ere lan zaillagoa da, nunbait.

Belgikan, aur bat izatean 9.000 pezeta kobratzen dute gura-soak. Eta emen, 250 pezeta. Emengo langille bakoitzak, beretzat

eta beste irurentzat egiten du lana. Eta beste iru oiek ez dira danak zaarrak izango.

- Aizak, –galdetu omen zuen batek - listoak nundik jaten ditek?
- Tontoen bizkarretik.
- Eta tontoak?
- Listoak emandakotik.

Talentuak emanik
Jaungoiko laztanak,
guk ez bear bezela
erabiltzen danak.

Iñork jan ez ditzan guk
egindako lanak,
ez nolana sinistu
listoen esanak.

Itz ederrak bai esan
askotan aurretik,
ez ibiltzeko arren
bide okerretik.

Naiz joan eskubitik
edo ezkerretik,
iñork ez dezala jan
gure bizkarretik.

1989ko irailak 15

Segurako Hermanoetan eskolan nenbillela, fraille aietako bati entzuna datorkit gogora. Aspaldiko kontua dala esango du norbaitek, bearbada; baiña oraingo ere balio duela uste det. Zera esan oi zuen: “Abererik ez da nolanai joka eta gaizki erabilli bear”. Animalirik ez dala maltratatu bear, alegia. “Abereentzat errukirik ez duenak pertsonentzat ere ez du izaten, askotan.” Ez det uste gezur aundia esan zigunik. Frailleak aitzaki asko zuten, baiña ondo erakusten saiatzen zirala ez dago zalantzarik. Oraintxe badago, ba, ekolojista, abereen aldeko alkarte eta orrelakorik. Bere eginbearra betetzen saiatzen dira, gaiñera. Eta ez dago gaizki. Baiña alderdi illun asko ikusten da, ala ere.

Gasteizen eta Donostian ezkabiz edo sarnaz josita zeuden zakurrak akabatu zituztela udalaren aginduz eta egundoko karra-

marrak atera ziran joan dan udan. Inglaterrako diputatu bat ere etorri zan azkenik zakur aiekin zer gertatu zan jakitera, gero Europako Parlamentuan itz egiteko. Abereetaz errukitzea oso ondo dago, baiña pertsonen osasuna leenagokoa izango da, orratik!? Iñori gaitza erantsi baiña leen zakurren lanak egin ziran, eta ari eskerrak.

Oraindik egun asko ez dala, itsas-zakur edo foka oietako bat arrantzale batzuen sareetan erori eta burnizko uztai bat gelditu zitzaion gorputzaren jiran, ez atzera eta ez aurrera. Itsas-zakurrari uztaia kentzeko berebiziko kastuak eta lanak egin dira. Gerrako barkuak, soldaduak, albaitero eta ez dakit zenbait gizon or ibilli dira egunetan, buru-belarri. Nai zutena iritsi zuten azkenean, eta gaitzerdi, itsas-zakurra akabatzena bai zetorren bestela. Abereak maitatzen ikasteak gizona maitatzen erakutsiko zigula uste nuen nik, baiña, bai zera! Madridentz gizon bat erori da, eta autsi du mokor-egurra. Eta eraman dute ospital edo klinika aundi oietako batera. Medikuak ikusi omen zuten, eta ala esan zioten:

– Joan etxera, eta egon zaitez geldi-geldi. Emendik lau illa-betera operatuko zaitugu.

Bere familikoak atera zuten iskanbilla apenas berriketakoa izan zan. Eta orri eskerrak, operatu zuten. Santiago bezperan Madridentz irrati batean entzuna da. Zenbaitentzat, izan ere, zakurrak aiña ere ez du balio gizonak. Toki onera joan dira gure karidadeak!

Orain ainbeste aldrebeskeri
etzan egingo sekula.
Gaur gizonari lagundu ordez
egiten diogu burla.
Esan diteke lagun urkotzak
abereak dauzkagula,
errukia ta maitetasuna
zakurrak jan dizkigula.

Zakur janetan kastatzen dira
millaka milloi pezeta,
eta munduan ainbeste gizon
sabelik ezin beteta.
Iñorengatik ajolarik ez
baldin bagaude aseta,
besteren miñak gu ez kupitzen,
jaunak, ez da berriketa.

Agorraren ogeita bigarren egunera iritsi gera. Ia illabete oporrak bukatu zirala. Nik uste nuen opor kontu oiek onuzkero aaztuta egongo zirala, baiña azkeneko ostikadak eman gabe zeuden oraindik. Opor egunetan kontuak esateko astia izaten da, maixiatzeko ere bai. Eta orduko zenbait berri eta gertaera gerorako kontakizun biurtzen dira. Ala obe, gaiñera. Bestela bizi bearrak berekin duen eguneroko burrukari lotuta ibilli bearko genduke. Oporretan izan diranen berri jakiten ez da ain zailla izaten. Alako egun ederrak igaro ondoren pasatutako guztia bein goan aaztu nai ez izatea ez da arrigarria. Kontuak esateko gogorik aundiena eguzkitan beltz-beltz eginda etortzen diran etxeoandreak izaten dutela uste det. Itz jariorik aundiena aiengan nabaitzen da, eta orregatik iruditzen zait oporrai etekiñik onena etxeoandre oiek ateratzen diotela. Urteroko txangoaldiari esker, gaztetu ederra artzen duten beintzat. Ez dakit, ala ere, beti asmaetzen ote duten. Bein ogeita amar urte bete ezkerro, eguzkitan bezteak zaartu egiten du, edo zaar itxura eman beintzat. Eta azal zuri edo argia duten emakumeak gazteago ematen dute. Orra utsegitoko modua, berriz! Dotoretzeagatik eguzkitan ainbeste berotu artu, eta gaztetu bearrean zaartu, alajaiña?

Ez naiz nere kasa ari izketan. Gai onetan asko dakien italiar emakume batek esana da. Emakume onek dioenez, zaartzen astean ez omen da etsi bear, eta umore onari eutsi bear zaio, nola edo ala. Urteetan aurrera dijoan bezela, emakumezkoa bere buruarekin geiago piatzen da, eta maitagarriago biurtzen da, gaiñera... Baliteke, baiña ez dakit danak berdin pentsatuko duten. Au sinistea bakoitzaren esku utzi bearko degu. Izan ere, gertatzen dana da edadeak ez duela barkatzen. Urteak ez dira alperrik joaten, baiña bere joan bear orrekin mesede baiño kalte geiago egiten dutela uste det. Bateko illea zuritu, besteko zimurak azaldu eta abar.

Zaarrak baiño gazteak estimazio ohea izaten ote duten, ba, alegia... Italian ez dakit nola izango dan, baiña emen ala dirudi beintzat.

Ispilluan egunero
begira egon ezkerro,
jarri liteke bat ero.
Zaar itxura berriak naizta
artu ugari urtero,
ez izan jenioz bero.
Gaztetzerik ez espero,
zimurtzen asita gero.

Ez badegu zimurtu nai
badaude zenbait sendagai,
ez izan geuretzat etsai.
Eguzki asko ez degu ona
eta ez beztu nolana.
Bitaminak artu lasai,
bizi umorez ta alai,
eta sarritan egin jai.

1989ko irailak 29

Denboraldi bat lanean egin duenak noizean bein lanak nola-ko etekiña edo probetxua utzi dion jakin nai izaten du. Ala bear ere, bestela irabazi bearrean galtzea gertatu liteke-eta, eta uraxe izango litzake bere buruari arrika ematea. Bizimoduari ere, lanari bezelaxe, etekiña atera bear zaio. Baiña ez dakit zertan ari geran asko begiratu gabe ez ote geran bizi. Daukagun gaztediarekin beintzat orrelako zerbait gertatzen zaigula uste det.

Joan dan udan zenbat festa eta nolakoak izan diran ikusita, gazteei begira zer esana sortzea ez da arritzeko. Errietan festak antolatu bear diranean, gazteak izaten dute zer egiña. Dirua udalak jarriko du, eta guk lana gazteen esku uzten degu, geiena beintzat. Eta ikusi egin bear da gazteak nola saiatzen diran. Gaupasa bat edo beste eginda puska bat makaltzen dira, baiña urrengo arratsaldean an izango dira berriz ere festak gelditu ez ditezen, lanean. Bere gustoko lana egin bear duenean erantzuten du gaztediak. Bide txar asko daukate aurrean gaurko gazteak, eta oitura narrats asko artu dute. Egia da, baiña ez dakit, ba, erru guztia

gazteena izango ote dan. Goiko jendearen dirua irabazi naiak, agintarien utzikeriak eta gurasoen errespetorik ezak kalte egin dio gaztediari. Bidea galduta edo biderik gabe bezela ikusten da gaurko gaztedia.

Iñoiz baiño gazte geiago dabil gaur ikasketak egiten. Batzuk bere gogoz, baiña asko beste zer egiñik ez daukalako, eta ori da penagarria. Festak antolatzen ainbeste lan egiten duten gazte oiek denbora zertan emana baleukate, zertarako erreztasuna daukaten ikusi ondoren bere gogoko eginkizunetan lanerako gertatzen ari balira, beste ilusio batekin biziko lirake eta ez luteke familietan ematen duten aiña naigabe emango. Baiña ortarako agintariak ere zerbait egin bear luteke ordea. Pakea eman dezaten gazteei nai dutena egiten utzi eta, kaixo motell! Orrek ez du balio.

Joan da gizon bat konfesatzera, eta apaizak:

– Eta, zer moduz gabiltza, ba, zurrutarekin-eta?

– Orretzek ematen dit, ba, lanik asko, jauna. Batzutan geitxo edaten det.

– Baiña ez al dakizu, ba, astoak ere naiko ura edaten duen ean edateari utzi egiten diola?

– Nik ere bai urari, jauna. Baiña ardoarekin ezin ordea ori egin...

Bizi bearrak gazte askori eman arren naiko lanak, ez uste izan biurri eta alperrak dirala danak. Inpernuetan agintaritza badu gaiztoa izanak, mundu oker ta maltzur onetan diru geiena duanak.

Iñoiz izango ote da gauzak zuzenduta ikusterik, eta nai duen garaian lana egin dezaken gazterik? Nai duenak nai duena esan, emen ez dago besterik: gaur eguneko agintariak ez dutela biboterik.

Gaur, urriak 6. Eta biar Amabirjiña Errosariokoaren eguna. Aspaldi onetan aldaketa asko ikusten ari bagera ere, gauza batzuek leenean jarraitzen dute oraindik. Urria eta udazkena alkarrekin izaten ziran leenago, eta baita orain ere. Udako egun luze eta alaietan arro samar ibiltzen gera, baiña udazkenak beti bezelako bildur antzak ekartzen ditu berekin. Udan erdi lotan egon diran ajeak eta kottak laister asiko dira esnatzen. Bateko erreuma dala eta besteko belaun-katilluetako erdoia, aldian bein eztula egiñez mediku eta botikarioei lana emateko ez dator garai txarra. Bizimoduak ere gorputzak bezelaxe izaten du bere osasuna. Eta osasun ori ekonomia da. Diru kontua, alegia. Bizimoduaren ajeak bistara irtetzeko ez dago diru eskasia bezelakorik. Gu bezelakoen parean beti bada zerbait. Eta aurten ekonomia gaixo omen daukagu. Ez dakit enpatxuren bat arrapatuko zuen ala zer, baiña diru geiegi kastatzen degu. Diru gutxirekin gaizki, eta asko kastatzea txarra. Ea zeinek antzematen dion orri.

Kontua da, epetan edo plazoka gauzak erosteari zailtasunak jartzeko asmoa izan bear duela Gobernuak, eta neurri estuak gu bezelakoentzat izango dirala orain ere. Dirudunak ez dute izaten plazoka erosi bearrik, eta pobreak nozitu beariko degula. Ez dago zalantzarik. Kotxe asko erosten da plazoka, eta orri beintzat erasotzeko asmoak dituztela uste det gure agintariak. Kotxea erosten duenak, bear duelako erosiko du, eta epetan erosten badu, dana batera ordaintzeko lain diru ez duelako. Oztoporik aundienak jartzen dituztela ere, dirudunak ez dira lanera bizikletan joango. Zenbaiten ustez, kotxea lujoa besterik ez da. Eta ez dago oiei kotxea lan-tresna biurtu dala buruan sartzerik.

Ez dakit au ekonomia sendatzeko bearrezko izango dan, baiña leen larri samar dabillena geiago estutzeko lain bada beintzat. Auxe da beerakoa daukanari purga ematea. Ekonomiak eko-

nomi, guk zaindu dezagun osasuna. Gripearren kontrako txertua artzeko garaia ez da urruti izango, eta sendagillleari ikustalditxo bat egin, badaezpada. Ea negua pasatzeko gertatzen geran, osasuna izaten bada aterako gera-eta.

Nola probrerik izan ezean
ez dagoen aberatsik,
gutxi dutenen kontra ez artu
ain erabaki narratsik.
Asko kastatzen dutela eta
ez asmatu emen saltsik,
naiko dirua dutenak ere
ez dute falta akatsik.

Saiatu eta ere ez gera
nai bezin gora igoko.
Baiña pixka bat zapaldu arren
ez degu errez lur joko.
Eta lepotik elduta ere
nola ez geran itoko,
al degun arte ondo bizi ta
ez utzi dana geroko.

1989ko urriak 13

Batere uste ez degula eta asko oartu gabe dijoakigu aurtengo urria ere. Egoaizeak daramakian orbela bezela dijoa gure denbora. Asko balio duten egunetan gaude ordea, eta esatea komeni dan gauza bat edo beste esan gabe ez nioke denborari joaten utzi nai.

Oraintxe gaude eize garai bete-betean. Eta senar-emazte askoren artean izango da zer esana. Baita ezer esan nai eza ere. Azkena esan bearrekoa leenbizi esandakoak, eta esan bearrean isildutakoak, danetakoak izango dira egun auetan. Izan ere, urte guztian alako gizon jatorrak diran asko eta asko zearo zelebretzen dira eizea dala eta ez dala. Bateko eperrak eta besteko usoak, zenbaitekin ez dago karrera ateratzerik. Jaia bada eta ezpada, ipurdia jaso eta eizera joaten da senarra, eta emazteak etxean gelditu bear alargun baten moduan. Orretzek ateratzen ditu etxekoandre asko bere onetik. Baiña nik ez dakit zergatik, ordea. Senarra eiztaria izatea mesede izugarria da emaztearentzat. Ez al

digute, ba, esaten zerua pazientziarekin irabazten dala? Ez dakit nik eiztarien emazteak baiño errezago zerua zeintzuk irabazi dezaketen. Pazientzia artzeko orrelako aukerarik ez du nai duen guztiak izaten. Eta ala ere, senarra eizera joan dala eta or jarriko da kopeta illuna eta ezpaiñak zimurtuta. Ikusi zerua irabazteko nolako erreztasunak ematen dizkion senarrak eta aserratu, alajaiña! Zeruko atea oso estua omen da, eta ain leku estuan pasatzen lagun egiteak ez al du balio?

Senarrari eskerrak emanez ederki bizi besterik ez, baiña zenbait konformatzen zailla izan ordea. Eskerrak senar geienak bizkar zabal samarra izaten duten. Bestela makiña bat gizon gizarajok triste bizi bearko luke. Baiña nik badakit ordea etxeoandreak ez dutela ori gaitzez egiten. Etxeko aginpideari eutsiko bazaio itxurak ere egin bearra dago, eta zer esango degu? Emazteak badaki denborarekin senarra juizioan sartuko dala, eta asarre alditxoeren ondoren adiskidetzeak nolakoak izaten diran ere bai...

Udazkena ain garai estua
eiztariantzat izanda,
ez ditzagula mindu sekula
arrazoi txarrak emanda.
Senar eiztari bati ez, arren,
uskeriz eman demanda..
Askoz obe da mendira bialdu
muxu txiki bat emanda.

Eiztari batek ezer askorik
ez du ekartzen etxera.
Baiña eizera joatea ez da
artaraiñoako galera.
Traba geiegi ez ematea
obe da, alde batera.
Eta pakean joan dedilla
aize prexkoa artzera.

1989ko urriak 20

Udazken alde anek olerkari edo poeta eta orrelakoentzat oso garai ona izan bear du. Ostoak lurrera erortzen ikusteak izugarriko misterioa du aientzat. Egoaizeak ere asko argitzen ditu,

eta ez daukate suerte txarra. Beste batzuk komeririk asko izaten dute egoaziearen etorreran. Gutxi falta dutenai burua zearo arintzeko, ez dakit egoaizea bezelakorik izango ote dan. Burutik oso sano-sanoak ez diranei akatsa nun daukaten nabarmentzeko ere ez da txarra egoaizea.

Euskalerrian urteko sasoirik onena udazkena dala esan oi da, eta alaxe izango da gaiñera. Orain ez dago garai batean bezela gaztaiña biltzen atzaparrak minberatu bearrik, eta babarruna pillatzeko suertea izaten dutenak poltsak ederki berotzen dituzte. Garai batean ez genduen asko pentsatzen emengo babarrunak onelako estimazioa izango zuenik. Izan dedilla babarruna, geiena dala ere ez da asko merkatuko-eta. Babarruna biltzen duenak dirua ere bilduko du, seguru asko.

Neguaeren ataria dalarik, udazkenak badu bere alderantzia ere. Baiña ez degu dagoeneko otzak kukilduta jarri bear. Bein urteetan aurrera asi ezkerro, gorputzari eta, batez ere, buruari zertan edo artan lana eginerazi bear zaio, bestela erdoitu egiten da-eta. Baserrietan ez da orren bildur aundirik egongo, baiña kalean ere badaude urtez osatuak. Eta orrelakoak bere buruei eginkizunen bat ezarri bear. Burua erne edukitzeko irakurtzea oso ona dala esaten dute. Badago, ba, oraintxe zer irakurria. Bateko egunkari, besteko aldizkari edo errebista eta abar, or daude danak aukeran. Errebista oietako batzuk baditeke berde samarrak izatea, eta poliki ibilli. Noizean bein parre pixka bat egitea ona da baiña pekaturik ez egin beintzat, eta ez alpertu.

Baserriko maiorazko batek andregaia egin omen zuen orratik noizbait. Eta ezagutu zuenean, ala esan omen zion amak:

– Mutil, mutil. Orrekin ezkondu bear al dek? Ez al zegok ori baiño politagorik?

– Ai, ama, ama: ez al dakizu esaera zaarra? “Nolako egurra alako ezpala”. Eta ni ere aitaren semea izan. Zer nai dezu, ba?

Sendagilleak ondo dakite
zer datorkigun zartzera:
nai arren gora ezin igo ta
asten gerala gainbera.
Alperkeriak jotzen bagaitu
burutik arintzen gera.
Arras erdoitu gerala eta
bota gabe bazterrera,
emaztearen pintxe jartzea
obe da alde batera
obe da alde batera.

Alperkeria degun bezela
griña txar guzien labe,
menpetasuna izan diteke
bizitz sano baten abe.
Eta uxatu gure ondotik
petralkeri ta naigabe.
Gorputza asko beartu gabe
bizi xuabe-xuabe,
agindutako lanak egiñez
baiña izarditu gabe
baiña izarditu gabe.

1989ko urriak 27

Gu bizi geran lur bedeinkatu oni Euskalerria esaten zitzaion leenago. Gero, Euskadi. Eta orain Komunitate Autonomoa. Beste gauza asko bezela bataiatzailleak ere aldatzen ari dira, nunbait. Eta gu ere ezin egongo gera beti leenean, bestela *antigualak* gerala esango digute-eta. Baserrietan ere berebiziko aldaketak ikusten ari gera aspaldi onetan, eta poz ematen duten aldaketak, gaiñera. Garai batean kaletar guztiak baserritarrak nundik zirikatuko ibiltzen ziran. Izaten ziran baserritarren bizkarretik parre egin nai izaten zutenak ere. Baiña joera onek buelta artu du orain, eta ez dakit gauzak azpikoz gora jartzen ez ote diran ari. Baserritarrak ez daukate gaur iñoren parean pasatzeko lotsarik. Ez dakit gaiñera batek baiño geiagok baserritarren inbiriz ez ote duten egon bearko. Leenago parre punttua egiñez begiratzen genien baserri oietako asko ikastola edo hotel bihurturik daude gaur.

Oraindik denbora asko ez dala baserritar batekin itzaspertu bat egiteko zoria izan nuen. Eta etzuen ark garai bateko baserritarrak aiña kotta kontatzen. Euskera ikasi nai zuen mutil gazte bat zeuka-

la etxean esan zidan. Eta illean 15.000 pezeta ematen omen dio mutillak. Eta Eusko Jaurlaritzak, 30.000 pezeta. Beste bi mutil ere eduki omen ditu aurtengo udan, eta pozik zegoen gure gizona. Diru orrekin aberastu ez da aberastuko, baiña berak esaten zuena: irulau lagun dauden lekuan platera bat geiago jartzea ez dala asko geiago kostatzen. Euskera ikasi nai duten oiek uda-garaian edo oporetakoan etortzen dira, geienbat. Eta orrelakoak etxean artzeko baserriak baldintza edo kondizio batzuk bete bearra dauka: garbitasun zerbitzu egokiak eta bi oeko logela bat, beintzat, kanpotar oien esku jarri bearke du. Baiña gaur bai al dago dutxarrik gabeko baserriarik, esate baterako? Ortarako obraren bat egin bear izan ezkerro, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza ematen diote gaiñera. Orra baserriarrentzat leenago parrexiri egiten zuten aien kontura etxea txukuntzeko eta dirua irabazteko modua.

Esaten nuen nik baserriarrei iñork adarra joko etzion denbora etorri bear zuela. Iritsi ez bada ere ez da urruti oraintxe. Poza artzen det.

Baserri zarrak berrituzeko nola ez izan ardura?
Aukera orri galtzen uztea ez da izango itxura.
Etxeak hotel bihurturikan Aldundiaren kontura, baserriarrek biziko dira hoteleroen modura.

Gaur baserriak ikusten dira geroz ta apaiñagoak.
Oiek ainbeste erosotasun etzuten, noski, lengoak.
Jauregi edo palazioak dirudite oraingoak.
Hotel Maria Cristina baiño askozaz dotoregoak.

1989ko azaroak 3

Santu guztien eguna pasatu zitzaigun, eta orain animen egunetan egongo gera, leengo oitura zaar aiek balio baldin

bazuten beintzat. Garai bateko argizaiak, errespontsoak eta txanponak aaztu ziran, baiña animak oraindik iraungo al du, eta ezin aaztuko gera. Meza nagusi ondoren makiña bat aitagure presaka asko errezatzen zan garai batean. Eta aitagure bakoitzeko txanpona bota bear gaiñera. Ez dago oraintxe etxe-koandre guztiei ori egiteko esan besterik. Baiña txanponak ematea baiño aspergarriago egingo litzaike, seguru asko, meza nagusira joatea. Meza bukatzean aitagureak esaten elizan gelditzea zer esanik ez. Emakumeentzat orrelako propiña pranko bazan izan ere garai batean. Leenago animak noiznai azaltzen omen ziran, batez ere gauetan. Izugarrizko sustoak ematen zituzten gaiñera, eta orrelakorik egin etzezat aterako ziran errespontsoak, bere aitagure, limosna eta guzti. Nik ez dakit alako presakan aitagureak zenbateraiño debozioarekin errezatuko ziran, baiña txanponak etziran danentzat gaizki etorriko, eta tira.

Mutillak ez, noski, baiña oraingo neskatxak ez dute leengoak aiña bildur gauez etxetik irtetzeko. Egunez ondo ematen dutenak eta polit askoak badaude, baiña zorioneko moda: egunez lo egin eta gauean parranda. Ala ere gauean etxean egon ezin ori ez da danerako kalte. Bertsolariak beintzat irabazian atera dira. Erriko festatan-eta gauez bakarrik kantatzen zutenean, ia-ia entzulerik gabe geldituan egon ziran. Bertso-jaialdiak gauez eginen asi ziran ordea, eta egundoko estimazioa daukate orain. Edozein zine, kiroldegi edo pelotalekutan jartzen dirala ere, gazte jendez beteta ikusten dira. Gazteak elizara eramateko ere bertso-saioak gauez elizan jartzea ona izango litzakela pentsatuaz egoten naiz askotan. Deskuído santuan elizara joateko moda sortuko balitz, an lirake gazte guztiak, amilka. Uraxe izango litzake polita. Eta ez det uste gazteentzat kaltegarri izango litzakeenik. Elizan formal antzean egonaldi bat egin arren andik goizaldera arte edozertarako astia legoke.

Nola denborak ala gizonak
desberdiñak geran danak,
orain egunez lotsatzen dira
gauzez lotsatzen ziranak.
Bizi luzea ez du izango
aldatuz ez dijoanak...
Baiña neurririk ezin artu ta
orrekin dauzkagu lanak.

Ez da on eta gaztediari
dibertsiorik ez kendu.
Baiña gorputza gaizki zaintzeak
bitza mikaztutzen du.
Animarentzat onak ez diran
jolasetatik aldendu,
anima ondo zaintzen duenak
gorputza ere zaintzen du.

1989ko azaroak 10

Kastillanoak esaten dutenez “zerri guztiei iristen zaie bere San Martin”. San Martin inguru au zerria iltzeko garai ona dala esan naiko dute orrekin. Eta biar da, ba, San Martin egun ori. Ez da asko falta oraintxe. Urretxuarrak ez dira aaztuta egongo, eta zegamarrak ere ez, seguru asko. Errezildarrak ere oso maite izan bear dute santu ori, eta bereak egin naiko dituzte. Burua leengo lepotik baldin badaukate, ez da aien artean umorerik faltako.

Zerria iltzeko garai ona da au, baiña inguru auetako ardizaarrak ere istillu gorri daukate. Batzuek buzkantzak jan bear dituztela esango dute eta beste batzuek, mondejuak. Kontua da makiña bat ardizaarri naiko gaitaiña jatea zer dan aaztu bear zaiola. Orain arte larre onean eta naikoa ibilli badira, akabo aien egun ederrak. Emendik aurrera mondejuak eta ardikia dauzkatentzat izango dira egon onak. Auxe ere bada, ba, pentsatzen jarri ezkerro. Batzuk biziko badira beste batzuk il bear. Ala ere il bear dutenak ardizaarrak bakarrik badira, gaitzerdi. Atzetik datozenai traba egiten asten geranean, eta beste batzuk guk bein emendik alde egingo bagendu, sikira, ederki biziko lirakela pentsatzen asten diranean, orduan izaten dira kontuak eta komeriak. Munduaren edo mundukoen mutur zorrotza nolakoa dan orduan

ikusten da. Ez dago zenbait familiara begiratu besterik. Karidadea norberarengandik asten dala esan zuena etzan bere buruaren etsaia.

Mutil gazte bat, ama-alabak bakarrik bizi ziran baserri batera joan omen zan morroi. Baserri on samarra izan, eta ama zaarra iltzen zanean baserriaren jabe bera egingo ote zan, ba, alegia. Pikardiren bat eginda edo, zirriki-zarraka alabarekin ezkontzeko modua egin zuen beintzat. Baserriaren erdia bereganatu izango zuela eta pozik omen zan gure mutilla. Alaba engaiñatuko zuen, baiña ama ez ordea. Eta amagiarrebak, edo orain askok esaten duten bezela, *la suegrak*, ez omen zion bizitzen uzten. Arre eta makilla, beti suiari lanen bat agintzen ari zan emakumea. Alako batean il zan atso ori, orratik! Eta andik aurrera bapo bizi bear zuela eta pozik zan. Baiña etzaio, ba, urrena andrea nagusi jarri!?

– Ea, Bixente. Gaztaiña biltzera joan bear degu.

Leen ere morkotsik asko bazeukala ark etxean, baiña joan da basora andrearekin batera. An ari dirala or nun asten dan euria eta kaskabarra. Ura ekaitza eta ango trumoi eta tximistak! Emaztea bildurtu da zearo. Azken juizioa edo orrelakoren bat izango zala, eta

– Bixente! Atoz nere ondora. Ementxe alkarren ondoan Jaungoikoaren grazian il eta biok zerura joar bear degu-eta.

– Ez, Kattalin, ez. Zu joan zerura nai badezu. Baiña nerekin ez kontatu.

Bagerala ta ez gerala ta
orrenbeste berriketa!
Dana guretzat nai izatea:
ori da gure kasketa.
Ez dakit iñoiz ikusko geran
osatu eta aseta,
ingurukoak noiz aldegingo
egon eziñik gaude ta.

Esku zabala izatea da
zorion beraren giltza.
Baiña gerekoi utsak gera ta
ortan dago gure gaitza.
Nola guretzat bakarrik ez dan
mundu ontako emaitza,
danak trabatik kendu naiean
alper samarrik gabiltza.

Garai batean bizikleta baten jabe zana etzan edozein. Batetik bestera ibiltzeko erreztasuna maite izaten degu, eta bizikletak ematen zuen ori, orduan. Bizikleta erosteko ere dirua bear izaten zan ordea, eta orrekin ibiltzen giñan gaizki. Lagunen batek pixka bat ibiltzeko ere bizikleta ematen bazigun ez giñan asarre izaten.

Gerra eta gaiñontzekoak noizbait pasatu ziran, eta ondorenean lan pixka bat sortzen asi zanean, bizikletaren jabe egitea zerbait erreztu zan. Lanera joatea etzan ain aldapa gora egiten. Ezta eskolara joatea ere. Bestela gogorik etzutenak ere asi ziran eskolara joaten, bizikletan ibiltzeagatik besterik ezpazan. Mandatuak egin nai ezik ere etzan izaten bizikleta izan ezkeru. Gero, bizikletak ugaltu ziranean, motordun bizikletak edo motozikletak azaldu ziran. Lanera joateko bear zutenak beintzat iritsi ziran tresna aien jabe izatera, eta mesede ederra izan zuten.

Urteak joan eta urteak etorri, kotxearen jabe egin gera, eta nai duen guztiak daukala dirudi. Baiña, orain dira komeriak, eta aurki gutxiago ez dira izango. Kotxea ez da motozikleta bezela, eta leen naiko lekua genduenak ia ezin gera iñun kabitu. Kamiñoak estuegi gelditu zaizkigu, kaleak zer esanik ez. Eta ain tresna bizkorak eskuetan eta lanera ordurako iritsi ezin, askotan. Ez dakit aurrerapenak atzerapena ez ote digun ekarri. Atzerapena, edo komeri geiago beintzat. Lantokira kotxean joateko bi ordu eta geiago bear omen zituen Unibertsidadeko katedratiko batek. Alako batean konturatu zan motozikletak edozein zirriztutatik pasatu eta aurrea artzen ziotela. Erosi du motozikleta eta leen bidean bear zituen bi orduak erakutsi bear zuena ondo ausnartzen pasatzen omen ditu, eta ikasleak pozak zoratzen dauzka.

Esan nion, ba, au Donostiako nere lagun bati, eta erosi du onek ere motozikleta. Goizean oean egoteko bi ordu geiago bazeuzkala eta pozik zegoen gizona. Oraindik denbora asko ez

dala galdetu nion, ea ba zer moduz konpontzen zan, edo zer moduz bizi zan, eta:

– Ago isillik, mutill –erantzun zidan–. Goizean oean bi ordu ederrak dituk, baiña ogei illabete besterik ez dek motozikleta erosi nuela, eta bi neska txiki ekarri zizkidak emazteak.

Oraingo mundu nastu onetan
bizi gera gu ain zakar.
Zergatik ez dakigula ere
ibilli bear, ba, azkar.
Beti zalapart batean eta
ezin arrapatu alkar,
oraiñaldian aurrerapenak
atzerapena al dakar?

Jakintsu danak ala zioten:
aur gutxi jaiotzen zala.
Eta akabo gure arraza
milagroren bat ez dala.
Nik pentsatzen det ikusirikan
oraingo jende makala,
milagro ori motozikletak
egin bearuko duala.

1989ko azaroak 24

Segurako Egoitza edo Residentzian baditut nik aspaldiko ezagun eta lagun zaarrak. Batzuk zeraindarrak dira, ni bezelaxe. Beste batzuk beste erri batzuetakoak, baiña danak dauzkagu gogoan, nola nik ala Segurako Irratiak. Eta zer moduz zabiltzaten galdetu ezker, badakit zer erantzungo zenduket, gutxi gorabehera: ondo zabiltzatela. Jaten naikoa, lana egin bearrik ez, leenago ere naikoa egiñak zerate-eta, otz bildurrik ere ez, kalefazio eta guzti epelean goxo-goxo. Orain baiño egun txarragoak pasatuko zenituzten zuen denboran. Bein urte batzuk ezker ango edo emengo aje antxa izaten da, baiña nekerik ez daukazutela pentsatu eta segi aurrera. Aldian bein botikaren bat edo beste artu, eta umorerik ez galdu beintzat. Urte asko dauzkagula eta orrelako pentsamentuak kendu burutik, bestela gureak egin zuen-eta. Tristurari ez lekurik egin. Uxatu “joan emendik!”, esanda.

Ona emen pixka bat zaartuta gero nola kantatzen zuen Txirrita bertsolariak:

“Irurogeita amar bat urte dauzkat bizkarrian.

Kargamenturik txarrena au da: ezin utzi baztarrian.

Anka batetik kojo nabil, reuma daukat iztarrian.

Baiña badauzkat laguntzailleak. Ez nago modu txarrian”.

Zuek ere badauzkazute laguntzailleak Jaungoikoari esker-
rrak. Or daukazuten monjatxoak eta oiekin batera lanean saia-
tzen diranak zuengatik egiten dutena ez dago diruz ordaintzerik.
Oien esanak egin itzazute zuzen. Monjan esanak zintzo egiten
dituena ez da ain gaizki ibilliko. Denbora errez pasatzeko lagu-
nekin jokuan pixka bat egitea ere ona izaten da. Zuek ez dakit
egiten dezuten, baiña punttuan edo briskan edo orrela egiten
badezute, dirurik ez jokatu, eta alkarrekin ez asarretu beintzat.
Ondo bizi beste lanik ez daukazutela jenio txartuta eta petralduta
jartzea azkenekoa izango litzake gero! Iñoren inbiririk ere ez
izan. Inbiriz dagoenak bere burua eta ingurukoak ernegatuaraztea
besterik ez du egiten. Lasai bizi beste lanik ez daukazute, eta
ortantxe saiatu. Gaiñontzeko guztiak berriketak dira-eta. Meza
entzuteko ere komenentzi ederra edukiko dezute or. Ez dizuet
esan nai beti elizan sartuta egoteko, baiña eutsi fedeari eta gero-
rako itxaropena ez galdu. Kanpotik berriketan ari geranon alde
ere errezatu apurtxo bat, premia badaukagu-eta.

Txirrita ere, bertsolari umoretsua izan arren, elizara joaten
zan. Baita sermoiak entzun ere. Orain ez da izaten, baiña badaki-
zute leenago mixioak nola izaten ziran, eta mixioak ematera etor-
tzen ziran fraille aiek nolako sermoi zorrotzak egiten zituzten.
Gu biurri samarrak giñalako izango zan. Txirrita ere joaten zan
mixioetara, ikusten danez. Orra fraille mixiolarien esanak nola
gogoan artzen zituen:

“Ministro oiek izandu dira predikadore sotillak.
Lendabiziko gizonengatik izugarrizko bataillak
Geroagoan artu dituzte neskatzak eta mutillak.
Azkenerako astindu ziran atsoen pattar botellak.

Azaroa badijoa, eta laister Eguberri. Ea, ba, orrelaxe epel-epelian egun alai batzuk pasatzeko modua egiten degun. Beste au ere esan bear dizuet, ia aaztu zitzaindan baiña: il onen azkenean diru apurtxo bat ere eman izango dizute. Isil-poltsarako ez da gaizki etorriko, noizean bein kalera joan eta kutiziren bat kunplitzeko. Baiña formal ibilli bear degu. Narrats samar dabillanak estimazio txarra izaten baitu.

1989ko abenduak 1

Bizilagun bat badegu gurekin iñoiz aazten ez dana. Ain da lagun leiala! Leenxeago edo geroxeago, urtero-urtero egiten digu bisita. Gure lagun ori, otza da. Laguna baiño geiago, etsaia. Baiña etsairik aundienari ere bi kandelarekin argi egin bear omen zaio, eta *laguna* esango diogu. Bat edo bestea esan, berak nai duena egingo du, gaiñera. Eta zertarako iñorekin gaizki jarri? Edozer gauzari aitzaki emateko ez degu guk ere askoren bearrik izaten. Udan eguzkia etortzen asi orduko beroarekin kejatzen gera. Udazkena etortzen da, eta otza etorri baiño leen or gera bildurrez airean negurik ez litzakeela bear esanez. Baiña danetakoak bear dira, ala ere. Eta badira neguaren etorrera pozik ikusten dutenak. Modako erropak janzteko-eta uda ez da ain garai egokia izaten. Neguan jantzi premi geiago izaten da. Eta etxetik irtetzean dotore azaltzeko udan baiño aukera geiago izaten da. Alderdi on geiago ere baditu neguak. Garai onetan eskuak otzak edukitzea ez da arritzeko. Eta esku otzak maitasun beroa esan nai omen dute. Zenbaiten ustez, neguan neska

bati esku ematea naikoa da neska ori gure alde jartzeko. “Ze esku otzak dauzkazun”, esan eta orra andregai billatzeko erreztasuna nundik etorri litekeen. Mutillaren esku otzak bere eskuen artean berotzen dituzten neskatxak ere badira. Otza ez da gaizki etorriko, beraz, biotz biguneko neskatxak zeintzuk diran jakiteko. Indartsu itxurak egiten dituzten mutillak izaten dira. Orrelako plantak egitea baiño obe luteke otzak dituen alderdi onei eltzen ikasiko balute. Pentsatzeko ere otza askoz ohea omen da beroa baiño. Andregai billa neskatxengana nola inguratu ez dakiten mutillentzat ona izango da. Bat baiño geiago ikusi izan dira isilpean maite duten neskatxaren bati begira, izketan nundik asi ez dakitela. Nai, baiña ezin asmatu! Orrelakoak ez daukate negua etorri arte itxaron besterik. Otzak asten diran bezin azkar neskatxarengana joan eta luzatu eskua, zer moduz dagoen galdetuz. Neskatxak nola erantzuten duen, or dago gorabeera guztia. Baiña negua etortzean ibilli ditezela azkar, norberak aurrea artuz.

Berriro ere emen
degu negu otza.
Ez da izango, noski,
guk nai bezin motza.
Berekin ditu orrek
elur ta izotza,
orrek ez digu asko
poztutzen biotza.

Asieratik gogor
egiten bazaio,
ez da izango berak
uste bezin iaio.
Naiz gure kontra egin
makiña bat saio
guri irabaztea
kosta bear zaio.

19989ko abenduak 8

Gaur egun aundia degu, eta ezin utziko degu aipatu gabe: Ama Birjiña sortzez garbiaren eguna, ain zuzen. Kristau generenok, Ama Birjiña pekaturik gabe sortu zala sinistra beartuak

gaude. Aita Santu Pio bederatzigarrenak ala erabaki zuen orain dala 135 urte. Eta danak etzuten ontzat eman erabaki ura. Aita Santuaren esanetara jarri nai etzutelako denborarekin Eliza Katolikotik aldenduak izan ziran. Orain protesta egiten degula baiña leen ere baziran orretan zekitenak. Protestanteak ez dira oraingoak.

Dana dala, Ama Birjiña sortzez garbia dala sinistearekin ez diogu iñori kalterik egiten, eta daukagun fede apurrari eustea ez al degu onena izango? Ez nago ziur esateko, baiña amaren eguna ere gaurko egunez ospatu izan da. Ainbeste jira-bira ematen dituen mundu koskor oni noiz zer dan antzematen ez da errez. Ama daukazutenak ospatu ezazute bere eguna maitasun aundiz. Amak ori eta geiago merezi du. Galtzen degunean koturatzen gera ama zer dan. Ama izatera iritsi diran guztiak gizarte osoaren eskerra eta errespetoa merezi dute. Eta gaur edo biar ama izango diranak, garaia datorrenean bere eginbearra betetzeko erreztasun guztiak bear lituzkete. Bear bezelako ama batek familian nolako itzala duen eta zenbat on egin dezaken ez dago neurtzerik eta esaterik. Famili jatorrak dauden erriak jatorrak izaten dira. Famili formal batean azi eta ezi diran pertsonak nunai ere ezagun izaten dute. Biraoa eta lotsagabekeria dariotela dabiltzanak baiño obeto ikusiak izango dira noranai joaten dirala ere.

Umeak azitzeko amaren bearra zenbateraiñokoa dan ez dago nik esan bearrik. Jaio eta segituan amak gutxienez ogei minutuan bere besoen artean edukitzen dituen aurrak, negar gutxiago egiten omen dute, obeto lo egin eta geiago jan ere bai. Au ez da nik asmatua. Osasunerako Munduko erakundeak, *Organización Mundial de la Salud* deritzan erakundeak baizik. Jaio ondorengo leen 30 minutuak iñork uste ez bezelako zer ikusia dute gizakiaren bizitzarako. Ortik pentsatu ama izatea zer dan.

Ama Birjiñaren egun onetan, artu itzazue nere zorionik aundienak ama guztiak.

Mundu ontatik ama joatean
gelditu oi gera triste.
Baiña ordutik guri bi amak
lagun egiten digute.
Amak Birjiñak maite bagaitu
munduko amak ainbeste,
danok bi ama txit maitagarri
ez ditugunik ez uste.

Zeruko Ama, ez ezaiguzu
alde egin ingurutik.
Zure seme ta alaba gera,
ta ar gaitzazu eskutik.
Alkar maitatzen saia gaitezen
bakoitza bere lekutik,
mundu ontako ama guztiak
zaindu itzatzu zerutik.

1989ko abenduak 15

Jan-edanaren zalerik iñor bada, euskaldunak gera. Fama ala daukagu, eta ondo irabazita gaiñera. Guretzat ez da ondo osatutako mai bat tartean ez duen festarik. Festarik geienak udan izaten dira, oporrak ere bai. Aitzaki ederra jan eta edan bapo egiteko. Gu ez gera bereala gosezko kolikoak emanda ilko. Eta, zer gertatzen zaigu? Batzuk soiñekotan kabitu ezinda, eta gonak estuegi eginda sartzen dirala udazkenera. Baiña galtzadunak ere izaten dira naiko baldartutakoak. Gerrondoa bapo loditutakoak eta gerrikoa tripa barrenean lotuta erabiltzen duten oietako asko ikusten da udaren amaieran.

Udazkena garai ona da rejimenaren bidez edo, nola edo ala, meetu eta flakatzeko asmo sendoa artzeko. Udazkenean kiroldegira joaten asten diran asko izaten dira jmnasia eta igerian egitea ona dala-eta. Leenengotik beintzat izaten dute nekatu bearra eta izardia atera bearra. Udazkena joaten da ordea, eta gero negua etortzen. Etxetik irtetzeko gogo aundirik ez eta akabo gure jmnasia egin bearrak eta joan-etorriak.

Abendua izaten da berriz ortik onerakoa. Bateko Gabonak eta besteko Eguberri, rejimena urte berrietatik aurrera egingo degula eta, altza porru! Bizi ere egin bear da, eta segi aurrera

lantuak eta kottak datoren urterako utzita. Beti gure onaren billa dabiltzanak ere badira, ordea. Eta oiei eskerrak. Osasuna nola zaindu esaten diguten oiek, gorputza arin eta lirain gorde nai dutenentzat izugarri rejimen alaia asmatu dute. Jaki goxoak uzteak eta goseak egoteak bezelako tristurarik ematen ez duena, gaiñera. Alperrik dauzkagun koipeak botatzeko eta junturatako erdoia kentzeko ez omen da dantzan egitea bezelakorik. Pastel bat edo besterekin kafesnea edo txokolatea artzeari utzi edo dantzaldiak egin. Badago alde ederra! Datozkigun egunetako postre gozoak, usai egin eta uztea baiño dantza pixka bat egitea obe izango da, orratik! Baiña ez gozozaleentzat bakarrik. Gerri ingurua ondo lodituta daukaten tripazaieneztat ere bai.

Onelako egunetan kopatxo bat edo beste pozik artu oi da. Danak utzi ezkeru tristura seguru dago, eta askoz ohea ez dana: jenio txarra ere bai. Batzuk ipurdi aundi samarrak dauzkatelako eta besteak gerrondo lodia daukagulako, ezin asarretuko gera. Kasetteren bat egongo da etxean. Ipiñi ura martxan eta arin-arin eta fandango bat edo beste dantzatu. Eta sueltoan aspertzean, eldu alkarri gerri-gerritik, oera joateko gogoa egin arte.

Pazientzirik ez galdu beintzat zerbait flakatu eziñik.

Asmatu duten botikak ez du beste bat bere berdiñik.

Olio gabe ez jan geiago sekula belar berderik, koipe alperrak kendu ditezke dantzan pixka bat egiñik.

Nik itxaropen aundiak dauzkat botika berri orrekin.

Aurki ez dala iñor ikusko zilbor aundigarekin.

Itsusi eman nai ez duenak gona ipurtestuekin, bide bi dauzka: goseak egon edo sarri dantzan egin.

Egun batzuk etorriko badira, beste batzuk joan egin bear. Abenduko egunak badijoaz, eta laister ditugu Gabonak. Egun oien usai gozoa artzen asiak gaude ia. Gure mundu onetan gauza asko aldatu dira, baiña garai bateko Gabonetarako izaten zan ilusio ark irauten du oraindik ere. Egun auetan izango da kaleak zeñnek alaitu. Ikastoletako aurrak ari dira orretarako prestatzen. Aurtxo oiek eta oieri erakusteko arreta daukaten andereiño eta irakasleak gure eskerrak ondo irabazita dauzkate, nik uste.

Munduari begira jarri ezkerro, ez du ematen Gabon alairik izan ditekeenik. Bazter guztietan burruka besterik ez da ikusten. Eta iñora joan gabe, etxean ere badaukagu orretatik naikoa. Alkar ikusi eziña, bata besteagatik gaizki esan bearra, inbiria ere pixka bat bai, eta emen gabiltza santuak eta onak gu bakarrik generalakoan. *Aintza Jaungoikoari* kantatu zuten aingeruak Belenen. Zenbaiti ez die ezer askorik esango itz oiek. Sinismen gutxi izan arren, iñori gaitzik egiterik nai ez dutenak badira. Baita premian dagoenari laguntzen diotenak ere. Ezin esango degu oiek *Jaungoikoari* aintzarik ematen ez diotenik.

Pakea lurrean. Badago premia. Baiña pakea eguneroko bizi-tzan geuk sortu bear degun ondasuna da. Guri pakean uztea nai badegu, geuk ere pakean utzi bear diegu besteei. Alkarrenganako errespetotik etortzen da pakea. Ez iñork erregalatuta. Gure aurtxoak Gabonetan kantatzeko prestatzen diran bezelaxe, guk ere egun auetan gizon bezela portatzeko ariketak egiten edo ensaiatzen asi bear genduke. Besteak baiño geiago geran usteak eta orrelako likiskeriak utzi, eta pakean eta lasai bizitzen alegindu. Buruko min xaxtar bat naikoa degu plot eginda gelditzeko, eta denak menderatzeko lain bagerala uste degu. Beti besteren pekatuak konfesatzen, geu santuak bagaña bezela...

Famili guztia bilduta ospatzen dan Gabon gaua zoriontsua izaten da. Gazteak pixka bat irtetzea ondo dago, naiz Gabon izan. Baiña aita eta ama zai aspertu baiña leen etxeratu. Amari afaria prantatzen laguntzea ere ez litzake gaizki egongo.

Gabon eta Eguberri zoriontsuak opa dizkizuet.

Laister gera Gabonetan,
egunik gozoenetan;
geientsuenak aurtxo biurtu
oi geran egunetan.
Maitatu naia benetan
bada gure animetan,
zer zorionak pakezaleak
diran gizonetan.

Famili dana etxera
inguratutzeko era
izaten bada, zalantzik gabe
zoriontsu gera.
Orretarako aukera
izanik gure naiera,
lortu liteke joko bagendu
guztiok pakera.

Jesus aurtxoa, mundutik
premi estuen gertutik
eske gaude ta ez aldendu zu
gure ingurutik.
Zaindu gaitzazu zerutik,
ez utzi zure eskutik.
Urteak zear Euskalerriak
iraun dezan zutik.

1989.12.28: inuzente eguna

Uste ez dedala irrati onetara etorri bearra izan det gaur. Ez nuen orrelakorik pentsatzen, baiña onelakoxe gauzak gertatzen dira gutxien uste danean, izan ere.

Izugarrizko okerrak gertatu dira bart gauean. Bat naikoa ez, eta bi gertatu ere. Eta oker oiek zuzentzeko laguntasunaren eske natorkizue.

Goizean jeiki eta leiotik begiratu dedanean, Segurako Irrati onen antena aizeak oker-oker egin eta ia erorian dagoela ikusi det. Antena Legazpiko Aizeleku mendian dago, eta gure etxeko leiotik ederki ikusten da. Baiña gaur ez dago oso ederki. Zearo okertuta eta lurrera erortzeko zorian baizik.

Ori naikoa ez dala, Segurako mendi punta batean dagoen Santa Barbarako ermitari teillatua erori zaio, berriz. Eta paretak ere eroriko zaizkio azkar apuntalaten ez badira.

Estuasunetan ezagutzen dira lagunak, eta ni ziur nago Santa Barbarari teillatua jartzeko eta Segurako Irrati onen antena jasotzeko lagunak izango ditugula. Orretarako, al dezuten azkarrena Segurako plazara etorri zaitezte. Zuek etortzen zeratenerako an egongo da helikoptero bat zai, batzuk Aizelekura eta besteak Santa Barbara mendira eramateko. Ez dezute erremintarik eta ezer ekarri bearrik. Izan ere, bear diran traste guztiak eramanda daude bi mendietara. Gizaindarra bakarrik bear degu oraingoz.

Eta berealaxe egingo ditugu egin bearrekoak. Eta gero, lanak amaitzean, helikopteroan itzuliko gera menditik plazaraiño. Ardoa eta ogia, eta sardiña zaarrak partituko dira Segurako Aiuntamentuan.

Al dezuten danak etorri zaitezte, bada. Gero arte.

1989ko abenduak 29

Eguerdi on guztioi, Segura alde ontatik. Zer moduz Gabonak? Osasun onarekin eta umorez pasa badituzue, zorionak. Familiko gozotasunari berritu on bat emateko izan badira, zorion t'ardi ere bai.

Gabon gaua etxean pasatu dutenen batzuk egongo dira urte-zaar gaua iritsi zai ere. Zeiñekin eta nora joan pentsatuta edukiko dute onuzkero. Joan ditezela eta ibilli ditezela ondo. Au edo ura

egin etzuten damurik ez dezatela izan gero. Eta ori ez egiña ere ez dezatela gure bizkar bota. Sartuko dira, bai, arrostoa. Utzi lasai. Baiña ez ditezela asko moduzko pardelarekin etxera etorri. Ori eskatzeko lain aginpide badute gurasoak eta ortan zorrotzak izan. Eutsi bakoitzak bere pareari. Seme-alabak maite izatea ondo dago, baña aien morroi edo neskame jartzea, ez. Zer arraio! Urtezaar gaua egurastu on bat artzeko izaten da, eta gauzak estuegi ezin artuko ditugu. Ondo pasatako uneak bi alderdi izaten ditu: atsegiña eta alaitasuna, batetik. Eta urrengo egunerako uzten dituen arrasto onak, bestetik. Onela, pixka bat mottelduta jartzen geranean oso filosofo biurtzen gera. Makurtu samartuta gabiltzanean gauza geiago etortzen zaizkigu burura, burua tente degula arro punttuan gabiltzanean baiño. Nik ere orregatik erabiliko ditut gaur onelako pentsamentu serioak. Dana dala, Gabon jaiak ondo joan badira, ez orren penarik eduki. Ori baiño obe da urte zaarrari bukaera on bat emateko prestatzea. Denbora badago, eta sukaldeko armarioa ondo bete beintzat. Guk negar egin edo parre egin, urtea bere martxan joan da. Ondo asitakoa ondo amaitu izan da geienetan. Eta baten bukaera ona ia bestearen asiera on biurtzen asmatzen degun. Zer oberik egin dezakegu egun auetan?

Ezkontzeko itxaropenik galdu etzuen neska bat bai omen zan. Ia larogei urte, gajoak. Eta gaixotu da. Azken igurtzia edo estremaunzioa eman omen zion apaizak, eta

– Beno, ba. Azkenengo sakramentua artu dezu. Orain ez daukazu lasai zerura joan besterik.

- Bai, e? –erantzun zion neskak–. Azkenengo sakramentua, ezkontzako sakramentua izaten zala uste nuen nik eta...

Agur guztioi, datorren urterarte. Eskerrikasko urte guztian nere berriketaldiak entzuteko pazientzia izan dezutenoi. Egun auek ondo-ondo igaro itzazute eta datorren urterarte, Jainkoak nai badu. Agur.

Agur esan bearako
gaur urte zarrari.
Besterik ezin egin
badijoanari,
ez illun itz egiñez
baiña bai kantari.
Zer gutxiago ondo
portatu danari,
eta urte berri bat
dakarkigunari.

Ainbeste egun eder
ezerezen truke.
Zuk ainbeste mesede
nok egin lezake?
Eguzkia nai aiña
eta oso merke...
Neska gazte polit bat
baldin baziñake,
jun baiño len musu bat
emango nizuke.

1990

**Dabilen arriari
etzaio koroldiorik biltzen**

1990eko urtarrillak 5

Zer moduz urte berria? Aurpegi alai samarrarekin etorri al da? Zer tankera ematen diozute urte betean gurekin izatea nai gendukeen lagun berri oni? Joandako denboraren berri badakigu, oraingo berri ere bai. Baiña datorren urtean denbora nolakoa izango dan antzematea da emen zailla. Gu nola portatzen geran, urtea ere ala portatuko zaigu, gutxi gorabeera. Geiegi eskatzen badiogu, nai degun guztia ez digu emango, eta urte txarra dala esango degu. Osasuna emango baligu eta diru apur bat, or nun-bait ibilliko giñake. Ematen digunarekin konformatzen bagera, ondo biziko gera. Diru geiegik pertsona arrotu omen dezake. Alkarrekin ondo konpontzeko eta lagunartean estimatua izateko, arrokeria prenda txarra da, ba.

Biar Erregeen eguna izango degu. Eta egun onek badu arroke-riari emateko arrisku pixka bat. Oraingo aurrak Erregeak zeintzuk diran badakite, eta gurasoak ez dute belarrietako otzik izango egun auetan. “Onelakori alako jostaillu ekarri bear diote, eta nik ere alako nai det...”. Pazientzia artu bear. Ez det esango Erregeenetan umeei jostaillurik ez ekartzeko. Izan ere, biarko orixe dute euren eguna.

Gurasoak umeei poz pixka bat eman nai izatea ez da arritze-koa, berriz. Baiña batzutan ez al ditugu premirik gabe kastu aundi-txoak egiten? Aurtxoei etzaie etsierazi bear, ori ez. Etzaie besteak baiño gutxiago dirala pentsatuerazi bear. Diran baiño gutxiago dira-la uste izatea kaltegarri dute mundu goseti onetan bizitzeko. Diran baiño geiago dirala uste izatea ere etzaie komeni. Bizitzak badaki

gero dana dirala uste dutenei neurriak artzen! Orregatik, aurtxoei erregaliak bai, baiña bere neurri batean egin bear zaizkie. Norbaitek esan du onuzkero aurrei kutiziak betetzea baiño irratitik berriketan jardutea errezagoa dala. Eta baditeke orrelaxe izatea. Dana dala, biarko eginkizuna utzi ezazute etxeko erregiñaren esku. Iñork asma-tzekotan ark asmatuko du danekikoa egiten.

Oso umeak ez geranontzat ere zerbait izango al da, eta ea jai bolada oni ilusio pixka batekin bukaera ematen diogun.

Erregeak bai fin dabiltzala
au eta ori erosten,
gaur illuntzean etxeko danak
sari bat izan dezaten.
Gizonok nola ez degun orain
korbatarik iñoiz janzten,
etxekoandreak lanak dauzkate
gurekikoak egiten.

Senarrok ondo makurrak gera,
beti nai degu lenbizi.
Baiña ez dakit, bada, ni zenbat
sari degun irabazi...
Emazteari ere aldizka
egin bear zaio grazi,
eta guk baiño sari geiago
ez al du berak merezi?

1990eko urtarrillak 12

Leenago ere izaten ziran lapurrak baiña bai oraintxe ere! Bateko lanik eza eta besteko droga, beste bizio batzuk ere bai eta danerako dirua bear. Alperkeriari emanak ere badaude, berriz. Eta ori ere lapurrak azteko baratza ona izango da. Kontua zera da: bes-teen gauzai atzaparrak eransteko gutxi bear duela oraingo jendeak. Baiña ez da emengo gaitza bakarrik. Holandako uri batean senar-emazte gazte batzuek lau milla milloi balio duen kuadro bat ostu omen dute. Pintore batek aspaldi pintatutako kuadro bat. Gaizki dabillena erori egiten da ordea. Eta lapur oiek poliziak arrapatu ditu. Erori dira oiek ere, aidanean. Eta lapurtutako kuadroa oe azpian ezkutatuta omen zeukaten, eta nola etziran, ba, eroriko?

Leengo zaarrak bost duroko paper bat eskuratzen zutenean koltxoi-azpian gordetzen omen zuten. Oiek bazeukaten, ba, ainbeste milloi balio dituen gauza oe azpian gordeta? Lapurra izateko ere balio izan bear da, ikusten danez. Eta juezak esan duenez, gizagai-xo utsak diralako erori dira. Bizitzen ez omen dakite, munduko berri ere ez, eta lapurretan gutxiago. Ain gizaxoak dira, ze epailleak ez daki orrelako lapur eskasekin zer egin ere. Lapurretarako abildade aundirik ez dute erakutsi, baiña biak tontoak diranik ere ezin diteke, ba, esan. Emazteak 24 urte dauzka, eta senarrak 22. Gauza batzuetarako sasoi onekoa izateagatik eta errezago menderatzeagatik artuko zuen emazteak bera baiño senar gazteagoa. Senar gizarajoa konturatu ez berriz! Orrela ikasiko du urrengorako ere.

Dana dala, erori dira bai, eta orain bakoitzak 300 ordu egin bearco ditu erriko lanetan: kaleak garbitu eta abar. Ori ere bada, ba. Ainbeste milloi oe azpian edukita gero, erriko komunak garbitzen jardun bear orain. Ain gatz gabeak dira gaiñera... Sikiatrarengana joateko agindu die epailleak, ia pixka bat espabilatzen diran. Eta bestela sei illabeterako kartzelan sartuko dituela biak.

Lapur arlote asko dago, nunbait. Batzuek arrapatzen dituzte, baiña geiago ere eroriko lirake agintariak arreta pixka bat jarriko balute. Kartzelatan danentzat lain leku izango ote litzake? Holandako ori entzunda, ikusten nago oraindik norbaitek lapur-eskola jarri bear duela. Gaur dagon lan eskasiarekin, dirua irabazteko lanbide txarra ez litzake izango, bear bada.

Oraiñaldian badago emen
makiña bat lapur trebe,
gu lo gaudela egiten dira
edozer gauzaren jabe.
Eta lapurrak Holandan baiño
emen ez al dute obe?
Emen lapurtzen ikasten baita
eskolara joan gabe.

Lapurrez nola osatu geran
ta ari diran indartzen,
ezin asiko gera geiago
estranjeritiek ekartzen.
Lapur txikirik ez degu ia
iñork aintzakotzat artzen,
eta oraindik ez gera asi
aundiak kartzelan sartzen.

Goizean jeiki eta ispilluan begiratzean, zimurtzen ari gerala ikusteak ez du poz aundirik ematen. Aurpegiko zimurrrak zaartzearen ezaugarriak baitira. Bertso zaar batek ere ala esaten du: “Gorputza asi zaidan pixka bat zimurtzen./ Neskazarra naizela zidaten igartzen...”. Zaartzean neska zaarak bakarrik ez dira zimurtzen ordea, mutilzaarrak ere ez gutxi, eta ezkonduak ere bai. Urteen atzaparretatik inork ez du iges egiten. Ala ere, naiko suertean izango gerala uste det. Ipar Amerikan zimurrrak kentzen dituen ukendu bat asmatu omen dute, eta ukendu orrekin igurtzita sekulako gaztetua artzen omen da. Ukendu berri orrek ez dizkie zimurrrak emakumeei bakarrik kentzen, gaiñera. Gizonezkoen aurpegiak ere leun-leun eginda uzten ditu. Baiña botika berri ori Ipar Amerikan bakarrik dago salgai, oraingoz. Orain ez dago bide luzerik eta bereala emen degu. Laister izango gera txukundu bat artzeko moduan. Ukendu orrekin lenbiziko pruebak 40 urtez gorako pertsonakin egin dira. Gizonezkoekin ala emakumezkoekin, orixe ez dakit. Gutxi gorabeera asmatzen zailla izango al litzake? Dana dala, berrogei egunetan ukenduarekin igurtzi diranak asko leundu dira, eta berri-berriak bezelaxe daude. Ez dakigu asko zer ikusteko gauden!

Igurtzi batzuk artu eta gaztetu diranak ez dira asarre izango. Zimeltzen ari dirala eta bazterrean gelditu bildur diranentzat, a ze nolako poza! Pixka bat zaartuta gero andregai billa asten diran mutillak ibilli ditezke argi, botikarekin leundutako lagunen bat artu gabe. Asmakizun onekin ere emakumezkoak irtengo ziran irabazian, seguru asko. Zaartzean pixka bat zimurtzen asi arren, pintura apur batekin eta ukendu onekin gazte itxurari errez eutsiko diote, eta gorputzez lirain eta aurpegiz leun dagoenak izango du nork begiratua. Nork maitatua ere bai.

Gizonezkoak izango gera emen larri samar ibilli bearrean. Gizona zimurtu bakarrik egingo balitz, utsa litzake. Zimurtu ez ezik, kalbotu ere egiten da ordea. Pelukak eta orrelako apaingariak badaude, baiña laztantxoren bat eman aitzakian edo illetik tira egitean illargi betea azaltzen bada?

Auetekek dira asmakizunak,
auek dira inbentuak!
Zeiñek antzeman zartu gerala
egon arren zimurtuak?
Akabo aurki zimur kentze ta
estetikazko txertuak...
Danok gaztetu bear gaituzte
amerikano prestuak.

Erremedio eroso da
ukendu bat zimurrentzat
naiz eta langa edo esirik
ez egon zartzearentzat.
Itxura ere poza izanik
besterik ez dunarentzat.
ea zerbait noiz asmatzen duten
kalbotuta daudenentzat.

1990eko urtarrillak 26

Munduan bizi dan jendea bi zatitan banatu oi degu: dirudunak eta dirurik ez dutenak, edo diru asko ez daukatenak beintzat. Diru asko daukatenei beste modu batera ere esan izan diegu: ondo bizi diranak. Diru gutxirekin ondo bizitzea zaila dala bada-kigu, eta orregatik asmatua izango da izen ori.

Ondo bizi diranak, esaten degu baiña aberats guztiak ez dira ain ondo bizi. Munduko amabost emakumerik aberatsenak, 50 urte-tik 80ra bitartekoak dira. Danak ere, leengoak esan zuen bezela, oso zaarrak ez, baiña zaarrak bai. Bein 50 urte ezkerro, ango edo emengo aje antza edukitzea ez da arritzekoa-eta. Jenio estu samar-ak edukitzea ere ez. Aien morroi eta neskameak tente ibilli bearko dute. Osasun ona edukita ere emakume aberats oiek omen dira zurrenak, lukurrenak eta egoskorrenak. A zer nolako birtuteak dituzten berak eta bere inguruko lagunak lasai bizitzeko!

Munduko emakumerik aberatsena Inglaterrako erregiña omen da. Bere lagunak- eta gonbidatu bear ditueneko gaztelu ikusgarria dauka, baiña zurraren zurrez kalefazorik ez du piztu nai izaten. Dirua kastatu baiño bera eta ingurukoak otzak egon naiago. Ori al da ondo bizitzea? Gure baserrietan ere izaten dira, ba, gonbidatuak, batez ere jaietan. Amona an egoten da zai egun ori noiz iritsiko. Seme-alabak eta illobatxoak datozenerako pago egurrarekin sua eginda, ederki goxatuta edukiko du sukaldea. Illobatxo bat magalean artuta laztantzen ari dan amona baiño kuadro ederragorik pintatu ote du iñork? Illobatxoz ingurautako amonaren aurpegi irripartsua baiño irudi oberik ez dala esango nuke zoriona adierazteko. Ura bai dala erregiña eta ez gaztelu otzean inguruko guztiak belarriak zutik dituztela dauzkaten emakume diruz betea. Baserrietako amonak ez daukate gaztelurik. Lujo geiegizko mairik ere ez, baiña bai biotz zabala eta maitasuna gaiñezka. Zenbait aberatsen begiratu zorrotzak ikusi edo sukalde epelean amonaren goxatuak artu, badago alde ederra. Zeintzuk ote dira ondo bizi diranak?

Nola eskertu amonaxoen
biotz bigun ta zabala?
Zeiñentzat ez da atsegingarri
amona baten itzala?
Naiz uste izan zenbait dirudun
zoriontsuak dirala,
esango nuke Euskalerriak
erregin asko dauzkala.

Jakiñagatik kalean ere
amona onak daudela,
nik pentsatzen det baserrietan
grazi aparta dutela.
Ango sukalde zoragarria
zeiñek gozatu orrela?
Maitetasuna banatzen dute
beste iñork ez bezela.

Beti umore onean egotea ez da erreza izaten. Au dalako edo ura dalako, ernegatu aldiren bat badegu askotan. Bizitza onetan aspertualdiak ere izaten dira berriz, eta onek ere ematen ditu bere erorialdi eta makalaldiak. Aspertualdi eta erorialdi oiek gazteak arrapatzen omen dituzte, batez ere. Ogei eta amabost urtez azpiko emakumezkoak ere bai. Gizonezkoak buru ariñagoak izan nunbait eta 50 urtetik gora asten gera orrelako ajeak nabaritzen.

Erorialdi oien atzaparretatik iges egiteko, batez ere gazteak, batetik bestera ibiltzeari ematen diote. Gizonezkoak, taberna eta futbola eta orrelako entretenigarriak baditugu. Baiña emakumezkoak ori ere ez ordea. Ogei eta amabost urterako etxeakoandre eginda egoten dira gaiñera, eta orduan eta gutxiago. Erremedio billa ibiltzeko ere ez dute astirik izaten askotan, eta aspertu edo zerbait egin bear, ba. Barrua ustuta bezela eta ezertarako gogorik gabe gelditze ori aspalditik datorren gaitza da. Santo Tomasen denboran ere izaten zan, eta ortik pentsatu. Gaitz ori sendatzeko, aldaketa batzuk egitea ona da. Beti leenean egon gabe oitura berriak artu, lagun berriak egin ez eta orrela. Baiña onetan poliki ibilli bearko da, lagun berriak egiteak arriskuak ere baditu-eta. Orrelakorik izan ez dedin, emakume asko telebistari erantsita bezela gelditzen dira, eta jakiña, lagun berririk ez dute egingo, baiña leengo zaarrari jaramon aundirik egin ere ez. Ori dala eta ez dala, senar-emazte asko ari dira biurritzen. Senarra bazkaltzera etorri eta bazkaririk ez, eta emazteari tratu txarra ematen dioten gizon asko dago. Pazienzi pixka bat ezin, ba, artu Jaungoikoaren izenean. Zer egingo du bere bizimoduarekin ainbesteraíño aspertuta dagoen emazte gajoak? Egun bateko bazkaria gorabeera, etzaio orrelakorik egin bear emazteari. Asarretzea baiño emaztea

goxo-goxo eta ondoesanean artuta alkarrekin ondo konpontzea ez al litzake obe senarrarentzat ere? Telebista ikusteari baiño senarrari uztea naiago dutela esan dutenak ere badira, gero. Toki onera erori gera!

Biar San Blas eguna degu, eta Idiazabalgo etxeoandreak beintzat ez dute orrelakorik egingo.

San Blas eguna igaro danok
zaindaria goratuaz,
aita ta ama eta etxe
guztiak alkar artuaz.
Erri jator bat osatzen saia
uskeriak baztertuaz,
ta anjinarik izan ez dedin
San Blasi errezatuaz.

Garaia da-ta erriko festak
asi dira indarrean,
eta guztion zaindaria San Blas
ezin utzi bazterrean.
Gure arteko alkartasuna
gaude piztu bearrean,
jaiegun aukeratuatzeko
lengo oitura zarrean.

1990eko otsaillak 9

Zorionekoa izan nai duenak ez du bere sinismen eta itxaropen guztia munduko ondasunetan jarri bear. Oiek ez gaituzte guretzat gordeta dagon paradisora eramango iñoiz. Amaika aldiz entzun degu au, baiña zerbait ona eskura datorrenean zeiniek utzi eldu gabe? Orrelakoak entzuterera ere jarri egiten da nunbait. Ezin esango degu beintzat beti gauza oiek buruan ditugula bizi geranik. Ala ere ez dakit, ba, sermoi kontu oiek geroz eta egi itxura geiago ez ote daukaten. Paradisoa onak eta zintzoak izandakoentzat zegoela gordeta uste nuen nik, eta lainoetatik gora joanda.

Ipar Amerikan ere bai omen dago paradisoa. Zerrientzat, gaiñera. Katuak baiño geiago azten ez dan zerri kasta bat izaten da an. Ordotxak ez ainbeste, baiña ernai dauden aardiak lau

miloi pezetatik gora balio dute. Eta txerri enano oiek ainbesteraíño maite dituzte, paradisoaren inbiri gabeko tokietan edukitzen omen dituzte. Txiki guztiak politak izaten omen dira. Txerri oiek ere orregatik izango dira ain estimatuak, bear bada. Argazki edo erretrato batean neronek ikusi det neska bat txerri oietako bati musu ematen. Ez nolanaiko neska gaztea, gaiñera. Neri beintzat txerria baiño askoz politagoa iruditu zitzaidan. Gezurra dirudi. Ipar Amerikan iritsi diran bizi-maillara iritsi, eta txerriari musuka, alajaiña! Ori baiño denbora-pasagarri egokiagoak eta txukunagoak eduki bear dituztela esan liteke, ba. Paradisoa zeíñentzat moldatuko eta zein zoriontsu egiña ere bai.

Argazkian ikusten zan neska gazte ark bere laztanak zeíñek pozik artua aurkituko zuen, nai izan balu. Eta zeíñek zaindurik ez duen umezurtza pranko ere badago mundu onetan, gosearen mende. Musutxo bat edo beste pozik artuko lukete iñork eman ezkerro. Gaiñera, oietako bat miseritik ateratzea ez al litzake obe munduko zerri guztiak musuka erabiltzea baiño?

Amerikano oiek ere zelebreek dira. Ondasun artean igerian, eta lagun urkoari lagundu baiño zerriari musu eman naiago. Orra ondasunez asetzeak zertara eramaten gaituan askotan. Iñun diran atsegin guztiekin aspertu eta zerri txiki batzuen lagun izatera. Paradisora ez ordea.

Nai degun dana daukagulako
zer asma gabiltzanean,
txorakeriak egiten ortik
asten gera geienez.
Buruarindu diranak ere
izan leizke onenez,
zerri txikiei musu ematen
asteraiño azkenean.

Oitura sano eta txukunak
ez lirake bear saldu.
Musu batzuek baiño diruak
geiago balio al du?
Amerikara kotsejuto au
nai nuke orain bialdu:
neska gazteen laztan gozoak
ez ola alperrik galdu.

Oraindik denbora asko ez dala, baserritarrak 55 urterekin jubilatzeke moduan izango ziran otsak izan ziran. Eta orretarako legea ere egin zan, baiña jubilatzea erabaki duen baserritar gutxi izan da. Alde batera, bazirudien baserritarrentzat erreztasun bat izan bear zuela, baiña ez da ala gertatu, aida-nez. Itz asko eta laguntza gutxi izan ote da orain ere? Legea egin zanean baldintza edo kondizio estu samarrak jarriko ziran, seguru asko. Orregatik, atzera egingo zuten baserritarrak. Lege berriak etzien grazirik egingo, eta lanean aspertu gabe baleude bezela, leenean jarraitzea pentsatuko zuten. Ez naiz batere aritzen. Lege au, baserriak nekazari gazteen eskuetan jartzeko egin zuten. Etzan asmo txarra, baiña baserritar zaarrak bere itxura batean bizitzeko moduan utziko zituen legea bear zan, ordea. Eta ez det uste lege ori ortaraiño iristen danik. Lege orren kondiziotako bat baserritarra Gizarte-Asegurantzán sartuta egotea da. Au arrazoizkoa da, noski. Baiña aseguratu gabeko baserritarrak badaude, eta orrelakoak ezin jubilatú, kuotarik ez baitute ordaindu.

Beste kondiziotako bat, baserria berrogei urtetik beerako nekazari gazte bati errentan ematea da. Eta baldintza geiago ere badira, batzuk estu samarrak, bearbada, eta beste batzuk ainbesteraiño ez. Xeetasun geiagotan sartu gabe, ni geienbat arritu nauena au da: baserri jabea eta errentan artzen duena ez ditezela aideak izan. Ez ditezela parienteak izan. Baldintza au iruzur edo tranparik ez egitearren ipiñiko zuten, baiña neurri estutxoá dala esango nuke. Onela ebakitzea baiño beste neurri batzuk artzea ez al zan obe izango? Baserritarrak ain kate motzean lotzea ez da gero beti erre-erreza izaten. Baserriari muzin egiteko arrazoi asko dauzka gazteak. Auetako bat, askorentzat lana egin bearra. Guraso zaarrak pentsio itxurazko

baten bidez bere buruen jabe izateko moduan geldituko balira, maiorazkoak beste poz bat izango luteke ezkondu eta baserrian bizitzen jartzeko ere.

Zaarrak ez dute zartagia eskutik utzi nai izaten. Ala ere, ille-
ro-illero bizitzeko lain kobratuko balute, ez ote lirake lasaituko?
Semea eta erraiña ez lirake asarre izango. Baiña lanerako gutxi
eta maiean ezin kabitu, baserria sendatzeko botika txarra da ori.

Baserritarrak lasai bizitzen
ikusiko genitula,
ez da oraindik denbora asko
ori esan zitzaigula.
Baiña ez dakit amets au egi
biurtuko dan sekula.
Agintariak bai petrikillo
txarrak irten zaizkigula!

Baserri asko nola dauden gaur
bera begira jarriak.
Amildegira joatean uztea
kalte du Euskalerrriak.
Itotzen duen lege esturik
ez du bear baserriak.
Buruz jokutzen badegu ez du
joko eriotz-larriak.

1990eko otsillak 23

Gure ondorengoentzat mundu txarra datorrela eta orrelako-
ak esaten ditugu. Ez dakit, ba, orrela izango ote dan. Zerbait daki-
gulakoan aritzen gera izketan, baiña oraintxe antzeman diot ez
dakigula ezer. Emendik bi urtera, bederatzi illabeteko soldaduzka
izango omen da. Eta gazteak suerteko izango dira. Urtebete amari
dirua eskatuz pasatu edo iru illabete gutxiagoko legortea izan,
alde pixka bat badago beintzat, aundia ez baiña. Soldaduzkari
ateratzen zaion etekiña ateratzeko bederatzi illabeteko soka naiko
luzea bada. Emendik aurrerako soldaduzka orainartekoa baiño
obea izango omen da. Ondu premia zeukan seiñalea agintari zaar-
ak ortara jarri diranerako. Eta asmo sendoak izango al dira, bes-
tela ez degu ezer egiten. Jana, jantzia, lo egiteko lekuak eta abar

obeak izango dituzte soldaduak. Guk izan genituenak aiñakoak izango al dituzte, batere izatekotan. Orain ere neskatxak irtengo dira irabazian. Ezkontzea pentsatuta ere, senargaiari leen aiña denboran itxoin bearrik ez dute izango beintzat. Guk baiño gaztearo luzeagoa eta kontu potxoloak esateko denbora geiago izango dute orain gazteak.

Ez dago esan bearrik ere denbora asko alperrik galtzea dala soldaduzka. Leen ikasia aaztu eta berririk ezer ikasi ez. Besterik ez da egiten. Orregatik, soldaduzkako denbora mutillei zerbait erakusteko aprobe txatu bear litzakeela diote batzuek. Atzerriko izkuntzak, esate baterako. Eta arrazoi dute la esango nuke. Zertarako eduki ainbeste mutil orrenbese denboran ezer egin gabe? Laister gera European murgildu bearrean, eta prantsesez, inglese edo alemanez jakitea ez litzake gaizki etorriko. Fusilla bizkarrean erabiltzen ikastea aiñakoa bai, noski. Oporrak estranjerian pasatzeko ez ezik lana billatzeko ere asko balioko luke izkuntzak jakiteak. Baiña badu onek bere arriskua ere. Inglesez erakusten dutela-eta, ez al zaizkigu neskak soldadu joan nai dutela esaten asiko? Fusillarekin desfilitzera baiño “desfile de modelos” egiteko politagoak dira, eta mutillak baiño gutxiago ez izatearren orrelako txorakeririk ez al digute egingo beintzat... Soldadu joatea ez da gero zigarroa erretzea!

Emakumeak edozein lani
eltzeari eman dio.
Baiña soldadu joate ori
artu bear da serio.
Neskatxa bati soldaduzkarik
iñolaz ez dagokio,
aurpegi polit irripartsuak
ezpaitute an balio.

Iñork inglese ondo ikasten
saiatu nai baldin badu,
soldadu joan gabe etxean
alegintzea obe du.
Eta agindu zale dana ez
ejerzitorea bialdu,
etxeakoandreak ez al du, bada,
sarjentoak aiña gradu?

Oraingo gazteak gu bizi giñan baiño lasaiago bizi dira. Ez det esango arazo edo problema faltarik dutenik. Etzaie dana nai duten bezela aterako eta ez dituzte gusto guztiak izango. Guri ere gauza asko oker ateratzen zitzaizkigun. Ernegatualdi faltarik ez genduen izaten, baiña aurpegi eman bear al zan moduan. Guk aiña sermoi entzundakorik eta guk aiña aolku edo kontseju on artutakorik ez da izango eguzkiaren azpian. Ala ere, ez dakit gaurko gazteak gu giñan baiño egizaleagoak eta sanoagoak ez ote diran. Ain katolikoak giñan gu, begiratu batean munduko onenak giñala ematen genduen. Baiña akatsez beteta geunden ordea, eta gaude. Elizan ainbeste denbora pasatu genduen, eta lagun urkoa pixka bat maitatzen ez genduen ikasi.

Aspaldiko kontuak esaten ari naizela dirudi. Norbaitek ala uste badu ere, kontu auek badute orain egiten degunarekin zer ikusirik asko. Orain liburutegiak erri guztietan dauzkagu. Eta jakin dedanez, liburutegietara geiena joaten diranak aurrak dira. Ikasketak egiten ari diranak. Eta urrena, zaarrak. Jubilatuak edo beste zeregiñik ez daukaten pertsona edadetuak, elduak. Arritu nintzan au jakin nuenean. Liburutegietara zertara edo zergatik joaten ote ziran, eta ez omen dira liburuak irakurtzeagatik joaten. Ez. Egunkaria erosten dirurik ez kastatzearren joaten diranak badira, eta erraiñak bialtzen dituelako joaten diranak ere bai. Etxean traba egiten nunbait, eta ea pixka batean bederik pake santua ematen duten. Erraiñen batek ori egitea baditeke, baiña ez det uste danak orrelakoak izango diranik. Sua dagoen tokitik ateratzen da kea, eta baliteke dana gezurra ez izatea ere.

Gazteengatik bat edo bestea esan, eta orra nora dijoazen gure santu itxurak. Orrentzat erremedioa Txinatik etorri dan

apaiz budista batek eman du. Ark dioenez, goizean gogoeta edo meditazioa egin bear da. Arrokeria, asarrea, ezjakintasuna eta orrelakoak meditazioarekin kentzen omen dira. Eta alkarrekin pazientzian bizitzen ikasi ere bai. Orain badakigu zer egin. Oe epelean denbora gutxiago pasatuko badegu ere, goizean pentsatu ondo egunez zer egin eta nola portatu. Berandu jeiki eta sukaldera kopeta illunarekin etortzea baiño obe izango da orrela.

Gure ustetan katolikoak
aingeru batzuek gera.
Baiña ez degu bear bezela
begiratutzen etxera.
Munduari zer egin bear dan
esanez ibilli gera,
ta orain Txinatik datoz guri
zer egin erakustera.

Eguna zear nola portatu
pentsatu bear goizean,
obra onik ez baita egiten
asmorik artu ezean.
Luzaro bizi arren onenak
geu geranaren pozean,
ez dakit onek iraun lezaken
oso denbora luzean

1990eko martxoak 9

Ekaiztearen ondoren barealdia izaten da. Eta Korean ere orrelako zerbaít gertatuko da oraiñaldian. Toki askotan langabeziaren negarra entzuten da. Zorigaiztoko lanik ez, kalte aundiak egiten ari dan paroa. Lanik ezak irabazirik eza eta bizi eziña berekin ditu, eta orrek pertsona errez ateratzen du bere onetik. Korean ere pasatu zituzten urte latzak. Gerra luzearen ondoren pakea lortu zuten noizbait, ederki kostata bederik. Nik uste nuen koreanoak naiko mixerian biziko zirala, baiña bai zera! Ez dago aieta-
ra joan besterik. An ez dago parorik emen bezela.

Onek ere baditu ordea bere lantxoak. Korean piña asko izaten omen da. Baiña salduko bada, bildu egin bear leenbizi. Eta

zeiñek bildurik ez daukate. Bearra bezelako maixurik ez dala esan izan da, eta korearrak ere premiak ederki esnatu dituela uste det. Beti lotan ez egoten, eta tximuei erakutsi diete piñak biltzen. Pazientzi pixka bat bearko zuten tximuak lanean jartzeko, baiña orra langille leialak eta merkeak nola aurkitu dituzten. Tximu bakoitzak bost gizonen lanak egiten ditu. Ango nekazari batek ogei tximu domatu ditu, eta eun gizonek aiña piña biltzen diote egunean. Goizean egunsetian asten dira lanean. Eta baita saiatu ere. Huelgarik ere ez dute egiten. Soldata geiago eskatu ere ez. Arbola puntara igotzeko abildade aparta nola duten, erortzeko arriskurik ere ez dute. Eskailera bearrik ere ez, ezta aseguratu bearrik ere. Tximukeriren bat edo beste egingo dute noizean bein, baiña aseguroa ordaindu edo jubilatzen diranerako dirua jarri bearrik ez dute izango. Zer nai dezute langille merkeagorik?

Koreako kontuak jakitean gure baserriak datozkit burura. Batzuek lurrean usteldu eta besteak zozoak jan, sagar asko alperrik galtzen da biltzeko astirik ez dagoelako. Koreatik tximu batzuk ekartzea zenbat kostako ote litzake? Aiek bilduko lituzkete emengo sagarrak ederki. Ikusten nago oraindik tximuak sagar biltzen ari diran bitartean baserritarrak itzalean siesta egiten.

Gizonak asko pentsatu oi du
estu ikusten danean,
zer esanik ez irabazia
atera nai duenean.

Orra Korean zer egin duten
gauzak igo diranean:
gizonak artu deskantsua ta
tximuak jarri lanean.

Baserritarrak, tximu ezitzen
saiatu zaitezte bero,
udazkenean diru mordo bat
errez artzeko urtero.

Errezil sagar gozoak merke
nola ez, bada, espero?
Gaztaiñak ere bai tximueri
bilduerazi ezkerro.

Azkenengo amar urte auetan 44.492 pertsona il dira Espaiñiako kamiñoetan. Beasain eta Ordizian bizi diran alako bi, gutxi gorabeera. Errez esaten da. Ezbearrez iltzen diranen berriak egunero jakiten ditugu. Gauza bera sarritan entzuten danean, naiz berri txarra izan, azkenerako jarri egiten gera. Kamiñoetako eriotzakin ere orrelako zerbait gertatzen zaigu. “Orrelako edo alako kotxean zijoala istripuz il omen da. Azkar ibilliko zan eta garaia baiño leen gelditu bear. Orixe dago, ba...”, eta orrelakoren bat esango degu, eta kitto!

Ezbearrez iltzen diran aiña izurri edo peste batek arrapatutako ilko balira izango litzake istillurik asko. Mediku, agintari eta gaiñontzekoak entzun bearke lituzkete bereak eta bi. Kamiñoetan iltzen dira ordea. Askok eta askok, gauez. Edo goizaldera. Alkoholak ere zer ikusia izango du, eta ainbeste eriotzaren aurrean ezer ez balitz bezela gelditzen gera. Esate baterako, aur gutxi jaiotzen dalako aitzakia ugari entzuten da, baiña kamiñoetako eriotzak gutxitzeko ez du iñork ezer egiten.

Ainbeste desgrazi ikusita agintariak ere ez dutela ikararik egiten esan liteke. Mozkortuta eta bear ez bezela dabiltzanak zigortuko balira, eta propagandan gutxiago kastatu eta kamiño obeak egingo balira, ez litzake ainbeste pertsona gazte eta sasoi-ko galduko. Ez litzake orrelako bakanketa edo entresakarik egingo. Eta eriotz oiek dirala-ta, zenbat guraso bizi ote da bildurrez, noiz zer entzungo? Au ez al da tristea? Agintariak kamiñoetara geiago begiratuko balute, ez ote giñake danok obeto biziko? Baiña au ez da emengo kontua bakarrik. Italian, adibidez, eun amatatik larogeita amabi gauean kanpoan diran seme edo alabak etxera etorri arte esna egoten omen dira, kezka, begiak bildu ezinda. Ama beti ama, emen eta Italian ere. Onetan aita lasaioa-goa da ama baiño.

Banengoen, ba, ni gizonak ori eta orrenbestean libratuko ote giñan. Eunetatik 46 aitak, seme-alabak etxean ez egon arren lasai lo egiten omen dute. Au geitxo esatea izango da, orratik! Ez ote du gero amak berak baiño ere geiago sufritzen? Seme-alabak falta izanaren kezka eta amaren naigabea, danak iristen zaizkio gero aitari! Jokatuko nuke senarrak lo lasai egiten duela esate ori emazteak asmatua dala.

Ai, zenbat gazte gelditzen diran
kamiñoetan illotzik!

Gurasoentzat ez da beste bat
au bezin pena mingotzik.

Umeak falta dituen amak
ez du izaten gau motzik.

Aitarentzako ere bizitzak
badauka ezten zorrotzik,

eta ez esan sekula ere
aitak ez dula biotzik.

Familietan alkar maitatu
bear genduke aurrena.

Ta egunero pake santua
erein bear da urrena.

Etxeko giro gozoz betea
degu gauzik bearrena:

zar eta gazte bat egitea
da grazirik ederrena,

gure bizitza izan ez dedin
zorion faltaz errena.

1990eko martxoak 23

Ordu onetan irratia entzuten daudenetatik geienak emakumeak izango dira, seguru asko. Senarrak or ibilliko dira, lana daukatenak lanean eta jubilatutak, lagunetara joanda, edo etxean, komeni zaien moduan. Emakumeak ez daukate ori egiterik. Bear dan garairako bazkaria gertatzen ez badute izango dute zer entzuna. Eta lanak egin bear badituzte ere irratia entzuteko eskubidea daukate beintzat. Gizonak baiño geiago, agian, lasai exerita egunkaria irakurtzeko astirik ez daukate-eta.

Baiña gerorako ez datoz berri txarrak. Urte asko baiño leen izango dira ondo bizitzeko moduan. Ordenadoreak asko ari dira

ugaltzen. Eta geroz eta obeak datoz, gaiñera. Telefonoz deitu besterik gabe etxeko lan danak egiten dituen ordenadorea asmatu dute Japonen. Edozein tokitatik deitu eta sua piztu, erropak garbitzeko makina, autsak kentzekoa eta etxean diran txisme guztiak martxan jartzen omen ditu ordenadore orrek. Emendik amar bat urtera emen izango dira tresna oiek. Eta ura izango da ona. Etxekoandreak, bera oean dagoela, jeiki eta lanera joateko aginduko dio senarrari, eta aurrari eskolara jaoteko. Telefonoz deitu eta sua piztuko du, eta gosaldu eta bat lanera eta bestea eskolara joan besterik ez dute izango. Eta bitartean, ama oe epelean, goxogoxo. Ura izango da pake santua! Egia esan, bizimodu eroso bat opa diet nik etxekoandre guztiei. Danak aldegin eta bakarrik gelditzean jeikiko da, nai duen orduan, eta telefonoa astintzearekin dana egiña.

Baiña aurrerapen oiek datozenerako kontuak atera bear ko dituzte. Orduan ez dute izango kopeta illunduta etxeko guztiei ordenak ematen asterik. Eta senarra datorrenerako txukun jantzi-ta eta ederki orraztuta egon bear ko dute, etxeko erregiñari dago-kion bezela. Ordenadore berri oiek koloreteak ematen eta ezpaiñak pintatzen ez omen dakite, eta losintxa eginda senarra engaiñatzen ere ez. Lan danak ezin, ba, kendu gure etxekoandrei, bestela denbora zertan pasatu ez dakitela geldituko lirake-eta.

Japondik asi dira etortzen
txit ordena pozgarriak:
etxekoandreak ez dituztela
beartu bear gerriak.
Orain asmatu diran auek bai
neskame zoragarriak!
Nekerik gabe lanak egiten
dituzten tresna berriak...

Asarretzeko bildurrik gabe
zeiñi emana ordenak.
Egud ederrak etxekoandreak
pasa bear dituztenak.
Baiña ez al du iñor galduko
ondo biziaren penak?
Etsaiak zirikatzen baititu
zer egiñik ez dutenak.

Bizitzea egokitu zaigun garai onetan makiña bat oitura ezkutu eta galdu da. Jokabide berria pranko azaldu ere bai. Leengo bizikerak baztertu edo aldatu diran tokietan bide berriak ideki nai dira, noski. Orretan saiatzen diran giza-emakume taldeak ugaltzen ari dirala garbi ikusten da. Eta egundoko indarra artzen ari dira gaiñera. Talde oietako batzuk ekolojistak dira, zalantzarik gabe. Saiatuak dira eta nunai aurpegia ematen dute. Beste edozeiñek bezelaxe, ez dute beti arrazoia edukiko, baiña ez dago esaterik dana gaizki egiten dutenik ere. Ez nuke esango oien bearrik ez dagoenik. Bateko eizea dala eta besteko bestea dala, ango zabor pillak dirala edo emengo autobia eta mendi-bideak dirala, sarritan esaten dute nundik nora dabilzan. Garai batean etzan ekolojistarik, eta gure baso eta mendietan nolako pikardiak egin diran ez dago ikusi besterik. Noizean bein ankasartze batzuk egiten dituzte, baiña zeñek kontra egiña ere bearrezkoa izaten da gizarte onetan.

Abereetan ere izugarrizko zarrantzak egiten ditugu. Begiratu bestela baserrietara. Garai batean etzan astorik gabeko baserririk. Gaur ez da ia asto bat ikusten iñun. Lau ankako astoak, esan nai nuke. Bikoak bai, bi ankako asto asko dago oraindik ere. Jan gutxiren truke astoak aiña lan egindako abererik ez da izango. Eta ala ere, kupirarik gabe baztertu ditugu. Astakumeren bat edo beste azten bada ere, lagunartean jateko edo lukainkak egiteko izango da. Asto janak egitea ere modan baitago orain. Ez dakigu ia zer jan ere. Baiña ez da emengo gaitza bakarrik. Andaluzian ere astoak ia ezkutatu omen dira. Orain lau urte 251.000 asto zeuden an. Eta orain 30.000 besterik ez dago. Eta andaluzak zearo kezkatuta dabilta. Ango ekolojistak asto-arraza galdu ez dedin alegiñak egiteko asmoak dituztela uste det. Izan ere, ango erri txiki batzuetan astoak taxi serbitzua egiten erabiltzen dituzte, eta taxirik gabe gelditu nai ez, nunbait.

Emengo neska-mutillei esan bear goizeko laurak aldean
sala-fiestatetik irtendakoan asto gaiñean etxera etortzeko...

Gure oitura zarrak
artu duten jira!
Asto gizarajoa
nork ez du kupira?
Bat ere ezin ikusi
naiz egon begira,
lau ankakoak beintzat
ezkutatu dira...

Ordain ori izan du
astoaren lanak...
Zer atarramentua
astoa izanak.
Asto izena zuen
lau anka zeuzkanak,
eta bi ankakoak
jan dituzte danak.

1990eko apirillak 6

Apirillean sartuta gaude. Batzutan denbora azkar joaten da, izan ere. Baiña egunak errez pasatzea ondo bizi izatearen seiñale omen da. Ori pentsatuta poztu bearko degu. Denborari ez baitago langa jartzerik. Eta jaia bera baiña jai bezpera ohea izaten da askotan. Eta apirillarekin ere orrelako zerbait gertatu oi da. Loreillaren izena eta fama maiatzari ematen zaio, baiña apirillak ere merezi luke orrelako zerbait. Txarraldi bat edo beste izaten badu ere, maiatzaren bezpera au urte-sasoirik ederrenetako bat izaten da geienetan. Elorriak lore zuriz estalita ikusi nai dituenak aukerarik asko izango du apirillean. Naparroako toki batzuetan “apirilleko lore/ urrearen pare”, esaten dute. Ea aurten ere orrelaxe gertatzen dan.

Ordua ere aurreratu digute, urtero bezela. Egunari luzatu eta etekin ohea ateratzeagatik omen da ori. Lo geiegi eginda mozo-lotu ez gaitezen egingo dizkigute onelako azioak. Aspaldian orretan gera, baiña oraindik ez gera aberastu, eta aurrerantzean ere naiko lan. Gautxorientzat ez da ondo etorriko au. Illundu ta gero

arte ez dira etxetik irtetzen eta eguna argitzerako orduak aurrera, eta parrandarako denbora gutxi.

Udaberria garai polita da, benetan. Sasirik arloteenak ere lorez jantzita, dituzten edertasunak erakusten saiatzen dira. Uda gaiñean degun onetan moda berriko soiñeko eta gaiñontzekoak eta erruz erakusten dizkigute, aukera ona egiñez. Eskaparate edo telebisio eta orrelakoak ikusita, mundu onetan itsusirik ez dala esan liteke. Baiña udaberriak ere baditu arantzak. Ipar Amerikako emakume gizenak zearo aztoratuta omen dabilta. 90 kilotik gorako emakumeentzat erropak egiten dituen etxe batek bere bezeroak dotore samar jantzi nai, ba, eta lodi antzean dauden emakumeentzat egiten dituen modeloak telebisiotik erakutsi nai. Eta telebisioak ezezkoa eman dio. Orrelako gerrondoa duten emakumezkoekin ez duela ezer jakin nai. 90 kilotik gora pixatzen duten emakumezkoak 40 milloi inguru daude Ipar Amerikan. Eta igarrak aiña eskubide badutela bizitzeko esan dute. Ez dago aiek zirikatzen jaon besterik! Baiña telebisioak modelo liraiñak erakutsi nai, eta or daude komeriak.

Ori al da arrazoa? Pixka bat loditu egin dirala eta ezurra eta azala besterik ez dutenak baiño gutxiago al dira, ba?

Ez da pozgarri gizendu eta jartzea itsusiturik.

Ameriketan orrelakoak omen daude bazterturik.

Baiña ez uste ez daukatela gizenak sentimenturik...

Bestela nola egongo ziran onela asarreturik?

Edozein aiña badirala ta demonioak arturik demonioak arturik.

Zerbait loditu badira ere sanoak daude burutik.

Arrazoi dana euren dute eta nork kendu eskutik?

Argal samarrak obeko dute alde egin ingurutik,

burrukan gogor asi baiño len bakoitza bere aldetik.

Ipurtigarrak aiña badira zergatik ez jarri zutik zergatik ez jarri zutik?

Gaur Ostiral Santu. Egun serioa da, eta formal antzean ibilli bearko degu.

Leengo kontuak ondo etortzen dira batzutan. Eta orain 123 urteko histori txiki bat kontatu nai nizueke. Atzo goizekoa dala esango du norbaitek. Baiña ez, aspaldikoa da. Eta histori onek esango digu Aste Santuko sermoiak aintzakotzat artzen ziran garaiko kristau euskaldun aiek nola portatzen ziran.

Juan Kruz Zapirain errenteriar bertsolaria, orain 123 urte jaio zan. Bost egun barru ama il zitzaion eta umezurtz gelditu zan. Zapirain bertsolariak berak esan zuen ederki asko nola azi zan. Ona emen berari entzunda idatzi zana: “Bularreko aur nintzala amarik gabe gelditu nintzan ni. Arreba zaarrenak azi ninduen, besteren bularrean. Goizero plazara joaten ziran emakumeen bularretik azia naiz. Emakumeak plazatik etxera zijoazen garaian –goizeko amarrak aldean– bidegurutzera ateratzen ninduen arrebak, emakume aietakoren batek bularra emango ote zidan. Baita pozik eman ere aiek, ordu artan lertzen zeratematen bularretik.”. Donostiako plazara gauzak saltzera zijoazen emakumeak Astigarraga eta Errenteriko mendietatik pasatzen ziran, eta aien bidera ateratzen zan arreba ori bere anai txikiarekin.

Oraingo gazteei gezurra irudiko zaie au. Ezertarako astirik ematen ez duen bizimodu au dala eta ez dala, orain ez da aurrik azten bularrarekin, esate baterako. Umeak ere konpuestoarekin azten dira. Moda berrira, alegia. Ala ere, ezin diteke esan moda berri au kaltegarria danik. Leengo aldean aur jaioberri gutxi iltzen da orain. Orrek esaten du sistema berriarekin irabazian atera gerala. Leenago etzan konpuestorik. Ori, batetik. Eta bestetik, aurra iltzen zitzaion amak etzuen bularra alperrik galdu nai izaten. Eta premian arkitzen zan edozein aurri emateko prest egoten zan. Beste denbora batzuk ziran, noski.

Egia da. Baiña ez dakit, ba, orain baiño erruki geiago ez ote zan orduan. Ostegun Santu eguneko sermoiak ez ote zuten orretan zer ikusirik?

Gure artean etzan lenago
gaur bezela ondasunik.
Baiña amarik gabeko aurrak
bazuten laguntasunik.
Errukiari ezingo zaio
ukatu edertasunik...
Errukirikan ez dan lekuan
ez baitago maitasunik.

Aste Santuak ez dauka orain
len izaten zuen garra.
Aldatu gera baiña guztia
ez al da izango txarra...
Eta munduan nola daukagun
maitasunaren bearra,
zeruko Jauna, errukiari
eman zaiozu indarra.

1990eko apirillak 20

Sekula galdu bear ez luketen oiturak badira gure artean. Eta Santa Engrazin aziak bedeinkatzeko oitura zaarra da oietako bat. Oitura onek ez du Ostiral Santu eguneko prozesioak ainbeste kanpotar erakartzen Segurara. Ala ere, Santa Engraziko oitura polit ori ezagutzen dutenak eta bere aitzera duten guztiak maite dutela esan bearra dago. Egunkari edo periodikuak ere ez dute aaztuta edukitzen. Garrantzi aundikoak dirala uste izaten degun berrien artean antxe azaltzen da urtero-urtero Santa Engrazin egiten dan elizkizun apala. Eta auskalo noiztik etorriko dan oitura au!

Santa Engraziko elizatzoa, Segurak izan dituen parrokieta-tik leenengoetakoa da. Erria bera sortu baiño ere leenagokoa. Zortzireun urtetik gora edukiko dituela entzun izan det. Aziak bedeinkatzeko oitura elizatzoa egin eta andik urte batzuetara artu zala diote, eta makiña bat bedeinkazio itz eta makiña bat errezo entzungo zuten Santa Engraziko orma zaarrak. An bedeinkatutako aziarekin eta urarekin artutako artoarekin bi azaleko talo ede-

rra pranko erreko zan inguru aietako baserrietako sukaldeetan. Baita lapikokada babarrun gozo asko egosi ere. Leengo sukaldeak etziran oraingoak bezin dotoreak izaten, baiña usai gozoa sentitzeko etziran leku txarrak izaten.

Aspaldi onetan asko modernotu gera eta ez dakit nik zenbat jende joango dan Santa Engrazira aziak eta ura bedeinkatzera. Gazteak ere bedeinkazio eta orrelakoei buruz bere iritziak daukate, baiña auxe da oitura bat iñori kalterik egiten ez diona. Beiak sano azteko eta uzta onak artzeko orain aiña botika eta gaiñontzeko etzan garaian bizi izan balira, fede pixka bat etzuten kalteko izango. Bizitzeko bear dan itxaropena sinismenak ematen baizuen orduan. Soroan edo baratzen azia ereiten duten guztiak joan bear lukete Santa Engrazira, aziak bedeinkatzera. Elizkizunaren ondoren amaiketako pixka bat egiñez kontuak esan, alkarren berri jakiñez lasai-lasai oitura zaarrei berritu on bat eman, eta poliki-poliki etxera. Ez al da gauza polita?

Ez ote dira maitagarriak
lengo zenbait usuario,
naiz oien kontra izketan jardun
zenbait berritsu-jario?
Esaten dute: zertako dira
ainbeste bedeinkazio?
Baiña profeta oien esanak
batere ez dute balio.

Al dezutenak joan zaitezte
Santa Engrazi zelaira,
eta berritu antziñatikan
orain arteko kondaira.
Ur pixka bat or bedeinkatuta
bota Ori ibaira,
itzul gaitezen or amorraiak
izaten ziran garaira.

1990eko apirillak 27

Jatorra izateko, ondo portatu bear omen da. Kanpotik begiratuta batek nolako tankera duen, alamoduzkoa izaten da barrutik ere. Jakitsuak orrela diote beintzat. Itxuraz kontrako pertsonak

ere izaten dira. Baiña kanpo-itxuraz utzia edo narratsa danak, bere pentsatzeko era eta abar, barrua ere ez du oso txukuna edukiko, seguru asko.

Gizonok urte asko bear izan ditugu gizona errespetatzen ikasteko. Ikasteko edo, ikasten asteko, esango nuke, oraindik ez dakigu-eta. Besteak errespetatzen jakite orrek ematen digu giza-kategoria. Iñor aintzakotzat artzea kosta egiten zaigu batzuetan. Lotura bat bezela da ori guretzat. Izan ere, esi barruan bezela bizierazten gaitu onek. Festak dirala, eta besteak baiño gutxiago ez gerala, eta nai deguna egiteko eskubidea badaukagula eta. Ez dira oiek orrela. Esi-barruan edukitzen gaituzten legeak badaude, eta lege oiek gorde bearra dago. Bestela, abereak bezela izango giñake. Azkenaldi onetan *ika* itz egiteko oitura indartzen ari da, esate baterako. Ori ere libre izango da. Lagunarterako izkera ona da ori, baiña gurasoei *ika* itz egitea ondo al dago? Eta senar-emazteak elkarri orrela egitea? “Zu zera nere biotzeko azukre-koskorra” esan edo, “ i aiz nere paotxa” esan, badago alde ederra, orregatik! Oiek azaleko kontuak dirala eta balio dutenak barruko sentimentuak dirala esango dit norbaitek. Eta ez det esango arrazoi ez duenik. Baiña nola pentsatzen dan, ala itz egiten da. Eta baldar pentsatzeak, baldar itz egitera eramaten gaitu. Edozer gauza esateak edozer gauza egitera garamatza. Orra azaleko kontuak, itxurak eta gure tankerak nolako zer ikusia duten alkar-bizitze egoki baterako.

Ondo itz egiten duten danak ez dirala fiñak izaten? Ala ere, pertsona ongi-ezi edo edukatuak, gaizki aziak baiño atsegiñago izaten dira inguruan. Garbi ibiltzea baiño zikin ibiltzea errezagotzen bezela, jatorra izaten baiño kirtena izaten errezagotzen da. Geroz eta obeto bizi nai badegu, geure buruak zuzendu bear, leenbizi. Kosta egiten dala? Bai. Baiña kostatzen danak balio izaten omen du.

Itxura beste lagunik gabe
nola joan bat iñora?
Traketsa danak gizon artean
nekez egingo du gora.
Bazter guztiak engaiñatutzen
ez pasa beintzat denbora,
barruan ez dan gizatasunik
ez da irtentzen kanpora.

Aspaldi ontan ari gera gu
tankera narratsa artzen.
Obe genduke itxuraz eta
egitez jokatu zuzen.
Ortik kalteak izan litezke
ez bagera konturatzen.
Itxura txarrak galdu ez gaitzan
txukuntzen asi gaitezen.

1990eko maiatzak 4

Igazko Santikutzak atzo zirala esan diteke, eta Legazpin festa bete-betean gaude berriz ere. Gauza txarragoak gertatu izan dira mundu koskor onetan eta ezin aitzakirik emango diogu oni. Nai duenak festa egingo du, eta nai ez duenak, ez. Festaegunen elburuetako bat eguneroko egin bearrak alde batera uztea baita. Ori geienoi gustatzen zaigu, berriz, eta ez gaitezen asi plantak egiten izugarrizko langille fiñak bagiña bezela. Aspaldiko burniola aietan lana egiten zuten gure asaba zaarrak bai, aiek ziran langilleak oraingoen aldean. Jai eta aste lana egiten zuten. Orduan etzan argindarririk, eta maillu aundi aiek erabilliko baziran, aldaparoan ura bear. Uda geienak legorrak izan oi dira eta negu-denboran saiatu bearko zuten, urte guztian jan bear izaten baitzan, orduan ere.

Langilleak izango ziran, baiña gizon aiek ere artu zuten ipurdiko ederra. Miraria zala edo etzala, orain 410 urte dirala Santikutz egunez, atzoko egunez alegia, jai izan arren lana egin zuten. Eta jaieguneko lanak ez du iñor aberasten. Etzuten beintzat porruazi aundirik atera, gizarajoak! Burniarri edo mineral pilla aundi bat urtzeko ez dakit zenbat ikatz erre eta gurezte baten itxurako burni puskatxo bat besterik ez zuten atera. Orra jaieguneko lanaren saria. Obe zuten jai egin izan balute, jaiegunak jai egite-

ko dira-eta. Olagizon aiek jipoia artu zuten, baiña aien ondorengo legazpiarrak badakite orain zer egin: jaiak errespetatu, alperrik nekatzeko arriskurik izan ez dedin, eta festaegunak, jai egin. Mirari kontu oiek leengo kontuak omen dira. Orain ez omen da miraririk gertatzen. Orrelako batzuk esaten ditugu, baiña Mirandaolan gertatu zanak badu mirari itxurarik asko. Ezeren indarrik izan ez balu, Santikutz egunak etzuen Legazpin daukan ainbat jarraitzaille izango. Emen ez du iñork esaten Santikutzetan lana egin bear danik.

Ura gertatu zala badira 410 urte, baiña Mirandaolako gerta-kizunaren argia ez da itzali oraindik. Eta ori bakarrik ez. Ainbeste urte pasatu eta, alare, geroz eta jai luzeagoak egiten ditugu. Zaarrago eta indar geiago dauka Mirandaolako mirariak. Miraririk ez dala? Komeni etzaigunean ez...

Gure ustetan sinismenari
artzen dizkagu neurriak,
esanez aztu dirala oso
lengo gauz arrigarriak.
Santikutzetan jai egiteko
ez du kezkarik erriak.
Legazpin aspalditik gaudenez
milagrotara jarriak,
lengoak bizi baldin badira
zertako egin berriak?

Munduan ez da Gurutz santuak
izan ez duen grazirik,
guri ez digu iñortxok egin
ark bezelako argirik.
Gurutze ura izan ez balitz
bai ote zan Legazpirik?
Ezin esango degu ez dala
orain gauz arrigarririk...
Mirari batek ainbeste urte
eta oraindik bizirik!

1990eko maiatzak 11

Mundu zelebre onetan makiña bat zelebrekeri gertatzen da oraintxe. Leenago ere gertatuko ziran, baiña orain ainbeste, naiko lan. Denbora gutxiren barruan ainbeste aurrerapen asmatu dira,

geroz eta bizimodu ohea eta lasaiagoa izan bear gendukeela esan diteke. Baiña, bai zera. Leenago aiña miseri eta premi ez daukagun onetan, ingurukoekin ondo konpondu besterik ez eta orixe ere ez degu egiten. Iñoiz baiño erreztasun geiago daukagu iñun diran kutizi danak betetzeko, baiña ezin gera ase. Orretzek endre-atzen gaitu. Eta oitura onak artu bearrean, griña txarrak ari zaizkigu ugaritzen.

Gure gazte denboran griña txarra bat bakarrik izaten zan. Eta animaren etsaiak mundua, deabrua eta aragia zirala esaten ziguten. Leenengo biak adornutarako edo orrela izango ziran. Baiña irugarrena? Ark ematen zituen lanak! Aragiak lan gaiztoak ematen zituen. Ez, noski, arategitik eraman eta janten zan apurrak, astean bein proatzeko lain besterik ez baitzan izaten. Baiña gure gorputz deabruak ere aragizkoak izan, eta aiek komeriak, bada. Ez dakit nik griña txar ura modan pasatu ala zer egin dan, aragizko griña alegia. Ikusi dexente egiten da orain, baiña aitatu oso gutxi. Alkohola, tabakoa, droga eta orrelakoak dira orain modako griña txarrak. Erretiro txarrak ere gaupasa biurtu ziran, eta tira.

Baiña zer gertatuko eta ez da, ba, moda berriaren griña sartu? Burgos aldean naiko indarrean omen dago, gaiñera. Moda berriko erropak azaltzen diranean, iñundik ere aiexek erosi bear. Bear badira eta ezpadira! Dirurik ez badago, zorretan. Eta ezer asko ez diranak ere dotore eta moda berrira jantzita azaldu nai. Oraindik ez det esan baiña, onuzkero pentsatuko zenuten, griña txar onen atzaparretan erori diranak emakumeak dirala, batez ere. Bizio au zekena da oso. Eta Burgosen badira bestela karrerarik atera ezin eta sikiatrarengana joanez dabilzanak. Jokoa ez da bizio ona izango, baiña ainbesterañoko presumitu naiak ere ez du familira errenta aundirik ekarriko. Zer ikusteko ote gaude oraindik?!

Mundu onetan ez ote gaude
zintzoak ainbeste ero?
Griña txar eta mani gaiztoak
indarra daukate gero!
Sargiñak eta buruariñak
zer ote dute espero?
Zarragatikan ajola gutxi
dotore jantzi ezkerero.

Ezurra eta azala dute
okela baiño geiago.
Euren bururik ez dute maite,
lujoa askoz naiago.
Jaunari esker, neroni beintzat
oien inbiriz ez nago.
Aberats plantak zertako dira
sabela utsik badago?

1990eko maiatzak 18

Bizi geran arte guztian zerbait ikasten saiatu bear degu. Ez da au ain txarra izango. Geroz eta bizimodu zaillagoa dagoela esaten degu noiznai. Ori orrela baldin bada, eta errezago bizi nai badegu, zailtasunak gainditzen ikasi beste erremediorik eztago. Aurrera joan nai badegu, langa zabaldu bear. Eta zabaldu ezin badegu, gaiñetik salto egin. Baiña junturak erdoituta dauzkagula edo salto egin ezin badegu, zer?

Aurak gutxitzen ari dirala-eta bat edo beste esaten degu, baiña orain ere badira familia izan nai luteken senar-emazteak. Eta nai arren aurrik izan ezin duten matrimonioak ere badaude. Orain 30 urte, amar bikotetatik, amar parejatatik, bat bakarrak ez zuen aurrik izaten. Orain berriz, amar bikotetatik bi omen dira nai izan arren guraso izatera iristen ez diranak. Gizonezkoak eta emakumezkoak zer ikusi berdintsua daukate onetan. Beraz, ez dago iñori aitzaki ematerik. Orain 30 urte baiño bi aldiz senar-emazte geiago antzuak izatea, daramakigun bizimodu estu, larri eta naastuagatik dala esaten dute. Auxe da, ba, ezertarako astirik ez edukitzea. Aurtxo bat edo beste enkargatzeko lain denbora ere ez, alajaiña! Danetarako iritsi ezinda bizitzeak, erorialdiak eta aspertualdiak berekin izaten ditu. Orain modan dagoen depre-

sioa, alegia. Eta gaitz onek kalterik aundienak gizonetzkoetan egiten ditu, gaiñera. Eta, jakiña, orren ondorioak ezin onak zian.

Aurrik ez danean zeñi emango dio errietan emazteak, senarrari ez bada? Begira, aitzaki guztiak gizon gizarajoarentzat azkenean. Baiña emazteak ez du ori oso ondo egiten. Lanpetuta dagoen senarrak ez du aitzakirik bear. Eta ori baiño argumentu obeak dauzka emazteak senarra bere onera ekartzeko. Gaiñera, lau gizonetatik bat etxeko lanak egitea gustatzen zaiona izaten omen da. Bazkaria eta afaria prestatzen laguntzen duten senarrak asko dira, izan ere. Emaztea prestatzen ari dana proatuko dute, beintzat, besterik ez bada ere. Eta ori ere lagun egitea da, ordainetan morroxkadaren bat entzungo bada ere. Onelako senar leialakin estadistika luzea egingo nuke. Baiña ez daukat onetarako astirik. Gizonok ontziak garbitzeko afiziorik ez degu izaten. Egia da, baiña ori errez barkatzeko modukoa izango dala uste det.

Bizimodua ainbat zailterik
ez nuen uste sekula,
aurtxo bat edo bi ekartzeko
astirik ez daukagula.
Esan diteke danok alkarri
burla egin diogula.
Baiña bizitzak ez ote digu
guztiori egin burla?

Etxekoandreak ezin badio
iñori erritan ekin,
bere lanetan lagundu zintzo
bakarrik bizi ez dedin.
Umerik gabe nai bazenduke
konformatzea zurekin,
ontzirik ez garbitu baiña
morrontza isillik egin.

1990eko maiatzak 25

Sorgin kontuak leengo txorakeriak zirala uste nuen nik. Aztiak ere alde egin zutela emendik. Garai batean purgatorioko animak ere agertzen omen ziran. Leenbaileen zerura joan nai eta gauetan eta orrela azaltzen omen ziran, errezatzeko edo

mezak ateratzeko eskatuz. Sustoa pranko ematen zutela uste det anima gaixo aiek. Arrazoi ere bazuten. Zer kostatzen da, izan ere, purgatorioko animen alde aitagure bat edo beste erreztatzea? Ondo legorrak gera gu ere. Inpernuko deabruak ere egunduko bildurra sartzen zigun, leenago. Beti gu nola inpernura eramango ibiltzen dala esaten ziguten, eta deabruarekin ikaratzea ez da arritzekoa. Emen gaizki bizi gerala, baiña zeiniek nai du inpernura joan? Artaraiñokoxe bildurra zitzaion gure artean inpernuko etsaiari, eta berari erreztatzen ziotenak ere bai omen ziran. Ondo pentsatuta ere, gizonak egin egin bear du ori! Inpernura eramán eztezan, deabruari errezatu! Nere lagun batek ala esan oi zuen: “Jaungoikoak ez au inpernura eramango, bera zeruan zegok-eta. Utzi akiok ari pakean. Inpernura iñork eramatekotan, deabruak eramango au. Orregatik, berari erreztatzen zioat nik, inpernura eramán ez nazan”. Orain aiña etzan estudiatzen, baiña leenago ere baziran gizon bizkorrak.

Baiña begira gauzak nola izaten diran. Errezatzeari utzi zitzaiola uste genduen garai auetan, jendea Satanasi erreztatzen asi omen da. Leenago, Zugarramurdi eta orrelako lekuetan izaten ziran akelarreak aazteko moduko sorginkeriak. Orain Toledon, Baleares aldean, Andaluziako zenbait erritan eta abar, Satanasen eta Luziferren kopradikoak erruz ari omen dira ugalitzen. *Luziferren semeak*, *Belzeburen alabak*, *Satanasen emazteak* eta orrelako izenak dauzkate oraingo kofradi berri oiek. Eta batzuek sorginkeri zuriaren aldekoak dira, eta besteak sorginkeri beltzaren aldekoak.

A ze nolako Mariaren Alabak eta Luistarrak andregai edo nobio billa joateko ere! Ezjakiñak eta iñuxenteak omen giñan leenago. Alare, orain ainbeste dakikula eta deabrua adoratzen asi, alajaiña! Burutik zearo arindu baiño leenago bezela erreztatzen astea ez ote degu obe izango?

Ez al ditugu erabat nastu
inpernua ta zerua?
Esaten dute gure otoitzen
zai dagola deabrua.
Zoratu eta lepo gaiñetik
erori zaigu burua.
Ustez guztia genekian ta
auxe da deskalabrua!

Inpernu bildur orrek al gaitu
ortaraiño aztoratu?
Satan, Belzebu eta Luzifer
nola litezke ondratu?
Nola ditezke dana dezaken
Jaunarekin konparatu?
Santa sekula etsaiarekin
ez degu bear fiatu.

1990ko ekaiñak 1

Gu lotan lasai gauden bitartean komeri zelebrea pranko gertatzen da, orratik! Inglaterran 97 urteko amona bat auzitara eramane dute. Nik ez dakit urte oietara iritsita legea austeko zenbateraiñoko almenak eduki ditezken. Amonatxo ori indar guztiak joan gabe egongo zan nunbait, eta lanak ematen zituen. Ez det uste berari ere pake aundirik eman diotenik. Atso eta agure, gerrarik asko sortuak izan bear dute. Amona xaar orrek egundoko lo zurrunkak ateratzen zituen. Inglaterran, inguru-giro edo ambientea deitzen dioguna zaintzeko lege estuak dauzkate. Eta amona orrek lo zegoenean ikaragarritzko zurrunkak ateratzen, eta bizi-lagunak tribunaletara eramane, alajaiña! Etzituen berriketako zurrunkak aterako. Bizi-lagunen etxeetan ez omen zegoan lo egiterik. Eta bat baiño geiagok etxean obrak egin bear izan ditu atsoaren zurrunkak entzungo ez baziran. Obra oiek ordaintzeko dirua kendu nai diote orain amonari.

Epaillea bizkorra izan ordea, eta legea autsi zuela, baiña amonak ez daukala dirua eman bearrik erabaki du. Juez errukitsuak badaude oraindik ere, eta orri eskerrak. Bizi-lagun guztiak zearo aztoratuta zeuden lorik egin ezinda. Besteak beste, agure xaar batek amonaren lo-zurrunkak osasuna galtzeraiñoko kaltea

egin diotela bota dio epailleari. Eta naiko larri zan amona gajoa. Azkenean ere, estu artu zuten baiña dirurik eman gabe libratu da beintzat.

Inglaterrako erregiñaren semeak ere izan ditu onelako arazo eta gorabeerak. Nik uste nuen aundi jende ori bestek ez bezelakoa izaten zala. Baiña oiek ere gure modukoak izango dira. Carlosek beintzat bere emazte Diana esnatzeraiño lo-zurrunkak ateratzen zituen. Baiña ura ez izan ordea gu bezelako arlotea, eta apenas iñork auzira eraman duen. Ala ere, Lady Di anderea Carlosengandik apartatzeko zebillen otsak izan ziran, eta ia zan orregatik? Kontua da Carlosek billatu duela erremedioa: ortzak garbitzeko pastarekin sudurra itxita lo egiten du, eta emaztearekin pakeak egin dituela uste det. Lotara joan aurretik tipulaburu bat egosita jatea ere ona dala esan du. Baiña ez al dute alkarrekin lo egingo, bestela tipula usaiarekin izututa emazteak iges egingo dio.

Nik uste nuen aberats danak
edukatuak ziralara,
eta bastoak izate ori
pobreen kontua zala.
Esan diteke mundu onetan
berdin samarrak gerala,
eta erregin-semeak ere
lurrez egiñak dirala.

Carlosek dio tipula ona
dala zurrunkarentzako.
Ortik janaldi on bat eginda
prestatzeko lotarako.
Aurretik eta atzetik ez da
gero aizerik faltako.
Aristokrata batentzat ez du
usai gozoa botako.

1990eko ekaiñak 8

Basarritarrak eta basarri-jatorrikoak geranok badaukagu zer ikasia. Batzutan ikusi eta ikasi egiten da. Eta orain ikasi bearrekoa ikusteko, Japoneraiño joan bearke genduke ordea. Ori urruti samar egongo da guretzat. Kosta aldera edo

Arantzazura edo orrela naikoa izango degu guk. Noizean bein Donostitik joan-etorritxoren bat egin ezker, zertarako geiago? Lasai bizitzeak ez du gutxi balio gero! Euskalerrria baiño toki politagorik bai al dago gaiñera udan? Poltsaondo ona eduki ezker, Getari aldean-eta leku ederrak badaude, bai, or aurrera joan eta eguzkitan kiskaltzen ibilli gabe. Eguzkia nai duena joan dedilla belarrari buelta ematera. Iñun diran berriak jakiteko ez dago gaur atariraiño ere irten bearrik. Etxera bialtzen digute nai aiña berri. Danak ez dirala izaten guk nai bezelako zumua ateratzeko modukoak, or dago koska. Al dana eginda konformatu bear.

Gure basarritarrak kotta asko kontatu oi dute. Japonen, bei batzuk urrea balio duen aragia ematen dute. Eta orrelako beiaragi errazio batek –entzun ondo– 110.000 pezetatik gora balio du. Ez dago an kiloko txuleta eskatu besterik! Ango nekazariak beiei masajeak ematen dizkiete, eta edateko garagardoa, uraren lekuan. Zerbeza, alegia. Janpondar oiek diotenez, alkohola edanez azten diran beiak ura edan dutenak baiño aragi ohea izaten dute. Eta aragi orrek orregatik balio du orrenbeste. Alkoholarekin bustitako belarra jaten duten beiak aragi ohea izan bakarrik ez, gizendu ere askoz azkarrago gizentzen dira. Ez da, ba, ain erremedio zailla ere. Ez da ain pentsu garestia. Baiña Japonen ez da emen aiña ardo edango, eta orregatik naastuko diote zerbeza belarrari. Ori, garagarra eman bearrean garagarrarekin egindako ardoa ematea bezela izango da.

Ea, ba, baserritarrok pixka bat esnatzen geran. Leenbizi, masajista ikasi bear dezute, beiei masajeak emateko. Gero, alpapa, belar eta orrelakoei ardo puska bat naastu. Eun kilo ganadujatekok bost bat litro naikoa ditu. Dana dala, alkoholak esneari ezer egiten dion, orixe ez dakit. Gu ez gera japoniarrak eta leenbizi poliki ibilli beariko. Esnearekin mozkortzea triste samarra izango litzake.

Auek komeri arritzekoak
gertatzen dira munduan!
Nork esan bear zuen alkoholak
zenbat on egiten duan...
Beien janari nastu ezker
komeni zaion moduan.,
aizerik ere ez omen dute
beiak botatzen orduan.

Alkohol puska bat emanda beiak
nola ez errez mentendu?
Neke gutxikin naiko dirua,
onek poza ematen du.
Lasai bizi ta aragi ona
ardoaren truke kendu.
Animaliak izanagatik
nai ta ez bear gizendu.

1990eko ekaiñak 15

Arrazoiarekin edo arrazoirik gabe, sarritan kejatzen gera. Au bearrezkoa dala ere esan izan da. Izan ere, nolana konformatzen dana, beti bere artan gelditzen da. Alakoak ez du aurrera egiten, atzera baizik, deskuidatu ezker. Ez det uste gurekin orretarako arriskurik egongo danik. Aurreraka egiten badegu eta ez badegu, ez da izango kejatzen ez geralako. Eta protesta egiten ez degulako ere ez. Protesta modan dago orain, iñoiz egon baldin bada. Eta jokaera au bidezkoa izan diteke. Alare, gure aldean gaizki bizi diranak badaude mundu zabalean. Orrekin ez daukagula ezer? Egia da ori ere.

Egiptoko uri nagusian, Al Cairon alegia, atezai edo portero batek illean 3.000 pezeta inguru irabazten ditu. Iru semeren aita da, eta ez dakit diru orrekin zer jango duen famili ark. Atezai orrek orain ain modan dauden bideo oietako bat erosi nai zuen iñundik ere. Eta orretarako dirua bear, gizarajoak. Iru seme bazeuzkala bai, eta bat saltzea pentsatu zuen. Baita gizon bati seme oietako bat eskeiñi ere amabost milla duroan. Baina pobreak beti suerte txarra izaten ordea. Eta semearen erostuna polizia izatea gertatu. “Nere bizitza guztian eztet ezer arrapatu - esan omen zion poliziari -. Eta bideoa erosi nai banuen semea saltzea

beste erremediorik etzitzaidan gelditzen, jauna”. Baiña leengoak esan zuena: “Arrazoi daukak, baiña kartzelara joan bearko dek”, eta gure portero bideozalea ere itzalera eramán izan bear dute. Orra pobrearen arrazoa eta atarramentua. Nik ez det esango semea saldu nai izatearekin ondo egingo zuenik. Eta pekatu egin badu, eman penitentzia. Baiña berari bakarrik eta ondo begiratura eta gauza asko kontuan artuta. Zer kulpa daukate aren iru semeak, bera kartzelan dagoen arte aitarik gabe gelditzeko? Ori ez al da errugabeak zigortzea izango? Atezai ori kartzelan sartzea justizi egitea ote da?

Miseriak oker asko egiñarazten du. Miserian daudenak ez, baizik-eta al dutela miseria desterratzen saiatzen ez diranak sartu bear lirake kartzelan. Premian daudenak ez ote ditugu askotan zertan ari geran pentsatu gabe juzgatzen?

Esango nuke gauza bat dala
seguru edo ziurra:
bapo bizi dan gizaki ura
beti izan dala zurra.
Alde batera, aberasteak
eman dezake bildurra,
pobrearentzat nola daukagun
erruki orde z egurra.

Eten gabeko burruka ontan
arkitu nai degu mauka.
Iguin ematen badigu iñork
entzungo du gure zaunka.
Kontzientzian alea baiño
geiago daukagu auka.
Premian dagon gizarajoak
laguntasun gutxi dauka.

1990eko ekaiñak 22

Sanjuanak gaiñean ditugu oraintxe. Eta ainbat erritan jai eta festa egiten dan egunetan gera. Beste erriei ezer kendu gabe, baiña San Juan eguna urreratzen danean Segurarekin oroitzen naiz ni. Erdi segurarra eta aurtzaroan emen asko ibilia izanik, nola aaztu? Amaika aldiz Sanjuanak iristeko pozez

egonak gera. Guretzat erriko festak etziranik etzitzaigun iruditzen, noski.

Urte-sasoiak ere orrelaxe agintzen du, eta San Juan egunak beti izan du alakoxe alaitasun berezi bat. Bedeinkatzera eramaten ziran lirio xuri aien usai gozoak urteetan irauten du. San Juan egunez eguzkiak ere dantzan egiten omen du bere irteerakoan. Gure aurrekoentzat eguzkia Jainkoa bezela zan. Eta gure gorputza goxatuko bada eta lurrak berea emango badu, oso bearrezkoa da eguzkia. Jentillen denboran eguzkiari debozioa izatea ez da arritzekoa, bada. Leengo zaar aientzat, sua eguzkiaren irudia edo imajiña zan. Eta eguzkia goienean eta indarrean zegoanean, egun auetantxe alegia, bere ondran eta alabantzan sua egiten zuten. Orain San Juanetan egiten diran festak eta ospakizunak, oitura zaar aiek kristautzeko jarriak izango dira, seguru asko. San Juan bezperan sua egiteko oitura bera ere auskalo noiztik datorren. Ez al du merezi eustea?

Eguzkia adoratzea eta orrelakoak txorakeri iruditzen zaizkigu, baiña guretzat ere etziran ain gaizki etorri. Eguzkiari sua egitea asmatu zuten aitona aiek aiñako bazkariak egingo dira egun auetan Seguran. Baita Telleriarte eta beste toki askotan ere. Zenbait baserritan naiko artoa jan duten oillasko ankaluzeak ez daukate oraintxe denbora askoko bizia. Baserritarrak gauzarik onenak etxean jaten dituzte orain. Bazan garaia, izan ere. Eta poz ematen dit, egia esan. Orain ez dago gu engaiñatzen gintuzten bezela iñor engaiñatzerik. Eta iñor ez da jaikiko eguzkia dantzan ikustera ere.

Bestalde, leengo zaarrak eguzkia adoratzen zuten bezela, orain illargia adoratzen dute gure gazteak. Leenago eguzkiaren argiari nundik etekiña aterako, eta orain illunpea nola aprobetxatuko gabilta. Gauzak onelaxe aldatu dira. Baiña San Juan alaiak pasa itzazue guztiok.

Segurak badu edertasun bat
erri danak ez dutena,
ikusten duten danak betiko
biotzean daukatena:
bere inguru zoragarria
izar artetik irtena,
Gipuzkoako Goierrik duen
tokirikan politena.

Gure San Juan ez ote zaigu
lukur antzean portatu?
Aurtengo ontan bere eguna
igandez baita tokatu.
Egun bat edo beste bearko
asteari arrapatu...
Sanjuanetan au egitea
ez da izango pekatu.

1990eko ekaiñak 29

Oraintxe ez diogu ezeri pakean uzten. San Pedro bera ere endreatu degu azkenik. Alako egun aundia zan San Pedro eta San Pabloren eguna, eta astegun buruzuri biurtu degu, alajaiña! Polita pasatu zaio San Pedrori, edo polita pasatu zaigu guri San Pedrorekin. Zeruan dagoen atsoa seguru baldin badago, San Pedro ere ala egongo da, eta ez da alperrik galduko. Gu izan gera emen galeran irten geranak. Garai batean etzan, ba, gaurko eguna nalanaiko eguna izaten. Santu aundia zan San Pedro. Bere lagun San Pablo ere estali egiten zuen azkenik. Bien eguna izan arren, San Pedroren izena bakarrik entzuten genduen. Zeruko giltzak berak zeuzkala eta nundik ari losintxa egingo ibiltzen giñan. Aren egunean estuasuneko lanik ere etzegoen egiterik erriko bikarioaren baimenik gabe.

Eta orain zer? Badirudi San Pedro bera baiño geiago gerala. Jaiegun bat kendu digute, baiña zeruan zeukan kategoria ez al zuen galduko. Bestela gureak egin du. Zegaman bere ermitan errezatutako kredo aiek ere balioko al dute. Eta giltzak bere esku edukiko al ditu, eta atea jotzen diogunean ezagutuko al gaitu. Ez dezagun galdu itxaropenik. Baiña gauzak ainbesteraíño naastu ditugun mundu onetan baditeke larri samar ibilli bear izatea.

Frantziako emakume bat orain urtebete ildako gizonarekin ezkondu omen da. Pentsatu nolako lardaskeriak egiten ari geran. Beltzez jantzita joan zan larunbatez udaletxera, eta urrengo egunean, igandean, alargun ezagutuerazi, edo alargun deklaratu zan. Izan ere, deiak egin eta ezkontzeko egunetan zeudela il zitzaion senargaia. Eta andregai ez izan amutsa, eta senargaiak azken arnasa ematearekin batera il ondorengo ezkontza eskatu omen zuen. Frantziako legeak ontzat ematen dute ori egitea. Dana dala, bizitza guztian senarraren zakarkeriak sufritu gabe alargun-pentsioa edo zerbait kobratuko du eta, kaixo, motell! Eldu zaiozute ari mototsetik.

Orra nolako saltsak dabilzkigun. Leenago San Pedro eguna jai aundienetakoa, eta orain aste. Leenago, il arte alkarri laguntzeko ezkontzen giñan. Orain, bietako bat ildakoan ezkondu gintezke. Orrela ez dago iñori lagundu bearrik.

Aita San Pedro, zeruan sartzen
naiko lan txarra daukagu.
Ta giltzak zuri eskatu bear,
bildurra ematen digu.
Ez gaitzazula kanpoan utzi
atea jotzen badegu...
Zure egunez lan egitea
ez al da naiko kastigu?

Zuk badakizu ez gerala gu
langille amorratuak,
baiña gaurkoan lan egitera
izan gera beartuak.
Aita San Pedro, etzaizkiguzu
artu gaur kontu estuak,
penarik asko eman baitigu
jai osoa ez artuak.

1990eko uztaillak 6

Ez dakit neri entzuten gazte samarrik iñor egongo dan, baiña badaezpada ere oartxo bat egin nai nuke leenbizi: biar San Fermin eguna dala. Eta Iruñera joateko asmoa dutenak ez ditezela aaztu, beintzat.

Iruñera joaten diranak ase bat artuko dute, baiña joaten ez diranak ere festarik asko arkituko dute bolara onetan, batere umorerik edo zeregiñik badute. Ondo egingo dute gaiñera. Alkar ikusi eziñik eta erdi burrukan ibiltzea baiño obe da, bai, festan ibiltzea. Egun illunak batere eskatu gabe etortzen dira. Al duenak eta al duen arte ondo bizitzen danak asmatuko du emen. Festa kontuan neurritik pasatu ere egiten gera batzutan. Eta ori da txarra. Ezin, ba, geure burua errenditu eta gero kaskarrari atz egin bear. Erdoitzea baiño kastatzea obe da. Eta nola gazteak ala zaarrak, ez det uste kastatzen ez degulako erdoitzeko bildurrik daukagunik. Kastatu seguruago egingo degula iruditzen zait. Eta ondo joan dana ondo dago, eta festa edo bestelako, erdoitu gabe bizitzeko modua egin dezagun. Ezaguera edo esperientzia ere erretzen duen argia da. Erakutsiko badu, erre egin bear omen du.

Esperientzia ondo bearrekoa da, ba, gaurko munduan. Pixka bat erreko bagaitu ere, mundua ezagutu ezean lanak daude emen. Gazteak ez dira geldi egoteko onak. Eta orri esker, badaukate ezaguera ere, badaukate esperientzia. Galdeketa edo enkuesta batean, lau neskatatik iruk, mutillak arraroak dirala erantzun dute. Neskak gutxitzat dauzkatela. Eta laugarrenak esan du, berriz, mutillak geiegi edaten dutela, eta mozkortuta gero ez dagoela aiekin itz egiterik. Mutil guztiak berdiñak dirala gaiñera. Lau mutilletatik iruk, neskak oso itxiak eta lotsatiak dirala esan dute. Ala ote da gero? Neskak ere asko edaten omen dute eta festatan batzuk mozkortu ere egiten dira. Laugarren mutillak esan du, neskak geiegi edan eta geiegi erretzen dutela.

Naiko garbi itz egin dutela uste det. Beti ez da pazkoa izaten, eta festak bukatzean zuzenduko al dira. Nola mutillak ala neskak. Bestela, a ze nolako etorkizuna!

Neska-mutillak festarik-festa
or dabiltz trago ta trago.
Biarko aita-amak dira ta
bildurrez aidean nago.
Ainbeste alkohol edan ezker
ondoren onik ez dago.
Aita mozkorra txarra da baiña
ama mozkorra txarrago.

Gazte maiteok, bizitz onetan
bada lore ainbat sasi.
Emen oitura onak ta txarrak
azitzen baitira nasi.
Berandu gabe bear dezute
oiek bereizten ikasi.
Lan au biarko utzi gaberik
gaurtik zergatik ez asi?

1990eko uztaillak 13

Uzta jasotzeko garaia zalako jarriko zioten il oni *uztailla* izena. Leenago nolako uzta izango ote zan eta orain ondartz, festa, opor eta abar, udaren zirikaldiei nola eutsiko, urte sasoi onek ematen ditu bere kezka eta buruaustek. Umeak batetik bestera gelditu gabe ibilliko lirakenean, eta gurasoak neurriak artu bear, berriz. Zaarren eta gazteen arteko eztabaidak bukatuko diran itxurarik ez dago. Baiña ez dakit bukatzea ez ote dan obe izango. Beti festara begira egonda ez dago ezer. Badakigu. Baiña beti etxean egonda ere ez, ordea. Erdia billatu bear da. Eta erdi ori nun dagoen jakiteko, itz egin bear alkarrekin. Nola gazteak ala zaarrak temoso samarrak ere izaten gera, eta ortik etortzen dira karramarrak. Alaxe ere, bearrekoak dirala esango nuke. Gazteak zaarrei aurrera bultza egiteko izaten dira; eta zaarrak, gazteei azkarregi joan ez ditezen galga edo frenua emateko. Beraz, eztabaidak ez gaitu ikaratu bear. Alkarrekin ez asarretzea da emen bear dana. Eta nola lortu ori? Nola iritsi zaarrak eta gazteak elkar geiegi ez estutzer?

Orretarako ere amar mandamentu daude. Ona emen:
1: Aurrari ez eman eskatzen duen guztia, komeni zaiona bakarrik baizik.
2: Trakets itz egiten uzten bazaio, oso azkarra dala usteko

du. 3: Erlijiorik erakusten ez bazaio, okerreko bidera joko du. 4: Umeari, ala bear danean, “ori gaizki egin dezu” esaten ez badiogu, lapurretan asten danean danok bere kontra gaudela pentsatuko du. 5: Gauzak nunai botata uzten baditu, eta jasotzen erakusten ez badiogu, desordena orren errua berak ez beste danak daukatela usteko du. 6: Edozer gauza ikusten eta irakurtzen uzten bazaio, gorputza garbitzen badiogu ere anima loituta edukiko du. 7: Aitak eta amak umearen aurrean errietan egiten badute, dibortzioa gauza bidezkoa dala irudituko zaio. 8: Eskatzen duen guztia ematen bazaio, ez du pentsatuko dirua irabazteko lana egin bearra dagonik. 9: Ume gaizki azia ez da ezerekin konformatzen. 10: Umeak txikitatik zuzentzen ez dituzten gurasoak, bereak eta bi sufritu bearko dituzte.

Lanik ez dagoela? Gurasoentzat bai beintzat, eta ez gutxi.

Uste badute ere gazteak
ez dute jakiten dana.
Ai, gurasoak, oiek zuzentzen
zuek daukazuten lana!
Merezi arren iñola ezin
eman kaskarreko bana.
Ikusi zer dan txikitandikan
motz lotuak ez izana.

Gazteak beti udaran prestu
festa eskean asteko.
Baiña kontuak izaten dira
dana libre emateko.
Naizta saiatu festa bat ere
bildu gabe ez uzteko,
uzta orrekin ez dute, noski,
ganbara asko beteko.

1990eko uztaillak 20

Aurtengo uztailla ere badijoakigu bere egun luze, festagi-
giro eta guzti. Baserritarrentzat bere lanak baditu udak. Ala
ere, urte sasoi au ez dala izaten leenago bezin astuna eta neke-
tsua esango nuke. “Etortzea zeukak onera!”, esango du base-
rritarren batek. Izan ere, lanez ondo osatuta daudela esango

du. Eta egia da. Baiña alare, poliki moldatzen dira orain. Gari lanik ez daukate beintzat, besteak beste. Zenbat eta burua makurrago orduan eta ipurdia altuago, etzan giro izaten igi-taiarekin garia ebakitzen! Eta gari jotzea? Ura izaten zan ortik onerakoa! Autsa pranko gozatu bear izaten zan. Belar-zuloak bete samarturik edukiko dituzte onezkero. Eta etxeakoandreak ere ez dute orain ain uda aldrebasa pasatzen. Lixiba egin bearrik ez daukate, labesua egin bearrik ere ez, eta bizimodua zerbait erreztu zaiela esango nuke. Modan jartzeko eguzki kolorea artzera plaira joan bearrik ere ez daukate, azkenik. Ori ez al da suertea?

Senarrarekin batera bazkaltzera edo afaltzera norabait joaten diranean, pelukerian orraztu eta dotore jantzita ederki ematen dute. Noranai joaten dirala ere, kaletarren inbidirik gabe azaltzen dira gaur egun. Bazuten garaia. Perira ere kotxean joaten dira. Ala ere, ez det uste baserrietako etxeakoandreak alperkerian daudela eta deabruak tentatuko dituenik. Ezta komeni ere. Zuek jarraitu orrelaxe, zeuek uste dezuten baiño geiago balio dezute-eta. Amerikanoak diru asko edukiko dute, baiña guk aien aldean etxeakoandre onak dauzkagu.

Ameriketean bikote izugarri aberats bat dibortziatu omen da oraintsu. Emazteak kendu dizkio senarrari etxebizitza, kotxe eta iñun diranak. Atso deabrua senarra nundik zapalduko, alare. Zakur txiki bat omen zeukaten eta ura ere andreak eraman du azkenean. Juezari allegatu dio, zakurra berarekin oean lo egiten oitua zegoela eta berak bear duela. Zakur gaixoa oztu egingo zala bestela. Senarrari ainbeste kuri egin izan balio, etzuen dibortziatu bearrik izango. Sorgin arraioa! Senarra baiño zakurra maiteago, alajaiña! Senarra bera ere etzan Jesus izango, baiña zakurrarekin lo egiten duen emazte-gatik ere zerbait esan diteke, ba.

Txorakerien zale bazera
joan Ameriketara,
kapritxoz eta diruz beteta
dauden andre oietara...
Burutik sano dagon bat nola
jarri liteke ontara?
Senarra utzi bazterrera ta
txakurrarekin lotara...

Zenbait sorgiñen kasketaldiak
ulertzen ez da samurra.
Poltsak beteta baiña biotza
maitasun gabe zimurra.
Nola lezake iñork laztandu
alakoaren mutturra,
senarra baiño askoz geiago
maitatzen badu zakurra?

1990eko uztaillak 27

Ia gureak egin du! Etsi det oraintxe. Nik uste nuen moda berrien zaleak neska gazteak eta zaartu nai etzuten andreak eta oiek zirala. Baiña toki ederrean nenbillen! Gizonezkoak ere modara janzten dira eta moda urtero aldatzen da, gaiñera. Aurten ere azaldu da gizonezkoak janzteko moda berria. Baita ortarako dauden tokietan erakutsi ere. Modelo eta maniki edo oietakoak gizonezkoak ere badaude.

Azkenengo moda berri au emakumeak asmatua da. Ori ere ez nekien eta lasai bizi nintzan ni. Jakin dedan ezkerro kezkatzen asita nago ordea. Erderazko esaera batek onela dio, gutxi gorabeera euskeratuta: “artza eta gizona, zenbat eta itsusiago, orduan eta ederra-go”. Leenbizikoz entzun nuenean ez nion antzeman esaera orri. Artean gaztea izan, eta ezin ulertu nuen nola izan zitekean edo zer esan nai zuen. Baiña neska matxarda bati galdetu nion eta ark jarri ninduen jakiñaren gaiñean. Ez, noski, nere bizkarretik parra egin gabe. Nere malizirik eza ikusita gozatu ederra artu zuen sorgin arraio ark. “Gizonak danak ere berdintsuak zerate - esan zidan. - Baiña emakumeok ere baditugu geure kutiziak eta aldarteak. Mutil eder batekin irtetzen asten bagera, gu baiño sorgiñagoa danen batek pujatu eta ezer gabe gelditu gintezke. Ezkonduta gero ere gizon guapo oietako bat baldin badegu, beti bildurrez egon bear, norbaitek

engaiñatu ez dezan. Eta senargaia edo senarra artzaren moduko itsusia baldin bada, ez dago arriskurik”

Esaidazu neri sorgiña etzala? Eta geiago ere aren antzekoak izango dira, nik jakin ez arren. Ori ere bada, ba, malizia. Or ari-zen dira gizonezkoagatik bat eta bestea esaten, eta nobiorik edo senarrik gabe gelditu baiño itsusi bat arrapatu naiago! Ala, gizon itsusi samarrari eltzen diotenak politik engaiñatu ezin dutelako ote da? Or ere badago gero zer pentsatua. Leen ere esan izan det, emakumeak gure aldean bizkorak dirala. Gurekikoak errez egi-ten dituztela. Jantzi ere aiei komeni zaien moduan jantzi bear iza-ten degu azkenik. Noiz esnatuko ote gera?

Orra zenbat gauz jakiten diran
dakiten oiek esanik,
zer lezioak artu ditudan
jakintsu batek emanik.
Ezin dezaket esan ikasten
ez nula batere lanik,
ez bainekien zatar politik
munduan izaten zanik.

“Egi aurrean makurtu beti
burua eta sorbalda”,
dudarik gabe esaera zar
orrek badu bere salda.
Malizi asko zuenen batek
asmatua igual da...
Beste guztiak itsusitzean
norbera edertzen al da?

1990eko abuztuak 3

Oporretako kontuak esaten atzo goizean jardun giñala dirudi, eta ona emen berriz ere oporretan. Onelako atsedendialdiak onak dira, eta ontzat ematea izango degu onena, lanean eten gabe jardunda ere ez baigera aberastuko. Eta aberastuko bagiña ere danak emen utzi-ta joan bear ko genduke, gaiñera. Lanak eta nekeak petraldu ere egi-ten gaituzte, berriz. Orregatik, gauzak datozen bezela artu ditzagun, irabazian irtengo gera-eta. Baserritar batek ala esaten zidan bein: amaztearekin izaten zituen asarrealdi guztiak lana zala eta etzala iza-

ten zituela. Asarre ondorenak gozoak izaten zirala, ala ere. Eta orri eskerrak. Gu ez beste danak ipurdia jaso eta joan dirala eta ezin giza-txartuko gera. Etorriko dira atzera, bai. Utzi zuten soka emen egongo da, eta berriz ere ari eldu beariko diote bizimodua aterako badute.

Leenago etzala oporrik izaten eta orain bai, gu ez giñala onelaxe izan eta orrelakoak batere ez dute balio. Gure garai bateko udak guztiaren bearrekoak izaten ziran. Izardiarekin autsa oratu arte gari jotzen jardun, eta mandio zorua estaltzeko lain gari ez askotan. Andik amarrenak eta primiziak ordaindu bear, gaiñera. Leengo aitona zaar batek ala esaten omen zuen: “ogi zuria jango dik bikarioak, gureztat utzita igitaiak eta karduk”. Errotan laka utzi, konjuruak ordaindu, eta orra nolako porruaziak azkenerako. Apaiz aundi batek baserrian konjurua egin omen zuen, eta errezoak amaitu zituenean, onela esan: “zomorro oiek akabatuko ote dira, ba? Nik zapaldu ditudanak, bai”. Oraingo umeak garai onetan etxetik alde egiten badute eta ez badute, artu ditzagun gauzak alde onetik, pake santuak ere balio du-eta.

Komentuetan ere aldaketak ez omen dira bukatu oraindik. Ez txarrak izan balira. Orain illabete eta erdiko kontua da, baiña munduko futbol txapelketa ari zala, Italiako taldeak jokatzen zuen egunean, frantziskotarren komentu bateko nobizioak meditatiorik ez omen zuten egin, futbol partidua ikustearren. Gero, italiarrak irabaztea gertatu, eta txanpain eta guzti zelebratu zuten frailleak. Ori da bizitzen jakitea, ori.

Frailleak ere maite dituzte
noizean beingo oporrak.
Aientzat ere une guztiak
ezin, ba, izan gogorrak.
Gauzak patxaraz artu ditzagun,
ez izan egosgogorrak.
Noiz lana egin esango digu
berriz ere derrigorrak.

Ez ote gaitu geitxo kezkatzen
mundu ontan biarkoak,
ondo jakiñik esku zabalak
dauzkala gure Jainkoak?
Biarko lanak arintzen dira
ondo egiñaz gaurkoak.
Abuztu ona pasatu beintzat,
eta gero gerokoak.

Gaur San Lorentzo eguna. Santu onek esku batean sua eta bestean ura edukitzen du. Oiexek dira, izan ere, bi gauza bearrezkoak. Baiña alkarren etsaiak. Neurrian erabilli ezker, mesedegarriak dira, eta esaera orrekin gauza bakoitzari bere neurria artzeko esan naiko digu San Lorentzok. Erakutsi ona, batere jarraitu ezker beintzat. Askotan aaztu egiten zaigu ordea, eta orrekin izaten ditugu komeriak. Su artzen degunean nork itzali gu, gogora datozkigun danak esan arte? Suari indar aundiegia artzen asi baiño leen pazientzizko ur pixka bat botatzen bagene-ki, dana eginda legoke. Baiña ura bearrezkoa danik etzaigu gogoratzen. Okerra eginda gero konturatzen gera ura ere badala, eta askotan obe gendukela San Lorentzok bezela eskuan edukiko bagendu. Askotan ura joanda gero presa egiten degu ordea. Gizonik justuena ere egunean zazpi aldiz erortzen omen da peka-tuan, gutxienez. Guk ere noizean bein irrist egin bear, ba, beti zutik ibiltzen ez da emen erreza-ta. Gaizki egin digunari zazpi aldiz ez, baizik-eta irurogeita amar aldiz zazpi barkatu bear omen diogu. Ori egiten badegu, eta San Lorentzoren erakutsiari jarraituz, pakea izango degu gure artean. Badaukagu orretxen premia, eta Jaungoikoak nai dezala. Geran bezelakoak gera ordea, eta pake santua gugandik urruti dago.

Ipar Amerikako emakumeak gizasemez aspertuta, nazkatuta bizi omen dira. Esaten dutenez, gizasemeak nagiak, zurrak eta mixkiñak dira. Bere buruak bakarrik maite omen dituzte, eta danak gauza baten ondoren ibiltzen dira. Gauza ori zer dan jakingo dezute nik esan gabe ere. Joan daneko ogei urte onetan gizonezkoen eta emakumezkoen alkarrentzako estimaziorik eza asko ugaldtu da. Eta ez du Amerikara joateko gogo aundirik ematen onek. Ala ere ez dirudi ango emakumeak eskuan sua bakarrik daukatenik. Amarretatik bederatzik neskazaar baiño ezkondata bizi obe dala

aitortu dute. Leen bat eta orain bestea, ez da au ulertzen erreza. Baiña onek poz pixka bat ematen du, sikira. Baiña zeiniek asmatu emakumeak noiz daukan eskuan ura eta noiz daukan sua?

Ameriketean emakumeak
gizonezkoz aspertuta...
Geienak ala omen diote
iritzia eskatuta.
Ni arritu naiz ori entzunik,
nago ezin sinistuta.
Emakumeak diximulatzen
ederki jakiten du-ta.

Emakumeak indar dexente
nola duen mingaiñean,
nai duenean sua pizten du
ta jakiñaren gaiñean.
Gu bezin errez ez da erortzen
irrist leku labaiñean,
sua itzaltzen dakielako
gizonezkoak aiñean.

1990eko abuztuak 17

Abuztua ere goitik beera asi zaigu, ba. Goitik beera edo, erdia pasatutxoa du, beintzat. Ala ere, ez nuke esango tamaiña txarrear dagoenik. Erdiko trontxoa izaten da onena, eta abuztua oraintxe dago erdiko trontxoan. Oraintxe dago onenean. Eguzkia artu asmoz joan ziranak berotu batzuk artzeko astia badaukate oraindik. Zangoak eta belaun-koskorrak poliki beztuak izango dira onezkero. Eta beste amabost egun gutxi gorabeera, eta geroxeago ere, gona motxak modan izango dira. Alako eguzki kolore polita artuta, nola ezkutuan eduki, izan ere? Gauza bakoitzak bere garaia izaten du emen. Baiña joandako guztiak ez dira beztuta etorriko, seguru asko. Eguzkia dagoenean lo eta illargitan bere aziotxoak egindakoak ere izango dira, bat eta bi baiño geiago. Urrengo goizean amak errietan eman bildurrik ez, dana libre... Zer nai dezute geiago? Oporrak ortarakoxe izaten dira gaiñera. Etorritakoan egun pare batean naiko lo egin ezkerro, danak konponduko dira. Indarberritzeko ezer gutxi ere asko izaten dute gazteak. Ama emen egongo da, gaixoa, semea edo

alaba etortzeko zenbat egun falta diran kontatzen. Zerbaiten borroka antxa beti izaten da emen. Orixe da, ba. Geu nolakoak izan giñan edo gaztetan zer egiten genduen esamiña egingo bagendu, ainbeste komeri izango ote litzake?

Gazteei geldi egoteko esan edo zaarrei ibiltzeko esan, berdintsu da. Au ere kontuan eduki bear genduke. Eta beste gauza bat ere bai: umeak etxean, gure ondoan eduki nai ori zergatik izaten ote da? Umeei zerbait txarra gertatzea gurasoentzat naigabe aundia izaten da, eta naigaberen bat, disgustoren bat eramango ote degun bildur izaten gera, askotan. Guk disgustorik nai ez degulako, umeei disgustoak ematen dizkiegu askotan. Umeen ona nai badegu, leenbizi erakutsi bearrekoak erakutsi eta gero bere kasa ibiltzen utzi bearra daukagu, munduko berri ikasi dezaten. Umeak ez dago ankatik soka erantsita edukitzerik. Bateko ikasketak eta besteko esamiñak, estualdiak ere izaten dituzte, noski. Eta, ea, ba, oporretan pixka bat lasaitzen diran. Ea urteroko pazientzia biltzen degun.

Gazteen eta zarren artean
beti dira goraberak.
Orretara bultz egiten digu
guri edadeak berak.
Ez ditzagula gaizkitzat artu
gaurko gazteen irterak,
baizik gogoan eduki gure
gaztetako jokaerak.

Gazteak ere guk bezelaxe
badute zer eramunik.
Mundu onetan ez baita iñor
nai guztia dadukanik.
Baiña gazteak mundu txar onen
alaitasuna izanik,
ez ditzagula danak aspertu
lata geiegi emanik.

1990eko abuztuak 24

Santi Segurako, Pedro Mutilloko, Roke Gabiriko, Mari Zeraingo...Zer balio dute santu koskor oiek Zegamako Arbeleko jaun San Bartolome aundiarekin konparatzeko? Jaun San

Bartolome Arbelekoa santu aundia dala badakigu, baiña Zeraingo Mari bera ere zerbait izango da orratio! Gure erria eta gure erriko gauzak iruditzen zaizkigu onenak, eta alaxe bear du. Erria maite degula esan nai du onek, eta auxe da egin bear deguna: erri maitaleak izan. Batzutan, dan baiño geixeago esaten degula? Baditeke. Ala ere, ori barkatzeko moduko pekatua da. Zegama benetan erri jatorra da, eta zuek jarraitu orrelaxe. San Bartolome ere abonatu noizean bein, ark ere zerbait egin bear du-eta. Zeruan lasai egotea ez da naikoa, munduan ainbeste arazo eta ainbeste eratakoak dauden bitartean. Gure jaun San Bartolome santu festazale samarra izango da, seguru asko. Zegaman eta Gipuzkoako beste sei erritan beintzat, gutxienez ere, festa egiten da bere egunean: Amezketan, Bidanian, Elgoibarren, Itxason, Ibarra, Larrulen...

Besteei aitzaki ematen errez da, baiña ez dakit, ba, oraiñaldian San Bartolomek Zegamari geiegi laguntzen ote dion. Zumalakarregi ere an daukazute elizan. Ez ote du gure santu ori pixka bat zirikatzen, sikira? Orain 139 urte Etxegarateko kamiñoa egiñak ez omen zion Zegamari mesederik egin. Ordurarte Zegamatik pasatzen zan jende guztia andik joaten asi zan. Eta Arabatik, Naparroatik ta Espaiñi aldetik zetorren jendearen dirurik bildu ezin gero. Eta ostatu eta jatetxe asko itxi ziran Zegaman. Eta orra bere aurrean Espaiñiako erregek burua makurtzen zion erriari zer gertatu zitzaion. Orregatik esaten det San Bartolomek ez digula geiegi lagundu aspaldi onetan. Garai batean etziran gure errietan kanpotarrei sarrera ematearen aldekoak. Ez, ba, Zegamak kanpotik datozenak gaizki artu izan dituelako. Ezertan badira, ortan jatorrak eta argiak dira zegamarrak.

Bolada guztiak ez dira berdiñak izaten, baiña iñun lanik izaten baldin bada, zegamarrak aterako dira. Eta festatan ondo pasatu nai dezutenak, joan egun auetan Zegamara. Etzaizute damutuko. A, eta Aitzkorriko gurutzeari bisitatxo bat egin.

Mundu guztiak daki Zegama
txit erri jatorra dana,
iñor kanpotik etortzen bada
beretzat artzen duana.
San Bartolomez festa alaiak
nola egin dakiana,
baiña lanaren bildurra zer dan
aspaldi aztu zuana.

Danok dakigu mundu onetan
zegamar asko daudena.
Eta dabiltzan lekuan danak
itzal aundia dutena.
Jatortasuna izanik beti
oien doai nabarmena;
ugari baiña estimatuak,
au da seiñale onena.

Zegama ondo ezagutzen det
eta oso gaztetandik.
Orko lagun zar jator aiekin
ezin naiz aztu iñundik.
Or egindako parrandak ere
gogoan dauzkat oraindik...
Zegamar danak, biotz-biotzez
agurtzen ditut emendik.

1990eko abuztuak 31

Joan ziranak badatoz atzera, txangoaldia bukatuta. Ez da danentzat gaizki etorri. Lasai eguzkitan etzanda atsedenaldirak artutakoak badira aurten ere. Ezin esango dute ezetz. Artaraxe joango ziran, eta kutizia bete badute, on dagiela guztiei. Beste urte baterako indarberritu badira, orrek ere balio du.

Batetik bestera ibiltzea eta eguzki-kolorea artzea ez da gazteen kontua bakarrik. Zaarrak trasteak izaten dira. Eta, zaarrak ez det esango baiña urteetan zerbait sartuak ere ikusten ditut egun auetan egundoko dotoretua artuta. Batzuek geiegi beztuta edo eguzkitan kaskartuta baleude bezela ere bai. Dotoretu bearrean sorgin itxura artu dutela esango nuke. Leenaz gaiñera zimurtu

egin dirala. Gauza guztiak bere neurri batean izaten dira onak, eta eguzkia ere bai nunbait. Edozeiñentzat ere eguzkiaren ikutu txiki bat ez da gaizki etortzen. Baiña neurria artu bear. Eta bein urteetan sartu ezkerero, bi aldiz neurtu bear gaiñera. Aspaldiko lagun batekin topo egin nuen leengoan. Gaztetan neska polita zala gogoan neukan, baiña oraintxe ere ez dago aldrebasa. Ni ere ezin, ba, isillik egon, eta leenbiziko itzean zorionak eman nizkion. “Nik, onelako edo alakok ze moduzko gizona duen jakin nai dedanean, bere emazteari begiratzen diot. Itxura onean eta polita badago, esaten degun bezela, ondo kontserbatuta badago, seiñalea senar ona daukala. Zuk ere ezagun dezu senar ona daukazula, bestela etziñan zauden bezelakoa egongo. Gaur goizean zabaldutako arrosa ematen dezu-eta”. Eta etzidan gaizki artu. Baiña baietzik esan ere ez, ordea. Senarra, bai, Jainkoari eskerrak, ain txarra ere etzeukala esan zidan. Gizon onik bai al zan, ark bere burua berak zaintzen zuela eta orrelako batzuk esan zizkidan, irripar egiñez. Baiña baiezko garbirik esan gabe. Gizon ona eduki eta aitortu nai ez, leenengotik beintzat. Laiñeza artzeko gutxi bear izaten omen degu, eta gurekin poliki ibilli bear izaten da. Baiña etzan asarretu. Pozik gelditu zan. Izan ere, batetik senar ona, eta bestetik bera arrosa bat egiñik, zer geiago bear da, ba? Sorginkieri pixka bat? Eta ori ez duen emakumerik bai al da? Baita bear ere, gaiñera. Bizitzak gatz eta pipar pixka bat ere bear du.

Oporrak joan arren onekin
ez da guztia bukatzen.
Berriro ere badatozela
jarri gaitezen pentsatzen.
Asko oartu gabe gaiñera
nola ez geran esnatzen,
eta bertatik asi gaitezen
diru pixka bat sobratzen.

Opor oietxek egin erazi
oi dute makiña bat itz.
Baiña nik uste dedanez ontan
ain zuzen-zuzen ez gabiltz.
Iñorengantik bat eta beste
naiz esan amaika aldiz,
ainbat gauz polit nola ikusi
baldin oporrik ez balitz.

Leenago etzitzaizkigun gauza guztiak ondo irtengo eta orain ere ez. Onetan ez da izan aldaketarik. Okerrak zuzentzeko eran, edo arazoak konpontzeko eran, bai. Onetan pixka bat aurreratu izango gera.

Txirrita bertsolariari ere ez omen zitzaizkion gauza guztiak ondo irtetzen, gustora bizi zala esaten omen zuen baiña. Argiña izanik, etxetik urruti lana egin bearra gertatu zitzaion batean, baserri batean apopillo jarri zan. Eta bazkaltzera joan zan batean an ari zan baserriko etxeoandrea estu eta presaka bazkaria presatzen. Babarrunak egosten zeuzkan lapikoari begiratzeko makurtu zanean, nai etzuen edo bear etzan tokian ikutu zion Txirritak. Eta etxeoandreak, amorrubizian, eskuan zeukan babarrunez betetako burruntzaliarekin kopetaren erdian jo zuen, eta ezer ikusten etzuela utzi Txirrita gizarajoa.

Orain egun batzuk, Zaragozan, amabost urteko neskatxa bat obran lanean ari zan igeltsero batekin izketan gelditu omen zan. Txanbraren goiko poltsiko txikian boligrafoa zeraman neska orrek, eta ura kendu aitzakian-edo, ikutu zion igeltseroak. Amabost urteko neskatilla, Txirrita burruntzaliarekin jo zuen andreak bezelako besa-aiderik etzuen edukiko-eta, ez makala izan ordea eta salatu, denuntziatu eta amabost milla pezetako munta kendu dio igeltsero atzapar luzeari. Ez leenago eta ez orain, pakean dagoenari ezin pakean utzi askotan. Onetan ez dago aldaketarik, baiña begira emakumeak bere burua zaintzeko modua nola aldatu duen. Garai batean izan balitz, amabost urteko neska gaixoa an geldituko zan koloreak gorri-gorri eginda, lotsatan. Orain ez dago ordea orrelakorik. Geldi egon ezin diranak soseatzeko beste modu bateko burruntzaliak daude orain.

Senarra mendean edukitzen duten atso bargastak ere izan oi dira. Onetan ere badira aldaketak. Granja bateko atso zuztar

batek ala esan omen du bere senarraren aurrean: “gure etxean ez dago ikuilluan dagon astoa beste gizonik!”. Garai batean izan balitz, gizon gizarajoa an geldituko zan belarriak makurtuta, isillik, eskandalorik izan etzedin. Oraingoa dibortziatu egin da. Astoa ikuilluan gelditzen dala, eta arekin konpontzeko nai duen moduan esan omen dio emazteari.

Txirritak zirri egin ziola
noizbait etxekoandreari,
eta uste det geiago ere
dirala gaiztotzen ari.
Ondo entzun ta arrazoi eman
lengo esaera zarrari:
pakean utzi bear zaiola
pakean dagoenari.

Igeltseroa ere zebillen
dana libre zalakuan,
ikusten danez erreumarik
etzeukan arek eskuan.
Ikusten degun guztia ezin
sartu ordea zakuan,
ikutu gabe ere ez daude
gaizki len zeuden lekuan.

1990eko irailak 14

Ondo bizi izatera iritsi nai duenak beti aurrera begiratu bear omen du. Eta pasatutako kontuei pakean utzi. Baditeke ala izatea, baiña okerrago izanak gerala pentsatzea ere ez da beti gaizki etortzen. Ondo bizitzeko konformidade pixka bat ona baita. Tirriki eta tarraka, beti aurrera egin naiak egarria ere sortu dezake, gero! Aurrera eta gora egiteak nekea ere berekin izan oi du, eta nekeak egarria ere bai. Eta egarri ori gauza geiagorekin edo ondasun geiagorekin ezin baldin bada ase, argi ibilli. Ori ez da gustora bizitzeko lagun ona. Geroz eta obeto bizi naia arritzekoa ere ez da. Eta orrek nazio aurreratuei begira jartzen gaitu, askotan. Lanak errezteko makina eta gaiñontzeko tresnak aietan edukitzen dituzte, noski. Eta guk alako batzuk inguratuko ote ditugun, ba.

Onelako trepetxuak Japonen egiten dituzte asko. Eta azkenaldi onetan asmatu dutena, oso lan arrigarriak egiten dituen komuna omen da. Eta, “kontu kuriosoren batzuk esango zizkizuguk gaur!”, pentsatuko dezute, bearbada. Baiña ez estutu. Komun orren kontuak ez dira usai txarra botatzen duten oietakoak. Komun orretan lasai eseri eta bat bere lanak egiten ari dan bitartean, pixa, odola eta iñun diran guztiak analizatzen omen dizkio. Bear baiña azukre, edo koipe geiago, edo orrelakokorik eduki ezkerro, telebisioak bezelaxe pantaila batean erakusten du dana, norbera ezertara mugitu gabe. Orixe da komun leiala. Gaiñera, aldamenean zuloa dauka, eta an beatza sartzea naikoa da tentsioa artzeko. Nai izan ezkerro, tentsioaren eta analisiaren berri, paper batean idatzita ematen du gero.

Emen orrelako komunak bagenduzka, Tolosara edo Zumarragara joan bearrik ez genduke izango analisiak egiteko. Etxean eserialditxo bat egitea naikoa genduke. Alde ederra, orratio! Japoniar oiexek ez dira makalak. Baiña orrelako aurrerapenak eduki, eta alare egundoko txorakeriak egiten dituzte iñoiz. Dana ezin, ba, arrapatu nunbait. Aurki enperadorearen koroatzea ospatu bear omen dute. Eta 5.400 milloi pezeta kastatuko omen dituzte bestalde, jaiegunetan bere jainkoei jaten ematen, jainkoak goseak daudelakoan. Aurrerapen asko eta txorakeri geiago. Zer nai dezute?

Japondar oiek ez dira, noski,
oso gizon ezjakiñak.
Komun dotore eta apaiñak
omen dauzkate egiñak.
Baiña ez die asko luzitu
ikasi zuten dotriñak.
Asko jakin bai, baiña ez dana.
Badauzkate itokiñak.

Ain erlijio paltsoan daude
janpodar oien aziak,
mundu onetan igaro bear
egun latz eta gaziak.
Orra zer duan gizonarentzat
jainko faltsoen graziak.
Aieri jaten ematen bota
laneko irabaziak.

Eltzetik babak ateratzen dakien jende bizkorra badago orratio mundu onetan! Ain bizkorrak eta argiak izaten dira, baiña askotan gauzak bear bezela pentsatu gabe esaten dituztela dirudi. Asko dakiten oiek, geienetan beintzat, asko dezaketelako izaten dira jakintsu. Nai dituzten ikasketak egiteko modua daukatelako, eta ezin dezaketenik dala ere pentsatzen ez dutenak dira. Bere mundu orretan ain gora igota egoten dira, eta besteengandik ain urruti! Eta beean zer gertatzen dan ere ez dute jakiten askotan. Beste danak aiek bezela bizi dirala uste izaten dute. Eta batzutan arin samar itz egin ere bai. Ez det esan nai asmo txarreko pertsonak diranik. Esaten dituztenak eta ematen dituzten erakutsiak asmorik onenarekin egiñak izango dira, baiña ori ez da beti naikoa izaten. Eziñean bizi diranak ernegatzeko gutxi bear izaten dute. Itz egitean ori kontuan eduki bear litzakela uste det.

Amerikatik edo nunbait ortik etorri dan jakintsu batek esan du, ondo bizi diranak, diru asko daukatenak alegia, pobreak baiño geiago azten dirala. Ori esan eta lasai geldituko zan gaiñera, beste munduko zerbait esan edo iñork uste etzuen zerbait asmatu balu bezela. Industri asko dagoen naziotako jendea fabrikarik ez dagoen tokietakoa baiño geiago azten omen da. Altuagoa, garaiagoa izaten da. Nola ez, ba? Ez det nik esaten industrietako langille danak aberatsak diranik. Gutxi edo geiago, illaren azkenean diru berria jasotzen dute ordea. “Zorrak zor, lepoa lodi”, esaten dutenak izango dira. Baiña dirua eskuartean daukanak jan egiten du. Al duen ondoena gaiñera, eta jaten duena seguruago aziko da goseak dagoena baiño. Industririk ez dagoen nazio atzeratuetan ez dago orrelakorik. Jango bada, lurrari kendu bear, eta lurra ez du beti eta bear dan guztia ematen. Huelga egiteak ere ez du balio an, eta asteen bi ostiral pasatzen dituenak, ezin azi jaten duena bezin mardul.

Beste au ere esan du jakintsu orrek: industri aundietako zuzendari eta kargudunak bestelako langilleak baiño altuagoak izaten dirala geienetan. Zeintzuk ote daukate, izan ere, ondo jateko eta ondo bizitzeko aukerarik geiena? Garai batean baserrietan bezela, gaztaiñak jan eta porrusalda besterik gabe, zenbateraiño aziko ote ziran?

Zenbait jakintsuk arin antzean ez al dute itz egiten?

Naiko jana noiz izango duten asko daude itxogiten.

Goseak ez du iñor azitzen, au erreza da jakiten.

Au da jendea ari zaiguna itsuei argi egiten.

Mundu onetan danak ez daude jan geiegiz okituak,

baizik auleriz eta miseriz azi gabe geldituak.

Gorputzak erdi gaixorik eta motelak ispirituak.

Oientzat naiko jana sortzeak dauzka emen merituak.

1990eko irailak 28

Geienoi gutxi gustatzen zaizkigun lanbideak badira munduan. Kale garbitzaille edo barranderoena izango da oietako bat. Baiña ez det uste gaur egun lanbide au orain urte batzuk bezin gaizki ikusia dagoenik. Garai batean, gizonezkoak bakarrik ikusten ziran lan onetan. Iñork etzuen pentsatu ere egiten emakumezkoak kaleak garbitzen iñoiz ikusi zitezkeenik. Esan izan baligute ere ez genduen sinistuko. Ez, ba, garbitasun kontuan emakumezkoak gu baiño gutxiago diralako! Gure aldean beste pulamentu bat izaten dute emakumeak garbitasuna egiten.

Eta nola gizonezko ala emakume, bere lana txukun eta arduraz egiten duten kale garbitzailleak ikusten dira. Eta bere eginkizuna bear bezela betetzen duen pertsona beste edozein aiñaxe da, noski. Bere lantsaria, lana ondo eginda irabazten duena, ez da iñor baiño

gutxiago, eta ez dago zertan gutxitzat arturik. Langille oiek oso bearezkoak ditugu gaiñera, zikin artean itoko ez bagera. Zenbat gaitz eta izurri sortuko ote lirake garbitasunik egingo ez balitz? Makiña batek joan beariko genduke garaia baiño leen beste mundura.

Estimazio aundiegirik ez duen beste lanbide bat, lur emailleena, enterradoreena izango da. Oso gustagarria ere ez, baiña ondo bearrekoa orixe ere. Ez nijoa lanbide au geiago astintzera, bestela zearo tristetuko gera-ta.

Gauzarik arrigarriena da, bai kale garbitzaille eta bai lur emaille, bere lan apal eta illuna zintzo egiten dutenak izateaz gaiñera, pertsona alaiak izaten dirala. Galiziko erri aundi bateko lur emaillea, egun auetan jubilatatu omen da. Langille askok, jubilatzean lagunekin bazkari edo afari bat egiten duten bezela, gaillego onek kanposantuan dauden ildako guztiei erriko elizan illeta bat eskeiñiaz agur egin die. Lur emaille ori oso biotz oneko gizona da, esaten dutenez. Atsegiña eta umoretsua. Eta orra nolako lezioa eman duen. Zenbait kategoriko gizonek, zaartu eta erretxinduta gero ere lantegian jarraitzen dute mendeko guztiak aidean dituztela. Eta onelakoak izaten dute zeñek losintxa egiña. Nik kale garbitzaille eta lur emailleen gorantz zerbaite esatea pentsatu det. Ondasun asko dutenak bakarrik ez badira izaten pertsona onak emen.

Barrendero ta enterratzaille
danak alperrik daudenik
nik ez det uste kristau jatorrak
pentsatu dezaketenik.
Ezin ukatu oiek erria
zintzo serbitzen dutenik.
Iruditurik merezi aiña
esker on ez daukatenik,
ain gizon apal oien gorantzak
gaur egin nai nituzke nik.

Zalantzik gabe oso lanbide
apala eman zaizute.
Baiña besterik gabe lan orrek
ondraz betetzen zaituzte.
Zenbait gizonek ainbeste ospe
ta itzal ez daukazute...
Ala ta guztiz meriturikan
ez dezutela ez uste.
Ta erriaren eskerra ere
ondo merezi dezute.

Pertsona zertara jarri liteken eta noraiño erori diteken esaten ez da erreza. Santurik aundienak ere egiten zituzten utsegiteak. Izaten zituzten deskuidoak. Eta santuak ez geranok, askotan okerreko bidea artu edo bear ez diran gauzak egitea ez da arritzekoa izango. Baiña batzutan izugarriak egiten ditugu ordea. Marka guztiak austen ditugu. Basapiztirik biurrienak baiño biurriagoak gera, okerrera jotzen degunean. Batez ere ezin biziak eraginda, edo gauzak uste baiño okerrago irtetzen zaizkigulako etsita edo desesperatuta jartzen geranean, abererik basatienak baiño gaiztakeri aundiagoak egiten ditugu.

Abereen premirik nagusia naikoa jatea izaten da. Orretaz gaiñera premi asko ditu gizakiak, egia da. Baiña adimena ere badegu, eta zer dan ona eta zer dan txarra esaten digun kontzientzia ere badegu. Baiña geure ondo bizi naiarekin kontzientzi ori isilduerazi egiten degu ordea askotan. Eta orrek ondutzen gaitu.

New York-en etxeetako ondakin edo basurak xeezkeko kargua daukan gizon batek bere lanean ari zala ume baten negarra entzun omen zuen. Polizia ekarri eta deika asi ziranean, aur jaio berri bat arkitu zuten plastiko batean sartuta, makinaren barruan. Negar otsa entzutean gizon ark makina gelditu ez balu, antxe xee-tuko zuen, beste zabor guztiekin batera. Baiña onelakoak ez dira Amerikan bakarrik gertatzen. Bartzelona inguruko erri batean ere aur jaio berri bat aurkitu dute zabor pillan, negarrez eta plati-kozko poltsa batean sartuta. Ez dira egun asko au gertatu dala.

Aur oiek errukarriak izango dira, baiña bere umea zakarretara botatzen duen ama ere errukarria da, benetan. Ori egiten duena basatia edo salbajea dala, berari beste ainbeste egitea merezi duela eta orrelakoak esatea erreza da, baiña ori egin zue-nerako nola ote zegoen ama gaixo aren barrua? Zerk gogortu ote zuen bere biotza orrela? Lotsak? Bildurrak? Etsimenak?

Erliziozko sentimentuak erabat baztertu ditugu, obeto izango geralakoan, baiña ez det uste asmatu degunik. Erlizioak langa asko isten dituela eta keja giñan. Eta orain erlijioari uko egin diogu, baiña itxi bearrekoak itxi eta besteak zabalik uzten ditun ordekorik ez degu arkitu.

Lenago esan izan da alkar
jaten zutela Afrikan,
okerragoak egiten dira
emen eta Amerikan.
Aurrak basuran usteltzen utzi
ta gu igesi korrikan...
Gizatasuna galdu degu ta
ez lotsaren izpirikan...
Kontzientzirik ere ez baiña
ezin erosi botikan.

Gaurko gizarte ontan ez dakit
ote dagon errukirik...
Nola diteke aurtxo bat bota
zabor artera bizirik?
Biotzak arri biurtu ditu
orrenbeste gaiztakerik.
Otsoak ere ez du azkenik
jaten bere aragirik.
Munduan bai ote da gizona
bezin pisti basatirik?

1990eko urriak 12

Ama Birjiña Pillarekoaren eguna. Eiztariak begiak argi edukiko dituzte. An ez bada emen, edo emen ez bada an, mendi ton-torrek izango dute gaur estimazioa. Izan ere, usoak pasatzen gaurko egunez asten dirala pentsatu izan da. Siniskeria edo orrelako bat da au. Onuzkero joandako usoak izango dira, eta oraindik etorri gabeak ere bai. Usoak, atzo, gaur, biar eta andik joaten dirala esan oi du nere lagun batek. Eta arrazoi duela esango nuke. Usoak ipurdiko asko ematen baitute. Leenago ematen zituzten beintzat, eta orain ere emango dituzte.

Eiztariaren itxaropena ere luzea izaten da ordea, eta segi egin bear aspertu arte. Eizerako griña ere denborak eramaten du, beste griña asko bezelaxe. Denbora maixu ona dala esango

nuke nik. Gauza asko erakusten duena, alegia. Zenbaiten eredu, ikasbide, argibide eta, esan oi degun bezela, esplikazio guztiak baiño geiago da denbora gauza batzuk gure buruan sartzeko. Ez naiz erlijioaren kontrako, egia esan. Baiña erlijioaren aitzakian txorakeriak ere dexente esaten zitzaizkigula uste det, garai batean. Oraindik gogoan daukat Ama Birjiña Pillarekoaren koadro baten barrenean nola jartzen zuan: “Bedeinkatua izan bedi Pillareko Maria Santisima gorputzez Zaragozara etorri zan ordua”. Au aundi samarra izango da, orratio! Ez det uste Ama Birjiña Zaragozara bizi-bizirik etorri zala sinistu bearrik egongo danik. Gerra denboran ere mirari otseko bat gertatu zan Pilarikaren elizarekin zer ikusi zuena. Gorriak ain ziran gaiztoak, bi bonba bota zizkioten Andre Mariari. Baiña gobernuaren aurka jaiki eta gerrara atera zutenak ain ziran onak, bonbak etziran lertu. Oraindik urte asko ez dirala antxe zeuden bonba oiek Pilarikako elizan.

Zeintzuk diran onak eta zeintzuk txarrak, norberak ez baiña besteak esan bear dute. Ebanjelioak ere onela esaten du: fruetetatik ezagutuko dituzue. Orregatik esaten det nik uso eizearekin geiegi ez txoratzen denborak erakusten duen bezela, zenbait txoro-esani jaramonik ez egiten ere denborak erakusten duela.

Zenbaitentzako ez da besterik:
 miraria emen ta or.
 Eta fedea galtzea ere
 askotan ortatik dator.
 Obe litzake zuzen jokatu
 egia esanez, jator.
 Gauz danen berri garbi esanez
 engaiñatu gabe iñor.

Esan zaizkigun danak sinisten
 ez daude ain lan samurrak.
 Eta gaiñera fedea ez du
 gorde erazten bildurrak.
 Txorakeriak sinistarazten
 naiz ta urratu zintzurak,
 denborarekin bere burua
 erakusten du gezurrak.

Etsai txikirik ez omen da. Ez dirudi, ba, etsai txikiak kalte aundirik egin dezakenik, baiña sarritan entzuten da esaldi ori eta egia izango da. Ustez etsai txikia danarekin ere kontu aundia edukita obe. Esate baterako, sagu bakar batek ez dirudi pikardi aundirik egin bear duenik. Baiña alare badira saguari bildurra diotenak. Bildurra edo iguia, edo ez dakit zer. Baiña sagua ikustean garraisika asi eta silla gaiñera azkar igotzen bat baiño geiago ikusia naiz. Oraintxe entzuten dagoen etxekoandre edo neska gazteren batek orren berri jakitea ere ez litzake batere arritzekoa izango.

Saguak lotsagabe samarrak dira. Erregeren salan ere paseatu egiten duela esan oi da, eta ortik pentsatu. Ortarañoko ausardia duen sagutxo batek gona motz samarrez jantzita dagoen bati sillaren gaiñera igoeraztea ez da milagro. Sagua atzamarka egiñez zangoan gora abiatutako balitz, ez litzake giro izango. A ze nolako estuasuna orduantxe!

Austriako aideportu batean gertatua da. Jendez beteta ibiltzen diran egazkin oietako bati irten aurretik begiratu bat ematen asi ziran, eta sagu txiki bat zebillen eserleku artean. Arrapatuko zutelakoan asi ziran, baiña ez zegoen ari eskua erantsiko zion ankabikorik. Eta sagua an zala egazkiña ezin abiatu ordea. Deskuido santuan konturatu ez balira, eta egazkiña lainoetaraiño igo eta gero norbaiti gonapetik gora igotzen asi balitzaio, an izango ziran komeriak! Ura izango zan istillua eta aiek izango ziran garraisiak! Batzuk korrika iges egin eziñik eta besteak eserlekuen gaiñera igo naita, an armatuko zan iskanbillak egazkiña erortzeko arriskuan jarri omen zezakeen. Arduradunak ere bildurtu ziran, eta zepoa jarri eta sagua gosetu eta zepoan erori zan arte lurrean egon bear izan zuen egazkiñak. Sagu kaskar batek 49 milla kilo pixatzen dituen

egazkiña zortzi orduan lurrean geldi edukierazi zuen. Ez da berriketa.

Ezin esango degu saguari bildurra diotenak txoroak diranik.

Jaunak, ez dira errezak neurtzen
sagutxoek pikardiak!

Ain xebreak baitira oien
aldarte edo aldiak...

Zeiñek eduki lezazken oien
abildadien erdiak!

Ain pisti kaxkar eskasak eta
orren pikardi aundiak.

Esango nuke saguak oso
lotsagabeak dirala:

beti kiribil nundik egingo
dabiltz nola edo ala.

Aitortu bear au gonadunak
bildurtzeko lain badała.

Nork esan neri zeraindarrak ain
atrebituak zirala?

1990eko urriak 26

Umeak eta mozkorrak egia esaten omen dute. Maitasunean azitako umeak beintzat baietz esango nuke. Egia esaten dutela. Aur batek, lepo-lepotik eldu eta gurasoari ematen dion musua baiño egi aundiagorik ez dakit izango ote dan. Aurra arrazoirik gabe zigortzen badegu, edo estu artzen badegu, eta bildurra sartzan badiogu, orduan uzten dio kezkarik gabe egia esateari. Orduan asten da gezurra esaten. Izan ere, zigorrari iges egitearren, edozer gauza.

Eta zer esango degu mozkorrari buruz? Alkoholaren eragiñez, ona eta txarra bereizten ez dituela jartzen baldin bada, burura datorkiona datorkion bezela esatea ez da arritzekoa. Bein batean, gizon bat kattuerdikoan pasatuta zegoen bere lagun bat zirikatzen ari zan. Lagundu bearrean, burla egiten. Eta mozkortuta zegoenak onela esan omen zion: "Pobre arroa aiz i. Eta pobre arroa baiño txarragorik etzegok!". Ez da gezur aundia. Norbera ezer izan ez eta besteri burla egin bear, alare.

Pobre arroak ez dira onak izango, baiña aberats arroak ere ez dira alaja onak izaten. Berak goiko maillari eusteko besteak zenbat eta beeragoan edukita naiago. Ipar Amerikako presidentearen emazteak esan du, artarako gauza diran emakumeak ejertzitoarekin batera gerrara bidali bear dirala. Andre ori ez da pobrea izango, baiña ez oso umilla ere. Ark badaki bera ez dala joango gerrara, eta beste batzuk joan arren gutxi ajola. Nik dakidan batzuk bezela, koartelean sartzean illea zero moztu, urte luzeetan goseak akabatzen soldadu egon, eta andik libratzean goian zerua eta beean lurra besterik gabe gelditzea zer dan jakin balu, etzan soldaduzkaren alde egongo, seguru asko. Andre ori ez da, ba, ia ume-umea izango. Baiña ume denbora pasatu gabe egongo da oraindik.

Mozkortzeko ere alkohol bearrik ez da izaten batzutan. Ondo bizitzeak eta nai duen guztia edukitzeak ere burura igotzen dute, berriz. Eta gogora datorrena plasta!, esan eta or konpon. Zeiñen esana sinistu norberak pentsatzea izango da onena. Ama batek ala esan omen zion mutikoari:

– Mutill, mutill. Nik emandako piku danak jan al dituk? Ezta anairekin akordatu ere?

– Bai, ama. Akordatu naiz. Nik piku danak jan baiño leen etorriko ote zen bildurrez egon naiz.

Neroni beintzat ez nau poztutzen
zenbait atsoren jardunak.

Arin samar itz egiten baitu
errukirikan ez dunak.

Soldaduzkarik ez degu maite
zer dan probatu gendunak,
guk ez degu an ezer galdu ta
joan bitez dirudunak.

Nagusientzat aragia ta
mendekoentzat arbiak,
a ze nolako aldea duten
janari oriek biak.

Aundizkieri buruz esanak
dira txit egi garbiak:
danak besteren buztanarekin
kentzen dituzte elbiak.

Azaroan sartu gera. Atzo Santu guztiak ondratzen jardun giñan. Nola ezagutzen ditugunak ala ezagutzen ez ditugunak. Gure borondate onaren arrastorik gabe gelditutako santurik ez al da izango goi alde orretan. Danekikoa egitea komeni zaigu, bada-
ezpada ere.

Gaur animen eguna degu, berriz. Animaren bat premian egon liteke eta saiatu gaitezen gure laguntza apurra eskeintzen. Al deguna egin dezagun beintzat. Leengo aldean merke irtezen da orain animen alde lana egitea. Erresponstosorik atera bearririk ez, elizara ogi eta olatarik eraman bearririk ere ez. Lanak ainbesteraíño erreztu zaizkigun ezkerok, besterik ez bada, aita-gure bat edo beste erreztatu bearko degu, ez da neke aundia-eta. Bein azaroan sartu ezkerok eguraldiaren segurantzia miruaren buztanean egoten omen da. Nola portatuko ote zaigu, ba, azaroa? Izen onek negua gertuan dala esan nai du. Eta bildur pixka bat ere ematen du. Eguraldiari ez dago emen beetik ezer egiterik, eta ez kezkatu geiegi. Nai duena egin dezala. Gaiñera, nolako eguraldia egingo duen esateko, or dauzkagu Arantzazuko Pello eta Donostiko Usabiaga. Oiek emango digute aize, laiño, eguzki, euri, elur eta orrelako guztien berri. Eta batzutan asmatzen dute beintzat. Entzun dezaiegun arretaz, oiek ere alegiña egin ezkerok geiago ezingo dute, eta zer esango diegu? Esaera zaar batek dionez, “ plazako neska ederrak eta azaroko izarrak azken berdin samarra” izaten dute. Dakigunez, azaroko izarrak iraupen gutxi izaten dute. Laster ezkututzen dira laiño artean. Neskatzaren edertasuna ere denbora gutxikoa izaten dala esan naiko du esaera onek. Leenago ala izango zan bear bada, baiña ez nuke esango gaur ala danik. Izarren etsaiak laiñoak diran bezela edertasunaren lagunak osasuna eta bizitza garbia dira, batez ere.

Osasun gaietan asko aurreratu degu. Neska ederrak ziranak andre eginda ere egoki askoak ikusten dira orain. Bear aiña lo egiten ez duen pertsona garaia baiño leen zaartzen omen da. Laiñoak izarrak bezelaxe, zaartzeak estaltzen du edertasuna. Gaupasa eta orrelakorik egingo ez balute, zenbait neska gazte azaroko izarrak ez, baizik eta garagarrilleko eguzkia izango lirake.

Lagun maiteak, mediku jaunak
orra nola diran mintza.

Kontseju onak ematea da
jakintsu oien langintza.

Naiz azaroan egin elurra
euri, izotz edo intza,
aze loak egingo nituzken
neska gaztea banintza!

Denbora baiño len zartu eta
gauz onik ez dago emen.

Orrelakorik gerta ez dedin
neurriak artu lenbailen.

Gazterik arras zimurtu eta
gelditu gabe nabarmen,
utzi gaupasak alde batera
zimurtzen asi baiño len

1990eko azaroak 9

Gaizki asi eta gaizki bukatu. Orrela esan oi da. Oker dabilena bazterra jota gelditzen dala ere esaten da. Ez da dana gezurra izango. Zintzo jokatzeari utzitakoak ikusi oi dira okerreko bidetik abiatu eta bizitza gaizki bukatzen. Ikusten dira zituzten ondasunak zaindu etzituztelako miserian bizitzen. Alkoholari, jokoari edo lizunkeriari emanda zearo narrastu eta bere denbora guztirako ondatuak ere aurkitu oi dira or-emen. Era guztietako porruak azten dira munduko baratza onetan. Eta diru asko edukiarren zorionik ez dutenak ere ikusten dira tokian-tokian.

Ipar Amerikako gizonik aberatsenari ere orrelako zerbait gertatu zaio. Diru asko eduki, baiña kutizi asko ere bai. Eta danak bete ezin berak nai bezela. Porno esaten zaien pelikula

berde oietakoak egiten zituen artista batekin ezkontuta zegoen. Gaztea zan artean oso polita izango zan artista ori. Baiña ura ere zaartzen asi ordea besteak bezelaxe, eta urteak etorri ala edertasuna joaten asiko zitzaion, seguru asko. Berrogeita bat urte dauzka emakumeak. Ez da, ba, ain zaarra, alde batera. Baiña bere senar aberatsarentzat usaia egiten asita egongo da. Kontua zera da, beintzat: dibortziaztea erabaki dutela. Batek nai aiña diru, bestea emakume ederra. Zoriontsu bizi besterik ez, baiña ezin. Orra nolako aterramentua, azkenean. Leenago ezkontzeko tratua egingo zuten. Orain dibortziazteko tratua egiten ari dira. Eta bakoitzak zenbat balio duen erabaki bear, eta komeriak orain. 71 milla milloi eta geiago eskatzen dizkio artistak dibortzetzegatik. Ondo zainduta edo, esan oi degun bezela, ondo kontserbatuta egongo da, bearbada. Baiña erakutsi bear diranak eta ez diranak erakutsita ere bai. Balio ote du orrenbeste diru?

Artista orrek badaki zaarrago eta gutxiago balioko duela. Itxura onean dagoen artean diru asko eskatzea pentsatuko zuen. Ura bai bizkorra! Amerikano gizarajoak berriz beste ala moduzkoren bat begiz jota edukiko du. Eta kutizia beteko badu, poltsa zabaldu bear, berriz ere.

Aberats orrek badu
kopetan azala.
Kutiziak betetzen
dabil egiñala.
Baiña esan bear ain
bizkorra ez dala.
Aragia garesti
erosi zuala.

Naiz artixta azaldu
argi eta alai,
urtetan aurrera ta
ezin bizi lasai.
Dirua nun zegon len
artu zuen usai...
Orain zartu baiño len
tratua egin nai.

Danok dakigu japondarrak nolako langille zintzoak diran. Eta ain dira ugariak gaiñera, bizitzeko bear aiña toki ere ez omen daukate. Lanerako bezela beste gauza batzuetarako ere fiñak dira oiek, ikusten danez. Dauzkaten aurrerapenak ikusita, jende ikasia edo asko dakiena izango dala dirudi. Baiña jakintsu batek ala esan omen zuen bein: “ainbeste ikasi eta ainbeste dakit, nere buruari antzeman diot ez dakidala ezer”. Uraxe zan gizon apala. Ura bai zala arrokeririk gabeko gizon umilla. Japondarrak ere asko ikasiak dira, eta asko dakite. Baiña badute oraindik menderatu ez duten ikasgai bat: ondo bizitzen ez dute ikasi oraindik. Aien ilusio guztia lana egitea da. Lantegiari itsatsita bezela bizi dira. Eta aien ametsa, gorputzari dituenak ateraerazi arte lana egitea da. Orrezaz gaiñera agintariei debozio geitxo dietela uste det. Eta bere enperadorea ez daukate saltzeko.

Agintariak zintzoak diranean erria aien atzetik joatea ondo dago, baiña gauza guztiak dute bere neurria. Japongo mendietan egundoko zuaitz landaketak egin dituzte. Zuaitz asko, arbola asko aldatu dute. Eta datorren maiatzean joan bear du enperadoreak nolako lanak egin dituzten ikustera. Berri onek ez dirudi gauza berezirik esaten duenik, baiña gertatuko zuaizti berri orren ondoan zerri-granja bat omen dago. Eta zerriak usai txarra botatzen, berriz. Eta japondarren estuasunak, ba, enperadorearen sudur sakratuak zerri usairik gabe nola libratuko dabilta. Eta, zer asmatuko eta nik ez dakit zenbat kilo zerrauts ondo perfumatu eta usai gozodun zerrauts orrekin zerriei azpiak egitea erabaki dute.

Orra japondarrak nola joaten diran punta batetik bestera. Enperadoreak zerri usaia aditzea baiño milloiak kastatu naiago. Ez al zan obeko enperadoreari zerri usaia sentitzen uztea? Orrela ikusiko zuen zerri usaia nolakoa izaten dan. Dabilen lekuak usai gozozko perfumez igurtzi ezker, berriz ere ez du jakingo langi-

Ileak nola bizi diran. Eta zerri zaintzailleak an ibilli bearko dute beti perfume usai berdiña sudurrarren puntan sentituaz.

Zerriak eta zerritegiak
oso txukunak ez dira;
jende dotore samarrak ez du
egon nai oiei begira.
Norbaitzuk orko usaiarekin
nazkatzen baldin badira,
enperadore jauna ekarri
zerriak dauden tokira.

Japonen ere iñork ez du nai
txerri usairik aditu.
Eta sudurrak istearekin
ez degu bear arritu.
Aki-Hito jaun orren erriak
ez dauka zertan sufritu,
zerritegiak palazioaren
ondoan jartzen baditu.

1990eko azaroak 23

Leenago ere aizeak alde askotatik joko zuen, baiña bai oraintxe ere. Leenago gertatzen zana zan, etzegoela pentsatzen zan guztia esaterik. Bateko pekatu zala eta besteko etzala kome-ni, esaten zigutena entzun eta isillik egotea izaten zan onena. Batzuek sinistuko zuten. Beste batzuek ez, bearbada. Baiña ortik aurrerakoan arazorik gabe konpontzen giñan. Orain beste alde bateko aizeak jotzen gaituzte. Batzuek leengo kontuak sinistu zale dira. Beste batzuek, ez. Dotriña dala edo Itun Zaarreko edo Berriko kontuak dirala, ezer esaten al da orain? Bakoitzak bere iritzia emateko ere askatasun osoa dago. Orain ez dago pekatu-rik, leenago eztakit zer izango zan baiña. Leenago entzun izan genduen Jainkoak Adanen saiets ezurrarekin egin zuela Eba. Eta alaxe izango zala eta buelta geiago eman gabe lasai bizi giñan. Ori sinisteak kalte egin omen digu ordea. Bartzelonako epaille batek ala esan du. Bear bezelako gizon izatera iristen ez diran batzuek beti norbait mendean eduki nai izaten dute. Eta oiek uste izaten dute emakumea gizonaren ezur batekin egiña dala, eta

gizona baiño gutxiago dala. Eta geiago ere esan du epaille orrek: itxura gabeko siniskeri ori desegiten ez bada, emakumea gaizki tratatzen duten gizon kaikuak beti izango dirala.

Historia Sagrada esaten zitzaion liburu txiki bat bazan gu eskolan ibilli giñanean. Liburu artatik ikasten genituen Adan eta Ebarenak, eta orrelako kontuak. Geure buruaren kalterako jardun ote giñan, ba, ikasten? Agintzen zigutena ondo ikasten ez bagenduen kaskarrekoen bat edo beste ere artu bear izaten genduen. A ze nolako porruaziak atera genituen, gauzak orrela badi-
ra. Leen esan dedan bezela, alde askotako aizeak astintzen gaitu. Zer sinistu bear dan eta zer ez esaten ezin asiko naiz esaten. Nik dakidana da, izan ere, Adanen saietsaren eta Ebaren kontuak sinisteak ez diotela iñori kalterik egin. Orregatik ez dagoela emakumea errespetatu eziñik. Ori sinisten ez duten guztiak santuak ote dira? Gizonezkoak eta emakumezkoak alkarrekin ondo konpontzen bagera, ura da sinismenik onena. Bai orixe.

Zenbait gizonek iñola ezin errenditu bere griñak, abere biurtzen ditu iñor errespetatu eziñak. Ez dakit oiek diran gaiztoak ala diran ezjakiñak, edo itxuraz gizonak baiña asto aragiz egiñak.

Arroa danak iñola ezin izan bizimodu ona, beti asarre dago laguna zapaldu nairik dagona. Aulago dana gaizki tratatu, ori ez da zoriona. Indarrez iñor menderatzeak ez du egiten gizona.

1990eko azaroak 30

Zer esaten ari geran ondo pentsatu gabe itz egiten degu askotan. Oitura ori leengoak ere bazuten, oraingoak ere badaukagu eta gure urrengoak ere izango dute, seguru asko. Iñori

gaitz egiteagatik ez degu orrela itz egingo. Baiña arin samar, bai. Uste ez degula kalte egiteko moduan ere bai, batzutan. Gure mar-marra eta maixiatzetik gutxik iges egingo dute. Guztien epaille gerala esan liteke. Beste guztiak zer egin bear luketen badakigula. Nai duten eta ez duten guztientzat dauzkagula erakutsiak. Geuk zer egin bear degun, orixe ez dakit ote dakigun. Ainbesterañoko zaletasuna degu besteren etxeak gobernatzeko, Eliza eta elizgizonak ere ez dira libratzen gure kritikatatik. Alare, oitura au ez da gu bezelako arloteena bakarrik. Zenbait politikoren artean ere zabaldua dago. Sinismena aintzakotzat artzen ez dutenen artean, batez ere. Eliza gizonak osatzen degu, eta zertan edo artan utsegitea ez da arritzekoa. Elizgizonak ere anka sartzeak egin dituzte eta egingo dituzte berriz ere. Utsegiteak eta anka sartzeak egiten dituzten danak ez dira txarrak ordea. Elizgizonei leporatu izan diegun aitzakieta-ko bat agintariekin ondo egoteagatik gauzak garbi ez esatea da. Egia esateko bildurra, alegia.

Baiña pasatako kontuak gogora ekartzen baditugu, ez dago esaterik dana gezurra danik. Elizgizon guztiak ez dira ordea Franco palio azpian erabiltzearen aldekoak. Eta au ere esan bear da. Danak ez dira bildurtiak izan. Gipuzkoako Gotzai Setien jaunaren itzak ondo ausnartzen baditugu, laister konturatuko gera neurri-neurriko ausardiz ornitutako gizon prestuak badauzkala Elizak. Estaduak esaten duela danok ondo bizi bear degula? Baiña ortarako bear dan alkartasunik ez duela azaltzen esan du Setien jaunak. Eta ez nunai esan ere. Madriden, Escorialeko Unibertsidadean esan du.

Kapitalismoari ere esan dizkio esan bearrekoak. Nik ezin dezaket gure Gotzai jaunaren itzaldi guztia emendik eman, baiña Madriden ark itz egin duen bezela itz egiteko ez da edozein egiten. Egia bildurrik gabe esaten dakiten gizon jakintsuak badauzka Elizak. Oietako bat, gure Gotzai jauna da.

Kontseju asko artu arren guk
nola ditugun bakandu,
era orretan ezin diteke
mundu biurri au landu.
Zuzen jokatzeko asi gaitzen,
oraindik ez da berandu.
Nai dunak entzun gure Gotzaiak
egia pranko esan du.

Maixiatzeko nola erdoirik
ez daukagun mingaiñean,
pentsatzen degu moral gaietan
gaudela danen gaiñean.
Naiz esker txarra artu Gotzaiak
egiaren ordaiñean,
zer egin berak esango digu
politikoak aiñean.

1990eko abenduak 7

Abenduan sartu gera, eta urtearen azkenengo illean geundela uste nuen nik. Baiña au ere ez omen da, ba, orrela. Benetako urtea ilbeltzean ez, baizik eta abuztuko oporrak bukatzen diranean asten omen da orain. Pentsatzen jarri ezker, alaxe dala esango nuke. Garai bateko urtea eliz funtzioak eta soroko lanak agintzen zuten bezela izaten zan. Baiña elizkizunetatik iges egin degu. Ez degu aitortu nai, baiña elizara joan bearrak bazituen bere etsedenalditxoak. Baita auzokoekin kontuak esanez egonalditxo batzuk egiteko aukerak ere. Ama Birjiña Sortzez garbiaren bederatzaurrenari esker, zenbat kontu potxolo esaten ote zuten garai bateko neska-mutillak? Ama Birjiñaren aitzakian makiña bat illunabar goxo pasatako gazteak izango ziran, bai. Biar da Ama Birjiñaren eguna. Baiña nun ote dira leengo kontu aiek?

Baserriko lanak beste modu bateko komeriak sortzen zituen berriz. Azia ereiteko eta izaten zan uzta apurra jasotzeko, beti eguraldiari begira egon bear, kakotik zintzilik bezela. Garai aiek joan ziran ordea, eta orain egiten degun lan guztia lanik ez egiteko egiten degula esan diteke. Asteleen goizean jaikitzen geranetik larunbatigandekin ametsetan asten gera. Astean egin bearreko lanak itsu-mustu batean egin eta ostiral illunabarrera ezker, jai.

Abendua etorri da, eta Gabonetako oporralditxoan noiz iritsiko gaude. Baiña ainbesteraiño zaletasuna sortu zaigu jai egiteko, eta une oiek arrapatzeko egundoko zalapartak egiten ditugu. Eta orrek bizimodua mikaztu egin digu. Bizimoduak artu duen martxak erotu egin bear gaituela eta gizartelari edo soziologoak zearo kezkatuak gaude. Asteburuan egun pare bat baserri edo mendietxeko pakean pasatzeak ez du iñor asetzen, eta erri aundietako bizimodua atsegiñago bihurtu nai da. Erri aundietan obeto bizitzeko modua egin, alegia. Bizkorrak izango dira, baiña ori egin nai dutenak artu dute puska baterako lana. Ala ere, lasaiago bizi izan nai onek badu leen etzuen lagun bat: emakumeak etxetik kanpo lana egitea. Eta gizonezkoen aldean bizimodua patxaraz artzen dute.

Esaten nuen nik emakumeen aldean zakarrak eta traketsak gerala gu. Baiña emakumeak bere buruen jabe izateak baditu bere gorabeerak. Gure lagun kuttun oiek gizonezkoak aiña izatera iritsi ala, geroz eta dibortzio geiago izango omen da. Komeria da auxere. Beti bada emen zerbait.

Bere txanponak izan dezazke
lana egiten duanak,
ta eskubide oso politak
dira diruak emanak.
Au diotzuet, agindu naiak
nola ditun bere lanak:
diruarekin ez arrotzeko,
etxekoandre laztanak.

Atarramendu onik ez degu
gizonok andre gaberik.
O, emazteak, etzaiozute
iñori egin kalterik.
Dibortziatu eta ez dago
senarrari agintzerik.
Eta zuentzat ez dago iñor
gu baiño morroi oberik.

1990eko abenduak 14

Gizartea gizonezkoak eta emakumezkoak osatzen degu. Beraz, gizarteko kontuak-eta munduan eta gure artean gertatzen

diran gorabeeren berri emango bada, gizonetzkoen eta emakumezkoen jokaerak aipatu bearra dago nai eta nai ez. Batzutan ez al dira kontu zelebreek izaten gaiñera? Gizonok emengo nagusi, jaun eta jabe geu bakarrik bagiña naiago genduke, baiña ezin izan ordea. Erlakiztena irtetzen dan bezela emakumea ere irten egin da, eta lepondoan irtetzen dan erlakiztenak bezelaxe burua makurtuerazi digu. Kaskar gogorak nola geran, berebiziko desosegua ematen digu, gaiñera. Emakumeak nunai sudurra sartzen dutela gaur, eta ez gera konforme. Edozer lan egiteko gu aiña dirala, eta kezkatu gaude. Guk aiña edo geiago agintzen dutela, eta onek kaskarreko azkurea ematen digu. Aurki emakumeen mende gerala eta bildurrez airean gaude. Badaukagu naiko lana oraintxe!.

Alare, ez genduke ainbeste kejavu bear. Askotan obe genduke isil-isillik egongo bagiña. Jaungoikoari eskerrak eman bear genizkioke gaiñera Euskalerrian jaiotako. Nik jakin dedanez, andreak gizonak gaizkiena tratatzen dituzten lekua Santander omen da. Edozein emaztek sekulako astinduak ematen omen dizkio senarrari. Tratu txarra ematen diotelako emaztea salatzen duten senarrak geroz eta geiago dira Santanderren. Guk berriz munduan diran emazterik onenak dauzkagu eta ala ere ez gera konforme. Zer nai ote degu ba? Basoerdiak artzen ibilli eta esandako ordurako etorri ez geralako pasada bat edo beste emango baligute, zer esango ote genduke? Eta alkartean lagunekin egon eta ordu txarretan etxera etortzen geranean? Aurpegi illuna jarri digutelako edo ipurdia eman digutelako kejavu izaten gera. Santanderko andreak bezela astindu bat emango baligute, errukarri giñake, leenaz gaiñera. Ondo bizi nai badegu, ez degu zintzoak izatea bezelakorik. Epaille edo juez edo dalakoak ez dizkigute etxeko arazoak konponduko.

Koarta denporatan gelditzen dan eguraldiak iru bat illabetean irauten omen du. Eta oraintxe gaude kuarta denpora oietan. Biar azkenengo eguna. Ea, ba, gaurtik zintzotzen asi eta gure formalidadeak iru bat illabetean bederik irauten duen, sikira.

Santander alde ortan andreak
ez omen dira zapuzten,
senarrak ondo menderatzeko
agallak nola dituzten.
Gureak ere asiko dira
aurki biboteak uzten...
Askoren faltan ez gaude baiña
ea zuzentzen gaituzten.

Emazte batek baldin badauka
naiko jenio berua,
dudarik gabe zuzenduko du
bere etxe ingurua.
Senarra ere zintzotu bear
naiz izan txoriburua.
Ta aingeru bat dagon etxea
nola ez izan zerua?

1990eko abenduak 21

Gauza askok alde ona eta alderantzia izaten duten bezela, egunak ere alaxe dituztela esan diteke. Gabonak berealaxe ditugu eta batzuk pozik egongo dira. Gabonak baiño leen neguan sartzen gera ordea. Biar, ain zuzen ere. Ez al du onek bildur pixka bat ematen? Batzutan ondo portatzen bada ere, negua ez da gero oso santu santua izaten.

“Iru lo egin eta Gabon”, esango dute aurrak. Olentzerori eskariak egingo zizkioten eta etorri artekoa luze egingo zaie, ezpaitakite oraindik denbora zein den azkar joaten dan. Zaarrak “neguan gera”, esango dute. Neguaren orde z udaberria etorriko balitz naiago izango luteke, baiña etsi egin bear. Orrek ez baidauka erremediorik. Orra, ba, egun auen alde ona eta alderantzia. Ala ta guztiz ere, ondo joan dana ondo dago eta Gabonak guztiontzat etortzen dira ondo. Osasun pixka bat bear. Gertatzen dana da Gabonak, gau onak, egun kaskar samarra ekarri dezakela eta kontu pixka bat eduki bear. Neurria artu bear, nai duena egiten duenak nai ez duena sufritu bear izaten baitu askotan. Egunduek famili dana bilduta bata bestearen pozean ospatzeko izaten dira, batez ere. Kanpoan bizi diranak ez dira kantua esaten duen bezela *gaztaiña ximelak jatera* eto-

rriko. Zenbat etxetan usadioari eusteko, azak eta koliflorak jartzen dituzte. Ez dira orrekin bakarrik geldituko. Izango dira jaki obeak ere eta edariak zer esanik ez. Onetan asko aurreratu degu, zorionez.

Baiña familiko giro gozo eta epel ura ez al da naikoa aaztu? Bateko droga eta besteko gogorkeria, emengo iltze eta orko lapurreta, bizitza trakets onek ez ote dauka zer ikusirik famili askoren ondamendiarekin? Ona emen zer dion, gutxi gorabeera, New York-en gotzai izendatu duten legazpiar batek: “Droga, jendea moral aldetik ondoezik edo gaizki bizitzearen ondorioa da, eta ori, familiaren muiña autsi edo ondatu dalako etorri da. Gaitz oiek mundu guztira zabaltzen ari dira, eta erein degun azi txarraren fruitua laister bilduko degu”.

Gabon edo Olentzero, familian alkartuta igarotzeko egunak badatoz. Ez dago gauza guztiak leenago bezela egin bearrik. Ezta zaarrak esaten dutena bakarrik egin bearrik ere. Aurak baserritar jantziko dira eta aitona eta amona an egongo dira etxean, zai. Gazteak dira beti etxetik igesi eta parrandan ibilli gabe familiko muiña eta gozotasuna zaindu bear dutenak. Gabonetan beintzat nai litzake zerbait egin. Ea, ba, nola portatzen diran.

Gaurtik egun gutxira
gera Gabonetan,
ainbat maite ditugun
une gozoetan.
Maitasunaren billa
bagabiltz benetan,
arkitu dezakegu
gure sendietan,
pakean bizi diran
etxe guztietan.

Entzun Jesus aurtxoak
esaten diguna:
pakea da zerutik
eskeintzen zaiguna.
Maitasuna izanik
gozo ta biguna,
pakearen bitartez
iristen deguna.
Billa alegintzeko
da Gabon eguna.

Pake billa bagabiltz
danok borondatez,
maitasuna lortuko
degu bide batez.
Gauz oberik munduan
ez da nere ustez.
Entzule maite danak
ongi izan bitez.
Ta zorionak Gabon
eguneko partez.

Etxe asko naita ez
egon bear triste,
etxeokak pakerik
ez baldin badute.
Zorionik izango
dutenik ez uste.
Eta batak bestea
ezin berriz maite,
familikoak alkar
artzen ez badute.

1990eko abenduak 28

Garai bateko judutarrak gaiztoak omen ziran. Herodes ere etzan zuzena izango. Jesusek erregetza kenduko zion bildurrez, Belen eta inguruko aur guztiak illerazi zituen, Jesusi ere bizia kenduko ziolakoan. San Jose eta Maria Santisima alkarrekin ondo etortzen ordea, eta orri eskerrak salbatu zuten Jesus aurr, bizirik. Aingeruak San Joseri Egiptora iges egiteko esan zionean Mariak kontra egin balio, etzuten gauza onik egingo. Emazteak senarrari beti ezetz esateko oitura izan balu, Jesusek nozitu bear-ko zuen. Guraso onak zeuzkan ordea, eta orri eskerrak.

Beste aurrak etzuten suerte aundirik izan. Gaiztakeriak egiteko lain ezaguera etzeukatelarik, errugabeak, iñuxenteak izan, eta zeruan ederki daude orain. Aiek iltzeko agindu zuen Herodes nun ote dago? Eskolan ibilli giñanean judutarrak gaiztoak zirala esaten ziguten, geu besterik ez bezelakoak bagiña bezela. Onak izateko besteak gaiztoak izatea ez da ordea naikoa. Beraz, ona ez dana besteak txarra izateak ez du onduko.

Nik ez dakit gaur eskolatan zer erakusten duten, baiña gure artean Herodes asko dagoela esango nuke. Eta Herodes bera

bezin gaiztoak edo gaiztoagoak, gaiñera. Jakin berri danez, Donostian atso zaar batek bost urteko aurra uda ta negu terrazan edukitzen omen zuen, iges egin etzezan lepotik soka erantsita. Bere gurasoak, txakurak eta katakumeak azten omen zituzten, saldu eta dirua irabazteko.

Bilbotik gertu, berriz, lau urteko umea joka il du bere aitak. Orra Herodesen ondorengoak Euskalerrian. Mexikon aur bat sekuestratu eta giltzurdin bat kenduta bidali dute etxera. Eta Egoamerikan bai omen daude gantzak edo koipeak kentzeko pertsonak iltzen dituztenak. Gure txiki denboran bildurra emateko esaten ziguten *sakamantekas* aien kontuak orra egi biurtu.

Beste alderako kontuak ere entzuten dira, eta gaitzerdi. Errusian aza kirtenarekin izugarrizko birtuteak dituen botika asmatu dute. Tentsioa, erreuma, katarroa eta orrelako gaitz danak sendatzen ditu botika orrek. Aza kirtenak egundoko salmenta izango duten otsa dago. Jende asko ari omen da aza kirtenak konjeladore eta poteetan sartu eta gordetzen.

Urte berria emen
degu derrepente,
ez da iñuxente,
urte zarra bukatu
dala mediante.
Jun dana nola zaigun
portatu dexente,
datorrenean ere
egon nai presente.
Ea irauten degun,
bada, danok tente.

Eta guk ikustean
urte bat joatean
beste bat atean.
Ez al da arrituko
eskean astean?
Zoriona eskatu
guztiok batean;
ta ematen badigu
eskuak betean,
eskertuko diogu
datorren urtean.

1991

**Ilda gero
danok onak**

1991ko urtarrillak 4

Zer moduzko asiera eman diozute urte berriari? Jai asko samar izan dala-ta, aje antza edukitzea ez da arritzeko izango. Baiña al daneraiño disimula dezagun, bestela antzemango digute-ta.

Urte berria, bizimodu berria, esan oi da. Zerbait berria eta ohea egin nai izatea bidezkoa da, baiña beti ez da errez izaten. Neri gauza batek ematen dit pena: egiten didazuten arrera ona ikusi eta zuek merezi dezuten bezin lan ona egiteko talenturik ez izateak. Ori ez da dendan erosten, izan ere. Eta jarraitu egin bear-ko al dedana egiten.

Mundu onetako bizimoduari begiratzen badiogu berriz, beti izaten da emen zerbaiten egarri antza. Kejatzea gurea degu. Alare, batzutan beintzat miñarekin negar egiten degula ere aitortu bearra dago. Ainbeste buruaste ematen digun gure Euskalerra onetan, geroz eta geiago dira gurasoekin batera kon-forme bizi diran gazteak. Gure gazteak ez daukate aitaren eta amaren ondotik aldegitako irrika berezirik. Bere buruaren etsai izateko ez dago ikasi bearrik. Orain gazteak asko ikasten dute, eta orregatik konturatuko ziran gurasoen ondoan nolako paotxa daukaten. Aitak dirua ekarri dezala, amak egin ditzala etxeko lanak eta, kaixo mutil! Azaletik begiratuta ala dirudi, baiña egi-tan orrela ote da? Gazte jator askoak badaude. Nunbait lana egiteko aukera baleukate eta dirua irabazteko modua, ez luteke etxean traba aundirik emango. Lumaz estaltzean kabitik alde

egiten duten txorien antzera joango lirake etxetik, nun edo an kabi berria egitera.

Gauza geiago ere esaten da gazteei buruz. Etxean dauden artean, aitarekin baiño amarekin obeto konpontzen dirala. Ez da arritzekoa. Oraingo gazteak dakitenarekin, nola ez diote, ba, antzemango amari bigununeak nun dauzkan? Ai, amaren biotza! Baiña aita ere geroz eta geiago maite omen dute, eta ez da ezer. Ezkontzea pentsatzen dutenenan neskatxaren edertasunari begiratzen diote, batik bat. Ederki egiña. Oraingo neskatxak mutillak aiña ikasi eta dakitenak dira. Orrezaz gaiñera, politak izan ezkerro, zer geiago bear dute?

Urte berria, bizimodu berria. Aukeratu berriak ditugun agintariak gazteentzat lana eta etxebizitzak sortzen saiatu ditezela eta orduan izango du indarra esaera zaarrak.

Gaurko gazteak kabi berria
baiño zarra maiteago.
Familieta orrelakorik
etzan izaten lenago.
Ezagun da, bai, badakitela
zer komeni dan geiago:
aita ta amaren ondoan bezin
toki onik ez baitago.

Orain zar eta gazteak asko
bizi dira alkarrekin.
Dirudienez guztientzako
etxerik ez da Euskadin.
Baiña gerora gauza onikan
ez datorkigu onekin.
Sendi berriak bear baitira
arraza galdu ez dedin.

1991ko urtarrillak 11

Naparrak dirala jenio berokoak? Italiarrak ere ez dakit, ba, oso txukunak ote diran jenio kontu orretan. Sizilia deritzaion ugartean gertatu omen da. Senar-emazteak bazkalondoko loalditxoa egitera joan ziran. Berogaillu edo kalefazioa edo dalakoa indar aundi samarrean eduki nunbait, eta emazteari

beroak ez zion uzten lo egiten. Zer asmatuko eta ez dio, ba, senarrari kirikil egin, gajoak!? Senar baikua asarretu, berriz, eta kutxilloa sartu omen dio emazteari, bizkarrean. Gizon astapistola samarrak badaude mundu onetan, orratio! Emaztea bein egongo umore onean eta jolasgurearekin, eta orrelako kirtenkeria egingo zion, ba, Jainkoaren izenean? Ez dauka berriz emaztea tenple orretan arrapataturik. Emazteak matxardak dirala eta orrelakoak esaten dituzte. Baita izan bear ere zenbait gizonekin. Nundik losintxa egingo eta zintzo ibillita ere naiko lan izaten da, eta astakeriak egiten dituzten gizonak ez dute emaztearen irripar goxorik merezi. Emazteak ez dituzte gero senarrak noiznai laztantzen. Orrelako aldarteak banaka-banaka arrapatzen dituzte, eta orduan erantzun txukuna eta maitasunez betea eman bear du gizonak.

Esker onekoak izaten saiatu bear degu danok. Ala ere lanik asko izango degu, bai. Beti ez da erreza izango, baiña alegiñak egin beintzat, ea goxotasun pixka bat inguratzen degun nundik edo andik. Pake santuan bizi geranok kejavu egiten gera. Zer esango ote genduke zenbait familitan bezela alkar ikusi ezinda bizi bagiña? Munduaren erdiak ez daki beste erdia nola bizi dan. Eta ez jakitea obe, askotan. Alkarri pazientzi pixka bat artzen saiatu bearra dago emen. Eraso datorrenean petraldu gabe eutsi eta onaldia datorrenean, aprobetxatu ondo. Bestela jai dago. Kiribil egin digutelako otsoa bezela ez jarri beintzat. Une alaiak geure esku dauzkagunean eltzen ez jakitea, edo eldu nai ez izatea baiño zorakeri aundiagorik ez dago egiterik. Gogoratu bertso zaararak zer dion:

Urte bat edo bi igarotzeko alkarrekin munduan
ez det agure zarrrik nai nere onduan.

Ark bai zekiela bizitzen. Ark bai zeukala bizitzeko ilusioa. Izan ere, bizitzeko ilusioa bear da. Eta kutxilloak gorde txuletak erabakitzeke.

Guztiok ondo bizi nai eta gabiltz alkarri bultzaka, beti zerbaiten egarriz eta atsegin billa aztarka.

Mundu onetan une gozoak izanik oso banaka, aprobeztatzen ez dakienak barkaziorik ez dauka.

Andre-gizonak alkartzen ditu alkar maite izateak.

Ta maitasuna sendotutzen du bata bestea pozteak.

Orretarako borondatea baldin badu emazteak, eskertzen ez dakiten senarrak bai dirala arloteak!

1991ko urtarrillak 18

Gizona ez da metroarekin neurtzen. Gorputza bai, baiña anima ez beintzat. Ezta neurtuko ere. Animako birtuteak nola-koak edo zenbateraiñoakoak diran, alako balioa eman bearke zaio gizonari edo gizakiari, emakumezkoak ere kontuan eduki bearra dago-eta. Gizonezkoari baiño balore gutxiago ematen zaio emakumeari. Ori oso kontu zaarra da. Badakizute nazio-tako eta munduko miss aukeraketak nola egiten diran. Ipurtaundi samarrak eta orrelakoak ezin, ba, aukeratu; eta politenak zeintzuk ziran erabakitzeke metroa bear izaten zan garai batean. Gerriaz goitik 90 zentimetroko ingurualdea bear zan eduki. Txukun samar esateko, gerria baiño beeraxeagoan ere bai, eta 60 zentimetro gerri-bueltan. Gerri me-mearekin eta erlearen tankerako gorputza zutenak aukeratzen zituzten miss izateko. Ortik pentsatu metroak zenbateraiñoako zer ikusia izango zuen. Baiña orain aldaketak dira, ikusten danez. Gorputzeko edertasunari ainbat begiratzen zaio animari. Eta miss leiaketa bat irabazteke leen maillako edo klase onekoa izatea bear-bearezkoa da orain. Italian orrelako aukeraketak antolatzen dituztenak ala diote beintzat.

Itxura danez, neskarik politena bada ere, ezjakiña edo klase txarrekoa baldin bada, ez du balio. Zenbat edertasun daukan bakarrik ez da kontuan artu bear. Nolako pertsona dan ere bai. Ori da balio duena. Errez ulertzeko moduan esanda, kantidadea ez baizik-eta kalidadea bear da miss izateko. Bestalde, aukeratua izateko, ibiltzen ere jakin bearra dago. Ibillera egokia eta ankaje txukuna ez dauzkanak jai izango du. Baiña... ibiltzen bakarrik ez, egoten ere jakin bearra dago. Nun eta nola egon ikasi egin bear. Zer tankeratakoa dan eta nolako estiloa daukan, ortxe omen dago koxka.

Andregaiia billatzen lanak izango dira emendik aurrera. Begi ederrak eta gorputz lirain eta egokia ez dira naiko. Eta, neska-txari nola antzeman nolako anima daukan edo klase onekoa ala txarrekoa dan? Gorputzeko edertasunak erakusten dituzten bezela animako doaiak erakusten saiatuko al dira, bestela makiña bat mutil gizarajok zepoan erori bear du.

Zenbait engaiñatzea
etzan misterio,
gorputzaren neurriak
zirala medio.
Orain eder utsak ez
omen du balio...
Gorputzari animak
irabazi dio.

Neska ederrak beti
izan dute maiña.
Danak ziran mutillak
txoratzeko aiña.
Gorputzez egokiak
pozik zeuden baiña,
burutsuak diranak
artu dute gaiña.

1991ko urtarrillak 25

Munduko pertsona zibilizatuenak geu gerala pentsatu izan degu. Amerika ere geuk zibilizatu genduela, eta Europak edo Europako jendeak berebiziko lanak egin zituela munduaren

alde. Erlijiorik onena emen dagoela eta jakituririk geiena ere bai. Guk bai ori uste. Baiña europarrak gaiztakeri asko egin dute. *Astakeri asko* esanda ere gezur aundirik ez. Garai bat izan zan India, Asiako nazio aundi ori, Inglaterraren mende egon zana. Eta inglesak bere soldaduekin aruntz joan ziranean indiar-
rrak eskulan asko egiten zuten. Eskulan asko eta onak: alfonbrak, tapizak eta orrelakoak, batez ere. Baiña zer gertatuko eta inglesak baiña merkeago eta obeak egiten, eta Inglaterrako fabrika asko lanik gabe gelditzeko arriskuan ikusi ziran. Orduan inglesak eskulan oiek egitea debekatu zieten indiarrei. Eta ori bakarrik ez, tapizak eta alfonbrak egiten iñor arrapatzen bazuten, eskuak mozten zizkieten. Orra diruaren astakeriak. Orra Inglaterrako jakintsu zibilizatu biotz gabeen basatikeri beltza. Otsoak ere ez aundiagorik.

Ejenplo txarra errez ikasten da, eta indiarrek ere ikasi zituzten inglesen erakutsiak. Orain Indian eta Asiako beste zenbait naziotan lapurretan arrapatzen dutenari eskua mozten diote. Baiña gauzak ez dira orretan gelditzen. Inglesak bizkor-
rrak izango ziran, baiña Asia aldeko jende ori ere ez da makala. Lapurrei moztutako eskuak botika batzuekin-eta aspaldi ildakoen eskuen itxura eman eta Europatik joandako mixiolari-
riei-eta, santuen eskuak balira bezela saltzen omen dizkiete. Eta fede oneko pertsona asko da santuen eskuak diralakoan erosi eta zenbait komentu eta elizatara lapurren eskuak erre-
galo egindakoak.

Komeri polita da auxe ere. Onelako edo alako santuren eguna dala eta an joaten gera baratzuria baiña fiñago erlikiari musu ematera. Santu baten gorputz puskari musu ematen diogulakoan, ez ote diogu, bein edo bein, lapurren baten eskuari musu eman? Orain ez dutela santuak milagrorik egiten esango degu gero.

Gezur guztiei antzematea
ez dago gure eskuan.
Eta batzutan uts egin bear
uste ez degun lekuan.
Ez ote gera iñoiz ibilli
udare billa pikuan,
lapur eskuei musu ematen
santuak diralakuan.

Gezurti eta saltsero danak
bukatu oi dute gaizki.
Guk debotoa degun santuak
ori ainbeste badaki.
Lapurren batek sartuko digu
ustez ziria egoki,
Satanas beltzak astinduko du
sardearekin ederki.

1991ko otsaillak 1

Telebistari begira pixka bat arrituta gelditzen naiz batzutan. Eguneroko berriak eta zuzenean ematen dituen zenbait gertakizun kendu ezkerro, gaiñontzeko asko kontu utsak dirala esan diteke. Esate baterako, bazkalondoan ematen dituen telesailak edo diralakoak. Ala ere, an ikusten deguna eta entzuten deguna, garai bateko sermoiak baiño errezago sartzan zaigu buruan. Gizon-emakumeak ez gera ogi utsetik bizi. Eta au ere egia da. Eta beti lanean jardun gabe, noizean bein gogoko zaizkigun atsedenaldiak ere bearrezko ditugu. Orregatik, telebista ikusteko oitura gaizki dagoenik ezin esan. Gertatzen dana da, an ikusten deguna sinistu egiten degula batzutan. Telebisioak burua artzen digula. Berebiziko indarra du guri alde batera naiz bestera eragiteko. Eta batzutan onerako izan diteke, baiña txorakeri bat edo beste egiñarezteko arriskua ere badu. Illabete bat edo orrela izango da “Cristal” telesaila amaitu zala, eta orduko komeriak entzuten ari gera oraindik. Pelikula aietan ikusten zan artista batek bularrean minbizia zeukan itxura egiten zuen. Eta ainbesteraiñoiko bildurra sartu zuen emakumeen artean, besteetan baiño 400 aldiz emakume geiago omen dijoa bolada onetan medikutara, lasaitasunaren billa. Minbiziaren kontrako erasoaldi edo kanpaiña pranko egiten da, ba. Baiña alare, nagikeriz edo lotsaz

medikutara joaten etziran etxekoandreak astintzeko “Cristal” geia-
go izan da mediku guztien eskari eta erreguak baiño. Ona emen
telebistaren alderdi on bat.

Beste alderakoak ere izan dira, ordea. Alkarrekin paseatzen
zebiltzala “Cristal” ikusteko ordua iristen zanean, senarra eguz-
kia artzera bialtzen zuten emazteak izan dira. Ala ere, aizea artze-
ra edo oilloak perratzera bialtzen etzutenean, gaitzerdi. Butano
partitzaileak ere zearo asarretuta zeuden, eta “Cristal” ori seku-
la ez ote zan puskatuko galdetzen zuten. Dendariak zer esanik
ez. Denda idekitzean iñor ez, eta isteko orduan denda guztiak
etxekoandrez beteta. Pazientzia artu bear, zer egingo dezu? Baiña
ez ditugu etxekoandreen aitzakiak bakarrik esan bear. Burua arin-
dutako gizonak ere izan dira. Batek ala esaten zuen:

– Artista ori beti kamixoi batekin azaltzen da. Lepoko lazo
gorri ori aldatuko balu, sikira... Batzutan urdiña eta beste batzu-
tan berdea, eta orrela.

Telebistak ez ote du gero
garia ainbeste auka?
Ez familiak nasteko daukan
ainbat indar ez baleuka.
Danok gauz bera ikusi nai ez
eta alkarri muturka.
Telebisio arraio orrek
arrisku ori badauka.

Madrid aldean atso zar batek
erabat asarretuta,
bere senarra matxuratu du
leku txarretik elduta.
Gizon bezela zeuzkan bi gauza
aietatik bat kenduta,
agure zarra utzi omen du
gizon erdi biurtuta.

1991ko otsaillak 8

Munduari begiratu eta entzuten diranak entzunda, gaurko
bizimoduaren ardatza dirua dala esan diteke. Bizitzeko ain da
bearrezko, dirua danok maite izatearekin ezin arrituko gera.

Geiegi ere maitatzen degula uste det. Asko daukanak, geiago nai. Ezin ase iñola. Naiko dirua daukanik nik ez det beintzat ezagutzen iñor, eta zuek ere naiko lan.

Euskadiko enpresak ez omen dute aurten igaz aiña diru irabaziko. Eta ez da au albiste ona. Enpresatako langilleak ez baitira lanera joaten diruz ase ezin diralako, bizitzeko bear dutelako baizik. Eta enpresak dirua irabazten jarraitu nai badute, egiten dutena kanpoko naziotan saltzera beartuta daude. Orretarako, orain egiten dituzten gauzak merkeago egin bear. Au zail samarra dala dirudi. Baiña ez ditu onek danak kezkatzen. Ondasun asko daukanak nai duena esateko bildurrik ez du izaten. Kopetan bi azal izaten ditu berriz, eta komeni zaizkion erremedioak oso errez billatzen ditu. Gauzak merke egiteko, lantsari edo jornalak gutxi jasotzea beste erremediorik ez dagoela esan dute. Dirua gutxitu, geiegi erosten degulako salneurriak gora joan ez ditezen, naiz eta tajuz antzean bizitzeko gauza askoren premian egon. Jokaera onek lana gutxitzea berekin dakarrela antzemateko ez dago Unibertsidadetik buelta asko egin bearrik. Baiña konponketak egiten dakiten maixuak Ipar Amerikan dauzkagu. Emengoak ere eskola berdiña ari dira ikasten, eta orixe txarra. Amerikar oietako batek esan du, emendik aurrera aberatsak geroz eta aberatsago izango dirala, eta beartsuak geroz eta beartsuago. Ori orain? Eta leenago? Afrikan bai omen daude sekula aberastuko ez diran nazioak. Baiña Amerikako jaun aundi orrek esan du berak ez daukala zer ikusirik Afrikako miserableen sufrimentuarekin.

A zer nolako karidadea! Afrikako beltzak ez dute amerikano orrengandik limosna asko artuko. Mundu onetan beti izan dira pertsona zekenak eta orain ere badaude, noski. Edo bagaude. Batzuk ondo biziko badira, beste batzuk nozitu bear. Arrokeria, zurkeria eta gaiñontzeko pekatu kapitalak agintzen dute emen.

Dударик gabe mundu onetan
diruak badu indarra.
Baiña dirudi ez duela nai
bazterreratu negarra.
Ondo pentsatzen baldin badegu
au da egoera txarra:
batzuek beti nai ta nai ez
pobrezan bizi bearra!

Asko dutenak dauzkate emen
egunikan alaienak,
eta ez ditu asko kezkatzen
miserablien aienak!
Oiek iristen dituzte goiko
eserleku lasaienak,
bean daudenen buru gaiñean
anka jarrita geienak.

1991ko otsaillak 15

Gosea eta jateko gogoa alkartzen diranean ez da giro izaten. Bien artean zerbait ona egin bearrez, batek bestea txartzten du gaiñera. Jateko gogoa ona da, baiña gosea ez. Biak alkargana bildu ezker, gosea izaten da nagusi, eta gosea ez konparatu jateko gogoarekin. Pekatuarekin ere orrelako zerbait gertatzen da. Diru-gosea eta lizunkeria: orra pekatu nagusietako bi. Ba, diru-goseak bereak eta bi egiten dituela uste det lizunkeriarekin edo berdekeriarekin ezkontzen danean. Dirua irabazteagatik ez dakigu ia zer egin. Lapurretak eta orrelakoak oso atzean gelditu dira. Eta diru-gosearen azkenengo asmakizuna edo inbentua, berdekeriarekin ezkontzea da. Eta inbentu ori Ingalaterran atera dute ain zuzen. Ango tratalari edo negoziante batek, etxebizitzak alkilatzen zituen. Ez ordea edozeiñi: ezkonberriei. Eta tratalari ori berdulario samarra izan, eta ezkonberriak lo egiten zuten gelan bideoak jarrita zeuzkan, ezkonberrien komeri guztiak pelikulan artu eta zinea egiteko.

Ezkonberri gizagaixoak pozik egongo ziran etxea alkilatuta, mundu biurri onetan biok bakarrik bizi balira bezela. Baiña diruzale maltzurra ez lo egon ordea. Ezkonberrien

musuak, laztanak eta gaiñontzekoak - danak ezin esango ditut emen - bideoan artuz etzebillen gaizki. Pelikulak debalde atera eta saldu: orra dirua errez irabazteko modua. Gaiñera, berde koloreko pelikulak garesti saltzen dira. Mundu au ondo miserablea da, pentsatzen jarri ezker. Ezkonberri kottaduak antxe biziko ziran goxo-goxo, alkar maitatuz eta geiago maitatu nairik. Eta aiei ere ezin pakean utzi zenbaitek. Bere denbora guztian izango zituzten egunik onenak bizitzen eta orretarako ere pakerik ez, dirua eta maltzurkeria dirala eta ez dirala. Txoriak ere zapuztu egiten dira azkenik kabia egiteko pakerik ematen ezpazaie. Eta ainbeste denboran ezta proatzeko irrikatzen egon ezker, ezkonberrian pake pixka bat nai litzake, ba. Baiña ezta uraxe ere. Eta litxerrero bat dalako guztia!

Jakiñagatik mundu ontatik
lotsa aldegiña zala,
joan zanean utzi ziguna
ez da utsune makala.
Txit premizkoa izanagatik
bera ta bere itzala,
entzun izan da berdea zala,
ta astoak jan zuala.

Diru-goseak egiten ditun
litxarkeriak entzunik,
ezagun danez diruarentzat
ez da pekatu lizunik.
Eta lotsarik ez dunarentzat
ez dago lotsakizunik.
Ta ezin gorde ezkonberrien
laztan eta maitasunik.

1991ko otsaillak 22

Garai batean neska gazteak pozik izaten ziran soldaduzkara joan bearrik etzutelako. Baiña makiña bat gauza azpiko z gora jarri da, eta orain zenbait emakumek berebiziko irrika omen dauka ejerzitorea joateko. Bizi bearrak eta bizitzeko dirua irabazi bearrak ematen ditu bere astinduak, eta baditeke orregatik izatea au ere. Zenbait pertsonak agintzeko

zaletasuna izaten du berriz, eta iñor mendean edukitzeko ez dago ejerzitoan sartu eta galoiak artzea bezelakorik. Izarrak artzea obe, oraindik. Ejerzitorea dijoazen emakumeak ez dijoaz soldadu. Danak edo geienak karredunak dira. Eta kofradi orretan sartzen diran egunetik artzen dituzte izarrak, eta orra goi samarretik kukurruku egiteko modua. Gerrako barkuetara leenbiziko joan dan emakumeak esan omen du, ejerzitoko gauza asko dirala bere gogozkoak, baiña geiena gustatzen zaiona agintzeko an dagoen erreztasuna dala. Onak atera dizkigu eltzetik babak!

Gonadun askoren agintzeko zaletasuna ezagutzen genduen. Baiña pentsatu eta esan gaiñera, mingaiñean batere erdoirik gabe. Eta geiago ere esan du, itxura danez: gizonezkoek agintzea oso erreza dala, eta orrek ez omen du batere kezkatzen. Sorgin arraioa! Aren mendeko soldaduak argi ibilliko al dira. Bein baiño geiagotan “firmes” jarri bearko dute aren aurrean. Biboterik ez du edukiko bistan, baiña errespetoa sartuko duela uste det. Umore txarrean jaikitzen dan goizetan ez da giro izango aren inguruan! Eta nobioarekin edo senarrarekin mutturtuta etortzen danean?

Inglaterrako erri txiki batean udaletxeko langille bat estuasun ederrak pasea izan bear du. Erriko tuberia puskatu zan. Ura konpontzeko alkatearen baratzan zuloa egiten asi zan langille ori. Baiña erri artan alkatea ez baiña alkatesa izan, eta asarretu zaio atsoa. Artu du sukaldeko kutxilloa eta moztu bear zizkiola zeuzkanak eta etzeuzkanak langille gizarajoari. Atxurra eta pala zuloan utzi eta laister alde egin zuen andik, alkatesa bargastak ondatuta utziko ez bazuen. Emakumezko sargentoaren mende egon bearra ez da ona izango, baiña alkatesak egin nai zuena ere etzan izango atsegin emateko modukoa.

Eba etzuan Jainkoak jarri
mundu ontan serbitzari,
baizik laguntzat eskeiñi zion
lenbiziko gizonari.
Nai zuna egin erazi zion
gero Adan txaldanari.
Ori gertatzen zaio agintzen
ondo ez dakianari.
Aurki Eba ta ondorengoak
dira danon agintari.

Gizonok ia gelditu gera
ez kemen ta ez umore,
emakumeak daukalako gaur
gizonak aiña podere.
Zerbait giñala uste ta zuek
gaiñera igo dotore.
Baiña ez bete bazter guztiak,
egin zazute fabore,
mundu onetan leku pixka bat
bear baitegu guk ere.

1991ko martxoak 1

Nai duena esaten duenak nai ez duena entzun bear izaten omen du. Eta neri ere onelako zerbait gertatu zitzaidan leengoan. Etxekoandre baten sermoia entzun bear izan nuen.

Onela esanda, badirudi etxekoandre sermoilari ark estu samar artu ninduela. Baiña etzan orrenbesteraiño izan. Irripartsu eta patxara ederrean esan zizkidan esan bearrekoak. Ez giñan asarretu. Nola asarretu, izan ere, aurpegi alai ura ikusita? Etxekoandreak jakiten dute bai noiz eta nola itz egin. Beti ala egingo balute, gizonak zeruan biziko giñake. Baiña beste alderakoak ere izaten dira, eta orrekin ibiltzen gera gaizki. Kontua zera da: bateko “Cristal” eta besteko ez dakit zer, nik esan omen nuen gu baiño telebista maiteago dutela etxekoandreak, edo orrelako zerbait esan nai omen nuen beintzat. Eta –“zuek zer egiten dezute –esaten zuen– Athletic edo Realak jokutzen duenean, edo telebistak pelota partiduren bat ematen duenean? Ez da egoten orduantxe zuengana goxo-goxo itz egitera joan besterik. Eta gaiñera, gaiñerakoak”. Esan zizkidanak entzun eta isil-isillik gelditu bear izan nuen. Baiña etxekoandre ark arrazoi pixka bat

bazuela esango nuke. Retegi edo Alustizaren partiduren bat ematen badute, zein egoten da telebista ikusi gabe? Auek gureak dira, eta ikusi bearra dago, esango degu azkar. Athletic edo Real ari badira ere, an egongo gera begira, begiak ia irtenean, munduko futbol talderik onenak balira bezela. Egiten dituzten utsak, eta ala ere ez degu etsitzen. Eta ez dago orrelakotan telebistan one-lako edo alako pelikula dagoela esan besterik. Gorbizitutako babarrunak baiño egoskorrago eginda jartzen gera-eta.

Bai, etxekoandreak arrazoi pixka bat badutela aitortu bearra dago, gizon jatorrak izan nai badegu. Goizean gosaldurako bagoaz gure etxetik, egunkaria erosi aitzakian. Etxerakoan ogia ekarrazten badigute, edo patata bat edo beste zurituerazten badigute, lumak arrotutako oillarra bezela jartzen gera, izugarritzko lanak egingo bagenitu bezela. Eta etxekoandreaken lana ez da eskertzen bear bezela. Aien lanak ez dirala ikusten esaten dute. Eta, batzutan beintzat, arrazoia eman bear genieke. Ez da, ba, asko kostatzen.

Zenbait gizonek andrearentzat badu amaika aitzaki.

Arrazoirik ez eta mingaiña ezin isillik eduki.

Maitagarriak izanik ere gure izar ta eguzki, obe genduke gure ondoan artu poliki-poliki.

Senarrok ere askotan beintzat aldrebesak gera, ziñez.

Gure alboan aingerutxo bat nola daukagun jakin ez?

Zergatikan ez bere bizitza bete une atsegiñez, muxu batzuek eman ez eta goxo-goxo itz egiñez?

1991ko martxoak 8

Garai bateko eskolak ikusi eta oraingoak ikusi, badago alde ederra. Leenago eskola gutxi zan, eta ziranak arloteak. Estadua-renak ziranak beintzat bai. Eskolara asten giñanean, leenbizi

erderaz ikasi bear izaten genduen ezer ulertuko bazan. Eta orrek ematen zizkigun lanak. Bein batean, maixuak ala galdetu zion mutikoari:

– Auntza nola esaten da erderaz?

– Cabra –mutikoaren erantzuna.

Eta beste mutiko bati galdetu zion:

– Eta auntzaren esnea?

– Cabra la leche...

Onak geunden gu algebra ikasteko. Eta kargu pixka bat zuten guztiak kastellanoak izaten ziran, berriz. Eta guk beti atzeritarren mendean bizi bear. Amalau-amabost urte ezkerro, al zutenak edo suertea zutenak fabrikaren batean lanean asiko ziran, eta kitto! An bukatzen ziran askoren eskolak.

Erremedioak billatuko badira, gaitzak bearrezko omen dira. Eta ez nuke esango ezetzik. Lanik eza etorri zanean, gazte askok ikasteari eman zion. Orri eskerrak. Orain garai batean artzai eta baserritar aiña abogadu, mediku, injineru eta orrelako daukagu. Eta ez daukagu zuzendariak kanpotik ekarri bearrik. Ari gera geure buruaren jabe egiten, oraindik ere premiak badaude baiña. Leenago ofizio bat ikasi nai zuenak, pintxe sartu bear izaten zuen. Gaur, edozer langintza erakusten duten eskolak daude. Baita soiñua eta panderoa jotzen erakusten dutenak ere. Garai batean nork esan bear zuen bertsoan ere eskolatan erakutsiko zala. Gozoak jarriko ziran. Aiek aterako zituzten deadarrak.

Oraingo gazteak ez dituztela zaarren esanak aintzakotzat artzen? Arrazoirik etzaie falta, batzutan beintzat. Gertatzen dana, zera da: batak bestea errespetatzen, eta bazterrak zikindu eta ondatu gabe ibiltzen erakusteko eskolarik ez dagoela, eta orrekin gabilta gaizki. Jubilatuei zaartzaroa nola pasatu erakusteko lezioak ematen dizkieten maixuak ere badaude. Umeak giñala, eskolan. Eta zaartuta ere bai. Auxe izango da ume jaio eta ume biurtzea. Gai au beste batean jorratu beariko

degu, orretarako astirik izaten bada beintzat. Lan guztiak gaur egitea ez baita komeni.

Lenago emen tituludunak
ziran danak kanpotarrak,
eskolarengan nola federik
etzuten baseritarrak.
Gaurko neska ta mutil gazteak
ez dira orren zabarrak,
dakitelako ezjakiñentzat
datozela egun txarrak.
Orain euskaldun asko dauzkagu
karreradun ta azkarrak.

Orko eskribau, abogadu ta
mediku jakintsuenak,
izan oi ziran izen-deiturak
erdeldunak zituztenak.
Guri agintzen naiko zorrotzak
izaten ziran geienak.
Zuzendarien artean orain
nunai euskal abizenak,
eta ez degu bete bearrik
kanpotar aien ordenak.

1991ko martxoak 15

Berriketan ari gerala, orra martxoaren erdira iritsi. Aurtengo negua bota izango al degu onenbestez. Baiña martxoa bera ere ez da santu-santua. San Jose loreak eta abar, purrustaka batzuk botatzen badaki, baiña udaberria ere berak ekartzen du, eta ondo portatzen ere badaki. San Jose eguneko jaia ere larri zan, ba. Ia-ia kendu ziguten. Lanerako baiño jai egiteko gogo geiago eduki nunbait, eta salbatu zan, orratik!

Martxoa ezkerro neguko moteltasun ura menderatzen dala esango nuke. Garai au ezta izaten saatsak loratzeko bakarrik. Udaberriak txoriak ere kantari jartzen ditu, eta neska-mutillak alkarri begira. Garai batean, oraintxe egiten zituzten soiñeko berriak neska gazteak. Eta mutil gazteak, traje berriak. Orduan egunez alkar ikusi bear izaten zuten, eta al zan ondoena eta dotore samar azaldu bear, ba, arritzekoa ez dan bezela. Baiña oiek leenagoko kontuak dira. Gazteentzat gauza batzuk asko erreztu

dira aspaldi onetan. Neskatxei itz egitera ia-ia txapela erantzita joan bear izaten zuten leengo mutillak. Neskatxak kukurruku oso goitik jotzen oituta egoten ziran izan ere-eta. Kanean paseatzea pentsatuta ere, bien artean metro beteko tartea zala ibiltzen ziran. Orain nunai ikusiko dituzue gaztaña zaarra eta untza bezela alkarri lotuta. Eta iñork ikusten baditu ere etzaie kolorerik gorrituko. Zer ote da askatasuna? Leengo neskatxen aurrean etzegoen nolainai itz egiterik. Apaizak baiño ere errespeto aundiagoa sartzen ziguten. Orain neskatxak mutillak bezelaxe edozer baldarkeri esaten dute. Eta, esan bakarrik? Berdintasun pixka baten premia ere bazegoen, eta zer esango degu?

Galiziko erri batean, udalak izaten dituen igeltsero lanak egiteko neska gazte bat artu omen dute. Ofizioak ikasteko dauden eskola oietako batean ibillitakoa izan, eta edozeiñek bezin ondo edo obeto omen daki igeltseritzan. Eta oso gustora omen dago bere lanarekin. Orain ez dauka aurpegian emateko autsak erosi bearrik. Eta ori ere bere onerako izan.

San Jose eguna badatorkigu. Arkumea jateko eguna, osasunetik eta poltsatik ondo daudenentzat. Baiña “ácido úrico” edo dalako ori sortzen du arkumeak, eta poliki ibilli. Arkumearekin batera letxua jatea oso ona da, gaitzik egin ez dezan. Osasuna ondo zaindu beintzat. Uda badator eta ea pikardi bat edo beste egiteko izaten geran.

Garai bateko bizimodua
ez al zan naiko makurra?
Neskatxarena inguratzeko
mutillak zuten bildurra!
Mesede ala kalte dan ez da
erabakitzen samurra,
konfiantzak gaur askorentzako
ekartzen baitu egurra.

Orain gazteak pentsatzen dute:
munduko gauzik onena
izango dala ondo bizi ta
lasai egin nai dutena.
Baiña pentsatu gauza guztiak
dutela bere ordena.
Nai degun dana egiñak sarri
mikatza du ondorena.

Aurtengo udaberria ere etorri zaigu, ba. Ongi etorri egin dezaiogun, merezi du-eta. Udaberria bezelako lagunak ez dira izaten dozenan amairu. Paperetan irakurtzen danez, atzo goizeko irurak eta bi minututan iritsi omen zan. Orduak ere atzera eta aurrera nolanai erabiltzen dituzte, eta auskalo ze ordutan jaioko zan. Bai al dago orain ezeri antzematerik? Ordu bat edo beste gorabeera, kukuak ere pixka bat alaituko al gaitu emendik aurrera, eta itxaropen pixka bat izan dezagun. Eguna zerbait luzatu da, eta eguzki epelak neguak utzitako erdoiak kenduko al dizkigu. Motel antzean daudenak suspertzeko ona izango da udaberria, baiña baita bizi samarrak diranak aztortzeko ere.

Jerusalem inguruko erri batean, irurogeita lau urteko amona batek dibortzioa eskatu omen du. Ez dakit zenbat billoba badauzka amonak orrek, juizioan sartzeko ainbat, bai. Baña ezin soseatu ala ere. Senarrak 70 urte dauzka. Zaartu dala eta ez duela ezertarako balio esan du amona deabruak. Eta bera oraindik puripurian dagoela eta beste senar berri bat bear duela. Nai duena esango du, baiña bera ere urrutitik ikusteko ohea egongo da gertutik begiratzeko baiño. Ala ere, ez dago ari mototsetik eldu besterik. Ura ez da batekin ezkondata dagoen bitartean beste gizon batzuekin ibiltzen dan oietakoa. Ala ote da gero? Berrogeita bost urtean bizi izan omen dira alkarrekin. Eta gizon gizarajoari zumuak ateratzeko lain denbora bada. Baiña orain zaartu dala, eta bazterrera. Orra aitona zaarraren atarramentua! Toki ederrera joan dira aren lanak eta izardiak. Baiña beste batek ere galtzak bete lan izango du alako atso bargastaren inguruan. Zerbait uste badu ere, ez ditu gusto guztiak izango. Obeko du leenengo kontuak ondo atera, bestela damutuko zaio ederki-eta. Baiña gizonak orrelakoxe kottaduak izaten ordea. Eta izango da bateren bat des-

kuidatuko dana, sorgin guztiak suerte ona izaten dute-eta. Nolanai ere, arengana dijoanak ez dezala maitasunik espero. Gutxien uste duenean, ez duela balio eta bazterrera an botako du.

Gizonak badu galtzak bete lan
aitonatzan dan orduan.

Bere laguna ezin serbitu
gazte zaneko moduan.

Atso sorgin ta engaiñagarri
asko da gero munduan...

Zartzean ez da giro izango
onelakoen onduan.

Gazte usteko zarrak askotan
griña txar guztien labe,
ta inguruan ereiten dute
makiña bat atsekabe.

Onelako bat artzen duena
kontuak atera gabe,
gizarajoa, ez da egingo
prenda ederraren jabe.

1991ko martxoak 29

Oraingo egunai antzematen ez da errez, baiña gaur Ostiral Santu degu. Leengo lege zaarreko sasietatik libratu eziñik dabilzanentzat zer pentsaturik asko ematen du oraingo bizi-moduak. Danak ez dira erdilotan bizi ordea. Zenbaitentzat etziran egun aukeratu nai baiño leen etorriko. Danak ez dira sermoia zer ordutan dan galdezka ibilliko. Oraingo prozesioak luzeak eta azkar ibilli bearrekoak izaten dira. Egundak bat edo bitan bukatzen ez diranak.

Gazte jendeak ez du etxean traba aundirik emango egundak auetan. Denborak agintzen duen moduan bizi bear da, eta segi aurrera. Denborak aldatu dirala garbi ikusten da. Gu gera emen aldatu ez geranak. Ondu, asko ez gera ondu beintzat. Kainek Abel il zuela bada urte pilla galanta. Zertan ari gera konturatzeko lain bai, baiña burua leengo lepotik daukagu. An ez bada emen, bada gerraren bat beti. Eta gerran ari ez geranean, besteak nundik zapalduko, besteak beean utzi eta geu gora igotzeko. Ez

guri ezer esan, bestela ez gera gozoak izango-eta. Ikusi bestela Jesukristori zer gertatu zitzaion. Premia zutenei laguntzea besterik etzuen egin. Ondo bizi ziranak etzuten nai ordea besteak aiek aña izaterik. Danok ondo bizi bagiña, goikorik eta beekorik ez litzake izango. Agintaririk eta mendekorik ere ez. Nagusi eta morroirik ere ez. Baiña zenbaitek etsiko al. luke iñori sufrituerazi gabe? Aberatsak zeruan sartzea zaila zala, bakoitzari berea eman bear zaiola eta orrelakoak esan zituen Jesukristok. Fariseoak eta orrelako jendeak dotriña ura entzun nai ez, eta il egin zuten. Ia bi milla urte badira ori zala. Baiña fariseoen kasta ez da ezkutatu oraindik. Jesukristo orain mundura etorriko balitz ez ote genduken berriro ilko egoten naiz pentsatzen.

Orain ere badaude ustez Jainkoak baiño geiago dakitenak. Amerikanoak or dauzkagu, esate baterako. Mundu guztia aien esanetara jarri beste ametsik ez dakit daukaten. Eta gu Amerikan danak ondo bizi diralakoan egoten gera. Ba, Ipar Amerikako Estatu Batuetan, 37.000.000 pertsona daude ezeren medikuguntzarik ez dutenak. Beste 30.000.000, jendearen karidadeari esker daukate laguntza pixka bat. Errez esaten da. Amerikan ere obe luteke Jesukristoren dotriña beteko balute.

Jesus, zuk erakutsi
ziguzun zer egin,
gizona mundu ontan
tajuz bizi dedin.
Baiña iñoren onak
ematen digu min.
Zuzentasuna zer dan
ez degu nai jakin,
eta onela iñoiz
ondo bizi ezin.

Nola anaiak arrotz
egiten zaizkigun,
gerra batean gabiltz
beti, gau ta egun.
Jesus, etzaitetz joan.
Egiguzu lagun,
alkar maite izaten
nola ez dakigun,
alkar errespetatzen
ikasi dezagun.

Apirilla etorri zaigu poliki-poliki. Eta udaberria oraintxe dago pil-pillean. Illabete euritsuaren fama ere badu apirillak. Lorea ugari ematen badaki eta eguraldiak batere laguntzen duela, ez da garai txarra. Eta suerte pixka batekin, neguak utzitako erdoiak kentzeko modukoa da. Il onen aurrenetik azkenera, eguna ordubete eta amalau minutu luzatzen da. Ezin esango degu apirilla gaizki portatzen danik. Ordubete eta geiagoko argiak asko balio du, eta eguzkia danean, oraindik-eta geiago. Iberduerori dirua eman edo eguzki epela artu, badago alde ederra.

Gaur San Bizente Ferrer eguna degu. Eta nundik nora ote nabillen pentsatuko dezute, bearbada. Ba, sermoirik ez det egingo, baiña zerbait esan nai nuke beintzat. Santu ori izugarri sermoilari ona omen zan. Eta mundua konpontzen saiatu zala uste det. Aita Santu, errege eta orrelakoei kontsejuak ematen aritzen zan. Alegiñak egingo zituen, baiña ez dakit munduari zenbaiteraiñoko konpondua eman zion. Goiko jende ori arrastoan sartzen zailla izaten baita. Gaur ere, asko eta asko, San Bizenteren denborako moduan gaude oraindik. Emakumezkoak eskubide gutxi zuten orduan eta orain ere geiegi ez. Goiko jendea iñori eskubideak eman zale ezpaita izaten iñoiz.

Lantegiak, eta taillerrak edo, itz batean esateko, enpresak jarri nai dituzten emakumezkoak, egundoko trabak eta zailtasunak aurkitzen dituzte bolara onetan. Bankuetara joaten dira dirueske, eta bankuak dirurik eman nai ez. Zergatik, eta emakumeak diralako. Enpresari oiek Zaragozan egin dute billera. Eta su artuta daude danak. Ez da egongo aiek tentatzera joan besterik oraintxe. Nik ez dakit Zaragozako bankeroak nora begira dauden. Emakumeak enpresa batean errespetoa jartzeko lain ez dirala edo

zer pentsatzen ote dute? Emengo emakumeak beintzat, agintzen ederki asko badakite. Eta Zaragozakoak ere ez dira atzera begira egongo. Bankero oiek piatzen ez badira, etorri ditezela onuntza. Laister ikusiko dute emakumeak agintzen dakiten ala ez. Zaragoza aldeko maiñoak burugogorrek dirala, baiña ez dute beti nai duten guztia egingo emen ere.

Bankero jaunak sinismen gutxi dute emakumeetan, naiz ta auek ondotxo jakin zer egin industrietan. Emakumeak ez dira beti ibilli oi berriketan. Bear danean jendea zutik jartzen dute taillerretan.

Ez uste gero buru ohea dutela beti gizonak, batzuek puztu baditu ere beti agintzen egonak. Emakumetan ere badaude oso agintari onak. Galtzak ainbeste talentu noiznai izan dezakete gonak.

1991ko apirillak 12

Bertso zaar batzuk badira esaten dutenak:

Emengo tren eta tranbi eta automobil...

Itza berriz nolanai alanbrean dabil.

Bat zoratu diteke munduan badabil.

Bai, gizona. Munduari begira pentsatzen jarri ezker, bat zoratu egin diteke. Batzuek gauza bat esaten dute, eta besteak beste bat. Batzuentzat ona dana, besteentzat txarra da. Askok ikasitako gizonak ere gai bati buruz ari diranean ez dira beti iritzi berdiñekoak izaten. Eta jakintsuak onela badabiltz, zer egin bear du gu bezelakoak? Zerbait jakitea gustatzen zaionak,

irakurtzeko zaletasuna izan oi du. Eta argia ortik etorri bear duela esan diteke. Baiña ez dakit bera ez ote dan zoratzeko sistimarik onena. Dana itsu-itsuan sinistu ezkerro beintzat, bai. Entzuten dana bakoitzak bere kontzientziarekin neurtzea eta pixatzea ez da txarra izango.

Batzuek diotenez, gerora ondo izateko orain jaiotzen dan baiño aur geiago bear omen da. Aurki, giza-emakume geienak zaarrak izango gera, eta zaarretatik ez dago ezer. Orrela irakurtzen nuen atzo paper batean. Beste orri batean esaten zuen berriz, jaiotzei begiratzan ez bazaie eta neurriak artzen ez badira, edo orain esaten dan bezela jaiotzak kontrolatzen ez badira, zuzen-zuzenean ondamentira goazela. Munduak eman dezazken janari eta gaiñontzeko ondasunak mugatuak omen dira, eta gizaki guztientzat bear aiña jan ez izateko arriskua dago.

Jaiotza gaiari buruz itz egiten dutenak gizon ikasiak eta jakitsuak dira. Zeiñi sinistu bear zaio, ordea? Nola alde batekoak ala bestekoak, iritzi desberdiñekoak izan arren, gauza batean datoz bat: arriskuan. Batzuek zaar geiegi izango dala eta jateko lain lan ez egiteko arriskua aipatzen dute. Beste batzuek, jaiotzen diran guztientzat aiña jateko ez dala izango eta gosearen arriskua dagoela. Eta jakiña, arriskurik ez degu nai iñork. Ain bildurtiak ez degula izan bear eta orrelakoak esaten dizkigute, baiña iñork ez du onetik txarrera joan nai izaten. Gaztetan etzaio arriskuari jaramon aundirik egiten, baiña urteetan sarten goazen bezela, seguru jokatu nai izaten degu. Gaztetan gose pixka bat ikusiak baldin bagera, bi aldiz. Munduari begira zoratu egin ditekela, baiña zintzo jokatuz arriskutik alde egiten duenak ez ote du asmatuko?

Santa Engrazi eguna badator. Ez aaztu. Aziak bedeinkatzera eraman, oitura zaarrari begiratu.

Jakintsu talde batek
gauzak esan ditu
nai dunak aditu.
Baiña egiak iñoiz
milla zirrikitu.
Naiz batzueri gauz bat
ondo iruditu,
beste batzun buruan
ezin da kabitu.
Ta gu bezelakoak
zeiñi obeditu?

Guri argi egiten
danak egiñala
saiatzen dirala.
Baiña ez dute artu
lantegi makala.
Gu arrisku igesi
nola edo ala.
Oarturik egi bat
len ere bazala:
arriskua nai duna
bertan galtzen dala.

1991ko apirillak 19

Julio Iglesias kantaria ezagutzen ez duenik, edo bere aditzera ez duen asko ez da izango. Isabel Preyslerrekin ezkondata egon zan. Baiña arengandik dibortziatu zan ordea, eta geroztik makiña bat emazte edo emaztetzako jorratu duela uste det. Ala esaten dute beintzat. Izan ere, izugarritzako sona alde batetik, fama aundia, eta dirua gaiñezka, bestetik. Bere gorputzari eskatutako guztia eman omen dio. Makiña bat kutizi betetako gizona izan bear du. Zorionean igerian bizi bear duela esan diteke, baiña ez dauzka gusto guztiak arek ere. Eta arras ikaratuta, bildurtuta eta lur jota omen dago. Gerriaz beetik zituen indarrak joaten ari zaizkiola oartu da, eta ez dago bere onean. Gizarajoa. Zer uste ote zuen, ba? Sekula etzala zaartuko? Beti sasoi ona izango zuela? Nai zuen dana egin eta libre izango zala? Adiñak, edadeak, etziola konturik eskatuko? Ondasun artean igeri, nai zituen bezelakoxe neskameak, baiña Julio Iglesias ere aragizkoa izan, eta besteak bezelakoa. Kutiziak betetzen geroz eta nekosoago egiten omen zaio. Orregatik, oraiñaldian oso illun, oso triste bizi da. Urteen pixuz zarrakiatzen ez dan makinarik

eta erdoitzen eta amusten ez dan erremintarik ez da izaten. Noizean bein konpondu bat edo beste eman arren, denbora joan egiten da eta berea eginda joan ere. Eta denbora berririk ezin erosi diruarekin ere. Kantari sonatu ori urduri eta nekatuta bezela ikusten omen da, gaiñera. Bere inguruan zer ikusiko dabiltzanak esaten dute, urteei baiño ere bakardadeari bildur geiago diola, seguru asko. Ainbeste diru daukan batek lagun faltarik ez duela izan bear esan liteke. Lagunak era askotakoak izaten dira ordea. Onak eta txarrak.

Baiña maitasuna arbuiatzen duenak, eta maitasunari burula egiten dionak, erdipurdiko laguneren eskuetan erortzeko arriskurik izan ote dezake? Maite gaituen laguna eduki aldamenean edo lagun diruzalea eduki, ez da, orratik, berdin izango. Orduan bai ederki, lagun batekin aspertzen danean beste bat artu eta abar. Baiña zaartzen dijoan bezela, bakarrik eta bazterreratuta gelditzen baldin bada, mira ederra iritziko dio. Nai dana egiñez bizitzea gauza ederra da, baiña zaartzarorako apurtxo bat maite gaituen laguna ez al da obe izango, agintzea pixka bat gustatzen zaiona izanda ere?

Naiz uste izan gusto guztiak ez dira, noski, munduan; ikusi gure gorputzak nola beeraka egiten duan.

Naiz ta lagunak diruarekin erosi al dan moduan, zartzean nola bizi maitatzen ez gaitun baten onduan?

Bakarrik dagon agure batek nolatan bat ez kupitu, zaartzaroan une txar danak bereganatzen baditu?

Ez al da obe poz eta penak biren artean partitu, danak geroko utzi gabe naiz gaztetan zerbait sufritu?

1991ko apirillak 26

Jubilatuei ondo bizitzen erakusteko eskolak badaudela esan nuen leengo batean. Eta eskola auetako maixu baten era-

kutsiak jorratu bear ditugu gaur pixka bat. Jubilatuen arazoe-tako bat jenio txarra edukitzea izaten da. Eta gaitza sendatuko bada, zerk ematen duen jakin bear izaten da, leenengo. Jenio txarra, askotan beintzat, norbere bizimoduarekin aspertuta ego-tetik etortzen da. Bere denbora guztian lana egiten oituta egon, eta lanari kolpean uzten zaionean, aspertu. Ezin etsi lanik egin gabe. Orra langillea izatearen akatsa. Alperrak ez dute orrela-korik izango. Alper guztiak suertea izaten dutela esan oi da, eta egia izango da, agian. Jubilatutakoan ere, leenaz gaiñera, lasai biziko dira aiek.

Lo gutxi egitea, eta gauean lo gaizki egitea ere txarra da, umore onez bizitzeko. Badira lo egiteko pildorak artzen dituz-tenak. Eta ori kaltegarria da. Askoren oitura badakigu, bestal-de: bazkalondoa telebistari begira jarri, eta lo egin. Eta, jakiña, gauean lorik ezin egin gero. Gaztetan baiño lo gutxiago egin bear da zaartzean, eta gaua errez pasatu nai duenak egu-nez kontuak atera bear. Bazkalondoko lokuluska oiek ondo goxoak izaten dira. Baiña oiek ere utzi egin bear, urrengo egu-nean gizatxartuta egon nai ez badegu. Auxe da alde guztietatik lotuta egotea! Pildorak eta gaiñontzekoak baiño egunean ordu-bete bateko paseotxoak obe da lo ondo egiteko. Apaldu eta bere-ala oera joatea ere ez da ona. Beraz, ez ibilli presaka. Emazteari kontu batzuk esan, oera joaterako. Artara, gauean ez ezik urrengo egunean ere pake ohea izango da. Zerbait bear du emazteak ere. Tabakoa txarra dala ez dago esan bearrik. Erretzen duenak eztula eta istillua izango du gauean lo gozoa-ren orde. Eta kafeak ere loa galerazten du, eta orri ere utzi egin bear. Penitentzia alde guztietatik.

Jubilatu eta ondo bizi nai duenak badaki zer egin. Jenio petrala alde batera utzi beintzat. Eta orretarako, ondo lo egiteko modua egin bear da, paseotxoak emanez, arratsaldeko lokuluskak utziaz eta abar. Eta burutik kendu ezin dan kezkarik ez eraman

geurekin batera. Oerako lagun ohea edukiko degu etxean, seguru asko. A! Eta etxekoandrearekin ondo konpondu. Lanak egiten lagundu pixka bat, ez da pekatu-eta

Medikuak gauzkate
bildurrez aidean.
Zarrak katigu gaude
lenagoko aldean.
Zartuta gero ere
besteren mendean.
Ez da gauza atsegiña
gure edadean.

Lokuluskarik ez ta
egin rejimena,
ez gizatxartu eta
millaka ordena.
Danak ezin kunplitu,
au da eromena!
Nai deguna eginda
bera da onena.

Orain beta munduan
zerbait goxatzeko,
eta danak pronto gu
mendean artzeko.
Zer asma dabiltz guri
esiak jartzeko.
Baiña geu ere ez gera
txarrak agintzeko.

1991ko maiatzak 3

Maiatzak 3, Gurutze Santuaren eguna. Santikutz, alegia. Urteak duen illik ederrenetakoa. Eguna ere ez itsusia. Udaberriari danok egin izan diogu arrera ona. Eta gurutzeari zenbateraiño zaletasuna edo debozioa izan zaion esaten ez da errez. Ez dago gure errietara eta mendi tontorretara begiratu besterik. Ikusten diran elizatxo, gurutze eta kalbario oiek danak orain egin bear balira, puska bateko lana artuko genduke.

Leenago gurutzeari zitzaion errespeto ura ala oraingo deboziorik eza, bietan zer ote da ohea? Bere neurri batean, biak izango dira onak, baiña orretarako bakoitzari berea ematen asmatu bear da. Ortxe dago koxka. Debozio utsetik ez da ezer egongo, baiña lana ere neurrian da ona. Gaiñera, gurutzeak ez digu iñoiz eskatu lan geiegi egitekorik. Gogoratu dezagun, bestela, Gurutze Santuaren egunean lana egin zutelako legazpiarrak nolako bildurrak pasa bear izan zituzten. Geroztik Mirandaolako Gurutzeari errespeto aundia diogu. Danak ez diote izango, baiña egun auetan ez dute lan asko egingo, ez. Lana ez omen da alimentua, izan ere. Eta neurria artu bear.

Japonen, urtean 10.000 pertsona eta geiago iltzen omen dira lan geiegi egiten dutelako. Eta ez lan gogorra daukatenak bakarrik. Gorbata ta guzti lanera joaten diranak asko. Emen ere gorbatadunak badauzkagu, baiña ez dakit lanak azpian arrapatuko ote dituen. Bateko politikari eta besteko zuzendari eta agintari, Japonen beze-la ordu extrak sartzen dituztelako ez dira gazterik zaartuko.

Japonen ere badaude diruzaleak, ikusten danez. Lantegian enkargatu edo izatera iristearren, bear baiño ordu geiago lan egiten dutenak asko dira. Emen berriz, gora igotzeko langille ona izatea baiño zuri samarra izatea obe dala esan izan da. Kontuak eramaten-eta jakitea ohea dala bere burua ondatu artean lana egitea baiño. Ez dakit, ba, dagoen lan eskasiarekin zurikeri utsarekin zenbat denboran luzitu liteken. Kontuak alde batera utzi bearrean izaten ez bagera...

Alper samarra zan batek emaztea engaiñatu nai eta medikuarengana joan bearrean zegoela esan omen zion. Eguerdian etxera etorri zanean:

– Ta? Zer esan dizu medikuak?

– Biotza nekatuta daukadala, eta lanik ez egiteko.

– Zer? Lanik ez egiteko? Mediku ori tontoa da. Orrek ez daki ezer.

Joan zaitetz beste mediku batengana.

Aberasteko txarra omen da
lana egitea gogoz.
Esan izan da zuri samarra
izan obe dala askoz.
Baiña alper bat nork artuko du
bere borondate osoz,
ez baldin badu lanik egin nai
ez buruz eta ez besoz?
Obe bialdu aize artzera
atzean jota ostikoz.

Alperrak iñoiz oso ederki
bizi dala ematen du.
Kontu ta abar orrelakoak
zeiñek ingurutik kendu?
Iruzur egin ez dezaiguten
oien ondotik aldendu,
aukera faltik nola ez duten
nai balukete zuzendu.
Eurak eginda jan dezatela,
alprojarik ez mantendu.

1991ko maiatzak 10

Santu guztiak izaten dute bere bederatzaurrena. Aszentzio egunak ere izango du, eta aitatu besterik ez bada ere zerbait egin bearke diogu. Eguzkia bera baiño argiagoak urtean iru ostegun zirala esan oi zan leenago. Aszentzio eguna, bat. Eta atzo omen zan ostegun ori, asko ezagun ez bazuen ere. Egun argia izango zan, baiña itzali degu ederki. Ia oraiñartean egutegi edo kalendarioan gorriz azaltzen zan, baiña beztu degu ederki. Ezin, ba, pakean utzi. Segurako Santa Barbara ermitatxoan meza entzuteko oitura zutenak urrengo igandean joan bearke dute. Etzi an izango dira, zintzo asko.

Baiña atzo iñork errezatu ote zituen berrogei kredo? Ura ere bazan, ba. Bat edo bi bezela ere, berrogei kredo luze, alajaiña! Oitura ura asmatu zuenak etzeukan zer egin aundirik. Bata bestearen ondoren berrogei kredo bear bezela errezatzerik bai ote dago? Bestalde, errezo kontuan asko oztu gerala esaten degu. Arritzekoa al da? Errezoak gogoz egindakoa bear du izan. Ezpaiñak erabilli arren, pentsamentuak Aizkorritik Aralarrera baldin badabiltz, isillik egotea obe, erabat ez aspertzeko. Iñork

beartu gabe aitagure bat esatea obe izango da, orratik! Errezo kontu onetan ainbat txorakeri egin degu, eta orain gazteak ez digute jaramonik egiten. Ez dute entzundako guztia itsu-itsuan sinisten. Asko ikusten dute, eta ikasi ere bai. Eta orregatik, entzundakoa galbaetik pasatzen dute leenengo, eta gero pentsatu zer sinistu eta zer ez. Berealaxe egiten dute komeni zaien aukera.

Onekin ez det esan nai gazte guztiak ajolakabeak diranik. Badaude gazte jatorrak, eta asko. Badaude sinismendunak eta arduratsuak. Zer egin bear duten erakustea ondo dago, baiña itxurak egiteari alde batera utzita, eta iñor aspertuerazi gabe. Berrogei kredo errezatzeko eta orrelakorik eskatu gabe beintzat.

Otordu aurretik aitagure bat esan nai ezik ez dute izango, bearbada. Garai batean zenbaitek oitura zuen bezela aitagurea, iru agur-mari eta salbea errezatuerazen badizkiegu, bazkaltzera edo afaltzera berandu etortzen asiko dira, eta ez arritu. Frailleak ere ez al dute, ba, esaten orazioa motza eta otordua luzea bear dirala?

Errezo luze asko egiñak
gera gu garai batean.
Baiña oitura orrek indarra
galdu du gure artean.
Aurrera egin degulakoan
oitura aiei uztean,
oraindik ere lengo moduan
gabilitza nere ustean.

Errezatu bai ugari baiña
ala ere ondu ezin,
nola pentsatzen genduen dana
egiten zala orrekin.
Len biurriak baldin bagiñan
orain ez al gera berdin?
Geure buruak engaiñatzea
besterik ez degu egin.

1991ko maiatzak 17

Santu alai samarraren eguna degu, ba, gaur: San Paskual Bailon. Barazki saltzailleen zaindaria. Berdulera guztien patroia, alegia. Bere izenak ere ala dirudi, eta santu ori dantzazalea izan-

go zen, seguru asko. Donostiako Bretxako merkatuan berdulerak gogotik dantzan egin oi zuten gaurko egunez. Illunpean ez dala dantza gutxi egiten-eta, orain Bretxako dantza-saltsa edo "bailoteo" aiek ez dakit zertan izango diran. Garai batean dantza puska bat egin eta sabela bete ezker, dana edo geiena eginda zegoela uste izaten zan. Orain berriz, munduaren edozein baztarretako kontuak jakiten dira, eta emen gabiltz buruak korapillo bat egiñik.

Bukatu berria dan Golfoko gerrak ere eman du zer esana pranko. Mundu onetan golfo asko dago orde. Gerra bukatu zala, baiña gerraondorenari zumu ederra ateratzen ari diran golfoak badaudela uste det. Palestina ez da gerra izan leku artatik oso urruti. Eta gerraren igesi joandakoak dauden erre-fujiatuen kanpo batean, neska koskorak mutil biurtzen ari omen dira. Iñuxentekeri bat dirudi, baiña Israelgo agintariak diotenez, egia izan bear du. Neska koskor oiek medikuengana joanez eta naiko larri omen dabiltz. Bizarra irtetzen asi omen zaie. Mutillai bezelakoxe gorputza ari zaie jartzen, eta beste neskatxa batzukin gustatzen asi dira, gaiñera. Amar urte dira medikuak gertakizun au aztertzen ari dirala, eta ez dute esaten eziñezkoa danik.

Aspaldi onetan ainbeste gerra gorabeera dabil izan ere, eta ikusten nago mundua azpikoz gora jarri bear digutela. Bateko atomika eta bestela ez dakit zer, gure arraza ere aldatu bear dute oraindik. Emakumezkoak gizonezko biurtzerik baldin badago, gizonezkoak emakume biurtzea ere egongo da, noski. Orduantxe izango gera danak proatu bearrean. Uraxe izango da komeria! Gizonezkoak nai degula egiten oituta gaudela, baiña gonak jantzi bearrean izaten bagera, leengo kontuak joango zaizkigu orratik! Autsak kendu, sukaldeko lanak egin eta oiek danak ikasi bearrean izango gera. Senarrari agintzen ere bai. Baiña leen emazte izandakoa baldin bada, edozeiñek ekarriko du ura eskura.

Palestina mirari asko gertatutako lurraldea da. Baiña orain esaten duten au ez al da egi biurtuko, bestela bat baiño geiago geureak eta bi ikusteko gaude.

Jartzen baldin bagera
mundura begira,
zenbat jira-bira!
Nasteri danak emen
dabiltz jo ta tira.
Begiratu bestela
Israelgo errira.
Egi batzuek obe
gezurrak balira:
neskak mutil biurtzen
ari omen dira.

Zeiñek daki mundu au
nun geldituko dan
daukan abiadan...
Alperrik ari gera
alkarrekin teman.
Gu konpontzeko ez da
ezer saltzen dendan.
Adanen ezurretik
len Eba egin zan;
ta orain Ebarekin
egiten da Adan.

1991ko maiatzak 24

Mundu onetako gorabeera guztiak benetan artu ezkerro, ez dakit egun zoro asko pasatzerik izango ote genduken. Kezka artetik ez giñake irtengo. Bizitza onek pozak ere ematen ditu, noizean bein. Gauza guztiak zuzen-zuzen egiten eta benetan artzen asi ezkerro, poz oiek erdira etorriko lirake. Eta dana txantxetan artu ezkerro berriz, gauza aundirik egin gabe joango litzake gure denbora. Ez genduke balio aundirik izango. Datorrena datorren bezela artu bear dala esan izan da, eta alaxe izango da, gaiñera. Ariñegi jokatu gabe datorren orri zein aldetatik eldu pentsatu eta aurrera! Uts egin ezkerro, kaskarrari atzegitea alperrik baita. Patxada pixka bat artu bear da, gaurko munduan oso erreza ez bada ere, eta umore onari eutsi, al dala.

Alemaniarrek esaten dute, umore oneko pertsonak kaskarin samarrak izaten dirala. Erabaki sakonak artu bear dituztenean ere arin jokutzen dutela. Gauzak bear bezela pentsatu gabe. Zerua beti urdin ikusten dute, nunbait. Danak aiek bezelakoak dirala uste, eta iñork gaitzik egin bear duenik pentsatu ez. Eta orrela, askotan galduan irten bear, mundu biurri au maltzurkeriz beteta baitago. Diotenez, garrantzi edo inportantzi aundiko erabakiak artzeko pertsona serioak, bekozkoa beztuta ibiltzen diran oietakoak geiago balio dute umore onekoak eta alaiak baiño. Izan ere, petral samarrak diranak gauzak bi aldiz pentsatzen dituzte eta ez dute ain errez utsegiten. Alaxe izango da, gaiñera. Gizatxarra beretik ateratzen zail izaten baita. Iñori kalte egingo dion ala ez geiegi begiratu gabe berea egiten duen oietakoa.

Alemaniarrek jipioia pranko eman dute bere denboran, baiña bai artu ere galantak. Eta munduko berri ikasteko ainbat aukera izan dute. Baiña dana dakienik ez da ordea iñor. Zenbait pertsona serio eta ipurterrek nolako ankasartzeak egiten dituzten ez ote dakite alemaniar oiek oraindik? Hitler alemaniarra zan eta gizon serioa. Etzan ordea prenda ederra. Aren ordeaz agintari Charlot izan balute, obe zuten. Izaten dira pertsona alai askoak zer egiten duten ondo dakitenak. Birtutea erdian egoten da, noski. Eta erdi ura billatzen jakin bear. Or dago koxka.

Alemanian umore txarra artuagatik gauz ontzat, alaitasuna askozaz ere obea dala deritzat. Patxara eta lasaitasuna artu ditzagun guretzat, tenple txarra ta petralkeria utziaz alemanentzat.

Aleman asko ikusia naiz kaskariñaren antzeko, seriotasun premiarekin erabakiak artzeko. Zurrut egiten zaleak dira tenple onean jartzeko, atxur ederrak arrapatuaz penak bazterreratzeko.

Errenta deklarapena egin bearrak ere baditu bere lanak. Kaskarreko azkurea pranko sortzen da ori dala eta ez dala. Langilleak, jubilatutak eta orrelakoak, askorik irabazten ez dutenak alegia, ondo lotuta egoten dira, eta Haziendak eskatutakoa ordaintzeko etsita. Naita ere ez baidaukate tranpa egi-terik. Iruzurrik geiena asko irabazten dutenak egiten omen dute. Gezurtia errena baiño leenago arrapatzen da ordea, eta asko daukatenak ere erori egiten dira noizean bein. Lola Flores, Guerra eta badira or larri samar ibillitakoak. Orain Bertin Osborne arrapatu omen dute, berriz. Ia berrogei milloiren iruzurra egin dio Haziendari. Orrela esan dute beintzat. Eta balio orren ondasunak baitu edo enbargatu dizkiote. Mutil ori kantaria dala jakingo dezute, noski. Eta kenduak kendu, oraindik ere zerbait geldituko zitzaion. Baiña berrogei milloi kantatzeko gogoia kentzeko aiña badira. Ainbeste diru irabazi, eta ala ere naikoa ez. Iruzur egin bear. Tranpa egin bear. Alare, irabazitakoa ezkutatzerik ez daukaten gizarajoak eman dezaiote-la dirua Haziendari, asko dutenak bapo bizi ditezen. Nik uste nuen gu bakarrik giñala Estaduari dirurik eman nai ez genionak. Euskaldunak bakarrik giñala biurriak. Baiña Espaiñian ere ez dira danak alaja zuzenak, ikusten danez. Bata eta bestea esan bai, baiña patriari baiño patrikarari maitasun geiago. Itxurak egiteak asko balio omen du. Eta ez da gezur aundia izango. Zenbaiti begiratu eta badirudi munduko ondasun danak bereak dituztela. Aien etxeetan ezeren faltarik ez dagoela esan diteke. Baiña bakoitzak berak jakingo du bere berri.

Lola Flores eta oiek ijito itxura pixka bat badaukate, baiña Bertin Osborne ez da gero nolanaiko mutilla! Aren planta ikusita, makiña bat neska gazte egongo da berarekin gustatuta. Eta etzait batere arritzen. Mutil bikaiña, kantari ona eta munduaren aurre-

rako bear dan guztia berekin baitu. Baiña ark ere zerbaiten akatsa izan ordea. Besteri emanda ez omen da dirurik izaten, eta al zuena gorde egingo zuen ark ere. Alkarasuna edo solidaritatea eta orrelakoak esaten dira gaur, baiña al duenak al duena egiten du emen. Eta ezin duena, or konpon! Ez daukanari beste batek eman dezaiola.

Ez daukatenak zerbait
eduki dezaten,
zergak ordaindutzeko
errez da esaten.
Baiña kontseju onez
ez da aberasten.
Igaz arrapatzen zan,
baita ere aurten...
Eman ezkero ez da
dirurik izaten.

Bakoitzari berea
osorik emanik,
dana egiña dago
justua izanik.
Baiña nork artu nai du
orrelako lanik?
Iñor ez da izango
ikusituan,
dana zuzen eginda
aberastu danik.

1991ko ekaiñak 7

Batetik bestera ibiltzeko garaia gaiñean degu oraintxe. Bazterrak ikusteko eta toki berriak ezagutzeko udako egun luzeak eta argiak egokiak dira. Nazio aurreratuetan jendea nola bizi dan jakin nai izatea ez da batere arritzekoa. Aiek bezela bizi nai izatea ere ez. Jakingo bada, ikasi egin bear, ba. Eta ortik dator atzerrietan zear ibillaldi bat edo beste egiteko irrikia. Kanpotarrei indibi pixka bat ere badiegu, berriz. Guk baiño geiago irabazten dute, eta guk baiño erosotasun eta komodidade geiago ere badaukate. Baiña danen bearra dutela uste det. Diruak eta erosotasunak estaltzen dituzten miseriak ez dira berriketakoak, izan ere. Nazio aberatsetan ere ez daukate gusto guztiak.

Alemanian andregai bat erostea oso erreza omen da. Ez bertako neska, noski. Filipinatik, Afrikatik eta orrelako tokietatik ekarritako emakumeak baizik. Zortzi bat milla duro kostatzen da andregai bakoitza. Miserian bizi danak ezer gutxi bear du engaiñatzeko. Eta tratalari oiek oso abillak dira neska engaiñatu eta Alemaniara ekartzen. Etorri ere pozez zorutzen etortzen omen dira gajoak, inpernutik zerura datozela pentsatuta. Eta gero, uste bai ezkondu dirala baiña asko eta asko bere denbora guztirako ondatzen dira.

Alemaniarrek, leenbizi proba egiteko baldintzarekin artzen dituzte andregai oiek; eta, jakiña, illabete bat edo bi pasatutakoan, etzaizkiela gustatzen eta, or konpon!, esan eta bialtzen dituzte. 57 urteko alemaniar kaiku bat bai omen da bederatzi urteko andregaia proatu eta ezkondu gabe gelditu dana. Eta etorri ziran lekura joateko dirurik ez eta neska gajo oietako asko bere gorputzak saltzen asten dira kalean, besterik eziñez.

Errez esaten da, baiña bada zoritxarrik asko. Monja batzuk bai omen daude neska errukarri oiei laguntzen alegintzen diranak. Aiek ez dira, ba, diru truke lanean jardungo. Erljioak ez omen du ezertarako balio. Zerk balio ote du orduan?

Ondasunak ez ote gaituzte
oso gerekoi biurtzen?
Ingurukoak ondatu arren
ez gera asko bildurtzen.
Neska gaixoei bere ondra ta
gorputz-animak lapurtzen...
Gu lasaikeriz, parre lizunez,
besteak negarrez urtzen.

Pobreak ere mundu onetan
nola bear duten bizi,
iñori kalte egiten zaion
pentsa dezagun lenbizi.
Danok egoki bizi gaitezen
lenengo geu ondo bizi.
Ajolagabe batek ez baitu
errukirikan merezi.

Mozola itxurako bizkor batzuk izaten dira nundik eta nola bizi diran antzematen etzaienak. Alako bat ikustean, sendagille batek esan zuena ondo gogoan gelditu zitzaidan: “Buru argikoak, listoak, tontoen kontura bizi dira. Eta tontoak, listoak emandakoarekin”. A ze nolako egia! Dali pintore sonatuak esan zuen, bere pinturak etzutela ezer balio. Diru asko zeukatenak engaiñatzen asmatu zuela ordea, eta ortxe zegoela guztia. Dali bera ere etzan makala. Artista batek izan dezaken lagunik onena inguratu zuen: sona aundia, fama alegia. “Ar zak fama ona, eta joadi lotara!”, dio esaera zaarrak. Iñor engaiñatuz bapo bizi diranak badira geiago ere. Eta ez Daliren antzeko artista azkarrak bakarrik. Italiar batek oso prakamotz edo kantzontzillo bereziak asmatu omen ditu. Berak ala esan du beintzat. Kantzontzillo oiek eskulako birtuteak dauzkate. Oiek janzten dituenak loterian jokatu dezake lasai. Kinielak asmatzeko ere balio dute, eta lotoarekin edo bonolotoarekin dirua erruz irabazteko ere bai. Eta ori dana baiño geiago balio duena: gauez egin oi dan beste ori egiteko ere sekulako indarra ematen dute prakamotx oiek. Eta orain, kantzontzillo oien asmatzaillea aberasteko bidean dago. 200.000 bezero eta geiago dauzka dagonekoz, eta ortik pentsatu.

Orra buru argiko eta lixtoak bizimodua nola ateratzen duten. Aiengan sinisten duten tontoak diran artean moldatuko dira, bai. Baiña danak ez dute ain suerte ona izaten. Azti batek maiteminduentzat kuttunak saltzen zituen, emaztea umore onean edukitzeko oso onak zirala propaganda egiñez. Moro batek erosi zion kuttun oietako bat, baiña andrea iñundik iñora ezin beretik atera ordea. Moroa zearo asarretu da, eta aztia kartzelan dago orain. Ark ez du izan kantzontzillo egileak bezela tontoen bizkarretik jaterik. Moro gizarajoak ere ez du porruazi askorik atera. Zera,

kuttuna lepotik zintzilik jarri eta bere moratxoa engaiñatzea uste-ko zuen. Gauzak ain errezak balira...

Tontoak bizi omen dirala
listoak emandakotik,
baiña ez dira enpatxatuko
aieri kendutakotik.
Buruargiak jakiten dute
tontoak kentzen ondotik,
koipe ondarrik bildu ez dezan
iñork aien lapikotik.

Nai izan arren pikardirako
guztiak ezin izan gai.
Baiña batzuek bizitzen dira
besteren kontura lasai.
Itz leunak esan egi itxuran
eta gezurra nolana.
Ortan ederki jakiten dute
ta arpa jotzen ere bai.

1991ko ekaiñak 21

Senarrarengandik tratu txarra artzen duen emazte asko dago, zoritxarrez. Geiegi, gauza onerako. Euskalerrian bakarrik 15.000 inguru omen daude. Eta ortik pentsatu zenbat gizon kaskaillu egongo dan mundu onetan. Inguruan andre on bat baiño bizkarra berotzea geiago merezi dute orrelakoak. Baiña senar-emazteen arteko gorabeerak ez dira izaten emen bakarrik. Amerikan ere izaten dira, eta zelebren askoak gaiñera. Peruko uri nagusian, Liman, gizon batek bere emaztea salatu omen du poliziaren aurrean, emazteak sekulako jipoiak ematen dizkiola-eta. Azkenengoan, esate baterako, neurritz kanpoko pasara eman zion, eta bildurrez airean joan zan gizona poliziarengana. Ark pasatuko zituen estuasunak! Eta ala ere, jo eta garbitu etzuenean, pozik. Zartagiarekin jo eta amar zentimetro eta geiagoko zauria egin omen zion buruan. Eta jo bakarrik egin izan balu, utsa. Pasarak emateaz gaiñera, neskame-lanak egiñerazten zizkion senar kottaduari. Ark eramango zuen gurutzea alako sorgiñaren mende. Ura izango zan kalbarioa! Belauniko jarri eta sukaldeko zorua area-

rekin garbituerazten omen zion. Eta ondo samar garbitzen ezpazuen, ostikoa azkar. Orduantxe edukiko zuan eroso, eta baita aukerari ondo eldu ere etxeoandre deabruak. Orixe da gizon gizarajoa ondo domatuta edukitzea. Kartzelan egon balitz, askoz obe, beretzat.

Emakumeak ere ez dira orratik danak aingeruak izaten. Amerikako sorgin orrek jipoia ematen bakarrik ez daki, ikusten danez. Izketan ere sekulako abildadea omen dauka, eta polizia engaiñatu izan bear du, eta azkenean berearekin irten. Senar gizarajoa ostiko bat edo beste artu bearrean izango da berriz ere. Tonto kaikua!

Zenbait gizon errukarriak dira gero! Gaztetan neska baten edertasunarekin txoratu eta ezkondu, eta zeruan sartuko zalakotan, inpernura erori. Ezkontzeko erotu egin bear omen da. Ori esan zuena ondo eskarmentatuta egongo zan, seguruenik. Mutilzaar gelditu eza damutuko zitzaion bein baiño geiagotan.

San Luis eguna nola degun gaur
oroitzen bagera obe,
mutil gazteak izan ditezen
laguntza on baten jabe.
Bizi guztian ez ditezela
izan etxeo mirabe...
Euren patroiak zaindu ditzala
lazoan erori gabe.

Alabearrez auxe gertatu:
gaur da San Luis eguna,
garai batean txit debozioz
ospatzen genekiguna.
Zoritxarrez ez al degu aztu
gure zerutar laguna?
Gure ondotik sorgin guztiak
uxatu oi zizkiguna.

1991ko ekaiñak 28

Gutxi edo asko, gorputza ondo edukitzea danok nai izaten degu. Eta ez neska gazteak bakarrik. Gizonezkoak ere bai. Mutil gazteak, eta oso gazte ez diranak ere saiatzen dira itxura onean

eta al duten egokiena azaltzen. Udan ez da estalgarri askoren bearrik izaten, eta auxe da gorputzaren edertasunak erakusteko garairik egokiena. Nik esan gabe ere badakite ori batek baiño geiago. Orri antzemateko ez dago urrutira joan bearrik. Buruausteak ere sortzen ditu ordea onek, eta auetako bat gizentzeko bildurra da. Gizendu nai eza, gaitza izatera ere iristen omen da batzutan, eta pikardi aundiak egiten ditu. Txori batek baiño geiago jaten ez duen neska gazteren bat ezagutzen ez duenik ez da izango. Jateko gogorik ez daukatela eta orrelakoak esan bai, baiña gizentzeko bildurra izaten da guztia, eta or gelditzen dira igartuta, nundik eldurik ez dutela, paperezko ainguruak balira bezela. Baiña leen ere esan det, eta berriz ere esan bear det: neskak bakarrik ez dituztela egiten orrelako txorakeriak. Baita mutillak ere. Eta orain antzeman diot zergatik ikusten dan ainbeste mutiko sistrin, ankame, praka estu-estuak jantzita, deabru beltzak diruditela. Aurpegi txuri-txurian leenbiziko bizar lakaiñak nabarmentzen zaizkiela, eta geienak beltzez jantzita. Inpernuko etsaiak ematen dute.

Modako gorputza edukitzearren goseak egoteak parregarrikeria dirudi. Baiña benetan artu bearrekoa da. Ez jatea buruan jartzen zaienak, argi eta bizkorrenak izaten dira askotan. Eta iñor baiño dotoreago azaltzearren, orra nolako kaskalkeriak egiten dituzten. Gaixotzeraiñoakoak, alajaiña! Bizkorrenak ere egiten dituzte utsegiteak, eta zorakeri edo mani ori dala eta ez dala iltzen diranak ere badira. Nola neskatxak ala mutillak, modari baiño osasunari garrantzi geiago eman bear diogu. Aurpegi ori-tuak eta ezurra eta azala besterik ez dutenak baiño estimazio geiago izango dute bai gazte musugorri eta ermo samarrak. Gaixotuko zeraten bildurrez ama errietan dezutela ibilli gabe, jan ezazue lasai, mixkinkeriei utzita, ipurdiak pixka bat aziko bazaizkizue ere.

Lenago ere Euskalerrian
gazte mardulik izan da.
Azal guri ta musugorridun
gaztedi ura gaur nun da?
Moda zala ta orain bezela
jale mixkiñik etzanda,
aiek neskatxak azitzen ziran
talo ta esnea janda!

Erdi goseak dagon mutilla
nola biziko da alai?
Gaztetasuna modaren truke
ez saldu beintzat nolana.
Zaindu bearra etorriko da,
noiz sufritua ere bai...
Rejimenik ez egin oraindik
eta jan zazute lasai.

1991ko uztaillak 5

Aspaldi onetan etzan entzuten diabru konturik. Baiña animaren etsai ori erabat ezkututatu zala uste bagenduen ere, ara nun jakiten degun Luzifer deadrua sekulako indarrean dagoela. Iñoiz ez bezelako azioak egiten ari omen da. Italian, asko eta asko bildurrez airean bizi dira inpernuko deabruaren mendean noiz eroriko. Baita Espaiñian ere. An eta emen erlijio faltso asko ari da sortzen. Eta erlijio oietan deabrua gogor ari da lanean. Etsaiaren adarrak nunai ikusten dira. Europan bakarrik bi milloi pertsona inguru daude deabruaren atzaparretan erortzeko zorian. Bildurraren bildurrez deabruari errezatzen diotenak ere badaude, inpernura ez eramateko eskatuz. Aiek izango dituzte larritasunak.

Batetik eta bestetik datozen berriak entzunda, Luzifer deabrua indarrean dagoela ez da zalantzarik. Orain gertatzen diran gizon iltze, lapurreta, seigarren mandamentua austea eta gaiñontzekoak deabruaren lanak izan bear, nai eta nai ez. Aragia ere animaren etsaia da. Eta aragiak egiten dituen deabrukeriak ikusita ezin esan besterik. Brasilgo emakume bat itsusia eta baldar utsa omen zegoen. Mediku batek ez dakit zenbat operazio eginda pixka bat txukundu du, baiña baita senarraren txanponak ederki jorratu ere. Atso deabruak bere burua ala edertuta ikusi duenean,

eta senarra arruinatuta, ez dio begiratu ere egiten, eta bere gizonarekin ez beste guztiekin omen dabil, jo ta ke. Auxe da, ba, deabruak aragia aztoratzea.

Amerikako artista batek esan du berriz ez dagoela gizonezkoen bearrik. Mundu onetan benetako aginpidea emakumeak daukela, eta gizonak zertarako diran. Ori esan bai, baiña artista ori lau aldiz ezkontuta egon da. Berrogeita amazpi urte dauzka, eta ogeita amairu urteko mutil batekin bizi da orain. Eta, ala ere, munduan ez dagoela gizonezkoen bearrik. Orra deabrua eta aragia biak batera. Mundua animaren etsai biurtzeko naikoa. “Ez badezu nai inpernua erretzea, obe dezu ezkontzea”, dio esaera zaarrak. Eta batzuk deabruari errezatzen diotela, baiña obeko da San Antonioari errezatzea. Beti nai dan guztia egingo ez bada ere, emaztearekin uztartzea obe izango da orratik deabruaren atzaparretan erortzea baiño.

Satanas omen dago
oso indartuta,
mundua ta aragia
berekin nastuta.
Etsaia pozten da gu
inpernuratuta...
Ez degu bizi bear
orrekin aztuta.
Ez gaitzala eraman
sardean artuta.

Deabruaren berri
badakigu lendik:
galdu nai omen gaitu
al badu iñundik.
Luziferrek adarrak
badauzka oraindik.
Ez degu inpernura
joan nai emendik;
ta or konpon dedilla,
jai dauka gungandik.

1991ko uztaillak 12

Familira eguneroko ogia ekartzeko gizona kanpora lanera joatea betiko oitura izan da gure artean. Leenbizi eizera joaten omen zan, gero ardiak zaintzera, urrena sorora lanera eta orrela.

Saiatu egin bear beintzat. Gero beste era bateko lanak eta langi-
lleak sortu ziran, eta aietara joan bear altxor billa. Oraingo eizea
ori da. Bizimodua ainbesteraíño korapillatu da, eta zaildu ere
gutxi ez, famili bat itxuran bizitzeko senarraren eizea bakarrik
ez da beti naiko izaten. Emazteak ondo ikusten du ori, eta eize
pixka bat geiago arrapatu aitzakiarekin batzuetan, eta askatasun
pixka baten ondoren besteetan, emazteak kanpora joaten dira
lanera orain. Eta aukera izan ezkeru, oso gustora gaiñera. “Zuk
ekarri ezazu dirua lodi eta ni egongo naiz etxean”, esaten zion
gizon bati bere andreak. Zorioneko dirua! Zoriona erosteko ez
du balio, baiña ondo bizitzen laguntzeko, bai. Bazterrak endrea-
tzeko ere balio du diruak, askotan.

Inglaterrako Erregiñaren semeak eta erraiñak ez dute diru
faltarik edukiko, baiña akerraren adarrak bezela okertuta omen
dabiltz. Diana, trikua bezela bilduta jarri omen da, eta ez dio
Carlosi inguratzen ere uzten. Biak etxe banatan bizi dira gai-
ñera, eta noizean bein etxe batera biltzen diranetan ere ez dute
alkarrekin lo egiten. Senarra ez dakit nola ibilliko dan, baiña
Dianak ezagun du gustora ez dala bizi. Aspaldi onetan anka-
metuta eta argalduta ikusten da. Alako neska polita zan, eta
orra orain. Neuk ere antzeman diot, eta pentsatu. Senarra men-
deratu ezin edo zer ote du? Biok naiko dirua eta “i ere bai eta
ni ere bai”, arrotu egingo ziran. Biak batera kukurruku egiten
asi ezkeru ez dago gauza onik.

Aiek baiño bizkorragoa da nere lagun bat. Parranda gus-
tatzen zaio asko, eta zurruta ere apurtxo bat bai. Ertzaiñak
alkoholemia noiz egingo bildurrez ibiltzen zan oraiñarte. Eta,
zer egingo eta andreari karneta aterarazi dio. Parrandara dijoa-
nean autoa berak eramanten du, baiña etxerakoan emaztea ibil-
tzen da txofer. Parranda leen baiño zerbait garestiago ateratzen
omen zaio, baiña bera ondo eta emaztea pozik, alkarrekin lo
egiteko moduan. Orra dana egiña.

Pena gabeko bizimodua
erosi al baliteke,
mundu ontako on aurki danak
aberatsentzat lirake.

Nola ez dagon zorionikan
erosterik diru truke,
maitetasunik ez da iristen
neke gabe edo merke.

Ikusten danez Dianak ez du
pozik Karloseen onduan,
kutizi edo kapritxo danak
orra zer ekartzen duan.

Guretzat ere gusto guztiak
ez dan bezela munduan,
dituzten penak pasa ditzake
beste batzuen onduan.

1991ko uztaillak 19

Gaixotasun asko bear dan bezela jaten ez degulako etortzen omen zaizkigu. Ondo jaten ez dakigulako. Nik uste nuen gaizki jaten baiño ondo jaten errezago ikasten zala. Ondo jaten danok genekiela, jateko gauza onak eduki ezkerro. Baiña zenbait gaixotasun aberatsak bezela janda etortzen omen da. Eta pobreak bezela janda ere, gaixotu egiten gera Eta aberatsak bezela janda baiño seguruago, esango nuke nik. Dana dala, nai aiña jaten ez dutenak ere gaixotu egiten, eta kalte egiteko bildurrez nai duten guztia jaten ez dutenak ere bai. Azkenean, danok bide batetik joaten dira gaiñera. Emen ez da iñor gelditzen azitarako. Nai badegu eta ez badegu, zepoan erori bear. Geiegi jan ezkerro, kolesterola, tentsioa, perlesia, erreuma eta iñun diran aje guztiak. Eta gutxi jan ezkerro, anemia, gosea eta onek ematen duen jenio petrala. Auxe ere ez da, ba, gaitz ederra. Uda garai onetan festaegun asko izaten da, eta ez gaitu goseak asko penatuko. Betekada bat edo beste egin degulako gaixotu bildurrak geiago kezkatuko gaitu, nik uste.

Aztiriarrak oraintxe daude festa bete-betean. Ango jende jatorrak berriketa gutxirekin edo mixkinkeri aundirik gabe ospatuko zuten atzo Santa Marinaren eguna. Kutsadura edo kontami-

naziorik ez dago an oraindik. Jan eta edan egiteko ez da toki txarra. Pixka bat neurrian pasatzearen ajeak sendatzeko Aztiri gaineko aize sana obe da bai botikak baiño. Gaur illunabarrean eta biar, eta etzi zer esanik ez, izango da an bola-joko, bertsolari, txirrindulari eta abarrik. Euskal usai gozozko festak egiten dira Aztirian. Lujo aundikoak ez, baiña arloteak ere ez. Neurri-neurrikoak eta atsegiñak. Zertarako ibilli, izan ere, neurritik irten da? Alkarte edo soziedade bat ere badaukate, Aztiri-Bat deitzen diotena. Izen egokia jarri zioten noizbait. Antxe nabaitzen da alkartasun jatorra. Eta ango zuzendariak saiatuko dira festak antolatzen. Lan ori beti aientzat izaten dala eta orrelako batzuk esango dituzte, baiña lana fin egin ere bai. Aitzakiak aitzaki, ori da balio duena. Aztiriarrei etzaie leengo langille arena gertatuko. Geldi zegoela ikusita:

- Zer egiten dek, mutill? –galdetu zion nagusiak. Eta,
- Ezer ez –erantzun omen zion
- Ezer ez esaten dek oraindik? Zer pentsatzen dek ik?
- Ezer ez, ez daukat pentsatzeko gogorik-eta.

Eta azkenik, Aztiriko bertsozale purrukatuentzat zerbait. Bertsolarien kontuak, alegia. Bertsoan ari zizala, aitzur kirten asko etzuela autsi bere denboran esan omen zion Mitxelenak Uztapideri. Baita Uztapidek ederki erantzun ere:

Aspaldi ontan ezagutzen det
Mitxelenaren odola.
Nolakoa dan jakin gaberik
etzaitzte egon iñola.
Aitzur kirtena autsi zuen bein,
esango dizutet nola:
okotza jarri gainean eta
deskantsatuzten zegola.

Aurtengo uztailla ere badijoa. Datorren asteazkenean izango du bere egunik aundiena: San Inazio eguna, alegia. Aurten dira 500 urte gure *patroi aundia* jaio zala. Eta orain isil samarrik badaude ere, San Inazio eta bere lagunak zer esanik asko eman dute munduan.

Beste urtebetetze bat ere ospatu da aurten: maiatzaren ama-bostean bete ziran eun urte Leon XIII Aita Santuak *Rerum Novarum* enziklika argitaratu zuela. San Inaziok ez ezik ark ere jarri zuen zer esana. Baita etsaia pranko sortu ere. Izan ere, egia esaten duena txarra izaten baita askotan. Beste gizon guztiak bezelaxe, elizgizonak ere egiten dituzte ankasartzeak, baiña baita egi galantak esan ere. Aita Santu Leon XIIIak esan zuen, langilleak nagusiaren bear ziran bezelaxe nagusiak ere langilleen bear zirala, eta langilleei bear bezelako soldata ordaintzen etzienak pekatu larria egiten zuela. Orrezez gaiñera, esan zuen Gobernuak pobreen aldeko legeak egin bear zituztela. Aberatsak indarrak asko bazeukatela eta ez dutela beartsuak aiñako languntza pre-mirik. Baiña, esan bazuen esan zuen. Agintzen dagoenak ez du iñoren kontsejurik entzun nai izaten, eta Enziklika aren berri ematea debekatuta egon zan. Ogeita amaseiko gerraondoren, batzuek dirua autsa bezela irabazten zuten bitartean; naiz eta beste asko goseak egon, etzeukaten Enziklika ura aipatzerik, langilleen alde zerbait esaten zuena komunistatzat artzen zuten-eta. Bitartean, Franco paliopean erabiltzen zuten elizan. Jesuiten buru izan zan Aita Arrupek ere pasatu bear izan zituen bereak eta bi. Ark ere etzuen beti nai zuena esaterik eta egiterik izan. Agintzen duenak ez duela erregutzen dio esaera zaarrak. Orrelaxe da.

Gizon bat joan omen zan, ba, Loiolara konfesatzera. Eta an barruan zegoen jesuitak ezagutu nunbait, eta “Ave Maria Purixima” esateko astirik gabe:

– Zenbat denbora, zenbat denbora?

- Bi urte.
- Zer? Bi urte? Kanpoan izan al aiz, ala zer gertatu zaik?
- Ez. Emen ibilli naiz, baiña..
- Muttil, muttil. Guk esaten ditugun danak ez dituk egiak izango, baiña pentsatu zak zerbait badala beintzat...

Orra jesuitak aitortu elizgizonak ere ankasartzeak egiten dituztela. Guk ere baditugu orrelakoak, eta saiatu gaitezen barkatzen. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan artu, Elizak gauza onak ere erakusten ditu-eta.

Egia maite duna
 baldin bada norbait,
 ura isillerazi
 nai degu nolabait.
 Gezur biurtu nairik
 egia dan zerbait,
 ez gabiltzala zuzen
 iruditutzen zait.

Egia beti egi,
 ta gezurra, gezur.
 Zerbait gezurra dala
 jakin gabe ziur,
 egia bazterrean
 uzten degu samur.
 Ori aitortu arte
 degu burumakur.

1991ko abuztuak 2

Leengo batean deabru kontuak erabilli nituen emen. Norbaitek esango zuen, bear bada, zea, ogeigarren mendean eta deabrua aitatzteen nuela oraindik. Parra egindakoak ere izango ziran bat eta bi baiño geiago. Entzundako guztia sinisten ez da errez, baiña dana gezurra dala esateko ere ausardi aundia bear da. Edo, orain esan oi dan bezela, balorea bear da.

Munduan dan pistirik gaiztoena gizakia dala ez det zalantzarik. Abere batzuek beste batzuk il eta jaten badituzte ere, goseak beartzen dituenean bakarrik egiten dute ori. Alderantziz, gizonak gauza gutxi bear du batak bestea zapaltzeko eta mende-

ratzeko. Iltzeko ere asko ez. Gizakiak gaiztakeri izugarriak egiten ditu. Baiña egiten dituen guztiak bere kasa ala norbaitek edo zerbaitek zirikatuta egiten ote ditu? Eskolan ibilli giñanean esan oi ziguten Jaungoikoak gizona bere antzekoa egin zuela. Berak ala nai izan ezker, gizonak izan lezake Jaungoikoaren antz pixka bat. Baiña, ondo begiratu ezker, gizonak ez al dauka deabruaren antz geiago? Egunkari bat eskutan artu, edo telebista piztea naikoa da mundu onetan nolako inpernua dagoen ikusteko. Gerrak naiko ez dirala, goseak zenbat gizarajo iltzen ote du? Munduko zenbait naziotan miseria eta sufrimentua besterik ez dago. Italian millaka ume ari omen dira ezkututzen azkenaldi onetan. Errez esaten da, baiña aurak falta dituzten gurasoen naigabea nolakoa izango dan pentsatu besterik ez dago.

Ezkutatzen diran aur oien arrastorik ez da izaten gero. Batzuk saltzeko arrapatzen dituztela uste dute. Beste batzuk, gorputzeko puska batzuk kendu eta il egiten dituzten susmoak daude. Sinisteak ere baditu bere lanak. Zibilizatzen ari giñala uste nuen nik, eta orra leengo *sakamantekas* aiek oraindik ere bizirik. Deabrurik ez dala baiña gizona bera ez ote da deabrua, edo deabrua baiño ere gaiztoagoa? Oso santua ez da beintzat, zeru bear lukeen mundua inpernu biurtu du-eta.

Opor illean sartu gera. Batzuk oporretan eta besteak oporretarako bidean. Ea, ba, besterik ez bada illabeteko zerua izaten degun.

Gaur esaten da iñolaz ere
ez beartzeko gizonik,
askatasunez bizi izateko
mundu onetan egonik.
Naiz ez sinistu galdu nai gaitun
deabrurik badagonik,
geure erara utzi ezker
ez da gurekin gauz onik.

Gure buruak nola dauzkagun
arrokeriz ain beteta,
sinismena ta erlijioa
traste artean gordeta.
Inpernurikan ez dala esan,
eta milla berriketa;
baiña egia ote da gero
etsaiak geu gera eta?

Fariseoak leenago izaten omen ziran. Baita orain ere. Eta asko gaiñera. Arraza ugaria dala esango nuke. Golfo Persiko alde orretan gerra sortu zala-eta, zenbat denbora da, ba, danok erdi negarrez giñala? Illabete asko ez. Gerra guztiak dira negargarriak, eta ura ere ala gertatu zan. Makiña bat gizarajo joan zan beste mundura, jauntxo batzuen burugogorkeria zala eta etzala. Makiña bat ume gaixok nozitu zuen ederki ezeren errurik gabe. Gerra naikoa ez eta aren ondorengo gose, egarri eta sortu ziran gaitzak zenbat sufrituerazi duten ezin dezakegu esan ere egin, besteak beste, ez dakigulako. Telebistan ikustea bakarrik ez da naikoa. Eta utsa sufrikizun aiek gerrarekin batera amaitu izan balira. Andik sortu dan gorrotoa ere uste det ari dala bereak eta bi egiten. Gerra ura sortu zutenak, ango jendearen ezin bizia eta arazoak konpontzeko sortu zutela esango dute. Eta bertako borrokariak naiko etziralarik, amerikarrak eta abar kanpotik joan ziran. Eta, a ze nolako txikizioa egin zuten danen artean. Petrolio putzu asko ere orduan piztuta sutan dago oraindik. Gasolina merkatu eta bizimodua errezteko martxa ederra!

Kontua da ango miseria ikusita miñik gabeko negarra pranko egiten dala munduan. Arabeak eta kurdoak eta abar gaizki zeudela eta lagundu bearko zitzaie la esan bai, baiña fariseoarena: bat esan eta bestea egin. Zuritutako illobiak zirala esan zien fariseoei Jesukristok. Gaiñetik zuriak, baiña barruan ustelkeria besterik etzeukatela, alegia.

Nai duenak nai duena pentsatuko du, baiña egia pranko esaten du Ebanjelioak. Gerra irabazten duenak bere burua erakutsi nai izaten du. Ori dala-ta, Golfoko gerra irabazi zutenak egundoko desfilea egin zuten New Yorken, orain dala illabete pare bat. Eta desfile uraxe bakarrik milla eta irureun milloi pezeta kosta omen zan. Ori al da gerrak miserian utzi zituenentzat errukia?

Diru orrekin desfilea baiño gauza obeak egin zitezken, noski. Ainbeste jende goseak. Ainbeste gizon, emakume eta ume edateko urik gabe. Ainbeste jende etxeak abarrikatuta, estalperik gabe, eta azio oiek egin dituzten indartsuak desfilea egiteko dirua botatzen... Orixe da, ba, aurretik erruki itxurak egin eta atzetik parre egitea. Orixe da fariseoak izatea. Iñor miseritik ateratzeko martxa koskorra!

Gezurretan zertan asi?
Begiratu munduari,
nola geiago ematen zaion
asko duanari.
Fiñezan dabillanari
amenazoa ugari.
Danak losintxa nundik egingo
fariseoari.

Atzo asko, gaur geiago:
geroz ta aberatsago.
Aberatsak bai baiña pobreak
geroz pobreago.
Mundua onela dago,
zer da au baiño txarrago?
Pobreei eman baiño armatan
kastatu naiago.

1991ko abuztuak 16

Orra iritsi abuztuaren erdira. Batzuentzat garai ona izango da. Naiko festa, dantza, gaupasa eta parranda egiteko egunetan gaude. Beste batzuentzat ez da ain alaia izango egun auetako bizimodua. Patrikaran dirua dexente daukatenentzat ona, baiña lanik gabe eta eskasian dabiltzanentzat festaldi illuna. Tristea. Ala ere, kalean ez da asko antzemango. Famili batzuetan bai, bearbada. Gipuzkoako amasei erritan festa egiten da beintzat gutxienez Andra Mari – San Roke egun auetan. Eta emendik kanpora ere toki askotan egingo da. Oporretan daudenak ere oraindik egun batzuk badauzkatela pentsatuz pozik ibilliko dira. Alaxe izan dedilla, gaiñera. Onaldiari al dan zumurik geiena ateratzea da onena, eziñari deika egon gabe. Bereala etorriko baita ori ere.

Zeraingo Andra Mari eta San Roke, Zegamako San Bartolome eta Brinkolako San Agustin... Goerri eta Urola goenalde onetan festarik asko izaten da bolara onetan, usuario zaarri jarraituz. Ala ere, jakintsu batzuek diotenez, oiturak eta etxetik kanpora bizimodua egiteko gogoia aldatzen ari omen dira poliki-poliki. Oraindik antzemateko moduan ez, baiña bizitzeko tankera berri baten atarian gaude. Gau-bizitza eta besteek egiten dutena egiteari utzi eta etxezale biurtzen ari omen gera. Eta etxeko erosotasunak geroz eta garrantzi aundiagoa izango dute guretzat. Irakurtzeko gela egokiak, telebista ikusteko edo musika entzuteko eserleku patxarazkoak eta orrela, etxeko giro onarekin amets egiten asita gaude, geuk uste ez badegu ere.

Ori ala bada, ez degu ain bide txarra artu. Patxara ederrean eserita musika entzutea obe da, bai, semea etorri ez dalako edo alaba agiri ez dalako senar-emazteen arteko errosario otsa baiño. Aitak ez daukala errespetorik, edo amari nai duten guztia egiten diotela, alkarri musu emateko baiño aitzakia emateko giro ohea sortzen da batzutan etxean. Baiña ez degu etsi bear. Etxezale biurtzen bagera, egun ederra pranko pasatzeko gaude oraindik. Orduan ere noizean bein irtenalditxoak egin beariko dira, eta aiek izango dira onak eta ortik onerakoak. Noizean beingo pekatutxoak izaten baitira goxoenak.

Etxezaletzen ari gerala
nork ote du sinistuko?
Mirari ori egingo duen
santurik ez da sortuko.
Gazte jendeak gau parrandari
ez dio egingo uko.
Oiek ez ditu etxeak azkar
azpian arrapatuko.

Esaten dute danok European
laister sartuko gerala,
orretarako gure oiturak
aldatu bear dirala.
Goiz oeratu eta goiz jeiki
bearra izango dala...
Gu orretara jartzen gaituna
ez da izango makala.

Aspaldiko historigilleak esaten dutenez, garai artan Euskalerrriari kalterik geiena egiten zioten etsaiak iru auek omen ziran: iñudeak, jokia eta alkohola. Guk ez genduen ezagutu garai ura, baiña ez det uste historigilleak oso oker zebiltzanik.

Iñudeak ezkutatu ziran, Jainkoari eskerrak. Diru miseri izugarria izaten zan orduan eta bizi nai zuenak zerbait egin bear, ba. Orregatik, baserrietako emakume asko Donostira eta orrela joaten ziran, bere umetxoak etxean utzi eta aberatsen umeak aztera. Makiña bat aberaskumek titi goxoa artu zuen baserrietako aurtxoen orde. Aurtxo aiek ere amaren bearra edukiko zuten, baiña ezin biziak maitasuna ere zapaldu egiten du azkenik.

Jokoak ere egiten zituen bereak eta bi Euskalerrrian. Egiten zituen, eta egiten ditu oraindik ere. “Bi euskaldun, apustu bat”, aspaldiko esaera da. Apustu egiteko edo zerbait jokatzeko gutxi bear duela euskaldunak, alegia. Jokoa edo apustua egiten danean norbaitek galdu egin bear izaten du, eta aizkora edo pelota, idi-proba edo aari-joko, zoritzarreko jokoak ondatutako famili asko da. Eta, ala ere, utzi ezin griña txar orri. Orain ere badaukagu jokatzeko oiturarik asko. Bateko kiniela, besteko loto eta loteri, Bingoa, karta jokia eta abar, zenbat galduerazten ote du jokoak?

Alkohola da, berriz, ortik onerakoa! Edariak burua galduerazten du. Eta geitxo edandakoan jokora jotzea ez da arri-tzekoa, eta gaizki jokatzea ere ez. Garai batean iñude joaten ziran andre aiek ez ote ziran bere senar mozkorrarekin burutu ezin zutelako joaten? Batzutan bai, seguru asko. Orain ez da iñor joaten iñude, baiña gertatzen dan aiña ezkontza-auste eta sakabanatze gertatzeko, alkoholak ez ote dauka zer ikusirik? Eta gure gazteen artean alkoholak egiten dituen pìkardiak? Inglesak botikaren bat asmatu izan bear dute mozkorraren ajeak kentzeko. Botika orren birtuteak proatzeko, lau mediku moz-

kortu eta iltzen zegoen gizon baten aurrera eraman zituzten. Baiña ez zioten antzik eman. Aiek edukiko zuten kankarra! Baiña botika berri ori artu eta urrengo egunean txoria baiño argiago omen zeuden laurak.

San Bartolome bezpera data
nola emango det paso?
Ainbeste lagun jator Zegaman
eta egin bear kaso.
Festetan formal ibiltzerikan
ez da izango, akaso...
Baiña Udaletxeko balkoira
ez beintzat astorik jaso.

Zegaman neska polit askoak,
alai ikusi oi dira;
ez, noski, orko mutil gazteak
ain jatorrak ez balira.
San Bartolome egunean ez
egon atzera begira.
Baiña gauean guztiok txintxo
bakoitza bere tokira.

1991ko abuztuak 30

Tratalariak galdu edo ezkutatu zirala uste nuen nik. Merke erositako beiak eta zekorrek garesti saltzen pijoak izaten ziran aiek. Baserritarrei ganaduak begira erosi eta arakiñei pixura saltzen ere bizkorrek ziran. Izketarako abildadea ere izaten zuten, berriz. Eta orrekin baliatzen ziran, batez ere. Kaleko etxekoandreak ere tratuan ikasita egoten ziran. Plazara zerbait erostera joaten ziranean etzieten eskatutako dana isil-isillik emango baserritarrei.

Nik uste nuen, gaiñera, errekarderitzan aritzea edo regateatze kontu ori gu bezelako arloteena bakarrik zala. Baiña Inglaterrako Erregiñak ere bai omen daki orretan. Amabi egunerako joanda Ipar Amerikan izan da. Eraman eta ekarri zuen egazkiñaren jabeak 51 milloi pezetaka faktura pasatu dio. Eta Erregiñaren estuasunak omen dira onak. Diruz urri samar dabil gajoa, eta zerbait merkexego edo deskuentoa egiteko eskatu dio.

Bein Amerikara joatea pentsatuko eta orduan joan-etorria bakarrik 51 milloi pezeta, alajaiña! Dagoenean bon-bon eta ez dagoenean egon, orrelako erakutsi onak gu bezelakoentzat bakarrik izango dira. Ematen digutenarekin konformatzea eta zerga edo kontribuzio eta gaiñontzekoak zintzo ordaintzea naikoa izango degu guk, dirua lasai kastatzea beste batzuentzat utzita. Gure diru liperrak alperrik galdu gabe zeñek tiratua badago. Orrek ere balio du eta pozik egon bearuko genduke. Guri zer egin esaten ari-tzen diran goiko oiek ere bizi bear dute, eta bizi ditezela. Iñori ez diogu gaitzik opa. Baiña kastuei neurria artzea ez al litzake obe izango?

Egun auetan makiñatxo bat egongo dira oporretan. Urte guztian lanean jardun danak zerbaiten poza bear du, baiña danak ez dira jo eta tira ibilliko. Poltsa ondarrari noizean bein begiratu bearuko diote gero kaskarreko azkurerik izan ez dedin.

Dana dala, erregiña eta orrelakoen inbiriz ez degu egon bear, aiek ere ez baidituzte gusto guztiak izaten. Uda al degun ondoena pasatzeko modua egiten badegu, ura geiago. Osasuna izan dezagula. Eta besteren onaren damutasuna utzi bazterrean, bestela ez gera sekula ondo biziko-eta

Danen gaiñetik egon naiari
zailla da artzen tamaiña.

Nai dan guztia eduki arren
geiago nai, alajaiña!

Jauntxo danak guk mantendu bear,
ez da lantegi bikaiña.

Iñorentzako gorrotorikan
ez da izan bear baiña,
ez dakit danak balio duten
kostatzen zaizkigun aiña.

Ainbat zerga ta kontribuzio,
bada guretzat lain neke.

Zuzendari ta agintaria
ez dira erosten merke.

Oiek zuzentzen gaituzte baiña
izardi askoren truke.

Askotan beintzat kastu alperrik
egingo ez baluteke,
Jaungoikoaren grazi pixka bat
danok izango genduke.

Denbora ez da gelditzen. Beti aurrera dijoa. Uda, oporrak, festak ere bai, baiña geienak pasatu dira. Orain iraila eta gure garaian agorra esan oi genion illean sartu gera. Arantzazuko Ama Birjiña, eta Lierniko Ama Birjiñaren eguna, Kizkitza, Arrate, eta beste askorena ere bai. Eta udazkenean generala kontu. Garai batean bazuen udazkenak zer ikusirik asko. Nolako artoak eta babarrunak izango ote ziran, sagar eta gaztaiñak ere bai. Baiña kontu oiek joan ziran, eta orain urte guztia udazken dala pentsa liteke, baserritarrentzat beintzat. Esnea beera eta pentsuak gora joango ez balira, eta txekorrak ondo saltzeko modua balego, urtea udazken oparo bat izango litzake. Ez ote dira, ba, gauzak iñoiz aldaturko? Beti bueltaka dabillan mundu au ez ote da noizbait baserritarren parean geldituko?

Gauza batzuk aldatzen ari dira, eta ez gutxi. Orain artean, zerbait saldu nai zuten guztiak, sukaldeko tresnak dirala, jakiak dirala, jantziak dirala eta abar, gauza oiek danak neska gazte polit bat ondoan zutela erakusten zituzten errebista eta gaiñontzekotan. Kotxeak ere bai, azkenik. Jokabide orri aitzakirik asko ematen zitzaion, emakumezkoa *gauza* bat balitz bezela erakusten zala eta orrelakoak esanez. Orain iragarki edo anuntziotan gizonezkoen argazkiak ere ikusten dira, baiña orretan ere ez dira danak konforme. Jakiña danez, iragarkietan azaltzea ere dirua irabazteko bide bat izan, eta gizonezkoa azaltzen dan tokietan emakumea nola ez dan azaltzen esaten dute. Dirua, zorioneko dirua falta!

Baiña badira jokabide au ontzat ematen duten emakumeak. Gauza ederrak gustagarri dira, eta emakumeak dituzten guztiak erakutsi bearrean, gizonezkoak ere erakutsi ditzatela. Nik uste nuen gizona eta artza, zenbat eta itsusiago eta ederrago izaten zirela. Baiña emakumeak ere itxura oneko gizasemeak ikusi nai dituzte nunbait, asko moduzko trakets eta baldar ipurdi bazterrera utzita.

Emakumeak ere, gazteak izan edo urteetan zerbait sartuak izan, iri-tzi desberdiñak dituzte. Gazteak gizonezkoak iragarkietan azaltzea ondo artzen dute, baiña bein berrogei bat urte ezkerozko emakumeak, ez. Malizi pixka bat ez al da egongo emen? Senarra itxura onean baldin badago, eskeintzen duten perfume edo kotxe edo dala-koarekin batera salduko dan bildurra ote daukate?

Emakumea zapaltzen dala
salatuagatik bero,
ori esanda oker guztiak
zuzentzerik ez espero.
Betere miñik gabe negarrez
dago zenbait egunero;
gauz zelebreek baziran len ta
gertatuko dira gero.
Kezkak isiltzen erreza baita
dirua izan ezker.

Ain iragarki zoragarriak
ikusten oituak geunden,
azaltzen ziran neska ederrak
arrotzen asiak zeuden.
Baiña nola gaur mutillak ere
ortara jarriak dauden,
ikusten dira makiñatxo bat
gizon egoki ta lerden.
Emakumeak bildur dira ta
komerriak dira emen.

1991ko irailak 13

Amaika aldiz entzunak gera eguneroko ogia kopetako izar-diarekin irabazten dala. Ala ere, lan asko egin gabe bapo jaten dutenak badira mundu onetan, guk ez degu suerte ori izan baiña. Jantziko bagera ere lana egin bearra dago. Eta baliteke neguan ala izatea, baiña oni ere beroarena kendu egin bearra diogu. Iztarrak eta papar ingurua asko estali gabekoak ikusten dira beintzat, eta aiek ez dute janzteko lan asko egin bearrik izango. Marta Sánchez eta orrelakoei degiratu bestela. Erropa kontu au aurrera-pena edo moda edo orrelako zerbait izan diteke eta eman dezaio-gun paso, bestela Testamentu Zaarreko atzeratu edo atrasatu batzuk besterik ez gerala esango digute-eta.

Goazen, ba, serio-serio lan kontuak esatera. Lana egin bearra dago, noski. Baiña estimaziorik txikiena lanik bearrezkoenak izaten dute ordea. Nekazaritza or daukagu eta abelgintza edo abere aztea ere bai. Eta jakirik izango bada, oso bearrezkoak dira. Baiña baserriko lanari etzaio ematen duen baliorik. Lan ori ez da ordaintzen bear bezela. Baserritarrak ez dira aintzakotzat artzen, eta gaitz ori ez da emengoa bakarrik. Inglaterrako neska gazteen artean orain modan dauden galdeketa edo enkuesta bat egin omen dute. Nolako mutillak gustatzen zaizkien jakin nai, ba. Eta neska oiek esan dute, edozer gauza egiteko ere aientzat mutillik gustokoenak abogaduak dirala, eta gutxiena gustatzen zaizkienak esne saltzailleak. Abogaduak buruz azkarragoak omen dira esne saltzailleak baiño, eta gizartean beste mailla bat, beste kategori bat, beste status bat omen daukate. Eta diru aldetik ere abogaduarekin ezkondata segurantzi geiago omen dago baserritarrekin ezkondata baiño. Ez dira burutik makiak izango neska oiek.

Abogaduak justiziaren alde lan egiten dutela ere esan dute, baiña baserritarren alde zerbait egin litekenik ez. Ikusten nago oraindik gure baserritarrak ezkondu nai badute abogadu karrera ikasi bearke dutela. Kategoria, dirua, mutilzaarrak eta orrelakoak nai baitituzte neskak. Zer egingo ote luteke neska oiek beatza aora eman ezkeru?

Ez dute iñor engaiñatzen gaur babarrun eta urdaiak.	Nekazaritzan lan egitea ez da aldapa makala!
Gaurko sudurrik ez du gozatzen baserriaren usaiak.	Neke ugari, ordaiña eskas, etxekoandretza pattala.
Begiak laister argitzen ditu txukun samar bizi naiak...	Nik pentsatzen det gauz au bi aldiz esan bearrik ez dala:
Inglaterrako neskak ez dira bere buruen etsaiak.	abogaduen andreak askoz obeto bizi dirala.

Zerbait modan dagoela esaten degunean, janzkera edo itz egiteko era edo orrelako zerbait izango dala pentsatzen degu. Jendeak arrera ona egin dion zerbait edo bolara batean zabaldua dagoen oituraren bat, alegia. Modak, atsegiñak eta, batez ere, gazteen gustokoak izan oi dira. Grazi aundirik egiten ez duten modak ere badira ordea, eta nai badegu eta ezpadegu aiekin burruka egin bearrekoak ere bai.

Modan egoten diran gaixotasunak ere badira. Auetako batzuk, erorialdiak, depresioa esaten diogun makalaldiak eta stressa esaten diogun larrialdiak dira. Denbora gutxian asko irabazi nai, kutizi guztiak batera bete nai, danera iritsi bear. Eta ortik etortzen zaizkigu estuasunak eta geure buruari eutsi eziñak. Batzutan geiago nai degulako, eta beste batzutan bear aiña ez daukagulako, ezin konformatu izaten gera, eta txalaku egiten gera azkenerako. Erorialdi, larrialdi eta orain modan dauden gaitz oiek, zeregiñik ez daukagulako edo denbora zertan pasatu ez dakigulako ere etortzen omen dira, askotan. Eta sekia eta gaiñontzekoak or dabiltz buru-belarri gaixotasun oientzat erremedio billa. Esaten dutenez, gaitz oientzat sendagairik onena, etxean katu bat edo zakur txiki bat edukitzea omen da. Magalean egon zale dan katu bat edo beti jolasgureak dagoen txakur bat baiño lagun oberik ez omen dago erorialdian tristeturik dagoenarentzat. Zer egiñik eza aspergarria da. Esandako abere oiek lan askorik ematen ez badute ere, egunero zaindu bear dira, orixe da naiko erorialdian eta larriturik dauden pertsonak pixka bat suspertzeko. Txakur edo katu bat laguntzat daukatenak ez omen dira bakarrik ikusten, eta orixe naiko, nunbait, zerbaitenganako maitasuna nabaitzeko.

Alaxe izango da, seguru asko. Stressa eta depresioa esaten diegun gaixotasun oiek modan dauden bezela, katu edo zakurra

etxean edukitzeko oitura ere zabaldua dago gaur egunean. Lanik gabe edo eziñean arkitzen danak bere buruarekin edukiko du naiko lan, baiña ondo bizi dalarik zer egiñik ez daukanak katuak baiño lagun obeak aurkitu eziñik ez dauka, nai badu beintzat. Badago zeñi lagundua. Sikiatrak ere obe luteke katuak eta zakur-
rrak maitatzeko esan bearrean premian dauden pertsonak maita-
tzen erakutsiko baluteke.

Nai degu baiña guztiok ezin
bizi aberats modura.
Erosotasun danak nai eta
ezin ekarri eskura.
Arnas artzeko astirik ez ta
falta au ez bada ura.
Estu ta larri beti poz billa,
ta azkenean tristura.

Auleri eta larrialdiak
sasoirikan onean,
estu ta presa bizi bearrak
ori dakar geinean.
Katu bat edo zakur txiki bat
laguntzat aldamenean,
a ze nolako alibioa
bizitzaren azkenean.

1991ko irailak 27

Amaika aldiz entzun degu mundua danontzat egin zuela Jaungoikoak. Eta ori ala izanik, munduak ematen duena ere danontzat izan bear, zalantzarik gabe. Lege au sarritan austen da ordea, eta munduko on aurkiak indarrrik geiena dutenak eramaten dituzte, ez legez artuta baiña. Ala ere, munduko errege gizakia da, eta munduaren emaitzak nola banatu edo zeñientzat izan giza-
kiaren esku dago. Gizakia ez da ordea gizona bakarrik. Emakumea ere gizakia da, au askotan kontuan edukitzen ez bade-
gu ere. Naiz indartsuagoa izan, gizonezkoak ez du eskubiderik emakumeari berea duena ukatzeko edo kentzeko. Ezkondu giña-
nean ere “laguna ematen dizut, – esan ziguten –eta ez mirabea”.
Eta nik ez dakit laguna ala nagusia eman ziguten, baiña artu gen-

duen beintzat, eta bizi gera. Ain gaizki ere ez gaiñera, eta segi aurrera. Urte askotarako izan dedilla.

Suitzan emakumeak esiari salto eginda ibilli dira oraindik denbora asko ez dala. Lan berdiña egiten duenak lantsari edo soldata berdiña bear lukeela dirudi. Emakumea gorputzez aulxeagoa izan ordea, eta gizonezkoak gaizki oituta daude edo abusatu egiten dute Suitzan ere. Baiña baita emakumeak asarretu ere, eta zearo asarretu gaiñera. Huelga egiteraiño. “Guk nai badegu, dana geldituko da emen!”, esan omen dute. Eta orrelaxe izango da. Emakumeak lana egiteari, maitatzeari, agintzeari, irripar egiteari, maixeatzeari, muturrak jartzeari, etxean egoteari eta beste abar luze bati utziko balio, gizonak zer atarramentu aterako ote genduke? Ez al da orrelakorik gertatuko, Jaungoikoaren izenean. Ori baiño obe da, guk aiña lan egiten badute soldata berdiña eman, eta aurrera. Suitzan emakumeak huelgan egon diran bitartean, gizonezkoak egin dituzte sukaldeko lanak, umeak zaindu eta orrelakoak. Emakumeak soldata ohea jasotzen badute, obeto bizi-ko diralakoan egongo dira, seguruenik. A, gizarajoak! Emakumeak gizonak aiña irabaztea lortzen badute, gizon bat baiño geiagok burua makurtu bearke du, leenaz gaiñera.

Baiña ez litzakela kalte izango esango nuke. Emakumeak ere noizean bein goitik kukurruku egin bear du umore onean egon dedin. Etxeko goxotasuna ortik etortzen baita.

Oraiñaldian kontu berriak
asiak gaude jakiten:
gizonak ere badakitela
lapikoak irakiten.
Andreak huelga egin dezaten
senarrak lanak egiten...
Zenbateraiño maite ditugun
ez dakit ote dakiten.

Aintzat artzeko emakumeak
egin bear zuten zerbait:
diru geiago irabazi nai
huelgaz edo nolabait.
Asko ekartzen baldin badute
izango al degu zerbait.
Ez naiz geiegi piatzen baiña
ala iruditutzen zait.

Oraingo udazkenak ez du leengoak bezelako garo usairik, baiña urte-saso ederra eta atsegiña da, leen bezelaxe. Bat eta beste esaten degun arren, bizimodua dexente erreztu zaigu, orratik! Gauez egoaizeak naastutako garoak bildu bearrak bazituen bere lanak. Orain beste komeri batzuk sortu zaizkigu. Gizonak beintzat trakets samarrak izaten gera, eta egoaizeak garo lekua bezela etxe guztia narrastuta jartzen degu, askotan. Eta jakiña, etxeakoandreak bazterrak txukuntzen aspertzen dira eta ez da beti giro izaten aien ondoan. Gure lagun kuttuna goibelduta ikusteak zenbat sufrituerazten digun geuk bakarrik dakigu. Etxekoandrea bekoki illunarekin eta ezpaiñak zimurtuta dagoenean, geu izaten gera galeran irtetzen geranak. Orregatik, zer egin ez dakitela eta triste dauden senarrei lagundu nai diet gaur.

Zergatik ez dakizula, etxeakoandrea itzik gabe gelditzen bazaizu, artu ezazu zurekin kotxean eta joan zaitezte biok Oñati aldera, *Errosarixoko* domeka inguru au ez dezute garai txarra-eta. Inguru zabalak dauzka Oñatik, eta alaiak. Ango baserri bikaiñak txaletak dirala esan diteke. Alaxe zainduta daude izan ere. Eta gero, bazterrak pixka bat ikusitakoan, urbildu zaitezte errira. An ere badago zer ikusi: eliza bikaiña, unibertsidadea, etxe dotoreak eta abar. Orrelako gauzak ez diote etxeakoandreaki grazi geiegi egingo, bearbada, baiña eskaparate dotoreak ere badaude Oñatin, eta egun batekoagatik lagun zaiozu eskaparateak ikusten, pazientzi ederrarekin. Gero, bermutxo batekin pintxo bat edo beste artu, eta Arantzazura.

Baiña ez joan zuzenean. Oñatitik berealaxe antxe dago Txopekua jatetxea. Joan zaitezte bertara. Antxe bazkalduko dezute ederki. Alperrikako lujorik ez dezute aurkituko, baiña bai leku apaiña, txukuna eta garbia. Eta giro ederra. Janaria berriz, etxean bezelaxe, gogo-gozo prestatuta. Eta alako giroan eta ain patxara

ederrean bazkaltzean, ikusiko dezu zuen etxekoandreari nola begiak argituko zaizkion, eta ze irriparra etorriko zaion ezpaitarara. Baita itza ere. Eta aspaldian esan dezuten kontu potxolororik geiena esango diozute alkarri. Txopekuan bazkaltzeak orrelakoxe mirariak egiten ditu, aiskidia. Bertan kafetxo bat edo beste artu, eta Arantzazura. Arantzazuko Amak orrelakoak naiago ditu, bai, bere onetik irten eta erretxinduta dabiltzan senar-emazteak baiño. Txopekuan ederki bazkaldu ondoren pakeak eginda dijoaztenei eskatutako dana ematen omen die.

Etxekoandrea baldin badago
zerbait kopetillunduta,
Txopekuara eraman zazu
besotik goxo artuta,
antxe patxaran bazkaldu dezan
bestek maia serbituta.
Noizean beinka atsedentxo bat
ark ere merezi du-ta
noizean beinka atsedentxo bat
ark ere merezi du-ta.

Pake santuan bazkaldu dezan
giro atsegin, epela;
emazteari eskeiñi sarri,
zu utsa zera bestela.
Eta ziur egon Txopekuan
ondo artuko dutela,
zure etxeko erregiñari
tokatzen zaion bezela
zure etxeko erregiñari
tokatzen zaion bezela.

1991ko urriak 11

Sarritan esan digute gure bizitza laburra dala eta munduko gauzakin ez degula itsutu bear. Ez da gezur aundia izango. Ondo gabiltzanean azkar joaten da, eta gaizki bizi geranean, luze. Agiñeko miñez pasatutako gauak ez dira motzak izaten. Orregatik, al degun ondoena bizitzen saiatzen gera. Inbiri pixka bat edo besteak gu baiño obeto bizi diran ustea ere ezaten degu, eta munduko gauza onak nai, ba, guk ere, dana gerorako utzi gabe. Eta ondo izan nai orrek zepoan arrapatzen gaitu. Beti neke-

ari nundik iges egingo, eta lana urri dagoen onetan, danok lana nun izango gabiltza. Edozeiñek antzematen digu guri. Lana egin bear ori dala eta ez edala, enpresatako agintari askok opor luzerik ez dute artu nai ia. Kanpoan diran bitartean lana norbaitek arrapatuko ote dien bildur dira, nunbait. Jaiekin daudela ere egunero telefonoz lantegira deitu gabe ez dira lasai egoten. Oporretan ere lanaren mende, atsedeen artzeko martxa ederra.

Amerikan ondo biziko dira, baiña oporretan izan eta eguzkiak beztuta oraindik zuritu ez diranak ez dira ain gaizki ibilli emen ere. Lana egin bear orrekin familia urtean iru aldiz bakarrik ikusten dutenak bai omen dira Amerikan, batez ere saltzaille edo biajante eta orrelakoak. Baiña danak ez dira ibilliko galtzeko moduan. Pikardirako astia izateko aitzakia ona baita lana. Familitik kanpora dabilenak arrastorik irtetzeko arriskua badu gero! Amerikan ondo bizi diralakoan egoten gera, baiña kutizi guztiak beteko badituzte, lana egin bear an ere. Saiatu gabe ez dago ezer. Iñork ez du ezer ematen musutruk, eta lanarekin burruka egin bear orrek Amerikako jendea gaiztotu egin omen du, eta nai duten dana iritsi ezin dutelako bere burua urkatutako asko izaten omen da.

Bizitza laburra dala eta zumu guztia bat-batean atera naiak orrelakoxe ezegitekoak egiñerazten ditu. Iñori kalterik egin gabe al dan ondoena bizitzea ez al da obe izango? Emen ondón bizi-tzen jakiteak gerorako ez ote du batere balio?

Gure moduan geiago ere
emen dabiltz jo ta tira.
Ola biziko ote lirake
itzaren jabe balira?
Naiz sarri esan ez bizitzeko
beti lurrera begira,
bada ez bada munduan ondo
bizitzen saiatzen dira.

Lasai bizi nai baldin badegu
portatu beti ondradu.
Aukerarikan ez galdu gero
izan ez dedin berandu.
Kalterikan ez egin iñori,
itxaropenik ez galdu.
Ondo bizitzen orain dakiñak
gero're asmatuko du.

Etixerako igeltseroa baiño arotza ohea dala esan oi zuen gure ama zanak. Arotzak, besterik ez bazan ere, sua pizteko txirbilla utziko zuela, baiña igeltseroaren propiña etxeko zirriztu guztiak autsez betetzea izaten zala. Masa-zipriztiña eta autsa izango da igeltseroa dabillen tokian, eta emakumeentzat lanik asko sortuko du, leenaz gaiñera. Mundu onetan ez da ordea ezertarako ez danik, eta igeltseroak ere bearrekoak ditugu. Beti kaiola berdiñean bizitzen aspertu egiten dira etxekoandreak. Bizilagunak etxebizitza ederragoa ote daukan ere pentsatu izan dute, eta or dijoaz igeltseroaren billa. Jakiten dute, ba, zer datorkien, baiña ezin soseatu ala ere. Moda dala edo ez dala, zerbait berria nai beti. Eta igeltseroak naiko ez dirala, iturgin edo linterneroak ere an izaten dira urrutira gabe. Eta langille aukeratuak engaiñatzeko daukaten artea nai nuke neretzat. “Emen onelako azulejo jarri, an alako baiñera eta ispillua, eta ikusiko dezu zer sukalde txukuna eta nolako baiñugela dotorea geldituko zaizun...”. Bitartean an egoten gera arrituta aiei begira. Guri dana ezetz esaten digute; igeltsero jende orri, dana baietz. Eta gero, obrak asten diranean izaten dira komeriak. Igeltseroak bazter guztiak jo eta puskatzen ditu, etxea autsez beteko du, eta ez da izaten azukre koskor batekin andrea gozatzerako joan besterik. Iturgiñak esan bai lau-bost eguneko lana izango zala, baiña batzutan kale egiten dute, eta etxe osoa ipurdiz gora jarri eta esandako egunerako bukatu ez, geienetan. Eta gero, erru guztia guk izaten degu. Ori da okerrena. “Ez daukazu errespetorik, ez diezu ezertxo ere esaten. Gizon guztiak berdiñak zerate!”.

Kontua da, dana gure bizkar joaten dala orrelakoetan. Nola emaztearen erasoak ala igeltseroaren lanak. Maillu otsak isildu eta autsak ezkututzen diranean emaztearen aurpegi alaia eta begi argiak gauza politak izaten dira, ba. Aiek losintxak egiten diz-

kiena igeltsero eta iturgíñei. Senar gizarajoarentzat ez du alakorik izaten. Baiña emaztearen ezpáñetan irriparrea ikusteak ere zerbait balio duela, eta aurrera segi bear, beste orrelako bat asmatu arte. Igeltseroak etxean dabiltzan bitartean emazteari pazientzia santua artzen dion senarrak zerua irabazita dauka.

Gaur senar askok artua degu
Job santuaren oitura
nola benetan premizko zaigun
pazientzi santu ura.
Aitzaki eta zer eramanak
guztiak gure kontura:
emaztearen jenioa ta
igeltseroen faktura.

Igeltserorik ez du estutzen
etxeakoandreak nolanaí,
illun antzean baldin badago
losintxatuko du alai.
Andrean berri ainbat jakinda
nolatan ez egon lasai?
Asarre berak jartzen ditu ta
adiskidetu ere bai.

1991ko urriak 25

Urria ere joan zaigu. Il oni urria esaten diogu. Baiña ez dakit datozkigunak au bezin mardulak izango ote diran. Ez dakit il onek besteak aiña aize eman duen ere. Bateko usoak eta besteko beste, aizezale asko izaten da urrian. Aize pixka bat bearrekoa da, izan ere. Urdaillean edo sabelean ez, noski. Baiña buruan aize pixka bat bear da gaurko mundu naastu oni aurpegia emateko. Gu bizi geran garai oni, motor garaia esaten diote. Eta alaxe izango da. Mutil koskor guztiak or dabiltz jo eta ke, zarata dariotela. Zenbait gurasok ez dakit zer esango duen. Motorra erosi arteko pakerik ez, eta semeak etxetik irtentzen diranean atzera etorri arteko sosegurik ez. Danak ezpaitote aizeari neurria ondo artzen. Bat eta bi baiño geiago dira argi-alanbrea jo eta akabatzen diran txoriak bezela bazterra jo eta betirako geldituak. Ori da penagarria. Orra aien gurasoen lan, neke eta ardurak aize bolara batek

eraman. Eta gaurko zenbait neska sorgin? Edozein aldizkari edo errebista eskutan artzea naiko da argazki xelebreak ikusteko. Aragia merke dago oraintxe. Telebisioa ere saiatzen da orrelako irudiak ematen, eta neska gazteak kezkarik ez dutela esan ditezke nunai amak egin zituen bezela azaltzeko. Danak ez det esango, baiña batzuk bai beintzat. Moda onek salmenta du. Ez ote dago beste modurik dirua irabazteko? Neskak ere, mutillak bezelaxe, aizea artuta dabiltzala dirudi. Batzuk azkarregi eta besteak oztu bildurrik gabe. Oitura auek makiña bat naigabe ekartzen dute gurasoentzat.

Italian gizon batek bere burua tiroz il omen du. Egunkari eta aldizkarietan bere alabaren argazkia larru gorritan ikusi eta ezin eraman, gizarajoak. Bere burua il zuenerako, nola egongo ote zan gizon aren barrua? Askatasuna eta oiek denak oso ondo daude, baiña gazteak ere gurasoen ardura pixka bat bear dute. Gaurko munduan guraso izatea ez da gero zenbait gazte aizeburuk uste duen bezin erreza. Aize pixka bat ondo dago, bere neurri batean. Baiña gurasoen alegiñak ez dira aizearekin ordaintzen. Eta gurasoak ere ez ote daude errezari emanda? Umeak azi eta ezi egin bear dira. Eta gaurko gurasoak umeak azi egiten dituzte, baiña ezi?

Gazte eta zar bildu gaitzen
danok alkarren ondora.
Alkar lagunduz pasa dezagun
mundu ontako denbora.
Aize pixka bat gabe ez dago
joaterikan iñora.
Baiña nagusi izan nai oiek
utzi ditzagun albora.
Aizea ere ez baita ona
bere neurritik kanpora
bere neurritik kanpora.

Dana dakian ankabikorik
oraindik ez dago emen,
eta ikusi bat bestearen
bearrean nola gauden.
Diran kutizi guztiak bete
nai izan arren lenbailen,
arriskuari iges egiten
ikasi bear da lenen
bizia eta ilusioak
batera galdu baiño len
batera galdu baiño len.

Mundu onetan sekula etzan izango orain aiña lege. Eta, alare, ez degu gauza bat zuzen egiten. Ez dago justizirik. Txinan gizon bat kartzelan sartu omen dute. Zergatik eta zazpi andre dauzkalako, alajaiña! Eta zazpi aldiz ezkondu baldin bada, artu dituen andre oiek ezkontzeko irrikatzen zeudelako izango zan. Bestela etziran ezkonduko. Txino gizarajoa iñori mesede egitearren zazpi emazteren kargu egin, eta kartzelara. Aberatsa omen da. Zazpi andrearen aginduak betetzeko prest egotea ez al da errukizko egintzak egiten edo miserikordizko obrak egiten dirua kastatzea? Orrelako gizonak kartzelan sartu ez baiña monumentua merezi luke. Txino orrek egin duena egiteko pazientzi aundia bear da gero. Ori ez da auntzaren gauerdiko eztula. Aberatsa izan, eta bizkorra ere bai. Emazteak morrozkada egin digula eta emen ibiltzen gera bildurrez airean. Eta txinoak zazpi etxekoandrearen sermoiak entzun bear. Ala ere, orri buelta ederki eman diola uste. Andre bat asarretzen danerako beste sei ordeko ez dauzka edozeiñek. Emazte bat eta beste sei repuesto gaizki etorriko al zaizkio?

Etxekoandre sorgin samarrak arrastoan sartzeko ez da ori sistema txarra izango. Asteko egun bakoitzerako andre bat, alajaiña. Asarretzen bada, astea pasatzerako adiskidetuko dala, eta segi aurrera, berriro amabira. Polbora txinoak asmatu zuten. Ezkondu eta ondo bizitzeko modua ere ez dakit ez ote duten asmatu. Ala baldin bada, polbora asmatzea aiñako meritua izango du oraingo inbentu berri onek. Dibortzio bildurrak ere kendu ditu txino orrek. Izan ere, zein andrek alde egingo dio beste sei gelditzen zaizkiola jakiñik? Kontua da, zazpi andre mantentzen dituela gure gizonak. Batzuk ofizinan lanean eta orrela omen dauzka. Baiña ala ere, ori ez da arrazoia gizona kartzelan sartzeko. Andre oiek astean bein bederik pixka bat sufritueraziko diote senarrari. Eta zer egin bear dute emendik aurrera? Ez dago justizirik.

Zazpi andre zuzen erabiltzen dituen gizona ez da artzai txarra. Asko esatea izango da, bearbada. Baiña ez dakit kartzelan sartzea baiño santutzat artzea ez ote zan obe izango...

Ez diot traza onik ematen
Txinan egin dutenari:
kartzela eman zazpi emazte
zeuzkan gizarajoari.
Balio gutxi eman diote
pazientzi artzeari,
sarien orde zigor ematen
ez ote dira an ari?

Emazte asko edukitzea
ez da izango legezko;
baiña ez uste gero edozein
dala kapaz ortarako.
Munduan zeñek entzun ote du
txino ark aiña ezezko?
Zazpi emazte ondo zaintzeak
badu meriturik esko.

1991ko azaroak 8

Aurpegiz ezpada argazkiz, Marta Sánchez ezagutzen ez duen asko ez da izango gure artean. Kolore berde samarreko estanpak ikustea pekatu dala uste duten amonaxoren batzuk egon litezke oraindik ere, baiña ortik aurrera iñor gutxi. Artista eta kantari eta oiek bere buruak erakutsizale izaten dira. Dirua nai, ba, eta nola edo ala fama pixka bat artu bear orretarako. Martari ere orrelako zerbaite gertatzen zitzaion. Joan dan udan nunai ikusten ziran bere argazkiak, dituen guztiak erakutsiz. Nolako gorputza daukan adierazi du ondo asko. Baita propaganda egin ere. Aurrekalde mardul samarra dauka eta jendeari ori gustatzen, nunbait. Eta kontua da, ibilli dan leku guztietan euliak eztitara bezela ingaratzen zaiola jendea. Eta okerrik gertatu etzedin bi polizi bere ondoan zituela irtetzen zan kalera. Makiña batentzat egin bear degu. Martak papar ingurua eta giñontzeko guztiak erakutsi nai dituelako gure diruarekin ordaintzen ditugun poliziak jarri bear zaindu dezaten. Jende guztia aztoratzeko berari derizkion guztia egin, eta ortik aurrerakoak gure kontura.

Leenbizi danak zirikatu, eta gero guk ordaindu bear ezer gerta eztakion. Ez dago, ba, oraintxe dirua zertan kastaturik orrelako masusta batzuei begira egon gabe! Pakea nai badu, ez dezala iñor zirikatu. Mostradore aundi samarra baldin badauka, gorde dezala ezkutuan eta eman dezala pakea.

Mundu au ainbesteraíño zelebretu zaigu eta ez dakigu zer egin ere. Illea pinta-pinta egindako neska zuztar bat naikoa da bazter guztiak endreatzeko. Asko omen dira Martaren argazkia oeburuan daukatenak. Ez da, ba, berari errezatzeko izango! Orixe besterik etzaigu falta zearo txalakatzeke. Argazkia karteran erabiltzen dutenak ere bai omen dira. Baña Martaren argazki guztiak baiño bost milla pezetako billete pare bat edo iru obeak al dira izango karterarako?

Zer esanikan asko sortzen du
Martaren papar guriak,
nola ez diran noiznai ikusten
alako sail ugariak.
Bi poliziak zaintzen dituzte
inguruko eiztariak,
alperrik galdu ez dezaioten
kolkoan dauzkan txoriak.

Zirikatu ta gero eskatu
poliziaren laguntza.
Zenbaitek beintzat badu kopetan
azal lodi eta latza.
Larre luzeak urbildu oi du
akerra ez bada auntsa...
Orregatikan zaindu bear du
bakoitzak bere baratza..

1991ko azaroak 15

Iñoiz entzun izan det mutil bildurti samarren batek andre-gaia egin nai duenean basoerdi bat edo beste bearrezko duela. Maitasun kontuan ardo zurrut bat edo bestek berebiziko mirariak egin izan dituela, alegia. Ardoa ez da botika txarra mingaiña martxan jartzeko, baiña neurria artzen jakin ezkerro lagun ohea da. Izketarako ausardia emateaz gaiñera batek barruan daukan guztia berealaxe esanerazten du, eta dan bezela esan ere. Aurrak eta mozkorrak egia esaten dutela aspaldiko esaera da. Garai batean,

jai illunabarrean neska laguntzera joaten ziran mutillak ardo usai pixka bat izaten zuten. Baiña neskatxak apenas asko izutzen ziran orregatik.

Baiña ezkontzen laguntzen duten iturriko urak ere bai omen dira. Onelako mirariak egiten dituzten urak Zestoako baiñuetxean daude gaiñera. Oraintsu jakin dedanez, baiñuetxe ori ideki zanetik oraiñarte, berrogeita amar bat bikote uztartu omen dira, Zestoako urari esker. Eztakit egia ala gezurra izango dan, baiña neri ala esan didate. Zestoako ura gibleko, beazuneko eta orrelako gaitzak sendatzeko oso ona da. Beste zenbait aje eta aitzaki sendatzeko ere bai, noski. Eta urak artzera joaten diranak, asko beintzat, urtez osatuak izaten dira. Malizian pixka bat sartutakoak ere bai, seguru asko. Eta urak artuta sasoi punttuan jartzen diranean, ezkontzeko gogoia etortzea arritzeko al da? Makuluarekin joandako aitonatxoak izaten dira urak artuta gero tente-tente jartzen diranean bere moduko amonaxoren bati ezkontzeko mandatu gindakoak. Giblean edo beazunean arriak zeuzkaten etxeoandreak ere urak sekulako umorean jartzen ditu. Aitonatxoak ala suspertuta ikustean, berak ere sekulako sasoi jartzen. Alargun askorentzat aitzaki ona dala uste det ura edanez Zestoako baiñuetxean egun batzuk pasatzea. Sendatu eta berriberriak bezela jarri, lagun egoki bat aurkitu eta ezkondu, eta orrela, aitona-amonak zearo gaztetuta. Uraren mirariak.

Ura izanik edari ona,
osasungarri ta fiña,
ez nuen uste baiña omen da
zarrak gaztetzen dakiña.
Eta gaiñera izanik bera
mirari asko egiña,
Zestoa dago lore ximurak
preskatzen diran jardiña.

Ikusten danez Zestoa ortan
mirari asko izan da.
Ez dakienak jakin dezake
baiñuetxera joanda.
Aiton-amonak ikusten dira
alkarri esku emanda,
tristura eta penak azturik
ur apurtxo bat edanda.

Gaur Santa Zezilia eguna degu. Musikalarien zaindaria. Elizako koruan kantatzen dutenak ez dira aaztuta egongo. Erri batzuetan bandak ere badaude oraindik, eta aietan jotzen duen musikalaria asko ere ez. Bazkari edo afari, zerbait egin naiko dute bere zaindari Santa Zeziliaren ondran eta alabantzan. Aurten egun egokian tokatu zaie gaiñera, biar ez da lanera joan bearrik izango-eta. Eztarriko abildadeak erakusteko egun onen zai zeuden jubilatua ere izango dira. Eta nola batzuek ala besteak ederki egingo dute. Lagunarte atsegin bat moldatzeko zer oberik otordu baten ondoren kantu saio alai bat baiño? Gure egunetan ez dakit kantatzeari duen baliorik ematen diogun. Kanturako zaletasunak alaitasuna berekin du. Eta bizitzak alaitasun premia ere bai. Garai batean etzan bizitzeko orain aiña erosotasun. Kejatzen bagera ere bizimodu arroteagoa ezagutuak gera. Ala ere, oraingo aldean asko kantatzen zan orduan. Zerbait bear, ba, bizimodu urri ari aurpegi emango bazitzaion.

Gaur ere badago musikazaletasuna. Baiña oraingo kantuak sentimentua baiño otsa eta zarata geiago dutela iruditzen zait. Gazteak beintzat orrelako musika naiago dute, eta ez dago zer esanik. Santa Zeziliak zaindu ditzala danak, eta aurrera. Kanturako zaletasuna galdu degun bezela, bizimodua zerbait tristetu egin zaigula esango nuke, bestalde. Familian asko kantatzen zan garai artan, anai-arrebak ez al ziran alkarrekin orain baiño obeto konpontzen? Kantuan ari ziran denboran beintzat etziran alkarri mokoka jardungo. Senideak alkarrekin ondo konpontzea gauza ederra da etxerako. Gazteak alkarrengana bildu eta noizean beingo kantu saioak ere alkar ikusi eziña baiño politago eta ederragoak dira, bai. Famili euskaldunetan, eta batez ere base-rietan, sekula galdu ez bear lukeen oitura bat bazan: seaskari eragiñez eta kantatuz aurrari lo arreraztea, ain zuzen. Bertso zaar

eta kantuz laztanduz lo artzen oitu giñanok beti gogoan izango degun oitura gozoa zan ura. Oraingo amak ere aurrak ondo maite dituzte, noski. Baiña bai leengoak ere. Eta aurrari kantatzen oituta zegoen ama ez al zan familian utsune asko betetzen zituen gozotasunaren gozotasuna?

Nabarmen dago irrati eta telebistaren itzala.
Zertan asiko gera gu oiek kantuan ari dirala?
Esan diteke gu gabe ere nork kantatua badala, eta gu berriz aspaldi ontan mututu egin gerala.

Len etzan orain aiña kantari eta ez da misterio,
nola geuk alkar alaitzen gendun gure kantuak medio.
Baiña bertso ta lengo kantuak ez dute orain balio.
Kantu arrotzak maite ditugu eta geureak adio!

1991ko azaroak 29

Besteren bizitzaren berri jakin naia ez da oraingoxe egarria. Besteak nolakoak diran, zer egiten duten edo zer daukaten jakitea guztioi gustatzen zaigu, gutxi edo geiago. Batzutan geitxo ere bai. Orain esaten duten bezela, iñor kontrolatzea gustatzen zaigu nunbait.

Inglaterrako neska gazteak izugarritzko arreta omen dute bere gustoko mutil gazteak kontrolatzeko. Eta orretan lana egiten duten enpresak ere badaude, eta mutillen bat begiz jotzen dutenean, enpresa oietara joaten dira laguntza eske. Mutil bat edo edozein gizon zer moduzko senarra izan litekeen jakiteko, nolako kotxea erosten duen begirutzen eta abar diote leenengo. Eta ortik ateratzen dituzte kontuak zer oitura dauzkan, nolako jenioa duen eta abar. Ortik antzematen diote mende samarrean edukitzeko moduko senarra izango dan ala ez. Orra ezkondu baiño leen gizona kontrolatze-

ko modua. Zer izango ote da ezkontuta gero? Estadistikak eginda omen daude, eta neskatxak aietatik jakiten dute zein mutilli nolako amua bota. Nunai ere ez, baiña Inglatteran ere emakumezkoak ez duade lotan. Guk aiña malizi badaukate.

Esandako enpresa oiek egindako azterketa eta estadistikak esaten dutenez, kotxe *deportivo* gorriak erosten dituztenak, emakumezale purrukatuak izaten omen dira. Azkar ibiltzea eta doto-re azaltzea gustatzen zaienak, eta engaiñagarriak. Alakoekin poliki ibilli bear omen da. Kontuz! Eta ez fiatzea obe. Beste kotxe aundi batzuk izaten dira, *familiarrak* izenekoak. Alakoak erosten dituztenak, biotz oneko gizonak eta maitakorrak izaten dira, estadistika oiek diotenez. Bai emaztea eta bai aurrak maitatzen dituzten gizonak, ain zuzen. Onelako gizon bat iñor konformatzeko lain badala esan diteke, ba, baiña bai zera! Ain patxaratsuak eta pakeosoak izaten dira, eta alakoen ondoan emazteak aspertu egiten dira, azkenerako.

Edozeiñek asmatzen du emen. Kotxe aundiak eta garestiak erosten dituzten gizonak, oso langilleak eta diru asko irabazten dutenak izaten dira, jeneralean. Beti nundik lana egingo eta diru geiago inguratuko bizi diranak. Eta orrelakoak ez dute andregai faltarik izaten. Izaten dute zeñiek begiratu eta zeñiek losintxa egiña. Pakea eta maitasuna, eta laztantxo bat edo beste onak izango dira, baiña diru pixka bat ere txarra ez.

Beti prest gaude besteak zenbat daukaten kalkulatzeko, lagun urkoa arrapatzeko sareak antolatzeko. Abildadea badegu ere besteak kontrolatzeko, obe genduke balio izan lagunak kantsolatzeko.

Bere senartzat iñork ez du nai inguruan lagun txarrik, naiz gizonetan ez izan beti piztuta dagon izarrik. Maitasun utsak ez du izango itxaropen gabe indarrik. Baiña ez degu fiatu bear itxurarekin bakarrik.

Abendua emen degu, aaztu gabe, zintzo asko. “Abenduko eguna, argitu orduko illuna”, dio esaera zaarrak. Il onek egun mikatzak ere izaten ditu baiña gozoak ere bai. Gaur ere izango dira San Nikolas gogoan dutenak. Ea, ba, aren ospakizuna eginda limosna on samarrak biltzen dituzten, oitura zaarrari eusteko gogoa galdu ez dedin.

Leengo zaarrak abenduko ospakizunak sukaldeko suaren inguruan egiten zituzten. Eguzki epelarekin amets egiten zutelako ote zan? Sutondoan jarri eta aurretik berotu eta atzetik oztu egiten zan garai aiek joan ziran, zorionez. Oraingo ametsa, pertsona elduentzat beintzat, abenduko jaiak mai itxurazko baten inguruan ospatzea izaten da, familiko alkartasunean. Gazteak ez dakit zerekin amets egingo duten, baiña aiek ere izango dituzte bere ametsak, arritzekoa ez da-eta. Ondo egiña. Gaztearoa ez da bigarren aldiz etorriko, eta eskuan daukaten artean al duten zumu guztia ateratzea onena, geroko utzi gabe.

Il onek badaki osasunari jipoi bat edo beste ematen. Koipe gauzak dirala eta abar, pixka bat gizentzeko ez da garai txarra. Kolesterola, edo odolak loditu dirala eta ez dakit zer, poliki ibilli bearko degu. Tentsioa ere or egongo da zai, ez deskuidatzeko abisuka. Gaitz oientzat berebiziko erremedioak ia billatuan omen dabiltz jakintsuak. Zaiñetan odol bildurik ez egiteko botikarik onenak izaiñak omen dauzka. Erderaz *sanguijuelas* esaten zaien txitxare antzeko mozorro beltz oiek, alegia. Nerbiotako gaitzak sendatzeko bear diran erremedio asko ere badauzkate izaiñak. Baita biotzeko infartoa, perlesia, erreuma eta nik ez dakit beste zenbat gaitz sendatzeko ere. Izaiñak ozka egitean bere txistua sartzen du odolera. Eta txistu orrek odolari mamitzen ez dio uzten. Eta, orra enbolia, odolaren kolpea eta orrelako gaitz bildurgarriak uxatzeko modua. Gure

Jainkoak argi egin dezaiela sendagai edo botika berri ori egiteko lanean ari diranei.

Ezbearrez moztutako beatzak konpontzeko ere balio du izaiñaren gai orrek. Baita moztutako belarriak josi eta lengo lekuan ipintzeko ere. Ozkada batekin belarria moztutako kontuak entzun izan dira iñoiz. Ba, orrelakoan belarria josi eta belarritakoen lekuan izaiña zintzilik jartzea ez da txarra izango.

Egiten degun dana guretzat
izango danik ez uste.
Aberasteko bildurrik gabe
neurria artzen digute.
Izain batzuek sobrea dagon
odola kentzen badute,
beste batzuek izardia ere
ederki txuputzen dute.

Langillerikan ez du geiegi
gizenduko esnegaiñak,
nola beretzat ondo neurturik
dauden lanaren ordaiñak.
Beti gaiñetik kendu eziñik
dauzka txupante bikaiñak,
zerga ta abar bere patrikak
uzten dituzten izaiñak.

1991ko abenduak 13

Emen degu Santa Lutzi eguna ere. Peria ikusiz Zumarragara bisitatxo bat egiteko eguna, lagunarte pixka bat egiñez. Etxean dagoenak etxeko berri bakarrik jakiten du. Eta onelako txangoaldiak bearrezkoak dira, batez ere baserritarrentzat, inguruko kontuak jakiteko. Baiña diru poltsa ondo zaindu beintzat, karteristak ere izango dira-eta perian. Datorren urtean gasolina eta nik ez dakit beste zenbat gauza garestituko omen diran. Zumarragara joan gabe ere karteristarik asko izango da gure diru ondarrak biltzeko.

Santa Lutzia bista onaren zaintzaillea da. Eta bista onaren premia badago oraintxe gure artean. Alkar ikusi eziña ondo indarrean dago. Gu bezelako arlote ezjakin batzuk biurrituta

ibiltzea ez da arritzeko, baiña oraingo politikari edo politiko edo diralako oiek ere ez dira Jesus. Oien eginbearra erriko arazoak konpontzea da, baiña ori ez dute ikusten nunbait. Eta or dabilta alkarri mokoka, batuk bestea jan bearrean, eta beste guztiak nundik zapalduko. Ez dute ikusten zertan ari diran. Oiek ez dute astirik edukiko, eta geuk asi bearko Santa Lutziari errezatzen jauntxo oiei begiak argitzeko eskatuz. Ea noizbait ikusten duten ez ditugula goiko maillan jarri bata besteari ziplaka denbora galtzeko, erriaren zerbitzurako baizik. Eta ea noizbait konturatzen diran erriak geroz eta bizimodu estuagoa daukala. Lantegi asko isten ari dirala eta lapurretak ugaltzen. Lana urritzen ari dala eta drogak ugaltzen. Bizimodua garestitzen ari dala, eta ala ere zerga edo kontribuzioak edo dalakoak goraka dijoaztela. Langilleen soldatak geldi edo erdi-geldi dau-den bitartean agintarienak tximistak arturik gora eta gora dijoaztela.

Santa Lutziak badauka bai lana. Agintariak or dauzkagu guri nola portatu erakusteko, eta berea besterik ez dute ikusten. Bista motza daukate oso. Eta ez dute beti “zu pekataria” errezatu bear. Guk ere badaukagu begi bista onaren premia. Zertarako? Geuk aukeratutako agintariak zer egiten duten ikusteko, eta ondo portatzen ez badira, garaia datorrenean oilloak perratzera bialtzen ikasteko.

Iñor ezerezteko
guk daukagun griña!
Nola nagusituko
gabiltz alegiña.
Bista ona ta alkar
ikusi eziña.
Ez, noski, danok gizon
jatorrak bagiña.

Guk bakarrik agindu:
au da nunai deguna,
naiz ta orretarako
baztertu laguna.
Kristau zintzotasuna
da falta zaiguna,
eta lotsa piska bat.
Guk ez daukaguna.

Ez nola eta ez ala, San Jeronimoren bizitzaren berri jakin nuen leengo batean. Etxe oneko semea omen zan, famili abertsekoa. Eta oso jakintsua, gaiñera. Aita Santuak eskatuta, Testamentu berriko liburuak eta beste liburu santu asko beste izkuntza batzuetan idatzita zeudenak latifñera itzuli zituen. Gramatika asko zekiena izango zan San Jeronimo. Bere lagunak Aita Santu egin nai izan zuten. Izan ere, jakintsua izateaz gaiñera, oso zuzena omen zan. Juxtua. Gauzak ondo egitea nai izaten zuena eta lasaikeririk eta zabarkeririk etzuen. Diktadore samarra omen zan, bide batez. Eta jakiña, onelako gizon zorrotzak etsai faltarik ez dute izaten. Orregatik, etzan Aita Santu izatera iritsi. Eta ala, munduko berriketakin aspertu, eta Belen aldera joan zan eta artzulo edo kueba batean bizitzen jarri zan, penitentzia egiñez. Baiña an ere etzioten pakean utzi. Emakume askok ezagutzen zuten, eta bisitatzera joaten asi zitzaizkion. San Jeronimok berriketarako gogorik ez ordea, eta artzuloko atakan leioi bat jarri zuen iñor inguratu etzedin. Jende aberatsari emakumezkoak gustatu izan zaizkiola, baiña Jeronimo santua izan eta fiatzen ez nunbait.

Gizonik zuzenenak ere zazpi aldiz uts egiten duela gutxie-nez esan oi da. Eta ez da dana gezurra izango. Leoia etxeko atean jarrita uxatzerik ez dute mereziko emakumeak, orratio. Aiek ere Jainkoak egiñak dira, eta danak ez dira gaiztoak izaten. Batzuk sorgin samarrak badira ere, oso bearrezkoa da emakumea. Emakumerik izan ez balitz San Jeronimo etzan jaioko, eta jaiogabe ez dago zerura joaterik eta an zoriontsu izaterik. Ark egin zuena ez al da “ni ondo nago eta zuek or konpon!” emakumeei esatea? Gaizto samarrak zirala uste bazuen, ondo-esanean goxogoxo bere ondoan artu eta zoriona zer dan eta nola iristen dan erakustea ez al zuen obe?

Dana dala, San Jeronimo ain jakintsua baldin bazan, nik aiña jakingo zuen bai, eta utzi dezaiodan pake-pakean. Datorren igandean sartuko gera neguan, baiña ez estutu. Lau lo egin, eta Gabon. Osasuna izaten badegu ez datozkigu egun txarrak.

Zeruko Jaunak emakumea
guri laguntzat emanik,
ez det pentsatzen biotz-biotzez
maitatu bear ez danik.

Eta gaiñera geientsuenak
oso politak izanik,
nork esan bear zuen santuen
gustokoak etziranik?

Leoi zar baten orru zakarrak
izan bear du gordiña,
ez beintzat neskatx atsegin baten
irriparra bezin fiña.

Bera izanik mundu onetan
aingeruen imajiña,
izan liteke gure bizitza
zeru biurtzen dakiña.

1991ko abenduak 27

Gaizki bizi gerala esango degu gero. Datozen lau urtetan, gauzak ondo joateko, 120 milloi litro ardo ezkutatu bearra omen dago. Eta ez erdipurdiko ardoa. Errioxako ardoa, alajaiña. Leengo aitona aiek begira baleude, bat baiño geiagok negar egingo luke. Aien garaietan baso bat ardok bost xentimo edo amar edo orrela balioko zuen. Baiña askotan uraxe ere etzuten izaten. Eta bein baiño geiagotan baxoerdi bat pozik edango zutekeenean gelditu bear izaten zuten. Orain berriz, orduan baiño txanpon batzuk geiago, eta orrelako ardo-putzuak iñork nai ezta.

Maastiak kenduz eta orrela, 120 milloi litro ardo gutxiago egitea bi milla eta lareun milloi pezeta kostako da. Eta bitartean, mundu biurri onetan lautatik iru goseak bizi dirala esaten dute. Diru puska bat egin eta ondo bizitzera iristen dan gizakia zuzenduko duen ankabikorik ez dago mundu onetan.

Kontuak kontu, aurtengo urtea joan da. Eta ondo joandakoa

ondo egoten da, eta orrekin konformatu bearke degu, ez dakit danak ori esateko moduan egongo ote diran baiña. Lan faltarik eta kezkarik asko bazuen urte onek berekin. Datorrenak lasaitasun pixka bat ekarriko baligu, or nunbait litzake. Baiña IVA edo dalako zerga ori gora joango da, gasolina ere bai, eta apenas ezer merkatuko dan, ez dago otsik beintzat. Guri geroz eta geiago kentzen digun agintari jende orrek asko bear baitu, eta komeriak daude emen. Badirudi leengo aitona aiek bezela, baxoerdi bat edateko txakurtxikirik gabe utzi bear gaituztela. Baiña ez degu geiegi estutu bear. Ez dakit zenbat urte daramazkigun onela ezin litekela bizi esaten. Eta orain baiño okerrago giñan leen, eta aurrera ere zerbait izango al da, Jainkoa beti ematen ari da-eta.

Urtezaar eta berri, egun politak datozkigu beintzat. Ea, ba, etxeoandrearari losintxa puska bat egiteko zintzo-zintzo portatu, puntu bat edo beste irabazi, eta urte batetik besterako zubia umore onean pasatzeko gai izaten geran. Baiña arrastotik irten gabe. Kattuerdikotik ez pasatu beintzat. Osasuna zaindu dezagun, iñungo ajerik ez danean pakea ere gertuago izaten da-eta. Eta osasunak eta pakeak, Errioxan alperrik galtzen dauden ardo guztiak baiño geiago balio dute.

Oraintxe ia-ia
joan da urtezarra,
etzan ain kaskarra.
Berria ez al zaigu
etorriko txarra.
Nola izan liteken
danaren bearra,
asieratik artu
dezagun indarra,
eta Urtezar gauean
astindu pattarra.

Lenago pattarra zan,
orain berriz whisky;
ez dakit zer aurki.
Iñoren inbidirik
ez beintzat eduki.
Eta sekula ere
ez portatu gaizki,
Urtezarra bukatu
dezagun egoki.
Ori egiten dunak
bizitzen badaki.

Pattarra edo whisky,
apur bat txanpaina
artuaz tamaina;
ez dedilla geiegi
loditu mingaina.
Ez al degu merezi
beste batzuk aina
urtean egindako
lanaren ordaina?
Neurritik pasatzea
ez da ona baiña.

Arazorikan asko
badago Euskadin
zenbait premi gordin.
Zoritxarrez ez gera
danok bizi berdin.
Famili guztietan
ez dago atsegin...
Bizimodu obe bat
azkar sortu dedin
guztiok bear degu
saiatu alegin.

Urtea zartu bada
bota bazterrera,
traste zar artera.
Eta bildurrik gabe
jarraitu aurrera.
Urte batek ez gaitu
botako atzera.
Eta jotzen badegu
umore onera,
tirriki-tarraka or
ibilliko gera.

Agur

1992

**Eize ona
maian dagona**

1992ko urtarrillak 3

Beste urte bat joan zaigu berriz ere, asko konturatu gabe. Eta etorkizunaren berri ez dakigunez, ikusitako eta entzundako kontuak esan bear izaten ditugu. Ebanjelioan bezela, “aldi artan” esanez asi bearko degu.

Frailleak eskola erakusten zuten aldi artan, hermano aietako batek ala esan oi zuen: “umeak traba egiten dute”. Orrekin esan nai zuen, gurasoak pozik bialtzen zituztela eskolara, pixka baterako pakea izateagatik-edo. Gurasoak erakutsi bearreko gauzak ere badi-rala ordea, eta aitak eta amak etzutela bear aiña asti eta pazientzi artzen umeak ezitzen. Eskolara bialtzearekin dana eginda zeukatela uste izaten zutela. Hermano ark ez ote zeukan arrazoi pixka bat? Umeak ez dute eskola bakarrik ikasi bear. Pertsonak izaten ere bai, eta ori zeñiek erakutsi gurasoak baiño obeto? Aitak eta amak umeak ezitzea arreta aundiz artuko balute, orain aiña ume eta gazte biurri izango ote litzake? Gaurko gurasoak bigun samarrak dirala iruditzen zait. Maixuak diotenez, aiek irakasleak dira eta ez ezitzailleak. Umeak ezitzea edo edukatzea gurasoen lana dala. Eta kontua da, nola maixuak ala gurasoak bere lana lasai samar artzen dutela. Umeei nai dutena egiten errezegi uzten dietela, eta orrelako porruaziak ari gera-la ateratzen. Sikologoak diotenez, gaurko gurasoen beste akats bat, umeei telebisioa ikusten geiegi uztea da. Gogorkeri asko ikusten dute umeak, eta guk ez uste izan arren, gaizki ikasteko arriskuan jartzen ditugu. Beste batzuetan berriz, telebisioan ikusten dutenarekin bildurtu eta lorik ez dute bear bezela egiten gero. Guk antzeman ez

arren, ez dute atsedena ondo artzen, eta osasuna galtzeko arriskuan jartzen ditugu. Umea egin zuenak lana egin zuen. Au ere leengo esatera zaarra da. Baiña egia dala pentsatu eta umeak azi artean pazientzia artu bear da, azten diranean ere zerbait izango da baiña. Ume txikiak, lan txikiak; ume aundiak, lan aundiak.

Erregeen eguna badator. Umeak eta ume ez geranok pozteko egun egokia da. Ala, erregiñaren eguna? Egun orretan ere etxeko-andreak aginduko du, beste egunetan bezela. Eta erregalo kontu ori bere esku uztea izango degu onena. Ea nola portatzen dan. Bada ez bada ere, zintzo portatu gaitezen, zerbait izango da-eta.

Telebisio ikusteari
asko daude gaur emanik,
zenbait gurasok aurrak ezitzen
ez baitu egin nai lanik.
Danbora pasagarri guztiak
ez uste onak diranik.
Zeiñek esan telebisioa
ganberro eskola danik?

Ustegabeen erortzen gera
askotan errezerira.
Zeiñek ez du nai eroso bizi
ta ibilli jo ta tira?
Eziketari bizkar emanda
pelikulari begira...
Gogorkeri ta gaiztakeriak
olaxe ikasten dira.

1992ko urtarrillak 10

Aberez ondo osatutako lurralderik bada, Holanda izango da bat. Zerri, bei, oillo, aate eta abar, 112 milloitik gora abere omen daude. Holanda bezelako nazio txiki baterako bada zerbait. Garai bateko gure baserri zaarretan etzan izaten olako ugaritasunik. Holandarrak aiña oillo-salda artu gabe aziko giñan gu. Baiña orrek ere baditu bere komeriak. Ainbeste aberek olakoxe simaur pillak egiten dituzte, eta bazter guztiak pozoituko ez badira, neurri estu eta zorrotzak artu bearrean gertatu dira.

Auxe da, ba, gauzak gaizki banatuta egotea. Ikuilluan lau bei besterik edukitzen ez genduenean, simaur pixka bat bialdu

baligute, a zer nolako babarrunak eta artaburuak aziko ziran gure soroetan. Baita paotx mardulak eta zelaietan belar bikaiña ere. Baiña emen ez da orrelakorik izan ordea. Eta bei gutxik, simaur gutxi. Simaur gutxirekin, jateko gutxi, eta orra or baserri asko nola ustu diran. Baiña holandarrak simaur geiegi izateari erre-medioa eman diote. Simaurrarekin berebiziko deabrukeriak egiten dituzte. Xomorro berezi bat aurkitu dute, eta ogia beantzagiarekin (leamiarekin) bezela xomorro orrekin jeikierazten dute, eta simaurra abereentzat janari biurtu. Ori da bizkorrak izatea, ori. Abereei simaurra egiñerazi, eta jateko bera eman gero. Makiña batzuk izaten dira martxan jarri eta dana berak egiten dutenak, makina automatikoak, alegia. Holandan, bei, zerri, oillo eta koneju automatikoak dauzkate, ikusten danez. Beste aurrerapen bat ere asmatu dute. Pentsu berri ori jaten duten abereak egiten duten simaurrak askoz ere usai gutxiago botatzen du. Ikusten nago oraindik simaurrarekin *agua kolonia* egin bear digutela.

Dana dala, Holandako Nekazaritza Ministerioak esan du simaur pilla aundi orren azpian urre-mina bat dagoela. Orixe da suertea! Onelako gauzak entzunda, gaur edo biar jateko zer emango ote diguten egoten naiz pentsatzen. Pertsonentzat botika berriak bear diranean, leenengo aprobak abereekin egiten dituzte. Ea alakoren batean janariekin beste ainbeste egiten diguten. Zer ikusteko eta zer jateko ote gaude?!

Holandan lendik oilloak nola
pentsurik jaten etzuten,
Jainkoak daki an oillo-salda
zerekin egiten duten.
Bildurrez nago gauz xebreak
ari baigera entzuten...
Ea ziria sartzen asita
ziriña sartzen diguten.

Euskalerrian janari fiñak
jaten egonik oituak,
argi ta erne jarri gaituzte
Holanda aldeko kontuak.
Guri iruzur egiten ez du
iñoiz luzitu tontuak,
ta ez gaituzte engaiñatuko
oraingo adelantuak.

Maitasunak sekulako erokeriak eragiñerazten dituela esan oi da. Entzuten diranak egiak baldin badira, zerbait izango da. Andre batek senarra kartzelan omen zeukan. Eta emezortzi urte ziran alkarrekin egon etzirala. Bere senarrarekin egonalditxo bat edo beste egin gabe ezin zala bizi, eta nik ez dakit kartzelazaiei zenbat erregu egin ondoren, eman zioten orratik baimena senarrarengana joateko. Eta, zer egingo eta senarrari bere erropak jantzierazi, pixka bat pintatu eta emakume itxuran jarri zuen, eta or dijoa kanpora, kartzelatik iges eginda. Emaztea, senarraren erropak jantzi eta gizon papera egiñez kartzelan gelditu zan. Oraindik orain Amerikan gertatu omen da au. Ori da senarra maite izatea. Senarra sufritzen egotea baiño bera kartzelan egon naiago, alafede! Orrelako emazteak ez dira dozenan amairu izango. Ala dirudi, baiña sorgiña beti sorgin. Ori zergatik egin zuen galdetu ziotenean, esan zuen ainbeste urtean alperkerian zegoen senarra mantendu baiño kartzelan egotea naiago zuela Orain ikusiko zuela gizonak bere burua eta andrea mantentzeko lana egitea zer dan. Lanik egiten ez duenari bialtzeko dirua irabazi bearra zer zan ikasiko zuela ederki asko. Ark egin zuen senarrari bizitzen erakusteko modua. Ez dakienari erakustea errukizko egintza da. Eta iñor maitatzea da ori, bestalde.

Beste gizon bat berriz emaztearekin zearo aspertuta omen zegoen. Ain zan berritsua emazte ori, senarrari etzion izketarako betarik ere ematen. Ezta pake santurik ere. Baiña, bai zer egin asmatu ere senarrak. Alako batean eldu dio emazteari lepo-lepotik, eta jan bear zuela musuka. Ainbesteraíño jan ere, ozkada batekin mingaiñaren erdia kendu zion. Emazteak sinisten ez ordea bere senarrak ainbeste maite zuenik, eta poliziari salatu zion. Nola moldatu ote zan mingaiñaren erdiarekin bakarrik zer pasatu zitzaion poliziari esateko? Izan ere, zenbait berritsuk min-

gaiñaren erdia naikoa du edozein aspertzeko. Senarrak maitasunaren aitzaki egin zuen. Bere emazte kuttuna musuka jango zukeenean egoten zala, eta aukera etorri zitzaionean maitasuna erakutsi nai izan ziola.

Ez dakit gizon gizarajo ari barkatu dioten ala ez. Poliziak barkatuko zion, bear bada. Baiña emazteak, naiko lan. Maitasunak onelakoxeak egiñerazten ditu, eta ainbeste ezagutu bear luke. Baiña ortarako maitatzen jakin bear da-ta...

Maitasuna ain gogorra zanik
ez genekien gaurdaiño,
naiz entzun penatu oi duala
negar erazitzeraiño.
Baiña biotz bat nola lezake
gogortu ainbesteraño?
Kartzelan egon ere naiago
senarra maitatu baiño.

Okerra pranko egin izan du
zenbaiten mingain legunak,
gaiñean kontu goxoak eta
azpian asmo lizunak.
Musuka jango ginduzken plantak
baditu faltsotasunak,
baiña sekula ez du gauz onik
gezurrezko maitasunak.

1992ko urtarrillak 24

Leengo kontuak baztertu eta dana berria nai dan mundu koskor onetan ezer modan baldin badago, galdeketak dira. Enkuestak. Danok segurutik jokatu nai izaten degu. Galerarik gabe. Eta ez galtzeko ez dago arriskuan ez jartzea bezelakorik. Agintari, zuzendari, politikari eta oiek ere segurutik jokatu nai izaten dute, noski. Goian dagoenak ez du nai izaten erori eta azpian gelditzeko arriskurik. Orregatik ez dago zalantzarik zer egin asmatzeko galdeketak egitea ona dala. Agintariekin gertatzen dana, zera da: galdeketak zer dioten esaten badute ere, batzutan al dutena eta beste batzutan komeni zaiena egiten dute-la. Europako gazteen artean galdeketa bat egin da, geiena zerk

kezkatzen dituen jakiteko. Erantzun dutenez, batzuk lanik ezak eta beste batzuk drogak kezkatzen ditu, batik-bat. Biak ere kezkatzeko moduko izurriak dira, noski. Europako agintariak badaukite orain gazteek zer nai duten. Baiña zer egiten dute kezka oien aurrean? Ortxe dago koska.

Oraiñaldian agintzen dutenen erabakiei antzematea ez da erreza. Lanik ez dagoela, eta agintarien ametsa lantsariak, soldatak ez jasotzea da, orrela gauzak merkeago egingo dirala-eta. Baiña, zer gertatzen da? Jendeak eskuartean diru gutxi baldin badauka gauza asko ezin erosi. Eta fabrikak gauza gutxi egin bear, egindakoa saldu ezinda gelditu ez dedin. Eta gero, gutxi saltzen bada, lan asko ezin izan. Oni antzemateko ez dago asko ikasi bearrik. Lantsariak ez jasotzearekin sekulako lanak izango zirala esaten ziguten, eta Espaiñian bakarrik, bi illabetean 120.000 gizon-emakume gelditu dira lanik gabe.

Drogarena ere naiko kontu zelebrea da, larria eta grabea ez balitz. Droga artzen dutenak estu artu eta zigortu egin bear dirala eta or ibilli dira diputatu eta gaiñontzekoak, alkar jan bearrean. Eta iñork ez du esaten droga ekartzen dutenak arrapatu eta lotu bear diranik. Orixe da, ba, iturria itxi gabe erreka agortu nai izatea eta teillatuko zuloak konpondu gabe itokiñak kendu nai izatea. Gezurra dirudi. Nik ez dakit ainbeste ikasi duten eta ainbeste dakiten gizon oiek burua nun duten.

Au egingo ta ura egingo,
berriketa bai ugari;
baiña saiatzen ote da iñor
ateak isten drogari?
Neurri zorrotzik ez da artzen ta
indarra eman itzari,
onela ezin lagundu drogak
bere mende daukanari.

Droga artzaille koskorak dana
daukate debekatua,
baiña saltzaille aundi oiena
ez ote da pekatua?
Lapurretaren antzekoa da
oraingo droga kontua:
zakur aundiei jolasten utzi
eta zigortu katua.

Joan da aurtengo ilbeltza ere, lana pranko emanda gero. Urteberri, erregeen eguna, eta Gabonetako ondarrak ere or egongo dira garbitu eziñik. Bestalde, poltsak naiko ustuta, eta gero aldapa gora asi bearra. Ilbeltzeko aldapa igo bearra. Aurten ere langari salto egin diogu beintzat eta tira. Ikastolan dabiltzan aurrak eta eskola aundixeagotara joaten diran gaztetxoak ere bidera etorriko ziran onuzkero. Ala obe. Eta jaiegunetan besteetan baiño lan geiago izaten duten etxeakoandreak pixka bat lasaituko ziran. Tira, ba. Onek ere balio du. Aurrak eskolan dirala etxeako lanak egiteko pake geixeago izango dute, eta entxeakoandreen ezpaiñetara irriparrea etortzen asi izango da. Senarrak ere lasaitu bat artuko zuten onekin. Orain ez dute, sikira, zertan utsegin duten asmatu ezinda kezkatzen egon bearrik izango.

Gure aurtzaroan izaten zan lanik asko umeentzat, batez ere baserrietan. Baiña oraingo umeak ere eskuak bete lan badaukate. Oporraldi asko izaten dutela baiña danak bear dituztela esango nuke. Ikastolan eguna pasatu ondoren or dijoaz galtzarpean karpeta artuta, batzuk solfeoara, besteak inglesera eta nik ez dakit nora geiago. Eta alare, danak alai-alai ikusten dira. Badirudi josituz eskola ikasten dutela. Oraingo umeak gu giñan baiña argi-ago eta bizkorragoak dira, seguru asko. Begiak ondo zabalik dituztela jaiotzen dirala ere esaten dute, eta ez da dana gezurra izango. Ikasketak egiteko ere leen baiña erreztasun geiago dago orain. Bear litzaken aiña ez oraindik ere, baiña onetan asko aurre-ratu da. Ikasketak nekea berekin du, baiña neke orrek emaitza onak ekartzen ditu, noski. Ematen du fruitu ederrik bizitzen laguntzeko. Zortzi urteko neska txiki bat daukat billoba. Eta leengo batean ez dakit nungo telebisioan entzun omen zuen, bost-sei eguneko aurtxo errukarri bat zabor artean ezkutatuta utzi zuela bere amak. Eta orrela zion gure billobatxoak:

– Aittona, nik ez dakit umeak zertarako egiten dituzten gero zakarretara botatzekotan.

Guk zortzi urte genduzkanean ume txikiak medikuak ekartzten zituela uste izaten genduen. Ez dago oraingo umeei orixe esan besterik.

Gaurko umeak mintzatzen dira txikindantik ain egoki.

Munduko berri jaio baiño len ikasiko dute aurki.

Orain edozein aitonak baiño aur batek geiago daki.

Gu ainbestean biziko dira, ez zalantzarik eduki.

Orain artean aurrak Paristik ekartzen ziran etxera,

baiña ez joan orain aurreri gezur ori esatera.

Ustez bizkorrak bagiñan ere pasa zaizkigu aurrera,

eta gu berriz aien parean arlote gelditu gera.

1992ko otsaillak 7

Berritsuak suerte ona izango dute aurten. Sartu geran otsail onek 29 egun ditu, bisiesto baita. Eta igaz baiño egun bat geiago. Gutxi al da isillik egon ezin danarentzat? Berritsu fama zeintzuk daukaten badakit, baiña ez nijoa esaten astera, norbaitzuk asarretu egingo zaizkit bestela-eta. Gaurkoagatik beintzat isillik gorde dezadan, beste egunen batean esango badet ere.

Mariano Castilloren egutegiak dioenez, il onetan eguraldi polita egingo omen du, guztira jota beintzat. Au da, toki batzuetan txarra egiten badu ere, beste nunbaitzuetan ona egingo du. Orratx an ez bada emen asmatzeko modua. Ari danak uts egiten du, baiña baita asmatu ere, noizbeinka bederen. Bejondaiola gure Mariano Castillo jaun orri. Ura ere berritsu samarra izango zan, seguru asko. Baiña etzan bakarrik. Orain ere ezagutzen ditugu ala modukoak.

Zenbait familitan gertatu izan da, leen semeak bakarrik dauzkatela eta alaba nai, edo alabak dauzkatelako, semea nai. Edota aitak semea nai eta amak, alaba. Arritzeko ez da-eta, danok ere zerbaiten laguntasuna nai, ba. Eta bakoitzak bere astoari, arre! Ori dala-eta, makiña bat lan alperrik egingo zan. Semearen billa joan, eta alaba ekarri. Edota, alabari deitu eta semea etorri. Danak bearrekoak dirala ere ez baitzaigu buruan sartzen, askotan. Dana dala, Inglaterrako jakintsu batzuek oni ere maratilla billatu diote. Berebiziko erloju moderno oietakoa asmatu omen dute, eta erloju orrek esaten du alaba ekartzeko noiz lana egin, edo semea izateko noiz saiatu. 8.000 pezeta inguru kostatzen da, eta sekulako arrakasta, izugarrizko estimazioa dauka. Etzait batere arritzen gaiñera. Badaezpada, edo alperrik lanean jardun edo jakiñaren gaiñean gauzak egin, badago alde ederra. Beste alderdi bat ere badu erloju orrek. Emendik aurrera ez da iñor sobratuko. Garai batean, mutillak gerran iltzen ziranean, eguzkia baiño neska ederragoak or gelditzen ziran ezkondu ezinda. Mutil asko zanean ere bai mutil jator askoak mutilzaar biurtuta. Orrelako asko zegoen neskak muzin eginda. Zenbait kaskarin eta sorgin juizioan sartzeko sistima ona izango da erloju berri orrena.

Serio gauden ordu geienak
 izanik erdi alperrak,
 berriketarik gabe egunak
 izan litezke okerrak.
 Naiz motza izan otsaillak ere
 baditu une ederrak.
 Ta aurten igaz baiño geiago
 Jaungoikoari eskerrak.

Il onek naiko denbora gutxi
 dauka berriketarako,
 eta daukana bizi dezagun
 umore onez ta presko.
 Ingurukoak tristetu gabe
 alaitu zenbait bekozko.
 Berriketarik gabea danak
 ez du gozatuko asko.

Gure aurreko aiek kobatan, leize zuloetan bizitzen ziran etxeak egiten asmatu zuten arte. Neguko otzarekin gorriak ikusiko zituzten, noski. Ederki penatuta biziko ziran, gizarajoak. Eta gero, basapiztiak arrapatu, il eta jaten ikasi zutenean, ura izango zan zerua. Aragia jan, ezurak txupatu eta larruarekin estaltzen ziran gaiñera. Artean ez baizekiten liñoarekin oiala eta soñekoak egiten. Ordutik ona makiña bat tela, jantzi eta moda izan da. Baiña badirudi berriz ere, leengo moduan, larruz estaltzen asi gerala. Larruzko jantziak iñoiz modan egon badira, modan daude oraintxe.

Baiña abere-larruak erropak egiteko bakarrik ez du balio, ikusten danez. Zerriaren larruarekin izugarrizko mirariak egiten dira gaur. Zerri-azala lujozko gauzak egiteko bakarrik erabiltzen zan orain arte. Ondo garbitu bearko zan, baiña dotore jantzi nai zuten andre eta neskatillak etzioten muziñik egiten. Kontua zera da: orain, nik ez dakit zer botika eta gaiñontzeko naastu eta zerri-azala pertsonen azalean txertatzen duten, ezbearrez-edo erre diranean. Ez da berri txarra auxe. Ezur autsiak eta zauri guztiak dira minberak, baiña bai azal errea ere. Azalean arrasto itsusiak uzten dituen, gaiñera. Miña eta itsusmena kentzen dituen txertua asmatu baldin badute, ongi etorria izan bedi. Aurpegiko zimurrak kentzeko ere oso ona omen da. Eta gordetzen erreza, gaiñera.

Leen esan dedan bezela, aproposalako botika batzuekin naastu eta denbora luzean irauten du. Orrela, aurpegian edo beste nunbait adabakia eman bear danean, frigorifikotik zerri-azal pusketak bat artu eta itsusituta dagoen unea edertu besterik ez da izango. Garai batean galtzak konpontzen ziran orrelaxe, atze-aurre berriak emanez. Emendik aurrera itsusirik ez da izango iñor. Aurpegia zimurtu zaigula? Zerri-azalarekin egindako adabaki bat eman eta orra dana egiña. Zartzeak ere ez digu emango penarik.

Nik arrisku bat ikusten diot oni: badakigu ederzale eta pre-sumitu zale zeintzuk diran. Ea zaartuta gero zerrikizko adabakien bidez gaztetu eta engaiñatzen gaituzten...

Ikusten danez zerri-azalak
badu amaika birtute,
orain jakiten diran berriak
erabat arritu naute.
Azalberritu batek kalterik
ez du izango, nik uste,
oso politak etziran pranko
edertu bear baidute.

Txertu orrekin itsusirikan
iñor ez gera izango.
Neroni ere ilusioak
egiten asita nago.
Zerri-azalak sudur ondoan
ez du atsegin emango.
Adabakia ezartzerako
ondo garbitu lenengo.

1992ko otsaillak 21

Alkarrekin ondo konpontzen diran senar-emazteak Jaungoikoaren bedeinkapen berezia izaten omen dute. Eta bedeinkapenetan sinisten ez dutenentzat, alkarrentzat onginaia duten senar-emazteak bizitzen dirala ondoena esan nai du orrek. Beti ondo konpontzen ez da erreza izango, baiña orretan saiatzeak mereziko du, nik uste. Danok izaten degu geure jeniotxoak. Gure lagunak bezelaxe daukagula guk ere pentsatu, eta alkarri barkatzen ikasi bear. Eta asarrealdiak aaztu leenbait-leen, asarrealdiaren ondorengo adiskidetzeak gozoak izaten dira-eta. Ez al da ala? Norbere etxea eta familia ondo gidatzen ikastea ere komeniko da, ondo bizitzeko. Leengoak baiña geiago dakigula uste degu, eta alaxe izango da, gauza askotan beintzat. Ala ere, leengo senar-emazteak oraingoak baiña geiago ez al zuten alkar errespetatzen? Egia da leen ere danetakoak izango zirala, baiña bai oraintxe ere. Ez dago edozein aldizkari edo errebista irakurri besterik. Ezkontza bi puska egin eta

bakoitza bere aldetik bizitzea modan dago orain. Eta ala ere, ez dira danak ondo bizi.

Ezkontza austeak, asi buruko miñetik eta lanerako pulamentua kentzeraiño, amabi gaitz edo gaixotasun sortzen omen ditu bizialargunen artean. Oien artean, umore ona galtzea, leenbizikoa. Bestalde, sakabanatutako gurasoen umeak alkoholari eta zigarroa erretzeari beste umeak baiño errezago ematen diote, pixka bat azten diranean. Ogeita amabost urtetik berrogeita laura bitartean sakabanatzen diran gizon eta emakumeak, ezkondu eta ondo bizi diranak baiño leenago iltzen dira. Askotan alkarri aitzaki ematen diogu, baiña emaztearen morrokkadak ez dute kalte aundirik egiten nunbait. Danak ez dira izaten gure kalterako. Oiek danak orrela izanik, bizialargunak, dibortziatuak alegia, ezkonduak baiño bi aldiz alkohol geiago edaten dute, bataz beste. Eta danok dakigu zurrutak nolako kalteak ekartzen dituen, nola gorputzarentzat ala animarentzat ere.

Batekin aspertu eta beste batengana arrimatzen diranak zeruan bizi diralakoan egoten nintzan ni, baiña ez da orrela izango, itxura danez. Daukagunarekin ondo konpontzea izango da onena, gero penak aazteko zurrutari emanda dana alperrik galdu gabe.

Emen ez dago nai dun guztia
berekin daukan gizonik;
sakabanatu eta ez dago
uste aiña zorionik.
Uztarritikan libratu eta
ez da guretzat gauz onik.
Askoz obeto bizitzen gera
ondo lotuta egonik.

Eman genduen itzari eusten
portatu gaitezen prestu,
naiz ortarako gure burua
lotu bear izan estu.
Utsarengatik asarretuta
ez andreari igestu.
Gizon bakarra narraskeriak
galtzen duela ez aztu.

Bi illabete edo orrela izango dira Lizarrustiko tabernan izan nintzala bazkaltzen. Baita gustora bazkaldu ere. Ango etxekoandrea ataundarra da. Eta argia gaiñera, ataundar guztiak bezelaxe. “Ostiraletako zure berriketaldiak entzuten egoten naiz, baiña emakumeengatik kristonak esaten dituzu!” - esan zidan. Eta zearo lotsatuta utzi ninduen. Orrelakorik egiten ote det gero nik?

Beste batean joan naiz Zeraiñera, eta beste etxekoandre batek ez dit ba esaten emakumeengatik aundi samarrak esaten ditudala? “Sorgiñak gerala eta orrelakoak esaten dituzu!”, bota zidan ark berriz. Egia esan, batzuk sorgin samarrak dirala eta orrelakoren bat esango nuen iñoiz, baiña ez dakit, ba, nik... Dana dala, artxek ere eman zidan jipoi galanta! Nik ere esan egiten ditut, eta aiek ere esatea pentsatuko zuten. Orixe izango zan guztia. Irripartsu itz egin zidaten beintzat. Baiña ikusi nolako bultzada eman zidaten. Ordutik gaur artekoa zer esan asmatu ezinda pasatu det. Etxeko lanak egiten ari diran bitartean Segura Irratia entzuten duten etxekoandreak izaten ditut gogoan nere berriketaldietan. Nere begi-niniak baiño maiteago ditut gaiñera, eta nola esango ditut, ba, aundiak aiengatik? Ezta naita ere.

Gertatzen dana, zera da: gizonezkoak eta emakumeak alkarren gertuan bizi gerala, eta batzutan alkarri ikuitzean txispak ateratzen dirala. Eta txinparta oiek ikusteko modukoak izaten dira gaiñera. Gizon-emakumeen arteko kontu xebreak, alegia. Izan ere, kontu oiei duten saltsa ateratzen ez badiegu, gurea joan zan. Mundu onetako gorabeera guztiak benetan artzen asi ezkerro, kitto! Lapikoa agortu ez dedin, edo esneak iges egin ez dezan zai gauden bitartean arinkeri bat edo beste entzuteak kalterik bai al du, ba? Ona emen nobelak idazten dituen emakume batek dioena: “Aundi egin baiño leen ikasi bear du pertsonak ez duela beti berea egingo. Bakarrik egon nai ez badu, amor eman bearko

duela bein baiño geiagotan. Eta besteren maniak ere onartu bear-ko dituela!”.

Ibilli-ibilli egin eta emakumeen esanetara makurtu naiz berriro ere. Au dek komeria berriz!

Lau gizon giñan Legazpitikan
Lizarrustira joanak,
eta etzigun gaitzikan egin
tabernan jan ta edanak.
Zer esanik ez aurpegi alaiz
etxeoandreak esanak,
berriz joateko promes eginda
etorri bai giñan danak.

Zeraiñen ere etxeoandreak
badira argi askoak,
mundu koskor au nolakoa dan
ondo ikasitakoak.
Esan bezela, artu ditzagun
txantxetan esandakoak.
Jatortasunik ez galdu beintzat,
zeraindar biotzekoak.

1992ko martxoak 6

Osasuna, dirua eta maitasuna dauzkana, Jaungoikoari esker-
rrak emateko moduan dago. Orrela esaten zuen gure gazte den-
borako kanta batek. Aspaldiko kontua da, eta adabaki bat edo
besteren premia edukiko du onezkero. Orregatik, iru gauza oiei
beste bat erantsiko nieke nik: denbora. Denbora, astia, beta edo
nai dezuten bezela esan.

Osasun oso gauza ederra da, bai. Osasuna, pobrearen onda-
suna omen da. Ondo dago. Ainbeste balio duen gauza izanik,
merezi duen bezela zaintzeko astirik ez degu artzen. Kutizi guz-
tiak bereala bete nai izaten ditugu. Eta emen gabilta ezertarako
betarik gabe, denborari gaua lapurtuz. Bateko gaupasak eta bes-
teko besteak, zurrut piska bat ere bai, eta dana osasunaren kalte-
an. Mediku baten emazteak ala esaten omen zion lagun bati:
“Eure denbora guztia gaixo pasatzea zer dan jakin nai baldin
baden, mediku batekin ezkondu adi.”

Jokaera modua da orixe ere. Beti gaixoak zaindu eta sendatzen, eta emazteari begiratu bat emateko astirik ez. Diruak ez omen du zoriona erosteko balio. Baiña dirurik gabe ere ez dago zorion asko gaurko munduan. Aberatsen penak pobrearenak baiña ariñagoak izaten omen dira. Baiña dirua biribilla eta leuna izaten da, eta oso errez iges egiten du eskuetatik. Pobrearen diruak, bestalde, goizeko intzak eguzkitan baiña geiago ez du irauten. Osasuna bezelaxe, ondo zaindu bearrekoa da orixe ere. Osasunik eta dirurik eza maitasunarekin osatzen dala diote, baiña ez dakit au zail samarra ez ote dan izango. Osasunik ez danean pazientzirik ere ez da izaten, eta diru-miseria dagoen tokian zer esanik ez. Aberatsak ez dute izaten lagun faltarik. Baiña elbarri eta beartsurik iñork ez du nai izaten inguruan. Eta maitatzeko astirik bai al daukagu gaiñera?

Iñork maitasunik badu gurasoak dute bere umetxoentzat. Baiña ez dakit maitasun ori ere ozten ez ote dan ari oraingo presaka bizi bear onekin. Jaiotzak urritzen ari dira. Ezertarako astirik ez dagoelako ote da ori ere? Illargitan alkarri begira egoteko astirik ez dakate oraingo gazteak. Atzeratuta bizi diranen kontua omen da ori. Baiña, biar egin bearreko lanak gaur egiteak ere baditu gero bere arriskuak. Kamiñotik irtetzeak, bazterra jotzeak, penaltiak eta gaiñontzekoak presaka ibiltzetik etortzen dira. Ondo bizi nai duenak astia artzen ikasi bear du.

Zenbatsu diru balio duen
guretzat osasun onak,
ez dakit baiña bi puska oiek
bear ditu zorionak:
diru piska bat lagun ona du
osasunean dagonak.
Arnasa lasai artzen du biak
berekin dauzkan gizonak.

Osasuna gauz sakratua da
eta ez burlarik egin.
Dirua ere zaindu dezagun
alperrik galdu ez dedin.
Maitasuna txit gauz ezta da,
baiña bear degu jakin
gozoagoa izaten dala
diru apurtxo batekin.

Uri edo ziudade aundietan danak ondo bizi dirala ematen du, begiratu batera. Ango kale eta etxe bikaiñak ikusita, ez dirudi iñork miserian bizi bear duenik. Uri aundiak ez dira ordea banketxe, katedral eta jauregi dotoreak bakarrik. Bazterretako txabola, lokatzadi eta zabor pillak ere ziudadearen zati dira. Eta miseriak aietan edukitzen du bere bizitokia. Ikusi gabe sinisterik ez dagoen miseria egoten da uri bazterretako auzo edo barrio askotan.

Miseria beti izan da munduan. Beti izan dira kale gorria beste etxerik ez duten ume errukarriak. Ala ere, orain 30 urtez onuztik Ego-Amerikako uri aundietan bildurgarri ugaldtu omen da. Izurri edo plaga gogor bat izateraiño, ain zuzen. Miseriak eta goseak ez du ekartzen gauza onik. Eta kaleetan dabilzan ume oiek gaiztakeriari eta, batez ere, lapurretara emanda omen daude. Eta ainbeste izan nunbait, agintariak ez dakite oiekin zer egin ere. Brasilgo uri batean ume lapur oiek ainbesteraiño ugaldtu diranez, dendariak iñola burutu ezin eta dirua eman eta gizonak jarritan dauzkate ume oiek tiroz iltzeko. Sinisten zailla da, baiña joan dan urtean 7.000 ume edo geiago tiroz bota zituzten, gaztaiña jaten ari ziran arratoiak izan balira bezela.

Orain 24 urte, Paulo seigarrena Aita Santua Colombiara joan zanean, ango kapitala dan Bogotako kaleetako ume miserable danak bildu eta zezen-plaza batean sartu zituzten Aita Santuak ikusi etziztan. Etzezala jakin Colombia bezelako nazio katoliko batean ainbeste ume alako miserian bizi zanik. A ze nolako katolikoak aiek ere! Orixe da fariseroak izatea. Ez dago esan bearrik ere ume oiek gaizki bizi diran gurasoenak dirala. Baiña ez du balio ume oiek jasotzeko dirurik ez dagoela esateak. Naziotan agintzen dutenak erabiltzen duten dirua ondo erabilliko balute, ez litzake ainbese gizon lanik gabe egongo. Emakumeak ez luteke artzen duten aiña tratu txaar izango, eta ume gaixoak ogi zati bat aora eramateko lapurretan egin bearrik

ere ez. Zakur galduen moduan kalean ibilli orde, eskolara joango lirake. Aurten dirala 500 urte Kristobal Kolonek Amerika aurkitu zuela eta ori ospatzeko izugarritzko dirutzak kastatu dituzte. Eta Brasilen ogeita amabi milloi ume, –errez esaten da– ogeita amabi milloi ume dabilta kaleetan, batek nai ez eta besteak bear ez. Eta ori naiko ez dala, bakantzeko tiroz bota gaiñera. Izugarria da!

Dana guretzat nai izateak
badu amaika maratil,
asko daukana miserableak
izorratutzen baidabil.
- Ume geiago egin bear da! -
esanda gelditu trankil.
Gero sobratzen diran umeak
erruki gabe tiroz il.

Pobreak diran gizarajoak
sufritu arren galanki,
miserableen errukirik gaur
iñork ez du nai eduki.
Aita Santua bai engaiñatu
disimuluan ederki,
baiña Jainkoa engaiñatuzten
oraindik iñork ez daki.

1992ko martxoak 20

Udaberrian gera. Moda berriak dirala eta ortik eta emendik patrikara ondarrak garbitzeko eta gazteak eta zaarrak pixka bat aztoratzeko ez da garai txarra. Orain etzaio oni begiraten, baiña modako soiñekoak janzteia erdi-pekatu izaten zan garai artan buruausterik asko izaten zan. Erriko apaizak eta alkateak ere naiko lana izaten zuten gazteak zaintzen, okerreko bidera joan etzitezen. Gazteen eta zaarren arteko konpondu eziña oraingo kontua dala uste izaten degu, baiña ez da atzo goizekoa. Orain dala 280 urte ere seigarren mandamentuak lanak ematen zituen, dirudienez. Garai artan Gipuzkoan jaiotzen ziran eun umetatik zortzi, sasikoak izaten omen ziran. Eta agintariak eta elizgizonak ainbesteraíño kezkatu ziran, eta zer egingo eta alkar artu eta gazte jendeari gogor egitea erabaki zuten. Pekatu ori, batez ere

dantzatokietan sortzen zala, eta dantzan egiteko oiturari eraso zioten, bat-batean. Baita zenbait erromeri, billera eta orrelako debekatu ere, apaizak eskatu eta erriko alkatearen aginduz. Bai omen ziran dantzan egitea etzala pekatu esaten zuten apaizak ere. Baiña egiak indar gutxi izaten du geienetan eta dantzaren kontra zeudenak irabazi zuten. Oraingo gazteak dirala biurriak baiña leengoak ere saltakor samarrak izan, eta al zutela iñork ikusiko etzituen lekuetara joaten ziran dantzan egitera. Eta gero, jakiña: illunpetako lanak egun argiz lotsa ematea etzan arritzeko izango. Dantzalekuak galerazi ziran urtean, aurreko urteetan jaiotzen zan baiño estraperloko aur geiago jaio omen zan. Orra “au ez, ori ez eta bestea ere ez!” esateak zer ekarri zuen. Pulpittoa joaz eta elizako armiarne-sareak astintzeko moduko deadarrak egiteak etzuen denbora gutxian iraun. Berreun urte eta geiago, alajaiña! Frutu onak emango zituen, eta gazte bat baiño geiagori bide ona erakutsi ere bai. Baiña etzuten belar txarra zuztarretik atera.

Sermoiak eta alkateen aginduak onak izango dira, baiña illunabarrean aimaritako kanpai otsarekin batera etxean egon bearra mingarri izaten zan gazteentzat. Eta aitari edo amari eskuak iges egiten ez bazion, gaitzerdi. Gazteak deskuidatzea aspalditik datorren gaitza da. Leengoak deskuidatzen ziran eta oraingoak ere bai. Arri labaiñetan ez erortzeko gazteei gauzak diran bezela esatea eta erakustea ona izango da. Nun zer arrisku dagoen jakin dezatela.

Au ez egin, ta ori ere ez!
 eta dana debekatu...
 Arrazoi gabe dibertsioa
 ez beintzat madarikatu.
 Askatasuna badu gizonak
 eta ez ori ukatu,
 danak mendean eduki naia
 ez al da, bada, pekatu?

Gazte maiteok, buru ariñez
 ez joan amildegira,
 gau illunean ta bear aiña
 argi ez dagon tokira.
 Ondo pasatu litekenean
 ez egon, baiña, begira...
 Dantza egitea baiño pekatu
 aundiagoak badira.

Bein joan omen zan gizon bat medikuarengana, eta:

– Mediku jauna, urtean urteko lanak egin ezinda nabil, eta 80 bat urtean biziko ote naizen jakin nai nuke.

– Ardorik edaten al dezu?

– Ez, jauna. Ez.

– Zigarrorik erretzen?

– Ezta.

– Gaez parrandarik eta orrelakorik?

– Ez, ez. Nik eztet orrelakorik egiten.

– Neska gazteak gustatuko zaizkitzu orratik!

– Ez dakit, ba. Ez daukat neskatxei begira egoteko astirik.

– Orduan zer arraiotarako bizi nai dezu 80 urtean? –esan omen zion medikuak.

Eta arrazoi pixka bat bazuela esango nuke. Joan dan urtean Japonen 6.000 gizon il omen dira lan geiegi egiten zutelako. Danak etzuten negar egingo. Aiek aurreratutako dirua zeïñek jorratua izango zan. Izan ere, utzia izatea ez da ona, baiña mundu onetara etorri giñan ezkeru, bizitzari al daneraiño zerbait ona ateratzea ere komeniko da, orratik! Tarteka-marteka bizimodua arin antzean artzea ez da txarra izango. Danak ez dute ori esango bearbada, baiña lanerako bakarrik bizi diranak ez al dira erretxin samarrak izaten? Umore onari leku pixka bat egiñez eta etxekalte izan gabe patxara artzen dakitenak bizi dira emen ondo. Onelakoen ondoan bizi diranak ipurtestuen inguruan daudenak aiñako bizimodua eramango dute, seguru asko. Fiña izatea ona da, baiña fiñegia izateak ez du balio. Lasai bai, baiña lasaiegi ez. Fiña bai, baiña fiñegia ere ez. Erdiko bidetik joan bear. Baiña zeïñek antzematen dio erdiko bidea nun dagoen? Orain urte batzuk, esne geiago sortu bear zan, esne geiago produzitu. Ainbeste lan eta kastu eginda, esne

geiago biltzeko modua egin zuten gure baserritarrak. Baiña orain, dirua ematen du Gobernuak esnea egiteari uzteagatik. Lanik ez egiteagatik dirua, alajaiña! Ori da suertea! Ala, desgrazia? Emen ez du gero iñork ezer ematen musutruke, eta baserritarrei gutxiago.

Nik ez dakit orrela dan ala ez, baiña baserriak bakantzeko sistema bat dirudi onek. Naiago nuke oker banengo. Esnea garesti zegoenean erru guztiak baserritarrak zituzten, gutxi egiten zutelako. Esne geiago biltzen asi ziran, eta orain zer? Kanpotik ekarri? Baserritarrak badaukate, bai, naiko buruauste zer lan egin eta zertan lan egin asmatzeko.

Bakarrik ezin bizi gindezke munduan alabearrez,
baiña zenbaiten pentsamentuei antzematen ez da errez.
–Esne geiago bildu bear da!–
esaten ziguten aurrez..
Au ere egin gendun ta orain gure bizkarretik parrez.
Bat agindu ta bestea esan ta azkenean ezer ez.

Zenbaiti zintzo jarraitu arren ez da joaten iñora.
Zenbat baserri erori diran betiko leize zulora!
Esnerik saldu gabe ez dago oiek jasotzerik gora.
Ortik gauz onik Euskalerrira ezin etorri gerora.
Lenbizi nola bizi ikasten pasa ezean denbora.

1992ko apirillak 3

Geu ere ez gera isillik egoteko onak, baiña gure aldean asko dakiten eta beti guri erakusten ari diran jakintsuak ere berritsuak izaten dira. Aspalditxo onetan esaten digutenez, sekulako aldaketak omen datoz. Eta ikusten nago antzematera-ko azpikoz gora jarri bear gaituztela. Gure etxean geuk agintzen genduela uste genduen, baiña Europatik esaten digute zer

egin. An dauzkagu gure agintariak. Eta esaten dutenez, Ezpaiñian bear baiño 450.000 bei geiago omen daude. Eta bei oiek kentzen diranean esne gutxigo biltzen dalako eta abar, milloi bat langille lanik gabe geldituko dira. Emen, Euskadin, eun beitatik amar alperrik omen daude. Baiña bei oiek kentzen badira, antzeman bear diote gure baserritarrak ere. Ez dira lanik gabe geldituko, baiña jan eta paseatu egiteko moduan ere ez, seguru asko. Ez dira, bada, berri pozgarriak. Eta ala ere, bizi egingo gera. Nola? Auxe da nik ez dakidana. Biltzen ez dan esnearen orde z diru apurren bat emango dutela eta orrelakoak entzuten dira, baiña ortik aurrerakorik ez dakit.

Ez genduen oraintxe entzun onela ezin litekela bizi. Geroztik gure baserrien teillatuak makiña bat aldiz orraztu ditu egoaizeak. Eta ala ere, jakintsuak esaten dute emendik bost urtera oso ondo bizitzeko moduan izango gerala. Aldaketaren mirariak! Dana dala, oraindik emen gabiltza beintzat, eta ez degu etsi bear. Dana gerorako utzi ere ez, etxekoandrereren bat edo beste kezkatzen asita egon liteke baiña. Beste lanik ez baleukate bezela, etxeo burubidea etxeoandreen gain izaten baita.

Udaberri inguru au erremedioak egiteko eta odolak garbitzeko ere garai ona izaten da. Kolesterola eta orrelakoak sendatzeko alkatxofak jatea oso ona omen da. Oraintxe da orretarako garai egokia. Eta auxe da etxeoandreak egin bear dutena: senarra ondoesanean eta gozo antzean artu eta berarekin Errioxara joan. Edo Naparroko Erriberara, bestela. An jartzen dituzte alkatxofa gozoak. Eta ardoak berriz illak pizteko modukoak izaten dira toki oietan. Ardo beltza, Errioxakoa da onena. Eta gorria eta klaretea, Naparrokoa. Senarrak beltza nai badu eta emazteari gorria gustatzen, ez asarretu. Igande batean Errioxara joan eta urrengoan Naparrora. Baiña ez utzi dana gerorako. Beiak bei eta esneak esne, gero ez baita ezer izango.

Ots alaiak ez datoz
baserrietara,
baiña ia jarriak
gaude oietara.
Eta orain izanik
ortako bolara,
penak zerbait aztera
joan Riojara.

Alkatxofa ona da,
ez egon aztuta,
Naparroan bezela
ondo prantatuta.
Joan aruntz senarra
laguntzat artuta,
ark ere noizbait zerbait
egin bear du-ta.

Baserritarrak ainbat
zentzun badaukate.
Egun bat egun bat da
eta zer demontre!
etxekoandreak ere
zerbait bear dute.
Ta urte azkenean
beti San Silbestre.

1992ko apirillak 10

Garai bateko apaizak errian geiegi agintzen zuten aitzakia izaten zutela gauza jakiña da. Alkateari ere aiek agintzen ziotela esan oi da. Baiña etzan dana egia izango. Alkate danak ez bait ziran apaizak nai bezin mantsoak izaten. Agindu naiaren erruak erriko bikarioaren bizkar izaten ziran askotan, baiña baziran beste batzuek ere agintzea gustatzen zitzaienak: lantegi eta fabrika aundi samarretako nagusiak, alegia. Langilleei zumua aterata bizi ziran, eta morroi zintzoak nai izaten zituzten. Elizara joaten ziranak, tabernarik zapaltzen etzutenak eta

parrandazale etziranak. Jaian parranda egiten duena astelenean langille makala izaten baita. Lantegietako nagusi aiek jakiten zuten bai zein langillek zein ankatatik erren egiten zuen. Zein zan gizon formala eta zein zan narrats samarra. Kontuak eramateko alkahuteak beti izan dira, eta orduan ere baziran. Eta nagusia, beti nagusi.

Maizterrak zeuzkaten baserri-nagusiak ere etziran Jesus izaten. Aiek apaizaren, alkatearen eta gaiñontzekoen gaiñetik egoten ziran. Botoa nori eman ere aiek agintzen zuten. Baiña zorioneko agindu nai ori ez da emengo nagusiena bakarrik. Banco Santanderreko nagusiak bankuko langilleren bat bizar luzearekin edo illea orraztu gabe ikusten bazuen, bizartegira bialtzen omen zuen azkar, barberira. Bizar kentzaillea aginduak emanda zeukan bankuko langillei illea nola moztu. Bankuan agintzearekin asetzen ez eta bizartegietan ere agindu egin bear. Orduko langilleak etzuten izango oraingo gazteak bezelako bizarraundi eta tximaluze izaterik. Baiña noizbait bederen askatasun pixka bat etorri zan orratik. Eta orain arrastotik kanpora ibilliko gera, baiña lengo bizimodu ura ere etzan oso egokia izango.

Naparroako erri txiki batean bazan bertsolari bat, gizon jatorra baiña bizimodu alaia gustatzen zitzaiona. Erriko alkateak ari ere agindu nai, ba, eta orrela esan omen zion:

– Ots txarrak entzuten ari naiz zuregatik. Zeure parranda egin bear orrekin artaldea jan omen dezu ia, eta laister miserian omen zera. Bertso eta berriketa oiei utzi eta ea pixka bat zuzentzen zeran. Bestela ez gera ondo ibilliko.

Bertsolariak mingaiñean erdoirik ez ordea, eta onela erantzun omen zion:

– Nik ere entzun dut zu marikona zerala. Baiña ez dut sinisten.

Askatasun atepak
itxita eduki,
gaztetan nozituak
gera gu ederki.
Illuntzean goiz oira,
ori nork ez daki?
Oillarrak kukurruku
jotzerako jeiki.

Itz egiterik ere
etzegon nolana.
Etxean mendean ta
kanpoan ere bai.
Gure ordeztu jauntxoak
bizi ziran lasai...
Ura joan zan eta
orain daukate jai.

1992ko apirillak 17

Elizak beti izan ditu etsaiak. Elizari berari garbi erasotzen ez bazaio ere elizgizonak eraso asko jasan bear izaten dute. Gure Gotzai jaunak jakingo du orren berri. Baiña zergatik orrenbeste eraso? Katedrala baiño egi aundiagoak esaten dituztelako. Gizonak diranez, beti ez dute arrazoi izango, bearbada. Baiña eundik larogeita emeretzitan, bai. Gertatzen dana zera da: agintarien ankasartzeak ere salatu egiten dituztela eta orrek min ematen askori. Egiak azkurea ematen baitu.

Asmo oneko politikariak badira, baiña oraiñaldian ez daukate fama ona. Eta badakigu nunai ere danetakoak izaten dirala. Politikoen izen ona berriz eskuratu bearra dagoela esan du Felipek. Izen ori narrastuta egon ez balitz etzegen berriz jaso bearrik. Gotzaiak ez dituzte egiak esaten erlijioko gauzetan bakarrik. Gizartearen premiak ondo ezagutzen dituzte, eta ezereen kezkarik gabe egia barra-barra esaten dute. Iruñako Gotzai jaunak esan duenez, European sartu bearrean geran onetan, gizon eta kristau bezela premizko zaigun prestaketaren ondoan teknikazko prestakuntza on bat ere bear degu. Europatik kanpo gelditzea kaltegarri gendukeela dio, baiña ez degula pentsatu bear European sartze utsarekin gure arazo guztiak konponduko diranik. European

sartzeak, amets egiteari utzi eta lana gogor egitea eskatzen duela. Emendik aurrera konpetentzi gogorrari aurpegi eman bearrean izango gera, eta aduanak kenduta dirua eta langilleak nazio bate-tik bestera ezeren oztoporik gabe pasatzen asten diranean, ondo gertututa ez daudenak gaizki ibilliko dira. Firin-faran ibilli gabe dirua zertan kastatu badago, noski.

Gotzaiak gauza aukeratu dituzte, zuzen eta garbi. Diputaduentzat ere bai. Madrilleko Legebiltzarra edo Kongresoko diputaduak soldata geiagoren eske daude. Illean 420.000 pezeta besterik ez omen dute jasotzen. Eta orrekin nola biziko dira, ba, gizarajoak? Urtean zortzi bat illabetez lana egin bear izaten dute beintzat, eta ori al da soldata izan ere?

Aste Santua lagun urkoa maitatzen ikasteko garaia izaten zan leen. Ori ere oporraldi biurtu da ordea, eta kitto! Illean 420.000 pezeta jasotzen dituztenak ez, baiña beste batzuek barau egin bearko dute Ostiral Santu egunean.

Europa dala eta ez dala
bada naiko buruauste.
Bolara ontan agindu zorrotz
asko ematen digute.
Zer ikusia agintariak
ere badute, nik uste.
Dirua nolaini ez kastatzen
ikasi bearko dute.

Diruak duen errespetoa
izan bear luke lanak,
Jaungoiko baten seme izanik
munduan bizi geranak.
Agintariak berdin babestu
bear ditu gizon danak:
ori agindu zuen gugatik
Ostiral Santuz il zanak.

1992ko apirillak 24

Aitona batek esan zuen gure Jainkoak abildadea eta inten-tzioa biak batera kendu bear lizkiokeela gizonari. Pikaro samarra izan ura, eta ia ezer gutxirako zegoela konturatu zanean, ezin etsi

gizarajoak. Baiña abildadearekin batere intentzioa joan izan bali-tzaio, ezer gabe geldituko zan. Ilusioa ere galdu egingo zuen, eta orra gizona zearo galduta.

Italian alderdi politikoa omen daukate jubilatua: jubilatuen partidua, ain zuzen. Zaarsaritu edo erretiratuak alkarri laguntzeko sortuko zuten partidu ori. Eta botoak bilduko badira, propaganda ere egin bear izaten da, eta kartel aundi oietakoak moldatu dituzte Italiako jublatu oiek. Eta karteletan aitona edo amona xaarren baten argazkia jarri bearko zuten, baiña zein joango zan orduan aiei botoa ematera? Ori pentsatu eta, aitona-amona aiek intentzioa piztuta eduki oraindik-eta, artista porno baten argazkia erabilli dute. Eta ez dute, ba, berriketakoa egin, gizarajoak! Alderdi edo partiduko presidente emakumezkoa izan, eta kartelak ikustean suak eta garrak artuta jarri omen da. Zera, aitona zaar aiek anka ankari eransteko gauza izan ez eta alako kartelak jarri?! Lotsagarriak, alaeak!

Dana dala, gure presidenteak kartel oiek ipintzea galerazi egin omen du. Baiña ori ez al da matxardakeria? Aitonatxoak argazkiari begira kontsolatzen pixka bat, eta uraxe ere ezin eraman. Zaarren bati atakeren bat emango diolakoan?! Etzuen, ba, bere argazkia jar-tzea naiko? Baiña onuzkero zaartuta egongo da ura ere, eta zeñek begiratuko zion, bada, gajoari? Pentsatu bear luke aitona gizarajoak ez dutela pekatu aundirik egingo onuzkero. Artistaren argazkiari zear-begiraturen bat edo beste bai, baiña ortik aurrera zer? Ezer ez. Utsa. Almenik ez daukate, eta presidente sorgiñak ilusiorik gabe utzi ditu, eta kitto! Aienak egin du. Eta isillik egon bear, gaiñera. Agintzen duenak ez baitu erregutzen.

Ala ere, kalte aiña mesede ez ote dute izango presidentearen agindu zorrotzarekin? Jubilatuta dauden ezkerro, egiteko gauza ez diran lanak alde batera uztea obeko dute. Edan bear ez dan urari joaten uztea onena. Eta ilusiorik ez galdu, ala ere, bat ez bada bestea izango da-eta.

Zenbaitek urte asko izana
ez du izaten ajola,
gazte denbora joanagatik
ezin formaldu iñola.
Baiña ajeak nagusitzean
eta modeltu odola,
kontuan izan bear genduke
etsi bearra dagola.

Penagarriak dira eziñak
ematen dituan lanak,
ilusiotan urtzen baitira
uste ta kutizi danak.
Burua bere tokian zeukan
au galde egin zuanak:
intentzioa zertarako du
talenturik ez daukanak?

1992ko maiatzak 1

Nai duenak nai duena egiteko garaia bazetorrela uste nuen nik. Eta onek poz pixka bat ematen bazuen ere, ametsetan ari ziranak esnatzeko moduko kontuak entzuten dira. Orain arte, ezkontzen ziranak bere denbora guztirako ezkontzen ziran. Etzegoen sakabanatzerik bietako batek beste mundura zijoala eta agur esan arte. Beste alde batetik jo zuen aize-bolara etorri zan ordea, eta aitzaki gutxi bear zan senarrak emazteari, edo emazteak senarrari, or konpon! esan eta bakoitza bere aldetik joateko. Eta orain ez da iñor arritzen dibortzioarekin.

Onek kalteak ekarriko zituen, baiña bai makiña batentzat lasaitasun ederra ere. Ezkontza austearen errua zeñena zan epailleak erabaki bear izaten zuen. Gizonak kaskal samarrak izaten gera, eta pekatua eta penitentzia gizonari ezartzen zitzaizkion geienetan. Dana dala, dibortziazten zan gizonak emazteari illero-illero diru pixka bat emango ziola agindu ezkerro, anak libratuko zituela uste izaten zuen. Beste baratzaren bat jorrazera joateko moduan gelditzen zala. Ura zan paotxa! Gaizki oitzea gauza erreza da ordea. Emandako itzari ez eustea ere bai, eta dibortziazten diran gizonetarik erdiak baiño geiagok ez omen diote emazte izandakoari dirurik bidaltzen. Makiña bat bazegoen uztarritik libratzean ondo biziko

zalakoan. Baiña zer gertatuko eta uztarritik iges egiten dutenak arrapatzeko zepoa asmatu. Diru kontu oiek erabakitzea luze joaten omen da, eta ordaindu nai ez dutenak kartzelan sartzeko asmoak dituzte orain. Eta ez gizonaekoak bakarrik. Leengoa baiño ohea dalakoan gizon berri baten ondora joandako gonadunak ere izaten dira, eta oiek ere badakite zer datorkien: bazterrean utzi duten gizarajoari dirua bidali, edo kartzelara. Orra gauzak nola estutu diran. Orain ez dago proba egiteko ezkontzerik. Eta ala ere ez dira danak alperrik galduko. Izango dira diru asko eman gabe bere buruak libratuko dituztenak. Bazterrera bota zuten senarra edo emaztea miserian utzita kartzelari iges egiteko zirriztuak billatutakoak izango dira bat baiño geiago. Egiak salbatuko gaituela, baiña aurpegiak ere salbatzen ditu markiña bat mundu onetan.

Loreillean - maiatzean - sartu gera. Bizitza guztia lore artean pasatzea ez da erreza izango, baiña txorakeriak alde batera utzi eta bata bestearentzat izateko asmoarekin ezkontzen diranak izango dituzte loreak, iñork izatekotan.

Dibortziatu eta zenbaitek
artzen duten arindua!
Baiña tranposo gezurtientzat
badago zeñiek zaindua.
Naiz uste izan lotsagabentzat
izaten dala mundua,
errespetatu bearko dute
juezaren agindua.

Emaztea edo senarra baiño
askatasuna naiago,
pikardirako gauza oberik
ori baiño ez baitago.
Gezur ta abar tranposo asko
libratzen ziran lenago...
Aurrerantzean paotx merkerik
ez dute jango geiago.

1992ko maiatzak 8

Zigarroa erretzen dutenentzat - fumatzailleentzat - berri koskor samarrak datoz. Toki agirietan, edaritegi, jatetxe, auto-

bus eta abarretan, edozein egon diteken tokietan zigarroa erretzea galerazteko asmoa du Frantziako gobernuak. Puru eta pipa erretzailleak asi ditezke kea ateratzeko toki berrien billa. Tabernariak eta jatetxeen jabeak erretzailleentzat gela bereziak antolatu bearrean izango dira, erretzailleak ez diranak kearekin kutsatu ez ditezten.

Au ere lana sortzeko modua izango da. Eta igeltsero, eskaiolazale, argi-jartzaille eta orrelakoak eskuak igortziz egongo dira. Arkitekto, aparejadore eta orrelakoak ere ezer esanik ez. Gautxoriak biltzen diran dantzatoki illun oiek ere berritu bearrean izango dira. Tabakoak osasunean egiten dituen kalteak dirala-eta, urtean 900.000 milloi pezetaren galerak izaten omen dira Frantzian. Eta emen ere galera galantak izango dira, noski. Gobernuak diru ori baiño geiago irabazten du tabakoa salduta ordea, eta Estadia ondo ibilli ezker, erretzailleak or konpon! Ez erretzea asko dute. Urtean 65.000 gizon-emakume iltzen ditu tabakoak Frantzian. Eta erretzeari uzteak zenbat bizi salbaduko lituzkeen pentsatu besterik ez dago. Lege onekin sendagilleak eta enterratzailleak irtengo dira galduan, seguru asko. Komeria da auxe ere. Batzuek irabaziko badute besteak galdu egin bear.

Baiña tabakoaren aurkako gerra ori ez da edozein dabillen tokitan edo toki publikoetan bakarrik izango. Lantegietan ere bai, eta erretzailleentzat toki bereziak egin bearrak esnatueraziko ditu nagusiak. Emendik aurrera lanaren eske dijoanak ere izango ditu komeriak. Erretzen duen ala ez galdetzea ez da batere arritzekoa izango. Kontuak kontu, bizarra irten baiño leen kea dariotela dabilzan mutiko prakaestu oiek ere asi litezke kontuak ateratzen. Baita galtzarpean liburu-sorta eta atzapar puntan zigarroa dutela dabilzan oraindik lumatu gabeko neskatiak ere. Gaur edo biar lan billa asten diranean, zigarroa erretzen dutelako lantegietako atea itxita arkitzea tristea izango litzake gero!

Neska-mutiko arrosko asko
dabilta gaurko munduan
sudurretikan kea boteaz
tximini baten moduan.
Tabakoak ez jartzen ordea
iñor gizonen graduan...
Proatu arte ez da jakiten
zer kalte egiten duan.

Ez ezazute zaletasunik
izan tabakoarentzat,
bestela ere etsairik asko
bada osasunarentzat.
Zigarro ori kaltegarria
dezute gorputzarentzat.
Txupete bati tiraka jardun
obe oraindik zuentzat.

1992ko maiatzak 15

Gaur maiatzak 15, San Isidro eguna. Baserritarren egun aundia, edo egun aundia izan bear lukeena beintzat. Baserritarrak ere, beste edozein bezelaxe, danetakoak izaten dira: batzuk eskuzabalak, besteak eutsixeagoak, eta orrela. Aitzakiak izango dituzte, baiña leen baiño obeto bizi dira gaur egunean. Orain ez dute leenago bezela beti laiñoegi begira egon bearrik. Lanaren faltarik ez dute izango, baiña garai batean aiña neke ere ez. Eskuartean txanpon batzuk geiago ere izango dituzte, eta badira San Isidro eguna ederki ospatzen duten baserritarrak. Oso ondo egiten dute. Urtean bein ez ezik, bazkaritxo bat sarriagotan egiñez egun atsegiñak merezi dituenik bada, baserritarrak dira, noski.

Baiña ez baserrietako nagusiak bakarrik, baita baserriko etxekoandreak ere. Perira joan bearra daukala eta orrelako kontuak ez dute balio San Isidro egunean. Bei eta zekorrei eguerdiko pentsua bestetan baiño geixeago eman, dotore antzean jantzi, artu etxekoandrea kotxean, eta bazkaltzera. Aire! Jatetxea ere auke-ratuta edukiko dezute. Zuen lagunak ere an izango dira, eta segi. Etxekoandreak gosaria prestatzea aski du gaur. Etxeko danei gosaria eman eta senarrari erropak pronto jarri ezkerro, bazkaria

irabazita dauka. Ortik aurrera, denbora pixka bat bere burua pres-tatzeko bearko du. San Isidro eguna urtean bein izaten da, eta lagunei inbiri pixka bat emateko moduan orraztu eta apainduta bazkaltzera gaur beintzat. Muxu punttak eta ezpaiñak pintatzea ere ez da pekatu.

Andreak beste andre batzuen ondoan bazkaldu nai izaten dute, kontu geiago esateko-edo. Gaur ez egin orrelakorik. Ertzaiñak badakite gero musuak gorrituta dijoazten txoperrei neurriak artzen. Orregatik, gaur etxeoandre bakoitzak bere nagusiaren ondoan bazkaltzea komeni da, alkar ondo zaintzeko. Berriketarako gogo pixka batengatik etzaio ajola, baiña nagusia ez dedilla kattuerditik pasatu. Bertsotan egitea eta oiek danak libre dira. Baita dantzan egitea ere, baiña egin bearreko guztiak egin. Berriz ere izango dira onelako egunak eta ordurako ere gorde zerbait.

Dana dala, nagusia eta etxeoandrea, baserritar guztioi San Isidro egun on bat opa dizuet. Biar ere lana seguruago izango da zuentzat loteria baiño. Eta ori baiño gauza txarragoak ere badira bai, eta alkarri besotik eldu-eldu egin eta eguna ondo pasatu dezuten pozarekin illunabarrean etxera, goxogoxo. Gero zer egin zeuek pentsatuko dezute. Ez dauka iñork zer jakiñik.

Gaur San Isidro gustora dago
zuen eguna dalako.
Baserritarrok, gaurko egun au
ez utzi urrengorako.
Zuen Patroiak izan bazuen
munduan suerterik asko,
dudarik gabe andrearekin
ondo konpontzen zalako.

Andrea baiño lagun oberik
munduan nola ez dagon,
kutizi danak bete gaur biok,
ez beintzat zalantzan egon.
Noizean beingo txangoaldiak
nola egiten duten on,
egun ederra pasa zazute
eta besteak or konpon!

Oraintxe ez diot munduari antzematen atzekoz aurrera dabilen, azpikoz gora dagoen ala nora dijoan. Atzo aldizkari bat irakurtzen ari nintzala itz auexek aurkitu nituen: Gurasoak bear dira. Garai batean neskamea bear zutenak jartzen zituzten onelako iragarkiak. Baiña itz aiek etziran aitarik edo amarik etzeukaten norbaitenak. Gaur egun gazte askok egiten duten deiadar edo eskari zorrotzaren adierazgarri ziran. Izan ere, gazteak ikusten dute arrisku artean bizi dirala. Oitura txarren mendean eroriko ez badira, norbaiten laguntza bear dutela ere bai, eta eroriko ez badira, elduleku bat nai izatea ez da arritzeko.

Elduleku orren billa gurasoengana jotzen dute, eta zorrotz itz egiñez gaiñera. Guraso izatea ez da umeak mundura ekartzea bakarrik. Guraso izateak gauza asko eskatzen du: maitasuna, seme-alaben alde kupira gabe lan egitea, umeak ezitzeak dituen zer ikusiak bere gain artzea eta beste abar luze bat. Itz gutxitan esateko, guraso asko ez dirala bear bezelako guraso. Eta badirudi oraingo umeak gurasoak ezi nai dituztela. Gurasoak umeak ezi bearrean, umeak gurasoak ezi, alegia. Bejondaiela! Baiña, onek ez al du atzekoz aurrera ibiltzearen antzik? Gazteak arrazoiz itz egiten dute askotan. Gurasoak ere lanik asko badaukate berriz. Eta gauza asko dira kontuan eduki bearrekoak. Moko zorrotza edukitzea bakarrik ez da naiko. Guri erakutsi zigutenez, animaren etsaietako bat mundua da.

Mundua gorputzaren etsaia ere badala esango nuke nik. Munduak, lagunak, munduko oiturak eta abar, gogor eta indartsu tira egiten diote gaztediari. Gurasoen erakutsiak atzeratuen kontuak iruditzen zaizkio seme-alaba askori. Etxeko giroa baiño munduko giroa naiago izaten dute, eta orrek erabiltzen ditu gaizki. Kontuak kontu, ez dago bizimodu erreza gazteentzat. Baiña zurrut egiñez eta droga artuz ez dira arazoak konpontzen.

Geroago egin bearrekoak garaia baiño leen proatu diralako ama-
rengana negarrez joanda ere ez. Gazteak egin bear dutena, zera
da: ikasi, ikasi eta ikasi. Ikasketak egiteko badaude, ikasi berri-
keta gutxirekin. Asko dakienari adarra jotzea zaila da. Dakiena
nola edo ala gora igotzen da, eta ikasten jarraitzen du, penatuta
bederen. Bestela jai dago.

Beste askoren antzeko naiz ta
ez det egin nai sermoirik,
baiña gaurko berriketaldian
ez al nuen arrazoirik?

Ume ausartak ez izan arren
mingain puntako erdoirik,
gazte askori iñola ezin
jarri santuen koroirik.

Zerbait nai edo bear danean
aita t'amaren aitzaki,
jaio orduko ere ainbeste
edozein umek badaki.

Aita ta amak ezin eman guk
bear aiña erabaki,
eta gazteok zeuek ikasi
bidea nola ebaki.

1992ko maiatzak 29

Ia iges egin digun maiatz onek oroitzapen berezi asko izan
ditu bigarren gazte denborara iritsi geranontzat. Il onetan bete
baitira berrogeita amar urte 42ko kintakoak soldadu joan giñala.
Ez da atzo goizeko kontua, baiña atzo zala dirudi.

Urteak duen illabeterik politena or nunbait izango da maia-
tza. Loreilla ere esaten zaio. Lore asko ematen duelako eta uda-
ren ataria dalako izango da. Osasun onarekin eta ondo
gabiltzanean, denbora azkar joaten da. Soldaduzkan baiño azka-
rrago. Andik etorri giñan ezkeroko maiatz epelak ametsetan beze-
la joan zaizkigu. Gure garaian etzan orain bezela menderakaitz
edo insumisorik, eta agindu zigutenean soldadu joan bear izan
genduen belarriak makurtuta, kontzientziak agintzen bazigun eta
ezpazigun. Oraingo gazteak aiña malizi ere ez genduen, eta joan

egin bear umil asko Francoren agindua betetzera. Eta geroz makiña bat babaleka jan genduen, utsaren peskisan. Zerriak izan bagiña ere ez geiago.

Egia esan, baba aleak ez dakit nork jango zituen, guk ez genituen ikusi-eta. Ia iru urte ta erdiko morrontza izan genduen. Illabete gutxiago, justu-justu. Munduko berri ikasteko ona omen da soldaduzka. Baiña orretarako aukera obeak badi-rala esango nuke nik. Ala ta guztiz ere, dana ez genduen kalte-
rako izango. 42ko kintoak oso senar onak omen gera. Esana egiñekoak eta otsanak. Zintzoak eta emazteari kutiziak betetzen beste iñork ez bezela dakigunak. Baiña ez pentsatu gero emazteak ere edozein moduzkoak dauzkagunik. Orain gure etxe-koandre diran eta leenago ain neska politak ziran aiek izan zuten meriturik asko. Aiek bazekiten gu soldaduzkatik ondo domatuta etorriko giñala, eta itxoin egin ziguten. Gero, ezkonduko bagiñan, kabia egiteko zotzak eta belar izpiak bildu be-
rra zegoen, eta orretarako ere denbora bear, ba. Komeri aiek danak pasatu ziran, eta noizbait bederik ezkondu giñan, orratik. Eta gure kuttunen pazienziak izan zuen bere saria. Agin-
dutakoa egiten oitutako senarrak artu zituzten. Mendeta-
sunaren berri zekitenak. Ezkondu eta gizona ezi bearrrik eza ez al da suerte ona? Egia da. 42ko kintoen emazteak oso ondo bizi omen dira. Arritzekoa al da?

Orain oarturikan
soldaduzkarekin,
berritzen dira zenbait
oroitzapen samin.
Andregaiia uzteak
ematen zigun min.
Pena genduen baiña
ezin ezer egin.

Itxogin iru urte
ta erdi luzetan,
gajoak egon ziran
urtutzen penetan.
Gurekin suerte ona
daukate benetan.
Ez al gera egongo
oraindik zorretan

Bertsolaritza naiko motel egon zan garaia ezagutu genduen. Gerra etorri zanean etzan bertsotarako gaitarik, eta bertsolariak isillik egon bear izan zuten. Eta bolara artan bazirudien euskaldunok ainbeste maite degun bertsozko festa iltzera zijoala. Baiña etsairik asko bazuen ere, bertsolaritza ezkutatzea etzan komeniko, eta Basarri eta Uztapidek argi egin zioten, galdu etzedin. Gerraondoko urte arlote aietan iñork etzuen pentsatzen bikote ark alaitu gabeko festarik izan zitekeenik. Eta gero oiñoderkoak ere sortu ziran. Beste bertsolari gazte askoren artean, Azpillaga eta Lopategi izan ziran Basarri eta Uztapide bezelako bikote sonatua osatu zutenak. Eta maisu zaarrak betiko bertsolaritzari eutsi zioten bezela, Lopategi eta Azpillagak protesta-bertsolaritza piztu zuten. Eta baita gazte jendeak ederki erantzun ere.

Ez da erreza bi bertsolari auek euskaldun kontzientzia esnatzten egin zuten lana goraipatzea. Lan bikaiña egin zuten bai, eta baita arriskutsua ere. Garai artan ez baizegoen pentsatzen zana esaterik. Baiña Euskalerrri guztian estimatua izan da eta da bikote bikain au. Zeraingo erria ez dago aaztuta, eta datorren igandean, etzi, maitasunezko omenaldi bat eskeiñiko die Azpillaga eta Lopategiri. Jakin dedanez, aspalditxotik ari dira omenaldi au antolatzen. Orretarako izendatu zan batzordea lanean ari da, eta ziur nago datorren igandean bertso-festa ikusgarria izango dala an. Goizeko amaiketean asiko da jaialdia. Amabi-amairu bertsolari izango dira parte artuko dutenak, eta bertsolaritzaren alde saiatzen diran zenbait jaun ere bai. Zenbat eta zeintzuk izango diran ez dago ziur esaterik, ainbestetatik bat edo bestek kale egitea ez baita arritzeko izaten. Azpillaga eta Lopategi omenduen bertso pilla bat entzun nai dutenak aukera ederra izango dute etzi, esan bezela.

Bertsolari bikaiñak bezin gizon jatorrak dira Azpillaga eta Lopategi. Eta omenaldi au ondo merezita daukate, eta inguru

auetako bertsozaleak an izango dira bikotea merezi bezela txalotzen. Ea, ba, etzi danok alkarturik egun zoragarri bat igarotzen degun Zerainen.

Entzuten zauden euskaldun ori
bertsozalea bazera,
etzi goizean urbildu zaite
patxaraz Zerain aldera.
Azpillaga ta Lopategiri
zure aintza eskeintzera,
bi gizon jator eta bulartsu
zure txaloz omentzera,
euskaldun zintzo bi auek eman
digutena eskertzera.

Indarberritu baten bearra
izanik Euskalerrriak,
Azpillaga ta Lopategi or
bi bertsolari berriak.
Aieri esker esnatu ziran
erdi lo zeuden erriak.
Gizon trebeak eman ditu, bai,
euskaldunen jatorriak...
Orregatikan dauka oraindik
arnas gure aberriak.

1992ko ekainak 12

Mariano Castilloren egutegiak dioena egia baldin bada, koarta denborak atzo asi ziran, eta biar bukatuko dira. Gaur erdi-erdian gaude, beraz. Koarta denborak dirala eta ez dirala eztabaidak somatu izan ditut, eta apustuak ere ikusita nago, batek egun batean dirala eta besteak bestean dirala. Garai batean, koarta denboratan bijilia egin bear izaten zan, eta elizan esaten ziguten noiz ziran. Orduan etzan eztabaidarik izaten. Edozein egunetan ere bijilirik asko egiten genduen berriz, eta ala bizitzen giñan, naiko pake santuan. Orain erdiak elizara joaten ez diran onetan, koarta denborak noiz diran ez ezik, diranik ere ez dakite askok. Baiña egun auetan egiten duen bezelako eguraldia egiten duela urrengo iru illabetetan eta orrelako zerbaiten zurrumurrua dakitenak badaude.

Uda gaiñean degu eta bat baiño geiago egongo dira nolako eguraldia egingo ote duen pentsatuz. Etzi goizeko ordubietan,

biar gaueko amabiak izango dira eguzkiaren baitan. Sudurra leio-
tik kanpora atera eta orduan begiratu bear da aizeak nundik
jotzen duen, eta nolako eguraldia gelditzen dan. Eguzkia dagoe-
nean itsasbazterrean bixigu politak ikusi oi dira, eta ea udan suer-
te pixka bat izaten degun. Leen ere izaten zan zeri begiratu,
baiña gauza politak ikustea pekatu izaten zan, eta poliki ibilli
bear.

Baiña agintariak ez al dute agintzen duten aiña agintzen guk
nai degulako? Batzutan, baietz esango nuke. Izan ere beti izan
dira bere buruak edertzeagatik agintariei losintxa egiten diete-
nak. Leun-leun itz egiñez aiei nundik ipurdian muin emango ibil-
tzen dira. Goikoari pelotilla eginda besteak baiño geixeago ote
diran, ba. Eta, jakiña, ainbeste ipurzuri obeditzeko prest ikusten
dituztenean, agintariak azi egiten dira. Arrotu egiten dira, leenaz
gaiñera. Leengo batean Ipar Amerikako presidenteak lurrera erori
zan gizon bati eskua eman eta altxatzen lagundu zion, eta mundu
guztiak jakin zuen. Edozeiñek ere erortzen danari altxatzen
laguntzeko bearkizuna daukagu, eta presidenteak ere bai. Beste
iñork baiño geiago, esango nuke nik. Agintariak ez al dira, ba,
erria estuasunetatik ateratzeko?

Agintariak errespetatu bearra daukagu, baiña presidentea
gizon bati laguntzen ari dala argazkia atera eta mundu guztiari
erakustea ez al da losintxa egitea?

Arriturikan egon izan naiz
bat baiño geiagorekin,
kontua eta inbusteria
nola dituzten atsegin.
Alare ondo etortzen dira
agintzen duenarekin...
Lan egin baiño naiago dute
ipurzuriketa egin.

Disimuluan badabil norbait
bizitz errezaren billa,
ez uste ura izango danik
morroi zintzo ta umilla.
Langille zuri samarra danak
beti mingaiña abilla...
Kategoririk ez duen arek
egiten du pelotilla.

Garai batean uda gerturatzen zanean sanjuan perretxikuak irtetzen ziran bezela irtetzen dira txirrindulariak orain. Txirrindulari udatiarrak edo zikloturista oietakoak erruz ikusten dira. Neguan gutxi samar nekatzen diranak ere izaten dira-eta, mitxelinañak kenduko badira izardi pixka bat ateratzea ona izango da. Eta ori aitzakitzat artuta, lagun artean eguna pozik pasatzen dutenak ere izaten dira, berriz. Etxeak azpian arrapatzea ez bailitzake ona izango. Pixka bat tokialdatzea ere ona izaten da, eta zer esango degu? Bakoitzak bere kutiziak. Kolorez betetako erropak jantzi eta, buruan bixerarekin, oso ederki ematen dute. Erakusten dituzten zango bizardunak baiño politagoak izaten dira, baiña gizonok politikak izatea beste batzuentzat utzi beste erremediorik ez daukagu. Eta ez dago zer esanik. Konformatu egin bear.

Txirrindularitza kirol atsegiña da, baiña arriskuak ere badi-tu, batez ere taldeka kamiñoa betean ibilli ezkerro. Bidea guztiona dala esaten dute. Egia da. Baiña kotxeren batek jota min artzen badute, ura zeinentzat izango da? Eskubideak eta oiek danak oso ondo daude, baiña kolpe txarren bat artu ezkerro, aren ondorioak ez ditu gozatzen eskubideak. Urtero izaten da kamiñoan bizia uzten duen txirrindulariren bat edo beste. Eta ori da penagarria. Nik uste det gurasoak eta irakasleak badutela emen zerikusi pixka bat. Txirrindulariak ere gaztetatik ikasi bear luteke kamiñoa dana bete gabe ibiltzen.

Leengo batean aldapa beera nindoala, batere uste ez nuela txirrindulari bat jarri zitzaidan kotxearen aurrean. Bere bidetik irten eta nere bidera sartuta zijoan. Bere ezkerretik. Ura sustoa eman zidana! Eskerrak poliki nindoala. Zenbait bezin txofer bizkor oietakoa izan banintz, Uztapidek bein bertsoan esan zuena: “ez bazera joaten bear dan bazterretik/ kotxea pasako det zure bizkarretik.”

Baiña zeïnek nai du orrelakorik? Barkatu, txirringulariok, baiña kontuan eduki ezazute, batez ere biurgune edo kurbak dau- den tokian. Etzaitzke arriskuan ibilli. Bakoitza bere bidetik ibi- llita ere badago gero lanik asko.

Zuzen joan gaitzen,
ez trikili-traku,
bide guztiak nola
dituzten bi esku.
Izan gizon jatorrak
ta ez gose-zaku,
bakoitzak izan dezan
bera bete leku.

Ez dezagula jarri
bizia balantzan,
eta bizi gaitzen
alai eta dantzan.
Udara pasatzeko
ez egon zalantzan...
Ospitalean baiño
obe da ondartzan.

1992ko ekaiñak 26

Bere zillarrezko eztaiak dirala-eta Dinamarkako erregiñak garrantzi aundia duten itz auek esan ditu: “ezkontuta luzaro alka- rrekin bizi nai duten senar-emazteak, bata besteari arnasa artzeko ainbat leku utzi bear diote”. Askok esan nai duten itzak dira. Era askotara artzeko modukoak.

Ezkontza austeko, edo dibortziatzeko, Estaduak epailleak dauzkan bezela, Elizak ere badauka ezkontza ondo egin zan ala ez, edo ezkontza desegin litekeen ala ez erabakitzeko epaitegia: *Tribunak de la Rota* deitzen dana, ain zuzen. Eta epaitegi orretan lana egiten duen apaiz jaun batek esan du, ezkontzeko ondo eldu- ta egon bear dala. Ez alkarri elduta, gizon eta emakume elduak izatera iritsita baizik. Estaduak ezkontza austeko legeak dituen bezela, Elizak ere loturak lasaitu egin dituela uste dute askok. Baiña ez omen da au orrela. Ezkonduak bere eginberrak bete- tzeko gai diran ala ez, orri begiratzen dio Elizak, batez ere.

Ezkontzerakoan dana bai-bai esatea ez da naiko. Batak besteari eman bearrekoa borondate onarekin eman bear dio. Eta orrezaz gaiñera kontu geiago ere badaude. Alaxe dio apaizak. Alkarrenganako maitasuna, bizitza guztian alkarrenak izateko etsian egotea eta abar, eta orretarako ondo elduta egon bearra dago. Bata bestearen osagarri izateko ezkontzen gera, eta lagunari bear duena eman bear.

Gauza oiek orrela dirala buruan sartuta ez dituen ez dago bear bezela elduta. Eta eldu gabeko sagarra garratza izaten dan bezela, ondo eldu gabekoen ezkontza ere ezin gozoa izan. Dinamarkako erregiñak bezelaxe Erromako apaizak ere garrantzi aundia duten itzak esan ditu: “iñork ez daukala eman ezin duena emateko bear kizunik. Eldu gabe egoteko leen baiño arrazoi geiago daudela orain.” Eta eldu gabe dagoenak bai al daki besteari zer eman bear dion? Emen ere badago zer pentsatu. Dana dala, badirudi munduarekin batera gizakia ere aldatzen ari dala eta ezkontzari buruz Elizak kontuak geroz eta obeto ateratzen dituela. Baiña apaizaren esanak ondo ausnartu bear ditugu.

Udan gauza asko ikusten da, eta ez pentsatu gero etxean daukaguna eldu gabe dagoela eta beste bati eltzea libre dala. Batak besteari arnasa artzeko lekua eman bearra dago, baiña ortik aurrera poliki ibilli. Kaskalkeririk ez egin beintzat.

Udaran gaude ta ez arritu
sentitzen bagera bero,
baiña gurea ez dan loreak
ez gaitzala jarri ero.
Lotura danak autsita ondo
izaterik ez espero.
Libre dabiltzan guzti-guztiak
onak ote dira gero?

Kutizi danak beteta ere
pertsona ez da asetzen.
Orregatikan jakin bear da
zoriona nun dagoen.
Auzoko lore danak ez dira
arantz gabeak izaten.
Etxean goxo bizi dan ura
ez al da bizi ondoen?

Begiak zabalduerazteko lagunik onena gosea omen da. Lana egiñerazteko nagusi ona, eta lanean erakusteko maixu jakintsua. Opizio berriak erakusten ere bai omen daki goseak, eta nun zer dagoen ikusten ere laguntzen omen du. Bestalde, zenbat asmakizun edo inbentu atera ote du goseak? Aspaldiko esaera da, edo-zertarako ere bearra bezelako lagunik ez dala. Garai batean baratzan edo soro bazterrean jartzen ziran txorizugarriak ere ez ote ziran goseak eta bearrak ateratako smakizunak? Baratzako illarrak eta soroko gariak jango ez bazituzten, txoriak nolabait izutu bear, ba, etxean goserik izango ez bazan. Eta ortik etorriko ziran *txorimaloak*. Premian dauden gizakiak lotatik esnatzeko ere gosea ez da zirikatzaile txarra izango.

Lanik gabe gelditu zan italiar batek egundoko inbentuak atera omen ditu. Kotxe-lapurrak uxatzeko, plastikozko gizonak egiten asi da. Manikiak esaten zaioten oietakoak. Eta ain ondo egiten ditu, bizi-bizirik daudela ematen dute. Maniki oietako bat bolanteari elduta, edo atzekaldeko eserlekuan erdi lotan bezela jarri ezker, kotxe-lapurrik ez omen da inguratzen. Emen ere lapur-kontuak entzuten dira, baiña Italiako uri aundietan ez dago giro. Ia ez dago emakumezkoak bakarrik kotxean ibiltzen uzterik. Leen esan degun gizon ura lanik gabe eta erdi goseak gelditu zanari eskerrak. Ark asmatutako plastikozko gizon oietako bat artzen dute kotxean, eta ura naikoa dute emakumeak gaizkillerik ez inguratzeko. Lapurrak, bortxatzaileak edo bioladoreak eta orrelako traste guztiak plastikozko gizonak uxatzen omen ditu. Baita neskak engaiñatzen pijoak izaten diran alproja lotsagabeak ere. Bitxi edo alaja ta guzti dabil-tzan emakumezkoak ere ez daukate orain lapur bildurrik.

Italiarraren inbentua ona izango da, baiña emakumeen lagun eta babesle giñala uste genduenak leku ederrean gelditu gera. Gure lekuan plastikozko gizon bat naikoa dute orain.

Len txori-izugarriak zeuden,
gaur gizon-izugarriak;
zenbait gizonen gaiztakeriak
baidira bildugarriak.
Guk aiña indar ez dutenentzat
gera ikaragarriak...
Zakarkeririk ez bagenduke
giñake maitagarriak.

Inbentu eta asmakizunak
askorentzat dira onak,
zerbait bear du babesik gabe
edo bildurrez dagonak.
Naiko lur jota uzten du berriz
modan pasata dagonak:
guk baiño geigo balio dute
gaur plastikozko gizonak.

1992ko uztaillak 10

Ondo bizi diran jauntxoak bizi diran baiño obeto bizitzeko nai aiña laguntza eta laguntzaille izaten dute. Diruak almen aundiak ditu izan ere mundu onetan. Orrelako oiek uda datorrenean ibiltzen dira larri samar. Oporretan zer egin pentsatu ezin, alajaiña. Orrekin izaten omen dituzte buruausteak. Lanaren mendean bizi dirala, eta pentsatzeko ere ez daukatela astirik esaten dute, etxean beintzat. Eta sikologoak konturatu dira orrekin. Eta jaun oiei nundik eta nola lagunduko dabilta, buru-belarri. Leenbizi, oporretan zer egitea nai lutekeen pentsatu, eta arekin amets egiteko esaten omen diete. Eta gero, udan aldi batean beintzat etxetik alde egitea komeni zaiela.

Oporretan zer egin nai duten amets egitea erreza da, baiña bakarrik joan bear dutela etxekoei buruan nola sartu? Dirudunak lagun faltarik ez dute izaten ordea, eta sikologoak laguntzen diete emaztea eta aurrak asarretu gabe anka egiten. Senarrak pakea bear duela esaten badu medikuak, emazteak nola ez du, ba, sinistuko? Beno, sinistu edo sinistu itxura egin bear beintzat. Gizon gizarajoa ezin estutuko du geiegi beintzat. Jauntxo oiek ez dituzte aski urtean beingo oporrak. Noizean bein oporralditxo laburrak ere bear omen dituzte, beti lanean jardun gabe, gauza

atsegiñetan pentsatzeko. Orrela esaten dute beintzat. Orrelako senarra daukan emaztea ez da, ba, lanik egin gabe biziko. Eta ala ere, etxean gelditu bear, nola ta beste sikologo bat lagun artuta anka egiten ez duen. Beno, orrelakoak ere izango dira bat baiño geiago. Auxe da mundu xelebrea jarri zaiguna. Naiko dirua daukanak ametsak egi errez biurtzen ditu.

Atsedena komeni zaiola, eta etxetik alde egin eta opor denboran pikarditxoak egindakoak izango dira bat baiño geiago. Sikologoak ere orrelakoei laguntzeko prest egoten dira berriz. Leen naikoa ez baleukate bezela, mozorrokerirako ere sikologoen bedeinkazioa gaiñera! Urte guztia baserrian edo fabrika zuloan lanean egiten dutenentzat kontseju onak ematen dituen sendatzailerik ez da izaten, noski. Erremedio onak, oporrak sarritan eta orrelako bedeinkazioak badakizu norentzako izaten diran. Komeni zaien bezelako premiak ere leen naikoa daukatentzat, azkenean.

Zenbat alderdi dauzkan
aberats izanak,
badakite gutxikin
bizi diranak.
Bide danak zabalik
dirua daukanak,
naiz keجاتu mendean
daukalako lanak.
Jan eta edanak,
musu ta laztanak,
errez egin planak
morroiak dauzkanak.
Aren naia egiten
bai dute danak.

Diruak gizon asko
ditula okertzen:
ia aspertu gera
ori entzuten.
Batzuek pikardira
diruak bultzatzen.
Famili asko ortik
omen dira galtzen.
Ez utzi ondatzen,
inpernu biurtzen,
portatuaz zuzen
errez da salbatzen.
Oporrak badatoz ta
poztu gaitezen.

Uztaillaren erdiak iges egin digu asko konturatu gabe. Uzta jasotzeko sasoi ederra, garai batean bezela gure soroetan uztarik balitz. Buruausterik etzaigu faltako, baiña leenago ere larri eta kezka geiago izaten ziran ontzako urreak baiño. Eta ez gaitezen kejatu. Miñik gabe negar egitea baiño uda taju antzean pasatzen saiatzea obe izango degu. Ipurdia burua baiño gorago degula igi-taiarekin gari ebakitzen jardun bearrik ez daukagu, gari jasotze-koan autsa jan bearrik ere ez, eta sardearekin gurdi belarrak usten jardun eta azkureak ez gaitu penatzen. Orain garirik ez degu ereiten, artajorran lanik ez daukagu, eta leenago ogi gutxi eta talo asko jaten genduen bazela, orain naiko ogia jaten degu eta talorik ez. Eta gaiñera, gaiñerakoak.

Biar uztaillak 18. Danak ez dira aaztuta egongo. Aztiriko elizaxoa beteko da, urtero bezelaxe. Kaxianok armonioa joko du eta erriak kantatu ere bai. Aztiriarrak meza nagusi ederra entzungo dute Santa Marinaren ondran eta alabantzan. Sermoi bikaiña entzun ere bai. Beti etorri oi da Arantzazuko frailleren bat. Eta Aztiriko sukaldeak usai goxoa zabaltzen dute egun orretan. Ez da arritzeko. Aita Julian Alustiza ere or izango da bere jaiotetxeari bisitatxo bat egite-
ra etorrita. Familikoekin eta lagun zaarrekin noizean bein itzasper-
tu bat egiteko eskubidea badute frailleak ere. Bai orixe. Beti ezin,
ba, errezatzen jardun. Aldian bein arnasa ere artu bearra dago, eta
noiz aukera oberik orretarako bailladako festa egunean baiño?
Etxekoak ere poztuko dira Arantzazuko frailleak maian eserita ikus-
tean, eta orra danak ondo.

Aztiriko festak builla aundi gabeko festa goxo eta xamurrak izaten dira. Aztiri-Bat alkartekoak afari bapoa egingo dute, baiña baita festak antolatzen fin saiatu ere. Ango euskal dantza, bolari, toka, txirindulari eta abar, izango da zer ikusia. Kaxiano eta kon-paiñiak jarriko du aukerarik asko dantzan egin nai dutenentzat,

eta ango pagope zoragarri artan bertsolariak ere botako dituzte bota bearrekoak. Eta guzti ori, euskal-giro eta pake ederrean egingo da. Oraingo bizimodu naastu onetan Aztiriko festak bezelako une batzuek ez dira gaizki etortzen.

Gaur Aztiri-Bat alkarteraiño
datoz txit une alaiak,
grazi aparta izaten baitu
ango afari usaiak.
Eta urtero alkarte orrek
antolatzen ditu jaiak...
Ez ote dira euskal oiturak
ezkontzen diran eztaiak?

Baiña pixka bat illuntzen gaitu
gauz bati begiratzeak:
ainbat maitasun sortu oi zuten
oitura batzun galtzeak.
Lenago zuen pozik bai al du
orain festak etortzeak?
Kotxeak sortu ziran ezkeroko
akabo neskalauntzeak.

1992ko uztaillak 24

Danok dakigun bezela, Jesus jaio zan lurraldean jaiotakoei judutarrak esaten diete. Zur fama aundia dute eta judioak ere esaten diegu, noski. Baiña ez pentsatu judioak Jerusalem baka-rik daudenik. Emen ere badaude judioak eta ez gutxi. Iñor engaiñatzen pijoak diralako, edo judioak gaizki ikusiak izan dira aspaldi samarretik. Hitlerrek makiña bat garbitu zuen erezen errurik gabe, judutarrak ziralako bakar-bakarrik. Espaiñian ere judio asko zan garai batean. Dirurik geiena ere aien eskuetan zegoen, eta etsai asko izan zuten, Errege Katolikoak aurrena zira-la. Moroen kontra gerra egiteko-eta judioetara jo bear izan zuten diru eske. Eta ortik etorriko ziran gorabeera asko. Orain bosteun urte errege aiek katolikoan erlijiora gonbertitzeko agindu zieten judutarrei. Eta batzuk gonbertitu ziran. Ez erlijioagatik, zituzten ondasunak ez galtzeagatik baizik. Katoliko egin etziranak Espaiñiatik kanpora bidali zituzten, eta asko sutan erre gaiñera.

Jesukristok etzuen esan ori egitekorik, baiña orrelakoxe katolikoak gera gu. Espaiñiako gobernua orain konturatu omen da judutarrekin gaizki portatu zala. Emengo ekonomian ez da pan-parroikeri aundirik, eta judutarren diruaren ondoren ibilliko da, seguru asko. Inbusteri utsarekin ez ditu engaiñatuko, baiña danak alkarren antzekoak izango dira, eta or konpon!

Sueziako neska gazte batek egundoko mirariak egiten omen ditu. Itsuak argitu, errenak sendatu eta orrelako asko. Sueziar oiek oso eguzkizaleak izaten dira. Ondartzan dabilzanean-eta, bat baiño geiagori begiak argitzea ez da arritzeko izango. Errenen bat edo beste aien atzetik ibiltzen astea ere ez. Neska gazte orrek dirua nun dagoen jakin eta Jerusalema joan omen da bere mirariak egitera. Dirua nai, ba. Baiña etsai txarra sortu zaio. Jerusalemgoko elizgizonen buru egiten duen rabinoa bildurrez dago. Sueka gazte orrek eramango dituela judioen diruak eta animak, eta belaun-kaskoak estaltzen ez dituzten gonak pekatu dirala eta ondo estaltzeko agindu die gazteei. Orain suekaren eta rabinoaren artean omen dago auzia. Baiña rabinoa diru pixka bat kastatzeko prest dagoen otsak dira zueziarrarekin ondo konpon-tzeagatik. Begira: rabino bizardunak auzia galdu bear azkenean. Eta dirua ere bai. Eta anima ere larri ibilli.

Gaur bear bada judutar asko
ez degu emen ikusko,
baiña ez uste ez dagonik gu
engaiñatzeko lain kako.
Mundu ontara begiratuta
nik au egiten det juzko:
Jerusalema gaberik bertan
bada judiorik asko.

Ase eziñik asko gabiltza
ta oso gutxi naikuan,
guk ere egon bear genduke
beste batzuen zakuan.
Besteri esan judioak, gu
santuak geralakuan...
Guk beti esku garbiak baiña
ezer ez dagon lekuan.

Aspaldi onetan santuenganako zaletasuna eta debozioa zearo oztu zaigu. Orain etzaio iñori entzuten San Antoniori limosna egin-dako edo alako santuri errezatutako konturik. Baiña mesede egiten duten santuak badaude, eta auetako bat San Inazio izango da. Gure patroï aundia. Loiolako santua izango da urtero-urtero oporraldia apurtxo bat luzatzen digun santu bakarra. Aurten egun bat bakarrik erregalitzen digu, baiña zubi edo *punte* dalakoa gertatzen dala-eta oporraldia poliki luzatutako urteak izan oi dira. San Inaziori esker pixka bat zor diogula esango nuke.

Zeruan San Pedrok aiña edo geiago agintzen omen du gaiñera, eta gure Patroïarekin ondo egotea komeni zaigu. Oporretan zenbat ezbear eta istripu gertatzen diran badakigu. Kotxean sartu eta kamiñoan aurrera or zear goazenean San Inaziori aitagure bat edo beste errezatu bear genioke. Ez gaitzala oraindik zerura eraman. Mundu onetan zer egin asko daukagula, eta urte batzutan beintzat itxoiteko, geroxeago alkar ikusiko degula-eta.

Munduan bizi zan arte naiko jenio estua omen zuen San Inaziok. Gazte denboran pikaro samarra ere izan zala uste det. Garai artako munduan ikusi zitekeen guztia ikusitakoa, bestalde. Gizonen berri ondo zekiena, militarra izana, eta zorrotza. Bere Konpafiñikoak zutik jarrieraztea etzan arritzeko izango. Ala ere, Bartzelonan, Salamancan, Parisen eta ez dakit nungo unibertsidadetan ikasitako gizon aundizki batentzat bere burua errenditza ez da berriketako zerbait. Eta bera bezelako jakintsuak berak fundatuta eta armatutako konpafiñira eraman gaiñera. Aundizkien lagunak ziran aitzakia zuten jesuitak. Eta dana etzan gezurra izango, agian. Baiña ez dago esaterik pobreen alde lanik ez dute-la egiten. Beartsuei laguntzeagatik bizia eman duten jesuitak izan dira, eta ez leenago bakarrik. Oraindik denbora asko ez dala Amerikan, esate baterako. Bere garaiko munduari zuzendu bat

eman zion San Inaziok. Gaurko Euskalerrriak ere badauka premi ederra. Nora begira ote dago gure Patroi Aundia?

San Inazio, zuri otoitz bat
egin nai dizut emendik
Euskalerrria zaindu dezazun
al baldin bada iñundik...
Garai batean burruka beste
fruturik etzan gugandik,
gaur ere sestra dago agintzen
pake santuaren gaindik.
Ta artzai zorrotz baten premia
badago emen oraindik.

Danok dakigu gizon zorrotza
baiña zuzena ziñala,
eta zeruan Jesukristoren
lagun aundia zerala.
Gure arteko pakeak egin
azkar nola edo ala.
Guk zertarako degu bestela
zandariaren itzala?
Ez aztu gero gure erri au
zurea ere badala.

1992ko abuztuak 7

Oporraldiari gozo iritzitakoak izango dira onezkero an eta emen. Izan ere, urte guztian egun auen zai egon eta iritsi danean, nola ez atsedean on bat artu? Gaurko bizimodu ipurtestu onetan danak bear dira, eta lasaitu bat artu dezatela premia duten guztiak. Izan dedilla pakea eta bizitzeko poza familietan. *Orrela bizi bagiña beti* esanez eta nai deguna egiñez bizitzea gauza aundia da. Onelako aldarteak laburrak eta gutxi izaten dira ordea. Eta orixe txarra.

Ala ere, danak ez dira oporzale. Israelen bizi dan moro batek 75 milloi lapurtu omen dizkio Estaduari. Izan ere, sei emazte eta 54 seme-alaba omen dauzka. Ez du denbora alperrik galdu izango. Ark ez ditu ordu asko pasatu Altzanira joanda erreka bazterreko pago-itzalean, lasai etzan eta lokuluskak egiñez. Emazteren batek aurra ekartzen zion bakoitzean Estadutik diru mordoska jasoaz oso ederki omen zebillen. Moro ori etzan

alaja zuzena izango. Baiña izan du zeñek neurriak artu. Nai zuen guztia eginda libre usteko zuen, baiña leku ederrean zebillen, gizarajoa. Zeuzkan sei emaztetatik bat bakarra zan legezkoa, eta onek ere trabestuak erantsi dizkio. Andre ori ia zaartu zala, eta ura baztertu eta aren ordeztu beste bi gazteago erosteko asmoak zituen. Moroa izan arren nai zuen guztia egiten ezin utzi ordea andreak, eta nundik eldu ere jakin nunbait, eta salatu egin du. Denuntziatu. Eta Estaduak 75 milloiko isuna edo multa egin dio. Ondo bizi besterik ez, baiña andre batekin konformatu ezin eta lapurretan egin bear gaiñera. Oporrak ez dirala bearrezko esango dute gero. Obe zuen saltsa oietan sartu gabe opor egoki batzuk artu izan balitu. Etzion larrak elduko eldu dion bezela. Bazkalondoan siesta eta gauzez lo piska bat geiago egin izan balu eta emaztearekin ondo portatu, beste zakur batek zaunka egingo zion.

A ze nolako oporrak pasa litezken 75 milloirekin! Baiña andre berria erosteko aurreratuta zeuzkan diruak ere Estaduari eman bear orain. Eta emaztearen mesedeak eskertzen ez dakien alprojak besterik merezi al du?

Oporrak asi dirala eta
zenbat ote daude pozik?
Batek nai duna egiten badu
ez dago alako gauzik.
Lana ona da baiña
ondo artu tamaiña
neurri justuak ez ezik.
Ler egiteak ez du balio,
ondo bizitzeak baizik.
Ler egiteak ez du balio,
ondo bizitzeak baizik.

Ondoren onik ez du ekartzen
bizio asko izanak.
Moro zar batek orregatikan
galdu ditu diru danak.
Kutizi asko bete
baiña ondatu dute
sei emazteren laztanak.
Ainbeste andre baiño obe da
ondo egin baten lanak.
Ainbeste andre baiño obe da
ondo egin baten lanak.

Gaur Andre Mari bezpera da, eta Zeraiñi zerbait esan beariko diogu orratik. Nere erritarrak ez dezatela esan aietaz zearo aaztuta nagoela, ez da egia-ta. Plazako arte aundiaren azpian egindako jolasak ondo gogoan dauzkat oraindik. Ganbaratxo eta Ostatur egindako musaldiak ere bai. Eta Andremaritan egindako parrandatxoak zer esanik ez. Neronek esatea ez da ondo egongo, baiña garai artako gazteak oso formalak giñalarik ori. Oraingo gazteak gu giñan baiño argiagoak dira, eta orrela obe. Gazte denborari zumua atera gabeko damurik ez dezatela izan. Bere txikian Zerain dan baiño toki politagoak ez dira nunai ikusten. Erritik kanpora urte batzuk pasatu arte ez gera konturatzen zeñien kabi ederrean jaio eta azi giñan. Zeraingo kontuak nundik jakingo eta Argentinatik, alajaiña! Emengo kontu zaarrak dakazkian paper batzuk bidali dizkidate, Zeraiñen argazki eta guzti. Ortik pentsatu Zerain txikiaren oiartzunak noraiño iristen diran.

Aurtengo maiatzaren ogeian bete dira 608 urte Zerain erri bezela ezagutzen asi zala. Orain 62 urte, 560 biztanle zituen. Gaur, 235 inguru bizi dirala uste det errian. Beeraka joatea dala dirudi onek, baiña nik ez nuke ori esango. Oraindik beintzat bere izate euskalduna zintzo gordetzen du gure erriak. Euskaldun jatorrak izanik, erriarenganako maitasunezko ardura berezi bat daukatela zeraindarrak iruditzen zait. Eta au ez da beeraka edo atzerakoa joatea. Izan dira aldaketak, bai. Baiña ez nuke esango kalterako izan diranik. Asko azi diran errietan ere zakurrak ankautsik ikusten dira gero, eta saltsa ugari. Zeraindar askok Andremariak Liernin ospatzen omen dituzte. Ederki egiña. Oraingo etxeoandreak ez daukate garai batekoak bezela oillo zaarrak lumatzen eta oillaskoak iltzen jardun bearrik. Ez nago ziur esateko, baiña Andremari eguna Zeraiñen eta San Roke eguna Gabirin ospatzen duen etxeoandreren bat edo beste bada.

Ori da bizitzen jakitea. Eta bizitzen dakien etxekoandre batek familirako zenbat balio duen ez dago esaterik.

Argentinan balekitez Zeraiñen nola bizi diran, a ze nolako inbiriak pasatuko lituzketen. Eta Zeraiñen etxekoandre jatorrak daudelako da guztia. Batzutan estu samar ere artzen naute, baiña ni ere ez naiz isillik egoteko ona eta...

Andremeritan nai bazenduke
Zeraiña egin bisita,
erri polit bat ikusko dezu,
egon zindezke etsita.
Jakintsu asko txoratu dira
gure plaza ikusita.
Katedralik ez daukagu baiña
bai elizatzxo polita.

Urte batzuek badaramazkit
Zeraindikan aldentuta,
baiña festak noiz izaten diran
ez nago oso aztuta.
Donostian ere Andremeri
daukate aukeratuta,
geiago diralako ez, baizik
Zeraiñi kopiatuta.

Zerain ez dala edozer gauza
nola entzun dan askotan,
ori berriro esan bearrik
alde batera ez neukan.
Donostin festa dan egunean
gaude gu ere festetan...
Ortik pentsatu gure Zeraiñek
zer kategoria daukan.

1992ko abuztuak 21

Zenbat itz egiten ote da berdintasunaren alde? Jaungoikoarentzat danok berdiñak omen gera. Arentzat ez omen da beltzik eta zuririk. Elizatik kanpora ere berdintasuna sarritan aitatzen da. Legearen aurrean danok berdiñak gerala eta abar.

Baiña esana da bat eta izana bestea ordea. Eta zenbat gizonen itz ederrak ez sinistea obe.

Legeak egiten dituzten gizonak goi maillakoak izaten dira, eta aiek bere astoari egiten diote arre! Gosez dagoenak dagoen tokitik artzea libre omen du. Baiña poliki eta kontuz ibilli. Pikardi dexentea egin arren abogadu on bat ordaintzeko modua badauka, libratuko da. Bestela, itzalera. Iru gauza dira, onak izanik ere, alperrik galtzen diranak: basoan egur igarra, alperraren indarra eta pobrearen arrazoia. Ortik pentsatu danak berdiñak geran ala ez. Engaiñatu ez gaituzte egiten, baiña gugatik nai dutena egiten dute.

Lantsariak kontuz jaso bear omen dira. Euneko zazpi edo orrela. Agintariak berriz, euneko ogeitabi, eta ortik gora ere bai. Langabezian edo paroan daudeneri ere diru laguntzak murrizteko asmoak ditu Gobernuak. Eta ori ere legezkoa izango da. Gerrikoak estutu bearra omen dago emen, eta segi aurrera. Caritasek esan duenez, Euskadin geroz eta beartsu geiago dago. Geroz eta pobre geiago. Eta bizi eziña eta premiak geitzen dijoazen bezela, gaitzak dirala, ezjakintasuna dala eta abar, arazoak ugaltzen ari dira. Geroz eta bizimodu zaillagoa ari da jartzen emen ere. Badira beartsuei laguntzen saiatzen diran gizon eta emakumeak, baiña aien alegin guztiak ez dira naiko. Zuzentasunean, justizian oiñarritzen dan gizarte bat moldatzen ez dan bitartean, ez da berdintasunik izango. Badaukagu pixka baterako lana.

Goiko maillan jarrita dauzkagun jaun oiek berdintasunaren billa dabiltzala eta orrelako txorakeriak ez dakit zertarako esaten dituzten. Ikusi batzuk edo asko lanik gabe eta bizi eziñik, eta beste batzuk 49 milloi balio duten kotxean. Esketik bizi diranak ere badaude emen. Au dek atarramentua! *Caritas* naiko garbi eta argi mintzatu zaigu: pobrearen alde Jaurlaritzak egiten duena asko dala, baiña ez dala naikoa. Boxeolari batek aurtzaroan asto

beltzarenak ikusi omen zituen, eta beltza zalako dana. Munduko txapeldun izatera iritsi omen zan, eta zearo aberastu. Bapo bizi omen zan, eta ala esaten omen zuen:”ni leenago beltza nintzan”.

Diruarekin gertatzen danak
iñor ezin du arritu.

Noizbait agintzen asi zan eta
geroztik ez da gelditu.

Nola bera dan jaun eta jabe
nork ez ote du aditu?

Lenago beltzak ziranak ere
diruak zuritzen ditu.

Zenbaitek errez irabazten du.

Beste zenbaitek kostata.

Eta berakin gutxi piatu
lagun zintzoa ez da-ta.

Irabaztean bat arrotzen da
ustez zerbait badala ta,

galtzean baita ondatu ere
errukirik ez dauka-ta.

1992ko abuztuak 28

Bizitzeak poza ematen du oraintxe. Geroz eta gauza geiago ari gera ikasten. Eta ikusten nago oso argiak ez geranok ere laister gerala jakintsu egiñik. Leengo histori zaarrean gertatutako gorabeera askoren berri jakiten asi gera. Oraindik denbora gutxi dala jakin danez, gu jaio baiño 300 milloi urte leenago, egunak 22 ordu omen zituen. Eta egunak motzagoak baldin baziran, urteak ere ala izango ziran, noski. Orregatik biziko zan 900 urtean Matusalen zaarra.

Gure gorputzak bai omen dauzka kromosamak esaten zaien zati txiki-txiki batzuk. Eta puska oietan jartzen omen du gorputz onek noiz arte balio duen. Tomate poteak ere izaten dituzte zenbaki batzuk, eta aiek esaten dute tomate orrek noiz arteko iraupena daukan. An jartzen duen eguna pasatu ezkerro, ez du balio izaten jateko, eta tomate ura botatzea obe, bere pote eta guzti. Gure gorputza ere balio duen arte aprobetxatzea izango da onena. Orain esaten dan bezela, kadukatu arte.

Baiña ainbeste jakitea aurrerapena ala atzerapena ote da? Orain neska-mutillak alkarrekin gustatu eta besterik gabe ezkon-tzen dira, baiña yogurrak bezela noiz arte balio duten jakiteko modua izaten bada, batek baiño geiagok bazterrean gelditu bear-ko du. Orain arte genekiena zan, iñor ez dala beste mundura bezpera-tik joaten. Ordua iritsi arte ez du iñork aldegiten emendik. Eta, batzutan beintzat, lasai bizi gera. Gorputza esaten diogun pipar pote onek noiz kadukatzen duen bageneki orrela izango ote litza-ke? Noiz jan bear degun jakitea naiko latza izango litzakela esango nuke. Dana dala, esaten duten bezela danok jakintsu izatera iristen bagera, istripuz edo ezbearrez garbitzen ez bagera, kromosoma oien bitartez jakingo degu noiz arte egon bear degun munduan. Eta ori orrela baldin bada, jaiotzako agiriarekin batera emango digute bizitzaren bukaerako agiri edo zertifikatua ere.

Orra bi lan batera egiteko modua. Baiña ez degu presaka ibilli bear. Ez daukagu lan guztiak geuk egin bearrik. Mundu one-tatik joan ezkerro, zertarako ditugu zertifikatu eta gaiñontzeko joan-etorriak? Zerbait ondotxo uzten duenak paperak nork aterea izango du.

Lasai bizi izaten
zailla da gaur egun.
Ez al da ezagun?
Begira zer kontrola
ezarri nai zaigun.
Ortik iges egiten
nola badakigun,
zeiñi inporta dio
zer iraupen degun?
Al degun arte ondo
pasatu dezagun.

Kontrola ez ote da
guretzat kaltean?
Bai nere ustean.
Nork esan nola bizi
ta zenbat urtean?
Ez sartu iñor gure
etxeko atean
abixatuko degu
aspertzen astean.
Eta utzi pakean
bien bitartean.

Opor-illa esaten diogun abuztua joan zaigu. Orain etorri zaigun oni eskola-illa, lan-illa edo orrela esan bearke diogu. Lana egin bearra naiko eskola da, eta eskolara joan bearrak ere ematen du lanik asko. Bat egin bear dala edo besteari ekin bear zaiola, osasuna izan dezagula.

Orain arte ez nekien nik, baiña Kontsolazioko Amabirjiñaren eguna omen da gaur. Pixka bat zaildu bearrak ainbesterañoko pena ematen badigu, Amabirjiñaren kontsueloa eskatu eta segi aurrera. Kizkitza, Lierni, Arantzazu eta abar, il onen laurdena erdi jai egiten genduen garai batean. Arantzazura erromes joateko eguna jai ematen zuten fabrikak baziran. Baiña oitura ari ere utzi zitzaion gure lana egin bear onekin. Baiña ez gera aberastu. Lanetik ez dala aberasten esaten zuenak arrazoi izango zuen, noski. Aste bukaerak jai egiteari eman genion. Eta orrekin ere ez ditugu gauzak erremediatu.

Beste asmakizun edo inbentu bat ere atera dute Santander aldean. Aitona eta amona asko kartak artzen ari omen dira, esanez mundu onetan alperrik daudela, eta ea leenbaitleen beste mundura joaten laguntzea nai duten. Zaarrei bizirik eustea asko kostatzen dala eta beste mundurako pasaporteia eman ezkeroko dirua aurreratuko litzakeela, alegia. Zorioneko dirua eta traba egiten duena paretik kendu naia, ba! Leengoak esan zuena: zaartu ezkeroko, ostikada! Orain zaartu ez diranen batzuk trabatik kendu arren ez litzake, ba, kalte aundirik izango, baiña bakoitzari bere lekuan pakean uztea izango da onena. Bizi diran guztiak zaartzen dira emen, eta kartak bidaltzen ari diran oiek ere zaartuko dira alakoren batean. Ereiten ari diran aziaren frutua jasoko dute denborarekin. Jaungoikoaren legeko laugarren agindua liburutik kendu degu, baiña aren ordeko zerbait oberik ez degu asmatu oraindik.

Lierniko Amaren eguna badator, eta Arantzazura bisitatxo bat egiteko garaian gaude. Liernira joanda, edo Arantzazutik etxerakoan Oñatiko Txopekuan txukun-txukun bazkalduaz egun eder bat pasatzen duenak asmatuko du. Eta egun bat Liernin eta beste bat Arantzazun pasatzen duenak obeto oraindik. Santanderko inbentu ori baiño ohea izango da ori, lasai bizitzeko.

Arro sentitzen diranak gaitza
zer dan ez dakitenean,
zartu diranak ez dituzte nai
ikusi aldamenean.

Dana dirala pentsatu arren
indarrean daudenean;
arrokeriak jaongo zaizkie
zartzen asten diranean.

Berekoikeri maltzurak ditu
zuztar gogor ta sakonak.

Eta erruki gutxi du zuztar
oiei lotuta dagonak.

Naiz ala uste burutik asko
sano ez dagon pertsonak,
trasteak zartzen diran bezela
ez dira zartzen gizonak

1992ko irailak 11

Maastietako Amabirjiñaren eguna omen da gaur. Ona emen nik ez nekien Amabirjiñaren izen bat. Maastiak dauzkatena ere norbaiten laguntasuna nai, ba. Maats kontuak udazkenaren etorrera adierazten dute. Ostoak zimeltzen asten diran bezela, festa otsak isiltzen asten dira. Jolasak eta kontu ariñak alde batera utzita arrastoan sartzeko garaia da udazkena. Gaztetxoak eskolara asten dira, eta orrek baditu bere gorabeerak..

Seme-alabak ikasketak egin bearra ez da erreminta txarra gurasoak kezkatzen asteko. Lanerako ondo prestatuta ere bizitzeko zailtasunik asko badago oraiñaldian. Bolara onetan beintzat etorkizuna naiko illun agiri da, eta ez dakit ikasketa on batzuk egitea aiñako irtenbiderik ikusten dan. Semeak eta alabak ez ditezela arritu gurasoak kezkatu ikustearekin. Aitaren eta amaren esa-

nak ez dituzte gaizki artu bear. Eskola pixka bat jakin arren oraindik ez dakite ondo munduko berri, eta pazientzi pixka bat artu bearra dago.

Geroari begira eta gaztediari dagokionez argitasuna bada-tor gaiñera. Enpresariak arremanetan jarri dira Eusko Jaurlaritzarekin eta Unibertsidadearekin eta abar, Langintza Eskolak edo ofizioak ikasteko eskolak martxan jartzeko. Kanpotarrak aiña ez dakigulako edo atzerrietatik ekarritako gauza guztiak emengoak baiño obeak dirala uste izaten degu. Eta lanean ondo ikasi ezkeru, beste edozeiñek egiten duena egiteko lain bagera. Besteak aiña izan nai badegu, edozer lan eta edozer gauza egiten ikasi bear degu. Enpresa-jabeak eskola onak mol-datzeke ardura artzen badute, salbatuko gera. Asmoa dan bezela ikasketak egiteko erreztasunak sortzen badira, langintza edo ofi-zioak ikasita irtengo dira gazteak eskolatik. Eta lana aurkitzeko erreztasun aundia izango da ori, eta ez degu itxaropenik galdu bear, geure aldetik alegiñean saiatu baizik.

Gure aldean asko dakiten gazteak ezagutu bearrean gera. Atzeratuak gerala eta orrelako batzuk esango dizkigute, baiña lanik ez daukatelako ipurterretuta ez dira biziko beintzat. Eta aurrera egin dutelako asko izaten badute, atzean gelditzen gera-nontzat ere zerbait iritsiko al da. Ikusten nago oraindik gazteen kontura bapo bizi bear degula. Ura izango da paotxa!

Mundu onetan aberastutzen
ez dute danak jakiten.

Baiña miseriaren mendetik
zeiñek ez luke nai irten?

Oraingo gazte danak ez dakit
au ondo ote dakiten:

langille ona danari iñork
ez dio parre egiten.

Gizona lana egin ezkeru
bizi diteke dotore;

badu ortako eskubidea,
ez bai zan jaio abere.

Ez digu beste ezerk egingo
lanak ainbeste mesede...

Beste edozein dan aiña gizon
gingo gaitu gu ere.

Italiako erri txiki bateko bikario jaunak, ezkonberriei elizatik irtetzean arroza botatzea galerazi egin omen du. Mundu onetan ainbeste gizarajo goseak daudela ikusita, arroza orrela botatzea debanerian dirua kastatzea dala. Eta arrazoi du. Dirurik izango ez bada ere, mundu onetara etorritako iñork ez luke gosearik pasatu bear. Ez goserik, eta ez otzik. Gizaki bat bakarrik goseak dagoen bitartean ez litzake gramo bat jaki alperrik galdu bear. Bikario jaun orrek esan du gaiñera arroza orrela botatzea arlotekeria dala, eta oitura zikiña.

Ez dakit au orretaraiño izango dan. Arroza ez da ain zikiña ere. Eta ezkonberriei botatzen zaien arroza familiko ugaritasunaren irudia omen da. Arroza botatzean seme-alaba asko izatea opatzen zaie ezkonberriei. Ez al digute, ba, esaten aur gutxi jaiotzen dala eta danok zaartuta mundutik ezkutatu ez gaitezen ume geiago egin bear dala? Ezkonberriei famili ugaria eskatu nai badiegu, seme-alaba asko alegia, arroza bota bearrean erregalatu edo beste zerbait asmatu bearrean izango gera. Akabo mundua bestela.

Janaria ez alperrik galtzea eta bazterrak ez zikintzea, bi arrazoi oiez gaiñera beste bat ere eman du apaiz jaunak. Arroz orrek eliza garbitzen lan geiegi jartzen omen du. Banengoen, ba, ni goseak daudenei jaten ematen asteko artaraiño errukitu ote geran. Emen gertatzen dana da, al dan lanik gutxiena eginda bizi nai degula. Illaren azkenean zenbat eta geiago libratu eta obe. Ori bai, baiña nekatu gabe. Italiako sakristauak ere anka ortatik erren egingo dute, seguru asko.

Lanari iges egin eta mendian egonaldi batzuk egiteko egunak badatoz. Eiztariak ez dira aaztuta egongo. Koarta denboratan gaude eta badaezpada ere kontuan jartzea pentsatu det. Biar gauean gelditzen dan aizeak joko du datorren illean. Ondo begiratu. Ea uso batzuk arrapatzeko modua izaten duten. Eta geiegi arra-

patzen badute, ez ditzatela bota ezkonberriei arroza bezela, bada-
go zeñek jana-eta. Nik abixatu det bada ez bada ere, baiña bildur
naiz Afrikako beltzak arroza jango lutekeenean bezela gu usoak
jango genitukeenean geldituko ote geran.

Munduan asko goseak daude
eta naikoa jan ezin.

Apaizak egin duenarekin
ez degu artu bear min.

Ezkonberriei botatzen zaien
arroz pilla oriekin
askozaz ere obe litzake
paella ederrak egin.

Gosez dagonak ostiral asko
ta gutxitan ostegun gizen.

Apaiz jaun orrek itz egin digu
naiko jator eta zuzen.

Mixeriaren mende daudenak
asetzen asi ditezen,
arrozak arroz gu ere zerbait
zintzotzen asi gaitezen.

1992ko irailak 25

Eguna joan eta eguna etorri, beti zerbait erakusten ari zaigu
bizitza. Zerbait esan bear danean, zer esan eta nola esan asmatu
egin bear izaten da, eta bizitzaren erakutsiak ondo etortzen dira.
Azkenaldi onetan jakin dedanez, gure gorputza kotxe bat bezelatsu
da. Aurpegiko azala da kontxe orren karrozeria, eta biotza eta biri-
kak, eta barruko puska oiek dira kotxearen piezak. Aurpegiko azala
zimurtzen zaigunean, karrozeria erdoituta daukan kotxearen
moduan gelditzen gera. Ala ere, batzuk aurpegia pintatuta edo *ciru-
jia estética* eginda pixka bat itxuratzen dira, baiña barruko puskek
zaartzean edo balio ez dutela gelditzean ibiltzen dira gaizki.
Gorputza eman zigutenean puska oientzat ordekorik ez baiziguten
eman. Barruko puska oientzat ez daukagu repuesto piezarik.

Gizona beti zer pentsa egoten da, eta bear diran repuestoak ilda-
koen gorputzetatik artzen asmatu du. Garai batean esan baligute ilda-
ko baten biotza aldatuta ia illean zegoen bat piztuko zala, ez genduen

asko sinistuko. Giltzurin, begi eta beste zenbait puskarekin ere berdin. Biotza kendu zioten ildakoa zakar samarra baldin bazan, ura jarri eta sendatu zanak ez dakit inor maitatzeko zenbateraiñoko abildadea izango duen. Dana dala, bizirik gelditzea da kontua emen, eta bear izan ezkerro, biotz berriari maitatzen erakutsi bearko zaio. Txertatutako begiak, pekatu diran gauzai begiratzen oituak baldin bazeuden, lanak emango dituzte gaur ikusten diran gauzak ikusita.

Oraiñarteko txertaketarik zailena gibelarena zan. Gibela aldatutako gutxi ateratzen zan bizirik. Baiña botika bat asmatu dute Amerikan, eta tximuaren gibela aldatu eta botika ori artzen dutenak ez omen dira iltzen. Gibela sano gordetzeko mozkorrik ere ez da arrapatu bear, tximuak ez baitute zurrutik egiten. Orra nundik etorri litekeen salbazioa. Medikuak bildur ziran gibela txertatutakoak tximuak bezela arbolatik arbolara saltoka asiko ote ziran, baiña zurrutik egin gabe gibela presko gordetzen badute, aterako omen dira. Lasai bizitzeko ez dago gibelaundia izatea bezelakorik.

Danok dakigu mediku jaunak
beti esanez daudela
jenio txarrak eta zurrutak
gibela galtzen dutela.
Zintzo portatu etxeoandreak
agintzen digun bezela,
arririk egin gabe ta presko
gorde dezagun gibela.

Gure gibela gurea da-ta
postizoa besterena.
Erre danaren orde z naiz eta
txertatu tximu batena.
Len degunari lasai azitzen
uztea degu onena,
gibelaundiak bizi baitira
mundu ontan ondoena.

1992ko urriak 2

Badira oporrak abuztuan artu baiño agorrean artu naiago dutenak. Ez, noski, garai batean bezela errosarioa errezatuz Arantzazun bederatziurrena egiteko. Orrekin ez gera soseatzen orain.

Joan dan illean Egipton izan dan batek esan dizkit ango kontuak. Bagenekien egiptoarrak moro kastakoak zirala. Moro guztiak bezela, emakumea bear bezela aintzakotzat artzen ez dutenak, alegia. Ez da arritzekoa izaten moroak bi-iru andre edukitzea. Eta Egipton emakume asko ikusten omen da aurpegia estalita. Baiña orrek ez du esan nai danak mendean bizi diranik. An ere, emen bezelaxe, geienetan nai dutena egiten omen dute. Egun batean, Egiptoko kapitalean zebillela, nere lagun orrek aurpegia atzamartuta zeukaten gizon batzuk ikusi omen zituen autobus batetik irtetzen. Eta autobusa ustu zanean, txoperra irten omen zan, eta txartel bat ipiñi omen zuen autobusaren atean, *emakumezkoak bakarrik* jartzen zuena.

Egiptoarrak ere, moro asko bezela, atzaparluze samarrak omen dira. Emakumeei pakean uzten ez dieten oietakoak. Autobusak jendez beteta dabiltzanean egiten dituzte bere pikardiak. Aien pianoa jo bearra izaten omen da ona! Atzaparrak zeñnek erabilli dituen iñork ez diela antzik emango usteko dute, baiña an ere emakumeak ez lotan egon ordea, eta eran arrapatzen dutenari muturra ondrazten omen diote. Gero autobusetik musua atzamartuta irten bear, ba. Ez pakean egongo balira. Santu eta santan erdian arrizko orma jarri bear dala aspaldiko esaera da. Egiptorako ere balioko du esaera orrek. Ango santu eta santak ere alkarri ikutu ezkerro txinpartak ateratzen dituzte-eta, ikusten danez.

Dana dala, jenderik geiena ibiltzen dan orduetan txarteltxoak ipiñi autobusaren sarreran, eta gizona ez dute ametitzen. Emakumezkoak gizonak onela lurtean uzteko eskubidea nola iritsi duten, edo agintariak nola engaiñatu dituzten, orixe ez dakit. Bere buruak babesteko ainbat indar bear dute eta eskuak geldi ez dauzkanari masailleko bat emateko eskubidea ere bai. Ari dira errespetoa jartzen. Egiptoko moro atzapar luzeak zibilizatuko dituzte emakumeak. Ez dira esku txarretan erori.

Mundu guztiko berriak orain
errez jakiten ditugu.
Egipton dauden atzparluze
oienak badakizkigu.
Ango moro zar lotsagabeen
antzik oraindik ez degu...
Aien aldean formalak eta
santuak ez al gera du?

Emen ez dago santuen billa
joan bearrik urrutira,
bistan ikusten dira ugari
jarri ezkerro begira.
Ala ta guztiz emengo santak
oso konforme ez dira,
ta zer izango ote litzake
Egipton bizi balira?

1992ko urriak 9

Munduko emakumerik aberatsena Inglaterrako erregiña omen da. Dirurik ez daukagunok, naiko dirua bagenu dana egiña dagoela uste izaten degu. Eta Inglaterrako erregiña zorionetan igari eta pozik biziko dala esan ditekete. Baiña ori ere ez da orrela, aidanez. Beti zerbaiten bearra dago. Beti zerbaiten eske gaude. Eta nik ez dakit zenbat jauregi, etxe, diru eta aberastasun dauzkan. Eta izugarrizko lur edo terreno saillak ere bai, baso, zelai, soro eta guzti. Bere sail edo finka auetako bat alanbre-esiz itxi nai omen du. Basauntzak sartzen dira eta ango arbola-azal eta landare erne berriak aientzat ainbat omen dira. Dana dala, basauntzak arbolak jaten dituztela eta sail ori alanbrez isteko 55 milloi eskatu dizkio Gobernuari. Bapo, neska. Eiztariren bat basauntzak arrapatzera joango balitz, lurra berea dala esango luke.

Inglaterran famili bat baiño geiago egongo da basauntz bat edo beste pozik jango lukeena, baiña ez da egongo ori esatera erregiñarengana joan besterik! Noizean bein tiro batzuk entzungo balituzkete, basauntzak uxatuko lirake. Eta bide batez beartsuentzat janaldi bat edo beste ere izango litzake. Ori egin baiño naia-go du ordea alanbre esitan dirua kastatu, baiña ez bere kontura, erriaren kontura baizik. Famili bat ogeita amar bat urtean bizi-

tzeko lain diru erriarengandik artutako lurrak erriaren kontura itxi eta bere naieran gordetzeko eta erabiltzeko...

Pentsatzen jarri ezker, ondo zebreak gera. Geure kasa uzten bazaigu, ez gera gauza pakean bizitzeko. Diru geiago nai degulako, besteak baño geiego izan nai degulako, edo inbiria besterik ez daukagulako, nai deguna egiten utziko baligute, alkar jango genduke. Zuzenduko gaitueneren bat derrigor bear degu. Aginduz zuzenduko gaituena gaiñera. Norbaitek agintzen ez badigu, eta zuzen ibillierazi, ez dago gauza onik gurekin. Agintariak aukeratzen ditugu, goi maillan jartzen ditugu, eta gero, nai dutena egiten digute. Eta ez gera kapaz dana jan ez dezaten basautzei bezela esiak jartzeko.

Erregiña eta artista oietako askoren berriak ematen dituzten errebistak ezpaiñak igurtziaz irakurtzen ditugu gaiñera. Ori ez al da jende aundi orri ipurdian muin ematea? Eta onek onelaxe bearko du, seguru asko. Au da au!

Askok daukanak geiago nai ta
ala ere on itxura,
baiña justizi billa ez joan
olakoan ingurura.
Oiek lurretik aldegin gabe
joan nai dute zerura.
Baiña bidea ordainduta ez
baizik besteren kontura.

Mundu onetan piña danari
egiten diote burla,
esaten baita kontzientzia
asto zar batek jan zula.
Lagun maiteak, ez al dezute
pentsatu izan sekula,
tranpa egiten ez dakiena
tontozat artzen degula?

1992ko urriak 16

Euskalerrian urteko sasoirik ederrena udazkena dala esan izan da. Udaberria ere polita dala, baiña aldakorra. Udazkena berriz, patxaratsuagoa da. Lasaiagoa. Batzuek ala diote, baiña eiztariei gal-

detu ezker, auskalo zer esango luteken. Garai onetan begiak gorritzeraiño nekatutako jendea ikusten da. Eta ez artazuriketan gauzez lana eginda. Usoak eta eizean egin bearra eta danak orain izaten dira, eta orretarako goiz jeiki bear berriz. Illunabarrean lagunartera joan eta eizeko gorabeerak ere kontatu bear izaten dira, danak egiak izango ez badira ere. Eizera joateko lanari nola iges egin ere asma-tu bearra dago, eta ori ez da burua nekatu gabe egiten.

Dana dala, lana ez bada eizea, beti bada zerbait. Gure bizitzan beti eizean ari baigera. Etxera ezer ekarriko badegu nun edo an zerbait bildu bear izaten degu. Eta ori ez al da eizean egitea? Eiztaria adarrez eta ostoz egindako ezkutalekuan usoen zai egoten dan bezela egoten dira politikoak itz ederrez eta promesaz egindako parape-toaren atzean ezkutatuta. Pentsatu dezagun, esate baterako, tabakoaren kontra zenbat itz egiten dan. Eta munduko tabako fabri-karik aundienak Margaret Thatcher artu omen du berarekin nazio pobreetan tabakoa saltzen laguntzeko. Eta eun milloi pezeta inguru eman omen dizkio andre orri bere laguntzagatik.

Margarita ori Inghaterrako Gobernuko buru izana da. Eta Gobernuan egon zanean tabakoaren etsai izango zan, baiña orain, aginpidearekin zer ikusirik gabe gelditu danean, jende gizarajoa-ren artean tabakoa saltzeko prest, eun milloi pezeta irabazteaga-tik. Leen ere etzan miserian egongo, baiña diruagatik edozer gauza egiten degu. Europako naziotan badira tabakoaren kontra propaganda egiteko asmoak. Thatcher prest dago tabakoaren kontrako propaganda ori nola galerazi erakusteko edo galeraz-ten laguntzeko ere.

Egun auetan izango dira, jateko bear izan ez arren, diberti-tzeagatik usoak iltzen dituztenak. Thatcherrek ere batzuk il eta besteak gaixotu, kalterik asko egingo du tabakoa saltzen lagun-duta. Eta ez diru premian dagoelako, dirua irabazteko apeta dau-kalako baizik. Batzuei eizea gustatzen zaien bezela, ari dirua gustatzen, ba. Or dago okerra.

Mundu au onelaxe da. Eta eiztari zeratenok ondo ibilli, baiña iñori usorik arrapatu gabe. Bestek botatako usoei utzi pakean, beti ez da erreza izaten baiña.

Eiztariak urrian
zer nolako lanak
usoak emanak!
Kezkaz gaude eizera
joan ezin geranak.
O, eiztariok, entzun
lagunen esanak:
geitxo izan ezkerok
botatako danak,
zeiñek jana badago
sobratzen diranak.

Lan batzuetarako
ez gera makaldu.
Naiz zerbait argaldu
jaten serbitzu ona
oi degu azaldu.
Usoak janez merke
nai degu apaldu.
Sobratzen badira
ez alperrik galdu.
Segura irratira
mordo bat bialdu.

1992ko urriak 23

Euskaldunok biurriak giñala bagenekien, baiña ain gaiztoak giñanik ez nuen uste. Madrid aldeko jakintsu batek esan duenez, azken urte auetan oiturak asko aldatu dira. Orain ez omen du pekatuak iñor ikaratzen. Ia orain arte, danetan elizkoiak euskaldunak giñan, eta orain gutxi gera elizara joaten geranak. Jaungoikoagan sinisten omen degu baiña pekatu bildurra zero galdu degu. Eta elizara joaten ez geran onetan, politiko jende orrek mittiñen ordez sermoiak egitea pentsatuko zuen. Ez, ba, oietxek mixiolari txarrak iñor konbertitzeko! Alakoxe ejemploak ematen dizkigute.

Aldaketak izango ziran, baiña goiko maillan daudenak egiaren kolorean komeni zaiena esateko oitura ez da aldatu. Egunkarietan irakurtzen danaren eta irratiak diotenaren erdia bakarrik egia dala

ere, Espaiñiako ekonomia porru eginda dago. Gobernuak berealdiko zorrak egin ditu. Ez uste izan ordea agintariak ezeren errurik dutenik. Gaitz guztiak guk diru geiegi kastatzen degulako etorri omen dira. Ez da ezer, ala ere, agintari zintzoak dauzkagunean. Politikariei entzuten jarri zaitez, eta gauzak ez daudela ain gaizki esango dizute. Zerga eta abar jendeari diru geiago kendu, eta zuloak beteko dirala. Ez dizute esango, bada ez bada ere, tranpa egiten dutenak arrapatuko dituztela, alperrikako kastuak kenduko dituztela eta orrelakorik. Enpresariei entzuten jartzen bazera, gauzak gaizki deudela esango dizute. Jendeari eskuetatik dirua kentzearekin lana urritzea datorrela, eta lantegi bat baiño geiago itxi bearrean gertatzen dirala. Zeiñi sinistu bear diogu?

Gu bezelakoari etortzen zaion dirua lanetik etortzen zaio. Berriketa utsarekin ez dago emen ezer. Itzaldi dotoreak egiten dituzten politikariak nunai billatu litezke, baten lekuan milla bear izanda ere, baiña bear bezelako enpresa-gizonak ez dira dozenan amairu izaten. Eta pekatua errespetatu bear bada, danok errespetatu bear degu. Ez beean arrastaka gabiltzanok bakarrik. Goi oietan bapo bizi diranak ere bai. Au ez degu guk bakarrik esaten. Madriden ere orrelaxe diote, eta egia izango da. Angoak gure aldean zuzenak eta onak baitira.

Munduan beti batzuek alai eta besteak tristerik.

Len ala zan ta orain ere ez orri alde egiterik.

Zuzen itxurak egiñagatik geienak tranpaz beterik, eta esaten diguten dana bai al dago sinisterik?

Egia zeinek esaten duen ez dago antzematerik.

Jaunak, auxe da gezur usaia nabaitzen dana aizean!

Jauntxo guztiak amorratuta or dabiltz diru eizean.

Gaiñontzekoak al duten gisan beti geroko pozean...

Ikusten nago danok erori

bear degula leizean,

goiko jaun oiek kastu alperrak aldebat utzi ezean.

Neguari begira gaude ia oraintxe. Etzi Santu guztian eguna. Badirudi egun ori neguaren mandataria dala. Bere otz eta guzti, neguak poz aundirik ez digu ematen, baiña ez dakit estutzeko aiña ote dan ere. Gizakiak 120 bat urtean bizi eziñik ez daukala esan du jakintsu batek. Zertarako geiago? Dana ez da gezurra izango. Italian 61 urteko andre batek semea izan omen du. Ortik pentsatu urte oietara iritsi arren nolako sasoia edukiko zuen. Pozez zorutzen eta arro-arro omen dago. Eta ez da gutxiagorako.

Madrideko Unibertsidadean maixu dagoen mediku jakintsu batek esan du neguari bildurrik ez izateko zer egin bear degun. Urteetan aurrera dijoaztenak, denetatik jan bear omen dute. Leenago errejimena egin bear izaten zan, eta orain babarruna, lentejak, garbantzuak eta oiek danak onak dirala esaten digute. Fruta asko jan bear da, eta barazki edo berdurak ere bai, baiña beste jaki oiekin aaztu gabe, gorputzak bearrezko dituen bitaminak eta mineralak bereganatu ditzan.

Badirudi sendagilleak pixka bat errukitu dirala, eta bizimodu erreztu nai digutela. Aragia ona dala esan du katedratiko jaun orrek, baiña arraia ohea. Sardiñak, txitxarroa eta oiek danak jatea komeni dala. Bixigua jatekorik ez du esan, baiña noizean bein ez du kalterik egingo. Sarritan jan ezkerro patrikarako gaitza sortzen dala uste det. Alkoholarekin kontu aundia eduki bear dala esan du. Ardoak biotza alaitzen duela esaten dute kartujoak, baiña neurrian edan bear dala. Alkoholak muiñetan sekulako matxurak egiten dituela, eta ori ez komeni. Muiñak aberiatu ezkerro, txalalakoa egiten baita. Eta ardoarekin gerra baiño urarekin pakea obe izango da etxean. Lan apur bat ere egin bearra dago gorputza erdoitu ez dedin. Emazteari etxeko lanak egiten lagundu, patatak zuritu, mandatuak egin eta orrelakoak egiñez zaintzen da ondo osasuna.

Domu Santu edo negua, gaiñean degun urte-sasoari aurpegi emateko zer egin bear degun naiko garbi dagoela esango nuke. Zer jatea komeni zaigun sendagilleak esango digu ondoena. Zer lan egin bear degun galdetzera ez daukagu iñorengana joan bearrrik. Emazteak esango digu ori. Orretarako medikua etxean daukagu. Eta ez da suerte txarra. Bere esanak egiñez ez degu ain negu txarra pasatuko. Jaso buruak, Italiako 61 urteko emakume orrek bezelaxe.

Aiton-amonak bizi ziran len
txit egoera larrian:
rejimena ta indizioa
beso edo iztarrian.
Neronek fede geiago daukat
gaurko botika berrian:
salda beroa sarri-sarritan
ta lana bere neurrian.

Orren egarri ez izan arren
bagoaz negu aldera.
Baiña alperrik etorriko da
otza gerra ematera.
Rejimen eta erdi goseak
utzirik alde batera,
sendagilleak alde dauzkagu
eta aterako gera.

1992ko azaroak 6

Katedratriko baten iritziak irakurri berria naiz. Egi mordoska polita esan du jakintsu orrek. Auetako bat, gizonetzkoen balioa beera dijoala, eta emakumeena gora. Danok berdin balio genduela uste nuen nik. Eta batzuek gora eta besteak beera egite au ez dakit ona izango dan. Baiña gaur orrela gertatzen dala begien bistan dago. Zergatik ote da? Gizonezkoak gaizki portatzen geralako?

Bizimodua garestitu da, etxebizitzaren salneurriak laioetaraiño igo dira, eta biziko gabera emakumeak etxetik kanpo lanera joatera beartu ditugu. Eta orain orren ondorioak nozitu bear. Lantokian zortzi ordu pasatuta, etxeko lanak egin eta gaiñera umeak azi, ez da iñorentzat egiten. Emakumearentzat ere

ez. Emakumezkoaren lana gizonaezkoarena baiño gutxiago ordaindu da oraiñarte. Lanerako gertatu da, bere buruaren jabe da, eta ez dauka zertan neskame izanik. Ortik etorri da ezkontzak urritzea eta aur gutxi jaiotzea.

Deustuko Unibertsidadean mutillak baiño nota obeak ateratzen omen dituzte neskak. Ortik pentsatu emakumeak goi maillako lanak egiteko balio duen ala ez. Katedratiko jaun orrek esan duenez, gaurko euskaldun gazteak bere gurasoak baiño garrantzi geiago ematen diote diruari, ondo bizitzeari, eta gizartean zerbait edo norbait izateari. Ezkontzen ez badira, ezkontza gauza serioa dala pentsatzen dutelako da. Eta bein emezortzi bat urte ezkerro ezkondu egin bear zala eta orrelako kontuak joan ziran. Oraingo gazte ikasiak leengoak sinisten zituzten gauza asko ez dituzte aintzakotzat artzen. Obeto bizi dira ordea, eta obeto bizitzera iritsiko dira oraindik. Eta ez mutillak bakarrik, baita neskak ere.

Gizonaezkoak bai uste mundua berea zuela eta berak agintzen zuela, baiña bera lo dagoen bitartean emakumeak esnatu egin dira, zorionez. Ez det uste kalterako izango danik, eta poza ematen dit. Aitaren zorrozatasuna amak baretu oi duen bezela, gobernatzaileen zakarkeriak emakume agintariak leuntzea gertatu liteke oraindik. Alaxe izan dedilla. Gerra besterik ez dagoen mundu zakar onetan badago zerbaiten premia-eta.

Nola edozein lanetan igo
zaizkigun gure parera,
emakumeen trebetasunez
iñor arritzen ez gera.

Ongi etorri, emakumeok,
agintarien saillera,
gizonaezkoen gogortasuna
pixka bat gozatutzeroa.

Zuen irripar alaiak nola
biotzak pozten dizkigun,
nagusi baiño askoz naiago
degu izan zuen lagun.
Alkarrentzako egiñak gera
ta alkar artu dezagun,
ea guztion artean mundu
obe bat moldatzen degun.

Bizi geran garai onen ezaugarrietako bat, dana aseguratuta eduki nai izatea da. Arriskuak geroz eta kezka eta bildur geiago ematen digu, eta al deguneraiño lasai bizi nai degu. Ainbeste aukera dago gaiñera, eta asegururik gabe ez dago bizitzerik. Urte muga iristean aseguru-etxeari txanponak eman bearrak karramarrara batzuk ateratzen dizkigu, baiña or nunbait moldatzen gera.

Kotxea aseguratzen degu, etxea ere bai, suak erre eta lapurrak okerren bat egitea gertatuta ere. Urak iges egin digulako bizilagunari etxea ondatzea gertatuta ere, aseguratzea obe. Eta orrela bizi gera, al deguneraiño seguru jokatuz. Luzaro eta ondo bizitzeko ere aseguroa artuko genduke, baldin balego. Baiña orrelakorik ez da asmatu oraindik. Erremedio bat bai omen dago, baiña oraiñaldian ez dauka estimazio aundirik. Urte askoan eta osasuntsu bizitzeko, ezkontzea ona da. Baiña zeiniek nai du ezkondu? Danok nai degu ondo bizi, baiña ez uztarria lepagaiñean degula. Ezkontzak urritu dirala eta politikari, elizgizon eta abar kezkatzen asita daude. Negu alde onetan, berotasun pixka baten billa edo, ezkontzak ugaltu bear dutela esan liteke, baiña ez. Gu errez samar deskuidatu giñan. Eta ez gerala damutu esaten badegu ere, ezkontza garesti samar irtetzen da, bai dirutan eta bai pazientzian.

Ondo bizitzeagatik kutiziak alde batera uztea eta orrelakoak ez dute balio gazteentzat. Egunean eguneko zoriona naiago dute. Eta zerbait izango da. Baiña ezkontza gutxi izatearen erru guztia ez det uste gazteena izango danik. Erreztasun geiago balego, eta ezkon-duta ondo bizitzeko itxaropena, gu erori giñan lazo berean eroriko lirake oraingo gazteak ere. Baiña batetik bizimodu zaila eta bestetik esi asko zabalik, orra ezkontzaren bi etsai aundi. Ezkonduen aldean ezkongabe asko iltzen omen da istripuz eta ezbearrez. Ez dago zalantzarik astebukaerak parrandan pasatu bearrean etxeko pakean pasatzen dituztenak luzaroago eta obeto biziko dirala.

Alkohola baiño maitasuna obe izango da osasunerako, asarrealditxo batzuk gorabeera. Alkarri aitzakia emateko moduan egotea bezelako aseguratorik ez dago luzaro eta ondo bizitzeko.

Zenbait ezkondu ikusten dira
musaje ximurrarekin,
noizean beinka nola oi degun
guztiok zerbait utsegin.
Ala ta guztiz gauz xelebrea bat
gertatutzen da gurekin:
asarre plantak sarritan egin
baiña beti alkarrekin.

Geiena maite degunarentzat
morrokkadarik geiena,
ori omen da maitasunaren
señale nagusia.
Pentsamentu bat bada au ondo
adierazten duena:
alkar tentatzen degun artean
bizi gera ondoena.

1992ko azaroak 20

Kulturarik eza, edo gutxi jakitea, atzeratua izatea, beartsu bizi diranen kontua dala uste izan da. Gizartean beeko maillan bizi diranak ezjakiñak izaten dirala. Askotan orrela gertatzen bada ere, ez da egi osoa. Asko dakitenak eta ondo bizi diranak ere badituzte akatsak. Ez dira beti zuzen ibiltzen. Espainian eun emakumetatik berrogei baiño geiagok alkohol geiegi edaten omen dute. Xurrut egiten dutela, alegia. Baiña gizona gizonengatik ari bagiña zurrut egiten dutela esango genduke, baiña emakumeei buruz ari geranez, txukunxeago edo fin antzean itz egin bearko degu. Ea, ba, ondo konpontzen geran.

Zurrut egiten duten emakume oiek kultura ona dutenak, ikasiak omen dira geienak, eta dirua ondo irabazten dutenak. Beraz, ez dira atzeratuta bizi diranak eta ezjakiñak. Baiña ez dakite ondo zer egiten duten. Beste lekuetan bezelaxe, Euskalerrian ere zurruta naiko zabaldua dago, eta onek ematen digu pena. Ala ere, jakiteak ez du kalterik egiten eta gaitzerdi. Gaztetan zurrut egiten

duten emakume askok, urteetan aurrera dijoazen bezela alkoholari utzi egiten omen dio. Zaartzen astean arrastoan sartzen dira, nunbait. Au ez dago gaizki, baiña garaia baiño leen ximurtutakoak baiño gazte musugorri liraiñak ez al dira politagoak izaten? Eta ez gazteak bakarrik, baita urte batzuk eduki arren itxura ederrean eta presko gordetzen diranak ere.

Besteak egiten dutena egin nai izateak baditu arriskuak. Alkoholak gibelera jotzen du, eta gibeledu miñez dagoenak jenio txarra berekin du. Zurruta dala eta ez dala beti ipurterretuta dagoenaren ondoan bizitzen ez da giro izango. Zenbat senar-emazte sakabanatu ote dira zurruta dala medio? Izan ere, nola ez dira, ba, dibortzioak izango alkoholarekin eta tabakoarekin osasuna galdu eta petralduta bizi bagera?

Alkohola ez da kaltegarri emakumeentzat bakarrik. Makiñatxo bat gizonezko kaskaillu biurtu eta ondatzen du zurrutak. Zurrut egitea txurrut egitea baiño okerragoa baita. Jai illunabarean etxerakoan andregaiari musutxo bat edo beste ematea pekatu izaten zan leenago. “Cubalibre”ak artzea baiño atariko intxaurpean laztantxo bat edo beste obe izango zan, orratik! Tabernako ke arte zaratatsuan aiñako giroa egongo zan illargitan, alkarri eskuak bertuaz kontu potxoloak esateko. Ori egiten duten neska-mutillak gibel preskoa edukiko dute. Zurrutaren poderioz zer egiten ez dakitenak baiño pekatu arrisku gutxiago ere bai.

Muxu emanaz azaltzen dala
biotzeko maitasuna,
auxe da gauz bat lenago iñoiz
esaten etzitzaiguna.
Onela galdu degu gaztetan
bear zan gozotasuna.
Baiña zurrutak ez du betetzen
maitasunaren utsuna.

Baso izoztu kristalezkoa
ezpaiñetara eramanez,
ezin liteke maitetasunik
piztu nik uste dedanez.
Bai arrosazko ezpain gorritan
amodioa edanez,
“nai dizudala zalantzarikan
ez zazu izan”, esanez.

Aginpidearen eta aberastasunaren egarria ondo berea du gizakiak. Egarrri orren ardatza, dirua da berriz. Eta neurria ere bai. Gizonak eta gauzak ardatz orren inguruan dantzan egiten dute, eta diruarekin neurtzen dira. Dirua daukanak zerbait balio izaten du, eta ez daukanak, ezer ez. Edo ezer gutxi. *Zenbat daukazun, hainbeste balio dezu*, dio esaera batek.

Beti eziñean eta beartsu dabillenaren izakera ezin diteke ona izan. Inbiria ere ortik etortzen da, eta inbiriz bizi dana gaizki bizi da, zalantzarik gabe. Ala ere, beartsutasuna edo pobrezia txarra da, baiña aberastasuna ere ez da lagun ona lasai lo egiteko. Au diru asko daukanen batek esango zuen, pobreak kontsolatzeko. Nik ez dakit aberats izatea zer dan, baiña asko daukatenak poliki bizi diralakoan egoten naiz. Diruak buruauste asko ematen duela esan izan da, eta eskuetatik iges egin ez dezan begi bat zabalik dala lo egin bear dala. Orrelako kezkarik gabe, lo lasai egiteak ez al du diruak aiña balioko? Gaiñera, aberasten baiño aberastasu-nari eusten zaillago omen da. Deskuidatu ezkerro, azukrea uretan bezela urtzen da dirua, eta zearo arruinaatzeko gutxi bear izaten da, eta beti bildurrez bizi bear. Ez da lantegi ederra izango orixe ere. Aberatsak ez dira ondo bizi, gizarajoak. Erruki ere ematen dute. Dirua ilusio utsa dala, zorientasuna erosteko ez duela balio, buruauste ugari ematen duela eta ez dakit zer, baiña danok uraxe nai. Asko eduki arren ez daukanari ematen ez da iñor ikusten.

Era askotakoak ezagutzea tokatu zait, eta diru asko dutenak ezagutu ditut, baiña naikoa daukanik ez det ezagutzen. Aberastasunak badu berekin gauza bat asko maite deguna: askatasuna. Nai dana egiteko erreztasuna. Eta orregatik dabil gizona diruaren ondoren, dirua asmatu zan ezkeroztik. Libre bizi nai duelako. Al dan ondoena bizi eta iñori kontu eman bearrik ez, zeñi etzaio gustatuko, izan ere?

Pobre bat geitxo edanda ikusten badetu, mozkortu egin dala esaten degu. Eta aberats bat mozkortzen bada, mareatu egin dala. Aberatsak ez dute pekatu egiten. Orretarako dirua irabazten ez ezik zaintzen ere jakin egin bear ordea. Guk ezin deguna. Gure zakuak ez dakit ipurdiko joscura askatuta daukan ala ez, goitik sartu ala beetik irtetzen zaio. Baiña iñoren inbiririk gabe eta lasai bizi gera, eta kitto.

Jaunak, auxe da inbiriaren
mendetik irten eziña!
Sarri jainkotzat artzen baitegu
diruaren imajiña.
Gure etsairik zitalena da
besteren onaren miña.
Ez, noski, degun ainbesterekin
konformatuko bagiña.

Gaizki bizi ta nor bere kulpaz,
or bi pekatu gogorak.
Penitentzirik gabe ordaindu
dezazkegu oien zorrak.
Itxi atea inbiriari,
izan pertsona jatorrak.
Ori egin ezean ez gera
guk uste bezin bizkorak.

1992ko abenduak 4

Urutiko intxaurrek ots aundia, esan izan da. Baiña bertako intxaurrek ere ez dute beti ots ona ateratzen, eta aspertuta urrutiko intxaurren billa joatea ez da arritzeko. Aspalditxo onetan berri berdin samarrak entzuten dira emen. Kanpotik ere ala moduzkoak etortzen dira, baita pixka bat aztertu ezker, zenbait ezberditasun aurkituko degu, bearbada. Pixka bat aldatzea ona izaten da, bestela aspertu eta tristetu egiten gera-eta.

Matxarda samarrak eta agintzea gustatzen zaienak badira gure artean, baiña Italia alde orretan ere jende bero samarra dagoela uste det. Ango emakume batek bere semea ezkontzerik ez omen zuen nai iñolako moduz. Eta aztarrika ederrak jo zituen semeari ezkontzeko gogoak kenduko ziolakoan. Baiña alperrik. Berea egin bearra-

koa zan nunbait mutilla ere. Semea buru gogorra bazan, ama ere etzan amutsa, ez. Eta baita semeari azioa nola egin asmatu ere. Ezkontzeko eguna iritsi zanean, atariko atean txartel bat jarri zuen amak, eztaietara iñor joan etzedin. Txartel orretan esaten zuen semea il zala eta illetak urrengo egunean izango zirala. Eztaiak nola egingo, illeta, entierroa, alegia. Alde ederreko kontuak dira.

Zenbait emakume sorgin utsak izaten dirala eta orrelakoak esaten omen ditut. Amari iruditzen zaio ezkontzen danean semea galdu egiten duela, eta erraiñak kendu diola gaiñera. Amagiarrebak eta erraiñak alkarrri mutturra jartzea ortik etortzen omen da askotan. Ala ere, amak pentsatu bear luke semea ez dagoela beti gonapean edukitzerik. Italiako mutil ura ere emaztetxoak pozik artuko zuen bere ondoan, leenengotik beintzat. Pozik, eta goxo-goxo gaiñera. Utzi, ba, semeari egun batzuk ondo pasatzen noiz mikaztua izango du-eta.

Baiña emakumeen akatsak bakarrik ez ditugu esan bear. Italiako bi apaiz mutur joka egiñak omen dira. Baita batak besteari sudur ingurua berotu ere. Eta ez iñork ikusiko etzituen lekuan, Artzobispo edo Artzapezpikuaren aurrean, alajaiña! Eta apaiz batek bestearen parroko etxe batean meza eman zuelako dana. Ikuskizun polita izango zan ura ere, ejemplo ona emateko modukoa. Bi apaiz jaun boxeoan, artzobispoa arbitro zutela. Italian odol beroko jendea dago, ikusten danez. Urrutiko intxaurrak onelakoxe otsak izaten dituzte batzutan.

Amak semea menderatu nai
ta apaiz batek bestea.

Ori ez al da martxarda eta
ditadore izatea?

Obe genduke ingurukoei
arnasa artzen uztea,
iñori erakutsi baiño len
dotriña geuk ikastea.

Gaur ez du iñor asko arritzen
edozer gauz entzuteak,
ezta bi gizon serio ere
boxeoan ikusteak.

Guztiak gure esanetara
makurtu nai izateak
begira nola sortzen dituan
parregarrizko txisteak.

Gogoratzen naiz mutil koskorra nintzala mixiotako umeei bialtzeko dirua eskolara nola eramaten genduen. Ez, ba, geuk dirua sobrean gendukalako, baiña txinoak zeñen gaizki bizi ziran eta orrelakoak esaten zizkiguten, eta errukitu egiten giñan. Izan ere, Txinoak dotriñarik ere ez omen zekiten, eta ea bataiatuta zerurako bidean jartzeko modua egiten genduen.

Guk dotriña pixka bat bagenekien, baiña ortik aurrera txinoen modu samarrean bizi giñan. Garai aiek ere pasatu ziran eta orduan aiñean bizi gera beintzat. On egiñaren damurik ez omen da bear, eta aurrera. Txinoak ere orduan baiño obeto bizi dira orain. Naiko arroza jaten omen dute beintzat. Ala ere, arazorik edo, orain esaten dan bezela problemarik ez da falta izaten, eta txinoak ere badituztela uste det. Txinan euliak ugaldurik omen dira erruz. Ez omen dute bizitzen uzten, eta txino gizarajoak bere onetik irtenda dabiltz. Euliak asko izango dira, baiña txinoak ere ugariak dira, eta asmatuko dute zer egin: eskolaume bakoitzak egunean larogei euli arrapatu eta akabatzeke bearbizuna dauka. Pentsatu besterik ez dago ainbeste milloei txino txikiek egunero-egunero nolako euli pillak akabatuko dituzten. Estuasun larria bezelakorik ez dago gizonari burua argitzeko, eta zerbait izango da. Ikusi bestela txinoak nolako asmakizuna, nolako inbentua atera duten dirurik kastatu gabe euliak ezkutatuerazteko.

Txinoak pazientzi aundikoak diran fama dute. Eta orain artu duten lana ere pazientzia bearrekoa izango da. Euliak aspergarriak eta gogaikarriak dira, baiña txinoak ere ez dira bereala etsitzen duten oietakoak. Ez dituzte euli guztiak gauetik goizera akabatuko, baiña oraingo inbentu onekin urteen poderioz zerbait egingo dute. Zerua pazientziarekin irabazten omen da, eta oraintxe dute aukera.

Baiña asmakizun onek ere badu bere kakoa. Txinoak euliak bezin ugariak izan, eta senar-emazteak ume bat baiño geiago ez

ekartzeko agindua zeukaten. Bestela emendik amar urtera danentzat lekurik ez litzake izango, eta danentzat ainbat janari ere ez. Orregatik, txinokumeak ekartzeari utzi bearrean daude, urte batzutan beintzat. Eta eskolaumerik izaten ez bada, zeïnek akabatu bear ditu euliak? Beti bada emen zerbait.

Larogei euli arrapatzeko
agindurikan goizean,
orra neskatil eta mutiko
jolaserako pozean.
Berealako batean euli
danak garbitu ezean,
txinokumeak nai eta nai ez
ikasi bear eizean.

Euliak eman izanagatik
ernegazio estuak,
nola uxatu erabaki du
Txinako jende prestuak.
Kendu ere bai euliak iltzen
egiten diran kastuak.
Guretzat ere onak lirake
txinatarren inbentuak.

1992ko abenduak 18

Bizitza amets bat bezela dala esan zuen norbaitek. Ari ere denbora azkar joango zitzaion. Igazko Gabon eta Urtezaar gaueko asteleena etzaigula joan kontu egin, eta aurtengoak emen ditugula gaiñean. Gabonetarako sei egun falta dirala esango dezute. Baiña zer dira sei egun? Iñungo miñik ez daukanarentzat ezer ez.

Zerbaiten miña, kezka edo naigabea dutenak badira gaurko munduan. Beti izan dira, eta izango dira. Orain bi milla urte Jesus jaio zanean, aingeruak pakea eskeintzen zuten kantuz. Pakea, baiña ez edozeiñi. Borondate oneko gizoni. Oraintxe ere badaukagu pakearen bearra, eta borondate onekoak ez geralako guztia. Bat esan eta bestea egiten degulako. Au mundu guztian zabaldua dagoen gaitza da, eta ez dakit erremediorik edukiko ote duen.

Asko bezela turismoa egitera joandako emakume bat Arabiako erri batean omen zebillen, bazterrak ikusten. Ezagutzen zuen gizon batekin topo egin zuen, eta alakoxe poza artu omen zuen

ain urrutian ezagun bat ikustean, eta emen oitura dan bezela bi muxu eman zizkion. Baiña moroak ikusi, eta bi illabeteko kartzela ezarri diote emakume orri. Muxu bakoitzeko illabeteko kartzela.

Moro-errietan emakumeak ez daukate iñoren bistan gizonezkoei muxu ematerik. Orregatik esaten det nik moro artera joan baiño obe degula bertan egon. Pentsatu, moroak bi edo iru andre edukitzea normala dala. Zenbat eta aberatsago diran, orduan eta geiago edukitzen dituzte. Andre eta abar eun eta geiago emakume dauzkaten jauntxoak badira, eta beeko jendeak iñori muxu ematerik ez. Borondate ona falta.

Emen ere badaude moroen antzekoak. Goiko maillan ederki eserita dauden agintariak, soldatak konjelatu dituztela esan dute. Langilleen jornalak euneko zazpi edo orrela jasotzen diran bitartean, berenak euneko ogei edo berrogei jaso, eta gero konjelatu. Leenago ez, badaezpada ere. Pakea bear dala esaten degu. Orretarako borondate ona bear da ordea, eta ez itzak bakarrik. Gustoko lagunak nai aiña dauzkaten moroak eta urtean 8-10 milloi irabazten dituzten politikariak, Afrikatik Espaiñira goseari igesi etortzen diran gizarajoak aiñako Gabonak pasatuko dituzte. Eta emen lanik gabe daudenak aiñakoak ere bai.

Besteren pekatuekin ez gera kondenatuko, eta guk beintzat borondate ona erakutsi dezagun, orretarako aukerak izango ditugu-eta egun auetan. Gabon zoriontsuak opa dizkizuet danoi.

Santu paperak egin nai eta
gurekin dauzkagun lanak!
Okerra dana ez du zuzentzen
itxuraz ona izanak.
Esango nuke alkarren antza
badutela emen danak:
moroen erlijioak eta
politikoen esanak.

Itxura utsak nola ez duen
beti irauten luzaro,
azpikeria baiño obe da
borondatea oparo.
Mundu ontako miserietan
lokaztu gabe zearo,
likiskeriei bizkar emanda
Gabonak ondo igaro.

Eguberri on, guztioi. Zer moduzko umorearekin esnatu gera, ba? Bart arratsean bai ederki. Amak afari goxoa prestatuko zuen-eta, biotza alaitzeko moduko edariak ere izango ziran, noski. Eta danak ondo. Gazteak ere etxean izango ziran. Ala bear beintzat. Gurasoak ere zerbaiten poza bear dute, eta Gabon gaua aitaren eta amaren ondoan igarotzea ez da pekatu izango. Kanean *ator, ator, mutil etxera* kantatzea bakarrik ez da naikoa.

Gazteak balekite famili dana alkartuta ikustea gurasoentzat zenbateraiñoko poza dan, Gabonetan ez ezik geiagotan ere inguratuko lirake sukaldeko maiaren ondora. Gazteengatik bat eta bestea esaten aritzen gera, baiña neska eta mutil jator askoak badaude oraindik ere gure Euskalerra zaar onetan. Ni ziur nago aurten ere makiña bat gurasok goxatu ederra artuko zutela. Eta “datorren urtean ere onelaxe alkartzeko izan gaitezela”, esango zuen batek baiño geiagok.

Gau zaratatsuen urrengo goiza isil samarra izaten da, eta gaur eguerdiarte ere serio samarra izango da. Jokatuko nuke gazteak lo daudela oraindik. Sukaldean lana egongo da, baiña amak egin bear. Isillik eta pozik egingo ditu gaiñera. Zaratarik eta otsik atera gabe, lo daudenak esnatu ez ditezen. Illobatxoak goiz esnatu oi dira, eta aiek ere amonak zaindu beariko ditu. Ez die purrustada aundirik egingo. Nola etsi, izan ere, ume gaixoei laz-tandu eta musu batzuk eman gabe? Aien aita eta ama umeak ingurutik kentzeko amonarengana bidali eta lasai egongo dira, eta egon ditezela, egun batean bederik, beste alderakoak ere etorriko zaizkie-eta. Ama beti ama.

Urtezaar eta Urteberri ere badatoz. Eta aiek ere ospatu bear-ko dira, Jainkoak nai badu, eta orretarako indarrean egotea kome-ni zaigu. Oraindik katigatu gabe dauden gazteak joango dira ipurdia altxata, baiña larrak elduta gaudenak etxean egin bear-ko

degu al deguna. Dana dala, aurtengo urtea joan dala konturatu bear degu. Bateko krisisa eta besteko lanik eza, buruausterik asko eman du. Beti izaten da illunaldiren bat edo beste, leenxeago edo geroxeago danak pasatzen badira ere. Eta oraingoa ere joango da, alakoren batean. Osasuna eta pakea izan ditzagula beintzat.

Gure agintari jaunak ere saiatuko al dira berriketak utzita, egoera au piska bat zuzentzen. Alkarri mokoka jardunda ez dago emen ezer. Urtezarra ondo bukatu eta berria ondo asi. Osasunez osatutako urte mardul eta zorionsua izan dezazutela guztiok.

Urte zarraren agurra degu
emendik egun gutxira.
Guk ez genion egin nai baiña
berak artu digu jira.
Ezin diteke gelditu eta
alperrik gaude begira,
naiz eta pena batzuek eman
guztiak aztuko dira,
eman dizkigun pozak izaten
baldin badute segira.

Urtezarra, ez uste nagonik
oso asarre zurekin,
nola didazun zure denboran
mesede on asko egin.
Osasun ona eman didazu
umore pixka batekin,
baiña oraindik zorretan zaude
nai baldin badezu jakin,
pakean ez baigera konpontzen
euskaldunok alkarrekin.

Nola ez bada eskean joan
urte berriarengana,
Euskalerrriak premizko badu
eman dezaioken dana?
Osasuna ta pakea beintzat
eta guztiontzat lana.
Gure erriak izaten badu
orain eskatzen deguna,
ortik aurrera egin dezala
nai duenak nai duena.

Osasun onak ematen badu
alaitzeko lain aldarte,
zuek eta nik ez degu bear
alkarrengandik aparte.
Urte berritik zarrera ere
ez dago ainbeste tarte.
Zorionsuak izan zaitezte
guztiok bien bitarte.
Eta Jainkoak nai badu beintzat
datorren urtera arte
datorren urtera arte.

1992ko abenduak 28: Inuzente eguna

Goierriko eiztarien txapelketa jokatu da gaur. Eta leku dotorea aukeratu dute orretarako: Segurako madura.

Ori dala-ta, Segura inguruko soroetan 500 eper eta 1.000 erbi bota dituzte bart. Gaur txapelketan parte artzen duten eiztariak izango dute zeri tira. Baiña orretarako erriko elizan izenak eman bearuko dituzte eiztariak. Eta udaletxe askotan ere zai daude eiztariak apuntea ematera noiz joango, parte artzailleei txartela emateko. Nai aiña erbi edo eper botatzea libre izango da, baiña eiztaririk ez bota, debekatua dago-eta.

Eize baiño eiztari geiago bilduko balitz, azkena izena ematen dutenak ez dute eizean egiterik izango, eta bestei begira egon bearuko dute. Lukainka muturtxo bana ere emango zaie eiztariei, aspertu ez ditezen. Eta ardo-zurrut bat edo beste ere bai.

Pintxo oiek prestatzeko neskak ere bearuko dira. Beraz, txapelketan parte artu nai duten eiztariak dijoaztela al duten azkarrena erriko etxera, txartel billa. Eta neskak ere bai.

Berebiziko sariak izango dira eiztaririk onenarentzat. Eta lanera joaten diran neskatxentzat ez dago sari berezirik, baiñ nobio eiztaria billatu nai dutenentzat egoki etorriko da, aukera egiteko.

Badakizute, bada. Agudo ibilli.

Aurkibidea

Eskeintea	5
Itzaurrea	7
1988 urtea	11
1989 urtea	97
1990 urtea	187
1991 urtea	267
1992 urtea	349

Auspoaren azken liburuak:

- 272 Mikel Aizpuru
Hasi, Azpillaga
- 273 Emile Larre
Ene artzain etxolak
- 274 Joxe Mari Aranalde
Xalbadorren barruan
- 275 Joxemari Iriondo
J. Lizaso: nere aldiko kronika
- 276 Jose Insausti
Beti bertsoa buruan
- 277 Manuel Matxain
Uste gabean
- 278 Inozentzio Olea I
*Ostiraleko kronika.
Segura irratian*

ISBN 84-95378-59-0



9 788495 378590




Auspoa

Inozentzio Olea
II

Ostiraleko kronika

Segura Irratian
(1993-1997)





Inozentzio Olea Gipuzkoako Goierriin jaio zen, Zeraingo Mendarte baserrian, 1921eko abenduaren 28an. Soldaduzka egin eta Legazpiko Patrizio Etxeberrian hasi zan lanean, 1945ean.

1950eko ekainaren 10ean ezkondu, eta Legazpin jarri bizitzen. Semea eta alaba izan zituzten. Herri honetan gustora bizi bada ere, ez dauzka saltzeko bere jaioterria eta Aizkorripeko herriak. Erraz eta sarri aipatzen ditu Zerain, emaztearen jaioterri den Zegama, Segura, Azitiria, Idiazabal, eta abar.

Zeruko Argia eta *Goiz-Argi* astekarietan, eta Donostiako *La Voz de España* eta *Diario Vasco* egunkarietan idatzi du, inoiz bertsotan inoiz hitz lauan. Eta horiez gainera, *Goierriko lorak* (Auspoa 98-99 - 1970), eta *Otemotxeko arnasa* (Auspoa 173 - 1984) bertso liburuak argitara eman ditu. Hitz lauan egindako artikulua asko han eta hemen sakabanaturik dago. Bildu eta argitara emango al dira noizbait.

Inozentzio Olea
II

Ostiraleko kronika
Segura irratian
(1993 - 1997)



AUSPOA



• SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Inozentzio Olea
II

Ostiraleko kronika
Segura irratian
(1993 - 1997)

Hitzaurrea, begiraketa eta bateratzea
JOXEMARI IRIONDO

© SENDOA ARGITARALDIA

ISBN: 84-95378-60-4

Legezko gordailua: S.S.-1299/02

Inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz (Gipuzkoa)

Irakuleari:

*Ainbat saio ta berriketaldi
ditut irratiz emanak,
al daneraíño poztu naiean
nere entzule laztanak.*

*Egi asko txantxetan
baita ere benetan,
Seguratikan esanak.*

*Auspoak jaso ditu, aizeak
eraman ez ditzan danak.*

1993

**Sukalde beltzean
gazta ona**

1993ko urtarrillak 1

Urteberri on. Arrastotik pixka bat irtenda ibiltzeko egunak izan baditu ere iñoren aurrean itxura antzean azaltzen saiatu bear-ko degu. Etxean gaudenean nai deguna edo uzten digutena egingo badegu ere, entzuten zaudetenok merezi dezuten errespetoa ezin galduko degu beintzat. Gaurkoa bezelako egunetan zuzen egiten ez da beti errez izaten. Alai pasatutako gauek goiz tristea ekartzen du, baiña bart parranda pixka bat egin degula eta tristetu ezin egingo gera. Eutsi goiari. Urte berri bati asiera emateko grazia izan degu, Jaungoikoari eskerrak.

Ez dakigu zer ekarriko digun urte onek. Eta zeñek daki ori? Askok dakiten igarle moduko agintariak badauzkagu eta oiek ari dira bat eta bestea esaten. Joan dan urtean ez dira asko isildu beintzat. Aurtengo urte onetarako itxaropen aundiak zituzten. Europan sartuko giñala, muga edo frontierak zabalik utziko zirala, eta bazirudien bereala giñala Europako jende aurreratua-ren bizimaillan.

Politikarien esanei beroarena kendu bear zaio ordea. Aurten ez baiña emendik lau bat urtera egingo gera benetako europear. Banengoen, ba, ni gure profeta oiek asmatuko ote zuten. Oieri sinistu utsarekin ez dakit oso urrutira joaterik dagoen. Gaur bat eta biar bestea esaten dute gaiñera, eta zeñek antzeman? Emen ikusi dana da joan dan urtea kaskar samarra izan dala. Industria-rentzat txarra eta baserritarrentzat ona ez. Saldu bear dana merke eta erosi bear dana garesti, eta kontua ugari. Berriketa geitxo ondo izateko. Eta emen ez dago kontuarekin ezer.

Sartu geran urte berri onetan agintari jende orri geiegi sinistu gabe, bakoitzak geure aldetik al deguneraiño saiatzea izango da onena. Asko egiten badegu gaiñezka daukaguna zeinek bildua izango degu. Gaiñezka daukaguna kendu bearrean bizitzeko bear deguna kentzen ez badigute, ezer ez. Ura izango litzake txarra. Baiña ez degu azkarregi etsi bear. Eta ote gera, ba, aterako? Orainarte atera gera ere aurrera ere zerbait egingo degu. Gu geu ere zimelak gera eta kostako zaie guri nai duten aiña izardi ateraztea. Batzutan aurrera eta besteetan atzera, or ibilliko gera tirriki-tarraka. Aurtengoa ere ez da urte beltz eta illun utsa izango. Izango ditu argi aldiak. Lainatuta dagoenean ezpainenak estutu eta argi aldiak aprobetxatu. Ori egiten duenak asmatuko du.

Urte berri bat etorri zaigu
Jaungoikoak ala naita.
Danok orixe nai genduen ta
nola ez biotzez maita?
Auxe da poza eman diguna
danok geunden bere zai-ta,
asi bezela bukatutzeko
izan dezagula gaita.

Emen zaude ta iñola ezin
joan zindezke atzera.
Ongi etorri, baldin bazatoz
guri lagun egitera.
Ontaz itz egin bearoko degu
emendik urte betera.
Gure eskerra izango dezu
ondo portatzen bazera.

1993ko urtarrillak 8

Piakaitza izateak baditu bere lanak. Iñorekin piatzen etziralako mutilzaar gelditutako pranko ezagutuak gera. Eta zenbait, zaarrago eta piakaitzago izaten da gaiñera. Bankuekin konfiantzarik ez dutelako dirua etxean gordetzen dutenen historiak zeinek ez ditu entzun? Izaten dira, bai, bere buruarekin ere piatzen ez diralako pobre bizi eta aberats iltzen diranak. Jubilatatu bati gertatu zaiona jakin berri naiz. Dirua bankura eramaten bazuen bate-re gabe utziko zutela eta aurreratzen zuen guztia etxean gordetzen omen zuen. Adreilluekin egindako txoko bat bazeukan, ustez oso

segurua, eta an gordetzen zuen bere altxorra. Noizean bein begiratu bat ematen zion bere diru sortatxoari, eta gustora gure gizona. Bost milloi eta zortzireun pezeta zeuzkan aurreratuta bere txoko kuttunera azkenengo aldiz joan zanean. Esan bezela, bisita egiten zuen bakoitzean kontatzen zituen bere txanpon maiteak. Eta urrena joaten zanean zenbat diruren jabe izango zan kontuak aterata edukitzen zituen. Ori ere bada, ba. Jubilatuta, eta zur eta piakaitza. Ondo bizitzeagatik dirua aurreratzen jardun, eta zurkeriaren zurkeriz apur bat kastatu ere ez. Bere burua baiño dirua maiteago. Izan ere, etzan piatzen bere buruarekin ere.

Dana dala, ia-ia sei milloiren jabe egin zala eta joan da diruak gordeta zeuzkan billeteen gaiñean beste batzuk jartzera. Baiña billete berdeen ordeztats pixka bat besterik ez omen zegoen adreilluzko kutxan. Diru guztia xaguak janda, alajaiña! Eta gizonaren naigabea zan ortik onerakoa. Etzuen bereala aldegin adreilluzko kutxaren ondotik. Biotzekoak eman eta ia bertan seko gelditu zan. Etzan gutxiagorako, baiña bere erruz. Obe zuen, gizarajoak, Ebanjelioak esaten duena egin izan balu. Lurrean ondasunik ez pillatzeko esaten du Ebanjelioak. Emen merituak irabazi eta zeruan pillatzeko. An ez baita xagurik izaten.

Zurkeria pekatu aundienetan bigarrena dala esaten zuen leengo dotriñak. Orain dotriña berria egin omen dute, eta ez dakit bere berririk. Baiña ikastea ona izango litzake. Dirua xaguei ematea baiño txuleta ederrak jatea obe dala esango du, bear bada.

Zurrak bizitza ona ez dauka
beti diruaren jiran,
gure poz eta ilusioak
nola auts biurtzen diran.
Mordoskatxo bat pillatu eta
geiagoren ikusmiran.
Ase eziñak atsegin gutxi
dakarki bere segidan.

Gizonak ez du maitatu bear
dirua ainbesteraiño,
balio duten beste gauz asko
maite ez izateraiño.
Nola liteke txoratu orri
antzik ez emateraiño?
Txuleta onak jan obe dala
xaguak mantendu baiño.

Euskaldunon akatsetako bat alkar artzen ez jakitea izango da. Leengo bertsolariak ere, Xenpelar, Otaño, Txirrita eta oiek ere, “ez gera unitzen” esaten zuten. Eta aien garaiko euskaldunak ere bakoitza bere aldetik ibilli bearrekoak ziran, bertso zaarretan agiri danez.

Gaitz au, edo akats au leengo euskaldunak baserrian bizi ziralako sortua omen da. Mendiko baserrietan bakoitza bere erara bizitzen eta norbere etxean agintzen oituta egon, eta iñoren aurrean burua makurtzeko gogorik ez. Alkarri lagunduaz bizitzen oitu gabe eta obeto bizi litekela ikasi gabe. Eta orrek kalte egin digu, noski. Gure izakera orain eunka urte baserrietan egiten zan bizi-modu ark emandakoa ez danik ez nuke esango. Euskaldunik geienak baserrietik kalera etorri giñan, baiña leengo lepotik daukagu burua. Ez da errez gu uztartzen. Eta izateko modu onek mesede aiña kalte egin digula esango nuke.

Gu alkarrekin konpondu eziñik gabiltzan artean gure etsaiak ederki parre egiten dute gure bizkarretik. Euskalerrian alako indarrean zeuden galtzairu fabrikak laurdenera etorri dira, barku aundiak egiten zituzten lantegiak eraman zituzten emendik, ainbeste familiri ogia ematen zioten tailler txikiak ezkutatu dira, eta fabrika aundietan langilleak sobre omen daude. Martxa koskorra da, geroz eta geiago irabazteko.

Euskaldunok gauden bezain zatituak ez bageunde, egin diguten aiña azio txar egingo ote ziguten? Lanaren eta erriaren ardura alde batera utzita politikari garrantzi geiegi eman diogula pentsatzen egoten naiz. Lanik eza eta diru-eskasia toki geiagotan ere badagoela egia da. Europako nazioetan guk baiño obeto alkar artzen dute ordea, eta gu baiño leenago aterako dira illun alditik. European sartzean dirua emango digutela eta bat eta beste esan, baiña indar gutxi daukanari diru gutxi ematen zaio. Au egi zaarra da.

Ala ere, gauza guztietan ez digute aurrea artu. Frantzian orain konturatu omen dira bazkalondoan siesta egitea oso ona dala. Ango ingeniero batek esan omen du ori. Guk berriz ori aspaldi bagenekien. Gu ere European sartu omen gera, baiña komeni ote zaigu? Ikusten nago fabrikak kendu dizkiguten bezela siesta ere kendu bear digutela. Eta, nora joan bear degu siestaren goxotasuna zer dan ez dakian jendearekin?

Siesta ain da gauz atsegiña,
ez da utsa, ez da festa.
Lagun zar batek aitortu zidan
ibilli gabe galdezka.
Zazpi alaba zituen aitak
esana gezurra ezta:
pikardi asko egiten diran
garaia dala siesta.

Baldin European sartzen bagera
itsuan edo nolana;
ikusten nago ez digutela
utziko bizitzen lasai.
Ez dakit egon ote liteken
lanetik aberastu zai.
Lana oso gauz ona da baiña
siesta ederra ere bai.

1993ko urtarrillak 22

Ezkondu, ezkondu esaten da, baiña mundua jarri dan moduan ezkondata ere lanak daude gero emen. Ezkondata bizitze ori ona zala uste nuen nik, batez ere emaztearentzat. Diruzalea dan senarrak ez du etxea galduko. Eta ori lasaitasun aundia da emaztearentzat. Zurrari dirua kentzen zailla izaten dala? Emaztearentzat ez, nai badu beintzat. Bi-iru losintxa edo, ala komeni bazaio, ezpainañak zimurtu eta uraxe da naiko senarraren patrikaran eskua errez sartzeko. Baiña... ni ere ari naiz, ba, emakumeak nik baiño geiago ez balekite bezela?

Jerusalemen bizi dan judutar batek dirua erruz irabazten omen du. Izan ere, ain langille ona izan eta goizeko lauretan jaiki eta dirua irabazteko pozarekin kukurrukuka asten omen da, emazteari naiko diru ekarriko diola-eta. Emaztea berriz, ondo bizitzen

oituta egon, eta asarretu da zearo. Juezarengana joan eta esan dio, senarra ez baizik oillarra dakala etxean, eta ari ez uzteko etxean sartzen puska batean. Ea kukurruku egiten aazten zaion, sikira. Eta jakina, jueza ere emaztearen alde. Eta gure judioak ez omen dauka orain sei illabetean bere etxean sartzerik. Oillarrak ez baiña oilloak kukurruku egin du azkenenik aienean. Beti bezelaxe, noski. Dirurik ematen ez badio senarra ikusteko gogoia egingo al zaiola, eta isillik eta burumakur joan da senarra, etxetik. Ark nozitu bear, gizarajoak.

Enamoratzea ez dala sillan eseri eta kafea artzea, baiña alargunduta berriz ezkontzen diranak ere izaten dira, eta garai batean kezkarik asko ematen zuen orrek. Bigarren aldiz ezkondukoak, zerura joaten danean, bi senar edo bi emazte izango ote dituen alegia. Baiña Aita Santuak itz egin du, eta gauzak argi eta garbi gelditu dira. Zeruan aingeruak bezela izango gera danok, eta an ez da izango senarrik eta emazterik. Ez dago seme-alabarik ekarri bearrik, eta orrek gauzak asko erreztuko ditu.

Ez litzake lan ederra izango bi emazteren aginduak bete bearra, edo bi senarren kukurrukuak entzun bearra. Eta sesiorik izan ez dedin danok aingeru biurtu eta orra pake santua egiteko modua. Asarrerik ez, eta adiskidetzeko alkarri pelotilla egin bearrik ere ez. Ura izango da zoriona! Baiña orretarako zerura joan bear, leenbizi.

Nola senar ta ala emazte
ez gabiltz santu antzera,
deabru beltza etortzen baita
sarri gu zirikatzeraz.
Kukurruku ta zitalkeriak
utzirik alde batera,
gero zeruan santu ez ezik
aingeru egingo gera.

Guk ez diogu emazteari
ukatzen bere tokia,
eta senarra salatutzea
ez da gauza egokia.
Aingeru izan nai duen arek
ar beza erabakia.
Senarrok estu bizi gera ta
izan gure errukia.

Alkoholak kalte aundiak egin ditu Euskalerrian. Egin ditu eta egiten ditu. Beste edarrietatik aukera aundirik etzanean, ardoa estimatua zan gure artean. Zenbat trago txar egin ote ziran perietan, ardoa zala medio, eta zenbat apustu galdu ote zan? Ardoak eta sagardoak bertsoa pranko kantatueraziko zuten eta umore ederra jarri ere bai. Neurrian edan ezkerro, ardoa ona da gorputza bizitzeko eta anima alaiatzeko. Neurria artzen jakin bear ordea. Berarengana jarri ezkerro, eta kattuerdikotik pasatu, kaltea besterik ez du alkoholak, bai edaten duenarentzat eta bai bere familiarentzako.

Orain irurogei edo larrogei urteko gizonak etzekiten gorputzean ardoak nolako ondamendiak egin zezazkeen. Oraingo gazteak badakite ori eta geiago ere, baiña edan egiten dute, alare. Unibertsidadeetan ikasketak egiten ari diran gazteen artean alkohola naiko sartuta dagoela uste det. Eta ez dakit gazteak orren berri zenbateraiño jakingo duten, baiña bere zaindari edo patroia-
ren eguna ospatzen dute beintzat, eta egun oietan berebiziko atxur-
rak arrapatzen omen dituzte. Jai egitea ondo dago, naiko dantza
egiñez eta umore onean ospakizun oiek egingo balira. Baiña alko-
hola edaten dute erruz, eta izugarrizko -ez nuen esan nai baiña-
basatikeriak egiten omen dituzte Unibertsidadeetako gela, etari
eta jaialdiak egiten dituzten tokietan. Ikasle edo estudianteak
zaindariaren eguna ospatzeko aitzakian egindako festatan milloia
eta geiagoren ondamendiak egindako egunak izan dira. Pentsatu
zenbateraiño astakeriak egingo dituzten.

Emendik aurrera, patroia-
ren egunean jai egiteko baimena
eskatu bearko dute. Eta fiantza-dirua depositatu gaiñera, txikizio-
rik egiten badute ordaintzeko. Karrera ikasten ari diran batzuen-
tzat ez al da lotsagarrikeria bere buruak orretaraiño jeistea? Kontu
egin gaurko ikasleak dirala biarko gizon. Eta bide orretatik badi-
joaz nolako medikuak, abogaduak, injenieruak, arkitektoak eta
gaiñontzekoak izango ditugu Euskalerrian? Orain arteko karrera-

dunak kanpotik etorritakoak izan ziran emen, ia geienak. Eta aiek izaten ziran gure errietan ondoentsuena bizitzen ziranak. Orain gure erriaren zaindari izango diran gizon eta emakumeak prestatzeko Unibertsidadea badaukagu, leenago ez genduen. Baiña alkoholari neurria ondo artzen ez dakigulako karreradun gizonak kanpotik ekartzen jarraitu bearke ote degu?

Onako bi bertso zaar auek esaten dute ederki ardoa zer dan:

Edari maitagarria,
zugatik daukat jarria
argumentu bat berria:
indarra zera gorputzarentzat,
kentzen dezu egarria,
gauza estimagarria.
Baiña daukat igarria
zerala engaiñagarria.

Batek lezake espero
ondotxo edan ezker
jarriko duela ero.
Lotsagarri ta lotsa galdurik
ibilliko dala gero,
korajetsu eta bero,
nunai egiñez aldero.
Modu txarrean biziro.

1993ko otsaillak 5

Santa Ageda eguna degu gaur. Otsail txikiaren bosgarren eguna. Negua eta neguak ematen duen bildurra ez ditugu gaiñetik kendu, baiña badijoaz, poliki-poliki. Eguna ari da luzatzen. Atzotik gaurra, bi minutu luzatu da beintzat. Gutxi al da? Otsailaren azkenean leenengoan baiño ordubete eta sei minutu luzeago izango da. Eta neguak orraztu bat artuko du ordurako, eta ea ateratzen geran.

Artzaiak ere negua joanda balego naian egongo dira, aientzat etsairik bada negua baita, bat beintzat. Aurrerapen asko asmatu da, baiña artzaiantzat bear aiña laguntasun ekarri duenik ez oraindik. Laguntasunaren ordeztzat artzaiantzat ere etsai berri bat ekarri du aurrerapenak: etxe-zakurrak. Oraingo jende modernoak etxean zakurra edukitzeko moda artu du. Eta bakoitzak bere etxe-

an nai duena egin dezake, eta ez det esango moda ori ondo dagoenik, ez gaizki dagoenik. Baiña zakurrak zaindu egin bear dirala bai. Neguak bultzata beera jeisten diranean, ardiak al duten lekue-tan larratu bear izaten dituzte artzaiak. Eta ardiak ez diote iñori gerrarik ematen, baiña egun guztian etxe barruan egon diran zakurrak illunabarrean askatu eta kanpora irtetzen diranean, batzuk jolasgurez eta beste batzuk gaiztakeriz, zelai eta basoetan dauden ardiei estuasun txarrak ematen dizkiete. Askotan, zakur-
ren igesi dijoaztela zuloren batera edo erre-kara erori eta galduta-ko ardiak izaten dira. Eta umea botatakoak ere bai.

Ardiak ikaratu dituen zakurraren jabeak zer esango ote luke artzaiaren zakurrak galtzak puskatu eta patrikarako diruak galdue-raziko balizkio? Artzaiaren patrikarako dirua bere ardiak dira. Ardiak emandako esnea edo arekin egindako gazta salduta noiz dirua artuko egon bear izaten du, bizi aal izateko. Arkumeak ere ez ditu izaten berak jateko. Aiek salduta artutako diruarekin larreak ordaindu ber izaten ditu, geienetan. Baiña ardiak eta arkumeak ez dira iñoren zakurraren jostailu. Gaizki ezitako zakur batek ardi bat edo beste akabatzen badio, orra artzaiaren irabaziak nora dijoazten.

Etxean zakurra edukitzea ona izango da, bearbada. Zerbaiten laguntasuna bear duten pertsonak ere izaten dira, baiña zakurrari nai duena egiten uztearren artaldeak uxatze utsa naiko kaltea da, eta artzaiari bere ondasunetan kalte egitea geiago oraindik. Gure artzaiak ori baiño begirune geiago merezi dutela uste det.

Arkumea ta gaztaiak
asetzeko gure naiak.
Baiña ez ditu bere kasaka
ematen zelaiak.
Oraintxe gure artzaiak
ez daude oso lasaiak,
etxe-zakurren artean nola
dauzkaten etsaiak.

Jarri gaitezen begira:
kontzientziak nun dira?
Zakur jabeok, kontu pixka bat
eduki, sikira.
Zakur oiek erretira
bakoitza bere tokira.
Artzaiari ez bota etsairik
ardien erdira.

Inglaterran gaizkiena bizi dan gizona ango gizonik aberatse-
na omen da. Ingalterra guztian dirurik geien daukan gizona, ala-
jaina. Komeria da auxe ere. Irureun milla milloiren jabe omen da.
Esaten asita, edo zenbat dan pentsatzen jarrita ere, txorabiatzeko
ainbat diru. Baiña gizon orrek ere ez dauzka gusto guztiak. Ez
omen daki diruarekin zer egin. Beste mundura abiatzen danean
diru oiek zeñi utziko ote dizkion ezin omen du asmatu.
Emaztearekin ez omen zan ondo konpontzen eta sakabanatuta
daude. Dibortziatuta. Izan ere, diruak ez balio nunbait emaztearen
pazientzia erosteko. Seme bat badauka, baiña arek ez du aita
begiz ikusi nai. Alaba ere bazuen, baiña etxekoekin konpondu
ezin eta droga geiegi artu eta il egin zitzaien. A zer nolako karre-
ra egin duen aberats gizarajo orrek.

Kanpoan uso eta etxean otso esan oi da, eta gure inglesari
orrelako zerbait gertatuko zitzaion, seguruenik. Bi nagusi batera
ez dagoela serbitzerik ere esaten da. Dirua serbitzeagatik familia-
rekin aazteak orra zer ekartzen duen. Diruaren morroi jarri bea-
rrean emaztearen morroi jarri izan balitz, une goxoak ere pasatu-
ko zituen. Noizean bein bederik emazteak laztantxo bat edo beste
emango zion, sikira. Orain ezta orixe ere. Joan dedilla orain
diruarengana. Dirua legorra dala esaten dute. Ez daukala anima-
rik. Orretaraiñoko gorrotoa badio, semearekin ere ez dauka zer
egiñik. Onezkero bere gisa bizitzen oituta egongo da, eta aitak al
duena egin bearko du. Alabak, berriz, beste mundura iges egin
zion, eta kitto. Orratx familiaren atarramentua. Diruarekin zer
egin ez dakiela, eta ipurterretuta gizona.

Guk ez daukagu orrelako lanik, Jaungoikoari eskerrak.
Etxean ondo konpontzen gera, eta Ingalterrako aberats ori aiñe-
an biziko gera, negu otzean etxeko epelean gozatuz. Pentsatzen
jarri eta Ingalaterran ere egongo dira, ba, dirua artuko lutekenak.
Gizon orren morroien eta meskameen artean ere bai, seguru

asko. Dirua zekena izaten ordea, eta dirudun asko ere bai. Ez dira konturatzen iñori pozik ez emateagatik sufritzen dutela. Eta gero zerura joan naiko dute. Ain zurrak ez balira obeto biziko lirake. Emaztearen sermoi bat edo beste gorabeera, askoz patxara obean. Baiña legorrak izan eta legorarentzat ez dago gozotasunik.

Ingururako lagun txarra da
gizon legor edo zurra.
Orrelakoak ez du jakiten
zer dan maitasun samurra.
Gertuan baiño urrin obe da
alako tipo maltzurra.
Poltsa betea edukiko du
baiña biotza zimurra.

Zakar ipurdi batek egin du
sekulako diru pillla.
Baiña etxean ezin eraman
jartzen zuen iskanbilla.
Esan diote aren aldean
onak nola dauden milla,
beste batentzat obea dala
eta or konpon dedilla.

1993ko otsaillak 19

Ezkonduen artean goraberak izatea eta alkarrekin biurri samar etortzea jenero merkea dala dirudi. Merkea eta nunai aurkitzen dana. Gizartean gauzak ez dirala zuzen egiten, eta justizirik ez dagoela esan oi degu, baiña gizon fiñak eta epaille zuzenak badaude an eta emen. Garrantzi aundia duten gai seriotan sartu gabe, eguneroko bizitzan aurkitzen dira denborapasa esateko moduko kontuak. Bear ere bai. Dana benetan artu ezker, senar-emazteen artean bezelaxe sortzen baitira txinpartak lagun artean ere.

Brasilen gizon batek masaillean jo omen du emaztea, bazkaltzeko prestatu zuen arroza erre zitzaiolako. Gizon kaiku eta erretxiñak izaten dira orratik! Berari ere etzaizkio gauza guztiak ondo aterako, baiña ori ezagutu ezin. Baiña andrea joan da epaillearengana eta, jakiña, epaillea bere alde. Eta zigortzat iru aste-

burutan etxeko lanak egiteko agindu dio senarrari. Otordua gertatu, ontziak garbitu, umeak zaindu, etxeko garbitasuna egin eta orrela iru asteburutan. Orrela ikasiko duela esan omen dio juezak gizona zaintzen zenbat neke artzen duen emazteak. Ori da pulamentuzko jueza izatea.

Brasildar ori naiko errez libratu da, ala ere. Rusian gizon bati gertatu zaiona ez da askoz ohea. Kirten samarra izan nunbait, eta emaztea asper-asper eginda omen zeukan. Alako batean senarra jo eta garbitu du. Baita giltzurriñak eta biotza jan ere. Ez dakit tripakiak jan dizkion ala ez, berriemailleak ez du esaten-eta. Dana dala, Rusian ere epaillea emaztearekin ondo portatu dala uste det. An ez omen dago senarra jatea zigortzen duen legerik. Eta ortik orrela libratu da beintzat. Izan ere, gizona iltzea debekatuta egongo da, baiña emazteak ere bizi bearke du, eta zer egin bear zion alako kirtenari? Pakea izango bazuen, gizona tratatik kendu bear, nola edo ala. Ez da arritzekoa.

Arrijasotzen edo aizkoran gizonak geiago izango dira, baiña buruz emakumeak ez dira gutxiago. Erljioak ere mendenan eduki ditu orain arte. Orrela esan du Arabiako emakume idazle batek. Baiña ari dira poliki-poliki gaiñera irtetzen. Inglaterran apaiz egiten asi dira. Eta ez nuke esango emen ere denborarekin zulatuko ez dutenik. Bai al dakigu, izan ere, zer ikusteko gauden?

Ez dakit gaur munduan
dagoen gizonik,
geienak ipurdia
erreta egonik.
Alkar astindu eta
ez dago gauz onik.
Patzientzirik gabe
ez da zorionik.

Senarrak gaizki artzen
badu emaztea,
ez ote du merezi
bizkarra austeia,
edo etxeko lanak
egin eraztea?
Ez beintzat nai duena
egiten uztea.

Azkenengo urte auetan zerbait modan baldin badago, edo zerbaiten bolada baldin bada, jubilarzio-bolada da, noski. Jubilarzioari zarsaria esaten diogu euskeraz. Eta orri ere izena aldatu bearra egongo da. Orain ez baita iñor zaartuta jubilatzen. Estaduarenak diran enpresa aundiak langilleei etxean egoteagatik soldata ordainduta obeto irtetzen omen dira langille oiek lanera joanda baiño. Eta lana egiteari utzi eta lantegitik alde egiteagatik diru mordoska polita jasotakoak ere badira bolada onetan. Lana eginda izaten zala dirua esaten ziguten guri. Orain badirudi enpresak dirua irabazteko jende mordo bat jornala kobratuz etxean egotea dala onena. Au komeria sortu zaiguna. Ez da errez gauzai antzematen.

Aurre-jubilarzioa edo zaartu baiño leen zarsaria artzea dala eta ez dala, mutikoak diruditen jubilatatu asko ikusten da. Garai batean amerikanoak edo indianoak esaten zitzaaien gizon aien inbiriz egoten giñan. Izan ere, Amerikan dirua eginda etortzen ziran, eta emen bizitzen ziran ederki asko, kolpe santurik jo gabe, beste batzuek soroan lanean ari ziran bitartean. Orain berrogeita amar-amalaurekin jubilatzen diranak ez al dira leengo amerikano aien pare? Aiek bezela bibote eta guzti ikusten dira gaiñera, geienak. Ea orduko indianoak baiño oraingo zaar-saritu gazteak obeto bizi dira. Ez nuke ezetzik esango. Askok eta askok gustora alde egiten dute lantegitik. Goizean goiz jaiki bearrik ez, kamiñoetako arriskuen kezkarik ere ez, eta lasaitu bat artzeko modua ikusten dutenean, pozik eltzen diote bizimodu berriari. Leengoak esan zuen bezela “enkargatuaren eta mandoaren ingurutik zenbat eta urrutiago eta obe”.

Mundu onetan ez da ordea zorion osorik. Beti bada zerbait. Jubilatatu askok lanari uzten diotenean, benetako emaztearekin topo egiten omen dute. Senarra lanean nekatuta ezertarako etzala etxera joaten zan aitzakia izaten omen zuten. Eta orain, egun guz-

tian ondoan daukatenean ez dakite senarrarekin zer egin. Izan ere, egun guztian etxean dagoen senarra, pasilloaren erdian armarioa baiño okerrago da. Asmatu zazu, ba, zuk.

Baiña ez da ainbesterako izango. Lantegiko agintari zorrotzen inguruan baiño obe izango da orratik etxekoandreari laguntzen, umore onean dagoenean beintzat.

Al baldin bada artu ditzagun
gauzak umorearekin,
naiko erreta aurkitzen dana
geiago erre ez dedin.
Odol txar egin edo ez egin
nola izango dan berdin,
nekatu gabe bizi al bada
zertarako lana egin?

Emen gertatzen ari zaiguna,
jaunak, ez da berriketa,
oraindik zartu ez diran asko
jubilatuta daude-ta.
Iñola ere ezin kendu det
nere burutik kasketa,
laister degula Euskalerrria
amerikanoz beteta.

1993ko martxoak 5

Mundu onetan bizi geranok bi taldetan banatuta gaude: batzuk, ezkorrak –pesimistak– omen gera; eta beste batzuk, baikorrak –optimistak. Ezkorrak dana illun ikusten dute. Ezerk ez ditu pozten. Beti zerbaiten faltan baleude bezela bizitzen dira. Leenxeago edo geroxeago ondo bizitzera iritsiko diran itxaropenik ere gabe. Mundua, mundukoak, bizimodua eta dana txarra izan bear, nai ta nai ez, orrela pentsatzen dutenentzat. Orrelakoen bizimodua naiko arlotea izaten da, eta aiengandik urruti samar obe izango degu. Tristura ere itsaskorra baita, gaitz asko bezelaxe.

Baikorrak diranak berriz, nai bezin ondo bizi ez badira ere, ez dira geiegi estutzen. Mundu onetan gauza onak eta txarrak naasi izaten dira. Une argiak eta illunak ere bai, eta beti erdi-negarrez jardun gabe, al duten ondoena bizitzen saiatzen dira. Ezkorrak beti zerbaiten aitzakia izaten duten bezela, baikorrak

dutenarekin konformatzen diralarik, ez dute galtzen gerora obeto izateko ilusiorik. Eta aiek asmatzen dute ondo bizitzen, eta ez beti lantuka edo inbiriz daudenak.

Batzuk, gorputzez nai bezin ederrak ez izateak tristetu edo lotsatu-edo egiten ditu. Beste batzuentzat gorputzez baldar samarra edo itsusi samarra izatea ez da eragozpena. Buruan ille-jantzi ederra duten erdi-negarti eta ezkorrak ezagutzen ditugu, eta illargi betearen antzeko burusoil brilloduna daukaten gizon alai, patxaratsu eta jator askoak ere bai. Diranarekin konforme izaten dira, eta ez dira inñoren aurrean lotsatzen. Ez daukate gaiñera zergatik lotsaturik.

Polonian, burusoillak, edo kalboak alkar artu eta alderdi bat egitea pentsatu dute. Burusoillen alderdi edo partidu politikoa, ain zuzen. Sozialistak eta berdeak eta beste askok dauzkaten bezela, burusoillak ere bear dutela bere alderdia. Eta beste edozeiñek baiño buru argiagoa omen daukate, eta alako brillua botatzen duten buruak, ideak ere dizdiratsu eta brillanteak izaten omen dituzte. Illerik gabeko buruak ederrak izaten dira, eta ain buru politak eta alako brillodunak dauzkatenak ez omen daukate zertan lotsaturik.

Orixe da, ba, uskeriak eta berriketak alde batera utzi eta bizitzen jakitea. Zenbait lotsatik illerik ez daukatela eta peluka janzten dute. Poloniako kalboak berriz buru ederra daukatela eta ez dira erakusteko lotsa. Ori da baikorra izatea.

Burusoillentzat alkartasunik
etzan izango gaurdaiño,
baiña esnatu dira ederki
berri bat moldatzeraraiño.
Gaiñera errez iristen dira
edozeiñen maillaraiño.
Burusoil argi bat obe da bai
illedun tonto bi baiño.

Burusoil asko ikusten dira
duten guztia ematen.
Pentsatuaren pentsatuz dute
ille guztia joaten.
Onelakoak nola idea
dizdiratsuak dauzkaten,
burusoillari illea artzen
ez da erreza izaten.

Iñork ez bezelako txismeak edo trepetxuak egiten eta asma-kizun berriak ateratzen dakienik bada, japondarrak dira, noski. Onetan ez die ñork eramango. Zeiñek aurrea artu japondarrei, esate baterako, irрати-tresnak egiten? Aundiak, txikiak, garestiak, merkeak, denetakoak egiten dituzte. Edozer gauzatarako balio dutenak, gaiñera.

Orain ere inbentu berria atera dute. Etxean bear diran gauza guztiak irratiz eskeintzen dituzte dendariak. Eta onela, irratia entzunez lanak egiten ari dan etxeakoandreak irratiz jakiten dute zein dendatan zer saltzen dan, zenbat balio duen eta gaiñontzeko xeetasun guztiakin. Ori emen ere badagoela esango didazute, baiña ez Japonen bezela. Zerbait erosi nai duen etxeakoandreak, ez emen bezela telefonoz, irratiz eska dezake nai duen guztia, eta illaren azkenean telefonoaren kontua ordaindu bearrik gabe, gaiñera. Eta ez ori bakarrik. Irratiz eskatzen duena etxera bialtzen dio dendariak, erosketak egitera kalera joateko orraztu, ezpaiñak pintatu eta dotore janzten denborarik galdu ez dezan. Lapurrak poltsa ostu bildurrik ere ez daukate Japonen etxeakoandreak.

Esaidazu neri ori ez dala suertea. Medailla balitz bezela lepotik zintzilik mikrofono txiki bat jartzea naiko dute, itz egin besterik gabe nai duten guztia etxera ekarrierazteko. Eta edozein lanetan ari diran bitartean egin dezakete ori. Baita *Abigail* edo beste edozein kulebroi telebistan ikusten ari dirala ere. Ala ere, aurrerapen onek eragozpen txiki bat du berekin: soiñeko berria jantzita lagunekin itz egiñez presumitu nai dutenean kalera joateko aitzakiren bat asmatu bear. Baiña nik uste det ate oni ere maratilla errez jarriko diotela. Ainbeste eta geiago dakite gure etxeakoandreak.

Berritsukeriak esaten ari naizela dirudi, baiña nik uste det arrazoi pixka bat badaukadala oraingoan. Bentaja guztiak etxeakoandreeentzat daude emen. Japondarrak ez dute guretzat orrelako-

rik asmatzen. Dana dala, etxeoandreei bizimodua orrela errete-
ak izugarrizko poza ematen dit. Poza, eta inbiri pixka bat ere bai.
Zer nai dezu?

Etxekoandreak naiz jardun orain lanean al dan moduan, aurki morroi bat leial askoa izango dute onduan. Inbentu orrek jarriko ditu markesa baten graduatan... Or ezagun da suerte ona zeintzuk daukaten munduan.	Japon aldean egon bear du biziro jende abilla. Etxekoandreen laguntzarako ori asmakizun pillla! Eta atsegin baldin badute alako lagun umilla, senarrok pozik joango gera Japonera bere billa.
--	--

1993ko martxoak 19

San Jose eguna iritsi zaigu, urtero bezelaxe. Aurten iru jai
izango ditugu gaiñera, eta gure esker ona azaldu dezaiogun, gutaz
aaztu ez dedin.

Negua azkenetan da. Etzi udaberrian sartuko gera, eta ea
egutegia eta eguraldia bat etortzen diran. Epela guztiontzat ondo
etortzen baita. Emendik aurrera zuaitzak eta sasiak loratuko diran
bezela, eta zerua argitu, gure lantegiak ere asiko al dira loratzen,
lanak bere frutuak eman ditzan. Nekez baiña seguru, orretarako
bidean sartu geran itxaropen pixka bat nabaitzen dala dirudi.
Euskadiko enpresarien presidentea izan zanak gauzak naiko garbi
esan ditu. Jaun orrek dionez, dirudunak industrietan dirua jartze-
ari utzita daude joan dan uda ezkeroztik. Baiña zergatik?
Gobernuak burugogorkeriz eraman duen politikarekin piatzen ez
diralako. Gauzak ondo balijoaz bezela itz egin omen digute
Madrid aldetik. Eta ori izana baiño esana eta ametsa geiago izan
ordea, eta lantegiak ametsik ez, berritzeko dirua bear dutela bai-
zik. Eta egiten dutena saltzeko ere dirua bear da.

Enpresari jaun orrek esan duenez, nola gobernatzaileak ala politikariak ere alderdikeri eta ikamikak alde batera utzi eta emengo enpresak Europarekin leiatzeko edo konpetitzeko moduan dauden ala ez aztertu bear dute leenbizi. Naikoa esan du, entzun nai badute. Baiña geiago ere esan du: Europako enprekin dauzkaten aldeak leenbaitleen berdindu bearra dagoela, eta ori ausardiz eta batzuen interesen gaiñetik azkar egin bearra dagoela. Gure oitura batzuk aldatu bearra izango bada ere, ez dagoela egoera oni aurpegi eman beste erremediorik. Orretarako, danok batera lana egin bearra dagoela.

Orra gauzak nola aldatzen diran. Dirua parra-parra irabazten danean enpresariak eta Gobernuak ondo konpontzen dira alkarrekin. Zerga edo inpuestoak gorabeera, danerako lain irabazten da, eta aurrera. Irabaziak murriztu artean iñork ez du ausardirik izaten gobernaiei gauzak garbi esateko. Asko irabazten bada, gutxi irabazten bada, Gobernuak tira egiten ordea, eta orduan dira komeriak.

Ala ere, gauzak zuzentzen berandu astea obe omen da iñoiz ez astea baiño. Ea, ba, gure enpresari jaunak bear dan lekuan bear dan bezela itz egiten asten diran. Iñork edukitzekotan oiek daukate indarra Gobernuari gauzak zuzenduerazteko.

Aita San Jose, kontura zaitetz
oraintxe larri gaudela,
Euskalerrian lantegi asko
kili-kolo dabilzala.
Oartu zaitetz gu bezelaxe
langille izan ziñala,
eta biziko baldin bagera
lana premizkoa dala.
Estu gera ta lagun zaiguzu,
arren, nola edo ala.

Langille danok zaindaria zu,
San Jose, nola zaitugun,
laguntz eskean gatozenez
egin bear zaigu lagun.
Estualdian beintzat oraindik
nola maitatzen zaitugun,
eta besterik ezean zuri
erregututzen dizugun.
Erruki zaitetz eguneroko
ogia izan dezagun.

Leen ere esan nuela uste det nola lanik gabe gelditu zan italiar batek praka motzak egin eta salduaz nolako dirutzak irabazi zituen. Prakatxo oiek suerte ona ekartzen zutela esaten omen zuen. Jendeak sinistu, eta batez ere señora aberatsak izugarrizko zaletasunez erosten zituzten moda berriko praka motx oiek.

Italiarraren irabaziak oraindik ere sendo jarraitzen dute. Sekula baiña salmenta ohea omen daukate erropatxo oiek, eta nola saltzaille ala erostunak zorutzen daude. Zoratzen ala zoratuta? Dana dala, orain zertarako suertea nai dan kolore artako prakatxoak egiten ditu: Nobioa aurkitzeko, beltzak. Senar-emazteak alkarrekin ondo konpontzeko, txuriak, eta orrela. Eta edozer gauzatan suerte ona izateko gorriak dirala onenak esaten du. Eta egiñala guztiak saltzen ditu. Garestia izan arren, eskuetatik kentzen dizkiote. Nik ez dakit italiar orrek berak zer koloretako kantzontzilloak edukiko dituen, baiña suertea ez dauka txarra. Leengo batean joan da seguru emakume aberats bat praka txiki oietakoak eroatera, eta suerte ona izateko gorriak erosi. Bertan jantzita eramatea zuela onena esan omen zion dendariak. Ala, bere prakatxo gorri dotore oiek jantzita dijoala, kalean alde batetik bestera pasatzerakoan ez du, ba, kotxe batek jo eta ipurdiz gora bota emakume ori. An gelditu omen zan gure señora kalearen erdian bere prakatxo gorriak bistan zituela. Kotxea kotxearen gainean omen zijoan, eta estuasun artan pentsamentu danak batera etortzen, eta –“akabo nere mundua, nereak egin du. Nere suerte ona leenbaitleen zerura joatea izango da”– pentsatu omen zuen. Baiña ala zegoela, kotxe bat bere aurrean seko gelditu omen zan, sekulako frenazoa emanda. Ura omen zan goma-irrintzia eta gurpil-soiñua. Txoferrak praka gorriak ikusi eta etzaio, ba, iruditu semaforoa gorri zegoela? Baita frenua ondoraiño sartuta kotxea gelditu ere. Deskuido santuan praka motx gorriak eduki ez balitu, kotxe guztiak gainetik pasatu eta an geldituko zan, tortilla egiñik. Orain señora ori omen da praka motx gorrien propagandistarik onena.

Galtza gorriak janzten zituzten
lenago mikeleteak.

Orain praka motx eta gorriak
nai omen ditu suerteak.

Gure señoarak pasatu arren
trantze estu ta tristeak,
etzion suerte txarra ekarri
praka gorriak janzteak.

Ez da egongo diru pixka bat
kastatua damututa,

prakatxo gorri-gorri oiekin
suertea erosi du-ta.

Ez du zerura joan bildurrik
autobusak zapalduta,
etxetik beti irtetzen bada
semaforoa piztuta.

1993ko apirillak 2

Europar sartu bear bagenduen, sartu giñan. Edo ari gera sartzzen. Gizonezkoak poliki moldatzen giñan orain arte, baiña emendik aurrera naiko lan izango degula uste det. Guri egoak mozteko asmoak omen dituzte Austrian. Etsi-etsian jarri bearrean gera gure kapeillania joan dala. Beeraka asi ez, beera erori gerala baizik.

Austrian familiaren Ministeritza bat dago. Esate baterako, kamiñoak egiteko Ministeritza izaten dan bezela, familie laguntzeko Ministeritza. Eta an agintzen duena ez da ordea ministroa, ministra (emakumea) baizik. Eta bera da erakunde orretarako jaun, etxekoandre eta jabe. Izan ere, ministra orrek bere lanak benetan artu ditu. Ez dio iñori barkatzen, eta kopeta beltza jartzekoan bera bakarrik bezelakoa da. Aren aginduak nai ta nai ez bete bearra dago an.

Garai batean norbait il edo lapurretaren bat egin zuena kartzelan sartzez gaiñera lana egitera beartzen zuten. Gerra garaian preso arrapatzen zituzten soldadu gizarajoak ere sari orixe izaten zuten. Eta alako soldaduei *trabajadoreak* esaten zitzairen. Ba, Austriako ministra andre orrek lege berri bat egin nai du, eta gizonezkoak etxean lana egitera beartu. Bide onetatik baldin bagoaz, laister gera gu ere *trabajadore* egiñik. Euskeraz *langille* esango zaio orri, baiña guri egin nai digutena *langille* baiño zerbait gogo-

rragoa da-eta, oraingoz beintzat *trabadore* esango diogu. Gutaz errukitu eta gauzak aldatzen badira, izena aldatuko diogu gero. Austriako emakume ministra ori zearo asarretuta dago gaiñera. Emakumeak etxeko lanak egiten eta umeak azten, egunean bost bat ordu egiten dituztela lanean esan du. Eta senarrak, ordubete edo orrela. Ordu ta erdi eskas, geienera jota ere. Geiago ez beintzat.

Orra Europan nolako aurrerapenak dauzkaten senarrak arrastoan sartzeko. Etxean zeiniek zenbat lan egiten duen eta dana dakite an. Nik ez dakidana da ministra orrek denbora ori erlojuarekin neurtu duen ala ango etxekoandreak esan diotena sinistu duen. Alkarrekin ondo etorriko dira, eta komeni zaiena egingo zuten. Kontua da, señora ministra ori asarretuta etxekoandreen alde jarri baldin bada, Austriako *trabajadoreak* ez daukatela burua makurtu eta isillik egon besterik. Gaitz ori ez al da itsaskorra izango, bestela gu errukarri.

Gizonezkoak nola genbiltzan
asko samar arrotuta,
ministra batek utzi nai ditu
gizon erdi biurtuta.
Egin ditzagun etxeko lanak
pazientzia artuta,
txarrean asten baldin bagera
dana galduko degu-ta.

Gu errukarri nola Europa
ez dagon gure fabore,
ministra batek utzi nai gaitu
ez galtza ta ez umore.
Bai ote degu desgrazi ori
jasotzeko lain adore?
Lantegian besteren mende ta
etxean *trabajadore*.

1993ko apirillak 9

Ez nuke egin nai santu paperik, baiña Ostiral Santu dan ezkerero, gogoratzea ez da gaizki etorriko, bear bada. Segurarrak badakite Ostiral Santu egun aundia dala. Orregatik prestatzen dira arreata guztiz alde z aurretik asita. Garai batean inguruko errietatik kamiñoak betean joaten zan jendea Segurara, eta oiñez, peniten-

tzi egiñez. Gero sermoia entzun, prozesioan ibilli eta oiek egin bearra zegoen, izpiderik jarriko ez bazan. Mendean bizi giñalako joaten omen giñan, eta ez besterik baiño obeak giñalako. Ezin esan orrela etzanik.

Ezkutuan egin arren argitara irtetzen ziran pekatuak baziran leenago ere, naiz eta sermoiak entzun edo prozesioan ibilli. Orain etzaio begiratzen jendearen esanari. Eta al duenak al duena egiten du. Lau-bost eguneko oporrak artuta or zear joan, eta zeñi zer ajola zaio? Baiña orain ere gertatzen dira ustekabeak, eta izaten dira zepoan eroritakoak. Askatasuna ez da beti arrosa kolorekoa izaten. Leen gutxiegi eta orain geiegi, ondo bizitzeko neurria erdibidean dagoela ematen du. Leenago mende samarrear bizi giñan, bai. Gogo txarrez entzundako sermoi luzeak baiño asperetzeko denborarik ematen ez duten itzaldi motzak obe izango ziran, orratik. Askatasunarekin gauzak aldatu diran bezela, elizako kontuetan zabartu egin gera dexente. Beti obeto naian, mundu obe baten billa, baiña arazorik etzaigu falta, ala ere. Leenago, okerrera joateko oitura duten ardiak bezela eramaten gintuzten artaldera. Orain, gezurra badirudi ere, askatasunak berak nai duen tokira eramaten gaitu, astoa sokatik bezela.

Polonian Jaungoiko eta erlijio kontuak debekatuta egon ziran. Orain, ango umetxoak gosaldu gabe joaten omen dira eskolara, zer janik ez daukatela-eta. Ori ote da ondo bizitzea? Gu elizara joatera beartzen gintuzten, baiña naiko talo eta esnea janda joaten giñan eskolara. Elizara joateak ez du beti kalte egingo. Ostiral Santu egunean nola bizitzea komeni zaigun pixka bat pentsatzeak ere ez du kalterik, seguru asko.

Kristautasunean bat
baldin bazan azi,
eta kristau izanez
nai baluke bizi,

Alkartasuna eta
beste zenbait izen
kristau bidetik asko
aldendu ditezen.

zergatik bear zaio
ori galerazi?
Erlijioak ez du
gaur egiten grazi.
Baiña orrekin ez da
asko irabazi.

Baiña gu lengo bide
jatorretik goazen,
kristau bezela beti
jokatuaz zuzen.
Eta onak izaten
saiatu gaitezen.

1993ko apirillak 16

Leengo batean kategoriko gizon batekin topo egin nuen. Aspaldian alkar ikusi gabe geunden, eta sekulako itzaspertua egin genduen. Eta ez nolanaikoa. Oso zientifiko oietakoa, alegia. Jakintsua da lagun ori. Eta gauza asko erakutsi zizkidan. Onelako eta alako gaitz nundik eta zergatik etortzen diran ere badaki. Minbizia nundik datorren etzuela jakingo orratik, esan nion. Eta nundik datorren ez omen daki, baiña zergatik ugaltzen ari dan bai.

Garai bateko aldean jende asko garbitzen du orain minbi-ziak. Eta orren errua baserritarrak ere bai omen daukate, pixka bat beintzat. Ez genduen orixe besterik bear. Minbizia ugaltzen ari dala, eta baserritarren kulpaz, alazankoa! Jaun orrek esan zidanez, gu bizi geran mundu onen buelta guztian laiñoaren antzeko lurriñaren moduko bat omen dago. Gas bat, alegia. Eta gas orri ozono esaten zaio. Ez da emendik ikusten, baiña laiñoak baiño askoz goragotik, an dago, eguzkia eta gure artean. Eta gas ori desegin-go balitz, gu danok erre eta kiskalita utziko gintuzke eguzkiak. Eta okerreana: orain, mundu osoa inguratzen duen lurrin edo laiño moduko gas orri zuloak egiten ari omen zaizkio, eta zulo oietatik pasatzen diran eguzki printzak sortzen dute minbizia. Eta baserritarrak orrekin zer ikusirik bai al zeukan galdetu nion nik, eta baietz erantzun zidan. Beiak atzeko leiotik botatzen duten aizeak, gas metanoa omen dauka, eta metano ori nola gora joaten dan, ori da lurraren bueltan dagoen ozonoa zulatzen ari dana. Gipuzkoan

55.000 ganadu buru daudela esan zidan. Eta bei bakoitzak egunero 400 litro metano botatzen ditu, eta oiek danak gora joatean, ozonoa zulatu edo zerbait egin bear. Gozoa zegoen, ba, gure jakintsu ori! Orrezaz gaiñera, baserritarrak botatako aizeak ere gora joaten dira, eta “ortik pentsatu zertan ari zeraten”, esaten zidan. Egia esan, nere onetik atera ninduen, eta ia berak ez al zuen uzkerrik botatzen bota nion. Bai, baiña bota bearrekoak kumuneko zulotik botatzen dituela erantzun zidan, eta ez guk bezela kanpo librean baizik.

Amaika txorizugarri badago mundu onetan, eta orrelakoak agintzen dute, gaiñera. Ori da okerrena. Baserritarrei laguntzeko jende ona dago. Beiak eta danok atzeko leioak itxi bearrean izango ote gera?

Ozono eta oiek
erretzen badira,
begiratu etxera
ta ez baserrira.

Naiz ta baserritarrak
aize asko tira,
beste batzuek ere
zulodunak dira.

Señoritoa pranko
ikusten da sarri,
uzkerra gorde eziñik
estu eta larri.

Iges egin ezker
oso lotsagarri,
baiña baserritarrei
iñork ez igarri.

1993ko apirillak 23

Ekolojistarik izaten zanik ez genekien garai batean. Eta orain, bere alderdi edo partidu politikoa moldatzeko asmotan omen dabiltzala jakin det. Landareak, abereak eta gizakiak, itz gutxitan esateko, izaki guztiak bakoitza bere bizitokiarekin duten zer ikusiaz arduratzen diranak dira dalako ekolojista oiek. Mendietan, ibaietan eta abar, geiegikeri asko egin da aspaldian, eta orrelakoak nork salatua bear da, zalantzarik gabe. Errekak

zikintzeak, basoak ondatzeak eta mendiak alperrik galtzeak bizitzeko giroa zapuzten du. Eta ori ezin dute ikusi. Badaukate zer egiña, baiña lanik onenak ere badituzte bere baldintzak. Guk ala ez uste izan arren, izaten dira ondo egindako lanak. Beste erremediorik etzegoelako egindako lanak ere bai. Zabarkeriz, nagikeriz eta naaskeriz egindako lanak izaten dira gure artean. Baita bearrezko ziran lanak gaizki artu, eta zabarkeria eta zikinkeria isillik gordetakoak ere. Eta ori da ondo ez dagoena. Zer dagoen ondo eta zer ez dagoen kontuak ondo atera bear dira, eta gero bear diran protestak egin. Orduan bai txaloak mereziko dituztela ekologista oiek.

Esate baterako, kamiñorik edo trenbiderik ezin liteke egin mendiak urratu gabe, eta bide onak bear-bearrekoak dira ala ere. Automobillen keak ingurugiroa zikintzen duela badakigu, baiña gaur ez degu iñork oiñez ibilli nai. Mendizale purrukatuak diran ekologistak ere, futbol partiduak ikustera edo dantzatokietara kotxean joaten dira. Eta ondo egiten dute, gaiñera. Kotxeak ibiltzeko kamiñoak bear badira, eta argindarra egiteko ikatza erre bear bada, ke puska bat gorabeera, datorrenari aurpegi eman bearra dago, azkenengo gelditu nai ez badegu. Aurrerapena ona da, baiña ez da musutruke ekartzen. Aurreratu nai badegu zerbaitekin ordaindu bearra dago emen, bestela ez dago aurrerapenik.

Ekologistak bere partidu politikoarentzat botoak nai badituzte, oraintxe datorkie aukera ederra. Laister asiko dira errietako festak, bere gaupasa eta guzti. Gure errietako kaleak nazkatzeko moduan zikintzeko griña desterratzen badute, orduan esango degu ekologistak bearrekoak ditugula. Bere alderdiarentzat botoak ere bilduko dituzte. Jende jatorrenak bai beintzat.

Gaur mendi asko ikusten dira
txit egoera txarrean,
batzuek gizalegea utzi
dutelako bazterrean.

Pena da baiña orrelakoak
daude orain indarrean.
Obe luteke baldin balebiltz
lau ankan eta larrean.

Askok esaten duten bezela
festak ikusi ta gero;
narraskeri ta zikinkeriak
ez gauza onik espero.

Gaitz oni aurre ematekotan
korajetsu eta bero,
ekolojistak egingo dute
iñork egite ezkeru.

1993ko apirillak 30

Gauza guztiak bere neurria dute, eta neurritik kanpoko ezerk ez du onik egiten. Eta gauzak duten baiño garrantzi geiago emateak, sinistu bear dan baiño geiago sinisteak, zenbait uskeritan pekatua ikusteak eta orrelakoak alperrikako bildurra eta zoritxarra besterik ez dute ekartzen. Erlijioa bearrezkotzat jotzen da gizonarentzat. Baiña erlijioa bera ere dituen neurrietatik ateratzen bada, sinistu bearreko ez diran esanak sinistuerazten baditu, eta arrazoiaren kontra bizitzeko moduan artzen bada, ona izatetik ez izatera aldatu liteke. Sinismena ona izango da, baiña siniskeria ez. Orretarako erlijioaren berri eman bear dutenak, erlijioa dan bezela erakutsi bear dute. Ezer kendu gabe eta berea ez da ezer erantsi gabe.

Inglateran, 26 urteko emakume bat aurra izan ondoren il da. Zergatik? Ba odola sartzea nai ez eta odolustu dalako. Jehovaren laguna edo dalako talde orretakoa izan bear zuen. Eta bere erlijioak iñoren odola artzea debekatu egiten, eta iltzea naiago izan du lege ori autsi baiño. Aren senarra ere iritzi berekoa omen da. Ama gazte orrek fede onez egingo zuen egin zuena, eta zerura joango zan. Nik ala uste beintzat. Baiña emen utzi dituen aurtxoa eta senararentzat inpernurik asko utziko zuen, gajoak. Amarik gabeko aurra eta ura azi bear duen aita nola izango dira, ba, zorientsu orain mundu onetan? Erlijioa bearrekoa izango da, baiña egiazko erlijioak ezin dezake pertsonari komeni etzaion gauzarik eskatu. Eta norbera zerura joateagatik bere umetxoa eta senarra bakarrik uztea ondo al dago? Beste erremediorik ez dagoenean orrela bearko du, baiña amaren bizia salbatu ditekeenean,

ezetz esango nuke nik. Iltzera dijoanari edozeiñen odola sartuta bizirik ateratzea ez da pekatu izango, orratik! Eta odola sartzea debekatzen duen Jainkoa ona izango al litzake? Uskeri batengatik iñor illerazten duen Jainkoa errukiorra izango al litzake? Ni ez nago Jehovaharen lagunen aurka. Ez didate ezer txarrik egin. Baiña lagun urkoa maitatzeko agintzen duen Jainko batek aurtxo jaio berri bati ama orrela kentzeak arritzen naiz ordea.

Oraingo erlijio berri auek ez dakit zenbateraiñoko bentajak dauzkaten guretzat, eta nik beintzat leengo zarrarekin jarraituko det, zer gertatu ere. Danok emen egon nai izaten degu, eta al degun artean daukagunari eustea izango da onena. Ni orretan nago.

Arriskutik igesi

bizitza guztia.

Zein da bizitza maite

ez duen piztia?

Naiz munduko bizitza

ez izan eztia,

zerura joateko

badago astia.

Sufrikizunik asko

bada emen noiznai,

baiña iñork ez degu

mundutik joan nai.

Izan gaitezen danok

bizitzaren artzai,

eta iñoiz ez gure

buruaren etsai.

1993ko maiatzak 7

Urteko illabeterik politena maiatza izango da Euskalerrirako. Orrilla ere esan izan zitzaion, eta loreilla ere bai. Izen auek zerbait esan nai zuten. Eta egoki askoak ziran, baiña orain ez ditugu erabiltzen. Eta eguraldi ona naiz txarra, maiatza beti maiatz. Erakarren berezi bat berekin duen udaberri garaia. Leengo maiatzak oraingoak baiña atsegiñagoak zirala egoten naiz pentsatzen. Orduan orain ainbeste eskatzen ez genduelako, edo gutxiagorekin konformatzen giñalako izango da, bearbada. Gaurko gaztediari ez diot leengoari aiña maiatz-egarri ikusten nik.

Maiatzeko loreak esaten zitzaion elizkizuna egiten zan illunabarrean elizan. Eta aitzaki polita zan, batez ere neska gaztetxo-entzat, apain-apain jantzita kalera joateko. Orduko neskatxak etzuten pentsatzen Amabirjiñari otoitzezko loreak eskeiñi gabe bizi zitekeenik. Eta elizako kantak ere maitasun ikutu berezia izaten zuten. Ain ziran kanta alaiak eta gozoak! Giro atsegin eta gustagarria sortuerazten zuten kantak ziran. Mutillak ere joan oi ziran loreetara. Neskatxak aiña ez, baiña elizatik irtetzeko ordua ondo zaintzen zuten, batez ere begiz jota zeukaten neskatxen bat elizan baldin bazan. Ilusioz ere bizitzen omen da, eta gaztediak ilusio aundiz artzen zuen maiatza. Bear dan bezela.

Neska bat, edo mutil bat biotzean sartuta daukan gaztea isilpean maite duena noiz ikusiko bizitzen da. Eta alkarren berri jakiten dijoazen bezela, ametsak alkarri azaltzeko ere une ederrak izaten dira udaberriko illunabarretan. Makiña bat amets loratzen zan garai batean maiatzeko illuntze paketsuetan. Kaletik baserri-rako bideak belarririk izan balute, makiña bat kontu potxolo entzungo zuten. Zenbat gazte izan ote dira Euskalerrian illargia begira zutela bata besteari alkarrekin bizitzeko itz emanak?

Beno, leengo kontuak dira aukerak. Orrela esango du norbaitek. Eta orain ez dago maiatza etorri zai egon bearrik. Orrelaxe da, baiña kotxean jo ta tira dabiltzan gazteak ez dakite alkarri esku emanda lore usaia nabaituz illunabarrean etxera joatea zer dan. Asko jakingo dute, baiña ez dakite garai bateko une bakan eta gozo batzuek nolako grazia zuten. Alperrik ibilliko dira.

Ez badezute kezka bizi nai izan zaitezte garbiak, bildurra ere berekin baitu lasaitasun geiegiak. Lizunkeria berriz txarra da eta gorrotatu biak, garbi jokatu ezak ez ditzan illundu zuen begiak.

Zein gaztek ez du maite izaten biotzez bat edo beste? Eta ez badu erantzunikan bizi izaten da triste. Gazte maiteok, alkarri garbi itz egin ezaiozute, ta biotz garbiz bata bestea maitatzen saia zaitezte.

Nekazariak eta ganaduzaleak, artzaiak ere tartean dirala, naiko keja dira bolara onetan. Eta arrazoirik asko badute. Kotta edo aitzaki, izaten dira alde batera uztea komeni ez dan oitura eta usadioak. Eta orrelakoei eustea eginbear bat bezela artu bear genduke. Bestela, akabo. Lana bai eta atsegiñik ez, oso motza da. Biar zer egun dan konturatuta egongo dira baserritarrak, nik esan bearrrik gabe ere. San Isidro eguna ospatzeko oiturak indar pixka bat badauka ere, oitura ori oraindik geiago indartzea komeni da, eta urtean egun bat eurentzat artzeari ez al diote utziko. Lana egiteko egun asko ematen ditu urteak, eta batean kale egin arren, urtearen azkenean San Silbestre. Baserritarrak badakite orrenbeste.

Aitzaki batzuk gorabeera, baserritarrak leenago baiño obetoxeago biziko dira orratik orain. Itxurazko bizitza bat merezi duenik bada, baserritarrak dira. Nik ala uste det beintzat. Baiña ez baserritarrieko nagusiak bakarrik. Exekoandreak ere bai. San Isidro egunean, aitzakirik izan ez dedin, lanarekin aaztu egin bear da pixka bat. Bei eta zekorrei eguerdiko pentsua besteetan baiño geixeago eman, artu etxekoandrea kotxean, eta bazkaltzera. Lagunak ere an izango dira, eta segi lasai-lasai. Gosaria prantatzea naikoa du etxekoandreak. Ori egin ezkeru, eta txukun samar azaldu dedin senarrari jaietako erropak eskura eman, bazkaria irabazita dauka. Ortik aurrerako denbora bere burua apaintzeko bear du. Urtean bein izaten da San Isidro, eta lagunei inbiri pixka bat emateko moduan arraztu eta apainduta eraman bear da etxekoandrea bazkaltzera. Gero, andreak andreen ondoan bazkaldu nai izaten dute. Artara kontuak obeto jorratzen baitituzte.

Gizonak ere lagunartean naiko kontu-jario izaten dute, eta batzutan badakite akordatzerako musu punttak gorrituta sasoiari jartzen ere. Orregatik esaten det nik, nagusiak eta etxekoandreak alkarren ondoan bazkaltzea ez ote duten obe izango. Etxekoandreak bere aginpide puntuari ez dezaiola utzi, eta nagusiak egin

ditzala zintzo aingeru goardakoaren esanak. Orrela biok ibilliko dira ondo. Nagusiak jakin bear du etxekoandreak sarri-sarri bear duela bestek maia serbituta bazkaltzeko edo afaltzeko aukera. Eta ez du aaztu bear senarra laztantxo bat noiz artuko zai egoten dala.

San Isidrotan baserritarren
lanik garrantzitsuena:

emazteari ematea da
egun bat al dan onena.

Etxeko jaunak, arren, ez aztu
zor ori daukazutena.

Urtean bein au ez egitea
izango litzake pena.

Etxekoandreak, besteak baiño
gutxiago etzerate.

Zeraten bezin eder azaldu,
ala komeni zaizute.

Exeko jaunak aldamenean
pozik artuko zaituzte.

Eta onela arekikoa
errez egingo dezute.

1993ko maiatzak 21

Oiturak, modak eta gaiñontzekoak, atzera eta aurrera laister egiten dute orain. Eta aldatzea pentsatzen dutenean azkar aldatzen dira, zaarrak izan naiz berriak izan. Nik ez dakit zenbat denbora izango da gona motxak modan daudela. Urte batzuk bai. Telebisioak asko lagundu dio moda orri. Tresna orri begira jarri ezkerro neurritan iristen ez dan gona asko ikusten da. Eta badirudi beti udan gaudela. Jende guztia igerirako erropak jantzita dabillega. Moda asmatzaillek badakite beti gauza berdiñak ikusten aspertu egiten gerala. Gauza berdiñak edo erropa berdiñekin janzten beintzat bai, eta zerbaiten usaia artzen dutenean berealaxe ateratzen dituzte moda berriak.

Datorren udazkenerako ere moda berria bidean omen da. Eta gona luzeak izango omen dira nagusi. Zenbait aitona presko ez dago batere gustora. Ia begiak irtenean gonamotxei begira egoten diran oiek triste samar ikusten ditut onen berri jakin zuten ezkerro. Motxetik luzerako aldaketa onek ez die grazirik egin. Eta neroni ere zerbait jakingo nukeenean egona naiz. Gona kontuan

asko dakien lagun bat badaukat, eta ari eskatu dizkiot argibideak. Izan ere, nere lagun ori onelako berriak diranean antena zuzen jarrita egoten da, eta zer datorren jakitzean dago. Berak esan didanez, gona luzearen moda bidean da, baiña gona oiek ideki aundidunak izango omen dira. Eta zirriztutik begiratu eta etxe barrua ikusten dan bezela, ideki oietatik begiratu eta pantorrillak ondo ikusiko omen dira. Orain arte, politak ala itsusiak ziran ikusteko begiratu bat disimuluan egitea naikoa izaten omen zuan, bere burua geiegi nabarmendu gabe. Eta emendik aurrera geixeago edo obeto begiratu bearrean izango dala esan zidan. Baiña leio guztiak ez dira itxi beintzat. Nola aitonduek ala gazteak ere zeri begiratu izango dutela berriz ere, eta ez dagoela zergatik triste jarririk uste du nere gona-maixuak. Eta arrazoi daukala esango nuke. Zango politak daukatenak nola edo ala erakusteko modua egin naiko dute berriz ere. Ondo egiña gaitzera. Edertasuna zertarako da izan ere illunpean gordeta edukitzekotan? Moda berriko gona luzeen idekieratik ikusiko danagatik ez du goiak bea joko, eta begira daudenen begiak apurtxo bat pozten badira, ura geiago.

Aitona zarrak ere
orra jo ta tira,
disimulo guztian
zangoei begira.
Oraingoan akabo
oien ikusmira.
Noizbait juizioan
sartuko al dira.

Zenbat sufritzen duten
nola adierazi?
Au moda xelebrea:
ez geza, ez gazi.
Onelakoak nola
egingo du grazi?
Moda onekin ez degu
asko irabazi.

1993ko maiatzak 28

Santa Teresak esan omen zuen, norbaitek gaitz edo kalte egiten zigunean, eta pazientzitik irtetzeko arriskuan geundenean, ez

ibiltzeko asarretu eta beti gauza bat buruan bueltaka degula. Orrelakoan sukaldera joan eta jateko zerbait prantatzea dala onena. Neronek ere ez nuke esango ori erremedio txarra danik. Alde ederra dago, izan ere, gorrotoaren suari egurra ematen jardun edo sukaldeko sua piztu eta jateko zerbait goxoa prestatu. Gure etsaia zartagiarekin buruan jotzeko amorratzen egon, edo kutizia betetzeko ze jaki maneatuko degun pentsatzen denbora pasatu. Ez dira berdiñak izango, ez. Nik zartagia esan det, baiña kaxuelan ere prestatzen dira jaki goxoak. Orretarako zartagiarekin baiño denbora geiago bear da, eta or asarreari eta jenio txarrari denbora geia goz alde egiteko modua egingo degu.

Santa Teresak bazekien umore txarrean pasatutako uneak denbora galdua dirala. Orra beti erreztatzen jardun gabe egiteko moduko erremedio egokia nola eman zigun. Gure bizia laburra da nolanai alperrik galtzeko. Une onak ondo aprobeztatuta ere naiko lan izaten da taju antzean bizitzen. Santuen kontuak bazterrean utzita dauzkagu, baiña ez dakit onekin asko irabazi degun. Ondo bizitzeko kontseju onak ematen zekiten santu bizkorak baziran gero.

Italian ere monjatxo bat azaldu dala uste det Santa Teresaren antzekoa. Ikusten diran aiña ezkontza-auste edo dibortzio ikusita, zearo kezkatuta omen dago. Ondo bizi besterik ez daukaten ainbeste gizon eta emakume gazte bata bestearekin okertuta ikustekak izugarrizko pena ematen omen dio. Monjatxo ori ez da beti lo egoten nunbait, eta badaki gure argaltasunen berri, eta ezkontzera dijoazenei eta ezkonberriei sukaldaritzan erakusten asi da. Telebisioan Argiñanok egiten duen bezelaxe egiten omen du.

Sermoiak entzutera iñor gutxi joaten dala antzemanda egongo da, seguru asko. Eta biurrituta dabiltzanei sabelak betetzea pentsatuko zuen. Umore ona ondo betetako sabelean jaiotzen dala esan oi da. Anima ondo gordetzeko gorputza ondo zaintzea kome ni dala ere bai. Italiako monjatxoak asmatu izango du kontseju onak noiz eta nola eman.

Santa Teresa gure onean
saiatu zan egiñala.
Ark bazekian goseak oso
jenio txarra duala.
Berriketarik gabeko santa,
etzuen buru makala...
Nork esango du oso kontseju
ona eman etzuala?

Tenple onean jartzeko ez da
botikarik saltzen dendan.
Orregatikan petralkeria
erre bear degu sutan.
Nik itz gutxitan esango nuke
garbi zer egin bear dan:
santuei sarri errezatu ta
al dan guztian ondo jan.

1993ko ekaiñak 4

Ekaiña edo garagarrilla etorri zaigu, uda eskutik artuta. Eta eguzkia artzea gustatzen zaienak pozik egongo dira. Egun argia maite dutenak ere bai. Aurki gera urteko egunik luzeenetan. Barru kolore ura kendu eta pixka bat morenotzeko irrikitan egongo da bat baiño geiago. Eta ez neska gazteak bakarrik. Iñoren inbiririk ez daukaten sasoiko etxeoandre dotore eta jator asko ere bai. Eta, zergatik ez? Itxura onean eta osasuntsu daudenak ikusi utsarekin poza ematen dute. Eguzkia ederra izango da, baiña bai alakoak ere. Baiña ez uste neska eta andre gazteak bakarrik diranik eguzkizale. San Antoniori andregaiia eskatzeko modukoak ere ikusten dira eguzkia artzen, eta Benidormera joaten diranak ere badira. Ea eguzkitan beztuta pixka bat itxuratu eta beretzat moduko gona motxen batekin uztartzeko suertea izaten duten.

Eguzkia artu zale diranentzat asmakizun edo inbentu berria atera dute Ipar Amerikan: igeri-erropak egiteko tela berezia. Esaten dutenez, tela orri eguzkia aldenik alden pasatzen zaio. Eta orrela egindako erropatxoa jantzita eguzkiak beztu egiten du. Baiña katalejuekin begiratuta ere gorputza ez omen da ikusten. Ikusten danez, eguzkizaleak ez daukate orain kolko ingurua eta gaiñontzekoak bistan dituztela eguzkitan daudenean lotsa plantak egin bearrik. Tela berezi orrekin egindako erropatxoa jantzi eta ondartzat eskiñan zer ikusiko dauden begiluzeak nai dutena esan dezatela.

Ala ere ez det uste danak konforme daudenik. Danak ez dira ondartzan morenotzen egoten ispilluari poza emateko. Ondartzara joan eta “ni ere emen nago, eta ez ain aldrebesa” pentsatzeak ere bai du bere poza. Eta begira daudenei inbiria eman ezker, bi aldiz obe. Orrelakoak ez omen zeukaten inbentu berriaren bearririk. Arrazoi dute gaiñera. Mundu onetan danetakoak bear dira. Oso atsegiñak izaten dira inguruan gatz pixka bat daukaten pertsona alaiak. Eta orrelakoak bear ditugu, ez beti santu itxura egiñez dabiltzan kopetillun izuti oiek. Ondo zaindu eta apaindutako gorputz ederrean anima argia eta animo bizia eduki litezke, eta ori da bear dana. Lagunartea alaitzen duten pertsona atsegin eta sanoak aiña balio duenik ez dago ezer mundu onetan.

Edertasuna maite zuenak
laguntasuna bear zun,
eta sekula etzaio eman
gaur ainbeste erreztasun.
Orain ez dauka sortu bildurrik
zenbait pentsamentu lizun,
eta gaiñera ez du izango
len ainbeste lotsakizun.

Norbait balego berriz okelaz
bere gustora jantzita,
ondartzan artu lezake berak
nai duen aiña bisita.
Eta etorri, bada, trajea
armarioan utzita,
danak ez dute pena artuko,
egon dedilla etsita.

1993ko ekaiñak 11

Garai batean Txinako umetxoei bialtzeko dirua biltzen ibiltzen giñan. Dotriñarrik etzekitela eta pixka bat lagundu nai, ba. Orain txinarrak dotriña ez ezik latiña ere ikasi dutela uste det. Ango agintariak ez omen dute nai jende motel eta mozolorik. Itz batean esateko, ez dute tontorik nai, eta neurriak artzen astea pentsatu dute. An ere motel edo geldo samarrak geiago daude buru argiko listoak baiño. Au batetik, eta bestetik, malizi gutxiko guraso sano-sanoak aur geiago egiten omen dute listoak baiño. Ez dakit au Txinako kontua bakarrik dan, baiña an orrela gertatzen da beintzat.

Txinar koskor oiek ainbeste ugaldtu eta ezin dira kabitu iñun. Eta orain, ezkonduak aur bat baiño geiago mundura ekartzea debekatuta daukate. Gauzak aldatu zaizkie bapo. Karrera ikaste-ko-eta balio izan zuten buru argikoak, edo esan oi degun bezela *listoak*, bi ume egiteko eskubidea izango dute emendik aurrera. Baiña, Txinako agintariak arraza ondu nai dute iñola al bada, eta badirudi orretarako bidea aurkitu dutela. Beartsu, ezjakin, arlote eta orrelakoak gutxitu eta listoei ateak zabaldu, alegia, txino txiki bizkor-bizkorak eta ugari mundura ekartzeko. Ikusi egin bearko da listoak nola erantzuten duten. Ortxe dago koska.

Txinarren asmoak ez dirala ain txarrak ere esan ditekete. Baiña jokaera onek bere kakoa ere izan lezake gero. Emendik urte gutxi-
ra ez da tontorik izango Txinan. Danak listoak izango dira. Arraza ugaria da gaiñera, eta aurak egiteko duten erreztasuna ikusirik, badirudi Txina jende bizkorrez gaiñezka jarriko dala. Listoak ton-
toen bizkarretik edo tontoen kontura jaten dutela egi zaarra da, eta ez al gera txinoak mantendu bearrean izango. Ala ere, uste omen dute guraso bizkorak seme-alaba bizkor eta argiak sortuko dituz-
tela eta orrelakoak bear dirala mundua konpontzeko.

Ea, ba, emengo listoak ere, besteek egingo dutenari begira egon gabe, beretzat lain egiteko moduko ondorengoak ekartzen dituzten, motel samarrak geranok ere bizi bear degu-eta.

Motela dago beti
bizkorraren mende,
jakiñean gaude.
Txinan onela dago
makiña bat jende.
An komunistak ere
daude oso berde.
Desberdintasun ori
ezin dute gorde.
Emen on aurki danak
listoentzat daude.

Pobrearentzat bada
zeiñek agindua
ta nor mantendua.
Asko daukanarentzat
laguntza sendua,
naiz guria eduki
kokote ondua.
Beti listoentzako
izan da mundua.
Uztarria gaiñetik
ezin astindua.

Garagarrillaren erdian pasatu gera, eta aurtengo urtearen erdia bota izango degu, gutxi gorabeera. Baiña joandako egunei utzi pakean. Urtea ez da erdi utsik ikusi bear. Oraindik gelditzen dan beste erdiari begiratu dezaiogun. Orri zumua ondo ateratzen saiatu gaitezen, eta orrela urtea erdi-betea ikusiko degu.

Beste iru egun barru udan sartuko gera. Ez da, ba, garai txarra bizitzari egun on batzuk kentzeko. Nunai festak, mendira joateko egun luzeak, ondartzara joateko garaia badatorkigu. Zer geiago bear degu? Lanik ezak moztuko dizkigu egoak eta orixe da txarra. Bolara au ere pasatuko al da. Uda etortzean zaiñaunditu edo barizak dauzkatena pixka bat kezkatuta ibiltzen dira. Mitxeliñak dauzkatena ere bai. Izan ere, uda beti uda izaten da, eta zangoetan koskor batzuk edo gorputzean koipe pixka bat gorabeera, ezin egongo gera etxe zuloan sartuta. Urte sasoi onek ondo bizitzeko ematen dituen aukerak ez dira alperrik galdu bear, iñola ere.

Aitzaki bat edo beste kontatuko dute, baiña baserritarrak ere ezin esango dute orratik suerte pixka bat ez daukatena. Zaiñaunditu edo koipe eta orrelakoak denbora askoan geldi egotetik etortzen omen dira. Eta baserrian geldi egoteko astirik ez da izaten. Orregatik, esandako gaitz oietatik ondoena baserritarrak libratuko dira, seguru asko. Aiek ere zerbait bear zuten, egia esateko. Baserritarrak ez daukate zaiñaunditurik izan ez dezaten eskailleratan gora eta beera ibilli bearrik. Takoi altuekin ere nola ez diran ibiltzen, eta paseo luzeak emateko medikuak agindu bearrik nola ez daukaten, noizbeinka dutxa otza artu goizetan eta orra zaiñaunditu edo barizetatik alde egiteko modua. Eguzki kolorea artzeko naiko aukera ere badaukate. Eta mitxeliñak urtzeko naiko izardia ateratzeko ere bai.

Ipar Amerikan oso kezkatu daude umeak gutxi ibiltzen diralako. Larogei eta geiago pisu dauzkatena etxeetan bizi diran

umeak, eta telbisioaren aurrean denbora asko pasatzen dutenak, ez dira ondo azten. Loditu bai, baiña luzatu ez. Orregatik esaten det nik, indartsu azi nai duten mutillentzat baserrian lan pixka bat egitea ona dala. Gorputza lirain gorde nai duten neskatxak amari baserriko lanetan laguntzea bezelakorik ez dute. Musu gorriak eta kolore sanoak nai dituenak, belar lanetan saio batzuk egitea ona du. Ez dago alako pastillarik, kolorerik eta gaiñontzekorik.

Mutil gazteak egon ditezen
indartsu ta sasoiean,
baserrietan izaten dira
bitaminak nai aiñean.
Belar artean bildu litezke
errez uda garaiean,
dotore asko paseatuaz
tratorearen gaiñean.

Geldi egonak sortzen baditu
bariz eta aitzakiak,
baserri-lanak dira oientzat
txit botika egokiak.
Neskatxak asko edertzen ditu
goizean garaiz jaikiak,
brillu aparta ematen baitu
goiz parteko eguzkiak.

1993ko ekaiñak 25

Aurten ere etorri zaizkigu Sanjuanak. Gazteentzako etziran nai baiño leen iritsiko, baiña gazteak ez geranontzat naiko azkar etorri dira. Izan ditezela ongi etorriak. San Juan atzo goizean zala esango didate. Egia da. Santu geiago ere badaude ordea zeruan. Gaur San Gillermo da, eta atzo San Juani errezatu etzionak gaur San Gillermori errezatzea asko du. Nere erruz ez dedilla iñor gel-ditu errezagu gabe.

Zenbait auzo eta baillada kontatu gabe, Gipuzkoako amar erritan beintzat izaten dira festak San Juanetan. Badago nun dantzan egiña, nai izan ezkeror. Eta gaupasak egiteko ere izango da aukerakerik asko. Gazteak gazte, eta garaian garaiko kontuak. Segi aurrera, baiña damutzeko moduko ondoren txarrik izango ez duten moduan ibilli ditezela danak.

Segurarrak ere ariko dira urteko jaiak ospatzen. Dantzari, bertsolari, pelota partidu eta abar, euskal usai gozoko festa ederak izan oi dira erri onetan. Eta erdi segurarra naizenez, garai batean an izaten nintzan ni ere San Juanetan. Ez uste izan aaztuta nagoenik. Amerikako sikologo jakintsu batek esan duenez, urteetan aurrera goazen bezela gazte denborako kontuak etortzen zaizkigu gogora. Gaztetan nola txoriburu samarrak izaten geran, leenago egindako biurrikeri aiek ikaragarrizko pekatuak zirala iruditzen zaigu. Baiña, orrenbesteraño ote da gero? Zer egingo genduen, ba, guk gaztetan, esaten zigutena zintzo-zintzo egiten bestetan ez genekien-eta?

Leenagoko kontuak gogoratzea ondo dago, alaiak diranean. Baiña beste alderakoak badira, aaztuta obe. Aurtzaroa, aundi egiten giñanerako ikasten eta gertatzen pasatu genduen, eta sasoiari gaudenean zaartzen geranerako prestatu bear. Beti bada emen zerbait egin bearra. Baiña orretarako ez daukagu Sanjuanak eta orrelakoak bazterrera bota bearrik. Erriko jaietan egun onak ere izaten dira. Gazteek egin dezatela nai dutena. Guk ere zerbait asma-tuko degu, orretara jartzen bagera. Bere buruaren jabe danak eta kutizi bat edo beste betetzen dakienak zaartzaro ona izaten omen du. Orri eutsi bear diogu irmo, eta gelditzen zaizkigun eskubide apurrak ez iñori erregalatu. Ea sikiatren esanak egiñez, burutik arindu gabe moldatzen geran.

Zenbait jakintsuk diotena nik ezin sinistu iñola.

Esan digute zaartzen ere jakin bearra dagola.

Ez ote degu izango ori garai txarreko eskola?

Zerekin esan dezatela-ta asmatuko degu nola.

Bizi guztian ezin liteke

egon gerora begira, eta zartzean iñortxori ez egin mingaiñetik tira.

Eman dituzten kontseju oiek txit onak izango dira, baiña obe zan erdiak beintzat dirutan izan balira.

1993ko uztaillak 2

Uztailla emen degu. Garai ederra uzta edo zer jasoa daukarenarentzat. Uztarik ez daukagunontzat ere ez da ain garai txarra, besterik ezpada illunabarrean kontuak esanez preskura artzeko. Opor-usaia zabaltzen asita dago. Mendia maite dutenak eta ondartzazaleak diranak pozik egongo dira. Ea, ba, udaldi itxurazko bat izaten degun. Bakoitzak bere gustoa egiñez egun batzuk ondo igarotzeak balio du. Orretarako erreztasunik asko badagoe-la esan diteke. Oraingo agintariak ez dira garai batekoak bezin zorrotzak, eta geuk batak bestea estutzen ez badegu, ez daukagu lasai bizi besterik. Sermoilariak ere ez gaituzte estutzen orain, eta ostiral arratsaldetik asi eta astelen goizaldera arte astirik asko badaukagu nai deguna egiteko.

Orain 500 urte inguru Valentzian prozesio asko egiten omen zan. Zaldiekin ibiltzen ziran kotxeak izaten ziran orduan, eta kotxe aiek prozesioari traba egiten, ba. Ori zala-eta, Artzapezpikuak (Artzobispoak) prozesio denboran kontxeekin zebiltzanak eskomulgatzea erabaki zuen. Artzobispo aren aginpidea eta zorrotzatsuna etziran berriketakoak. Prozesioari traba egiten ziona eskomulguatu. Eliza katolikotik kanpora bota, alegia. Eta gero, eskomulguatuak etzeukan sakramentuak artzerik, eta pekatua kentzea nai baldin bazuen, barkazioa Aita Santuarengandik ekarri bear izaten zuen. Gure gazte denboran zirala apaiz gogorak, baiña leenago ere... Ura etzan gero eliza atarian pelotan ari giñalako pelota kentzea bezela. Inpernura joango ez bazan, barkazioa Erromatik ekarri bear. Orrelaxe ziran leengo kontuak, eta zer esango degu?

Garaiak aldatu dira eta gizonak ere bai. Leengo sermoilari aiek zorrotzegiak zirala esaten genduen. Bateko dantzan egitea eta besteko berandu etxeratzea, pulpilotako eltxar-autsak astintzen zituzten. Baiña ez al zeukaten arrazoi pixka bat? Orain ez digu iñork egin degunaren konturik eskatzen. Pelikula berdeak ikusi nai dituenak ez dauka Frantzira joan bearrik, orain 40 urte

bezela. Etxean ikusiko ditu nai badu. Baiña ez dakit, ba, oso ondo bizi ote geran. Nai duenak nai duena egiten duen onetan, desgrazirik asko gertatzen da bazterretan. Parranda egitea ondo egongo da, baiña ondoren txarrik izango ez dan moduan egin bear litza-ke, eta ez dakit, ba, ori egiten ikasi degun.

Ia kabitu ezin gera-ta
badegu naiko aitzaki.
Kotxearekin zer egin ere
ez degu jakingo aurki.
Nai baldin bada guztientzako
izan bear aiña toki,
ezten zorrotza duten itzaiak
ez dira egongo gaizki.

Lekurik ez ta ainbeste traba
datorkigu ingurura.
Munduan diran petralkeriak
igo zaizkigu burura.
Santu usteko gizonak dabiltz
deabruaren modura,
pekatu egin baiño len iñor
ez bidali inpernura.

1993ko uztaillak 9

Gure denboran asmatutako aurrerapenik aundienetako bat telebista izango da. Zenbat eta aurrerapen geiago, orduan eta obeto bizi bear degula esan ditekete. Ala bear luke gaiñera. Neurria artu ezkerro, aurrerapenak ez dute kalterik egiten. Telebistan gauza politak ikusten dira. Eta beti ari begira egon gabe, neurria artu bear, orixe da guztia. *Abigail* eta orrelako batzuk ikusita konformatu ezkerro, ez dago ezeren bildurrik..

Telebista geiegi ikusteko arriskua aurrak daukate. Amerikan eta beste zenbait lekutan orrekin kezkatuta daude, batez ere sendagilleak. Aurrak telebistari begira denbora geiegi ematen dutela. Lagunekin jostatu bear luteken denboran, egunean ia iru ordu pasatzen dituzte telebistari begira. Eta denbora orretan ikusi bear ez lituzken gauza asko ikusten du. Umeentzako eskeintzen diran saio bereziak, marrazki bizidunak eta abar ikustea ondo dago. Baiña orretarako gurasoak arduratu bear dute ordea, eta or ibil-

tzen gera nagi samar. Umeak ez dira geldi egoten, eta gurasoak jolaserako astirik ez berriz. Gogo aundirik ere ez beti umeei begira egoteko, eta ea telebistari begira dauden bitartean pakea ematen diguten. Aurrak ez du malizirik izaten, eta telebistan ikusten dutena dana ondo dagoela uste izaten dute. Ortik etortzen dira okerrak. Sendagilleak esaten dute, gauzak onela badijoaz, umeak ez dutela aurtzarorik izango aurki. Ez dutela ume denborarik izango. Eta orixe izango litzake umeak triste aztea.

Oraindik illabete asko ez dala Andaluziako erri txiki batean mutil koskor bat whisky geiegi edanda il zan. Telebisioan Oesteko pelikula bat ikusi berriak ziran, eta jolasean zebiltzala pelikula aren itxurak egiten asi ziran. Pelikulako bakeroa balitz bezela, whisky edan mutikoak, eta orratx jolasak nora joan ziran. Atsekabe galanta gurasoentzat, eta zoritxarra etxean. Neguan izango da telebista ikusteko ainbat asti, eta udan beintzat ondartzat edo mendia, alai samar bizitzen alegindu bear genduke. Eta aldan arte beintzat aurrak geurekin erabili. Ala ere berdin-berdin iges egingo digute kabitik, lumaz janzen diranean.

Orañaldian ainbeste gazte
oso etsita egonik,
esan liteke akoholik gabe
ez dutela zorionik.
Ez konturatzen bide txarretik
ez datorrela gauz onik.
Gaztetan gaizki oitu ezkerro
gero ez dago gizonik.

“Alkohola kaltegarri zaizu ta
arren ez asi edaten”
isildu gabe aritzen gera
gaztei ori esaten.
Guk nai bezela portatzen beti
ez da erreza izaten,
gaztediari ilusiorik
ez baidiogu ematen.

1993ko uztaillak 16

Maitasunak egundoko txorakeriak egiñerazten ditu. Maitasunak ez dakit, baiña amodioak beintzat bai. Gaztetan neska-

-mutillak sentitzen duten alkarrenganako maitasun berezi ari esaten omen zaio amodioa. Eta ori da onelako txorakeriak egiñerazten dituen. Baiña txorakeririk aundienak mutillak egiten dituzte. Ez det uste neskatxak ere ortik libratzen diranik. Gazte denbora ero samarra izan nunbait, baiña bai garai polita. Zeiñek arrapatu lezakeen berriz!

Argentinako neska gazte bat amodioaren poderioz burutik zearo arinduta omen zegoen, eta eroetxera eraman bear izan zuten. Bere senargai kuttuna ikusi gabe ezin zuen etsi ordea, eta zer egingo eta eroetxetik iges egin eta geldi zegoen tren batean sartu zan. Baita makinista konturatu baiño leen trena martxan jarri ere, eta or ziaak bere nobio maiteari muxu ematera.

Maitasunak dana dezakeela ere esan izan da, eta badira gauza guztien gaiñetik dirua maite dutenak. Ingalaterran bada kantari bat, Samantha deitzen diotena. Neuk ez det ezagutzen, baiña gazte bat baiño geiago izango dira nolakoa dan dakitenak. Amasei urte zituela azaldu omen zan leenbiziko aldiz, egutegi baten azalean larrugorrian. Eta gero kantatzeari eman zion. Eta amar urtean 800 milloi pezeta irabazi ditu. Orra zituenak erakustek nola fama eman zion. Orain ogeita zazpi urte dauzka. Eta sekula baiño ederragoa dagoela esan du, leenago bezelaxe eta amak eginda bezela.

Trenari martxa eman ziona erotuta egongo zan, baiña Samantha ere ez dakit, ba, ainbeste diru irabazita gero larrugorrian jartzeko burutik oso sano-sano ote dagoen. Askotan entzuten degu zenbait gizonezko emakumea pertsona bezela ez, gauza bezela baizik tratatzen duela. Izan ere, pertsonaren balioa asko jaitsi da, eta ain ajolakabe biurtu eta edozer gauza egiten degu. Eta zenbait emakumek ez al du dirua maiteago bere burua baiño? Zenbaitek ez al du bere burua gauza bezela tratatzen, diruaren truke bere gorputza edozer gauza balitz bezela erakutsiz?

Berriketaldi oni sermoi kutsurik ez nioke eman nai, baiña erru guztia ez bota gizonezkoei, begi luze biurtzen bagera. Etxera

ere begiratu pixka bat. Politak zeratela eta ez gizonezkoen trenan martxan jarri.

Samantha, pikardian
ikasía zaude,
gorputza erakusten
diruaren truke.
Edertasuna ezin
ezkutuan gorde...
Munduan orrelako
geitxo ez al daude?

Konturaturik oso
polita zerala,
gizonak aztoratzen
zabiltz egiñala.
Dezuna erakusten
nola edo ala.
Gero esango dezu
gaiztoak gerala.

1993ko uztaillak 23

Gure etxeakoandreak zorrotz samarrak dirala edo jenio estu samarra dutela eta orrelakoak esaten aritzen gera, geu santuak bagiña bezela. Askotan obe genduke ondo pentsatuta itz egingo bagendu. Orrela zer esaten ari geran jakingo genduke, sikira. Mediku bat ere konturatuta omen zegoen morroskadak egiteko etxeakoandreek duten erreztasunarekin. Beti nundik emazteari losintxa egingo ibiltzen omen zan, beste senar asko bezela. Eta ala ere iñundik iñora asmatu ezin. Orri zuztarra billatu bear ziola orratik, eta bost urte pasatu ditu sendagille orrek, emazteak orren ezpain-estuak zergatik diran aztertzen.

Mediku jaun orrek somatu duenez, etxeako lanak egiten dituzten emakumeak dira erreumak geiena pertsegitzen dituenak. Eta gu antzik eman gabe edozer gauza esaten, dana bageneki bezela. Erreumak jota dagoena nola egongo da, ba, temple onean? Geu egongo al giñake? Ontziak eta sukaldeko zorua garbitzeak bizkar ezurreko eta gerriko miña egiten die. Erropak isegitzeak eta gauzak armario gaiñera jasotzeak, lepoko eta sorbaldako ezurak ondatzen omen ditu. Denbora luzean zutik egon ezkerro,

gerria, belaunak eta oiñak ondatzen dira, eta nik ez dakit nolako errosarioa erabili duen esandako sendagille orrek.

Esan dituenak egiak izango dira, baiña danak ez ditu esan. Etxekoandreak lan asko daukatela, badakigu. Lana egiten duenak jornala bear duela ere bai, eta ori ez du esan. Sendagille eta gaiñontzeko asko dakiten oiek zergatik ez dituzte agintariak zirikatzen, etxeko lanak egiteaz gaiñera senarra zaindu bear duten emakumeak lanaren saria izan dezaten? Agintarien emazteak neska-me ta guzti biziko dira, eta, jakiña, aiek ondo konponduko dira. Guk ez daukagu ordea orrelakorik, eta pazientzia artu bear. Etxekoandre danak alkar artu eta huelga egin bearuko luteke. Ea emakumeen eskubideak eta orrelakoak aoa betean aitatzen dituzten oiek esnatzen diran noizbait.

Bitartean pazientzia artu bear. Etxekoandrea asarre samar badago, utzi pake-pakean. Geienez ere urte askotan alkarri aitzakia ematea komeni zaigula pentsatu, eta segi aurrera. Ez jardun bat eta bestea esaten. Ori besterik ezpada, patatak zuritzen laguntzea obe da.

Andrea jeikitzen da
gure aldean goiz.
Gu amarrak aldean
edo ez dakit noiz.
Kejatzan balbin bada
nola dan arrazoiz,
gure laguntasuna
ez ukatu iñoiz.

Andrearen esanak
artu mesedetzat,
etxeko nagusitza
utziaz beretzat.
Etxekoandre ere
bera da guretzat,
eta ez artu iñoiz
gure neskametzat.

1993ko uztailak 30

Biar gure patroï aundiaren eguna izango da. Eta garai batean San Inazioren lagunak egiten zituzten sermoi zorrotz aiek eto-

rri zaizkit gogora. Besteak beste zirala, gurasoak entzun bear izaten zituzten berenak eta bi. Seme-alaba biurri samarrak zeuzkaten gurasoak, anka batekin inpernuan zeuden, itxura zanez. Garai artako sermoilariak eta agintariak alkar ondo artzen zuten, gazteak kate motzez lotu bear ziranean. Eta gurasoak ere estutu egiten zituzten pixka bat. Gazteei lana eta eskola ikasteko erreztasuna emateko bearkizuna zutenak etzituen iñork astintzen. Aientzat etzan izaten inpernura joango ziran amenazurik.

Garaian garaiko gauzak izaten dira, eta sermoi aiek orduko munduan kalte baiño mesede geiago egingo zutela esango nuke. Orain, soziologoak edo gizarte-arazoetan jakintsu diranak dauzkagu sermoilarien orde, eta oso kezkatu daude. Drogak kezkatzen ditu, eta alkoholak ere bai, au ere droga baita. Gizarteko osasunaren ardura duten agintariak alkohola edateko oiturari esiak nola jarri lanean ari dira buru-belarri. Jaun oiek diotenez, gurasoak zerikusi aundia daukate alkohol arazo onekin, baiña oraindik ez dakite garbi oitura oni ateak isteko gurasoak zer egin bear duten. Batzuk diotenez, gurasoak gogor egin bear die umeei mozkorrian erori ez ditezen, eta edatea galerazi, onean ezpada txarrean. Beste batzuen iritziz, umeei gogorregi egiteak ez du balio ordea. Beste bide batetik joan bear da. Baiña, nundik? Zer bide artu bear da? Itxuraz, biderik onenetako bat gurasoak eta seme-alabak alkarrekin itz egiñez ondo konpontzea da. Baiña, ori erreza al da?

Gaztediari nai duena egiten utzi zaio orain arte, eta edozeiñek ekartzen ditu oraingo umeak eskutara, aitarekin eta amarekin lasai-lasai itz egitera. Eta agintariak zer egiten dute gaztediari bide onetik joaten laguntzeko? Gazte asko dago gaur zeregiñik gabe, eta orri etzaio erremediorik ematen. Eta ori agintarien lana da, ez gurasoena. Esaten errezago da gaur guraso izaten baiño. Dana dala, makiña bat egongo dira lasaitu bat artzeko oportetara joateko irrikatzen, arritzeko ere ez da-eta. Joaten zeraten guztiok ondo-ondo ibilli zaitezte, baiña kontuz. Eta gero etorri danok atzera, zuen etxean bearrekoak zerate-eta.

San Inazio, aspaldi igo
ziñan zeru ederrera,
ainbeste maite izan zenduen
Jesusen aldamenera.
Emen sarritan entzun degunez
orko nagusi zu zera.
Zeruan sobran dauden graziak
bidali gure artera...
Premi ederra ikusko dezu
begira jartzen bazera.

Gu euskaldunok geitxo nasturik
ez ote gabiltz aukeran,
alkarri leku eman nai ezta
anai biurrien eran?
San Inazio, anai zarrena
guretzat zu nola zeran,
gure ordezkuk otoitz egizu
zedorrek nai dezun eran
noizbait bederik ea guztiok
arrastoan sartzen geran.

1993ko abuztuak 6

Opor-illean sartu gera, eta izango dira bizimodua pixka bat aldatuta egun politak pasatzen ari diranak. Urtearen buruan aurre-ratutako txanpon apurrak jorratzeko ez da garai txarra izaten abuztua. Lana egiten duenak atsedena ere bear du. Dirua berriz, gastatzeko izaten da, eta ezin, ba, beti pezetari begira egon. Beti zurkerian ibilli gabe zeri begiratua izaten da urte sasoi onetan, eta aukera guztiei etzaie alperrik galtzen utzi bear. Zurkeria pekatu nagusietan bigarren omen da gaiñera, eta oporretan gure buruari zerbait opa bearko diogu.

Ikasketak egiten ari diran gazteak ez dira atzera begira egongo mundua korritzera joan gabe. Errifak salduta eta abar, diru pixka bat bilduko zuten, eta orretaz gaiñera gurasoei beste apurtxo bat kentzen badiete, egun ederrak botako dituzte lagun artean. Al dutela ez dira etxetik urbil geldituko. Urrutiko intxaurrak ots aundia izaten dute, eta gaur egin dezaketena ez dute biarko utziko. Gurasoak ibilli bear zintzo. Zaarrak egon bear etxean gazteak firin-faran kanpoak ikusiz ibilli ditezen. Ikasketak egin bearrak nekerik asko badu berekin, eta zer egingo diegu, ba? Etxeko pakeak ere balio du. Kontu oiek familietan gertatzen diranak dira gaiñera, eta ez det uste geiegi estutzekoak diranak

Etxean dagoenak etxeko berri bakarrik jakiten du, eta jakinduria orrekin bakarrik ez dago gaur urrutira joaterik. Gazteei ere iritsiko zaie etxean egoteko garaia, eta orain esaten dutena entzun beariko dute orduan. Mundua orrelaxe da. Gauzak txandaka etorzen dira emen, eta esaten duenari entzuteko txanda etorriko zaio.

Oiek danak orrela dirala, oporrak urrutian pasatu nai dituenarentzat ez omen dago Japon baiño leku oberik. Bizimodu desberdiña ikusteko eta iñun diran aurrerapenak ezagutzeko. Lana nola egin bear dan an ikusten omen da ondo, eta oporrak artu gabe bizitzea zer dan ere bai. Japoniar txiki oiek oso argiak eta bizkorrak diran fama dute. Oraindik orain, ango emakume gazte batek bost aur izan omen ditu, eta danak ondo daude. Esan diteke lanik asko izango zuela ori egiteko, izan ere lau minutuan egin zituen bost ume oien patripilioak. Azkar eta ondo usoak egiten du egan, esan oi danez. Baiña japoniar txiki orrek badaki lanak azkar eta ondo egiten, bistan danez. San Antoniok bedeinka dezala.

Urte guztian lana eginda
gaude ondo aspertuta,
pazientzitik irtenda eta
naiko ipurterretuta.
Ez da ori jolasa
baiña artu arnasa
garaia orain degu-ta.
Dotore samar jarri gaitezen
kolko alde beztuta.

Iñolaz ere alaitasuna
ezin eduki gordeta.
Oporrak emen ditugu eta
zer da guretzat oberik?
Ez gelditu etxean,
trenez edo kotxean
norabait joan gaberik.
Kezkarik gabe bizi gaitezen
illabetean bederik.

1993ko abuzatuk 13

Kontu zelebren samarrak jakiteko garai ona izan da opor denboran. Jendea zer pentsa egoten dalako, edo eguzkiak burua berotzen duelako izango da. Telebisiotik berri asko jakiten da, eta

oraingo errebista moderno oietatik zer esanik ez. Zinea ere ordago berriz bazterrak endreatzeko. Saltsa pixka bat ere ona izaten da, eta tira.

Pelikula batean kontatzen dan ipuiarekin nator gaur. Aberastasuna gaiñezka daukan gizon batek diru faltan dagoen bikote edo matrimonio bati eun milloi pezeta eta geiago eskatzen dizkio. Ez senarrari, emazteari baizik. Nik esan gabe ere konturako zerate ainbeste diru zergatik eskatzen dion. Izan ere, emazte ori senarra baiño ederragoa baita. Eta beti zer pentsatuko egoten diranak badira-eta, auetako batek pentsatu du ea pelikulan kontatzen dana egia ote dan. Benetako bizitzan ez ote dan gertatzen pelikulako ipuiaren modukorik, eta ain modan dauden galdeketa edo enkuesta bat egin du. Eta jaso dituen erantzunen araber, eun emaztetatik emeretz prest omen daude dirua irabazteagatik senarrari tranpa egiteko. Eta eun gizonezkotatik emezortzi, emaztearen isillik diru truke pekatu egiteko. Dirua izan ezkerro pikardirako pronto dagoen jendea dexente aurkitu liteke, ikusten danez. Senarraren isillik diru truke zertxobait egingo luteken emakume batzuk beste batzuek baiño diru geiago eskatzen dute. Gazteak eta itxura onean daudenak geixego, eta zatar samarrak gutxixeago.

Ez da gezurra izango diruak ate asko zabaltzen duela. Ez det esan nai ordea gizon guztiak, eta ain gutxi emakume danak, ajolakabeak diranik. Animaren etsaietako bat deabrua zan leenago. Baiña aspaldi onetan ez da deabru konturik entzuten, eta ez dakit deabruaren tokia ez ote zuen diruak artuko. Ondo bizitzea danoi gustatzen zaigu-eta, deabruaren ordez diruak zirikatzen ote gaitu, ba? Askok daukatenak besteren emaztea engaiñatzeko gertu, eta gutxi daukatenak emaztea edo senarra salduko lutekeenean..

Kontuak kontu, Zeraingo festak badatoz. Bateko opor eta besteko festa, au da anabasa. Festa oietatik zerbait geroko ere utzi bearko da, agian. Baiña dana ez utzi alde batera. Andre Mari eta

San Roke egunak ere ospatu merezi duten bezela. Ez daukazute bazkaltzeko toki onaren billa urrutira joan bearrik, eta etxekoandrea ez eduki egun guztian suaren gainean, garai batean bezela, etxekoandreak ez dauzkate saltzeko-eta Zeraingo senarrak.

Diruak asko dezake eta
ez dauka indar motela.
Erne ibilli gindezke danok,
galduko gera bestela.
Esan diteke askok iruzur
lasai egiten dutela,
pelikuletan zenbait artistak
egiten duten bezela.

Senar-emazte asko tranpian
ikusirik dabiltzala,
ez al da bildur ematekoa
diruak duen itzala?
Ez engaiñatu eta buruan
sartu nola edo ala,
zenbait larrosa-usai guztia
joanda egoten dirala.

1993ko abuztuak 20

San Bartolome eguna gertuan da, eta euliak laister asiko dira buruz beera jartzen. Oporrak bukatzen dijoazen seiñalea. Baiña ez estutu. Oporrak izango dira berriz ere. Gabonak laister dira bere atsedenalditxo eta guzti, eta eutsi goiari. Il au pasatzen danean gerrikoak estutzen asi bear omen degula esan dute. Eta ori ere egingo degu, egin bear bada. Segi aurrera, zer egin bear dan antzematen ez da errez baiña.

Esaten digutena egiñez or nunbait ibilliko gera. Edo garbia-go: guk egiten badegu danak ez dira gaizki ibilliko. European or daukate Alkarte Ekonomikoa edo *Mercado Comun* dalako ori. Eta zenbat aragi bear dan-eta dana andik agintzen digute orain. Zenbat esne bildu bear dan ere bai. Baiña egundoko ankasartzeak egiten dituztela uste det. Oraintsu arte aragi geiago eta esne gei-go bear zala esaten ziguten. Orain berriz, kanpotik ekartzen dutela eta emen geiegi dagoela esaten asi dira. Atzo bertan Zamorako ganaduzale batek esan zidanez, bei geiegi daukala esan omen

diote, eta kentzen duen ganadu bakoitzeko ez dakit zenbait diru emango diotela. Nik atzo jakin nuen, baiña emengo baserritarrak ere jakingo dute ori. Aragia kanpotik ekartzen eta ganaduzaleei beiak kentzeagatik dirua ematen, alajaiña! Sistima ederra orixe jendeari lana emateko! Europako Merkatu orrek Espaiñiari 175.000 milloi pezetako diru-zigorra edo multa egin ote dion esaten dute, esne geiegi biltzen duelako. Munduaren lautatik iru goseak dago, eta ala ere esne geiegi biltzen dala. Oni norbaitek antzematen badio, konta dezaidala. Leen miseria dagoela, eta orra miseria ugaltzeko modua.

Espaiñian bertan amar bat milloi beartsu daude, baiña ez du iñork esaten aiei lagundu bear zaienik. Aberastuko ez badituzte ere zerbait erosteko moduan jarriko balira zerbait erosiko luteke, sikira. Esnea edo ardoa, zerbait egin eta saldu ezean, jai dago emen. Multak ordaintzen kastatuerazi bearrean, atzeratu eta miserian bizi diran oiei lagundu, ba, zerbait erosi dezaten. Baiña, bai zera! Boyer jaunak ere bota digu berea. Oraingo krisialdiaren errua langilleek omen daukate, batak besteari laguntzen ez diotelako. Orrek atera dizkigu eltzetik babak. Orixe da, ba, adarra jotzea. Bera, amasei, emezortzi edo ez dakit zenbat komun dauzkan etxe ederrean bizi da, eta langillei langilleek lagundu bear. Berak ez, badaezpada ere.

Beti geroko itxaropenez
bizi da nekazaria.
Ainbeste esne bildu duenak
merezi luke saria.
Lana eginda zigorra jaso
ez da sari ugaria:
Europak zalka ematen digu
ta berak gorde garia.

Ikusten da bai European nola
dauden guztiak aseak,
aztu zaizkie ainbat miseri
gerra ondoren paseak.
Jainkoak daki munduan zenbat
aur iltzen ditun goseak...
Biotzik ez du orain agintzen
jarri dan jende klaseak.

Atsegin eta poz asko ematen duen illa da abuztua. Oporrak eta erri askotako festak berekin dituena. Eta luzeagoa balitz ere ez giñake asarretuko. Bearbada gaizki oituko giñake, eta ez da komeni ori ere. Baiña baditeke bukatuta gero ere abuztuaren arnasa pixka bat luzitzea. Oporretako kontuak esan bear izaten dira. Eta galtza luzez baiño gona motx samarrez jantzitako geiago ikusiko da egun auetan, eta ori ere oso polita izaten da. Eguzki kolorearekin dotore samar azaltzea ez da pekatu, izan ere. Eta gauza onari luzapena eman bear zaio, une aspergarriak bere kasa etorriko dira-eta.

Biar San Agustin. Urteko festa garaiari azken igurtzia emateko eguna. Brinkolarrak begiak argi edukiko dituzte. Aurten ez daukate festak egunez aldatu bearrik. Biar larunbata da eta kanpoan diranak etxeratzen asiko dira. Eta ez dago gaur illunabarrean festa egiten asi eziñik.

Ni ere ari naiz, ba, brinkolarrei zer egin bear duten esaten. Motelak izan, ba, aiek! Ez dira ez gaur egin dezaketena biarko uzten duten oietakoak. Ezpaiñak ederki igurtzitakoak izango dira egun auetan Brinkolan, leengo oiturak bizi badira beintzat. Eta orren berri pixka bat ikasia naiz. Etxekoandreek lan pixka bat izango dute, baiña onelakoetan gozaten dutela esango nuke nik. Bazkalondoan mai inguruan erlea mugitzen danean, orduantxe egoten dira gustora. Gonbidatuei sabela betetzen artzen duten lanaren ordaiña, bazkaldarrak bapo berdinduta ikustea izaten da. Umore ona eta alaitasuna sabeletik irtentzen dira, eta orren berri badakite. Besteren onaren damutasuna inbiria ipurterrea da, baiña iñor gustora eta ondo ikusita poza artzen duen pertsonak kategori berezia izaten du. Gure etxekoandreek duten bezelakoa, alegia. Ainbeste lan eta neke artu, eta besteak gustora ikustearekin poztu. Ez dute, ba, asko eskatzen. Ez dago gure etxekoandreak ordaintzeko aiña balio duen dirurik.

Brinkolako aterpea esaten diotena Telleriarten dagoela eta eztabaida koskor batzuk izan ziran. Etzan, ba, izango telleriar-tearrak brinkolarrei inbiri pixka bat diotelako? Dana dala, kontu oiek isildu ziran, eta oraiñarte bezela danok alkarrekin festa on eta paketsuak igaro itzazue. Ori da balio duena. Besteak kontuak dira.

Lagun jatorrak beti ugari
izan ditut nik Brinkolan,
amaika aldiz gozatua naiz
ango bertsozko eskolan.
Euskerak alai kantatzen du an
nola txoriak kaiolan.
Toki alaiak badira baiña
alaiagoak naiko lan.

Nola ez bizi jende jatorra
ain toki patxarazkuan?
Zorion pilla galanta dauka
Brinkolak bere eskuan.
Arrotzak ere bertako dira
aruntza joandakuan.
Elizan ere or San Nikolas
San Agustiñen lekuan.

1993ko irailak 3

Orain iraila esaten diogun il oni agorra esaten genion leenago. *Ira* garoa da, noski. Eta irailak garo illa esan naiko du. Garo usai gozo ura galdu zan orde. Garoa mendietan bakarrik ikusten da, eta izen onek ez dakit zenbateraiñoko egokitasuna eduki lezakeen. Ira itzak aultasuna ere esan nai du, eta oni eltzen badiogu, iraila, aultasun-illa izango da. Eta izen ori etzaio ain gaizki etorriko. Aulduta dagoena naiko agortua egoten baita, eta agorra ondo zegoela esan genezake. Oporrak bukatu diran onetan, patrikarak naiko agortuta egotea baliteke, eta agorra esanez jarraitzen badegu ere ez det uste pekatu aundirik egingo degunik.

Leengo itz danak ipurdiz gora bota eta beste modako itz berri batzuk artu arren, leengo moduan geldituko gera, seguru asko. Kontua zera da: aurtengo oporrak bukatu dirala, batez ere or

zear ibilli diran gazte sasoikoentzat. Badira ordea agorraren asierari zumu berezia ateratzen diotenak. Ana Birjiñari bederatziruena egiñez egun batzuk Arantzazun pasatzen dauden zenbait amonaxo oraintxe daude oporretan. Noizbait bear, ba, aiek ere. Urte guztia gazteen gustoa egin eziñik pasatu ezkeronai litzake zer bait. Egunduetan Arantzazura joaten naizenetan amonaxo oieibegira zorutzen egoten naiz. Aurpegian ezagundute pozik daudela, eta nai baiño ere egundobeak pasatzen ari dirala.

Arantzazura zertarako? Zertara Arantzazura?, esango du norbaitek. Ba, batzuk bere moduko lagunekin, eta beste batzuk bere senarrarekin egunduetan Arantzazun dauden etxeakoandre aiek ain gustora ikusteagatik bakarrik maitatu liteke Arantzazu. Aiek ez dute iñun eskandalorik jarriko. Zenbait buruariñak bezelako okerrik egin ere ez, eta aitari eta amari dirurik kendu gabe pasatuko dute bere oporraldia. Datorren ostegunean izango dute Arantzazuko Amaren egundundia. Beste egundubatuengatik etsikozuten Arantzazun, baiña datorren urtean ere joateko grazia eskatu Ama Birjiñari eta etxera. Familiko gozotasuna zai baldin badaukate, pozik gaiñera.

Kontu zaarrak, esango dit norbaitek. Baiña gauza bat dago garbi: Arantzazuko Amarenganako zeletasunak ez diola iñori kalterik egiten, eta batzuk orretzek betetzen baditu, zergatik ez errespetatu?

Ama, otoitzez gu ikustea
da naiko arritzekoa.
Baiña bat maite izatekotan
ama da maitatzekoa.
Eta premia sarri izanik
zertxobait eskatzekoa,
nola ez gera zugaratuko,
Amatxo biotzekoa?

Lenago sarri etortzen giñan
zugana Arantzazura,
gure animak baretzen ziran
pake-iturri santura.
Gaur zenbat aldiz galdetzen dezu
begiraturik mundura:
“nun ote dago garai bateko
nere Euskalerra ura?”

Orañaldian naiko urruti
dabil bai, Ama, zugandik.
Argi pixka bat nai luke eta
ez du ikusten iñundik.
Gure erri au gorde ezazu,
Ama, zuk etsaiengandik...
Ez badirudi ere biotzez
maite zaitugu oraindik.

1993ko iraillak 10

Gizonak etxean serio samarrak bagera ere, lagunartean naiko berritsuak izaten gera, umore onean gaudenean beintzat. Egun batean norbait lagunartera joaten ez bada, laister esango diogu andreak utzi ez diolako ez dala azaldu. Dana ez da egia izango bearbada, baiña zerbait izango da. Gizonak biotz bigun samarra degu, eta emazteari naigabea eman baiño obeditu naiago izaten degu, batzutan. Eta gure laguneren eztenkadak jaso bear gero.

Dana dala, famili asko orri eskerrak zuzen ibiltzen dira. Eta duenari duena eman bearra dago emen. Gizonak bakarrik agintzen duten tokietan ez da giro izaten. Soraya pritzesa bizi izan zan errian emakumeak burua estalita ibiltzera beartuta daude. Eta oraindik ez da denbora asko illea estali gabe kaleetan zebiltzanak bildu eta autobusak betean komisaldegira eramaten zituztela. Gaiztoak zirako edo eskandaloa ematen zutelako baitu zituztela esan omen zieten. Leenengo aldiz baitzen dituztenean, geiago ez dutela alako pekaturik egingo firmatu bear izaten omen dute. Eta burua estali gabe bigarren aldiz arrapatzen badituzte, gogor zigortu eta otzak aterata uzten dituztela uste det. Eta buruko illeak eta beste zerbait ere erakutsi bearuko dute, zigorka asten zaizkienean. Gajoak!

Txinako zenbait leku atzeratutan emakume eskasia omen dago, eta andrea edo neskamea bear duenak erosi egiten du.

Emaztea baiño dirua maiteago duten txinoak badira ordea, eta ezegiteko aundiak egiten dituzte. Emaztea, alaba eta beste amabost emakume saltzen arrapatu dute txino oietako bat. Baiña, emakumeak zer dirala uste ote zuen? Erosi eta saldu ondo ibilliko zan, baiña bukatu zaio paotxa. Tratalari ori iltzera kondenatu eta garbitu dute. Gauzak ondo egin zituen bai Jainkoak.

Emakume euskaldunak etxeoandre onak diran fama daukate. Agintzea gustatzen zaienak, eta etxea ondo gobernatzen dutenak. Senarra ere arrastoan erabiltzen dakitenak. Eta ala ere, Persiako borreroak baiño obeto bizi gera gu. Batzutan isildu bear izaten degu, baiña alkandora garbia eta mai apaiña beti pronto edukitzen ditugu, basoerdi batzuk artzeko lain txanpon ere bai. Eta, zer geiago bear degu, ba?

Zenbait borrerok eskubideak
arturik bere eskuan,
erru gabea sartu izan du
errudunaren zakuan.
Eta zigortu kupira gabe
aberea dalakuan.
Orrelakoak gertatzen dira
gizonik ez dan lekuan.

Zibilizatzen joan bearra
geroz ta basatiago,
gizatasuna ez ote dabil
geroz ta urrutiago?
Lagun urkoa ez degu maite
zakurra baiño geiago.
Mundu onetan izugarritzko
gizon eskasia dago.

1993ko irailak 17

Gauza guztiak dute bere neurria. Esate baterako, askatasun geiegi ere ez omen da ona; eta iñor geiegi lotzea edo estuegi artzea, oso txarra berriz. Geiegi erreztatzea ere ez dala komeni entzun det. Eta ortik pentsatu neurria artzen jakin ezak nolako pikardiak egin dezazken. Zerbaitegatik esan zidan fraille batek errezoa motza ta kolazioa luzea bear zirala. Maia bedeinkatzen etzala denbora geiegi pasatu bear, baiña otordua bere itxura bate-

koa komeni zala. Luze samarra. Orain ez det uste orrelako aolkuak eman bearrik dagoenik. Errezoak iñork agindu gabe moztu ditugu, baita otorduak alegiña luzatu ere. Eta alderdi orretatik neurria artzen ikasi degula uste det.

Askatasun edo libertade geiegi ez da ona. Beatza eman ezke-ro besoa artzen degu. Leenbizitik besoa emango balitzaigu, zer ez ote genduke artuko? Bestalde, geiegi lotu ezke-ro, edo gauza geiegi debekatu ezke-ro, asarretu eta gaitzotu egiten gera berriz. Edozeiñek asmatzen du guri dana neurrian ematen.

Orain irureun bat urte edo dirala, billerak eta dantzan egitea eta oiek danak debekatu egin zituzten, dantzarien artean deabrua ibiltzen zala-eta. Orain aur gutxi jaiotzen dan aitzakia dago, eta orduan berriz geiegi jaiotzen zirala. Asko, legez kanpokoak gaiñera, eta orri neurriak artu nai, ba. Danak debekatuko zituzten, deabruaren suak jendea berotu etzezan, baiña leenago baiño sasi-kume geiago jaiotzen omen zan. Orratx geiegi debekatzek nola-ko ondorenak ekartzen dituen askotan. Gorabeera oiek aaztu ziran emen, baiña toki batzutan ala moduzko legeak badaude oraindik. Turkian neska-mutil batzuk itsasora bota eta il berriak dituzte alkarri musuka arrapatu zituztelako. Moro en erlijioa daukate an, eta erlijio orrek jendearen bistan alkarri musu ematea gogor zigortzen du. Begira: erlijioak ere, geiegi sinistu ezke-ro, gaitz egiten du nunbait. Eskerrak turkoak eta moroak gerran gogor ibilli ondoren emendik bidali ziran. Emen egon izan balira, eta aiek agindu, musuka ez ezik emen ikusten diran koadroak ikusita, istillu gorri zeukaten neska-mutillak. Bai turkoak ere lan ederra danak itsasora botatzen.

Ez da bear sinistu
etsaien esana
etsaien esana.
Gu kondematzea da
Satanasen plana.

Makiña bat erretxin
badago munduan
badago munduan.
Orrenbeste debeku
bear al genduan?

Zirikatu dezala
berak nai duana,
baiña lasai bizitzen
izango da lana
debekatu ezkerro
pekatu ez dana.

Goxo-goxo bizi nai
alkarren onduan.
Musu bat eman ezin
nai degun orduan.
Batek bai al daki zer
egin bear duan?

1993ko irailak 24

Mundu onetan gertatzen diran goiko maillako eta garrantzi izugarria duten gertakizunei begira egon gabe, eguneroko bizitzan gertatzen danari begiratzea naikoa degu etxeko edo etxe inguruko kontuekin gure bizitzari gatz pixka bat emateko. Euskadiko emakumeak badaukate erakundea bere eskubideak babesteko. *Emakunde* deritzana, ain zuzen. Eta erakunde orren zuzendariak Eusko Jaurlaritzari aurpegira bota dio ez duela bear aiña lan egiten bizitzeko bear diran aukerak emakumezkoei emateko. Gure gobernariak ez dirala saiatzen, alegia, emakumezkoen alde. Baiña, ori ez ote da gizonezkoen kontrako eraso edo orrelako zerbait? Ea orain ere larri samar ibilli bearrean izaten geran.

Emakumeak bazterrean utzita daudela esatea geitxo izango da orratik! Leen gizonezkoentzat gordeta zeuden lan asko egiten dute orain emakumeek, eta oso ondo gaiñera. Esate baterako, emakumezko sendagille asko dago gaur egun. Eta ikusi egin bear da lana nola egiten duten. Gidatzeko karneta berritzera joan nintzean, iru lagun zeuden bear diran azterketak egiteko, eta irurak emakumezkoak ziran. Politik gaiñera. Eta oso ondo artu ninduten, eta baita bere lana pulamentuz egin ere. Azterketa pasatu bearrak baditu bere estuasuntxoak, baiña aien irriparre argia ikusi utsarekin lasaitu egiten da bat. Beste pixka baterako karneta badet beintzat, eta pozik utzi ninduten. Beste estualdi bat gorabeera, alako aurpegi alaiak ikustegatik noiznai joan liteke karneta berritzera.

Noizik bein gure osasunari begiratu bat ematea ona izaten da, eta ala joaten naiz aldizka sendagillearengana. Eta sendagille eta laguntzaile, iru lagun izaten dira begiratu eta aztertzen naute-nak, eta irurak emakumezkoak aiek ere. Mediku gizonezko onak ezagutzen ditut, baiña emakume auk ere ez dira nolanaikoak. Ez daukat batere aitzakirik. Aiengana dijoana ondo artzen badakite, noski. Oso argiak dira. Eta galdezka jardun gabe esango dizute zer komeni zaizun eta zer egin bear dezun. Ez daukate zenbait medikuk bezela bibote bearrik errespetoa jartzeko ere. Emaztearen aginduak zintzo-zintzo egiten oituak gaudenok nola ez egin alako sendagille politen esanak?

Emakumezko asko bizirik
gizonaren itzalpean,
esaten dute guk dauzkagula
katigu eta lanpean.

Baiña sinistu ez dauzkagula
guztiak gure menpean...
Gertatzen dana agintaritza
ez dala artzen kolpean.

Ezin ukatu bizi dirala
geiegi lanperaturik
Eta ez dute gizonezkoak
duten aiña deskantsurik.

Ala ta guztiz orretarako
daude bidean sarturik.
Asko baiño len ikusko dira
gizonen makilla arturik.

1993ko urriak 1

Leengo kontu zaarrei ez diegu estimazio aundirik ematen, baiña noizean bein astindu bat ematea ondo etortzen da. Daukagun bizimoduarekin ez gera konforme izaten, eta leengoak aiñean bizi gerala beintzat eta orrelakoak esanez geure buruari aize pixka bat eman bearra dago. Orretarako denetik zerbait jakitea komeni da, historiari begiratu bat emango bazaio ere. Orregatik, ez gera arritzen orain gertatzen danarekin. Orain 410 urte, Trentoko Kontzilio sonatuak zenbait erabaki artu zituen arte apaizaren bearrik etzan izaten ezkontzeko. Neska eta mutillak

alkarrekin bizitzeko itza ematen zioten batak besteari, eta uraxe izaten zan naiko. Eta toki batzutan, urtebete barru edo orrela alkarganatzen ziran. Eta besteetan andregaiak arreo prestatuta-koan eta orrela. Oitura orrela zan, eta Elizak etzuen gaizki artzen ori egitea. Baiña emandako epea bete baiño leen arrimatzen omen ziran gazte asko, eta naiko komeri izaten zala uste det. Bat santua eta bestea santa izan arren, erdian paretarik ez badago, anka gorri- ren bat edo beste sortzea ez zan arritzeko izaten orduan ere.

Gazteak bazituzten bere arrazoiak onela jokatzeko. Orduko zaarrak etzuten sinisten maitasunezko ezkontzan. “Amorezko ezkontza, dolorezko bizitza” zala esaten zuten. Eta semearentzat andregai edo alabarentzat senargaia gurasoak aukeratzen zuten, etxeari eusteko alaxe komeni zala-eta. Gazteak ezin ordea beti burua makurtu, eta itza emanda zeudenez, gero egin bearreko lanak leenbizi egiten zituzten, bere gustoko ezkontza ura ontzat ematera gurasoak beartuz. Gero, zenbait guraso burugorrrak izaten ordea, eta izaten ziran gurasoekin auzitan ibillitako alabak. Seme-alabak lotuta eta mendean eduki naiak orrelakoxe saltsak jarri izan ditu familian.

Etxea eta ondasunak eta oiek danak onak izango dira, baiña maitasun pixka bat ere ez da txarra izango orratik. Bizitza guztian alkarrekin izan bear, eta noizean bein laztantxo bat ematea pentsatuta ere gustoko laguna obe izango da aitak eta amak derrigo- rrean ezarritakoa baiño.

Arrigarria garai batetik
munduak artu dun jira.
Ez dago zerbait esan besterik
gazteeri belarrira!
Orain ez daude aita eta amak
diotenari begira...
Gustoko norbait izan ezkeru
laister katiatzen dira.

Esango nuke zerbait arrazoi
badaukatela orrekin,
semeak eta aitak ez dute
neska bat ikusten berdin.
Eta, ama, zu ez alabari
tratuan laguntzen ekin.
Mutil ona dan proatu gabe
ezin bailiteke jakin.

Egunak gaua berekin izaten duen bezela, entzuten diran berriak ere batzuk argiak izaten dira, eta beste batzuk illunak. Batzuk alaiak eta jostalariak, irriparrea ezpaitarara ekartzen digutenak. Besteak, pena emateko modukoak.

Toki askotan Miss esaten zaion neskarik ederrena aukeratzeko oituraren berri ez dakienik ez da izango. Aukeraketa oiek diranean, egunkariak saiitzen dira adierazten. Telebistak ere bai erakusten. Festa edo gertakari argiak izan baitira. Begira egoteko modukoak. Kopetillunik asko ikusten da bestela ere, bizarduna pranko ere bai. Eta gazte irripartsuei begiratzeak alakoxe bixigarri bat ematen dio bizitzari. Miss aukeraketa oiek ez dira izaten beti garrantzirik gabeko gertakizun arifnak. Gaixo daudenei laguntzeko eta gosea dagoen tokietara dirua bidaltzeko ere antolatu izan dira, eta ezin esango degu orrelako jaialdi batzuk antolatzea gaizki dagoenik. Iztarrak agirian ibiltzen dirala eta orrelako batzuk esaten dituzten santularioak izaten dira, baiña zer da, ba, ori? Iñori koloreak gorritzen al zaizkio orain orrelako batzuk ikusi arren? Premian daudenei laguntzeko badira, orrelako ikuskizun politak zenbat eta sarriago eta obe. Beti bada emen zerbait, eta badirudi erakusketa oietan zerbait berria sartu nai dutenak ere badaudela. Zenbait ezin soseatu izaten baita nun edo an, nundik edo andik zirikatzen jardun gabe.

Miss aukeraketa bat egiteko asmoa zuten Australian. Ez dakit egiña dan ala ez. Dana dala, norbaitek esan zuen etzala naikoa neskarik politenak aukeratzea. Mutillak ere izaten zirala egoki askoak, eta danetan ederrena zein zan ikusteko eta aukeratzeko, neska eta mutil, danetakoak parte artu bear zutela. Orixe da, ba, katuari bosgarren anka billatu nai izatea. Mutil ederrak eta egokiak badirala badakigu, baiña bai al dago konparatzerik ikusten oituta gauden miss oiekin? Nik onela pentsatzen nuen, baiña badaude komeri geiago ere. Neska ederrak ikusita gizonezkoak

endreatzen geran bezelaxe, mutil bikaiñak ikusteko irrikatzen ez al dira egongo emakumezkoak?

Zenbait garaitan mundu onetan
sortzen diran katramillak!
Oiei ateak isteko emen
zeiñek dauzka maratillak,
baiña guztiak ez al dauzkate
txit arrazoi biribillak?
Mutillak neskatz politikak maite
eta neskatzak mutillak.

Ez ote gabiltz pixka-pixka bat
arrastotikan irtenak,
jakin naiean mutillak ala
neskak diran politenak?
Baldin badira nere juzkoa
zer dan jakin nai dutenak,
politagoak dira kolkoan
bizarrik ez daukatenak.

1993ko urriak 22

Irratiren batean ez bada ez da entzun ere egiten Mexiko aldetik etorriko kantarik. Telebistak ere ematen ditu iñoiz, baiña gutxiagotan. Bere sonbreillu aundi eta guzti, janzkera berezia eta gitarrarekin, oso kantari atseginak dira mexikoarrak. Bai entzuteko eta bai ikusteko. Emengo gerraren ondoren ango kantu asko entzuten zan. Eta gazte jendeak errez eta laister ikasten genituen. Baita gogoz kantatu ere. Oso modan egon ziran. Izan ere, emen etzan ezer egiten artean, eta pelikula asko ekartzen ziran Mexikotik.

Francoren garaian anka egin bear izan zuten asko eta askok, eta Mexikora ere joan ziran, nola euskaldunak ala euskaldun etziranak. Eta ondo artu zituzten an. Babes ona aurkitu zuten, zorionez. Eta, bat dalako edo bestea dalako, Mexiko alde-
ra begi onez begiratu izan da emendik, eta ango gorabeerak etzaizkigu arrotz egiten. Mexiko nazio aberatsa da, izatez. Urre eta zillar asko izateaz gaiñera, ia moda guztietako mineralak izaten dira. Petrolioa ere asko, eta lurra ere aberatsa, mardula eta emankorra. Ango jendeak ondo bizi bear luke, baiña ez da

orrela gertatzen. Gauzak ondo egiten ez diranean, zuzentasun eta justizirik ez dagoenean, etzaio bakoitzari berea ematen. Eta batzuk bear baiña geiagorekin gelditzen dira eta beste batzuentzat ez da iristen bear aiña. Mexikon ere orrelaxe gertatzen dala esan diteke. Ango berriak orrela esaten dute. Jende asko, lurreko xomorroak galtzeko botikak egiten dituzten kalteekin asarre omen dago. Izan ere, xomorroak janda bizi da asko. Langostak (baiña ez itsasokoak, guk matxinsaltoak esaten diegun moxoro berde oiek baizik), txipillotak, arrak, txingurriak eta orrelakoak jaten dituzte, besterik ez daukate-eta. Ango lur jabeak, nekazaritzari kalte egiten dioten moxorroak botikaz akabatzen dituzte, eta gizarajo asko zer janik ez duela gelditzen da. Ortik dator asarrealdi asko, itxura danez.

Batzuk itsasoko langosta nai ezta, eta beste batzuentzat guretzat ain nazkagarri diran belar arteko naiko matxinsaltorik ere ez. Orra gauzak nola izaten diran. Telebistan ikusten diran Mariachi argi eta alaiak ikusita, zeñiek esan Mexikon lurreko xomorroak janez bizi dan jendea badagoela oraindik?

Lareun bat urte izango dira
Mexiko aurkitu zala,
angoak zibilizatu nairik
espaiñolak joan zirala.
Salbatzen duen erlijioa
erakutsi bear zala.
Ango urre ta zillarren jabe
egin ziran nola-ala.

Espaiñolak joan Mexikora
eta ainbeste zarata,
ango indio gizarajoak
salbatu nai zirala-ta.
Eskuarrantzan egingo zuten
erlijioa lagata,
oraindik ere indio asko
goseak bizi dirata.

1993ko urriak 29

Ez da errez zenbait pertsonari zer nai duen antzematen. Amerikako artista bat ogeita irugarren aldiz ezkontzera omen

dijoa. Ogeita bi senar izan omen ditu, eta ogeita irugarrena izango duena lazoan arrapatuta dauka. Artista orrek Linda du izena, eta ez da ain emakume aldrebasa egongo. Gizonei aitzaki asko ematen zaie, baiña Linda ez dute asko izutu. Ogeita bi aldiz ezkondu dan emakume batek gizonen berri jakin bear duela esan diteke, eta aspertu ez bada, gizonak maitatzeko moduko zerbait duten seiñalea. Asko gustatzen zaizkiolako gizon geiago proatu nai izatea ere gertatu litekena da berriz, eta edozeiñek antzematen dio artista orri zer nai duen. Oraiñarteko senarrak golfo samarrak izan dituelako, bat onaren billa ibiltzea ere baliteke. Orrek ere zerbait esan nai du.

Banaka-banaka gizon onak ere izan egingo dira. Baiña emakumeak bakarrik ez dira ibiltzen proaketan. Artista orrekin ezkontzera dijoan gizona 27 aldiz egon omen da ezkondata. Ura ere izango da norbait. Ainbeste etxeoandre proatu eta gero beste baten ondoren dabillena ez da izango errez ikaritzen dan oieta-koa. Loretik lorera dabillen erlearen antzekoa, seguru asko. Izaten dira txipillotak eguzkiaren argia naikoa ez eta gauean kandela argiaren jiran dabiltzala egoak erreta gelditzen diranak. Ezkontzarekin ere gertatu diteke ori. Eta Amerikan ez ezik emen ere badira orrelakoak, eta geroz eta gutxiago ez. Batzuk senar obearen billa ibiltzen dira, eta beste batzuk ez dute izaten iñoren bearrik.

Inglaterran, enpresa bateko buru dan emakume batek bere lana egin bearraren bearrarekin ezkontzeko eta ama izateko astirik ez du arrapatu oraiñarte. Berrogeita emezortzi urte omen dauzka. Berandutxo lan oietan asteko. Neska gazte batek azigai edo “ovulo” edo dalakoa erregalatu omen dio, eta medikuen laguntzarekin, aurdun dago. Eta biskiak egin bearrean izango omen da. Ark ez du denborarik galdu gizonen aitzakiak kontatzen. Berari derizkionean bi aur batera ekarri, eta gizonak joan ditezela beste lorategi batzuk jorratzera. Orrelaxe da mundua.

Mundu onetan zenbaitek badu
ez dakit zenbat balore,
artu ta utzi erabilliaz
berak nai aiña amore.
Ezkondu eta dibortziatu,
beti lorerikan lore.
Guztia libre balitz bezela
bizitzen dira dotore.

Zenbait maitasun sanoak dira,
beste batzuek ustelak;
pertsonak ere danetakoa,
jatorrak eta ergelak.
Ondo portatu nai duen arek
pasatzen ditu epelak.
Fin dabiltzanak baiño obeto
bizitzen dira pardelak.

1993ko azaroak 5

Zinean eta telebistan ikusten diran gorputzak ikusita, munduaren erdia zoratuta dagoela esan ditekete. Baiña danak alakoxe gorputz liraiña izateko uda joan zan, bere jaialdi, festa eta buelta guztiekin. Udazkenak pixka bat soseatzeko astia eman digu, eta neguan lasai-lasai sartu besterik ez daukagula esan liteke.

Bizitza onek egun bateko pakerik ez du ematen ordea. Udaren erdia goseak pasatzen duen jende asko omen dago, gorputza itxura onean edukitzeagatik. Ez emakumezkoak bakarrik, baita gizonezkoak ere. Dakigunez, goseak umore txarra berekin izaten du. Udan gutxi janda tenple onean ezin egon eta aspertu eta udazkenean arrapatzen duten guztia jaten dute. Eta bai gizendu ere. Odolki eta mondeju, gizentzeko garai ona da udazkena, izan ere. Lirain egoteko gimnasia egitea ona dala eta udaberrian gimnasi lekuak beteta egoten dira, uda datorrenerako pixka bat meetzeko. Baiña udan ez da iñor joaten gimnasira, eta udan eta udazkenean goseak egon eta berriz ere gimnasira gero. Auxe da gurpil zoroa.

Baiña, gimnasia lekuak ez dira Lourdes. Aietan ez da milagrarik egiten, eta gorputzean koiperik nai ez duenak badaki zer egin bear duen: gimnasia bai, baiña, batez ere, izardia atera, nekatu eta gutxi jan. Pazientzia artzen ikastea ere ona da. Gose zirrian

bezela bizi geralako gizatxartuta jartzen bagera, ez daukagu gauza onik. Jimnasia jolas bat bezela artzen badegu, or nunbait ibilliko gera, eta emazteak ematen digunarekin isil-isillik konformatzen ikastea ere bearrezko zaigu. Eta basoerdiak artzeak ere gizendu egiten du eta kontuz ibilli.

Gerrondo lodia daukatenak gustora bizi dirala ematen du, ala ere. Baiña aiek ere izango dituzte kezakak. Lagunartean bildutako umore ona koipe artean gelditzen bazaigu ez degu ezer egiten. Au da komeria! Gutxi jaten badegu, umoretxartu. Naikoa jaten badegu, gizendu eta ernegatu. Jimnasia egiten badegu, nekatu eta berriketarako gogorik ez. Auxe da baterez.

Gorputz liraiña eta ariña ederra da, baiña umore pixka bat ere bear da bizitzeko. Gizenegi egin gabe, nundik eldua edukitzea txarra al da? Egurrez betetako zakua dirudian gorputza ez da gus-tagarria izango, jolas pixka bat egitea pentsatuta ere.

Gizen egote ori nola dan
itsuskeri nabarmena,
gorputzez lirain izatea da
geienak nai lutekena.
Gerrondo eta zango lodiak
ematen badute pena,
lan asko egin eta gutxi jan:
botikarikan onena.

Uda pasata iritsitzean
udazken edo negura,
arrapastaka joaten gera
danok jimnasi lekura,
milagro billa asko Lourdesa
joaten diran modura.
Baiña pentsatu jimnasi utsa
ez dala Lourdesko ura.

1993ko azaroak 12

Jaungoikoari eskerrak, umore ederreko pertsonak badaude oraindik munduan. Eta ez bapo bazkaldu eta kopatxo bat edo beste artuta tenple onean jartzen diran gizonezkoak bakarrik. Baita ingurukoak tente jartzen dakiten etxeakoandreak ere. Oiek dute meritua.

Suitzako emakume bat, zillarrezko eztaiak ospatu zituenean umore onean jarri zan nunbait. Senarra ogeita bost urtean zaintzea naikoa zala irudituko zitzaion, eta gizona salgai jarri du. Eta bere asmoa azaltzeko iragarki bat jarri du egunkarian: “Gutxi erabilli eta uso onean dagoen gizona emango nioke ondo zainduko lukeenen bati”. Eta etxeko telefono zenbakia ere bai zetorren egunkari orretan. Ala, senarra kafetxo bat artzera tabernara joan eta egunkaria irakurtzen asi omen zan, eta ez du, ba, dalako iragarki edo anuntzio ori irakurri, bere telefono eta guzti? Ori ikustean, suak eta garrak artu omen du, gizarajoa. Eta an omen ziran kome-riak. Onegia izan, gizarajoa.

Orixe da, ba, eskura etorritako aukerari alperrik galtzen uztea. Leengo emaztearen berri jakingo zuen. Eta ondo zainduko zuen beste batekin zer moduz konpontzen zan proatu besterik ez, eta asarretu alajaiña! Bere emazteak dion bezela, oraindik uso onean baldin badago, beste ainbeste urtean bizimodu berria egin besterik ez, eta gaizki artu. Esaten det nik gizonak mozolo samarrak gerala askotan. An ere emaztea azkarragoa atera da. Gizona ona zegoela oraindik eta propaganda pixka bat egin, ingurutik kentzeko plantak egiñez. “Nik ogeita bost urtean erabilli det eta oraindik balio du. Eraman ezazu, baiña ondo zaintzekotan, bestela ez dago gizonik”. Eta beste gizarajoak antzeman ez. Ez al zekien, ba, senarrak zenbat maite zuen jakin nai zuela emazteak?

Gizona asarre omen zan, baiña emazteak ondoesanean artu eta bereala engaiñatu zuen. Losintxa pixka bat egingo zion, eta musutxo bat edo beste eman ere bai, eta kitto. Laister itzaliko zuen gizonaren sua eta garra. Uso onean zegoen gizona artu nai zutenak gogoarekin gelditu bear. Aspaldiko esana da: ez sartu makilla autsiarekin maindire baten azpian lo egiten dutenen artean.

Uso onean senarra eta
ala ere baztertua.
Ona izana besterik ez da
gizonaren pekatua.

Zenbait matxardak egingo luke
sorginkerizko tratua:
al baldin bada norbaiti saldu
bere gizon osatua.

Emaztearen serbizioan
egiñik ainbeste neke,
naiz osatua egon ainbeste
estimazio nai luke.

Onenak eman dituelako
salgai jarri orren merke.
Txatarretara ez du bota ta
gustora egon diteke.

1993ko azaroak 19

Eguraldiari aiña aitzaki ematen diogunik beste ezer ez da izango. Otz egiten duelako edo bero dalako, euria ari duelako edo legor dagoelako, etxetik irten baiño leen asten gera eguraldi kontua aitzaki artuta. Kanpora irten eta norbaitekin topo egiten badegu, eguraldia aitaturko degu leenbizi. Edozein garaitan ori egiten badegu, neguan zer esanik ez. Nai badegu eta ez badegu, sudurrez aurrera neguan sartu bearrean gera oraintxe. Eta edozeiñekin itz egiten degula ere, zertatik asia izango degu emendik aurrera. Eguraldia aitaturza naiko. Zerua irabazteko penitentzia egin bear omen da. Eta udaberriko goxotasuna iritsi nai badegu, ez dauka-gu negu latzari aurpegi eman beste erremediorik. Onak ez du aldaketarik izan, aurrerapen asko badago ere.

Penitentzira joaten bagera, leengo aldean erreztasun asko dago orain. Garai batean baziran Aita Santuak edo Gotzaiak bakarrik barkatu zezazketen pekatuak. Eta gu biurriak izango gera, baiña leengoak etziran alaja zuzenak ainbeste pekatu mortal egiteko. Gure aurreko aiek ainbeste pekatu egiten zuten, alako pekatuak barkatzeko almena apaiz eta fraille batzuei eman bear izan zien Gotzaiak. Lanean aspertu zalako edo berak bakarrik barkatzeko pekatu geiegi egiten zutelako, orixe ez dakit. Pekatuek larri aiek barkatzen zituzten frailleak urtean bein Aralarko San Migelen egoten omen ziran konfesonarioan. Eta egun ari *Asolbizio eguna* esaten zioten. Abuztuaren azkenengo igandean ospatu oi zan, eta San Migel Goiaingeruaren elizak izaten zuen estimazioa.

Garai batean euskaldun asko joaten zan Amerikara, an aberasteko asmoz. Emengo mendi malkarrak famili aundi aientzat ainbat ogi etzuten emango, eta jaiotakoak nun edo an bizi egin bear, ba. Eta joan bai, baiña atzera etortzeko dirurik ezta makiña batek ezurak utzi bear izan zituen an. Ala ere, izaten ziran bapo aberastutakoak, *amerikanoak* edo *indianoak* esaten genien aieta-koak. Eta aiek ziran, batez ere, *Asolbizio egunean* San Migelera barkazio billa joaten ziranak. Berak jakingo zuten aberasteko nolako pikardiak egin zituzten Amerika aldean.

Neguak leenean jarraitzen du, baiña beste kontu aiek aldatu ziran. Aberastu dalako ez du orain kontzientziak iñor estutzen. Aberastea ez, ez aberastea da orain pekatu.

Begira nola bizi ziran len
Asolbizioaren zai.

Orrek esaten du inpernura
iñork ez degula juan nai.

Amerikano zar aiek bapo,
naikoa dirua ere bai.

Baiña ez dakit bada guztiak
bizi ote ziran lasai.

Gazte denboran naiz eta izan
ajolakabe zabarra,

zartzen danean jarri liteke
kezkaz indiano zarra.

Kontzientzia degu pakerik
ematen ez duen arra.

Diruarekin ez da estaltzen
asolbizio bearra.

1993ko azaroak 26

Garai batean neska bat bizikletan ikusten genduenean arritu egiten giñan. Eta gero neskak ibiltzeko bizikleta bereziak edo aproposak egiten asi ziran, mutillenean ibilli ezkerro gonak gora joaten zitzaizkiela-eta. Denborarekin geroz eta neska geiago ikusten zan bizikletan, eta iñor etzan arritzen. Ezta automobilla erabiltzen asi ziranean ere. Mutillak aiña eskubide badute, izan ere. Ez dira mutillak baiño gutxiago.

Ainbeste neska txofertzan ikusi nuenean, “oraintxe seguru gaituk” pentsatu nuen. Ertzaiñak ere badakite gazte asko zurrut eginda ibiltzen dirala kotxearekin, eta kargu artzen asi ziran, istripu eta ezbear asko gertatzen zalako. Neskak etzutela zurrutik egiten mutillak bezela, eta orregatik uste nuen nik neskak kotxea erabiltzen zuten artean etzala izango mutillekin ainbat istripu eta ondamendi. Baiña toki ederrean nebillen. Or nun jakiten dedan kotxe banatan zijoazten bi neskak aurrez-aurre alkar jo, eta larri zauritu, eta ilzorian gelditu ziralara. Eta, nola gertatuko eta biak edanda zijoaztelako. Alkohola buruaren puntaraiño igota zeukatelako. Egia esan, izugarrizko pena artu nuen.

Mutillak zurrut geitxo egitea eta batek besteari aizea emanez neurritik pasata txispatzea ez da ain arritzekoa, zoritxarrez. Baiña neska gazteekin etzan ori gertatzen leen. Makiña bat mutil edateari utzi eta zintzotu dira andregaija egiteagatik bakarririk. Euskalerriko neska asko, mutil eta gizon askoren salbamen izan dira, senargaia edo senarra alkoholarengandik urrutiratu dutelako. Eta orain, zer izango eta neskak ere alkoholari eman diotela, eta noiznai txispatzen dirala. Nai dutena egiteko eskubidea daukate, noski. Baiña nik ez dakit neska gazteak orren beera nola erori ditezkeen. Mozkortzeraiño edaten duenak bere burua ez du estimatzen, eta alako neska nola estimatuko dute mutillek? Geitxo edanda dagoen neska denbora pasatzeko ona izango da, baiña beretzat artzeko ez. Alkohola burura igota dagoen neskak ez du jakiten ondo zer egiten duen. Edozer gauza, edo egin bear ez duena egiteko arrisku galanta izaten du alakoak. Garaia baiño leen zaartzeko, zimurtzeko eta baldartzeko bestetarako ez da alkohola. Alkoholak begiak gorrituta dagoen neska bat ikusi edo larrosa baiño preskoagoko aurpegia daukan neska gaztearen begi ederretara begiratu, badago alde ederra.

Dana kolpean gozatu nai ta,
jaunak, aun da zalaparta!
Au zorigaitza bizitza azkar
erretzen ari gera-ta.
Orain neskatxak artu badute
mozkortutakoen planta,
gure Euskadi desegiteko
ez degu besterik falta.

Gazte artean alkoholak gaur
egiten duen arrantza!
Egunez lotan egoten dira
ta gau illunean dantza.
Jokera onek badauka ere
ondamendiaren antza,
bolara txar au pasatuko da
eta izan esperantza.

1993ko abenduak 3

Abendua etorri zaigu aurten ere asko konturatu gabe. Eta denbora urrea dala esan zuenak, ederki asmatu zuen. Urrea esatean dirua edo asko balio duen zerbait esan nai izaten degu. Eta gauza on asko bezela, diruak eskuetatik iges egiten digu geu oartzeko. Nik ez dakit beatz artetik edo nundik joaten dan, baiña ez du izaten denbora askoko iraupenik. Zorionarekin ere beste orrenbeste gertatzen zaigu. Ondo bizi gerala uste degunean okertzen zaizkigu gauzak. Gripe kaskar bat arrapatzea naiko geure onetik irtetzeko. Gorabeera oiek bizitzaren legeak omen dira, eta ez dago gaiñetik kentzerik. Al dan ondoena bizi eta aurrera! Gero gerokoak. Abendua etorri da, bere negu eta guzti, baiña ez da betiko izango. Udaberria ere berak ekarriko du, asarrealditxoak eta gozoaldia ekartzen duen bezelaxe. Illunaldia eta argialdiak eguraldian, bizitzan, an, emen, denbora eta toki guztietan izaten dira.

Egun auetan senar-emazte ingeles batzuk Europa ikusten omen zebiltzan kotxean, batetik bestera. Eta Alemaniara iritsi ziran, eta andik ez dakit nora joateko muga edo frontera pasatu bear. Senarrak paperak erakutsi bitartean emaztea komunera joan zan. Ala, paper lanak egin zituen gizon orrek, eta artu kotxea eta or dijoa berriz ere bidean. 150 kilometro egin eta beste muga

batera iritsi zan, eta zera, emaztea falta. Buelta artu eta alperrik egin zituen 150 kilometroak berriz egin bear, emaztearen billa. Etzan bereala iritsiko leengo tokira. Ainbeste denboran zai egon zan emaztearengana urbildu zanean, ez nuen antxe begira egon nai, ingeles gizarajoaren larruan. Entzun bearko zituen bereak eta bi. Aundi samarra badirudi ere, berri au onela zabaldu danerako zerbait izango da. Apustu egingo nuke zergatik izan zan asmatu baietz. Emaztea mutturtuta edo isillaldian egongo zan eta senarrari etzion itzik egingo egun guztian.

Izan ere, emazteak iztunak izaten dira nai dutenean, baiña egun artan beste aldera gertatu nunbait. Senarra alako isillaldia-rekin oituta egongo zan, eta ezta konturatu ere bakarrik zijoala. Fronteran gelditu eta bere kuttuna alboko eserlekuan ikusi etzue-nean, ura izango zan larria eta estuasuna. Senarraren erruki pixka bat geiago bear luke emazteak. Gizonok dana pazientzian eramaten degu, eta orri eskerrak.

Gogoan izan bear luteke
emengo neska gazteak,
senar inglesak dirala oso
zabarrak eta trasteak.
Andrea nunai uzten dutela
lanak ditu sinisteak.
Aien aldean maite ditugu
euskaldunok emazteak.

Aldrebeskeri ugari badu
gizon traketsa izanak.
Taju aundirik ez du andrea
nolanai galtzen duanak.
Bearko bizi maitasun gosez
senar elkorra duanak.
Andre gaixoa ezin goxatu
ark emandako laztanak.

1993ko abenduak 10

Urteko egunik laburrenatan gauden onetan sukalde txokoa goxo egiten zaigu. Barrukoak ez du jakiten kanpokoaren berri. Ala ere neguko bizitzari zumua atera genezaioke, artara ezkerro. Kontuak esateko erreztasuna eta abildade pixka bat bear. Kalean

bildutako kontuak edo nunbait irakurritakoak jorratzea ez da gaizki etortzen. Batak bestea zirikatuz parre pixka bat egitea ohea da bai, ezpaiñak zimurtuta isilik egotea baiño

Leengo batean filosofo baten kontuak irakurtzen jardun nintzan. Eta jaun orrek dioenez, senar-emazteak familiko lanak erdibana egitearekin ez da iñor arritzen gaur egun. Dendara joan eta erosketak egiteko edo aurrari ipurdia garbitzeko emazteak aiña taju eta abildade dauka senarrak. Oraingo gizonak edozein emakumek bezain ondo dakite erropak eta ontziak garbitzeko tresnak erabiltzen. Plantxan eta erropak esegitzen ere ikasi dute, filosofo orrek zioenez. Eta senarrak baiño lan geiago emazteak etxean egiten ote duen susmo ori ezkutatu da. Baiña ez dugu zoriona iritsi ala ere. “Ume orri txandala aldrebes jantzi diozu!”, eta antzekoak noiznai entzun bear izaten ditu gizonak. Aurrari zapiak nola aldatu, izarak nola tolestatu, galtzak zimurrik gabe nola plantxatu eta oiek denak nola egin, berak agindu bear duela uste du emazteak oraindik ere. Senarrak etxeko lanak egin bai, baiña nola egin, emazteak dauka azkenengo itza. Eta senarrak egindako lanari aitzakia emateko eskubidea ere badu.

Eta utsa ori bakarrik balitz. Senarra bere umetxoekin kalera ateratzen danean an izango ditu inguruko etxekoandre guztiak, “ze aurtxo polita eta zeïnen ederki jantzita...”, eta iñun diran inbusteriak egiñez. Baita ondo begiratu ere, ea gizon gizarajoaren lanari akatsik aurkitzen dioten. Kontua zera da: senarrak etxeko lanetan zerbait bazala uste, eta maistra guztiak adarra jotzen, alajaiña. Ez al da gizarajoari lotsa emateko eta lanerako gogoa kentzeko ainbat?

Eta ori baiño geiago ere esaten du filosofoak. Bere kuxkuxean jardun bearrarekin eta akats billa ibilli bearrarekin, gizonari etxeko lanak egiteko gogoa eta ilusioa kentzen dizkiotela emakumeak. Gai onetan nik ere ba det nere filosofia. Kanpoko maistra guztian berriketak alde batera utzi eta etxeko maistra eta maixua alkarrekin ondo konpontzea dala onena, alegia. Beste danak kontuak dirala.

Zortzi orduan lan egin bear
lantegi edo fabrikan,
arnas artzeko astirik gabe
gero etxera korrikan.
An ere ez da falta izaten
guretzat zer egiñikan.
Gure aldean ederki bizi
dira gizonak Afrikan.

Emaztearen lagunak ere
errukirik ez daukate.
Disimuluan ederki asko
zirikatutzen gaituzte.
Gizon txukunak eta zintzoak
gerala esaten dute,
baiña guk asko antzeman gabe
adarra jotzen digute.

1993ko abenduak 17

Ipar Amerikan esaten omen dute ango presidentea baiño bere emaztea buruz argiagoa eta bizkorragoa dala. Ura nolako nazioa dan danok dakigu. Eta Clinton presidentea ez da nolanaiko gizona izango, baiña emaztea azkarragoa baldin bada, pentsatu nolako emakumea izango dan.

Emen ere badauzkagu, ba, ustez azkarrak eta jakintsuak diran agintariak. Ain dira azkarrak, ia lur jota dagoen ekonomia altxateko, langille, jubilatuta eta lanik gabe daudenei geroz eta diru gutxiago ematen diete. Gutxi saltzen dalako lanik ez badago, jendea dirua eskutik kenduta geiago salduko ote da, ba? Clinton presidenteari asko laguntzen omen dio emazteak, batez ere erabaki zaillen bat artu bear duenean. Emengo agintariak ere edukiko dituzte emazteak. Eta oiek jakingo dute maia jakiz osatzeko zenbat diru bear dan, eta geroz eta geiago bear dala ere bai. Gai orretan ministro guztiak baiño azkarrago dira emazteak, eta jakintsuagoak. Beraz, naikoa litzake bizimodua nola dagoen emazteari galdetzea.

Ipar Amerikan gu baiño aurreratuago bizi dira. An badakite gauza askotan gizonak aiña edo geiago dirala emazteak, eta ori aitortzen ez dira lotsatzen. Alderantziz, emengo agintariak ain bizkorrak izan eta dana badakitela uste dute. Ez daukatela iño-

rengandik zer ikasirik. Baiña obe luteke, batzutan beintzat, emazteari galdetu eta aren esana egitea. Orduan jakingo luteke dendatik joan-etorria egitea zenbat kostatzen dan. Gure agintari jaunak ez dira aspertzen esaten gerrikoak danok estutu bear ditugula. Baiña, gerrikoak noiz estutu ditugu danok? Talentu aundiko gizon bakoitzaren atzean emakume bat egoten omen da ezkutatuta. Amerikako presidenteak badauka berea, ikusten danez. Jendearen aurrean ez dio esango “au egingo bazendu” edo “bestea egingo bazendu”, baiña biak bakarrik daudenean, ezkutuan dagoenean, bein baiño geiagotan esango dio “au egin bear dezu”. Eta ez dirudi Amerikak orrekin kalterik daukanik. Emengo agintariak ez al daukate, Clintonek bezela, zeñek agindurik? Ala, ez ote dira talentu aundiko gizonak?

Bere garaian oso polita zan artista batek esan du gizonak oso listoak dirala, baiña emakume bat bear dutela inguruan. Berak gizon asko ezagutu ditu eta zerbait jakingo du, seguru asko.

Lenegotikan paradisuan
Adan bakarrik egonik,
istori zarrak ez du esaten
oso gustora zegonik.
Jainkoak ere lagunik gabe
etzun utzi nai gizonik,
zekielako andrerik gabe
etzula egingo gauz onik.

Alproja gizon egin liteke
andre on bat mediante.
Emakumeak gizon baldarra
txukundu oi du dexente.
Zerbait agintzen digutenean
jarri bear degu tente.
Gustokoren bat ea jartzen dan
Amerikan presidente.

1993ko abenduak 24

Gaur Gabon. Bi itz auekin gaur adierazi liteken guztia esanda dagoela ematen du. Aitzakirik asko izaten degu batzutan, baiña egun politak ere kentzen dizkiogu Jainkoari. Eta Gabon eguna da

auetako bat. Eta bere modu batean bizi dan familian ilusioz betetako eguna izaten da Gabon eguna. Eta gaua zer esanik ez. Gazteak dauden familietan badakite zerbaiten egarri antza izaten. Neska eta mutil, bere garaian saltakor samarrak izaten dira eta zerbait geixeago nai izatea ez da arritzekoa. Gazteei ori barkatu bearra dago. Ala ere, aurpegi alaiak ikusiko dira gaur sukaldean. Illunabarreko lagunarte alaiaren ondoren etxeko danak alkartuta afaltzeko eguna baita gaur. Lanik geiena amak egin bearako du. Aurreko egunetan ere gaurko afariak emango zion buruausterik asko.

Amaren maitasuna eta borondateak ez du ordea neurririk. Eta iñork asmatzekotan, amak asmatuko du etxekoen gustoa egiten. Aitak ere lagunduko dio, noski, eta pozik gaiñera. Gazteak esandako ordurako inguratzen badira, eta bere parre gozoz afaria alaitu, eginkizuna beteta daukate. Aitak eta amak egingo dituzte beste eginbearrekoak. Batek besteari pakea opatzeko egun berezia da gaur. Asi gaitezen etxetik, familietatik gizartera pakea zabaldu dedin, badago premi ederra-eta. Gabonetako familietako zoriona gazteen esku dagoela batez ere esango nuke. Eta gaurkoagatik berriketak alde batera utzi eta aitaren eta amaren ondoan soseatzen badira, gaurko afariak grazi guztiak berekin izango ditu. Gazte askok ez daki oraindik alkarrekin ondo konpontzen diran seme-alabak mai baten inguruan alai eta parrez ikustea nolako zoriontasuna dan gurasoentzat. Oitura eta kanta zaarrak berrituz kaleak alaitzea oso ondo egiten dute. Baiña etxea alaituz gurasoak pozten ere badakite. Eta ori ere egingo al dute, batere euskaldun sentitzen badira beintzat.

Nai duten guztiak ez dute gaur etxean afaltzerik izango, zoritxarrez. Aiekin aaztu gabe, saia gaitezen Gabon zoriontsuak igarotzen. Aitaren itzalak pakez babestu dezala gure etxeko sukaldea, eta amaren maitasun paregabeak gorde ditzala danak alkartasunean. Gabon eta Eguberri zoriontsu opa dizuet guztioi.

Ai, zeñen egon alaiak
guretzat Gabon jaiak,
badirudite eztaiak.
Alkarrengana bildurik danok
guraso eta anaiak,
jaki goxoen usaiak,
aingeru eta artzaiak
pozten gaituzten garaiak.

Mundu onetako lanak
dauzkagun zer eramanak
bizi bearrak emanak.
Jauna goralduz gure artean
pake billa dabilzanak,
Belengo Aurtxo laztanak,
gero gugatik il zanak,
onetsi ditzala danak.

Iñori gaitzik ez egin
eta ez mintzatu gordin.
Danak aintzat artu berdin.
Gure biotzen zerua beti
gorde bear degu urdin.
Saia gaitezen alegin
ain maite degun Euskadin
beti Gabon izan dedin.

1993ko abenduak 28: Inuzente eguna

Ostirala da eta emen natorkizue gaur ere zerbaiten berri emateko asmoz. Izan ere, Euskal Telebistatik deitu didate gaur goizean, eta Segura alde onetan egundoko ikuskizuna antolatu dutela eta orren berri emateko eskatu.

Emendik orduerdi batera edo, Telebistan Marrazki bizidunak egiten dituzten artista guztiak Segurako plazan izango omen dira. Pantera arrosa, Dragoi bolak, Piratak eta nik ez dakit zer geiago. Esan didatenez, denak autobusean etorriko dira, eta sekulako komeriak egingo dituzte plazan. Gero, Baratze pelotalekura joango dira, desfilean, Iñaki Perurena kapitan dutela. Eta an pelikula bat egin bear dute, gero Telebistan emateko. Besteak beste, Perurena ikusiko da arrijasotzen. Irureun eta berrogeita amar kilo-

ko arria jasoko du gaur. Naiko aundikoa badala esan diteke, baiña etxean probak ondo eginda etorriko da Leitzako mutilla, eta aixa jasoko du.

Ez dira nolanaikoak gaur Seguran dauden ikuskizunak. Baiña Telebistatik ez da emango oraingoz, eta ikusi nai duenak badaki zer egin, Segurako Baratze pelotalekura joan. Sarrerak doan, debalde izango dira.

Gusto badezute, gero arte danoi.

1993ko abenduak 31

Urte au ere joan zaigu, ba. Azken igurtzia gaur eman bearko diogu. Eman dizkigun jipoiak barkatu eta egin dizkigun mesedek eskertzea izango degu onena. Izan ere, urte onetan nai genduen bezin ondo izan ez bagera, erru guztia etzan urtearena izango. Ipar Amerikako presidente batek esan zuenez, zoriontsu zenbaiteraiño izan nai degun, ainstesteraiño izaten gera. Geuk aukeratzan degu, bada, geuri dagokigun zorion mailla.

Urtezaarrak gauza bat izaten du ona: urteberria emen utzita joaten dala. Dijoanari ez dago isatsetik eldu eta eusterik, eta datorrenari asiera on bat ematen badiogu, orduan asmatuko degu. Ondo asitako gauzak ondo bukatzen errezago izaten dala esaten dute gaizki asitakoak zuzentzen baiño. Ea, bada, berri ori zuzen eramaten asmatzen degun.

Egun auetan urte mardul eta ederra opatzen diogu alkarri. Mundu onetan era askotako fariseoak gaude ordea, eta zorion ametsak egi biurtzeko lagun koskorrek dira oiek. Amerikako presidentek esan zuena egin bear genduke. Zoriontsu izatea erabaki. Ez da errezata txarra. Eta dana ezin badegu, botika orren erdia artu beintzat. Ondo bizitzeko, daukagunarekin konformatzea bezelakorik ez dago. Baiña orretarako, konformatzeko ainbat bear ordea. Gabon gauean etxean egon ziran gazteak gaur ere ez

dute afari txarra edukiko, baiña ez da egongo etxean gelditzeko esan besterik. Konformatzeko afari ona baiño zerbait geiago nai dutelako da ori. Ondo afaltzea ona da, baiña lagunarte atsegiña ere bai. Eta biar goiz aldean neka-neka eginda etorri naiago izango dute, aita eta ama zaarrak esaten dituzten kontuak entzun baiño.

Urtezaar gaua lagun artean parranda egiteko izaten da, eta gazteei ez dago ori burutik kentzerik. Dantza saio batzuk egin eta iñork lagundu bearrik gabe sano etxera etorri ditezela, eta ura da naiko. Biar amari sukaldeko lanak egiten laguntzea ez litzake gaizki egongo, baiña ori noiz egiña izango dute gero ere, eta gaurkoagatik utzi dezaiegun pakean. Ori da bear dana. Bai urtea ondo asteko eta bai familian pakea eta bizitzeko poza izateko.

Urtezaarra ondo amaitu eta berria ondo asi. Urrengorarte.

Oraintxe ia iritsi zaio
urteari bukaera;
gaur urte bete jaio zan eta
bai asi ere gainbera.
Sortutzen diran gauza guztiak
dijoaz ezereza.
Eta urtezar, zoaza ondo
denboraren illunpera.

Gure artean izaten degu
naiko saltsa ta naspilla.
Alkarrentzako borondatea
daukagu oso debilla.
Urtezar, gaurtik asiko gera
mundu obe baten billa.
Eta zuk esan Urteberriri
ondo portatu dedilla.

Agur

1994

**Surtan jarrita
probatzen da eltzea**

1994ko urtarrillak 7

Bata eta bestea esaten degu, baiña urte berri bati asiera emateko zoria izan degu beintzat. Egun auetako parranda kutsuak joango ziran onezkero, eta ea aldi berri oni pulamentuz eldu eta taju antzean bizitzeko modua egiten degun. Negu beltz onek lanak ematen ditu, baiña kottak alde batera utzita ez ote diogu, ba, gogor egingo?

Iru erregeak ere egin digute urteroko bisita. Danen gustoa egin ez badute, ez ote da izango askotxo eskatzen degulako? Nola eta ikatz koskorren bat ez diguten ekarri, ikasi dezagun esker onekoak izaten. Egia da urte zail samarrak etorri zaizkigula, eta baliteke pazientzia artzen naiko lana izatea. Eta konformatze ezkeronai degun guztia ez bada ere, premiak estaltzeko lain bear da. Premian dagoenak ez du berriketarako gogorik izaten. Eta kontsejuak ematen dituztenak jakin bear dute orrenbeste. Aurten ere izango dira txarraldiak. Eta orrelakoak datozenean, al dan moduan aurpegia eman bear. Baiña ez etsi beintzat. Urte osoa joaterako egun obeak ere etorriko dirala pentsatu eta aurrera. Patal samar gabiltzenean ez degu aaztu bear ori. Orainaldiari zumua ondo atera joandakoari ez dago isatsetik eltzerik-eta. Ez du balio au egin banu, edo ura egin banu esateak. Mundu onetara etorri zerua irabazteko sufritzera etortzen giñala esaten ziguten leenago. Baiña goiko eta beeko, danok ondo bizitzen saiatzen gera. Izan ere, ez ote du zerua irabazteko ainbat meritu, nork bere burua ondo zaindu eta iñori kalterik egin gabe mundu koskor au al dan ondoena eramateak?

Oraingo bizimodu zalapartatsu onetan umore txarrak eta petralkeriak jotzen gaituztenean, bizitzeko pozik gabe gelditzen gera. Gorputza sano edukiarren, anima gaixotzen zaigu nunbait. Anima sendatzen duten jakintsuak badauzkagu: sikologoak, sikiatrak eta orrelakoak. Oiek esaten dutenez, kezka artetik irten ezinda gabiltzanean baikor, optimista izan bear degu. Onaldiei etekiña ateratzen eta duten balioa ematen jakin bear omen da, ondo bizitzeko. Ea, ba, oraingo bizimodu zaillak askorentzat duen tristura uxatzen laguntzen diguten sikiatra oiek. Ezkorrak baikor biurtzea zailla da, baiña eziñezkoa ez. Eta gauzak ondo amaituko badira, ondo asi bear dira, aurreko batean ere esan nizuenez.

Bada ez bada ere, urtea aalik ondoena astea izango da onena. Bizimoduak ondu premia badauka, eta ea aurpegi emateko moduan izaten geran. Alegiñak egin ditzagun beintzat.

Urteberri emen da
ondo dakigunez,
ikusi degunez.

Eta artu dezagun
danok maitasunez.

Ez dezaiogun erantzun
aurpegi illunez,
baizik gorde gaitzala
pijo erantzunez.

Ta eskertuko degu
urtezar egunez.

Epe luze samarra
ipiñi diogu,
ori badakigu.

Baiña berak bear du
egin bere kargu.

Baldin ondo izaten
laguntzen badigu,
nai aiña pelotilla
egingo diogu.

Ematen digunaren
lagunak gera gu.

1994ko urtarrillak 14

Garai bakoitzak bere modak izaten ditu. Leenago neska laguntzea bezela, ligatzea dago orain modan. Nik ez dakit kontu

moderno auen berri, baiña ligatzeak neska-mutillak alkarrekin arremanetan astea edo orrela esan naiko duela nago. Leenago mutillak joaten ziran neskatxengana, dantzara ateratzeko aitzakian edo itz egitera. Eta neskatxak mutillengandik igesi balebiltz bezela, sekulako plantak egiten zituzten naizta mutillen bati itz emateko irrikatzen egon. Ori xaguak katuari eldu nai izatea bezela omen zan. Baiña orduko kontuak eta lotsa itxurak joan ziran, eta orain nola neskak ala mutillak, ligatu egiten dute. Garbi itz egiteak bere abantailak baditu, eta garaian garaiko kontuak diranez, ez det pentsatzen ligatzea gaizki egongo danik.

Ala ere, nik ez dakit oraingo ligatze onek leengo antzera neska-mutillak lapurretan bezela eta disimuluan alkarrekin topo egitean biotza saltoka jartzen duen. Ez dakit mutilla iztmodelduta eta neskatxa koloreak gorri-gorri eginda gelditzen diran alkar ikustean. Baiña baliteke ligatzea aurrerapena edo adelantua izatea, eta zer esango degu? Aurrerapenak makiña bat korrika eragiñerazten digute. Eta Europako zenbait naziotan gazteak ez omen daukate ligatzeko astirik. Neskatxen bat edo mutillen bat inguratu nai dutenak, egunkarietan iragarkia jarri, eta orrela moldatzen omen dira. Al duten moduan, jakiña. Baiña auxe ere naiko otza eta geldoa izango dala iruditzen zait. Ille beltza edo oria daukan ikusi gabe, eta alkarri goxo-goxo eta ilusioz begiratu gabe, zenbat irabazten duen eta orrelakoak telefonoz galdetuta ligatzea, oliorik gabe azak jatea bezelatsu izango dala esango nuke. Neska edo mutil batekin arremanetan asi aurretik, nolako begiak dauzkan, sudur polita daukan eta maitatzeko modukoa ematen duen ala ez ikustea bearrezko izango da, orratik. Kontu potxolo batzuk esan gabe, eta muxu goxoak ematen dakien ala ez proatu gabe alkarrekin tratuan astea ere ligatzea al da? Liga, gomazkoa izaten da, eta geitxo estutzen bada ondorio txarrak ekarri lezazke. Eta lasaitzen bada, sakanabatu. Ligatzeak izango ditu bere arriskuak. Zakurra zaunkaz ez jartzeagatik alkarri isil-isillik itz egiñez egiten ziran promes goxo aiek ez ote ziran gero obeak izango?

Gauzak onela aldrebestuta
zeiñek ez du itz egingo?
Amodioa indartzeari
ez ote zaio ekingo?
Aurki gazteak ligatzen ere
nola ez duten jakingo,
telefonotik pekatu asko
ez dute beintzat egingo.

Presaka bizi bear legorra
nola dan asko zabaldu,
maitasunaren goxotasuna
orra nola degun galdu.
Gazteak alkar maitatzearen
alde nai nuke azaldu.
Noizean beingo musutxo batek
pekaturikan bai al du?

1994ko urtarrillak 21

Nik ez dakit toki batzutan gertatzen danak, edo ango bizimoduak emengoarekin zenbateraiñoko zerikusia edukiko duen. Emen geiena daukanak agindu izan du, eta ark agindutakoa egin bear izaten da. Ori tokirik geienetan gertatzen da, noski. Eta Txinan ere bai, seguru asko. Oitura setatsu ori mundu guztira zabaldua baitago. Ala ere, Txinan gertatzen dira emen gertatzen ez diran gauzak. Aiek ere guk bezelaxe arrapatzen dituzte kasketaldiak. Eta gu bezelaxe jartzen dira jenio txarrean, petralduta. Orretan ez degu, bada, edukiko alde aundirik. Baiña jenio txar ori menderatzen guk baiño obeto dakite aiek, itxura danez. Orregatik, guk gure artean ez bezelako pakea daukate bere artean. Ez da zailla ere, alde batera. Izan ere, guk gizatxartzen geranean alkarri errietan egiten diogu. Eta aiek, iñori kasorik egin gabe, nora edo ara korrika iges egiten omen dute. Jenio txarra uxatzeko korrikaldiak egiteko toki aproposak daukate kamiño bazterretan, errietan, zelaietan eta mendietan. Eta toki oiek bere seiñale ta guzti daude. Eta petralduta edo kasketaren batek arrapatuta dagoen jendea bakarrik ibiltzen da. Eta jendeak egiten dituen zilipurdiak, saltoak eta imintzioak, ikusi gabe egin bear dira.

Euskalerrian ere badaukagu orrelako leku batzuen premi ederra. Eta alkarri mokoka jardun gabe, batera eta bestera korrika

eta zilipurdika ibilliko bagiña, eta petralaldia pasatutakoan alkarrekin patxaraz itz egin, orain ainbat oillar kukurruku eta zakur zaunka entzun gabe biziko giñake, seguru. Segurako maduran ez legoke toki txarra ipurdia erreta dagoen jendea korrika asteko. Leenago soro ziranak orain belardi daude, eta aietan zilipurdi batzuk egin litezke, sokor artera erori eta min artzeko bildurrik gabe.

Eta buruz beera eta anka gora, neka-neka egiten diranean joaten omen dira lanera leen esandako txinar oiek. Orra gorputza osasuntsu eta anima paketsu edukitzeko modua. Gu asarretu egiten gaitu nekeak, txinarrak berriz, umore onean jarri. Euskaldunoi komeni litzaiguke Txina aldetik bueltatxo bat egitea. Baiña gauzak dauden baiño obeto jartzen ez badira, geure umore txarrarekin jarraitu bearko.

Ez da zalantzik gizon bizkorrak ditugula txinatarrak.

Oiek ez ditu iñoiz erretzen lan edo umore txarrak.

Nai ez dutela eldu ezkeru umorealdi zakarrak, korrika iges egiten dute arturik su eta garrak.

Txinatar oiek gure eskerra merezi dute, nik uste, gauza berriak asmatutzeko izanik ainbat birtute.

Korrika mota xelegre asko moldatu omen dituzte, eta jenio txarra austeko makina asmatu dute.

1994ko urtarrillak 28

Mundu onetan aldi edo garai guztiak izaten dute bere ezaugarria. Seiñale bat. Eta bizi geran garai onetan ezerekin ez gera arritzen. Auxe izango da aldi onen ezaugarrietako bat. Beste seiñale bat, goiko maillan dauden jende oiek esaten dituztenak ez sinistea da. Izan ere, esaten dutena ez dute egiten, eta nola sinistu? Eta ez sinistearekin ez arritzea, arritzekoa al da?

Orain atera diguten asmakizun edo inbentua ere ez da nola-naikoa. Azkenaldi onetan auto gutxi samar saltzen omen da. Eta orrek lana gutxitu du. Eta kotxe fabrika geiago izan dedin, ordu gutxiagoan lana egin bear dala esan dute. Eta, jakiña, soldatak ere al dan gutzia kimatuko dituzte. Langilleei gutxiago ordaindu, itz gutxitan esateko. Diru gutxi zan garaia ondo ezagutu genduen. Etzan orduantxe kotxe asko saltzen. Baiña orain ere jendeak gutxi irabazten badu, kotxeak sobratuko dira. Ez da lan asko izango automobillak egiten. Nola sinistu, bada, gure agintari jaunak esaten dutena? Zein arrituko da oiei ez sinistearekin, sinisteko moduko gauzarik ez dute esaten-eta? Sarritan entzuten dan gezurra, azkenerako egi biurtzen da. Eta orregatik esango dizkigute orrelako kontuak, agian, ea entzunaren poderioz sinisten ditugun azkenerako.

Dana dala, lana izango bada, soldatak jeitsi bearra dagoela esan dute, nai eta nai ez. Baiña jaitsi, langilleen soldatak bakarrik. Diputatu eta orrela goiko jaun oienak jaistera ez da komeni. Madrیدهko Lege Biltzarreko diputatuak illean 500.000 pezeta jasotzen dituzte. Baiña soldata ori ez dago jaisterik, diru orrekin illaren azkena arrapatu eziñik dabilzala-eta. Norberak erabakiko du zer pentsatu. Baiña milloierdi batekin illabetea pasatzen ez duenak ez daki etxea gobernatzen. Eta oiek erakutsi bear al digute guri zer egin etxean? Ez dauzkagu maixu txarrak. Ezaldia, krisia dagoela? Oiek baiño itzai oberik ez bada, berriz ere gure lerak tarraka ibilli bearko du, errez ibiltzeko gupillak oientzat bakarrik izango dira-eta.

Auxe da mundua! Ez gerala arritzen? Nola arritu, aldrebeskeria besterik ez degu entzuten-eta?

Milloi erdia illean eta
alare ezin bizita?
Eskola asko ez dakitela
jarria nago etsita.

Gure etxera bear luteke
jaun oiek egin bisita,
laister lirake laurdenarekin
bizi izaten ikasita.

Min ematen du jauntxo batzuek Zenbaitentzako ez du kezkarik
edozer gauz esateak. iñori min emateak,
Orra zer duen erreparorik bestela nola arraio esan
batere ez izateak. olako disparateak?

1994ko otsaillak 4

Negu garai onetan axeriak larri samar ibiltzen dira. Gizen eta guri egoteko otsailla baiño garai obeak badituzte urtearen barruan. Neguan ondo moldatzen diran axeriak ere badira ordea. Galdetu bestela idiazabaldarrei. Naiko artoa jandako baserriko oillasko ankaluzeak istillu gorri daukate egun auetan. Ondo bizitzen dakiten axerien kontuak.

Ostiral gaua ezkeron nunai izaten da festa orain. Eztago Sanblasak etorri zai egon bearrik. Festak izaten dute tira egiten duen zerbait, eta orri iges egitea zailla da gazteentzat. Ez da arritzeko. Gertatzen dana da, errietan festak asten diranean asten dirala kezka eta bildurrak ere. Eta onek ematen ditu lanak familiaritan. Gauezko ibillerak dirala eta abar. Ala ere, erru guztia ez degu gazteen bizkarrera bota bear. Etxean nolako giroa daukagun begiratu bearko degu leenbizi. Gurasoak estu samarrak izaten dira batzutan, eta zorrotzak ere bai. Umeak ez dira beti mendean eduki bear. Seme-alabei bear bezelakoak izaten nola erakusten zaien ikasi bear du gurasoak leenengo. Kontu izan gurasoen eskola ez dala ori ta orrenbestez amaitzen. Sikologoak eta aur ezitzailleak esaten dute, gogor artuta azten diran umeak gogorrek izaten dirala gero ere. Semeari eta, batez ere, alabari obeditueraztea oso erreza da. Baiña orrekin ez da lortzen umeak gurasoen bildur izatea besterik. Eta orixe da umei gezurra esaten erakusteko sistimarik onena. Ori baiño ohea da ondo portatzen erakustea, eta esanak zintzo egiten dituztenean saritzea. Guraso gogorren umeak beti bildurrez egoten dira, eta zigorretik libratzeagatik gezurra

esaten badute, ez arritu. Bildurra eta konfiantzarik eza lagun txarrak dira etxekoak alkarrekin ondo konpontzeko. Beti errietan jardun gabe umeei bear bezela txukun itz egiten bageneki, beste modu bateko gaztedia edukiko genduke. Gazte askok gaizki itz egiten badu, ez al da izango etxean gaizki ikasi duelako?

Dana dala, urte guztirako festak dirala-eta, ezin jarriko gera urte guztirako bildurrez. Gazteei pazientzi pixka bat artu, txukun itz egiten eta formalak izaten erakutsi eta lagundu. Eta dana ez bada ere geiena eginda daukagu. Eta orrela festak ez digute ainstesteraiñoko buruausteriki emango.

Negua naiko garai kaskarra
izanik axerientzat,
oillo zarraren salda ederki
etorriko da oientzat.
Eta Sanblasak onak badira
idiazabaldarrentzat,
jai eta festak asi dirala
ta ez asarretu beintzat.

Festa egunak familietan
eman izan dute lata,
gazte ta zarren artean zenbait
tirabira dirala-ta.
Gauz gutxigatik ez dezagula
atera ainbat zarata,
festak baiño gaitz okerragoak
mundu ontan badira-ta.

1994ko otsaillak 11

Makiña bat denboran bizi izan giñan Erromatik ematen zizkiguten aginduak eta erakutsiak errespetatuz. Aita Santuak Erromatik esaten ziguna zintzo egin bearra zegoen. Ala ere, ez dakit, ba, Aita Santuak bezin erakutsi onik beste iñork ematen ote duen. Sakela bete ezker, besteengatik ajolarik etzaion maixu asko dagoela iruditzen zait.

Egia esan, Erroman ere era askotako maixuak daude. Eta ango maistra guztiak ez omen dira oso santu-santuak. Maistra oietako bat, geiegi erakusten zuelako eskolatik bota egin dute. Baiña ez ordea eskola geiegi erakusten zuelako, beste zerbait era-

kusten zuelako baizik. Gona motx-motxak jantzita eta paparreko leioa zabalik zuela joaten zan eskolara. Eta sillan eseri bearrean, maiaren gainean eseri eta andik ematen zituen bere erakutsiak. Eskolaren orde z zer erakutsiko zuen pentsatuko dezute, nik esan gabe ere. Nolanai ere, eskola berde samarra izango zan. Kontua da, maistra ori eskolatik bota dutela, eta mutikoak an gelditu dira ez ikasi eta ez ikusi, naiko penarekin eta triste.

Jerusalem aldeko kontuak ere sarritan aitatzen ziran garai batean. Judea, Palestina eta oiek lur santuak ziran guretzat. Baiña ez dakit lur aietan santu asko azten danik orain. Lur oiek santu aiña deabru ematen dute. Begira: gizon batek, ezkondu eta bi ordura dibortzioa eskatu du Jerusalemen. Bazkaltzen asterako emaztea ez nora eta ez ara ezkutatu omen zitzaion. Eta alako batean sekulako suspirioak entzun zituen gure gizon orrek. Zer izango, eta bere emazte kuttuna gazte denboran lagun izan zuen mutil gazte batekin arrapatu zuen, illunpe batean. Berriemailleak ez du esaten zertan ari ziranik, baiña ez da egongo galdetu bearrik ere. Entzuten ziran suspirioak eta antsiak zerenak ziran naiko garbi egongo da.

Erromako ura bezelako maistra izan bagendu, geran baiño espabilatuagoak izango giñan, eta guk ere jakingo genduen gauza oien berri. Jerusalem aldetik jiratxo bat edo beste egin izan bagendu ere bai, seguruenik. Orretarako ez genduen izan aukerarik ordea, eta orain errosarioa sarri-sarri errezatzen duten amonaxoak ere guk baiño geiago dakite. Ikusi bestela onelako kontuak entzuten ditugunean zeñen gustora parre egiten degun.

Nun ote da len kristauak zuten
errespeto zintzo ura?
Saiatzen ziran onak izaten
gero joateko zerura.
Gaurko jokera ikusi eta
ematen diot itxura,
deabru danak badatozela
inpernutikan mundura.

Oitura onak ziran len baiña
zabartu gera ordea.
Eta uste det artu dutela
naiko kolore berdea.
Jerusalemen eta Erroman
narrastu zaigu jendea;
eta emen zer egingo degu?
Au da formalidadea!

Iñoiz ezpaina zimurtu eta erretxinduta jartzen geranean, bizitza filosofiarekin artu bear dala esaten digute. Baiña zer esan nai ote du orrek? Uskeri bategatik ez degula estutu bear. Edozer gauza gertatzen zaigula ere, tenpletik irten gabe aurpegia eman bear diogula bizitzari. Umorerik txarrenean jartzen gerala ere, munduak bere artan jarraituko duela eta pazientzia artzeko. Ipurterrea izatea baiño obe dala gibelaundia izatea.

Itxaropenik gabe eta ernegatuta bizi diranak animatik gaixo egoten omen dira, eta sikologoak dira orrela daudenen sendagille. Eta mediku oiek bai bearko dutela sikologia eta pazientzia. Beste batzuk berriz, burutik arinduta egoten dira. Eta aiek ere norbaiten laguntasuna bear, ba. Eta orrelakoak pixka bat konpontzeko sikiatrak daude. Beraz, kontuz ibilli sikiatraren bearren gaudela esaten digutenean, ori itokiñak dauzkagun seiñalea da-eta.

Aspaldiko esaera da onako auxe: “leenengo bizi eta gero filosofatu”. Leenengo ondo bizi, eta kontseju onak eta oiek gero-ko utzi bear dirala, alegia. Dotriña au gazte jendeak iñork baiño obeto dakiela esango nuke. Orain bizi beintzat, eta gero gerokokak. Eta ez dakit gaiñera arrazoi ez ote duten izango. Izan ere, kutiziak eta ondo bizitzea alde batera uzteko, zerbaiten itxaropena nai litzake gerorako, bestela alperrik penatzea da. Ala ere, ezeren itxaropenik bai al dauka gaurko gaztediak? Agintariak eta politikariak, eta gaiñontzekoak saiatzen al dira gazteei bizitzarako bideak ideki eta errezten? Gazteak ez geranok ere al degun ondona bizi, eta filosofatzea gerorako uzten degula esango nuke. Urteetan sartutakoan ikasten degu munduko berri. Eta orduan asten gera gauzak nola diran pentsatzen. Orduan asten gera filosofatzen. Gazteak ez dira garai orretara iritsi, eta ez da arrigarri buruan aize pixka bat edukitzea. Leenago, dantzan egitea pekatu zanean, dantzarien erdian inpernuko deabrua ibiltzen omen zan. Eta orain alkohola ibiltzen da dexente gazteen artean. Naiko etsai

txarra. Baiña orren lekuan gerorako itxaropen aundia baleukate, gertatzen dan aiña ezbear ez litzake gertatuko, seguru asko. Familietan ez litzake izango ainbeste desgrazi eta naigabe. Eta gogoan izan erru guztia ez dala gazteena. Gazteen alde ezer egiten ez dutenena ere bai, noski.

Oraiñaldian naiz ta ez egon
gazteentzat giro onik,
ez det pentsatzen gazte artean
gizon gairik ez dagonik.
Gazteak ezin zuzen jokatu
zar jendea lo egonik,
itxaropenik ez dan lekuan
nola ez dan zorionik.
Gero ez esan gazteetatik
ez datorrela gizonik.

Gaztediari traba geiegi
ez diogu bear jarri.
Guztiok gera alkarren bear
eta lagundu alkarri.
Gazte jatorrak asko daudela
zeiñek ez dio igarri?
Gizatasunez alkarrekin itz
egin bear degu sarri,
komeni zaigun pake giroa
nai baldin bada ekarri.

1994ko otsaillak 25

Besteei aitzaki eman, baiña gizonak ere ez gera santuak. Burugogor samarrak gera. Batetik eta bestetik etortzen diran berriak orixe bera esaten dute. Eta ez gera burugogorrek bakarrik, ez. Baita arroskoak ere. Agintari mailla geienetan gizonetzkoak dira nagusi oraindik. Ez errietan eta nazioetan bakarrik. Elizan ere gizonetzkoak agintzen dute. Eta ez dago emakumezkoek leku pixka bat egiteko esan besterik. Ez det uste pekaturik egingo dedanik etxean ez beste leku guztietan gizonetzkoak agintzen dutela esaten badizuet. Eta eskerrak etxean beintzat mende samarrean gauden, bestela zer izango ote litzake? Pakea ona izaten da, eta emazteak isillik uzten digute noizik bein. Naiko egiten dute.

Gizonezkoak arroak gera askotan. Pentsa, emakumeak kinielak egiten ere ez dakitela uste izaten degu. Nola, ba, futbol kontuan Toshack eta oiek danak baiño geiago dakigu geuk-eta? Italiako erri koskor batean eman dute ederki orren berri. Diotenez, senarrak ez zuen sekula kinielarik asmatzen. Eta alako batean, berak esango ziola zer jarri agindu zion emazteak. Eta kiniela egin alkarrekin egin bear zutela. Berak esandakoa jartzea naikoa zuela, eta argi ikusiko zala futbol kontuak zeñiek zekizkien ondo. Ala, sukaldeko ontziak garbitzen ari zala, *X / 2* andreak esan eta gizonak idatzi, kiniela ori egin dute, ba. Baiña senarra kasketosoa izan, eta ez zituen andreak esanda bezela errespetatu bi zenbaki beintzat. Gero zer gertatuko, eta berea egin bai, baiña kale! Emazteak esanda bezela egin izan balu, laureun eta irurogei milloi pezeta kobratuko omen zituzten. Gizona txotxoloa izan ordea, eta batere gabe gelditu dira. Eta ez senarra bakarrik, baita emaztea ere. Irabazita zeuzkaten milloiak aizetara bidali gizonak, alajaiña. Gozoa izan bear zuen emazte gajoak! Pentsatu omen du senarrari bizkarra bero-bero egitea, baiña zertan ibilli berriketan alako alprojarekin? Etxetik bota du, or konpon! esanda. Eta ez jartzeko geiago aren begien aurrean. Orain gelditu da ondo, ez emazte eta ez diru. Etzuen besterik merezi. Isil-isillik emaztearen esana egin izan balu, millonario eginda zegoen orain.

Ikasi bear degu
al bada iñundik,
txukuntasuna falta
zaigula oraindik.
Geurea egin bear
nundik edo andik,
eta gozotasunik
ez dago emendik.

Ez arrotu guztia
nola ez dakigun,
andreari agintzen
utzi dezaigun.
Kinielak egiten
zintzo egin lagun,
basoerditarako
lain izan dezagun.

Mundu biurri au dagoen tokian utzi eta zerura joaten diranak goi artan toki onen bat aurkitzen dute. Aruntza joateko emen ondo portatu bear omen da, baiña bizilekuz aldatzen diranean, ez dute esaten atzera etorri bear dutenik. Ez dute gaiñera iñoren bearrik izaten. Familikoak, aaideak eta mundu onetan izan zituzten lagunik onenak ere alperrik dira aientzat. Eta guri aldagoia eta bisutsa ekartzen digute laiñoak, baiña ez digute abisatzen izar ederren artean zer moduzko bizimodua darameten. Beste munduko bizitza eroso eta atsegiña zala esan omen zion apaiz batek Uztapide bertsolariari. Zerura joaten ziranak nai aiña zorion izaten dutela, betikotasun osoan. “Baiña orretarako il egin bear ordea”, erantzun zion Uztapidek.

Errusiako astronauta bat zorion orren ondoraiño joan da oraintsu. Il bearrik gabe, gaiñera. Ark egingo ditu parreak gu munduan alkarrekin konpondu ezinda ikustean! Bere amets guztia goialde orretan denboraldi batean bizitza izan omen da, eta pozez zorutzen dago eguna noiz iritsiko zai. Baiña berak baiño irrika aundiagoa dauka bere emazteak. Orra gauzak nola izaten diran. Senarra pozik dagoelako poztu dala bera esaten omen du. Orixe da disimulatzen ondo jakitea. Laureun eta ogeita zazpi egun pasatu bear ditu senarrak izar arteko hotel atsegin artan. Eta ainbeste denboran pakean utziko diola-eta, pozak zorutzen dago andrea. Eta zearo aztoratuta dabil gaiñera. Senarrari baiño erreza-go ametsa egi biurtu zaio. Izan ere, sekulako ariketa eta entrena-mentuak egin bear izan ditu senarrak joan-etorri luze orretarako prestatzeko. Emazteak berriz senarrari kontu batzuk esan, eta dena eginda.

Auxe ere komeria da, ba. Senarrak sekulako izardiak atera bear emazteak bere kutizia bete dezan. Eta andrea lasai, senarra berriz ere etorriko dala-eta. Datorrenean losintxa pixka bat egingo dio, eta orra aldi baterako pertza konponduta. Mundu au orre-

laxe da. Gizonak agindu, baiña emakumeak nai duena egin. Eta onenbestean gabiltzanean, gustora. Zer egingo degu?

Oraindik ere gizon fiñetik
badago naiko aukera,
bestela ezin entrenatuzen
ainbat izardi atera.
Gero umil ta isil-isillik
joateko izar artera,
emazteari zeruetako
ateak idekitzera.

Baiña jakiñik senarra joan ta
emaztea poztu dana,
pentsatzen nago disimulan
egin ote duen lana.
Eta auxe da besterik gabe
orain galdetzen dedana:
senarra ala emaztea da
zerua iritsi duana?

1994ko martxoak 11

Garai batean baziran bere ondasun guztiak Elizari edo komenturen bati uzten zizkietenak. Orrelakoak egin, aundizki jendeak egiten zituen batez ere, orrela bere pekatuen barkamena eta zerua seguru iritsiko zituztelakoan. Diruarekin nai zutena egiten oituta zeuden munduan, eta beste munduan ere orrela izango ote zan, ba.

Txantxetan ari geranean orrelakoak esan izan ditugu, baiña mundu au eta bestea ez al dira berdiñak izango, bestela porruazi ederrak aterako ditugu. Zerura joateko mundu onetan aberastu bear balitz, leenaz gaiñera naiko lapurreta, muturjoka eta istillu izango genduke. Dirurik ez degunok eta elbarriak alperrik giñake. Diruak dana dezakeen uste orrek erdia ustela izango du, seguru asko. Emen egindako zakurkeriak barkatzekotan zerbait ona egin bearko du jauntxorik jauntxoena ere. Asko dezaketenak jendea-ri edozer gauza sinistuerazten pijoak izaten dira, baiña ez da ain errez izaten nai duten guztiei ziria sartzen.

Frantziako jubilatatu batek, bere denboran aurreratutako diru guztia telebisioan azaltzen diran neska gazte, artista, komediante eta orrelakoei utzi omen die testamentuan. Etzeukan seme-alaba-

rik, eta lagunik ere ez. Eta telebisiolari begira egoten zan ordu luzeetan. Aurkezle edo presentadore gazte bat izugarri gustatzen zitzaion, eta arixe utzi dizkio zeuzkan diruen erdiak. Orra nolako suertea izan duen gaztetxo orrek, ederra dalako. Ikusten danez, jubilatua etzuen beti lo egiten telebisiorekin. Baiña aitona orren iru arreba bizi omen dira oraindik, eta diruarekin zer egin duen jakin dutenean, auzitara jo dute, anaiaren diruak eskuratu nairik, suak eta garrak artuta. Mirari aundiak egiten ditu emen diruak. Leenago etzeukan iñor munduan, eta orain iru arreba, alajaiña. Ezagutu ere egiten ez ditugunak anai biurtzeko lain badira txanponak. Oiek dira birtuteak dauzkana!

Ala ere, ez du balio zoriona erosteko. Eta jubilatuairen arreba ere tripajate ederrak edukiko dituzte orain. Dirua eskuratzen ezpadute, ez diote meza asko aterako bere anaia zanari.

Gure artean ez dago iñor diruzalea ez danik.

Danok maitatzen degu benetan bera maltzurra izanik.

Aberatsenak ez du pentsatzen naiko dirua daukanik...

Bazterrik ez da iñun diruak endreatzen ez duanik.

Baldin dirurik ez badaukazu maitasunik ez espero,

eta etzaitzez egon alperrik laguntz eske egunero.

Baiña arreba azaldutzea baliteke ilda gero,

beste mundura diru-usaia utzita joan ezkerero.

1994ko martxoak 18

Realaren partidu bat edo beste ikusten det telebisiorekin, baiña besterik ez. Garai batean etxeko leiotik ikusten nuen, eta baita futbol zelaian esaten ziran astakeriak entzun ere. Eta bere buruari eutsi ezin zioten gizonezkoen kontua zala pentsatzen nuen. Baiña ez nekien dana. Izan ere, bere ekipoen alde borroka egiten dakiten emakumezkoak ere badira, eta ez mingaiñarekin bakarrik.

Orrelako asko dagoela uste det Asturias aldean beintzat. Ango erri koskor bateko futbolarien buru edo presidente, irurogeita bat urteko emakume bat omen da. Eta lau illabeteko zigorra ezarri diote orain. Ez omen du izango lau illabete oietan taldeko presidentetza egiterik. Izan ere, zer gertatuko eta partidu batean epaille edo arbitroari asma ala guztiak esan zizkion. Eta ez ori bakarrik. Eskuan zeukan banderatxoa kendu marrazaiari eta arbitro jauna jo eta garbitu bear zuela. Orrek dauzka adore eta keme-nak bere irurogeita bat urterekin! Baiña, esanak esan, ez dirudi presidente ori ain gaiztoa danik. Egindakoa damutu zaiola, eta eskutitza bidali dio Arbitroen Batzarrari, barkatzeko eskatuz. Urte batzuk badauzka, baiña bere burua gazte ikusten du oraindik. Eta gazteak bezelakoxe izkera darabilki: “Kableak gurutzatu zitzaizkidan, eta nere taldeko futbolariak eldu eta eutsi izan ez balidate, ez dakit zer egingo nion. Danen artean kaxetan sartu ninduten eta orri eskerrak” –esaten du bere eskutitzean.

Ez dakit epaille edo arbitroak zenbateraiño okerrak edo ankasartzeak egingo zituen, baiña etzion txarrari aldegin gizarajoak. Pozik egon liteke emakume presidenteak banderatxoaren kirtena bere buruan autsi etzuenean. Ea emendik aurrera epailleak etxeko talde edo ekipoari al duten guztia lagundu eta orrelakoak egiteari uzten dioten, presidente guztiak emakumezkoak izatea nai ezpadute beintzat.

Futbol zelaietan bezelakoxe ankasartzeak egiten dituzte gizonezkoak beste edozein lanetan ere. Eta kontuak estu artzen dakiten gizonezkoak zuzentzen trebeak diran emakumezkoen bearra geroz eta geiago dagoela esango nuke. Ni beintzat Asturias aldeko presidente orren alde nago.

Gizonak gauzak zuzen egiten
bear gendukela jakin,
Asturiastik esan digute
ejenplo eder batekin.

Emakumeak errespetoa
jartzen bear dute ekin,
beste iñola ezin badute
bibote postizoekin.

Epaille edo arbitro txarrak
daudela zeñek ukatu?
Ekipoari kalte egiña
etzaie bear barkatu.

Presidentari pazientzia
beti ezin, ba, eskatu.
Arbitroren bat astindu arren
ez da egiten pekatu.

1994ko martxoak 25

Urak errekan bakarrik duela indarra esan oi da, baiña ez da egi osoa. Hungarian sekulako mirariak egiten dituen ura aurkitu dute oraintsu. Gu umeak giñanean, ijitoak Hungariatik etortzen zirala esaten zan. Eta *Hungrianoak* esaten genien ijito aiei. Oso ugariak izaten ziran, baiña aurrean artu eta erritik kanpora ateratzen zituzten mikeleteak. Baiña bereala azaltzen ziran ordekoak.

Azkenaldi onetan Hungarian naiko bildur omen ziran arraza kastatzera zijoala-eta. Ango gizaseme asko nai eta ezin omen zebiltzan. Zerbait egin nai eta ezin. Senar-emazte asko alkarrekin asarretuta, gaizki bizi ziran gaiñera. Semetxo edo alabatxo bat nai, eta ezin inguratu. Eta arazo orren aitzakia batek besteari emanek konpondu ezin berriz. Nola izango eta ala izango, gizasemek sekulako indarrean jartzen dituen ura aurkitu dute, iturrian. Eta andik trago eder bat egin ezker, ondorengoa seguru omen dago. Orra, ba, etxean pakea jartzeko erremedio erreza.

Orrela dirudi, baiña leenenengo pakea eta gero gerra ere ekartzen dute hungariarrak iturri orretatik. Izan ere, ur asko samar edan ezker, indarrari eutsi ezin, eta komeriak. Senarrari aitzaki ematerik ez, eta datorrenari eutsi bear. Leenago, nai eta ezin. Eta gaizki. Orain nai baiño geiago etortzen asi, eta askoz obeto ez. Zorion osorik ez dago emen. Eta Hungaria aldean kezkatu rik daudela uste det. Indarrari neurria artu ezean, berriz ere ijitoak ugaldutez litezke gero, eta ez dago jolasean ibiltzeko moduko mundua. Indarraren eta eziñaren bitarteko puntu orretan gelditzeko zerbait aurkituko al dute, beste iturriren batean edo. Gaitzak eta erreme-

dioak alde guztietara errez zabaltzen dira orain, eta ea komeriak izaten ditugun.

Emen ez dagoela kezka aundirik uste det, alde orretatik beintzat. Laureun milla edo zenbat etxebizitza ziran egitekotan azkenengo auteskundeen ondoren? Eta etxeak ez dakit, baiña orrela bildu zituzten txanponak ipurdian zuloa zeukan zakuren batean gorde zituzten nunbait, eta ez etxe eta ez diru gelditu ote diran bildurrez aidean daude bat baiño geiago. Gazte asko lanik eta etxerik ez daukalako ezkondu gabe dago. Eta martxa onetan ez da izango Hungariako iturritik ura ekarri bearrik.

Orain ainbeste ijito zuri
ez det ikusi sekula.
Esan liteke beltzak bezela
urak ekarri ditula.
Zertan ekarri Hungariatik
ijito-azi mardula,
gure artean zuri eta beltz
orrenbeste dauzkagula?

Indarrik asko badute oiek
bere kasa ugaltzeko,
erak bakarrik naikoa dira
lur guztia estaltzeko.
Ijito zuri bat asko degu
guztiok merke saltzeko,
ea uren bat noiz asmatzen dan
arraza ori galtzeko.

1994ko apirillak 1

Ostiral Santu etorri zaigu urtero bezelaxe, zintzo asko. Aste Santuko egunak ez dira orain garai bateko aunditasunarekin ospatzen, baiña ikutu txiki bat ematea merezi duten egunak dira.

Leenago, maitasuna aitatzen ziguten sermoietan. Orain ez dago alako itzaldiak entzuteko astirik, eta leengo kontuak ezertarako balio ez balute bezela bizi gera. Garaian garaiko erara bizi bear, ba. Eta bizi bearrik bere legeak ezartzen ditu berriz, eta al deguna egin bearrean gaudela aitortu bear da. Jai egiteko oitura daukagu oraindik, baiña beste usadio batzuk alde batera utzi ditugu. Bere neurria bear dute gauza guztiak, aspergarri izan ez ditezen. Elizara joaten gera, baiña erori eta azpian arrapatzeko astirik

ez diogu ematen Elizari. Ez ote da leenago denbora geitxoan egon bear izaten genduelako?

Dana dala, gure elizak or daude, nai duena joan eta nai ez duena ez. Bakoitzak erabaki bear du. Elizara borondadez joateak balio du, eta ez jendearen esanak kezkatuta joateak. Egun auetan maitasun-sermoiak egiten zizkigutela esan det leen. Orain maitasuna illunperako gordetzen dala dirudi. Eta alkartasuna edo solidaritatea eta orrelako itzak daude modan. Baiña leenago ere asko aipatu arren maitasun gutxi ikusten zan, eta orain alkartasuna dago urri. Artu dezagun egunkari bat eskuetan, edo piztu dezagun irratia edo telebista. Bereala konturatuko gera badirala bapo bizitzera iritsi diranak, bazterretan miseria pranko egon arren. Elizara sarritan joaten ziran guztiak etziran onak izango, baiña erriaren onaren billa dabiltzala dioten danak ere ez dira santuak. Ona izateko eta iñori laguntzeko elizan denbora asko pasatu bearrik ez dagoela naiko garbi dago, baiña otoitzak alde batera utzita denbora guztia eskuarrantzan nola egin pentsatzen pasatzen dutenak ere ez dakit zenbateraiñoko mesedeak egin dituzten gizartean. Leenago, elizara joaten ziran jauntxoan mende bizi giñan. Orain, elizako aulkietan ez baiña Bankuko silloi aundietan eserita dauden santuekin ondo etortzen diranen mende gaude. Bistan da: nagusiak aldatu dira. Eta oiek ez dute baraurik egiten garizuman. Baiña morroiak leengoak gera. Eta berriz ere guk egin bear barau eta bijili.

Ostegun Santuz aztu gera ta
Ostiral Santuz ere bai.
Sakonak diran egun auetan
gabiltz algaraz ta alai.
Garai batean esan ziteken
guztiok giñala anai.
Orain dirua biurtu zaigu
bata bestearen etsai,
eta ez degu karidadezko
sermoirik entzun ere nai.

Aste Santuan egoten gera
pentsatzeko egunetan,
naiz ta kristauak gerala aztu
errez une batzuetan.
Jesus maitea, esker txarreko
ez al gera gu benetan?
Gu salbatzeko nola il ziñan
txit oiñaze garratzetan
zerbait maitasun erein ezazu
gure biotz legorretan.

Pertsona setosoak badira mundu onetan. Nai duten guztia egindakoan lasaituko dirala uste det, baiña ez dira asetzen ala ere. Eta berealaxe arrapatzen ditu beste kasketaldiren batek. Beti berea egin nai duena ez da ondo ibiltzen. Ori baiño gibel aundi-xeagoa bear da mundu onetan bizitzeko.

Gizon kasketasoak badirala esan det, eta emakume setatsuak ere badira. Bakoitza bere aldetik dabiltzanean, or nunbait. Baiña alkarrengana inguratzen diranean komeriak izaten dira. Larogei urteko judio zaar batek 31 urte daramazki espetxean. Zer gertatuko eta bere emazteak ezkontza autsi nai du orain. Dibortziatu. Baiña senarrari dirua kenduta. Senarra judio utsa izan ordea, eta emazteari dirurik eman nai ez. Auzitara jo dute azkenean, eta emazteak irabazi, jakiña. Nork irabaziko zuen, ba? Baiña kontuak datoz orain. Andreari dirua eman baiño kartzelara joatea naiago du senarrak. Zeiñekin ezkondu badauka emazteak, baiña senar zaarraren baimenik gabe ezkondu bear ko du. Ez dirurik eta ez dibortziorik ez omen dio eman nai agureak, eta “egon adi ortxe, itzalean”, esan dio emazteak. Nolako Peru alako Mari. Emaztea, irurogeita bost urterekin onenak emanda dago. Baiña oraindik zerbait egingo lukeenean, senarrak utziko balio. Agure gizarajoak ez ditu porruazi ederrak atera. Ezkondu edo ezkondu gabe, nai duena egingo du andre-ak. Baiña beste gizarajoak kartzelan jarraitu bear, anak nork beroturik ez duela. Joan bear badu, joaten utzi akiok andreari, eta euk ere egin zak al dekana, mutil. Izan ere, diru askorekin kartzelan baiño gutxirekin anak libre dituela kanpoan ez al luke obe bein larogei urtera iritsi ezker? Andrea pikardian baldin badabil, berak ere zerbait egiteko eskubidea izango du. Eta ezer egitekotan oraintxe egin bear ko du, emendik aurrera askoz sasoi obea ez du izango-eta. Setan eta teman egon gabe, batak besteari arnasa artzen uzten dakiten senar-emazteak ez al dira bizi ondoena? Urte oietara iritsita, alkarren ondoan goxo-goxo

bizi bearrean, batak bestea apurtxo bat berotu nai ezta ibilli bear. Orixe da, ba, bizitzen ez jakitea.

Atsoa asarretu
agurearekin.

Alkar menderatu nai
ta auzitan ekin.

Agureak asmatu
ederki zer egin:
gizon berririk ez du
aren txanponekin.

Andrea aspertu da
senar zarrarekin,
eta amets egin du
gaztegoarekin.

Agurea kartzelan
bere setarekin.
Dirua eduki ta
bizitzen ez jakin.

Zenbait senar-emaztek
amar milla kako,
pazientzi pixka bat
ez daukatelako,
malizi apurtxo bat
falta dutelako
eta ondo bizitzen
ez dakitelako.

1994ko apirillak 15

Urtengo au familiaren urtea omen degu. Zalantzarik gabe, familiko laguntasuna da gizakiak leen-leenengo bear duen laguntza. Familia da jaio ondoren pertsonak izan dezakeen eskolarik onena. Eta familian ikasten da zaarragoak errespetatzen, gurasoak aintzakotzat artzen, eta senideekin ondo konpontzen. Bear bezelako famili batean jaiotzeko suertea izan duenak, iñun ez du aurkituko bere etxean baiño oiñarri oberik pertsona izateko. Sekula baiño gaizki ezitako ume geiago dago gaur. Eta ori, familietan bear dan bezelako girorik ez dagoelako da. Oker guztien errua besteri ematen diogu beti. Eta familiari aitzaki asko entzun

bearra gertatzen zaio oraiñaldian. Ume askok etxean gaizki ikasten dutela. Eta guraso askok eskuak libratzeagatik umeak telebistari begira uzten dituztela, txikiak ezitzen bear bezela arduratu gabe. Ori dana litekeena da, noski. Baiña zergatik ez dira galezazten telebisioan umeentzat komenigarri ez diran ikuskizunak? Nun dira gure agintari jakintsuak?

Umeak telebistan ikusten duten guztia ez dala gari garbia begien bistan dago. Eta zein ez daki *Lorena* zein dan eta zer egin zuen, esate baterako? Nork ez daki Amerikako emakume orrek senarrari bere *zera* ori moztu ziola, tratu txarra ematen ziolako? Andaluziako erri batean, lau urteko neska koskor bat iru urteko muttikoari bere gauzatxo moztu naita zebillela arrapatu zuten oraindik orain. Izan ere, umeak ainbeste gauza ikusten dute, eta ainbeste entzun! Eta guk uste baiño askoz ere geiago dakite.

Bere aita fletxaz il duen mutil gazte bat ere izan da, eztakit nun. Telebistan indioen pelikulak ikusiz ikasiko zuen, ba, alako astakeriak egiten? Familiko ama askok kanpoan lana egiten dute, eta orregatik-edo, aur asko zaintzaillerik gabe dabil. Eta gobernatzea bere esku daukatenak badakite zer egin bear duten: kastu alperrak kendu, besteei aitzaki emateari utzi eta familiari lagundu. Aitak eta amak izan dezatela umeak zaindu eta ezitzeko lain diru eta asti. Bestela, familia beeraka joango da berriz ere. Eta gauzak onela badijoaz, laister gera kartzelan lekurik gabe.

Familia ta gizatasuna
maitatu ditzagun bero.

Ez gaitzela munduan bizi
ajolakabe ta ero.

Ezkondu giñan eta, ai! zenbat
bearkizun arrezkero!

Zer datorkigu gure famili
santuak galdu ezkero?

Txorikumeak nork eskuratu
kabitik irtenda gero?

Arriskuz betetako garaia
izanik gaztearua,

kutizi danak beteta ere
ez da aurkitzen zerua.

Griña txarretan murgildurikan
galdu leike aingerua...

Familia da gizadiaren
abe ta iturburua.

Gorde dezagun ekaitzetatik,
ez dezala jo zorua.

Ez da errez entzun eta ikusten diran gauza batzuei antzema-ten. Zenbat aldiz entzun ote ditugu japondarren gorantzak? Aiek bai langilleak. Aiek bai fiñak eta lantegia benetan maite dutenak. Orregatik egiten dituzte gauzak ain ondo eta merke. Japonen egin-dako tresnak orregatik saltzen dira errez mundu guztian. Merkeak eta onak diralako, batez ere. Baiña janpondarren emankortasuna edo, orain askok esaten duen bezela, produktibitatea ere pipiak jo omen du, ba. Andaluzian zeukaten automobil fabrika bat naiko larri zan. Eta itxi ez bada, laister itxiko da, seguru asko. Gauzak merke egin eta ala ere saldu ezin. Auxe ere komeria da.

Baiña begiratu dezaiogun Espaiñiako agintarien jokaerari. Lantokiak sortuko badira langille asko kalera bidali bearra dago-ela esan dute. Eta kalera dijoazenak ez dira diru askorekin joan-go. Jateko lain justu-justu jasotzen duenak ez du kotxerik erosi-ko, eta jendeari eskuetatik dirua kentzen bazaio, ezin kotxe asko saldu. Onek ez dauka bueltarik. Saltzen ez bada, lanik ez. Eta lanik ezpada, dirurik ere ez. Orra baterez. Ekonomista bizkorrak edukiko ditugu, baiña beste sistimaren bat asmatu bearkeo dute, bestela eserleku bigunetan lasai eserita dauden politikari bizkor oiek ez dute danak ondo ibilli bear. Zergak igo eta orrelakoak egingo dituzte, baiña lanik izaten ez bada, iturriak agortu litezke. Eta orrela ez dute eskuarrantzan nun egiñik izango. Ea xexenak ikusi bearrean izaten geran. Baiña ori ere ez da komeni. Geu izan-go giñake galtzaille.

Ala ere, ez gaitezen geiegi estutu. Sekula baiño langille geiago dago lanik gabe. Baiña langabetuak gutxitu egin omen dira. Nola ordea? A! Guk *regla de tres* ikasi genduen, eta oraingo auek *regla de uno* ikasi zuten. Bakoitzak berea, alegia. Esaten dutenez, lantsariak ere ez dira igo bear. Eta artzaiak kokoteondo onarekin egon arren ardiak goseak badaude, aien esnearekin egin-dako gaztak ez du koipe asko izango.

Aspaldi ontan entzuten degu
egundoko gezur sailla:
geiegi igo dirala jornal
eta bizitzeko mailla.
Politikoak jaso nai arren
gizon bizkorren medailla,
dirua urri danean asko
saltzea ez al da zaila?

Politikoak ez ote daude
burutik endreatuta?
Asmatu duten dotriñak beintzat
itxura onik ez dauka.
Lenengo bazter guztiak utzi
lur jo eta ondatuta,
gero kotxeak saldu, nai degun
diru apurra kenduta...

1994ko apirillak 29

Jende asko garbitzen dala gure kamiñoetan, baiña eztaikit
iñun leku segururik bai ote dagoen. Bartzelonako klinika batean
estuasun ederra pasatutako gizon bat bai omen da. Ebaketa edo
operazioa egin bear ziotela eta kirofanora eraman zutenean, or
nun asten diran medikua eta praktikantea asarretu eta errietan.
Medikuak ebaketa egin nai eta praktikanteak ezetz. Gizona etze-
goela operatzeko moduan eta etziola korderik kenduko.
Mingaiñak ez ezik indizioa emateko jeringak eta ebaketa egiteko
labanak astintzen asi omen ziran, eta alakoxe brillua ateratzen
zutela ikusita, gizon gizarajoa jarri da beldurrez airean. Labana
sartuta ere ez omen zukeen odolik emango ark. Kordea kendu
gabe operatzen asteko kapaz zirala, eta kamillatik salto egin eta
or dijoa igesi, eskaillaratan gora. Ura zan ankajokua! Apenas
erreuma aundirik zeukan. Eta artu zuen sustoarekin, zeuzkan
miñak eta ajeak zearo joan omen zitzaizkion. Orra ebaketarik
egin gabe gaixoak sendatzeko sistima berria. Medikiak eta gai-
xozaiak alkarrekin asarretuerazi, bisturiak eta jeringak astindu,
eta aurrera. Ikaratuta kirofanotik korrika iges egin ezkerro, zearo
sendatuta.

Valentzian ere asmatu dute zaarrei akabera nola eman.
Zaarren egoitzetan izaten da gela bat norbaitzuk beste mundura

joaten diranean gorputzak urrengo egunera arte gordetzeko. Gela orri *tanatorioa* esaten diote. Valentziako egoitza orretan, azkenean zeuden zaarrak tanatoriora eraman eta an uzten omen dituzte. Orra mundu onetatik joaten laguntzeko sistima berria. A ze nolako errukia gaizki daudenentzat! Eutanasia, edo eskapurik ez daukatenei beste mundura joaten lagundu ala ez, eztabaida gogorra dabil elizgizonen eta politikoen artean. Eta eutanasia tristea izango da baiña, zakurra bazterrera botatzen dan bezela tanatoriora eraman eta bakarrik uztea ez al da tristeagoa izango? Leengoak zioena: “zaartu ezkerro, ostikada”. Asko dakigula, baiña pertsona zibilizatuak izaten ez degu ikasi, eta kristauak izaten gutxiago oraindik.

Arritu naiz oraingo
inbenturekin,
gaixoak sendatutzen
dakiten oiekin.
Ebaketa eginda
garbitu ez dedin,
labana aterata
korrika eragin.

Etorri da gaitz danak
kentzeko bolada,
astindu bat emanez
iñola al bada.
Ipurteskiñan eman
iru-lau zztada,
jeringaren orratza
akuillu ona da.

1994ko maiatzak 6

Maiatzak badu urteko beste illak ez duten zerbait. Illabete loretsua eta mardula dalako, edo ez dakit zergatik. Baiña eztaikit maiatzak pozten ez duen ezer badan ere. Sasiak ere lorez janzten dira maiatzari ongi etorri egiteko. Txoriak pozik kantatzen dute, eta geuk ere maiatza pozik ikusten degu. Pixka bat suspertu eta indaberritu egiten gaituela esan diteke. Il onetako illunabarrean elizan egiten ziran *maiatzeko loreak* etortzen zaizkit gogora. Ez det urterik izaten illunabar gozo aietaz oroitu gabe-

korik. Maiatza zeruko Amaren illa dalako-edo, apaizak ere sermoi gozo eta bigunak egiten zizkiguten. Neska eta mutil gazteak alkar maitatzeko garai berezia zalako izango zan. Maitasunak ezpaitu itz gogorrik.

Emakumeak apaiz egiten asi berri dira Inglaterrako protestanteak. Bat eta beste esaten degu, baiña, emakumeak irripar errezagoa du guk baiño. Maitatzen ere gu baiño geiago dala esango nuke gaiñera, eta oraingo ingelesak guk entzun genituen baiño sermoi samurragoak entzungo dituzte, seguru asko. Ez dakit, ala ere, protestante guztiak oso gustora ote dauden. Askok, emakumeak apaiz egin dituztelako asarretu eta protesta egiteko, erlijioari uzten asi omen dira. Eta katoliko egiten gaiñera. Aietzek protestanteak! Katolikoak ere kezkatzen asita daude apaizak gutxitzen ari dirala-eta. Eta bistan danez, protestanteak ere gaitz berdiña daukate. Ain zuzen, gaitz orri erremedioa jartzeko apaiztu dituzte emakumeak. Ni ez naiz iñor ori komeni dan ala ez esateko, baiña azaletik begiratuta ez al du onek zer pentsatu asko ematen? Izan ere, emakumezkoak gizonezkoen eskubide berdiñak dauzkatela esaten degu, baiña ez ditugu apaiz egin nai. Erromatik orrela agintzen dute, eta zerbaitegatik izango dala. Baiña ea protestanteak aurrea artzen diguten bakoitzari berea emate onetan ere. Polita izango litzake orixe. Esaten dute nez, apostoluak ere gizonezkoak ziran. Eta apaizak ere orrela bear omen dute izan. Baiña Kalbarioko bidean Jesusi aurpegia garbitu ziona emakumea zan, ba.

Dana dala, orrela bear bada, orrela izan dedilla. Onela erakusten digutenak jakingo dute zertan ari diran, eta aien esana egiñarekin dana eginda dago guretzat. Besteren pekatuekin iñor ez da kondenatzen. Zertarako burua nekatu, beraz? Bazter guztiak lore dauden garai onetan, eta gorputz zaarrak pixka bat pizten diran illabete eder onetan, ez degu geure burua naasterizko arantzaz bete bear. Uda datorrenerako sasoi punttuan jartzea obe, zer ikusia izango da-eta. Aukera onak ez dira alperrik galdu bear.

Maiatz ederra etorri da ta
ez gaitzen egon triste.
Eguzkia ta lore usaiak
birtute asko dituzte.
Zar samar asko ikusten dira
itxuraz lirain ta gazte.
Edertasunak baldin begiak
argitzen badizkigute,
dotoretu bat artuko degu
oraindik ere, nik uste.

Ospelak ere sendatzen dira
maiatz goizeko intzetan,
biotz garbiak poztu ere bai
maitasunezko itzetan.
Bizi naiaren iturburua
degu maiatza, benetan.
Maiteminduak alkar laztanduz
illunabar epeletan,
alkar-bizitza gozo batekin
jartzen ditu amesetan.

1994ko maiatzak 13

Aurten iruzur egin digu maiatzak. San Isidro eta Azentzio egun berean jarri ez dizkigu, ba? Eta etzi ospatu bear, biak batera. Usadio zaarrak gordetzen dakien erririk bada, Segura degu bat. Eta Santa Barbara mendira joan naiko dute etzi, Azentzio egunak eskatzen duen bezela. Ordubeteko bidea izango da, aldapan gora. Baiña an izango dira, fin asko. Goraiño eltzean ondo etorriko dira gailletak eta kafea pattarrarekin. Gero, pago ostoa ur bedeinkatutan busti eta inguruko baso, zelai eta baserriak bedeinkatuko ditu apaizak. Eta ondoren, meza santua. Mezaren ondoren, ogia eta ardoarekin lukainka mutur bat gustora artuko da.

Oitura oiek oso ondo daude, baiña meza entzutea ere bai, aiskidia. Nai duenak nai duena esango du, baiña sekula ez det entzun mezak iñori kalterik egin dionik. Inguruko errietatik joaten diran erromesak ere berdin pentsatuko dute, nik uste. Eta eutsi oitura eder orri. Goizean goiz samar jaiki bearko da, tontor artaraiño igotzeko. Eta izardi pixka bat atera ere bai. Ez da kalteko. Eta beste alderdi on asko badu orrek: goizetik lanak egin, eta eguerdian bazkari bikain batekin San Isidro eguna ospatzeko aukera, baserritarrentzat.

Izketan ikastea asko kostatzen zitzaaien aurrak Santa Barbararengana eramaten omen ziran leen. Oraingo umeak ez daukate alako arazorik, ia oiñez asi baiño leenago asten dira izketan-eta. Motel samarrak izate ori gure garaiko kontua zan. Dana dala, Santa Barbaran arrantxoa egin eta Kortaberri bailladako baserriren batera bazkaltzera joan ezker, baliteke izketan errez egiteko moduan jartzea, mingaiña pixka bat trabatuko bada ere. Zenbait kaletxe baiño obeto moldatutako baserriak badaude Andraundieta aldean, eta izango dira Azentzio eguna leenago ez bezela ospatutakoak, merezi ere badute-eta.

San Isidro eguna ospatzeko ez dago baserritarra izan bearririk. Leenagoko baserritarrak izandakoak ere ospatu dezakete, beraz. Ia, ba, San Isidro eta Azentzio Segurako mendi eta baillada polit oien inguruan goizetik asi eta gaueraiñoko egun atsegina izaten dezuten. Orrela konturako zerate oitura zaarrak gordetzea merezi dutela.

Azentziotan proatzen dira
kristau zintzoen sasoiak,
ez ditu asko ikaratutzen
aldapa ta mendi-goiak.
Santa Barbarak entzungo ditu
erromes danen otoiak,
baserririk erre ez dezaten
tximistak eta trumoiak.

San Isidro da askorentzako
zaindari eta laguna,
baserritarrak izan giñanok
beti gogoan deguna.
Eta auxe da baserritarroi
oputzen dizuteguna:
umorez eta osasun onez
ospatu zuen eguna.

1994ko maiatzak 20

Gogoan daukat eskolan ibilli giñanean nola esaten ziguten kristau artean jaio giñalako pozik egon bear gendukeela. Orrela zerura errez joango giñala usteko zuten, kristau guztiok alaja zuzenak bagiña bezela. Baiña zerbait izango da.

Japonen jaio izan bagiña, gorriak ikusi bearrean izango giñan gizonok. Izan ere badakigu japondarrak nolako langille fama duten. Angoak etxean baiño denbora geiago pasatzen dute lantegietan. Eta aien andreak gustora bizi bear dutela dirudi. Telebistako nobelak ikusteko eta bizilagunarekin berriketan egoteko naiko denbora, senarrak traba egin bildurrik ez, illaren azkenean naiko dirua senarrak irabazita. Zer nai dute geiago? Baiña, ala ere, lanak izaten dituztela uste det. Japonesa txiki oiek ez omen dira errez konformatzen diran oietakoak. Denbora luzean bakarrik etxean egon ezkerok, izugarrizko estresa arrapatzen dute. Eta bere burua errenditu ezin, eta senarra etxera etorri zai egoten dira ari astindu on bat emateko. Senar gizarajoa jipoitu arte ez dira onera etortzen. Eta estresa sendatzeko ez dago senarrari jipoi bat ematea baiño erremedio oberik Janponiako etxekoandreentzat. Eskerrak an jaio ez giñan, bestela autsak kenduko zizkiguten, noski. Goizean emaztea ez esnatzearren isil-isillik lantegira joan, astoak bezela lana egin, eta gero etxera etortzean andrea estresatuta dagoela eta jipoia artu bear. Eta isillik artu ere, jenio txarragoan jarri ez ditezen. Nekatuta datorren gizonarentzat, pasada artu bearra baiño ohea da emaztearen laztantxo bat. Tristeia izango da ori ere, orratik. Gero, japoniarrak aurreratuta bizi dirala esango digute. Sekulako adelantuak dauzkatela. Baiña aien aldean ondo bizi gera gu. Esandako ordurako etxera etortzen ez bagera, bekozko illun samarra ikustea baliteke. Baiña Japonian egindako andrea artu bagendu, errukarri giñan gu. Orduan ikasiko genduen bizitzen.

Emaztea ez da gero Japondik ekartzen diran trepetxuak bezela, nai degunean piztu eta nai degunean itzali egiten dan txisme bat. Askotan bere kasa pizten da, eta kontuz ibilli bear da.

Ez da suerte izugarria
japoniar jaiotzea.
Aiek aiña lan egin bearra
bada naiko gurutzea.

Eta ordaiñez emaztearen
astindu latzak artzea.
Ez al da ori gure aldean
miserable bizitzea?

Lan otsak ez du umore onik,
ezta zorion osorik,
Japongo gisan ez baldin bada
dirua beste jainkorik.

An ez daukate emaztearen
laztan goxoen gustorik,
eta senarra etxeratzean
ez da entzungo bertsorik.

1994ko maiatzak 27

Denbora asko baiña leen iritsiko omen da gizona eun urtean bizitzera. Emakumeak bizimodu luzeagoa izaten dute, eta auskalo zenbat urtean biziko diran emendik aurrera. Ikusi nork duen suertea orain ere. Egia esan, eun urte asko dira, eta guk ez degu orrelako paotxik arrapatuko. Sendakuntza asko aurrerratu da, eta gure ondorengoak gure aldean osasun ona izango dutela esaten dute. Gure illobak eta billobak mundu onetan aspertu bat artzeko moduan izango dira. Eta ala ere, iñork eztu esango emendik joan nai duenik. Komeria da auxe ere.

Bizia luzatzearekin poztu egin bear genduke, baiña ez dakit, ba, danak oso lasai ote dauden. Amagiarreba eta erraiña alkarrekin bizi diran familietan koskak izango ote diran bildurra dute batzuk. Neguan eskiatzera joan bear dutela, edo udan eguzkia artzera, gazteak anka egiteko prest egoten dira, eta jakiña, amagiarreba xaarrak umeak zaindu bear. Berak pentsatuko dute zer egin, baiña ondo konpontzen ez badira, mundutik joan gabe eun urteko inperua seguru daukate. Badira ordea oso ederki moldatzen diran amagiarrebak eta erraiñak. Badira munduko berri dakiten buru argiko emakume bizkorrak. Amagiarreba edo erraiña, berriketak eta uskeriak alde batera utzita, oso ondo etortzen dira alkarrekin. Etxean bi emakume geiegi omen dira. Baiña ez ondo konpondu ezkerro. Amagiarreba eta erraiña alkarrekin ondo konpontzen diran etxea zerua izaten da, eta ez eurentzat bakarrik, baita famili guztiarentzat ere. Aiek ez dute diplomazia ikasi bearrik pakean eta pozik bizitzeko. Gizonak ere poliki moldatzen

dira alakoan ondoan, naiz eta emakumeak baiño baldarxeagoak izan.

Ez dakit ala ere, gizonak ainbesterañoko suerterik izango degun. Gobernatzailleak esaten asi dira aurki nai ez duenak ez duela izango irurogeita amar urte bete arte jubilatuta bearrrik. Eta nik usai txarra artzen diot onixe. Ez ote dute esan naiko irurogeita amar urte bete arte ez dutela iñor jubilatuko? Ea, eun urte betetzera iritsi baiño leen, norbaitzuk bizkarra okertuta errenka-errenka lanera joan bear izaten degun. Ez al da orrelakorik izango, bestela zenbait agintari oilloak perratzera bidaltzeko modua egitea obeko litzake. Gizonak lanpetuta petraltzen badira, akabo mundu onetako emakumeen zerua ere.

Gazte geienak, al baldin bada,
errez antzean bizi nai,
kafeterian lagunartean
kontuak esanez lasai.
Etxekoandre izanak
orain neskame danak,
eta ezin bizi alai
amonaxartu eta ondoren
baldin badabiltz ume zai.

Esker oneko izaten danok
bear degu ondo jakin,
aintzakotz artzen ez degulako
amofia mindu ez dedin.
Beti lanperatuta
egonik nekatuta,
noizbait ondo bizi dedin.
Len egin zuen naikoa eta
ez lan geiago eragin.

1994ko ekaiñak 3

Arrokeria pekatu omen da, baiña beste guztiak gu baiño geiago dirala uste izatea birtutea ote da? Alemaniarrak gure aldean jakintsuak diralakoan egoten gera. Nola makina berriak egiten ala beste gauza guztietan ere. Baiña an ere danetakoak daude ordea. Alemaniako printzipe bat ezkontza autsi edo dibortziatu berria da. Zergatik eta tontoa dalako. Bere familikoak kezkatan omen zeuden andreak nai zuen guztia egiten ziolako. Joan dira epaillearengana eta onek, baitz. Tontoa dala, eta dibortziatu dedilla, nai badu.

Printzipe orrek ogeita iru urte dauzka eta emazteak, berrogeita amaika. Egia esan, neronek ere beste ainbeste esango nion epaillearen lekuan egon izan banintz. Emezortzi-ogei urteko arroxak musugorriak nunai ikusten dira. Eguzkia baiño ederragoko azukre-koskorrak ainbeste daude, eta ogeita iru urteko mutilla berrogeita amaika urteko sagar umatuarekin ezkonduko zan, ba? Neska gazte danak etziran arentzat egongo, baiña bat edo besterekin proba egin beintzat. Beti ez dakit, baiña batzutan santu batek baiño arrazoi geiago izaten dute epailleak. Eta ori ere aitortu bearra dago. Orain arte tontoa izan bada ere, Alemaniako printzipe gizarajoa esnatzeko bidean jarri dute beintzat, eta ez da gutxi. Berriz ez al da leengo putzura eroriko. Ezkontzeko tratua egiteko ez duela balio, ez dala kapaz esan du epailleak. Eta alaxe izanda ere, norbaitek lagunduta bederik beretzako moduko laguna aurkituko al du. Baiña bere ama baiño emakume zaarrago dan emaztearekin konformatzen dana, orain ikusten diran gazte panpoxa batekin ez al da ondo moldatuko?

Nik baietz esango nuke. Bestela ez da alemaniarra. Printzipearen emazte izanari ez diot ezer kentzen, berrogeita amaika urte dauzkalako. Baiña familikoak kezkatu egotea ez da seiñale ona. Senar onegien kontura bizitzea gustatzen zaien sorgiñak izaten dira, eta orrelakoren bat ote zan ura ere? Alemaniarrak gauza bakoitza bere lekuan jarri dutela dirudi oraingoz. Izan ere, alako makina berriak egiten diran tokian, zer egin bear zuen printzipe gizarajoak erdoitutako makina batekin?

Printzipe batek ikusirik
atso zar bat naiko triste,
bere sasoi eskeiñi eta
jarri naiko zuen gazte.
Baiña aberats izanagatik
ezin liteke ainbeste.
Mundu onetan urteak mugak
denoi jartzen dizkigute.

Lagun zarrakin bizi bearra
ez da lantegi makala,
orretarako batek bear du
biotza oso zabala.
Jakiña zegon familikoak
asarretuko zirala.
Zeñek ez daki dirua oso
lagun gosetia dala?

Telebistak ez dauka txantxetako indarra gure artean. Egiten digun itzala ez da nolanaikoa. Eta ez da beti beste munduko gauzak ikusten diralako. Baiña asi aurtxoetatik eta zaarretaraiño, danok engaiñatzen gaitu, gutxi edo geiago. Eguneroko berriak ematen dizkigu, gogoko ditugun saioak ere bai, ikuskizun interesgarriak-eta tartean dirala. Eta akats batzuk gorabeera, or edukitzen gaitu ordu zaarretan berari begira. Ez degu pentsatzen telebista gabeko etxerik izan bear duenik ere. Garaiak orrela eskatzen du, eta erantzun bearra dago emen. Beti leenean egonda ez dago aurrera egiterik.

Garai batean genduen irakurtzeko zaletasun ura kendu egin digu telebistak. Liburuak itxierazi dizkigu, eta ez det uste au gure onerako danik. Naiz trenean joan edo eguzkia artzen egon, eskuetan nobelaren bat etzuen gazterik etzan ikusten leenago. Baiña orain telebistak bete digu liburuaren tokia. Ez da arritzeko ere, alde batera. Irakurtzeak neke pixka bat berekin du, eta telebistak dana eginda ematen digu berriz. Pentsatzeko lana ere kendu egin digu, azkenik. Gure aurrak ere tebeoak irakurri baiño marrazki bizidunak ikusi naiago dute. Eta gazteak naiz elduak ere telenobelak errezago ikusten dituzte liburuak irakurri baiño.

Esaten dutenez telebistarenganako zaletasuna komentuetan ere sartu omen da. Vatikanotik komentuetara bidali dituzten liburuak batzuetan telebistarekin kontuz eta neurritz erabiltzeko gomendatzen omen zaie monja eta frailleei. Beste entretenigarriarik izan ezean, komentuko alkar-bizitzari kalte egin lezaiokeela telebistak. Eta komentuetara abixu au bidali dutenerako, telebistari buruzko azterketa sakonak egin izango dituzte Erroman. Eta telebistan ikusten diran zenbait saio ariñek kalte egitea litekeena da komentuetan bizi diran fraille eta monjak alkarri gorde bearreko begirune zuzenari. Orain ez dira gauzak leen bezain estu artzen, baiña telebisioan animaren etsaiak libre antzean ibiltzen

dirala iruditzen zait. Esaera batek dioen bezela, arriskua maite duena arriskuan erortzen da.

Komentuetan pakea obe dute bai, etsaien adarkadai eutsi eziñik ibiltzea baiño. Orrelaxe iruditzen zait.

Telebisioz ikusten dira
naiko programa gaiztuak:
neska gazteak erdi jantzian,
ez, noski, oso santuak.
Eta deabru zarrak izanik
gu ondatzeko sortuak,
Vatikanotik komentutara
datoz ordena estuak.

Gure onean bidaltzen dira
Erromatikan egiak,
atarramentu onik ez dula
sekula kristau nagiak.
Estropuz egin erazten ere
nola dakin aragiak,
suzko putzura erori gabe
listo ibilli begiak.

1994ko ekaiñak 17

Gizon eta emakumeen arteko gorabeerak Adan eta Ebarekin asi ziran, eta munduarekin batera amaituko dira, seguru asko. Alkar errespetatu bear degula eta orrelakoak esaten ditugu, baiña aizeak eramaten ditu danak. Ebak Adan gizarajoa engaiñatu zuen bezelaxe, gizonak ondo engaiñatzen dakiten emakumeak badira. Eta ederki menderatzen dakitenak ere bai. Pulamentuzko emakumea dala esan nai degunean, “orrek dauzka biboteak!”, esan oi degu.

Gizonezkoak bezelaxe egunero bizarra kentzen zuen emakume bat ezagutu nuen. Eta zuek ere bakarren bat ezagutuko zenuden, bearbada. Eta orrelako neska batek hotel batean lana egin zuen Ipar Amerikan, esaten dutenez. Baiña lanetik bidali, bota egin du bere nagusiak, biboteak zeuzkalako. Zerbaiten bildurra artu eta biboteak kendu zituen, gajoak. Baiña alperrik. Lana utzi eta etxera joan bear. Baiña neskatxari biboteak berriz irten ordea, eta nagusia auzitara eraman du. Eta leengo lanean artu bear izan

du berriro, errespeto ederrean. Baita beste langilleen aurrean bar-
kazioa eskatu ere. Orixe da biboteak edukitzea. Oso itxura ede-
rrekoak ez diran mutikoak ikusten dira gaur, ille luzearekin moto-
tsa eginda, eta belarritakoekin. Neskak zergatik ez dituzte bibote-
ak utzi bear, baldin badauzkate? Nun dira gure askatasuna eta
demokrazia eta gaiñerakoak?

Etxean umil asko egoten diran gizon askok kanpoan sekula-
ko aginpideak dauzkate, sarritan. Plantak egiten dituzte beintzat.
Noranai begiratuta ere, zer ikusten degu? Gizon iltzeak, gerrak,
gogorkeria eta lapurreta ugari. Goitik asita gaiñera. Emakumeak
gu baiño fiñagoak dira, eta gizonen aginpidearen erdia eman bear
litzaieke. Batzutan asarrealdi luze samarrak arrapatzen dituzte,
eta adiskidetzea dexente kostatzen zaie. Alaxe ere, etxetik kanpo-
ra emakumeak geixeago aginduko balute, mundu onetako bizi-
modua bigunagoa, gozoago eta ohea jartzeko modua egingo lute-
kela iruditzen zait. Bibotedun emakumeen premi pixka bat
badaukagula esango nuke.

Petralak jartzen dira
zenbait gizon ñoño
zenbait gizon ñoño,
neskatxei biboteak
galerazteraiño.
Iñor igo ez dedin
aien maillaraiño.
Baiña neskatxen berri
ez jakin gaurdaiño:
bibotedunak obe
gatz gabeak baiño.

Nagusiak nai zion
lana galerazi
lana galerazi.
Baiña ez du orrekin
asko irabazi.
Neska bibotedunak
eman dio auzi:
“gu ondo estimatzen
bear du ikasi.
Ez al gera politak
bibote ta guzti?”

San Juan eguna. Erri askotan, eta Seguran ere egun aundia. Pare-parean tokatu zaigu, Segurari lore batzuk eskeintzeko. Garai batean bederatzi erri babesten zituen Segurak. Napar aldetik-eta etortzen ziran lapur eta gaizkilleei gogor egiteko eman zioten alako indarra erri oni. Eta Goierri alde onetako jendeari ere errespeto latza sartzen zioten segurarrak, esaten dutenez. Gaur egun ez du alako itzalik botatzen. Zertarako? Seguran dagoen lasaitasunak ez al du aginpide guztiak baiño geiago balio? Bizitzeko emen dagoen bezelako baretasuna eta patxara ez dira edozein erritan aurkitzen. Estu eta presaka bizi diranak ez dira segurarrak baiño obeto bizi, ez. Oitura eta usadio zaarrak maite dituen erririk bada, Segura da bat. Emengo bizilagunak erria maite dutela esan nai du orrek. Eta maite duen tokian bizi dana, ondo bizi da.

Dantzari eta txistulariak ez dira faltako Sanjuanetan. Baiña orretaz gaiñera, ez degu aaztu bear segurarrak musikolari azkarrak eta trebeak dirala. Bolari onak ere badira emen. Beti izan dira. Pelotarako zaletasuna ere ez dute gaur goizekoa. Eta ez zaletasuna bakarrik, ez. Pelotari abillak eta trebeak izan dira, eta gaur ere badi-ra, noski. Eta aurrerantzean ere izango dira, landare gazteak bada-toz-eta. Bertsozale purrukatuak izanik, saio ederrik antolatzen dute. Santa Garazi, Santa Barbara eta orrelako urteroko egun seiñalatueta jai ederrak egiten dira. Oitura eta usadio zaarren zaleak dira emengo erritarrak, esan bezela. Baiña orrek ez du esan nai zaarusairik daukatenik. Beste edozein erri aiña edo geiago da Segura. Eta badu meriturik asko. Erria bera ere ederra izanik, meritu aundi-ko etxe eta jauregiak ditu. Eliza bikaiña, komentuak eta inguru zoragarriak. Zerain-portaletik Segurako madurara begira egon ez danak, edo Zeraindik beera datorrela Segurako madura ikusi ez duenak ez daki Euskalerriko berri. Udaberri eta uda garai onetan gure madura ori aldenik alden zearkatu ez duenak, ez daki kutsatu gabeko ibilto-ki bare, paketsu, eroso, alai, argi eta zoragarriak zer diran.

Segurari jarritako bertso asko ditut, eta aietako para bat kantatuko dizkizuet, danak kantatzea luze samarra izango da-eta. Nik ere nere omentxoak eskeiñi nai, ba, Segurari. Eta izan ditezela bere ondran eta alabantzan.

Aiek basoak, aiek soroak,
ura eguzki dizdira!
Txoraturikan gelditu nintzan
Segura aldera begira.
Itsas-ertzian ibilli edo
naiz igo goiko mendira,
au bezelako leku politak
gutxitan ikusten dira.

Zubiberritik begiratuta
lurrak zero jo artian,
edo Mendarte baserritikan
zabal-zabal ikustian,
Oria ibai marmarariak
ebakiaz bi partian...
orren madura lasai, alairik
ez da Goierrri guztian

1994ko uztaillak 1

Opor usaia zabalatzen ari da. Eta askorentzat orixe izango da oraingo buruauste nagusia. Bizi nai dan seiñalea da ori, eta artu dezagun borondate onez. Osasun maixuak ari dira garaiari dagozkion aolkuak ematen. Orain arte bapo jan eta edan dutenak orain asten dira kezkatzen. Neguak erantsitako koipeak nola kenduko ote dituzten, alegia. Flakatzeko erremedio on asko eskeintzen digu propagandak, baiña medikuak ez daude oien alde. Gorputza lirain gordetzeko gutxi jatea ere ez dute ontzat artzen. Gorputzari bear duena eman bearra dagoela esaten dute. Ez geiago eta ez gutxiago. Eta bakoitzak bere gisako errejimenaren egiteak gaixotzeko arriskua du. Flakatu nai duenak medikuaren esanetara jarri bear du, goseak egonda eskeleto bihurtu baiño leen. Mitxeliñak itsusiak izango dira, baiña ezurra eta azala besterik ez, eta nundik eldurik ez dutenak ederrak izaten al dira? Begira daudenei inbiri pixka bat emateko moduan egon nai dutenak, nola-alako pastilla eta orrelakoekin kontuz eta poliki ibilli. Goseak egon eta gaiñera

gaixotu, a ze nolako porrujorra. Bear aiña janez gorputz egokia edukitzeak dauka meritua, ez beste ezerk.

Medikuak diotenez, umeak gosaldu gabe eskolara bidaltzea txarra da oso. Umeak auldu egiten dira, eta eskola ikasteko indarririk gabe gelditzen. Eta bear bezela azi ere ez dira egiten. Eta ez gizontzeagatik goseak egoten diran emakumeak bear baiño une txikiagoak izaten omen dituzte, eta naiko pixurik gabeak. Ortik atera kontuak bear dan neurrian jateak zenbateraiño garrantzia duen. Jatekoak erosi bear diranean ere ondo janda joan bear da dendara. Goseak dagoenean eztira erosketak ondo egiten. Mitxeliñak ez dute ondo emango ondartzan, baiña zenbait anka-me ez dira beste munduko gauza izaten. Alakoak ez ditu eguzkiak ere edertzen. Gosearen gosez orituta gelditu gabe, noizean bein medikuarekin egotea ona izango da, orratik. Asko moduzko pil-dora zikiñak artzea baiño obe. Ondartzara begira dauden begiluzeei inbiri pixka bat emateko moduan egoteak ez al du balio?

Danok eduki nai genituzte
gorputz lirain eta fiñak,
baiña neguan ez gera zaintzen
eta udan tripamiñak.
Erretxinduta bizitzen dira
ipurtigar ta erkiñak.
Umorerikan ez galdu beintzat
ta or konpon mitxeliñak.

Mediku jaunen esanak beti
artu bear dira aintzat.
Noizean beingo baraua ona
izan liteke guretzat.
Gorputzarentzat ona ez dana
txarra da animarentzat.
Lanari artu neurria baiña
goseak ez egon beintzat.

1994ko uztaillak 8

Zenbaitek uste izaten du emakumezkoak baiño indar geiago daukagula, eta nai dan guztia egin dezakegula. Au nunai gertatzen da, zoritxarrez. Ala ere, nagusikeri ori beeraka dijoala uste det. Eta ez dakit aurki gure nagusitasunak nun gelditu bear duten. Gaur askotan entzuten degun aitzakia da senarrak ez diola lagun-

tzen emazteari etxeko lanetan. Lan oiek egiten ez genduela ikasi eta orrelakoak esanda, naiko arin libratzen oituta gaude, bai. Orain arte orrela izan da, baiña ez dakit aurki beste alderakoak ez ote diran etorriko.

Catalunya aldean gizonei etxeko lanak egiten erakusteko eskolak moldatzen asi dira. Toki askotan, erriko jakintza edo kultura arduradunak emakumezkoak dira, eta oiek asi dira bere lapikoari su ematen. Erakutsi errez samar egiteko moduko lanak erakusten asi dira gizonezkoei eskola oietan: galtzerdiei puntuak jaso, alkandorari botoia josi eta orrela. Ori, oraingoz, losintxa egin eta gizonak animatzeko. Gizonezkoak eskolara eramanezko amua botatzeko da ori. Gero, urrengo ikastaroan ontziak garbitzen, erropak plantxatzen, sukaldea eta eskaillerak garbitu eta orrelako lanak egiten erakutsiko omen dute. Baita aurtxoak baiñatu eta orrelakoak egiten ere ikasi bearko dute. Eta bizkorra dala uste duen gizonezko bat baiño geiago eroriko da zepoan oraingo onetan. Ondoesanean artu eta eskolara eramango dituzte, eta gero zeñek esango du: “au ez det egingo eta beste ori egiten ez dakit?”. Jakiteak ez duela kalterik esan oi da, baiña bere arriskua badu. Esandako guztia isillik egiten duenari agintzen zaio lanik geiena. Eta ea gizon bat baiño geiago lanetik etxera etorritakoan mantala jantzi bearrean izaten dan. Nolanai ere, ez diogu alderdi illuna bakarrik ikusi bear guzti oni. Batek besteari laguntzeak frutu onak eman bear ditu, nai ta ez. Etxeko lanak andre-gizonak bien artean eginda, ez al dute alkar goxatzeko asti geiago izango?

Gizonezkoak omen gaudela
gaizki azi ta eziak.
Ala diote baiña ez dago
sinisterikan guztiak.
Oraingoan ez gaitu salbatzen
etxekoandreen graziak.
Gu ezitzeko sortu dituzte
ain eskola bereziak.

Zerbait gaiñera zetorkigula
banuen naiko susmua,
bazebillela gu arrastoon
sar erazteko asmua.
Errez ikasten dala esanez
bota digute amua...
Kontuz ibilli, eldu ta gero
alperrik baita damua.

Begiak zabaltzeko eta burua argitzeko maixurik onenetako bat gosea omen da. Eta ez guretzat bakarrik. Baita arkakusuentzat ere. Inglaterran juizio bat bertan beera utzi bearrean izan dira, arkakusoak dirala-eta. Epaimai edo juraduan bi emakume omen zeuden, gizon bat erdian zutela. Eta alako batean or nun asten diran emakume oiek azka, kolkoak urratu bearrean. Azkureari eutsi ezin iñundik iñora. Eta juizioa beste egun baterako utzi bear izan dute. Erdian zeukaten gizonezkoa oso bizartsua izan, eta kolkoa arkakusoz beteta omen zeukan. Baiña bai xomorroak leku obeak nun zeuden azkar antzeman ere. Bizar artean baiño kolko leunean obeto moldatuko zirala ikusi zutenean, laister ziran emakumeetara saltoka. Eta an ziran istilluak!

Oraintxe da arkakusoen garaia. Eta baditeke ondartzan eguzkia artzen daudenei lata ederra ematea. Uda garai onek baditu bere bentajak. Arkakusoen erasorik nai ez duena dijoala mendira.

Datorren asteleenean da Santa Marina eguna. Biar asiko dira Aztiriko festak bere ondran eta alabantzan. Eta arkakusoen bildurrik gabe une lasaiak pasatu nai dituen joan dedilla auzo onetara. Mendian ibillaldia egin eta gero dantzari, bolari eta soiñu, oitura zaarreko festa alaiak eta paketsuak ikusteko aukera izango du. Bertsolariak ere izango dira, urtero bezelaxe. Aztirian ez dago zinetoki eta teatrorik. Baiña pago mardulen azpian plazatxo polita bai. Munduan ez dago ango pagope zoragarria baiño toki aproposagorik bertsoak entzuteko ere. Toki egokia da bertsolarien ateraldia preskoak entzun eta lasai parre egiteko. Aztiri erretegian edo beste jatetxean bapo afaldu ondoren, purua erreaz lasai exeri eta gauean pagopean bertsoak entzuteak grazi aparta du. Edo lasai bazkaldu ondoren, aize sanoa artuz, atsedentxo bat artzeko ere. Izaten dira nun zer ikusiko batetik bestera ibiltzen diranak ere. Orrelakoentzat ere toki aparta da Aztiria. Egun auetan joaten

bazera, une ederrak pasatuko dituzu, mendi giro ederrean eta arkakusoen bildur aundirik gabe. Ondo ibilli.

Aztiri gaiñak nola ez eman
euskaldun bati inbiri?

Beste tontor bat nun da au bezin
alai eta jostalari?

Begira eliz-kanpai gaiñean
dagon aingerutxoari.

Esan liteke tronpetarekin
deika dagola danori:
atoz onuntza pozez beterik,
ementxe dago Aztiri.

Santa Marinak babesten duen
baillara txukun, apaiña...

Oraindik ere zintzarri otsak
alaitutzen duen gaiña.

Zelai, baserri, mendi ta baso
ikusten dira nai aiña.

Begi-biotzak asetzen ditu,
isillerazi mingaiña.

Politagorik ez da beste bat,
politik badira baiña.

1994ko uztaillak 22

Gure aurreko aitonak etzuten eskola asko jakingo, baiña jakinduriz betetako esaera asko utzita joan ziran mundu onetatik. Auetako bat: “ume jaio eta ume biurtu”. Ume izatetik gazte izatera iritsi arteko garai xeble bat izaten du pertsonak: txikia izateko aundiegi egiten da, eta aundi izateko txikiegi artean. Gero, irurogei/ irurogeita bost urtetara iristean ere orrelako zerbait gertatzen zaigula esango nuke. Orrela esaten dute sikologoak ere.

Umeak zerbait nai duenean tema egiten du. Zaarra burugor eta kaskaillu jartzen da. Eta kasketaren bat arrapatzen badu, zeñek atera ura beretik? Urteekin batera lagunak ere ezkutatu egiten dira, eta orra bakardadea etorri zaarraren gaiñera, bere tristura eta guzti. Zenbait aittona zaarrek ezer gutxi bear izaten du gizatxartzeko. Emakumeak ez omen dute orrelako ajerik izaten. Jubilatu ere ez dira egiten, gajoak, eta zaartuta ere lanean jarraitu bear. Eta asarretzen baldin badira, beretzat kalte. Zer nai dezu? Urteekin agintzeko gogoa ere joaten da, eta lanaren mende bizi

danak ezertan pentsatzeko gogorik eta astirik ez. Aitonak baiño obeto moldatzen dira amonatxoak. Zerbaiten bentaja bear zuten aiek ere.

Ez dakit zergatik, baiña uda garai onetan sikologoak aitona-amonei aolkuak emateko prest egoten dira. Eta kontua da zer egin bear degun zeñiek esana izaten degula. Kontsejuak merke saltzen dira nunbait. Nai izan ezkeru umore txar aldiak gainditu eziñik ez dagoela esatea eta oiek danak ondo daude. Jubilatua ezer gutxi dezake ordea, eta gure jakintsuen sermoi asko agintarientzat gorde bear lituzkete. Edo aolkuen erdiak dirutan eman aitona-amona askori. Zaarsari edo erretiro itxurazkoa daukatena ez dira ain triste ikusten, bestalde. Udan emen eta neguan Kanarietan poliki moldatzen dira. Jenio txarra patrikara ondarrean jaiotzen ote dan egoten naiz pentsatzen. Sakela eta sabela beteta edukitzeak ez du trabarik egiten eguzkia artzeko, eta poltxikotan karga pixka bat ez da txarra paseatzeko eta lagunarterako. Ezta noizean bein ondartzan jiratxo bat edo beste egiteko ere. Leengoak esan zuen bezela, “bagenduke zerekin, badakigu nola”.

Zartuta ere gauza on asko
ikasi omen litezke,
baiña ikasten orain artean
egin degu naiko neke.
Arindu gera eta erosi
nai ote gaituzte merke?
Kontuarekin ez asi emen
pazientiaren eske.

Naizta batzutan txantxetan ere
serio samar itz egin,
ez gaude beintzat asarre eta
etzaiguzute aldegin.
Oraindik ere zenbait kutizi
nola daukagun geurekin,
al baldin bada oiek betetzen
apurtxo bat lagun egin.

1994ko uztailak 29

Beste bi egun barru San Inazio eguna ospatuko degu. Aurten igandera iges egin badigu ere, beste askotan asteguna jai egiteko

aukera eman digu, eta gure patroï aundiarekin aaztu gabe, usadio-ari eustea komeni zaigu. Gure santu aundi au gizon zuzena eta zorrotza zala entzun izan det. Jenio estukoa. Eta mundua zuzentzeko alegiñak egin zituen, baiña beste batzuentzat ere lana utzita joan zan emendik. Aren garaian ere baziran oitura xelebreak. Kolko inguru mardula zuten neska gazteak sekulako estimazioa izaten zuten. Italiako zenbait lekutan uste izaten zuten illargiak ikusgarritzko birtuteak zeuzkala kolko ingurua betetzeko. Eta orren premia zeukatenak zerbait nai, ba, eta Napoles eta orrelako uri aundietan balkoira irtenda egoten ziran gauetz illargitan, erropak kenduta. Gustoko mutillak izango zituzten, noski, eta aieri inbiri emateko zerbait egin nai, itxura danez. Bidezkoa izango zan. Baiña silikonarik etzan orduan, eta gauetan illargiari begira egonda ea, ba, kolkoa pixka bat borobildu eta betetzen zuten. Orain eguzkia artzeko oitura dago, eta orduan illargia artzekoa. Etzan pekatu aundia, inguruko leioetatik zeñek begiratu izango zan baiña. Oitura ura sermoilarentzat ondo etorriko zan. Pulpitora igo ezkerko zerbait esan bearke zuten, eta orra gai egokia deadar batzuk egiteko. Nik ez dakit illargiari paparra erakusteak milagrorik egingo zuen, baiña kalterik ere etzuen egingo, seguru.

Oitura okerragoak badira. Biriketako minbizia erruz ari da ugaltzen, batez ere emakumezkoen artean, zigarroa erretzen dutelako. Medikiak kezkaturik omen daudela esaten dute. Izan ere, gizonak egiten dutena egin nai eta orra nolako porrujorak. Egia esan, gizonak aiña badira emakumeak, baita ederrago eta gozagoak ere. Baiña ez luteke bere burua orrela ondatu bear. Kolkoa zirritu pixka batekin erabiltzea ez dakit ona ala txarra izango dan, baiña orregatik ez da iñor iltzen. Orrelakoak ikusita, askotan koloreak gorritzen zaizkigu, eta neska gazte ederrak zigarroa erretzen ikusteak ez gaitu arritzen, ez iñori penarik ematen. Seigarren mandamentua isildu zan. Mandamentu geiago ere badi-ora ordea, eta bosgarrenari astindu batzuk ematea ez legoke gaizki. Egiten dituen kalteak ikusita, dirua irabazteagatik tabakoa sal-

tzea ez al dago gaizki? Obe genduke San Inaziok mundu onetan bueltatxo bat egingo balu. Aurkituko luke zer egiña.

Len sermoi asko iristen ziran
seigarren agindurairiño,
eta bildurra sartzen ziguten
danoi ezurretairiño.

Gaur tabakoa sartzen digute
minbizia sortzerairiño...

Iñor ez bada mintzatzen ere
zorrotasunez gaurdairiño,
bularrerako txarragoa da
illargi betea baiño.

Garbirik ezer bada garbia
da gauean intz epela.

Bere aldean tabakoaren
kea ez al da ustela?

Illunpearen zale diranak
konturatu ditezela,
pitxi politikak argirik gabe
dizdirarik ez dutela.

Eta ez dute inñun luzitzen
illetargitan bezela
illetargitan bezela.

1994ko abuztuak 5

Makiñatxo bat gazte egongo zan abuztua etortzeko irrikatzen. Eta emen degu illabete santu au ere. Etorri da opor-illa. Ez dago garai batean bezela gazteak ankatik soka bat erantsita edukitzerik, oillalokak txitoak bezela. Gazteak ibilli egin bear du eta bazterrak ikusi. Geldi egon ez beste guztia egin bear. Eta ala obe gaiñera, bes-tela erdoitu egingo lirake-eta. Ibilli bear duen makinak koipea bear izaten du, geiegi berotu eta ondatuko ez dedin. Eta oporretan dabil-tzan gazteak ere koipea bear izaten dute, eta koipe ori dirua da, noski. Zorioneko dirua. Eskatzen duten guztia gutxi, gazteentzat. Eta eman bear duten gurasoentzat, asko. Komeria da auxe ere. Opor garai onetan eztabaida koskor batzuk izango dira familietan, baiña aitak eta amak poltsa zabalduko dute pixka bat, eta orretan amaituko dira gorabeerak. Gurasoak badakite seme-alabak ez dirala motzegi lotu bear. Eta luze utzi ezkeru, endreatu egiten dirala. Erdiko punttua billatu bear. Erreza al da ori asmatzen? Asmatzen

badute eta ezpadute, aitak eta amak alegiñak egiten dituzte, bai. Eta ori ezagutu eta aitortu egin bear dute umeak. Guraso eta gazte jatorrak famili askotan daude. Eta aurtan ere izango dira opor ederrak pasatutakoak. Urte guztia eskolan edo lanean pasatu dutenak zer-bait bear dute, izan ere. Bizi ere egin bear da emen.

Bat eta bestea esaten aritzen gera gu, baiña gazteak ere bada-kite arrazoi galantak botatzen. Alkohol asko edaten dutela eta gaizkiesaka aritzen gera askotan. Neska gazte batek esan zidanez, tabernatan botella txiki bat ur garestiago dago zerbeza edo ardoa baiño. Eta dantzan jo eta ke ibilli eta egarritzen diranean, zuritoak edo basoerdiak edan bear izaten dituzte askotan, ura garesti dago-elako. Alkoholari eldu bear ura edateko dirurik ez daukatelako. Eta gazteak bazter guztiak zikindu edo ondatzea besterik ez dute-la egiten esango degu gero. Ganberro utsak dirala. Gazte bat baiño geiago izango dira mendian neka-neka eginda etorri, lagunartera joan eta ura pozik edango lutekeenean alkohola edandakoak.

Dana dala, oporretara zoaztenak ondo ibilli eta atzera etortze-ko modua egin dezazutela. Familietan ez dedilla atsekaberik izan.

Erne ta argi egon izan da
xagu zai dagon katua;
eta gu berriz beti opor zai,
au da gure pekatua.
Orain kolperik ez jota ere
badago noiz nekatua.
Ongi etorri izan dedilla
abuztu bedeinkatua.

Zein ez ote da apur batean
eseri soro ertzean,
gerria eta bizkar ezurra
nekatuta okertzean?
Asmo sendo au artu izan da
neke azpian lertzean,
berriz lanean asteko baiña
oporretan aspertzean.

1994ko abuztuak 12

Bi gaitz daude mondan oraiñaldian, eta biak batera: erorialdiak edo estresa esaten dioguna, eta kolesterola. Estresak tristetu

egiten gaitu, eta iñundik iñora bururik altxatu ezin. Ezertarako kemenik gabe gelditzen gera. Eta kolesterolak odola loditzen digu. Odola loditu, eta zaiñetan pasatu ezinda gelditzen da. Ortik etortzen dira gero biotzeko erasoak eta iñun diran gaitzak. Kolesterola, zurrutari utzita eta jaki bereziak janez eta abar menderatzen da. Baiña erorialdiak arrapatzean, lanak izaten dira bizitzeko.

Kanadako mediko batek aurkitu du oientzako erremedioa. Eta oso erremedio atsegiña gaiñera. Artu erreza. Baiña eskuratzen zail samarra izatea baliteke. Sendagille jaun orrek esan duenez, erorialdiak eta kolesterola sendatzeko ez omen dago musu ematea bezelakorik. Musu asko eman. Baiña zeñi ematen zaion, or dago koska. Gazteen musuak omen dira botikarik onena. Alderantziz, zaarrei emandako musuak eztu balio. Indarra joanda egoten dira, eta zaartuta edo kadukatuta daude aien musuak. Itxura egiteagatik ematen diran azaleko musuak ere ez dute gaitzik sendatzen. Eta musu ematerakoan, bene-benetan eman bear da, ez txantxetan ibilli. Pulamentuz, alegia. Lepo-lepotik elduta, zinean bezela. Emozioa barreneraiño sartzeko moduan. Musu emateak duen zirrara goxo arek gure muiñetan alakoxe sustantzi berezi bat sortzen duela esan du. Zirrara goxo ori, emozio ori omen da biotzeko pozarekin batera estresa eta kolesterola sendatzen dituen botika. Ikusten nago oraindik, kolesterola arrapatzen degunean, errezeta emanda norbaiti musu ematera bidali bear gaituela medikuak. Eta orduan izango dira komeriak. Errezeta eskuan artu eta “zuri muxu ematera nator”, esan besterik ez da izango. Ez dago gaizki, musuaren orde z masaillekoren bat artu bearrean izaten ezpagera.

San Roke eta San Roke txiki badatoz. Zeraiñen eta Gabirian erri-afariak egiteko oitura dute egun auetan. Orrelakoetan zurrut pixka bat egiten da, eta ondo samar jan ere bai, kolesterola arrapatzeko arriskuarekin. Zerain eta Gabiriko etxeoandreak bada-kite zer egin. Afalondoan eldu senarrari lepo-lepotik eta musu bero-bero batzuk eman. Ez dedilla izan kolesterolik eta estresik.

Nere denboran ez det nik entzun
berri pozgarriagorik.

Ez dala musu eman ezker
sendatzen ez dan gaixorik.

Neronek beintzat ez nuen uste
zeikenik orrelakorik.

Iñork asmatu ote du iñoiz
orren botika gozorik?

Au itxaropen zoragarria
bildur askoren artean,
otoitz egiñez jartzen nauena
biotza bete-betea.

Kolesterolik sortu ez dedin
nere ajeen tartean,
asmatu duten botika ori
martxan jarri bitartean.

1994ko abuztuak 19

Erdia eta geiago jan diogu abuztuari. Pena ematen du, baiña badijoa gure opor-il maitea eta pakeosoa. Eta ondo joandakoa ondo dagoenez, ez dezagun eduki orren penarik. Ori egia da. Gure elburu nagusia al degun egunik onenak pasatzea izaten da, eta ori egin badegu, zertan tristetu? Oraindik egun batzuk gelditzen zaizkigu illaren azkenerako. Eta ezin asiko gera moroak bezela “a zer naigabea artu bear dedan emendik amabost egunera!”, esanez. Izan ere, abuztua joango da, baiña mundua ez da orrekin bukatuko. Egun geiago badatoz, eta segi aurrera.

Irurogeita bi urteko poloniar batek emeretzi urte bakarrik pasatu ditu etxean, eta berrogeita iru kartzelan. Pekatu moeta guztiak, pekatu klase guztiak nolakoak diran bai omen daki: bortxaketak, lapurretak, gizon iltzeak eta orrelako pitxiz apainduta dauka bere anima. Bistan danez, kartzelarako ohea izango da ura etxerako baiño. Aingeru zaindaria bai omen dauka, ala ere: bere emaztea. Kondesa baten alaba dala esaten du. Senarra baiño lapur aundiagoa da, baiña emazte maitagarria, poloniar onek esan duenez. Ori da emaztea maite izatea. Dalako gizon au amabi aldiz kondenatu dute, eta beretzat tokirik seguruena kartzela dala esaten du. Badakiela ziur kartzelatik irtetzen dan bezain azkar lapurretara joango dala berriz ere. Damutasuna eta geiago pekatu

ez egiteko asmo sendoa urruti samar edukiko ditu, gizarajoak. Baiña ikusi gizonaren patxara. Berrogeita iru urte kartzelan egin eta ala ere lasai, eta lanean jarraitzeko prest. Guk ere orixe egin bear genduke. Beste bide batetik, baiña orrelaxe jokatu.

Abuztua badijoa. Egun ederrak eman dizkigu, eta berriz ere izango dira orrelakoak. Orain arte egin deguna gero ere egiteko prest bagaude, ziur egon gindezke egun politikak arrapatuko ditugula oraindik. Poloniarrek kartzelan pasatu dituenak aiñakoak bai, seguru asko. Oporrak dirala-eta, diru dexente ari gerala kas-tatzen? Eta zer? Dirua ez al da, ba, al dan ondoena bizitzeko? Oraindik opor egun batzuk gelditzen zaizkigu beintzat, eta saia gaitezen duten zumu guztia ateratzen. Orain alegindu, gero damu izateak ez du balio.

Oporrak sortzen dute
beti gaitz jakiña:
igesi, ta gelditu
erazi eziña.
Danak bukatu arte
saia alegiña.
Gero ere badago
lana noiz egiña.

Asko dabiltz etxetik
guztiz apartean:
jan ta lo lasai eta
parrandak tartean.
Jarraitu onelaxe
al dan bitartean,
lapur bildurrik gabe
gelditu artean.

1994ko abuztuak 26

Il au etorri zanean pozik giñan, baiña kuerda kastatu zaio. Eta berealaxe gera berriro amabira asi bearrean. Oporrak ia buka-tu dira, uda badijoa, eta betiko sokatirari eldu bear orain. Baiña Zegamako jaiak ez dira amaitu oraindik, eta festazaleak azkenen-go ondarrak bildu naiko dituzte. Nola ez, ba, Zegama jatorra dan bezelako festa lekuak izanik? Gazte denbora orretarakoxe da gai-ñera, al dan guztian festa egiteko. Aitzkorriko guretze santua ere

an egongo da zai, besoak zabal-zabalik dituela, ea norbait deskuidatu eta plazara dijoalakoan elizara joaten dan.

Brinkolarrak ere fin asko ariko dira, ba, urteroko prestaketak egiten. Aurten ez daukate San Agustin eguna igandera aldatu bearririk. Etzi baita. Zegamarrak badakite zaindariaren eguna ondo pasatzen, baiña baita brinkolarrak ere. Ez dira atzera begira geldituko. Eta izango dira San Agustiñen ondran eta alabantzan egun bapoa igarotakoak. Ederki egiña. Al dan ondoena bizitzeko modua kendu ezker, zer gelditzen zaio mundu oni?

Oporrak joan dira. Urteko egunik luzeenak ere bai, baiña dana ez da amaitu oraindik. Udazkenak ere badaki, nai duenean, gozatu batzuk artzeko moduko egunak ematen. Lanera joan bear dala? Ez da gaizki etorriko udan kastatutako txanponak utzitako zuloa betetzeko. Ez aaztu lana baiño gaitz txarragoak badirala mundu onetan. Eta osasuna degula, udazkena urte sasoi atsegiña da. Beti ez dala pazkoa pentsatu eta eldu lanari. Eta aurrera. Nai duen guztia daukanik ez dago emen.

Errusiako jauntxoak ere gustora ziran. Orain amar urte inguru, bizia luzatzen zuen pildora asmatu zuten ango jakintsu batzuek. Eta oso garestia izanik, jauntxoentzat bakarrik egiten zan botika ori. Baiña orain, zer gertatuko eta pildorak egiten zituen fabrikak porrot egin duela. Eta Errusiako jauntxoak ere ordua iristen danean joan egin bear emendik, gu bezelako arlotek bezelaxe. Emen ez da iñor gelditzen azitarako. Ondo pentsatuzten jarrita ere, ez dago al dan arte ondo bizitzen saiatzea bezelakorik. Iñori kalterik ez egin, eta orrek ematen duen lasaitasunarekin, ondo bizi. Emendik amaika illabetera oporretan gera berriz ere. Gutxi al da?

Uda badijoakigu,
San Agustiñak testigu.
Aurtengo festa onentsuenak
bukatu zaizkigu.

Naiz festazale beti gu
gelditu gera katigu.
Baiña lanari berriz eltzeak
on egingo digu.

Jarrai dezagun aurrera,
ez begiratu atzera.
Ustekabean ez gaitezela
joan bazterrera.

Ez beintzat asi gainbera,
orain kontuak atera:
amaika illabetera berriz
oporretan gera.

1994ko irailak 2

Ez dago danok ederrak eta egokiak izaterik. Baiña iñork ez degu itsusi izan nai. Iñork ez dezala parrerik egin gu ikustean. “Eguzkia baiño ederragoa”, aspaldiko esaera da, eta danok nai izaten degu tajuzko samarrak izan. Ez emakumeak bakarrik, baita gizonezkoak ere. Eguzki koloreak edertu egiten gaitu, bestalde. Baiña Erromako sendagille jakintsu batek esan duenez, edertasuna eguzkitan ez baiña itzalean billatu bear genduke. Izan ere, iñork edertasunik badu komentuetako monjak daukate. Eta benetan ederrak izan nai dutenak komentu batera joatea dute onena. Eguzkiak azala zakartu eta zaartu egiten duela, eta monjak itzalean egoten diranez, oso azal leuna eta gozoa edukitzen dutela. Sendagille ori Erromako Unibertsidadeko irakasle da. Eta monjak nolako azala daukaten badaki, eta ez da edozein arlote izango.

Komeria da, ba, auxe ere. Milloika eta milloika kolore ederreko azala izateagatik eguzkitan kiskaltzen egoten dira, eta azala alperrik galtzea besterik ez dute egiten, alajaiña! Irurogei urtera iritsita ere zimurrik gabeko aurpegi gozoa eta leuna eduki nai dutenak komentura monja joan besterik ez, eta ori da atarramentua. Erromako jakintsu orrek esanaz gaiñera konturatzen naiz monjak oso azal ederra edukitzen dutela. Batzuk ezagutzen ditut neuk ere, eta aiek orrela daukate beintzat. Ez dakit leuna daukaten ala ez, baiña guri-guria eta kolore ederrekoa daukatela bai. Gizonezkoak ere badira puska bat bezteagatik eguzkitan kaskartu ederrak artzen dituztenak. Erromako maixuak ez du eman, ala ere, gizonezkoentzat erremediorik. Baiña kartujoen komentuan

oporrak pasatu eta orrelakoren bat egin bearco dute azala garaia baiña leen zaartzea nai ez badute. Premi ederra bai zenbaitek, emakumeengatik gaizkiesaka jardun gabe.

Mediku jaun orrek asko jakingo du, baiña ez dakit gauza bat ez ote zaion aaztu. Edertasuna ezin liteke ezkutuan gordetzeko izan. Komentuetan pixka bat gordetzea ondo dago, baiña dana ez beintzat. Kanpoan gabiltzanok ere pozik ikusten ditugu gauza politak eta ederrak. Eta eguzkitan beztutako danak ez dira itsusiak izaten, nolata urik bota gabeko larrosak bezela pasatuta ez dauden.

Komentuetan daude kolorez
aurpegirik ederrenak.

Ala diote azal kontuan
asko ikasi dutenak.

Guretzat ezin izan ordea
an borondatez daudenak.

Azal polita daukate baiña
ez dira munduarenak.

Azal xuria, goxo ta leuna
beti izan da polita,

baiña beltxaran asko dabilta
edertasunez jantzita.

Eguzki dagon tokietara
egin noizik bein bisita,

naiko aingeru beltz ikustera
monjai pakean utzita.

1994ko irailak 9

Askok dakiguna esan bearco degu gaur: Arantzazuko Ama Birjiñaren eguna dala. Arantzazuko Ama euskaldun askok maitatu dute, urteetan zear. Onelako kontuak ez dute grazirik egiten orain, baiña badaude oraindik leengo usadioak bazterrera utzi nai ez dituztenak. Eta alakoak pozik joaten dira Arantzazura, noizean bein bere gogoko egunak pasatzera. Gaupasa egiñez bakarrik ez da ondo bizitzen. Pakeak eta isiltasunak ere badaki gustora bizitzen laguntzen. Garai bateko sinismen ura asko oztu da, baiña ez du azken arnasa eman oraindik.

Eskean zebillen Arantzazuko fraille bati Ama Birjiñak milagrorik ez al zuen egiten galdetu zion baserritar batek. Eta

bai frailleak azkar erantzun ere: “Amonatxo batek ainbeste mutilzaar mantentzeari mirari txikia al derizkiozu?”. Orain ez dago orduan ainbeste fraille, baiña Arantzazu bizi da. Naiko histori neketsua izan du, baiña zerbaitek edo norbaitek lagundu dio bizirik irauten. Arantzazu iru aldiz erre zan, eta iru aldiz zutitu zuen Euskalerrriak. Orain berrogei urte inguru eliza berria egin zanean ere bazan naiko zer esana. Ez zitzaigun oso eliza polita iruditu asieran. Artzai txabola ematen zuela esaten genduen askok. Eta atarian dauden amalau arri aiek apostoluak al diran galdetzen genduen. Ala ere, jende asko joaten da Arantzazu ikustera, eta pozik gaiñera. Eta Euskalerritik ez ezik kanpoko errietatik ere bisitari asko etortzen da gaur Arantzazuko Amarengana. Elizako teillatua ere berritu dute, oraintsu. Irurogeita bederlatzi milloiko aurrekontua zuen erretailak. Eta irurogeita amaika milloi bildu zituzten frailleak. Teillatua konpondu eta bi milloi sobratu, ala ere. Au berau ez al da naiko miraria, lapurretarako orain dagoen griña ikusita? Jakin dedanez, Oñatin bertan amabi milloi pezeta bildu zituzten. Eta eliza bat konpontzeko erri batean bakarrik orrenbeste diru emateak zerbait esan nai du, noski. Auek danak kontuan izanez, euskaldunok ain gureak ditugun oiturak ez genituzke bazterrera bota bear. Pertsona edadetuak ere bizi bear dute. Arantzazun bederlatziurrena egiteko oitura zergatik kendu bear diegu gure aitona-amonei? Beste batzuk noizean bein bere gogoko egun bat pasatuta konformatuko dira. Goiz partean elizakoak egin, ederki bazkaldu eta etxera, kutizia edo promesa beteta, pozik. Ez al du onek balio?

Ori dana egiteko aitzaki eta toki polita da Arantzazu. Gero, Arantzazutik beera azkarregi jeitsi gabe, bidean gelditu, kurioso-kurioso bazkaldu eta illunabarrerako etxera, egun ederra pasatuta. Eta gaur Arantzazun jende asko izango dan bildurra daukanak beste edozein egunetan egin dezake ori. Zenbat eta leenago eta obe gaiñera. Dana ez da gerorako utzi bear.

Len bezin sarri ez gera joaten
gaur egun Arantzazura,
gure animak baretzen diran
pake-iturri santura.
Amak gaur penaz galdetuko du
begiratuaz mundura,
nun ote dagon garai bateko
bere Euskalerra ura.

Orañaldian naiko urritu
dabil, bai, Amarengandik.
Euskalerra argia nai ta
ez datorkio iñundik.
Fede gauzetan ainbat astindu
naiz artu etsaiengandik,
Arantzazuko Ama maiteaz
ez gera aztu oraindik.

1994ko irailak 16

Aspaldi onetan zer ikasia pranko ematen digute. Eta ezjakiñak bagera, ikasteko balio ez degulako izango da. Politika edo politiko guztiak ez dira berdiñak izango, baiña batzutan ondo aspergarriak jartzen dira bere erakutsi bearrarekin. Dana badakite eta dana ondo egiten dute. Ez dute ankasartzerik egiten. Ezta pentsatu ere. Gu gera ezjakiñak. Oraingoan Argentinako presidentea izan da babak eltzetik atera dizkiguna. Ama Birjiñaren irudi baten aurrean egundoko errezoaldia egiña izan bear du gizon orrek. Eta errezoaren ondoren esan du, bera Jainkoaren tresna dala. Jainkoak nai duena egiteko jarrita daukala mundu onetan. Agintzen jarri eta bereala emaztea etxetik bota zuen. Eta ez dakit nungo Jainkoak aginduko zion ori egiteko. Baiña anak jasoerazi zizkion beintzat.

Argentina lurralde aberatsa da, danetatik ematen duena. Aragia eta garia erruz izaten da, eta ala ere jende asko goseak eta mixeri gorrian bizi da. Ango presidente jaunak obe luke erreza-tzeari pixka bat utziko balio eta nazioa gobernatzen geiago saiatu. Baiña berak ez omen du egiten Jainkoak agindutakoa besterik, eta Argentinan gertatzen diran zoritxar guztiak Jainkoak orrela nai duelako gertatzen dira. Eta, kitto! Berak alegiñak egiten omen ditu bere erriaren alde, baiña alperrik. Erru guztia Jainkoarena da.

Ez du esan jendeari jaten emateko ala sakela ondo betetzeko lana egiten duen. Kontua da orrenbeste gari izaten dan lurrean ume gizarajoak zabor artean ibiltzen dirala ogi puska baten billa, eta bitartean, presidente jauna errezatzen, santu itxura egiñez. Ama Birjiñak esango ote dio ori eginda Jainkoari aitzakia emateko? Amaika orrelako badago munduan!

Inglaterran berriz jende asko geiegi gizenduta omen dago. Gosea ez da ona izango, baiña tripa koipez gaiñezka edukitzea ere ez. Izugarritzko diru pillak kastatzen ari dira tripaundi jende ori garaia baiño leen il ez dedin. Inglaterrak badu, ba, nazio aurrera-tuaren fama, baiña ez dakit zer esan. Argentinara joan eta an illa-bete batzuk pasatzea naikoa luteke bizia luzatzeko. Eta ala ere ez dira mugitzen. Goseak bizi baiño aseta il naiago izaten du zen-baitek. Zerbait izango da. Inglaterrako politikariak ere ez dakit oso zuzen ote dabiltzan. Argalak gizentzen dirua kastatzea ez al da obe gizenak argaltzen baiño?

Jaunak, badago lanikan asko
zenbait agintarirekin.
Erria ondo bizi ala ez
batzuentzat dana berdin.
Iñoren premi estuak nola
ez dioten ematen min,
Jaungoikoari kulpa botata
erak nai dutena egin.

Kontzientzia berdea zala
ta jan zuela astoak...
Munduan sarri ikusten dira
egi onen arrastoak.
Pobreentzako okela ordez
jateko aza ostoak.
Biar ez dakit baiña gaur beintzat
ederki dabiltz gaiztoak.

1994ko irailak 23

“Zerri goseak ezkurra amets”, dio esaera zaarrak. Lana apur bat ugaltzen asi dan zurrumurruak dira. Egunkari edo paperen batean onelako berriak barrundatzen ditugunean begiak luze-luze eginda irakurtzen ditugu. Zerri goseak ezkurra bezela, lanik ez

daukanak lana izaten du amets. Kopetako izardiarekin ogia irabaztea obe izango da, izarditu gabe goseak bizitzea baiño. Langabezia sekulako pikardiak egiten ari da. Jende asko gaixotu da etsipenaren poderioz, eta asko ari dira iltzen ere, garaia baiño leen. Lanik ezak bizitzaren erlojua gelditzen du, itxura danez. Eta geldi dagoena deabruak zirikatzen duela esan oi ziguten. Nik ez dakit orregatik izango dan ala ez, ala lanik ez daukanak geiegi pentsatzen duelako izango dan. Baiña, kontuak kontu, lanik ezak burutik naastutako jendearekin eroetxeak betetzen ari dirala. Lana ez dala alimentua esan izan da, baiña lanik eza ez da botika ona osasunarentzat.

Ea, ba, gure gobernatzaille jaunak egia esaten asten diran eta lan pixka bat sortzen duten, etsipenean erori gabe mundu koskor au alai antzean eramateko. Orretarako eman diguten errezetak ere mamia badu. Urte pare bat edo iruan lantsariak jasotzea ezta komeni, baiña erosten degun baiño geiago erosi bear degula. Ekonomia indartzen ari danez, lantegi berriak sortzeko diru geiago jarri bear dala diote guk baiño bista ohea daukatena. Itz gutxitan esateko, egin bear deguna, zera da: iru bat urtean oraintxe bezela irabazi eta geiago kastatu. Gauza zaillagoak egiten ditu jendeak gogoia artu ezker. Eta au dana oraintxetik asita egin bear da gaiñera. Gerokotan utzi gabe. Denbora airean joaten baita, gure diru liperrak bezelaxe. Leenago, gauzak ondo eta merke egitea komeni zan, atzerrietan saltzeko. Orain, bertan saldu bear dala ekonomia piztuko bada. Bestalde, berdin irabazi eta geiago kastatzea zailla izango dala esaten dutenak, ezkor eta pesimista utsak omen dira. Fede gutxi edukiko dute, seguru asko. Eta diru gutxiago.

Makiña bat onelako txorakeri esaten digute, eta ala ere ez ditugu bialtzen oillarrak perratzera. Ez daukagu pazientzi makala. Zerua irabazteko orixe bear omen da, eta guk ere badauzkagu meritu galantak.

Langille maite biotzekoak,
ez dirurikan eskatu.
Zuek geiago irabaztea
izan liteke pekatu.
Naizta geiago ez irabazi
geroz geiago kastatu...
Agintariak eskatu dute,
eta ez arren ukatu!

Gizon bizkorrak bageneuzkala
bagenekien lenago.
Esan digute: erosi lasai,
geroz ta gauza geiago.
Geure burua baiño dirua
ez izateko naiago.
Guri ematen ez digutena
nork kastatua badago.

1994ko irailak 30

Agorra agortu zaigu. Eta aurtengo oporraldi nagusia ere bai, berarekin batera. Oporrak garestiak bezela izan litezke merkeak. Orregatik, opor kontuak oso alde batera uztea ez da komeni. Datorren urterako txangoaldirako dirua aurreratzen asi bearra ere gertatu liteke gero.

Ebaketa edo operazio estetikoak egitea oso modan dago orain. Degunarekin edo geranarekin ez gera konformatzen, eta asko eta asko or ibiltzen dira medikutan, ea okotza edo sudurra konponduta pixka bat itxuratzen diran. Edertzeko ebaketa oiek garesti samarrak izaten dira emen, baiña Uruguain utsa prezioan egiten omen dituzte. Sudurra egokitzea eta lepezaiñetako zimurrak kentzea eta orrelakoak ez omen dira ezer. Eta jendea amilka dijoa mundu guztitik Uruguaiako medikuengana. Diru apur baten truke sudur okerrak zuzendu eta aurpegiko azalak tiratu, eta egundoko gazte itxura jartzen diete nai duten guztiei. Badira andik iñork ezagutzeko ez dirala etorrirakoak. Neska gazteak ederzaleak izaten dira, eta orrelaxe bear dute gaiñera. Uruguaira joan ezkerro, gutxi daukaten tokian geiago jarri, geitxo daukaten tokian kendu, eta aingeruen pare jartzen dira. Emezortzi-ogei urte inguruko mutillak ere joaten dira sendagille famatu oiengana, eta sudurra eta belarriak konpontzen dituzte geienak. Berrogei urte-

tik gorako gizonak aurpegiko azala edo lepaingurua txukundu nai izaten dituzte, azala guri-guri jarri eta gazte itxura artzeko. Begi inguruak ere konponzen dituzte, eta bere gustoko neska gaztearekin asko ezkondu omen da, anima zaarra eduki arren. Medikiak ez baitute animarik berritzen.

Uruguai oso urruti dago, baiña gaurtik dirua aurreratzen asi ezkeru, zerbait egin litekeela iruditzen zait. Txanpon batzuk gorabeera, itxurak asko balio du gaur, eta ez da gaizki etorriko gure gorputzari atze-aurre berriak eta itxuratu ona ematea. Bai omen dira Uruguaira zorretan joan eta atzera etorri, eta lasai dabiltzanak, iñork ez dituela ezagutzen-eta. Ez nuke, gaiñera, ezetzik esango. Gaurko aurrerapenak ez dira nolanaikoak, eta zenbaiten aurpegiak ere ez. Izango dira, bai, *zorrak zor, lepoa lodi* esan eta lasai bizi diranak.

Uruguai berri oiekin
poztuko ziran, bai, zenbait,
zatar samarrak konpontzen ere
asi bear baizan noizbait.
Itsusi danak edertze ori
ondo iruditutzen zait,
ea aittonak gaztetutzeko
noiz asmatzen duten zerbait.

Gaztetzearren Uruguaira
zein ez litzake joango?
Baiña an ere utsaren truke
ez dute ezer emango.
Gezurtxoren bat ez ote dute
engaiñatzeko esango?
Gauden bezela konformatzea
ez al da obe izango?

1994ko urriak 7

Agorra agortu zaigu eta baita urria etorri ere. Il onetan pazientzia izaten da urri samar etxe askotan. Egoaizea etortzen da, eta arekin batera usoak pasatzen asten. Eta oiek dira naiko eiztariak orbela bezela astintzeko. Illabete onek baditu bere gorabeerak, baiña ez du gaitz aundirik, ala ere. Noizean bein asarre puntu bat ezean, bizitza oso geza izango litzake. Ez da oraindik den-

bora asko etxekoandre batek orixe esaten zidala. Urrilla, illabete aproposa da zenbait senar-emaztek batek bestea gazigezan proatzeko. Uso-eiztariak ez dio begiratzen asteguna ala jaia dan. Aitzaki gutxi bear izaten du emaztea etxean bakarrik utzi eta mendira iges egiteko. Ori ez al da emaztea baiño usoak maiteago izatea? Bizitzak bear du gatza, baiña geiegi ere ez. Egunsentian goibelduko bada ere, illunabarrean argi eta alai antzean egon bear du etxekoandreak. Senar gizarajoa nekatuta etorriko da menditik eta eskutsik, seguru asko. Gaur ez da errez usoak arrapatzen, eta losintxa pixka bat egin edo gutxienez barkatu beintzat, gizarajori. Uskeri bat izaten degu naiko askotan kopeta illuntzeko. Konturatzen geran bezain azkar illunaldia uxatzen saiatu gaitzen. Orrela ikusiko degu zaparradaren ondorengo eguzkiak nolako goxotasuna duen.

Thailandiako gizon batek amazapi emazte omen zeuzkan, Asia aldean emen baiño merkeago daude nunbait-eta. Baiña an ere emengo moduko komeriak pasatzen dira askotan. Eta gizon orrek iñundik iñora ezin zuen andre guztien gustoa egin. Eta alako batean, zearo etsi eta bere burua il du. Nolanai ere, asarretzen ziran bakoitzean pakeak egiteko abildadea izan balu, aiek zeuzkaten goxatuak. Baiña zeñek dauka trebezia ori? Amazapi alargun an gelditu dira orain zeñi errietan emanik ez dutela. Ori ere ez da, ba, bizimodu ona izango. Gizonari sufrituerazi nai, eta gizonik ez etxean. Ori ez da gero izango senarra eizera joatea bezela. Baiña badirudi amazapi andre oiek berearekin irtengo dirala. Emendik bost bat urtera, irurogeita amar milloi mutilzaar izango omen dira Txinan. Eta laister dute aukera gizarajo batzuei pazientzia proatzeko. Pixka batean itxoitea naiko. Thailandiako andreak ainbeste asmatuko dute, bai. A ze gozatuak dauzkaten emendik urte gutxira. Txinako mutilzaarrak artu bear dituzte astinduak. Batzuk beste mundura bidali dituzte eta orain errepuetoko gizona naikoa.

Andre askoren senar izaten
ez da, ez, giro izango,
amazazpiko maistra taldeak
lanak baiditu emango.
Nik ez det ori proatu baiña
nola ez det au esango:
aien senarra ez da eizera
nai dun guztian joango.

Oillar gabeko oillategia
nola dan oso tristea,
bidezkoa da thailandiarrak
senar bat nai izatea.
Txinan daukate peri ederra
mutilzar merkez betea.
Aruntza billa joaten diranak
izango dute suertea.

1994ko urriak 14

Udazkenak ere izaten du, ba, bere aldapatxoa. Bizitzak jarraitu egiten du, eta aurpegia eman bearra dago, bakoizak al duen moduan. Udako atsedernaldia pasatu zan, eta sokari eldu bear berriz ere, berriketak alde batera utzita. Bizimoduko sasitan sartuta gaudenok etsi-etsian jarrita gaude, eta ez diogu mirarik irizten. Gazteak lan geiago ematen dute guk baiño. Batzuek ikas-taroa asi izango dute. Beste batzuek or ibilliko dira Unibertsidadean katonatu eziñik. Matrikulak dirala, liburuak dirala, bideetarako dirua dala, eta abar. Gurasoak edukiko dute eskuak bete lan egun auetan. Izan ere, oraingo gazteak zorrotz eskatzen dute. Askatasuna bear dutela, eta eskubidea daukatela, laister aterako dute platerara. Bearkizunak isillik gordetzen dituzte. Obligaziorik daukatenik ere ez dute esaten.

Alde batera ez naiz asko arritzen gaiñera. Guk ez genduen asko ikasiko, baiña dotriña ikasi genduen beintzat, apur bat. Gurasoak aintzekotzat artu bear zirala buruan sartu ziguten bapo. Oraingo gazteak ez dakit orrenbeste badakitenik. Dotriña ez ezik, gizalegerik ere erakusten al dute, ba, orain eskoletan? Zerbait bear dutenean, gurasoak ezin dezaketenik ere ez dute uste. Eta umeei nai duten guztia ezin eman, askotan. Eta ez dute pentsatu ere egiten aita-amarentzat nolako naigabea dan ori. Zenbait gaztek ikasi

ote du karrera aitak lantegian sortutako orduei esker egin duenik? Zenbat ote dira, amak beste etxe batzuetako garbiketa lanak egin zituelako ikasketak egin dituztela? Askatasuna bear dala, eta txima luzeekin eta bizarra kendu gabe ibiltzea ondo egongo da. Neguan gona motxak eta udan galtza estuak janztea ere bai. Gora askatasuna! Baiña batzuetan bederik gurasoen esana egitea ere ona litzake, bai. Kanpoan intsumisoa izatea barkatzeko modukoa da, baiña etxean ez. Etxean mutil jatorrak eta bear bezelako neskak, neska formalak bear ditugu, bai guk eta bai erriak. Gurasoak badituzte akatsak, baiña seme-alaba onak akats guztien gaiñetik maitatu bear dituzte. Eta gurasoak ez seme-alabak geiegi estutu. Utzi arnasa artzeko ainbat leku eta artu pazientzia. Etxeko pake santua bearezkoa da gure seme-alabak ondo ezitzeko.

Udazkeneko estuasuntxoak ere pasatuko dira. Etorriko dira egun lasaiagoak. Orain arte orrela izan da, eta alegiñak egin ditzagun aurrerakoan ere alaxe izan dedin. Ez etsi. Eta gazteak ez dezatela pentsatu dana dakitenik. Bizimoduko berri gurasoak aiña jakiteko dexente falta dute oraindik.

Munduko danak nola ez geran
zuzenak edo justuak,
utzi ditzagun alde batera
diruak eta kastuak.
Danak ez dira tximaluzeak,
ez dira prakaestuak...
Eta oraindik ere badaude
neska ta mutil prestuak.

Zar eta gazte gure artean
asmatzen ditugun saltsak,
ez degu uste baiña guztiok
dauzkagu gure akatsak.
Baiña guraso danak ez dira
lukurak edo narratsak.
Gertatzen dana: nai duten danak
ez dirala aberatsak.

1994ko urriak 21

Danok ez gera berdiñak, eta ez dago danok berdin bizitzerik. Eta ori egia bada eta ezpada, danok ez gera bizi berdin. Batzuek

nai duten guztia egiten dute, eta beste batzuek ezta bear dutena ere. Aginpidea daukaten gizon jakitsuak kontatu dute gauzak oker daudela, oso oker. Eta mundua zerbait konpontzeko modua egiten ari dirala. Jendea ondo edo itxura antzean bizi dan tokietan aur gutxi jaiotzen da. Eta orrek bere arrazoia badu, noski. Aberatsak ez duakate gogorik daukatenetik iñori ezer emateko. Ezagunei ez, eta ezezagunei gutxiago. Bestalde, ez da jakiten jaiotzen diranak nola-koak izango diran. Eta aberatsei ez komeni asko jaiotzerik, bada-ezpada ere. Irugarren mundua deitzen diogun orretan, edo jendea miserian bizi dan tokietan, bestaldera gertatzen da. Lau lagunek jaten ez duten tokian bostek ere ez dutela jango eta ume asko ekar-zen dute mundura, batere kupidarik gabe. Eta asko daukatenak orregatik omen daude kezkatu-rik. Aurki ez dala izango zeñiek lana egiñik. Ez dala izango besorik lanerako. Eta lanik egiten ezpada, irabaziak beeraka joaten dirala. Baiña miserian bizi diran tokietan ere badago kezkarik asko, jateko geroz ao geiago dagoelako. Lanerako beso gutxi, eta jateko asko. Eta danok dakigu besoak lanean baiño aoak jaten leenago asten dirala, eta koska ori berdin-du ezin iñola ere. Jateko aoak baiño lanerako besoak naiago dituz-te aberatsak, baiña aorik gabeko besorik jaiotzen ez ordea.

Ezberdintasun au aspaldikoa da, eta miseria ere bai. Baiña ondo bizi geranean ez degu ikusten nai ez degunik. Eta gauzak okertu egiten dira. Jakitsuak eta agintariak noizean bein billerak egiten dituzte mundua konpondu nairik. Mundu onetara biztanle geiegi etorri ez dedin lanean ari dirala esaten dute. Beartsu edo pobrerik ez dagoela dirudi. Eta pobreen orde- z aberatsak ekartzen saiatuko balira, zerbait egingo luteke gure jakitsuak. Baiña munduan dauden ondasunak geiagoren artean banatu bear-ko lirake ordea, eta baliteke orrek askori kaskarreko azkurea ematea. Ala eta guztiz ere, aberatsak ugaltzea obe litzake pobreak ugaltzea baiño. Ez dago zalantzarik aberatsak bearrezko dirala, baiña danak bearrezkoak ote dira? Besteren bizkarretik bizi dan asko samar ez ote dago gero?

Jakintsuak diotenez, jaiotzak urritu edo neurtzen ez badira, amabi milla milloi bizilagun izango dira munduan emendik berrogeita hamar urtera. Eta zazpi milla milloi naiko izan. Ortik pentsatu neurri zuzenak artu ezean zenbatek joan beariko duten etorritako lekura mundu onetan lana egiteko denborarik gabe. Mundu au inpernu biurtuko ezpada, zerbait egin beariko da. Eta iñork egitekotan, asko daukatenak eta asko dakitenak egin beariko dute. Miserian daudenak ez dute indarririk ezer egiteko.

Asko dutenen oitura
lukur guztien modura,
geroz geiego edukitzea
da oien ardura.
Dirua bildu zakura,
pobreak bota mundura...
Baiña orrela joan al liteke
mundutik zerura?

Beti zorion eizean
gauean eta goizean.
Nai duten dana egin digute
denbora luzean.
Beti geroko pozean,
miseriazko leizean,
asko dutenak eskua noizbait
zabaldu ezean.

1994ko urriak 28

Mundu onetan ez dagoela pakean bizitzerik esaten degu. Beti badala zerbait. Nola ez da, ba, izango justiziaren arrastorik ez dago-eta? Batzuek nai duten guztia egiteko eskubidea dute. Eskubidea, edo indarra. Eta beste batzuentzat ez dago eskubiderik. Eta indarririk ez daukatenez, beti besteren esanetara burua makurtu bear.

Leengo batean bi neska-mutil oporretara zijoazen, egazkiñez. Ezkontzeko asmoa omen zuten, eta badaezpada ere aurrez alkar proatzea pentsatu zuten. Orain modan baitago ori. Eta kontua da mutilla sekulako mozkorrarekin igo zala egazkiñera. Gero, airean zijoazela, izugarrizko iskanbilla armatu zuen, eta pilotoak egazkiña jeitsi eta gure mutilla kanpora atera eta lurrean utzi. Ark

egin zuen berea. Eta an gelditu zan, lasai asko, mozkorra pasatu arte. Andregaiia galeran irten zan ordea. Lotsa galanta pasatu eta leen nola edo alako senargaia bazeukan baiña gero uraxe ere ez. Mutilla beste neska baten billa joango zan, sikira, mozkorra pasatutakoan. Neskak mutillari ezkondu nai duen galdetzeko oiturarik ez dago ordea, eta neska gajoa norbaitek zerbait esan zai geldituko zan. Eta orixe etzait batere ondo iruditzen. Neskatzak mutillari ezkontzeko mandatu egitea ez luke gaizki ikusi bear iñork. Ez al dauka, ba, bere gustokoarekin ezkontzeko eskubiderik? Zergatik burruka asko egiña badauka emakumeak oraindik ere, zenbait oitura txatxal baztertu arte. Emakumeak ez dira oraindik bear bezain aintzakotzat artzen. Eta gaitz ori zaarra da gure artean. Jesukristo jaiio baiño 500 urte leenago ere orain bezelaxe zala diote. Langillea, zentzuzkoa, garbia eta esana egiñekoa bear zuen izan. Bestek nai bezelakoa, ain zuzen ere. Ez berak nai bezelakoa. Eta oraindik okerragoa dana, bestek nai zuena egin bear zuen emakumeak, ez berak nai zuena. Ori ez al da, ba, emakumea bigarren maillako norbait/zerbait dala uste izatea? Gustatzen zaizkion mutil bikaiñak ikusiko ditu, eta ezer esan ezin, jendeak gaizki ikusiko lukeela pentsatuta.

Oraindik ere orrelako txatxalkeri batzuk egiten dira, bai. Baiña txorakeri oiek baztertzen ari dirala uste det. Emakumeak asko ikasten du gaur egun, eta asko daki. Eta dakienari etzaio nolainai burla egiten. Eztakit, gaiñera, askatasuna lortzeko jakinduria baiño bide oberik dagoen ere. Izan ere, dakienak bere eskubideak zaintzen ditu. Banaka, baiña mutillari ezkondu nai duen galdetutako neskak izaten omen dira. Eta aiexek dira zorionsuenak. Ez bait daukate “zertara etorri ziñan neregana?”, senarrari esaterik.

Naiko arritzen asita nago
gaurko neska batzuekin.
Mutil bat erruz gustatzen eta
esaten ausartu ezin.

Esan sikira: zuk ez badezu
nai ezkontzea nerekin,
nik maite zaitut eta neroni
ezkonduko naiz zurekin.

Neska maitea, oitura zarrei
arren, zuk ez egin burla,
baizik pentsatu bide berri bat
artzea ona dezula.

Egia bada zuk mutil bati
zerbait esan diozula,
eskubidea zendulako da
ta ez lotsatu sekula.

1994ko azaroak 4

Urteko illabeterik santuenetako batean sartu izango gera. Zeruan milloika santu dago, guri bidea erakusteko jarrita. Eta ez orretarako bakarrik, premia degunean laguntzeko ere bai. Zerbait nai degunean, sinismen aundiz eskatu bear da ordea, eta orretan zabartu gera. Orain ez diegu santuei leen aiña errezatzen, eta orregatik gabiltza gabiltzan moduan. Santuei lata eman bear omen zaie. Eskatu eta eskatu, bear deguna iritsi arte. Zerbait izango da.

Medikuarengana joaten geran lautatik bat txalakatzen asita omen gaude. Burutik pixka bat endreatuta. Danok joaten gera noizean bein, eta apur bat ikuttu gabeko gutxi egongo gera mundu onetan. Santuak badaukate lanik asko baldin lagundu nai badigute. Miseria besterik ez dago bazterretan. Gerra, droga, sida eta nik ez dakit zenbait gaixotasun. Eta emen gabiltza errukiz beteta bageunde bezela, itxurak egiten. Askoz obe genduke bakoitzari berea ematen saiatuko bagiña.

Ez dago urrutira joan bearrik pixka bat burutik eginda gaudela ikusteko. Afrikara joan gabe, Andaluzian ere jendea gaizki bizi dala entzuten degu. Sevillan berebiziko enpresa bat moldatu dute zakurrak zaintzeko. Oporretan edo norabait joan bear danean, ez dago zakurra kanpora bidali bearrik. Enpresa orretako langilleak etortzen dira etxera zakurrari lagun egitera. Jaten eman, garbitu, paseatzera atera eta bear duen dana egiten diote zakurrari. Eta bere etxean orrelaxe zaindu, toki arrotzean ikaratu eta urduri jarri ez dedin. Gero, aldian bein bere jabeari dabillen tokira telefonoz otsegiten diote zakurra nola dabillen jakin dezan.

Pentsatzen jarrita ere, makiña bat aur, zaar eta gaixo egongo da bazterretan Sevillako zakurrak aiña kuri artu gabe. Makiña batek joan bearko dute lanera zakurrak baiño gaizkiago janda, eta makiña bat biziko da zakurrak baiño garbitu-premi aundiagoarekin. Zakurrak zaintzea oso ondo dago. Etzaie sufrituerazi bear, baiña zakurrak baiño leenagokoak izango dira pertsonak. Gu orrelakoxeak gera ordea. Zakurrak maite ditugu, eta ez daukagu errukirik lagun urkoarentzat. Lautatik bat buruarinduta gaudela esanda, asarretu egingo gera. Baiña burutik sano dagoenak egiten al du egiten degunik? Joan dan udan Andaluziako nekazari langilleak manifestazio aundiak egin dituzte. Langabezian daudenen diru-laguntzarik ez kentzeko eskatzen zuten. Eta begira: zakurrak ondo zainduta, eta familiko guraso asko ogi eske. Ederra burubidea. Txalakatuta ala gaiztotuta ote gaude? Lautatik bat ez baiña lautatik lau ez ote gaude burutik endreatuta?

Kristauak gerala ta
orrenbeste planta,
edo zalaparta.
Pazientzian ezin
litezke agunta.
Zakur asko udaran
gaizki daudela ta
askok kastatzen dute
dirutza galanta,
baiña gizonentzako
errukia falta.

Eskubideak dauzka
bakoitzak bereak,
au dio legeak.
Aberatsak dauzkaten
berberak pobreak.
Zergatikan ez zaindu
bakoitzak geureak?
Maillak jarrita dauzka
guztion jabeak:
lendabizi pertsonak,
gero abereak.

1994ko azaroak 11

Entzuten dan guztia benetan artu ezkerro, kezka eta bildurra besterik ez dator alde guztietatik. Emen ez bezelako aurrerapenak

daude Japonen, eta zeruan bizi bear lutekeela dirudi, baiña larritasun asko dute. An ere jendea geroz eta urte geiagoan bizi da. Bizi edo bizirik egon beintzat. Izan ere, bat bizirik egotea da, eta bititzea bestea. Aur gutxi jaiotzen dala, eta emendik dozenerdi bat urtera komeri latzak izango omen dituzte an ere. Betiko kantua: bear aiña ume ez dala jaiotzen, eta aurki zaarrak besterik ez dala izango. Eta kontuak kontu, norbaiti nozituerazi bear eta zaar jendeari eraso. Indarrik gutxiena daukanari. Bere garaietan lanik asko egin eta esker onik ez orain. Nere lagun batek esan oi zuen bezela, zaartutakoan ostikada. Ikusten nago Japonen zaarrak zerura bidaltzen asi dirala entzungo degula oraindik. Eta ez dit orrexek lasaitasun aundirik ematen. Japonetik ainteste makina eta trepetxu ekartzen da. Eta zaarrei beste mundurako pasaportea ematea modan jartzen baldin badute, aurki gera emen ere modaren morroi. Izan ere, oiexek ere badira, ba, diran bezelakoak. Azkarrak izango dira, baiña kontuak gaizki atera dituzte. Orain arte lan geiago egin bear zala esaten zuten. Eta orretarako langilleak bear zirala, eta txingurriak bezela ugalduta ziran. Eta orain iñun kabittu ezin. Seaska bat nun jarririk ez daukate. Zertarako ekarri ume geiago? Egia ala gezurra, kilometro bat altuko etxea egiteko asmoak dituzte lurralde artan, probarako edo. Eta egingo dute. Bai, bai. Ez dira batere motelak. Uste duten bezain azkarrak ere ez, seguru asko. Lanik egin gabe bizitzeko modua asmatu ba, sikira. Orrela ez luteke zaarrak traba egin bildurrik izango. Ordua etorrirakoan bakarrik joango lirake beste mundura. Eta kitto! Bitartean pake santuan bizi, eta jendea bakandutakoan asi berriz ere amabira jokatzen.

Sistema ori transistoreak bezela modan jarriko balitz eta mundu guztira zabaldu, makiña batez obeto biziko giñake. Ea, ba, burua pixka bat nekatu eta zerbait berria asmatzen duten. Emen gauden ezkerro, al degun ondoena bizitzen saiatu bear degu, beti diruari begira egon gabe. Nik uste det japoniarrak baiño bizkorragoak dirala israeldarrak. Dibortziatzeko sekulako erreztasunak

omen dauzkate. Andre batek esan dio epailleari, berarekin lo egin bear duen bakoitzean amari baimena eskaten diola bere senarrak, eta ea zertarako duen alako gizona aldemenean. Nai duenean dibortziazteko erantzun dio epailleak.

Zarrak geiegi daudela eta
esaten da milla gezur.
Alproja asko baitago emen
eta makiñatxo bat zur.
Gerora ere izango dala
zerbait mami edo ezur.
Urteak asko daukatzula ta
ez gelditu burumakur.

Zartu zerala eta ez jarri
mundu beltz bati begira,
naiz eta zure indarrak jeitsi
len ziranaren erdira.
Udazkenean ez da itzaltzen
eguzkiaren disdira,
eta pentsatu ezkeru zarrak
trasteak bakarrik dira.

1994ko azaroak 18

Beti berdin bizitzen aspertu egiten gera. Eta ez da ona izaten ori. Bat dala edo bestea dala, oitura berriak artzen ditugu. Moda berriak sortzen dira. Esate baterako, oraindik denbora asko ez dala, mutilzaar asko zegoen erri txikietara neskak gonbidatzen asi ziran, egunpasa egiteko. Eta beste festa batzuen artean, dantzaldi luze eta zabalak antolatu zituzten, neska eta mutillak alkarrekin itz egiteko aukera izan zezaten. Oitura au Aragoi aldean asi zan, eta Andaluzia aldera ere zabaldu da. Zeiñek esan garai batean autobusak betean joango zirala neskak mutillak ezagutzero? Oitura onek ederra izan bear du, nolana ere. Iñola ezin liteke txarra izan neska eta mutil, gustoko ezkontza egiteko alkarrengana bildu eta festaz asetu on bat artzea. Bazan ordua garai bateko alperrikako lotsa txoroak bazterrera botatzeko. Suerte ona izan dezatela. Orixe opa diet. Kanta zaarrak dioenez, enamoratzera ez da sillan eseri eta kafea artzea. Orregatik, ezkonduen artean gertatzen diran kontuen berri jakitea ere ez da txarra izango.

Irurogeita bost urtetik gorako eun emakumetatik irurogeik bere senarra baiño beste gizon batzuek geiago gustatzen zaizkielea esan dute, galdeketa edo enkuesta batean. Eta eun gizonetzotatik berrogeik, daukaten emaztea baiño kanpoan ikusten dituzten beste emakume batzuk naiago lituztekeela. Leen aitatu ditugun erri txiki oietako mutil sano oiek argi ibilli ditezen eman det albiste au. Izan ere, gizonetzkoak ez gera santu santuak, baiña emakume sorgin samarrak ere badaude, orratik. Gizonak basto samarrak gera, eta pentsatzen deguna azkar esaten degu. Baita neska gazte polit bat ikusi ezkeru begiratu ere. Baiña emakumeak guk baiño askoz obeto dakite disimulatzen, ez da zailla-eta.

Bakarrik ez gelditzeagatik ezkontzen omen dira emakume asko. Eta gizonetzko batekin naikoa eta geiegi izaten dutela uste degu, maite ditugunik ere ez baitiegu esaten askotan. Baiña senarrarekin bereala aspertzen dira. Eta beste baten inbiririk izango dutenik ere ez degu pentsatzen, batez ere urtetan aurrera gaozenezan. Ez diegu antzematen. Ezta urremanik ere. Eta emen dago kakoa: beste emakumeei begiratzen dieten gizonetzkoak euneko berrogei dirala; eta beste gizon batzuk gustatzen zaizkien emakumeak, euneko irurogei. Gizon asko ez gera maitagarriak, noski. Baiña, aundi samarra da auxe ere! Ala ere, daukaten senarrarekin konforme bizi diran emakumeak badira. Denetakoak daude emen. Eta besteren bat gustatzea –gustatu bakarrik– ain gaizki al dago, ba? Gauza politak ikustea nori etzaio atsegin? Neurria artu bear, eta zenbait gizonet neurria artuerazten dakien maistra bat bear duela ondoan. Ez da gezur aundia. Senarrari artista bat gustatzen zaiola eta telebista ikusten uzten ez diotenak bai omen dira. Ori geitxo izango da. Senarra pixka bat zuzentzea ondo dago, baiña ez da eduki bear orren mendean artuta.

Ikusi nola orain artean
bizi nintzan iñuxente.
Geiago ere nere moduan
biziko dira, nik uste.

Gaiñera oso gauz gutxirekin
engaiñatzen bagaituzte.
Gure aldean emakumeak
talentu asko daukate.

Baiña nik ori gaizki dagonik
ez det esango sekula,
garbi baitago gizonok zerbait
polita badaukagula.

Eta ez aztu begiak ere
Jaunak eman zizkigula...
Neska gazteei begiratzeko
eskubidea degula.

1994ko azaroak 25

Itun Zaarreko liburuak diotenez, pazientzi aundiko gizonak izan dira Israelen. Emakumeak ere izango ziran. Ortxe daukagu Job santua, esate baterako. Itsututa gelditu zan, eta pazientzia zuelako sendatu. Orain ere badaude ala moduzkoak. Badaude pazientzi aundiko gizon onak. Oietako bat, israeldarra, azkenengo zazpi urte onetan emazteak noiznai jotzen zuela bizi izan dana da. Errez esaten da, baiña zazpi urte pasatu egin bear dira bizkarrerekoak ematen zizkion emaztearekin. Zenbait emakumek atzaparretan baiño mingaiñean indar geiago izaten du eta ez zizkion masailleko aundiak emango, bearbada. Baiña zazpi urte badira pazientzitik irtetzeko lain. Emazteak ezagun omen zuen zerbait bazuela, baiña etzuen ezer esaten, eta iñork asmatu ezin zer gertatzen zitzaion. Batean bat zalako eta bestean bestea, jipoia ortik eta jipoia emendik, eta gizon gizarajoa isillik, ederrak artuta. Iñun ziran kutizi denak betetzen omen zizkion emazteari, baiña alpe-rrik. Orduan eta okerrago. Aundi samarrak esaten ditudala, baiña ez da errez zenbait sorgiñi antzematen. Kontuak kontu, alako batean israeldar ori zearo asarretu zan, eta loreontzi bat artu eta tira dio emazteari, eta baita buruan jo ere. Ea orrela konformatzen dan. Eta, bai konformatu ere. Senarrak dibortzioa eskatu du orain, eta emazteak ezetz. Oraintxe antzeman diola senarrari benetako gizona dala eta ez duela ezkontza autsiko, eta kitto! Gizon gizarajoa pakeosoa eta on utsa izan, eta emaztea berriz burrukalaria. Artaldean izaten diran aari jokari oietakoa nai zuen nunbait. Zeiñek pentsatu bear zuen jokariak jokaria nai izaten duela ondo-

an? Garaiz zerbait esan izan balio, pasadaren bat edo beste eman-
go zion senarrak, baiña sorgin utsa izan eta ezer esan ez. Senarrak
antzean bear, eta orrenbeste denboran aren tratu txarrak nozitu.
Matxarda, alakoa! Orain oso pozik omen dago, senarrak bear
bezelako gizona dala erakutsi diola-eta. Bera ez dagoela galtza-
dun erratzarekin ezkondata, kolkoan bizar itxia daukan zezena
bezelakoxe gizon batekin baizik. Txanda egin eta beste zazpi
urtean senarrak emandako pasadak artu bear baditu, gizon gozo-
ago baten gogoa egingo zaiola esango nuke. Baiña zenbait sorgi-
ñi antzematen zailla dan bezela, zenbait gizarajo esnatueraztea
ere ez da erreza izaten. Israelgo gibelaundi babalastoak ere obe
du, badaezpada, noizean bein andreari ipurtazalak berotu, berriro
ere urteetan jipoiak artuz bizi nai ezpadu. Zerua pazientziarekin
irabazten bada, onuzkero irabazita dauka. Beste gizarajo askok
bezela.

Emaztea ta senarra dira
bata bestearen jabe.
Eta batasun orrek bear du
maitetasunaren abe.
Zakarkeritik iges egiñez
alkarri min eman gabe...
Batek bestea laztandu goxo
eta xuabe, xuabe.

Ondo konpontzen saia gaitzen
berriketa gutxirekin,
alkarren bear geran orduan
argi ta garbi itz egin.
Eta premia baldin badator
nai degun uraxe egin.
Asarre asko aztu oi dira
erremedio orrekin.

1994ko abenduak 2

Jainkoak gizona egin zuenean, pixka batean berari begira
gelditu omen zan. Bere antza ere bazeukala eta zerbait ona egin
zuela pentsatu omen zuen. Baiña, gizona oso bakarrik zegoela
iruditu zitzaion. Eta ala, ain bakarrik egotea etzala ona eta, lagu-
na ematea erabaki zuen. Orrelaxe sortu omen zan emakumea.

Baina Jainkoak etzuen gizonaren mendeko zerbait egin, gizonaren lagun izan bear zuen norbait baizik. Eta norbait egitea ez da zerbait egitea bezela.

Gizona eta emakumea dira gure bizitzaren ardatz eta elburu. Eta gure bizitza guztia ardatz orren inguruan dabil jaio giñan ezkeroztik. Koipez ondo igurtzitako ardatzak ez du ateratzen irrintzirik. Eta gizona eta emakumearen bizitza ere laztasun aundirik gabe joango litzake batek bestea bear bezela aintzakotzak artuko balu. Alkarrekin bizi diranean artean igurtzi bat edo beste izatea ez da arritzekoa, eta igortzi oiek txinpartak ateratzea ere ez. Eta, onerako edo txarrerako, txinparta oiek ematen diote argia eta bizitasuna gure izateari. Gizonaren eta emakumearen artean gorabeerarik izango ez balitz, ez atzera eta ez aurrera biziko giñake. Gorabeera oiek sarritan aitatzen dirala? Eta nola ez? Familian bizi generala beti sortzen da zer esana. Etxeko eta alkarren arteko kontuak naikoa ez diranean, iñun diran aldizkari edo errebista eta gainkontzekoak zai egoten dira gizonezkoen eta emakumezkoen arteko kontuak aizetara ateratzeko. Eta baita guk pozik irakurri ere. Artista eta orrelakoen bizitza miatzea ez al zaigu, gutxi edo geiago, denori gustatzen? Etxekoandreei guri baiño geixeago, bai. Baiña denoei zerbait.

Jainkoak gizonari emandako laguna asko estimatzen omen dute Txinan. Ango uri edo ziudadeak aundiak izanik, taxian bate-tik bestera ibiltzen jendea aspertu egiten omen da, eta neska gazte bat eramaten dute ondoan taxistak, kontuak esanez bezeroari denbora pasatuerazteko. Ortxe ikusten da Jainkoak zenbateraiñoko arrazoia zeukan gizonarentzat laguna egin zuenean. Zer egin bear zuen, ba, gizona bakarrik taxian ibiltzeko ere ez da gauza-eta?

Nik uste det gauzak ondo eginda daudela. Eta danok generala bearrezko. Eta laguna oso bearrezko badegu, lagun ori ondo zaindu bear degula, bestela geuretzat kalte. Esate baterako, kotxeak zarata txarra ateratzen badu, laister joango gera garajera. Eta senarra edo emaztea ots aundi samarrak ateratzen asten bada, guk

builla aundiagoak atera eta dana eginda dagoela uste izaten degu, eta orrek ez du balio ondo bizitzeko. Alperrik ibilliko gera. Buillarik aundiena baiño isillik emandako muxu bat geiago da laguna zaintzeko eta pozik edukitzeko.

Aitortu bearrean
uste det gaudela
uste det gaudela,
txinatar jende ori
ez dala motela.
Gu baiño aurrerago
uste det daudela.
Taxian paseatuz
markesak bezela,
neska gazte polit bat
alboan dutela.

Txino oiek inbiri
ematen didate
ematen didate.
Ango aldean emen
bizi gera triste.
Exekoandrez aldatu
nai baldin badute,
nai ainbeste aukera
eskuan daukate.
Guk baiño errezago
ligatuko dute.

1994ko abenduak 9

Kopetako izardiarekin irabazi bearko zuela ogia esan zioten gizonari. Eta etzuen aurpegi ederra jarriko izango ori entzun zue-
nean. Izan ere, eizean egiñez eta nunai aurkitzen zuena janez
ederki biziko zan, baiña ala konforme ez eta pekatu egin zuen.
Orrekin sekulako arria ekarri zion bere buruari, eta bere ondoren-
go guztiei. Orain ere gertatzen dira orrelakoak. Dana dakigulako-
an, edozer gauza egiten degu, eta bai anka ederki sartu ere. Gero
sufritu egin bear. Lana egin bear, jango badegu. Utsa litzake lana
dagoen tokitik artu litekeen zerbait balitz. Lanik errezenak lotsa-
rik gutxiena daukatenentzat izango lirake, baiña motel samarren-
tzat ere zerbait izango litzake, bai. Inbiri faltarik ez litzake izan-
go, baiña zer jana danontzat izango litzake, eta moldatuko giña-
ke. Bistan dago, alperrak biziko lirake ondoena. Sabela errez

beteko luteke eta lana zertarako egin? Dotore janzteagatik kolpe santurik egingo ez lutekenak izango lirake, eta zarpatsua pranko ikusi bearko genduke. Eta geu ere nolako langilleak izango ote giñake?

Baiña auek ez dira amets bat besterik. Jango bada, lana egin bearra dago emen, eta danontzat lain lan ez dago. Komeriak dira. Emankortasunik, edo orain esaten dan bezela produktibitaterik ez daukagulako etorri zaigu ezaldi edo krisi au. Denbora gutxian lan asko egiten ez dakigulako. Eta orrelaxe izango da. Baiña eztakit, ba, aurrera ere orrela ez ote dan izango. Lanik ez badago, nola ikasi denbora gutxian lan asko egiten? Badakigu esaten dan guztia ez dala gezurra izango. Zaragozako udalak erri-langille edo funtzionari bat illabeterako etxera bidali omen du, ez lan eta ez lantsari. Erriko ura garbi zaintzeko karguan zeukan. Lan ori makinak egiten dute, eta etzeukan makina zaindu beste lanik, sarri-sarri begiraturuz. Begiratu batera etzeukan, ba, izardi asko atera bearrik, baiña uraxe ere aspergarri egiten zitzaion. Lanean etzan nekatuko, baiña lantegian egoten nekatzen zan nunbait. Eta lantegira lagunak eramaten asi zan. Kargu artu zioten, eta esana egin bearrean, lantegira neskak eramaten asi. Orduan bai ederki, aiskidia. Sekulako festa eta jolasak egiten zituzten lantegian, txokolate arteak tarteko zirala. Uraxe bai denbora gutxian lan asko egitea. Dana ez dute esan, baiña geiago ere egingo zuten, seguru asko.

Dana dala, gure mutilla pekatuan arrapatu dute beintzat. Eta or utzi dute illabeterako ez lan eta ez lantsari, funtzionatzerik ez duela. Orra zenbat lan egin bear dan lanik ez egiteko. Jolaserako astia izango du orain. Eta on dakiola. Eguneroko ogia irabazteko izardia atera bearrean izaten ez bada, gaitzerdi.

Buruariñak lanean ezin
pasa iñola denbora,
eta naiago lagun polit bat
ekarri bere ondora.

Neskarik gabe mutilla ezin
iñola bizi gustora...
Jolas gurea ona da baiña
ez neurritikan kanpora.

Illabete bat pasatu bear
lantegitikan kanpoan.
Zer egin duen pentsatzeko lain
asti badu oraingoan.

Betiko zeñi eldu pentsatu
obe da orrelakoan...
Ea pixka bat soseatzen dan
aukera egindakoan.

1994ko abenduak 16

“Zer da fedea? Ikusi ez deguna sinistea”. Aspaldi erakutsi ziguten au. Fedea edo sinismena pixka bat oztu egin da orain. Baiña garai batean bazuen indarra. Sinismena ez da beste munduko gauzetan sinistea bakarrik. Munduko gorabeeratan sinisteari ere sinismena esaten zaio. Eta emen ikusi gabe eta entzundako guztia sinistea ez da beti ona izaten. Engaiñatu ere egiten gaituzte. Eta batzutan asmatu eta besteetan ez, onela dioja gure mundua. Beste munduko gauzetan kalte egindako konturik ez diot iñori entzun oraindik. Ori bakoitzak ikusi bearrekoa da ordea, eta utz dezaiozun pakean. Bizimoduko kontuak itsu-itsuan sinistreak arrisku geiago du. Santuak izateko asko falta zaigu, eta geurea egin ezkerro ajola gutxi zaigu besterengatik. Ala ere, argi ibiltzea obe, badaezpada ere.

Andregaiia edo senargaia nai dutenak, San Antoniori eskatzeko oitura zan leenago Euskalerrian. Baiña orain, San Antoniori kandela piztuta jarri bearrean, bere errezoak dantzatokietako illunpetan egiten dituztela uste det. Soria aldean berriz, Santa Anari errezatzen omen diote, batez ere senargaia nai duten gazteak, eta oso gazte ez diranak ere bai. Oraindik denbora asko ezta la, santa orren imajiña su eman eta erdi erreta utzi dute. Eta senargairik aurkitu ez duten neska gazteren batzuen lana izan ote dan zurrumurruak dira. Joan dan udan jendea erruz joan omen zan Santa Anari errezatzera. Uda guztian negurako laguna eskatzen jardun alako fintasunez eta ezer iritsi ez. Itxaropena ere sinismenetik etortzen omen da. Eta ez fede eta ez esperantza gelditu dira-

nean, orra zer egin duten. Eztakit, ala ere, jenio beroa baiño beste berogarriren bat ez ote dan obe izango.

Sorian baiño sinismen eta itxaropen geiago daukate Txinan. Zenbat eta denbora geiagoan ezkondu eta alkarrekin bizi, orduan eta diru geiago irabazten omen dute. Ango senarrak ez dira, noski, emengoak bezain umillak eta esana egiñekoak, eta dibortziazteko oso gutxi bear izaten dute. Beti sermoi berdiñak entzuten aspertu egiten dira nunbait, eta berealaxe asten dira emazte berriaren billa. Eta ango gizonak katean motz samar lotzeko asmoz asegu-ru berria asmatu dute. Zenbat eta denbora geiagoan andre batekin bizi, orduan eta diru geiago ematen du aseguru orrek.

Guk ere obe genduen txinoak izan bagiña. Urte modoska bat bada ezkondata bizi gerala, eta pazientzian oituta gaude. Diru mordoska bat artuko bagendu, sikira, asegurutik. Eta orrela giñake gu mutillak. Berealaxe giñake dibortziazteko moduan.

Jenio eta presa geiegik
ondoren onik ez dakar.
Zein neskak ez du esposatu nai
gustoko batekin azkar?
Santa batekin portatzen danak
su emateraiño zakar,
gizonik santuenakin ere
artuko al luke alkar?

Ez baldin badu astirik izan
senargai bat billatzeko,
santa gaixoak zer kulpa zeukan
era ortan kiskaltzeko?
Su eman dion neska ez al da
deabruaren antzeko?
Kapaz da gero bere senarra
su emanda erretzeko.

1994ko abenduak 23

Oraintxe gera urteko egunik goxoenetan, famili osoa aitaren eta amaren ondoan bilduta. Gabon gaua ospatzeko oitura askok maite du oraindik. Suerte pixka bat duenarentzat ondo antzean bizitzeko aukera asko eskeintzen du gaurko bizimoduak. Asteburu luzeak, ibiltzeko erretzasunak, nai duenak bizimodua gaez egite-

ko askatasuna eta abar. Baiña bizimodu onek familitik urrundu egin gaitu pixka bat. Ez dauka garai batean bezela etxekoekin arremarik. Eta askatasunari mugak jartzen dizkion zerbait balitz bezela begiratzen diogu gaur. Gustoko lagun asko daukagu, baiña estuasunean edo premian aurkitzen bagera, aita eta ama izango ditugu bizkarra emango ez diguten lagunak. Gurasoak bezain lagun onik ez da munduan, eta familia bezelako lagunarte onik ere ez, danok artaratzen bagera. Familiak ere badauzka ordea bere etsaiak, zoritxarrez. Gizakiak geiegi ugaltzen ari omen gera. Eta orri neurriak artzeko asmoz, nazio askotako zuzendariak Egiptoko uri nagusian bildu eta azterketak egiten ari dira. Egia esan, nazio aberatsetako agintariak ezer gutxi egin dute orain arte familiaren alde. Itz gutxitan esateko, nazio aberatsetako agintariak etzituzten gurasoak aintzakotzat artu. Ezkontza ere ez, eta familia ere ez. Emakumeari etzioten estimazio aundirik eman. Aur asko edo gutxi ekarri mundura, umeei eziketa berezi bat eman eta gero dana gazteen esku uztearen alde azaldu omen dira. Askoren ustez, ori da aurrerapena. Bakoitzak berea egin, familia eta gaiñontzekoak alde batera utzi eta segi aurrera, bazterra jo arte.

Baiña danak etziran pentsakera orren alde atera. Borondate oneko gizonak ere badaude oraindik. Bizitzeko eskubidea ez dago ukatzerik gizakiari. Eta bizitzeak berekin dituen eskubiderik ere ez. Orren alde gogotsu itz egin zuten, Aita Santuaren ordezkariak tarteko eta lagun zirala. Izan ere, ondo maltzurra da zenbaiten jokabidea. Bere naziotan ondo bizi dirala, eta aurrak, familia, ezkontza eta orrelakoak or konpon! Errez bizi nai dute. Ez dute nai bearkizunik. Ez dute nai obligaziorik. Baiña borondate oneko gizonak ezin deza-ke onela pentsatu. Familia kendu ezkerro, zeinek babestu bear du gizakia, batez ere aurtzaroa? Ezkontza banatzen baldin badegu, batek besteari lagunduz umeak azi eta ezitzea pikutara joan zan. Eta emakumea aintzakotzat artzen ezpadegu, ama bazterrera botatzen degu. Eta amarik gabe ez dago familirik, ez maitasunik, ez etxeko gozotasunik eta ez ezer. Gizonak ainbat balio du emakumeak.

Izan gaitezen borondate oneko. Orrela igaroko degu ondo Gabon gaua aitaren eta amaren ondoan. Gaztaiña ximelak baiño zerbait geixeago moldatuko du amak, afaltzeko. Eta ondo pasatu, baiña arrastorik irten gabe.

Gabonetako erakutsiak
ez dira nolanaikoak.
Ondo dakigu pakea zeñi
eskeñi zion Jainkoak.
Eta pakerik ez baldin bada
zer dira gaiñerakoak?
Gogoratuaz lenengo Gabon
gau artan esandakoak,
saia gaitezen danok izaten
borondate onekoak.

Pake egarri gerala danok
nola dan ondo ezagun,
izan gaitezen borondateko
eta alkarrentzat lagun.
Erregutuaz Jesus aurtxoak
grazi au eman dezaigun,
mundu ontako txikikeriak
alde bat utzi ditzagun.
Pake giroan eta alaitsu
Gabon ospatu dezagun.

Geuretzako nai ez gendukenik
ez beintzat egin iñori.
Gabonak ondo ospatutzeko
bearrezkoa da ori.
Egun aueri ez utzi joaten
ez pena eta ez glori...
Jaso biotzak eta tristuran
iñor ez dedin erori,
Gabon alai ta Eguberri on
opa dizuet danori.

1994ko abenduak 28: Iñuzente eguna

Berebiziko ospakizunak antolatu dituzte gaur Seguran. Eta berri ematea merezi dutela-eta natorkizu. Denbora gutxi daukat, eta labur-labur esango dizut jaiá zertan dan.

Emendik ordu pare batera, Donostiako abesbatza edo *Orfeon Donostiarra* famatuak kantatuko du Segurako elizan. Eta ori gutxi balitz, Pavarotti tenore famatua ere ementxe izango degu. Ez det uste isillik egotera etorriko danik. Eta sarrera doan, debalde izango da. Orra nolako aukera eskeintzen duen Segurako erriak musikazale diran guztientzat. Elizak azpian arrapatuko bildur diranak kanpotik ere ondo entzungo dute Orfeoia eta Pavarottiren saioa. Izan ere, telebisio-pantailla aundi bat jarriko dute atarian.

Gero, arratsaldean, sekulako kontzertoa emango Euskadiko Orkestak Baratze pelotalekuan. Eta ondoren dantzarako musika joko omen du, nai dutenak dantzan egin dezaten.

Seguran ez da izango bazkaltzeko astirik ere gaur. Eta bakoitzaren bere *bokatarekin* joatea obe Ardoa udalak jarriko du, nai duten guztientzat. Etzaio damutuko gaur Segurara etortzen danari. Nai badezu, gero arte.

1994ko abenduak 30

Tristeia omen da betirako agur esan bearra. Baiña nola artzen dan izango da. Aurtengo urtea badijoakigu. Batzutan ondo eta beste batzutan ain ondo ez, alkarrekin konpondu gera beintzat. Onetan etsiko genduen, baiña joan bear badu, joan dedilla. Beste urte bat badator, eta berarekin ondo konpontzeko modua egin dezagun. Zertarako degu urte zaarra berria eskuekin eltzeko moduan badegu? Andregaiak despeira ematea bezelatsu izango da ori. Leenengotik pena artzen omen da, baiña beste bat gazteagoa eta ederragoa aurkitu ezkeru, pena guztiak aazten omen ditu ark.

Nolanai ere, aurpegi alaiarekin agur esan bear diogu urte zaarrari. Dijoala, bai. Baiña triste ikusi gaituela-eta ez dezala parrerik egin gure kontura. Osasuna izaten badegu, konponduko

gera datorren berriarekin ere, oraindik ez degu ezagutzen baiña. Gazteak ere moldatuko dira. Gabon gaua etxean pasatu eta luze iritzita egongo dira, seguru asko. Eta urtezaar gauean laister jaso-ko dituzte anak. Ez dute etxean traba aundirik emango. Komeni al da gaiñera? Batzutan arrastotik irten ere egiten dira, eta orrek emango die lan pixka bat. Gaupasa neurrian egin ezean, urrengo eguna ez da atsegiña izango. Gauzak nola izaten diran zerbait konturatu bearra dago ordea. Eroriz ikasten da oiñez ibiltzen. Eta pixka bat pasatzen badira, urrengo egunean konturatuko dira zer egin zuten. Orrela ikasiko dute urrengorako ere. Orrela ikasten da zer komeni dan eta zer ez dan komeni. Eta ori ikasteak asko balio du. Besteok ere bazterra joaz ikasi genduen zuzen ibiltzen.

Biarko eginkizun nagusia urte zaarrari bear bezelako amaiera ematea degu. Dantzarako balio ez degunontzat ez da lan zailla. Urteetan aurrera dijoazenentzat ardo pixka bat edatea ona da. Baiña neurrian, noski. Eta gutxiago edango bada ere ardo ona izan dedilla. Zaarra bada, obe. Otorduan edaten dan ardoa otordutik kanpora edaten danaren erdia bezela omen da. Orrela diote sendagilleak. Ez da erreza beti esiaren barruan egotea. Egunez zintzo portatu eta illunabarrean etxeoandreari utzi pakean afarria prestatu dezan. Ea lasai-lasai afaldu eta ondoren umoretsu eta alai pasatzeko moduan izaten geran. Urtean bein izaten da urtezaar, eta ez degu nolana alperrik galdu bear.

Urtezar noiz dan gogoratuko zitzaien, noski, askori.

Ta badakigu urte guztian bein izaten dala ori.

Parranda egin nai bada ere ez galerazi iñori...

Eta gau alai zoragarri bat opa dizuet danori.

Bukatu dira joan dan urteak zituen neke ta lanak.

Aztu ditzagun pasatutako naigabe ta pena danak.

Izan litezke danok alkarri nai ez degula emanak, argatik egin bear du ori ondo bizi nai duanak.

Ez dezagula gogorik izan
iñoiz bazterrak nasteko,
baizikan izan zaletasuna
pakean egurasteko.
Kontentu bizi dan arek ez du
premirik aberasteko...
Ta urte zarra ondo bukatu
berria ondo asteko.

Urte berria badator eta
eskatu nai nioke gaur,
irradi onen entzuleekin
ez beintzat portatzeko zur.
Nik ere zuei ona opatzen
ez det gelditu nai labur:
besarkada bat guztioi eta
biotz-biotzetik agur.

Agur

1995

**emaileari etzaio
artzailerik falta**

1995eko urtarrillak 1

Aurten ez det izan oraindik zuei urteberri mardula opatzeko aukerarik. Eta oiturak oitura, borondate ona izateak asko balio du. Berandu samar bederik, mundu onetan izan litezkeen on guztiak opa dizkizuet danoi.

Urte sasoi onetan jai asko izaten da, eta jaiak beti utzi izan dute aje antza. Patrikara ondarrak ere garbitu bat artu oi dute egun auetan, eta gelditu diran sos apurrak alperrik galdu ez ditezen, Erregeen egunari bere itxura eman bearco diogu. Nik uste det ondo konpontzen diran famili guztietan saiatzen dirala alkarri poz pixka bat ematen. Ez da beti erreza izaten danen gustoa egiten, baiña egin diguten erregaliari baiño geiago begiratu bear diogu borondateari. Opariak izan litezke garestiak edo merkeak. Eta denborarekin balio ez dutela geldituko dira, bearbada. Baiña alkarrentzako borondate onak guk nai degun arte guztian balio du. Gutaz gaizki esan ez dezaten egindako opariak ere izango dira tartean, itxurak egitearren egindakoak alegia, azaleko maitasunez egindako opariak.

Alkarrentzako estimazio aundirik ez daukagula ere entzun izan da. Batean eta bestean biltzen ditugun berriak diotenez, ez dirudi dana gezurra danik. Esate baterako, Alemaniako gazte jendea ez da familiko bizimodua egin zale. Naiago du deporte egin, edo bere gisako txirri-mirrietan denbora pasatu. Etxea lo egiteko bakarrik nai dute, itxura danez. Eta etxekoen inguruan baiño bakarrik, nai dutena egiñez, bizi naiago dute. Geroz eta gazte geiagok bizi nai du orrela. Gure amets guztia ezkondu eta fami-

lian bizitzea izaten zan garai batean. Orain badirudi ordea amets ori modan pasatuta dagoela. Familiko gozotasunean bizitzeari baiño geiago maite dala askatasuna. Familiak baditu bere buruausteak, baiña bai bakoitza bere aldetik bizitzeak ere. Jokabide au Alemanian artu dute. Besteek egiten dutena egiten mutillak gera, noski. Eta gaur edo biar emen ere beste orrenbeste gertatzea ez litzake arritzeko izango. Izan ere mundua elkortzen ari gera. Baiña gu ez gera alemaniarrak bezain serioak, eta oraingoz obeko degu leenean jarraitu. Al degunean jai egiñez, ez diogu utzi bear ondo bizitzeari, bestela gureak egin du.

Igaro ziran Gabonak eta joan zitzaigun urtezar.
Jaiak bukatu zirala eta emen gaude triste samar.
Zerua beti ematen dago ta ez degu etsi bear.
Ona emen gaur bart arratsean piztutako iru izar:
gure artera etorri dira
Meltxor, Gaspar eta Baltaxar.

Iñoiz bada ta pozgarri zaigu oraintxe zuen disdira,
ta pozik gaude guztiok zuei eskuetara begira.
Pulamentuzko erregaliak eskatu bear badira,
eta otoitz au iristen bada zuek zaudeten tokira,
osasuna ta lan apurtxo bat bidali Euskalerrira.

1995eko urtarrillak 13

Urte onen amairugarren egunera iritsi gera. Sekulako bildurra diote batzuek egun oni. Inglaterran, esate baterako, ez dago amairugarren etxerik erri askotako kaleetan. Amabigarrenaren ondoren amalaugarrena jartzen dute. Ainbesteraiñokoxe bildurra diote zenbaki orri. Jende atzeratua ere ugari dago mundu onetan, zoritxarrez. Eta orrelakoak aztikerietan sinistea, or nunbait. Iñork ez die besterik erakutsi, eta ez dakiten edozer sinisten dute, gizarajoak. Ezjakiñak engaiñatuz, aien kontura bizi dan ajolakabe

asko ere badago, noski. Ingalaterran ez lukeela orrelakorik bear esan liteke. Baiña ustez dana dakiten iñuxenteak ere izaten dira ordea. Amairu orrek lanak ematen ditu zenbait tokitan.

Nere lagun batek esan oi du, amabi basoerdi naikoa dituenarentzat, amairu txarrak dirala. Baiña, loterian amabi milloi tokatzea baiño amairu izatea naiago lukeela. Eta ez dabil gaizki. Siniskeriak eta aztikeriak, edo superstizioak lanak ematen zituen gure artean ere, garai batean. Ogi zati bat lurrera erortzen bazitzaigun, jasotakoan musu eman bear izaten genion. Oitura ura asmatu zuenak zenbat gose pasatu izango zuen pentsatzen egoten naiz askotan. Bestalde, etzan ogirik asten gaiñean gurutzearen seiñalea egin gabe. Eta lurrera eroritako babarrun ale bat jasotzean, purgatoriotik anima bat ateratzen zala esaten ziguten. Elizara eramaten zan ogia, piztuta edukitzen zan argizaia eta oiek ere zerbaitetan sinisten zalako izango ziran, noski. Amairuari ez genion bildurrik, baiña eztakit, ba, oso lasai bizi ote giñan.

Konjuro-oillaskoak ere aaztu ziran, baiña eguraldiak laguntzen badu eta soroak ondo ongarritu, babarrun gozoa emango du lurrak. Ez det esan nai onekin errezoak eta oitura on danak bazterrerera bota bear ditugunik. Iñoiz entzun nuen bezela, errezatu bai baiña atxurrean egin ere bai. Esaera danak ez dira utsak izaten. Zoro artean dabillena zoratu egiten dala esan oi da. Eta dana ez da ala izango, baiña bai pixka bat. Eroetxeetako zenbait gaixozai, lorik egiten ez dutela jartzen omen dira, eta sekulako urdurialdiak eta estuasunak izaten dituzte. Ez da siniskeri utsa izango burutik naastea itsaskorra dala. Amairu zenbakiari baiño garrantzi geiago emango nioke nik orri, badaezpada ere. Gaur zoro asko dago, eta ez gaitezen danok zorakeriak egiten asi.

Amairuk zenbait endreatzen du
erabat bildurtzeraiño,
Loterian amairu tokatu
eta ez kobratzeraiño.

Txorakeririk ez degu bear
sinistu ainbesteraíño...
Amairu milloi obeak dira
amabi bakarrik baiño.

Amairu txorakeri utsa da,
eta nola ez antzeman?
Itxurarikan ez dun gezurrik
ez litzake bear esan.

Eta pentsatu batzuek nola
aspaldi esnatu ziran.
Frailleak ere amairu arraultz
nai baidituzte dozenan.

1995eko urtarrillak 20

Beti etxera begira egon gabe auzoko berri jakitea ere ona da. Eta gaur Burgosko erri txiki bateko kontuak esan bear ditugu. Erri ori, Villasandino da. Erritar guztiak oso ondo konpontzen omen dira alkarrekin. Eta antxe dago pake santua. Baiña, zergatik eta emakumeak agintzen dutelako. Alkatea, sekretarioa, zinegotziak, agoazilla, jueza, medikua, praktikantea... danak emakumezkoak dira errian. Karreradunak, eta al duten lekuan lana egiñez soldata irabazten dutenak, batzuk. Etxean ez du urik ezagutu erri orretako jendeak emakumeak agintzen jarri ziran arte. Eta orain gizonezkoak ere pozik daude, emakumeen bearra bazegoela esanez. Burugorrak ere izaten dira ordea tartean, eta norbaitzuk esaten dute errian ura badaukatela, bai, baiña leen baiño euri geiago egiten duelako daukatela. Alkatea zirikatzeagatik esango dute, bearbada. Baiña berriketa gutxiko emakumea da, eta batere buillarik atera gabe, mingainluzeen lanak aisa egiten ditu. Erriko gizon danak baiño geiago da bera bakarrik. Burgosa joan bear duenean-eta, ez du erriko dirurik kastatzen. Beti izaten da kotxe edo furgonetarekin dijoanen bat, eta arekin joaten da. Ori da zintzo jokatzea. Zenbait agintarik ez du aitzaki aundiaren bearrik izaten Donostira joan eta erriaren kontura egun ederra pasatzeko. Bai, bai. Orrelakoak ere badaude, zoritxarrez. Burgosko erri onetan, alkatea bezelakoxe emakume fiñak omen dira laguntzaille guztiak ere. Eta udaletxeko billerak egin eguna lanean pasatuta gero egiten dituzte beti, illunbarretan eta orrela. Gizonezkoak ez dira sartzen erriko gorabeeratan. Zertan sartuko dira emakumeak geiago badira?

Lotsa pixka bat bear luteke, baiña emakumeak erriko arazoak konpontzen ari diran bitartean, tabernan sartu eta musean egiten omen dute, lasai asko. Kopetan azal lodia bear du orrela bizitzeko. Baiña aitzakiren bat beti izaten da. Erria eta etxea, biak gobernatzen dituzte emakumeak, eta tabernarako diru gutxi izaten duten aitzakia dute gizon auek. Etxekoandre eutsi samarrak dauzkatela, alegia. Zur samarrak.

Alkate au monja omen da, berez. Amerikan mixiolari zegoela ama gaixotu, eta denbora gutxiko bizia zeukala eta ura zaintzera etorri zan. Zortzi urte bizi izan zan ama, alabaren laguntzari esker. Orain irurogeita bi urte dauzka, berriz misiotara joateko geitxo. Lagun urkoari laguntzeko bokazioa eduki ordea, eta orregatik artu zuen erriko alkatetza kargua. Erria serbitzeko. Eta politikari eta gizon askori zuzen jokutzen erakusteko, esango nuke nik. Eta emakumeak zenbat balio duen erakusteko, bide batez.

Uste bai baiña gizonezkoak
ez dezakete guztia;
zakarrak diran fama daukate,
geienak irabazia.
Zigorrik gabe ere askotan
irabazten da auzia.
Orretarako emakumeak
aparta dute grazia.

Erri batean pake santua
da gauzarik ederrena.
Orretarako agintariak
jarri bear du ordena.
Ez da ordea beti komeni
bildurra sartzen duena.
Irripar sarri egiten duen
alkatesa da onena.

1995eko urtarrillak 27

Ez degu asko bear oraintxe ilbeltzeko aldapa igotzeko. Jaiak aitzakia eta ajea uzten digute ondorenean, baiña danak aazten dira. Gazteak parranda asko samar egin dutela, eta gurasoak kopeta illunduta. Gabonetako oporrak amaitu zirala eta gazteak itz egiteko gogorik gabe. Eskolatik etortzen diranean umorerik ez dauka-

tela eta isillik uzteko esaten badigute, gaitzerdi. Badirudi gauzak orrelaxe bear dutela. Oraingo sikologo eta jakintsu moderno oiek diotenez, orain berreun urteko gazteak eta oraingoak berdiñak dira. Dana ondo egiten dutela uste dute, eta ez dago zerbait esan besterik. Familiak, gizarteak, eskolak, eziketak eta oiek ez daukate zer ikusirik gaiñera. Gazteak indarrean egoten dira, eta zuzenak edo biurriak izan, edadearen kontuak dira oiek denak.

Sekulakoa sartu digute oraintxe ere. Seme-alabak txikitatik asita ezi bear zirala eta or jardun degu gure denbora guztian umeak zuzendu eziñik. Guraso, maixu eta apaiz, emen ibilli giñan danok buru-belarri gazteei bide zuzena erakusten. Eta begira nolako porruaziak atera ditugun. Jakintsu oien ustez, amodioa, arroskoak izatea, egiten dituzten aldrebeskeriak eta oiek danak gaztetasunaren aginduak dirala. Erokeri batzuk egin bearra omen dago gaztetan, bestela ez omen da joaten bizi guztian oker bat edo beste egiteko gogoia eta antsia-eta. Jakintsu oiek leenago esnatu izan balira, gurasoak ere lasaiago biziko giñan, umeen pekatuak ere guri botatzen zizkiguten bizkarrera-eta. Gazte denbora al dana egin eta erre egin bear dala diote, gerorako arrastorik utzi ez dezan. Oiek danak orrelaxe izango dira, baiña gazte denborako buruarinkeriei neurria artu bearra egongo da, orratik! Jakintsuak ere ez dakite gazteen eta pertsona elduen arrazoiak nun asi eta nun bukatzen diran. Muga orri antzematea zaila da. Eta orregatik, batek besteari leku ematea ezinbestekoa izango da. Gazteak pertsona elduen inbiriz egoten dira, aien aginpidea, dirua eta askatasuna baleuzkate nai dutena egingo lutekeela pentsatuz. Ez baidakite guraso egiten geranean bearkizun berri asko gaiñera etortzen zaigula. Alderantziz, guk juizioan sartzan geranean, gazteen sasoia bagenduke nai izaten degu. Zerbaiten egarria danok daukagu emen.

Dana dala, San Sebastian jaia pasatutakoan asten omen dira angulak merkatzen, eta argi ibilli, badaezpada ere. Ea goxatu bat edo beste artzeko aukerarik izaten degun guk ere.

Umeak azitzea
guk genduen zorra,
ordena gogorra.
Ura bete ezean
guretzat zigorra.
Orain gazte bat izan
liteke mozkorra,
galeraztea nola
ez dan derrigorra.
Guri sartu digute
ziria legorra.

Au da etorkizuna
aurrak daukatena
ematen du pena.
Zer izango ote da
onen ondorena?
Gurasoak jarri nai
etxean ordena,
baiña ikusten danez
libre da geiena.
Auxe da lotsagarri
utzi gaituztena.

1995eko otsaillak 3

Gauza jakiña da gazteak gure aldean asko dakitela. Gu ez gera aien maillara iristen, ez. Nik ez nekien ori zergatik zan, baiña egun auetan jakin det. Gaztetan fiñegiak giñalako omen da. Gaurko gazteak bezain lotiak ez giñalako. Izan ere, ez da naikoa eskolara joatea. Liburuetan ikasitakoa eta maixuak erakutsitakoa jasotzen du buruak, baiña memorian itsatsita geldituko bada, lo egin bear omen da lasai. Naiko lorik egin ezean, ikasitako askok burutik iges egiten du. Orain badakigu gazteak zer egiten duten dakiten ala ez. Eta guk isil-isillik egon bear, berriz ere. Gu ere ibilli giñan, ba, eskolan. Naiko lo egiten etziguten uzten ordea. Eta ikasitakoaren erdia aizeak eramaten zigun. Nola asiko gera orain gazteei bat eta beste esaten? Eskolan ibilli giñanean lo egiten ez genduen ikasi, eta isillik egonda obe.

Zer egin bear duten ondo dakite oraingo gazteak. Astean bost egun naiko dituzte eskolarako. Ortik aurrerakoa lo daudela ikasten dute. Nekatuta etortzen dira etxera. Eta kalera ere noizbait joan bear, eta larunbat eta igande eguerdiarteak lo egiteko izaten dituzte. Ez dute asko itz egingo gurasoekin. Eta alde batera obe

gaiñera. Guk ezer gutxi dakigu, eta gurekin berriketan arituta baiño lo eginda geiago ikasiko dute. Auskalo. Pentsatzen jarrita ere, polita da guri gertatu zaiguna. Zerbait giñalakoan or aritu giñan jo eta ke umeei zerbait erakusteagatik, eta umeak aurea artu orain. Baiña ez gu bezela petraldu arte lanean jardunda. Naiko lo eginda baizik. Lo daudela guk baiño geiago korritu dute. Orrek dauka meritua. Eta gurasoak gazteak aiña lo egingo balute, zer izango ote litzake emen? Gazteei galdetu bearko diegu, baiña ez igande eguerdian begiak zabaldu ezinda jaikitzen diranean. Jakintsuak erantzun zorrotzak ematen dituzte, eta esnatu arte utzi pakean, badaezpada ere. Eguna zabaldu baiño leen, igandez goizeko mezetara eta astegunez itulara joan bearrean naiko lo egin bagendu, zer izango ote giñan gu? Erdiak baiño geiago diputadu, gutxienez. Gu fiñak izan ordea, eta gure ondorengoentzat etzan gaizki etorri ori. Asko moduzko jakintsuak izan bagiña, etzuten gure kontura parrerik egingo. Eta ala ere, ez diogu aitzaki asko emango gure bizitzari. Gu ez gera bizkorrak izango, baiña jakin nai nuke Sanblasak pasa ta urrengo goizean zeñek daukan umore ohea. Juizioan sartuta egoteak baditu bere alderdi onak.

Umetan meza laguntzera ta
gaztetan azkar lanera.
Alaxe bizi bear zan eta
zeñek gu andik atera?
Orain gazteak lotan daudela
pasa zaizkigu aurrera.
Nere ustetan oraingo zarrak
goizegi jaioak gera.

Eskolatikan irtetzen giñan
ondo aspertuta baiña
gero itulan egin bearra
etzan lantegi bikaiña.
Nai ainbeste lo izan bagendu
gure lanaren ordaiña,
orain gutxiñez izango giñan
edozein ministro aiña.

1995eko otsaillak 10

Bein batean abogadu gazte baten itzaldia entzutera joan nintzan. Karreradun jende orrek gu bezelako arloteak baiño geiago

jakiten duela eta zerbait ikasiko ote nuen, ba. Gizon ori ari zan bertsolaritzari buruz bere argibide eta esplikazioak ematen, eta alako batean or nun esaten duen: “Gizona Adan eta Ebarengandik datorrela fabula bat besterik ez da. Gizona tximuarengandik dator”. Leenengo gizona Jainkoak buztin lurrarekin egin zuela uste nuen nik, eta bere arnasa botata bizia eman ziola. Gero, saiets- ezurra kendu, eta arekin egin zuela Eba. Aiek izan zirala gure leenengo gurasoak. Baiña orain, au ez dala fedeko egia. Gizona tximuarengandik badator, tximua ere nunbaitetik etorriko zan, ba. Eta tximuaren aurrekoa? Eta aren aurrekoaren aurrekoa? Eta aren aurrekoa? Orra or eteten ez dan soka. Eta edonork aurkitu punta soka orri! Nunbaitetik etorriko giñan beintzat, eta emen gabiltza nola edo ala. Burua alperrik nekatu gabe mundu koskor au al degun ondoena eramatea naikoa izango degu.

Telebistan ikusita nago tximuak egunez basoan bildutako azi eta zuztarrak eta orrelakoak janez, illunabarrean arbola puntan kabia egiten zutela, alkar gozatuz gaua pasatzeko. Amerikako bi gaztek –neska eta mutilla, ain zuzen– beste ainbeste egitea pentsatu zuten oraintsu. Basora joan eta zuaitz baten puntan egingo zutela kabia, eta antxe pasatuko zutela gaua, pake-pakean. Antxe egingo zituztela nai zituzten komeria guztiak. Abereak berez ekartzen dute kabia egiteko sena edo intuizioa. Eta neska-mutil aiei ere nunbaitetik etorri zitzairen. Tximuak emandakoa izango zan, seguru asko. Kontua zera da: kabia egin zuten, baiña ez tximuak bezain ondo. Eta gauean bere tximukeriak egiten ari zirala, etzitzairen ba arbola adarra puskatu eta kabi eta guzti, zapla! lurrera erori. Katiatuta bazeuden ere libratuko ziran lurra jo zutenean, berri au eman duenak ez du ezer esaten baiña.

Gertakizun onek ere ez du garbitu gizakiaren asiera nola izan zan. Ez det uste tximuak kabia puskatu eta lurrera eroriko diranik. Neska-mutil aiek ere, tximukumeak izan balira, etziran kabi eta guzti eroriko. Erdi-tximua ez danak gaueko gorabeerak arbolaren puntan egin nai izateak ere ematen du zer pentsatua.

Baiña guk leenean jarraituko degu. Zer sinistu bakoitzak berak pentsatu dezala, baiña tximuak geralakoan ez joan zuaitzaren puntara, badaezpada ere. Kabia ondo egiten ikasi bestela. Baiña lurretik gertu samar ez al da obeko?

Gizona tximukumea dala
nola dauden sinistuta,
ez al gaituzte jarriko beintzat
preso kaiolan sartuta.
Edo zirkuko tximuen gisan
katearekin lotuta,
libre dabillen tximuak oker
asko egiten ditu-ta.

Ori gertatu baiño lenago
kontuak ondo atera,
ezer ikusten ez dan tokira
joan gabe jolasera.
Kolpe utsen bat eginda, plasta!
erori gabe lurrera.
Zuaitz puntara ez igo beintzat
komeriak egitera.

1995eko otsaillak 17

Garai batean zenbait oitura aldatzen etzan errez izaten. Ez dakit gaiñera batere garrantzirik etzuten oiturak ez ote zuten izaten indarrik geiena. Baiña orain gauzak beste modu batera ikusten dira. Gustatzen etzaizkigun oiturak laister botatzen ditugu bazterrera. Zerbait bear ere bai. Zertarko dira, izan ere, lasai bizitzen uzten ez duten oiturak? Alde batera utzi eta kalterik etortzen ezpada, ezertarako ez.

Emakumeak elizara burua estalita joateko oitura noizkoa ote zan? Noizbait bederik ezkutatu zan ordea, eta kitto. Ez da beintzat ederki orraztutako emakumeak elizan ikusten diralako inpernuak gaiñezka egin duen otsik. Nik uste det oraingo elizgizonak leengoak baiño idekiagoak dirala. Emakumeari beste balio bat ematen dio orain Elizak. Eta ori ez da apaiz progre bat edo besteren kontua. Aita Santua bera atera zaigu emakumearen alde. Jainkoak gure saiets-ezurrarekin egin zuen lagun politak ez dauka zertan kejurik. Mundu onetan zenbat injustizi, gogorkeri eta

gerra dagoen danok dakigu. Aita Santuak esan du, pakea nai badegu pakerako ezi bear degula. Eta emakumeei dei egin die pakerako ezizaille izateko eskatuz. Ori ez al da emakumeari kategoria ematea? –“Bai, zer emango eta bearkizun bat geiago, obligazio bat geiago eman digute. Orain ere, lana guretzat”, esango dute. Aita Santuak badaki ordea zeñek zertarako balio duen. Ark badaki emakumeak zenbat sufritu bear izan duen bere buruaren jabe izatera iristeko. Eta sufritzen dakienak jakiten du ondoena gogorkeriaren eta injustiziaren mende dagonak zenbat sufritzen duen. Orregatik eskatu die pakerako ezizaille izateko familian, alkarren artean, gizartean eta politikan. Orretarako pertsonari bere balioa eman bear zaiola esan du. Eta ezertarako gauza ez dan aurtxo batekin pertsona egitea zenbat kostatzen dan, zeñek daki emakumeak baiño obeto? Zeñek artzen du emakumeak aiña lan umetxo batekin emakumea edo gizona egiteko?

Irratitik asko edo gutxi berriketan ari geranok, entzule danak izaten ditugu gogoan. Eta batzuek bereziak izaten dira ordea, eta nik ordu onetan bere familiari gustoko bazkaria prestatzen lanean ari diran etxekoandreak ditut maite. Aiek bai dirala pakerako ezizaille. Etxekoen arteko gorabeerak maitasunarekin itzali eta familian pakea jartzeko, ez dago ama bezelako artistarik. Eta familia pakeosoa danean gizartea eta politika ere pakeosoa izango da. Badago premi ederra.

Emakumeak au eta ori
naiz gu jardun berriketan,
Aita Santuak maitasun itzak
gure orde zezpaiñetan.
Egiten duten dana ez degu
iñoiz eskertu benetan.
Ea noiz aintzat artzen ditugun
ainbat lanen ordaiñetan.

Aita Santuak babestu ditu
emakumeak nabarmen,
seme-alabak pake giroan
ezitzen saia ditezen.
Eta gu ere lagun egiñez
ondo portatu gaitezen,
falta zaizkien eskubideak
lortu ditzaten lenbaitlen.

Gazte jendeak izugarritzko dirutza kastatzen omen du alkohol-dun edarietan. Eta leenago sermoilariak esaten zuten bezela, gure agintari leialak oso kezkatu daude. Edariaren kalteak aitatzea oso ondo dago. Gazteei ez dakitena erakustea ere bai. Zurrutaren ondorioak nolakoak diran danok dakigu, eta gazte jendea bide onetik eraman nai izatea gauza ona da, oso. Baiña au egiten dutelako edo beste ura egiten dutelako, erru guztia gazteen gain botatzea ez det uste zuzen jokatzea danik. Asteburua pasatzeko gurasoak emandako dirua zurrutean kastatzen duen gazte asko dago. Eta naiko penagarria da orixe ere. Baiña irtenbiderik ematen al zaio arazo orri? Alkohol-dun edariak eta bestelako “errefreskoak” zerga berdintsua zuten orain arte. Eta zerga oiek jaisteko asmoak ere bazirala entzun izan det. Baiña ez dakit zertan gelditu diran. Dana dala, alkoholik gabeko edariak besteak baiña askoz merkeago baleude, ez ote luteke alkohol gutxiago edango gazteak? Baiña orrela diru gutxiago bilduko luke Estatuak. Eta orra azkenean zertara erortzen geran. Gazteak mozortu eta biurrikeriak egingo badituzte ere, Estatuak izan dezala dirua. Kamiñoetan istripuz iltzen diran eundik 43 gazteak dira. Eta asko bizi gutxirako elbarrituta gelditzen dira. Eta ezbear oietatik geienak zurrutaren ondorioak dira. Ortik pentsatu gazteei edari sanoak eskeintzen dirua kastatzeak merezikoa lukeen ala ez. Makiña batez lasaiago biziko giñake danok.

Sekula egingo ez lituzkeen nabarmenkeriak egiten ditu pertsonak alkoholak zorutzen duenean. Venezuelako kartzela batean zuzendariaren ordezkotzan zegoen emakume bat eta preso zegoen mutil gazte bat, kartzelako zuzendariaren oian lo seko zeudela arrapatu dituzte, ustutako pattar boteilla alboan zutela. Bistan dago alkoholak duen indarraren lekukoa edozein pertsonari burua galduerazteko. Sano zeudela etziran zuzendariaren oera joango, baiña pattarra izan ordea bitarteko, eta bai zepoan erori ere eder-

ki asko. Gero izango ziran komeriak. Txorakeriak egiteko gogokak kenduko zizkietela uste det. Presoekin ain ondo etortzen zan neska edo andrea, edo eztaikit zer izango zan, kargutik kendu eta etxera bidali dute. Eta bere zaintzaillearekin ain goxo moldatzen zan mutilla berriz, kartzelan leen baiño barrurago sartu. Nolanai ere, pattar botella ustuz komeriak egiteko tarte aundi samarra gelditu izango zaie oraingo onetan. Orixe da, ba, malizirik ez edukitzea. Pattar gutxiago edan izan balute jolasaldi batzuk bazeuzkaten oraindik.

Alkoholaren zorakeriak
sari oi dira zabaldu.
Mozkortutzean ondo arlote
oi da gizona azaldu.
Ikusi nola neska-mutillak
zurrutak lezazken galdu:
jolaserako gauz ez dirala
lo artzeraiño makaldu.

Pattar botella ustuta, orra
bi neska-mutillen jira.
Presozaia ta preso, biak
mozkor-mozkor egin dira.
Ala zepoan erortzeraiño
mozolotu ez balira,
nai zutenean jolas geiago
egingo zuten, sikira.

1995eko martxoak 3

Neguan amaika aldiz esan degu ez dagoela martxoa etorri-rik. Beti kukilduta egon gabe, udaberriko eguzki epelak pixka bat suspertuko ote gaituen, ba. Garizuma ere berekin ekarri du martxoak, eta sendagilleak esan digute neguak utzitako ajeak eta erdoiak nola kendu. Ez dakit leengo sermoilarien tokia ez ote duten jaun aukeratu. Osasuntsu bizi nai badegu, gorputzari nai duen guztia egiten ez uzteko agintzen digute. Eta emen ez dago penitentziari iges egiterik. Jaun oiek diotenez, ez degu berandu jeiki bear oetik. Gero, ondo garbitu eta txukun-txukun jantzita, irten bear da etxetik. Aberatsak bagiña bezela, urtez aberatsak geran ezkeru. Eta ez da gutxi. Familiarekin ondo kon-

pondu, baiña ez egon beti etxe zuloan sartuta. Lagunak bisitatu, eta etxetik kanpora bizi diran senitartekoak ere bai. Egunkaria irakurtzea komeni zaigu gero, lagunekin biltzen geranean mundua konponduz itz egiteko. Baiña mundua eta mundukoak txartu dirala-eta ez jenio txarrean jarri. Or konpon ditezela! Bazkalondoan siesta pixka bat egin. Bazkalondoko lokuluska oso ondo etortzen da, baiña gorputza zaindu bearra dago gaiztotu ez dedin. Gau osoan lorik egin ezpadegu, ez estutu urteen pixuak loa arindu egiten du-eta. Esaten dutenez, ez da ona telebista ikusten denbora asko pasatzea ere. Bertsolariak, pelota partiduak eta Reala eta Athletic ikusi ezker, naikoa da. Zaarren egoitzera joan eta karta jokoan egitea ere ona da, baiña ez geiegi. Tutean gaizki jokatzen duelako lagunari aitzakia emanda asarretzea baiño obe da paseatzea. Gutxienez ere egunean ordu pare bateko ibillaldia egin bear dala esaten dute, baiña aldaparik ez dagoen bideetan ibilli. Mediku jaunak ere antzeman digute leen ere aldaparik asko igota gaudela. Penitentzi bat kendu digute eta ez da gutxi, ala ere.

Baiña pentsatu bear ko degu batere sufritu gabe ez dagoela zorionik emen. Eta lagunei ez kontatu kotta geiegi, bestela parre egingo digute-eta. Beste gauza asko ere esan digute sendagille jaun oiek. Esate baterako, bizitza ez dagoela luzatzerik, baiña bai zabaldu. Bizitzea dala kontua, ez bizirik egotea.. Bizitzen ikasi egin bear dala, orretarako edadea badaukagula-eta. Gizentzea txarra dala, eta argal egon nai duenak, bere burua berak zaindu bear ko duela. Gizentzeko joera baldin badaukagu, gutxi jan. Udan gozatuko badegu, orain sufritu egin bear dala leenbizi. Uda-berriko epelari zumu ona ateraz ondo bizitzeko zer bear dan ere argi eta garbi esan digute: burua argi, biotza alai, karteran diru pixka bat, denbora pasatzeko lagunak egunez, seme-alabak eta billobak... Eta au da ederrena: gaua gozatzeko, emaztearen musu bat edo beste.

Gorputza pozik eduki nai ta
onekin dauzkagun lanak!
Ez gaixotzeko bearke egin
mediku jaunena esanak.
Esan liteke on egiteko
dirala guri emanak.
Baiña sufritu erazitzeko
onak dira oiek danak.

Gutxi jan eta neurrian edan:
au omen da bearrena.
Ori egiñik lortzen omen da
zorionikan geiena.
Baiña lagun bat bear badegu,
lagunetan gozoena,
maite degun ta maite gaituen
andretxo bat onena.

1995eko martxoak 10

Mundu onetan makiña bat modutako pertsonak bagaude. Danok ez baigera jenioz berdiñak. Gizon alprojak beti izan dira, eta orain ere badaude, noski. Gizonak baiño zerbait zintzoagoak dira emakumeak, orain arte. Baiña orain gizonezkoen pare jarri dira ordea, eta badirudi batzuk pixka bat arduragabetzen ari dirala. Lotsa bota dutela, edo alperrikako lotsa, edo eztaikit nola esan, bai beintzat. Nik ez nuke nai asarrerik emen, eta komeriak dira. Dana dala, poliki-poliki itz egiñez ondo samar konpontzen saiatuko gera. Gizonezkoen modukoak izatera eraman dituela gizona aiña izan nai orrek. Ori esan nai nuen. Eta gizonezkoen akats batzuk erantsi zaizkiola emakumeari, alegia. Kosta zait baiña asmatu det, orratik!

Emakume guztiak ez dira ordea erori arri orretan irrist eginga. Badaude oraindik emakume osoak, jatorrak, zintzoak eta arduratsuak. Badaude senarra motz lotuta edukitzen dakitenak, eta gizonak sekula iñoiz mendean artuko ez dituenak. Bai bear ere orrelakoak. Familiaren izatea, gizonak eta emakumeak osatzen duten ardatzaren jira-biran ibiltzen da. Gizona eta emakumea dira ardatz orren bi muturrak. Eta oietako bat ondatzen bada, an ez dago ardatzik. Familia oiñarririk gabe gelditzen da. Eta oiñarririk gabe ez dago ezer zutik edukitzerik. Badira gizonaren aldean asko

balio duten emakumeak. Badira gizonaren akatsak barkatzen eta estaltzen dakitenak. Eta alakoak, gizon alproja bat ondoan dutela baiño geiago dira bakarrik familiari zutik eusteko.

Italiako emakume bat errusiar batekin ezkondu omen zan. Eta iru seme-alaba izan zituzten. Eta alako batean, ez agur eta ez adio, etxetik anka egin zuen senar orrek. Gero, emazteak ez omen zuen aren berririk aspaldian, eta orain etorri zaio etxera, ogeita amar urte kanpoan pasatuta gero. Zenbait emakumek arrapatu izan balu, perrak laister jasoeraziko zizkion. Baiña, alproja geienak suertea izaten dute, eta nola emazteak ala semeak, oso ondo artu dute. Semeak pozik daude aita ezagutu dutelako. Eta emazteak izugarrizko maitasunezko ongi etorri egin dio. Senarra galdu zuelakoan zegoen. Eta berebiziko musuak eman dizkio azaldu danean. Txoliña alakoa!, esango du norbaitek. Baiña barkatzen dakiten pertsonak ez al dute balio? Baiña ark ere etzuen asko balioko senarra bezelakoa izan balitz. Gizonak aiña, edo gizonak baiño askoz geiago dirala emakumeak. Barkatzen dakiten pertsonak ez dira dozenan amairu izaten

Sarritan keja izaten gera
eta ez da misterio,
mundu onetan dagon ainbeste
alproja dala medio.
Or konpon!, eta gizonak anka
ez agur ta ez adio...
Zer izango zan beste ainbeste
andreak egin balio?

Libre dabilzan zenbait akerrek
bear luteke katigu.
Errugabeak sufritzen eta
ajola gabe beti gu.
Mundu onetan etzan izango
ainbat pena ta kastigu,
andre ark jakin duen bezela
barkatzen bagenekigu.

1995eko martxoak 17

Martxoa aurrera dijoakigu eta egun eder asko ari zaigu inguratzan. Etzi San Jose eguna dala ezin aaztuko degu. Baliteke garai

batean orain baiño ilusio geiago edukitzea San Jose eguna iristeko. Aurten igandean datorkigu gaiñera. Ostiralez edo beste aste-
gun batean etorri izan balitz, bi edo iru egun jai izango ziran, siki-
ra. Ostiral illunabarrean jai egiten asitakoak izango dira. Gozatu
eder bat artu dezatela. Ala ere, San Jose eguna ondo ospatu nai
duenak zer egin asmatuko du, bai. Orain aiña aukera etzan
garaian, arkumea jateko eguna izaten zan. Gaur ez dago orretara-
ko irrikarik. Leenago zer jango bizi giñan, eta orain zer ez jango.
Bateko kolesterola, besteko tentsioa, eta besteko erreuma, okela
alde batera utzi eta baratzako txuletak jan bear. San Jose egunean
ere penitentzi egin bear. Leen lanak ematen zituen goseak, eta
orain, aseak.

San Jose egunak badu beste esan nai bat ere. Egun orretan
aitaren eguna ospatzen da, edo ospatu bear litzake. Orra aitzakia
polita zerbait berezia egiteko. Amaren egunak indar aundia artu
du, eta ederki ospatzen da. Aitarena, arinxego joaten dala uste
det. Ainbeste losintxa bear ez duelako edo eztakit zergatik, aita-
rekikoak errez egiten dira. Ala, etxean amak geixeago agintzen
duelako ote da? Aitak etxeko lanetan laguntzea modan jarri da.
Eta aurrerantzean aita eta ama berdindu egingo dira ospakizun
auetan ere. Zartagia eskuan izango baitu, batzutan beintzat. San
Jose arotza omen zan. Ez dute esaten etxeko lanak egiten zitue-
nik, baiña Egiptora joan bear zutela esan ziotenean, Ama Birjiñak
eta Jesus Aurra isil-isillik lagundu zioten. Ori da aita maite iza-
tea. Oraingo aitak baiño ohea zalako ote? Orain ere badira aita fin
askoak, baiña ez daukate San Josek bezelako errespetorik.

Ala ere, aitak maitasun pixka bat merezi duela esango nuke.
Seme-alabak aitari egin lezaioketen oparirik onena zintzoak iza-
tea da. Leenago, gorbeta eta orrelako opariak egiten zizkioten.
Orain eztago orrelakorik. Baiña zintzoak badira, eta amak musu-
txoren bat edo beste ematen badio, orixe naiko aitarekikoa egite-
ko. Oso gutxi bear du pozez zoratzen egoteko. Eta, badakizu: ez
aaztu datorren igandean, etzi, aitaren eguna dala.

Penagarri da gaurko munduan
dagon konpondu eziña.
Danok agindu nai degunean
ori degu gaitz jakiña.
Ia borratu zaigu erabat
San Joseren imajiña,
eta iñola ezin moldatu
beste bat aren berdiña.
Eta askotan tristerik dago
etxeko amabirjiña.

Ez ote luke pena merezi
txandan agintzen asteak,
egun batean batek agindu
eta bestean besteak.
Bi dira, eta bi egunetan
aita ta amari uzteak,
ekarriko du irugarrenez
agindutzea gazteak.
Ala etxean egun guztiak
ez lirake ain tristeak
ez lirake ain tristeak

1995eko martxoak 24

Garai batean izan balitz, biar jai egingo genduen, Andre Mari Martxoko da-eta. Baiña gure lana egin bearrarekin, jai asko kendu degu, eta bizimodua aldatu ere bai. Elizara sarri joaten giñanean, onak izateko askotan esaten zigutelako, edo apaizak eta agintariak bildur pixka bat sartzen zigutelako, orain baiño zintzoagoak giñan, itxuraz beintzat. Egia esan, ordukoak jai asko egingo zuten, baiña etziran ondo bizi. Laurden erdi bat olio emateko, eta aitak soldata ekartzean amak pagatuko ziola andre Madaleni esan zionak, etzuen dirua poltsan kabitu ezinda edukiko. Baiña orain, ainbesteko aurrerakoa egin degu. Orduan zorrak edukitzea kezkarri bazan, orain modan jarri da. Dirurik gabe edozer erosten duen asko dago gaur. Dirurik ez baiña kotxea erosteko kutizia badu, ez pentsatu erosi gabe geldituko danik. Banku eta Aurrezki Kutxak or daude zai diru eske zein joango. Besteren diruarekin bizitzeko oitura modan dago. Bizitzen laguntzeko omen da dirua, eta dirua eduki zai egon gabe, besteren diruarekin ondo bizi danak asmatzen duela esaten du oraingo jende modernoak. Zorrak nola edo ala ordainduko dirala bai,

eta segi aurrera. Ala ere, ez gera danok ondo bizi. Bankuak jakiten dute dirua nori eman, plazoak noiz eta nundik kobratu. Eta ez dira galeran irtengo. Dendariak, igeltseroak, iturgiñak eta orrelakoak Bankuak baiño negar geiago egiten dute. Lana egin, gauzak saldu eta ezin dutela kobratu esaten dute. *Zorrak zor lepoa lodi* esanda geroz eta jende geiago bizi dala. Gutxi edo asko, aldaketak danok astintzen gaitu, noski. Eta zorrak ordaintzen nagiak diranak ere bai.

Orrelako oiei kobratzen dakiten enpresa bereziak badaude orain, eta indarra artzen ari dira gaiñera. Enpresa oiek ondo ikasitako kobratzailleak dauzkate. Eta oien atzaparretan erortzen diran zordunak ez det uste pake aundirik izaten dutenik. Besteren zorrak kobratuz ogia irabazi zitekeela esan izan baligute garai batean, ez genduen bereala sinistuko. Baiña bizkarrari eragin eta libratuko dirala uste dutenak oker daude. Egunik lasaienak joan zitzaizkiela uste det. Ondo itz egin bai, baiña berea egin arte pakerik ematen ez duten kobratzaille oiek, ate ondolik kendu ezinda bizi bear izatea ez da ederra izango.

Kontuak kontu, batzuen lasaitasuna askoren ogibide biurtu da. Ez al da kalterako izango dana.

Jartzen baldin bagera
mundura begira,
mundura begira,
au da bizimoduak
eman duen jira!
Gaur langabetu asko
dabil jo ta tira...
Baiña zertara joan
lan billa mendira?
Lanik ez dagolako
aberasten dira.

Gaur zorrak kobratzea
ez da berriketa,
ez da berriketa.
Ortarako bear da
azaldun kopeta.
Baiña kobratzailleak
ez dabiltz erreta,
baizik sakelak diruz
ederki beteta,
lana egin baiño len
kobratzen dute-ta.

Bizitza seriotuta dagoela, baiña kontu zebreak ere entzuten dira noizean bein. Madrid aldeko erri koskor batean, muskerra akabatu zuen gizon batek orain bi urte. Belar ontzen ari giñanean-eta ziraun bat edo beste akabatu izan genduen guk ere, baiña orregatik ez giñan joan konfesatzera. Garai artan etzegoen ekolojistarik. Orain orde argi ibilli bearra dago. Badiruri pisti batzuk gizonak baiño geiago balio dutela. Kontua zera da: Madrideko gizon ori salatu zutela, eta bi urte pasata gero, milloia eta bost milla pezetako isuna edo multa egin diotela. Bai omen da muskerrek akabatzeko lain, baiña lanerako ez dala gauza, eta illean 56.000 pezetako soldata kobratzen du. Amairu laguneko familia dauka etxean, eta muskerra arrapatu jateko arrapatu zuela esaten dute norbaitzuk. Orra munduko justizia nolakoa dan.

Badirudi mundu zebre onetan besteren okerrak zuzentzeko kargua daukatenak berak dirala okerrenak. Mundua, edo mundukoak zearo okertuta gaudela. Eta ez dakit orrelako zuzentzaillekin urrutira joan gindezkeen. Estuasunean gauza asko pentsatzen da, eta gure musker jaleak ere asmatuko du zerbait. Erregeri karta egiteko asmotan dala irakurri det, laguntza eskatuz. Pentsatzen jarrita ere, muskerrek ozka eginda baiño okerrago gelditu da, gizarajoa. Baiña barkatzeko eskatuko omen dio erregeri, al baldin badu beintzat. Gizon patxarazkoa eta zuzen samarra dala ematen du, eta ainbeste egingo al diote. Errege jaunak bai ote zekien Espaiñian milloia eta geiago balio duten muskerrek badaudela? Ezertarako balio ez duen pistirik ez omen da, eta muskerrek ere zerbaitetarako izango dira, noski. Baiña illean 56.000 pezetarekin amairu laguneko familia mantentzen duen gizonak ere zerbait balioko du, ba. Urte ta erdiko irabaziak kenduta ez al dute utziko.

Berrogei billoi eta geiagoren zorrak omen dauzka Espaiñiako Estaduak. Madrid aldean badira muskerrek bizitzeko moduko lurraldeak, eta ala moduzko granja batzuk jarrita muske-

rrak azten asi litezke. Gero bakoitza milloi batean saltzen badute, zorrak ordaindu eta laister aberastuko dira. Dirua biltzeko ez luteke izango gure bearrik, ta orixe txarra. Onuntza baiño leen, bidean galduko lirake txanpon guztiak.

Musker bat il da jateak
orra ondoren tristeak.

Min ematen du gizon pobre bat
lur jota uzteak.

Ekolojista maiteak,
ez izan arloteak.

Zer kulpa zuten aren umeak
eta emazteak?

Ama amaika umekin
amairu lagun berekin.

Naikoan ezin bizi alako
familiarekin.

Gaurko justiziarekin
nola asmatu zer egin,
berrogei eta amasei milla
pezeta tristerekin?

1995eko apirilak 7

Esaera zaar batek dio apiril ona ezagutu nai duenak eun urtean bizi beariko duela. Baiña eunda bi urte bazeuzkala esaten omen zuen aitona batek, eta etzuela apiril onik ezagutu. Nik esango nuke, iñungo miñik ez daukagun egun guztiak onak dirala, eta osasun ona baldin badegu, egin dezala nai duena apirillak. Elurra egiten badu ere ez duela denbora luzean iraungo. Udaberrian txoriak ere alaitu egiten dira, eta ez degu lurrera begira jarri bear.

Europako iparraldean bizi diranak ez duade lo. Badakite emen epel egiten duela, eta badatoz danak amilka. Aien diruak gureak baiño geiago balio du, eta a ze nolako egunak pasatuko dituzten gure kontura. Bai atxur ederrak arrapatu ere! Aurten turistak sekulako indarrean datoz, batez ere alemaniarrak. Eta zaarrenak eta gogorrenak. Mallorcan, kotxe aundi batek beste txiki bat jo, eta an zijoazen ama eta alabatxoa zaurituta utzi eta anka egin zuen. Baiña bai poliziak azkar arrapatu ere. Ese aun-

diak egiñez omen zijoan, eta nola etzuen, ba, arrapatuko? Kotxe aundi artan, larogei bat urteko atso aundi bat omen zijoan, mozkor-mozkor eginda. Mallorcara etorri gabe ere otzari eusteko moduan berotuta zijoan nunbait. Orrelako adorea zeukan atsoa zer ote zan sasoi betean zegoenean? Etzan giro izango aren inguruan. Alemandarrak azkarrak dirala, baiña orra aiek ere nola estroposu egiten duten zurruta merke arrapatzen dutenean.

Emen ere badira zerbait dakitenak. Zaragozako komentu bateko kartujoak, ganadua azi eta nekazaritzatik bizi omen ziran. Eta komentuko buru egiten duen fraillea injenieroa danez, bere lagunak obeto bizitzeko modua egin duela uste det. Batetik injenieroa eta bestetik fraillea, gizon azkarra izateko lain bada-la dirudi. Eta beiei azpiak ateratzeari utzi eta ordenadoreak egiten asi dira frailleak orain, komentuko burua zuzendari dutela. Leen baiña askoz ere obeto bizi dira, soroak simaurtzen jardun edo tailler txukun batean ordenadore kuriosoak egin, alde ederra dago. Ukuillurik ez bada ere frailleak badakite lana ondo egiten. Eta ordenadoreak Espaiña guztian saltzen dituzte. Errezatzeko ere leen aiña nekatu gabe egongo dira, eta errosarioa errezatzean lo artu bildurrik gabe beteko dituzte bere eginbeurrak. Aiek ez dute Alemaniako atsoak bezelako mozkorrik arrapatuko.

Europaren ondo asko dakite
nun arkitzen dan epela,
ta nola egon otzak igartzen
naiko dirua dutela?
Bolara ontan talde galantak
uste det badatozela,
udazkenean Afrika aldera
kurrillo bandak bezela.

Diruak poza ematen dio
beraren bear danari.
Orregatikan egiten zaio
losintxa turismoari.
Batek zer esan begiraturik
orrenbeste turistari?
Ez ote gera gu Europaren
morroi eta serbitzari?

Bi urtean konfesatu etzan gazte bati ala esan omen zion fraillle zaar batek: “Mutil, mutil. Guk esaten ditugun danak ez dituk egiak izango bearbada, baiña pentsatu zak zerbait badala”. Fraille jatorren bat izango zan uraxe. Zerbait izan balitz, purgatoriotik asi eta inpernuan barrena, bereak eta bost entzun bearko zituen gazte ark. Frailleak munduko berri jakin ordea, eta bi itzetan esan zizkion esan bearreko danak: “Pentsatu zak”. Gu ere emen jarduten gera askotan orain iñor gutxi joaten dala sermoiak entzutera eta kalbarioak egitera, eta ez dakit zer esaten, garai bateko Aste Santua eta kontu zaarrak airean ditugula. Ez ote genduke obeko egin bear deguna egin eta isillik egon? Bakoitzak pentsatu bear du zer komeni zaion: “pentsatu zak”. Mutil koskorak giñala igandero bi meza entzunerazten zizkiguten, eta arratsaldean, bezperak. Beartuta bi meza entzutea baiño norberak nai duela bat ondo entzutea obe izango da, orratik!

Izenik aldatu ezpadiogu ere, gaiñontzeko geiena aldatu diogu Aste Santuari. Ostiral Santua kalbarioak egiteko eguna izaten zan. Baiña orain, kanpora joan ezin diranak daukate kalbarioa. Ala ere, egun batzuk kanpoan pasatu arren, elizkizun batera joan nai duenak, artarako lain tarte arrapatuko du. Bazterrak ikusi eta elizara joan, danak egin ditezke. Bai orixe. “Pentsatu zak” esatea naiko. Zertan asiko gera zeñek zer egin bear duen esaten? Premian dagoenari laguntzeko ez dago elizatik irten gabe egon bearrik. Alkarrekin ondo konpontzeko ere ez. Eta Aste Santuan kanpora joaten diran danak gaiztoak dirala ezin pentsatuko degu beintzat. Aiek ere edozeñek bezelaxe pentsatu dezakete “zerbait badala”, eta suerte ona izan dezatela, egun auk ezeren okerrik gabe pasatzeko.

Ostiral Santuz etzan leenago musikarik entzuten. Ala ere etzan zearo egun tristea izaten. Seguran prozesioa ikusi ondoren, an edo beste nunbaiten bakaillaoa janez ederki meriendatzen zutenak iza-

ten ziran. Orrekin bijilia ondo betetzen bazuten ere baraua urruti samar gelditzen zan. Eta ain oitura txarra etzala izango pentsatzen det, eta bizirik eustea merezi duela. Orain sekula baiño aukera geiago dago Aste Santuan ere. Leen sagardotegi gutxi zan Goierri alde onetan. Baiña orain asko dago, eta onak gaiñera. Ostiral Santu illunabarreko oitura ura berritu nai duenak, Zeraingo Oatza sagardotegian aukera ederra dauka, esate baterako. Urrutira joaten ibilli gabe, arrats ederra pasa dezake Segura-Zerain inguru onetan.

Ostiral Santu egunari dagozkion bertso batzuk kantatuko dizkizuet azkenik, gaurko berriketaldia amaitzeko.

Aitarengana joan ziñan da
lagun zaiguzu zerutik;
baiña etzaitetz iñoiz aldendu,
Jesus, gure ingurutik.
Fede santuan iraun dezagun
maitasunez eta zutik.
Zure laguntza bear degu ta
ez utzi guri eskutik.

Sinismenari, or konpon!
gaur nola esaten zaion.
Jainkoagandik aldegitteak
ez digu egin on.
Guk uste aiña zorion
Zu gabe nola ez dagon,
aurrerantz ere, Jesus, zurekin
nai genduke egon.

Guretzat ez du iñork azaldu
zuk bezin biotz bigunik,
naiz eta guk ez asko merezi
orrelako maitasunik.
Orri erantzun gabe ez genduke
igaro bear egunik,
guk ez baidegu Zu bezelako
maisurik eta lagunik.

Jesus, zurekin aztuta
gabiltz erabat nastuta.
Sinismena ta itxaropena
erabat auldu,ta,
maitetasuna oztuta,
bide zuzena galduta...
Lagun zaiguzu, Zure bearra
danok daukagu-ta.

1995eko apirillak 21

Donostiko emakume talde batek, alkarte bat sortzeko erabakia artu du batek besteari laguntzeko. Aurki auteskundeak izango

dirala, eta ordurako ondo prestatzeko asmoa dute. Nik uste nuen alderdi edo partidu politiko berriren bat sortu izango zutela, baiña ez da orrelakorik. Donostiko alaba oiek ez omen dira ezkerreko ez eskubiko, emakumeak baizik. Eta alkarte berri orretan nai duten emakume guztiak sartu omen ditezke. Donostiko alkatea eta zinegotzi edo kontzejalak, denak emakumeak izan ditezten alegiñak egiteko asmoa dute, esan dutenez. Eta ederki egingo dute. Oraintxe jarri zaigun munduan, kukurruku jotzeko balio duten agintariak bear ditugu. Eta emakumeak etxean agintzen oituta egoten diranez, udaletxean agintzen ere asmatuko dute, iñork asmatzekotan. Zer esan ere jakin bear du agintariak, eta orretan abillak dira emakumeak. Bestela nolako bizimodua egin bearke ote luteke? Ezetz esatea, bere burua babestea, luzeegi dagoena moztea eta oiek danak bearrezko dira pertsona bezela bizi izateko. Margaret Thatcher zein dan gogoratuko zerate, noski. Ba, ark esana da emakumea dalako dakiela ezetz esaten. Burnizko andrea deitzen zioten, eta ortik pentsatu zer izango dan. Azaren barreneko orria ez beintzat.

Gizonak bakarrik agintzen duten tokietan gauzak nola ibiltzen diran badakigu. Eta orain emakumeeci aginpidea emateko garaia izango da, dana ez bada ere zerbait beintzat. Etxea gobernatzen ondo dakite, eta erria ere gobernatu dezatela, zenbait alprojak aiñean gobernatuko dute-eta. Gauza guztiak kolpean aldatzea ez da beti ona izaten, baiña ez litzake gaizki etorriko Donostian eta beste erri askotako Udal Batzar edo Aiuntamentuak emakume utsez antolatzea. Orretarako baldintza edo kondizio bakarra jarriko nieke nik: nola alkatea ala zinegotziak gazte samarrak eta errian diran politenak izan ditezela. Eta ezetz esan bearrean gertatzen diranean, irripar batekin esan dezatela. Zer gauza oberik erritarren artean asarrerik ez izateko?

Berriketak berriketa izango dira, baiña orra emakumeak nola ari diran bere bideak idekitzen eta zabaltzen. Naiago nuke Donostian sortu dan alkarte orrek indarra artuko balu, eta erri

geiagotan orrelakoak sortuko balira. Emakumeak aginpide gei-
go baleukate, egiten dan aiña trakeskeri eta oker egingo ote
litzake? Dabiltzan baiño zuzenago ibilli bearke luke bat baiño
geiagok.

Donosti ortan gauza politak
bearke dira ikusi.
Emakumezko udal batzarrak
ez du emango itsusi.
Parte zarreko txikiteruen
oiturak bearke autsi,
etxeoandreak jartzen badira
donostiarren nagusi.

Udaletxean emakumeak
nagusituko balira,
laister giñake danok Kasino
alde artara begira.
Alkatesa ta zinegotziak
politak baldin badira,
turista pranko etorriko da
berriz ere Donostira.

1995eko apirillak 28

Lazkaotarrak festa bete-betean ibilliko dira gaur. Arabarren
zaindaria da San Prudentzio, baiña baita lazkaotarrena ere. Eta ez
du aaztuta edukiko erri jator au. Bai batzuek eta bai besteak aste
amaiera polita daukate, noski. Gozatu bat artu dezatela. Iru egu-
neko festak zerbait badirala esan diteke, baiña zerbait geixeago
artuko lutekenak ere izango dira. Ez dago ordea danekikoa egite-
rik. Ori pentsatu eta aitzakiak alde batera utzita, al duten ondoe-
na egurasten saiatzen diranak asmatuko dute. Batzuentzat onak
bagera, beste batzuentzat txarrak izaten gera. Zeiñek neurtzen
gaituen kontuan eduki bearra dago, eta ez degu geiegi kezkatu
bear. Kontzientziak esaten digu ederki asko zuzen ala oker gabil-
tzan. Kontzientziak belarritik tira egiten badigu oso oker ibilliko
gera. Barruan daukagun ar txikia esaten zion Lazkao Txikik kon-
tzientziari. Izan ere, okertzen bagera, ezpaitigu pakean uzten.
Izen polita eman zion kontzientziari Jose Mielek. Orrelakoxea
zan gure bertsolari aundia.

Inglaterran larogeita amalau urteko emakume eskale bat il da oraintsu. Eta ezagutzen zutenak miserian bizi zalakoan zeuden. Ala ere, 500 milloi pezeta beartsuentzat utzita joan da mundutik. Bere aide edo parienteentzat, 200 milla pezeta bakarrik utzi omen ditu. Ilda gero danak onak, dio esaera batek. Eta alaxe izango da. Baiña aren aideak zer esaten duten jakingo nuke. Pobreentzat orrenbeste milloi, eta aientzat berreun milla pezeta sistrin. Ez dute meza asko aterako. Ainsterañoko griña omen zeukan amona orrek dirua aurreratzeke, illundu baiño leen oeratzen zan, argindarrik ez kastatzearren. Eta ur berorik ere etzuen erabiltzen. Jantzi berriz, bestek atzera utzitako erropakin jantzen zan. Orixe da, ba, aberats bizi eta pobre il ez, baiña pobre bizi eta aberats iltzea. Pobreentzat dirua aurreratzeagatik ainbeste sakrifizio egiteak badu meritua. Eta kontzientziak ala agintzen bazion, zer egin bear zuen?

Zenbait gaixoetxetan dauden zaarrak eta elbarriak zerbaiten premia izaten dute, noski. Eta eskale ark pasatutako otzak etziran danentzat gaizki etorriko. Etzan danentzat ona izango, baiña an egongo da zeruan lasai asko, naiz eta bere aideak mezarik ez atera. Lazkao Txiki ere antxe egongo da eta gai polita du amona xaarrari bertsoak kantatzeko. Zirikadaren bat edo beste botako zion onuzkero.

Oiek danak orrela izango dira, baiña ainbeste penitentzi egin gabe, diru pixka bat kastatuz emen ondo samar bizita ez ote liteke zerura joan?

Lazkao Txiki, orra iritsi
lazkaotarren eguna,
bertso ta kantuz ederki asko
alaitu izan zenduna.
Zerura joan berria dezu
diru askodun laguna,
irripar goxoz aguro asko
konkistatuko dezuna.

San Prudentzio ospatutzeko
zeruan gozoak janez,
zure ondoan artu ezazu
txiste batzuek esanez.
Neskatxentzako lagun polita
zu beti izan zeranez,
eskale ori ase ezazu
naiko muxua emanaz.

Ez gera egun baterako eta egingo deguna aurrera begira egin bear degu. Etzi amaren eguna da, eta ez nuke isillik pasatzen utzi nai, aurrez beste zerbait esango badet ere. Ia amari gure maitasuna azaltzeko modua egiten degun. Amaren izena aitatzeara naikoa da merezi duen guztia ematen zailla dala ikusteko. Emakume jakintsu batek esan duenez, nazio aurreratuetan ama izatea zigortzat artzen dute. Jeuzak ezarritako kondena bat bezela. Itz gogorrrak badira ere, ez nuke esango emakume orrek arrazoi ez duenik. Ez da neurtu erreza ama zer dan eta zenbat balio duen. Legeak egiten dituzten gizon ospetsuak ere ez dute bear bezala aintzakotzat artzen. Ez da ama baiño lagun oberik guretzat. Mundutik joanda gero ere lagun egiten digu azkenik, berak zuzenean ezpada, bere oroimenak. Iñork ez du artzen gugatik amak aiña lan. Eta ezbearren bat badegu, iñork ez du sufritzen amak sufritzen duen bezela. Mundu onetan ez da iñor, ordaiñetan ezer eskatu gabe amak ainbeste ematen duenik. Ezta, konturatuta edo konturatu gabe, ematen diogun esker txarra barkatzen dakienik ere. Ama, ama izaten, eta kitto! Ez du parerik. Alperrik ibilliko gera billa.

Dana dakigula uste degun garai onetan, amari bizimodua erreztu diogula esan diteke, baiña ez da ala. Begiratu bestela leen esan dedan emakume jakintsu orrek zer dioen. Ama izatea zigorra bezelatsu dala. Etxeko burubidea amaren gain dago oraindik gure artean, eta ori aski ezpada, al duten guztiak lanera joaten dira bizimodua aterako badute. Umetxoak, senarra, etxeko lanak, eta senarrak aiña ordu sartu bear lantegian gaiñera. Ez al da naiko zigorra orrela ama izatea ondo pentsatu ezker? Legeak egiterakoan amari berea emateko uzkur eta zur diran gizon oiek, zer atarramentu aterako ote luteke ama asko bizi diran bezela bizi balira? Berez langillea danari lan geiago botatzen zaio bizkarrera. Amarekin orixe gertatzen da. Eta amak uts egiten badu, familiko burubidea joan zan pikutara.

Noizean bein ama asarre samar ikustea ez da arritzekoa. Orduan pazientzia artu bear zaio. Amak badu aginpidea etxean, eta ez diogu sekula ukatu bear. Asarretuerazten degunean aginpide geixego artzen badu, ez ukatu extra ori ere, ainbeste eta geiago merezi du-eta. Familiar giro ona nai badegu, utzi dezaio-gun arnasa artzen amari. Uste ez duela ere gure onaren billa ibiltzen da-eta. Eskerrik izango duen ala ez pentsatu gabe, nundik gu kontentu edukiko dabil. Zer geiago egin bear du, ba? Ama maitatzen ez badegu, ez gera ezer. Eta etzi emaiozue danok musu aundi bana. Aitak leenengo. Amaren esana gutxitan egiten duen seme bizar luzeak urrengo, eta beste seme-alabak zer esanik ez. Eta ziur egon, uraxe izango dala amak geiena estimatuko duen oparia.

Amak eman zizkigun
musu ta laztanak,
gugatik artutako
neke eta lanak.
Maitasunak sortuak
izan ziran danak.
Eta eskertu bear
biotza duanak.
Ori eta geiago
merezi du amak.

Zeiñek maitatzen gaitu
amak ainbestean?
Munduan beste iñork
ez, nere ustean.
Eskertu dezaioGUN
biotza betean,
maitatuaz gurekin
daukagun artean,
damutu ez gaitezen
garaia joatean.

1995eko maiatzak 12

Euskaldunok jale onak gera. Eta ez asko jaten degulako, gauza onetik jatea gustatzen zaigulako baizik. Mokofiñak gerallako. Gure inbiriz daudenak ala esaten dute. Eta egia da. Garrantzi aundia ematen diogu jateari. Gure kulturaren zati bat da. Gure familiak janak lotzen dituela esan diteke. Amak pranta-

tutako bazkariaren ingurura familia errez biltzen da, eta jatea jai biurtu degu. Umeak azten dijoazen bezela, familia sakabanatzen asten da. Seme-alabak ezin, ba, beti amaren gonapean egon, gurasoak errez etsitzen ezpadeгу ere. Al degun guztian familia-rekin bizi nai izaten degu, eta alkarrengana biltzeko aitzakirik onena, aitak eta amak umeei bazkaltzera edo afaltzera etortzeko esatea izaten da. Zorionekoak oitura oni eusten dioten familiak. Ori galdu ezkerro, familiarenak egin zuen. Maiak ez ditu familiak bakarrik biltzen. Gaztetako lagunak bildu eta otordu bat alkarrekin egitea bezelakorik ez dago. Euskaldunak orrelakoxeak gera, Jainkoari eskerrak. Eta orrelakoak izaten saiatu bear degu gaiñera. Lantegiko lagunak ere ondo konpontzen dira ondo ornitutako mai baten inguruan. Alkarren berri jakiñez jakiten da ondoena munduko berri ere. Eta ori gauza ederra da. Auzoan eta errian alkarren arteko arremanak zaintzen dakitenak une ederrak pasatzen dituzte maiaren jiran. Eta alkarrekin ondo konpontzea danoi komeni zaigu.

Datorren asteleenean San Isidro eguna dala jakingo dezute, noski. Badaezpada ere goraztea pentsatu det, batez ere baserritarrei. Ez al zaie aaztuko, bere lana egin bearraren bearrarekin. Asteleena laneguna izango da. Eta igandeak ere orrelaxe izaten dira baserritarrentzat. Baiña egun batekoagatik, jai egitea pekatu izango al da? Ez aaztu bertsolariak esan zuena: “Emen utzita joanak dira/ oraiñarteko guztiak”. San Isidro egunean lanik bearrezkoenak egitea naikoa da, berriz ere eguna zabalduko du-eta. Eta alkartasuna iñork bear badu, baserritarrak bear du. Eta familia alkartzeko ona dan bezela, baserritarrak alkartzeko ere ona da mai inguruan biltzea. Sarri-sarri itz egin bear luteke alkarrekin. Eta ez ondo jateko bakarrik, baita alkarri laguntzeko zer egitea komeni dan erabakitzeko ere. Ez dezute edukiko nik esan bearrik. Baiña San Isidro eguna bear bezela ospa ezazue, asteleenean ezpada beste egun baten. Ez baztertu egun on bat pasatzeko aukerarik. Ez atzera egin.

Esaten dute gu euskaldunok
jale garbiak gerala,
eta ez nuke esango ori
guzti gezurra dala.
Eta jakiñik gaitz txarragoak
mundu ontan badirala,
aurrera ere gure Janikoak
onela gorde gaitzala.

Ez jatekotan lan egiteak
guretzat ez du balio,
eta ez esan konformatzeko
ez koipe ta ez olio.
Zenbaitek obe luteke esan
inbiriari adio...
Geuk egiñetik jaten degu ta
zeiñi zer inporta zaio?

1995eko maiatzak 19

Ainbeste gorabeera ikusten degu bizitzan zear. Oitura asko ezkutatu egiten dira denborarekin. Eta aien tokia beste batzuk betetzen dute. Eta orrelaxe dioa gure mundu koskor au. Zenbait esaerarekin ere orrelaxe gertatzen da. Baiña badira bere artan irauten dutenak ere: “ez dago berriketarik oraintxe, ez dakit zer ikusi bear degun, diruak ez du asko balio, bizitzeko ez da gutxi bear”. Orrelakoak itzetik ortzera esaten ditugu. Eta aspaldiko esaerak izan arren, guk gure bizitza guztian entzun ditugu, eta gure ondorengoak ere entzun beariko dituztela esango nuke. Izan ere, diru kontu ori zelebren samarra da, eta bere premia edo gosea nunai ikusten da. Diru asko dutenak ezagutzen ditugu, baiña naikoa duenik ezagutzen al du iñork? Nik ez beintzat. Dirua benetan adoratzeko degun jainko txikia da.

Udal edo Aiuntamentuak geroz eta diru geiago bear dute. Diputazioak ere bai, eta Estaduak zer esanik ez. Oiek danak gure sosak biltzeko naiko ez balira bezela, lapurrak ere or daude, eta aientzat ere guk egin bear, jakiña. Zeiñena dan asko begiratu gabe, dagoen tokitik atzaparrak betean dirua atera dutenak badira. Gobernua eta gobernu txiki, poliki moldatzen dira. Zergak urtero altxatzen dituzte, eta ain artistak izaki, dirua biltzeko sistema berriak asmatzen dituzte. Arnasa artzea ere kobratu egingo digute laister.

Sevillako udala, gaizki aparkatuta dauden astoei diru-zigorra edo isuna jartzen asi da. Ortik pentsatu. Palazio baten inguruko zelaietan larrean zebiltzan asto batzuen jabeari, bederatzi milla duroko multa egin diote, gauean astoak an utzi zituelako. Astoak gaizki aparkatu, gizarajoak. Eta ala ere, astoak gruarekin artu eta norabaitera eraman ez zituztenean, gaitzerdi. Gruatik zintzilik astoak arrantzaka, ura izango zan ikuskizun polita.

Aspaldi onetan asko aurreratu degula, baiña ez dakit, ba. Garai batean, kalean edozein orma eta ate ondotan ikusten ziran astoa lotzeko tokiak. Orduko kotxeak astoak ziran, eta etzegoen paretari erantsitako uztai txiki edo argoilla aietako bati lotuta utzi besterik. Leengo agintariak bazekiten asto asko izaten zala, eta aiek uzteko lekuak egiten zituzten. Oraingoak, autoentzat aparkalekuak egin bearrean, gruarekin artu eta Jainkoak dakien tokira eramaten dituzte, gero multa kobratzeko. Sevillako astoak pizti-tegira eraman omen zituzten. Parke zoologikora.

Bi ankako astoentzat ere bear litzake alamoduzko toki bat. Ez litzake beti utsik egongo, seguru asko.

Norainai joaten zerala ere
etzaitetz nunai gelditu.
Bestela multa kobratzailleak
laister billatuko zaitu.
Astoa nunbait utzi bearrak
ainbeste arazo ditu...
Esan diteke munduan danok
ezin gerala kabitu.

Gaur egunean toki askotan
kotxetan dabiltz astoak.
Gaiñera oso sarri emanez
izugarrizko sustoak.
Nunai ikusi litezke errez
asto oien arrastoak:
lau ankakoak nobleak dira,
bi ankakoak gaiztoak.

1995eko maiatzak 26

Lege zaarrera bizi izan bagiña, Azentzio eguna izango zan atzo. Eta emen egongo giñan gaur biaramona pasa eziñik. Ez txo-

ria baiño argiago, orain gauden bezela. Baiña atzo ez genduen izan berrogei kredo errezatu bearrik ere. Geroz eta lan geiago egin bear dala eta etxeari gora eragingo geniola, eta zer geiago egin bear degu, ba? Jai batzuk kentzeak baditu bere alderdi onak. Atzo egin bearrekoak etzi egin litezke, esate baterako. Goizean goiz jeiki eta Santa Barbara mendira joaten danak, gosaria, amaiketakoa eta oiek danak irabaziko ditu, segurarrak leengoak bazerate beintzat. Eta aldapa pixka bat gorabeera, sasoi ona daukazutenak eutsi usadio zaarrari. Egin urteroko bisita Santa Barbarari, gure baserri eta etxeak suaren atzaparretatik libra ditzan. Dantzatokietako kee artean aiñako giroa egongo da goiko pagope artan.

Enararen inbiriz egoten omen da ontza. Egunsentiak enara argitzen duten bezela, ontzari begiak itxierazten dizkio, eta egunsentirik ezin ikusi. Eta egunsentiaren argitasun alaia ikusten ez duelako egiten ditu ontzak ain ulu tristeak. Gaupasa egiten duten gazte asko ere ontza zuloan bezela sartzen dira oean, egunsentia- ren edertasuna ikusi gabe. Eta ori bakarrik balitz, utsa. Ez da askoz ohea zuzen ibiltzeko gauza ez diralako bazterra jota bertan gelditzea. Eta orrelako asko gertatzen da, zoritxarrez. Gobernadore ta alkate asko dantzatoki eta tabernak goizago itxierazteko asmotan omen dabilta. Izan ere, gauez ezbear asko gertatzen dala danok dakigu, eta ezbear oietan iltzen diran geienak gazteak dirala ere bai. Asteburuetako gauak, ezeren trabarik gabe, nai duena egiteko bere esku dauzkan gaztea errez erortzen da alkoholaren atzaparretan. Eta jende asko galtzen du orrek. Eta ortik ez dator familiarentzat negarra eta gizartearentzat galera besterik. Erria aurrera aterako duten gazteak bear ditugu, ez alkoholak betirako ondatu eta galduko dituenak.

Ezbearrak gutxitzeko agintariak neurriak artzearekin danok poztu bear genduke, eta gazteak ere bai. Aientzat izaten baita mesederik aundiena. Egia esan, orrela dirudi. Baiña badira katua- ren bosgarren ankaren billa dabiltzanak ere. Kotxea erabiltzeko karneta bear dan bezela, zurrut egiteko ere karneta bear omen

litzakeela diote. Edaten dakienak edan dezala, eta edateko balio ez dutenak egon ditezela etxean. Orratx aurrerapen edo adelantu polita. Orretaraiño iritsiko ote gera?

Oraiñaldian asko dabilta
parrandan gau ta gauerdi.
Nekerik ez ta ezin atera
egunez naiko izerdi.
Lana balego ura litzake
oientzat naiko goardi,
ta gauzez ez litzake egingo
orain ainbeste pikardi.

Agintariak dabilta gauzez
tabernak itxi asmotan,
gazte jendea nola bizi dan
eguna pasatuz lotan.
Nola lanikan ez dutelako
gertatzen dan au askotan,
agintariak zertako dira
gauzak ez zuzentzekotan.

1995eko ekaiñak 2

Badakigu danok ezberdiñak gerala. Besteak nolakoak diran ere bai, gure ustez. Baiña ez dakigu geu nolakoak geran. Besteak zein ankatatik erren egiten duten pentsatzen degu, gutxi gorabera. Baiña ez diogu antzik ematen geure buruari. Eta orrek erabilzen gaitu gaizki. Ez litzake ain zailla taju antzean bizitzea, alde batera. Baiña uskeri utsa diran gauzak benetan artzen ditugu askotan, eta orrela ezin, ba, pakean bizi. Alkarrekin ondo konpontzen ez diran senar-emazteak, bakoitza bere aldetik ondo bizi bear lutekeela esan diteke, nai dutena egiñez obeto bizi izateko asmoan dibortziatu dirala-eta. Baiña, ez dira soseatzen batek besteari ipurdia eman eta alde banatara joanda ere. Beti asmatzen dute zerbait alkarri min emateko. Batzutan arazo astunak sortuko dira. Eta orduan al duenak al duena egitea bearrezko izan liteke. Zenbaiten inguruan ezpaita giro izaten, eta askotan alproja baten mendean bizi bearrik ere ez dagoela esan liteke. Zenbait oso setosoa izaten da ordea, eta bizitza guztia burruka bizian pasatu gabeko onik ez du izaten. Edozein uskeri naikoa du laguna zirikatzen asteko.

Amerika aldean, batekin aspertzean beste batekin ezkondu eta orrelakoak egiten oituta daudela esaten degu askotan. Baiña ango jendea ere emengoaren antzekoa izan ordea. Denbora luzean auzitan ibilli dira senar-emazte batzuk, zakurra dala eta ez dala. Zakurra eduki etxean, eta biak uraxe nai. Zer egingo eta emaztea zakurra oera eramaten asi zan, senarrari inguratzen ez uzteko. Baiña zakurra berekin eraman zuen senarrak, emaztea zirikatzeagatik. Amarna bear izanda ere, nai aiña zakur aurkituko zuten, bai. Baiña batek bestea zirikatu nai, nola edo ala. Petral utsak izan. Eta azkenean auzitara jo zuten. Baiña epailleak ordena auxe eman die: zakurra ez dala bien artean egin eta maitatu bearreko ume bat bezela. Etxeko edozein traste aiñaxe dala, eta ez geiago. Arrazoi zuen epaille jaunak. Auzitan dirua kastatu gabe erosi zak, ba, beste bat eta bizi lasai, elkarri pakean utzita. Baiña orra zer gauza gutxi bear izaten degun askotan geure burua kalbario biurtzeko. Ondo pentsatzen jarrita, zakurrarekin bizitzeko ohea da, bai, zenbait bere moduko batekin bizitzeko baiño. Baiña berak nai duelako. Bizitza berez nola alakoa baldin bada, geuk korapillatzen degulako da. Geuk konplikutzen degulako. Ondo bizitzeko saiatu egin bear da, baiña ez besteri aitzaki emanda. Eta zakurrari zurikeriak egin bearrean, batek besteari losintxa pixka bat egiñez gozo asko bizi liteke artara ezkerero. Zakurra baiño lagun obeak badaude ondorako.

Petralkeriak bultzatzen gaitu
edozer gauz egitera,
batek bestea baiño zakurra
maiteago izatera.
Ikusi gabe sinisten ere
zailla da, alde batera...
Baiña pentsatzen jarri ezkerero
onelakoxeak gera.

Utsarengatik aurpegi beltza
jarri batek besteari.
Alkar laztandu baiño naiago
musu eman zakurrari.
Orrelakoak gertatzen zaizka
bururik ez duanari,
lo egiteko lagun obeak
egonagatik ugari.

Eguzkia berotu eta indartzen asten da il onetan. Eta badirudi batetik eta bestetik datozen berriak ere berotuta datozela. Venezuelako eztaikit zein erritako alkateak emakumeei ez omen die uzten udaletxeko ofizinatari sartzeko minifalda jantzita eta kolko ingurua ondo estali gabe. Ezta galtza ipurtestuekin dabiltzanei ere. Ortik aurrera beste asko ere esan liteke, baiña obeko degu formal antzean itz egin. Gizon guztiak berdiñak gerala eta orren antzeko asko entzuten degu. Baiña ez da orrela, itxura danez. Begiratu bestela Venezuelako alkate orri. Ura bezelako gizon zintzo eta prestuak badira geiago ere. Baiña ari ezin esango diogu beintzat pianojolea danik. Eta praka motz estuak eta batetik bestera argia pasatzen zaion txanbra jantzita, ura tentatzera joan diran neska gazteak nolakoak ote dira? Ez dira, ba, ibilliko gizon danak berdiñak diran ala ez proatzen? Onelako kontuak entzutean lotsatu itxurak egiten dituzten batzuk izaten dira, baiña ez dira asko estutzen, ez. Amona xaarrak ere parre pozik egiten dute kontu berde samarrak entzutean.

Sekulako eztabaida izan nuen leengo batean etxeakoandre batekin. Mundua zearo naastu dala zioen. Zer izango, eta neska gazteak gizonak zirikatzen! Ez omen ditugu ikusi ikusteko guztiak. Ez omen zan izaten orrelakorik aren gazte denboran. Eta oraingo gizonak eta emakumeak danak berdiñak dirala gaiñera. Batzuk ajolakabeak dirala, eta besteak ere bai. Baiña, ala ere, ez uste izan dana gaizki iritzita zegoenik. “Emakumeak ere gizonen berdiñak izateko garaia ere bazan, alde batera. Neska gazteak soldaduzkara joaten asi dira, eta danok berdiñak gerala ortxe ikusten da. Eta jakin dedanez, emakume soldaduak ez ezik emakume kapitanak ere badaude”. Kapitanak? Baita koronelak ere, eta sarjentoak ez gutxi, erantzun nion.

Nik eztaikit danok berdiñak geran ala ez. Amerikan, danetako soldaduak omen dabilta gerrako barku batean. Baiña aginta-

riak badakite poxpoloa eta polbora alkarren gertuan jarri ezkeror gertatzen dan, eta kontuz ibiltzeko aginduak eman dituztela irakurri det. Aginduak agindu, barku orretan amalau soldadu aurdun daude, eta danak neskatxak. Apenas mutillik aurdun egongo dan. Nik esango diot etxeakoandre ari urrena arrapatzen dedanean.

Gizonezko ta emakumezko
nola geran ezberdiñak,
gaizki gabiltza besteen mailla
geuk arrapatu eziñak.
Bakoitzak bere lekua bete,
ortan egin alegiñak.
Baldin balio badegu ere
danok ez gera berdiñak.

Gure Jainkoak bereiztu gaitu
lege garbi eta justuz,
emakumeak bizi ditezen
bere buruak babestuz.
Mundu au nola ez dan osatzen
gaiñera santaz ta santuz,
gizonezkoen artean beti
ibilli zaitezte kontuz.

1995eko ekaiñak 16

Polita pasatu zait oraingoan. Joan dan asteartean San Antonio eguna zan, eta ni ezta konturatu ere. Barkatuko al dit, aurtengoagatik. Garai batean autobusak betean joaten zan jendea Urkiolara. Orduan ainbeste joaten ote da orain *biotzeko santu debotoari errezatzera*? Norbaiti entzun diodanez, lanik gabe gelditzen ari omen da gure santu ezkontzagilea. San Antonio parooan dagoela, alegia. Eta orregatik ez da joango leen aiña autobus mendi tontor artara. Izan ere, ezkontzak egiten dituzten ajentziak nunai daude orain. Eta San Antoniori kandela jarri baiño ajentzi oietara joan naiago du jendeak. Garaian garaiko kontuak.

Ajentzietan, bakoitzak nai duen bezelako andregaiia aurkitzen du, esaten dutenez: rubia, morena, illegorria. Neska gaztea, edo pixka bat eldu eta urteetan sartzen asitakoak. Baiña ajentziak ez dute esaten jenio onekoa ala matxarda samarra dan. Ori gero ikusi bear. Senargaiak ere nai bezelakoak aurki litezke ajentzi oie-

tan. Baiña, neska gazteak nobioa errezago aurkitzen dute mutil gazteak andregaiia baiño. Baiña danentzat aiña aukera edukitzen dute, ala ere. Ikusten danez, ajentzi oiek dira San Antonio lanik gabe utzi dutenak. Baiña gaitzerdi. A zer nolako gozatuak artuko dituen San Antoniok orain zeruan, neskazaar eta mutilzaarren aitzakirik entzun gabe.

Extremadurako erri txiki bat mutilzaarez beteta omen zegoen. Neskatei ezkontzako madatu egiten lotsatu egiten ziran. Eta andre batek apustu egin zuen udazkena baiño leen ango mutilzar danak ezkontzeko modua egin baietz. Eztakit zer esan. Neskatak taldean bildu eta mutilletara joaten baziran, ziur egon bat baiño geiago lazoan arrapatuko zutela. Apustu egin nai zuen andreak, autobusa neskaz beteta eramane zuen leenengo igandean errira. Eta neska eta mutil, alkarrengana bildu eta bapo afaldu zuten gaiñera. Baita afalondoan sekulako dantza-saioa egin ere, goizeko ordu txikietararte, jo eta ke. Eta esan eta izan: mutilzaar asko lazoan arrapatu eta ezkontzak asi omen dira. Orain, neska eta mutil, danak gustora.

Neskaten iritziz, erri artako mutillak engaiñatu dituzte. Eta mutillak alderantziz pentsatzen dute: neskak etzeudela zaillak engaiñatzen. Eta jakin izan balute, afaltzera gonbidatu gabe ere ezkontzeko modua egingo zutela, bai. Azkenean, danak giten dutena: batek bestea engaiñatu, eta ezkondu. Suerte ona izan dezatela.

Orain ez, noski, baiña oraindik denbora asko ez dala, danok dakigu Urkiolara asko joaten ziralara. Baiña ikusirikan ezkontzak asko gutxitu dirala, esan diteke San Antoniok huelga egin duala.

Neska ta mutil San Antonio aitatzten zuten askotan, erreztuaz ark ezkonduko zituen uste osotan. Ikusten danez San Antonio ez egon ordea lotan, eta esan du: –zertan ezkondu gero apartatzekotan?

Nola Euskalerrian ala kanpoan, zenbat tokitan asiko ote dira San Juan festak gaur illunabarrean? Gipuzkoan bakarrik dozena bat edo geiagotan bai, gutxienez. Eta oietaz gañera, auskalo zenbat baillada, auzo, ermita eta menditan asiko diran. Garai bateko jentillak ere ospatzen zuten guretzat San Juan bezpera dan onetako gaua. Eguzkia oraintxe dago goiko gaillurrean, eta aien jainkoa eguzkia izanik, ura adoratzeko sua egiten zuten. Guretzat ere etzan gaizki etorri jentillak ospatzen zutena. Izan ere, lana egitea ondo dago, baiña urteko egunik luzeenetan eta eguzkia gozoena dagoen garaian egurastu batzuk artzea ona izango da, orratik. Badakigu nolako poza izaten genduen gure gaztetako sanjuanetan, erdi segurarrak geranok. Eguna belar ontzen pasatu bear izaten genduen, baiña illunabarrean Segurara joaten uzten ziguten etxean. Eta gaueko amabiak alderarte festan ibiltzeko baimena ematen ziguten gañera. Etzan gutxi ordurako.

Orduko gazteak festara ain pozik joaten bagiñan, zergatik ez dute, ba, festa egingo oraingo gazteak ere? Gure aldean erreztasun asko daukate, eta ori eskertu bear luteke gutxienez. Erri bateko festak gustatzen ezpazaizkie, sartu kotxean eta laister joango dira beste batera. Ez dute pentsatuko aitari eta amari baimena eskatzerik. Eztakit nola ez diran errukitu eta goizago etxera etortzen, gurasoak estuago bizi izan zirala pentsatu utsarekin. Esaten dutenez, San Juan egunez eguzkiak dantzan egiten omen du egun-sentian. Etorri, ba, goizago etxera eguzkiak dantzan nola egiten duen ikusteko ere. Badakit. Oiek kontu zaarrak dira. Gaztearoa bat izaten da, eta ura ondo bizitzea ez al da onena izango, gero damu izan gabe? Bizitzari etzaio bear baiño esi geiago jarri bear. Ez da ona. Ori baiño askoz obe gazteei bere burua zaintzen erakustea. Bateko droga dala, besteko alkohola, eta milla narraskeri. Mundu au arriskuz beteta dago gaztediarentzat. Eta orregatik, begiak zabaltzen lagundu bear zaie, estropozu egin eta erori ez

ditezen. Eta geurekin eduki nai baditugu, errieta ematen ez galdu denborarik. Aurpegi asarrea jartzen zaion tokian iñork ez du egon nai izaten.

Dana dala, gaur San Juan bezpera dan ezkerro, nun egiña daukazutenak egin su aundi bat, oitura zaarrari jarraituz. Erre sutan kiskali bearreko danak. Sua ikustera kalera joaten zeratenok berriz, ondo pasatu, arrastotik irten gabe. Etxean noiz egona etorriko zaizue, eta egunsentian eguzkia dantzan asterako, etorri.

Motelak ere bizkortzen gera
udararen etorreran,
gogoraturik egun argiak
datozkigula aukeran.
Asko ez bada ere zertxobait
nola festazale geran,
sua egiñez asi ditzagun
jaiak San Juan bezperan.

“Segura, iltzen dana zerura”
zan esateko oitura.
Eta uste det betetzen dala
guk uste genduen ura.
Zeru txiki bat polit askoa,
bera izanik Segura,
onuntz datozen danak bizirik
joaten dira zerura.

Segura ez da etxe bikaiñak
eta eliza bakarrik.
Bere inguru zoragarriak
ez du goraldu bearrik.
Euskalerriak ez du erri zar
onen pare dan izarrik,
edertasunak ez baitu iñun
Seguran duen indarrik.

San Juanetan ezin isildu
erdi segurar geranak.
Zer esanik ez madura aldera
begira azi giñanak.
Nola erritar ala kanpotar
inguratzen zeratenak,
festa atsegin, patxarazkoak
pasa itzazute danak.

1995eko ekaiñak 30

Zaartzaroan izaten ditugun aje guztiak sendatzeko botika bat ia-ia asmatu omen du zientzilari batek. Eta orren gaia edo oiñarria, geure gorputzean omen daukagu gaiñera. DHEA deritzon sustan-

tzia, orain ogeita amar urte aurkitu omen zuen, eta urteak joan eta gero, oraintxe konturatu da asmakizunak zertarako balio lezakeen: erreuma, memoria galtzea, ezurretako miñak, eta zaartzaroan sortzen zaizkigun beste ajeak sendatzeko balioko duen itxaropena daukate. Azkenengo ogeita amar urte onetan makiña bat aitona eta amona joango zan, ba, mundu onetatik bestera, erreuma eta zaartzaroko beste aje askorekin gorriak ikusita, erremedioa asmatu gabe zegoelako. Baiña gizonaren jakinduriak eta almenak muga-tuak dirala esan nai du orrek, eta ez degula arrotu bear.

Aur jaio berriak ez omen dute edukitzen dalako DHEA ize-neko botika-gai ori. Zazpi urte betetzean asten da gure gorputze-an sortzen. Eta 25 urterekin prest edukitzen degu geienok. Andik aurrera berriz, gutxitzen asten da berriro. Eta irurogeita amabost urtera ezkerro ondar bat besterik ez da gelditzen gure soiñean. Ogeita bost urterekin bai sasoi ederra, baiña bein irurogeita amar bete ezkerro, akabo gure arrokeriak, leenago ezpada ere. Botika eta erremedio berriak ez dira nolainai erabiltzeko. Oraingo au probatzeko, 13 gizonetzko eta beste 17 emakumetan erabilli dute sendagilleak, ia zaartzaroko ajeak zer moduz sendatzen dituen. Eta esan duten bezela, botika onek funtzionatzen badu, ez degu suerte txarra izango danok ere. Bizi dana ez da libratzen zaartzetik, eta erreuma eta belaun-katilluetako miña kentzea bakarrik ere gaztetzea aiñaxe izango da guretzat. Sendagille jaunak esan dute argi eta garbi, DHEA edo dalako botika orrek ez duela luzatuko bizia. Ez pentsatzeko azitarako geldituko geranik. Ala ere, zaartu eta errenka eta zer egiten ez dakigula ibilli bearrean, memori onarekin eta ezurretako miñik gabe bizitzen laguntzen badigute, portatuko dira..

Ea, ba, egiten ari diran proba oiekin erdi-erditik asmatzen duten. Mundu onetan ez degu danok suerte berdiña izaten. Batzuk erorita ere beti zutik gelditzen dira, eta orain ere ala gertatuko da. Ederki asko ikusiko da suerterik onena zeiniek izaten duen. Esango didazute, emendik urte batzutara.

Mediku jaunak artzen badute
botika orren ardura,
aitona zarrak jarriko gera
mutil bizkorren modura.
Amonatxoak artuko dute
neska gazteen itxura...
Eta orduan nork jaon naiko du
emendik beste mundura?

Botika orrek badakit nik zer
milagro egingo duan:
danok kantari asiko gera
txori alaien moduan.
Erreuma eta miñak kenduta
gaztetzen geran orduan,
aiton-amonak aiñean ez da
iñor biziko munduan.

1995eko uztaillak 7

Emen degu San Fermin eguna aurten ere. Atzo eguerdia ezkerotik Naparru guztia festatan irakiten dago. Eta naparrak ez diranak ere aukera ederra dute festaz asetzeko. Gaur illunabarretik igande gauera arte saltoka eta bultzaka, sasoi ederreko jendea ibilliko da. Eta Iruñara dijoazten danak ez dira San Fermiñe erre-zatzera joango, baiña eskerrak ematea ez litzake gaizki egongo. Ura gizon zintzoa izan zalako egiten baita orain ainbeste festa.

San Fermin Iruñan jaio zan. Gotzai egin eta Frantzira joan zan, Amiens izeneko errira, Ebanjelioa erakustera. Baiña ango jauntxoei komeni ez nunbait San Fermiñek esaten zituen egiak, eta preso sartu zuten. Eta lepoa moztu zioten, kartzelan bertan. Zertarako berriketan ibilli? Nai deguna egiten uzten ez digunari lepoa moztu, eta kitto. Beekoak mendean eduki gabeko onik ez dute izaten goian daudenak. Nola edo ala beekoak zapaldu egin bear.

Oraingo jauntxo asko telebistaz baliatzen da jendea berak nai duten bidetik eramateko. Dirua irabazteko zer saltzea komeni zaien, eta jendea nola orretara eraman, telebistaren bidez egiten dute, moda berriak asmatu eta nola edo ala ikuslea engaiñatuz. Amerikan ere oso kezkatu daude, ango jendeak geroz eta gutxia-go irakurtzen duela-eta. Eta telebisiotik erakusten diote jendeari

zer pentsatu, nola itz egin, zer erosi, nola bizi etab. Liburu on bat baiño lagun oberik ez dala esan izan da, baiña ez du orrelakorik esango telebistarekin jendea manejatzen duenak. Nolanai ere, zer komeni zaion norberak pentsatu eta erabaki bear du. Bestela dirudunen tresna bat besterik ez gera izango. Pertsona izan bearrean, besteren jostaillu, alegia. Zenbait familitan pikardi ederrak egiten ditu telebistak. Aitak futbola edo pelota partiduak ikusi nai, amak arrosa koloreko telenobelak, pelikulak, modak eta orrelakoak. Aurak berriz, marrazki bizidunak ikusi naiago izango du eskolako lanak egin baiño. Aita eta amarekin kontuak esan baiño isillik egon naiagoko du otordu garaian, telebisioa ikusiz. Eta orratx famili osoa bakoitza bere aldetik. Bitartean, agindu nai dutenak bere ideiak aitari, amari eta umeei buru-ezurretaraño sartzen. Eta dirua irabazi ezkerro, ajolarik ez ezergatik ere.

Jai eta festa egitea ona da, baiña gauza onak irakurtzea ere bai. San Fermin lepoa moztuta menderatu zuten. Gu, beste batzuei komeni zaizkien ideiak buruan sartuta menderatuko gaituzte. Kontuz, lagunok!

Gaur gazte asko egongo dira
Iruña aldera begira,
festaz ase bat artu naiean
gau guztian jo ta tira!
Biar burua makur dutela
bakoitza bere tokira...
Itz egiteko gauz ez dirala
etxera etorriko dira.

Gazte maitea, etzaitez fia
lagun buruariñetan,
kezkarik izan nai ez badezu
gaupasaren ordaiñetan.
Iruña joan bear badezu
aurtengo San Fermiñetan,
kontuz ibilli erori gabe
ango arri labaiñetan.

1995eko uztaillak 14

Mutillak baiño ikasle obeak izaten omen dira neskak. Fiñagoak, etsiagoak, saiatuagoak, langilleagoak. Ez diduri, baiña

mutillak kaskarin samarrak izaten dira nunbait. Ipar Amerikan beste gauza batekin oartu dira orain: maisuaren erakutsiak askoz obeto jasotzen dituztela neskatzak, eta nota obeak atera ere bai eskolan, inguruan mutillik ez daukatenean. Taldean neskatzak bakarrik daudenean, alegia. Bada besterik ere. Neskatzexi etzaie gustatzen buru argikoak, listoak dirala mutillak pentsatzerik. Eta beste neska batzuek berriz, nota arlote samarrak ateratzen badi-tuzte, mutillak ez dezatela pentsatu motelak diranik. Lotsatu egi-ten dira. Komeria da auxe ere. Mutillen aurrean ez dute lista izan nai, baiña ezta motelak ere. Zeiñek asmatu bear du? Nik badet lagun bat esaten duena urte mordo bat badala ezkondu zala, eta oraindik ez duela ezagutzen bere emaztea. Baiña jokatu nioke edozer bere emazteak badakiela ondo asko bere senarrak zein ankatatik erren egiten duen. Senarrak ere jakingo zuen zerbait emaztea bezain azkarra izan balitz.

Ala dirudi, baiña eztakit, ba. Ipar Amerikan badira gizon eta emakume jakintsu eta buru argikoak. Neska eta mutil, maisu berarekin eta eskola berean jarri eta danak berdin ikasiko zutela, eta danak berdin izango zirala usteko zuten, baiña etzuten asma-tu. Etzekiten ondo gizonezko eta emakumeen berri. Eta orain, urteak joanda gero konturatu dira gizona gizon dala, eta emaku-mea emakume. Pertsona bezela berdiñak dirala, baiña bestela ezberdiñak. Eta bakoitza dan bezela artu bear dala. Duen bezela-ko buru argia ez ote du emakumeak dan bezelakoxe misteriozkoa dalako? Ez da arritzekoa mutillen aurrean mozolo samar bezela ez azaldu nai izatea. Baiña ain bizkorra ez dala mutillei pentsa-raztea, ez al da izango errezago engaiñatzeko? Bizitza misterioz beteta dago, eta neska-mutillen arteko arremanak eta gorabeerak ere bai, eta ori gauza polita da. Gazte garaiak orregatik du ain grazi aparta.

Dana dala, neska eta mutil, ikastaroko kezak alde batera utzi eta ederki ibilliko dira oporretan. Liburuetan bakarrik ez dira gauza onak ikasten. Batak bestea ezagutzeko eta gizartean nola

bizi eta portatu ikasteko eskola onak dira oporrak. Euskalerrriak bear duen bezelako gaztedi sano eta alai bat moldatzeko izan ditezela.

Naiz neskak sosa itxurak egin,
ez parre egin sekula,
baizik pentsatu aiek ainbeste
malizi ez daukagula.
Bizkorragoak izan askozaz
eta guk egin nai burla,
gero lazoan erori bear
asko uste ez degula.

Jakiñik neskak mutillak baiño
bizkorragoak dirala,
esango nuke ori aitortu
nai ezta bizi generala.
Eta genduen jakinduria
atzean gelditu dala,
guretzat beste karreraren bat
asmatu bearke dala.

1995eko uztaillak 21

Loterian jokatzeko oitura asko ugaltzen ari omen da. Nun edo an orrela gertatuko da, baiña ez det uste emen jokorako griña orrek gora egin duenik. Baiña, loterian ez bada bono-loto eta kinielatan gutxi edo asko jokutzen ez duenik bai ote dago gure artean? Eta zenbat eta zenbat, bere errian ez dagoela aukerarik eta beste norabait joan eta bingoa jokutzen dutenak? Eta ez gizonezkoak bakarrik. Diru pixka bat irabazi naiak danok zirikatzen gaitu, noski. Eta asko ezpada gutxi, danok ematen diogu aizea diruari. “Etzait tokatuko baiña jokatu egin bear det, jokatu gabe ezpaita tokatzen”, esango degu. Eta “jokatuta ere ez askotan”, erantzungo digute aldamentetik. Baiña ala ere, jokatu. Ilusiotik ere bizitzen omen da, eta beti illaren azkena etorri zai egon gabe diru pixka bat eskuratuko ote degun, ba. Gauza guztiak dute bere neurria, eta diru apurtxo bat arriskatzeak ez du ainbesteko kalterik ekartzen. Neurria artzen jakin bear. Ala ere, gutxi daukatenak edo eziñean bizi diranak jokutzen omen dute geiena. Premirik aundiena aiek edukiko dute, eta zerbait nai izatea ez da arrigarri.

Jokatzeko griña orrek pikardi ederrak egiten dituela uste det. Inglaterran izugarrizko indarra artzen ari omen da loteria. Lanik gabe dauden askok, paroan kobratzen dutenaren erdia loterian jokutzen dute. Ori ere bada, ba. Lanik ez daukatenak Estadutik diru gutxi kobratzen dutela esango dute. Eta gero, kobratzen dutenaren erdia estaduari eman atzera, loteria tokatzea zailla dala jakinda. Ango etxeoandreak geroz eta geiago jokutzen dute, tentazioari eutsi ezinda. Eta aundiak egiten dituzte gaiñera. Erosketak egiteko dirua artu eta etxetik irten, eta dendara baiño leen loteria eroatera joaten diranak bai omen dira. Bingoan dirua galdu eta dendan erositakoak zorretan utzitakoak ere badirala esan izan didate. Baita ementxe ere. Senar jokalaria baiño mozkorra naiago zukeela entzun nion bein emakume bati. Eta etxeoandre jokalaria dagoen etxean ere bi ostiral pasatu bearko dituzte. Txuletak ez baiña loteriko billeteak erosten dituenaren etxe artan erreztatzen dan errosarioa ez da txukuna izango.

Ingles batek, astero-astero loteri zenbaki berdiña erosten omen zuen. Eta alako batean erostea aaztu zaio, eta orduantxe tokatu ark jokutzen zuen zenbakiari. Bere burua il omen du. Egia esan, obe zuen arrai preskoa eta txuleta ederrak jateko griña izan balu.

Amak jokuan galdu ezkerok
kintzena oso-osorik,
aren etxean ez da izango
sekula pake gozorik.
Gizon fiñari ez eman iñoiz
orrelako disgustorik.
Etxekoandre biotzekoak,
ez egin orrelakorik.

Nola senar ta ala emazte,
poliki diruarekin.
Iges jokutik, etxean beti
bear dana izan dedin.
Daukazitena nola gastatu
itz egiñez alkarrekin,
jokatu baiño obe dezute
parranda batzuek egin.

Opor garai nagusia iritsi da. Eta jende guztia pozik ikusten da. Izan ere, illabeteko pakea oso ona da urte guztiko nekeak eta jenio txarraldiak aaztu eta egun batzuk lasai pasatzeko. Oraingo bizimodua ikusita, zerbait bear ere bai. Baiña bere arriskotxua ere badu opor garai onek. Oporretan dagoen asko gizendu egiten da. Ondo jan eta nekerik ez, eta orrek onerako bear luke. Baiña zerbait bada beti. Oporzale askori ain modan dagoen kolesterola igo-tzen zaie, eta ori ez komeni. Koipe asko gorputzarentzat txarra da, eta koipe ori odolean badago zer esanik ez. Baiña entzun ondo: kolesterolari neurrian eusteko botika Extremaduran aurkitu dute. Dirua omen da gaitz orrentzat erremediorik onenetakoa. Zerriak txarra dala esan izan da, baiña zer zerriki dan izango da. Urdai zuria, merkea eta koipetsua izaten da. Eta ez da ona osasunerako, batez ere lanean nekatzen ez danarentzat. Eta garestia dalako gutxik jaten duten Extremadurako urdaiazpikoa oso ona da oste-ra kolesterolari neurrian eusteko. Baiña edozein moduko zerriaren urdaiazpikoak ez du balio. Amasei arruatik gorako pixua duen zerria bear du izan, eta zerri ankabeltza. Garestia bai, baiña ona. Batere koiperik gabeko zerri igar edo legor oietakoa ere ez. Daukan prezioa ikusita, urdaiazpiko ona erremedio garestia izango da, baiña ez dago arazorik dirua eduki ezker. Extremadurako Unibertsidadean, egin bearreko proba guztiak eginda gero, ango urdaiazpikoa paregabea dala erabaki dute sendagilleak. Sekulako pikardiak egiten ditu kolesterol zaar onek. Eta orrentzat bear diran sendagaiak ez dira oso merkeak izaten. Baiña ainbeste diru botikatan kastatu gabe, al dan guztia urdaiazpikotan kastatzea ez al litzake obeko? Mediku jaunak ere pilulak ez baiña urdaiazpikoa errezetatuko baligute, lan faltarik ez luteke izango. Eta extremeñoak ere ez zerriak azten. Dirua ez dago ordean nolanai egiterik, eta bear aiña inguratzeak emango liguke lanik asko, eta lan txarra gaiñera. Urdaiazpikoa jatea bezain atsegiña ez.

Edozertan ari gerala ere, diruaren kontu oiek aitzazera joaten gera azkenean. Baiña emen lege jakiñak daude: daukanarentzat urdaiazpiko ederra eta osasuna, eta ez daukanarentzat urdai gizen zuria eta kolesterola. Orratx munduko diferentzia, Xempelar bertsolariak esan zuen bezela. Dana dala, oporrak badatoz. Eta ia oporraldi eder bat pasatzen dezuten danok, aldian bein urdaiazpiko jan batzuk egiñez. Baiña izan dedilla zerri ankabeltzarena. Eta oporretara joaten zeraten danok etorri atzera, zuen familietan bearezko zerate-eta.

Kolesterolarekin
gabiltz oso larri
gabiltz oso larri.
Eta botika on bat
bear zaio jarri.
Aberats jende orrek
bai azkar igarri.
Extremaduratikan
digute ekarri,
ta urdaiazpikoa
jaten dute sarri.

Urdaiazpiko orde
guk zerri-usaia
guk zerri-usaia.
Nunbait guretzat ez da
iritsi garaia.
Aberatsa ez izan
beretzat etsaia.
Puska gozoak janez
bizitza alaia...
Guretzako naikoa
omen da urdaia.

1995eko abuztuak 4

Abuztua kutizi guztiak betetzeko aprapos jarritako illa dala esango nuke nik. Nai dana egiñez bizitzea gauza aundia da, izan ere. Illabete ez da asko, alde batera. Baiña geiago komeni ote litzake? Ez ote genduke gaizki ikasiko? Noizik bein erlojuari kuerda ematen zaion bezelaxe, indarra eman bearra dago bizitzari ere. Eta oporrak orretarako dira, batez ere. Bizitzari kuerda emateko, moteldu eta grazirik gabe gelditu ez dedin.

Orain kejatu egiten gera, baiña leengo oporrik gabeko urte aiek etziran askoz obeak. Gustoko zerbait ikusiko bazan kanpora joan bear. Eta artarako txanpon gutxi izaten zan. Baiña danak etziran lotan egoten, eta izaten ziran Biarritzeko ondartzara joateagatik bakarrik pasaportea ateratzen zutenak ere. Orain dana libre dago, eta emen ere ikusten dira dana libre dutela etzan eta lasai asko eguzkia artzen daudenak. Eta ikusi nai ez dituenak beste aldera begiratzea asko du. Baiña gauza politikak zeñi etzaizkio gustatzen? Beste batzuk Andaluzia aldera edo orrela joaten dira, kanpoak ikustea ona dala-eta. Itsas-ertzeko gorabeherak ere onak dira, eta jendea ondo ibiltzen da, bai. Ori dana kutizi bat da, eta ez dago zer esanik. Bizitzeko eskubidea danok daukagu. Emengo abuztua ere ederra da. Ez degu ikusiko Andaluzian aiña eguzki, baiña emen ere badaude toki ederrak. Gaiñera, eguzkiak duen ederrena itzala omen da, eta beroak asko penatuko ez gaituen zokoak errez aurkituko ditugu. Ez gera beztuko eguzkitan. Baiña ez pentsatu Andaluzian ere beti giro izaten danik. Lo egiteak lanak ematen ditu an, askotan. Kontuz ibilli, beraz. Danetakoak bear dira emen. Eta kanpora joaten diranak bere diruarekin joaten dira, eta iñork ez dauka zer esanik. Ondo ibilli ditezela, eta berriz ere joateko gogoarekin eta sano etorri.

Oporretan kanpora joatea baiño okerragoak egiten dira. Lady Di zein dan ez dakienik ez da izango, seguru asko. Urtean ogeita amar milloi bear izaten omen ditu, janzteko bakarrik. Egunean 82.192 pezeta, bataz beste. Eta ark ere badauka nork zirikatua. Apaiz protestante batek bere asarrea erakutsi dio geiegikeri ori dala-eta. Munduan ainbeste gose eta miseri dagoela eta dirua orrela botatzea geiegikeria dala esan dio. Ezkutuan gorde bearrekoak erakusten dituenak eskandaloa ematen du. Eta ainbeste gizarajo goseak iltzen dagoen arte trapuxarretan orrenbeste diru botatzea ez al da eskandalo nabarmena?

Udatiarrak badatozkigu
amilka Euskalerrira,
danak ez dute egiten nunbait
Extremaduratik jira.
Itsas aldera edo plaiara
jarri ezkerro begira,
urdaiazpiko eder askoak
emen ere ikusten dira.

Kanpora joan ez gerala-ta
ez beintzat izan naigabe.
Gauza politikak urruti baiño
gertu ez al dira obe?
Emen etxeko eta kanpoko
guztietakoak daude.
Begiak poztu pixka bat baiña
pekaturik egin gabe.

1995eko abuztuak 8

Erabaki garbia eman dute Kaliforniako jakintsuak: Ezkontzea oso ona dala osasunerako eta bear bezela bizi izateko. Arrimatuta bizitzeko oitura indarra artzen ari dala, baiña ez dala batere ona. Jakintsu oien iritziz, ezkonduak osasun ohea izaten dute ezkondu gabeak baiño, eta diruz ere obeto osatuta bizitzen dira. Senarrak baiño eutsiagoak izaten dira emazteak, eta ori oso bearrezko da familia zaintzeko. Orregatik, senarrak ez du zurra izan bear emazteari eskubideak emateko. Jakintsuak esan digute ondo etxekoandreak agintzea zergatik komeni dan. Dirua eta ondasunak oso ondo zaintzen dituzte, eta etxekoandrea nagusi samar dan etxeetan erosotasun eta komodidade geiago izaten da. Obeto jan, obeto jantzi, eta garbitasun ona. Eta ortik osasuna dator, eta erdiak gaixo dauden familia baiño danak sano daudenen etxea atsegiñagoa izaten da. Ez dago zalantzarik. Senarrak ez du burugogorra izan bear, bestalde. Bear duen aginpidea eman bear zaio etxea gobernatu nai duen emazteari. Eta orrela egingo du lasai antzean eta pakean bizi nai duen senarrak. Baiña entzuten dauden etxekoandreak ez dezatela pentsatu neronek asmatutako kontuak esaten ari naizenik, Kaliforniako gizon jakintsuen esanak baizik, geienak beintzat.

Ona emen beste zerbait ere: ezkontzean, gizonak asko irabazten du, baiña ez uste emakumea oso galduan irtetzen danik.

Lan pixka bat geiago egin bear izatea baliteke, baiña familiaren onerako da, eta poz orrek asko laguntzen dio. Beste koska bat ere badu. Senarrik ez duen emazteak ez du nori agindurik izaten. Inguruan duen senar baldarrari sermoitxo bat edo beste egiteko aukerarik ere ez. Oiek danak eta aginpide pixka bat txarrak al dira lanak sortzen dituen jenio txarraldiak gozateko? Mutilzaarrak askoz errezago menderatzen ditu alkoholak ezkonduak baiño. Garbi dago, beraz: txukun antzean bizi nai duen gizonak emaztearen itzala bearrezko duela, alegia, Kaliforniako jakintsuak dioenez. Emakumea bada, lan pixka bat erantsiko dio bere buruari. Baiña aginpide dexentea eskuratuko du, eta poliki biziko da poz orrekin. Gizona baldin bada berriz, anak libre dituela bizitzetik mende antzean bizitzera aldatu bearke du. Baña emaztea maite badu, familia ondo dagoela-eta emaztea aurpegi alaiarekin ikusita, pozaren pozez zoratuta eta zorionez beteta biziko da. Aginpi-deak baiño geiago ez al du, ba, balio orrek?

Kaliforniatikan
datoz berri onak:
ezkontzea duela
onena gizonak.
Ez baidaki zer diran
ezkongai dagonak,
asarre ondorenak
ditun zorionak.

Zoriona ez dago
oso apartean.
Eskuratu liteke
aurtengo urtean.
Saia gaitezen billa
alkarren artean,
besteak oporretan
dauden bitartean.

1995eko abuztuak 18

Ostiralean asteleena edukitzea ez da, ba, gauza egokia. Baiña onelakoak ere gertatu egiten dira, eta aurpegia eman bear. Pasatu arte eutsi egin bear. Izan ere, bateko Andre Mari, besteko San Roke edo ango San Roke Txiki, oiek danak pasatu arte

zeraindar batek ondoren apurtxo bat edukitzea barkatzeko moduko pekatua izango da. Beti formal eta serio ibiltzen aspertu ere egiten da bat, eta urtean bein edo bi aldiz arrastotik irtetzea pekatu txikia da. Ez dakit, gaiñera, egin bearrekoa ez ote dan. Zearo tristetu baiño leen esiaren beste aldera salto egitea komeni da batzutan. Triste dagoenak ingurukoak tristetu besterik ez du egiten, eta bizimoduari gatz pixka bat eman bear zaio. Zer arraio! Neurrian errenditu ezkeru, orrek bai al du okerrik? Ondo zaindu ezean neurriak gaiñezka egiten ere badaki, eta orixe ez komeni. Damutasuna bearrezkoa da zuzen ibiltzeko. Eta damutzekotan, pekatoren bat edo beste egin bearra dago leenengo. Eta asteleen pixka bat gorabeera, ezin geiegi estutu. Oporretan erria zaintzen gelditu geranok ere zerbait bear degu.

Amerikan bada jende bizkorra eta jakintsua. Baiña ankasartze ederrak egiten dituzte an ere. Washintongo Udal edo Aiuntamentua ia porrot egiñean omen dago. Paper fabrikak komunerako paperik ez ere dio saldu nai azkenean, 126 milloiren zorra daukala-eta. Golfo jendea emen bakarrik ez dago, ikusten danez. Amerikan ere badaude galantak. Neurrian errenditu ezin, eta dirua ajolakabe kastatu dutelako munduko naziorik aberatse-neko kapitalean, ipurdia garbitzeko paperik ez udaletzeko ofizinan. Alkatea zearo lotsatuta omen dago. Beno, orrelako itxurak egiten ditu beintzat. Ala ere, jokatuko nuke lanera dijoanean ez duela papera etxetik eramaten. Ofizininista soillak al duten bezela moldatu bearko dute, baiña alkate jaunak ez du eserlekua zikintzeko bildurrik edukiko. Arentzat lain paper izango da, eta oso paper latza ez gaiñera. Mundu au onelaxe da.

Amerikanoak aiña dolar ez degu edukiko, baiña aiek bezelako estuasunik ez degu pasatzen. Era degunean egun batzuk poliki pasatu eta asteleen pixka bat gorabeera, segi aurrera, berriz ere aukerak etorriko dira-eta. Zorrak eta orrelako estuasunak amerikarrentzat utzi eta eutsi dezaiogun geure bizimoduari, ondo bizi-tzen badakigu guk-eta.

Amerikarrak nola arraio
erori dira ain bera,
papera zer dan ez dakitenen
bizimodu arlotera?
Premi estuan larri antzean
iñoiz ikusten gabea,
iñork ez degu joan nai paperik
ez dagoen komunera.

Alkate jaun ta agintariok,
argi begi ta buruak.
Zuen artean dabiltzan danak
ez baitira aingeruak.
Danak zuenak ez dira, noski,
ta ondo zaindu diruak...
Erriak ezer ez dakiela
eraman gabe miruak.

1995eko abuztuak 25

Aurtengo oporraldiak laister emango ditu bere azkenengo ostikoak. Eta bat baiño geiago ariko da, penatxo duela, itzultzeko mailetak prestatzen, betiko zokora etortzeko. Beste batzuk berriz, datorren illaren zai egongo dira oporrak artzeko. Eta asko, urte obeak etorriko diran itxaropenarekin biziko dira.

Egun auetan zegamarrak ibilliko dira poliki. Gaurkoa kontatuta beste iru eguneko festak izango dituzte oraindik. Ez dago gaizki. Mundu onetako peria onelaxe da. Batzuentzat txarra eta besteentzat ona, tartean periegun eskasak izaten badira ere. Danen gustokorik ezpaita izaten. Ala ere, bere amaia izaten dute mundu onetako gorabeera guztiak. Aldi onak ez dira betiko izaten, eta aldi txarrak ere ez, onak baiño luzeago egiten bazaizkigu ere. Eta ori kontuan degula bizi bear degu, bestela gureak egin du. Eta onaldia arrapatzen degunean, al degun aiña luzatuerazi. Txarraldia datorrenean, leenbaitleen mozteko modua egin. Eta ez goibeldu oporrak amaitu diralako. Uste baiño diru geixeago kas-tatu dutelako kaskarrari atzegiñez egongo dira batzuk. Eta beste batzuk, oraindik oporrak artu ez eta poltsatxoa bete-bete dutela, sekulako ilusioarekin. Baiña zertan bizi alkarren inbiriz? Eguzkia guztiontzako irtetzen da goizean, eta bere epeltasunak danok gozatzen gaitu.

Aurtengo festak amaitzear dituzte zegamarrak. Eta datorren asteleenean San Agustin eguna dator. Brinkolarrak ezpaiñak igurtziz egongo dira. Bizitzaren feria onelaxe da, leen esan degunez. Egun onak etortzen dira, eta aiei eldu bear, alperrik galdu baiño leen.

Diruarekin zer egin ez dakitenak ere izaten dira. Ez dakit aiek nola moldatuko diran. Inglaterrako amona batek, etxea eta zeuzkan diru danak katuari utzi omen dizkiola irakurri det. Jaberik gabeko animaliak zaintzen dituen etxe bat egin dute katuaren kargura, amonatxo orren ondasunak amabost milloi pezetan salduta. Katua umezurtz gelditu zanean norbaitzuk errukitu egingo ziran, baiña aren txarraldia pasatu da. A ze nolako sagu-janak dauzkan emendik aurrera. Amonatxo orrek ez omen zeukan seniderik. Baiña zeñi lagundu aurkituko zuen saiatu izan balitz. Orain, ondasunak zeñi etorri eta katuari, alajaiña!

Abuztua badijoa. Aurtengo oporrak ere bai. Baiña ez estutu. Beste lau illabete barru berriz ere opor egunak etorriko dira. Eutsi goiari!

Amona batek edukirikan
poltsa ederki beteta,
bere katua bizi dan arte
utzi du saguz aseta.
Pertsona batek arrapatzeko
ori bai dala kasketa!
Jainkoak ortzik ez daukanari
ematen dio txuleta.

Ainbeste jende goseak eta
bat nola ez jarri bero?
Katuak naiko sagua janez,
aurrak iltzen egunero...
Mundu maltzur au ikusi eta
besterik ezin espero.
Txorakeriak egiten dira
bein zartzen asi ezkeru.

1995eko irailak 1

Agorra, naiko garai legorra. Illabete berri bati asiera eman bear, baiña bizimodu zaarrari elduta. Abuztuan utzitako sokari

eldu bearco zioten gaur makiña batek. Gaur goizeko jeikiera triste samarra izango zan, bearbada. Baiña lanean asi artekoa izaten da ori. Oporrak eta txangoak alde batera utzi, eta ezer ez balitz bezela jarraitzen zaio betiko bizimoduari. Eta orrelaxe obe, gaiñera. Ez dira gustora bizitzen lanaren igesi dabiltzanak. Izardirik ez dute aterako, baiña alde guztietatik aitzakia dariotela bizi bearra ez da atsegiña izango. Ez da giro izaten lanak ipurterretzen dituen oien inguruan. Lanik ez egiteko lan asko egin bear zala esaten zuen alper aundi batek.

Agorrek edo irailak izaten ditu bere gorabeerak familiko gurasoentzat. Bateko eskolako liburuak, besteko matrikulak, seme-alabak eske asita egongo dira onuzkero. Eta izango dute nora eta zeri begiratu. Ume txikiak lan txikiak, eta ume aundiak lan aundiak. Gurasoen lanak sekula ez dirala amaitzen eta orrelakoak esanez, segi aurrera, beti bezela. Seme-alabak zintzo samarrak badira, gaitzerdi. Asko moduko maletak izan ezkero, gurasoak nozitu bear. Gurasoak badute beste zeregin bat ere, ori gertatu ez dedin. Pakea izango bada, gazteen gustoko giroa sortu bear da familian, bestela jai dago. Eta beti ez da errez izango, baiña alegiñak egin beintzat. Gazteak ere izaten dituzte bere umore txarraldiak, kezkak, nai eta eziñak eta orrelakoak. Orduan poliki itz egin bear zaie, bestela berealaxe oillartzen dira-eta. Gazteentzat arriskuz betetako mundua dago gaur egun. Alkoholak asko naasten ditu, eta gurasoak pazientzi aundia bear dute izan, umeak okerreko bidea artu ez dezaten. Askotan esan det, baiña orain ez dago bildurrik, lotsarik eta errespetorik garai batean bezela. Leen geiegi, eta orain gutxiegi. Eta gurasoak erdi-erdian. Umeak aztea ez da ain zaila, baiña lanak ematen ditu ezitzeak.

Ipar Amerikako erri aundietan ezin omen dute burutu mozkortzen diran gazteekin. Eta amazapi urtez beerako neska-mutilliei gaueko amabietatik aurrera etxetik irtetzen ez uzten asi dira. Gibelaundiak bizitzen dirala ondoena esan oi degu. Eta alkoholaren kalte aundienetako bat gibela aunditzea da. Alare, ondo bizi

nai badegu, guraso eta ume, alkoholari utzi eta gibela zaintzen asi. Eta ikasketak egiten ari diran gazteak jakin dezatela estudianteen artean sekulako pikardiak egiten dituela alkoholak. Emezortzi urtez gorako gazte geienak mozkortzen omen dira, gutxienez illean bein. Gibel sana edukitzeko martxa txarra da ori.

Mozkor geienak gelditzen dira
ondata ta birrinduak,
lanak baiditu bere burua
iñola ezin zainduak.
Azkenerako baldartu eta
burutikan arinduak...
Kristau maiteak, tristeak dira
alkoholaren aginduak.

Urtean beingo alai jartzeak
ez du egingo kalterik,
baiña sarritan edan ezkerok
ez dago noiznai uzterik.
Alkoholaren mende bizitzen
oitzen bazera gazterik,
gazte maitea, ez zazu izan
zartuko zeran usterik.

1995eko irailak 8

Arantzazuko Ama Birjiñaren eguna degu biar. Eta kontu auek garaian pasatutakoak izan litezke, baiña ez guztiontzat. Arantzazuko Amak maitale asko dauka oraindik ere. Egia esan, azkar joan eta azkar etorri egiten degu orain Arantzazutik. Baiña gure Amak bisitari asko izaten du. Gure esker ona betiko irabazita daukala esango nuke.

526 urte dira Arantzazuko Amaren irudia malkar aietan azaldu zala. Eta 481 urte frantziskotarrak, Arantzazuko frailleak ango komentuan jarri ziralak. Eta ainbeste urteren buruan mesede besterik ez dio egin Arantzazuk Euskalerriari. Mendi artatik, pakea eskeiñi digu beti. Eta besterakoak izan badira ere, zerbait beintzat geldituko zan gure onerako. Euskerari ere ez diote mesede gutxi egin Arantzazuko frailleak. Erriz-erri sermoiak egiten zituzten, eta euskera ikasteko ere eskola berezi izan ziran aiek denak. Eta ori egin, urte zailletan egin zuten, orduko agintariei aurpegi ema-

nez, askotan. Arantzazuko frailleen eskolan ikasitako jende asko dabil gaur an eta emen, gizon jakintsu egiñik. Zer izango ote ziran Arantzazu izan ez balitz? Asko eta asko baserritar izatetik etziran pasatuko. Ez pentsa baserritarrak gutxitzat dauzkadanik, baiña baserritarrak bezelaxe bear ditugu gizon jakintsuak ere. Nola gizon ala emakume, danok izaten ditugu animako kezkaldiak. Eta makiña bat euskaldunek iritsiko zuten animako pakea Arantzazuko frailleren bati bere utsegiteak aitortu ondoren. Orain etzaio oni garrantzi aundirik ematen, baiña ez degu pentsatu bear kezka txarrak animatik kentzeak gutxi balio duenik. Leengo eta oraingo gizon-emakumeak ez gera garai berdiñekoak, eta orduko kezka, zalantza eta arazoak ez dira oraingoen antzekoak. Orregatik, gure aurrekoen bizikera eta jokaerak ez dira parregarri. Ziur nago Arantzazuk mesede asko egin digula, gizaldiz-gizaldi. Eta oraintxe ere gure Amari bisitatxo bat edo beste egiteak ez du batere kalterik egiten.

Udazken alde au oso egokia da Arantzazu alderako, eta oitura zaarrak galdu gabe, pixka bat aldatuta bederik eustea ona degu. Gaur ezpada, egun auetako batean, noiznai, Ama Birjiña ikusi eta bazkari txukun bat egiñez egunpasa ederra egin liteke Arantzazun. Nai bezelako jatetxeak aurkituko ditugu bidean naiz Arantzazun bertan. Gogoan izan Arantzazuko Amak ere naiago duela gu ondo ikusi sufritzen eta eziñean ikusi baiño. Bestela ez litzake ama izango.

Arantzazura joan ta Amari
gure biotza zabaldu.
Gure maitasun dana berari
bear diogu azaldu.
Pozgarri zaigun oitura zarra
iñoiz ez dezagun galdu.
Otoitzak egin goizetik eta
ondoren ondo bazkaldu.

Amari esan gaur euskaldunok
oso nasturik gaudela,
anai artean pakerik ezin
egin degula onela.
Baiña burruka bere laguntzaz
bukatuko gendukela,
Oñaztar eta Ganboatarrak
bukatu zuten bezela.

Udazkenera goaz, poliki-poliki. Eta udako kontu ariñak alde batera utzi eta pixka bat formaltzen asi bearra dago. Gauzak serio artu eta bizimoduari taju antzean eldu, besteen maillan azaltzeko besterik ezpada ere. Zuzena izatea bakarrik ezta naiko. Zuzena izan eta zuzen itxura egin bear da gaiñera. On itxurak egin eta gaiztoa izatea baiño obe da ori. Txukun ibilli ezean, esaera zaarrak dioena gertatuko zaigu: gaueko lanak, egunez lotsa. Lotsa ez dakit oraindik bizi dan ala ori leengo kontua zan, baiña koloreak gorritu gabe nunai azaltzeko modua egin dezagun, al badegu beintzat. Ez dezala iñork pentsatu gauez okerren bat egin degunik.

Inglaterrako gizon aberats batek neska rubia bat lagun zuela pasatu omen zituen oporrak. Eta ainbeste maite zuenez, beste mundura joan baiño leen bere ondasun guztiak neska orrentzat utzi zituen. Zer izango eta, orain ezta neska orren arrastorik. Gizon orrekin nola ibilli zan iñork jakiterik nai ez, edo lotsatu egiten, eta ezin du aurkitu poliziak ere. Ezta iñun agiri. Gauezko lanak, edo isilkako ibillerak egunez eta jendearen aurrerako lotsa ekarri nunbait. Ez genduke egin bear gero lotsa emango digun ezer. Baiña askotan arrastorik irteten gera, eta gero komeriak. Inglaterrako kontuak diotenez, neska ori azaltzen ezpada, Estadua egingo da diruaren jabe. Estaduak ezpaitauka iñor maitatu bearrik dauzkan diru denak kentzeko, eta al duen guztia biltzeko lotsarik ere ez. Zer egin bear luke orain neska orrek? Pasatutakoa aaztu eta dirurik gabe bizi, ala dirua jaso eta nai duenak nai duena esan dezala? Okerra eginda dagoen ezker, ez al luke obeko diruaren jabe egitea? Gaurko munduan oker guztiak barkatzen zaizkio dirua daukanari. Eta neska orrek ere izango luke nork begiratu diru usaia artzen badiote. Guk ez daukagu orrelako buruausterik eta, or konpon!

Oporrak pasatu ondoren, zearo asarretuta joan omen zan gizon bat, dendara.

– Zapata auek erosi nituenean, bizi guztirako izango zirala esan zenidan. Baiña bi illabete ez dira oraindik, eta ikusi nola gelditu diran, porru eginda. Ez dago orretarako eskubiderik. Au lapurreta izango da orratik?

– Arrazoi dezu –esan zion dendariak–. Zapata auek erosi zenituenean zure aurpegia ikusita, bi illabeterako bizirik etzeneukala pentsatu nuen. Eta orregatik esan nizun.

Gaur ez dago iñori
antzik ematerik.
Ez izan danak zuzen
dabiltzan usterik.
Nola gauden guztiok
maliziz beterik,
mundu ontan ez dago
tranpia besterik.

Mundua nola dagon
oso gaiztoturik,
ez da falta pikaro
eta berritsurik.
Eta ez naiz arritu
batek galdeturik:
bai al dagon ikusten
ez duen itsurik.

1995eko irailak 22

Ankasartzea pranko egiten degu gizakiok mundura etorri giñanetik. Makiña bat aldiz arrapatzen degu geure burua geuk jarritako lazoan. Izan ere, taju antzean bizitzera iristen geranean ez degu izaten bizimoduari beste korapillo bat egin arteko onik. Azken aldiko asmakizuna eta moda, leiakortasuna degu. Alkarri kompetentzia egin bearra. Langille gutxirekin lan asko egin, eta merke gaiñera. Orixe omen da leiakortasuna. Beti leian, apustuan bezela ibilli bearra, biziko bagera. Gero obeto izango geralakoan eta geroz eta estuago. Bizitzeko diru asko bear, eta diru ori nola inguratuko degun pentsatzen. Beti burrukan. Ez bait daukagu danok dagoen tokitik atzaparrak betean dirua artzerik, askok egiten duen bezela. Askok bear izate orrek bizimodua mikaztu egin digu. Bide luzeetan autobusa legez eramateko bi txofer bear badi-

ra, bat artu eta ark egin dezake biren lana. Eta nekatu dalako edo lo artu duelako bazterra jotzen badu, orduan kontuak. Joan dan udan ogeitaka lagun ildako istripuak izan dira txoferrari lan geiegi eragin zitzaiolako eta autobusa bear bezela zaintzeko astirik artu etzalako. Leiakortasunaren edo konpotentzia egin bearraren ondorioak.

Futboleak egiteko amar milla pezeta inguruan saltzen diran baloiak Asiako errialdeetan umeak josten dituzte, eskuz. Eta ume gaixo oiek 75 pezeta irabazten dituzte. Sei urteko neska-mutikoak eta orrela aritzen dira baloiak josten. Jolasean edo eskolan ibilli bear luteken ume errukarriak orrelaxe esplotatzen dituzte. Eta begira futbolistak nolako dirutzak irabazten dituzten. Bestalde, baloi oiek saltzen dituzten konpaiñiak ere dirua erruz kastatzen dute bere propaganda egiten, eta umeei lana eragitea debekatze-ko alegiñak egiten ari dirala esanez. Gezurra esatea ere libre daukate, dirua irabazteko. Pekatu nagusietan leenengoa arrokeria omen da. Baiña nik zurkeria dala esango nuke. Diruak arrotu egiten gaitu, egia da. Eta gizonak ez du asmatu orri neurria artzen. Izan ere, nola asmatuko du bere buruari mugak jartzen ez daki-eta?

Nere lagun bat oso burumakur ikusi nuen leengoan. Ain triste egoteko zer zuen galdetu nion, eta

– Oso kezkatuta nago. Emaztearekin azkenengoz asarretu nintzanean beste illabeteen etzidala itzik egingo esan zidan.

– Ori al da guztia gandorra moztutako oillarra bezela egoteko?

– Ba, bildurtuta nago, andreak jarritako plazoa biar betetzen da-eta...

Obeto izan nai ori ez da
ain bizimodu mardula.
Orrekin sarri geure buruai
egiten diogu burla.

Katigaturik gaude erabat
sortu zaigun arazoan,
bizi bear ta iñork atertu
ezin duen erasoan.

Ikusi arren arnas artzeko
astirik ez daukagula,
ez konturatzen gure bizitza
alperrik galdu degula.
Eta orrela zorionera
ezin iritsi sekula.

Leia asi ta ezin bukatu
guk nai genduken plazoan;
burrukan jardun bearko degu
gure bizitza osoan.
Ori ez al da eroritzea
geuk jarritako lazoan?

1995eko irailak 29

Leengoan esan nuen bezela, joan dan larunbatean zan agorreko karta denbora azkenengo eguna. Ez dakit gauean zer aize geldituko zan. Nik lo egin nuen, badaezpada ere. Baiña eiztari-
ren batzuk izango ziran begira egonak, eta aizearen berri jakin
nai duenak aiei galdetu bearko die. Ea egoaizerik nabaitu zuten
edo.

Inguru auetako eiztaririk onentsuenak oiñatiarrak izango
dira. Zeruko santu guztiak lagun dituztela uste det. Eta urtean
zear makiña bat festa eta egun eder arrapatzen dute. Eize-zaku-
rra al da? Gaurko eguna etzaie oartu gabe pasatuko. San Migel
eguna dala, eta ez dute egun guztian lana egingo, bestela erriko
zaindaria asarretuko litzake. Bestalde, biar, San Migel urrengo
larunbata, edo egubakoitza, oiñatiarrak esaten duten bezela.
Ardi eta bei bikaiñak ikusi nai dituenak, sagar, udare eta gaiñe-
rako igali ikusgarriak nun artzen diran jakin nai duenak, edo
barazki mardulak nun azten diran ondo ez dakienak, joan dedi-
lla biar Oñatira. Arantzazuko frailleak nolako azaburuak eta
porruak artzen dituzten ere ikusiko da. Bat eta beste esaten ari-
tzen diranak ere konturatuko dira frailleak ez dirala alperrak.
Ardi guztiak ere ez dituzte izaten Arantzazuko frailleen ardiak
bezelako bizkar zabal eta guriak. Eta baratza guztietan ez dira
azten angoak bezelako porruak. Kontuak ez du balio emen.
Lana egin bear da, eta frailleak egiten duten bezela egin ere. Zer

ikusia eta zer jana ere izango da, bada, Oñatin. Lukainka ederrarekin egindako ogitartekoa, eta talotartekoak ere bai. Eta kutizi guztiak betetzeko moduko gazta. Sagardoak proatzeko aukera ere izan oi da biarko egunez. Aurtengo erri-eguna ikustera joaten diranak, goseak eta egarriak penatu bildurrik gabe egun bikaiña pasatuko dute. Araotzen ere badaude bere denbora guztian lana gogor egin ondoren jubilatuta bapo bizi diran base-rritar aitona jatorrak. An ibilliko dira aiek ere Oñatiko peria ikusten. Eta ez det pentsatzen etxera baraurik joango diranik. Lagun artean bapo bazkalduta bai, seguru asko. Oñatiarren birtuteetako bat ondo bizitzen jakitea da. Danak ez dakitena, noski. Eta jende jatorra da, Arantzazuko frailleak bezelakoxea. Erri-egun atsegin bat ospatuz udazkenari asiera on bat ematea opa diet guztiei, negua datorrenerako indarrean sartzeko. Eta Kipuexeko ariztian kontuak esaten egoten diran amonatxoak ez dezatela pentsatu aietaz aaztuta nagoenik. Ez dakit biar plazara joango diran, baiña eguraldi ona bada, bere tertulitxoak egin gabe ez dira geldituko. Segi orrelaxe alkarrengana bilduz.

Aiton jatorrak ikusten dira
biltzen Oñatin illero.

Aiek ainbeste dakienikan
ez beza iñork espero.

Bere denboran ikusko zuten
makiñatxo bat otz-bero...

Orain perira lendabiziko
eta bazkaltzera gero.

Dana merezi dute ainbeste
lan egin zuten ezkerok
lan egin zuten ezkerok.

Kipuexeko amonatxuok,
nik pentsatu oi dedanez,
naikoa egin dezute eta
osatu zerate lanez.

Jarrai zazute orain bezela
lagun zintzoak izanez,
osasuntsu ta pake-pakean
alkarri poza emanez.

Kipuexeko itzal gozoan
naiko kontua esanez
naiko kontua esanez.

Goseak bizi diran tokietan jendea garaia baiño leen iltzen omen da. Bizitzeko janaria bakarrik ez da naikoa, aolkuak ere bearezkoak dira. Kontseju onak, alegia. Eta orain ogeita bost urte, irurogeita amaika urteko bizi-iraupena genedukan, bataz beste. Orain oster, irurogeita emezortzi urtekoa. Kontseju onak nork emana daukagulako izango da, bearbada. Senarraren esanak zintzo egiten dituztelako edo nik ez dakit zergatik, senarra baiño sei bat urte geiago bizitzen dira emazteak, bataz beste. Nere lagun batek orregatik esan oi du bere emaztearekin eta alargunarekin paseatzen duela. Andrea alargun utziko duela zearo etsita baitago. Gizonak baiño aulagoak edo debillagoak dirala emazteak esaten da, baiña material gogorarekin eginda egongo dira, seguru asko. Orainarteko emakumeak etzuen zigarrorik erretzen, ez alkoholik edaten, eta kotxerik erabilli ere ez. Gu baiño patxara obean ibiltzen ziran ordea, eta orregatik pasatuko dute denbora geiago beste mundura iristen. Eta emendik aurrera ere, penaz beteta bizi diran gizon alargunak baiño iñola poztu ezin diran emakume alargunak geiago izango dira.

Emendik urte batzuta ez da omen arritzeko izango eun urtean bizitzera iristea, baiña nork irabaziko du orrekin? Bastoi saltzailleak, seguru asko. Izan ere, bizitzari urte geiago eranstea ondo dago, baiña urteei bizitza ohea ematea ez litzake batere okerrago izango, zaartuta txartu ez gaitezen. Orretarako, sasoi onean iraunerazten erakutsi bearke ligukete gure jakintsuak. Komeniko litzake. Bizi geran arte izan gaitezela ondo, nola gizonak ala emakumeak. Mediku jaun bati entzun nion bein, ondo bizitzeko mai ona, bodega ona eta naiko atsedena bear dirala. Orrela bizitzen dala luzaro eta umore onean, eta orrela irauten dutela senar-emazteak alkar maitatzeko moduan, batek bestearen kutiziak beteaz. Kontseju onak ogiak aiñaxe balio dute ondo bizitzeko. Orregatik da ona daukagunarekin konformatzea. Ainbeste lan egin duten aitona-amonei bear dutena ematea eta ainbeste balio duten kon-

tsejuak alperrik ez galtzeko zoria izan dezagula, eun urterarte bizitzeko danen bearra izatea baliteke-eta.

Andreak bear dira,
gizonak ere bai,
alkarren arrimoan
bizitzeko alai.
Lanak eginda daude
ta jai egin lasai.
denbora galdu gabe
beti geroko zai,
denbora galdu gabe
beti geroko zai.

Bear baiño lenago
ez etsita jarri.
Askoz obe da aurrez
zer egin igarri.
Gutxi nekatu eta
paseatu sarri,
besotik goxo-goxo
elduta alkarri,
besotik goxo-goxo
elduta alkarri.

1995eko urriak 13

Mediku bati entzun nion leengoan, aren arduran aurren bat jaiotzen danean, lenbiziko lana amari ematea izaten dala. Amak artu, eta goxatu dezala orduerdi batean, gutxienez. Ori egiteak zenbateraiñoko abantailak dituen esaten duten estadistikak bai omen daude. Eta jaiotzen danean umearen amak bere besoetan laztandutako aurrak, osasuntsuagoak, leialagoak eta maitatiagoak izaten dira, jaio eta andik ordubetera amari emandakoak baiño. Ikusi, bada, amaren ikutua nolakoa dan. Amak asko dezake. Berak uste duen baiño ere geiago, seguru asko. Eta emazte izateak ere erreztasun ikusgarria ematen dio maitatzeko daukan almenarekin on asko egiteko. Zein da, bada, ama eta emaztea baiño geiago etxean bizimodu atsegin bat antolatzeko?

Urriaren amairuan gaude gaur. Egun auetan gorabeeratxo batzuk izan oi dira zenbait senar-emazteren artean, eizea edo usoak dirala eta ez dirala. Senar asko, urte guztian emaztearen esanak zintzo egiñez, udazkeneko egoaizearen zai egoten da, eizera

joateko ametsetan. Umeen maitasun dana beretzat nai izaten du amak, eta merezi du gaiñera. Eta senarrarekin ere beste orrenbes-
texe gertatzen zaio. Bera antxe egoten dala urte guztian etxean, eta
ea senarrak zergatik joan bear duen or zear, firin-faran, eizera...
Eta joanaldi bakoitzean zerbait ekarriko balu, utsa. Baiña eizetik
ez datorrela ezer. Nik ezagutzen ditut illabete onetan pixka bat biu-
rrituta ibiltzen diran senar-emazteak. Eta alkarri itz gutxi egiñez
gaiñera. Ez luke orrelaxe bear, baiña... Urte guztian zintzo-zintzo
portatu dan senarrari pixka bat jaregin bearra egongo da, ez?
Mendiko bakardadea oso ona da etxean emaztearekin daukan giro
eder artaz pentsatzeko ere. Uso denboran pazientzi pixka bat bil-
tzen ezpadu, datorren urterartekoa luze egingo zaio gizarajoari.

Badakit. Etxekoandreraren bat asarretuko zitzaidan onuzkero.
Eta “guk ez al daukagu eskubiderik arnasa artzeko?”, esango
didate. Bai, noski. Nola ez, ba? Baiña emazteak, ama da-eta, artu
baiño eman naiago izaten du. Amaren gozatuak aurrarentzat bere
bizi guttirako zenbateraiño mesedea egin dezakeen esan degu
leenago. Bizitzan senar eiztaria tokatu zitzaiolako kezkatuta
zegoen andre ezkonberri batek, eiztariak bere bizitza osoan orre-
la izaten al diran galdetu zidan bein.

– Ez, enetxo, ez. Eizerako eromena urteekin batera aizeak
eramango dio, eta egon zaite lasai –erantzun nion.

– Ez da ezer, ala ere –esan zidan.

Ez izan ere. Urteak dira ori zala, eta oraindik alkarrekin
ikusten ditut. Zorionak.

Pazientzia ainbat erruki
bear da senarrarekin,
egoaizeak endreatuta
goizean badu aldegin.
Urrian beintzat, gizajoari,
ez morroxkadarik egin,
illunabarrez etxeratzeko
bildurrez egon ez dedin.

Eizak bereak ditu aldapak
baita ere toki lauak.
Alkar-bizitzak ere bai, noski,
bere lege ta arauak.
Eta grazirik nola ez duten
bijili eta barauak,
okerrik egin bada egunez
konponduko ditu gauak.

Batzuek diotenez, mundu au negarraren bizilekua da. Negar egiñez eta sufrituz gerorako bizitza obe bat irabazteko lekua. Baliteke, baiña ez det uste errosario au danak errezatzen dutenik. Badira, eta askotxo, munduan dabiltzan arte lasai parre egiten dutenak. Sufritzea besterentzat utzi eta bapo bizi diranak ikusten dira emen. Ondo bizi danak ez du negar zotiñik entzun nai izaten. Eta sufritze kontu ori, negarrez daudenak pixka bat pozteko eta kontsolatzeko asmatua izango da. Biotzondokorik aundienak uste gabean etortzen diran ezbearrak ematen dituzte. Ondo bizi geranean etortzen zaizkigun desgraziak. Zerbait daukagula uste, eta gure etxea utsik ikusteak naigabe aundia eman oi du, nai eta nai ez. Baiña orrelako estuasunik izan ez dezagun kontuak ateratzen dakiten politikari, gobernari eta orrelako gizon jakintsuak aukeratuta edukitzen ditugu, eta dauzkagu. Badirudi sustorik etzaigula komeni, eta aurten ere sasoiz jarri gaituzte zer datorkigun jakinēan. Susto txarren batek beste mundura eramaten bagaitu, ez digutela ezer kenduko. Eta gure kontura bizi diranak negarrik egin gabe lasai eta alai bizi ditezen izango da.

Kontua zera da: urteberrietan, beste iru illabete baiño leen alegia, gasolina litroko bi pezeta igoko dala, gutxienez. Alkohola, ogeita amar pezeta inguru, eta tabakoa amar pezeta, batez beste. Eta gauza oiek erostera ezjakiñean joan ezker negarrari emango diogula pentsatuko zuten, eta orregatik aurrez jakiñerazi digute. Urtean 200 milla milloi pezeta bidaltzen dizkio Europak Espaiñiari. Gure nagusi jende orrek bear baiño geiago kastatzen ordea, eta Europak ezin omen du burutu gurekin. Ala ere, goiko eserleketan daudenak ezin asiko dira negarrez. Aiek ez daude emen sufritzera etorrira. Eta Europatik bidaltzen ezpadute, guri kendu eta dana eginda daukate. Negarrez asten gabera, zerua irabazteko penatu egin bear dala esan, geure onerako dala, eta segi aurrera. Nolanai ere, ezin geiegi estutuko gera. Jauntxo oien ser-

moiak alde batera utzi eta al degun ondoena bizitzen saia gaitzen. Ala, *patria salbatu* eta zerua irabazi, danak egingo ditugu. Dana ez digute ez kenduko. Alperrik ibilliko dira.

Mundu ontako sufrikizuna
dala gure onerako...
Ori esaten ote digute
egi garbia dalako,
ala ziri au guri sartzea
komeni zaietelako?
Nere iritziz dana ez degu
utzi bear gerorako.

Izan gaitzen biotz oneko
premian dagonarekin,
eta arroen ingurutikan
al dan azkarren aldegin.
Laguntza eske datorrenari
iñoiz ez burlarik egin,
baiña golfoak gizendu gabe
gure izardiarekin...

1995eko urriak 27

Bein ogeita amar urte bete ezkerro, gure gorputza zaartzen asten da. Gizentzen ere bai, eta ortik etortzen da nekatzea, junturak nagitzea eta orrelako asko. Bear aiña aragi ez daukatenak berriz ezur guztiak agirian dituztela jartzeko arriskua izaten dute. Eta ura ere ez da izango edertasunaren ispillu. Aragia animaren etsaietako bat dala, baiña bere neurri batean begiratzeko eta ikusteko gogoia emateko lain nai litzake, gutxienez ere. Azalak zintzilik eta ezur koskorak ia kanpora irtenean badauzkagu, zeïnek begiratzea nai degu? Alako bati begiratu edo egurrez betetako zaku bati begiratu, berdintsu izango da. Orrela ez igartzeko, ur asko edan bear omen dala esaten dute medikuak. Gorputzarentzat ura makinarentzat olioia bezela dala. Ur asko edan, bear bezela jan, eta ibilli. Asko ibilli. Azala eta aragia legortu ez ditezen ura edatea ona izango da, eta ibiltzea ere bai, arin egoteko. Ogeita amar urte eta, gaiñera gizentzen asi ezkerro, korrika eta saltoka ibiltzeko gogo gutxi izaten da ordea. Eta besterik ezean eskailleratan gora eta beera ibiltzeko esaten dute.

Junturak ez erdoitzeko eta kolore gorriak edukitzeko, ariketa eta ejerzizio ona izango da ori, baiña, badaezpada ere, eskaillera kontu ori sendagillari galdetu leenbizi nola eta zenbat egin bear dan. Azalari brillua aterako diogulakoan zimurrak ateratzea ez litzake batere ona izango.

Gizenegi daudenak izaten dute aitzakirik asko. Ezurra eta azala besterik ez daukatenak itsusiak izango dira, baiña gerrondo lodia daukatenak ere ez dituzte gusto guztiak izaten, eta osasuna galtzeko daukaten arriskua gaiñera. Ala ere, flakatu nai dutenak suertea izango dute aurki. Amerikan sendagai edo hormona bat aurkitu dute gizenak liraintzeko. Saguekin probak egin dituzte, eta gizenegi eta lertzeko zorian zeuden pistiak alperrik zeuzkaten koipeak kendu eta seko liraindu omen dira botika berri orri esker. Eta laister pertsonekin ere probak egingo dituztela esan dute. Emendik beste iru bat urtera, gizenduta eta baldartuta zeuden gizon eta emakumeak zearo lirainduko omen dira. Gizaseme eta emakume liraiñak bakarrik izango dira, bada, laister, eta osasun ona gaiñera. Ikusten nago mundua zero biurtuko dutela. Mesede ederra egingo digute Amerikako jakintsuak.

Au inbentu berria
oraiñaldikoa,
ez nolanaikoa.
Gizenak liraintzeko
asmatutakoa.
Munduan ez beste bat
onen parekoa,
rejimen bearrikan
ez, alazankoa!
Iru-lau bat pildora
artzea naikoa.

Liraiña izatea
beti da egoki,
dudik ez eduki.
Baiña laister ikusi
bear gera gaizki,
gizenak flakatzeko
poliki-poliki.
Neskarik ederrena
nor dan zeñek daki?
Miss aukeratzen zaila
izango da aurki.

Ondo pentsatu ezkerro, naiko zebreak gera. Nai genduen zerbait eskuratzen degunean, ez degu estimatzen. Eta beti ez daukagun zerbait nai izaten degu. Negua datorrenean, beroa nai izaten degu. Eta udan eguzkia pixka bat berotzen asten danean, bereala aspertzen gera. Emendik aurrerako illabete batzutan obe genduke udako bero zakar aien puskatxo bat bagendu, sikira. Gu larri giñan bero aiekin, baiña Italia aldean beroari erremedio polita asmatu zion neska gazte batek. Orain edozer gauzagatik protesta egiten da, eta ark ere zerbaitegatik protesta egin nai, eta larru gorrian jarri eta helikopterotik parakaidasean salto egingo zuela esan zuen. Ez det uste iñork kontra egin zionik. Udako eguzkiak burua berotu zion nunbait, eta aize preskoa artzeko asmoa izango zuen. Txorakeria dirudi, baiña ez al du zer pentsatu pixka bat emango?

Gizonak begiluzeak generala, lotsarik ez daukagula eta orrelakoak esan oi ditu emakume askok. Italiako neska ark bazekien, ba, ondo asko lurrera iristean nork begiratua izango zuela. Makiña bat gizonezko, eta emakumeak ere bai, an egongo zala zai zer neska modu ote zan ikusteko. Emakumea gauza bezela tratatzen degula, ez degula errespetatzen eta orrelakoak esaten dira. Eta, egia esan, gaizki egiña salatzea oso ondo dago, baiña errespetoa irabazi egin bear da. Edozer txorakeri egiten duena ez errespetatzea ez da batere arritzeko. Norbaiten kontura parre egiteko ere zai egoten gera, eta neska gazte bat larru gorritan zerutik zetorrela ikusita, nola ez dio, ba, jendeak begiratuko? Protesta egin nai zuela esan zuen, baiña dirua biltzeko izango zan. Neska ori artista da, itxura danez, eta ondo polita gaiñera. Eta zerbaiten propaganda egitearren-edo dirua aginduko zioten eta bai neskak aukerari azkar eldu ere. Koloreak etzitzaizkion asko gorrituko. Ala ere, ez diteke esan buruz makala danik. Artista askok soiñekotan dirua erruz kastatzen dute, dituztenak disimuluan erakusteko. Italiako neska orrek ez du dirurik kastatu, bestaldera baizik.

Soiñeko garestiak erosi ez baiña soiñean zeuzkanak kendu. Eta dirurik kastatu ez baiña kobratu, eta nai duenak nai duena esan dezala. Edozeiñek elduko dio ari ankatik. Zaartuta zimurtzen danean emakumeekin geiegikeri asko egiten dala eta ez dirala errespetatzen esatea besterik etzaio falta oraintxe. Jende ona dago emen itsuei argi egiteko.

Ikusi nai ez duenak ez begiratzea asko du. Baiña ori ez da kontua. Orain tonto gutxi dago, eta begiratu lizunik nai ezpadu, ez dezala orrelako txorakeririk egin. Eta gizonezkoen kontra sermoirik ere ez.

Kontseju onak alkarri
ematen dizkagu sarri,
baiña geu gabiltz bide txarretik
ta ezin igarri.
Dirua degu egarri,
nai aiña ezin ekarri,
naiz gorputza ta ditugun danak
agirian jarri.

Aizez ta buru ariñez
txorakeriak egiñez,
gorputz-animak saldu ta fama
artu nai ordaiñez.
Ain kontzientzi zikiñez
kezka gabe utsegiñez...
Mundu guztia berari parrez,
ta berak jakin ez.

1995eko azaroak 10

Errian aginpide pixka bat zeukatenak esaten ziguten zer egin, garai batean. Zeukaten aginpidearekin, eta berak artzen zutena gaiñera, giro izaten zan alakoan inguruan. Etxean zer egin bear zan ere batere lotsarik gabe esango zizuten, eta etzegoen ezetz esan besterik. Ezer gutxi genekien, eta orretaz baliatzen ziran. Ezjakiña errez menderatzen da, izan ere. Baiña orain jende eskolatua dago, eta jauntxoak indarrrik gabe gelditu dira. Oraingo gobernadoreak baiño leengo aguazillak geigo agintzen zuen errian. Baita bildurra sartu ere. Eta aberats jendeak zer esanik ez. Kontu gero aiei kontra egin! Aiek agindutakoa danok egin bear

degula pentsatzen dutenak badaude oraindik ere mundu onetan. Iñork baiño geiago dakitela uste dute, eta orrek arrotzen ditu. Andaluziako erri txiki batean, ogei milla pezetatik berrogeita amar millara arteko sariak eskeiñi dizkie udalak aur bat baiño geiago izaten dituzten senar-emazteei. Gaurko munduari eta gizarteari begiratuta, parregurea ematen du onek, alde batetik. Ez da erreza erri artako alkatea ametsetan dabillen ala mutilzaarra dan antzematea. Ondo bizi diran jauntxoak badaude Andaluzian, baiña bai premian bizi diranak ere. Bateko legorteak baratza eta soro guztiak ondatu dizkiela, besteko lanik ez dagoela... Onelako kontua besterik ez dator andik. Eta onela bizi dan jendeari aur geiago ekartzeko eskatzea, iñor zirikatzea dala esango nuke. Ondo bizi diralarik, buru arin samarra daukaten jauntxoen jokae-ra. Alkate jaun orrek obe luke erritarrei lana emateko modua egi-tea. Lantsari itxurazkoa irabaziz lasai antzean bizi balira, iñork dirurik agindu gabe ere deskuidatuko lirake bat baiño geiago, eta baita andaluz txiki polit askoak jaio ere. Justu-justuan bizi diranei zama geiago bizkarrera bota nai izatea ez al da alkate jauna oillo-ak perratzera bidaltzeko lain? Zein joango dala uste du diru orre-gatik Parisetik umea ekartzera? Oraindik ere badaude, bai, asto gaiñetik jeitsi ez diran jauntxoak. Jendea orain irurogei urte beze-la bizi dala uste dute. Eta toki batzutan ondo ateratzen zaizkie orrelako kukurrukuak, gaiñera!

Gutxi dakien pertsona, lotsatia edo bildurtia izaten da, eta bizitzan aurrera egiteko ez dago eskola ona bezelako botikarik. Ala ere naiko lan izaten da zenbait garaitan. Baiña urte guztiak ez dira izaten berdiñak, eta aldaketa datorrenerako ondo prestatuta egotea komeni da.

Emen jendeak lana bear du
soroan edo fabrikan,
nola dakien, ondo gaiñera,
ez gaudela Amerikan.

Ainbeste aurtxo erru gabeko
goseak iltzen Afrikan...
Oiek guztiak ikusi eta
nola ez artu penikan?

Alkate batek egin nai ditu
erritarrak diru jabe,
zuzen jokatzeko duelakoan
ta itz egiñez xuabe.

Aurtxo bat ondo azi eziñez
bada naiko atsekabe.
Obe da emen zaindu geiago
Paristik ekarri gabe.

1995eko azaroak 17

Mundu guztiak badaki japondarrak txikiak eta ugariak dirala. Baiña ango mutil gazteak ain zozoak izaki, neska gazteen aurrean errez lotsatzen omen dira. Ez dute asmatzen izketan ere. Eta bere gustoko mutillengana inguratzen asita daude neskatxak, ezkondu nai duten ala ez galdetuz, eran arrapatzen badituzte beintzat. Guk ez genduen izan orrelako erreztasunik. Ezkontzeko irrikatzen egonda ere, etzigituen ezer esaten neskak, eta geuk esan bear, askotan koloreak gorri-gorri eginda geldituko bagiñan ere. Aiek estuasunak eta larriak pasatu bear izaten genituen! Eta, baiezkoa edo erdi-baiezkoa ematen bazigituen, pozik. Isillik gelditzen ziranean izaten ziran kontuak eta komeriak. Nola antzeman inguratzea nai zuten ala ez? Ezezkoa ematen bazigituen berriz, kitto! An etzegoen zer egiñik, eta beste batengana joan bear, berriz ere estuasunak pasatzera. Orrelaxe jokatu bear gaiñera, mutilzaar gelditzea nai ezpazan. Orain ez det uste orrelako konturik dagoenik. Ondo konpontzen ez diranak errez dibortziatuko diran itxaropenarekin ezkontzen omen dirala esaten dute. Zertarako berriketan ibilli? Ezkontza pasara egin beintzat eta, gero gerokoak.

Ezkonduta gero alkarri ika itz egiten dioten senar-emazteak badaude. Gure garaian itz egin bear orrela andregaiari!!! Laister bidaliko gintuzten oilloak perratzerara. Emaztea errespetatuko genduela ondo erakutsita gero ezkontzen giñan, eta ari eskerrak. Bestela, ainbeste kostata eskuratutako aingeruak ega laister egingo zuen gure ingurutik. Neskak nola konkistatu mutillei erakus-

teko eskola bereziak antolatu dituzte Japonen. Ez da erreza orain-
txe munduko berri jakiten. Eskerrak edozer gauza ikasteko esko-
lak dauden. Baiña mutillak ain lotuak eta lotsatiak izanik, ainbes-
te janponiar txiki jaiotzen dala sinisteak ere lanak ditu, orratik!
Emen ez dagoen zerbait badago an. Baiña, kontuak kontu, guri
etziguten garaiz esan Japonen zer gertatzen zan. Eskolan ibilli
giñanean, japondarrak federik gabeko gaiztoak zirala, mixiolariak
iltzen zituztela eta orrelakoak bakarrik esaten zizkiguten. Baiña
besterik ez. Malizi aundirik gabe azi giñan, noizean bein Txina
eta Japon aldeko ume errukarrientzat txanponak bilduz. Eta ez
dakik japondarrak uste degun bezain bizkorrak ote diran. Etxeko
lanak egiteko ainbeste tresna asmatu dute, emakumeak ere gizo-
nak bezelaxe lanera joaten omen dira. Eta dirua irabazten duenez,
geroz eta matxardago jartzen ari omen da emakumea. Ez dakit
senarra gozo-gozo artzen erakusteko eskolarik antolatuko duten
iñoiz. Baiña martxardakeriak bazterrera uzten erakusteko eskola
ez litzake txarra izango, ez.

Begiratuta gizon bizkorrak
dirudite japondarrak,
eta guztiok dakigu nola
diran ugari samarrak.
Disimuluan lana egiten
dira munduan bakarrak.
Itxuraz zozo antzeko baiña
txikiak eta azkarrak.

Lotsatu plantak egiñagatik
neska gazteei begira,
kolore eta itz motel oiek
itxurak izango dira.
Badaezpada ere ez eman
beatza ao erdira...
Ainbat etziran ugarituko
zozoak izan balira.

1995eko azaroak 24

Alde guztietatik berri txarrak besterik ez dator oraingo
mundu naastu onetan. Bazter guztietan gerra, eta politikariak
burutik naastuta daudela esan ditekete. Nunai iskanbillak, eta fami-

lietan ere naasteri asko. Eskerrak, ala ere, gure Jainkoak gizona eta emakumea egin zituela. Aiek ere pekatu egin zuten, baiña aien ondorengoei esker kontu politak ere entzuten ditugu batzutan. Gizon ezkonduak zearo merkatzen ari omen dira Italia aldean. Zuten aginpide apurra ia galdu dute. Eta emakume ezkonduak berriz nai duten guztia egiten ari dira. A ze nolako alajak emakume oiek!

Gaztetan eskolan alkarrekin ibilli ziran bi neskak amalau urtean alkar ikusi gabe egonda gero, topo egin zuten leengo udan. Zenbat denbora pasatu ote zuten alkarri kontuak esaten? Dana jakitea zailla izango da, baiña senarrarekin naiko aspertuta zegoela esan omen zion batek besteari. Amalau urte zeramazkitela alkarrekin, eta senarra ia kastatu egin zitzaiola. Zer izango, eta besteak ere aitzaki berdiña omen zeukan. Aren senarrak ere onenak eman zituela, eta denboraldi baterako emango ziola, ia pixka bat esnatu, indartu edo zerbait egiten zion. Tratua berealaxe egin zuten bi neska lagunak, eta baita senarrak trukatu ere. Oiek dituk azalak! Ori da senarra merke alkilatzea. Baiña kontuak kontu, batek Parisen eta besteak ez dakit nun pasatu omen dituzten oporrrak, batek bestearen senarra proatuz. Eta bi matxardak oso gustora omen daude orain. Sekula ez dutela egun ederragorik pasatu esan dute. Senarrak lotsatu egiten dira nunbait, eta ez dute ezer esaten. Esan dutenez, emazteak oso gogor asi ziran, eta bearke egin agindutakoa. Baiña gauzak ez dirala ain gaizki joan, eta konforme samar daude senarrak ere. Ez daukat zalantzarik emazteak pozik egongo dirala. Nai dutena egin dute eta beste zerbait asmatu arte pake pixka bat emango al dute beintzat. Senar-emazteen arteko kontu pattalak ere entzuten dira, baiña dana ez dago galduta, ikusten danez. Errietarik egin gabe eta alkarri leun-leun itz egiñez gauza asko egin diteke oraindik. Gustoko oporrrak pasatu ere bai. Senarrak ere burua makurtu bear orretarako.

Baiña onek ez al ditu ekarriko ondorio xelebreak? Gure etxeakoandreak senarra bati eta besteari merke ematen asten

badira, ze atarramentu atera bear degu? Onenak emanda gaude-
nak libratuko gera, baiña sasoi onean daudenak asi ditezke kon-
tuak ateratzen. Ainbat kosta eta gustoko batekin ezkondu, eta
kastatzen asitakoan beste batengana morroi joan bearra tristea
izango da.

Azken aldian jakin dedanak
utzi nau erabat jota,
mundu txar ontan senarren kontra
gerra asita dago-ta.
Bi senarrekin Italian zer
egin duten artu nota:
amalau urtez usatu eta
gero bazterrera bota.

Italiako sorgin oieri
esan bearrean nago:
gizonak ola tratatuzeko
eskubiderik ez dago.
Senarra artu eta pasatzen
asita baldin badago,
lenbaitlen saldu zazute baiña
usatu baiño lenago.

1995eko abenduak 1

Egun gozoak eta mikatzak ematen dakien abendua emen
degu. Eta leengo zaarrak bildur aundia zioten il oni. “Abenduko
izarrak, atzetik elur eta kazkabarrak”, esaten zuten, abenduko lai-
ñoak egoaizea baiño elurra geiagotan ekartzen zutela-eta.
“Abenduko eguna, argitu orduko illuna”, dio beste esaera batek.
Illabete onetako egunak motzak bezain otzak izaten dira, eta
gauak ere epelak ez. Ala ere, abenduaren gorabeerak ez dira orre-
tan amaitzen, eta orri eskerrak. Abenduak badaki egun politik
ematen. Eta gustora gabiltzanean, gauak ez dira ain luze eta
aspergarri, naiz eta eguzkirik ikusi ez. Orain ez dago, gaiñera,
leengo zaarrak esaera oiek asmatu zituzteneko konturik. Oraingo
gazteak jarriko nituzke nik orduko bizimoduan! Au entzutean
parre egingo dute, baiña guk ere zerbait badakigu munduko berri,
gaupasarik ez degu egiten baiña.

Neguko egun gogorretan elizako ateetan eskua luzatzen diguten eskaleak pena ematen didate. Orretara beartu gabe bizitzeko modua danok bear genduke. Baiña badirudi eskaleak bizi-modu errézagó baten billa asita daudela. Zerbait iritsiko duten zurrumuruak dira gaiñera. Eskean ikasteko eskola antolatu omen dute Erromako eskaleak. Egunero-egunero ainbeste denboran eskua luzatuta egon bearra oso lan nekosoá dala eta bere ofizioa eskolan ikasi, eta andik aurrera eskean astea erabaki dute. Esketik bizitzeko, egunean ordubetez lana egitea naikoa dala esaten dute eskola orretako maisuak, eta eskolan ikasten dan ofizioa ez dala nolanaikoa izango. Zertarako ibilli batxillerra ikasten eta gero karrera egin eziñik? Karreradunak ondo bizi dirala pentsatuta egoten gera, baiña injenieru, mediku edo abogadurik alperrenak ere lana edo lan-itxura egin bear izaten dute, eta egunean ordubetez baiño geiago egin ere.

Dana dala, Erromako eskale oiei suerterik onena opa diet nik. Ordubetean eskean ibillita, bizitzeko modua egiten badute, abenduko otzari aurpegia emateko moduan izango dira. Eta ez du gutxi balio orrek bakarrik ere. Baiña Erroman eskera joan gabe, bertan ere abendu ederra pasa genezake. Erroma toki ona izango da, baiña bai Orio ere. Datorren asteazkenean San Nikolas eta erriko jaiak dituzte. Gabonak nola pasatu ikasteko eskola ona da Orio. Bixigua janez Gabonetarako entrenamentu polita egin liteke an.

Erroman jarri omen digute eskaleentzat eskola.

Esango nuke, alde batera, oso ederki dagola.

Baiña pentsatu burutik auxe kendu eziñik nagola:

ondo bizitzen Oriok errez irabaziko diola.

Eskolan ez da iñor saiatu sekula ere gaurdaiño, kontu utsetik bizi izaten jakin nai izateraiño.

Euskaldunok ez al gera beintzat narrastuko ortaraiño.

Ordainduta jan naiago degu gosea dealde baiño.

Ama sortzez garbiaren eguna ezin isillik pasatuko degu gaur. Mariaren Alaben billera edo kongregazioak indarrean zeudenean egun aundia zan. Eta baditeke orain pixka bat modatik pasatuta egotea. Orduan Mariaren Alaba ziranak, ama eta amona eginda daude orain. Baiña ez dituzte aaztuta edukiko orduko kontuak. Sermoietan entzuten zanari eta jendearen esanari bildur aundia zitzaion. Geiegi, askotan. Baiña bazuen arek ere bere alderdi ona. Orduko oitura eta bizikera txukunari zintzo jarraitzen dioten emakume jatorrak badaude oraintxe ere. Gogoan izango dute Amabirjiñari bederatziurrena egitera elizara joaten ziranean nola illunabar gozoak pasatzen zituzten. Etxerakoan laguntzeko mutillen bat izango zuten, eta kontu potxoloa pranko esango zuten bidean. Berandu etxeratzea pekatu izaten zan, eta askotan berriketaldia naiko kontu esan baiño leen moztu bear izaten zan, aita eta ama asarretu etzitezten. Auek eta onelako beste traba asko izaten zan, eta gaztearoari etzitziaion zumurik ateratzen orain bezela. Ori zuen txarra orduko bizimoduak. Beti besteren mende egon bearra, iñolako garrantzirik etzuten oiturak zirala eta etzirala. Sermoietan entzundakoa egin bearrak, elizara sarritan joan bearrak, jendearen esanak eta abar, besteren esanetara makurtu bear izaten zuten. Eta ori ez da atsegiña. Ezta ona ere.

Baiña sanotasuna ere bazuen bizikera ark. Igande goizetan mezetatik irtendakoan auzoko neska eta mutil, alkarrekin joaten giñan etxera. Izaten zan umorea eta zer esana. Gogoratzen naiz nola joaten giñan, algara batean. Goizean goiz jaiki bearra aaztuerazi egiten ziguten une aiek, eta urrango jaia etortzeko poza izaten genduen. Gazteak parre egiten dute, baiña bizimodu ark bazuen bere alderdi gozoa. Onekin ez det esan nai orduko gazteak oso konforme bizi giñanik. Izan ere, gazteak beti izaten du zerbait geiagoren egarria, eta baita bear ere. Baiña ez det pentsatzen

elizara joatea eta Ama Birjiñaren eguna baztertzea eta oiek naikoa diranik ondo bizitzeko. Askatasuna ona da, baiña alperrikako itxurarik gabeko erlijioak ez du kalterik gazteentzat, nere iritziz. Pertsonak bere buruaren jabe bear du izan.

Azkenik, nere zorionak Garbiñe, Kontxa eta Kontxita guztiei.

Gaur errezatzen ez da egiten
len bezelako jardunik,
uste baitegu mundutik kanpo
ez daukagula lagunik.

Ala ta guztiz ez det pentsatzen
ori komeni zaigunik...

Ez al dakigu zeruan ere

Ama on bat daukagunik?

Zeruko Ama orren kontuak
len aitatzen ziran sarri,
baiña ez dakit ez ote geran
ajolarik gabe jarri.

Zertan gabilta era orretan
aize emanek alkarri?

Ama maitatzen duena ez da
iñoiz izan lotsagarri.

1995eko abenduak 15

Ez datozkigu oso berri onak Amerika aldetik. Jubilatu geiegi omen dago, eta botikatan bakarrik egundoko dirutzak kastatzen omen ditu gobernuak. Ainbeste zaar ez balego, politikariak askoz gauza geiago egingo omen luteke. Guk ere bai, ainbeste alperrikako politikari ez balego. Baiña goazen aurrera. Zaartuta lanerako gauza ez diranak mundutik bidali eta beste batzuentzat naiko dirua, nai dutena egiteko. Baiña, bizi diran guztiak zaartzen dira emen. Orain agintean arro-arro daudenak ere zaartuko dira, leenago zerura edo infernura joaten ezpadira beintzat. Baiña orrek ez ditu kezkatzen.

Egunero entzuten degunez, al dutenak saiatu dira sakelak ondo betetzen. Eta alakoak, zaartu arren ere ez dute eragozpenik izango munduan egoteko. Ezer ez daukatenak traba egiten dute emen. Amerikan, urtean ogeita amairu billoi pezeta kasta-

tzen ditu Estaduak zaarrei botikak ematen eta ospitaletako kas-
tuak ordaintzen. Ortik pentsatu zaarrak leenbaitleen aldegingo
balute nolako gari pillak, abarkak jantzi eta erdira salto egiteko.
Baiña an ere gauzak ez dira ain errezak, ikusten danez.
Zaarrentzat eta ospitalentzat diru-laguntzarik ez balitz, mediku
asko lanik gabe geldituko lirake, eta ez litzake giro izango.
Txanponak murriztu ezker, danok asarretzen gera, eta medi-
kuak ere bai. Ainbesterañoko diru-egarria daukatenak buru
argikoak izaten dira ordea, eta medikuak asarretzeko arriskuari
ere buelta aurkitu diote. Ospitaletan lana egiten duten sendagi-
lleak gaixoei beste batenganako joateko aukera ematea debeka-
tu diote. Izan ere, eragozpen ori kendu ezker zaar jendea medi-
ku eta ospital pribatuetara bidali eta eskupeko politak jasoko
lituzteke. Orra or pertza konpontzeko modua, baiña beti bezela,
pobreen bizkarretik. Diruz urri dabiltzan zaarrei botikak kendu,
dauzkaten txanpon ondarrak ere bai, mediku partikularretara
bidali, eta or konpon ditezela. Orratx zaarrak leenbaitleen zeru-
ra bidaltzeko modua. Bere denbora guztian fin asko lana egite-
ak eta orrelako birtuteak ez dute balio diruaren aurrean. Diruak
ez du errukirik, aiskidiak. “Zenbat daukazun, ainbeste balio
dezu”, esan zuen leengoak. Amerikako arrosko oiek ez al dute
nai duten guztia egingo, gero ango gaitza onuntza ere zabaldu
eztedin.

Askok diote zaar jendea
ugardu dala geiegi,
ta oien ustez bakandu on bat
etorri liteke ongi.
Debalde dauden botikak eman
nai ezta dabilta, nagi...
Aurrerantzean zar-sarituak
ibilli ditezten argi.

Sendagaietan kastatu nai ez,
ez da ederra itxura.
Jubilatzeak lenaz gaiñera
eman lezake tristura.
Nola ez duen iñork artu nai
zartu diranen ardura,
naiago dute garai baiño len
danak bidali zerura.

Aspaldiko kanta da: “Ni naiz kapitan pilotu, neri bear zait obeditu...”. Egia esan, aspaldi onetan ez det entzun. Eta badakite modatik pasatuta egotea. Baiña kankak dioena indarrean dago oraindik ere. Bai orixe. Agintze ori zerbait ona izan nunbait. Eta danok orren ondoren ibiltzen gera. Kanpoan ez ezik, etxean ere izaten degu nork agindua, eta ortik pentsatu. Ala ere, etxean agintzen diguten oiek urte askoan iraun dezatela, eta guk ere bai aiekin batera. Baiña ia irten nintzan arrastotik. Basurtuko ospital famatua zigortu omen dute, bertan lana egiten duten emakumeei galtzak janztea debekatzegatik. Ondo egin diote gaiñera. Ospital orretako zuzendaritzak an lana egiten duten emakumeak gona eta galtzerdiak janztera beartzen dituzte, ospitaleko uniformeak orixe dalata. Baiña uniformeak mendetasunaren ezaugarria da, batetik. Eta bestetik, lana egin bear danean galtzerdiak ez omen dira ero-soak. Orrela esan dute beintzat. Nik ez det proatu.

Gonak ere badute dana ez estaltzeko arriskua, eta emakumeak nai duenean galtzak janzteak bideko dala nago. Badakit gona eta galtzerdiekin politagoak daudela askotan. Baiña danak ez dute nai izaten iñor begira egoterik. Eta galtzak jantzi nai badituzte, jantzi ditzatela. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuak ere ango emakumeak gonak janzten jarrai dezatela esan omen dio ospitalari. Ospitalean dauden gaixoak izaten dituzte ain gaizki ez dauden egunak, eta alakoetan ez da arritzeko gonadun gaixozai politak ikusi nai izatea. Edertasunak alaitu egiten gaitu, eta gaixo dagoenari poz pixka bat ematea ekintza ona da. Eta bakoitzak nai duen bezela janzteko eskubidea ere badagoela esan diteke. Zango politak erakusteko eta ikusteko ospitalak baiño toki egokiagoak badira, eta erakutsi nai ez dituenak jantzi ditzala galtzak. Eta bestelakoak ikusi nai dituenak, joan dedilla beste leku batera.

Egun ederrak datozkigu oraintxe. Jesus Aurtxoak eman deigula osasuna eta pakea, familiko gozotasunean egun alaiak pasa-

tzeko. Gabon eta Eguberri zorionsu opa dizuet Segurako irratia entzuten dezuten denoi.

Euskadi dago ain illun,
ondo asko da ezagun.
Bide zuzen bat aurkitu nai ta
argirik ez iñun.
Jesus Aurtxoa, gau eta egun,
arren, egiguzu lagun,
pake santuan bizi izaten
asmatu dezagun.

Portatu gaitezen gizon.
Ez beintzat esan: or konpon!
Familiako giro jatorrak
egingo digu on.
Orren zalantzan ez egon.
Guztioi milla zorion.
Agur ta erdi danori, eta
ondo pasa Gabon.

1995eko abenduak 29

Urtea badoa. Eta azkenengo agurra egiteko presta gaitezen. Denbora ez da zaartzen. Gu gera zaartzen geranak emen. Eta zaartzeari buruz jakintsuak zer dioten jakitea ona izango da.

Zaartzaroko ajerik tristeena burua galtzea dala esan digute. Eta burua sano gorde nai badegu, buruari lana egiñarazi bear zaiola. Irakurtzea oso ona dala, eta zerbait berria egiten ikastea ere bai. Ontziak garbitzen, besterik ezpada. Orain arte senarra bakarrik jubilatzen zan, eta emazteak bere lanean jarraitu bear izaten zuen. Eta senarrak baiño osasun ohea izaten zuen gaiñera. Orain berriz, emazteak geroz eta geiago agintzen dute, eta senarrari lana egiñerazten diote, etxeko lanak egiten eta abar. Eta ori oso ondo etorri da senar-emazte edadetuentzat. Biak lana egin, eta biak zaintzen dute osasuna. Eta zer gauza oberik etxean pakea eta umore ona izateko? Joan dan urtean ondo portatu geran ala zerbaitetan utsegin degun kontuak ateratzeko egunetan gaude. Esate baterako, emazteari bear bezela lagundu ez badiogu, edo bere esanak ondo egin ez baditugu, oraintxe da garaia datorren urtean zintzoak izateko asmo sendoa artzeko.

Burua sano edukitzeko zerbaitetan ikasten saiatzeko esan digute jakintsuak. Zaartzen geranean dana badakigula uste izaten degu, baiña ikasteko premia aundia edukitzen degu artean. Ori gertatu ez dedin, oso zaartu baiño leen ikasi bear degu zertan edo artan: patatak zuritzen, aspiradorea pasatzen, alfonbrak astintzen, mandatuak egiten mutil koskorrak giñanean bezelaxe. Eta errieta egiten digutenean isillik egoten, asko moduko erantzunik eman gabe. Beste gauza bat ondo ikasi eta buruan sartu bear deguna, auxe da: emaztearen esanak egitea ez dala aren onerako bakarrik, baita gure onerako ere. Eta onetan buruz jokatu bear degu, bata bestearen arrimoan negua pasatzeko. Etxean sortzen diran lan pittiñak egitea, illobatxoak zaintzea eta oiek danak onak dira. Baiña burua argi edukitzeko ez omen dago emaztea etxeoandretzat artu eta ari kutiziak ondo betetzea baiño beste ezer oberik. Eta jakintsuak esan dutenarekin bat nator ni.

Bateko Urtezaar eta besteko Urteberri, oraintxe ere ez datozkigu egun itsusiak. Ni ziur nago, etxeoandreaki losintxa pixka bat egiten badiogu, bera ere ondo portatuko zaigula. Bat eta bestea esan arren, badakigu ondo asko zeifien bearra daukagun.

Urtea oso zaartu dalarik
badijoa goitik bera,
urte berria bidean data
ari toki egitera.
Eta denborak nola ez duen
iñoiz egiten atzera,
bizi dan arte joan obe du
jubilazioa artzera.

Joan dan urte au naiko illuna
gertatu da askorentzat.
Ala ta guztiz oso gaiztoa
ez da izan guztientzat.
Bizi geranok zer eskertua
badaukagu berarentzat.
Urte bat zaartu bagaitu ere
ez gaitu eraman beintzat.

Iru gauz dauzkat datorren urte
berriari eskatzeko:
pazientzia eman deigula
alkar errespetatzeko,

osasun ona gizatxartuta
iñor ez minberatzeko.
Eta gaiñera txanpon batzuek
tajuz samar bizitzeko.

Komeni da ta gaurko erara
ondo bizitzen ikasi,
pentsaturikan poz eta penak
izaten dirala naasi.

Urte zaarrari utzi pakean
joan nai badu igesi.
Bukatu alai eta berria
tristurarik gabe asi.

1996

**Nagusia nolako
zakurra alako**

1996ko Urtarrillak 5

Urte berri baten etorrera ikusteko zoriona izan degun ezke-ro, saia gaitezen urte orri asiera ona ematen. Orretarako goiko Jaunari gure eskerrik beroenak eman bear dizkiogu leenbizi. Eta gero, Ark erakutsitako bideari jarraitzen saiatu. Onela pentsatzen degunok atzeratuta bizi omen gera, baiña oraingo idea berri eta aurreratua ez det uste konponbiderik eskeintzen dutenik. Mundua zenbateraiño naastuta dagoen ikusi besterik ez dago.

Joan diran jai eta egunetan etxean eta kanpoan alkarrekin ondo konpontzeak nolako mesedea egiten duen konturatuko giñala nik uste. Bizitzako arazoak aaztuko ez badira ere, pixka bat alde batera uzteko egunak izaten diran urtearen bukaera eta asierakoak. Onelako egunak noizean bein bearrezko ditugula esango nuke. Arazoak ez dira konpontzen bazterrera botata, baiña gure onetik irtetzeraiño aiek buruan ditugula bizita ere ez. Gauza bakoitza bere garaian egitea komeni zaigula esan nai nuke onekin. Gure etxeakoak eta ingurukoak, askotan beintzat, ez dute izaten zer ikusirik gure arazoekin. Zertarako piparmindu bear ditugu alkarren arteko arremanak? Orrekin ez degu ezer aurreratuko. Batek bestea ikusi ezinda bizitzea etzaigu komeni iñolako moduz. Ezin asiko gera umeak bezela, Erregeak bati au jarri diotela eta besteari ura ekarri diotela, bata bestearen inbidiz.

Eta mundu onetan inbidiak indarrrik asko badaukala esan diteke. Besteren onaren damutasuna txarra da. Gorrotoa ere ortik etortzen da askotan. Eta ziur egon gintezke inbidiz bizi dana gaizki bizi dala. Eta gorrotoa daukana oraindik-eta okerrago.

Gorrotoak anima ere erre egiten du. Inbidia eta gorrotoa lo lasai egiteko lagun txarrak dira.

Ea, ba, urte berriaren asieran gure burua geiegi estutu gabe bizitzeko asmo sendoa artzen degun. Gaur gauean, asko ezpada ere, zertxobait ekarriko al digute Erregeak. Erregea ezpada etxe-ko erregiña oroituko al da gutaz. Eta gure eskerrona ager dezaio-gun, eta konformatu gaitezen ematen digunarekin, biar eta bizitza guztian. Artara izango degu zoriona etxean. Familiko pakea eta alkartasuna baiño oberik ez dago ezer mundu onetan. Ortik asi bear du ondo bizi nai duenak. Erregeak nola portatzen diran ikusi, eta gu beintzat ondo portatzen saia gaitezen, aurten ezpada urren-go urtean. Gizona ez da egun baterako izaten.

Urte berri bat ezagutzeak
beti du alaitasuna.
Eta pozkidaz artu dezagun,
au da komeni zaiguna,
ondo jakiñik munduan zer dan
gure aberastasuna.
Au da lenengo urte oni gaur
eskatu nai dioguna:
eman deigula tajuz antzean
bizitzeko osasuna
bizitzeko osasuna.

Zorionikan ezin omen da
iritsi diruarekin,
baiña gauz ori ezin diteke
proatu gaberik jakin.
Osasun bera gozoago da
diru apurtxo batekin...
Eta guk nola sarritan amets
egiten degun orrekin,
o, urte berri, aurten etzaitetz
erabat aztu gurekin
erabat aztu gurekin.

Urte berria, gaur osasuna
eskatu dizut aurrena.
Dirua ere bear degu, ta
andik pixka bat urrena.
Baiña nik uste, maitasuna da
doaietan ederrena,
gizon osoak izan gaitezen
guztietan bearrena.

Eman zaiguzu, gure bizitza
izan ez dedin errena
izan ez dedin errena.

1996ko urtarrillak 12

Nik uste det danok uzten degula zerbait datorren urtean egingo degula esanda. Urte berriarekin batera bizimodua zerbait aldatzeko egarri antza ez duenik ba ote da iñor? Danok gera, gutxi edo geiago, berrizale. Eta danok nai izaten degu bizimodua pixka bat aldatu, obeto bizitzeko itxaropenarekin. Zerbaiten ilusioa bear baita mundu onetan.

Onelakoan baliteke ezer pentsatu ezinda egotea ere. Eta kontseju emailleak ondo etorri litezke, onak izan ezker. Adarjoleak ere izaten dira ordea tartean, eta orduan bakoitzak pentsatu bear du zer egin, gure gidari oiek nundik nora dabilzan antzeman ezker beintzat. Zer egin jakin arren, al dana egin bear izaten da askotan, eta orduan aukera etorri arte itxaron beste bide-rik etzaigu gelditzen. Orainaldi onetan badauzkagu zer egin esaten diguten aolkari bizkorak. Itz gutxitan ematen digute bere epaia edo sententzia: diru gutxi aurreratzen degula. Jende geiagok lana izan dezan lantegiak moldatzeko, makinak erosteko eta lanbideak sortzeko dirua aurreratu bear omen da. Eta geuk aurreratu bear omen degu gaiñera. Ez dute esaten eurak asko bear dutenik eta orrelakorik. Makiña bat aldiz entzun degu dirua aurreratzea birtutea dala ere. Eta orrek ematen dit pena. Birtutetsuak santuak izaten dira. Langabeak, jubilatua, familiko guraso asko eta dagoen lekutik dirua artzerik ez dutenak, ezin ditezke iritsi santu izatera, ezin dezakete dirurik aurreratu-eta. Ez daukate, beraz, orrelako birtuterik. Eta gure artetik ez da santu asko aterako. Berriz ere aberatsak izango dira santu emen. Guri emanerazitako diruarekin zer egin erabakitzen duten oiek, aolku onak eman ez

baiña gure txanpon apurrak bear bezela erabiltzea obeko luteke. Orrela zerbait egingo genduke, sikira. Santu izatera ez gera iritsiko, baiña...

Egunero ikasi bear da zerbait berria. Gaur ikasi genezakeena da, makiña bat gizon eta emakume santu egin gabe geldituko dirala, aurreratzeke dirurik ez dutelako. Zenbat santu-gai alperrik galdu ote da dirua dagoen lekutik artuta gordetzerik izan ez dutelako? *Zenbat daukazun, ainbeste balio dezu*, dio esaera zaarrak. Komeria da auxe ere. Bere denboran fiñezi guztian lana egin duten asko eta asko ezin santu izan, dirua aurreratzeke birtuterik izan ez dutelako. Orain badakigu gizon edo emakume birtutetsua nola izan dan, santu nola egin dan. Eta egun eta santa sekulan santu egingo ez gerala ere bai.

Diru pixka bat aurreratzea birtutea da, diote.

Koroia jarri eta guztiok santu egin nai gaituzte.

Santutasuna ikusten det nik zerbaitengatik aparte.

Pobreentzako ez dago emen ez koroï ta ez birtute.

Danok aberats nai degu eta orrekin dauzkagu lanak, emen ezpaitu ezer balio poltsa zimurra daukanak. Birtute eta orrelakoak ez ote dira esanak?

Santutasunik izaten al du dirua gainez daukanak?

1996ko urtarrillak 19

Ez da beti erreza zer egin asmatzen. Txinan ume geiegi jaiotzen omen da, eta gobernuak ez daki zer egin aize-bolada orri atea isteko. Garaiz kontuak atera ezean, onelakoxe gauzak gertatzen dira. Mao famatu ark agintzen zuenean, zenbat eta jende geiago eta obe zala esaten zuten. Gerra bat etorri eta jendearen erdia garbituta ere etzegoela zertan kezkatu. Gau bat naikoa zala nai aiña txinokume mundura ekartzeko.

Orduan gaizki oitu ziran nunbait, eta orain ainbeste txinorekin zer egin ez dakite, egunean ogeita amairu mila aur jaiotzen dira-ta. Ogeita amar bat urte izango dira, bateko pildora eta beste teko beste, jendea bakantzen alegiñak egiten asi ziralara. Baiña oraindik ez dakite zer egin bearko duten txinoak txino artean ito ez ditezen. Famili bakoitzak ume bat baiño geiago egitea debekaturata dago Txinan. Leenago bai ederki, dana libre zutela. Baiña orain eutsi ezin, eta txino txikiak ankapetik kendu ezinda dabil-tza. Bigarren umea izaten duen familiari 30.000 pezetako diru-zigorra ezartzen diote, eta ala ere ezin dute karrerarik egin. Ume bakarra daukaten langilleei, lantsari geiago ematen diote, umeak ikasketak egiteko laguntza geiago, eta lanposturik onenak ume bakarrarentzat gordetzen dituzte an. Uri edo ziudadeetan bizi diranak tranpak ikasita omen daude. Baiña nekazaritzatik eta abelgintzatik bizi diranak deskuidatu egiten dira oraindik ere. Bear bezela esnatu gabe daudelako izango da. Soroan lana egin-da bizi dan jendea, kalekoa baiño sanoagoa izan, orratik! Umeak erregistroan ez apuntatu eta orrelako tranpa txikiak egiten dituz-te. Ala ere, larri ibiltzen dira, gobernuak egindako multak ordain-du ezinda.

Txinan ere eztago zerurik utsegiten duenarentzat. Industrietan eta ofizinan, eta orrela lana egiten duen kaletar jen-dea asko dakielako libratzen da. Baiña kanpoko lanean fiñeza guztiarekin lanean ari diranak ordaindu bear izaten dituzte bereak eta besterenak, malizirik ez daukatelako. Fiña eta zintzoa izateak ez du asko balio, ez emen eta ez Txinan. Mao bizi zala, ume bakoitza estaduarentzat langille bat zala esaten zuten. Langille bat geiago, eta merkea gaiñera. Orain, milla ta berreun milloi txi-nar daude, eta ia ezin dira kabitu ere. Kontua zera da: agintarien ankasartzeak erritar pobreak ordaindu bear izaten dituztela beti, bai emen eta bai an. Ume bat eta bi baiño geiago or-emen zabal-duta dauzkaten jauntxoak egongo dira, baiña aiek multarik ordaindu gabe libratuko dira.

Txinatar oiek azkarrak dira,
ori edozeiñek daki.

Eta lo artzen baldin badegu
nagusi ditugu aurki.

Txina aldean nola dabilzan
nabarmendu da ederki:
tranposo danak poliki eta
fiñak berriz beti gaizki.

Toki batzutan jendea dago
bear dan baiño geiago.

Beste batzutan askoz geiago
baldin balego naiago.

Zenbat geiago pentsatu eta
orduan ta okerrago...

Tranpa ona dan ala txarra dan
antzematerik ez dago.

1996ko urtarrillak 26

Italiatik etorri dan berri batek sekulako poza eman dit. Ango Gobernuak etxeoandreei pentsioa jartzeko asmoa omen du. Kanpoko guztia ondo iruditzen zaigu, eta ea noiz artzen diran emen ere Italian bezelako asmoak, erabaki ezkeron noizbait zerbait egitea liteke-ta. Asmo oiek burutuko balira, berrogeita amazazpi urte betetakoan pentsioa kobratzeko moduan izango lirake etxeoandreak. Pentsioa, jubilaria edo nai dezutena, baiña zaarsaria ez beintzat. Ura izango litzake ona. Berrogeita amazazpi urterekin etxeoandre askok neska gazteak ematen dute artean, eta nola esango diogu zaarsaria? Illero-illero pentsioa kobratzen asiko balira, mutil onek jarriko lirake, leenaz gaiñera. Artarako, kuota etxeoandreak ordaindu bearke omen luke. Eta nolako kuota ordaintzen duen, alako pentsioa kobratuko luke, jakiña. Estaduak ezte ezer erregalatzen. Leenbizi kendu eta gero eman, komeni bazaio. Ez, ba, etxeoandreak merezi ez dutelako. Langilleak lana egin zutelako kobratzen dutela zaarsaria esango degu. Baiña etxeoandreak ez dira bizi lanik egin gabe, eta ez egunean zortzi orduan bakarrik eginda. Jai eta aste gaiñera. Nere botoaren bear balira, pozik emango nuke etxeoandreei pentsioa jartzearen aldekoa. Orduan bai irabazian aterako lirakeela gure etxeoandreak. Senarrak ekarritako diruarekin kuota ordainduko luteke,

berrogeita amazapi urte bete artean pazientzi pixka bat artuta, eta urteak iristean jubilatuta zaartu baiño leen eta orra etxeko nes-kame ziranak benetako etxekoandre egin. Ez litzake izango aiei gona barrendik elduta eutsi besterik! Uraxe izango litzake zenbait senar trakets arrastoan sartuerazteko modua. Batek baiño geiagok belarriak makurtu bearke lituzke.

Beste alde batera pentsatzen jarri ezker, etxekoandreei pentsioa emateak mesede aundiak egingo lituzke. Diru pixka bat eskuetan izan arren, or konpon!, esanda senarrari alde egiten ez dionak, maite duelako ez lioke alde egingo. Ez litzake izango jor-nalik gabe ezin duelako senarraren mende egotea. Eta bildurrak sortzen duen menpetasuna baiño milla aldiz ohea da maitasunez gozatutako alkar-bizitza. Ez dago alako dibortziorik.

Pentsio asmo ori aurrera eramango balitz, famili guztiaren-tzat izango litzake mesedea. Emakume sorgiñak beti izango dira, eta gizon burugabeak ere bai. Baiña etxean premi esturik ez dane-an, senarrak ez dira ain baldarrak izaten. Eta badira senarra ia-ia dirua aiña maite duten emazte zintzo eta maitagarriak ere.

Etxekoandreen bizimodua
nere ustez da estua.
Bear bezela ez baita aintzat
artzen langille prestua.
Berea eman bear zaiola
daukagulako asmua,
langille ona ondo ordaindu:
ori da gauza justua.

Denborarekin gauza bakoitza
joaten da bere tokira.
Eta orixe desiatzen det
etxekoandreei begira.
Emazte pranko irtengo dira
illunpetatik argira
noizbait bederik pentsionista
danak egiten badira.

1996ko otsaillak 2

Otsail txikia estreñatu degu. Txoro fama badu, baiña ezin asiko gera bertatik gaizki esaka, nola portatuko dan eztakigu-eta

oraindik. “Kandelarioz bero, negua gero. Kandelarioz otza, negua motza”. Gero ikusi bearko orrela dan ala ez.

Aspaldiko garaian, gaurko eguna jai izaten zan. Jai, eta kandelak bedeinkatzeko eguna. Orregatik esango zaio kandelario. Gaur egun bedeinkatutako kandelak urteko gorabera guztietan laguntzeko birtutea izaten omen zuten. Ekaitzik txarrenak ere berealaxe baretzen ziran kandela bedeinkatua piztu ezker. Gaixotzen ziran bei eta beste abereak sendatzeko albaiterorik onenak ere aiek izaten omen ziran. Etxean lanik asko edukiarren baserrietako etxeoandreak zintzo joango ziran elizara kandelak bedeinkatzera. Ekaitz gogorren bat sortu eta trumoi-otsarekin bildurrez airean jartzen giñanean, kandela bedeinkatua laister piztuko zuen amak. Nik eztakit deabruak uxatuko zituen, baiña kalterik etzuen egiten. Basarritarrak bezelaxe arrantzaleak ere oitura orixe omen zuten ekaitza zanean kandela bedeinkatua pizteko.

Illuntasuna zer dan aaztuta bizi bagera ere, bildurrik asko ematen zuen garai batean. Eun urte izango dira gutxienez Euskalerrira argindarra etorri zala. Geroxeago ere etzan orain bezin argi segurua, baiña kandela-argia baiño obea zan. Kandelak bedeinkatzen dira orain ere, baiña eztakit trumoia jotzean iñork pizten dituen deabruak uxatzeko. Aurrerapenak siniskeri asko baztertu dituzte, eta batzuentzat kalteak ekarri ere bai. Argindarra etorri zanean, kandela egille asko lanik gabe gelditu ziran. Aiek etziran oso gustora izango. Danak etzuten ordea etsi. Saiatuak ziranak kandela egiteari utzi eta gozogintzan asi ziran. Kandeleroak, konpitero eta pastelero biurtu ziran. Eta bateko gozo eta besteko pastel, bizimodua ederki gozatu zuten. Leengoari utzi eta lan berri batera salto egiteko ausardirik izan etzutenak berriz, bizi ezinda gelditu bear, geienetan gertatu oi dan bezela.

Ekaitzak eztira baretzen kandela bedeinkatua pizte utsarekin, eta etsaiak ingurutik bialdu ere ez. Oitura zaarrak gordetzea oso ondo dago, eta polita da. Baiña aurrerapenei muzin egin gabe,

eta garaian garaiko bizimoduari elduta. Idiazabalداررائ ezta egongo orrelakorik esan bearrik. Bizitzen ez ezik, ondo bizitzen ere badakite eta ez dute aukerarik alperrik galduko. Bestela etziran izango axeriak. San Blas jai bikain batzuk pasa ditzatela. Norbaitzuek ordu batzuk kandela-argitan pasatu naiago izango zuten, bear bada. Baiña ez dago danen gustoa egiterik.

Festazaleak gaurtik asita
Idiazabal aldera,
toki onaren berri dakian
axeriaren antzera.
Batek zergatik utzi bear du
bere gustoko joera,
or izanikan errietako
urteko jaien asera?

Urteko festa illara asten
iñork nai badu ikasi,
guztiontzako zer komeni dan
esango nuke gaur kasi:
Lendabizitik formal antzean
obeko degula asi,
eztarritikan ez gaixotzeko
errezatuaz San Blasi.

1996ko otsaillak 9

Gu gaztetxo giñala, ijito danak beltzak zirala uste izaten genduen. Beltzak edo oso kolore argikoak ez beintzat. Denborak asko erakusten du, eta denborarekin ijito zuriak ere bazirala ikasi genduen, eta hungrianoak esaten zitzairen. Baiña denbora joan eta denbora etorri, noizbait konturatu giñan orratik ijito billa etzegoela iñora joan bearrik. Bertan ere bazeudela, eta ugari gaiñera. Orain eztakigu asko, eta orduan gutxiago berriz. Eta kosta zitzaigun ijito zurien berri ikastea. Azkenik, bizitzak erakutsi zigun. Astoak saldu eta astoak erosi eta orrela ibiltzen ziran ijitoak, egun argiz beintzat. Gauaz beste lan batzuk ere egiten zituzten: oillotegiak bisitatu, etxeinguruak ikusi eta orrela. Ezer etzegen tokian etzuten arrasorik utziko, baiña zerbait zegoen tokian bai atzaparrak azkar itsatsi. Ikusmen oneko jendea izaten zan, bista onekoa, alegia. Ijito asko ikusi det, baiña ez det ikusi betaurrekodun ijitorik.

Ijitoak Hungarian izaten dirala egia izango da. Eta ijitoak diran tokian izango dira ijitanak ere. Hungariatik etorri dan berri batek dioenez, orain urte pare bat ezkondu zan hungariar gazte batek emaztearekin naiko ez eta kerida ere inguratu omen zuen. Eta, zer gertatuko eta bi emakume oiek gizon gazte ori beretzat nai omen dutela. Pikaro danak suertea izaten dute. Dana dala, keridak etxebizitza bai omen dauka, baiña gizonik ez. Eta andreak, gizona bai baina etxebizitzarik ez. Danak ere ijitoak izan, eta bi emakumeak ez dakit zenbat denboran bat eskatu eta bestea eskeiñi ibilli ondoren, tratua zerratu omen dute, ijitana jator bezela alkarri esku eman eta zeremoni guztiekin. Semea ere bai omen dauka gizonak. Eta keridak ori ere jakin, eta balio duen gizona dala ikusi duenean, etxebizitza eman omen dio andreari. Eta keridari gizona andreak, nolakoa zan proatuta zeukalako. Eta danak konforme gelditu dira. Esan bezela, gizona ijitoa izango da, baiña emakumeak ere ez dute asko faltako ijitanak izateko. Nolako Peru, alako Mari.

Emen eztaikit orrelako traturik egiten dan. Hungarian gizonak dexente balio dutela esan diteke. Etxebizitzak kostatzen diranarekin, ainbeste balio izatea prezio polita da. Ez al gera asiko an bezela, bestela makiña bat senar salgai jarriko da emen ere.

Egiarekin ez da
jartzen fama txarrik.
Gertatzen dana esan,
orixe bakarrik.
Bai al da ijitorik
ez dagon bazterrik?
Ez dago Hungariatik
ekarri bearrik,
ez dago Hungariatik
ekarri bearrik.

Emen ere ijitoak
badaude dexente.
Eta danak aurpegi
beltza ez daukate.
Txanpon batzuen truke,
nik ala det uste,
famili osoa ere
salduko luteke,
famili osoa ere
salduko luteke.

Zerutik mundura erortzean, batzuk zutik gelditzen omen dira, eta beste batzuk lurra jo eta talo eginda. Sekula bururik ez altxatzeko moduan. Munduan gertatzen dana ikusita gero asma-tutako esaera izango da. Batzuek etxe onean jaio ziralako bizi-modu ona izaten dute, eta beste batzuek egun bat onik ez, esate baterako, jaiotzea beste errurik izan ez arren. Bere denbora guztia eziñean pasatu bear. Nik uste det Euskalerrian emakumeekin gertatu dala ori, batez ere. Pasatutakoak aaztu egiten dira, baiña emakumeen garai bateko bizimodua gogoratzean pena artzen degu oraindik ere. Berandu bederik, Aurrezki Kutxa eta orrelakoak asi ziran emakumeentzat laguntasunak ematen, batez ere aurdun zeudenean. Donostiko Kutxa orain irurogeita lau urte asi zan ortan, eta Donostiko emakume askok suertea izan zuten. Orduko gizarteak, ezkontza, ama izatea, iñudetza, etxeko lanak egitea eta oiek jotzen zituen emakumeentzat lanik egokienak. Premian egon ezkeru, emakumeak etxetik kanpo lana egitea etzegoen gaizki ikusita, baiña berari zegozkion lanetan bakarrik.

Orain larogei urte, Donostiko Aurrezki Kutxak sei idazkari-entzat lana eskeiñi zuen. Etzan beste munduko gauza, baiña zer gertatuko eta etzuten, ba, lan ori eskatzeko asmoa artu emakume batzuk?! Eta asko arritu egin ziran, eta beste batzuk zearo asarretu eta emakumeei lan ura ematearen kontra irten ziran. Emakumeak etziralara Akademia Militarrrera joaten eta ofizinara ere ez. Neskametza, sukaldaritza, plantxa, jostun eta orrelakoak zirala emakumearen lanak. Kontuak isillik edukitzen ere etzekitela. Eta, bateko aurdun zeudelako edo besteko beste, gizonetzko-ei lana kendu bai baiña aien tokia etzutela ondo beteko esaten zuten. Askok ala pentsatzea arritzekoa al zan, elizan ere gizonetzkoengandik aparte egon bear izaten zuten-eta?

Alare, zuzendari danak etzuten orrela pentsatzen. Gizonak aiña eskubide zutela bizimodua ateratzeko, eta azterketa edo esa-

miña egin eta lanerako balio zutela erakusten bazuten, etzegoela emakumeei lana eman eziñik, artarako lantegiko araudi edo reglamentua aldatuko bazan ere. Gizon zuzen eta arrazoizkoak baziran orduan ere, eta aiei eskerrak. Emakumea dagokion maillara iritsi dala edo ia iritsi dala esan diteke, gure artean beintzat, baiña ondo kostata. Emakume bat bi gizonen erdian soroan laian aritzen zan garai artan, Donostian bapo bizi ziran zuzendari bizar aundi aiek etzeukaten naasteria sortuko zan bildurrik.

Istoriari begiraturik
kontu zarren ikusmiran,
jakingo degu emakumeak
nola bizi izan diran.
Fin dabillenak konturaturik
aitortuko du segiran:
orain matxistak gerala baiña
lenago ere baziran.

Elizan ere egoten ziran
gizonezkoen atzean.
Aulkirik ere etzuten eta
larri belaunikatzean.
Erresponsoak atera bear
gero meza bukatzean,
eta lan danak atzeratuta
ondoren etxeratzean.

1996ko otsaillak 23

Mundua korritutako gizonak asko jakiten dute. Eta oietako batek Euskalerritari buruz emandako iritzi batzuen berri eman nai nuke gaur, labur bederik. Amerikan urte mordoska pasatua da gizon ori. Asko ikusi eta asko ikasia. Euskalerrria ondo ezagutzen du, eta aren iritziak aintzakotzat artzekoak dirala iruditzen zait. Pertsona edadetuak baztertuta bezela gelditzen badira ere, orduantxe ikusten omen dute ondoena munduan zer gertatzen dan. Etzaizkio asko gustatzen gizon orri emen gertatzen diran gauza asko. Ala ere, leengo denborak oraingoak baiña txarragoak zirala esaten du. Mundua aurreraka dijoala eta azkar gaiñera. Bateko teknika eta besteko aurrerapenak, bear bezelako gizonak izaten ikasteko denbora geiago bear degu guk munduak aurrera

egiten baiño. Gizonari asko kostatzen zaio geroz eta ohea izaten. Euskalerria ikusita, esan diteke euskaldunok aurreraka joan bearrean atzeraka goazela. Erri onek madarikazio bat daukala dirudi. Bakoitzari geure aldetik ibiltzea gustatzen zaigu. Guztion onerako zerbait egin bear degunean, bakoitzak bere aldera tira egiten du emen. Sokatiran bezela bizi gera.

Gaztediari buruz ere itz egin du gure jakintsuak. Jakintza eta kultura gauzetan utsune aundia omen dauka gazteak. Bere ideak bear bezela itzez azaltzen ez omen dakite. Eztabaidaren bat sortzean ikusten da ori ondo. Zerbait esaten zainean, azkar erantzun nai eta gorri-gorri eginda jartzen dira, pentsatzen dutena esateko erreztasunik ez daukatelako, asarretuta. Oraingo gazteak leengoak baiño erreztasun geiago dauka nai duen guztia ikasteko. Karrera bat egitean, karrera orrek eskatzen duen guztia omen daki, baiña ortik aurrera ezer gutxi. Karrera bukatzean dana egin balute bezela gelditzen dira, baiña ikasteak ez du amairarik, ikasi nai duenarentzat. Gazteak gutxi irakurtzen duela dio gure gizonak. Munduko jakintsuak zer eta nola pentsatzen duten jakiteko ez dago irakurtzea bezelakorik. Eta irakurri ezean, ez dago garrantzizko pentsamentuen berri jakiterik. Orixe da gazteei esatea karrera bukatu arren gauza asko gelditzen dirala ikasteko, eta ikastea ondo merezi dutenak gaiñera.

Gero, ondo bizitzeko, dirua pillatzea bakarrik ez dala naiko esaten du. Nork bere burua trebatzea bear-bearrekoa dala. Gizona ala jartzen dala zaartu eta nekatzen danean, mundua nola dijoan leiotik begira egoteko moduan. Itz ederrak dira, baiña gazteak kontuan eduki beariko du garaian diru pixka bat aurreratzen ezpa-du zaartzean ez duela estimazio aundirik izango.

Ustez naikoa badakigula
ta ez lasai egin dantza,
gaurko bizitza leuna biar
gertatu ez dedin latza.

Orain arrosa dana gerora
izan liteke arantza.
Ikastea da aitxurtzen iñoiz
bukatzen ez dan baratza.

Gerora zerbait izango dala
ta ez gauzak artu lasai.
Kontuak ondo atera gabe
ez bota dana nolainai.

Gure gertuan zer gertatzen dan
ikusiteke noiznai...
Ezer ez daukan ura ez dute
ospitalean ere nai.

1996ko martxoak 1

Martxoa etorri da aurten ere, eta neguan baiño egun luzexegoak izango ditugu beintzat. Eta alakoxe bizitasuna ematen du orrek, eguraldi onaren poza ere bai. Andre Mari martxoko zalako sorora lanera joan aurretik meza entzun bearreko egun aiek joan ziran. Izan ere, gogo txarrarekin mezetara joan eta gero lanak arrapatu eziñik eta gizatxartuta eguna pasatzea baiño ez al da obe, etxeckoekin eta auzokoekin ondo konpontzea? Onela ere merituak irabazi ditezke, noski.

Pronostikoak diotenez, illabete onen erdia negu antzekoa izango omen da. Izotz eta guzti, eguraldi otzak eta legorrak egingo omen dituela esan dute. Osasunerako ere txarrak. Eta gero, illaren erdi aldetik aurrera asiko omen dira eguraldi ezeak eta lasaiak, barazki asko artzeko modukoak. Aurtengo martxoa kuarta denbora eta guzti asi zaigu. Biar dute azkenengo eguna. Liburuak diotenez, kuarta denborak Elizak jarritako egunak dira, otoitza, bijilia eta barau egiteko. Ez det uste eguraldiarekin zeri-kusirik dutenik. Badira ordea bestealdera pentsatzen dutenak ere. Biar gauean dute aukera eguraldiari begiratu eta martxoa nolakoa egiten duen zaintzeko. Neronek ez tet batere sinisten kuarta denbora kontu orretan. Joan zan agorrean kuarta denborak bukatu ziran gauean eguraldi petrala zan oso. Urrian etzala uso asko pasatuko esanez joan giñan etxera, baiña koarta denborari jaramonik egin gabe mendira sarri-sarri joan ziran eiztariak uso sorta politak ekarri zituzten. Asko danean danontzat izaten da zerbait, eta nik ere ezpafiñak ederki igurtzi nituen. Ortik pentsatu usorik

etorri zan ala ez. Baserritar bati entzun nion leengoan, joan zan udaberrian edo, eguraldiaren berri ematen duen jaun batek esan zuela baserritarrak pena ematen ziotela, eta udan etzutela tomateak biltzen lan aundirik izango, kuarta denboratan eguraldi txarra gelditu zala-eta. Baiña baserritar aren etxean sekula baiño tomate geiago eta ohea izan omen dutela, zorionez. Irratitik-eta eguraldiaren berri ematen duten meteorologo oiek ematen didate neri pena pixka bat. Borondaterik onenarekin egiten dute lana, baiña aize-bolada bat naikoa izaten da laiñoak zeruaren alde batetik bestera eraman eta aien pronostikoak ipurdiz gora botatzeko. Eguraldi-maixu oiek apropos eginda baiño ere jatorragoak izaten dira geienak, eta orri eskerrak. Pazientzia artzen oituta daudelarik, bere uste asko atzekoz aurrera irten arren, zintzo jarraitzen diote lanari. Eta batzutan asmatu egiten dute gaiñera.

Nun dago beste agintari bat
eguraldiaren berdiña?

Nai duan dana egiten digu,
ori da gauza jakiña.

Eta gugatik ajola gutxi,
izanik oso sorgiña,
gure esana egin bear balu
baleukake zer egiña.

Koarta denborai buruz sinistu
jakintsuak diotena...

Oiegatikan eguraldiak
egiten du nai duena.

Otz, bero, busti eta legorrak
erak derizkiotena.

Ez egin kaso ta ondo bizi:
orixe degu onena.

1996ko martxoak 8

Famili askoren jokaera ikusita, kezkarik asko bada bazterretan. Danok ondo bizi nai degu, umeak traba egiten omen digute eta saltsa guztiak familian ondo konpontzen ez geralako sortzen omen dira. Dana ez da gezurra izango, baiña erru guztia familieren bizkar botatzea ez al da geitxo izango? Gizon-emakume jator askoren eskutik dabiltzan famili onak ikusten dira. Orrelakoak ez

dute ordea zaratarik ateratzen. Alkarren arteko pakerik ez, eta ala ere sakabanatu ezin diran familiak ematen dute zer esana. Nai duten guztia daukatelako, nai dutena egiñez eta nolana bizi diranak ez dute ejemplo txarrrik ematen. Alakoak egiten duten guztia grazitan erortzen da gaurko munduan.

Sikologo, sikiatra eta orrelakoak saiatzen dira oker dabiltzan familiei beren aolkuak ematen. Oiek esaten dutenez, familiko arazoak pazientziarekin artu bear dira, akatsak danok dauzkagula pentsatuta. Gurasoak zuzen eta zintzo jokatu bear dute. Nola ez? Eta seme-alabei ermo eutsi okerreko bidera joan ez ditezen. Leen ere bazikiten, baiña gurasoak badakite orain zer egin bear duten. Ori egiteko bear duten laguntasuna nun daukaten, orixe ezta kite. Sikiatrak ezpaitute esaten. Gaitza sendatuko bada, nundik datorren jakitea bearrezko da ordea. Badaude ori dakitenak, baiña isillik gordetzen dute. Familiak iraungo badu, eta guraso eta seme-alabak alkarren etsai biurtuko ezpadira, etxeko premiak ondo estalita edukitzea bearrezko da. Jan, jantzi eta gaurko bizikerak eskatzen dituen ikasketak egin eziñik ez da bear. Orretara iristen ez dan familian ezin diteke pakerik izan. Pazientzia gauza ederra da. Baiña laguntzen ezpazaio, agortu egiten da. Eziñean bizi danarengana ez joan batak bestea eraman bearra dagoela eta orrelakoak esanez. Bizitzeko lain eduki ezak jenio txarra berekin du, eta lagun txarra da etxean pakea izateko. Eta bizitzeko lain ez daukatelako asarre bizi diran gurasoak zer esan bear die seme-alabei? Pazientzia artze-ko? Ez dira leku txarrera joango pake billa! Iñori kontsejuak ematik bizi diran oiek zebreak jartzen dira batzutan. Familietan asarrerik eta naasteririk izan ez dedin zer egin bear dan esatera gurasoengana jotzen dute, gurasoak dana bere esku baleukate bezela. Etxean pakea izango bada, premiak estaltzeko lain irabazi bear da, eta orretarako lana izan. Gaur famili askotan ez dagoena.

Nik uste det borondate oneko sikologo eta sikiatra oiek politikoen eta agintarien artean banatu bear lituztekela bere erakutsiak. Ez ote daukate oiek gurasoak baiño sikiatra premi geiago?

Entzuten diran kontseju onak
ez dira oso motelak,
sendietatik aldegin baitu
giro samur ta epelak.
Kontsejatzaille guztiak ere
ez dira, noski, ergelak.
Baiña ez dute iñor gizentzen
eskeintzen duten okelak.
Zerbait obea bear du aizez
beteta dagon sabelak.

Kontseju onik ez nuke nai nik
iñorengandik aldendu,
eta ain gutxi bizi izateko
bear dan poz ura kendu.
Baizik agintzen dutenengana
egi garbiak zuzendu,
zenbait gurasok ezin badute
bere sendia mentendu.
Premiz beteta dagon etxean
itz utsak min ematen du.

1996ko martxoak 15

Inglaterra alde orretan ere badago jende zelebrea pranko. Ingelesak badute, ba, jende lasai eta patxaratsuaren otsa. Baiña ango labetan ere moeta guztietako opillak erretzen dira. Eztabaidaren bat sortzean alkarrekin asarretu gabe itz egiteko, ingelesak artu oi dira eredutzat. Aiek bezelako gizalege edo edukazioa eta pazientzia bear dirala, alegia. Alaxe izango da, baiña an ere badaude iñor zirikatzea gustatzen zaienak, eta pazientzitik atera arte zirikatu ere.

Tabernari batek neskame igar-igar bat omen zeukan. Ain argala zegoen neska gazte ori, nagusia nundik ura zirikatuko eta ura nola bere onetik aterako aritzen zan. Tabernako bezeroen aurrean ere etzion pakerik ematen. Ezkontzen zanean senarrak nundik eldu bear zion, eldulekurik etzeukala-eta. Edade artan ain argala ikusteak pena ematen ziola esaten zion. Eta soldata jaso bearko ziola. Orain dauden aurrerapenakin silikonarekin edo nola edo ala aurrekaldea pixka bat itxuratzeke, sikira. Bizikletak puzten diran bonba oietako batekin puzteke, besterik ezpazan, eta kolko ingurua tajutzeke, pixka bat.

Ingelesak ez dirala nolanai asarretzen, baiña neska gajoa aspertu ordea nagusi tabernariaren zorokeriak entzuten, eta epaitegira joan eta salatu egin zuen, denuntziatu alegia. Epailleak tabernariak baino juizio geixeago eduki orratik, eta milloi erdiko multa egin dio nagusi ergelari. Bere ustez bizkorra izango zan, baiña neskamea bizkorragoa izan nagusia baiño. Orain neskamearentzat lana egin bear nagusiak, milloi erdia emateko. Diru ori irabazi artean izango du astia kaskarrari atzegiteko. Eta neskamea lasai parra egiteko moduan geldituko zan. Nagusiaren diruarekin obeto dotoretuko du kolko inguruan, bizikletak puzteko bonbarekin baiño. Eztakit neskameak tabernan jarraitzen duen ala ez. Alde egiteko ere len aiñean gelditu da. Eta baliteke nagusia aoa bete ortzekin utzi eta alde egitea ere. Nagusi kaskaillu aren ondolan lana egiñez etzeukan milloi erdia aurreraturik!

Mundua onelaxe da. Ustez gu baiño gutxiago dan bat erara arrapatzen degunean, ura zirikatzeke gertu egoten gera. Batak bestea tentatzea polita da, neurritik pasa ezean. Gorputzean akatsen bat daukanari txantxetan esaten zaiona ere eztenkada iruditzen zaio. Auxe kontuan eduki bear genduke: emen danok gerala amaren seme edo alabak, Inglaterrako neskamea bezelaxe.

Iruditzen zait mundu onetan
 adarjole asko dala,
 burloso eta buruariñak
 nunai ikusten dirala.
 Baiña pentsatu gizalegeak
 garbi esaten duala:
 iñoren gaitzak pozten duana
 ez dala kristau formala.

Lagun artean gogaikarri da
 beti pertsona ergela.
 Ustez bera da bizkorrena ta
 mundu guztia motela.
 Pentsa dezagun broma kontuak
 bere neurria dutela,
 min eman gabe erabiltzeko
 bertsolariak bezela.

Mundu au burruka leku utsa dala, oraintxe ez dala giro emen bizitzen eta zertzuk ez ditugu esaten? Arrazoirik etzaigu falta izaten askotan. Ori ere egia da. Gutxiena uste degula min artzen degunean, ai! esatea ez da arritzeko.

Ala ere, berri onak entzuten ditugu noizean bein. Eta au ere itxaropen bat da. Alemaniatik etorri zaiguna ain txarra danik ezin esango degu beintzat. Ango sendagille talde batek, gibel artifiziala asmatu omen du. Ez dirudi nolanaiko asmakizun edo inbentua danik. Gibel txarra daukanari berea kendu eta il dan beste batena txertatzea aurreraka dioa. Txertatzeko gibelik izango dan ala ez, eta beste zailtasun batzuk badaude oraindik ere. Baiña alemaniarrek asmatu duten onekin, gaixo dagonak irauan omen dezake txertatzeko gibela izan arte.

Gauzak guk nai bezela ez dijoazkigunean, gibelaundiak esaten diegunen inbidiz egoten gera, “orri etzaizkio bereala gibelean arrak egingo”, esanez. Orain asmatu duten makina onekin ikusten nago gibeletik gaixotzen diranak aukerako gibel aundi bat izan arte itxoiteko moduan izango dirala. Makiña orren muiña, edo parte nagusia, zerriaren gibelarekin egiten dute. Zerriak nolako bizimodua izaten duten badakigu. Naikoa jaten eman ezkerro, ezeren kezkarik gabe lasai asko bizitzen dira, lo lasai asko egiñez. Esan duteenez, gibela konpontzeko makina ori noiznai martxan jartzeko moduan dago. Abereekin probak egin dituzte eta ondo funtzionatzen du. Ea, ba, gibeletik gaixo dauden guztiak gibel berri aundi bana txertatu eta lasai eta patxaran bizitzeko moduan izaten diran. Gauza zailagoak egin dira. Eta baliteke ori ere oso urruti ez egoitea. Txantxak alde batera utzita, uraxe bai pozgarri izango dala. Eta ez nintzake batere arrituko gaur edo biar Alemanian bezelaxe emengo klinikatan ere gibelak txertatzen dituztela entzutearekin. Bizitzak buelta ederra artuko du, ernegatuta bizi diran asko eta asko lasaitu eta umore oneko gibelaundi biurtzen diranean.

Atzo ezkeru udaberrian gaude. Au bera ere berri ederra da. Udaberriak ere izaten ditu aitzakiak: bustia dala, aize otza egiten duela eta abar. Ala ta guztiz ere, polita da, eta negua baiño ohea. Artu dezagun umore onarekin eta itxaropenez. Ez det esango ajo-lakabeak izan bear degunik. Baiña, gibelaundi samarrak izaten saiatuko bagiña, ez al giñake obeto biziko? Udaberriaren edertasunak alperrik galdu gabe, al deguneraiño lasai bizitzeko modua egi-teak ainbeste merezi du. Ongi etorri egin dezaigun udaberriari.

Udaberria, zalantzik gabe
zu zera edertasuna,
mendi ta ibar, baso ta zelai
lorenz janzten dituzuna.
Gaixorik dauden gorputz-animen
arnas berri, osasuna.
Usai gozozko musuz zentzuak
txoratzen dizkiguzuna...
Zer ote zera: maitasunaren
deia ala oiartzuna?

Udaberria zer dan esaten
eziñean zertan ari?
Galde zaiozu ibai ondoko
lili txuri apalari,
edo mendian ostoz jantzi dan
pago sendo mardulari.
Nik auxe diot udaberria
ikusi nai duanari:
apirillean bisitatxo bat
egin Euskalerruari.

1996ko martxoak 29

Garai batean monja joaten ziran neska gazteak sekulako merituak irabazten zituzten. Mundua edo munduko atsegiñak utzita zerua irabazteko modua egin bear zan orduan. Komentuan sartu ezkeru mutillekin pentsatu eta pekatu egin bildurrik etzala, eta orra dana konponduta. Bere biotzeko azukre-koskorra monja joan eta bakarrik eta triste gelditu zan mutillaren errukirik etzuen izaten iñork. Norbera errez salbatzeagatik, mutil gizarajo bat bizi guztierako penaz beteta uzteak etzuen kezkarik ematen orduan. Ori ez al zan berekoi izatea eta ezkontzari garrantzi gutxi ematea? Emazteak arrastoan sartuerazitako gizon aldrebesak izaten dira

gero! Orduko anima-zuzendarien pentsakerak naigabe bat baiño geiago sortu zuen.

Orain badirudi gauzak azpikoz gora jarri dirala. Aita Santuak egundoko gorantzak egin ditu emakume ezkonduentzat. Esan duenez, emakume ezkonduak ez dira aintzakotzat artzen, bear dan bezela. Emakume ezkondueri etzaie gizonaren mailla berdiña ematen, eta aien lana ez da ordaintzen gizonen lana bezela. Eta ori gaizki dago, oso gaizki. Ama izatea ere, eskertu bearrean zigortuta dagoela dirudi, askotan beintzat. Gizadia oraindik bizi bada, emazte eta ama izatea aukeratu zuten emakumeei esker bizi dala esan du. Pozik egon ditezke gure etxekoandreak. Bazan garaia emakumeak aintzakotzat artzeko eta mudu onetarako beste edozein bezin bearrezko dirala aitortzeko. Zenbait elizgizon ere ez dira bereala jeitsi asto gaiñetik. Zenbait gizon, emakumerik izan ez balitz, etzala jaioko, eta jaiota ere amarik izan ez balu, bizirik etzala aterako konturatu gabe bizi da. Etzuen leenengo aldia izango, baiña berriz ere garbi asko itz egin du Aita Santuak emakume ezkonduari berea eman bear zaiola esanez. Orain, aren erakutsiei jarraitzea naikoa da emakumeekin injustizirik ez egiteko.

Emazte eta ama asko eta asko dauzkat gogoan une onetan. Zenbat ote dira etxekoentzat bazkaria prestatzen ari diranak, edo etxekoei bazkaria eman ondoren, presaka batean bazkaltzen ari diranak? Amaren lanak askotan ezpaitute bukaerarik izaten. Leengo neska gazte polit aiek, danak monja joango ote ziran bildur giñan, garai batean. Danak etziran joan beintzat eta orri eskerak, bestela zer atarramentu aterako ote genduen? Emakumerik gabeko etxea motza izango da. Sukaldariak dirala edo gaixozaiak dirala, elizgizonentzat ere monjatxoan laguntza ederki etortzen da, eta monjak ere emakumeak dira.

Naiz ta zerua irabazi nai
gaztetan monja sarturik,
nork lagundurik gabe ez dago
salbatzerikan mundurik.

Ea moldatzen geran alkarri
apurtxo bat lagundurik.
Aingeru danak igesi joanda
ez da izaten zerurik.

Neska gaztetxo politak ere
dira Jainkoak egiñak.
Eta arretaz zaindu ditzagun
orrelako klabeliñak.

Emen aurkitu ditzaten euren
pozak eta atsegiñak,
munduan ere bear baitira
lore eder eta fiñak.

1996ko apirillak 5

Ostiral Santu. Aste Santuak ematen du zer esana. Animari begiratu bat ematen pasatu bearreko egunetan, gorputzari kutiziak bete ezinda ibiltzen gera. Gorputz osasuntsuan anima ondo gordezten dala ere esaten da, eta noizean bein atsedean pixka bat artzea ez da pekatu izango. Bakoitza bere neurrian, biak izango dira onak. Edozer gauza egiten degula ere, izango da zer esana. Iñori kalterik egin gabe, komeni zaiguna egin eta isillik egongo bagiña, ez litzake orrelakorik izango. Ori ez degu egiten ordea. Eta orrek gaizki erabiltzen gaitu. Aste Santuak danerako astia ematen du. Astia eta nai aiña aukera. Animari konpondu pasada bat eman nai dionak izaten du ori noiz egiña. Eta txangoalditxo bat artu nai duenak ere bai. Zer geiago eskatu bear diogu Aste Santuari?

Gipuzkoako Goierri alde onetan ez daukagu gaiñera orretarako urrutira joan bearrik. Bear dan guztia aurkitu liteke Seguran eta Segura inguruan, bai animari eta bai gorputzari komeni zaiona emateko. Segurako prozesioa ez da Sevillakoa bezin sonatua izango. Ez du ainbeste zarata aterako, baiña arek ainbestexe balio du. Sermoi ederra entzun eta Jesus gurutzetik jeisten ikusi ondoren, animako goraberak aztertzeko denbora izango da, eta otoitz egiteko ere bai. Bere anima zerbaiten egarriz daukanak, Segurara etortzea naikoa du. Urteko zekorra saldu nai zutenak, izan dute aukerarik asko joan diran egunetan, eta segi aurrera. Leengo oitura danak ez baztertu, pixka bat aldatuko baditugu ere.

Animarekikoa egin ondoren gorputzari berea emateko toki ederrak ere badaude Goierri alde onetan. Segura bera toki ona da.

Segurako lanak egin, bere inguru zoragarriak ikusi eta beeraka joan nai duenak, Lierni urbil dauka. Goraka joan nai duenak, Zeraiña bidean sagardotegi ederrak badauzka. Ez dira leku txarrak aldapa igotzeko indarberritzeko. Zerain ikusi eta aurrera joan nai duenak, Aztiriko gaiña ere ortxe dauka, bere erretegi eta guzti. Orra esan toki atsegin eta paketsuak nun dauden, egunari bukaera ederra emateko. Zertan ibilli arriskuz betetako kamiñoetan aurrera urrutira joaten? Ori gazteentzat uztea izango degu onena juizioan sartuta gaudenok. Bertan goxo egiñez ere Aste Santu egokia pasa diteke. Eta au edo ori egin dutelako besterengatik gaizkiesaka jardun ezean, askoz obe.

Ostiral Santu izanik
atsedenari emanik,
eguna pasa arren ez esan
gaiztoak geranik.
Gorputzak bear duanik
ez nuke ukatu nai nik.
Baiña anima badaukagula
aztu gabetanik.

Oroitu Jainkoarekin
ta lagun urkoarekin.
Arrastotikan ez irtetzeko
saiatuz alegin.
Bide zuzenari ekin
etsipen danak desegin,
Ostiral Santuk Pazko alai
baidakar berekin.

1996ko apirillak 12

Asko aurreratu gera aspaldi onetan. Edozer lan egiten ikasteko eskolak duten garrantzia ikusteraiño, alazankoa! Garai batean zeñiek esan bear zigun artzantzan ikasteko eskolak bearko zirala? Iritsi gera orretaraiño ere. Euskalerriko mendietan egiten dan gazta, Idiazabalgo gazta deitzen deguna alegia, saltzen dan baiño geiago saldu omen liteke. Baiña eztago bear aiña artesne, esaten dutenez. Zaartu ala bakantzen ari dira artzaiak, eta ez dator artzai gazterik. Artzantzak tajuz bizitzeko lain diru emango balu, artzaiak izango lirake berriz ere. Orretarako, oraiñaldiak eskatzen

duen bezela lana egiñez ardiei etekiña ateratzen jakin bearco litzake. Orain aiña lan ta lotura gabe, artesne geiago biltzeko modua egingo balitz, etorkizuna izango luke artzantzak.

Artzai izaten ere jakin egin bear ordea. Ardiak nola erabilli, gaitzak arrapatu ez ditzan nola zaindu, zenbat janari eta nolakoa bear duten eta abar ikasi bearra dauka artzantzatik bizi nai duenak. Gazta egiteko teknikak ere ondo ikasi bearco ditu, ondo saltzeko moduko gazta egin nai badu. Eta dirua irabazteko moduan lana egiten ere bai. Bizimodua ikaragarri korapillotu da, eta edozein lanbide edo ofizio ikasteko eskolak bear dira, nai ta ez. Badakit. Au entzutean parra egingo du artzai zaarren batek. “Belarri eskiñak aldagoi eta bisutsarekin garbituz ikasten dek artzantzan!”, esango du. Ez dagoela alako artzai-eskolarik. Leenago orrela izango zan, baiña orain ez du batere balio eskola orrek. Ori baiño obe da ardiak eskortan edo artegian nola gobernatu bear diran jakitea. Otzak errapea zimurtutako ardiak esne gutxi izaten du. Umore ona dagoenean gazta ona eta ernegatutakoan txarra egitea baiño obe da beti gusto berdin edo berdintsukoa egitea, errez eta ondo saltzeko. Orretarakoxe da teknika, baiña ikasi egin bear.

Jateko lain bakarrik egitea ez da aski. Larruzko poltsan zillarrezko txanpon batzuk artuta ez dago orain iñora joaterik, garai batean bezela. Gaur Aurrezki Kutxan kontu lodi samarra eduki bear da bizitzari aurpegia emango bazaio. Artzaiak bada-kite orren berri, eta sortzen dan aiña kako zuzentzen ez dago ikasterik eskolatik pasatu gabe. Artzai-eskola jartzeko leenengo pausoak eman dira. Arantzazuko frailleak daukaten Gomistegi baserrian jarri liteke eskola ori. Eskola lekua badago, beraz. Eusko Jaurlaritzak parte artzea falta da orain, eta eskola moldatzeko dirua nundik eta nola inguratu jakitea. Orretarako ere izango da eskola ikasi bearra, baiña frailleak ez dira maixu txarrak, eta ez dezagun etsi.

Arantzazuko frailleak sarri
joan oi dira Urbira,
ainbeste maite dituzten artzai
jatorren bizitokira.
Anaitasuna eramatera
komentutikan mendira,
artzaiak eta frailleak beti
ondo konpondu baitira.

Arantzazu ta Urbia beti
izan dira alkarrekin.
Saia zaitezte aurrerantz ere
onela gertatu dedin.
Danon artean piztu artzantza
eskola jator batekin...
Artzaiak eta frailleak danak
bear ditugu gurekin.

1996ko apirillak 19

Garai batean, Seguran pelota partiduak ikusteko sanjuanak etorri zai egoten giñan. Orain berriz etxetik irten gabe ikusten ditugu, telebistari esker. Astero dauzkagula sanjuanak pentsatu izan det. Eta pelotari naparrak dauzkagu nagusi, baiña gipuzkoarrak ere ez daude atzera begira. Iñork baiño obeto dakite ori segurrak. Zamarra erantzi gabe partidua irabazten duten pelotariak badirala entzun izan genduen. Desapioren bat zanean, apustua nola egin jakin bear dala esan naiko zuten orrekin. Baiña pelota jolas garbia da izatez. Tranparik gabea. Gizon jator asko izan da eta da pelotarien artean.

Jaietako gertakari batzuk kontatu nai nituzke gaur. Jose Andres Garate, Billabonan jaio zan, orain dala larogeita bederatzire urte. Zestapuntaz jokatzten zuen. Amazazpi urte zituen leenengo aldiz Parisa pelotan jokatzera joan zanean. Urte artan Olinpiadak egin ziran, eta emengo iru pelotarik urrezko medailla irabazi zuten, iru frantziarren kontra jokatuta. Jose Andresen esanetan, bera eta beste bat izendatuta bazeuden ere, zalantza askoren ondoren, irugarren pelotari bat izendatu zuten, beste biak bezain ona etzalakoan. Eta bera izan omen zan danetan onena. Ari eskerrek irabazi zutela partidua eta urrezko medailla. Bera oso urduri atera omen zan jokatzera, eta gaizki jokatu zuen. Bero izugarria

zan egun artan. Eta ura neurri gabe edan eta partidua amaitzean mareatu eta erori egin zan. Bere onera etorri zanean konturatu omen zan medailla irabazi zutela. Ori da ondo jokatu zuen bere lagunari berea eman eta norbere akatsak ezagutu eta aitortzea. Ori da gizona izatea, ori! Parisen egon ziran denboran, kabaretak eta beste gaiñontzekoak bisitazen ibiltzen omen ziran bere lagunak, gaez. Berari etzioten utzi orrelako tokietara sartzen, gaztea zalako. Eta hotelean egon bear izaten zuen. Oraingo gazteei esan bear lagunak gautxori dabiltzan bitartean hotelean sartuta egoteko! Baiña, andik aurrera mundua ikusteko aukera onak izan zituen Jose Andresek. Donostian, Bartzelonan, Mexikon, Brasillen, Cuban eta baita Txinan ere jokatu zuen. Etzan nolanaiko pelotaria izango, baiña arrokeriaren izpirik gabe kontatu izan ditu bere bizitzako goraberak. Aaztu ezindako pena bat utzi omen zioten Olinpiadak: an irabazitako urrezko medaillari ez omen zion garrantzirik eman, eta zer egingo eta Paristik etxerakoan Irungo neska gazte bati erregalatu omen zion. Bere senideak ere ez omen zuten ikusi nolakoa zan. Zer ote da gazte izatea. Urteak pasata gero ere etzuen ulertu ain inuzentea nola izan zan.

Medaillaren histori labur onek ez al du maltzurkeririk gabeko mutil gazte sano baten biotz sanoa erakusten? Orrelako asko bear genituzke orain.

Pelotariak ditugu, noski,
Euskalerriko loreak.
Eta gorria eta urdiña
dira bere koloreak.
Galtza zuriz ta txukun jantzita
mutil bikain dotoreak,
oiek ditugu mundu guztian
gure enbajadoreak.

Pelota asko indartu zaigu
azken bolada onetan.
Bada oraintxe txapelketarik
jai eta aste egunetan.
Ez gera bizi partidurikan
ikusten ez dan penetan.
Gure kirola auxe da eta
maite dezagun benetan.

Erorialdi edo estresa esaten diogun ondoez ori puri-purian dago munduan. Alako bizimodua moldatu degu, izan ere. Nerbioak airean ditugula bizi generala danok esan diteke. Pentsa. Konejuak ere arrapatu omen ditu gaitz orrek. Orrela esan dute Andaluzian konejuak azteko granja daukaten gazte batzuk. Aien konejuak oso urduri eta berezibiko erorrialdiarekin daudela. Zero estresatuta. Ondo gizentzen diranean zer datorkien ezta kitelarik ori. Izan ere, zenbat eta obeto bizi, orduan eta leenago ilko dituztela balekite, zer izango ote litzake? Baiña konejuak arrapatu duten estresarekin granjako nagusiak ere naiko urduri omen daude. Eta proba asko egin ondoren, musika ona entzunez konejuak lasaitu ditezkeela konturatu dira gazte auek, eta aragi zuriagoa eta samurragoa ateratzen dutela orrela. Musikarekin oso ondo lasaitzen omen dira konejuak. A zer nolako asmakizun edo inbentua andaluziar auena! Ikusten nago musikarekin azitako konejuak jatera iritsiko generala oraindik. Edozein moduzko konpuestoarekin azitakoak baiño obeak izango dira, agian. Nik ezta kit koneju oiek paella ona egiteko edo labean ondo erretzeko ainbat gantz izango duten. Ez al digute beintzat nerbiotako gaitzik erantsiko! Gure arteko urduritasuna ezkutatuko balitz, eta ainbeste pikardi egiten duen estresa sendatuko bagenu, musikarik gabe dantzan egiteko moduan giñake.

Konejuak azten dituzten granja orretan txanpiñoiak ere bai omen dituzte. Perretxiku auek oso sentiberak dira nunbait, eta musikaren laguntasunarekin askoz ere mardulagoak azten omen dira. Ez dute esan konejuak eta txanpiñoi onak sortzeko zein musika diran onenak. Sekretua izango da, bearbada. Andaluziko kontuak dira, eta gitarra eta flamenkoa bearbada, seguruenik.

Aragi aukera asko etzan garai aietan koneju bat edo besteri kazuelarako bidea emanez moldatzen giñan askotan. Iltzeko sententzia emanda geneukan konejua azi arte naiko urduri egoten

giñan, bai. Koneju-jan on bat eginda gero baiño eroriago. Konejuak etzuten musikarik entzuten, baiña gure sabelean gitarrara-ots ederrak izaten ziran. Zizak berriz, leku isilla eta ezkutua bear du, aziko bada. Perira eramandakoan asten dira musika jotzen. Nolako musika jotzen duten jakin nai duena, dijoala Ordiziko azokara.

Koneju eta konejuzaiak
alkar ederki arturik.
dantzarako prest jarri zaizkigu
musikaz aztoraturik.
Konejutegi ziranak orain
dantzatoki biurturik,
nork esango du inbentu onek
ez daukala meriturik?

Noizean beinka iristen diran
zenbait berri adituta
ez dirudi gauz onik dagonik
umorea baztertuta.
Bizi gaitezen al daneraiño
gauzak umorez artuta,
bizitzak lasai eramatea
ainbeste merezi duta.

1996ko maiatzak 3

Eztakit zuzen ala oker ibilliko naizen. Baiña datorren igandean amaren eguna dala uste det. Beste urteetan maiatzaren leenengo igandean ospatu izan da, eta aurten ere ala izango dalakotan nago. Eta ala ezpada, ez det uste oker aundia egingo dedanik. Izan ere, amaren eguna urtean bein ez baiña egunero bear luke izan. Artu gabe ematen duenik ez da iñor. Mundu onetan bada bat, alare, ordezkorik artu gabe eta ezeren eske ibilli gabe duen eta dan guztia ematen duena: ama. Jaio orduko asten zaigu bear degun guztia ematen. Eta askotan naiago izaten du bear degun ura eske asi baiño leen ematea, negar egiteko beste ezertarako ez baigera gauza izaten. Amak alako maitasunarekin ematen diguna irripar batekin eskertzeko ere ez gera izaten askotan. Gure ezeztasuna ez du iñork ezagutzen amak bezain ondo, eta mundu onetan iñork ez du bere biotzean amak ainbeste leku gu babeste-

ko. Gure negarrak eztu iñork kupitzen ama kupitzen duen bezela. Azten ari geranean eta gero ere berdin, gure penak eta naigabeak bereak balira bezelaxe minberatzen dute ama. Eta gure pozak gu ainbeste pozten badute ere, ematen dizkiogun penak aazteko lain poz ez diogu ematen. Amaren ondotik aldendu eta beste maitasun bat aurkitzen degunean ere, amaren maitasuna ez da itzaltzen. Amak bere-bereak izaten gaitu bizi dan arte guztian. Eta ama zer dan ez gera konturatzen galtzen degun arte, eta orduan berandu izan. Amak nunai eta noiznai erakusten du zer dan. Geu gera amak digun maitasuna eskertzen ezta kigunak. Eta maitasun orri urtean bein ez baizik eta egunero erantzun bear genioke.

Oraindik kontu berria da. Egipton gizon batek irurogeita amabost urteko bere ama etxetik bialdu nai, eta joka erabiltzen zuen. Epailleak urtebeteko kartzela-zigorra ezerrri dio gizon orri. Izan ere, zer gertatuko eta amak negarrez joan eta ez dio, ba, eskatu epailleari semea kartzelan ikustea eraman ezin alako pena izango dala beretzat eta barkatzeko?! Amaren samina ikustean, zigorra aldatu eta jende guztiaren aurrean amari oiñetan musu emateko agindu dio esker txarreko semeari. Emen ikusten da ama zer dan. Semea gaizki ikustea baiño bere txarkeriak nozitzea naiago. Ezta sinistekoa, baiña ama maitatzen ez duten umeak ere izaten dira, azkenik.

Gaur Santikutz eguna degularik, Legazpi festetan murgilduta dago egun auetan. Festazale zeratenok, badaukazute nun egurastu. Amarekin oroitzeak ez du festa egitea debekatzen. Gauza bakoitza bere garaian egin ezkerok, ez da kezkarik izaten, eta ondo pasatu.

Jairik ez dute debekatutzen
emen esan ditugunak,
eta illuna izan bearrik
eztu Santikutz egunak.

Legazpin denok nola geran gu
festak maite ditugunak,
onuntz etortzen dan edozeiñek
izango ditu lagunak.

Seme-alaben alaitasuna
amak ez du atsekabe,
eta, gazteok, izan zaitezte
umore onaren jabe.

Festak ospatu bear bezela
eta xuabe-xuabe...
Egin gaupasa batzuek, baiña
ama naigabetu gabe.

1996ko maiatzak 10

Ardoa ona zala uste izaten zan leenago gorputza indartzeko. Alako batean konturatu giñan ordea etzala gizaegillea. Eta burura igo ezkerro, lagun txarra dala. Eztigute esaten ardoa ez edatekorik. Neurria artu ezkerro, otorduan pixka bat edatea mesedegarri dala esaten dutenak badira.

Ardorik ezpazan sagardoa, eta erara etorri ezkerro pattarra ere bai, alkoholzale samarrak aspalditik gera euskaldunok. Ain zuzen ere, Euskalerrria ondatzen zuen gaitz nagusietako bat alkohola zala esan oi zan, eta ortik pentsatu. Orain ezta edaten leen aiña ardo. Gintonik, kubalibre, whisky eta orrelakoak daude modan. Denak alholdunak eta ardoak baiño alkohol geiago dutenak, gaiñera.

Alare, alkoholzaletasuna ez da euskaldunon gaitza bakarrik. Mundu guztian zabaldua dago, eta lanak ematen ditu gaiñera. Madriden, amasei urte ez dauzkaten gazteei alholdun edariak saltzea debekatu dute, eta berrogeita amar milloi pezetako multarekin zigortzen dituzte saltzailleak. Dantzatoki, supermerkatu eta gaiñontzekoak argi ibilli ditezke. Eusko Jaurilaritzan ere bada kezkarik asko alkohola dala eta eztala. Euskaldunok ez omen gera konturatu oraindik ori droga dala. Asteburuetan dibertitzeko alkohola edatea oitura biurtu dala, batez ere gazteen artean. Eztegu oitura txukuna artu Obeak baztertu ditugu aspaldiko urteetan. Estadistikak diotenez, mutiko eta neska koskor, amabi urte dituztenerako asten omen dira zurrutean. Baiña gibela eta burua ondo osatu baiño leen eta gazterik edaten asten diranak ez dute sekula

azken onik izaten. Ez al du bildurra ematen orrek? Gibelego min-bizia sortzeko ere berezia da alkohola. Eta burua ondatu ezkerro, badakigu zer datorkigun. Edonun festa edo festa-antza izatea naikoa da orrek gauean egiñerazten dituen ganberrokeriak urrengo goizean ikusteko. Gure errietako kale bazterretan ez da larrosa usairik izaten. Eta ezta arritzekoa agintariak kezkatu egotea. Baiña bai ekolojistak protestarik ez egitea. Ori arrigarria da.

Galiziko kamiño batean zapo asko akabatzen omen dira automobilak zapalduta, eta ekolojistak asarre eta protesta bizian dabilta, kamiñoan zapoak ibiltzen dirala adierazteko seiñaleak jartzeko eskatuz. Makiña bat gazte iltzen da, ba, kamiñoetan alkoholaren erruz. Orra aitzaki ederra ekolojistak protesta egiteko. Orra sail ederra, jatorrak izan nai badute. Erremediorik eztiogu jarri, baiña bertsolariak aspaldi esan zuen ardoa zer dan eta nolako pikardiak egiten dituen:

Edari maitagarria,
zugatik daukat jarria
argumentu bat berria.

Indarra zera gorputzarentzat,
kentzen dezu egarria.
Gauza estimagarria,
baiña zauzkat igarria
zerala engaiñagarria.

Batek lezake espero
ondotxo edan ezkerro
jarriko duela ero.

Lotsagarri ta lotsa galdurik
ibilliko dala gero,
korajetsu ta bero,
nunai egiñaz aldero
modu txarrean biziro.

1996ko maiatzak 17

Soldaduzka ona omen zan mundua ezagutzeko. Eta ura pasatu arte mutillak etzerala gizon egiten esaten ziguten gazteak giñala. Dei egitean joan beste erremediorik ez gendukalako esango ziguten seguru asko. Orain eztago gazteak ala engaiñatzerik, soldaduzka zer dan ez badakite ere. Ondo balekite, menderakaitz eta

insumiso izango lirake, leenaz gaiñera. Izan ere, soldaduzkan zer-bait ikasiko da, baiña an ikasten dana, eskola artara joan gabe ere ikasi litekeela esango nuke. Guk ikasi genduen izan zan, umore onean eta ondo bizitzeko sabela bete bear dala leenbizi. Goseak jenio txarra eta amorrua berekin dituela. Soldaduzkan gurekin batera zeuden katalanak esan oi ziguten, euskaldunok jan eta edan egitea beste ametsik ez genduela. Aiek gure erdia naikoa zuten, eta ematen zizkiguten eguneko bi errealak kobratu zai egoten ziran neskaren batekin zinera edo dantzara joateko. Ori egiten zutela esaten ziguten beintzat, guk dana sinisten ezpagenduen ere.

Kataluiña aldean ere badira zurruta maite dutenak. Sei illa-beteko kartzela ezarri diote mozkortuta kotxean eseka zijoan agure bati. Ez orregatik bakarrik, denuntzia egiten asi zitzaion poliziarri ozka egin eta belarriaren erdia kendu diolako, gaiñera. Zurruta ainbeste gorrotatzen duen katalan batek egiteko dezente da ori. Neska gazteren bati musu ematen ari zala uste ote zuen? Aren aldean suerte ona izan du Amerikako erri txiki batean bizi zan zurrutero purrukatu batek. Ez edateko esan zion medikuak, eta gibela porru egin arte zurrutean jarraitu zuen. Il zala pentsatu, eta zerraldoan sartu zuen bere familiak, eta irugarren egunean kanposantura eramateko asi ziranean, ez da, ba, zerraldoan eseri eta denei begira jarri? Ango garraisiak omen ziran onak! Piztu zalako eskerrak emateko errezatzen ezin omen zuten asmatu. Zurrutak mirariak ere egiten zituela, eta eskerrak eta errezoak beste egun baterako utzi dituzte.

Kontuak kontu izango dira, baiña eztegu aaztu bear maia-tzak egun ederrak ematen badakiela. Etzi, Azentzio eguna da, berrogei kredo errezatzeko iñork agintzen ezpadigu ere. Seguratik Santa Barbara mendira igotzeko oitura ederra bizi da oraindik, eta sasoi ona daukazutenok eutsi usadio zaarrari. Asteazkenean, bestalde, San Isidro eguna izan zan. Eta orduan jai egin etzenutenok saiatu orain, etxeoandrea lagun artuta. Kastuak kastu, badakizute: urtearen azkenean San Silbestre.

Udaberrian arkitzen gera
ez, noski, garai joanean,
une ederrak igarotzeko
aukera datorrenean.
Naiz San Isidro ere ospatu
Azentzio egunean,
parrandak ez du gaitzik andrea
ondoan daukagunean.

Lanak mendean artu bagaitu
San Isidro azteraiño,
ospa dezagun Azentziotan
egin argi edo laiño.
Ez zabartu jai bat utzi eta
bestea baztertzeraiño.
Egun batean bi egitea
obe da baterez baiño.

1996ko maiatzak 24

Aldi artan, gu soroan ari giñan bitartean, apaizak eta aberastak paseatzen ibiltzen ziran. Orain badirudi zaarrok aberastu nai gaituztela. Dirurik ez digute agintzen, baiña leengo aberats aiek bezela bizitzeko zer egin bear degun esaten digute beintzat. Ori ere eskertzekoa da.

Osasun maixuak urtero-urtero egiten digute bere sermoi-txoa, garai onetan. Esan digutenez, oraintxe gaude garai onean, neguan baztertuta eduki ditugun oiturak berritzeko. Egun bat edo beste txarrak eginda ere otzik ez, beroak penatu bildurrik ere ez, eta nagikeriak alde batera utzita paseatzeari eman bear diogula. Urteetan aurrera goazenontzat ez omen da paseatzea baiño erre-medio oberik gorputza forman edukitzeko. Zaartzaroko aje guz-tiak ez dirala paseatze utsarekin sendatuko esango du norbaitek. Proatuta jakiten da ori. Eta ibiltzeak gorputzari zenbateraiño-ko mesedea egiten dion proatuta jakiten da. Leengo aberatsak ere paseozaleak ziran, eta zerbaitegatik izango zan. Soroan lanera etziran joaten, badaezpada ere.

Urteak aurrera dijoazen bezela, emen izaten dira iñun diran artrosis, zaartrosis, zain-oratu, belaun katilluetako miñak eta gai-ñontzekoak. Oiek danak sendatzea ez da erreza izango, baiña muttu-rra pixka bat neurtzeak ere balioko du-ta... Udaberriko egun atsegi-

ñak alperrik galdu gabe, zergatik ez egin medikuen esanak? Neguan artutako oitura motelak utzi eta lagunekin batera ibillaldi batzuk egi-teari garrantzi aundia ematen diote jaun oiek. Etxetik irten gabe zer pentsa jarri ezker, ez dauzkagun gaixotasunak ere etortzen dira burura. Lagun artean lasai-lasai gazte denborako kontu zaarrak berrituz pentsamentuak alaitu egiten dira, eta ori oso bearrekotzat jotzen dute sendagilleak, tajuz bizitzeko. Gure gorputza makina bat bezela omen da. Denbora luzean geldi dauden makinak erdoitzen diran bezelaxe, gorputza ere erdoitu egiten da. Eta ori gertatu ezte-din, erabilli egin bear da, neurri batean beintzat. Ez digute, ba, gauza aundirik eskatzen. Ibilli, baiña aldapan ez, eta gaueko preskurarekin ere kontuz! Neska laguntzera joateko garaia pasatu baizitzaigun. Makina legortu eztedin, barazki asko jateko esaten digute, eta ur asko edateko. Nik eztet asmatu au. Barazki eta ur asko. Ez dute esan, baiña noizean bein txuleta eder bat ezta txarra izango. Eta Errioxako ardo zaar samarrari muxu batzuk ematea ere ez. Ori ere proatuta jakingo da ondoena. Leenago paseatzen ibiltzen ziran apaiz eta aberats aiek proba oiek eginda edukiko zituzten seguru asko.

Ezin ukatu zaar-maixuak
gure arduraz daudela.

Urteak dira aolku onak
ematen dizkigutela.

Ondo jan eta paseatuaz
ikusi nai gaituztela.

Lenago bapo bizitzen ziran
aberats aiek bezela.

Munduan zeñiek ez du nai izan
osasun onaren jabe?

Gaztetan ona da ori eta
zartzaroan berriz obe.

Gure onean itz egin dute
zaar-maixu askok xuabe.

Aberastu nai gaituzte baiña
dirurikan eman gabe.

1996ko maiatzak 31

Fedea oztu bazaigu ezpazaigu, eta sinisten badegu eta ezpa-degu, egi galantak esaten ditu Ebanjelioak. Auxe da bat: “egiak

egingo zaituzte aske". Egiak pertsona libreak egingo gaituela, alegia.

Makiña bat aldiz aipatzen dira gizonaren eskubideak. Aitatu, baiña errespetatu ez. Esan bai, egin ez. Gezurra pranko bai. Gizonaren eskubideetako bat, bizi dan tokian eta garaian bere burua babesteko lain jakitea da. Gizartean goi maillara igota dau-denak badakite ordea ezjakiña errezago menderatzen dala zerbait dakiena baiño. Eta alegiñak egiten dituzte beekoak ezer ikasi eztezat. Mixiolariak dakite ondo orren berri. Mixio lurretako berri ematen duen paper bat irakurri det oraintsu. Sudan-en gertatzen diran gauzen berri ematen du paper orrek. Aspaldi onetan gerran dabilta alde aietan. Eta soldadu asko zauritzen danez, odol askoren bearra izaten da, eta umeei aterata biltzen dute ospitaletara eramateko odola. Ardiak eskortan bezela edukitzen dituzte ume oiek. Batzuk zepoak jarrita eta beste batzuk katez lotuta, edo igesi dijoaztela arrapatzen dituztenei anka-zaiñak ebakitzen dizkiete. Bost urte bete gabeko aurrak dira, asko. Jaiotzea beste errurik ez duten ume gaixoak, odolustuta edo gaixotuta ezertarako ez dirala gelditzen diranean, nunai bazterrera botata uzten dituzte. Argazki batean buitrea ikusita nago ume oietako bat il zai, jaten asteko. Beltz asko ezjakintasunean bizi diran mixio-lurretatik datozen berriak errukia emateko modukoak dira, benetan. Eta esan ditudanak ez dira argibide bakar batzuk besterik.

Gizona libre izateko jaio omen zan. Afrikako gizonak ere orrela jaioko ziran, beltzak izan arren. Animak eztu kolorerik. Asko eta asko ezjakintasun gorrian bizi dira ordea, eta ezjakiña, beartsu izateaz gaiñera, geiago dakielako geiago dezakenarentzat tresna utsa da. Orregatik izaten dute ainbat oztopo eta eragozpen mixiolariak, ez dakitenei erakusten saiatzen diralako, batez ere. Aita Santua norabait dijoanean, Paloma Gómez Borrero andre periodista an izaten da berarekin batera, Aita Santuak egiten dituen berri emateko. Danak beltzak diran lurralde bateko jauntxo batek, periodista ori bere andrea izango zala-ta, Aita Santuari

emaztea erosteko prestatu omen zan. Berrogeita amar auntz eman-
go zizkiola, andrearen truke. Alaja ederra goseak dauden gizarajo-
ei jaten emateko. Mixiolariak badaukate, bai, zer egiña mundu
zabalean. Gu kejatu egingo gera, baiña badaude errukarriagoak.

Mundu ontako leku askotan
gailur ezjakintasuna,
lana egin nai izanagatik
falta erosotasuna.
Miseriaren erruz zenbaitek
galtzen duen osasuna,
bera izanik zalantzik gabe
beartsuen ondasuna.

Doai eder bat badu gizonak
bikaiña bikain artean:
askatasuna Jaunak emana
biziarekin batean.
Mundu guztiak aitortu arren
ori aoa betean,
gizona ez da aske izango
ezjakin dan bitartean.

1996ko ekaiñak 7

Etxekoandrearen batek aurpegi illun samarra jarriko didan bildurrarekin nator gaur Segura alde onetara. Era askotako kontuak entzuten dira, eta danak ezin, ba, izan gure gustokoak. Baiña danetik pixka bat jakitea ona da. Eta arrisku guztietatik alde egiterik ez dago berriz. Munduan dan asmorik onenarekin astera noa gaurko berriketaldia.

Colombiako idazle batek esan duenez, ezkontzak edo ezkontuta alkar maitatuaz bizitzeak, leenbiziko aurra jaio arteko iraupena izaten omen du. Liburu asko idatzi dituen gizon batek esana da, eta bizitzaren berri jakingo al du zerbait. Baiña –eta emen dago kakoa– senar-emazteen alkarganako maitasun bero ura ain azkar oztea emakumeen errua omen da. Naiko gordin itz egin izango digu idazleak. Nola gizonak ala emakumeak ere, gure bizitza guztian maitatu eta maitatuak izatea nai izaten degu, baiña alkar maitatzeko egarri ori leenengo aurra jaiotzen danean amaitzen dala. Aurra jaiotzen dan bezain laister, emaztea bere aurtxo-

arekin ezkontzen omen da, eta ezkontzera eraman ginduen maitasun goxo ura pikutara joaten.

Orrelakoak eta antzekoak gertatuko dira mundu biurri onetan, baiña emakume guztiak ez dute ain biotz legorra edukiko. Umeak maiteago dituztela senarra baiño? Noski. Alare, senarra ez dute oso-osorik baztertzen, denak beintzat. Disimulatzeagatik bederik, noizean bein lotsintxa pixka bat egiten diote senarrari, eta ori ere zerbait da. Au esan nion etxeoandre batek, gizonak mimoso utsak gerala esanda utzi ninduen. Geure kasa gabiltzanean badakigula ederki moldatzen. Aurrak guk baiño laguntasun geiago bear dutela, eta ea nola egongo diran beti guri begira. Neri aoa zabaltzeko astirik eman gabe sekulako erantzun pilla bota zidan, eta jakiña, berak bakarrik itz egin zuenez, bera gelditu zan arrazoiarekin. Gizonok orrelako zaparradak artzen oituta egoten gera, eta ez nintzan asarretu.

Amak aurrak maite izatea bidezkoa da. Ala ere, badira senararentzat biotzean toki pixka bat gordetzen duten emazteak. Leku orrek sarrera estu samarra izaten du, eta barruan denbora askoan gordeta egoteko lasaitasun geiegirik ez. Mundu onetan ez degu danok suerte berdiña izaten, eta zer esango degu? Senarrok badakigu ematen digutenarekin konformatzen ere. Umeak azi eta kabitik alde egiten dutenean, ama berriro gugana etorriko dala pentsatu, urte batzuk gorabeera. Bitartean zintzo portatu, ea denborarekin guretzat gordeta eduki duen maitasuna ematen digun. Gustora bizitzeko iñoiz ezta berandu.

Ama jator bat nola ez egon
aurrari begira sarri?
Bere puska da ta maitatzea
ez da oso arrigarri.
Gizona gizon danak gauz orri
bear lioke igarri...
Utzi amari arnasa artzen
eta ez zelatan jarri.

Senarrak bere aurtxoan ama
bear du ondoan artu,
eta berari lagundutzeko
gau ta egun egon prestu.
Aurrak laztantzen dituelako
ez kopetarik zimurtu,
aita egiten geranean ez
erabat ume biurtu.

Zaartu ere ez gerala egiten, eta orrelakoak esaten dizkigute iñoiz. Orrelakoetan nai ezta ere irriparra etortzen zaigu ezpaine-tara. Baiña gazte giñanean etzigituen esaten orrelakorik. Urtez eta ajez betetzen geranean botatzen dizkigute onelako loreak. Zaartu geran seiñale garbia da ori, aiskidia.

Gure gazte izan naiari etekin ederra ateratzen diotenak badira munduan. Denborak bistan jartzen dituen egiak ez dago ordea pozik entzuten ditugun itzak esan eta estaltzerik. Gaztetasun saltzaille oiek bere irabazietan ipurdiko batzuk artu arren ez dute etsitzen. Bereala asmatzen dute ukendu edo botika berriren bat, zaartu nai ez dutenak engaiñatzeko. Botika oiek sekulako mirariak egiten dituztela esaten du propagandak, baiña urteak zakartu eta zimurtutako azalik ez dute leuntzen. Azkenaldi onetan, zaarrak gaztetzeko botika oietako bat oso modan egon da, *Melatomina* deitzen zioten. Saltzea debekatu zuten ordea leengo urtean Frantzian eta Inghaterran. Emen gauza askotan zakurraren buztana bezela ibiltzen gera, beti atzetik. Eta agintariak orain konturatu dira botika orren mirari bakarra saltzailleen poltsak betetzea dala, eta saltzea debekatu duten otsak daude. Kontua zera da: gaztetzeko botikarik ez dala iñun saltzen. Ez dagoela zaarrak berritzeko errezetarik. Nai ezpade-gu ere, zaartu beste erremediorik etzaigula gelditzen, bizitzekotan.

Griña txarrak eta oitura kaltegarriak menderatzen bageneki, denbora gutxiagoan gazte irauteko modua egingo genduke, bear-bada. Orretarako, kutizi askori ezetz esaten ikasi bear ordea, bes-tela burruka guztiak denborak irabaziko dizkigu. Adibidez, erre-tzaille bati ez dago tabakoa uzteko esan besterik! Minbizia sor-tzen duela, bizia laburtzen duela eta oiek guztiak alperrik dira arentzat, eztulka ia itoan badabil ere.

Guk uste ez degun beste kalteak ekarri lezazke tabakoak, sendagilleak esaten dutenez. Besteak beste, ezintasuna sortu omen dezake gizonetan. Amar gizonetatik batek eziña omen du.

Tabakoaren nikotinak gorputzeko zaiñak estutzen ditu, eta odola ezta iristen bear dan tokietara. Ortik etortzen da ezintasuna. Eta eziña daukaten eun gizonetatik larogeita bat erretzailleak dira. Gero, aje ori isillik gordetzen zuten gizon askok lotsak alde batera utzi omen dituzte eta gaixotasuna senda dezakeeten medikuegana joaten asi dira.

Gaztetu eta sasoian jartzeko botikarik balego bai ederki. Baiña ez dago, eta tabakoari uztea komeniko da, zaila bada ere. Gozatuko bada, sufritu eta iñoren aurrean lotsagarri gelditu bear. Komeria da auxe ere.

Ezin duenak nai izatea
ez da gauza arritzekoa,
baiña edozer gauz sinisteak
badu bere arriskoa.
Pixka bat zartu arren almena
bada estimatzekoa,
gaztetan gorde bear da zerbait,
botika ez da naikoa.

Propagandaren esanetara
ez genduke bear jarri.
Eta uste det orri gaztetan
bear zaiola igarri.
Naiz ta mediku asko ikusi
ta botikak artu sarri,
zartu baiño len ezin duena
gelditzen da parregarri.

1996ko ekaiñak 21

Dana benetan artzen genduelako, edo ez daki zergatik, gazte denborako kontuak ondo itsatsita gelditu zitzaizkigun. Orregatik konturatuko nintzan gaur San Luis eguna dala.

Luistarrak giñaneko bizimodua oso lotua zan. Illeroko aitor-tza eta jaunartzeari paso ematen zioten luistarrak, artaldeko ardi beltzak bezela izaten ziran. Ezetzak sekulako indarra zuen orduan. Bat etzala egin bear, eta bestea pekatu zala, sermoia sermoiarenean gaiñean bai etxean eta bai elizan. Askatasunik ezak pena ematen zigun, eta iñoiz arrastotik irten eta parranda bat edo beste egin ere bai. Baiña errespeto pixka batekin, errespeto aren erdia

lotsak edo bildurak emandakoa bazan ere. Guk ezer gutxi gene-
kien, eta errez menderatzen gintuzten. Oraingo gazteak asko ikas-
ten dute eta asko dakite, eta guk izan ez genduen bezelako aska-
tasuna daukate. Ikusten dutena besterik ez dute sinisten, askok
beintzat, eta eskubide guztiak dauzkatela uste dute. Orregatik egi-
ten dituzte egiten dituztenak. Ala ere, ez dauzkate gusto guztiak,
ez. Askok jakin arren, bear aiña ezaguera eta esperientzi ez dauka-
te, eta askatasunak okerreko bidera eramaten ditu bein baiño geia-
gotan. Gure gazte denborako lotutasuna geiegizkoa zan, baiña
aren antzeko pixka bat ez litzake gaizki etorriko.

Kontu zaarrak!, esango du norbaitek. Baiña ez pentsatu
orain entzuten diran guztiak pozgarriak diranik. Espaiñiako esta-
duan, ea gu ere barruan gaude nai badegu eta ezpadegu, amalau
urtetik ogeita laura bitarteko milla gazte eta geiagok iltzen dute
bere burua, urtean. Iñork eztitu beartzen elizara joateko. Askok ez
dute jakingo aitortza zer dan ere. Ez daukate gaupasa egiteko
oztoporik, eta edanean pasatzea ere ez da lotsagarri, leenago
bezela. Nai duten guztia egiten dute, baiña ez dira gustora bizi.
Zaarragoen esana egitea burua makurtzea dala usteko dute, baiña
munduko berri zerbait dakitenen aolkuak alkohola baiño obeak
izan ditezke. Batek besteari aizea eman eta besteak egiten dutena
egiten duenak ez du bere burua estimatzen, baietz uste badu ere.

Gaur ez da ordea San Luis eguna bakarrik. Uda ere gaur asi
da. Batere suerterik degula, egun politak pasatzeko garaia bada-
tor. Zer komeni zaigun pentsatu, eta ea kutizi batzuk betetzeko
aiña izaten geran. Dana ezta pekatu. Bere neurri batean bizitzen
jakin ezkerok, bizitzak eskeintzen dituen aukerak alperrik galtzea
dala pekatu esango nuke nik.

Beste iru lo egin ezkerok
degu San Juan eguna,
Segura eta Segurakoen
zaindari eta laguna.

Esango nuke zorioneko
erria dala Segura.
Arretaz gorde ditu euskera
eta lengo zenbait oitura.

Au bai dala santua,
askok estimatua
biotzean daukaguna.
Txoko polit au maite izaten
lagun egiten diguna.

Oraintxe ere egun ederrak
badatozkigu aukeran,
uda alai bat igarotzeko
bakoitzak al duen eran.
Gaur udak asiera,
etzi festak sarrera...
Ea ondo asten geran,
sua piztu ta salto egiñez
San Juan egun bezperan.

Emen San Juan jaiak,
dira festa alaiak
atsegin baten modura.
Bide luzea ez da egongo
Seguratikan zerura.

Nola Segura txikitandikan
oso ezaguna detan,
oraindik sarri egon izan naiz
berarekin amesetan.
Nunaitik ikusita
ain da toki polita,
zoragarria benetan!
Ezagutzea merezi du ta
etorri San Juanetan.

1996ko ekaiñak 28

Garagarrilla edo ekaiña ia joan bazaigu ere, pixka bateko uda badaukagu oraindik, eta onek poza ematen du. Nai duenak eguzkia artu, eta nai duenak itzala gozatu edo uretan preskatu batzuk artu. Udak danetarako aukerak ematen ditu. Itzal eder batean lasai-lasai zerbait entzun edo irakurriz, alde guztietako berriak jakiteko ere garai polita da. Ez da errez entzundako guztiari antzematen. Baiña zer pentsatua ere ona da. Bestela bizitza aspergarri litzake.

Berri batzuek diotenez, emendik amabost bat urtera, uri edo ziudade aundientzat arazorik txarrena edateko urik eza izango omen da. Lurrak ematen duen uraren erdia alperrik galtzen degu. Munduko jendetza izugarri ugaritzen ari da, eta edateko urik ezak sortzen dituen gaitz, izurri eta abar, bizitzeko lanak izango dira aurrerantzean. Jende asko izateak ezin bizia sortu dezake, batzuen

ustez. Beste batzuek, alare, European bear baiño aur gutxiago jaiotzen dala esaten dute. Orretzaz gaiñera, gero lanik izango ez dan bildurrez, dirua aurreratzeari eman omen dio jendeak. Egia esan, ez daukate suerte txarra. Onela bagoaz, lanerako jenderik ez da izango aurki, dirua kastatzeko ere ez. Eta jendea urritu eta kastua murriztu, orrela lanik ezin sortu. Munduko jakintsuak badaukate burua zertan nekatu, aurrera egin bearrean atzera egin ez dezagun.

Baiña danak ez daude lotan. Lurralde beartsuetan gaizki dabilta jende geiegi dagoelako, eta nazio aurreratuetan asi dira neurriak artzen, orrelakorik gerta ez dedin. Europako nazio aberatsenetako bat Suedia izango da. Eta an asmatu dute sistima polita jendea geiegi ugaldtu ez dedin. Lan eske joaten diran emakume gazteak, lanean asi eta bi urtean aurrik ez dutela egingo itzeman bear dute, eta papera sinatu gaiñera. Lana ematen dutenak ez dira itzetan piatzen, itxura danez. Orratx komeriak. Toki batzuetan, aur gutxi jaiotzen dala eta zeñek lana egiñik ez ote dala izango. Besteetan, dagoen baiño jende geiago nai ez eta aurrik ez egiteko. Zeñek antzeman?

Au dana diru kontua izango da, noski. Errialde batzuetako dirudunak aur asko jaiotzea naiko dute, langille eta serbitzari asko izan dedin. Gizona ere merkatu egiten baita ugaltzen danean. Beste toki batzuetako nagusi diranak berriz, nazioan dauden onsasunak ez dituzte geiagoren artean banatu naiko, eta frontierak isten saiatzen dira, gure garaian bezela aurrak ekartzera Parisa iñor joan ez dedin.

Itzalean lasai gaudenean pentsamentu xebreak etortzen dira batzutan. Eta auek ere almodukoak izango al dira. Baiña noranaira joaten gerala ere, ez al degu diruarekin topo egiten?

Al dunak beti eman izan du
komeni zaion ordena,
eta askorik ez dakienak
egin bear al duena.

Onela nork du ona ta txarra
aukeratzeko almena?
Emen bakoitzak pentsatu bear
zer dan beretzat onena.

Gizonak ez du zertan egonik
bere bizitza guzian
maltzurragoak diran batzuek
ipiñitako esian.

Gosea eta gaitzaren mende
nai eta ezin bizian...
Miseriaren kate gogorak
iñola ezin ausian.

1996ko uztaillak 5

Azkenaldi onetan isillik dago, baiña akunpunturak berebizi-ko bolara izan zuen. Orratz berezi batzuen zulatuak artzea naiko zala uste genduen iñun diran gaitzak eta ajeak sendatzeko.

Txinarrak ez dira makiak beren gauzak saldu nai dituztenean, eta propagandarik asko egin zioten bere asmakizunari. Baita guk sinistu ere. Sinistu, edo aitzakiak utzi eta ondo bizi naiak bul-tzata, txinosen orratz-zulatuak artutako asko izan da beintzat gure artean. Izan ere, ondo ez dagoenak sendatu nai izatea bidezko da, eta ez dago zer esanik. Guk txinarrak geu baiño gutxiagotzat eduki izan ditugu beti, eta orretan oker geundela esango nuke. Iñor baiño geixeago geran uste orri zumua ederki atera diote txinarrak. Akupunturaren aldeko propaganda egiten abillak izan dira. Bat baiño geiago sendatu ere egingo ziran, bearbada, erre-medio orrekin. Baiña gu akunpunturari dirua ematen aritu giñan bitartean, txinarrak emengo botikak erosten zituzten, emengo diruarekin. Nork esango du ez dirala bizkorak?

Baiña gaiztoak diranik ere ezin esango degu. Lana eginda irabazitako diruarekin komeni dana egitea ez da pekatu. Alabaiña, txinarren jokabideak zer pentsatua ematen duela uste det. Aiek baiño aurreratuago bizi generala, eta aiek baiño zerbait geixeago generalakoan egoten gera. Aiek baiño geiago begeneki bezela, eta bitartean, orratz-zulatu batzuen truke guk egindako botikak erosten dituzte eta geuri kendutako diruarekin, gaiñera. Kukurruku beti goitik joaz ibilli gabe, noizean bein burua pixka bat makurtuta gure ingurura begiratzea ez al genduke obe? Orrela ikusiko

genduke beste batzuk nola bizi diran eta nola moldatzen diran bizimodua ateratzeko. Eta ori ikustearekin uste baiño geiago ikasiko genduke, bearbada. Eta ikastea oso ona da.

Ikusiaz ikasteko oraintxe datorrigu aukerako garaia. Maiatzaren bukaeran izan ziran kuarta denborak, eta eguraldi beroa gelditu zan. Iñun diran iragarpen eta pronostiko guztiak il onetan bero egingo duela esaten dute. Opor denbora asi da, eta itxaropen oiek danak txinarren orratz-zulatuak bezela aizeak eramaten ez baditu beintzat, toki eta jende ezezagunak ikusteko aukera izango degu. Zerbaitek ondo irtetzea nai danean, asiera ona eman bear omen zaio.

Ez aaztu, bestalde, datorren igandean San Fermin eguna dala. Biar eta etzi Iruñan egurastu batzuk artuz asiera polita eman genezaioke udaldiari. Alegiñak egin beintzat.

Gure ustez txinoak
bai atzeratuak!
Baiña ez dira oiek
buruz ain lotuak.
Gure diruz ordaindu
botika kastuak,
ta ordaiñetan eman
orratz-zulatuak.

Irriparrak ez dira
beti seguruak.
Txinako jende danak
ez dira eruak.
Ara zer egin digun
ango aingeruak:
orratzez zulatu ta
atera diruak.

1996ko uztaillak 12

Edozein berri-paper eskuetan artzen degula, ezkontza-auste edo dibortzio kontua pranko irakurtzen degu. Eta orrelakoak edozein gizarte-maillatan gertatzen dira. Ez dira aberatsak bakarrik alkarrekin asarretu eta sakabanatzen. Unibertsidadeko irakasle batek kontatu digunez, arrokeriak eta zurkeriak zer ikusi aundia dutela esan diteke. Ezkondu ziranean, senarrak irabazten zuena-

rekin ordaintzen zituzten etxeko kastuak. Baiña, alako batean emaztea asi zan lanean, eta senarrak baiño geiago irabaztera iritsi zan gaiñera. Eta ez omen zuen nai izan familiko kastuak erdibana egiterik, baiña etxeko lanak bien artean egin bear zituztela aillegatu zion senarrari. Ezkondu ondorengo maitasunean eta elkartasunean nola sinistu diteken galdetzen du irakasle onek. Arrazoi pixka bat badaukala esango nuke. Azkenean, ezkontza autsi eta bakoitza bere aldetik bizi dira.

Gauzak naiko garbi esan ditu. Ezkontza, sal-erosketa edo negozio bat da, zenbaitentzat. Eta sal-erosketa onetan arrokeriak eta zurkeriak zer ikusi aundia daukala begien bistan dago. Diru geiena irabazten duena arrotu egiten da. Senarrak bakarrik irabazten badu, ez ditu aintzat artzen emaztea eta emaztearen lana. Bere ustez, senarra da etxeko nagusi, eta emaztea, neskame. Seme-alaben eta senarraren ardura, etxeko garbitasuna, erosketak, plantxa, otordua prantatu eta beste lan asko emaztearen esku izaten dira. Eta ez diote orri baliorik ematen zenbait senarrak. Dirurik ezak asarretuerazten gaitu. Diruak arrotu, eta zurkeriak ere beste ainbeste. Nerea neretzat eta zurea erdibana. Berdintasun koskorra da ori.

Gu dotriña ikasten ibilli giñanean, baziran zazpi pekatu nagusi deituak. Leenengoa arrokeria zan; eta bigarrena, zurkeria. Dotriña pikutara bidali genduen, edo ez dakit nola esan. Eta ez dakit, ba, orrekin zer irabazi degun. Ezkontzak maitasuna bear du, biziko bada. Eta maitasunak bizirik iraungo badu, bere inguruan azten ziran zurkeria, zabarkeria, inbidia, alperkeria eta orrelako belar txarrak zuztarretik atera eta sasira bota bearra dago. Leen esan dedan bezela, ezkontza-auste asko gertatzen dira eta nunai gaiñera. Zenbat naigabe sortzen ote dira ortik?

Urtearen buruan diru pixka bat aurreratu badegu, kastatzeko garai ederra etorri zaigu. Baiña ez asi senar-emazteak bakoitza bere aldera tiraka. Kastatu bion artean eta uda ederki pasatzeko modua egin. Orrela, datorren urtean beste ainbeste egiteko gogoia

sortuko zaizue eta orrek asko balio du. Bizi egin bear da emen, eta arrokeria baiño pazientzia askoz ere lagun ohea da orretarako.

Danok umillak gera ezkondu
eta bizitzen astean,
baiña kukurra irtetzen zaigu
txanpon batzuk ikustean.
Arrokeriak zer ikusia
badu ezkontza-austean...
Oilloak ere oillartzen dira
dirua irabaztean.

Zurkeria ta lukurkeria
txarrak dira guztiontzat.
Ta familian ezin litezke
iñolare artu ontzat.
Etxean sartzen diran altxorrak
dira etxeko danontzat,
eta ez: nere danak neretzat
eta zureak biontzat.

1996ko uztaillak 19

Begiak ondo argituerazten ditu goseak. Ego Amerikako nazio askotan gosea dute maixu, zoritxarrez. Eta ango jendeak begi argiak dauzkala dirudi. Ecuador-eko nekazari beartsu baten emazteak iru aur ekarri omen ditu mundura. Bat ekartzeak naiko lan emango ez balu bezela, iru batera, alajaiña! Nekeak neke, datozenean onartu egin bear. Etxean lan aunditxoia izango zan, eta klinikara joan omen zan emakume ori. Ala, aurrak jaio ziran, ama sendatu ere bai, eta etxera eramango bazituen, klinikako kastuak ordaindu bear. Eun eta berrogeita amar milla pezeta inguru ori zan, guztia. Emazteak aurrak egin bai, baiña senarrak ere zerbait egin bear, ba. Eta kastuak ordaintzea egokitu zitzaion. Baiña dirurik ez, gizarajoak. Klinikako zuzendariak begiak argi, eta baita artzeakoak kobratzeko sistima polita asmatu ere: zorrak ordaindu arte ezin zitezkeela aurrak etxera eramane. Aurtxo bat enkargatu bazuen ere enkargatu, eta iru etorri, alafede! Ez dio lan txarra jarri oraintxe bere buruari.

Baiña emaztearena okerrago da oraindik. Aren neke eta sufrikizunak esker ohea merezi zuten, noski. Toki onean gelditu

dira aren ilusioa eta poza. Bere aurtxoak laztantzerik ere ez, balio duen bakarra dirua balitz bezela. Izan ere, zeïnek utziko ditu bere umetxoak edozeiñen eskuetan, orain entzuten diranak entzunda? Pentsatzen jarrita ere, ondo mundu biurrria eta maltzurtean bizi gera. Dirurik ez daukaten aitak eta amak Jainkoak emandako umeekin ere ez dute agintzen. Denborak gaitz asko sendatzen omen ditu, eta gosea eta ezin bizia ere ezkutatu al ditu. Noiznai da garaia.

Gure artean ere badago zer konpondua, baiña asko baiño obeto bizi gerala ere egia da. Eta bearrean daudenekin aaztu gabe, tokatzen zaigun moduko udaldia igarotzea ere bidezkoa da. Danok ez gera urrutira joan zale. Bertan ere badauzkagu toki ego-kiak eta saia gaitzen une atsegiñen billa. Toki paketsuetan atse- denaldi batzuk bearrezko zaizkigu. Aztiri gaiñean daukagu toki auetako bat. Bertako zaindari Santa Marinaren eguna atzo bazan ere, gaur illunabarrez, biar eta etzi, festa apalak gogoko dituzte- nak izango dute zer ikusia. Gauez pagopean bertsoak entzunez parre algara batzuk egiteko aukera, egunez bolariak, dantzariak eta abar. Benta-Leor eta Aztiri erretegia ere an daude jatetxe egoki askoak, Aztirira dijoaztenak goseak eta egarriak penatu ez ditzan. Pakea, umorea eta alaitasuna eskeintzen ditu Aztiriak estuasunik gabeko egun lasai auetan. Mundu biurri oni noizean bein bizkar emateko bear bezelako unek.

Diru goseak okertu gaitu
ta ezin gera zuzendu,
baiña nolako alajak geran
bai ederki nabarmendu.
Moldadu degun mundu maltzurak
naiko bildur ematen du...
Jainkoak eman aurtxoak eta
gizon biotz-beltzak kendu.

Esango nuke gure mundu au
okertu dala erabat.
Eta gu ere nastu gerala
mundua nastu dan ainbat.
Oporraldia izan dezagun
atsedentzeko festa bat,
ea bizitza nola zuzendu
pentsatzen degun pixka bat.

San Joakin eta Santa Ana eguna gaur. Eta aurki, San Inazio. Egun ederrak dira. Gizon eta emakume ona pranko izan da mundu onetan. Eta aiek zintzoak izan ziralako emen gabiltza gu orain, jai eta festa artetik irten ezinda. Ordizira eta Azpeitira joan besterik ez dago.

Oiek orrela dirala, oporrak badatozkigu berriz ere. Eta danak ez dira asarre izango, garai onek bere lanak ematen baditu ere. Inbidi pixka bat ere sortzen zaigu tartean, eta geure buruari ezin eutsi izaten diogu. Jendearen esanari asko edo geiegi begiratu ere bai, askotan. Jendearen esanak kezkatzea gure bizimodua iñoren eskutan uztea bezelatsu da, noski. Nolakoak geran, eta zuzen ala oker gabiltzan jakiteko, jendearen esanari begira egotea akats aundi dala diote sikologoak. Ala bear danean ezetz esaten ere jakin bear dala, eta norbaitek laguntza eskatzen badigu, al degu-neraiño ari lagun egitea dala onena. Zeiñek zer esango duen bildurrez, komeni zaigun bezelako bizikera ez egitea, izugarritzko ankasartzea dala.

Gaur eguneko bizimodu korapillotsu onek atsedenaldiak bear ditu. Eta orregatik, oporrak artzea komeni zaigu, ez beste batzuek ere artzen dituztelako. Komeni zaigulako baizik. Mendian edo itsasertzean atsedenez eguzkia artzeak ez du kalte-rik. Oporretatik kolore sanoarekin etortzea gauza ederra da, baiña al degun baiño geiago eginda poltsa erabat zimurtuta etortzen bagera, ondorengo illabeteak ez dira gozoak izango. Sikologoak arrazoia daukate: jendearen esanari jaramonik ez egin, eta kome-ni zaiguna egin eta kitto! Orrela biziko gera ondo.

Opor denboran toki berriak eta jende arrotza ezagutzea oso polita da. Baiña arriskuak ere baditu orrek, eta kontuz ibilli bea-rra dago. Inglaterrako mediku batzuek esan dutenez, zenbait diskoteka eta antzeko tokitan alkarri musu ematea eta batek bes-tea laztantzea arriskutsua omen da. Dantzaleku oietan ikusten

omen dira mareatzen diran gazteak. Eta meninjitisa sortzen duten xomorroak izan omen ditezke txorabiatze ori sortzen dutenak. Ain zuzen ere, musu ematea eta eztula omen dira gaitz bildurgarri ori itsasteko biderik seguruenak. Egia esan, komeria da auxe ere. Ainbeste diskotoki, ainbeste dantzaleku, eta oietan ere kontuz ibilli bear! Ez dago emen arantza gabeko arrosarik. Ez orixe!

Beno, oporretara erritik kanpora zoaztenok, ondo ibilli, eta atzera berriz ere etorri illaren azkenean. Zuen etxean eta errian zai egongo dira, emen ez da iñor sobratzen-eta.

Adimena ta borondatea
ekarri mundu ontara,
eta alare jarri oi gera
besteen esanetara.

Saia gaitezen bizi izaten
komeni zaigun erara.

Geranak eta geuk nai deguna
izango gera artara.

Opor denboran sortu ditezke
ez dakit zenbat kutizi,
eta lagunak ere tentatu
oi gaituzte bizi-bizi.

Al daneraiño pakean beintzat
eta adiskide bizi,
baiña kontuan eduki beti
etxea dala lenbizi.

1996ko abuztuak 2

Garai onetan urtero bezela, erririk geienak utsik daude. Badirudi gure ametsa kolpe santurik egin gabe denborapasa ego-tea dala. Geldi dagoena etsaiak zirikatzen omen du ordea. Eta deabruak tentatzen banau, nik ere lanak ematea balitekela pentsatu eta irakurtzeari eman diot. Auxe omen da, gaiñera, oporraldian egin bearreko bat: irakurri.

Kontu zaarren artean aztarka nabilela jakin dedanez, Euskalerrian orain arte aurkitu dan gizaki-arrastorik zaarrena, emakume baten iztar ezurra da. Ezur orrek berreun milla urte bai omen dauzka, gutxienez. Ortik pentsatu gizakia noiztik dabillen

gure lurralde onetan. Gure asaba zarrak, arkaitz-zuloetan bizitzen omen ziran antziña. Kueba zuloetan, alegia. Artean ez baitzekiten etxeak egiten. Orretarako erremintarik ere etzuten izango, noski. Burua bear bezela argitu gabe edo ondo esnatu gabe zeuden gaiñera. Eta nolarebait bere gorputzak babestu bear, otzak eta busi-
tiak penatuko ez bazituen. Udan ondo ibilliko ziran, baiña etzan giro izango neguan. Eta ori bakarrik izan balitz, edo pakean bizitzeko modua izan balute, utsa. Artzak ere arkaitz-zuloetan babes-
ten ziran, eta aiekin burruka egin bear arkaitz-zuloan aginduko bazuten. Batek baiño geiagok bizia galduko zuten artzaren atza-
parretan.

“Gizonaren bizitza, lur gaiñean burruka”, esaten dute liburu santuak. A zer nolako egia. Mundura etortzearekin batera asi zan gizona burrukan. Leenbizi, pistiekin. Eta gero, alkarrekin ere bai, seguru asko. Arkaitz-zuloak bezela, inguruko eizeak eta gaiñera-
ko jakiak ere danak naiko zituzten, eta bein baiño geiagotan mutur joka egin bear-
ko zuten biziko baziran. Indartsuenak eta lotsagabeenak izango ziran nagusi orduan ere. Aul samarrak, al zuten bezela moldatu bear.

Beste gauza asko aldatu badira ere, jokaera onek ez dirudi aldaketa aundirik izan duenik. Artzak mendi zuloetan bizi dira oraindik. Guk menditik alde egin genduen, baiña ainbeste milla urte pasatuta gero, burrukan jarraitzen degu. Oraindik ez gera konturatu bizi geran baiño askoz obeto bizi gindezkeela. Noizbait konturatuko bagiña alkarri arrika ematen ari gerala, andik aurrera asiko giñake, pakean bizitzen. Uraxe mundua konpontzeko bide-
rik zuzenena. Baiña arkaitz-zuloetako aien antzeko gizakiak badaude oraindik, zoritxarrez. Batzuek premi gorrian bizi diralako, eta beste batzuek asetzen ez diralako, orain berreun milla urte asi genduen burruka ez degu amaitu. Baiña ez degu etsi bear. Beste ainbeste urte pasatzerako gizona sendatuko da, bearbada. Bestela, beretzat kalte.

Opor denbora ematen zaigu
lan egiñaren trukean,
illabetean bederik danok
bizi gaitezen pakean.
Abuztua da eta ez asi
geiago nai ta nekean,
iñola ezin ase diranen
antzeria beti eskean.

Ondartzan edo mendira joanda
artu lasai eguzkia,
opor denboran askorentzako
ori da gauz egokia.
Etzanda egon nai dunak artu
itzal batean tokia...
Ibilli zale diranentzako
laister dator noiz jeikia.

1996ko abuztuak 9

Abuztua, urtean egindako lanaren emaitza jasotzeko izaten zan garai batean. Orain, nekearen ondorengo atsedenerako, aberatsak bezela bizitzeko, penak aazteko eta tristurak botatzeko izaten da. Baiña ez dago zorion osorik emen. Donostira joaten geroan, danak festa betean bizi dirala iruditzen zaigu, baiña aurren oso triste omen daude. Amerikan bada Tina Turner izeneko artista edo kantari oietako bat. Artista orrek oso zango politikak dauzka. Eta abuztuan Donostiko Anoetako belodromoan kantatzekotan zan, baiña ez dala etorriko abisatu omen du. Auxe ere bada, ba! Donostiarrak alako zango politikak ikusi gabe gelditu bear. Sekulako disgustoa omen daukatela jakin det.

Onela esanda, txorakeri utsa dala dirudi. Baiña pixka bat pentsatu ezker, badu bere kakoa. Pantorrilla politikak gogoko dituztenak belodromoan ez bada Kontxan ikusiko dituzte. Baita Ondarreta edo Groseko ondartzan ere, politikak eta asko gaiñera. Baiña Anoetako sarrera-saltzailleak, eserleku erakusleak, gozo saltzailleak, edari saltzailleak, tabako saltzailleak eta nik ez dakit zenbat langille soil, zangoei begira egoteko astirik gabe sos batzuk irabazteko lana egingo zuketena egun aundia galdu dute. Anoeta bete-bete egingo zan seguru asko, eta jaialdia askorentzat irabazbide izango zan: Iberdrolak kilovatio pilla salduko zuen,

Telefonika etzan atzean geldituko... Oietaz gaiñera, trenak, autobusak, taxiak eta abar, zenbat lan egingo zuten, zenbat gasolina erreko zan, eta abar eta abar. Orratx nolako galerak neska kantari bat Donostira etorri ez dalako.

Pentsatzen jarrita ere, pantorrilla politikak edukitzeak ez du gutxi balio. Kantatu ere ondo kantatzen omen du, bai. Baiña ezer askoren bearrik ez dagola esan ditekete jendea mugierazteko. Beste alde batetik begiratuta ere, etxebizitzak, dirua, sal-erosketak eta negozioak denak alkarri lotuta daude, noski. Bistan dago. Baiña bizimodua erabat korapillatu degu, eta utsa bear da irabazi asmoak galera biurtzeko.

Tina Turner mundu guztian ezaguna da, bere edertasuna eta aotsa erakusten. Irakurri dedanez, datorren illean Bartzelonara omen dijoa kantaldia ematera. Egazkiñetako langilleak ere lana bearko dute, eta kutizia bete nai dutenak badakite nora joan. Artu egazkiña Ondarribian eta Bartzelonara. Kastuak kastu...

Uda garai au ona izaki
buru asko arintzeko,
baiña alaxe komeni alai
bizi nai dutenentzako.
Esan ditekete asko gerala
txoriburuen antzeko,
bi pantorrilla asko baitira
bazterrak endreatzeko.

Zango liraiñak nun aurkituko
bizi danak egunero
asko daude ta ikusko ditu
bereala edo gero.
Orrekin gaizki egiten danik
gaur iñork ez du espero,
iñolaz ere ez pantorrillak
politikak izan ezkerro.

1996ko abuztuak 16

Auntzak mendira nai izaten duela dio esaera zaarrak. Mendian aukera geiago izaten baitu bere pikardiak egiteko, sasi bazterrean sastraparen bati lotuta egonda baiño. Erri txikietan jaio eta bizi giñanok ere maite izaten degu jaioterria. Erri txikietako

bizimodua patxaratsuagoa iruditzen zaigu uri aundietakoa baiño. Jaioterriaganako maitasuna ez da itzaltzen, bestalde. Bertan bizi giñanean baiño indartsuago nabaitzen degu orain kanpoan bizi geranean. Neri ori gertatzen zait Zeraiñekin.

Izurrite batean lagundu ziolako artu omen zuen Zeraingo erriak San Roke bere zaindari. Txikitandik “San Roke, lagun zai-guzu izurri eta gaitzetan”, kantatu genduenok ez ba aaztu zerai-ñekin, gaur San Roke eguna da-ta. Baiña ni bakarrik ez naiz Zeraingo erriari loretxoak eskeintzen dizkiodana. Urrutiko jende askok ezagutzen du, eta toki askotan entzuten da Zeraiñen berri. Kazetariak ere noiznai egiten dituzte Zeraiñen gorantzak. Eta auetako batek esan du, denbora asko baiño leen, Euskadi ezagutu Zerain dalako ezagutuko dala. Gutxi al da? Zeraingo erria ikusi eta arrituta geditutako norbegiarrak bai omen dira. Ortik pentsatu zenbat tokitako jendeak ezagutzen duen.

Gure garaian erri guztietan izaten dira aldaketak. Zeraiñen ere bai, noski. Baiña egin diran berrikuntza guztiak ere ez diote bere nortasuna galduerazi. Erri berri bat ematen du, baiña zaarra zanean bezelakoxea eta aren inbidirik gabea. Orain irurogei urte bezelaxe eta orduan aiña egiten da oraindik ere euskeraz. Aldaketak onela egitea zailla bada ere, zeraindarrak ederki asma-tu dute. Orretan maixuak dira. Nola erritarrak ala kanpotik etor-tzen diran bisitariak, danak gozatzeko moduko magal zoragarri biurtu da Zerain. Une batzuk, edo egun osoa bertan igaro nai dutenak bear dituzten serbitzuak ere eskeintzen digu, dagokion maillan. Plaza txukun eta argia, bere museo eta guzti, inguru zoragarriak, jatetxe egokia, eta sagardotegia ere bai azkenik. Euskalerrria ondo ezagutu nai duenak Zerain ezagutu bear du.

Zeraindarrok xaguak omen gera. Gure erria ikusita zerbait esan diteke. Bere kabia egiteko iñun diran bigungarri ederrenak biltzen ditu xaguak, eta orrelaxe egin dute zeraindarrak ere erria apaintzeko. Eta ez dira orretan geldituko Aizpeko minatan burni-arria urtzen zuten labe bikaiñak berritzeko asmotan dirala jakin

det. Ikusten nago burnia eramaten zuen tren txikia ere martxan jarriko dutela oraindik! Jarraitu orrelaxe, zeraindarrok. Erri txikia dala, eta zer?!

Zeraindar izan utsa badala
gizon batentzat lain gradu.
Ori lenbizi entzun nuela
bada makiña bat ordu.
Ala ta guztiz ez da naikoa
naizta portatu ondradu,
edo ejemplo ona ematen
ibilli mundurik mundu...
Zeraindar ona izan nai dunak
bolatan jakin bear du.

Zeraindar danok maitatzen degu
jaioterria, alegin,
naiz eta bizi bearrez andik
gazte giñala aldegin.
San Roke jauna, orain nai dizut
bertsotan otoitz bat egin:
arren ta arren etzaitezela
sekulan aztu gurekin,
euskal oituren gordelekua
Zerain beti izan dedin.

1996ko abuztuak 23

Mundu au baiño leku ohea bai omen da. Baiña ori esaten dutenak aruntz joan baiño emen egotea naiago dutela pentsatu izan det, al duten artean beintzat. Asko dakitenak ere, aspalditik ari dira lanean gizonaren bizia luzatu nairik. Al dan artean emen bizi, eta osasun onarekin bizi ere. Ori bidezkoa da gaiñera. Iñork ez du bere buruari arrika emateko bearkizunik. Gaixoak sendatzeko eta bizia luzatzeko alegiñak egiten ari dan jakintsu batek esan du, beste urtebete barru gure gorputzean zerriaren puskek txertatzeko modua egingo dala. Zerriaren biotza omen da onena, bear izan ezkeru, gure gorputzean txertatzeko. Gurekin denborarik geienez bizi dan aberea bera da gaiñera.

Ez omen dago oso argi jaun orrek zergatik itz egin duen onela. Ainbeste denboran alkarren lagun izan geralako, zerriak gure antza artu duelako, ala zerriaren antzik geiena degunok geu geralako? Itz auek entzun zituzten ezkeru kezka ori burutik kendu

ezinda bizi diranak bai omen dira. Gauza guztiak bezela, pixkana-pixkana aldatuz goaz, eta zerriaren biotza txertatzen badigute, ez ote gera leen baiño zerriago biurtuko? Askori ez die onek parregurerik ematen. Zuzentasuna, alkarrentzako errespetoa, anima badaukagula pentsatzea eta orrelakoak aaztu ezean, or nunbait ibilliko giñake, naiz eta zerriaren biotza eduki barruan. Baiña gizatasuna galdua, deskuido santuan kurrinkaka eta uxarrean asten bagera, zeñek burutuko du gurekin?

Orain arte pixka bat bederik aurrera egin omen degu, baiña atzeraka asiko ote geran bildurra dute batzuek. Maitatu biotzarekin egiten degula esan oi da. Eta gure biotza zaartu eta zarrakiatu zaigulako zerriarena jartzen badigute, artalea geiago maitatuko degu batek bestea baiño. Gure jakintsuak burua zainduko al digute beintzat, bestela laister gera denok pentsu-zakuaren atzetik. Denbora luzean eta osasuntsu, baiña burua sano degula bizitzeko moduan egingo al dituzte txertaketa lanak, bestela ez dakit zer atarramentu atera bear degun. Nik esan gabe ere jakingo dute orrenbeste, eta ez gaitezen geiegi kezkatu.

Biotzak biotz, ezin aaztuko degu gaur San Bartolome bezpera degula. Lagun onak errez egiten diran erria da Zegama. Eta beti bezela festa alai ta umoretsuak opa dizkiot ango jende jatorrari. Egurastu on bat artu dezatela danok, osasun ederrarekin. Orixe eta geiago merezi dute.

Len entzuten zan Zegama zala
gazteentzako zerua,
ango musikak alaitzen baizun
erria ta ingurua.

Baiña jarraitzen badu izanez
festa leku segurua,
oraindik ere lengo lepotik
edukiko du burua.

Egun auetan zegamar asko
jardungo dira kantari,
San Bartolome Arbelokoa
beren zaindari jaunari.

Eta nik otoitz egiten diot
Aizkorriko kurutzari:
zerutik lagun egin deiola
Zegamako erriari.

Denborak ez luke bukatu bear gustora gaudenean. Baiña ainbeste maite degun oporraldia amaitu zaigu, abuztua bukatzera doan bezelaxe.

Uda garaian zenbait familitan izaten dira gorabeeratxoak. Gazteak oporrak etorri zai egoten dira derizkioten bezela egun batzuk pasatzeko. Aitak eta amak bazter askotara begiratu bear izaten dute ordea. Danak berdin pentsatzen ez eta ortik sua pizten da askotan. Ala ere, alkarrekin itz egiteko beta eta pazientzi apur bat artuko bagendu, oker asko zuzenduko genituzke. Gurasoak bere agindu naiari eutsi nai badiote, eta seme-alabak mutturra zimurtu eta itz egin nai ezta jartzen badira, akabo. Famili artan ez da izango gozotasun aundirik. Batek bestearekin konfiantza asko ere ez. Kontsejuak eman zakartasunez ematen dituen gurasoak agintearen zati aundia galtzen du, eta gazteak telebista ikustera alde egiten dute. Familiako arazoak ez dira konponduko orrela. An ez da ezertarako astirik izango. Ez bakoitzak bere iritzia emateko, ez alkarrekin garbi itz egin eta konpontzeko. Eta pozaldietan alkarrekin parre egiteko gutxiago. Nolanai ere, oporrak artu eta pittin bat sakabanatzea ondo etorriko da orrelakoetan.

Oporrak bearrezko dirala begien bistan dago, noski. Bai gurasoentzat, eta bai seme-alabentzat ere, urteko erremiñak gozatu eta burua lasaitzeko. Eta ez dira eguzki-kolore ederrarekin kalean luzitzeko bakarrik. Oporrak, familiko bakoitzak zer pentsatzen duen argi eta garbi esaten ikasteko ere balio dute. Opor kontua gai egokia izan diteke familian alkarrizketa sortzeko. Ez dakit oni duen garrantzitik ematen diogun, baiña ez dago esaterik ere familian ots aundirik atera gabe eta besteen iritzia errespetatuz itz egiteak zenbat mesede egin lezakeen.

Ez dakit ondo ala gaizki, baiña atzeratuak esaten diegun oietako neska gaztetxo batek lezio polita eman zidan leengo batean. Taillarren batean lana egiten du, eta oporrak artzeko zoratzen

zegoen. Baiña berriz ere lanera joateko etsian. “Jateko dirua bear da, eta dirua irabazteko lana egin bear”, esan eta lasai gelditu zan. Neska aren itzetan ez ote ziran agiri bere gurasoak pazientziz eta maitasunez emandako erakutsiak?

Brinkolan San Agustin jaiak ospatzen ari dira egun auetan. Orain urte asko eliza berritu zutenean San Agustiñen irudia bear, eta Azpeititik San Nikolasena bidali omen zuten elizan jartzeko, San Agustiñena zala esanda. Brinkolarrak bapo bizi dira, eta bi santuen laguntza izango dute, seguru asko.

Brinkolatarrak moldatzen dira
bakoitza bere lekuan,
ezagun dute ezeren kezkiak
ez daukatela kolkuan.
Denborarikan ez dute galtzen
elizara joandakuan,
San Nikolasi otoitz egiñez
San Agustin dalakuan.

Zeruan lasai parre egiñez
omen dauzkagu bi santu,
bati egiten zaizkan otoitzak
beste santu batek artu.
San Nikolasek brinkolarren
otoitzak zakuan sartu,
eta sobratzen zaizkan ondarrak
San Agustiñi pasatu.

1996ko irailak 6

Otordu on bati bukaera emateko kafetxo bat artzea bearrezkoa iruditzen zaigu. Baiña ezin esango degu oraingo oitura danik, leengo amonaxoak ere kafea maite izaten baitzuten. Nai aiña ezin artu izaten zuten eta orixe txarra.

Amerika aurkitu ondorean, batez ere Frantziak mendean zeuzkan lurraldeetan izaten zan kafea. Eta Portugalek ere zerbait nai, eta ango erregeak Brasillen zeukan enbajadorea bidali omen zuen frantziarren gobernadoarengana kafe-landare batzuen eske. Enbajadorea gizon bikaiña eta egokia izan, eta bere lanetan abilla. Frantziak kafearen irabaziak beretzat nai, eta gobernadoreak ezezko legorra eman zion enbajadoreari. Baiña gobernadorearen

emaztea etzegoen lo, eta alako gizon bikain eta egokia eskutsik ez bialtzearren, despeida egiterakoan sekulako lore sorta opari egin zion enbajadoreari. Lore sortak kafe-landarez beteta omen zeukan barrua. Eta bereala omen ziran Brasilgo lurrak kafe-landarez beteta. Orra gizon baiña eta egokia izateak zer balio zuen orduan ere. Gobernadore batek baiño geiago. Istoriak ere, enbajadorea gobernadorekin baiño aren emaztearekin obeto konpondu zala esaten du.

Frantziarrei eskuetatik iges egin ondoren, bereala zabaldu zan kafea Amerikako lurralde beroetan. Mixiolariak ere – batez ere mixiolari euskaldunak – arreta aundia jarri zuten indioei kafea lantzen erakusteko. Ez omen ziran langille purrukatuak, baiña mixiolariak ederki asmatu zuten ango bizilagunei kafe-landareak nola aldatu erakusten. Kafea sartzera joaten ziranean, zer pekatu egin zuten ainbeste kafe-landare aldatzeko penitentzia ematen zieten. Zenbat eta pekatu astunagoak, orduan eta kafe-landare geiago aldatu bear. Amerikan dauden kafe saillak ikusita, indio gizarajo aiek ainbesterañoko pekatuak egiten al zituzten galde-tzen dutenak badira.

Gobernadorearen emazteak jokabide leunagoa artu zuen kafea munduan zabaltzeko. Bai orixe! Enbajadorea ain gizon eder eta egokia ikusita, nola ez egin mesedetxo bat edo beste? Ura ere lagun urkoa maitatzea izango zan, noski. Baiña zertan aitzakiak eman mixiolariei? Aien jokabidea etzan izango gobernadorearena bezain gozoa. Errezatzen erakustea ondo dago, baiña lana egiñez eguneroko ogia irabazten erakustea ere bai. Eta bide batez, naiko kafea artzeko modua egin gaiñera. Denok ez ditugu era berdiñak lagun urkoa maitatzeko.

Mundu onetan suertez betea
izaten da zenbait zaldun
Goi maillan dauden andreak ere
egin izan ditu lagun.

Danekikoa ondo egiten
danok bear degun jardun
Modu batera edo bestera
urkoa maite dezagun.

Al dan guztian mesede egin,
au da gauzik zuzenena.
Ori dalako jatortasunak
ematen duen ordena.

Jakiñagatik au betetzeko
bide ugari daudena,
emen nork daki orretarako
zer dan erarik onena.

1996ko irailak 13

Mutil koskorrak giñala noizean bein joaten giñan Donostira gu ere. Eta funikularra artu eta Igeldora igo ere bai. Ango tiobi-boei begira ez giñan aspertzen. Eta aietan ibiltzeko txanpon batzuk izan ezkeru, ura izaten zan gozamina. Festaegunetan ere ez baizan tiobiborik etortzen gure errietara. Zer ikusi geiago ere izaten genduen Igeldon. Ursula deitzen zioten artz aundi bat an egoten zan alde guztietatik ura sartzen zitzaion burnizko kaiola batean. Tximuak ere egoten ziran Igeldon. Eta aiek politagoak ziran guretzat. Kakauheteak jateko zeukaten abildadea ikusita, arrituta egoten giñan aiei begira. Azala puskatu eta eskuarekin alea aora eramaten zuten, baiña azalik jan gabe. Ori, mingaiñarekin bultza egin eta kanpora botatzen zuten, azkar asko.

Ordutik onera asko aurreratu gera, eta orain ez dago tximuak ikustera Igeldora joan bearrik. Edozein kale bazterretan, koskaren batean eserita pipak jaten ari diran neska-mutikoei begiratu besterik ez dago. Mamia jan eta pipa-azalak prist!, botatzen dituzte aotik, tximuak kakauhete alearen mintza bezela. Pipa-jaleen tokiak nunai ikusten dira gaur. Pipa-azal pilla lurrean badago, ura da oraingo tximu modernoan biltokia. Izan ere, egoten diran tokiak pipa-azalez estalita uzten dituzte, eta orrek narrats itxura aundia ematen dio oitura oni.

Igeldora joaten giñan garai artan, gure leenengo gurasoak Adan eta Eba izan zirala esaten ziguten. Gizon eta emakume guztiak aien ondorengoak, aiengandik etorritakoak generala. Ala bear bazan ala izango zala-ta, lasai bizi giñan alde orretatik beintzat.

Baiña liburuak irakurtzen-eta asi giñanean nun jakiten degun, asko zekien gizon batek esan zuela gizon-emakumeok tximuen-gandik etorriak gerala. Kontxo, baliteke ori ere. Baiña tximuak baiño zer bait geixeago izango al gera beintzat, eta ezin geiegi kezkatuko gera.

Baiña oraingo pipa-jaleak ikusi eta Igeldoko tximu aietaz oroituta, ez ote daukagu alkarren antz pixka bat? Tximuak kakauhete-azalak lurrera botata bertan uzten dituzten bezelaxe, pipa-jaleak ere azalak lurrera botatzen dituzte, eta ortik aurrera-koa ikusita dago. Tximuak ez dute ikasi kaiola edo dauden tokia garbi gordetzen. Eta aien aldean asko aurreratuta bizi gerala uste degu guk. Baiña baliteke egoten geran tokia ez zikintzen ikastea. Garbia ez da asko garbitzen duena, gutxi zikintzen duena baizik.

Neska-mutil jatorrak
ziran atzokoak,
orobat gaurkoak,
baiña ez pikardirik
egin gabekoak.
Danak ez dira, noski,
kasta berekoak,
tarteetan badabiltza
biotz onekoak.
Ala ere batzuek
narrats antzekoak.

Artu baldin badegu
gizonen tankera,
egiñez aurrera,
etorri geralako
txarretik onera.
Ez degu joan bear
bide okerrera.
Iñola al badegu
ez egin atzera.
Narrastu ez gaitezen
tximuen antzera.

1996ko irailak 20

Inglaterrako jendea ain futbol zalea izanik, ango apaizak ere zale purrkatuak omen dirala esaten dute. Futbola dala eta ez dala, ango erri koskor bateko apaizak pozez zoratzen omen daude. Orain arte errian jokatzen ziran partiduak debalde ikusten

zituzten, baiña bere talde edo ekipoa diru eskasiak jota omen dago ordea, eta zuzendariak emendik aurrera apaizei sarrera kobratzea erabaki omen dute. Apaizak kopeta beltza jarriko zutela esan zitekeen, baiña ez, ba! Sarrera ordaindu ezean ekipoaren alde errezatzeko agintzen zietela eta ortatik libre dirala beintzat, eta gustora omen daude orain.

Apaizen lanetako bat errezatzea izanik, erriko ekipoaren alde errosario bat edo beste errezatzeak ez dirudi neke aundia izan bear duenik, baiña ala ere dirua eman naiago lan ori egin baiño. Apaizak badakite ondo zer egin, eta ez det uste erriko taldearen alde errezatzeari utziko diotenik, ezkutuan bederik. Errosario osoa ezpada ere, aitagure bat edo beste jaulkiko dute. Eta gero sarrera ordaintzen badute, orra premian dagoenari bi eratarata laguntzeko modua.

Gure etxeoandreentzat ere erakutsi polita eman dute Ingalaterrako apaizak. Etzi sartzen gera udazkenean. Uso-eizea puri-purian degu aurki. Bestalde, biar koarta denboraren azkenengo eguna izango degu, eta eguerdian zer aize gelditzen dan jakiteak garrantzi aundia du eiztariantzat. Astea lanean pasatu eta nekatuta egoten dira senarrak, eta gauean aizeari begira egoteko gogorik ez dute izango. Orratx senar eiztaria daukaten etxeoandreentzat aukera ederra egintza onak egiteko. Etzi goizaldera jeiki, aizeak nundik jotzen duen begiratu, eta senarra esnatzen danean, aaztu gabe esan. Erlojuak bi ordu aurreratuta daude, eta goizeko ordubietan isil-isillik jeiki eta dana egiña daukazute. Ez ote du orrenbeste merezi senar gizarajoak?

Dana dala, Ingalaterrako apaizak bezela, etxeoandreak dira irabazle orain ere. Errukizko bi egintzaren aukera daukate, alajaiña! Udazken guztian senarrari pazientzia artzeko aukera ez baidute nai duten guztiak izaten. Gure etxeoandreak ainbeste badakite, eta ez dute aukera alperrik galduko, Ingalaterrako apaizak bezela ezkutuan zerbait errezatuko badute ere.

Eiza dala-ta bata bestea
ez da artu bear zakar,
akats txikia da ori eta
obe da babestu alkar.
Pazientzia artu laguntzat,
ez alkarri eman bizkar,
udazkeneko mikatz aldiak
negu goxoa baidakar.

Eiztari eta etxekoandreen
artean dagon burruka
ezin eraman arin bat dala
ezin dezakegu uka.
Udazkenero artu ezkeru
bere senarra musuka,
dudarik gabe emazte arek
zerua seguru dauka.

1996ko irailak 27

Nai duenak nai duena egiten duen garai onetan entzuten diran berri danak ez dira pozgarriak. Bartzelonan aur jaio berri bat aurkitu dutela zabor artean. Madriden etxegintzako langille batek plastiko zorroan sartuta zegoen aurtxo bat aurkitu duela zakar ontzian. Galizian, itsasertzeko arkaitzen artean ume jaio berria aurkitu duela arrantzale batek. Bilbon, ertzain batek iru illabeteko aurre atera duela zabor artetik... Ezer ez dakidan arren, garaia baiño leen eta giro txarrean egindako lanaren ondorioak dira, seguru asko.

Baiña gauza auek ez dira an eta orain bakarrik gertatzen. Leenago ere izaten ziran onelako gertakariak, eta ez urrutietan bakarrik. Baita Euskalerrian ere. Gure historian irakurri ditekenez, orain irureun urte eta geiago dirala ere legezko etzan aur asko jaiotzen zan. Gauzak artaraiñoxe iritsi ziran, Estaduak eta Elizak alkar artuta ainbeste sasiko aur jaio etzedin alegiñak egiteko erabakia artu zutenean. Milla eta zazpireungarren urtearen ondorengo amar urtetan, Gipuzkoako erri batzutan jaio ziran eun aurretatik zortzi, sasikoak omen ziran. Legez kanpokoak, alegia. Eta egoera ari ateak isteko Elizak artu zuen neurrietako bat, sei-garren aginduaren edo aragizko pekatuaren kontrako pekatuak biziki salatu eta gogor zigortzea izan zan, historiak dioenez. Eta

orrela izango zan, noski. Oraindik urte asko ez dala ere gerra bizia egiten zion Elizak arazo orri.

Dantzarako zaletasuna ere etzan libratu burruka artatik. Nola libratuko zan, ba, apaizak esaten zutenez infernuko deabrua ere dantzarrien tartean ibiltzen omen zan-eta? Ala ere, apaiz guztiak ez ziran dantza egitea debekatzearen aldekoak, eta ori ere esan bear da. Aita Larramendi jesuita eta euskal idazle jakintsuak esan omen zuen, dantza egitea debekatuta egon zan urte batean beste edozein urtetan baiño sasiko aur geiago jaio zala. Plazan dantzan egiterik ez eta edozein atari edo leku ezkututan egiten omen zituen billerak gazte jendeak. Eta jakiña, illunpetako lana, argitako lotsa. Ez, noski, zer gaizki zegoen eta zer ez argi eta garbi esan izan balitzaie.

Seigarren aginduaren kontrako usaia zuen guztiari eman zitzaion garrantzia eta astuntasuna, eta ori zala-ta ateratzen ziran deadarrak bere frutua eman zuten: emakumeari pekatu-eragille bat balitz bezela begiratzen zitzaion. Orrela irakurtzen da historian. Ez da nik asmatutakoa. Baiña ori geiegikeri bat da. Ia-ia esan nuen astakeri bat dala.

Lenago dana pekatu zan ta
gaur berriz ia ezer ez.
Baiña okerrak egiten dira
sarri, ikusten degunez.
Bildurrak ere ez gaitu sartzan
arrastoan zoritxarrez.
Pertsonak gutxi balio du ta
aurtxoak berriz baterez.

Erlijiorik gabe biotzak
oso legortu zaizkigu.
Egiten diran astakeriak
ditugu orren testigu.
Basa-abere ta piztien gisan
portatzen gera sarri gu.
Biotzak eta buruak noizbait
argituko al zaizkigu.

1996ko urriak 4

Zer etorriko burura eta gaur San Frantziskoren eguna dala gogoratu naiz. Gaztetxoak giñanean ainbeste aldiz entzundako

kontuak ez dira bereala aazten, izan ere. Zortzireun eta amalau urte dira Asisko Frantzisko jaio zala. Guraso aberatsen semea zan mutil gazte ark, bere ondasun danak saldu eta beartsuei eman, eta penitentziko bizitzari eldu zion, zerua irabaztearren. Eta zerura joan nai zuten guztiei laguntzeko, frantziskotarrak deitzen diegun frailleen ordena sortu zuen gaiñera. Guk Arantzazuko frailleak esaten diegu gaur egun.

Fraille oiek erri askotan zituzten, eta dituzte, komentuak. Eta garai batean ez dakit iñor izango zan Euskalerrian Arantzazuko frailleen sermoiren bat entzun gabekorik. Gaur beste aize batzuk jotzen gaituzte. Errietan ematen zituzten mixioak eta abar, euskaldunon artean eragin aundia zuten, eta gauza askotan aien esanetara bizi giñan, ez dago ukatzerik. Beren Aita San Frantziskok agindu bezela, animak salbatzeko ardura aundia zuten. Aien erakutsiak gu zuzenean zerura eramateko ziran, eta estu samar artzen gintuztela ere esan ditekela pentsatzen det. Guk, zerua irabazteaz gaiñera munduko bizitzari ere eutsi bear ordea, eta orrek lanak ematen zituen. Gizonak ez gera aingeruak, eta noizean bein arrastotik irten egiten giñan. Ala ere, gauza asko kontuan artuta, kalte baiño mesede geiago egiten digute fraille oiek. Gaur ez daukagu orduan aiña lotsa. Eta mixioak ematera etortzen badira, zer esango ote diguten kezkarik gabe bizi gera. Baiña geure artean leenago bezelakoxe okerrak gertatzen dira orain ere. Frailleak pakean uzten digute, baiña ez gera batere zuzendu. Aitzakiak aitzaki, seigarren mandamentua astintzeaz gaiñera, bakoitzari berea ematen ere bazekiten aiek.

Oñatiarrak ondotxo ospatu oi duten *Errosarixoko domeka* degu etzi. Arantzazuko frailleak eta oñatiarrak oso ondo konpon-tzen dira alkarrekin. Eta Oñatiko jaiak zirala-ta, orain berrogeita sei urte Arantzazuko fraille Aita Agirretxek Oñatiko amatxo guztiei egindako gorantzak bezelakorik gutxitan egingo zitzaion garai artan emakumeari. “Erriko jaietan, etxekoandreak jai gutxi eta lan asko. Jaiak etorriko dira, eta beren etxeetan danak poza eta

alaitasuna izan dezaten alegiña egingo dute”, zioen frailleak beste gorantza askoren artean.

Mixioen berri Txirrita bertsolariak ederki asko eman zuen *Goizuetako mixioak* izenburuarekin jarritako bertso batzuetan. Entzun pare bat.

Ministro oiek izandu dira
predikadore sotillak.
Lendabiziko gizonagatik
izugarrizko bataillak.
Gero aotan artu dituzte
neska gazte ta mutillak...
Azkenerako astindu ziran
atsuen pattar botillak.

Bertso oriek ez dira izan
goizuetarren kaltian.
Len aiña anima ez dago orain
deabruaren khatian.
Aita San Pedrok sartu gaitzala
zeruetako atian,
danok jolasten an ibiltzeko
aingerruekin batian.

1996ko urriak 11

Zaragoza aldean pozik ibilliko dira egun auetan, biar Andre Mari Pilarekoaren eguna baita. Santiago apostolua jentillak konbertitu eziñik neka-neka eginda zegoen gau batean Ama Birjiña azaldu omen zitzaion, animoa ematera zerutik etorrita. Guri, Ama Birjiña bizi-bizirik etorri zala zerutik esan oi ziguten ume giñanean. Eta sinistu egiten genduen, alamoduzko gauzak errez sinisten ziran-eta garai artan. Gaurko umeei esan bear orrelakorik!

Emen ere bazituen jarraitzailleak Andre Mari Pilarekoak, eta ezkonberri asko Zaragozara joaten ziran beren bizimodu berriari asiera ematera. Oraingo ezkonberriak urrutixeago egiten dute egan. Garaian garaiko kontuak dira. Nolanai ere, ezkonberritako egunak oso gozoak izaten dira. Asunak eta arantzak geroxeago asten dira, eta Pilarika inguru onetan dexente piztu edo zorroztu ere egiten dira batzuetan. Egoaize-garaian aizeak badaki bazterrak endreatzen. Pikardirik egin ez dezan, ez dago egun auetan

gauzak benetan artzeari utzi eta umore onari indarra ematea bezelakorik. Garrantzi gutxiko gauzak umore onez artzea ikasi bearreko oitura da, noski. Onetan saiatzen diran senar-emazteak bere buruei eta familiari zenbateraiñoko mesedea egiten dioten bai ote dakigu ondo? Ori ere denborarekin ikasten da.

Danak ez dira edozer gauzagatik petraltzen diranak. Badira kontu ariñak eta serioak bereizten dakitenak ere. Familia azi eta ezitzeak bere lanak ditu. Baiña lan orrek ere izaten du bukaera. Ori kontuan artuta, etxeko bizimodua umore onarekin gozatzen dakiten gurasoak lanaren erdia eginda daukate. Aurrak, zer ikusi ura ikasten du, esaerak dioen bezela. Gurasoak alkarrekin ondo konpontzen ez badira, eta alkarrekin sarritan itz egiteaz gaiñera mikaztasunik gabe eta bear dan moduan itz egiten ikusten badi-tuzte, uraxe ikasiko dute aurrak. Esaten dutena egiten duten gurasoak bezelako maixurik ez da aurrei bear bezelako pertsonak izaten erakusteko.

Egun auetan egoaizea izango degu, seguru asko. Eta egoaizeak naasmen asko ekartzen du gure artera. Betiko leloa da, garai onetan: eizea, uso pasea... Beno, ba, pazientziz artu dana, eta ez petraldu iñola ere. Badakit urtero gauza berdintsua esaten dizuedala garai onetan, baiña lasaitu zaitzte. Ez du merezi asarretzerik.

Goizean goiz jeikita
isillik mendira,
isillik mendira.
Ai, zer amets politak
egiak balira!
Berrogeitxo bat tiro
nai lituzte tira.
Ez errezatzen baiña
zerura begira;
bizi txarragoak
munduan badira.

Aitzaki asko ditu
eiztari izanak,
eiztari izanak.
Naiz ta ez eman egin
ezin leizken lanak.
Kutizi utsak dira
senarrak dauzkanak.
Ez batere estutu,
emazte laztanak.
Etorri bezelaxe
joango zaizka danak.

Noizean bein zertan edo artan utsegin ez duen iñor ez da izango. Orri ez dago alde ematerik, eta beti ala izango dala etsian egon bearra dago. Utsegin degula konturatzean, burugogorkeriz okerra zuzendu nai ez izatea da txarra. Orretarako nork bere burua ezagutu bear du ordea, eta danok ez gera iristen orretara. Izan ere, utsegitea gizonarena dala esan oi da, eta okerra zuzentzea, jakintsuarena. Eta gizonak geiago izan jakintsuak baiño! Or dago koska. Utsegiteak ezagutu, aitortu eta zuzendu nai izateko burua makurtu bear izaten da, eta ori ez degu nai izaten askotan.

Castillako lurretan mendi-koneju asko izaten zan garai batean. Orain berrogei urte gaitz batek zarrantza izugarria egin zuen animalia aien artean. Etziran danak akabatu, baiña asko bai. Eta bizirik gelditu ziranak itsutu eta muttur ingurua sarnaz beteta gelditu ziran. Laister akabatzeke moduan, alegia. Pena ematen zuten. Zer izango, eta urte aietan Frantzian ainbeste ugaldu ziran mendi-konejuak pikardi aundiak egiten zituztela soroetan, eta albaiteko batek mendi-konejuak akabatzeke botika asmatu zuen. Baita makiña bat akabatu ere. Baiña gaitz itsaskor bat sortu zan konejuetan eta gaitz ark etzuen frontierarik errespetatu. Espaiñiako lurretan ere garbiketa ederra egin zuen, zoritxarrez.

Eiztariak, ekolojistak eta nekazariak ere konturatu ziran konejuekin batera bakandu zirala mendi-konejuak janez bizi ziran arrano, miru, sapelats eta beste egazti eta pisti asko. Ordaiñetan, sator, suge, satitxu eta abar ugaldu ziran, eta soroetan kalte egiten jarraitu zuten. Konejuak akabatzeak mesede batzuen tartean kalteak ere ekarri zituela, alegia. Konejuak ala akabatzea ankasartzea izan zan. Gero, utsegitea konpondu bear-eta, konejuak bakantzeke botika asmatu zan bezelaxe, gaitzaren kontrako txertua asmatu dute orain. Baiña mendi-konejuak nola txertatu? Okerrak zuzentzea jakintsuen lana izan, eta asmatu dute zer egin. Kapasta edo arkakusoei botika berri ori janerazi eta auek, odola

txupatzeko miztoarekin zulatzean, konejuak txertatuta uzten dituzte. Ezertarako balio ez duenik ez dala esan oi da, eta orratx arkakusoak eta kapastak lanean jartzeko modua egin. Dana dala, konejuak ari dira ugaltzen, eta laister berriz ere eiztariak asiko dira Castellako lurretan eizean.

Eiztari askok eduki dute afizioa gordean, baiña uste det laister dirala berriro lengo bidean: egoaizeak aztoratuta Castilla aldera airean, uste gabean erori arte jakintsu baten mendean.

Indartsu eta sano daudela konejuzaleak uste, baiña botika berriak ere iñoiz premizko dituzte. Zer gaitzek jota dauden etxeko jakintsuak badakite, eta kontrako txertu ederra etxekoandreak daukate.

1996ko urriak 25

Janondo ona izateko, bazkalondoan lokuluska gozo bat egitea bezelakorik ez omen dago. Ala esaten dute osasuna zaintzeko zer egin bear dan ikasi zutenak. Beste itz batzutan esanda, bazkalondoan siesta ederra egitea ona dala osasunerako. Loalditxo orrek bazkaritan sartu ditugun janariak barruan egosten laguntzen du. Digestioa egiten, alegia. Orretarako, sabel inguruan bestela baiño odol geiago bear izaten da, eta bazkalondoko atsedanak odola sabel barrenera inguratu eta an biltzen laguntzen du. Bidebatez, gorputzaren gerri ingurua indarrean jartzen du. Au ez dute medikuak bakarrik esaten. Badira urte batzuk artzai bati entzun niola siesta garaia oso arriskutsua dala. Artean gaztea nintzan, eta ez nion antzeman zergatik esaten zuen. Artzai ark bazi-tuen bost alaba ordurako, eta jakiñaren gaiñean egongo zan.

Europa guztian aurrik gutxien jaiotzen dan lurraldea Euskalerrria omen da oraiñaldian. Aitzakia pranko ematen digute

euskaldunoi, eta au ere leporatu digu norbaitek. Ez dirudi, ba, orrentzat erremedioa ain zaila danik. Ezer bada-ta, ondo jatea gustatzen zaio euskaldunari, eta orretara iristeko lana egiteko kupirarik ez du. Orregatik, berriketak alde batera utzi eta lana emango balitzaio, euskaldunak asmatuko luke ondo bizitzen. Siesta ederrak egingo lituzke. Ez litzake euskaldun txiki faltarik izango.

Baiña batek eta besteak esandakoari neurriak artzen ikasita dago ordea emengo jendea. Ez dago zer gertatzen dan ikusi besterik. Aurki, zaar jendea besterik ez dala izango emen eta orrelakoak ez dute indarrrik oraiñaldian. Izan litezke egiak, baiña bizi egin bear dala ere ez da gezurra. Eta orri begiratzen diote askok. Ez da, ba, beste munduko gauzarik eskatzen. Ezta limosnarik ere. Lana eskatzen da. Lana egiñez ondo bizitzeko modua geiagok baleukate, eta etorkizuna argiago ikusiko balitz, a zer nolako siestak egingo giñuzken Euskalerrian, deskuidotxo bat edo beste gorabeera. Beste oillar batek kukurruku egingo luke emen. Eta oillarraren kukurruku otsarekin esnatzea ez al da obe, tristuraz eta kezka beteta esnatzea baiño?

Nun ote dira garai bateko *familia numerosa, puntuak eta subsidioak*? Leenago saiatzen zanari zerbait ematen zioten, siki-ra. Orain ez dago orrelakorik. Berriketa asko eta laguntza gutxi.

Bati iristen baldin bazaizka
egun illun ta estuak,
arentzat berdin dira sermoiak
eta txorien kantuak.
Emengo bazter guztiak daude
ainbesteraíño nastuak,
biar ez dakit baiña gaur beintzat
alperrik dira kontuak.

Gutxitzen ari gerala eta
ainbeste errosario!
Kezka pixka bat ematen du ta
ez da ori misterio.
Baiña bizitza osatu orde
ez al gabiltz itz-jario?
Bizitzeko lain bear danean
itzak ez dute balio.

Santu guztien eguna. Bai omen dira urte guztian iñork erretzen ez dien santuak zeruan. Ainbeste dira, izan ere! Ez da erreza danen izenak jakitea. Zerua irabazi zuten ezkerro, gure gorantzak merezi dituzte. Eta guk ere aien laguntasuna izaten degu, eta santu bakar bat ere baztertuta gelditu ez dedin, urtean egun batez danak batera ondratzea pentsatuko zuten. Orixen da danekikoa egiteko modurik onena. Egun onek alaia bear luke izan, baiña animen eguna gertuan dalako edo, kanpai-ots triste samarrak entzuten dira egun onen ondorenean, eta orrek jai giroa illundu egiten du pixka bat. Leenago orrela izaten zan beintzat. Orain, auskalo.

Santu guztien eguna ezkerro negua urbil izaten da. Eskiatzera joateko irrikatzen daudenak pozik egongo dira, baiña belaun kati-luak erreumak artuta dauzkatenak, negurik gabe ere pasatuko lirakela esango dute. Azaroko negu-lorak baiño apirilkeko arrosak pozgarriago izaten dira gerria okertzen asita daudenentzat. Otx egiten duelako etxe zuloan sartuta egon bearrak ez du jolasgurerik ematen. Ala ere, aurten beintzat, danak ezin kejatuko dira. Futbolzale diranak naiko aukera daukate epelean daudela denbora errez pasatzeko. Telebistari begira egotea asko dute. Baiña beti bada zerbait emen, eta etxeoandreak apenas oso gustora dauden. Orain arte Realak Donostian jokatzea edo beste edozein partidua kaskar naikoa zan igandean senarrak anka egiteko, emaztea etxean bakarrik utzita. Realak esan det, eta ez Errealak. Nere ustez Realak erreala baiño geiago balio du, eta barkatuko al didazute. Kontua zera da: leenago etzegoela lotuta ere senarrak etxean edukitzerik. Orain, edozein egunetan telebistan futbol partiduak ematen dituzte, eta an egoten dira danak telebistari begira begiak ia irtenean, emazteari kasorik egin gabe. Leenago senarrari etxean eutsi ezin, eta orain etxetik bidali ezin. Traban jarri eta segi antxe. Eta partidua ari danean ez itzik egin ari, bestela arrazoi txarren bat laister izango da. Etxekoandre gajoak badaukate lanik asko.

Beti nundik senarrari gustoa egingo, eta orra nolako eskerra jasozten duten askotan. Senarraren ondoan eseri eta isil-isillik partidua ikusten egotea naikoa luke, baiña zein egoten da isillik ordu ta erdian? Debora geiago ere egoten dira batzutan itzik egin gabe. Baiña ez senarrak nai duenean edo aparia gertatzen laguntzeko agindu nai diotenean.

Kontuan izan bear genduke
negu bezperan gaudela,
ainbeste iguin ematen digun
otz ura badatorrela.
Zaindu dezagun alegin guztiz
etxeko giro epela,
batak bestea goxo artuaz
komeni zaigun bezela.
Negua otz ta gogaikarria
izango degu bestela.

Bakoitzak bere gustoak ditu
au da gauza nabarmena,
eta guztiok buruan ondo
sartu bear gendukena.
Alkarri arnas artzen uztea
izan liteken onena,
bide ortatik lortu dezagun
bizitzarik gozoena.
Eta besteak kontuak dira
au da balio duena.

1996ko azaroak 11

Azaroa badijoakigu aurrera. Eiztariak eta olerkariak ainbeste maite duten urte-sasoi ederra azkenetan da. Udaberria bera baiña beteagoa dala udazkena esaten dute batzuek. Baliteke, baiña ala bada eta ezpada, neguari ateak zabaltzen dizkio eta orrek ez du biotza asko pozten, elurra polita izan arren leiotik begira egoteko. Bereala gera, ba, neguan. Eta negua ez da bakarrik etortzen. Osasunaren etsai asko ekartzen ditu berarekin batera. Eta etsai oiei aurpegia emateko bear bezela prestatu ezean, lanak ematen ditu neguak. Eskiatzera joateko sasoi ona daukatenak moldatuko dira, baiña otzak dar-dar jartzeko utsa bear degunok argi ibilli bearra daukagu. Buruko miña, katarroa, eztula eta abar, oiek dira neguaren propiñak, gripea danen kapitan dala.

Gripe moeta edo klase asko omen dirala esaten dute. Eta ez du erreza izan bear kontrako erremedioa aurkitzen. Medikiak ere arrapatu egiten dute, eta ortik pentsatu. Alare, txertua asmatu zan ezkeroztik leen aiña pikardi ez du egiten, eta ori ere eskertzekoa da. Osasunaren kontrako etsaiak menderatzeko alegiñak egin ditugu ala ez esamiña egiteko garaian gaude. Dauzkagun aukerak ez ditugu alperrik galdu bear, eta gripearen kontrako txertua artu gabe baldin bagaude, artu dezagun leenbaitleen. Etsai ori etxean sartu ezker, famili guztia jipoitu arte ez du ematen pakerik.

Urtero egiten da gripearen kontrako kanpaiña eta aurten ere egin zan bere garaian. Zenbaitek ez du federik txertuan, baiña nik bestaldera esango nuke, gezurra esateko bildurrik gabe gaiñera. Zabarkeriz edo aaztu zaiolako txertatu gabe dagonak, zalantzan badago, sendagilleari galdetu eta aren esanetara jartzea du onena. Zulatu bat gorabeera, aste betean seko jota ezertarako gauza ez dala etxean egotea baiño obe da. Badaude gure onerako lanean saiatzen diran erakundeak eta jator asko portatzen diran sendagilleak. Oien aolkua txertua artzea dan ezker, esana egin dezagun eta kitto! Zerbaiten eragozpenik edo zalantzarik badegu, bear diran argitasunak emateko beti prest daude gaiñera. Zer geiago egin dezakete neguak menderatu ez gaitzan?

Txertatu bearreko geienak txertatuta egongo dira onuzkero, eta nere berriketak alperrik izango dira aientzat. Badira ordea beste alderakoak ere, medikuak baiño geiago dakitelakoan, edo bildurrez, txertatu gabe gelditzen diranak. Ez da pekatu izango orrelakoak erremedioa artzera animatzea. Eta barkatu, gaur gei-txo esan badet.

Gripek bat ondatuta
nola uzten duan,
ez da giro izaten
beraren onduan.

Negua pasatzeko
bear dan moduan,
lagun gozoagoak
badira munduan.

Lur joerazi eta
makaldu zearo.
Griperengandik beste
ezer ez espero.

Txertua artu gabe
ez egon luzaro,
damu izan ez dezagun
alperrikan gero.

1996ko azaroak 15

Munduaren berri ikasteko eskolarik onena eguneroko bizi-tza da, noski. Eta irudi batek milla itzek baiño geiago balio du orretarako. Ikusten danak geiago balio duela, alegia, entzuten danak baiño. Bestalde, teknikaren gorantzak noiznai entzuten ditugu. Eskuz lana eginda baiño makineriari lana eraginda obeto bizitzen dala. Makinak lanean ikusten ditugunean, iñork esan gabe antzematen diogu tresna oiek bizimodua asko erreztu digutela. Garai batean bezela, lixiba eskuz, edo erropak garbitzeko tresna lanean jarrita ark lanak egin bitartean kaletik jiratxo bat egin, badago alde ederra. Guk ederki antzematen diogu. Baiña negu gorrian ama errekan erropak garbitzen ikusi etzutenak, ez dakite leengo erropa-garbiketa zer zan. Esan utsarekin ez dago lixiba zer zan ulertuerazterik.

Gure uste guztia teknikan jarri genduen, lanak makinaz egitean. Eta ez genbiltzan oker. Baiña oraingo eguneroko bizitzak naiko garbi adierazten digu teknikak ez dituela estali premi guztiak. Leen lanak egin ezinda bizi ziranak, orain ere alatsu bizi dirala. Emakumeak, esate baterako. Makinak emakumeari lana asko erreztu dio, baiña ez dana.

Teknika kontuan Ipar Amerika izan da guretzat eredu. An badira etxetik irten gabe kanporako lanak egiten dituzten emakumeak. Baiña ez dira libratzen etxeko lanetatik. Leenago etxeko lanak egiten zituzten, eta orain etxeko lanak eta kanporako lanak, gaiñera. Eta zer gertatzen da? Emaztea aurrak azten eta familiko burubidea bere gain dituela etxean kanporako lana egiten, bide-

batez. Eta senarra kanpoan. Kontuan izan bearreko beste zerbait ere bada: lana ematen duenak, zatika, puskaka ematen diela etxean lana egiten duten emakumeei. Ez egunero eta egun guztirako, gizonetzoei bezela. Eta gutxiago ordaintzen diete. Ez dago, beraz, teknikak emakumeak aberastuko dituen bildurrik. Emakumeak lana nai zuten, eta lortu dute, batzuek beintzat. Baiña asko eta asko ez dira irten lanaren mendetik. Lan asko makinaz egiten dan garai onetan, jende pobrea ugaltzen ari omen da. Ori batetik. Eta bestetik, pobretzen ari diran emakumeak geiago dira gizonetzkoak baiña. Lanak makinaz egitea guztion mesederako izango zala uste bagenduen ere, eguneroko bizitzak ederki erakusten du dana ez dela orrela. Aberastasuna leen zegoen tokietan pillatzen ari da. Eta beartsutasuna ere bai. Teknikak ez du biotzik.

Len aberatsak ziranentzako
aberastasun geiago,
eta lenago pobre ziranak
geroz eta pobreago.
Zenbat zuzendu premi geiago
orduan ta okerrago.
Orri neurria artuko dion
makinarikan ez dago.

Batzuek nola diru geiago
irabaziko begira,
eta naiago pobreak askoz
pobreagoak balira.
Asko daukanak izango badu
anai pobreaz kupira,
beste makina klase batzuek
asmatu bearko dira.

1996ko azaroak 22

Gizarteak zuzendariak bear ditu. Nork zuzendurik ez bagendu, nai deguna egiten asiko giñake, eta ez genduke atarramentu onik aterako. Dana ondatu eta ipurdiz gora bota, eta azkenerako alkar jaten asiko giñake, kanibalak bezela.

Zuzendariak bear ditugu, eta badauzkagu. Eta ez dago zuzendari gabe geldituko geran bildurrik ere. Aukeratzeko garaia datorrenean, pillan izaten dira zuzendari-gaiak, gizartea zuzen-

tzeko eskubidea aukeratu naian, adar azalak bota bearrean. Artara, batzuek bakarrik ibiltzen dira alkarri mokoka, danak asi ezkeron ez bailegoke ongizatezko estadia moldatzerik. Zuzendari-gai oiek ez dira atzera begira egoten gure aukeraketaren truke bat eta bestea eskeintzerakoan. Gero izaten dira gerokoak.

Leenago, lantegi askotan ekonomi aldetik gaizki zijoanean bakarrik bidali omen zitezkeen langilleak. Orain, lantegiaren egoera obetzeko ere bidali litezkela erabaki du Madrideko Epaitegi Nagusiak. Orrela entzun eta irakurri det. Eta bidaltze ori enpresaren egoera ekonomikoa obetzeko izango da, noski, ez langileena. Urteetan aurrera goazenok gorabeera asko ikusiak gera. Zenbait lantegi etziran eroriko, bearbada, alamoduzko langille batzuk bota izan ez balira, baiña zenbait zuzendari dirua emanda bidalita ere irabazian irtengo ziran. Bere garaian iñausi ezkeron erdi igartuan dauden arbolak ere preskatu egiten dira orrela. Baiña gertatzen dana, zera da: eztabaidaren bat danean, beekoak izaten dirala galtzaille, ta banaketa edo entresaka egiten bear danean langilleekin egiten dala. Futboleak gertatzen dan bezela, jokalariai protestatzen dutenean, ez da sekula arbitroa kaxetara bialtzen. Futbolistak joan bear izaten dute.

Orain arte, enpresa gaizki ez bazebillen ez zegoen langilleak botatzerik. Kaleratze ori arrazoizkoa baldin bazan, lana egin zuen urte bakoitzeko ogei eguneko lansaria eman bear izaten zitzaion langilleari. Eta arrazoirik gabe bidali ezkeron, urte bakoitzeko berrogeita bost eguneko. Oraingo berriak diotenez, langilleari, “agur eta Jainkoak lagun deizula” esatea oso merke jarri da. Itxurak egin bearrik ere ez dago. Eta baliteke gaur eguneko neurri auekin enpresa batzuk ondo moldatzea. Oiñetakoak erosteko dirurik gabe kalera bidalitakoak ibilliko dira gaizki. Baiña euria egiten duen guztian atertzen du, eta ekaitza pasatu arte itxoin bearko degu. Ea, ba, ainbeste aldiz aipatzen diran Europa eta Mahastrich aldetik eguzki pixka bat noiz etortzen zaigun, zer-baiten premia izango da-eta

Diru askodun kastatzaillea
omen zan aberatsa len,
baiña gauz asko aldatu dira
azkenaldi ontan emen.
Zartzarorako al dan guztia
pillatu nai da lenbailen.
Geroak bildur ematen dula
ikusten degu nabarmen.

Orain emendik esandakoak
ez dira nik asmatuak.
baizik batean eta bestean
jakinda aukeratuak.
Kezkarik asko ematen dute
nola ez diran kontuak,
izanik danak oraiñaldian
modan dauden pekatuak.

1996ko azaroak 29

Esaera zaarra baiña zaartzen ez dana: jende berriak, lege berriak. Eta gu bezelakoak antzematerako, denbora joan. Ondo, ala ere. Zenbait legeri antzematzen zailla izaten da, eta nola ez da ba joango denbora? Legeak egiten dituztenak legeak bete bear dituztenak baiño obeto moldatzen dira. Ez dakit egiten dituzten legeei antzematzen dieten, baiña legeartean katigatuta ez dira gal-tzen. Ez da errez gaurko munduari antzematzen.

Bizitzeko, nai ta nai ez lana egin bear zala erakutsi ziguten guri. Orain, deskuidatu ezkeror, diru zigorra ematen zaio lana egi-ten duenari. Zenbat denbora da, ba, Galizian amar milla ganadu-zale protestan ibilli dirala? Zer izango eta Europatik agindu baiño esne geiago bildu dutela! Europako Merkatuan sartzen giñanean ondo izango giñala uste genduen. Ango legeak berriak izango ziran, eta guk antzeman ez ordea. Eta orain dira kontuak emen.

Lege oien aginduz, Espaiñiak bear duen esnearen euneko irurogeita amasei bakarrik bildu bear omen du. Eta gaiñontzekoa Frantzian erosi eta andik ekarri. Orra jende berriaren lege berriak. Eun litro esne bear baditugu, irurogeita amasei baiño geiago ezin bildu, alajaiña! Ezta beiak errapeak leertzeko zorian eduki, eta esnea pozik artuko lutekenak gure artean izanda ere. Erreza al da lege orri antzematzen? Guretzat, ez. Baiña European asmatu dute

nola erakutsi: Etxean artu liteken jeneroa kanpoan erosierazi, eta ori egin nai ez duenari diru-zigorra bota, multa bota. Yon Sobrino bizkaitar teologoak esan duenez, munduko aberastasunaren erdia irureun eta irurogei pertsonen eskuetan dago. Ekonomi gaietan munduan egiten diran disparateak ikusita, Galiziako ganaduzalei arrazoi ematea ez dala disparatea izango esan ditekete.

Baiña guk antzematerako legeak zuztarrak eginda egoten dira ordea. Legea bete ez duten galiziarrek diru-zigorra merezi dutela? Munduan dagoen ainbeste gose eta miseri ikusita, bildu liteken esne guztia biltzea debekatzea ondo ote dago? Lege berria egin zutenean antzeman ote zioten zer egin zuten? Pentsatzen jarri ezker, ez da erreza munduan gertatzen danari antzematzen. Berriz ere denbora joango da guk lege berriei antzematerako.

Europar artu diran jokerak izango al dute jira.

Bestela aurki langille fiñak galduan irtengo dira.

Geuk ere asi bearko degu bizitzen moda berrira, denbora galdu gabe zeñek zer emango digun begira.

Esan liteke Europar gauzak gaizki egin dituztela.

Jende jatorra zigortu dute lapur gaiztoak bezela.

Beste bide bat artuko al da, ez goaz ondo bestela.

Berez alperra dana langille nola biurtu onela?

1996ko abenduak 6

Iñoiz bada-ta oraintxe gaude berebiziko Gabon usaia banatzen duten egunetan. Gaur San Nikolas, eta etzi Ama Birjiña sortzez garbiaren eguna. Bakoitza bere erara, biak ere Gabonaldiaren mandatariak dirala esan ditekete. Aspaldiko oitura zaarren sustraiak.

Milla eta irureun urte eta geiago dira San Nikolas munduan ibilli zala. Gotzai eginda gero Erromako agintariak espetxean eduki zuten, kristaua zalako. Bakoitzak nai duen bezela pentsa-

tzen ez uztea aspaldiko gaitza da gizonen artean, eta oraindik ez da sendatu, zoritxarrez. Gaizkilleak ildako iru ume San Nikolasek berpiztu zituen otsa izan zan. Eta ordutik umeen eta gaztetxoek zaindaria da. San Nikolas eguna ospatzeko oitura alaia eta jostalaria da. Eta aspaldikoa izan arren, indarrean dago oitura ori, eta puska baterako bizitza badaukala dirudi. Alaxe izan dedilla, gaiñera. Aurrak eta guk, danok daukagu egun alaien bearra-ta.

Amabirjiña sortzez garbiaren eguna errespeto aundiz ospatzen zan garai batean. Neska gazteei zintzoak izaten eta bide zuzenetik ibiltzen laguntzeko egun berezia zan. Nun ote dira orduko sermoi, jaunartze, kantu eta elizkizun eder aiek? Orduko oiturak ez dute izan San Nikolas egunekoak bezelako suerterik. Orain irurogei ta sei urte argitaratutako liburuxka bat erabilli det eskuetan. Mariaren Alaben araudi edo reglamentua da. Orduko neskatxei Kongrezioak zer agintzen zien ez dago itz gutxitan emendik esaterik, baiña batzuk gogora ekartzea ez da gaizki etorriko. Ona emen aolku serio aietako batzuk: “Ez jantzi lujo geiegiz, tokatzen zaizun bezela eta gurasoenganako begirapenak agintzen duen bezela jantziko bazera ere. Zuei begira daudenak ez dezatela pekatu egin. Gizasemei ez eman konfiantze geiegi. Al dezutela, ez bakarrik ibilli aiekin, eta bakarrik egon ere ez, batez ere toki bakartietan eta ezorduetan. Ez joan ezkutuetako billera eta dibertsiotara. Ezta agirikoetara ere gauez baldin badira, zenbait teatro eta dantza moderno izan oi diran bezela. Garbia izan nai badezu, ez dezu izan bear iñori pekatu egiñarazteko arrisku, buruarinkeriz kantatuz, dantzan egiñez eta abar...”. Kontu auek entzunda, badirudi gaztedia oso estu artzen zala orduan. Eta askatasun pixka bat arrapatu duenean, punta batetik bestera joan dala. Erdi-bidea edo bide zuzena nun zegoen argi eta garbi erakustea ez ote zan obe izango?

Ala dirudi, baiña, norberak bere mundua zuzentzen ez badu, okerrak izango dira berriz ere. Geiegi estutzen duten oiturak min ematen duten zapatak bezela, bazterrera botatzen dira.

Bildurrik ez du bear gazteak
baizik jakinduriz jantzi.
Eta landare dan bitartean
ez gogor artu ta autsi.
Ona ta txarra zer dan esanda
aukera egiten utzi...
Al baldin bada gutxi estutu
eta asko erakutsi.

Bizitzak kendu izan dizkigu
begietako makarrak,
sosegurikan nola ez duen
arnasa artu bearrak.
Orretzek galtzen ditu askotan
lengo usadio zarrak,
atsegiñago zaizkigulako
oitura lasai samarrak.

1996ko abenduak 13

Gu txikiak giñanean, zeruko atearen giltzak San Pedrok zituen. Eta zeruan sartu nai zuenak zintzo eta ona izan bear zuen. Zintzoa izateko, aita eta amaren esanak egin bear ziran, eta elizara joan eta an entzudakoak zuzen egin. Zeruko atea oso estua omen da, eta oker dabillena sartu ezinda geldituko zala esaten ziguten. Azi giñanean, parranda bat edo beste egiten bagenduen ere, erriko aguazilla naikoa zan gure lanak egiteko. Alkate eta gaiñontzeko agintariak errespetatu bearra zegoen, noski. Etzegoen orain bezela nai zana egiterik.

Agintarien moda pasatu zan, eta politikariak asi zitzaizkigun ondo bizitzeko zer egin bear genduen erakusten. Esaten errezago da egiten baiño, eta mundua ia infernu biurtu dan onetan, politikariei ez diegu asko sinisten. Baiña ez pentsatu zer egin bear degun zeñek esana falta zaigunik. Iragarkiak edo anuntzioak egiten dituztenak badakite ondo mundua zeru biurtzeko zer egin bear degun. Eskeintzen dizkiguten guztiak erosi. Orratx erremedio ona.

Iragarkietan esaten diguten guztia egi biurtuko balitz, orduan bai zoriontsu izango giñakeela. Gaztearo luzea izango genduke. Ia amaitu ere egiten ez dana. Eta noizbait bukatzean, bat-batean eta batere aje eta aitzakirik gabeko aitona-amona guri-guri eta ederrak izango giñake. Zimurtu ere ez giñake egingo,

noski. Iñungo miñik ez genduke izango eta beti umore ederrean eta alkarrekin konpondu eziñik ere ez genduke izango. Ain onak izango giñake, eta bankuak ere eskatu gabe emango liguteke gaiñezka daukaten dirua. Lansari ohea izateko huelga egin bearrik ez litzake izango. Eta ertzaiñak, udalzaiñak eta antzeko guztiak guri on egiten aspertu ezinda ibilliko lirake. Orra zenbaiteraiñoko mesedea izango gendukeen iragarki edo anuntziotan eskeintzen zaizkigun gauzak eskuratzen saiatuko bagiña.

Mundua konpontzen ez dala errez esaten degu. Baiña zergatik ez ote dute urte batzuetarako agintea iragarki egilleen eskuetan jartzen? Ez lukete dana beteko, baiña zerua eskeintzen dutenak, eta mundua konpondu eta nai bezela bizitzeko moduan jarriko gaituztela esaten duten politikariak ere ez digute agindutako guztia eman.

Umetan errez pozten gintuzten
lau kontu polit esanda,
gaiñera orain dagon ainbeste
zirikatzaile etzan da.
Baiña oraintxe badago emen,
eskeintzen da propaganda...
Gezurra eta egia zer dan
antzematen ere lan da.

Gaur atariko buzoia beti
dago paperez beteta,
publizidade edo eskeintzaz
jarri gaituzte aseta.
Gure ona nai dutela eta
orrenbeste berriketa,
duroa iru peztan saltzen dan
feririk ez dago-eta.

1996ko abenduak 20

Historia eta erlijio kontuak ikasten ibilli giñanean, protestanteak oso gaiztoak zirala erakutsi ziguten. Egiatzko erlijio bakarra geurea zala. Katolikoa. Makiña bat gerra ere egin zan Europan garai batean, protestante eta katolikoaren artean.

Erljio kontuan protestanteak dira nagusi Inghaterran. Eta ango diputatuen billerak erregiñaren eta bere familiaren alde

otoiz egiñez asten dituzte oraindik ere. Eta kapillau bat ere badaukate erreztatzen laguntzeko. Orain arte, Lady Di-ren alde ere erreztatzen omen zuten. Printzesa rubia begiurdiñak beste bide batzuk artu zituen ordea. Dibortziatu egin zan, eta orain ez da printzesa. Orregatik, diputaduen kapillauak bere alde errezzatzeari uztea erabaki du.

Nik uste nuen Jesukristo ardi galduen billa etorri zala munda, eta apaizak ere orretan saiatu bear zutela, naiz eta protestante izan. Printzesak izan ezkerro bai, baiña kategoría galdu ezkerro ez dago aien alde errezzatu bearrik. Apaiz danak ez dute orrela pentsatzen eta orri eskerrak. Aizu, eta Karlos printzipeak ez ote du sekula okerrik egin? Badakit, ark kategoriarri eutsi egin diola, eta izango du zeñek errezzatu eta burua makurtuta zurikeria egin. Inglaterrako diputatuak erreztatzen omen dute beintzat, eta apaiz protestanteak ere bai. Ez du ejemplo txarra eman gizarajoak. Erljioko gauzetan zalantzan dagonari utzikerira bultza egiteko modua.

Inglaterratik baiño berri ohea etorri zaigu Ameriketatik. Gizon traketsak zuzentzen dituen supositorioa asmatu omen du emakume ezkondu batek. Ardi galduak bazterrera botatzen dituen apaiz protestanteak aiñako meritua badu ori egin duenak. An bai omen da *cachocabra* izeneko belar bat, piparmin guztiak baiño miñagoa. Eta belar orrek sekulako mirariak egiten ditu. Senar kaiku samarrak mantsotzeko ez omen dago orrelako botikarik. Nola asmatu zuela pentsatzen dezute? Ba, senarrak emandako jipoiak artzen asper-asper eginda omen zegoen, eta gizona moz-kortuta etorri zitzaion batean, beti bezela karramarra saio bat egin ondoren, seko lo gelditu omen zan senarra. Eta emazteak, galtzak jeitsi zizkion eta *cachocabra* delako belar orrekin egindako supositorioa sartu omen zion. Bai berriz emaztea astintzeko gogoak joan ere senar kaikuari! Supositorioak bere lana egin zuenean, umil asko omen zegoen. Miñez iraun ezin eta klinikara eraman eta operatu egin bear izan zuten. Geroztik, supositorioa erakusten

omen dio mozkortzen dan bakoitzean, eta zurrutari uzten ari omen da, bai.

Orratx ardi galduak bide onera ekartzeko modua.

Alkarri lagun egiteari
fin bear diogu eutsi,
premian gerta gintezkelako
danok biar edo etzi.
Ardi bat oker dabillelako
sekula ere ez etsi,
makilla erakutsi baiña ez
errezatzeari utzi.

Gizon mozkorra izan liteke
gaiztoa edo ergela,
eta premizko izan lezake
eskarmentu bat epela:
atzekaldea astindutzeko
merezi duen bezela.
Esango nuke ortan artistak
Ameriketan daudela.

1996ko abenduak 27

Ez dakienari erakustea beti izan da ona. Guri ala erakutsi ziguten beintzat. Errukizko egintza zala. Erakuste kontu orretan naiko gorabeera ikusita gaude. Langille merkeak bear zituztenak, etziran umeei eskola erakustearen aldekoak. Gogorra badirudi ere, au alaxe zan garai batean. Eskola erakusteari mugak jartzen zizkioten jauntxoak baziran. Baziran ordea eskolatu gabeentzat zer etorkizun zegoen ikusten zutenak ere, eta gurasoak geroz eta geiago arduratu ziran umeei eskola erakustez. Orri eskerrak. Ikusitako gizon-emakumeak ez baitira ezjakiñak bezin errez menderatzen. Bere eskubideak ezagutu nai dituen pertsonak, ikastetik asi bear du, eta eskubide oiek babestu nai baditu zer esanik ez.

Gu baiño jende aurreratuagoa badago bazterretan, batez ere teknika alorrean, baiña geu ere ez gaude atzean gauza guztietan. Eta pentsatu gauzak zertaraiño iritsi diran, eskoletan sukaldaritzaz erakutsi bear litzakela entzuten asi gera. Badakit orretarako eskola bereziak daudela, baiña eskoletan umeei sukaldaritzaren oiñariak erakustea ondo legokeela esango nuke. Gauza onak iritsi

litezkeela ortatik. Batetik, danetatik jaten ikasiko luteke aurrak. Jatorduan ez luteke esango au ez det nai eta bestea etzait gustatzen. Pentsatu orrekin bakarrik lana zenbat erreztuko litzaiokeen amari. Askotan bezela, ainbeste lan eginda gero aitzakirik ez entzutea ez litzake txarra etxean pakea izateko. Gizasemeak irtengo lirake galduan, seguru asko. Baiña ori betikoa nola dan, ezin emango diogu garrantzi aundirik. Aparia prestatzen ez dakitela esanda libratzerik ez luteke izango, eta emaztearen esana isil-isillik egiteak ez dago esaterik familira nolako gozotasuna ekarriko lukeen. Baliteke onek etxeoandrea geitxo agintzen oitzeko arriskua izatea. Orregatik, sukaldaritzarekin batera etxean agintzeari neurria artzen ere erakutsi bearko litzake eskolan. Ikaskai zail samarra izango da, bearbada. Baiña saiatu ezkerro ikasiko litzake ori ere.

Dijoakigun urte zaarrak ekarriko digun iritzi berri baten albistea eman det. Naiago nuke iritzi ori asmo biurtu eta indarrean jarriko balitz. Euskaldunok badegu moko fiñeko tripazaiak geranaren fama, eta orduan ez genduke gutxiago izango. Bateko Kontzierto Ekonomikoa, eta besteko ez dakit zer, azkenaldi onetan naiko mokoka egin digute. Mokolari oiek emengo sukaldaritzarekin pittin bat ase eta zerbait soseatuko balira, pakeak ere balioko luke.

Zuk ere urteari amaiera on bat eman, entzule. Apari on bat egin, eta inbidiak eta ezin ikusiak utzi beste batzuentzat. Ondo asitako urte berri oparo eta mardul bat izan dezazutela. Osasuna izan dezagula danok, eta urte berriak estali ditzala zaarrak estali ez dituen premi batzuek beintzat. Danak estaltzea zaila izango da, baiña...

Urtezaar badijoa
berriaren billa (bis)
erregalo utzita
amaika naspilla.

Naiko lan badaukagu
lanik ezarekin (bis)
Orretzek ematen du
gure artean min.

Bazterrak endreatzen
izan da abilla,
eta eman dizkigu
arazoak milla.
Ortik naikoa da ta
ondo joan dedilla.

Baiña etsipenari
ez tokirik egin,
gure jaun ta jabe
biurtu ez dedin.
Ta urte berriari
pulamentuz ekin.

Pakean bizitzeko
egin alegiñak (bis)
baztertuaz komeni
ez diran dotriñak,
eta izan euskaldun
jator eta fiñak.
Naiz une guztiak ez
izan atsegiñak,
urte danak ez dira
izaten berdiñak.

1997

**Emaztea ona
etxea ona**

1997ko urtarrillak 3

Gabon eta Eguberrietako jaialditxoak joan zaigu, ba. Ezeren bearkizunik gabe atsedenean pasatzen diran egunak politak izaten dira, buruko astuntasuna eta orrelako aje batzuk uzten badituzte ere. Oiek danak aaztu, eta ekin diogu urte berriari. Bizitza ezpaita gelditzen bizi danarentzat.

Dana dala, aldi au atsegiña izaten da, osasuna izan ezker beintzat. Ori ez da beti gure eskuetan egoten ordea, eta buruausteren bat edo beste sortzea ez da arritzeko izango. Besteak beste dirala, azkenaldi onetan *anorexia* gaixotasuna ugaltzen ari omen da, eta sendagilleak ari dira jendea jakiñean jartzen. *Anorexia* zer dan? Errez ulertzeko moduan esanda, jan nai eza. *Anorexia* orixe da. Ez jan eziña. Ez da gorputzeko gaitza. Gauza bat buruan jarri eta burutik kendu eziña baizik.

Burutapen au, neska gazteak izaten omen dute, batez ere. Telebista, errebista eta orrelakoetan gorputz liraiña duten gazteak ikusten dituzte. Eta aiek bezelakoak izan nai, ba. Eta gero, gizenduko diran bildurrez, jateari uzten diote. Gaixotzeraiño utzi ere, askok. Orrelako alaba daukaten gurasoak izugarri sufritzen dute. Nola ez, ba? Egunaren erdia su gaiñean lanean pasatu alabari edo semeari gustoa egitearren, eta azkenean “ez det nai” esateko. Eta gaztea ala erkintzen ikusi eta zenbat sufrituko duten etxean pentsatu besterik ez dago. Jan nai ez ori ez da botikak artuta sendatu litekeen gaitza. Bear aiña jan ezean, gorputza zearo argaltzearekin batera burua ere ustu eta arindu egiten da nunbait. Eta azkenean, sikiatra batengana joan bear burua eta osasuna galduko ez badituzte.

Gurasoen esanak entzun nai ez dituzten gazteak orrelakoxe txorakeriak egiteko arriskua daukate. Neska gazte batzuek uste izaten dute pixka bat gizentzen badira, mutillak ingurutik uxatuko dituztela. Eta ori ez dala orrela esango nuke nik. Ezurra eta azala besterik ez duten figurañak zertarako dituzte sasoi betean dauden mutil gazte jatorrak, ezkontzea pentsatuta ere? Soñekoaren gaiñetik ezurrak agiri dituen neskak, zenbateraiñoko talentua eduki lezake bizimodua ateratzeko, osasuna izateko lain jan nai ez badu? Neska gazteak ere gorputza zainduz al duen denborarik luzeenean edertasuna gordetzea, oso ona da, eta bearrezkoa. Emakumearen eginkizunetako bat orixe baita, izan ere. Etxekoandreak bear du izan etxeko edertasun. Baita bizitzak dituen illunaldietan familiko argia eta alaitasuna ere. Baiña, nola beteko du eginkizun ori goseak dagoen emakumeak?

Polita izateko ez dago ankamea izan bearrik. Matxista naitzela esango dezute, baiña... elduleku pixka bat bear du emakumeak, kanpoan irrist eginda eroriko ezpada.

Gizentzea nai ez dun gaztea
ibilli dedilla argi,
eta pentsatu mutillak zeñi
botatzen dioten begi.
Koipe geiegi duen neskatxak
ez du emango ain ongi,
baiña bear du ezurrak ondo
estaltzeko lain aragi.

Senar ugari badaude pozik
emazte potxolarekin,
ezurrik maite ez dutelako
dala dudarik ez egin.
Azal guri ta leun samarrak
ematen badu atsegin,
koipe apur bat premizkoa da
azkar zimurtu ez dedin.

1997ko urtarrilak 10

Esaera batek dio historia errepikatu egiten dala. Leenago gertatzen ziran moduko gauzak gertatzen dirala berriz ere, alegia. Euskaldun gazteak ogi billa Ameriketara joaten ziran garaia ez da,

alde batera, aspaldikoa. Gure baserrietara ume asko etortzen ziran, baiña ez, noski, ogi bana galtzarpean zutela. Eta azten ziranean nora edo ara joan egin bear etxetik. Batzuek morroi edo neskame, eta zerbait ausartago ziranak Ameriketara, lan billa. Gerra eta sesioa ugari ere izaten zan. Kubako gerra, Afrikakoa eta abar, makiña bat mutil euskaldun sasoiko joan zan garaia baiña leen beste mundura.

Euskalerritik norabait lanera joan bearra naikoa zabaldua dagoela uste det orain ere. Bateko eta besteko berriak diotenez, ikasketak egin eta karrera ateratako neska eta mutil gazte asko omen dioa Euskalerritik kanpora, lan egoki baten billa. Martxa ederra Euskadi jasotzeko. Lana izan balitz etzan leenago ainbeste gazte kanpora joango. Eta orain ere, gazterik geienak eman geldituko lirake lanik balego. Lana egin bearrak kaskarreko azkurea ematen digu iñoiz, baiña lana egiten duenak jateko lain bildu izan du, eta ondo samar bizitzeko lain ere bai, bearbada. Orretara iristen danak ez du burrukarako eta sesiorako artaraiñoko gogorik izaten. Eta pakeak, lana. Eta lanarekin batera pertsona bezela bizitzeko modua izaten da. Historiari begira jarri ezkeru, garai bateko gerrak eta burrukak ezin bizia ekartzen zutela garbi ikusten da.

Orain ez dago emen gerrarik. Ezta bearrik ere. Baiña burrukarik etzaigu falta, eta lana berriz asko urritu da, danok dakigunez. Orratx historia nola errepikatu dan. Orra leengo moduko jokaera nola etorri zaigun Euskalerrira. Gerrateetan bota izan diran diruak jendeari lana ematen kastatu izan balira, eta Ameriketara joaten ziran gazte sasoiko aiek emen lana egin balute, zer maillatan egongo ote zan gaur Euskalerrira? Eta, sesioan eta burrukan alkarri mokoka ibilli bearrean, goiko eta beeko alkarrekin itz egiñez lana sortzen saiatuko bagiña, ez ote giñake obeto biziko? Gusto guztiak ez lirake izango, ez. Baiña bizitzeko beste gusto bat izango gendukeela iruditzen zait.

Mendean bizi gerala esaten degu, eta dana ez da gezurra izango. Denborak eskatzen dituen ikasketak egin, lana eman bear dutenei arnasa artzen utzi, eta lana sortzen saiatuko bagiña, ez giñake ain mendean biziko. Dakiena eta daukana ez da mendera-

tzen ezjakiña eta arlotea bezain errez. Orregatik komeni zaigu noizean bein leengo kontuak gogora ekartzea, arri berean irrist eginda erori ez gaitzen. Ekonomia zerbait pizten ari dala diote gure jakintsuak. Urte berrian sartu gera buru-belarri, eta ea bizi-modua berritzeko era egiten degun beintzat.

Nola arraio artu diteke
orain ainbeste laiñeza?
Gizonarentzat gauz eskasa da
bururik eduki eza.
Beti burrukan ondo bizitzen
ez da izango erreza...
Bide ontatik nora goazen
bakoitzak pentsatu beza.

Urte berrian buru-belarri
guztiok murgildu gera,
eta guztion mesederako
eman dezala onera.
Geroni nola portatzen geran
ortan dago gorabera.
Ea gu ere berritzen geran
urtearekin batera.

1997ko urtarrillak 17

Au dala eta ori dala, beti sortzen da kakoren bat bizitza onetan. Eta okerrak zuzendu bear diranean, ez degu danok berdin pentsatzen, eta bide ezberdiñak artzen ditugu.

Malasia deritzaion lurraldea urruti dago emendik. Eta an ere emengo moduko jokaerak ikusten dira. Mahomaren erlijioa daukate an, nagusiki, moroak deitzen diegun oiek bezelakoa. Eta oso zorrotzak dira erlijio kontuan. Gobernuaren ofizinatako langilleen artean errespetoa jarri bearrean gertatu dira oraintsu. Mahomatarrak izan arren, santuak ez izan ordea, eta lantegietako neska gazteei ezin pakean utzi. Zirikatu egin bear, eta jakiña, gizonezkoak ingurutik bidali ezin nunbait, eta kakoa nola zuzendu asmatu dute. Ofizina guztietan bezelaxe, an ere itxura oneko neska gazte ederrak aukeratzen zituzten lanerako, jendearekin arrematarako eta orrela. Baiña orain, emakume itsusiak aukeratzea erabaki dute, ea pakea izaten duten lantegian.

Nunai ere ez du poz aundirik ematen Gobernuaren ofizinatara joan bearrak. Ala ere, leiatillaren bestaldean aurpegi eder bat irriparez ikusi ezkerro, or nunbait. Emakume eder eta ondo itze-giña edozeiñentzat da atsegingarri, umore onean baldin badago beintzat. Itz bakoitza kakoarekin tira eginda bezela atera bear zaionean izaten dira kontuak.

Baiña badirudi Malasian ere gauza beraren alderdi biak ez dirala berdiñak. Badira neska gazteak ikusi utsarekin pekatu egi-teko bildur diranak. Oraindik ez da denbora asko munduko neska gazterik ederrena aukeratu zutela Indian. Miss Mundo, alegia. Eta moro batzuen ustez, emakumeak ez dira erakusten erabiltzeko gauzak, eta aukeraketa ori ontzat eman nai etzuen mutil batek, bere burua il zuen, protesta egiñez.

Neska gazteak ez dira gauzak, pertsonak baizik. Noski. Baiña gauzak bakarrik ez dira izaten politik, pertsonak ere bai, eta edertasunaren aurrean danok poztu bear genduke. Pekatu egin bildur danak, begiratu dezala bestaldera. Neska ederrak, egun-sentia alaitzen duen eguzkia bezela dira gure bizitzan, eta orrela begiratu bear zaie. Gure Jainkoak edertasuna pranko egin zuela pentsatu, eta segi aurrera. Ez beintzat bere burua il, ori azkena baita. Ikustea aiña merezi duten lore politik badira, naiz eta alan-bre esiaren bestaldetik egon.

Neska gazteen edertasuna kantatzen zekien bertsolaririk bazan, Bilintx izan zan, noski. Ona emen bere bi bertso:

Ditu ille urrezko
albaiñu luziak,
alakorik apaintzen
ez du orraziak.
Prankotan inbiria
eman dit aiziak,
aren trentza tartetik
jostatzen pasiak.

Izarrak dirudite
ain begi argiak,
aingeruak zerutik
jeitsita jarriak.
Glorian egindako
ispillu garbiak,
Jaungoikoa badala
gogoragarriak.

Ilbeltzeko aldapa ia-ia igo degu. Beste aste bat gorabeera, bati baiño geiagori arnasa lasaituko zaio. Bere jai eta opor, urtearen azkenengo illabeteak baditu egun onak. Jai illara polita, diru fresko apurtxo bat ere bai, eta osasuna izan ezkerro, poliki moldatzen gera. Gustoko gauzak erosteak badu bere atsegiña. Eta batzutan irrist egiten degula uste det gaiñera. Ainbeste eskeintza eta sustapen egiten da, eta ainbeste zirikatzen gaituztenean, oso bearrezko ez degun gauza asko eroatera bultza egiten digutela esango nuke. Beartzen ezpagaituzte ere, eroatera jartzen gaituztela, alegia.

Baliteke ala izatea, baiña ez gindezke beti zurkerian ibilli, ondo bizitzea danoi gustatzen zaigu-eta. “Oraindik badaukat, baiña biar edo etzi bear izanda ere, erosi dezadan, merkealdian dago-eta”. Ori pentsatu, eta erosi azkenean. Eta sarritan armarioan gordetzeko erosi ere, modan pasatu eta balio eztuela gelditu arte. Nork ez du egiten orrelakoren bat? Aurrez kontuak ateratzea ona da, baiña bear ditugunak eta ez ditugunak begietatik sartzen dizkigute. Eta ez da arritzeko noiz edo noiz utsegite koskorren bat egitea. Ala ere, erosteak poza du berekin, eta ez dakit erosteko gogo orrek beti kalte egiten duen. Oraingo munduak ez dauzkagun bearrak sorterazten dizkigula esaten dute. Saltzaileen eta erostunen artean apustu bat sortu dala, eta saltzailleak irabazi duela geienbat, propaganda egilleen laguntasunarekin. Geiago pentsatuko bagendu, gutxiago erosiko omen genduke. Baiña gaur egun, buzoian dala, telebistan, irratian, egunkarietan eta ez dakit nun, iragarkiak muturretatik sartzen dizkigute. Pentsatze utsarekin ez dago gaiñera modari jarraitzerik. Besteak egiten dutena egiterik ere ez, eta aldemenekoak baiño gutxiago izan nai ez badegu, etzaigu gelditzen erostea beste erremediorik. Erosi eta erosi.

Badago ez erosteko esaten duen iragarki bat ere, eta au esan bear da. Azkenengo modako iragarkiak auxe esaten omen du:

“Zure buruari opari bat egin nai badiozu, ez ezazu ezer erosi egun batzuetan”. Ez litzake opari txarra noizean bein egiteko. Baiña orain nunai dauzkagun denda erraldoi oietako batera joan ezker, denborapasa edo nun zer ikusiko sartu eta zein gelditzen da ezer erosi gabe? Saltzailleak bere zepoan arrapatu gaituzte, eta sare orretatik irtetzea bezin zaila izango da ilbeltzeko aldapari iges egitea. Berriro ere amabira!, esan eta jarraitu egin bear.

Ilbeltza ez da sekula ere
izan oso il santua,
aspalditxotik daukagu askok
gaitz orren eskarmentua.
Baiña isildu dezagun azkar
alperrikako lantua;
aldapa edo aldapa gabe
bizitzea da kontua.

Ustekabean diruarekin
jarri bai itxaropena,
baiña igesi joaten zaigu ta
orrek ematen du pena.
Naiz ta eduki berarengana
zaletasun nabarmena,
lasai kastatzen degun orduan
bizi gera ondoena.

1997ko urtarrillak 31

Ametsetan ote nenbillen ere pentsatu nuen. Baiña, dana dala, ez da gezurra. Azkenaldiko zenbaketa edo estadistikak dienez, geroz eta alkohol gutxiago edaten omen du gaztediak. Zigarroa erretzeko zaletasunari ere uzten ari omen da asko, eta drogari ere bai. Ez dira berri txarrak, ez orixe!

Komeni zaizkigunak errez samar sinistu oi ditugu, baiña estadistikak badakite egia esaten, beti ezpada ere. Eta au orrela bada, ez degu gazteengan itxaropena galdu bear. Gure denboran guk egiten genituen bezelakoxe kaskalkeriak egiten dituzte. Bestela ez lirake gazteak izango. Guk genekien baiño geiago dakite ordea, eta gu zuzendu bagiñan, oraingo gazteak ere utziko diote beren buruari kalte egiteari. Bat gaztea danean, ez da arritzekoa noiz edo noiz arrastotik irtetzea. Garaiz konturatu ezker,

oiek danak konpontzen dira, eta nundik nora dabillen konturatu-ko baldin bada, zerbait egin bear du gaztediak. Baita familietan pakea eta bizitzeko poza sortu ere, familak eta familietako bizi-tzak zerbaiten premia badauka-eta.

Beste zenbaketa batek dioenez, buruko miña kentzeko, ner-bioak baretzeko eta oien antzeko botikarik geiena Gipuzkoan sal-tzen omen da. Zuzentzeko premia ederra badaukagula esan nai du orrek. Asteburuetakako egunetan zurrut egin dalako bere onera etor-tzeko botika artu bearra naiko tristea da. Zurrut gutxiago egingo balitz, obe. Ez dago orrelako botikarik gorputza tenple onean edukitzeko. Alkoholak sortzen dituen burruka eta desgraziak bil-durgarriak dira. Zerbait familietako gozotasuna ere, alkohola eta drogak galdu du, noski.

Ala ere, gauza bat ona badauka gaztediak, guk izan ez gen-duena: Ikasteko aukera. Ikasketak egindako pertsonari utzi pake-an. Dana ez du ondo egingo. Gizakia ain da berekoia, eta anka-sartzeak egingo ditu. Bere eginbear guztiak ez ditu beti ondo beteko, baiña ikasitako gizonak edo emakumeak ezjakiñak baiño erreztasun geiago du zuzen ala oker dabillen antzemateko, bere burua zaintzeko eta gizartean bear bezela portatzeko. Eta zer esa-nik ez familian bear bezelako bizimodu atsegiña moldatzeko. Gizona, pentsatzen jakiteak egiten du gizon. Igande gauean gei-txo edanda, edo drogarekin jolasean ibillitako gazteak ez du aste-leenean gurasoekin kontuak esateko gogorik edukiko. Eta galde-ra bat ere egingo nuke nik: Ama-alabak alkarrekin ondo konpon-duko balira, garbi itz egiñez, ainbeste neska gaztek irrist egingo ote luke? Gurasoak bai, noski. Baiña seme-alabak familiari duen balioa eman bear lioteke. Mundu obean biziko giñake orrela.

Arriskuz betetako garaia
izanik gaztearua,
grña txarretan murgildurikan
galdu leike aingerua.

Familia da gizartearen
abe ta iturburua...
Gorde dezagun ekaitzetatik,
ez dezala jo zorua.

Seme-alabak bear bezela
ditzagun azi ta ezi.
Ondo saiatzen baldin bagera
izango da ainbat grazi.

Gure aldetik zerbait jarriaz
bear oiek irabazi.
Gure famili maitagarriak
dana baitute merezi.

1997ko otsaillak 7

Urte-bukera eta asiera ospatuta, otsail txikian sartu gera. Eta bizitzako sokari eldu diogu berriz ere. Soka orri tiran eusteko lain osasun izaten badegu, or nunbait ibilliko gera. Iñauteri eta iñaute inguruko festa eta abar, ilbeltzeko aldapa aaztuerazteko ainbat jai badu aurtengo otsail onek. San Blasak ere laguntzen digu Goierri alde onetan, eta ezin kejatuko gera geiegi. Sartu geran urte onetan ere izango da zerbait eraman bearra. Gure aldetik umorea eta adorea jartzen baditugu, urte onen lanak egingo ditugu, bai. Osasuna izan dezagula.

Badakigu danak ez daudela gustora bizitzeko moduan. Orrelakoei laguntzeko ez dituztela gauzak garbi esaten uste det. Eta Elizari ere aitzaki eman izan diogu. Eliza ez da zenbait politikari bezain berritsua, baiña itz egiten duenean egi biribillak esaten dituela aitortu bearra dago emen. Esate baterako, Kanariatako Gotzai jaunak esan dituenak badira zerbait pentsatuerazteko ainbat. Gizarteko Demokraziak (Social Demokraziak, alegia) eskeintzen omen du gizarteko arazoak konpontzeko modua. Garai onetan, demokrazi orren egitaraua ezagutu eta martxan jartzeko al duten guztia egiten duten politikari eta ekonomista gutxi dago ordea. Elizaren Unibertsidadeetan ere egiten dan baiño geiago egin litekeela dio gotzai jaunak

Ezin esango degu ez duela ezer esaten. Aita Santuak baka-
rrik erakusten omen du gizarteko ekonomia nola erabilli bear
litzakeen gaur egun. Kanariatako Gotzaiaren ustez, lana, etxebi-
zitza, eziketa eta orrelakoak dira giza-eskubideetan leenengoak.

Baiña aberatsei komeni ez zaizkien eskubideak ez omen dira aita-
tu ere egiten. Leenengo munduak, edo errez esanda, ondo bizi
diran nazioak, pobrezia ori estali eta gorde egiten dute. Au ere
bada, ba, zerbait esatea. Pobrezia estaltzea, gordetzea, ez baita
gizonari pobre ez izateko bear duena ematea. Gobernariak, eko-
nomia, bizimodua eta abar ondo dijoazela erakutsi nai dutenean,
estadistikak diotena ateratzen dute platerara, baiña esan oiek
engaiñagarriak izaten dira askotan.

Gauza geiago ere esan ditu Kanariatako Gotzai jaunak.
Auetako bat, pobrezia buruz Caritasek esaten duena ziurragoa
dala estadistikak diotena baiño. Zazpi milloitatik gora dirala
pobrezian bizi diranak Espaiñian. Ez dira nik asmatutako kon-
tuak, ez. Bakoitzak bere iritziak izango ditu, eta bakoitzak pen-
tsatuko du zeñi sinistu eta zer sinistu.

Iritzi eman dezakegula
pentsatzen degun moduan.
Ezin ukatu danok berdiñak
geran ezker munduan.
Danetarako sermoilariak
dauzkagu gure onduan,
baiña ez dakit Elizak aiña
egi nork esaten duan.

Batzutan azkar jarri oi gera
oso jenio txarrean,
edozer gauza esanez itzak
ondo neurtu bearrean.
Baiña obe da gauzak aitortu
gizatasun jatorrean,
errespetoa gordeaz gizon
egizaleen aurrean.

1997ko otsaillak 14

Otsaillaren erdia joan zaigu. Eta aurtengo neguaren zati bat
ere bai, berarekin batera. Guk nai orduko ez da iritsiko, baiña
udaberria badator, poliki-poliki. Eguraldiarekin suerte pixka bat
izaten badegu, egun luzeago eta atsegiñagoetan izango gera lais-
ter. Orren pozean, ar dezaiozun pazientzia otsail txikiari, denbo-
ra askorako ez dago-eta.

Gure aurrekoak bildurrik asko bazioten illabete oni. Otsaillean gizona maukautsean ikusi baiño otsoa artaldean ikustea obe zala esaten zuten leengo artzai zaarrak. Izan ere, otsaillak bereak eta bi egiten zituen seiñalea da ori. Orain ere ez dago asko piatzerik, baiña otsaillak badaki egun ederrak egiten ere. Esate baterako, gaur San Balentzin eguna degu, maiteminduen eguna. Baita gurea ere. Baiña ez dakit, bertso zaarrak dioten bezela, markesaren alabak mariñeroari zion bezelako maitasun sutsu ura bizi dan. Orain ez da izaten maitasunez iñor il dan otsik. Izan ere, maitasuna bizitzeko da ona, bizi gerala alkar gozatzeko, eta bizitzak berekin dituen gozo eta mikatzak eramaten batek besteari laguntzeko. Maitasunez iltzea baiño maitasunez bizitzea obe izango da orratik! Otsailla bera ere, otz-bero eta gorabeera asko dituen illabete gogorra izan arren, bizitzen laguntzen duen maitasun beroarekin obeto eramango dala esango nuke, iltzen duen maitasunarekin baiño.

Orretarako, maitasun bero bezain luzea bearke da ordea. Eta ez dakit ez ote geran ori galtzen ari. Alkarrekin bizi nai, baiña paperik firmatu gabeko alkar-bizitza ari omen da indarra artzen. Ez ordea alkar maitatzeko paper bearrik ez dagoelako, maitasuna ozten danean sakabanatzeko oztoporik izan ez dedin baizik. Geroz eta gazte gutxiago ezkontzen da gaur egun, eta geroz eta geiago dibortziazten. Ezkondu gabe alkarganatzen diranak ere geroz eta geiago dira.

Ez dakit benetako maitasunaren ezaugarri ote dan San Balentin egunean alkarri opariak egitea. Erregalo saltzailleak asmatutako oitura dala esaten dutenak badira, eta ez dira egitik urruti ibilliko, seguru asko. Gaur eguneko saldu eta erosteko egarriak –konsumiskoak, alegia– ekarritako joera da au, zalantzarik gabe. Eta alaxe bada ere, ez nuke esango gaizki dagoenik. Urtean bein bederik, “atzo baiño geiago eta biar baiño gutxiago maite zaitut” esatea polita da eta bearrekoa.

Dana dala, gazte gutxi ezkontzearen ondorioz, neska gazte eskasia izango omen da emendik urte batzuetara. Eta mutillak

lanak izango omen ditu andregaiak izateko. Kukurruku edozeiniek
egingo die neskatxei, ainbeste mutil begira dauzkatela ikusita.

Nola ez pena artu gazteen
kokaera ikustean?
Ezkontza beren zai daukatela
ezin pasatu atean.
Eta ain gutxi betiko lotu
maitasunaren katean.
Orra gaur ere moda berria
gizonezkoen kaltean.

Gizonezkoen zorionari
jartzen zaizka milla esi.
Aien kaltean asmatzen dira
ainbat oitura berezi.
Aurki mutillak sobrean eta
neska gazteak igesi...
Gizarajoak errukirikan
ez ote dute merezi?

1997ko otsaillak 21

Asko ezagun ez bada ere, garizuman sartuta gaude. Aurtengo
leendabiziko koarta denborak ere oraintxe daude bete-betean. Biar
izango dute azkena, gure artean esaten dana egia baldin bada.

Nai eta nai ez, bijilia egin bear zan garai batean, eta barauak
ere bai. Garizumako urte-sasoian oso berezia izaten zan. Inork
agindu gabe bijili eta barau egin bear izaten bagenduen, zertarako
egiten zan ere esaten ziguten garai artan. Eta penitentzia egiteaz gai-
ñera, aragi gutxi jatea osasunerako ona zala esaten ziguten eta barau
egitea ere bai. Izan ere, gorputza geiegi indartu eta anima mendean
artu ez zezan. Bazitekeen batzuentzat orrela izatea, baiña ez det uste
gure modukoekin ala gertatuko zanik. Baiña bizitzak ainbat buelta
ematen ditu, eta leengo sermoilariak agintzen zigutena, sendagille-
ak agintzen digute orain. Deiar dar aundirik egin gabe, baiña zorrotz.
Okela asko jatea ez dala ona, eta noizean bein borondatezko baraua
egin bearra dagoela geure buruaren jabe izan nai badegu.

Eta izango da zerbait. Ipar Amerikan gure aldean ondo bizi
dirala uste izaten degu. Kutizi guztiak beteaz bizi dirala, baiña
aiek ere osasun ederrarekin gozatu nai badute, leenbizi sufritu

egin bear izaten dute. Azaroaren azkenengo egunean, Jainkoari eskerrak emateko eguna izaten dute, eta egundoko tripa-festa batekin ospatzen omen dute egun ori urtero. Ori naikoa ez dala, bateko Gabon eta besteko beste, zurrut eta mau-mau abenduan ere sekulako betekadak arrapatzen omen dituzte, eta pentsatu zenbaiteraiño saiatzen diran orretan, azaroaren azkenengo ostegunetik urtearen azkenerarte. Eta iru ta lau kilo gizendutako asko izaten omen dira. Orra kirol eta abar, urte guztian gorputza zaintzen ateratako izardiak nora joaten zaizkien. Illabete batean bai bapo, naikoa jan eta edanez. Baiña gero, sendeagillearen morrokkada entzun eta penitentzia egin bear. Garai bateko sermoiak baiño kaskarreko azkure geiago emango du orrek.

Ibilli-ibilli egin eta garizumako sermoi, bijili eta barau aiek danak gure onerako ote ziran? Gutxi janda eguna pasatzeak ez du atsegin ematen, baiña kiloak gaiñetik bota artean goseak eta gai-xotu bildurrez bizitzeak ere izango ditu bere lanak. Ondo bizitzea gustatzen zaigun onetan, badirudi garizuma bat arindu danean beste bat astunagoa asmatu degula geuk. Beti bada emen zerbait.

Pekatariaik nola geran gu
 ain da egi nabarmena,
 bijili eta barau egiñez
 lortu bear barkamena.
 Gure gorputzak izan ez dezan
 okerrerako kemena,
 len garizuma jarri ziguten
 eta orain rejimena.

Kutizi danak bete ezkeru
 bizitzen da ain xuabe.
 Bijili egin bear orixe
 bada naiko atsekabe.
 Eta gorputza izan ez dedin
 griña txar guztien jabe,
 gutxi jan baiña gauza on danak
 gerorako utzi gabe.

1997ko otsaillak 28

Munduak buelta asko ematen dituela esan oi degu. Baiña buelta oiek jakiñekoak eta neurtuak izaten dira. Egunean bat, arda-

tzaren jira-biran, eta urtean bat eguzkiaren inguruan. Auek dira mundua esaten diogun gure lur onek ematen dituen bueltak. Baiña geuk ere bueltak ematen ditugu, eta ez beti toki eta denbora jakin-ñean. Askotan ez diogu antzematen nundik nora gabiltzan buelta-ka, eta ibilli-ibilli egin eta leengo tokira etortzen gera. Eguneroko bizitzak naiko garbi esaten digu au, eta historiak zer esanik ez.

Aspaldiko kontua da Rusian oso gaizki bizi zirala. Erria ainbeste nazkatu zan alako miserian eta mendetasunean bizi bearrarekin, orain larogei urte. Agintari batzuek il eta besteak uxatu zituzten, eta komunismoa artu zuten bizimodurako. Erriaren salbamena uraxe izango zala uste, baiña errusiarrei beste agintari batzuek jarri zitzaizkien gainean, eta oso zorrotzak. Bueltaka ibilli bai, baiña leenera erori ziran. Gero komunismoa ere bidali zuten, eta orain berriz ere gaizki bizi dira ainbeste ondasun dituen lurraldean.

Danak ez dira gaizki ibilliko, ez. Baiña erri xearentzat bizi-modu eroso moldatzen ez dute asmatu. Jubilatua ez dakit zenbat denbora onetan ez omen duten zaarsaria kobratu, esate baterako, Estadauk dirurik ez daukala-ta. Baiña badirudi ango agintariak erremedioa aurkitu diotela jubilatuen arazo oni. Aspalditik dute zurrutero fama errusiarrek. Vodka asko maite dute. Eta Vodka, alkohol askodun pattar gogorra da. Bataz beste, 170 botella edaten omen ditu bakoitzak, urtean. Barrualdeko otzak kenduko dituztela esan diteke. Baiña, zer gertatuko eta zergak ordaintze kontuan sekulako naspilla daukate. Inork antzematen ez dion naste-borrastea. Eta orrela izango da, ainbeste zurrut egin ezker ez baitago kontuak zuzen eramaterik.

Baiña orain dator beste buelta. Alkoholun edarien sal-erosketa eta zerga kobratzea bere eskuetan dauka Estadauk. Alkohola txarra dala, eta Gobernu erriari orrelako edariak saltzen. Eta biltzen duen diruarekin urte onen erdia baiño leen jubilatuei zorrak ordaintzeko asmoa omen du. Orratx dirua bear bezela erabilli ezak nolako bueltak emanerazten dituen. Jendeari mozkortzeko erreztasuna emateraiñoakoak.

Dana dala, errusiarren sistimak badu alderdi ona ere. Mozkortu nai dutenak mozkortu ditezela, baiña jubilatua lasaia-go biziko dira emendik aurrera. Aiek ez dute esango alkohola txarra danik.

Mundu onetan noiz ez du egin
bakoitzak al duen ura,
bueltak emanaz ta berrituaz
lendik datorren oitura?
Rusian ere batzuek morroi
lege zarreko modura,
jubilatua bizi ditezten
zurruteroen kontura.

Naiko pattarra, ta edateko
erreztasuna ere bai,
errusiarrek bizi badira
erdi mozkortuta, alai.
Aiton-amonak ez dute zertan
egonik diruaren zai...
Guztientzako ona da eta
jubilatua ori nai.

1997ko martxoak 7

Bizkorra dana motelaren kontura bizitzen omen da. Eta motela, bizkorrak ematen dion apurretik. Aspaldi entzun nuen auxe. Eta arrezkero, makiña bat aldiz pentsatu det ura asmatu zuenak jakingo zuela motelei etekiña kentzen. Makiña bat motelak izardi ederrak atera bearko zituela, aren partez.

Japoniarrak langille purrkatuaren fama dute. Oporrik ere egin gabe, eta beren buruak alperrik galtzeraiño lana egiten omen dute askotan. Orregatik igoko ziran igo diran maillaraiño. Eta emendik amabost bat urtera, illargian eta izarrak dauden goiko zabaldegi orretan oporrak igartzeko moduan izango omen dirala esaten dute. Baiña ez danak. Goialde oietatik joan-etorria egin eta ango hoteletan egotea begi bietako argia kostako omen da-ta. Begira, begira nolako etekiña kentzen dioten batzuek lana fin eta serio egiteari. Baiña danetan aurreratuenak dirala ere, bizkorrak motelen bizkarretik bizi dira an ere. Eta motelak, bizkorak emandako apurretik. Eta nazio aurreratu eta zibilizatueta ori gertatzen

bada, pentsatu besterik ez dago munduko zenbait bazterretan jendea nola biziko dan...

Ala ere, ez dute ikusiko munduko miseririk izar arteko zabaldegi artan bapo dauden denboran. Eta begiak ikusten ez dutenean biotzak ere ez omen du sufritzen, eta motelen kontura bizitzen dakitenak an biziko dira ederki, nolata makinak aberiatuta beera erortzen ez diran. Gu ez gera joango izar artean oporrak pasatzera, baiña benetan nai badegu, ez daukagu ondo bizi eziñik. An dabilzanean inbidirik ez izatea naikoa degu. Inbidiak anima erdoitu egiten omen du, eta gaitz ori daukanak ez du izaten egun eta gau onik.

Ain gora igo gabe, bee onetan ere dana ez da beltza. Emen ere badaude iñori laguntzeko prest dauden petsona onak. Bi illabete edo orrela izango dira Gipuzkoako kliniketan ebaketak egingako gaixoentzat bear aiña odol etzegoela jakin zala. Eta bestee-tan eman oi duten baiño sei aldiz pertsona geiagok eman zuten odola. Ez iñori zurrupatuta, bere odola eta bere borondatez baizik. Japon aldeko aberatsen aurrerapenak onak izango dira, baiña Gipuzkoako odol emailleen borondatea ere bai.

Dana dala, martxoan sartu gera. Udaberriaren atarian. Txikiak giñala, martxoko eguzkiak buruan zuloa egiten zuela eguzkitan geldi egon ezkeru esaten ziguten. Baiña gozotasun epela ere berekin du eta suspertu gaitezen pixka bat. Ea besteren onaren damutasuna alde batera utzita udaberriari etekin ona ateratzen diogun.

Izar artean ez degu, noski,
pasatuko guk oporrik,
ez badaukagu noizbait iñori
ateratako altxorrik.

Ala ta guztiz egin ezean
iñorenganako zorrik,
ez da izango gure kontura
jan dezakean bizkorrik.

Aurki eskuan izango degu
udaberriko epela.

Eta pentsatu egun ederrak
igarotzeko gaudela.

Beti inbidiz bizi dan ura
izan diteke txepela.

Baiña beretik jaten duena
ez da izaten motela.

Leengo batean, nere lagun bat oso triste ikusi nuen. Zer ote zuen, eta “Gure andre orrek, lanak egin ezinda zebillela eta patatak zuritzeko agindu zidak gaur eguerdian. Zuritu zizkioat, ba, patata oiek. Eta azal lodia kendu diotela eta sekulakoak esan zizkidak!”.

Nik banekien ordea nere lagun ori gauean parrandatxoa egiña zala, eta aren ondorioak ibilliko ziran an, seguru asko. Dana dala, emaztea asarre antzean dagoenerako egindako bertso batzuk baditut nik, eta aietxek kantatuko ditut gaur. Ez estutu, Joxe, ori ez dek ezer-eta.

Ene andretxo, zurekikoa
egiten ez da samurra.
Ain luze egin al zaizu gaurko
nere parranda laburra?
Lanerakuan alai agurtu,
etxerakuan mutturra.
Gaur ere zerbait izango zala
banuen naiko bildurra.

Etixerakuan lagun batzuek
zaizkit bidean azaldu.
Estimatuak nola ditudan
ezin nolana bialdu.
Baiña oraindik aiengatikan
ez zenituzket nai saldu...
Zure senarrak arnas artzeko
eskubiderik ez al du?

Egun guztian antxe jardun naiz
lantegian fintasunez,
nere famili maitegatik
dedan guztia emanaz.
Baiña alare ezta naikua
orain ikusten dedanez.
Nere nekeak ez dira ordaintzen
orren kopeta illunez.

Bein eta berriz entzun zaidazu,
andretxo biotzekua,
zugana dedan maitetasuna
eztala axalekua.
Nere biotzan ondoan dauka
zureak bere lekua...
Gogor itxurak egiñagatik
etzera orrelakua.

Goguan daukat oraindik ere
goizeko zure ertera.
Esan didazu: “illuntzan gero
txintxo etorri etxera”.
Gizonezkoak, egia, zerbait
askatasun zale gera;
baiña, andretxo, zerorri ere
matxarda samarra zera.

Argi ondoren etorri naiz ta
arkitu zaitut illuna.
Gauz utsagatik etzaitez mindu,
nere emazte kuttuna.
Nai dezu baiña ezin ukatu
asko maitatzen nazuna...
Oraindik badet itxaropena
laister pasako zaizuna.

Pakeak egin bear ditugu
andikan edo emendik,
alaitasunez bizi gaitean
al baldin bada iñundik.
Bizi guztian maiteko zaitut
parranda guztien gaindik.
Une goxoak igarotzeko
gaude zu ta ni oraindik.

1997ko martxoak 21

Udaberria gaur etorri zaigu. Bere etorrera pozik artzen zuten gure aurrekoak, eta guk ere orrelaxe artuko degu: pozik, atsegiñez. Egun argi eta epelak danoi gustatzen zaizkigu. Zelaiak bezelaxe sasiak ere lorez janzten dituen udaberriak aurpegia alaitzen digu, noski. Erri eta toki ezezagunak ikusteko irrikatzen daudenak, laister asiko dira ametsak egi biurtzeko bidean. Emendik aurrera nabarmen izango dira ibillaldi edo eskurtsioak, txangoak, neska eta mutil taldeentzat. Alai eta irripartsu, aien inguruan ez da izango tristurarik. Ezta bear ere.

Gazte talde ibiltari auetako batek frailleen komentu batekin topo egin omen zuen bein. Oroigarriak saltzen diran dendatxo bat omen dago komentu orren ondoan. Komenturako dana ona dala

dio esaera batek. Eta dirua ere ona izanik, frailleak ere txanpon batzuk atera nai, ba. Aiek ere egunero jan bear izaten baitute. Ala, dendatxo artan errosarioak, estanpak eta orrelakoak omen zeuden salgai. Ijiji eta ajaja, gaztetxo oiek sartu dira dendara, eta neska musugorri batek, zintzilik zeuden kollare aiek zenbat balio zuten galdetu zion fraille dendariari. Bai ark antzeman ere adarra jotze-agatik galdetu ziola, baiña pazientzia eta gizalegea zer diran erakutsiz, “Oiek ez dira koillareak –erantzun omen zion–. Oiek errosariak dira”. Beste mutiko batek, estanpa bat eskuetan artu, eta zein artistaren argazkia zan ura galdetu omen zion. Eta, “Ori Karmengo Amabirjiña da”, erantzun zion frailleak. Eta orduan mutikoak: “Ez da, ba, Karmen Sevilla izango?”.

Gazteak alaia eta jostalaria bear du izan. Baiña zenbait gazteren jokaera ez al da errespetorik eza? Gazteei ez dago esaterik zer sinistu bear duten eta zer ez. Dakiten aiña jakinda, kontu gero orretan asi! Ez genduke besterik bear! Baiña, ez dira konturatzen zaarragoak ere bere nortasuna eta eskubideak badituztela. Errosarioa erreztatu nai duenari ez dago zertan parre eta burla egiñik. Iñoren sinismenari parre egitean ez baiña besteak ere errespetatzen jakitean dago pertsonaren kategoria eta jakinduria. Baita gazteena ere. Ama Birjiñari gauza bat eskatzeko ez dagoela gauza bera berrogeita amar aldiz esan bearrik pentsatuko du norbaitek. Eta baditeke orrelaxe izatea.

Erljioaz aspertu egin gera, eta naiago degu alde batera utzi eta geure gisa bizi. Baiña asmatuko ote degu? Askatasuna gauza ederra da. Baiña mugarik ezpadu, eta langarik jartzen ez badiogu, alkarrenganako errespetoa galtzen degu sarri, eta ez da sistima ona lasai eta gustora bizitzeko.

Elizan nola egoten geran
denbora ezin pasean,
naiago degu libre antxean
geure modura eizean.

Erljiozko trabarik gabe
naiz ibilli jolasean,
lanak izaten dira gurekin
motz samar lotu ezean.

Agindupean bizi giñan ta
libre bizi nai genduan.
Baiña ez dakit ez ote geran
atera zerbait galduan.

Aukeran aize geitxo buruan,
eta ibilli munduan,
frenurik gabe gelditutako
bizikletaren moduan.

1997ko martxoak 28

Gaur Ostiral Santu eguna degu. Ez du guztiontzat esanai berdiña izango egun onek. Oraingoaren antzik gabeko gazte denbora izan genduenoi garizuma, eta batez ere Ostiral Santu eguneko kontuak ez zaizkigu aazten. Ez det esan nai santuak giñanik. Orain ere badaude jendearen esanari begira egon gabe, kontzientziak agintzen dien bezela bizi diran gizon eta emakume zintzoak. Prozesioan ibiltzea ondo dago, eta bijili eta barauak egitea ere bai, itxurak egite utsagatik egin ezean. Gu gazteak giñaneko garai artan garrantzi izugarria izaten zuten bigili eta barauak. Eta baziran agindu aiek gustoko penitentzia egiñez betetzen zekitenak.

Elizako kontuan emakumeak etzuten sarrerarik koruan. Gizonezkoak bakarrik joaten ziran korura. Eta erri bateko kantoareak, bigilia autsi nai ez, eta Ostiral Santuko elizkizuna amaitu ondoren, taberna jakin batean biltzen ziran urtero. Bakaillau jan bikaiña egin, eta maatsaren salda beltzarekin bustitzen ziran ondo, kantuan nekatutako eztarria bere onera ekarri nairik. Egun artako kantu tristen doiñuak nolabait kendu nai, ba, belarrietatik. Batzuek kantuan eta besteak erromatarrena egiñez ibiltzen ziran prozesioan. Aiek bai zekitela bijili eta barau egin bearra ondo betetzen.

Ostiral Santuz aragia jatea debekatuta egonik, goizean kajakada bat antxoa erosten zuten arraindegian. Eta eguerdiarte geiena antxoak garbitzen eta maneitzen pasatzen zuten. Gero, prozesio ondoren, erritik gertu dagoen Santa Barbara mendira joan eta ango alkarte edo soziedadean bereala egiten zituzten goizean prantatutako antxoa kajaren lanak. Apenas ondarrik sobratzen

zan. Baiña, Ostiral Santu penitentzia egiteko eguna izan, eta gauerdira arte zintzo eusten zioten bijilia eta barauari. Gaueko amabiak jotzen astean, jartzen zituzten kiloko txuletak prasatan erretzen. Leenago ez ordea. Ori da bijilia errespetatzea! Ez didate esan nun gertatzen zan ori. Santa Barbara Urretxun dago ordea, eta jokatu nuke Urretxu edo Zumarraga aldeko jendea zala ain egoki bijilia egiten zekiena. Erri auetako kristau zintzoak ondo bizitzen dakiten festazale jatorrak baitira.

Gazteak parre egiten digute guri beti elizan sartuta egoten giñalakoan. Baiña askok obe luteke Aste Santua guk bezelako sanotasunarekin pasatuko baluteke. Ez giñan urrutira joaten, ez. Eta ez genduen diru asko ere kastatzeko, baiña lagun artean gozatu ederrak artzen bagenekien. Leengoak ere ez gera al genduena egin gabekoak.

“Alkar maitatu”, esan ziguten
Ostegun Santuz danori.
Baiña ez degu aintzakoz artu
sekulan agindu ori.
Maitekerizko txorakerian
ez degu bear erori,
baizik guretzat nai ez deguna
ez egin iñoiz iñori.

Ostiral Santu eguna degu
benetan garrantzizkoa,
kontzientziaz nola gabiltzan
pentsatzeko modukoa.
Baiña aingeru izatea guk
izanik eziñezkoa,
gauza bakoitza bere garaian
egitea da naikoa.

1997ko apirillak 4

Lanen bat egin bear eta nundik eldu asmatu ezin degunean, atzekoz aurrera astea omen da onena. Orrela konturatzen gera gaizki ari gerala, eta bereala asmatzen degu lanak ondo egiten. Ari danak beti zerbait egiten duela esan oi da. Egia. Gaizki egiñez ikasi diteke ondo egiten, eta ori ere zerbait egitea da. Ez du gutxi balio.

Egipton, su eman eta bere alaba erre omen du emakume batek. Neskaxa il egin da, zoritxarrez. Zergatik, eta neska gajoa praka bakeroak jantzita zebillelako. Ama-alabak mahomatarrak ziran, eta emakumeei galtzak janztea debekatzen die Mahomaren erlijioak, eta orra or ondorioa. Etzebillen, ba, iztarrak erakusten, sikira. Orrelakoxeak gertatzen dira erlijioa dan bezela edo bear bezela erakutsi ezean. Baiña, au ez al da erlijioa ondo erakusten ez dutenei kalte egiten dutela erakusteko modua? Zenbait erakuslek kontuan izan bear luke aien ikasle danak ez dirala jakintsuak. Eta diran baiño geiago betetzeko eskatu ezkerro, bear ez diran edo ezertarako balio ez duten gauzak egitera beartzeko arriskua dagoela. Erlijioak ez du agintzen burugabekeriak egitekorik. Erlijioak ez gaitu geure buruari kalte egiteko moduko ezer egitera beartzen. Eta erlijioak duen baiño geiago eskatu ezkerro, sinismena siniskeri edo aztikeri edo orrelako zerbait biurtzeko arriskua dagoela esan ditekete. Aspertu eta sinismena galtzeko arriskua ere badu. Gaurko gizartean ez ote da orrelako zerbait gertatzen?

Mahomatarrak oso zuzenak eta fiñak omen dira erlijio kontuan. Baiña bere alaba su eman eta erretzen duen ama fiña ote da gero? Ala, erlijioarekin batera ezertarako balio ez duen bildurra sartu ote diote ezurretaraiño? Pentsatu bear luke bere alaba erretzeko agintzen dion erlijioa ez dala egokia, eta alako erlijioa ezartzen duen jainkoarengandik errukirik, barkapenik eta betiko zorionik ezin diteketeela espero. Erri xeari orrelako erlijioa buruan sartzten dioten erakusleak ere pentsatu bear luteke zerbait. Iñor mendean eduki naia berea du gizonak. Eta orrek ere lanak ematen ditu. Egiptoko emakume ark lana atzekoz aurrera egin zuen. Alabari gauzak diran bezela esanda bide zuzena erakutsi baiño leen, zigorra eman. Eta nolako zigorra!

Kristautasunak iñorentzako
ezer kaltekorik ez du,
eskatzen duen bezela danok
izan ezkeru ondradu.
Eta gaiñera nola ez duen
sekula gizonik galdu,
txorakeriak utzi alde bat
ta sinismenik ez galdu.

Erlijioa zuzen gordeak
eman dezake atsegin.
Orregatik zer eskatzen duen
bear degu ondo jakin.
Gure bizitza iñori kalte
egin gabe joan dedin
Ebanjelio santuak garbi
esaten digu zer egin.

1997ko apirillak 11

Diruak ez omen du balio zoriona erosteko. Baiña zerbaitera-ko balio du. Bestela etzan izango dagoen aifia diru-gose bazterretan. Diru pilla galantak badauzkate bankuak. Begira, ala ere, nola-ko opariak eskeintzen dituzten geiago biltzeko. Denda guztietan noiz nai jartzen dituzte merkealdiak. Oporretarako eta ibillaldiak egiteko ere izaten da aukerarik asko, diruaren bearrak eraginda. Ea gure apurrak bildu eta pixka bat berdintzen diran. Bizi geran garaiaren ezaugarria izango dala, eta aurrera. Beartu ez gaituzte egiten beintzat, eta komeni bazaigu artu eta bestela utzi, ez dago zer esanik. Al duenak al duena legez egin ezkeru, ontzat artu bear.

Diru geiago bildu nai au zineetara ere iritsi dala uste det. Orain arte, bakarkako eserlekuak izaten ziran zine aretoetan, bi alboetan besoak jartzeko toki eta guzti, eta aldamenekoari trabakarrik ez egiteko moduan. Orain bezela leen ere, izaten ziran otzari edo argiari igesi zinera joaten ziran bikoteak. Alkarrengana ondo bilduta, batak bestea goxatuz pelikula ikusi aitzakian illunabar politak pasatzen zituzten. Telebisioa dala eta ez dala, zinetako ikusleak asko bakandu ziran otsa izan zan. Eta zinetoki bat baiño geiago itxi ere egin zan.

Baiña badirudi orri erremedioa aurkitu diotela orain. Madriden asi omen dira bikoteentzat erdian trabarik gabeko eser-

leku bereziak egiten. Bikoteak leengo aldean errez gerturatzen omen dira alkarrengana. Illunpean alkar ikusi ere bai, eta batek bestea laztantzeko ere erreztasun aundia ematen omen dute oraingo eserleku berri oiek. Eta zine jabeak pozik daude geroz eta sarrera geiago saltzen dutelako. Orra jendeari gustoa egiñez aberasteko modua. Eta ez dago gaizki. Bejondaiela!

Eserleku berri oiek gazte jendea joaten dan zineetan ipiñi dituzte oraingoz. Nunbaitetik asi bear, eta ortik asi ziran. Baiña badira gazte-gazteak ez izan arren berotasun pixka bat pozik artuko luteken zaarrak ere. Eta ikusten nago otzaren bildur diran jubilatu eta aitona-amonatxoentzat ere egingo dituztela orrelako eserleku bereziak. Kanpoan txorizugarri ibilli gabe, duten epeltasuna disimuluan bata besteari emateko modua gaizki egongo al litzake? Dirua ona izango da, baiña bigarren gezte denbora alkarren arrimoan pasatzeak ere balioko du zerbait, orretarako animoa eduki ezker.

Nola ez dagon zine areto
edo teatro baldarrik,
oietan ez da arratsalde otz
edo eguraldi txarrik.
Gustoko lagun bat artu eta
joan ezean bakarrik,
neguan ere ez omen dago
kalefazio bearrik.

Gure denboran ikusi arren
makiñatxo bat otz-bero,
aiton-amonak erosotasun
au ez genduen espero.
Garai txarrean jaio giñan gu
ondo pentsatu ezker...
Jolas aukerak alperrik dira
sasoia joan ta gero.

1997ko apirillak 18

Emakumeak baiño gogorragoak geralakoan egon izan gera gizonak. Uste bai, baiña ez da orrela, azkenaldiko berriak diotenez. Indartsuago izan gindezke, eta zakarragoak ere bai. Baiña gogorragoak ez. Bilbon egin duten zenbaketa edo estadistika batek

dioenez, mundu osora begiratuta, denborarik luzeenean bizitzen diran emakumeak, euskaldunak omen dira. Bigunak balira ez luteke gizonezkoak baiño denbora geiagoan iraungo. Eta orretaz gaiñera, emakume euskaldunak gizonak baiño gutxiago joaten omen dira gaixoetxeetara. Eta joaten diranak, gizonezkoak baiño azkarrago sendatzen omen dira. Gizonezkoak eta emakumeak izaten dituzten amar gaixotasun kontuan artuta, amarretatik bederatzitan gizonezkoak denbora geiago bear izaten dute sendatzeko.

Gure lagun auek ezurretako gaitzarekin ibiltzen dira larri samar. Ama izateak kaltzioa gutxitzen, eta ortik etortzen zaizkie ezurretako errenkurak. Baiña ori ere ez da gizonak baiño gutxiago diralako, bere ezurretako indarraren zati bat aurrei ematen dietelako baizik. Bilbon egin duten azterketa orrek argi eta garbi erakusten digu, indartsua, sendoa eta zaila emakumea dala eta ez gizona. Ez dago baten eta bestearen iraupenari begiratu besterik. Bataz beste, gizonak baiño amar bat urte geiago arrapatzen dituzte emakumeak mundu onetan. Gogorra izateak baditu bere alderdiak, bai. Tabakoa dala, zurruta dala eta abar, gizonok ez degu geure buruari gogor egiteko indarririk. Emakumearen aldean gogo aula degu. Batetik gu baiño zuzenagoak diralako, eta bestetik bere burua zaintzeko gogo geiago dutelako, gauza askotan irabazten digute emakumeak. Nai dutena egiteko ere gure aldean saiatsuak dira. Ez dute nolanai etsitzen. Orretarako almen berezia du emakumeak. Berearekin irtetzen jakiteko gaitasunak bizia luzatu egingo du. Zer nai dezute?

Oiek guztiak jakin, eta egiten diegun baiño obeto egin bear genieke. Poztu egin bear genduke gu baiño denbora geiagoan bizitzen diralako. Sasoian gaudenean zerbait gerala uste izan arren, anak ttarraka jartzen zaizkigunean, aien laguntza ederki etorriko zaigu, eta eziña etorri baiño leen kontuak ateratzea ona izango da. Laguntasuna ere garaiz erein bear da, eta etxekoandreari ez kontra asko egin. Al dala, baietz esan beti, gure onerako izango da-eta. Bearra datorkigunean etxekoa baiño lagun oberik ez baitegu izango.

Bizi luzea baldin badauka
emakume euskaldunak,
dudarik gabe gu gera emen
suertea daukagunak.
Bakardadean pasa bearrik
ez azkenengo egunak...
Ze lasaitua emango digun
aldamenean lagunak!

Neroni beintzat asko pozten naiz
oraingo berri onekin.
Baldin mutilzar egon bagiña
ez giñan biziko berdin.
Etxekoandrea ez naigabetu
eta ondo kaso egin,
gu beartzean gure aingeru
guardakoa izan dedin.

1997ko apirillak 25

“Gaur San Markos. Artoak ereinda balegoz..!”. Taloa eta esnearen garaiko esaera. Gaur San Markos baiño San Prontxio geiagok izango dute gogoan, etzidamu bere eguna da-ta. Udaberriko zizak eta karakolak bilduta eduki dituzte onezkero arabarrak, bere zaindariaren eguna bear bezela ospatzeko. Taloa eta esnea aiñako menua gertatuko dute, bai. Goierri alde onetan ere zeñiek ondratua izango du San Prudentziok. Burua makurtuta artoa ereinten aritzen ziranean aiñako egunak pasatuko dituzte lazkaotarrak asteburu onetan.

Beasain aldetik-eta, jendea barra-barra joaten zan garai artan. Eta festa leku alaia zan Lazkao. Orain ere ala izango da, lazkaotarrak burua leengo lepotik baldin badaukate beintzat. Eta oso ondo egiña. San Markos aurretik artoa ereitea ona izango zan, baiña bizitzari alderdi onak billatzeak ere badu bere garrantzia. Ori egiten dutenak ez daukate jatorrak eta formalak izan eziñik, lazkaotarrak diran bezelaxe.

Erriko eliza nagusiaz gaiñera, iru ermita eder badituzte gutxienez Lazkaon. San Prudentziorena bat. Bederatzireun eta berrogeita amairu urte omen dira ermita eraiki zutela. Ortik pentsatu noiztik dan jende zintzoa Lazkaon. Eta beste bi ermita San Juani eskeiñita daukate. Bat Naparroa bidean, eta bestea

Lazkaomendin. Ermita oni San Juan Txiki esaten diote, Lazkaomendin jaio zan Lazkao Txiki bertsolariari bezelaxe. Bi komentu eder ere badituzte errian, bata frailleena eta bestea monjena. A, ta Lazkao Txikik ere badu bere irudia errian, oraindik santu ez dute egin baiña. Pikaro samarra bazan ere, gaiztakeririk etzuen ark, eta auskalo denborarekin zer gertatu litekeen.

Ainbeste eliza, ermita eta komentu diran errian jaio eta azteak, nai eta ez bear du zer ikusia lazkaotarren jatortasunean. Inguruko errietan ere bazuen eragiña Lazkaok. Makiña bat goierritar joan oi ziran bizikletan Lazkaoko frailleetara, pazkoazkoa egiteko urteko zekorra saltzera. Lazkaoko frailleak beti izan dute itzal aundia, eta ez Goierri aldean bakarrik. Lazkaotarren umore onarekin ere badutela lotura esango nuke. Lazkao Txiki, gaztea zala, monjen komentuan igeltseritzan omen zebillen bein. Monjak, iñoren aurrera zetozenean aurpegia estalita azaldu bear izaten zuten orduan. Eta komentuko superiora ere ala ibiltzen omen zan. Urte asko zituen, eta Lazkao Txikik, pixka bat tentatzeko edo, aurpegia estalita alako txorakeriak zergatik egiten zituzten galdetu omen zion. “Zer uste dezu? –erantzun omen zion monjak–. Guk ere geure reglak dauzkagu gero!”. Baiña baita Lazkao Txikik azkar erantzun ere: “Zuk ere bai?”

Lazkaotarren umorearen
eredu Lazkao Txiki,
orren zalantzik iñola ere
ezin diteke eduki.
Naiz eta beti portatu bera
oso jator ta gizonki,
disimuluan ziri zorrotzak
sartzen zituen ederki.

Gaitz egiteko asmorik etzan
Joxe Migelen buruan,
baizik umore sana sortzen
saiatzen zan inguruan.
Emendik ega egin zigun ta
dago leku seguruan,
eta geroztik aingerutxo bat
geiago dago zeruan.

“Maiatza, urtearen giltza”. Urteko illabeterik ederrena bezela jo diteke maiatza, ondo portatzen danean. Oraindik asi besterik ez du egin eta ikusi egin bearke degu zertara jotzen duen.

Legazpik Gurutze Santuaren babesean ospatzen ditu urteko jaiak, Santikutzetan. Lana gogor egiñez gora irtendako erria izanik, Santikutz jaiak pozik ospatzen ditugu emen. Ondo etortzen dira, atsedenaldira bat artzeko. Batzuek, festa egunak kanpoan igaro naiko dituzte, lasai-lasai. Gazte jendeak errian gelditzea naiagoko du ordea, gurasoen loturarik gabe nai erara festak pasatzeko. Garai batean estu artzen gintuzten festa garaian, bateko dantza lotua eta besteko beste, festak pekaturako arrisku izaten zirala-ta. Baiña gauzak aintbesteraño aldatu dira orain, eta festak zerua irabazteko ere balio dutela diote. Eta orrelaxe izango da gaiñera. Gazteak aintbeste dakite, eta umeak egiten dutena egiten dute askotan. Aitak eta amak pazientzi ederra artu besterik ez daukate.

Orretaz gaiñera, seme-alabak biurrikeriren bat egiten dutenean, amak aitari ematen dio aitzaki, etxean errespaturik jartzen ez duelako. Eta aitari etzaio beste biderik gelditzen. Pazientzia artu bear ama pazientzitik irten ez dedin. Orra aitarentzat zerua irabazteko modua festatan. Baiña orrekin ez dira danak amaitzen. Besteri zerua irabazten laguntzen dionak, beretzako ere saria seguru dauka. Orrexegatik, senarrari pazientzia artuerazten dion emaztea zeruaren erdi-erdian dagoela esan diteke. Eta gure emazteak gure aldean suerte ona daukate. Ez dago dudarik.

Ez ezkontzeagatik arrimatu eta orrelakoak egiten dituzte oraingo gazteak askotan. Orixe da, ba, ez jakitea. Ezkondu ezkerro, goxogoxo itz egiñez emazteari pazientzia artzea naiko du senarrak zerua irabazteko. Eta emazteak berriz, batere nekerik gabe, dan bezelakoxea izatea aski du, senarrari zerua irabazten lagunduz berak ere meritu berdiñak egiteko. Zer nai dezute suerte aundiagorik?

Oiek danak orrela dirala, datorren igandean amaren eguna degu. Kontuak kontu izango dira, baiña ama beti ama da, eta ez

degu aaztu bear bat bakarra dala munduan. Maitasunaren maitasunez, duen guztia ematen duenik iñor bada, ama da. Eta ordaiñetan ezer eskatu gabe eman ere. Esker txarraren truke ere bai sarritan, zoritxarrez. Ez luke alaxe bear baiña... Saia gaitzen, bada, egun batean bederik gure maitasun osoa amari eskeintzen, merezi du-eta. Ez du gauza guztietan guk bezela pentsatuko, baiña gure ona besterik nai ez duelako izango da beti. Eta gaztetasunaren berri eman nai diogunean ere, errespeto aundiz itz egin, eta gozotasunez. Ematen diogun pozaldi bakoitzeko eun alako itzuliko dizkigu amak.

Sentimentu bat bada
guretzat kuttuna,
anima bera gozo
ematen diguna.
Zer dan esatea zail
egiten zaiguna,
baiña galdera onek
badu erantzuna:
ama daukanak daki
zer dan maitasuna.

Ama, zu ziñan nere
lagunik onena,
mundu ontan geiena
maite ninduena.
Jainkoak eraman ta
zeruan zaudena,
nik dedan oroipenik
maitagarriena.
Tori nere biotza
ta nere omena.

1997ko maiatzak 9

Batak bestea neurtzen ikustea nai duenik iñor bada, euskaldunok gera. Eta ez emengo kirol edo deportean bakarrik. Txirindularitza, aizkora, pelota edo kargajasotzea bezela gustatzen zaizkigu tenisa, atletismoa, edo korrikalari kanpotarrak eta milla norgeiagoka. Ez dago esan bearrik futbolarekin zer gertatzen zaigun.

Eta oietaz gaiñera, badegu beste zaletasun aundi bat ere oso geurea. Ondo jatea gustatzen zaigu. Moko fiñekoak gera. Elikadurari ematen diogun garrantzia ikusirik, kirolariak zer jaten duten jakin naia ere ez da urruti izaten gugandik, eta gorputza

ondo zaintzea ere nai izaten degu. Askori beintzat geu nekatzea baiño besterik nekarazitzea geiago gustatzen zaigula esango nuke.

Dana dala, kirolariak zer jaten duten jakin nairik uxarrean nenbillela, asko uste ez nuen berria jakin det. Orain amairu urte Ipar Amerikako Olinpiadak egin ziranean, beste barazki batzuen artean, alpapa ere jaten omen zuten kirolariak apaltzekoan. Bai, gizona. Alpapa, euskeraz toki askotan frantses-belarra esaten dioten alpapa. Nik uste nuen ganaduentzat izaten zala, eta oilloentzat ere bai iñoiz. Baiña azkenaldi onetan egin diran ikasketak erakutsi dute alpapak alimentu aundia daukala guretzat ere. Bitamina asko ditu, C bitamina esaten zaiona, batez ere. Eta ori jakin dedan ezkerro, gerra denboran eta geroxeago ere soroak frantses-belarrez estalita geneuzkala ainbeste gose pasatutako pena daukat. Ganaduentzat gurdia betean eramaten genduen alpapa presko artatik eskutada bat edo beste jan izan bagendu, gu izango giñan mutillak, gu! Ez genduen ainbeste tripazorri izango. Zer ote da ez jakitea.

Azuntzak, edo erderazko espinakak bezela egosita, eta beste barazki batzuekin naastuta ona izaten omen da, baiña tortillan ohea dala esan diteke. Pentsatzen nuen bai, beste belar batzuekin batera jarrita ere, janari triste samarra izango zala alpapa. Dana dala, ainbeste bitamina baldin baditu, eta etxeakoandreraren batek familiari alpapa pixka bat edo beste eman nai badio, ona emen errezeta: kiloerdi bat alpapa bildu, berdea eta biguna dagoen artean. Loreak irtetzen asi baiño leen bear du izan. Ur korrientean ondo garbitu, eta txurten gorriak baldin badauzka, kendu. Gatz pixka batekin ura irakiten jarri, eta an sartuta eduki minutu pare batean. Kutxilloarekin ondo txikitu, eta ura kendu gero. Oliba oliotan tipula pixka bat erdi-prejitu zartagian, eta tipula biguntzen danean, bota alpapa bertara. Lau arrautz irabiatu –batitu, alegia–, gatza eman eta alpapa eta tipulari arrautza naastu, baiña tortilla geiegi legortzen utzi gabe, ezko samar gelditzen dalarik. Orra

botikara joan gabe bitaminak merke artzeko modua. Aproba egi-
tea merezi duela esango nuke nik. Jakin izan bagendu...

Markak austeko amerikarrak
zenbat eskola dakiten!

Amairu urte pasa ta gero
ari gera gu ikasten.

Asi gaitezen, bada, lenbaitlen
alpapa pixka bat jaten,
gauz ona zer dan ezpaitu iñork
proatu gabe jakiten.

Amerikarren asmakizunak
artzen baditugu ontzat,
alpapak ona izan bear du
aul samarrak diranentzat.

Berekin dauzkan bitamin oiek
zergatik ez artu aintzat?

Proatu, baiña arrautz batzuek
nastea ez aztu beintzat.

1997ko maiatzak 16

Aspaldi onetan munduan gabiltzanok gure denboran ikusi
ditugun aldaketak ikusita, *aitaren* egingo gendukeenean egoten
gera. Eta egingo genduke orretarako oitura galdu izan ez bagen-
du. Bizimodua asko aldatu da ordea, eta edozein gertakizunen
aurrean arritzeko astirik ere ez daukagu. Eta munduko gorabeera
guztietara, astoa makillara bezela jarrita gaude. Baiña astorik ez
dago ia, eta esaera onek ez du balio gaur. Emen, gizakia bakarrik
da ezerk ikara eragiten ez diona. Eta aldatu gabe, beti bezelako-
xea izaten jarraitzen duena.

Guri erakutsi zigutenez, Adan eta Eba, Jainkoa aiña izan
naiak galdu zituen. Arrokeriak, alegia. Kain berriz, bere anaia
Abelen inbidiz bizi zan, eta ura il arteko onik etzuen izan. Orra
nolako alajak ziran leengo gizakiak ere. Eta nolakoak gera orain-
goak? Aiek bezelakoxeak. Obeak ez beintzat. Goitik beera kuku-
rruku egin nai degu danok. Gure ingurukoak daukaten guztia edo
geiago eduki nai degu, eta ori lortzeko gizaki batzuek besteak
zapaldu eta iltzen ikusita ere ez gera arritzen. Begiratu bestela
mundu zabalera. Gizonak leengo lepotik dauka burua gaur ere.

Oiturak aldatu ditu. Obeto jan, obeto jantzi, iñun diran gutziak bete eta beste erreztasun asko eskuratu ere bai, batzuek beintzat. Baiña leenean jarraitzen du gaiñerakoan. Gizona ez da aldatu, txarrera ezpada. Elizara joan eta kaskar zuria edo burusoilla besterik ez da ikusten, eta egunak jai egiteko oitura zearo aldatu du. Eta oiek guztiak ere ez ditu naiko. Oraingo gizakiak barrua utsa daukala esaten dute pentsalariak, eta ezin duela bete ezerekin. Oiturak aldatu dirala baiña gizakia ez dala aldatu.

Eta orrelaxe izango da gaiñera. Danok gabiliz zerbait obeerren billa, oitura berrietan murgilduz. Baiña ez gera soseetzen, ez gera asetzen. Ez gera nunbait uste degun bezain bizkorrak. Badira oraindik une batzuek betetzeko balio duten oitura zaarrak, eta aiek gordeaz gozatu ederrak artzen dituzten gizon eta emakumeak ere bai. Baserritarretaz ari naiz. Atzo San Isidro zan, eta danak etzuten nai bezela ospatzerik izango, baiña datorren igandea bederatziruaren barruan dago oraindik. Eta izango dira ederki ospatuko dutenak. Asmatuko dute. Bere gogoko jolasak, bertsolariak, erromeria, bazkaria... Zer ederragorik gozatu eder bat artzeko? Baserritarrak atzeratuta bizi dirala uste duenik ere bada, baiña ez nago orretan. Gaur eguneko baserritarrak badaki bizi-moduari zumua ateratzen. Bejondaiela!

Auxe da saltsa gaurko
munduan dagona!
Zer ote txarra ta
zer ote da ona?
Arras endreatuta
ainbeste pertsona.
baserrian aurkitu
diteke gizona
oraindik ere bere
tokian dagona.

Gaur gizonak daukala
barrua ustuta.
Baserrian ez daude
ori sinistuta.
San Isidro ez daude
erabat aztuta.
Orra etxeoandrea
txukun orraztuta
bazkaltzera senarra
ondoan artuta.

Zer dan uskeria ta
zer bear dan gorde,
baserritarrak daki
ori alde-alde.
Sinisten ez badezu
egiozu galde.
Zabarkeriak ez du
artu bere mende.
Euskaldun baloreak
baserrian daude.

1997ko maiatzak 23

Berdiñik ez duen lorez betetako illabetea esan oi diote maiatzari. Euskalerrian ere bazuen bere izen berezia, baztertu ez bagendu: loreilla. Ainbeste edertasun ditu illabete onek, maiteminduen illa ere esan oi zaio, eta besterik gabe maitatzeko egiña dala ere bai. Bere ikuitua toki askotara zabaltzen du maiatzak. Maitasunak penak aaztuerazten omen ditu, baiña naigabeak emateko ere munduan beinbeinekoa omen da. Bizi-bizirik gure biotzean dagoenean polita da maitasuna. Baiña agortzen danean edo beste norbaiten biotzean kabia egiten duenean, atsekabe samiñak ematen dakiena da.

Garai bateko bertsolariak bertso ederra pranko eskeiñi zioten maitasunari. Maiteminduak, bere sentimentuak azaltzeko giro eta toki egokiak nai izaten zituztela ez da atzo goizeko kontua. Leku bakartia eta isiltasuna bearrezkoak dira maitatzeko, eta illuntasuna ere lagun ona omen da. Itali aldetik oraintsu iritsitako berriak orrela diote. Senar-emazte batzuek Purgatorioko parrokia deritzon eliza batean ondoan bizi omen ziran. Aurtxo bat enkargatu nai, eta Parisa joateko trena artzea pentsatzen zuten bakoitzean, elizako kanpaien otsak endreatu eta bere onetik ateratzen zituen. Eta

Parisa joateko modurik ezin egin iñundik iñora. Trenak iges egin, eta ez zerurako eta ez lurrerako gelditzen omen ziran. Purgatorioko eliza orren ondoan ez baizik-eta purgatorioan bizi zirala esan omen diteke. Erretoreari esaten omen zioten aurrak ekartzeko esatea eta nai izatea bakarrik etzala naiko. Erreztasunak ere eman bear dirala. Baiña dana alperrik. Erretore jaunak Parisa joatea zer dan jakin ez nunbait, lan berriak ikasteko adin txarra –irurogeita amar urte paseak– eta kanpaiak isilduerazi nai ez. Senar-emazteak alkarri aitzaki ematen aspertu, eta apaiz burugorra auzitara eraman zuten. Senarra injineroa omen zan, eta emaztea eskolako maistra. Abadeak pentsatu bear zuen, ba, senar-emazte aiek jakingo zutela bere lana nola egin. Setosoa izan ordea, eta orra bere kristau biotzekoak zertara beartu zituen. Lau urtean auzitan ibilli ondoren, erriko jendearen erdia bakarrik omen dago apaizaren alde. Munduko eta mundukoen berri bazekien orratio epailleak, eta kanpaiak isilduerazi dizkio apaizari. Senar-emazte oiek Parisetik buelta bat egiteko moduan izango dira, bada.

Bere lanean fin ari danak
ez du kanpai ots bearrik,
eta ez du nai Parisa joaten
ez dakien maisu zarrrik.
Ez dakitenen erakutsiak
nola ez duten indarrik,
laguntzik bear ez duteneri
obe da utzi bakarrik.

Zerbaitegatik jarriak dira
giroak eta garaiak,
baiña orretaz ez konturatzen
maitasunaren etsaiak.
Eta izanik isil-isillik
ospatzen diran eztaiak,
orrelakoan batere pozik
ez dute ematen kanpaiak.

1997ko maiatzak 30

Lagun batek esan oi zidan alarguntzen ziran emakumeak etziotela errukirik ematen. Senarra il eta bakarrik gelditzean sekulako preskatua artzen dutela. Ederki orraztu eta dotore jantzita, bigarren

gaztealdia balute bezela azaltzen dirala. Izan ere, asko dira itxura onean ikusten diran emakume alargunak. Alargundu eta gizonak narrastu egiten diran bezela, emakumeak itxuratu egiten dirala esan ditekete. Zerbait bear ere bai bakardadeari aurpegia emango bazaio.

Oraingo berriak diotenez, egoera oni irtenbide bat eman zio-tela esan zitekeen, baiña ez det uste emen ere esana eta izana berdiñak diranik. Jubilatuen emazte alargunak, senar zanaren zaarsariaren erdiarekin edo orrela gelditzen dira, gutxi gorabeera. Eta berriz ezkondu ezkeror, sari ori (sariaren erdia esango genduke) galdu egiten dute. Arazo ori konpondu nai omen du gobernuak. Eta alkarrekin ezkontzen diran jublatu alargunak ez dute, ba, izango sari ori utzi bearrik, esaten dutenak egiten badituzte.

Besterik gabe onela esanda, berri pozgarria dala dirudi. Ezkonduta bizitzeko bi zaarsari obe dira bat baiño, eta zaartuta gero diruz justu samar dabilzanentzat irtenbide ona litzake au. Orretaz gaiñera, bakarrik bizitzetik alkarren arrimoan bizitzera alde aundia legoke zaartzarorako. Irtenbide ona, zaartu eta txartu ezean beintzat. Baiña ez dakit, ba, irtenbide oni zabaldu baiño leen langak ez ote dizkioten ipiñiko. Batetik, ezkontzen diran alargunak irurogeita bost urtetik gorakoak izan beariko dute. Eta bestetik, bien artean illean eun eta amabost milla pezeta baiño geiago kobratzen ez dutenak.

Bigarren aldiko senar-emazteak bi pentsio kobratze au ez da ematen duen bezain paotx mardula. Eta badirudi lege onek, aurre-ateratzen badute, baldintza geiago ere izango dituela, eta utzi dezaiogun onetan berriari, oraingoz beintzat. Meza amaitzean joko ditugu kanpaiak. Izan ere, legearekin batera tranpa ere jartzten dala esan oi da. Eta jublatuak esnatuta egotea ez da arritze-ko. Kontzientziko kargurik nai ez dutelako edo, bai omen dira apaizaren aurrean ezkondu eta juzgadura joatearekin aaztu diranak. Orrela, alargun izaten jarraitzen baitute legearen aurrean.

Ezkondu gabe alkarrekin bizitzea ere modan dago oraiñaldian. Gazteak zaarregandik ikasi bear dutela esan izan da, baiña

badirudi dotriña au alderantziz erakutsi dutela: gazteak zaarrei, alegia. Alare, alkarrekin bizi diran jubilatutako alargunak geroz eta geiago omen dirala esaten dute, zaarsaria ez galtzarren. Zer esango degu? Orrelakoxe mundua egin degu.

Orain jubilatuekin
dira jolasean ekin.
Gauzak konpodu nai dira baiña
kontu utsez ezin.
Juntatzeaz alkarrekin
ez degu artu bear min.
Nai arren ezin baidezakete
pekaturik egin.

Alargundu ta segiran
nola triste jartzen diran,
jubilatutako egon litezke
lagun baten miran.
Bizitzaren erretiran
zergatik egon kupiran?
Zartu ezkeroko pekatu egin
bildurrak joan ziran.

1997ko ekaiñak 6

Zaartzean ezer askoren bearrik ez degu izaten maldan beera abiatzeko. Baiña gaitz bat bada pertsona erabat ondatzen duena: Alzheimer gaitza, ain zuzen. Gaitz ori odola buruko muiñetara iristen ez dalako sortzen dala esaten badute ere, muiñak edo muiñean zati bat zaartu dalako sortzen da, batez ere. Eta zaartu eta memoria galtzen asten danean nabarmentzen da. Orrela asi eta, gero, pixkana-pixkana geitzen joaten da. Gaitz bildurgarria da. Gaixo dagoena bera zein dan aaztuerazteraiñokoa. Gaitz orrek arrapatzen dituenak, naiz-eta asko ikasiak izan, ezjakiñik arloteenen pare gelditzen dirala esan oi da. Eta norbait maite izan baditu ere, zein maitatu duten aaztu egiten zaiela. Trapu busti bat pasatu eta kristala garbi uzten dan bezela uzten dio memoria gaixoari, an gorde zituen oroimen guztiak kenduta.

Gazteak ere arrapatzen ditu gaitz onek, gutxi edo geiago. Eta ainbesterañio jo, zerbait paperean apuntatzen astea ere alperrik izaten dute, papera nun utzi duten aazten zaie-ta. Gaitz onik ez da,

ez. Baiña Alzheimer onek bildurra ematen du. Oraindik ez dago ori sendatuko duen botikarik ere, batez ere zaartuta arrapatzen bada. Esaten dutenez, gaitzaren aztarnak gaztetan antzeman ezkerro, zerbait egin ditekeen itxaropena daukatela esaten dute medikuak, erremedioa izan dezaketela. Eta burua galduerazten duten gaitzak nola sendatu asmatzeko lanean ari omen dira, buru-belarri. Ardoa edatea ere ona omen da gero burua ez galtzeko, baiña bere neurrian edan bear da, jakiña. Ez da erremedio zaila, eta pozik egon gindezke, orrela bada. Jakintsu batek esan du, neurritz edan ezkerro, urak ere ez daukala gaitz zertan egiñik. Eta ardoak ere ez, leen esan bezela, neurritz edaten bada.

Ardoaren birtuteak azertu dituzten sendagilleak ez daukate ardoaren sal-erosketarekin zer ikusirik, eta esan dutena kontuak ondo aterata esan dute. Orrela obe. Kartujotarrak bezain gizon formalik ez dakit egongo dan gaurko mundu biurri onetan. Eta fraille oiek esaten dute ardoak biotza alaitu egiten duela. Eta medikuak esan dutenez, buruari ere on egiten dio, baldin-eta burua galtzeko ainbat edaten ez bada beintzat. Antziñako erromar jakintsu aundi batek esan zuen berriz, ardoa egarririk gabe edaten duen abere bakarra gizona dala, eta au ere kontuan eduki bearko degu. Premirik gabe ardo geiegi edan eta abere biurtzea naiko Alzheimer izango da. Edan dezagun, bada, ardo pixka bat, baiña ez gustoko etzaizkigun gauzak aazteko, ezer ez aazteko moduan buruari eusteko baizik. Poliki eta neurrian.

Sinistu medikuak
garbi diotela,
gizon asko abere
egiñik daudela.
Ardoa neurritz edan
bear lutekela,
ez idi zarrak ura
udaran bezela.

Alzheimer nai ta nai ez
izan bear txarra,
arras ondatzen baitu
orrek gizon zarra.
Baiña ardorikan ez
edan barra-barra,
baizik neurrian eta
ardo zar samarra.

Urte au ere badijoa, eta asko konturatu gabe gaiñera. Aizeak daraman kea bezelaxe joaten da denbora. Nola dijoan ikusten degu, baiña nun gelditzen dan ikusi gabe desegiten da.

Gaur San Antonio Urkiolakoa, garai batean *askoren biotze-ko santu debotoa*. Leengo oiturak ala gaurkoak diran obeak alde-
ratzeko moduko eguna da. Gazte denbora pasatzen ari zitzaion neskari laister aitatzen zitzaion San Antonioren kontu ori. Baiña burua soiltzen ari zitzaion mutilzaarrari etzitzaion konturik eska-
tzen. Errurik etzuten neska gajoen bizkarretik parra egin nai jen-
deak orduan ere. Neskaren bati mutil bat gustatzen zitzaiola antzematen bazitzaion, laister asiko zan jendea arengatik gaizkie-
saka. Zergatik? Ezkontza kontuak neskak mutillari aitatzea gaiz-
ki ikusita zegoelako. Etzan, ba, pekatu aundia. Baiña zorioneko oiturak.

Neskak etziran motelak izaten ordea, eta gustoko mutillare-
kin kontuak esateko modua egingo zuten, iturrira bidean topo
egin edo beiei okerreko larrera joaten utziko bazioten ere. Bestela
jai zeukan, gajoak. Izango zuen nork maixiatua. Baiña mutillen
aldetik ere, bat baiño geiago izango ziran neska bat gustatzen eta
ari garaiz zerbait esateko ausardirik izan etzutelako mutilzaar
gelditutakoak. Aiek ez al zuten San Antonioren bearrik izango?
Neskazaarrak bakarrik ziran Urkiolako santuari laguntasuna
eskatu bear ziotenak. Mutilzaarrak ez, kattagorria baiño bildurtia-
goak izanda ere. Uraxe bai zala matxismoa.

Oraingo neska-mutillak ez dute San Antonio ezagutzen, eta
ez dakit nola moldatzen diran, baiña alkar billatzen dutela esango
nuke. Nola batzuek ala besteak prakak jantzita dabiltz, neskakak
bezain ille luzearekin mutillak. Belarritakoak ere edozeiñek janz-
ten ditu orain, eta ain alkarren ondoan dabiltzala, zeñek antzeman
zein nor dan! Atzetik begiratuta, danak berdiñak ematen dute. Ala
ere, leengo oitura arlotea zan gogotik, neska-mutillen arremaneta-

rako. Nik oitura zaarren berri bakarrik dakit. Besterik ez det proatu. Baiña oraingoaren alde emango nuke botoa. Oraingo neska-mutillak erreztasun asko daukate alkar ezagutzeko. Neskak ez daukate jendeak esango duenaren bildurrez egon bearrik mutil baten berri barru-barrutik jakiteko. Eta mutillak badaki neska bat sarritan inguratzen bazaio, izan litekeela gustoko zerbait entzun nai lukeelako. Orratx atea erdi-zabalik Urkiolako aldapa igo bearrik gabe bata bestearen biotzera iristeko.

Gaur erreztasun asko
dago neskatxentzat.
Jendearen esanik
ez du artzen aintzat.
Lasaitasun pixka bat
eman bear ontzat,
mutillak zirikatzen
ez badabiltz beintzat.

Arren faltsikeririk
ez egin iñori.
Neska jator batentzat
itsusi da ori.
Mutillak ez badu nai
zepoan erori,
ipiñi kandela bat
San Antoniori.

1997ko ekaiñak 20

Egutegiak dioenez, biar eguzkiaren erlojuan zortzirak eta emeretzi minutu diranean sartuko gera udan. Joan dan udaberria bezela portatzen bada, egun ederrak emango dizkigu.

Neska gazte ondartzazaleak eguzkiari begiratu bearrik ez dute izaten uda etorri dala antzemateko. Etxekoandreak ere ari dira eguzki kolorea artzen. Moderna samarrak dirala erakusteko edo ez dakit zergatik, rubiak ere apurtxo bat morenatu nai izaten dute udan. Eguzki koloreak estimazio aundia dauka, noski. Gure asaba zaarrak eguzkia jainkotzat zeukatela, baiña orain ere badauka nork adoratua. Kafetegi inguruak etxekoandre gaztez beteta ikusten dira, umetxoak inguruan dituztela, eguzkia artzen. Eguzkia bearrezkoa dala esaten dute aurrentzat. Eta amarentzat

ere ona izango da nunbait, eta aitzaki orrekin egun ederra pranko kentzen diote Jainkoari. Ederki egiten dute, eguzkia danontzat irtetzen da-ta. Eguzkia ez da belarra igartzeko bakarrik, eta udako aireak ematen duen sano itxurarekin, ama eta aurrak ikustean poza ematen du. Barru-kolore tristea duten aurrak ikustea baiño eguzkitan beztutako mutiko biurriak jolasean ikustea obe da milla aldiz, amari pakerik emango ez badiote ere.

Aurrak azteak baditu bere lanak eta estuasunak, batez ere amarentzat. Alaxe ere, geroz eta obeto bizi gerala aitortu bearra dago. Begiratu, bestela, aurrak nola jantzita dabilzan eta nolako jostailuak dauzkaten. Zer izango ote litzake nai duten guztientzat lana balego? Eta amaren lanari bere balioa eta merezi duen saria emango balitzaio? Emakumearen lana kontuan artuko balitz, gure artean sortzen dan baiño bi aldiz ondasun geiago sortu eta beste ainbeste diru irabaziko litzakeela esaten dute. Ortik pentsatu zer maillatara iritsiko giñakeen. Etxekoandreak eguzkia artuko dute, al dutenean. Baiña orrekin etzaie dana ordaintzen. Etxeko burubidea aien gain dago geienbat, eta orrek ere baditu bere lanak eta buruaustek.

Baiña dana ez degu galdu. Aitak amari etxeko lanak egiten laguntzeko oitura bai omen dator, poliki-poliki. Famili askotara iritsi da dagoeneko. Senarra futbolzalea baldin bada, edota pelotarta partiduak gustatzen bazaizkio, sermoiren bat edo beste egiteko gaia sortuko da, aldian bein. Sermoia batek egiten du ordea, eta besteak ez dute entzun eta isillik egon besterik izaten. Eta etxeko sermoilaririk onena zein dan badakigu, eta artu dezaiogun pazientzia. Lana egin bearrak ateratzen dituen txinpartak izan litezke, familiko bizitzak bear duen argia pizteko.

Aitak amari lagun egiñez zerbait etxeko lanetan, askoz obeto bizi gindezke aste ta jai egunetan.

Emen ez dago aurrerapenak maite ez diran bazterrik, naiz ta oitura zarrak ez duten oraindik galdu indarrrik.

Nunbait festak al dira,
egin bertatik jira.
Bizitz alai benetan!
Seguran festak laister dira-ta
etorri Sanjuanetan.

Toki zoragarria,
erri ikusgarria...
Ez dago esan bearrik.
Baiña Segura ez da polita
Ostiral Santuz bakarrik.

1997ko ekaiñak 27

Oraingo euskera modernoan sarriegitan entzuten dan itz bat bada: tolerantzia. Ez, ba, euskerak ori eta beste asko erderatik artu bearrik daukalako. Tolerantziaren lekuan eramapena esango bagendu, euskerari mesede egingo genioke.

Umeak giñala senide eta lagun artean sestrak eta petralkeriak sortzen genituen garai ura datorkit gogora. Bost xentimo balio etzuten kontuak izaten ziran, baiña ezin soseatu alkarri umekeriak esan gabe, edo zaplaztekoren bat eman gabe. Gurasoak saiatzen ziran orduan ere gure arteko pakeak egiten, eta bidebatez gure buru koskorretan gizalegearen azia ereiten ere. Edozer uskerigatik etzala asaretu bear esaten ziguten. Batek bat eta besteak ura esan arren, alkarri orrenbeste eraman bearra zegoela. Etziguten esaten alkarri toleratu bearra zegoenik. Tolerantzia bear zala ere ez, eramapena bear zala baizik. Euskerarekin orrelakoxe bidegabekeriak egiten ari gera, bere itzak baztertu eta erderazkoak artuz. Badaude, ba, erakusten duten iztegiak, baiña ikasi baiño zabarkeriari eman naiago degula esan diteke, eta euskera ez degula maite esaten degun ainbat.

Dana dala, eramapena bear-bearrezko degu mundua infernu biurtu gabe pakean bizi nai badegu. Besteren iritziak aintzakotzat artzen ikasi bearra daukagu, besteak gudanako begirapena izan dezaten nai badegu. Danok ere amaren semeak gera emen. Eta orretaz gaiñera, iñor ez gera egi osoaren jabe. Eta guk besterik uste izan arren, arrazoia besteak edukitzea ere gertatu oi da, bein baiño geiagotan. Orregatik komeni zaigu amor ematen jakitea, eta

ez amorekaitzak. *Toleranteak* izatea, eta ez *intoleranteak*, euskerara mordoilloan esaten degun bezela. Eramapenik ezean, alkar-bizitza jatorraren ordeaz asarrea ereitea besterik ez degu egiten. Ortik gure ingurukoei gaizki erakustera oso bide laburra dago.

Italiako erri batean gertatu danak eman dit sermoi tankerako berriketaldi au moldatzeko gaia. Izan ere, zeintzuk asarretuko eta apaiza eta gotzaia asarretu ez dira ba? Ez dakit zergatik, eta arrazoa nork zuen ere ez. Iñork etzuen izango, bearbada. Baiña kontua, zera da: gotzaiak jo eta sudurra autsi diola apaizari. Ez txantxetako muturrekoa eman ere, alajaiña! Beatzean zeukan gotzai-eraztuna seko mazpilduta gelditu omen zitzaion, eta ortik pentsatu. Gotzai jauna sasoiak dago nunbait. Orra eramapenik ezak, amor ematen jakin ezak zer nolako burugabekeriak egiñerazten dizkigun. Gu bezelako arrote batek iñori sudurreko bat ematea gaizki dago, noski. Baiña gotzai jaun batek orrelakoa egitea okerrago dago. Ez du dotriña txarra erakutsi, gizarajoak.

Eramapenik ezak munduan
sortzen dituen naspillak!
Eta oriek baretutzeko
ez du balio makillak.
Galduan iñor irten ez dedin
jarri bear maratillak...
Baiña ez degu asmatzen eta
ez gera oso abillak.

Petralkeritik zer datorkigun
ez degu asko pentsatzen.
Eta ez dakit sekula ere
asiko geran esnatzen.
Gizalegea galtzea zer dan
ez al gera gogoratzen?
Jenio txarrak obisporikan
ere ez du errespetatzen.

1997ko uztaillak 4

Santuak gure laguntzailleak badira, bear deguna aurrez eskatzea obe izango da, bere eguna pasatuta gero baiño. Zumarragatarrak ori egiten ote dute? Ama Birjiñak bere leengusu Santa Isabeli bisita egin zion eguna ospatzen ote dute aiek.

Egutegiak dioenez, uztaillaren lauan Santa Isabel eguna da. Baiña Zumarragako jaia, illaren bian izaten da.

Dana dala, ez dute alperrik galtzen egun ederra igarotzeko aukera. Zumarragak eta Urretxuk, bere gorabeerak izaten zituzten garai batean, baiña aspaldi onetan ondo konpontzen dirala dirudi. Bi errien onerako diran lanak alkar artuta egiten dituzte beintzat. Ikasbide ederra, alkarrekin biurrituta ibiltzen diran beste errientzat. Bejondaizuela! Zumarragak duen tokirik politenetakoan dago Antziñako Amaren eliza. Eta ez nolanaikoa ere! Ermita guztien katedrala dala esaten dute, eta ez da arritzeko. Benetan ikusgarria baita baseliza ori. Bera izan zan Zumarragako leenbiziko parrokia ere. Eta uztaillaren bian, elizkizun eta ikuskizun zoragarriak antolatzen dira elizan eta bere atarian. Meza nagusi ederra, Zumarragako Ezpata Dantza, leenengo elizan eta, nundik datozen eta noizkoak diran iñork ez dakien euskal dantza gero atarian; bertsolariak, aureskua eta abar.

Antziñako Amaren eliza inguruan badaude pago bikaiñak ere. Eta Santa Isabelen izenean ospatzen diran festak, pagope polit artan izaten dute amaia, egunez egiten diran ospakizunei dagokienez. Pagope ura, mai, eserleku eta orrelako erosotasunez apainduta dago, lagunak eta familiak alkarrengana bildu eta bazkaltzeko. Eta tokia polita bada, bazkalondoan sortzen dan giroa ere ez da itsusia izaten. Zumarraga-Urretxu aldeko jendea umoretsua da, eta illunabarrean trikitixa aurrean dutela Antiguatik beera jeitsiera dotorea izaten da benetan. Alaia eta paketsua. Bazkari onaren lurrunetan, ondo samar zamatutako gurdikadak ere ikusten dira. Baiña aldapan beera jeisteak ez du artaraiñoko lanik, musuak gorri-gorri eginda datozenentzat ere. Eta iñor ez da lotsagarri gelditzen. Ez orixe. Izan ere, artutako zama eramateko aintbat dana, bada da zerbait.

Zortzireun urte inguru dira Antziñako Andre Mariaren eliza ikusgarria egin zala. Eta Zumarragak izan dituen aldakuntzak eta jende arrotzen eragiña kontuan izanik, meriturik asko badute

garai artatik orain arte gorde diran dantza, euskera eta beste oiturak. Eta erriko jendearen jatortasuna gorde duten bezela gordezteak ere bai. Oiek guztiak orrela izanik, iñoiz ez da pekatu izango Santa Isabel eguneko bazkalondoan sudurra pixka bat gorrituta, eta umorea gaiñezka dutela errira alai etortzea. Leen esan bezela, bejondaizuela!

Festazale bazera
ez egon zalantzan.
Joan Antiguara ta
sartu lasai saltsan.
Zumarragatarrakin
egin alai dantzan,
Antziñako Amaren
ondran ta alabantzan.

Erri jator baten berri
nai bazenduke jakin,
joan goiko pagopera
kazuela on batekin.
Naiz ta mingaiña trabatu,
umore onarekin...
Ondo konponduko zera
zumarragatarrakin.

1997ko uztaillak 11

Aspaldi onetan gutxitan entzuten dedan kanta bat bada: “Gazte gera gazte, eta ez gaude konforme...”. Gaztea ameslari bezain etsieziña izaten da. Konformatzen zailla. Baiña urteetan sartzen dijoan bezela konturatzen da bizitzak zenbat esi eta nola-koak jartzen dizkion pertsonari. Orduan antzematen dio bizitzari zer dan. Garai ori iritsi arte sufritu egin bear, pixka bat.

Gaztearen ametsetako bat, gurasoen eta zaaragoen mendetik alde egin eta berak derizkiona egiñez bizitzea izaten da. Gauza guztiak bezela, gaztearoa ere aldatzen ari da, eta ortik sortuko zan Gaztetxeen bolada. Oietan egiten dituzte gazteak bere billerak. Oietan artzen dituzte bere erabakiak, eta berrietan moldatzen dute bere bizikera ere. Danok nai izaten degu gogoak eskatzen diguna egiteko askatasuna, eta ez da arritzeko gazteak askatasunzale izatea. Izan ere, gertatzen dana da, gazteak ez dutela bizitza ondo ezagu-

tzen, eta askatasunak komeni ez dan bide askotara eramaten dituela, batzutan. Orain esaten dan bezela, pasatu egiten dirala askotan.

Erri bateko gaztediak tirabira luze samarra izan zuen udalarekin. Gazteak Gaztetxea nai, eta baita zorrotz eskatu ere. Gazteei erantzuteko modua egin zuten agintariak. Eman zien Gaztetxea, baiña baldintza batzuk ondo jarrita. Baiezkoa eman zuten gazteak. Agindutako orduan itxi, eta gaiñontzeko baldintzak beteko zituztela, baiña zorrotzegiak ez izateko eskatu zieten agintariei. Artzeko pazientzia.

Au ere bada, ba. Gazteak ez dute pazientzi asko artzen zerbaiten eske asten diranean. Baiña gaiñerakoei pazientzia eskatu. Zorrotzegiak ez izateko eskatu besteei, zorrozkerirako eskubidea gazteak bakarrik balute bezela. Orregatik galdetzen dute askok, batez ere noiznai festa egiteko garai onetan, ea zeintzuk artu bear duten pazientzia. Txosnatan musika-tresnak duten indar guztiak emanda jartzen dituztenak, ala aien otsarekin lorik egin ezinda gaua pasatu eta urrengo egunean lanera joan bear dutenak. Aurrak lo egiten utzi ez diolako gau osoa begirik bildu gabe pasatu duen amak, ala goizaldera arte kalean ibilli diran buillosoak. Oean gaixo aurkitzen danak, ala gaua erdi-berdoztuta zurrutean eta kantuan pasatu dutenak. Ala, goizean etxe ingurua kiratsa dariola aurkitu duenak?

Geiago ere esan diteke, baiña ez gaitezen zorrotzegiak izan. Pazientzia eskatzen diguten kaskajo oiek ere noizbait sartuko al dira arrastotan.

Gaur zenbait gaztek ematen du, bai Pertsonarentzat bere lantxoak bear aiña buruauste.

Gureak egin duela eta

gutxitzat artzen gaituzte.

Zurrut eginda laiñeza artu,

zerbait badirala uste.

Eta orrekin bere buruak

alperrik galtzen dituzte.

baditu gaztearok.

Ainbeste amets egiñerazi

ta asko erdi eroak.

Guztiak ezin egi biurtu

gure jenio beroak...

Gazte gogorrek ederki asko

biguntzen ditu gogoak.

Nunai gabiltzala ere, edertasuna pranko ikusten degu garai onetan, eta ez ondartzan bakarrik. Gure Jainkoak gauza eder asko egin zuela esan izan degu, eta egia da. Baiña badirudi orain edertasuna ugaltzeko gizona artu duela lagun. Jaungoikoak presaka samar egin zuelako edo, izaten dira ain ederrak ez diranak ere. Baiña orrelakoak aise konpontzen dituzte orain. Sudur itsusi samarra daukan neskarik ez da ikusten, akats ori konpontzen duten medikuak badaude-ta. Aietako batengana joatea naikoa da, bere gustoko sudurra jartzeko. Okotz luze samarrak ere errez konpontzen dituzte orain, eta ortzak zer esanik ez. Oiek ez dira arazo, noski. Mitxeliñak ere kentzen dituzte, eta gorputza itsusten duten koipeak ere bai. Jiringa batekin xurgatu, eta kitto! Orratx itsusi samarrak ziranak berri-berri eginda jartzeko modua. Errez asko gaiñera.

Badirudi Jainkoa bere abildadeak gizonari erakusten ari dala. Ea, edertasuna zabalduz mundu koskor au pixka bat gozatzan degun. Badago premia. Edertasuna denoi gustatzen zaigu, eta errespetoz begiratu ezkerro, ikusi utsarekin ere irriparrea dator-kigu ezpaiñetara. Beti izan gera aurpegi ederra eta gorputz ego-kiaren aldeko, eta ori ez da emakumeen kontua bakarrik. Kolkoa bizar beltzez jantzita daukaten gizonezkoak ere geroz eta geiago joaten dira gorputza txukuntzen duten apaindegietara. Eta ez nuke esango gaizki egiten dutenik. Danok saiatu bear genduke itxura onean azaltzen.

Urteak dira. Eskolan nenbillela, onako auxe irakurri nuen liburu batean: “Ez da emakumerik ispilluaren aurrean txoratzen ez danik”. Ez det sinisten. Ederrak izan arren, burua bere lekuan daukan emakume asko da gure errietan. Moda-etxeetan jantziak erakusten dituzten modelo oietako bat monja joan da Italian, oraintsu. Uraxe omen da Italian orain arteko monjarik ederrena. Eta ezin esango degu ergela eta kaskariña danik. Bestela ez zuen

ain erabaki serioa artuko. Gertakari ori dala-ta, Aita Santuak ere ikusi omen du modelo erakusketa edo desfile bat, bere bizitzan leenengo aldiz, zine, telebisio edo orrelako pantailla batean. Edertasuna ez da pekatu, eta itsusiak edertzen dituzten saloi oiek iraun dezatela.

Gaur Santa Marina eguna degu. Aztiriko festak. Ango *Aztiri Bat* alkarteak sekulako berritua eman dio bere biltokiari. Eta aurrerantzean ere saia ditezela, orain arte bezela, festak eta lagunarte ederrak antolatzen. Aztiria euskaldun euskalduna da. Eta elkarte orrek lagunduko dio aurrerantzean ere orrelaxe izan dedin. Eutsi goiari, adiskideok.

Mendi eder ta zoragarriak
ta ainbeste erri txiki,
baserri txuriz apaindurikan
eta jantziak egoki.

Bazter au ikusita
“au argazki polita!”
esan zuenak badaki.
emen Euskadi ikusten dala
nolakoa dan ederki.

Aragi samur-samurra eta
gutziz gusto onekoa
Aztiri Erretegian dago
iñun ez bezelakoa.
Zure amak bezela
jarritako okela
emen daukazu naikoa,
konpuestorik zekorrak jaten
ez duten baserrikoa.

Aztiri gaiña ez badezu zuk
ezagutzen txikitandik,
etorri zaitez bisitatzera
al izanean iñundik.
Toki au ikusteko
sekulan izateko
baldin bazeunden oraindik,
berrizko ere promes eginda
joango zera emendik.

Joan daneko amar urte auetan ekonomiak sekulako gorakoa egin omen du. Aspalditxoan asko aberastu generala esaten dute, eta ni konturatu gabe oraindik! Aberastasuna eskuekin eltzeko moduan eduki eta antzeman ez.

Entzuten dan guztia ez da sinistu bear, tarteka egiren bat entzuten bada ere. Eta aberastasun kontu au egia izatea ere bali-teke. Auskalo. Orrekin ez genduke kalterik, aberastu eta burutik arindu ezean. Izan ere, aberastu diralako sikiatrarengana joan bearrean gertatzen diranak ere izaten dira tartean. Aberastea zer dan ez dakigunok, zerbait ona izango dalakoan egoten gera.

Ala ere, sikiatra eta antzekoei pakean utzi eta ez al degu obe izango gauden bezela egotea? Ipar Amerikan danetik omen dago, eta danetik asko. Beartsu asko dago, eta aberatsak ere asko. Baiña beartsuak iñork ez ditu aintzat artzen, eta aietaz ez da itz egiten. Alderantziz, zer esana eta zertaz itz egin asko jartzen du aberatsen bizimodu xelebreak, egunkari, telebista eta aldizkari edo errebis-tatan. Eta aiei begira egoten da mundu guztia. Jende askori lana ematen omen zaio orrekin, eta barkatzekoa izango da, seguru asko. Baiña badirudi aberastasunak ez dituela pertsonak bakarrik burutik naasten. Aberats oiek laguntzat artzen dituzten zakurrak ere burua galtzen dutela esaten dute. Eta ori konpontzeko, karre-ra berri bat antolatu dute Ameriketean, eta bizimodua errez ateratzeko moduko lanbidea gaiñera: zakurren sikiatra, alegia. Bistan danez, ondo bizitzeak baditu bere kakoak zakurrentzat ere. Zer nai dezute?

Ekonomia ondo omen dijoa, baiña aberastasunez ez gera amerikarren maillara iritsi oraindik, eta pixka baterako lana edukiko degu, seguru asko. Baiña emen ere zakurrak asko ugaltzen ari dira, eta kontuz ibilli gindezke, azkenaldi onetan pillatu ditugun aberastasunak zakur-sikiatriari eman bearrean gerta ez gaitez. Uraxe izango litzake polita. Gure denbora guztian gerorako

altxorra egiten saiatu eta orain, zakurra buruarindu zaigulako gure sosa buruz naastu diran zakurrak sendatzen xautu.

Baiña ez dakit zenbateraino kezkatu gindezken. Bizkaiko erri txiki batean jaiotzen dan aur bakoitzari eun milla pezeta ematea erabaki dute. Erria usten ari omen da, eta erritar berriak ekarri nai, ba. Ekonomia goraka dijoala, baiña danak bearko ditugula dirudi. Zakur-sikiatrak izango dute astia karrera ikasteko.

Egoten gera aberastuta
obeto bizitzekotan.

Baiña ortara ezin iritsi
nai danean mundu ontan?

Al dan ondoen bizi gaitezen,
ez pasa denbora lotan,
burua dala eta ez dala
burua arintzekotan
burua arintzekotan.

Dana iritsi nai izateak
oraintxe ainbeste neke
gure artean ez dula eman
sekula esango nuke.

Utsaren truke ibilli gabe
diru apur baten eske,
gure burua ondo zaintzea
askozaz obe genduke
askozaz obe genduke.

1997ko abuztuak 1

Abuztua etorri arteko denbora luze egiten zitzaienak baziran, baiña etorri da bere garaian. Nai genduken ura iritsi arteko onik ez degu izaten, eta orrekin sufritzen degu askotan. Bear baiño geiago sufritu ere. Eta petraltzen bagera, ez gera denborari zer egin bear duen agintzeko aiña, eta ez izango ere.

Abuztua, oporrak, atsedendia, egun lasaiak, leku berriak ezagutzea... Nik ez dakit zenbat amets eder! Baiña egun batetik bestera ezin danak egi biurtu. Gauza batzuetaz konturatzeko denbora asko bear izaten da. Zoriontasuna zer dan ere ez degu bereala ikasten. Orrela esaten dute bizitzaren berri dakiten maisuak. Eta orrelaxe izango da, zorionaren billa gabiltzala ankasartzeak ere egiten ditugu-eta. Dana bereala eskuratu nai izateak, gazteak

menderatzen ditu, batez ere. Munduan denbora gutxi daramatela-ko izango da ori. Denbora gutxi, edo ona eta txarra zer dan bear bezela antzemateko lain ez beintzat. Zenbait gazte orregatik erortzen da drogaren atzaparretan. Daramaten bizimoduak ez ditu asetzen, eta drogara jotzen dute, une zoriontsuak izango dituztelakoan.

Bat eta beste esaten degu, baiña ez gera santuak. Eta danok gabilta zoriontasunaren billa, eta begiak ondo zabaldua gaiñera. Zorion osoa aurkitu nai duenak, eguneroko zoriontasun txikiak ikusi eta maitatu bear ditu, zailla bada ere. Zorion osoa aurkitu naiak, zoriontasun txikiak estali egiten dizkigu, zoritxarrez. Eta orrekin galera asko izaten degu, noski. Orregatik esaten da, zoriona zer dan antzemateko edo gustora bizitzen ikasteko, denbora asko bear dala. Eta denbora ori, konturatu gabe joaten zaigu, eta berriz ezin arrapatu. Orrek ematen digu pena.

Gazteak jo batera eta jo bestera erabiltzen duten gogoia ikusita, arritu egiten gera askotan. Oporrak, kotxea, andregaia/senargaia, lagunartea... Danak batera lortu nai dituzte. Gaztearoa nolako izaten dan ia aaztu zaigunok, badakigu kutiziak bete al izateko pazientzia artu bear dala. Baiña, zergatik dakigu ori? Lortu degun apurra denboraren poderioz lortu degulako. Zorion kontuan dakigun pittña denborak erakutsi digu. Eta denbora pasatu eta gero konturatu gera aintzakotzat artzen ez ditugun eguneroko pozaldi eta alaitasun txikiak bilduta egiten dala benetako zoriontasuna. Guraso eta seme-alabak alkarrekin ondo konpontzeari duen balioa emanez, eta batek besteari ematen dioguna baiño geiago emanez.

Ez nago oporretan batera eta bestera joatearen aurka. Gaurko bizimodu estuak bear du arnasa artzeko beta. Baiña oporrek pasatuko dira, eta berrito, amabira! esan bearko degu laister. Eguneroko zoriontasun txikiak estimatzen ikasten badegu, errez pasatuko degu berriz ere oporrek etorri arteko denbora. Ondo ibilli, eta sano itzuli etxera berriz ere. Guk erria zainduko degu bitartean.

Sekula opor egin ezean
ez dago atsedeterik,
eta atsedeen gabe ere ez
osasuntsu egoterik.
Toki berriak ezagutzeak
ez du egiten kalterik.
Baiña bideak garai onetan
daude arriskuz beterik...
Joandako danak etorri bitez,
ez det eskatzen besterik.

Zoriontsu nai duenak izan
bear du baretasuna.
Ipurterretu ez egin beintzat,
aldendu larritasuna.
Nekerik gabe ez dago ezer,
au da ondo dakiguna...
Kastuetan ez neurritik pasa
asko komeni zaiguna,
jakiñik berriz ere oporrak
bidean datozkiguna.

1997ko abuztuak 8

Bateko festa eta besteko opor, egun lasai eta alaiak igarotzeko aukerako garaia da abuztua, askotan esan degunez. Oporrak artu aurreko egunak estu samarrak izaten dira lantegietan. “Or gabiltzak danok zalapartaka –esaten zidan lagun batek leengoan–, abuztuaren ondoren agorra etorriko ez balitz bezela”.

Ikastaroaren ondoren erdipurdiko azterketak egin zituzten neska-mutillak ere ez dira lasai egongo. Agorra edo iraila bidean dala ikusita, oporretan egon arren, liburuak zabaldu bearra ez da pozgarri. Gurasoak atzetik bultzaka eduki ezker, aspergarri ere bai. Dana dala, oporrak dirala edo ikasketak dirala, abuztuaren asierako egunak mikatz samarrak izaten dira famili askotan. Noiznai ere izaten da zertaz arduratu, baiña egun auek kontuz ibilli bearrekoak izaten dirala esango nuke. Lasaikeriz jokatu ezker, gaizki. Eta gauzak estu artu ezker, lanak etxean pake santuan bizitzeko.

Gaztedia nola dabillen ikusita, bada oraintxe kezkarik asko. Soziologoak eta sikiatrak diotenez, familiak zer ikusi aundia dauka gatzetxoen portatzeko eran. Izan ere, oraindik bizarra irten gabeko mutikoak egiten dituzten ezegitekoak ikusita, bildurtu egin liteke bat. Gizarte-arazoetan jakitun diranak Madridentan egin duten billera

batean esan dute gaztetxoak bideratzeko zer egin bear dan: gurasoak ezi. Gurasoak edukatu bearra dagoela, alegia. Ez da batere erre-medio erreza. Eskuak bete lan badaukagu ere, poliziak eta medikuak lagun artu eta gaztetxoak zuzentzen asi bearuko. Ez dago biarkotan uzterik lan au. Eskolak eta maisuak ere or daudela esan ditezke. Eta zerbait egin bearuko lutekeela. Baiña eskolan dabiltzan neska-mutikoak gogorkeriari emanda omen daude, eta maisuak bildur dira eskolaumeak bear bezela portatzera beartzeko. Orratx gauzak zertaraiño iritsi diran. Nun ote dira kaskarreko bat edo beste eman eta gu zuzentzen saiatzen ziran maisu trakets aiek? Ez dakitzenbat eskola erakutsi ziguten, baiña zaarragoak errespetatzen erakutsi ziguten beintzat. Oraingo umeak eta ume larriak ez dakitena.

Sikiatra batek esan du, kotxea erabiltzeko karneta bear dala. Baiña gurasoei etzaiela erakusten guraso izaten. Filosofoak esan du, bestalde, gaztedian sustraitzen ari dan gogorkeriaren kontrako irtenbiderik onena, eziketa on bat dala. Onek ez du esan nai ezitzea umeak mendean edukitzea danik, eurentzat ona eta txarra zer dan erakutsi eta buruan sartzea baizik. Gaurko munduan naiko lan zailla gurasoentzat. Eta orretaz gaiñera guraso izateko karneta bear balitz, makiña bat geldituko litzake bazterrean. Eta ez gurasoak bakarrik, baita sikiatrak eta orrelako jakintsuak ere. A, eta agintari izateko ere ez ote litzake karneta ateratzea komeni?

Sikiatra ta filosofoak
badute naiko malizi.

Gurasoentzat badute beintzat
naiko aolku berezi.

Ez ote dute gure aldetik
erantzun on bat merezi?

Umerik ezin ezi dute ta
gurasoak nola ezi?

Danon artean sortu degun au
auxe mundu biurria!

Gazte jendea oillartu zaigu
eta nork artu neurria?

Eta beregan baldin badago
geroaren iturria

mundu berria ez al da izango
gizatasunez urria?

Ez dakit esan bearrik egongo dan, baiña gaur Zeraingo egun aundia da. Andre Mari. Eta erri ain ezaguna da! Txikia izan arren ere, kategori aundia dauka oraintxe. Bere zaindariaren eguna ere Donostia eta beste zenbait erri aundik ospatzen duten egunean ospatzen du. Ez da edozein erri koskor iristen orretara. Urtearen buruan Zeraingo berri ematen egunkari eta orrelako asko saiatzan da. Erri txiki eta txukun onek merezi ere badu orrenbeste.

Gipuzkoako errien artean plazarik politena duena Zeraingo erria dala esaten dute. Nun zer ikusiko dabilzan askori gustatzen zaio Zerain. Eta bertan jaio giñanok ezin, ba, atzean utzi. Andre Mari egunez, txistulariak *Alkate soiñua* joaz aurrean ziralda Udal Batzarra meza nagusira joaten zan garaia ezagutu genuenok, beti izango degu Zerainenganako maitasun aparta, nunai aurkitzen gerala ere. Eta, nai degunean ez bada ere, al degunero Zeraindik bueltatxo bat edo beste pozik egiten degu. Erriak eta bere inguruak oroitzapen ederra pranko sortzen dute gure biotzetan. Eta erri paketsu eta ederra ezagutu nai duen kanpotar asko ere etortzen da errira, gorantza ederrak eskeiñiz. “An bazkaldu genduen, – esan zuen Leendakariak – eta itz bat ez genduen erderaz entzun bazkal denbora guztian”. Pozez zorutzen zegoen Jose Antonio Ardanza jauna. Erriren batzuk iñoiz premian aurkitzen badira, badaki laguntzea merezi duena zein dan. Ori ondo apuntatuta edukiko duela uste det.

Gizon jakintsu asko eman du Zerainek, erri txikia izateko. Gaur etzaio erlijioari estimaziorik ematen, baiña eskola ikasteko orain bezelako erreztasunik etzanean, erlijiosoak izan ziran batik-pat erri onek ematen zituen gizon baliotsuak argitu eta eskolatu zituztenak. Orduan ere bazekiten zeraindarrak zeuden aukera apurrei etekiña ateratzen. Eta Zerainen gizon eta emakume argiak badaudela ikusteko, erriari begiratzea aski da. Itxuraz eta gizatasunez oso ondo jantzita dago erri au, bai orixe! Plaza ingurua,

erriko etxeak, Aizpeako minak, Larraondoko zerra, San Blas elizatzoxa, apaiz-etxea izan zana, eta ango erakustokia... Baita erriko kartzela ere. An egon bear izan zutenentzat etzan izango toki atsegiña, baiña orain ikusteko ederra dago. Eta esan ditudanak eta ez ditudanak, gaiñera. Zerain aipatzean, eta emengo bazterrak ikustean, aoa, begiak eta biotza betetzen zaizkigu.

Zerain gora samar jaso dedala uste duen entzulerik bada, joan dedilla eta ikusi erria. Ostatu eta Mandio bisitatuz ango giroan murgildu, inguruetako mendi ederretara eta Segurako madura zoragarrira begira une batzuk pasatu, eta orduan esango du isildu ezinda ari dan zeraindar onek dioena egia dan ala ez. Zerain ez da azaren barreneko ostoa!

Zerain dotore agertzen zaigu
Andre Mari egunean,
eta orobat bisitariak
ikusten duten unean.
Ementxe dago Goierrik duen
tokirik ederrenean.
Zalantza sortzen baldin badizu
au entzuten dezunean,
bisitatxo bat egin zaiozu
ondo datorkizunean.

Plazako arte zar aundi ura
ezagutu genduanak,
an pasatako une gozoak
gogoan dauzkagu danak.
Naiz urte asko izan ordutik
orain artean joanak,
ainbeste grazi ditu Zerainek
gure Jainkoak emanak...
Ondo gordeta dauzka guztiak
nere sorterri laztanak.

1997ko abuztuak 22

Gizonaren eta emakumearen lagunik onena, zakurra dala esaten dute. Zenbait pertsona klaserekin konparatu ezkerro, larri ibilli. Izan ere, gizonak ikusten dira, eta emakumeak geiago, zakurra katetik artu eta pasiatzen. Emakume auetako bati galdetu nion bein, zakurra izan gure lagunik onena eta zergatik erabiltzen zuen katean. Ez ote litzakeen libre obeto ibilliko. Eta beretzat

beintzat zakurra oso lagun ona dala erantzun zidan. Eta ura garbitu, ura zaindu eta arekin pasiatuz pasatzen dituela egunik onenak. Izketan ere saiatzen omen zaio. Eta dana ulertzen diola esan zidan. Eta zenbait pertsonarekin baiña obeto konpontzen dala bere zakurrarekin. Baiña libre utzi ezkerro, gauza itsusiak egingo omen lizkioke, batez ere ar-emeak topo egiten dutenean. Umeei gaizki erakusteko modukoak. Eta ejenplo txarrik ez emateko, katean lotuta erabiltzea dala onena.

Ejenplo kontu ori esan zidanean, Andaluzian, edo ondartzan batean gertatu berria etorri zitzaidan gogora. Lurralde ura bero samarra izan nunbait, eta neska-mutil bikote bat ondartzan ari omen zan zakurrak edozein lekutan egiten dutena egiten. Iñori ejenplo txarra emateko kezkarik gabe. Baiña danak ez lo egon, eta artu eta komisaldegira eramán zituen poliziak. Ez dakit zigorrik izango zuten ala ez, baiña katea ez bada ere ezaugarritzat koiillare bana jartzea etzan ain gaizki etorriko. Andik aurrera pentsatuko zuten nun eta noiz jolas egin poliziak alto emateko arriskurik gabe. Lotsa omen da norberak eduki gabe iñori eman genezaiokeen gauza bakarretakoa. Eta bein koska orretan erori dana, berriz ere eroriko da, seguru asko.

Auxe da mundua jarri zaiguna, jaunak! Leenago katerik gabe lotzen ginduzten, eta orain zenbait jende klase lotuko duen kate eta sokarik ez dago emen. Jokabide onen ondorioak naiko agirian daude, baiña askatasuna bear omen da, ba, eta or konpon. Beste bikote bati berriz kartera ostu omen zioten bere lanean fin asko ari ziralá. Eta komisaldegira joan gabe ordaindu zuten multa, bistan danez. Itsuei argi egiteko moduko jendea ugaltzen ari da. Baiña zoroaldi guztiak ez dira merke aterako emendik aurrera.

Kontuak onela dirala, etzi San Bartolome Arbelokoren eguna degu. Eta kanpoan bizi dan makiña bat seme/alaba etorriko da Zegamara egun auetan. Madrid txiki bat zan antziña erri au. Eta orain ere zerbait izango da. Festa ederrak pasatu, eta ondo izan.

San Bartolomez Zegaman beti
izan dala festa giro,
gaztetu ere egiten naiz ni
pentsatzen dedan aldiro.
Emengo berri ez dakienak,
etortzen bada astiro,
denbora asko pasa baiño len
au esango du garbiro:
bein Zegamara etortzen dana
etorriko da berriro.

Erri jator ta patxaratsu bat
badago Aizkor onduan
gutziz alaia zegamatarrak
merezi duten moduan.
Ezagutuzten ez duen arek
ez daki zer grazi duan...
Zegama bezin txoko gozorik
bai ote dago munduan
udazkeneko egoaizeak
laztantzten duen orduan?

1997ko abuztuak 29

Bat, bi eta iru. Iru egun barru, aurtengo oporrak amaitu dira onuzkero. Eun urte irauten duen onik eta txarrik ez omen dala esaten dute. Atsedenaldirik gabe urtea luze egiten da. Izaten ditu ordea tarte politak ere. Eta ezin esan amaierarik ez duen nekea dala. Oporraldia ederra izaten da, baiña laburra. Eun urte irauten duen atsegiña ez beintzat.

Oporraldiak baditu, bai, alderdi onak. Beste munduko gauzarik egingo ez bada ere, irakurtzeko zaletasuna duenak gauza asko ikasi dezazke opor garai onetan. Esate baterako, garai batean neska gazteei etxeko lanak egiten bestetan ez zitzaien erakusten. Eta gaur emakume asko dago edozer lanetarako prestatuta, eta ondo ikasita gaiñera. Idazleen artean ere badira emakumeak, eta ez nolanaikokak. Auetako batek sekulako erakutsiak ematen ditu noiznai.

Emakumeak etxetik kanpo lana egiteko artu duen joeraren berri badakigu. Baiña ez omen da joaten kanpoko lanetara etxekoa baiño geiago gustatzen zaiolako. Bi soldatarekin obeto bizi litekeela, eta orren billa joaten omen da, batez ere. Eta beste asko, kanpoko lanak asetzen ez eta etxeko lanetan saiatzen dira, familiaren kargu egiñez. Kanpoan egin bearreko zortzi orduak etxeko

lanetan pasatu naiago dute, orrela bere familia eta seme-alabei bizimodu ohea eskeiñiko diela-eta. Baita emazteari kutiziak betetzeko edo ondo bizitzeko bear duen dirua ekartzen saiatzen dan senarrari ere. Iñoiz apartatu bearko balu ere, pentsio esperantzak ez omen ditu galtzen.

Nik orrelakoxe gauzak irakurri eta ikasi ditut, besteak oporretan ibilli diran artean. Baiña entzuten zaudeten etxeoandreak, etzazute pentsatu beintzat neronek asmatutakoak esaten ari naizenik. Nik uste det au idatzi duen emakumeak nundik nora dabillen badakiela.

Seme-alabak ondo zaindu eta ezitzea berea du amak. Maite duelako bakarrik senarrari losintxa egitea, ummm! Ori beste kontu bat izango da. Emazte onak badira, zorionez, baiña deskuidoan apartatu bear izanda ere, e? Orrixe ez diot usai ona artzen. Unibertsidadeetan ikasketak egiten dituzten neskak mutillak baiño nota obeak ateratzen omen dituzte. Ez dira motelak, ez. Apartatzea pentsatuta ere...

Kontu berri bat esan didate asko arritu nauena:
etxeoandreak etxe txokoa
omen dute maiteena.
Naiz ta lanera joateko izan aukerarikan onena,
senarra ondo zaintzea dala beren amets gozoena.

Ori entzunda zelatan nago eta oso kezkatuta,
ain maite degun aingerutxoak jakinduri asko du-ta.
Ezkontzen bada ere gustoko senar zintzo bat artuta,
noiznai dibortziatzeko ere aurrez ondo gertatuta.

1997ko irailak 5

Agorrean edo iraillean sartzen geranean, ondo igarotako egunak gogoan ditugula eltzen diogu berriro bizimoduari. Leengo orduan jeiki, leenago bezelaxe lanera, lanetik etxera, bidean norbai-

tekin katiatzen ez bagera. Eta opor eta gaiñontzekorik izan ez balitz bezela, betiko sokari eldu eta aurrera. Ala ere, osasuna eta lana izan ezkerro, bizimodua etzaigu ain aldapa gora egiten. Oiek izan ezkerro, ortik aurrerakoak bigarren maillako egarriak dira. Asteburuetakoko atsedenditxoei al degun etekiñik onena atera, eta aurrera.

Datorren asteartean Arantzazuko Andre Mariaren eguna degu, ez aaztu. Eguneroko eginberrak eta beste, baditeke leen aiñako argirik ez izatea egun orrek. Baiña bere txangoaldia Arantzazun pasatzen duen aitona eta amonaxo asko da gure artean gaur egun ere. Eta aiek ere merezi dute kontuan izatea. Gizonezko baiño emakume geiago ikusten det Arantzazun egun auetan, Arantzazuko Amari bederatzaurrena egiten-eta. Antxe, pake-pakean urteko oporraldia pasatu, elizkizunetara joan, kontu kontari egonaldi ederrak egin. Irriparez ikusten da jendea, egia esateko. Danak ere ondo jantzita.

Zerbait nai litzake ainbat lan egin eta urte oietara iritsi ezkerro. Gutxiago merezitakoren bat joango zan oporretara aurten ere. Arantzazun atsedeen egun batzuk pasatzea oso ondo dago. Eta urrengo urterarteko indarrak artu gaiñera. Bidebatez, etxekoen alde eta Euskalerriaren alde eskatu Andre Mariari, eta aurrera. Beren gurasoei orrenbeste opa dien seme-alabak badaude zorionez, eta au ere pozgarria da. Arantzazuko bederatzaurrenak eta oiek ez diote ezer asko esango gazte jendeari. Eta nik ez dakit datorren belaunaldiak zer pentsatuko duen, baiña aurrekoen erakutsi danak zertarako bota bazterrera? Zerbait gordeko al degu beintzat. Gazteak orrelakoxeak izaten dira, eta urteak pillatzen dijoazkigunean izaten dira emen kontuak. Eta orduan ere txangoaldiak oso ondo etortzen dira.

Arantzazuko oitura au aspaldikoa du Euskalerriak. Eta beste urte askoan orrelaxe segi dezala nai genduke. Bitartean, abuztuko eguzki beroa eta itsasaldea ederra izango da, baiña urteetan sartuta dagoenak Arantzazun errezago etsiko du berriz ere. Agur bero bana, beraz, emen Seguratik.

Bere denbora pasa dutenak
lanpean eta nekean,
nola ez dira noizbait asiko
atsedenaren eskean?
Amonatxoak ondo jakiñik
nun aurkitu litekean,
zer gozatuak artzen dituzten
Arantzazuko pakean.

Garai batean Arantzazura
joan izan giñan oiñez,
baiña Amaren grazien berri
gaur beintzat askok jakin ez.
Amonatxoak, zuek jarraitu
fedesutsu eta fiñez,
Arantzazuko mendi santura
bisitatxoak egiñez.

1997ko irailak 12

Ez dakiena ikasten ez duena bezela omen da. Au arabar bati ikasi nion. Gezurra errez samar erabiltzen duten fama badute ere, egi biribillak esaten dituzte arabarrak.

Berri gutxi jakiten genduen leenago, eta gure inguruko mundua bakarrik ikusten genduen. Kontu aiek joan ziran ordea. Egunkari eta gaiñontzeko komunikabideak dirala medio, gertakizun askoren berri jakiten degu orain, batzutan berri emailleak nai dutena, edo nai duten bezela jakingo badegu ere. Leengoak baiño mundu geiago ere ikusten degu, zirriztu txiki batetik begiratuta bezela bederik. Leengo munduaren inbidirik ezin litekeela eduki iruditzen zait. Ez genekien ondo nolakoa zan, baiña gerra eta burruka pranko izaten zala bai, eta oiek erraminta txarrak dira bizitza ona moldatzeko.

Oraingo munduak ere badauka konpondu premi ederra. Edozer paper eskuetan artzen degula, bat andrearengandik apartatu dala, bestea gizon berri batekin alkartu dala eta orrelako berri asko jakiten degu. Aitarik eta amarik gabe gelditzen diran ume gaixoen berri askorik ez da jakiten, baiña ondorioak nolakoak diran ikusteko lain bai. Zenbait gizon eta emakume buruariñen kontuak geiago astintzen dira. Okerrena da, berri moeta oiek munduan gertatzen diran burugabekeriak estaltzeko erabiltzen dirala. Gu aozabalik gauzkan jende orren munduaren berri ez

dakigu, eta nolakoa dan ez degu ondo ikusten. Ala ere, mundu ori nolako frutuak ematen ari dan antzematen zaio alderik alde.

Unibertsidadeko ikasle batek bere katedratikoari egindako eskutitz baten berri jakin det. Asmatu dituen guztiak esaten ditu Unibertsidadeko maisuei buruz. Ezertarako balio ez duten geldo batzuek besterik ez omen dirala, eta ortik asi eta gaiñera gaiñerakoak.

Italiako uri batean, Unibertsidadeko ikasle talde bat tabernarik taberna omen zebillen zerbait ospatzen. Arabiar edo moroak esaten diegun oietako bat ibilli inguruan eta, ez au eta ez ori, ikasle oiek erdian artu zuten. Eta berari erasotzera zijoazela ikusi zue-nean, ikaratu eta aurrez-aurre zegoen ibaira salto egin zuen moroak, borrero aien atzaparretatik iges egingo zuelakoan. Uretatik irten nairik ibai bazterrera eldu zanean, mutiko zoro-gaizto aiek botella tiraka eraso eta ez zioten utzi irtetzen. Antxe ito zan, gizarajoa.

Kontu auek ez dira jentillen garaikoak, oraingoxeak baizik. Umeak azi bai, sekula baiño obeto. Baiña ezin ezi. Orra nolako mundua moldatzen ari geran.

Ez naiz aspertzen esaten
guztiak jakin dezaten
moro jendeak zein bizimodu
latza daramaten.

Ezin inguratu jaten
daukatenak ematen,
arrokeriak lagun urkorik
ez baitu izaten.

Jaunaren mandamentuak
nola dauden baztertuak,
moroak ia animalitzat
dauzkagu artuak.

Italiako kontuak
ez dira oso prestuak.
Ikusten danez an ere danak
ez dira santuak.

1997ko irailak 19

Merezi zuen maillara iristea kosta zaio emakumeari. Baiña, toki batzuetan asko falta bazaio ere, mailla ori arrapatu duela

esango nuke gure artean beintzat. Bazan garaia. Batez ere uda garaian, ia mundu guztian izaten diran Miss aukeraketak asko astintzen diran berriak dira. Leenago bezelako pekatu usairik gabe gaiñera. Gizon eta emakumeen arteko arremanak pekatu-ko arriskua ziran denbora ura joan zan, zorionez. Orain beste moduz ikusten dira gauzak.

Urteak dira apaiz bati entzun niola, ez dakit zein santuk esanda, udazkenean zuaitz ostoak lurrera erortzen diran bezela erortzen dirala animak infernura. Eta guztia, seigarren mandamentua gordetzen ez dalako. Nolakoak esango ote zituztekeen orduko elizgizonak gaur aiña Miss ikusi izan balute? Etzan giro izango inguruan.

Orain illabete pare bat edo, Miss Italia izendatzeko aukeraketak egin ziran. Zer izango, eta aukeraketa aietako batean fraille bat zegoen epaimaiko buru. Orra gauzak nola aldatu diran. Aukeratutako neska gaztea jendearen aurrera azaldu zanean, bera bezain pozik eta irripartsu azaldu omen zan gure fraillea. Eta argazia ere atera omen zioten emeretzi urteko neska zoragarria ondoan zuela. Bazekiela jolas bat besterik etzala ura, eta etzala batere lotsatu esan zuen. Eta juradu lanak bere fraille lagun guztien izenean egin zituela gaiñera. Edertasuna Jainkoak egiña izanik, emakumezkoen edertasunak Jainkoaren lana asko goresten duela, eta Miss aukeraketan maiburu izatea Jainkoari alabantzak ematea dala, ainbeste edertasun eman digulako. Ori da fraille jatorra izatea, ori. Edertasunari alde ortatik eldu, edo begiratze utsa pekatutzat artu, badago alde pixka bat.

Gizona gizon danak emaztea osasuntsu eta gazte gorde bear du, eta edertasunari luzaro eusten lagundu bear dio. Ondo zaindutako senar guriak ere praka-ipurdiak betetzen ez dituenak baiño obeto ematen du, ba, etxean. Dana dala, etxeko missa, emaztea da. Eta ura gazte eta eder gordetzea Jainkoaren naia egitea. Emazteari gozo-gozo lagun egiñez, zerua irabazteko modua. Galdetu bestela Italiako frailleari. Orrelakoak bear ditugu guk ere

inguruan, orrelako frailleak. Neskari ederrenak aukeratzen daki-tenak, eta aiek estimatzen eta errespetatzen erakusten dutenak. Ez pulpitoetako eltxor-atsak astindu eta dana infernura bidaltzen dutenak.

Fraille berriak aize berriak
nola dituzten ekarri,
zerbait lasaitzen ari gerala
zeiñek ez dio igarri?
“Au eta ori pekatu dira”,
esaten ziguten sarri...
Orain ez dago orrelakorik,
eta ez al da pozgarri?

Lenago bezain zorrotza ez da
zenbait kez karen eztena.
Egia bera ez ote zegoen
bere bidetik irtena?
Auxe da buelta aspaldi ontan
gauz askok eman dutena!
Orain frailleak esaten dute
zein dan neska politena.

1997ko iraillak 26

Etxekoandre batek estu samar artu nau leengo batean. Aientzat tresna berezia pranko asmatu dala, eta orrelako asko esaten omen det emendik. Lanak errezteko eta denbora pasatzeko ere nai aiña trepetxu daukatela. Baiña ez omen det engaiñatuko bera beintzat. Gizonak bai ederki, bateko illargira joan eta besteko gustatzen zaizkion jostailluekin probak egiñez! Illargia aipatu det, eta orain berriz, Martera bidaltzeko robot oietako bat asmatu omen dute. Eta an zerbait onik aurkitzen badute, ura ere gizonezkoentzat izango omen da, bai. Goiko mundu oietara joan gabe, emen ere bai omen dago zer egiña eta zer konpondua. Bazterrak endreatzera iñora joan gabe, emengo lanak egin bear lirakeela leenbizi, alegia. Esan zizkidanak egiak edo egi itxurakoak ziran, eta zer esango nion nik? Isiltzea onena. Urrena erara arrapatzen nauenerako gizonezkoekin erruki apur bat izango al du.

Etxekoandre ori ez da makala, nolana ere. Badaki arrazoi sakonak ematen. Dana badakitela eta, sekulako aurrerapen eta

adelantuak asmatu dituztela uste duten gizon oiek obe omen luteke etxeoandreei lan batzuek kentzeko moduko tresnak egitea. Botoi bat zapaldu utsarekin goitik asi eta beeraiño etxeo autsak biltzen dituen robotak eginda egon bear omen zuen onezkero. Aize pittin bat ateratzen duen bakoitzean or omen dabiltz etxeoandreak buru-belarri autsak bildu ezinda. Eta guztia leioa zabalik uzten deskuidatzen diran bakoitzean etxea autsez betetzeko. Ez al legoke robotari leioak itxierazterik iñori aazten zaionean? Komunak ere zikintzen ez dan materialen batekin egin omen litezke gogo aundia eduki ezkeru. Gizonak garbitu bear balituzkete, zikiñik eransten etzaion marmolen bat salgai omen zegoen onezkero. Ainbeste gizonezko jakintsu omen dago, eta utsa!

Esan zizkidanak asmatu arte, aurrerapen kontuekin ez joateko arengana esan zidan azkenik. Emakume teknikariak ere badaudela esaten asi nintzaion, baiña ez alperrik. Gizonezkoak nai ez dituzten lanak izaten dirala emakumeentzat esanda utzi ninduen. Bero-bero eginda jarri zan gaiñera... Arrazoi pittiñen bat edukiko zuen nunbait. Esan ere egin nion, ala musua gorritzen zitzaionean sekula baiño politagoa jartzen zala, eta danak an esan gabe urrengo baterako ere zerbait utziko ote genduen, ba. Etzidan begiratu ederra egin!

Dana dala, ez giñan asarretu beintzat, eta disimulatzeagatik izango zala pentsatu nuen. Ea berriz noiz ikusten degun alkar, munduari konpondu bat emateko ere...

Entzun dedanez Japonen aurki robotak izan ditezke.

Zenbat dirutan ez dakit baiña, esaten dutenez merke.

Teknikariei etxeoandreak asi bazaizkie eske, asmatu arte izango dute pakea ainbeste neke.

Robotak onak dira, zintzoak eta isillak izanik.

Baiña ez dakit morroi bezela komenigarri diranik.

Etxekoandreak izan ezean etxeak txukuntzen lanik, zer egingo du ez baldin badu zeñi erritan egiñik?

Oporrak zerbait onuragarririk ekarri diguten edo zerbait erakutsi diguten ikusteko garaia oraintxe da. Danak ez baidituzte oporrak abuztuan artzen. Atsedenaldiaren ondoren bere onetik irtendakoak ikusten dira orain. Berriro sokari eldu bearrak zearo tristetzen ditu nunbait. Erorialdi eta estresaren mende erortzeraino tristetu ere. Orrelakoei adarra jotzeko, ezer ez bagenek bezela, oporretan nora joan bear duten galdetzea bezelakorik ez omen dago. Oporrak ematen duten lezioa da au, esaten dutenez. Baiña etzait iruditzen iñori penak aaztuerazteko modu ona danik, eta jokabide kaskarra ematen du gaiñera.

Aurtengo opor denboran egun bikaiñak izan dira. Baita zer pentsatua emateko moduko gertakariak ere. Bederatzireun lagun eta geiago il dira kamiñoetako istripuetan. Zenbat naigabe eta kalte ekarri ote du familietara! Asiera argia eta bukaera illuna izaten dute oporrak, batzuetan.

Joan dan aspalditxoan zer esanik asko eman duenik bada, Lady Di printzesa izango da bat, abuztuaren azkenaldean il zan arte. Aren bizitzako gorabeerak aizea artzera ateraz, dirua pranko irabazitako berri emailleak badira, eta izango dira berriz ere. Orrelako kontuak jaso eta azaltzen dituzten errebistak salmenta izugarria baidaukate. Azkenean, pakean iltzen ere ez dio utzi printzesari zoritxarreko diru goseak. Istripuan abarrikatuta gelditu zan kotxearen burdin artean il zorian zegoela, “utzi zaudazute ba pakean, mesedez!”, erregu egiten omen zien komunikabideetako argazkilariei. Diruak ez izan biotzik ordea. Diru goseak argazkiak bear errebistak saltzeko, eta printzesaren eskari larriak alperrik izan ziran. Orrela esan dute beintzat estuasun artan laguntzen saiatu ziran medikuak.

Nolako mundua moldatu degun erakutsi digute ondo aurtengo oporrak, leenaz gaiñera. Gure morroirik onenetako bat diruak bear luke izan, eta dirua gure serbitzurako erabilli bearrean, gizona jarri degu diruaren murrontzan. Irureun milla milloitik gorako

ondasunen jabe omen zan Lady Di zana. Eta urtean larogeita amabost milloiko soldata zeukan gaiñera. Eta ala ere, soseatu ezin, gajoa. Bere zorion egarria ase zezakeen beste zerbait nai, ba. Ogeita amabost urte besterik ez oraindik, eta orra nolako azken tristea izan duen.

Andik egun gutxira il zan Kalkutako Ama Teresa monja ere, gaitzak jota miseri gorrian zeuden beartsuei laguntzen bere bizitza eman ondoren. Ark etzuen izan pakean uzteko eskatu bearrik, eta pake-pakean il zan. Orra or fama aundiko bi emakume alkarraren antz aundirik gabeak. Bide ezberdiñetatik joan dira, baiña zeruan alkartu ditezela. Orixe opa diet biotz-biotzez.

Ugari ziran lilluratuak
printzesa bat ikusita,
izanik bera gazte ta lirain,
irripartsu ta polita.
Orain Lady Di joan da bere
begi urdiñak itxita,
edertasuna eta ondasun
guztiak emen utzita.

Ama Teresa Kalkutakoa
ez da egongo azturik.
Pobreen alde lanean iñor
izan al da ain presturik?
Nola joan dan maitasunez ta
errukiz aberasturik,
zeruan ezin diteke egon
arentzat ate esturik.

1997ko urriak 10

Joan dan illaren ogeita bia ezkeroztik udazkenean sartuta gaude. Neguaren atarian, alajaiña. Gizonaren negua zaartzaroda, eta negua pasatzeko gertatu bear dan bezelaxe prestatu bear da zaartzarorako ere.

Sendagilleak urtero eta garaiz esaten digute bi negu oiek al degun ariñena pasatzeko zer egin bear degun. Ematen diguten aolkuetako bat, al degun guztian zerbait egitea da. Bai gorputza eta bai anima jardun ditezela zerbait egiten. Burua ez eduki utsik, bestela denbora luze egiten da-eta. Etxeko giro atsegiña ondo

zaindu, gizatxartu gabe bizi, eta lagunarteari eutsi. Orra denbora errez pasatzeko aukerak. Irakurri, edo zerbait egin beintzat. Orain arte astirik ezta atzera utzitako lanen batzuk izango ditugu, bear-bada. Eta oraintxe da garaia gure buruari zor ori ordaintzeko.

Oiek danak egiteko osasunak lagundu bear du. Gorputzez aultzean animak ere indarrak galtzen ditu. Eta urteko neguari eusteko bezela gertatu bear degu bizitzako neguari aurpegia emateko. Gorputzak ajeak izaten ditu urte-garai onetan. Bateko katarroa dala, besteko gripea, iñun diran motelaldiak oraintxe etortzen zaizkigu, bizitza mikazteko. Eta ala ere, orain badago erremedio bat leenago etzana: gripearen kontrako txertua, alegia. Sendagilleak isildu gabe or ari zaizkigu esaten bein irurogeita bost urtetik gorako pertsona gripeak errez menderatzen duela, eta kontu izateko. Artzeko txertua, zalantzarik gabe, orratz-zulatu bat ez dala ezer gripearen atzapparrekin konparatuta-eta. Abendu eta ilbeltz inguruan izaten omen dira gripearen astiñaldi gogorrenak, eta aurrez txertatuta egotea komeni da.

Katarroaren kontrako erremedio bat ondo jantzita ibiltzea da, eta korrienteetatik alde egitea. Gu konturatzerako kalte aundiak egiten ditu korrienteak. Etxe zuloan sartuta egoten dan pertsona tristetu egiten da, eta errez erortzen omen dira gaitzen atzapparretan. Paseatzeko ordurik onenak, bazkal aurrekoak dira, baiña etxekoandreak ere paseatu bear du. Eta nagusia eta etxekoandreak arratsalde erdian alkarrekin paseo eder bat egin dezakete. Eta gero, alkarri lagunduz afaria prestatu. Eta, guzti orretaz gaiñera, bustiari iges egin bear zaio, laranja zumu asko artu, bitaminak dauzkalako. Eta otz egiten duenean, alkarren gertu samarrean egon, daukagun berotasun apurra alkarri emanez.

Mediku jaunak esan digute danok gaitzen oartu:
“negu gorria badator eta ez beintzat gazterik zartu.

Urte batzuek joanagatik ez gaitzela zabartu.
Orain da garai eta griperen kontrako txertua artu”.

Korrienteak txarrak dirala
esan dute medikuak.
Eta arretaz entzun ditzagun
jaun oiek esandakuak.

Ardo merkeak izan ezean
guretzako modukuak,
korrienteak utzi aldebat
eta edan markakuak.

1997ko urriak 17

Norbaitek esan zuen, eguzkiaren azpian ez dagoela ezer berririk. Eta badira orrela pentsatzea ontzat ematen dutenak. Esate baterako, biar gure burua ezer gabe ikusi nai ez badegu, gaurtik asita kontuak atera bear dirala erakutsi ziguten guri. Biar zerbait izan nai badegu, gaurtik asita, al degun guztia egin bear degula, eta gordetzen asten ez bagera, biar ez degula ezer izango. Biar beariko deguna prestatzen gaurtik asi ezkeru, eta eguna orretan pasatu, ez diogu etekiñik ateratzen gaurko egunari. Orrez gainera, iñork ez daki biarko eguna etorriko dan ala ez. Eta pake-pakean utzi beariko geniokeela esaten dutenak badira, eta gaurkoari etekiña ateratzen ikasteak geiago balio duela. Eta ditekeena da. Bakoitzak geure iritziak izaten ditugu, eta ori kontuan izan bearra dago.

Ala ere, gaur kontuak ondo atera ezak ez al du biar gure burua larri samar ikusteko arriskurik? Datorrenaren kezkarik gabe bizitzeko, ganbara ondo beteta eduki beariko da. Denbora guztia gaur gaurkoari etekiña ateratzen pasatu degulako biar kaskarrari atzein bearra ez da ona izango. Leen orrela izaten zan eta orain ere bai, seguru asko. Eguzkiaren azpian leengo modutsuko gorabeerak izaten dira. Udaren ondoren udazkena izaten zan leen, eta orain ere bai.

Makiña bat eiztari joango zan aurtengo udazken onetan usotarako lekua egin edo erosi eta parera etortzen diranak botatzeko ametsetan, zer izango dan ziur jakin gabe. Baiña biar eizean egiteko tokia gaur eskuratzen ez bada, zer gertatuko da? Biarko orrek eskutsik arrapatu ez gaitzan gaurtik prestatzen saiatzeak ilu-

sioa ere badu, noski. Eta ilusioz beteta pasatzen dan egunari ez al zaio etekiñik ateratzen? Ilusioz ere bizi litekeela esan oi da, eta au ez da eguzkiaren azpian aurkitu degun zerbait berria, leendik datorrena baizik. Eizerako zaletasuna dezutenok leen bezela jarraitzea ona izango dezute. Baiña, kontuz! Ez galdu joan dan udan etxeakoandrearekin oporretan irabazitako puntu danak. Eta emazteok, senarra katean lotu bai baiña luze samar lotzen saiatu zaitezte zuek ere. Ezin diteke ilusiorik galdu. Bizirik eta serio segi, baiña ilusioz beteta bizitzea obe.

Uso eiztari bazera ere
ez dezu griña gaiztorik.
Eta munduan bai al da iñor
akats gabeko osorik?
Nai dan guztian nola ez dagon
arrapatzerik usorik,
ez egin kaso iñori eta
ez galdu ilusiorik.

Etxekoandrea, pazientzia
ar zazu udazkenean,
zure senarra usoak zerbait
xoratutzen dutenean,
mendira joan arren aizeak
bultz egiten dionean.
Berealaxe dezu ondoan
gosetzen asten danean.

1997ko urriak 24

Bein batean mixiotan lana egiten zuen erlijioso batekin itzaspertu bat egiteko aukera izan nuen. Atsedena ditzoxa artzera Euskalerrira etorrita zegoen, eta kontuak esateko gogoarekin. Mixio lurretan bizi dan jendearen miserizko egoera latzaren berri naiko garbi ikusierazi zidan, egia esateko. An ere etzirala danak ain errukarriak izango, esan nion. Egongo zirala aberatsak. Eta erlijiosoak ez al ziran aiekin obeto konpontzen pobreekin baiño. “Guk ere baditugu akatsak –esan zidan–. Ia orain artean uste genduen goiko jendearen artean erlijioa zabaldu ezkeru, gero aiek saiaturiko zirala pobreen alde lana egiten, baiña ez genduen asma-tu. Alkar-laguntza eta oiek itz ederrak besterik ez dira”.

Mixiotako kontuak esaten asi eta diruarekin topo egin genduen emen ere. Mixiolariaren itzak entzutean, arritu nintzan, egia esan. Iñork jakitekotan erlijiosoak jakin bear luke gizonaren berri, eta gizonak bere lapikoari sua egiteko duen griña ikusirik, daukanak ez daukanari emate ori zaila izan da beti. Leenari osorik utzi gabe, beste jokabide bat artu zutela esan zidan. Eta orixe bera esan du oraintsu beste mixiolari batek ere. “Gure egin bearra pobreei lanean erakustea da, lana egiteko beste edozein pertsonak bezelako aukerak izan ditzaten. Orretarako bi bide aukeratu ditugu: bat, erriko eskolak indartzea, jende pobreaki al dan eziketarik osoena emateko. Familiko eziketa bukatzean, erriko eskolan ikasi dezatela gizarte-lanetan parte artzen. Bigarren bidea, Unibertsidadea da. Unibertsidadea ez dedilla izan karrera bat ikasi eta kanpora lanera joateko. Unibertsidadean ikasi dutena izan dedilla, beren erriaren alde lana egiñez, erriaren gidari izateko”.

Au entzunda, ezin esango degu erlijiosoak bide txarretik dijoaztenik. Baiña ez daukate lanbide erreza. Ipar Amerikatik ez dituzte begi onez ikusten jesuitak, eta erlijoaz gaiñera lanean eta gizarteko arazoetan parte artzen erakusten dutelako guztia. Bere buruaren jabe izaten utzi nai ez iñori! Aginpidea geuretzat nai, eta dirua zer esanik ez. Munduko gizarajoak ez dituzte bereala praka berriak egingo nazio aundietako agintariak lagunduta. Fraille eta jesuita, eta oiek egin bearko dute lana berriz ere.

Dei estu eta larriak datoz
mixio lurretatikan.

Baiña laguntza ez da joango
emendik aruntz korrikan.

Joanda ere nai dan guztia
ez dago egiterik an...

Nai duten dana daukaten asko
daude Ipar Amerikan,
baiña geroz ta jende geiago
goseak iltzen Afrikan.

Premian dagon gizarajo bat
badator gure artera,

or ezikusi egiñez danok
begira beste aldera.

Ez degu iñor animatuko
ari lagun egitera...

Au da iñori ez opatzea
on egiteko aukera.

Ez degu asko pentsatzen baiña
egoskor utsak gera.

Berriketaldi au entzuten dutenen artean izango dira oraindik *Santa Infancia* esaten genion egun artaz gogoratzen diranak. Guretzat, Txinako aurtxoei bidaltzeko txanpon batzuek eskolara eramateko eguna izaten zan. Misiolariak lana egiten zuten toki urruti guztietako aurtxoak txinoak izaten ziran guretzat. Orrela esanda ulertzen genduen gu baiño gaizkiago bizi ziran aurrak bazeudela munduan. Geuk ere ez gendukan, ba, ezer gaiñezka, baiña... Lurralde aietan aur asko bataiatu gabe iltzen omen zirala esaten ziguten, eta gero linbora joaten zirala. Eta misiolariei aurtxo aiek bataiatzen laguntzeko bidaltzen genduen gure limosnatxoa, gero zerura joan zitezten.

Ez dakit *Santa Infancia* bizi dan. Linboaren berririk ere ez da entzuten, baiña txinarren eta emengoen arremanak irauten dutela dirudi, eta sekulako aldaketak eta aurrerakoak egin dirala gaiñera sail onetan. Leenago guk aurrei laguntzeko Txinara dirua bidaltzen genduen bezela, orain Txinatik onuntza aurrak bidaltzen asi omen dira. Izan ere, zertarako bidali dirua ango aurrei laguntzeko? Aurrak onuntza ekarri eta dana eginda dago. Ori da buruz jokatzea, bizitzeko bide berriak idekitzen beti leenean egon gabe.

Leenago guk bidalitako txanponak, urre gorri biurtuta datoz orain Txinatik. Ez dago begiratu besterik. Gure lurralde onetan geroz eta aur gutxiago jaiotzen da. Eta emendik amabost urtera, jubilatuei zaarsaria ordaintzeko komeriak izango dirala esaten dute. Aur gutxi jaiotzen bada, zailla dala langille asko izatea. Bai ote? Berriz ere aberatsak baiño langilleak ugariago izango dirala pentsatzen nuen nik. Dana dala igaz baiño amasei milla ikasle gutxiago sartu omen dira aurtzen gure errietako eskoletan. Eta orrela bagoaz, andereiño eta irakasle mordoska bat lanik gabe gelditzeko arriskua dator laister. Txinara bidali bearreko diruak emen kastatzen baditugu, eta aurrak andik ekarri, bi irabazi lortu-

ko ditugu orrela. Ezin esan leengo laguntasun aiek esker txarre-koak diranik.

Españia ta Txina asiak
omen dauzkagu lanean,
aurtxoak andik inguratzeko
ala komeni danean.
Seme-alabatxotzat arturik
legearen esanean,
gero emengo izan ditezen
gizondutzen diranean.

Aurtxo txikiak nai dituenak
egin bear esamiñak,
ta merke samar inguratzeko
jo ere bai alegiñak.
Aurgintzan ere txinatar oiek
dira ain langille finak!
Parisen baiño modu obean
dauzkagu Txinan egiñak.

1997ko azaroak 7

Komentu bateko monjak oso lagunak ditut. Premiazko zer-bait ez badute, ez dira komentutik irtetzen. Eta noizean bein neu joaten natzaie bisitatxo bat egitera. Guztiz argiak dira, eta oso ondo artzen naute. Ardo gozoa eta komentuan egindako gailletak ez dira falta izaten ni joaten naizenean. Ain dira atsegiñak eta kontuesale alaiak, aingerutxoak ematen dute, eta egunero lantzen duten pake santuan bizi dira. Izango dituzte bere gorabeerak, baiña gaitzen ez balekitez ez luke komentu askok zutik iraungo.

Komentutik irtetzen ez badira ere, ez uste izan munduko berri ez dakitenik. Nik ez dakit nola moldatzen diran, baiña gaurkotasunean bizi dira. Baiña ez munduan bezela batzuek besteak baiño geiago diralakoan. Zeruan ere gertatu omen zan ori, Luziferrek Jainkoa aiña zala uste, eta San Migelek menderatu eta infernura bota zuenean. Uraxe izango zan infernuaren sorrera, seguru asko. Baiña ez derizkiot nik ezagutzen ditudan monjatxo oiek arroak diranik. Zer egiten dakitelako izango da.

Guadalajarako komentu batean bost monja bakarrik omen daude. Eta Gotzaiak beste komentu batzuetara banatu nai ditu,

orain dauden komentu ori itxita. Monjak, burua makurtu eta Gotzaiaren aginduari amen esango ziotela zitudien, baiña ez. Ori injustizia izango litzakeela eta sakanabatuko diran baiño leenago eskatuko diotela laguntza Aita Santuari. Oillo bat beste oillategi batera joaten bada, ango mokoka guztiak arentzat izaten dirala. Eta Gotzai jaunak jakin bear lukeela orrenbeste. Erriko bizilagunak ere eurentzat artuta dauzkatela, eta Vatikanotik komentuan jarraitzeko baimenik ez baletor, etxera joango dirala gaiñera.

Guk, txapela erantzi bear izaten genduen abadearen aurrean. Isillik gaiñera. Etzegoen protesta egiterik. Orain, aldiz, komentuko monjatxo apalak Obispoari ezetz esateko trebe dira, eta aurrez-aurre beren arazoak azaltzeko ere bai. Beekoak beren buruak zaintzen ikasi dutela dirudi, edo ikasten ari dirala gutxienez ere. Bazan garaia. Goikoen esana gogo txarrez egitea baiño itz egiñez bide berrien billa saiatzea obe da, izan ere. Errian, etxean eta komentuan ere bai, noski.

Oilloak ere ez dute joan nai
oillategi arrotzera,
an dauden oillo zarren ordena
ta mokokadak artzera.
Okerra egin baiño lenago
kontuak ondo atera.
Aingeru bati etzaio bear
bultz egin bide txarrera.

Danok bildurra izanagatik
iñoren mokokadari,
noizean beinka iges egiten
aragizkoa danari.
Etzaio artu erazi bear
berez umilla danari...
Goian daudenak begira ondo
bekoen arazoari.

1997ko azaroak 14

Gizonaren bizia laburra dala esaten da. Gauza batzuei antzemateko bizitza osoa ez degu naiko izaten. Ez gutxi dakigunok bakarrik, jakintsuk eta agintari asko ere zertan ari diran antzeman gabe joaten dira mundu onetatik.

Zenbat urte ote dira gure errietan dantza lotua edo baltseoa debekatu zala? Eta ez pulpitoetatik bakarrik, udaletxeetatik ere bai. Erriko plazan soka-dantza ateratzekoan ere neskak eta mutillak pañuelo bat erabiltzen zuten eskuetan, batek besteari ez ikutzeko. Etzegoen alkarri elduta baltseoan asi besterik! Ez giñan oso bizkorrak izango, baiña noizbait konturatu giñan orratik neska danak etzutela atzaparka egiten. Gure errietako alkate eta bikario askok etzituzten urte ederrak pasatu neskak eta mutillak egindako pekatuekin kondenatuko ziran bildurrez. “Besteren pekatuarekin ez da iñor kondenatzen”, zioen esaera zaarrak. Baiña etziran konturatzen nunbait.

Gazteak askatasun zale izan orduan ere, eta erritik aparte billerak egiten asi ziran. Eta ura zan berriz ortik onerakoa! Baltseoan ari ziran neska-mutilen artean infernuko deabrua ibiltzen omen zan jolasean, eta ortik pentsatu. Aspaldi onetan ez dira sartzen dantza kontuetan erriko agintariak. Eta aldizkari eta errebista asko pulpito biurtu dira. Oraingo elizgizonak ere gauzak beste modu batean ikusten dituzte, eta aldizkarien bidez beren erakutsiak ematen saiatzen dira. Urte asko bear izan badituzte ere, gaztediaren alde lana egiteko bide egokia artu dute, azkenik. Denboraren denboraz, garai bateko billerak diskoteka biurtu dirala ematen du, baiña gure elizgizonak begi onez ikusten dituztela. Konturatu dira millaka gazte diskotekatan pozik bildu eta dibertitzen dirala. Eta gazte oiek elizatik edo elizgizonetatik urrun badabiltz, eurak joan beariko dutela gazteen billa. Lantegi zailla da – esan dute aldizkarietako sermoilariak – baiña gazteetara urbiltzeko beste biderik billatzen ez badegu, eta pasatutako une txarrak aaztuerazi eta aurrerako bidea artzen erakusten ez badiegu, garaia baiño leen zaartutako gazte asko izango degu gure artean. Mundua aldatuz dijoala eta azkar, eta prestatzen danari begira bizi bear degula diote. Gazte askorentzat lagun onak egiteko eta gorputz-animak ondatu gabe egurasteko toki egokiak dirala diskotekak.

Gauza asko eta garrantzitsuak esaten dituzte gai oni buruz elizgizonak. Gaurkotasunez betetakoak. Ala ere, berriketaldi baterako geiegi. Baiña gazteak gazte dirala, eta debekuen orde z gazte bezela bizitzen eta portatzen lagundu bear zaiela. Garbi dago, ez? Gure garaian orrela mintzatu izan balira!

Bide zuzena artzeko beti ez da pentsatzen geiegi, ustez jakintsu diranak ere ez dute naikoa begi. “Orain artean ala zan eta zergatik ez ortan segi?” Baiña len egin ziran okerrak zuzendu ezkeru ongi, esango nuke sekula ere ez dala beranduegi.

Modu batera pentsatzen zan len eta gaur oso bestera. Garaia zan da ia-ia sartu gera bide zuzenera. Gaur badakigu desegokia zala lengo pentsaera. Mami gabeko esan ariñak utzirik alde batera, ondo esanak ondo artu ta segi bidean aurrera.

1997ko azaroak 21

Garai batean izaten ziran txanpon batzuk irabazteko maletak eramaten laguntzen zutenak. Geltokietan egoten ziran, batez ere, trenu noiz iritsiko zai. Gero, maletaz kargatuta zetorren bidailariak izaten zuen nork lagundu, zerekin ordaindu eduki ezkeru.

Bein batean fraille bat jeitsi omen zan trenetik, izugarritzko maletatza batekin. Ezin omen zuen eraman. Eta, ala, maleteroari bereala argitu omen zitzaizkion begiak, eta ez dakit laguntasuna frailleak eskatuta ala, sari polita izango zuela pentsatuta bere burua berak eskeiñi eta maleta komentuko atariraiño eraman omen zion beintzat maletero jaunak. Pardela utzi eta izardia legortzen asi zanean, “milla esker!”, esan eta fraillea komentura abiatu omen zan. “Erdia dirutan emango balit, sikira...”, erantzun omen zion maleteroak.

Udazkenero izaten dira itzaldi bereziak jubilatuentzat. Eta orrelakoen berri jakiten dedan bakoitzean, fraillea eta maleteroa-
ren historia etortzen zait burura. Onekin ez nuke esan nai zaarsa-
rituei eta aien familiei eskeintzen zaizkien itzaldiak alperrikako-
ak diranik. Danok daukagu ikasi bearra emen. Eta ikasteko garai
pasaturik ez da, eta jakiteak ez du kalterik egiten. Beraz, izan
bitez ongi etorriak itzaldi oiek, zaarrak gazteei bizitzen uzten, eta
gazteak zaarrei pazientzia artzen ikasteko. Emen ere beste fraille
bati entzundakoa datorkit burura: “komentuko alkar-bizitza ez da
erreza berez, eta pazientzia aundia bear izaten da...”.

Buru egiten duenaren aginduak txintik atera gabe bete bear
diran tokian, bearako pazientzia izan. Aitona-amonak, gurasoak,
gazteak eta umeak batera bizi diran etxeetan zer bearako dan pen-
tsatu besterik ez dago. Eta ez pazientzia bakarrik, pazientzia
artzen jakin bearra ere bai. Maitasuna itz ederra bada ere, ez da
arbolatik artu ditekeen eldutako sagar musu gorria bezela.

Gaurko munduari begiratuta, alkar-bizitza erabat zaildu dala
eta ia eziñezkoa dala esatea ez det uste gezurra esatea danik.
Alkarrekin pakean bizitzeko nola portatu bear degun jakiteko pre-
mia danok daukagu. Itzaldi oiek oso ondo daude jubilatua egin-
dako lanak saritzeko, osasuntsu bizitzen erakusteko. Baiña erdia
dirutan emango balute, sikira... Batzuentzat beintzat mesede ede-
rra izango litzakeela pentsatzen det. Badakit anparorik gabe gel-
ditzen ziran leengo mutilzaar aiek etzerala askoz obeto izango,
baiña. Xenpelarrek esan zuen ori oso ederki. Begira:

Egon zaitetz aditzen
zartuta nola gabiltzen.
Gazte denboran ezkondu gabe
errez da gelditzen.
Orain ajiak berritzen,
indarrak ere urritzen...
Soldata gabe orain jarri naiz
anaia serbitzen.

Anaiak nauka mendian,
koiñata aldamenian...
Gazte denboraz akordatzen naiz
sasoia joanian.
Ez det gularik janian,
gau ta egun beti lanian...
Ondo eginda esker gaiztua
gero azkenian.

Illobak nauka arrotza.
“Ua emendik orrontza!”.
Nekia pranko, esker gaiztua,
alimentu motza.
Soldata gabe morrontza.
Begiratua zorrotza...
Animosua ez dago mutil
zarraren biotza.

1997ko azaroak 28

Leengo antigualeko kamioitzar geldo aietako bat ikustean, aitona bati entzuna datorkit gogora. Aitona ura itzaia zan, eta ala zioen: Uztarrian idiak lotuta joan bearko diagu orain azaldu diran kargamentuko automobil oiei puntako egitera. Nekez baiña seguru zetozen aurrerapenen berri ez jakin, gizarajoak. Tramankulu aiek kamioi dotore biurtu eta idiak eta itzaiak ezkutatueraiziko zituztenik pentsatzen ez ark.

Beste aitona bati berriz, ez omen zegoen sinistuerazterik gizonak airean ibiltzen asi zirala. Artean aireplanorik ikusi gabe egon, eta soroan lanean ari zan batean an azaldu omen zan ia lainoak joaz, bi egoaldiko aireplano kaskar aietako bat, burrunka eta zarata zeriola. “Ikusten al dezu ori, aitona?”, galdetu zioten. Eta ark erantzun: “Bai, ikusten diat. Baiña zuek ere lanak izango dituzue bizimodua ateratzen...”. Bere otsa entzun baiño leen gaiñera etortzen zaizkigun oraingo egazkin oiek ikusi izan balitu, burutik naastuko zan aitona gizarajoa. Eta egazkin oietan sartuta gaurko jubilatua Palma de Mallorca edo Kanariatara joango zirala esan izan baliote? Kontu zaarrak dira. Baiña nola izan giñan eta nola gabiltzan noizean bein pentsatuko bagendu, ainbeste aitzaki eta kotta ez genduke kontatuko, bearbada.

Onekin ez det esan nai oker guztiak zuzenduta daudenik. Zer konpondua badago oraindik ere, zoritxarrez. Eta urrutietara joan bearrik gabe gaiñera. Millaka milloiak kostata iñun diran museoak egin ditugu, baiña makiña bat gazte badago ezkondu ezinda, etxebizitzak begi bietako argia kostatzen diralako. Azkar ibiltze-ko moduko autopistak ere badauzkagu aietan ibiltzea ordaindu ezkerero. Baiña gurdibideen moduko kamiño arriskutsu eta trake-tsak ere bai. Espaiñian bakarrik zortzireun milla eta geiago ume omen daude lana egiñerazten zaienak. Famili ugarietako neska eta mutil koskorrak, neskame eta morroi joan bear izaten zuten garai triste ura datortik gogora.

Gezurra badirudi ere, garai artako penak paperetatik bertsoak kantatuz aazten ziran askotan. Orduan ez baitzan gaupasarik. Geu ere ez gera diskotekatara joaten, eta bertso zaar batzuk kantatzea ondo etorriko zaigu, gure aurrekoak zer pentsatzen zuten eta nola bizi ziran gogoratuz. Bertso auek Juan Kruz Zapiraiñek jarriak dira, orain eun bat urte inguru. Orduko jendeak gogoz kantatzen omen zituen.

Ai, gure antziñako
guraso nobliak
zituzten legiak,
guk aiña trabaju ta
fetxarik gabiak!
Adelantua dala
uste du jendiak
jarri dituztelako
trena ta tranbiak.
Ondoren datozenak
ez dira obiak.

Orain eun urteko
zenbait gizon abil
ez baziraden il,
bat xoratu liteke
munduan balebil.
Emengo tren ta tranbi
eta automobil!
Itza berriz noranai
alanbrian dabil...
Lengo bidez gezurra
besterik ez dabil.

Tren ta tranbi bidiak
ikusten emen
zaleturik gauden
Izan ere alako
jornalak al zeuden!
Iru edo lau pezeta
irabazi arren,
bizioz bete gera,
zorrak berriz gailen.
Askotan kastatzen da
kobratu baiño len.

Eztet nai gizasemei,
ezkongai ta ezkondu,
ez eman, ez kendu.
Dan gauza aitortziak
lotsa ematen du.
Aita eta amak jantzi,
etxian mantendu...
Askok irabazia
eskas izaten du...
Probatzen dubenak
ala esaten du.

1997ko abenduak 5

Udako eta udazkeneko egun argi eta gozoak gogoratuta neguak ez al du tristura pixka bat ematen? Negua negu izaten da beti, eta onena egiten duela ere, luze egiten zaigu. Bai orixe. Abendua ere neguak ekartzen du ordea, eta, batez ere etxeko giroa maite dutenentzat illabete gozoa izanik, bateko eta besteko berriak jakiñez eta epelean gozo, egun atsegiñak ematen badaki neguak ere.

Ipar Amerikan, bere otsa baiño azkarrago ibiltzen dan automobilla asmatu dutela irakurri det. Orduko milla kilometro eta geiagoko abiada arrapatzen omen du. Bide egokiak baleude, emendik Sevillara ordubetea joateko aiña. Espaiñiako kamiñoetan urtean bost milla lagunetik gora iltzen dira, eta Gobernua naiko kezkatu dago. Ameriketara dauzkaten bezelako kotxeak nai baditugu, berriak alde batera utzi eta kamiño tajuzkoak egiten asi ditezke gure agintariak, bestela a zer nolako bakanketa eta entresakak egingo diran!

Orrezaz gaiñera, gasolinarekin elektrizidadea merke egiten ere asmatu dute Amerikan. Bi milla eta amargarren urtean edo

orrela martxan izango omen dira inbentu berri orrekin ibiltzeko moduko automobillak. Oraindik bagaude puska baterako. Baiña bizi danari iritsiko zaio kotxe bikaiñetan azkar eta merke ibiltzeko garaia. Beno, azkar, bai. Baiña merke... Kamiñotik zerura zuzenean joaten diranak, or konpon!

Berri auek, esan bezela, Ipar Ameriketatik datoz. Ego Ameriketean ez daukate orrelako panparroikeririk, eta Afrikan ere ez. Baiña amerikanoak antzeman diote automobillentzat erreka merkea egiten badute, irugarren mundua deitzen degun orretan kotxeak erruz salduko dirala, eta alegiñak egin naiko dituzte. Alaxe izan dedilla. Miseria ere bizkarrean baiño errezago eramaten da kotxean, eta irugarren munduko errukarientzat ez da gaizki etorriko. Aberatsak izan arren dirua maite duten amerikanoak, errukiz ez bada diruz egin dezatela zerbait beartsuen alde.

Oiek orrela izanik, etxekoandreak izango dute suertea berriz ere. Gasolinarekin egindako elektrizidade merke ori, automobillak erabiltzen asi baiño leen iritsiko omen da etxeetara, eta urte gutxi barru gaiñera. Orrela, garbigaillua eta oraindik asmatu ez dituzten tresna guztiak utsa prezioan erabilliko dituzte argindar berriarekin. Etxeko epeltasunean gozatu ederrak artuko dituzte senar gizarajoak elurretan lanera joaten diran bitartean.

Ameriketean buru argiko
jakintsuak nola dauden,
oraindik gauza arrigarriak
ikusteko gaude emen.
Orra nolako indar merkea
ta ona asmatu duten.
Etxekoandreak zai daude eta
etorri bedi lenbaitlen.

Zenbat mesede egin dezaken
argindar merke ta onak!
Andrerik gabe lan egiteko
naikoa dira gizonak.
Etxekoandreok, ez du kalterik
etxean lasai egonak...
Laister dezute zuen esku ta
artu nere zorionak.

Abendua ari zaigu poliki-poliki poz pixka bat ematen duten egunak eskeintzen. San Nikolas eguna joan zan, eta Santa Lutzia badatorkigu. Jostunen zaindaria, garai batean. Ameriketako antzera, bakero prakak jantzita ikusten ditut neskatxak, eta ez dakit josten ikasten duten gaur egun. Iñun ziran kontu zaar guztiak jorratzen ziran garai bateko jostundegi aiek bazuten lillura. Santa Lutzi egunean jostun gazteak Donostiko kaleak alaitzen zituzten garai ura joan izango da, agian. Oker baldin bagaude, eta jostun-gai panpoxa aien oiñordekorik baldin badago, barkatuko al didate nere ezjakintasuna.

Zumarraga eta Urretxu aldean ere izango da biar zer ikusi. Perira joaten diranak, asto aukera aundirik ez dute aurkituko, bearbada. Zaldi, beor eta moxalik ere ez, leen bezela. Aien orde, baserriko lanetarako tresna egoki askoak bai. Bat eta beste esaten badegu ere, baserritarrak aurrerako galanta egin dute joan diran urteetan, baserriari ateratzen dioten etekiña bidean billatutako zerbait ezpada ere. Baserritar bat baiño geiago izango dira kotxean edo Land-Rover ederrean peria ikustera joango diranak. Eta ezerk pozik ematen badit orretzek ematen dit, egiz. Bazan bai garaia baserritarrak edozein langilleren maillara iristeko, eta baita nagusien pare izateko ere.

Santa Lutzia, ikusmenaren zaindaria omen da, bistaren zaindaria. Leengo oitura danak etziran alperrikakoak, eta eska dezaio-gun laguntza, gure begiak ondo gordetzeko. Oiturak, esan det. Eta baziran falta aundirik egiten etzutenak ere. Orain, Iker eta orrelako izenak entzuten dira. Ez det esango gaizki dagoenik. Gurasoak badutela eskubidea esan diteke umeari nai duten izena jartzeko. Baiña dana berritu nai onekin, ala ere, punta batetik bestera ez al gera joango, Aker eta orrelako izenak jartzen asiz. Leengo bideetatik ibilli bagiña, etzan arrigarri izango gaur jaiotako neska txikiari Amonaria izena jartzea. Gaur, izan ere, santa orrexen eguna

baita. Eskerrak astoak erostetik traktoreak erostera pasatu geran bezela leengo izen aldrebes asko utzi eta oraingo izen modernoak modan jarri ditugun! Eta santa Amonariak barka dezaidala, entzuten badago.

Lengo oitura danak etziran
poz aundia artzekoak,
izanagatik guraso zarrak
guri ezarritakoak.
Ta etzaizkigu aztu ainbeste
aldiz ikusitakoak:
izen itsusi samarra zuten
neskatxa polit askoak...

Oraiñaldian euskaldun izen
garbiak dauzkagu modan.
Eta pentsatzen jarri ezker
zein oitura jatorra dan!
Gure euskera ez dezagula
bota goitik bera maldan...
Gurea da ta eutsi, mutillak,
ta ez egon duda-mudan.

1997ko abenduak 19

Zorioneko dirua. Emen sortu diran istillu eta karramarrak Eusko Jaurlaritzak tabernak zerbait leenago isteko agindua eman duelako! Gazte jendeak ez du ondo artu beintzat. Ez da arritzeko. Gazteentzat ez baita agindu onik. Agintari eta gaiñontzekoak zein dira, izan ere, gazteei zer egin bear duten agintzeko? Tabernariak ere kopeta beltza jarri diotela uste det aginduari. Goizaldera, illunetik argitu bitarteko tarte orretan biltzen omen dute dirurik geiena. Eta ordurako tabernak itxi ezker, dirua falta. Osasunari baiño irabaziari geiago begiratu bear izatera ekarri gaitu bizimoduak. Gazte jendearen poltsiku ondarretako diruak biltzeko garairik egokienean tabernak itxi bear, alakaiña! Eta erru guztia zaar jendeak omen dauka. Orrela esaten dute, bai naikoa edan gabe etxera joan bearrean gertatu diranak eta bai gazteen egarria asetzen dutenak ere.

Ez da orrenbesteraño izango. Erreparatzen jarri ezker, goizaldera entzuten diran tajurik gabeko kantuak pixka bat leenxea-

go isilduerazi, lo egiten uzten ez duten motorren marruak mutu-tu, ondakin zakuekin futboleak egiterik ez, nazka emateko moduan bazterrak zikindu eta orrelako azioak egiteko aukerak murriztea besterik ez da egin. Zaarrak izango dituzte akatsak, bai. Baiña gazteak ere ez dira beti santu egiteko moduko bidetik ibiltzen. Aitak eta amak neurrik artuko ez baliote, asteburuetan zenbaterainoko deiadarrak aterako ote lituzkete, jan eta edan bapo eginda, indarrean dauden zekor koskor oiek? Bestalde, gazteei eskatzen duten guztia ematen asi ezker, pakerik izango ote litzake familietan?

Oiturak aldatu egiten dira. Eta gaur, parrandarako orduak laburtu zaizkie gazteei. Ez det uste zaarrak eta agintariak agintze-agatik bakarrik egingo zutenik ori. Errespetoa eta eziketa egokia gauza onak dira gizarterako. Birtute oiek ez dira beren kasa sortzen ordea, gutxi edo geiago penatuta baizik. Eta oiturak aldatzen ari geran bitartean, goizaldeko orduak naasten dituzten bulloso eta nabarmen oiek lagunartetik uxatzea ez litzake gauza txarra izango. Bat eta beste esaten badegu ere, gazte jator eta sano asko dago oraindik. Baiña trakets banaka batzuk formal askok baiño marru eta zarata geiago ateratzen dute. Eta oiexek naiko gaztediari fama txarra emateko.

Oraindik zerbait falta da baiña
laister gera Gabonetan,
urte guztian izaten diran
egunik alaienetan.
Egun sortatxo zoragarri au
pozgarria da benetan!
Saia gaitezen zorion billa
ain une atsegiñetan,
pake santurik falta ez dedin
euskaldun familietan.

Batzuentzako Gabon da eta
zenbaitentzat Olentzero.
Egun auetan ez ote degu
guztiok zerbait espero?
Gure biotzak jarri ditzagun
maitasunez bero-bero...
Ori egiñez zorion bera
jaso genezake gero.
Pakea ere izango degu
ortan saiatu ezker.

Kaixo, entzuleok. Zer moduz aurtengo Gabonetan? Mundu onetako gorabeera guztiak bezela, izango zituzten aitzakiak, eta izango zituzten une atsegiñak. Zorion osorik ez danez, Gabonak ere ezin iges egin lege orri. Ala eta guztiz ere, osasunak lagundu badu, Gabon jai onak izan dira, eta ez dago zer esanik.

Aspaldiko oiturari eutsiz, aurtxoak pozik ibilli dira kale eta atariak kantuz alaitzen. Batzuek Jesusen jaiotza gogoratu digute, beste batzuek Olentzerori eskeiñi dizkiote bere kantuak. An eta emen, jaiotzak ikusi diran bezela ikusi dira bitxiz eta argiz betetako Gabon-zuaitzak. Baiña danak gauza bera adieraziz: Gabon. Oiturak, pentsatzeko erak eta ospakizunak zer esanik ez, orrelakoxe gorabeerak izaten dituzte. Baiña alkarrekin ondo etortzen dira urte-sasoi onetan. Gabonek egiten duen miraria izango da.

Gabonetan piñua jartzeko oitura Frantziako Alsazia lurraldetik omen dator. Eta bosteun urtetik gora ditu. Alderdi aietan berealaxe indartu omen zan oitura, eta alakoxe indarrean jarri ere! Orain lareun eta berrogeita bi urte, ango erri batzuetan Gabonetarako piñuak botatzea galerazi bear izan zuten, basoetan kalte aundiak egiten zituztela-ta. Emen gorostia botatzea debekatu bear izan zuten bezelaxe, noski. Baiña lege ori errespetatuko ote degu danok, bestela laister ezkutatuko da gure mendietako zuaitzik ederrenetakoa dan gorostia. Lastima izango litzake, orratio! Besterik gabe Gabonak edertzeko piñuak soroak betean dauz-kagu gaur, eta obe degu aietaz baliatu, gure basoak soildu baiño.

Gabon jaien ezaugarri bezela piñua artu badegu ere, onek ez ditu beste oiturak zearo galerazi bear. Etxe askotan ikusten da argiz eta gozokiz betetako zuaitz txiki bat, eta bere oiñetan, jaiotza. Jesus aurtxoa, seaska txiki batean. Besteen iritziak ere errespetatzea dala auxe esango nuke. Eta ala bada, izan bitez ongi etorriak leengo jaiotza eta oraingo zuaitza. Baita iru Erregeen eguna etorri zai egon gabe Gabonetan erregaliak ekarten dizkigun

Olentzero ere. Familietan poza eta alaitasuna sortzen duten oiturak, danak dira onak.

Urtezaar ere gaiñean degu. San Silbestre eguna. Urte au ona ala erdipurdikoa izan dan kontuak ateratzen nekatu gabe, bukaera ona eman dezaigun. Itxurazko afari batekin, baiña, beti esaten dedan bezela, kattuerdikotik pasatu gabe. Urteberria ez dezagula asi buruko miñarekin. Eta ekarri dezaigula umorea eta osasuna. Bi lagun oiek gurekin badira, urte berriak jarriko dizkigun esi guztiak salto egin eta aise pasatuko ditugu berriz ere.

San Silbestreteren egunez egin
izan degu esamiña,
joan dan urteak egin ote dun
gure alde alegiña.
Zailla da eta etzan izango
guztiok nai bezain fiña...
Baiña beste gauz bat ere bada,
gaiñera ondo jakiña:
urtea ona izango zala
geu onak izan bagiña. (bis)

Une gozoak eta mikatzak
makiña bat gorabera,
ia bukatu dan urte onek
izan du, alde batera.
Ez dakit egin degun aurrera,
ala joan geran atzera...
Eta auxe da mundu guztira
egiten dedan galdera:
Utzi besteei pake-pakean.
Geu onak izan al gera? (bis)

Askotan beintzat ez ote gabiltz
zer geran ere aztuta?
Iskanbilla or, burruka emen,
erabat naspillatuta.
Gutxi izanik, indarrez urri
eta sakabanatuta...
Irabazian irten gindezke
beste bide bat artuta.
Pakeak egin ditzagun, bada,
premia badaukagu-ta. (bis)

Aurkibidea

Eskeintea	7
1993 urtea	9
1994 urtea	89
1995 urtea	171
1996 urtea	257
1997 urtea	343

Auspoaren azken liburuak:

- 273 Emile Larre
Ene artzain etxolak
- 274 Joxe Mari Aranalde
Xalbadorren barruan
- 275 Joxemari Iriondo
J. Lizaso: nere aldiko kronika
- 276 Jose Insausti
Beti bertsoa buruan
- 277 Manuel Matxain
Uste gabean
- 278 Inozentzio Olea I
*Ostiraleko kronika.
Segura irratian*
- 279 Inozentzio Olea II
*Ostiraleko kronika.
Segura irratian*

ISBN 84-95378-60-4



9 788495 378606



Auspoa